

EUSKALTZAINDIAK 25 URTE BETETZEAN BATUAREN ARAZOA

25 urte dira Euskaltzandi berria sortu zanetik: Zaarkeriak utzi eta Gaztekeriak sartu. Ori izan zan Euskaltzaindi berri onen eginbearra. Aurreko 50 urteen lanak ukatu eta era berri bat, betirako, sortu.

Zelako girotan egin zan aldaketa eta iraultza ori agertu nai nuke eta orretarako Don Manuel Lekuona'ren aurka zabaldu zan agiri bat. Agiri ura artutakoen artean Jose de Arteche idazleak gendukan bat. Ondoren, 1970'ko Dagonillaren 9'ko Zeruko Argian idatzi zuen lan au:

LOTSA GORRIZ

Gaur uztailak 23. Karta bat ekarri didate goizean nere lantegira. Korreoz iritxi da. Donostian botatako eskutitz aztun xamarra. Ireki det. ¿Zer ote dakar?

Zazpi zortzi edo orri aunditako idatzia. Ez dauka firmarik. Erderaz esaten dan bezela "anonimoa". izengabea, baiñan bere egillea aalegindu da, ori bai, idazki txukun bat ateratzen.

Gutziz apaiña da, eta ez diot au parre egiteagatik. Egia esaten det, besterik ez.

Osoan ez det irakurri. Aurreneko orria bakarrik, eta au ere erdizka. Alde bate-tik firma gabe datorrelako, bestetik oso luzea, eta arrazoi guzien gaiñetik, ezin esan alako pena artu dedalako.

Gipuzkoar benetan agurgarri baten kontra dago egiña.

Agurgarria edadez, agurgarria jakitez, agurgarria berezikoitasunez. Eredu argi bat dan apaiz jaun batez gizatasuna ezereztu nai du "anonimoak". Au da egia.

¡Ai orrelako asko bagenitu Euskalerrian!

Ez naiz ni bakarrik idazki ori artu dedana. Beste batzuen eskuetara ere iritxi da. Miñez irakurri dute, nerekin itzegin dutenek beintzat. Eta aizkenean nik egin dedana egin nazkaz kartakin.

Ez det emen idazki ori ezerezteko asmorik. Iñundik ere ez. Esan det ez dedala osorik irakurri. Beste bat da nere asmoa.

Ez dakit, eta ez det pentsatzen jarri nai nork idatzia dan. Ez det juizio txarrrik egin nai. Gaiñera etzait batere inporta.

Baiñan "anonimo" orren egilleak lanean oso ondo daki. Esan nai det ondo eta txukun idazten ba dala norbait.

Ezta egun batean edo bitan egindako lana, oso astiro egindakoa baizik. Pentsatuta dago eta kostatu zaio berea egilleari.

Aizkenean burua izkutatzeko. Ori da benetan penagarria Baiñan utzi dezadan alderdi ori.

Auxe besterik ez nuke esan nai. ¡Zenbat eta zenbat alperrikako egiñaal ez degu ondatzen!

Erremediorik ez degula esango nuke. ¡Zenbait aalegin txikikeritan! Eta gaitzerdi kaxkarkeriak bakarrik balira.

Gure etxeko tellatuari arriak botatzeko afizio berezia daukagula ezin ukatu. Gure gizonik aipagarrienak lokatsatu bear baditugu, gureak egindu.

Ní beintzat paper oiek irakurtzen ostean lotsatu egin naiz lotsa gorritz. Tristurak jan bear ninduen...

Jose de Arteche

“Zeruko Argia”: 1970-VIII-9'an.

Baña, ez zan Don Manuel bakarrik erasotua baita, Eizmendi'tar Iñaki “Basarri”. Franco'ren garaiko euskalidazle jator eta ugarienetako bat. Ona zertzuk esan zituzten “Euskal Elerti 69” Bilbao Donostia 1969. KRISELU7 89 Hatsapenak 2 (Orrelaxe dakar liburuak), 547'garren orrialdean:

“Euskeraren batasunik nahi ez duten euskaldunak
euskeraren eta Euskalerrriaren etsaiak direla
deklaratzten du.

Are gehiago negarreztatzen du batasun hori gonbatitzen dutenen portaera, bereiziki Eizmendi'tar Iñaki

“Basarri” jaunarena, zeinak Euskaltzaindiak
Arantzazun hartutako erabakiak
onartuko zituela publikoki manifestatu ondoren,
bere itzari ez dion eutsten...”

Au idatzi zutenek bere izena ipiñi zuten aurretik: Gabriel Aresti, Xabier Kintana, Ramon Saizarbitoria eta Ibon Sarasola. Don Manuel'en aurkako idazlanak ez du izenik. Liburu au ez zan 69'an agertu, urrengo urtean, baizik eta aizkeneko orrialdean daude gauza oiek idatzita. Orrek esan nai du D. Manuel Lekuona'rena eta idatzi au garai berdiñekoak dirala.

Baiona eta Eibar'eko ziñu eta mezuak urte berekoak dira; Baiona'koa Pazkoigandekoa da eta Eibar'ekoa maiatzaren lenengokoa: 1970. Ziñatzalleak berdiñak dira.

* * *

Urte orretan bertan, 1970, Dagonillaren 2'an, Xabier Kintana'k idatzi bat atera zuen Zeruko Argia'n Baiona'ko billeraren berri ematen. Ona zertzuk dion: “Bizkaitik gazte pilo ederra zegoen, andereñoak batez ere. Guztiek esaten zutenetik hauxe geratu zan garbi: Lapurdiko liburuengatik ez bazen (Axularren GERO famatu gatik hain zuzen),... ez zutekela ezertxo ere adituko... Gauza bat edo beste gaizki eginda egotea (izan diteke) baina horiek zuzentzeko... atzera bihurtzerik ez dago, zaharreria zenbaitetik hala nahi badu ere...”

Euskalkikeriak urrundu egiten gaitu eta frantsez edo espainolez balia erazi...

Abarkak baztertu eta zapatak jantzi. Ez dut uzte negozio ona denik inongo herritan abarkagintza...”

* * *

Azular'en GERO liburutik ikasi zuten euskera zenbaitzuk eta aren okerkeriak ere ikasi zituzten: (Zeñak, Zeren, latinekotik artutakoak, zergatiak erakusteko. Latiñez QUI, quae, quod eta jenitivo Cujus erabiltzen da orretarako eta ortik dator Zeñak eta Zeren. Abadeek, latiñez ikasiak, sartutako okerrak dira eta Axular'ek ere erabiltzen zitun, abadea izanik.

Frantzia'ra joan ezkerro, an euskalkiek alkarrengandik urrundu egiten gaitu, eta gazteleraz itz egin bear. Orain, 25 urte beranduago, Batuari esker, ez daukagu Frantzia'ra joan bearrik. Emen bertan, batez ere Bizkai osoan ori berori gerta-

tzen da guraso eta seme-alabaen artean. Batuari aintza eta esker ona; Frantzia'ra joan bearrik ez daukagu gazteleraz egiteko.

Abarkak baztertu dituzte zapatak jazteko eta abarkagintza ez da negozioa gaurko egunean. Ez orixe. Gaur Batuaren zapatak jazten ez ba'dituzu, Euskera ez zaizu 'negozio' biurtuko. Ez daukazu errapera urbiltzerik, zapatadunen baime-nik gabe. Or gelditu bearko dezu zeure abarkatxoak eskuetan.

* * *

Zer zan Euskaltzaindiak Arantzazu'n erabaki zuena? Ona:

'LITERATURA EUSKERAREN BATASUNARI BURUZ EUSKALTZAINDIAREN AGIRIA'.

Arantzazuko billeren ondorean, han izan ziran euskalzainak elkaturik argibide hauek eman zituzten...

2) Hren hauzian, izan diren iritziak entzun ondoan, erdibide bat aukeratu da hasteko: alegia, begi onez ikusiko lukeala Euskaltzaindiak letra hori bi bokal berdin nahiz ezberdinen artean erabiltzen astea.

Honek ez du esan nahi gorago jo nahi dutenen saioak ez direla ongi ikusiak izango...

EUSKALTZAINDIAK
Arantzazu-Oñati, 1968
urriaren 5ean.
Bilbon, 1079eko Abuztuaren 6an.

Zeruko argia'n agertu zan idatzi au il orretan bertan, XXXIgarren urtea 392 zenbakian. 1970'ko urtea izan zan Baiona eta Eibar'ko ziñarena, Don Manuel eta Basarriren aurkako idatziak, Kintana'ren agerpenak eta oraingo Euskaltzaindiaren agerpen au...

H'a bi bokal berdin naiz ezberdinen artean 'begi onez ikusiko lukeala Euskaltzaindiak erabiltzen astea'. Orrela, bi bokal berdin eta ezberdiñen artean H erabili ezkerro, idatzi guztiak H'ez bete bearko litzazke.

Baña, aurrerago joan nai dutenak ere, ondo ikusiak izango dira. Beraz, ipiñi ditzagun H'ak aurretik eta atzetik eta orrela ez du arazo onek amaierarik izango. Orregaitik izan dira ainbeste naaspilla idazleen artean. Askoren lanak torrez bete-ta agertu izan dira; H bakoitzak torre bat, petroleoa ateratzen ari diran landa oietakoen antzera. Zenbat alperrikako lan! H'ak salbatu duela euskera esateko, aurpegia bear da.

* * *

Urte orretan, 1970, ikastoletako zenbait andereño ez ziran lo egon. Kintana'k esan zigun Bizkaitik gazte asko izan zala Baiona'n; batez ere, andereñoak. Loiolako Agiria atera zuten plazara. Onela diote:

"... a) Arantzazuko arauak, erabakitza hartzen ditugu eta batasunaren bideen oinarritzat...

c) Liturgia taldearen batasunaren bidea ez dugu geuretzat onartzen...

Loiolan, 1970.
IKASTOLETAKO IRAKASLEAK".

Erabaki onek ondamendia ekarri zigun Ikastoletako liburu arazoan. Millaka ta millaka liburu eder, bost mailletarako atera ondoren, margoz eta marrazkiez beterik, or dauzkagu oraindik usteltzen, H'rik erabiltzen ez dutelako.

* * *

Urteak pasatu dira, atzera martxarik ez dutela esan digute bein eta berriz (Biscuter auto txiki aiek ziran atzera martxarik ez zutenak) eta or dabiltza batera ta bestera. Bitarte onetan, 1989 Uztaillaren 30'ean, ia 20 urte beranduago, *onela zion Federico Krutwig euskaltzaiñak Gaur-Express, El suplemento, aldizkarian:*

“EL BATUA NO SIRVE PARA NADA

... Sí, sí, porque el batua no sirve para nada y la verdad es que se está desanimando la gente. Muchas regiones en que se habla bien el vascuence, el chiquito llega hablando batua y el padre empieza a pensar: me están engañando, esto no es euskera... el batua se ha convertido hoy en la lengua de los que no saben hablar vascuence. Y no tiene más que mirar la forma en que se da el título de EGA a un profesor. Ese título no da noción más de lo que sabría un niño de diez años y si un profesor está hablando a los chicos y habla peor de que ellos...”

Finis coronat opus.

Arrinda'tar Anes'ek.

ABERATS BATEN AUZI-OSOAK

LAN BERRI BILLA

- Baserria utzita, kapitalera etorri naiz lan ondradu baten billa.
- Lan ondradu baten billa...?
- Bai, lan ondradu baten billa.
- Egon lasai, mutiko emen ez dok konpetentzi aundirik izango-ta...

ZAPATARIK EZ...

“Espartiñak urratuta
zapatarik ez,
Bermio’n gelditu nintzan
Oñeko miñez...”

Ez zan ori Oto’ri gertatu zitzaiona Bilbo’ko kaleetan, baña gertakizuna zapatatik zer ikusia ba zuan. Joxepa eta biok joan ziran Exposizio Industrialala ikustera. Ikasi ere anekin ikasten omen da... Joan ziran, beintzat, zorioneko Exposiziora.

Ikusi eta gustau.
Gosetu ere bai.

Gosetu ezkerro, jakiña da, jateko toki patxadazkoa billatu bear. Kale zaarretan aukeratu zuten eurentzako moduko taberna bat.

Bapo bazkaldu ondoren, erriari bueltatxo bat egitea erabaki eben. Erria luze eta eurok motel bazkari onaren eruz, uste gabe etorri zan apari-legea egiteko ordua.

Egin ere bai, zer arraio gero...

Bein Bilbo’ra etorri ezkerro, zer egingo eben, ba...?

Ondo asitako gauzak, ondo bukatu bear dira. Eta eurok, beintzat, eguna ondo asko asita eukien. Sekula alako egunik...!

Apari-legea beteta, gauzak konpleto egongo ba’dira, pentsatu eben, ondo litzakela gaueko gau-txori oietako toki batera joatea. Or doaz biak ponpoxo asko de brazete Txori-Malo zeritan zorioneko kafeteri edo dantza-lekura.

Ate buruan, argiak kiñuka.

Ate-aurrean, berriz, etiketa beltzez jantzitako gizasemea, pajarita ta guzti... Zalantzan zegoen Oto berekiko pentsatzen ura Funeraria ba ote zan; dana zan beltz gizaseme artean: illeak, bibotea, azala, pajarita, txamarra, prakak eta zapatak; dana, beltz...

- Zer nai?

- Barrura sartu Joxepa eta biok.
- Ezin dezute barrura sartun.
- Zergatik ez? Oraindik paltrikeran ogei durorik ez zaigu falta...!
- Ez, ez... Ezin dezute.
- Pagatzeko dirua badegu, ala basarritarren diruak ez al du kaletarrenak aña, balio?! Ala, zer?
- Ezin deikezute sartun alpargetakin etorri zeratelako.
- Oño, oño... Or barru orretan ainbeste lokatz al dago, ba...!

SALOMON TXIKI

Botazioak izan ziran errian.

Zein aukeratuko eta gure Oto, gizon ona, aukeratu zuten auziak erabakitzeke: juezetarako, alegia. Bere juez ofizioa estrenatzeko eukan. Ez zan auzirik eta auzitegia beti itxita.

Baña, erririk onenean ere marrajoren bat ez da faltatzen eta egun artan gertatu zan sekulan gertatu ez zana. Jerontxio’k txerri-emea eukan amabi txerrixuekin. Eta egun artan txerrikume bat palta zan kortatik.

Auzokoeekin izan oi dituguz aztabaida geienak eta Jerontxio joan zan auzoko Txokolo’ren ikullura. Atea barrutik itxita morroillo zaar batekin, eta armiarmasare apaindutako leio txiki batetik burua sartun arren, ez eban ezer ikusten...

Ikusi ez; baña, entzun bai entzuten eban txerrixu baten kurruxka:

- Or dago nere txerrikumea.

Pentsa bezela, egin.

Joan da Oto’rengana.

- Egun on, jauna. Bart txerrikume bat palta zitzaidan txerritegitik eta auzoko Txokolo’k eraman ebala usten dot.

- Testigurik ba al da?

- Nik ikusi ez, baña, entzun bai.

- Baña, besterik ba al da?

- Ez, jauna.

- Orduan gauza gaitza izango da auzia ondo erabakitzzea.

- Txerrikumea, ordea, nerea da.

- Ori ala bada, baña ori probatzea ez da erreza izango.

- Ba, zer edo zer egin bearko da...

- Utzi ori nere kontu.

Oto’k bazekien, apaizak Dotriñan erakutsita, izan zala Salomon jakintsua eta zer jokabide izan eban auzi

batean: Bi emakume gazte bizi ziran alkarrekin eta bakoitzak zuen aur jaio-berri bat. Biotako batek, lo dagoela umetxoaz azpian artu eta ito egin zuen. Konturatu zanean, bare aur illa besteari ipiñi zion alboan eta berea kendu... Auzia sortu zan biak esaten bait zuten aur bizi ura berea zala. Jo zuten Salomon jakintsuarengana eta onek, auzia erabakitzeke, ezpata bat eskatu eban eta aurra anka batetik elduta, ezpatarekin erdibitzeko itxurak egoin zituen, bakoitzari erdi bat emateko. Batek eraso zion:

- Ez, ez il; berari eman...!
- Besteak, berriz:
- Bai, bai erdibitu eta eman erdi bana bakoitzari.
- Orrela jakin zuen Salomon'ek benetako ama nor zan.

Bigaramonean ots egin dio Oto'k Txokolo'ri:

- Aizu konpañeoa, txerrikume bat arrapatu diozu Jerontxo'ri.
- Ez, jauna; nere dirutik erosita daukot.
- Nun?
- Perian.
- Nungo azokan?
- Ba... Ordizia'koan.
- Ori ikusiko degu...Gaur arratsaldeko seiretan etorri biok auzitegira eta ekarri zorioneko txerrikume ori.

Bekañak erre zitun bitartean pentsaketan, ia nola auzia erabaki... Zer edo zer etorri zitzaion burura... Iku-siko zuten Oto nor zan!

Etorri dira biak auzitegira, juezaren aurrera. An eka-rren Txokolo'k txerrikumea:

- Norena da txerri ori?
- Nerea! (Biak batera)
- Biona ezin izan. Nor dabil eman gezurretan?
- Ori! (Biak batera)
- Txerria biona ba'da, etorri ona alguazilla eta ekarri arakiña bere kutxillo aundienetako bategaz.
- Etorri zan arakiña:
- Orain bertan agertuko da egia eta emen nor dabillen gezurretan. Arakiña, erdibitu txerria eta eman bakoitzari erdi bana...

Arakiñak erdibi zuen txerria eta eman zien bakoitzari erdi bana.

Ez zan iñor protestan asi. Biak pozik: Jerontxio txerri osoa galdu ez zuelako eta Txokolo, erdia beintzat, irabazi ebalako...!

Oto gelditu zan egia jakin barik. Arrezkero Oto'ri gaitz izena ipiñi zioten: Salomon txiki.

ANES



BILBAO
UDALA
AYUNTAMIENTO

LAGUNTZAILE

**IPUIN-SARIKETA
(BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN)**

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k, urte guztietan lez aurten be, ipuin sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

- Ipuñak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatzia izan bearke dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINZA'k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.
- Ipuñak asmatu-rikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.
- Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. ZER'en argitaratuko dira.
- Azillaren azkenerako EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren etxean (Bilbao'ko Colon de Larreategi, 14, 2.ª eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta Zer'en agertuko da.
- Sariak bost izango dira:
 - 1.ª 300,50 euro.
 - 2.ª 240,40 euro.
 - 3.ª 180,30 euro.
 - 4.ª 120,20 euro.
 - 5.ª 60,10 euro.
- Ipuñak izen ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.

EUSKERAZALEAK

EUSKERAZALEAK ALKARTEAK BAZKIDE GUZTIAI AUXE IRAGARTEN DAUTSE:

Zemendiaren 8n. egunean beteten dala urtea gure Lendakari izan zan ZUBIRI ETA SANTXEZ'TAR IÑAKI JAUNA (G.B.) il zala.

Irakurle ta bazkide guztiai eskertuko geuskie bere alde otoitz egitea.

ABERTZALE IZATEAREN BETIKO PEKATUA

(2N. SARIA)

– Jeiki, motillak, berandu egingo zaigu-ta.
– Seirak al dira, ba?
– Joko zuten onezkero eta badakizute zazpiretan nun egon bear degun.
– Bai, badakigu; baña, ez al da dana alperrik izango?
– Ikusi barik, jakin ez.
Kaleak illun daude eta Urrilla aurrera doa; gaur domekea da eta gure iru apaizgaiok "Animen Ostatua"n. lo egin dabe. Presaka dabilta Gazteiz'ko kale zaarretan gora Gotzai-jauregiaren billa.
– Ordu-laurden bat falta da zazpiretako eta onezkero gure jaun Agurgarri ori gure zai daukagu.
– Gu joan bagoaz; baña, jakin ez jaun orrek zer egingo dizun.
– Atzo arratsaldeko berriak ez ziran ain seguruak izan...
– Ikusi egin bear; beste irten-biderik ez daukagu.
– Dana dala eta dena den, laister azalduko da zertan geran.
Dan, dan, dan jo dute ate ederrean; morroiak iriki eta, besterik gabe, aurrera joateko agintzen die. Zurubiak gora, jauregiko kapillatxora. Apaizgai zaarrenak alba zuria jantzi eta estola orlegia lepo inguruan ipiñi du.
– Orlegia itxaropen kolorea dok.
– Oraintxe bertan ikusiko dogu ala dan ala ez.
Gotzai sartun da kapillatxoan dotore jantzita eta mitra zuri-luzea buruan duela. Aitaren eginda, asi ditu bere zeremoni bereziak... Ordu bete ari da, olio sagaratuakin eskuak igurtzen asten danean:
– Onezkero seguru dok.
– Alan dirudi.
– Gotzaiak ez zeukak atzera-martxarik.
Ez orixe. Aupa gu ta gutarrak!
– Orren billa etorri gara, bidean, onerañño.
Bederatziak jo dute aldameneko Katedralaren torrean; bi ordu Gotzaiak bere zirimoni amaigabeari amaia emon dienean.
– Auxen izan dok luze!
– Belaunak zeuzkat izurratuta eta tripea utsik... Consumatum est.
– Ainbeste ordu baraurik, badaukat oraintxe gozaltze-jauteko amorrua.
Poztu gaitzen, apaiz berri bat bada Euskalerrria'n. Baña, urduri dago eta jakin-miñak bultzata, onela eraso dio aurretik ezaguna zuen Zirimoni Maixuari:
– Egia al da ez zendutela ni apaizteko asmorik?
– Bai; egia da.
– Zergaitik?
– Abertzalea zeralako.
– Abertzalea izaten diraut eta, orduan, zergaitik ordenatu nauzue?

– Bidali zenduen telegramagatik.
Arri-ta-zur gelditu nintzan une aretan; baña, zer arraio, tripa-zorriak nebazan garraxika gosearen gosegaitik eta "goazen bapo gozaltzera" esan nion nere buruari eta inguruan neuzkan lagunei eta alaxen jeitzi giñan ostatura barruko penak uxatzera.

Osteguna zan egun ura, Urrillak 14, eta udazkeneko aize epela adarretako orrietan murmurioka. Pozik netorren kuarteletik etxera amari berri gozo bat ematera: naiz eta gerrate bizi batean ibilli, amar eguneko baimena eman zidaten gogo-jardunak egin eta apaiz-mallara igotzeko.

A ze poza nere amarena ori entzutean! Senarra itxasoan, bi seme soldadu eta irugarrena seminarioan apaiazgai eta bera etxeko bakardadean. Nolako ordu ederrak igarotzen ari giñan bazkal-ostean alkarrekin, kaleko atea jo zutenean. Jeiki nintzan maaitik eta atea irikitzean, Korreos'etako mezulari berezia aurkitu nuen aurrez-aurre. Paper urdin bat eskeiñi zidan eskuetara. Amak ez zidan ia irakurtzeko ere astirik eman:

– Zer dek or?

Erakutsi nion paper urdiña eta irakurri orduko, asi zitzaidan negarrez zotinka. Ez zan ixiltzen eta onela esan nion:

– Ama, ez negarrik egin.

– Ez negarrik egin; ez negarrik egin; oiek al dira ama bateri esateko itzak, semea gerratean iltzen zaionean?!

Ez neukan une artan negar egiteko astirik: ildako gorputz ura billatzea etorri zitzaidan burura tximista baten antzera. Amaren anai gaztearengana jo nuan: sasoiko gizon gaztea, erriko alkate izendatua botoen bidez. Alkarrekin egin genduan egitarau bat: Lenengo ta bat, paper urdiñak zion errixka ura nun zegoen aurkitu; bigarren ilkaja bat, bi atxur eta zaldi-manta sortu; eta irugarrenez, taxi bat billatu nun-edo-nun.

Errixka 500 kilometrora zegoen, il-kaja eta besteak errian bertan; bañan, taxi bat ez zan agertzen iñundik ere. Libre zeuden automobil txikiak frentetik ildakoak ekartzen zebiltzan. Illunabarrean 30 kilometrora aurkitu gen-



ALDIZKARI ONEK
BIZKAI'KO FORU-ALDUNDIAREN
DIRU-LANGUNTZA JASO DAU

duen taxi librean; baña, ibillaldi luzea eginda zetorren etxera frentetik eta ordu batzuek bear zitun berriro bidean bere burua jartzeko. Ondorengo egunean, ostirala, agertu zan gure etxean goizeko iruretan. Zai-zai geuden osaba eta biok ura agertu zanean. Tl-kaja atzetik zeukan apaltxo batean lotu kotxean eta abiatu giñan zoroa zirudien abentura batera: bosteun kilometrorra zegoen mendiren batean, gorpu bat billatzera.

* **

Goizeko iruretan irten eta arratsaldeko bostetan eldu gintzan errixkara. Dozenerdi bat etxetxo enparantza baten inguruan. Biotza goibeldu zitzaidan bat-batean: Anboto antzeko aitz gorriak genduzkan begien aurrean. Nola billatu gorpu bat aitz-arte oietan? Eta, aurkituta ere, nola ekarri automobillera? Oldozmen beltz oiek buruan nituala, zera gogoratu zitzaidan: gure kuarteleko frentean zeuden batalloiek bazutela, frentetik at, bulego bat idaztiak ara biartzeko eta andik artzen genduzen eskutitzak eta bestelako agiriak. Aurretik zetorren baserritar bateri galdetu nion:

—Aizu, gizon, ba'aldakizu or frentean dabilzan batalloiei oiek emen bulegorik bai ote duten?

—Bai, batek etxe txiki orretan du, lenengo solairuan.

Egun-sentia sortu zitzaidan barnean. Or ote dago nere anaiaren batalloia ofizina? Joan nintzan etxera, solairura igo, atea zabalik zegoen eta pasilloaren azken muturrean sarjento bat beigañean eserita, gaxo, soldadu bat aldamenean zuela:

"Ceriñola" batalloikoak al zetare?

—Bai, ala Bera. Eta zer nai zenduen?

—Gorpu baten billa nator.

—Zer gorpu?

—Nere anairena. Ni Fulano naiz.

—Pentsatzen nuen etorriko ziñetela billa; nere kidekoa zan, nere antzera gerratean egindako sarjentoa eta orregaitik gorpu nun sartu duten ardura artuta nengoen.

—Eta nun da ba, gorpu ori?

Illerrian. Soldadu onek lagunduko dizu ara.

—Biotzetik eskerrak! Ez dakizu ondo zer mesede egin didazun.

Nere barneko egun-sentia eguzki bete biurtu da une onetan. Biotza kantari asi zitzaidan pozaren-pozez: gure abentura zoroa, gauzatxo erreza gertatu zaigu ustekabeen. Eskerrak eman nizkion Jainkoari biotz-biotzetik, amari bere semearen gorpu eramateko gai nintzelako; ez bait da gerra batean gauza negargarriagorik amarentzat, semea il eta nun dagoen sekulan ez jakitea baño. Nere amak jakingo du bere semearen gorpu nun dagoen: berak erositako illobian, berbera ara joango zaio egunen batean, alkarrekin egoteko... Orretxegaitik neukan gogoa pozez dariola.

Joan gintzan illobira soldadua lagun genduela eta illerriaren nagusi kabotxo bat agertu zitzaigun. Zillarrezko bost duro aundi, esku bete zillar, eman nizkion aurretik ezer esan barik eta gero onela esan nion:

• Gorpu baten billa nator.

• Zer batalloikoa?

• "Ceriñola"

• Zulo onetan zazpi daude eta beste onetan, berriz, amaika. Nundik asi?

• Amaika dauden zulotik.

Atxurrakin lurra arrotzen asi zan; lurra axalekoa baka-rik eta lenengo gorpu agertu zan kakiz jantzita... -"Ori ez da"- Ondoren bigarrena, irugarrena, laugarrena, bosgarrena. Oiek ez ziran. Seigarrena mando-manta baten bilduta zetorren, burua ezalita, bañan oiñak agerian:

• Orixe da!

AZKENENGO ARRAIÑA JATEN DOZUNEAN, AZKENENGO LANDAREA IGARTZEN DANEAN, ORDUAN, BAI, ORDUAN JAKINGO DOZU DIRUA EZ DALA JATEN.

AMERIKETAKO INDIARREN ESALDIA

Esan nion pozik. Iru egun egon ziran mendian ilda bi frenteren erdian eta irugarren egunean moroak aurrera jo zutenean nere anaiari zeuzkan guztiak arrapatu zizkioten eta billotsik laga... Baña, ni gorputz baten billa nebillen eta gorpu antxen neukan nere eskuetan. Uraxe zan nere gordailurik aberatsena eta arritzekoa dana, au da: Bostetan errixkara eldu eta seiretan erititik irten genduela. Ordu bete gorputz bat billatzeko frentea batean... Miraria ez ba'da, mirariaren antzekoa bai, beintzat. Bidean atsedean artu; gorpu garbitu eta jantzi... amari eskeintzeko.

*

Illetak eginda, kuartelera bueltatu nintzan Konpañia'ko Kapitanari eskerrak ematea; berak eman bait zidan amar egun gogo-jardunak eta apaiz-ordena artzeko. Ez zizkidan gogo onez eman; baña, eman naiz eta bere barruko samiaña agertu aurretik:

• Ya tenemos un cura separatista más.

Gotzaiak, berriz, ez ninduen apaiz egingo telegrama bat tartean izan ez ba'litz. Telegrama au:

• "Gogo-jardunak egin bearrean, nere anaiaren gorpu-billa noa frentera"

ANES ARRINDA

ABERTZALEAK. KARLISTAK ETA SOZIALISTAK

II

Ibañez **Karlos'eri** begirunez:

Irakurri ditut zuk nere lanari erantzundakoak eta pozgarria da iñork geure lanak irakurtzen dituala jakitea. Gañera, orrelako lan luzeakin erantzutea, pozgarriago.

Nik bizkaiko karlisten berri gutxi dakit, naiz-eta Barakaldo errian 9 urterarte Portu kaleko 6'garrern zenbakian bizi izan. Gure etxe aurrean, lenengo solairuan, zeukaten C'rculo Carlista eta ez dakit besterik ote zegoen erri aretan. 1920'ean Santa Ageda besperan, an ikusten det gazte talde bat, makillak eskuetan, kanta-kantari. Beerago, gure etxearekin lerro berean, bigarren zenbakian edo laugarrenean, Batzokia zegoen eta neure irudimenean ikusten det nola jai-aratsalde batean barrura indarrez sartzen alegindu ziran.

Bederatzi urte betetzeko nengoela aldatu giñan Barakaldo'tik Lazkao'ra. Barakaldo'ko Portu kaleko 6'garren zenbakiko laugarren solairuan bi famili bizi giñan batera. Andrazkoak biak ziran Lazkao'koak, nere ama eta bere aizpa Maria, Esteban Kortadi'rekin eskonduta zegoena. Guk Lazkao'ra alde egitean, besteak Sestao'ra joan ziran, Esteban Altos Hornos'etako La Hojalata'n lan egiten zuelako.

Kortadi familia Beasain'go baserri batetik etorri zan Esteban jaio aurretik. Gerora (1931-1936) Sestao'ko Iberia kale barrenean bizi ziran Esteban eta Maria iru seme-alabekin. Bera zan erriko Karlisten edo Jaimisten buru. Andik eraman zuten Cabo Quilates ontzira eta an erail zuten "Jaime" gerra-barkuko mariñelek.

Gipuzkoa-goierriko geiago ere joan ziran aruntz aurreko eunkiaren azkenean eta Kristau onak ziran eta orduko sozialisten artean Kristau irautea ez zan gauza erreza. Orregaitik edo, guztiak ziran karlistak, lenengoz beintzat. Esteban erail zutenean, gu beste aldetik gebiltzan, erreketen karlisten mendean. "Itxasontzietan gaur ixiltzen diran gauza izugarriak jaso ziran". Egia gaur ixiltzen dirala, baña orduan eta geroago naikoa aizeratu ziran. Beste aldekoak ixiltzen ziran ondo asko.

Bizkaiko karlisten beste berririk ez dakit; zeuk eman dizkidazu zenbait. Baña, Gipuzkoa eta, batez ere, Naparroa'koenak badakizkit, Santiago bigaramonean sartu bait zan Lazkao'n Columna Cayuela, erreketez eta falangistez ornitutako gudari-sailla, Naparroa'tik zetorrena, Ataun'go Lizarrazti mendartean beera. Bidean tirorik bota gabe eldu ziran eta, erritik irtetzean, asi ziran tiro bakan ba-

tzuek. Apaizgaia nintzan eta urte bete falta apaizteko. Bagiñan beste batzuek ere apaizgaiak. Beasain eta Ordizia artuta, Tolosa aldera jo zuten.

Beasain'dik Zumarraga'ra tarte gelditzen zan utsik, "tierra de nadie" esaten dana. Orduan Errekete Konpañi bat laga eben Lazkao'ko jaunaren (Duque del Infantado) jauregian, alde ura zaintzeko eta Olaberria'ko eleizeari lur-sakuzko esi bat egin zioten Zumarraga'ra begira eta bertan Errerkete taldetxo bat laga begi-luze.

Sei apaizgaiok indarrez "voluntario" sartu gianduzen eta an ibilli gintzan Caparroso'ko erreketekin mendian gudako plantak egiten eta xistemak ikasten. Kostatu zitzaigun andik irtetea; ez da istoria motza. Navascues'en jaiotako Marco erreketeteniente zan Lazkao'ko konpañiaren buru eta Zipriano Torrubia, Otxagabia'ko medikua-aren semea, buru ordeko alfereza. Marco aspertu zan ango pakearekin eta joan zan Tolosa aldeko frentera.

Torrubia gelditu zan Jauregiko taldearen buru eta bere izketa-aldiak gurekin izaten zituen Caparroso'ko nekazari-ekin baño erreza. Kotxe bat bazeukan bere serbitzura-ko, gasolina txartelak egiteko aalmena bazuen, eta errez ibiltzen giñan bidean eta, alako batean, San Adrian'era jo genduan Muerza lantegikoak agurtzera, janari asko presatzen bait zuten gudarientzat. Bidean goazela, errepideetako aldamenak arrotuta zeuden:

—Aizak, Zipriano, lur arro auker zer dira?

— Eraildako jendea.

Orduan jakin genduan eunka il zituztela erribeerako errietan, pake garaian boto bat ematearren. Oiek danak ixildu egin ziran. 1936'garren urteko Dagonillaren 13'an Iruña'ra eraman ninduen eta an, lagun batzuen etxean, onela esan zidaten:

—Ez dakizu ondo gure errian (Gipuzkoa'tik gertu dagoen erri batean) zertzuk gerta diran.

—Zertzuk?

—Kamioian jendea sartu (egillearen abizenakin esan zidan) eta mendian amildu.

Ordizia artu ondorengo egunetan, Lazkao'tik Ataun aldera kamioiak pasatzen ziran jendez beteta. Andik ordu pare batera, utsik bueltatzen ziran:

— Zer egiten diozute jende orreri, Torrubia?

— Lizarraztiko aldatatik ez dira pasatzen aurrera.

Lazkao artutako astean, Ordizia oraindik artzeko, 22 erreketen eta sargento bat arrapatu zituzten Lazko-mendi'n gorriek eta aizkenerako Larrinaga'ko artara eraman zituzten. Pasa ziran illebeten batzuek eta Bilbo'ko bonbardeo baten ondoren, berreun il zituzten berria zabaldu zuten. Egun artan Torrubia agertu zan sekulakoak esaten, begie-

ERRIGINTZA

tatik txinpartak zeriela. Gure etxeok bildurturik zeuden ari begira, ni agertu nintzanean:

Zer pasatzen da emen?

– Berreun baiño geiago il dituztela gorri oiek Bilbao'n.

– Bai, eta ik an Lazkao-mendi'n arrapatu zuten anaia daukak; ik ez dakik bizirik ote diraun; baña, orain arte bizirik iraun dik. Eta, zuek zenbat il dituzute baztarretan? Gogoratzen aiz San Adrian'ganako errepideak?

Orren bestez ixildu zan; baña, barruko bere amorrua ez zitzaion baretu, bat ere... Andik garai batera, mutilla bizirik agertu zan eta orduan bere anai alferezari galdera bat egin nion:

– Zuen anaia mendian preso artu zuten eta bizirik dago; alderantziz izan ba'litz, zuek zer egingo zenieten?

– Fusilatu.

Gerratea izanda ere, apaiztu ninduen eta 1938'garren urtean Iruña'ko Hospital Militarrean nintzan kapellau. Torrubia, erreketek-alfereza, berriz, gudaketatik alde eginda zebillen eta an zeukan bere lantegitxo. Askotan alkartzen giñan eta egun batean onela mintzatu zitzaidan:

– Nere gerrateko poz bakarra, eskuak odolez garbituta gordetzea, izan da.

* * *

Joan dan eunkian bi guda-aldi izan zituzten karlistak eta biak galdu. Eunki onetan, bat eta irabazi. Eurak guda irabazi eta falanjistek opilla jan.

– Emen ezer lortu nai ba'dek ez ari karlistekin joan, falanjistekin, baizik.

Ori esaten zidana, mangante xamarra zan eta gauza asko lortutakoa.

Fueroak daramazkilla bere barruan Patria itzak, ez nuen sekula entzun: "Jendea foruakaz aske bizi dan lurra, auxe da Patria". Orrela esaten dezu eta, orrela esanda, patria ori Euskalerrria litzakela, dirudi. Baña, ez da orrela izango, zeure berbak bait dira auek: "Cadiz'erañño Patria zabaldutea Euskalerrriko tradizioaren muiñean dago". Eta arrazoi au ipintzen dozu: "Sevilla'tik zear Ameriketatik etorri jakuzan indabak, artoa, tomateak eta dirutza andia. Andik etorritako diruakaz eraiki ziran gaur Bizkaian eta Gipuzkoan doguzan jauregi eta eleiz ederrenak". Ala izanik, Ameriketarañño zabaldu bearko genduke Patria ori.

Baña, Ameriketako dirua ez da dana Sevilla'tik etorri. Ternua edo Ten'anova'tik zuzenean ere bai. Bale-arrantzak dirutzak ekarri zitun gurera, eta bakaillauak. Berreun itxas-ontzi ebiltzan batera Terranova'ko bidean XVI'garren eunkian... Dana dala, beste aldeetako Ameriketara joateko, Sevilla'ra joan bearra izaten zan abimenak eta abar atartzeko.

tza. Errepublikaren aurka alako borrokean karlistak gura ebezan abertzaleak bere alboan euki... Gauza bat esan al dot: ordu aretan EAJ ez zan askea aukeratzeko. Gero, nai ta alde berean borrokatu, gorriak ez ziran adiskide onak abertzaleentzat".

Errepublikaren aurka jeiki zirala, Torrubia alferezari entzundako kanta batetik ateratu nuen: "Republica publica" esaten zuen kanta arrek, eme-galdu bat ba'litz lez Republica ori. Gorriak ez zirala adiskade onak gertatu abertzaleentzat? Ala entzuten nuan. EAJ ez zala aske gertatu? Dudarik gabe.

Lazkao'n bizi nintzan gerra sortu zanean. Aste osoan egon giñan zerura begira, iñork zirkiñik egin gabe. Beasain'go sozialista eta anarkistak mogitu ziran lenengo egunetik. Abertzaleak ez zekiten nora jo eta zer egin. "Euren arteko burrukea da eta gauden gu begira". Ori zan orduko filosofia. Tirorik bota gabe eldu ziran Santia-go bigaramonean. Baña, lenengo unetik abertzale billa asi ziranean eta lenengo "garbiketak" ikusi ondoren, bakoitzak al zuen tokira egin bear. Lazkao artuta, Beasain'dik Ordiziara erri guztiak iges egin zuen; laurden bat bakarrik geratu: karlistak eta politikan sartzeko oiturarik ez zutenak. Beste guztiak alde egin zuten. Beasain'en guardia-zibillak egin zieten aurre, 24 orduz. Sartutako gabean 39 giza-seme fusilatu zituzten illerrian. Aien artean Urteaga dendaria, karlista famatua inguru aretan...

Orrela zetoztela ikusita gero, gorriekin bat egin bear. Eta, orixe esaten genduan geuk ere: Nola liteke ain itsuak etortzea; eskua luzatuta etorri ba'lira... Mola'ren okerra orixe izan zan: "Aterrar" eman zien agindu, eskua luzatu bearrean. Nik ez dakit Bizkaia'n zertzuk gertatu ziran; baña, gerraren asierak azpian arrapatu nindun. Eta, oien berri zeatzak ondo dakizkit. Bizkai'ra alde egiterik izan ba'nu. Bizkai'ko berri jakingo neuke; baña. Lazkao'n nengoen ala bearrez erreketean mendean benetako burruka asi orduko...

Dana dala, oiek aspaldiko gauzak dituzu eta zaarron eogoramenean daudenak. Egia da sozialismoa Napparroan zabaldu dala, zenbait abertzaletasun sozialismo biurtu dala: ez gorri eta ez urdin. Batzuek, ordea, oraindik ere "lengo lepotik burua".

Euskerari buruz, abertzale asko erdaldun, erdaldun asko euskaldunduta, Hatxedun Euskera Batu aberatsak lagun asko bere errapetik zintzilik, eta, arazo orretan geuk ere "lengo lepotik burua..."

Historia bizitzaren maixu ba'da, iru urteko gerra zitak, alkarrekin bizi izaten erakutsi digu... Ez naiz gaurko gazteekin ari: ez dakit auek zer joera duten; bear ba'da pentsako dute guda ura galaxietako gerraren bat izan zala... Geuk amestutako ameskeri uts bat izan ote zan?

"Gaizki esanak barkatu eta ondo esanak gogoan artu".

"Gerrateari buruz Arrinda jaunak diñoana ez da zea-

A'TAR A.
Ibeltza. 1994

AGINTEA, DIRUA ETA POLITIKA

Alkarren artean indar-jokoan gabiltza beti: kiroletan bezela agintean ere.

Guztiok agindu nai.

Diruak dakar aginpidea. Politikak areago.

Politikak du indarrak aundiena; orregaitik dabill mundu osoa bata bestearekin nor-geiagoka, burrukan, politika-arloan.

Ez da gaurko gaitza; betikoa. baizik.

Orain bi-miIIa urte inguru, kamiñoan-zear Jesus zijoan bere lagunekin. Lagun oiek, erri xumearen artetik jasoak, mundu guztietako pasioz beteta zeuden.

—Ni i baiño geiago nauk.

—Ago ixilik, ni Jesus'en lengusua nok-eta...

—Bere ondoren lenen asi zana, zein duk? Neri dagokit lenen aulkia...

Eztabaida, ixkanbilla, zarata...

Jesusek aldamenetik:

—Zer umekeri darabilzute esku-arteetan?

—Ba, Jauna, nor-Qeigoko gebiltzan...

Jesusek errukiz eta maitekor begiratu zien:

—Zuen artean lenen izan nai duena, izan bedi aizken.

—Zer...?

—Aizken eta beste guztien serbitzari.

—Baiña, nola...?

—Badakizute emen zer gertatzen dan: agintaritzaren arrapatzen duten guztiek, erria zapaltzen dutela, jauntxokeriak egiñaz erriaren bizkarretik. Ez bedi zuen artean orrelakorik gertatu.

Zapalketak, beraz, betikoak. Ordukoak eta gaurkoak. Egundokoak.

Gaur-egun zapalketak egotea ez da batere arritzekoa. Arritze-

koa dana auxe da: Jesusen sinismena aitortzen dutenen artean zapalketak izatea.

Badira.

Eta, nolakoak?

Indarkeriz egindako zapalketa oieri indarrez erantzuten zaioanean, orduan, gaiñekoak azpikoa geroz-eta-geiago zapaldu oi du.

Bizirik larrutu arte, zapaldu ere.

Beretzen eta paketzen ez diran menperatuak, giltzapera.

Bere buruaren lokarriak askatu nairik burrukatzen dutenak, giltzapera.

Aberri menperatuaren alde burrukatzen dutenak, giltzapera.

"Giltzapian sartu naute poliki-poliki;

negar egingo luke nere amak baleki..." Iparragirrerena.

Erregeak bere aginpideari asiera ona emateko, barrukoak kalera ateratzea erabaki zuan. Baiña, beti izaten da bairen bat, asko barruan daude oraindik.

Zergaitik?

Erriko talde bat barruan dalarik, pakea sustraitzen ez da erreza. Barruko oiek kalera izan ditezela askok eta askok eskatu arren, barrukoak barruan diaute.

Eta barrutik irtetzeko esperantza nun da?

Zapalkeriak irauten duan artean, amnistia orokorra eta danentzako ez dan artean, pakeak ez du oiñaririk izango. Berritik sortzen ari zaigun gorputz onek minbizia izango du odolean; sitsakjandako egunakin ariko gera etxea jasotzen; zuloa izango etxearen oiñarriak azpitik...

* *

—Zuen artean aginpidea duenak izan bedi aizken eta beste guztien serbitzari.

Moroentzako esan ote zan?


A. Arrinda

IRAKURLEAI OARRA

ZER aldizkariak eta EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k ba-dauke Bilbao inguruan urteko arpidetza eskuratze-ko erea. Etxerik etxe joaten da kobratzaillea. Baiña gauzea ez da ain erreza errietan. Orregaitik eskari au egiten dautzuegu: Bialdu eiguzue txartel edo txeke bat. EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren izena ipiñi ta 1.500 pezeta dirala idatzita. Txartel ori sartu karta-azal baten eta gaiñean zuzenbidea ipiñi: EUSKERAZALEAK ALKARTEA.

Colon de Larreategi, 14, 2º, eskoia. 48001 BILBAO.

B IZKAITARRAI BIZKAIERAZ



Eusko Jaurlaritzaren

Laguntzaz.

Kultura Saila

AGIRRE'TAR JOSEBA MIRENA LENDAKARIA

(Napoleontxu, txokolategille, masoien 33n. maillako eta abar)

33n. MAILLA

Iruña'ra eraman ninduen gerratean eta Txapitela kalea igarotzean, Plaza del Castillo'ren ertzean, eskubi-aldera, arrituta eta zurtz eginda gelditu nintzan denda bateko erakustegiari begira. Aurremental bat zegoen zuria eta aren inguruan konpas bat, beste iru-zoko bat eta itz auek erderaz:

"MASOIEN 33n. maillakoa dan Jose Antonio de Aguirre'rene amentala da au".

Bear ba'da, orduko iruñarrek sinistu ere egingo zuten orrelako argumento eta agiria agertu ezkeroz... Batzuek itsu-itsuan sinistu ere. Jose Antonio'ren izena aitatzean beti eantzi oi zioten onelako "atzizkiak": Napoleontxu eta "El Chocolatero".

"Napoleontxu". Agirre bera zalako gudarostearen buru eta, Lendakaria izan arren, frentera maiz joaten zalako bere gudariekin elkartzera, Otxandio'tik asi eta Artxanda'rarte, trintxera guztietan zear.

Ez egazkin eta ez antiaereo Hitler'en egazkiñen aurka burrukatzeko; fusil eskas batzuek eta zenbaitzutan muniziorik ere ez.

Modu artako eskasian, biotza ipiñi bear ordez eta gudarien biotzak berotzeko Lendakaria berbera urrera-tzen zan zanga-zuloetara eurokin solas-aldiak egitera. Lendakari gazteak, sua sortzen eban mutil gazte aien barrenean. Ez Mola eta ez Franco ez ziran era orretara inguratzen frenteko erretenetara.

TXOKOLATEGILLE?

Senidetartean txokolate-fabrika zutelako. Bere anai Juan Marik zeraman aurrera eta bertan sozioloji-



Eibar'en mitiña ematen 1933'an.

-kristauaren aurrerapenak ezarri zituen Jose Antonio'ren aolkuz.

Euskadi libre bat nai zuan gizarteko zuzentasunean eta euskaldunen arteko anaidetasun batean. Orregaitik zion ELA'ri alako maitasun berezi bat, ELA izango zala, uste bait zuen, euskalduna gizarte-arazoetan aurrera eramateko bide egokia: gizarte zuzenago eta jatorrago bat sortzeko.

Euskaldun Diputaduek 1935'garren aurtean Madrid'eko Lege-biltzarrean, aurrerapen batzuek eskatzen zituzten langilleriaren aide... Baña, ez zieten aitatzen ere utzi. Diputadu batek Leon XIII eta Pio XI, Aita Santuak aitatu zitun, eskubitarrek bait ziran nagusi. Aieta-ko batek onela esan omen zuan, Agirre berberak dio-

nez: "Geurea alboratzeko, Arta Santuen irakatsiak aitutzen ba'dira, gu Eleizatik aldendu egingo gara".

*

GETXO'KO ALKATE

Primo de Rivera'ren diktadura amaitzean, Udal-etxeetarako auteskundeak izan ziran eta Agirre'k irten zuan Getxo'ko alkate 1931'ko jorraillean. Bereala sortu zuan Alkateen arteko mogimentua Autonomiaren aide. Urte berean, Ekainaren 14'an, bildu ziran euskal alkatetateak Estella'n ekintza orretarako.

Lege-gizona zan eta kristau zintzoa. "GAZTEDI KATOLIKUA"ren buru aukeratu zuten Bizkairako. Aldi aretan markina kanonigo gazte batek egiten zuan, lan Getxoko elizan, Alberto Onaindia jaunak. Orduan asi ziran euren arteko ar-emanak eta eriotzak ebagiko zitun; bitartean alkarren lagun zintzo izango ziran. Larunbatero biltzen omen ziran apaltzeko Irujo eta Onaindia Agirre'ren etxean, onen semeak dionez, zeruak eta lurrak jorrazeko. Bein onela esan omen zien: —Zuk, Manuel, kanonigo bear zenduke eta zuk, Alberto, politikari.



*Bere izena aldatuta
Panama'ko pasaportearekin.*

Bere liburuetan agertzen danez, Agirre beti Europara begira zegoen "Errien- Europa" noiz lortuko zanen itzaropenean. "Historia Contemporánea de Europa", bere irakaskintzaren gaia Columbia'ko Unibersidadean. Ondorengoentzat utzitako liburuak, berriz, auek dira: "Entre la Libertad y la Revolución", "De Gernika a Nueva York pasando por Berlin" (bere egunkaria liburu biurtua) eta "Cinco Conferencias" eta Euskalerriko Historia amaitzeke gelditua.

*

MOLA ETA 20.000 TXAPELGORRI NAPARROAN

Estella'ko Estatutoaren billa gebiltzala, Iruñan Mola militarra jeiki zan Errepublikaren aurka, 20.000 napar karlista berekin zituela, Uztailaren emeretzian, 1936'garren urtean. Egun artan zan Beasain'go Batzokiaren asiera



*Jose Antonio Aguirre
Euzkadiko Lenengo Lendakaria.*

ABERRIA



Otxandio'ko frentean gudariekin.

eta Jose Antonio mitiña ematekoa zan arratsaldez; bai itxa ropenezko itzaldia erritarren biotzak suspertu eta ña, ez zan etorri eta inaugurazioa egiteko gelditu zan, jasotzeko... arazo larriak sortu bait ziran eta gerra negargarri baten asiera.

Andik urte eta bi illebetara, Urrillaren 7'an, 1937, Gernika'ko Estatutoa onartua izan zan eta Jaurilaritzaren lenengo Lendakaria Jose Antonio Agirre aukeratu zuten: alderdi guztiek artu zuten parte. Orduan izan genduzen Euzkadiko Gudarostea, Euzkadiko Dirua eta Euzkadiko pasaporteak. Noiz izango ote ditugu berriro?

Bilbo inguruan egin zuten "burnizko esia" ere baiña guztia izan zan alperrik. Agirre frenterik frente ibillia zan gudariei animoa ematen; auek, ordea, egazkiñen aurka, iskillu narratx batzuek besterik ez zuten eskuartean. Gernika, Durango, Amorebieta eta abar erre ondoren Bilbo artu eta gudarostea erbestera. Baita Lendakaria eta bere Jaurilaritza ere. Erbesteratuen bide penagarria artu bear...

GABONETAKO MEZUAK

Jose Antonio'ren Gabonetako Mezuaren zai egon oi zan Euskadi osoa. Urteero eman oi zuan bgre itxa-



Paris-inguruan 1945. Ifar-Ameriketako gudariak gazte euskaldunak gudarako prestatzen ari ziren garaikoa.



Companys eta Irujo lagun dituela Frances Macia katalan abertzalearen omenez. Otsaila, 1939.

Doistarren erasoia Europa guztian zear. Endaia'raiño eldu ziran. Bien bitartean, Jose Antonio Europa orretan igesi batetik bestera Berlin'eraíño. An izena aldatu, Jose Andres Alvarez Lastra Jose Antonio Aguirre Leku-be'ren ordeztu, eta Panama'ko pasaportearekin Ameriketara iges.

Iparameriketatik asi eta Egoalderaiño, Erririk-erri, ibilli zan euskaldun-mezua zabaltzen, Diasporako Euskalerritari batasun apur bat eramaten...

Europa'ko guda amaituta, Paris'era berriro, bere Erriaren ingurura... Beti mezulari eriotzararte.

JAIOTZA ETA ERIOTZA

Bilbaon jaio zan Martxoaren 6'ean 1904'garren urtean eta Paris'eko Passy auzoan il zitzaigun, biotzekoak emanda, Martxoaren 22'an 1960'garren urtean. Doniane Loitzun'era ekarri zuten, eta 28'aren eguerdi-eguerdian, Jose Antonio'ren zerraldo gaiñean, zifin egin zuan Leizaola jaunak, Euzkadi'ko Bigarren Lendakari bezala.



1942. Bogota'ra eldu zanean Ego-Ameriketan Euzkadi'ren mezua zabaltzera.

ABERRIA



Lerida'ko frentean 142 Brigada Mixta Vasco-Pirenaika'koekin.



*Paris'ko Passy auzoan illa
1960'garren Martxoa 22.*

*Donibane Loitzun 'en eortzia. Bere gorpuren gaiñean zin
egin zuan Leizaola Lendakari berriak eguerdiko 12'etan,
Martxoak 28. 1960.*



ELEIZEA

De la Pira. Giorgio, Florenzia'ko "Alkate Gorria", aldaretara erama izango da eta orrekin batera, gerra-ondoren, Italia'ko Lendakari izandako De Gasperi jauna. Orra bi Santu berri, biak politikoak. Urte askotan lan egin zuten Demokrazi Kristaua izena duen alderdian, De Sturzo apaizak eratua eta martxan ipiñia.

Ines Ausan lekaiame irundarrari, Aitasantuak eta bere inguruko Kardenal, Gotzai eta Monsignoriek, omenaldi egin diote Meza eder batekin eta "Pro Ecclesia eta Pontifice" deitzen domiña emanez. "Vaticano'ko Monsignorien Ama" deitzen diote emakume euskaldun argi, maratz eta santu oneri. Bai ba, berak zuzentzen omen du "Santa Marta'ren Etxea", oien guztien bizi-lekua. 76 urte beteak ditu mojatxo onek, Bejondeiola gure agurra eta "zorionak"!

ANES



*FIFA'ko eta 1990'en Munduko Futbol
Leiaketaren Zuzendariekin batera Mundu
Guztiko Futbol Federazioek Mundialetako Futbol
Leiaketaren baloia eskeiñi zioten. Aitasantuak
ordez auxe eskatu zien: Alegintzeko Kirolak
giza-birtuteen eskola izan ditezten eta Munduko
Leiaketa, berriz, nazio-arteko alkar-ulertze eta
pakezko arremanetarako.*

AKULLU ZIRIKADAK

Iru eratako zirikalduak izaten ditu gizonak:

Lenengokoak: animalien erako tentaldiak: jan da eran, griña guziak ase, lo ta atsedendu...

Bigarrenak: giza-erako tantaldiak: nor bere burua jaso, arropustu... espirituaren atsegiñak.

Irugarrenak: Yainko erako tentaldiak: besteai agindu, menpean euki, gure gogoa besteiri ezarri...

JAN DA LO

Lenen maillako tentaldi aragitik datozkio gizonari... Aragiak ba'ditu bere betebarrak. Gorputza biziko bada, jan eta eran egin bear... Lan egiten ba du. loa bearrezkoa zaio...

Gizadiak lurraren gañean iraungo ba'du, eta emeen arteko artuemanak, bearrezkoak dira...

Bearkizun oietatik datozte gizonaren tentaldi batzuek...

Baña gizonaren azken elburua ez da jan da lo ta lizunkeria murgiltzea...

"OLOA BURUAN..."

Besteak arritza zein atsegin zaigun!

Barruko atsegin ori ez da animalien bearra, baña bai gure gogoarena... Orretan gorputzak atsegiñak artzen ez ba du ere, bai artzein du gure giza-gogoak...

Besteen gureganako iritxia bai inporta zaigula! Maite degu gure izen ona! Lagun-urkoak arpegira intsentsua botatzen digunean (naiz eta gezurretan ari) pozezko toxrabioa sortzen zaigu barnean...

Burua azitzen zaigu leertuarlean.

Arroputzen gera parre-garri.

Gizon aundienak ere ume biurtzen dira, gaitz onek jota. Zoro batek iartzeko moduan, umetu ere.

"Oloa buruan ta ibilli buruan".

Zenbat olo gure buruetan!

Gaitz ori ikusten gaitza da guretako bakoitzarentzat; oso zailla da. Baña besteentzat ez da zail. Errez ta garbi ikusten dute gure arrokaria...

Or goaz, burua globoa bezin poztu, mundu guziaren parre-garri...

KATUARI, ZAPI!

Gure barruan animalia bakarrik ba'lego, ezkurrekin aseko giñake... Baña besterik ba'da gure barruan animalia baño...!

Nagusi izan nai degu.

Besteai agindu.

Besteak menpratu.

Yainko txikiak izan nai...

"Bai (esango diazu), gaitz ori politikoena da".

"Ez (erantzungo dizut), ez da politikoena bakarrik gaitz ori.

Bakoitzak bere ingurukoekin, politikoak bezela jokutzen degu...

Diktadoreak ez daude Guatemala'n bakarrik... Bakoitza, geu Bera naiko diktadore...!".

Agindu.

Menperatu.

Gure gogoa besteai ezarri.

Ori egiten dezu lantegian, ofizinan, negozioan, aiuntamentuan, tabernan, azkenik, etxean...

"Kalean uso, etxean otso".

Zenbat aldiz gertatu...!

Iñor zeñen agintzerik ez degunean... katuari, zapi!

TIMOIA

Ikusten dituzu itxasontziak uraren gañean?

Timoi edo lema txiki batekin zuzentzen dira ontzirik aundienak ere.

Itxarsontziaren gobernu guztia timoiaren eskuetan dago.

Lema txiki baten eskuetan.

Lema txikia izan arren (burni edo egur pusketa bat) itxasontzi trasatlantiko aundiena berak, nai bezela, erabiltzen du...

Gizona aundiena ere bere mingañoak erabiltzen du.

Mingañoa da gizonaren lema.

Mingañoak esaten du gizona nolakoa dan.

OTZ-BERO

Otza da mingañoa, elurra baño otzago.

Mingaño txikiak bere eztena sartzen ba dizu, galdua zera...

Ziraunaren koskara baño atxarragoa da mingaño gaiztoa...

Beroa da mingañoa, sua baño berogo.

Onaren iturria da mingañoa: onetzi, bedeinkatu, barkatu. bizkortu, lagundu, konsejatu, animatu, goratu, indartu...

Jaunaren Berri ona (beraren Itza) gizonaren mingañoetik datorkigu...

Mingañoaren itzak dira maratil eta giltza...

OLLO LUMAK

Madarikatzea, gizki-esatea, gezurra, iñoren izen ona urratzea... oiek ere mingañoetik datoztenak dira.

Izen ona gezurretan urratzeak ba dakazki bere ondorenak: gaizki egiña zuzendu bearra, alegia.

Baña ori gauza zalla izaten da: ollo lumak aizetara botatzen ba dituzu, zeñek berriro bildu lezazke?

Uretara botatzen dezun arriak, urgañeko azalean, arrastoak egiten dituan bezela, zure itzak ere bere arrastoak uzten ditu...

Nolako itzak, alako arrastoak...

Itz gaiztoak, arrasto txarrak.

Itz onak, arrasto ederrak.

ALEJANDRO LABAKA ETA INES ARANGO

Martiri Berriak

Ecuador'eko Gotzaien Konferentzi'ko Batzar-gelan. indioen lantza bat dago orman esegita, onela dioten itz auekin:

"Le atravesó el costado con la lanza (Jn 19,34). / A la memoria del queridísimo Hermano Monseñor Alejandro Labaka Ugarte O.F.M.Cap.. Obispo Vicario Apostólico de Aguarico. Llevado de su amor misionero entregó su vida el 21 de julio de 1987 a manos de quienes quería, como Buen Pastor, proteger y salvar. El ejemplo de su caridad suprema (Jn 15,13) significará siempre para los miembros de la Conferencia Episcopal Ecuatorial un apremiante llamado a servir y evangelizar con preferencia a nuestros hermanos indígenas (Quito. 10 de agosto de 1987)."

Eriotzaren seigarren egunera, Beizama'n egin ziran illetak. Garaigordobil, gotzaia buru zala, beste ogeita amar apaiz lagun zituala. Andik bi egunera (29-VII-1987) Donostia'ko katedralean, egin zan beste orrenbeste. Jose María Gotzaia eta 66 apaizekin. (Aldiskari Nagusia Donostia'ko Gotzaitgia. 438 zn. XXXVIII (1987) 888-91 orrialdeetan).

Beizama

Intxur-menditik beera Azpeiti'ra dijoan bidean kokatzen da Beizama'ko errixka eta bertan jai() zan Alejandro 1920'garrengo Apirillaren 19'an, bederatzia seme-alaba izan zuen baserrian. Bera baño bi urte zaarragoa zan Manuel. bere anaia, joan zan lenago Alsasu'ko Kaputxi-noetara. Gero, bera. Andik Sangüesa eta bertan egin zuen bare profesioa eta izena Manuel (bere anaiaren izena) de Beizama, artu zuen. Gerora, bere izen berberarekin ezagutuko genduan: Alejandro Labaka, alegia.

Emezortzi betetzeko, gerraren irugarren urtean, ots egin zioten kaki jaztera. Ez ziran egun onak eta Regimiento América'tik Teruel'go frentera bialdu zuten, Muela de Sarrion'era. Andik Valencia artu arte. La Quinta del Biberrón deitzen giñun, talde gaztetxo arrei; ez zan iñor entxufatu; oso-osorik joan ziran danak Aragoi eta Kataluña-alderuntz, burrukarik gogorrenak zeuden tokietara.

Soldaduzka-bearrak amaituta, berriro komentura, apaiztu arteko guztian. Egun on eldu zan 1945'ko abenduaren 22'an. Andik bi urteetara, 1947, berak eskatuta, Txina'rako aukeratu zuten; bertan egon zan. 1953'garrean Mao'k txera bialdu arte. Txina'k biotza ikutu zion. Ez zitzaion burutik galdu sekulan. Egun aietan Kaputxi-noek Misio berri bat iriki zuten Ecuador'eko Amazonia'n eta ara joan nai izan zuan, beti mixiolaritzan jarraitzeko.

Mixiolari Ecuador'en

Quito eta Guayaquil'en linean ibilli ondoren. 1965'ean Aguarico'ko Prefecto Apostólico izendatu zuten Erroma'n. Vaticano II'go Konzilioa aurrera zijoan, Aita Santu Joan XXIII agindu au eman zuanean: Datortela Prefecto <Apostolico gurtiak Batzar Nagusi onetara. Orrelaxe joan zan Alejandro Erroma'ra. Bare izenpe au "Ego Manuel de Beizama, Labaca Ugarte" amaika dokumentuetan dago; oien artean, "Ad Gentes" agirian. Garai aretan oraindik Manuel de Beizama zeritzan, gerortik artu zuan bere benetako izena: Alejandro Labaka Ugarte.

Estabaida batean artu zuen parte Erri Txikien eskubi-deen aide ("defensa de los derechos de las minorías étnicas) eta berarekin batera beste auek: Larrañaga eta Olano, kaputxinoak eta Gotzai auek: Tarancón (Oviedo), Jubany (Gerona), Pildain (Canarias), Garaigordobil (Los Rios). Anasagasti (El Beni-Bolivia): danctara, ogei Konzilio'ko guraso. Zer nai zuten? Gai on-etarako agirian zeatzago eta luzeago erri txikien aldeko eskubideak, argitzeko, "Pacem In Tenis" enziklikaren arauera.

Burruka gizon adanak puskatu arte eta azkenik barruko pakea galduta, gorputzez eta buruz nekatuta, Prefektutza Apostolikuari bizkar eman zion eta lagatzeko eskatu zuan. Eman ere eman zien eskatutakoa (1970-VI- I I).

Ondorengo, urteetan, Amazonia aldean Ian egiten du indioen artean: 1977'an Huaorani, indio taldea, bere konutu artzea agintzen diote. Amazonia'ko Misio aren buru ere ebin zuten iru urterako (1979-82) eta berriro ere artarako aukeratu. 1984'ean Gotzai egin zuten Aguarico'ko Elizaren Vicario Apostolico.

Huaorani'ko Senitarte

Gotzai izendatu baño leen, Huaorani erria bare eskuartean ipiñi ziotenean, lenengo lana izan zan, bertako famili batean bare burua txertatzea. Bertako "aragia" artzea, huaorani biurtzea, Jainko'aren Semea giza-aragia artu zuan bezela. Ori egin zuan 1976'gn. Urteko Gabonetan. Barak orren berri erderaz eman zuan eta euskeratu ezkerro, daukan "sorginkeria" galduko Juke. Ona nola esaten digun, biotza eskuetan dardaraz duela, gaua aien txabolan pasa ondoren:

"Se hizo un nuevo silencio hasta que clareó el día.

Me levanté inundado de una gran alegría. Tal como estaba en paños menores, me adelanté hasta el jefe de la familia. Inihua y Pahua, su señora; jun-

ELEIZEA

to a mí se hallaba ya el hijo mayor. Con las palabras "padre, madre, hermanos y familia" me esforcé en explicarles que ellos, desde ahora, constituían mis padres, hermanos; que todos eramos una misma familia. Me arrodillé ante Inihua y él puso sus manos sobre mi cabeza, frotando fuertemente mis cabellos, indicándome que había comprendido el significado del acto. Hice otro tanto con Pahua llamándole "Boto haca" (mi madre): ella posesionada de su papel de madre, me hizo una larga "camachina". dándome consejos. Luego puso sus manos sobre mi cabeza y frotó con fuerza mis cabellos.

Me desnudé completamente y besé las manos de mi padre y de mi madre Huaorani y de mis hermanos, reafirmando que somos una verdadera familia. Comprendí que debía despojarme del hombre viejo y revestirme más y más de Cristo en estas Navidades. Todo se desarrolló en un ambiente de naturalidad y emoción profunda, tanto para ellos como para mí. sin poder adivinar todo el compromiso que este acto puede entrañar para todos.

Me vestí de nuevo y ellos comenzaron a preguntarme cómo se llamaba mi padre, mi madre y mis hermanos. Esto me sirvió para decir los nombres de mi padre, madre y mis hermanos, añadiendo que, además, ahora tenía a ellos de padre, madre y hermanos.

Fueron ellos los que me hicieron caer en la cuenta del parecido de los nombres de mis padres con los suyos: "Ignacio/Inihua. Paula/Pahua"

Cuando llegaron otras familias noté que Inihua les describía lo sucedido y volvían a preguntarme los nombres de mis padres y hermanos".

Andik urte batzuetara, Gotzai sagaratu zutenean, 1984-XII-9. here itzaldiak, an agurtu zitun anai arrebak: "Felisa, Kontxita eta lkañi maite maiteak"; baita ere Huaoraniko familia ere: "auto bara, buto mepo. huaorani memorani...". Baña, Txina ere gogoratu zuan, berarekin maite-minduta bait zebillen oraindik, amesetan noiz ara joango, indio kristauetz inguraturik, kristautasuna bertan zabaltzera...

Huaoraniko jendearekin izandako ar-emanak oso estuak eta ugariak izan ziran. Aietara join eta eiekin, beuren mizimodura, bizitzen saiatzen zan. Ango izkera kasettetan artu eta buruz ikasi: bertako eginda zegoen. Amar urte luze saiakera onetan. Mixiolarien laguntzarik ez zitzaion sekulan falta: baña, geien lagundu ziona Inés Arango izan zan. Alejandro Huaorani famili bateko senitarte eginda, urte betera, agertu zan Inés au mixio artara eta arrezkero Alejandro'rekin bat eginda ibilli zan Ian onetan.

Gotzai

Amar urte auetan Alejandro'k ez du bataio bakar bat egin, lagun talde aundia baldin ba'du ere. bertakoekin. Kristo da bere elburu eta indar-iturri. Erreketan-gora ibilaldi ugariak egin ditu mixiolariet laguntzaz. Azkenik,

elikoteroz egitea erabaki zuen, oianeko biotzeraiño eldu aal izateko.

Joan-etorri aidez eginda gero, erabakia artu zuten Gotzai Alejandro eta Inés Arango mixiolaria, jetxiko zirala, oianeko zabalgunen batera, indio berriekin ar-emanetan jartzeko. Uztaillaren 20'an, astelena. Jeisterako tramankuluak akatsen bat izan, eta ondorengo egunerako utzi bear izan zuten. Ogeita lau orduko atzerapen onetan, denbora pasa. erregali guztiak aztertu zituzten: eltzak, aisto luzeak, manta eta soñeko, janariak...

Ogeita batean, goizeko amar t'edietan, irtetzen du elikoteoak. Ordu erdi bear dute. oianean zear. Tagaeri'tarren txaboletara eltzeko. Erdiko enparantzan jeisten dituzte biak, Ines eta Alejandro euren erregaliek. Zeruan aize-gaillua ikustean, beko indio guztiak izkutatu dira. Jeisten dira Inés eta Alejandro eta bi eskuak ao-parean, deika asten dira: Zuen lagunak gera, emen gaude, zuengana etorri gera... Zeru-ontzia badoa eta biar etorriko dira, egi pozgarri aukustera.

Etorri ziran, etorri. Zer ikusteko'?. Alejandro'ren gorputza billotsik, lurtean luze, amabost lantza bularrean, lora-sorta baten antzera, eta bere aldamenean, Inés iru lantza bioz-ondoan. Irriparra biak ezpañetan. Alta Goldaraz, Alejandro'ren lagunak, 15 lantza atera orduko, soldaduek iru atera zituzten aurretik. Beraz, 15 ez, baizik 18 sartu zizkiten Alejandro gotzaiari.

Zer gertatu zan? Naaste-borraste bat dago erdian eta arazoa naiko illuna da. Dana dala, eurak naita joan ziran Tagaeri aietara, maite zituztelako, Huaorani zirelako, eta Huaorani erria "eurena" zalako...

21-VII-1987 / 21-VII-1996

Eriotzaren bederatzigarren urte-mugan, "Vicariato Apostólico de Aguatico"ren katedralean. Coca'ko Elizan, iriki da "proceso canónico diocesano", asiera emanaz, aldarretara, bi martin auek, eramateko ekintzari. Ecuador'eko Gotzai gurtiak, 1994'ko otsaillaren 23'an izenpetuta, Aita Santu Juan Pablo II'garrenari bidaldutako eskutitz batekin eman zioten asiera ekintza orreri.

Badu Aita Santuak munduari "Tertio Milenio Adveniente" izeneko here Eskutitz bat bialtzeko, martin zerrenda luze bat munduari eskeiñiz. Or azaldu bear dute, martin berri-benn auen izenak, Alejandro eta Ines. Merezi du gizon onen bizitza eta kristau-joera munduak ezagutzea, geure sinismenaren eutsigarri.

Asmo oiek lortzeko, indar asko du Ecuador'eko Gotzai gurtien eskabidea eta eurok eskatu dute, Alejandro eta Ines, aldarretarako bidean ipintzeko, mixiolari lanaren martin bezela eta danentzako eredu. Norbere bizitza besteen aide ematea da maitasunaren ezaugarriarik aundiena. Orixe egin zuten Alejandro eta Ines'ek.

ANES'ek
(SURGE'tik: mayo-junio 1996)



ALOS TORREA

- Nun da emen Alos Torrea?
- Bilbo'tik al zatoz?
- Bai, Bilbo'tik nator.
- Ikusten al dezu or, erriaren sarreran, etxe luzenga aundi bat, txikori paketa baten itxurakoa?
- Bai, ikusten det.
- Ori zera dezu, zibillen kuartela.
- Baita, baita.
- Aurrerago dagoen etxetxu ori, ezkerretara eta ibai gaiñean, Maxpe dezu.
- Ondoren?
- Enparantza txikitxo bat, bizpairu ethez...
- Bide zabala estutzen dan orretan?
- Bai ori etxe txiki bat dezu, bizitza bakarrekoa...
- Aurrean ba du baratzatzo bat ere... Utsa.
- Au al da guztia?
- Ez nizuke esango. Ondoren datorren lantegi zaar orrek (aroztegia alegia) ba du goiko-aldetik, kale zaarrear, torre baten orma oraindik erortzeke... Badirudi Bilbao'rako bide zabal au egiteko, etxea bota zutela alde batetik; bestetik berriz orma dago leio eta ate, gotiko egituretakoak...
- Alos Torrea edo aren zati bat.
- Bai, paret au torre batena da. Orma au bakarrik gelditzeak arritzen nau...

- Bilbo'ko bide zabala noizkoa degu?
- XVIII garren eunkian egiña da. Ba zituzten beuren arrazoiak ere artarako.
- Zer arrazoibide?
- Plaentxia, Soraluze'tik eta aurreragotik zetozken iskillu eta burni-ta tresna guztiak ibaiaz etorri oi ziran Deba'raiño.
- Nundik asita?
- Orixe ez dakit. Alzola'n badaude erreka-ertzean txalopak eta ontziak lo-tzeko uztai borobillak.
- Alzola'n?

- Bai, Antxe daude zubi zaarraren inguruan. Astigarribian, berriz, bada "moillatxua" eta bazan "astillero" izeneko etxe bat ere, tren-bidea egiteko botatakoa...

- Soraluze'tik Alzola'ra eta Astigarribia'ra ba ote zan bide-zabalik?

- Nik jakin ez. Baiña Deba'tik Alzola'runtz egindako bidea, portura ibaitik zetozten burni-tresnak bustitzen ziralako egiña da. Urez ekarri bearrean, legorrez eraman aal izateko.

- Ori be ala ba zan, Alos torrea zutik egonda ere, bota egin bear bidea zabaltzeko...

- Eta orrenbestez eldu daiogun ariari.

USUA

Euskaldun erri-musikak badu antxiñako doiñu bat ere letrarekin:

Alostorria bai, Alostorria,
Alostorreko zurubi luzia..."

Musika eta bertsoak. Bertsoekin, kondaira eta edesti bat.

Alos-Torrea ibai-ertzean dago. Torreak aberatsek egiten dituzte. Gure aurrekoen aberastasunak, mendian abereak, itsasoan ontziak, erreka-zulo eta mendi-muiñoetan burniolak... Baita errotak ere. Gerora zenbait burniola errota biurtuko bait dira gure historian zear.

Alos-Torreak, ibai-ertzean dagonez kai-babeseen, ontziak izango zitun itsasoan eta abereak mendietan. Gaurko egunez, "Lastur"ko zezenik geienak (Saka'renak) Alos-Torre gaiñeko mendietan daude: zezen eta larrabei...

Garai bateko oiturak agintzen zutenenez, Torreetako jauntxoak, zaldunek ziran eta beti zeuden burrukarako prestu. Gure Alos-Torre'ko Beltran jauna ere ibillia zan Gaztelanian, Almanzor maisuren eta Santso Irugarrenaren garaietan.

Naparroa'ko Erregeak deituta ibilli zan ibilli ere.

Bitartean bere alaba Usua, umezurtza, etxean.

Bera izango degu edesti onen ardatza. Aita Beltran alargun gelditu zitaiola ugazama ekarri zioten etxera... Zorioneko ugazamek! Benetakoak ere badira ba, baztarretan...

Usua eta ugazema. Ugazama eta usua. Ugazamak izan zitun bere alabak ere.

Orduan eta okerrago Usua'rentzat.

Aita Beltran, "jaun maitia", gerratean zebillenean, Usua'ren larriak etenik gabekoak izan ori ziran jauregi barruan.

Berri txar oiek eldu ziran Beltran'en belarrietara eta erabaki bat artzen du:

- Usua, emen gaizki bizi zera.
- Bai, aita, gaizki bizi naiz zu kanpotik zeranean; baiña, zurekin ondo bizi naiz eta ez nuke zuregandik alde egin nai.
- Pakeak ere badu bere prezioa, alabatxo. Emen burruka daukagu.
- Bai, aita. Ori ere ala da.
- Alde egin bearra daukat urrutira eta zenbat denborako jakin ez.
- Ez nazazu emen bakarrik utzi.
- Nerekin eraman ezin...
- Eta, zergaitik alde egin bear dezu...?
- Zaldunak gera eta Erregearen mendeko. Maisuekin burruka gorriak darabilzki eta denari utsik egin ezin.
- Orduan, zer...?
- Ezkondu egingo zaitut.
- Nora, aita?
- Bidania'ra. Ba det an lagun bat eta badu arek semea, zuretzako gizon gaztea.
- Akatsak izango ditu; baina akatsik gabeko gizonik nun da...? Zuk naitaez lagunduko diozu...
- Morkotza laguntzea ez da erreza, aita.
- Morkotzik latzeenak ere bere barruan mami gozoa izan oi du.
- Bai, aita. Zuk nai dezuna. Alegiñak egingo ditut.
- Zurea zan Alos-Torrea ez da gaur zure etxe, inpernu-toki baiño. Obe dezu zeurea izango dan beste etxe batera aldatu...

Ezkondu zan Bidaniarra zoro batekin "erorik eta zororik an bazan"...

Alaz ere bere aita maitearen gogoa pozik bete zuan eta morkotzaren biotzeko mamia billatzen saiatu zan. Gauzak ondo begiratu ezkerro, bere aurtzarako etxean baiño obeto bizi zan...

Ezkondu ezkerroz zazpi urte pasa zitun etxera etorri gabe. Aitaren eriotza erakarri zun Alos-Torre'ra berriro; bitartean ez zuan biotzean orretarako ausardirik izan.

Usua'k maite zuan bere aita Beltran jauna. Amarik eta anai-arrebarik ezean, bere biotzeko maite-indar guztiak aitarengana biurtu zitun...

Onek eriotzak biotza leertu zion. Biotzetik odola dariola etorri zan etxera. Gau-illa eta ondorengo illetak ospatzeko.

Oitura zan Gau-illak egitea.

Gau artan bertsoetan ekin oi zuten, bakoitzak beuren miña erakutsiz eta ildakoaren goraltzak egiñaz.

Usua ez zan ixilik egon.

Gau artako bere eresiak gureganaiño eldu dira. Usua'k bazun esatekorik eta esan zitun guztiak. Onela asi zitzaigun:

"Etxe eder leio bage ontan
ez naiz sartu zazpi urte auetan,

eta zortzigarrenian
aita Beltran'en iltzian..."

Zazpi urte etxetik kanpo. Zazpi urte etxerik ikusi gabe. Zazpi urte Bida-
nia'n ezkondua. Etxe eder kararri landuz egiña. Ate eta leio gutxi, burrukara-
ko alaberraz. Ibaia alde batetik eta mendia bestetik.
Itsasontziak ate ondoan...

Zenbat gauza gogoratzen zizkion etxe eder arrek. Bere jaiotza lenengo ta
bein.

"Amandrea neria
nitzaz bi erdi
egin zanian,
milla oillo il
eta eskeratzian...."

Festa aundiok egin zituzten Alos-Torrea'n. Milla oillo sukaldean, oillo asko
dira. Zenbat salda-upel atera litezke milla oilloetatik...? Kanpoko eta erriko,
ez zan iñor falta. Oilloak orrelako jan-aldietan salda egiteko izan oi dira jateko
baiño geiago. Izokiak (salmón) ibaian zeuden ugari, lupiñak, lagatzak, bixi-
guak... Txekorrak mendian, arkume eta antxumeak belardietan ugari, txakoli-
ña eta sagardoa bertakoa, ardoa naparra, arraiña eraman oi zuten mando-
zaiñak ekarria...

Erri guztiek parte artu zuan festa aretan:

"Zazpi zezen
korritu ere
enparentzian..."

Bazan Deba'n enparatza; baziren zezenak; bazan zezenak korritzeko oitu-
ra. Eta ez dute, alajaiñeten, oraindik oitura ori galdu. Zezenak inguruko mendi
guztietan daude Izarraitz'araiño: zezen txiki, gogor, gorriak histori-aurreko
aien ondorengoak... Eta, zezenik gabe ez da festarik gaurko eguneko Deba
onetan ere. Zezenak kalerik-kale enzierroan goizetik, enboladuak eguerditik
zezen-korrituak arratsaldetik... Egunero.

Usua jaio zan egun artan ere zazpi zezen izan ziran enparantzan korrituak
Ez da gutxi.

Oiek orrela dirala, zer egiten zuten ama-alabak bitartean? Ona zer dion:

"Ni ere banengoan
lumatxo artian
eta nere amandria
urre-gortiña artian..."

"Andre" esaten dio bere amari, errespeto aundiko itzez... Bera, lumatxo
artean eta ama urrezko gortiña artean: urrez apaindutakoak edo urrezkoak...
Aberastasuna darío.

Jaiotzetik eskontzara. Aitak Bidania'ra ezkondu zuan, bere etxetik alde egin aal izateko:

“Gero Bidania guzian
bat zan arerik eta zororik,
aita neriak aura
senartzat eman dit
baiña ez nuke trukatuko
obeagoagaitik”.

Benetako maitasuna zion Usua'k bere aita Beltran'eri eta bere naia betetz gairik ezkondu zan zoro arrekin. Eta, alaz ere, pozik. Arritzekoa ere bada.

“Aita jauna neriak
niri eman zidan
imiñan dotia,
ama andriak ere
ixilik bere partia”.

Ondoren bere Bidania'ko ezkontzaren berriak eskeintzen dizkigu:

“Lanen gabean
begi-biotzak
loaren mendean
baita berriz ere
bigarreanean.
Irugarrena
igaro baiña len
ondo poztu ziñan
Alos-Torria
eldu zalako
neregan semia:”

Barri oiek eman ondoren intziria datorkio biotzetik eztarrira:

“Alos-Torria bai, Alos-Torria,
Alos-Torre'ko zurubi luzia,
Alos-Torria'n nengoanian
goruetan
bela beltzak kua, kua, kua, kua
leioetan.
Andik jaiki eta
urre-goruaz jo nuan.
Baiña andik laister
berri gaiztoak
jo ninduan”.

Bela beltzak espiritu txarren irudi izaki, etorkizun gaiztoak agertzekoak. Gorua ere urrez. Goruakin aldendu zitun badaezpadako berrien emaila ziran bela beltzak... Bela beltzak aldendu zitun, baiña berri txarrak ez: “berri gaiztoak jo ninduan”.

Zer berri txar? Aitaren eriotza edo gero esango duan berria? Alos-torrean, alegia, semea jaio zala ezkontzatik at, Beltran gudatean zebillen bitartean. Ondorengo bertsoak orrelakoren bat adierazten dutela dirudi:

"Ixo, ixo zaldun
odol txarreko guztia.
Ala ere gutxiago zan
zure aginpida".

Gau-illa aurrera doa eta Usua'k ez du ixiltzeko gogorik biotzeko mindura erabat uztu artean. Aurrean ditu bere aizpak. Irripar negargarri bat ezpañeten duela, onela die:

"Aizpa ederrak
or daude
ederrik eta galantik
atz ederrak
eratzunez beterik".

Ederrak eta galantak. Ondo jandakoak. Ederki jantziak eta apainduriz beteak: "atz ederrak eratzunez beterik": aberastasuna Alos-Torreak dario:

"Ez daukatela
mantuetan zulorik.
Alare gutxiago
begietan negarrik".

Ederrak, galantak, ondo jantziak, apainduak eta alaitasunean pozik aitaren illetak teatro bat besterik ez balira bezala. Eta, ugazama?

"Ama andria ere bai
poza dario".

Alargun preskatua, etxearen jabe, nagusirik gabe... Nor maite ez zitzaion falta

"Nere biotza bakarrik
mindura dario".

Illeteetara doazen guztiak ez dira "mindunak". Ildakoarekin maitasun-lokarrri: bilduta zeudenak, oietxek dituzu benetako "mindunak" segizioan dijoaztenak.

Beltran'en Gau-illan mindun bakarra Usua zan. Beste guztiak ez zuten "begien negarrik", alderantziz, baizik: "poza dario"...

Usua'k ez ditu esateko guztiak amaitu. Gau onetan bera geldi araziko duenik ez dago iñor. Zigorra astinduko du ezker-eskubi:

"Aita jauna neria
Gaztela'n zanian
ixil askorik jaio zan
Alos-Torria'n semia.
Ala ere ixillagorik
dago bakian
ezitzen Zarautz aldian
gure jatorriaren
loitukerian..."

Mairuekin senarra burrukan dan artean, emazteak iruzur egiten dio. Alaba jakifnean egon eta ixildu egin bear. Baiña, gaur ez da ixilduko bere barruko oindura kanpora irauli arte:

“Ai au mindura beltza,
ai ene lotsa
alabak negarra ta
aitak lur otzel”

Alabarena beste negarrik ez da gaur Alos-Torrea'n: alabak lotsa biotzean, aitak lur otza gaiñean:

“Zeñek loitu zaitu zu
Alos-Torria?
Ai nere aita maite,
aita maitia!
Iltzea ondo egin dezu
aita jaun maitia”.

Aurrekoen etxea zikinduta ikusi baiño, obe iltzea. Alabarentzat geldituko dira lotsa eta negarra. Aitak bere eginkizuna amaitu du.

Emen amaitzen dira bertsoak; baiña, gertakizuna bera ez da amaitu erriaren gogora eta pozera. Orregaitik edo, aizken muturra erri-jakintzak erantsiko dio:

Beltran jauna ez zegoan ilda, lozorro batek artuta baizik. Lozorrotik esnatu danean, Usua alaba ari zan izketan. Geldirik iraun du aitak alaba ixildu arteko guztian; orrela egin da bere etxeko berrien jabe...

Okerra zuzendu aal izan du, Usua'ren onerako eta zuzentasunaren argibidera.

Okerrak zuzendu gabe eta gaiztoak zigorrik gabe ez du onez eramaten errien biotzak. Onak saria bear bait dute eta gaiztoak zigorra, justizia erren geratu ez dedin...

Ostatuko Mikela'rena esan beariko ote degu emen ere; “argia ba'zan sartu dedilla kalabazan...?”

Bertakoak or daude. Ez dira gaurkoak. Gertakizun baten ispillu ote dira?
Edo ta, asmakizun uts baterena?

Bertakoak ezik Alos-Torrea nun zegoan ere badakigu... baiña, historia asatza, asmakizun utsa edo bien arteko naasketa ote dan, orixe bai ez degula ziur sekula jakingo.

ARRINDA'TAR ANES

AMAIUR ETA IÑIGO LOIOLA'KO (2N. SARIA)

Arraioz'eko Jauregui-zaarrean gaude, Etxekoandrea urduri dabil:

- Aizu, Patxi, atoz ate onen ingurura.
- Zer du, ba, zurezko ate sendo onek bereizirik?
- Burnizko morrollo galanta barrutik eta beste burnizko ate bat eantzita, kanpotik.

Iriki zuen atea eta alaxe gertatu zan: beste ate bat zeukan kanpotik zurezkoari eantzita: biak ate bat egiten zuten.

- Eta onek zer esan nai dau?
- Burnizko ate au Amaiur'eko atea da eta, zertzalada asko tartean dirala, etorri zan etxe onetara.
- Zeñiek emanda eta zergaitik?
- Kastilla'ko Errege Fernando Bigarrena'k eman zion Jauregui-zaarreko nagusiari, bere alde jokatu zuelako Amaiur'eko burruka-aldi aretan.

Arri-ta-zur gelditu nintzan ateari begira eta musu bat be emon neutson. Berreun giza-seme jator'ek emon eben beuren bizia Naparroa'ko Erregeen iesari bidea errezteko.

- Aiek bai, gizon abertzale jatorrak eta ez Loiola'ko Iñigo traidorearen antzeko. Zergaitik egon bear eban Iruña'ko gaztelua naparren aurka defenditzen, Kastilla'ren serbitzari?
- Orduko arazoak ez dago gaurkoekin neurtzerik. Zortzireun urte moroekin burrukan aiek bota eziñik: naparrak, giputzak, bizkaitarrak, Aragoi, Cataluña, Asturias eta Galezia, danok bat egiñik.
- Bai, ori be, alan da; baiña, burruka oiek amaitu ziran aspalditxoan eta zerk eraginda etorri zan Kastilla Naparroa menperatzera?
- Kastilla bakarrik ez zan etorri; erdaldunekin batera agertu zan Lerin'go kondea Beaumont'etarrekin alkartuta. Guztiak napar. Naparroa'ren erdia beste erdiaren aurka: egoaldeak ifar-aldea bere menpean artzen. Eta gertaera ori, gaurdaño eldu da. Ez al dezu ikusten Sanz, Naparren lendakaria, napar euskaldunen aurka jokutzen? Orduko arazoa ez da amaitu oraindik; amaituko be.
- Baiña, Iñigo'k zertan sartun bear eban burruka orretan napar Erregeen aurka?
- Iñigo'ren arazoa beste arazo bat da. Neuk argituko deutzut zergaitik zegoen Iñigo Iruñan eta ez Amaiur'en.

IÑIGO'REN ARAZOAK

Beltran jauna, Loyola eta Oñaz gazteluen jabea, Granada aldetik dabil azken urte onetan, burruka bizian,

moroak Afrika'ra bota naiean. 1492'garren urtean, orratio, lortu dute beuren asmoa; Bohabil moro erregea bota dute kanpora. Garaipena itzala izan da: betirakoa.

Gerra amaitu eta Beltrán Loiola'ra biurtzerako, beste urte bete; bitarte oietan jaiotako Iñigo'k, Beltran'en azken semeak, bete ditu bi urte. Amairu erditze izan da, ama oso aulduta dabil, bularra eman eziñik bere seme-txoari. Eskerrak Errazti, etxeko ermentariaren emazteak, aur galdu berria dula eta bera aukeratu zuten gazteluan Iñigo'rentzat ama-titi.

Ama gaixoak ez zuen asko iraun bizirik eta zazpi urte betetzean, orra Iñigo, amaren aldetik, umezurtz. Aita burrukalari, anaiak gerrateetan eta aurra bere koñataren ardurapean. Koñata, ordea, ona izan arren, eta koñata au oso ona zan, ez da sekulan ama izango. Amaren utsune onek zuloa utziko zion Iñigo'ri betirako biotzean.

Amabost urte bete berriak ditu Iñigo'k Arevalo'tik mezua eldu zanean Loiola'ra:

- Aizu, Beltrán, zuk seme-alaba asko dituzu eta bidaldu eizu seme bat gure etxera eta emen zaldunen antzera eziko dogu.
- Bai, gustora bidalduko doutsut; amabost urte bete berriak dauz, garai egokia zaldun-jokoak ikasteko, ez da ni eta bere anaiak bezin mardula; baña, txikiagoa izan arren, kasta gogorrekoa dozu.

Pozik artu eben mutikoa Arevalo'ko gazteluan. Eurok ziran Fernando eta Isabel, Kastilla'ko erregeen diru-kontuak eramaten ebezenak eta Valladolid'eko korte-ateak beti zabalik eukezan; ortik ubiltzen laister ikasi eban gure Iñigo gazteak eta bertan paje bere izendatu eben.

Isabel iltzean, Fernando, errege alarguna, beste emazte baten billa asi zen, eta jo eban Foix'eko gaztelu-ara eta andik ekarri eban emazteki berria. Erregin onek, Foix'etik ekarri eban bere kortea eta Arevalo'ko etxe-koandrea aukeratu eban beretzako lagunik miñena. Korte-ateak zabalago Iñigo'rentzat eta Pirenee-aldeko lagun berriak ere bai...

Baina zoriona ez da betirako izaten.

Fernando'k alaba zoro bat eukan, Juana “La Loca”, Alemania'ko printze batekin ezkondua; printzearen izena Felipe “El Hermoso”. Enperadorearen semea. Aur bat izan eben, Karlos, eta amari eskutik kendu eutson aitak, Flandes'en ezitzeko aitita enperadorearen ardurapean.

Espainia'ko enperadore izateko unea heldu zitzaionean, andik ekarri eban bere korte doistarra eta emengoentzat lekurik ez. Arevalo'ko gaztelua beste batentzat; baita diru-eramate arazoak be. Iñigo'ren osaba-izeko, kalean. Bera, berriz, zer esanik ez.

IÑIGO'REN KAKOA

Une larri aretan, illoba lanik eta etxe barik ikustean, 500 dukat eskura eta bi mando emon eutsozan izekok; baita komendiozko mezu bat bere Naparroa'ko Erregeordezko Najera'ko Kondearentzat:

– Or bidaltzen dautzut nere illoba; emen ezbearrak jo gaitu eta bearrik barik geratu da. Zure inguruan edukiko dozu lantxoren bat beretzako. Eskertuko dautzut biotzetik.

Bide onetatik aurkitu zan Iñigo Naparroan Kastillako Errege-ordezkoaren menpean, Albert eta Catalina Foix'ekoekin Iruña birreskuratu nai izan zuten aretan. Napar-erregiñ Catalina Foix'ekoa zan eta orregaitik etorri ziran Foix'ekoek (Frantziarrak) naparrekin batera Iruña askatzera. Gaztelua menperatu zutenean, an aurkitu zuten Iñigo anka-ezurra apurtuta zuela. Iñigo eta Foix'ekoek, Valladolid'eko Kortetik ezker, lagun zaarrrak ziran eta orretxegaitik zauritutako gudaria, ormetatik zintzilik urkatu bearrean, leunki artu eta Loyola'ko etxera eruan eben. Zaartzaroan berak esaten ebanez, ez zuten naparrek eraman, frantsezek, baizik.

Kakoa emen dago:

Iñigo'ren izekoak bere mezua Naparro'ra bota bearrean, aiiñ ezagunak zituen Foix'ekoetara bidaldu ba'lu, auekin batera etorriko zan Iñigo Iruña askatzera. Eta ori ala gertatu izan ba'litz, bere gizatasun eta zuzentasuna ikusita, ziur nago Amaiur'eko 200 gizaseme aietako bat izango zala bera.

Baña, Iñigo izan zanik be ez genduan sekulan jakingo.

OARRA.

Napar eta Foixtarrek, Iruña menperatuta, bertan gelditu ba'lira, ez zuten gaztelua berriro galduko; baña, Frantzia'ko Frantzisko Leena eta Espainia'ko Karlos alkarren artean burrukan ebiltzen. Une aretan Kastilla'ko Los Comuneros, Erregearen aurka jeiki ziran, Karlos'ek bere Korteia atzerritik ekarri ebalako eta kargu gorenak euren artean zabaldu, Frantsezek une ori aprobeztatu nai izan eben eta Iruña'n sartu bearrean, aurrera jo eben Kastilla'ko bidean.

Orrek emon eutson denbora Najera'ko Kondeari, bere gudariak bildu eta frantsezak gaintzeko. Orduan Napar-Erregeek alde egin bear izan zuten beuren Benabarra'ra. Eta igesi-aldi ori errezteko gelditu ziran 200 gizaseme jator, bidean zegoen Amaiur'eko gazteluan. An eutsi zioten etsaiari bizia eman arte. Il ziran berreunak, beuren Erregeen biziak salbatzeko. Bertan egoteko aukera izango zuen Iñigo'k, bere Arevalo'ko izebak beste era batera jokatu ba'lu.

ANES ARRINDA ALBISU

ZUGAITZAK BOTA EZKERO, URA TA TXORIAK BADOAZ, ZUGATZAK SARTU EZKERO URA TA TXORIAK EKARRI EGITEN DIRA.

R. CORONIU

Zorionsua izateko beste batzuk iraintzen dauzana, oneik be zoriontasunaren billa dabiltzanean, ori ez da sekula izango zorionekoa.

Buda'k

BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ



**ALDIZKARI ONEK
BIZKAI'KO FORU-ALDUNDIAREN
DIRU-LANGUNTZA JASO DAU**

ZINEMA

ANAI ARTEKO GORROTOA : GIPUZKOA ETA NAPARROA.

Naparroa eta Gipuzkoaren arteko gorrotoak sustraiak ditu oso luzeak eta zaarrak. Antxiña antxiñakoak dituzu: amairugarren gizaldiaren asieran Gipuzkoak alde egin zion Naparroari, Kastillarekin bat egiteko.

Arrezkero, bien artean, ez da burrukarik falta izan euren bitarteko mugaren zear: Lazkano, Amezketeta eta Berastegik, irurak zeukaten "fortaleza" bana, bakoitzak bertatik naparrieri erasoteko...

Lan onetan histori zeatzak eta asmakizunak naastean dabilta: 1329'an Naparroako agintariak Lazkanoko Jaunen seme Semeno artu zuten preso Olazagutian eta Tiebasko gaztelura eraman. 1936'an, berriz, Lazkanoko Jaunen seme Borja Arteaga dator Lazkanora naparrekin bat eginda, Gipuzkoaren aurka. Bi ekintza auetatik sortzen da histori onen aria.

ANAIARTEKO GORROTOA NAPARROA ETA GIPUZKOA

O/. Gela arrunta bat zuriz. Gaua.

Erdiko paretan Sabino Arana Goiriren lauki bat. Eskubitan ikurriña; ezkerretan arramario bat eta erdian maia iru aulkirekin. Arramarioan radio bat.

OFF/ Larunbata da gaur eta batzokiko maiburuen billera. Bederatzi lagun. Une onetan billera amaitu dute. Aulkietatik jeikitzen dira euren artean izketan. Batek radioa pizten du.

RADIOAK

...en Africa. No se sabe con certeza si son las kábilas del Protectorado de Marruecos o los militares españoles con algún Tábor de Regulares. Más bien parece esto último porque el General Franco se ha movido de Canarias al Africa. Pero, no temais ciudadanos de la democracia porque la República aplastará

con sus botas estas cucarachas. Sucesos: un tranvía ha atropelado a un burro...

(Apagan la radio. Berri oiek entzutean guztiak gelan gelditu dira irten gabe.)

BATEK

(Kantuz letanien antzera)

Ezpañiako gauzak...

BESTEAK ALKARREKIN

Ora pro nobis.

(Geienak praka "mil rayas" eta alkondara zuria daramate. Lanetik etorriden batek prakak eta alkondara urdiña "maoiezkoa". Illea kokote aldetik garbi eta patillak erdizka. Albar-keta zuria geinek edo urdiñak.)

JOSEBAK

(mai-burukoak)

Españolen arteko arazoek. Eta, guri zer? Konpondu ditezela nai duten bezala.

MANOLOK

(Idazkariak)

Or konpon, Mari Anton.

LUISEK

Goazen mus-aldi bat egitera.

JOSEBAK

Ni etxera nijoak biar goizean perretxikotan joan nai diat-eta.

LUISEK

Ba omen zeudek gibelurdiñek... (Besteai) Onek arrapatutako gibelurdiñekin biar merienda-aparie emen...

(Badoaz gelatik)

O/1.-Kalea. Goizean.

OFF. Gaur igandea degu, uztaillaren emeretzia. Goizeko zortzirak, Mezetara joateko ordua. Orregaitik datoz ain serio eta emakumeak mantilla beltzekin, errosarioa eta liburua eskuetan dituztela... Bide-ertzean General-Motors kamioneta bat dago amar toneladakoa eta bere barruan zortzi barrika ardo. Txoferrak kamionetatik irten du eta jendea dauka bildurik inguruan. Lazkaon gaude: Lazkanoko

Jauntxoan errian. Milla bederatzireun eta ogeita amasei garren urtean.

(Kamarak goitik, gero gerturatu eta txoferraren plano bat eman).

TXOFERRAK

Al amanecer venía yo de la Rioja por la carretera de Estella...

(Txoferrak prakak illun eta alkondara zuri).

0/2.-Bidea. Goiz-aldea baiña oraindik illun.

Kamioneta dator Estella-bidean eta bere argietara parapeto bat ikusten da kamiñoa itxizten duena. Txapelgorriak eta fusillak.

BATEK

(Parapetorik)

Alto, quién vive?

TXOFERRAK

(Kamioneta gelditu eta leiotik)

-No disparéis, camaradas.

PARAPETORIK

Qué camaradas ni qué ostras! Viva Cristo Rey! Aquí no pasa ni Dios!

(Kamara urrutiratzen da eta bost txapelgorri ikusiko dira txoferrarekin eztabaidan. Aizkenean gurdi bat erditik kendu eta pasoa uzten diote libre)

0/3.-Kalea.Goizean

(Kamioneta. txoferra eta abar, lenago bezala:0/1)

TXOFERRAK

Les dije que no era mío el camión y a ver qué le iba a decir yo al dueño del camión y del vino. Si vosotros estuvierais en mi lugar, qué haríais? Les dije. Y entonces, me dejaron pasar.

(Une artan txirrindulari bat dator Beasain alde-tik. Txapelik gabe. Beltza eta patilla luze. Praka panazko eta aldondara urdin).

TXIRRINDULARIAK

De parte del Comité de la C.N.T. que los vehículos para Beasain que pasen inmediatamente porque van a volar el puente.

(Badijoa aurrera)

JXTOK

(Agure xaar melarra. Praka eta alkondara zaar-rak. Burutzik eta kaskoa soillik. Barrikardoeri bigaratzuz)

QUE VOLEN! Que volen!

(Txoferra kamioira igo eta badoa bidean. Jux-

to gelditzen da bakarrik eta triste kamionetari begira)

0/4.-Kalean. Egunez.

OFF.-Burrukaren berri zabaldua errian. Aste-lena gaur. Jendeak ez dauka lanera joateko gogorik. Zer egin bear danik iñok ez daki eta or dabilta bata mendian perretxikotan, besteak errekan arrantzan, geienak taberna zuloan, zenbaitzuk pelotan edo futboleant. Luis eta Joseba datoz alkarizketan.

JOSEBAK

Zer egin bear degun? Ezer ez. Au euren arazoa da. Alkar jo nai badute, jo dezatela alkar. Alkar il nai badute, il dezatela alkar... Gurt, zer..?

GIOIA -- 1

ANAIARTEKO GORROTO

1/- BIDE ZABALA. ARRATSALDEZ.

Lazkautik Ataunerako bidea. Txirrindulari bat dijoa Ataun aldera. Mutil gaztetxo bat da. Kamarak bere ondoren. Errebuelta batetik irtetzean, bidea itxita dago sakuz eta traste zaarrekin, trintxera baten antzera. Txapelgorriak eta fusillak agertzen dira trintxera gainetik. Mutikoak jira-bira egiten du Lazkano alde-ra. Bitartean kamarak bijoaz gerturatzen zer diran ikusteko: dozena bat mutil daude jazkera arruntekin, lanetik etorrita bezala. Buruan txapelgorriak eta eskuetan fusillak. Eun metrora baserri bat ikusten da kamiño-ertzean eta bertan jende pilloa nabari da txapelgorriz. Txirrindularia aurrera doa erriruntz. Kamarak bere ondoren zati batean eta gero Lazkanoko ikusmira orokor bat... Tituloak eta abar plano oietan impresionatuak.

2/- LAZKANOKO JAUNEN PALAZIOA.

ILLUNTZEN ASITA.

Jauregiaren aurpegiaren bista orokor bat. Kamarak atzera jiratu eta aurreko orman, Monjetako etxearen orman, dagoen marmol zurizko plaka bateri gertutik begiratu. An daude Lazkanoko Jaunen gaurko titulo guztiak: OFF/ "Duque del Infantado, marqués de Val-mediano... y Señor de Lazzano."

TXIRRINDULARIA (palazioan sartzen)

-ERREKETEK ATAUNEN DAUDE.

Sartu eta ezkerretara sukaldea dago. Bertan

Batzokiko Batzordearen iru lagun daude bilduta. Iru mutil gazte eta palazioko zaindari-etxeoandrea. Aueri itz egiten die txirindulariak. Cocina-economicadun edozein sukalde. Txirindulariak itz egin ondoren:

OFF/ Erreketek karlista-soldaduak dira. Beuroen ezagupidea txapel gorria da. Ogei milla jeiki omen dira Nafarroan Errepublikaren aurka.

BATEK

-LISTA GUZTIAK ERRE. ETA ZUK (bateri) ARTXIBOA BESAINERA ERAMAN.

Cocina-economica artan erretzen dituzte paperak. Beste artxiboko liburuekin pardel bat egiten dute. Ondoren etxetik irtetzen dute.

Gaua da kalean. Ikurriña eurokin daramate-

3/-GELA ILLUNXAMARRA, KALEAN

GOIZA DA.

Sotano antzeko gela uts bat da. Kutxa zaar bat eta aulki luzanga bat.

Badu leiotxo bat ere aldamenean. Erriko zubia ikusten da bertatik. Iru amonaxo, bi neskazar, lau mutiko, iru neskakil, etxeko jaunna eta onen lagun adiñeko bat, itsasoko kapitana, sartuaz:

KAPITANA

-GORDE OGI AUEK KUTXA ORRETAN.

Iru ogi aundi dakarzuki. Neskakil batek diotza:

NESKATILLA

-OSABA, AU BILDURRA! EZER EGINGO OTE DIGUTE? ZUK EZ DEZU BILDURRIK?

Emakume batek ogia gordetzen ditu kutxa zaarrean. Nun gordetzen diran begira doa kapitana.

KAPITANA

-ITSASOAN NEKE ETA ARRISKU ASKO PASA DITUT. AIEN ONDOAN AU EZ DA EZER.

Leioan kanpora begira dagoen andra bate, barrura begira

ANDRE BATEK

-ARA, OR DATOZ... TXAPEL URDIÑAK ETA TXAPEL GORRIAK...

ETXEKO JAUNAK

-TXAPEL URDIÑAK..? OIEK ZER OTE DIRA..? TXAPEL GORRIAK BETIKO KARLISTAK DIRA, BAIÑA TXAPEL URDIÑAK...!

KAPITANA

-TXAPEL URDIÑAK, EDO TXANO URDIÑAK,

FALANJISTAK DITUZU...

Guztiak leiora urbildu nai dute. Zubitik pasatzen ikusten dira, euren buruak petrillen atzetik izkutatu nairik. Txapelgorriak eta txaño urdiñak alkarrekin; gerora soldaduak ere bai. Ez da tirorik. Bandera española (gorri eta ori) danen aurretik.

4/-PALAZIOAN BERRIRO. GOIZA

Alferez falanjista bat dator aurretik. Beltxarrena, ille kirrua eta beltza, lerdena eta oso gaztea. Buzo urdiña eta ugalak beltzak, pistola gerrian eta buruan soldaduen antzeko, bi puntako txano urdiña, erdi aldetik galartsu gorria eta muturreko borlatxoa ere bai, gorria. Bere ondoren datoz kapitan bat eta bi teniente txapel-gorri. Atera gerturatzean zaindarien etxe-koandrea atera zaio bidera. Kurtiñapetik zegoen sukaldeko leiotik begira kalera eta gizona ikusi duanean saltaka atera da.

ETXEKOANDREA

-ENE SEÑORITOA! ONGI ETORRIA ETXERRA.

BORJA ALFEREZA

-Okerrik egin aldute etxean? Danok ondo zerate?

ETXEKO ANDREA

-BAI, JAUNA. DANA ONDO DAGO. ERRESPETO AUNDIZ IBILLI DIRA ETXEAN...

BORJA

-ORRELA OBE DA...

Alferez falanjista izketan txapel-gorriekin ari dan bitartean.

OFF/ Alfereza Borja Arteaga da, Lazkanoko Jaunen semerik gazteena. Aizkeneko bost urteetan, Errepublikako urteak, etxe onetan igaro izan ditu bere udarako oporraldiak.

BORJA

Reketeen kapitanari:

-Kapitana, zure eskuetan uzten dut nere aurrekoen etxea.

Txapel-gorriak barrura sartzen asiko dira... Borja eta bere falanjista taldea aurrera doa, Columna Cayuela osoarekin, Gipuzkoa konkistatzen...

OFF/ Rekete konpañi bat gelditu zan Lazkanoko Jaunen etxean, Beasaindik Zumarragara bitartean frente jakiñik ez zegoalako. Napparoako gudari talde guztiak Irundik Beasain arteko bideetatik zetozen. Ezkerreko alde osoa gelditzen zitzaien ergel. Zumarraga

aldetik erasorik ba'zan, ordurako zegoen gordeta reketek konpañi bat Lazkanoko Jaunen jauregian.

(Bitarte onetan kamarak Olaberri gaiñetik eman lezake Zumarragarako partea.)

5/-LEMONAKO AITZAK

OFF/ Zazpi illabete pasa dira borjak Lazkanetik alde eginda gero; Gipuzkoako mendiak zearkatu dituzte bien bitartean burruka bizian... eta Bizkaira eldu. Lemonako aitzak, aitz gogorak. Burruka latza. Gaillurra arrapatu ezin... Alde bietatik, zenbat odol-ixurtze, aitzak gorritu arte...Borjaren gorputza zerraldo batera jaso dute.

(Bitartean panoramika batzuek Ernio ingurutik eta Bizkai aldera Lemonako aitzeeetan amaituz.)

6/- Taberna.Egunez. Lazkano

Ezkerretik mostradorea eta eskubitik, mai luzanga bi. Bigarren maiaren barruko muturrean, paretaren kontrako txokoan bi apaizgai gazte, ogei urte ingurukoak, biak beltzez txapela, txamarra eta prakak, bizkarra ematen. Euren aurrean txapelgorri brigada bat. Izketan diardute:

BATEK

Gogorra izan al da Lemonakoa?

BRIGADAK

Ez dakizute ondo. Ederretik libratu zerate.

BESTEAK

Bai, zuek "voluntarioak" eskatu eta gu, apaizgaiak, "voluntario" izatera beartu...

BRIGADAK

Bai, ordena ori gendukan eta orretxegaitik ibilli izan zerate gurekin bateginda guda-ariketarik egiten mendi auetan zear...

BATEK

Ezkerrak Marco itsasoko pillotua zalari eta nere aita itsas-kapitana. Alkar ezagutu ez balute, an izango giñan gu ere Lemonako aitzeeetan...

BESTEAK

Adieraiguzu an gertatua.

BRIGADAK

Negu osoa mendian aterperik gabe... Euria eta bisutza, elurra eta kaskabarra... Ezurreta-riño bustiak, otza ezur-muiñetan, izotza kokatu zaigu biotzaren erdian...

BATEK

Zer ari zera, gizon..?

BRIGADAK

Guda anker eta zital onek maitasuna antzutu digu barnean... Ezin dut Lemonakoa burutik kendu. Zubi baten ondoan geuden geure buruak erreka-ertzeetan gorderik... Egunsentia, sutautsaren kolorea galduta, Urdiñez jazen ari zan... Mendi arren gaillurrean genduzkan begiak josita. Goi artan bazan ezer; guk ordea ez jakin zer...

BESTEAK

Zenbat ziñaten..?

BRIGADAK

Giza-seme asko. Bat-batean kañoi-burrunda aidean... Mendi-inguru osoa sutan... Ondoren ogeita amar egazti zaar aitze-muiñotik zear beuren bonbak uztutzen... Baillara guztia bete zan zarataz eta iskanbilla arrek lasaitzen zigun biotza...

BATEK

Luze iraun al zuten bonbardeoak..?

BRIGADAK

Kañoi eta egaztien artean ordu pare bateko lana izan zan danetara. Turutak urratu zuan ixil-aldia. Jeiki nintzan lurretik eta mutillak ondoren nitula, ekin diot mendian gora. Borja eta bere eskudra eskubitik.. Ez zan ezer ikusten iñun.. Ametralladora batek esnatu nindun: ta-ta-ta-ta-ta-ta-ta...Ondoren garraxia, santzoa, madarikazioa... Borja ikusi nuan erortzen...

BESTEAK

Eta..?

BRIGADAK

Lurrari josita gelditu giñan al zuana al zuan tokian, lapak aitzari baiño elduago...Burua jasotzen zuanari zuloa egiten zioten txapelean... ildakoak ez zuten garraxirik egiten; zaurituak, ordea, ixildu ere ez...

BATEK

Luzaro orrela..?

BRIGADAK

Illunduta, turuta-otsa berriro, zaurituak eta illak jaso, ta berriro erreka-zulora... Amaiera gabeko gau luzea berriro... Oste berriak etorri ziran laguntzera... Berriro kañoiak, berriro egazkiñak, berriro zarata, beia, autsa... Sukarra odolletan eta zorabioa buruan...Turuta berriro eta

bagoaz goruntz... Jeiki eta etzan, etzan eta jeiki, beti babes baten bila...Tiroa emendik eta tiroa andik; esku-bonbak arrika nun-nai...Eldu gera erpiñera eta iges zijoan gazte gizarajo bateri sartu dizkiot bost tiro pistolatik...Eskuak zikindu ditut odolez..!
(Negar itxurak artzen ditu eta pattarra eskatzen dute irurontzat. An uzten ditugu).

7/- Beneditarren eliza. Egunez. Lazkao.
Borjaren aldeko illeta-ospetsuak egin dira, Amaitzen. Il-kutxa galanta aldara nagusian eskubitara ipintzen dute. An dago benetan, arkupe batean. Aurrez-aurre Oquendorena dago, beste arkupe batean. Oquendorenari SEMENO ipiñi bear zaio. Borjaren guraso eta aideak. Erria ere bai. Alkateak eskua ematen dio aitari. Kamarak SEMENOn il-kutxa ere erakutsi.

ALKATEAK

Le acompaño en el sentimiento.

AITAK

Estoy muy orgulloso porque ha muerto por Dios y por España.
(Une onetan kañoi zaratak, rekete, falanjista, soldadu, moro, italiano, Condor alemana...eta abar. Irudiak bata bestearen gaiñetik...)

8/- Beneditarren liburu-gela. Lazkao.

Gaua.

OFF/ Borjaren arazoa dala-ta emen nabil, an elizan dagoen SEMENOn azarnak billatzen. XIVgarren mendeko librua topa det. Bertan Cámara de Comptos dalako Iruñakoari buruz ari da idazleak eta esaten digu 1313an naparrek Lazkanokoen gaztelua menperatu zutela: "Quod navarri expugnauerant fortalezan de Lazkano." Zenbat kostatu zitzairen naparrerik Lazkao menperatzen eta orduko bitxikeri guztiak dakarzki kopia onek. Gorrotoa nun-nai. SEMENOn berri ere topatu det beste kronika zaar batean. Salatarien bitartez napar Merinoak SEMENO arrapatu zuen Olazagutien eta Tiebasko gaztelura preso eramán. Baiña arazo au, geroko kontua degu. Semeno Lazkanoko Jaunen semea zan Borja bezelaixe. Arbola baten kimuak eta emaitzak... Aaa...! Ao-zabalka asi naiz... Loak artuko nau... A zer logurea daukaten... (Loak artzen du).

9/- Beneditarren aldara nagusia. Lazkao. Gaua. Illun

Semenoren kutxa irikitzen da eta barrutik Semeno agertzen da. Salto egiten du aldarara. Gezia eskuetan, lepotik txintxilika adarra, belaunetarañoko kapusaia, belaunak narrugorri, amantarrak eta abarkak oiñetan, gerrian ezpata motza. Mutil sendoa gaztain-kolorekoa, begiak ezti, sudurra kako, bekokia zabal, burua arro, tximia luze... Sendoa eta lerdena batera. Gaztea oso..

SEMENO

(oska)

Borja, borja jeiki adi eta ator onera.

(Borjak kutxatik irteten du eta aldarara salto. Buzo urdiña, gerriko pistolarekin larruzkoa eta beltza, txano urdiña borlatxo gorriarekin. Mutil gaztea au ere, beltxarena, arpegi luze, matasa beltz...)

BORJA

Zer dezu?

SEMENO

(Alkarri gerturatuta)

Naparrak, gure etsairik okerrenak, ekarri dituzu Lazkanoko Jaunen etxera..? Ez al dituzu zure aurrekoen ibillerak ezagutzen, ala..? Bizi osoan naparrekin burrukan ibilliak gaituzu eta zuk orain naparrak dakarzkuzu etxera..!

BORJA

Naparroa eta Arangoi, Katalunia eta Kastilla, Gipuzkoa eta Bizkaia, Leon eta Galizia... denak bat egin zuten aspaldian eta batasun ori sakratua da..

SEMENO

Eta, moroak..?

BORJA

Oiek bota zituzten Espaiñetik kanpora.

SEMENO

(Asarre eta geldi egon eziñik)

Baña, naparrak beti izan dira gure arerio eta etsai. Oiek gure etxean sartzerik ez dizut sekulan barkatuko.

BORJA

Konpreni zazu Espaiñaren onerako egin degula.

SEMENO

Hispania osoa moroz beteta zegoen; baña gure erri-aldetara ez ziran sartu. Inguratu ziranak bultzaka bota dituguz Kastillan zear...

Burruka luze aspergarri oiek ba zituzten beure pake-uneak... Eta, tarte oietan zer egiten gendun bai al dakizu..?

BORJA

Ez dakit ezertxo ere.

SEMENO

Geure artean burrukak egin. Gu ta gure etsaien artekoak.

BORJA

Eta, zeintzuk ziran zuen etsai oiek?

SEMENO

Etsaia beti izaten da auzokoa. Gure auzoan naparrak bizi dira.

BORJA

(Semenori goitik beera begiratzen dio)

Eta, zergaitik egiten zenduten burruka naparrek? Politika arrazoiren bat izango zenduten..?

SEMENO

(Borjaren itxurak arrituta)

Zer politika eta politika-ondo, gero... Indarrak neurtzea zan geure politika eta bide-batez abereak arrapatu...

BORJA

Lapurretan, beraz...

SEMENO

Bein burrukan asi ezkeroz, lapurretak ondoren datozte...Baña, zuk gure etsai naparrak zergaitik sartu dituzu geure etxean..?

BORJA

Naparrak gure lagunak dira.

SEMENO

Geureak ez. Nola liteke lazkanotarren kontra ekartzea..!

OFF/ Ekin zioten luzaroan eztabaidan. Etxuten alkar entenditzen, seireun urteko utsunea baiño aundiagoa zeukaten bien artean...

(Aldara batean Inazio deunaren irudi bat agertzen da sotana beltzez. Alkar-izketa artara esnatzen da eta salto arek ere. Salto egitean jantziak aldatzen ditu: sotana beltza utzi eta Amedis eta Galaor'en antzeko jantziekin dator beste biengana. Ona nola ibilli oi zan Azpeiti aldean Arevalotik etorritako Korteko pajea:

"Vestía el joven desgarrado y vano, traje acuchillado de dos vistosos colores, capa abierta, calzas y botas ajustadas, espada y daga al cinto, y, sobre la erguida cabeza de rubia

cabellera, cuyos bucles caían hasta los hombros inclusive, la gorrita de escarlata (divisa del partido oñacino), tocada de pluma gallarda y ondulante."

Semenok eta Borjak, biak, arrituta begiratzen diote).

IÑIGO

Semenok arrazoi. Gipuzkoarrok beti ibilli gera bat-eginda kastillarekin Naparroaren aurka.

SEMENO ETA BORJA

(Biak batera)

Eta, zu zein zera? Nor zaitugu?

IÑIGO

Zuetako bat eta zuen tarteko bat. Zuen bion arteko tartean bizi izan nintzan. Loiolako semea naiz eta Oñaztarra zuek bezala eta Lazkanotarren senitarteko. Alkarrekin burrukatu gera Lazkano eta Loiola Naparren aurka, bai Beotibarren eta baita ere Ondarrabian.

SEMENO

Ori, ori Loiola. Gizaseme au ez dakit nundik sortu zaigun...(Borjaren gaitik diotza). Gure gizarra guztiak aldatuta dator. Ez ditu ba, gure etxean naparrak sartu..!

IÑIGO

Gu denok oñaztarrak gera eta Kastillari lagundu diogu Naparroa menperatzen Beaumontarrekin batera, auek ere oñaztarrak bait dira... Leringo Kondea eta Najerako Kondea, biak ditugu lagunak; Agramontekoak, berriz, etsaiak eta napar geienak dira agramontarrekin...

(Semenok eta Borja alkarri begiratzen diote eta kifu egiten diote alkarri esanaz bezela: nungo zoro-etxetik atera ote da pailaso au?)

SEMENO

Ez dizut tutik entenditzen, baiña poztutzen naiz nerekin bat etortzea naparrak gure etsaiak dirala esaten dezunean. Eta, onoko txapel-txiki oneri, neuk emango geure etxeko berriak, jakin dezan bein-betiko zenbat kalte eta naigabe eman dizkigun Naparroak geuri.

(Semenok Borja besotik artu eta badoaz odeitan, laiño artean galdu arte. Iñigo, bere aldarara).

10/- **Lazkanotarren gaztelua Egunez. 1329 urtea**

OFF/ "Quod navarri expugnaverant fortale-

zam de Lazkano" dio Iruñako Cámara de Comptos'en dagoen liburu zaar batek. Fortalezaz itz ori oraindik ere lazkaotar baserriarrek beuren gogoan dute eta orrela deitzen diote Beeistein baserriaren azpitik dagoen soro bateri, muiño borobil batean. Muiño orretatik ikusten dira bai Ataungo bidea eta baita ere Segura aldetik, Olaberriar zear, datorrena. Bi bide oiek zituzten naparrek Lazkanori erasoteko. Eta, 1331an eraso ziotenean, Seguran zeukaten naparrek euren kuartel jenerala. 1936an ere, bi bide oietatik etorri ziran rekete eta falanjisteen erasoak: talde bat Etxarri-Aranazetik Lizarraustiko atera eta andik beera Ataunera, Ataundik Lazkanora; beste taldea Alsasutik Zegamara eta Seguran zear Beasainera eta ara eldu baiño lenago Olaberriatik Lazkanora. Bi bide oiek ikusten zituen Semenoren etxe-fortalezak.

(Kamarak gaztelu baten ormak erakutsi eta ondoren Beistingo muiñotik ikusten diranak Ataun aldera eta Olaberri aldera).

11./-Albitxu baserria. Egunez.1329

OFF/ Albitxu, Goierriko baserrien antzekoa da. Sarreran, kanpotik, liñarria topatuko degu. Liñarri orren gainean jotzen zuten, liño-mazoarekin, eunezko soñeñoak egiteko bearzan liñoa. Aurrean, sarrerako atea. Atalburuan egurrezko gurutze txiki bat josita, Erramuegunean bedeinkatutako erramuearekin egina... Sarrerako ate onez gainera badira beste bi ate ere: bata ikulluko atea eta beste mandiorako atea. Sartu gaitzen ikullu atetik: ate-atzean akuilluak eta lurtean uzta. Beste ate bat sukaldara sartzeko eta parean ikullua etxe aĩñako luzea. Ikullu eta sukaldearen bitartean egongo dira nekazari-lanabesak: segea, sege-potoa, itaia, lastoa mozteko epaia, laiak, atxurra aizkora eta abar... Oien ondoan ganadu-janak eta goiko solairuan gari, baba eta ganaduari emateko beste aleak. Ezkerreko atetik sartuta sukaldara: aurreko orman sutokia. Sutokian su-burniak suari euzteko zabaldu gabe eta erdian eltze-burniak eltzeari euzteko. Orma zaarrea auspoa, talaburnia, talomantue, talo-ola, burrunzia, sargagia eta krisaillua. Suaren atzean su-atzeko burnia erdian talaburnia eukitzeko txapaldatxo batekin egon oi da.. Tximiñiko kanpai-ingu-

ruan pertz oria eta pertxotia, tupiñak, almaiza eta almaiz-eskua kandelarekin eta krisaillua. Sukaldeko paretetik duela atakea, etxe-kanpoan, labea eta labe-atakarren ondoan labe-endaia ogia labeetik ateratzeko eta zatar-endaia labeko sorua garbitzeko. Eskubitako paretan orromaia, paretan zintzilik iriñaulkia eta orromai-barruan baia iriña pasatzeko. Beste paretan dago zizallua, apaitxoarekiko arramario txiki bat eta apalatxo oietan egurrezko kutxara eta sardeak, egurrezko txaliek... Solairutik zintzilik kaiku eta esne-pertza; baita zezina eta urdai-zati aundi bat ere. Suaren inguruan aulki bajuak. Lo-gelak atea sukaldetik du. Ogeak sokazkoak dituzte beuren soruak, bere azpiak, eta gainean txurikenezko lastaideak. Oge-ondoan kutxa ta kutxa barruan kutxatilla. Ogearen gaikaldean, gurutzea.

(Kamarak erakutsiko ditu xeetasun guztiak).

12./- Sukaldara. Gau illuna. Aizea eta kas-kabarra.

(Sutondoan Otxoa bere lau semetxoekin: amar, zortzi, sei eta lau urtekoak. Alarguna Ama xaarra, andre argala, lanak menperatutako baserri-alaba, lo-gelan dabil lastaiak arrotzen, umeak lotarazteko. Apari-legea beteta: gaztañak eta esnea taloarekin... Ifar-aizea keezulotik sartzen zaie tarteka, sutautsa arrotuz... Aitak palatxoarekin astindu bat ematen dio suari garra bizitu dedia).

JOAN

(Txikiena da) (Lau urte) (Umetxoak larrukiz jantzita)

-Aitatxo, esaiguzu ipuitxo bat.

BESTE IRURAK

-Bai, bai, esan.

OTXOA AITA

(36 urteko gizaseme gordia eta ederra)(Kapusaia gainean du; baita amantarrak eta abarkak ere)

- Zer ipuin nai dezute?

BATEK MARTIN

-Tartaloena nai det nik.

BESTEAK MIKEL

-Nik jentillena nai det.

IRUGARRENAK SALBATORE

-Jentillenik, ez; moroen gerratekoak nai ditut nik.

OTXOA

-Alkar artuko ote dezute guztiok? Zuk, Joantxok, zer ipuin nai dezu?

JOAN

-Beigorritxuarena nai det.

(Irriparrez)

BESTE IRURAK

-Orrek ez zian balio...

-Ori askotan entzun degu...

-Ori...

(Dana da protestatzea eta txiari amor ez ematea).

OTXOA

Ixilik denok. Gure poxpolin txiki onek eskatu diguna emango dizutet.

(Bere magalean artzen du eta begietara begiratzen dio)

Zure amatxoren begiak dituzu. (Bere kolkorako. Maitekor).

MIKEL

Asi, aitatxo

OTXOA

Bein Atxubitetxeko alabea bei-zai omen zegoen Aralarren eta bei-faltan etorri omen zan etxera. Birao egin zion ugazamak: ez zala geiago etxean sartuko bei-gabe... Illunarrean bei-billa joan omen zan eta billatu zuan beien figura gorri-gorria eta eldu zion isatzetik eta figura arrekin sartu zan leize-zulora. Mari agertu zitzaion beigorritxo baten antzera. Neska ez zan aspalditxo batean geiago agertu.

MARTIN

Ez al zan geiago agertu iñoiz?

OTXOA

Zulo aren atakan ikusi omen zuten artzaiek illea orrazten. Esan zien irteteko kanpora zulo artatik. Eta, neskak ezetz erantzun. Txerri gorri bat zeukan aldamenean eta ura esnatzen bazan, galduko zitula guztiak eta alde egiteko.

SALBATORE

Zer egiten zuan neskak leize-zulo aretan?

OTXOA

Ari baten adarretan urresko matasa, ardatzean egin, lixubea jo, ogia erre Mari Muru-mendiko Dameak, Anbotoko Sorgiñak, agintzen zion neurrian.

MIKEL

Eta, an dago oraindío?

OTXOA

Neska eder bat eginda gero, etxera bialdu zuan Marik eta etxerako saskitxo batean, ikatza eman omen zion etxerako...

MARTIN

Ikatza? A zer gauzea...

OTXOA

Baiña, leizetik atera zuanean, ikatza urre biurtu zitzaion saskitxoan.

SALBATORE

Mari, orduan, ona da.

OTXOA

Ona eta gaiztoa. Biak betera. Leze-zulotik sugarretan ateratzen danean, ez da goxogoxoa egoten.. Orduan bialtzen ditu tximistak eta arriak gai guztiak ondatuz...

MARTIN

Garia ona da, aitatxo. Egia al da jentillek asmatutakoa dala garia?

OTXOA

Jentillek asmatu eta kristauak arrapatu Ataungo koba batean jentillek bizi omen ziran eta sekulako gariak biltzen omen zituzten. Bealdeko lurretan kristauak ez zuten garirik eza gutzen eta Sanmartintxiki igo omen zan bein aien kobara eta berealdiko gariak ikusita, apustu bat egin zien jentillei zeinek salto audiagoa egin gari-pillo gaiñetik. Jentillek errez egin zuten gaiñetik salto; baiña Sanmartin-txiki gari erdian erori zan eta zaramazkin bota aundi aiek, osorik gari-alez bete...

MIKEL

Bai ederki egin zula. Zergaitik daukagu ikuilluko atean karda-lorea?

OTXOA

Karda-lorea eta aizkora, biak dira etxea tximistatik gordetzeko. Tximistak okerkeri aundiak egiten bait ditu. Gabonetan Etxorro baserria erre zan tximistak jota.

MARTIN

Naparrak baiño okerkeri geiago egiten al ditu tximistak?

OTXOA

Ez dakit zer esan ere: tximistak asko jotzen bagaituzte Txindoki mendiaren inguru onetan, naparrak geiago oraindik. Aaztu zaizute joan dan urtean, emen bertan, Iramendiko gaiñean, Enparaundiko Erramus urkatu zutela...?

MIKEL

Eta, auzoko Katagorri naparra al da, ba..?

OTXOA

Zergaitik diozu ori?

MIKEL

Zumin batekin anka-zaiñetan ederrak eman zizkidalako atzo eta urrungoan aizkoraz joko nindula.. Nik bildur diot, aitatxo...

OTXOA

Egingo ziñun okerren bat.

MIKEL

Bere etxe-ondoko belardian jolastea besterik ez, aitatxo.

MARTIN

Neri ere etxe onetan danok giñala sugekumeak esan zidan an bertan...

OTXOA

(Oldozkoi eta berekasa)

Zorioneko belardi orrek lanak eman bear dizkigu oraindik. Gure beiak larrera sartu dirala eta ez dirala, beti badegu eztabaidaren bat... Aspalditxo onetan zer gertatzen zaioan ez dakit; baiña asarre bizian darabilkigu. Ni ikustearekin batera, sua dariola jartzen da. Bigun egiten badiot, sutsuago oraindik... Bekaikeria sortu ote zaio barnean gure auzo oneri...? Gure azpitik ibilli-bearrak erretzen ote dio barrua..?

(Une artan dan-dana etxeko atea. Otxoa bere aulkitik jeiki eta atera dijoa onela esanez:)

Aurrera. Sartu, sartu aurrera; gure baserriko atea zabalik daude beti bidean datorrenentzako.

BIDEZKARIA

Eskerrik asko, jauna.

(Berrogei urte inguruko gizona da. Kapusaia burutik beera, abarkak amantarrekin, gezia eskuan eta ezpata gerrian. Bustia dator baiña ez ainbeste).

OTXOA

Pasa sukalderaiño. Martin, aulki bat jaun onentzat.

(Mikelek berea lagatzen dio)

Jarrai zaitetz sutondoan. Kendu kapusaia eta amantarrak. Esne tanta bat berotuko dizut.

(Bidazkaria jartzen da Martinen aulkian, baiña ez du ez kapusairik, ez amantarrak kentzen, Otxoa kaikua artzera doa)

BIDEZKARIA

Ez, ez det esnerik nai. Zorigaiztoko gau onetan bidean gelditu naiz iñorako ez nintzala. Larreatik netorren Olazagutira. Naparroako

Merinoa omen dabil inguru aietan eta pizti txar ura zertan dabillen jakin nai...

OTXOA

Gureak ere andik dabilta.

BIDEZKARIA

Bai, Lazkanoko Jaunen seme Semeno ixilik joana dala, esan didate...

OTXOA

(Arri-ta-zur)

OFF Nork esan dio ori oneri...? Gutxiak dakite Semeno Olazagutira joana danik. Gure artean konfiantzazko gizona izango degu au. Gure artekoa beintzet bai. Ixilik gordeteko agindua artuta gendukan.

(Bidezkarari)

Larreakoekin artu-emanetan izan gera beti; baiña, zure gomutarik ez det. Ez zaitut gogoratzen...

BIDEZKARIA

(Sutondoan eserita dago suari begira)

Ez da arritzeko, asko gera-ta Larrean. Larreko gaztelua Lazkanokoa bezin aundia eta ederra da...

OTXOA

Esnerik nai ez badezu, gaztai apur bat ekarriko dizut.

(Une artan amona sartzen da sukaldean)

Ama, umeak lotaratu.

AMAMA

Tira, umetxoak, jaun oneri agur esan eta lotara...

(Umeak jeiki eta badijoaz amamarekin lo-gelara)

UMEAK

Agur, jauna. Ondo lo egin. Agur, aitatxo, etorri musu bat ematera.

BIDEZKARIAK

Ume ederrak dituzu.

OTXOA

Bi urte da ama galdu zutela. Ezkerrak amama bizi dutenari... Baiña, berrikerari utzi eta gaztaia ekartzera noa.

(Joaten da lo-gelara gaztai billa, bertako kutxan ditu-ta)

(Sutako kanpaiatik egurrezko txali bat artu du gaztaia eta ogia ekartzeko)

BIDEZKARIA

(Berekasa)

Biar berriro etorriko banintz, ez zendukea

orrelako kunplimenturik nerekin izango. Nor naizen ez dakizu... Nere Jaunak ondotxo ordainduko dizkit gaurko neke auek. Lazkanon biar jakingo dute ni gaur emen izan naizela eta ortik etorriko diran okerrak nere etsaia-rengana jo dezatela eta ez nere lagun Axari-rengana...Auzoko Axari gero ere lagun bear det...

OTXOA

(Eskuetan gazta, ogia eta sagardoa ditula sartzen da eta mai gaiñean utziko ditu)

Ez da gauza asko. Apari-legetxo bat egiteko aña bakarrik. Zorria iltzeko.

BIDAZKARIA

Eskerrik asko, berriz ere. Naikoa da.

(Beste gabe jaten asiko da. Otxoa bere aurrean eseriko da)

OTXOA

Eta, Larreatik zer berri?

BIDEZKARIA

(Bere kolkorako) Onek zeukak Larreako kontuen berri jakiteko gogoa eta nik osta-osta dakit Larrea nun dagoen.

(Otxoari)

Ba, an gabiltza Beteluko naparrekin burruka bizian... Joan astean berrogei txerri, lau bei eta zortzi beor arrapatu dituguz Naparroako lurraldean, Aralar mendian.

OTXOA

Guri berriz, eurak arrapatu digute artalde oso bat joan dan astean eta orain amabost Segurakoei Naparroako Merinoak ogeita amaika mando kendu dizkie. Ordañak artuko dituztela uzte det. Gaiztoak dituk benetan...

BIDEZKARIA

Izan ere, guri nundik Kalte egingo dabilta beti napar alen oiek..!

OTXOAK

(Zutitzen da)

Zure zaldiarekin astuta nengoen. Pentsu on batek ez dio kalterik egingo. (Badoa ikullu atetik)

AMONA

(Une artan amona agertzen da lo-gelatik. Krisaillua eskuetan)

Gabon, jauna. Zure baimenarekin lotaratzera noa.

BIDEZKARIAK

Gabon, etxeoandrea.

OFF. Aldameneko lo-gelan Otxoaren lau umet-

xoak, biñaka oge bakoitzean, lo daude aingerutxuekin amesetan.

(Bidezkaria bere aulkitik jeiki eta lo-gelan sudurra sartzen du)

Ementxen daude laurak. Ederki, ederki...

OFF. Solairutik zintzilik dauden saiaski eta urdairen itzalak dantzan dabilta suaren argira.

Bidezkaria kopeta-illun dago bere aulkian.

OTXOA

(Ikullutik dator)

Lotaratu nai dezunean mandioan daukagu gela ordeko bat. Erakutsiko dizut nai dezunean.

BIDEZKARIAK

Bai, banoa. Nekatuxamar ere banago-ta.

(Mandioko atetik gora dijoaz. Kamarak segitzen die. Buelta eman eta suari begiratu)

OTXOA

(Jetxi eta sukaldera dator, sutautsak pillotzeko, sua estaliz. Bitartean onela dio)

Etsairik ez dedilla sartu sukalde onetan eta aingeruak dantza egin dezatela bere inguruan.

OFF Orrela esango ez balu, bere arbasoen animak aurka edukiko lituzke; suaren bearra bait dute gauez, geuk egunez bezala. Gauerditik aurrera eurak etorriko dira su onen ingurura.

(Krisaillua artu eta umeen gelara begiratu bat ematen dio, lotaratu aurretik)

OFF Orduak aurrera doaz. Gau-erdiaren mugan gaude. Etxe-barruan dana da pake.

Etxetik kanpora aizea, euria eta Mateo Txistu erbien ondoren... Zein dala Mateo Txistu?

(Aizeak txistu kanpoan) Aizeak txistu jotzen duanean neguko gau beltzetan, Mateo Txistu bere txakurrekin erbien atzetik dabilela esan oi dute Euskalerrian.

Eizerako afizio aundia zuen apaiza dala ere, esaten dute. Meza ematen ari zala, Meza erdikoan, erbien atzetik zebiltzen zakurren zaunkak entzun-da, urduri, denak bertan laga eta zakurren ondoren joan omen zan.

Arrezkero or omen dabil, eten gabe, erbien ondoren, gau bildurgarrienetan batez ere...

(Txistu-otsa aizeak) (Sukaldea illupean, estalitako suaren gorritasunak ematen duen argi apurñoa besterik ez da.) ("Kirrin" sukaldeko ateatik Bidezkariaren burua agertzen da.

Begiratu bat emanda gero, sartzen da barrura ixil eta begirunez, anka-punttatan. Beti begirunez;)

BIDEZKARIAK

(Umeen lo-gelara begirata gero)

Lo dago gizarajo au. Nabillen kontuz eta ixil, bada-ez-bada ere... Orduak aurrera dijoazkit. Onezkero Naparroan bear nuen. Katagorri dala eta ez dala emen nago oraindik. Gauerdia izango da. Emen bear zuan. Kanpoko atea irikiko diot.

(Ala egiten du eta bitartean ikusi-aldi ematen die baztar guztiei)

KATAGORRIK

(Sukaldeko atetik burua agertuz)

Or al aiz, Axari?

BIDEZKARIAK

Aspaldi onetan ire zai, Katagorri.

KATAGORRIK

(Barrura sartuta misterio aundiz)

Esan bezala, Semeno, Lazkanoko Jaunaren semea, an dezute Olazaguti inguruan. Urdian-go zulora joana dek ixillean Perizerekin. Ori jakiteak iri ez dik okerrik ekarriko, onurak baikik. Ontzako urre ederrak jasoko dituk. Neretzako ere zer-edo-zer izango dek. Zati bat orain nai nitek...

BIDEZKARIAK

Tok poltza. Baiña, orain zati bat eta gero bes-tea.? Ez diat tutik ententitzen.

(Poltza emanaz)

KATAGORRIK

Oraintxen ikusiko dituk nere asmoak.

(Poltza artu eta sutokiko suarri atzean gordetzen du) (Poltzari begiratu) Au neri eskeiñitakoaren erdiak ere ez dek. Bestearen erantzuna ik ereak kobratutakoan izango diat. Bitartean emanidak ire ezpata ori ere. Dana osorik kobratutakoan, atzera biurtuko diat ire eskue-tara.

BIDEZKARIAK

Ez diat antzik ematen; dana dala tori nere ezpata, ez bait dut gaur bearrezko. Eta, ibilli ari bizkor, berandutzen ari zaigu-eta.

KATAGORRI

Bai, gure asmoa bete daigun.

(Beste gabe, ezpata sutondoan utzita, sartu dira biak umeen lo-gelan. (Joan txikia aukeratzeko dute eta kontuz ateratzen dute ogetik eta estalki batekin bildu. Sukaldean berriro dira-

nean esnatzen da umetxoa. Iriki ditu begi beltz larriak baiña ez diote garraxirik egiten utzi. Katagorrik eskuarekin estali dio agoa. Umea bidezkariari emanaz;)

Artzak eskuetan.

BIDEZKARIAK

Lenengo zaldia atera bearco det ikuillutik.

KATAGORRI

Goazen ba.

OFF. Bidezkariak, Axari naparrak, bere zaldia ateratzen du ikuillutik astiro-astiro, zaratarik gabe. Zaldi-gaiñetik umea artu eta illunpean galtzen da Naparroako bidean. Katagorrik badu oraindik lanik ikuilluan. Otxoari alditun okerkeri guztiak egingo dizkio. Ikuilluan sartuta dabil, Bidezkariak alde egin zigun unetik. Badator sukaldera.

KATAGORRI

Otxoa madarikatua. Orain dituk nereak. Nere atzaparretan erori aiz. Eta pago batean mingain-luze ikusten ez auten artean, ez diat pakerik izango. Arrotuari orain jaunaren gazteluan i bezalakorik ez dala-ta... Galbidean jarri aut.Ire odolaren egarri nauk. Egarrri bizia nereaa..!

(Parre tristea ezpañetan eta gorroto bizia begietan)

Ire ezurrei agur egitera joango nauk beleak garbitukoan. Deabruagaitik zin dagit, nere itza beteko dedala. Ara nere argibidea!

(Ori esanarekin batera, naparrak emandako ezpata, lurrean sartu du indar guztiaz. Ondoren igesi doa, danbada ateari emanaz). (Zarataro Otxoa dator sukaldera krisaillua eskuetan)

OTXOA

Zer ote zan ori? Zertan ote dabil gure bidezkaria?

OFF. Otxoa mandiora igo da eta ogea utzik. Kanporako atera doa eta irikita arkitzen du. Sukaldera dator berriro.

OTXOA

(Krisaillua eskuan)

Alde egin digu. Orren azkar joan bear ote zuan ba? Nik ez det lo-saio aundirik egin. Goizaldea oraindik urrun dago.

(Krisailluaren argira ezpata ikusten dut zutik lurrean sartuta. Eskuetan artu eta krisailluaren argira begiratzen dio. Arrituta)

Napar ezpata! Tiebasko gazteluaren ezauga-

rria du. Madarikatua! Naparra, alajañetan, gure bidezkarria...! Ez al zigun izugarriren bat egingo..

.(Garraxika asiko da)

Martin, Mikel, Salbatore, Joan..!

(Sartu da lo-gelan)

Emen al zaudete guztiok..?

(Bi ogeak begiratuta)

Nun da Joan nerea..! Ez da negar egiteko ordua. Jeiki Martin eta ikuillutik atera zaldia.. (Mikel ikuillura eta aita abarka mantarrak jaztera. Jazten ari dan artean Martin dator sukaldera estu eta larri)

MARTIN

Zaldia etzanda dago odoletan, aitaxo.

OTXOA

(Su eta gar)

Aspisuge madarikatua! Nik ostatua eman eta ik semea arrapatu..! Arrapatuko aut..!

MARTIN

Zaldirik ez, aita.

OTXOA

(Zalantzan unetxo batean)

Zergaitik ez? Bai Katagorri eskatuko diot zaldia.

(Etxeko atetik zantzoka)

Katagorri..! Katagorri..! Mikel, irten bidera Katagorri eta zaldia eskatu; baiña ohea da bera onera etortzea gertatu diranak esplikatzeko. (Amantarrak eta abarkak lotzeari ekiten dio berriro. Gero kapusaia jantzi eta ezpata estutu gerrian. Eskuetan azagia artuko du.) Makurgaitza dek Katagorri, baiña orrelako estu-aldi batean, lagundu bear... (Umeak sukaldera datoz, baita amona ere oiñutzik eta alkarri bilduta)

KATAGORRI

(Katagorri sartzen da sukaldean. Arrituta bezela eta zeken)

Zer dek orrelako garraxiak gauerdian egiteko..!

OTXOA

(Estu eta larri)

Utzidak zaldia, arren, Jainkoaren izenean. Azkar..!

KATAGORRI

Utziok Jainkoari pakean. Akelarrenen batera al oa gauerdian eta zaldi gaiñean..? Albitxuko jauna akelarrean..! Ez genduke besterik falta...

OTXOA

(Larriago)

Zer nai dek zaldiaren truke? Baiña, bereala bear det. Napar batek seme txikiena arrapatu zidak... Bizkor, Katagorri!

KATAGORRI

Auek ez dira iñora joateko orduak eta kito.

OTXOA

(Belaunikatzen da)

Ire aurrean ona ni belauniko, Albitxuko jauna izan arren... Zer nai dek gaiago..? Utzidak zaldia berandu baiño lenen...

(Amama eta umeak baztar batean daude zotinka eta negarrez. Katagorri geroz eta zekenago)

KATAGORRI

(Burua arro jaso eta okerka begiratuz onela diotza Otxoari)

Noiztik ikasi dek orrelako falso-paperak ain ederki egiten..! Emen napar bat izan dala jakingo duten bildur al aiz..!

OTXOAK

(Ezpatari elduta, belauniko oraindik)

KATAGORRIK

Bildur dana bide txarretik dabillelako dek!

OTXOA

(Salto baten jeikitzen da eta ezpata burugaiñetik jasotzen du)

Ni salatzaile..! Nere biotz urratua zirikatzeraz ator..!

KATAGORRIK

(Bere ezpata atera eta atzeraka egingo du sukaldeko ateraiño)

Ire paperak ederki betetzen dituk. Baiña, alperrik! Nik, Otxoa, begi-bizta diat luzea...

OTXOA

(Besterik eziñean, ezpata lurrera eta bere gorputza aulki batera botatzen ditu. Nekearen kargak burua makurtu dio. Ausita dago. Birrinduta. Zukututa). Jainkoak salba nazala.

KATAGORRI

(Irriparra ortzetan)

Nere oinpean, baiña ez diat naiko. Adar batek zintzilik ikusi nai aut.

(Alde egiten du)

13/- **Taberna bat: sagardotegia. Zuri batzuek argi egiteko.**

(Mai luze bat eta amasei lagun txerrikumeak

jaten. Lau txerri-kuma erreak bakoitza egurrezko txali aundi batean. Lurrezko pitxarrak sagardoa edateko. Txerriak zatituta datoz. Eskuekin jan eta pitxarretik eran. Upelak barruan. Pitxarra uztutzean upelera sagardobilla txotxa kenduta. Algarak eta etengabeko izjarioak.) (Kapusaiak eta ardi-larrukiak)

OFF. Murdingoetan gaude Naparroako Sakaneke errixke batean. Garzi Semeneitz dute buru, maian lenengo dagoena. Jaten ari diran txerriak lapurretakoak dira eta orretxegaitik, gozogoak. Ortik ainbeste algara. Gertatua gogoratzen ari dira.

14/- **Mendian. Goizean goiz. Argi dago.**

OFF. Amasei lagun doaz Otzaurteko atetik beera Zegamaruntz. Atea da Otzaurte eta bertan makurtzen da Aizgorri eta leuntzen. Ate orretatik pasatzen dira naparrak Gipuzkoara eta giputzak Naparroara. Sakon-sakonean dago Zegama eta bertara doaz gure amasei gizonok. Geziak eskuetan, ezpata motza gerrian, abarka-mantarrak oiñetako eta, kapusaia burutik beera ez duenak, ardi-larrukiz estaltzen du bere gorputza. Garzi-Semeneitz aurretik. Gizon gordiña oraindik eta bere ondoren iru anai gazteagoak, bi osaba eta guda-Lagunak.

GARZI SEMENEITZ

Ni aurretik joango naiz eta zuek etorri atzerago. Iñor baletor, txistu joko dizutet.

(Bera eun metro aurretik doa basoan aurrera. Pagoak erdoiak janda agertzen dira: orriak ori-gorrixkak sukaldeko pertzeen antzeko. Zerua goibel. Udazken aurreratua. Pagadia Zegamako Eleizetxoaren oiñetaraiño jeisten da. Eldu dira amaseiak baso-ertzeraiño. Abatearen etxea eleiz-atzean dago eta bere aurreko atarian amaika txerri gazte eta urdanga ama beurokin batera. Enbor baten atzetik kiñu egiten die laguneri ixil eta bizkor ibiltzeko)

Aurrera!

(Eldu diete amaika txerriei burnizko kakoekin eta euren garraxiak odoletan ixildu. Abata konturatzerako maldan gora doaz Otzaurteko atera).

OFF. Murdingoetan jan zituzten txerriok kronika zaarrak dionez; baiña, pasadan beste bei

bat ere eraman suten eurokin. Gertakizun auek milla berreun eta irurogeita bateko urtean gertatu ziran. Iruñako paper oiek diotenez urte artan gertakizun geiago ere izan ziran Gipuzkoako muga inguruan. Ona batzuek: gure Garzi Semeneitz onek eta bere bi semeak, Inigo Diaz eta Yenego Amurrok, Beste lagun batzuekin batuta, lau abere, lau bei eta mando bat arrapatu zioten Lopez Diaz de Unzetari. Diego Lopeizeri, berriz, errota eta bi etxe erre ondoren bei-zaia il zioten eta berrogei bei akabatu. Zortzi bei zortzi zekorrek in arrapatu zizkieten Pero Garziari, palazioa eta upeltegia sei upelekin, erre ondoren. Etxea eta upeltegia erre zieten bai Lope Peritz Ibarkoari eta baita Pero Abateri ere.

Oker oiek epe bakar batean egin zituzten eta ondoren naparrora bildu ziran; baiña, etxerakoan Pero garzia il zuten eta Diego Lepeizeren artzaia ere bai, Lopezen semea urkatu ondoren. Ordurako Araman, Zaldudon, Erripaiden eta Muskatuen ganadu-lapurretak egitiak zituzten. Ez zuten gutxi bear napar kuadrilla onek.

(Kamarak bitartean txerri-lapurrei segiko die Otzaurtetik aurrera Naparroko bidean)

Gipuzkoarrak ere ez ziran lo egoten. Bien arteko burruka zan. alkarri lapurretak eta aldarrirailketak. Gipuzkoa eta Naparroaren arteko artu-emanak oso daude gaitzotuta. Politika aldetik gauzak ikusi ezker, berriz, giputzak Kastillarekin bat eginda ibiltzea, ezin zuten naparrek pakean eraman.

15/- **Iruña. Errege-gela FELIPE III**

OFF/ Ona gai oneri buruz zer gertatu zan, Semenoren historia baiño bi urte geroago: Felipe III zan Naparroako Errege eta Enrike de Sulli nombratu zuan bere erreinorako Gobernadore 1331 urtean. Urte orretan idatzi zuan erregeak auxe:

(Kamara Felipe III'aren irudi baten aurrean)

"...queriendo descargar las conciencias de nuestros Predecesores, et nuestra, conoicemos et decimos en verdat, que el derecho de aver et heredar la propiedad de las Tierras de Ipuzcoa, et de Alava, et de Rioja, et de toda la otra tierra que ha seydo, et es, del Reino de Navarra, et lures sucesores, et quanto tiempo las ha hombre tenido embargadas, soste-

nidas contra Dios et razon, et usurpádoles lur derecho.”

(Kamarak segi irudiaren aurrean)

Esanez bezela Gipuzkoa, Araba eta Errijoa Naparroako Erregearen menpekoak zirela eta Napar-erreinoak zuela Probintzi oienganako eskubide osoak. Eta, egia esan giputxak, arabarrak eta errijojakoak danak zebiltzen Kastillarekin buru-bat eginda Naparroaren aurka...eta, ortik sortzen zitzairen, besteak beste, eraman-eziña eta gorrotoa...

IRUÑAKO GOBERNADOREA

(Aurreko gela. Garaiko jantziak. Gobernadore eta Joan de Erreta Merinoa) Garzi Lopiz, Lazkanoko jauntxoa asarre dabil Etxarri-aranazek pariak, pakearen ordaiñak, pagatzen ez diotelako.

JOAN ERRETA

Erria erreko omen du pariak ordaintzen ez badizkiote.

GOBERNADOREA

Asarre badabil, dabillela. Zuk eun gudaria artu eta zoaz Etxarri-aranazera; onek ez du pariarik ordaindu bear iñundik ere Lazkanori. Zure esku utziko det arazoa.

JOAN ERRETA

Eun gizon naikoak ditugu. Etxarrik arri-esi ona du defensarako.

GOBERNADOREAK

Zoaz ba, eta Aranazko esibarrutik ballara osoa zaindu. Apirilla da eta bertan geldi Lazkanokoari asarrea pasa arte.

16/- Basoa Etxarri-aranaz inguruan. Egun-argitzen

OFF/. Merinoa Etxarrira etorrira zegoan Garzi Lupiz lazkaularrak, Semenoren aitak, Etxarri erretzeko erabakia artu zuanean... Ogei mando zuziz beteak ogei mandazaiñekin eta beste berrogeita amar guda-mutillek artu dute Naparrorako bideak, Ataundik gora, pagadi artean gailurrean eta ariztiak beeran Etxarri inguruan. Egun sentiaren argiak gaueko illuna urratzen asita zegoen lazkaularrak eldu zira-nean. Zelatan zeuden Merinoaren mutillak Aranazko baillara bete zuten adar-otsez. Eun asko ziran esi-barrutik kanpotik zetozen irurogeita amarren aurka jokatzeko. Garzi Lupizek zuziei su emateko astirik ere ez zuan artu. Ez zioten artarako biderik eman... Ekin diote

basora berriz ere lazkaularrek; baiña, andik gora mendietan aurkitu zituzten txerri, bei, auntz edo ardi, aurretik artu eta eurokin eraman zituzten Lazkanora. Ez zuten alperrikako biajerik egin... Merinoa Etxarri-aranazen gelditu zan uztaillaren zazpirarte, San Fermin egunerarte.

(Kamarak bitartean gertakizun oien irudi batzuek eman)

17/- Basoa itsua. Egunez.

(Semen eta Borja baztar batean aurreko gertakizunen testigu)

(Kamarak Semeno eta Borjarengana gerturatu)

SEMENO

Nere aitak Etxarri erre nai izan zuan ezkeroz, asi ziran Naparroan pakearekiko bideak egiten. Baiñan, itxuraz bakarrik.

BORJA

Zeñen bidez?

SEMENO

Gobernadoreak eta Gotzaiak, Iruñatik, idatzi zioten nere aitari eskutiz bat Erreta Merinoaren bidez eta Lizarragan alkartu ziran Merinoa eta nere aita.

BORJA

Ezer onik atera zuten andik?

SEMENO

Artan ari dirala, pakearen bidiak billatzen alegia, ixilleko lan batera bialdu ninduen aitak Olazaguti aldera. An aurreko mendietan, Kontrasta erriskan, daukagu torre bat, andik ikusmiran egoteko Naparrora begira...

BORJA

Eta?

SEMENO

Salatari-barrunta batek nere berri eman zion Merinoari. Lagun batekin nijoan eta biok arrapatu ginduzen mendian gendukan txabola batean.

BORJA

Barruntak esaten al diozute salatariet?

SEMENO

Izen orixe daukate gure artean.

BORJA

Eta, zer gertatu zan?

SEMENO

Nere laguna onera ekarri eta ementxe, Etxarri-aurrean, urkatu zuten eta bere gorpua zintziliek utzi arbola batean erritarren pozgarri.

BORJA

Pakerako bide eskasa dek ori. Baña, salatarien arazo ori ez diat ondo entenditzen. Naparroako Merino batek nola jakin lezazke Lazkanoko berriak..?

SEMENO

Erreta Merinoak barruntak edonun ditulako. Begira, Borja, lagun maite bat nuen nere ize-nekoa Semeno de Uriz eta nere etxetik, Lazkanotik, irten zuan bertako bost mutillekin. Barruntak, salatariak, esan zion Burunda ballaran entregatuko zitula. Eta nere lagun maitea Urdiañen urkatu zuan eta an utzi zuan arbolan zintzilik ura ere.

BORJA

Oiek egiak dira?

SEMENO

Egi zeatzak 1329an gertatuak. Ikusten dezu, Borja, zenbat okerkeri naparren eskutik jaso bear izaten ditugun?

BORJA

Eta, zurekin zer egin zuan Merinoak?

SEMENO

Tiebasko gaztelura eraman nindun. Ango gertakizunen berri gero emango dizkizut. Orain esango dizut gure okerrik aundienak 1330an eta 1331an gertatu zirala naparren eskutik. Lenengo gure lagun oiñaztarren Larreako gaztelua lurreraño ondatu zuten. Geroago Berastegira urbildu ziran eta bertako gure senitartekoen gaztelua, erre zuten eta aizkenik Lazkanora etorri eta gure "fortaleza" birrindu zuten... Zurea eta nerean zan etxea zanpatu zuten... naparrek! Eta, i oiekin etorri aiz gure etxe berrira; egoitza eman diek bertan... Borja, Borja, ez diat ori sekulan barkatuko.

(Ke-artean galtzen dira oianean)

18/-Lazkanoko gaztelua. Egunez. Gela nagusia

(Bi morroi mai luze bat ipintzen ari dira eta jarlekuak maikoentzat, auzia erabakitzeke.) (Zazpi jar-leku)

MORROI 1

Nork esan ori gertatu bear zanik...

MORROI 2

Gutxienea usten dan tokian, salatari-barrunta. Nork esan..? Ezin diat sinistu ere...

MORROI 1

Gaurko egunez ez ari ifokin fia... Norberaren erraiñuak ere bildur ematen dik.

MORROI 2

Ain zintzoa zan gizona..!

MORROI 1

Bai, bai... Zintzotasunak orain ikusten dituk... Joan Zuri'ditek orrelakoek izena Joan Zuri'... Aurretik zurikeri asko eta atzetik salatu...

MORROI 2

Besteren bat izan balitz...baña, ori..!

MORROI 1

Besteak bai eta ori, zergaitik ez..?

MORROI 2

Maiak bere epaia eman arte ez diat ezer sinistuko.

MORROI 1

Sinistu bear ko dek. Argibiderik ez zaie falta maikoai.

MORROI 2

Ala izango dek, bear bada, baiña nik sinistu ezin.

MORROI 1

Bai, jaunak ere orixe esaten dik: ezin duela sinistu; baiña, egia balitz, bere eskuz urkatu omen likek.

MORROI 2

Gaizki nai dionen bat zebillek or tartean, bera ondatu naiean... Ez neok geiegi fiatzen...

MORROI 1

Badatoz. Guazen gu emendik...

(Alde egiten dute bigarren ate txikitik.)

OFF/. Morroiak esan bezela Garzi Lupiz dator epaikari eta maiburuko, guda-mutil eta aidentaldearekin. Gela zabala izan arren betetzen ari dira, mai-inguruan zutik. Garzi Lupiz Lazkanoko Jaunaren arimea triste dago.

(Mai-buruan Garzi Lupiz eta beste iru aldamen bakoitzeko. Zazpi. Garaiko festatako jantziak)

GARZI LUPIZ

Jaunak, badakizute zer arazo dakargun eskuartean: Semeno preso eta Per lñigiz urkatua. Gure artean barruntak eta salatariak daude naparren serbitzuan; bestela, nundik eta nora jakin dute Olazagutira joanak zirela..? Ixilik joanak ziran...Auziaren mamia danok dakizute.. Erabaki dezagun auzia.

(Zutik euren atzetik gelditu diran bi gudarieri) Ekarri ezazute.

(Badoaz mutillak morroiak joan diran ate txiki-
tik, maiaren gibeletik dagoena. Eta, Otxoa
dakarte kopatillun eta eskumuturrak lotuta)
(Jaunak Otxoari)
Albitxuko jaun Otxoa, nere galdereiri argi eta
garbi erantzun diezu.

OTXOA

Bai, jauna.

GARZI

Zuenean naparren bat izan al dezute lengo
gabean?

OTXOA

Bai

GARZI

Gau osoan?

OTXOA

Ez.

GARZI

Arengandik dirurik ertu al zenduan?

OTXOA

Ez.

GARZI

Baietz ziona ba zan emen.

(Guda-mutillleiri)

Nun da Katagorri?

(Sartu da Katagorri bere billa joan diran bi
gudariekin) (Jaunak Katagorri)

Naparrengandik dirurik jaso al zuan onek?

KATAGORRI

Bai, jauna.

Bai, jauna.

OTXOA

(Katagorri begira begietatik keia dariola)

Gezurra!

KATAGORRI

Gezurra?

OTXOA

Bai, gezurra. Gezur utsa.

KATAGORRI

(Berarekin sartu diran guda-mutillle)

Erakutsi maikoei onen etxean zer billatu gen-
dun.

GUDARIA

(Diru-poltxa bat erakusten die)

Ara, Albitxuko su-arri azpian zer billatu
degun.

(Epaikariak aopekotan eta jendea arri-ta-zur)

OTXOA

(Larri eta naigabez)

Arazo onetan eskuak garbi ditudale, Jainkoak
daki.

GARZI

(Bizi-bizi)

Utzi Jainkoari bakean!

OTXOA

Jauna, serbitzari zintzoa izan nauzu bati, eta
orain salatzaille bezela agertzeak ematen dit
biotzean min.

GARZI

Ez da norbera iñor, norbere burua garbitzeko.
Zure itzeetan ez da egirik argitzen iñundik.
Egia beste bide batetik dator eta, etorri ere,
zeure kaltean dator.

(Otxoak bere burua makurtzen du miñaren
miñez)

Alkarren arteko ituniñ egin al zenduten napa-
rrak eta biok?

(Otxoa ixilik, erantzunik gabe)

Alkarri argibiderik eman zenien?

(Otxoa ixil. Erantzunik ez. Burua makurturik)

Ez al dezu erantzunik..? Otxoa, Albitxuko,
nere galdereri erantzun!

OTXOA

Aita baten biotz urratuari zirika zabilta eta
errukirik gabe..Zure biotzaren samia nere
biotzean daramat; zure semea Tiebasen
badago, nik nerea nun dan ez dakit...Semea
lapurtu zidanakin ituna egin..!?Nola, baiñan..!?
Nagoan ixilik...

(Zurru-murrua sortu jendearen artean...Badi-
rudi sinistu diotela..)

GARZI

Otxoaren itzak egiazkoak dira. Beste argirik
ez bada.

KATAGORRI

(Bixi-bixi)

Ara neroni argibide. Neronek ikusi nitun biak
alkarrekin.

OTXOA

Gezurra..!

KATAGORRIK

Gezurra?(Guda-mutillari) I, agertzak an billatu
degun bigarren zera...(Gudariak ezpata bat
ematen dio. Katagorrik eskuetan artu eta
maiaren ipintzen du)

Jauna, ondo begiratu nungoa dan ezpata ori..!

GARZI

(Eskuetan artu eta begiratu bat emanda gero,
oso arriturik)

Tiebasko gazteluarren ezaugarria du ezpata onek! Zeiñek eman dizu ezpata au, Otxoa?
(Ixildu da berriro Otxoa)
Ez al dek erantzunik..?

OTXOA

Zertarako erantzun nere itzari sinistuko ez badiozute..?

(Zearo suminduta eta lur-jota)

EPAI-MAIEKO BATEK

Otxoaren aurkako susmoa bada.. Susmo oien arrazoibidea Katagorriren eskutik datoz...
Poza dario ezpañetatik eta Otxoaren etsai agertu da...

MAIKO BESTE BATEK

Otxoaren semeak ere argibide litzazke auzi onetan.

GARZI

Dakartela nagusia.

(gudari batek irten eta laister Martin dakar eskutik elduta. Aita ikustean zotinka negarrez asten da)

Ez izute, ume, eta nere galdereiri erantzun: zure aitak iñor etxean artu al zuan gaez.

MARTIN

(Zotinka)

Kontu-kontari ari zitzaigula, gizon bat sartu zan etxean.

GARZI

Geiago zer?

MARTIN

Lotara bialdu ginduzen aitatzok.

GARZI

Eta, gero zer gertatu zan?

MARTIN

Gabean aitak esnatu ginduzen, Joan arrapatu zutela.

GARZI

Ogetik jeiki ziñeten?

MARTIN

Bai, jauna, eta zaldia topatu nuen ikuilluan odoletan etzanda eta gero aitak Katagorriti ots egin zion

GARZI

Zertarako?

MARTIN

Zaldia eskatu zion eta ez zion eman nai eta orregaitik biak burrukan asteko jarri ziran..

GARZI

(Katagorri)

Zer diozu, Katagorri?

KATAGORRI

EGI UTSAK DIRALA. Susmoa artuta nengoan eta igarri nion Otxoa itxurak egiten ari zala.

GARZI

Zer diozu, Otxoa?

(Otxoa ixilik, burua makur).

Gaizki zoaz.

(Maikoeiri)

Zuek zer diozute?

MAIKO BATEK

Ez dirala gauzok bear aiña oraindik argitu. Otxoa zigortzeko eta urkamendira eramateko, argi geiago bear degu. Orainarte izan de bezelako izanda Albitxuko jauna, ergibide geiagorik gabe ez nuke auzirik erabakiko...

GARZI

Eta, besteok zer?

BATZUEK: GEIENAK.

Ala dala.

GARZI

Ondo da. Argi geiago egin artean, Otxoa gill-zapean gordeko degu. Eraman presondegira. Gaurko lanak egin ditugu, jaunak.

(Otxoa daramate ekarri duten atetik. Erabakia ez zaio izan gogoko Katagorri. Arpegiko barreak usatu zaizkio. Illuna eta amorrua pozaren orde. Erakutzi beza kamarak Katagorriren asarre-aurpegia). (Jendeak irtetzen du gelatik: Garzi Lupiz eta maikoak gelditu dira, eurak bakarrik)

Otxoak zintzo jokatu du beti eta orain orrelakorik ezin nezake errez sinistu.

BATEK

Ezin genezake, besterik gabe, erabaki gaiztorik artu, Otxoa bera dalako epaitzekoa...

BESTE BATEK

Baiña, errudun gertatuko balitz, orduan zigor guztiak gutxitxo.

GARZI

Ziur egon jaunak; ori ala bada, nere eskuz neronek urkatuko det.

(ateraiño eldu dira. Maikoak zurubian beera asi dira. Garzi bertan gelditzen da)

Agur. jaunak.

BESTEOK

Agur.

(Jarraitzeko)
Anes Arrinda

ANDRES-KALEKO MATXALEN 2N SARIA (1997)

Alaba bizkiak izan ebezen Peru eta Mari'k; Bata, Matxalen, bizia eta argia: bestea, berriz Mari. otsana eta paketsua. Biak gelditu ziran umezurtz arako 1919'garren urteko gripe negargarri arekin.

Lau urte eramazan Europa'k burrukan, alkar iltzen, odolez lurak gorritzen... Eta, aren ondorena edo, izurri ikaragarri bat agertu zan pure artean eta umezurtzez Brain ebazan euskal lurak.

Gazteak izan eta errez moldatu ziran Buren bizi berrira Matxalen eta Mari, naiz-eta etxe-bizitzatxo hat besterik ez izan zero eta lurren aurrean. Eskuak baebetzen, beintzat; lurak jorratzen ikasita egozen eta, artarako gogoa izan ezkerero. Iana sortzen da andik edo emendik.

Aste osoan jai-egunari begira eta kanta zaarrak diñoenez neska mutil zaliak "oiñak ariñak eta burua ariñago...". "Gogoa nun, zankoa an", diño beste antxiñako esaerak. Bi neskato onek "txistu-soiñua nun, gogoa an": baña, batez be, pelotari eta aizkolari gazteak ziran Buren aize-orratzari nora-bidea enlaten eutsoenak...

Bai ha, Arrandi'ko Abdon'egaz maite-miñez, txorabioak artuta ebillen Matxalen, geldi eziñik. Zein zan Arrandi'ko Abdon? Ogei urteko pelotari bikaña, zortzi arrua aragi trinko pertxa zuzen batean esegita. Arek bai zituela oiñak arin eta besagaiñak indartsu! Txokora jotzen eban pelotak, sekulan boterik ez; bertan ilda gelditzen zan; atzera jo ezkerero, marra guztien gaiñetik, kamiñoraiño joaten zan pelota.

Beñ. Durango'ko azokan, partidua irabazi eban egun aretan, (Matxalen'en zorabioa), alkar topo egin eben Goi-ko-kalean, eta Abdon'ek agur egin eta onela esan eutson:
-Kaixo, Malen, zertan abillen?

—Zeu ikustera beste barik.

—Ederto, alkar ikusiko dogu beste batean.

Ori esan eta aide egin eutson. Alan be, Matxalen kalean zutunik, garunak aizeak eruanda lez, eta poza biotzetik dariola esanez:

—"Abdon'ek berba egin daust...".

Etxera hiurtu danean, here aizpatxoari ustu deutso anima eta barruan gorde eziñik, gañezka eukan zoramenaren berri emon: Mari, tuntunak, errian zabaldu. Bi aizpak dira tuntun-xamarrak eta ezkutuan ezer gorde ezin.

x y *

Martolo Morokil'ek, on entzun ebanean, Urkiola'n bertan be entzuteko algarak bota ebazan. Eta, muserako tabernan bildu ziranean, barrez errementa bear; danen artean

eratu eben plana eta bigaramonean, Abdon'en partetik, mezua bota eutsen Matxalen'eri:

Biar zapatua, illargi berri, Errota-zaarre'ko zubi-azpian alkartuko gara, bein illunduta gero.

Tximiak orraztu, soñeko bernia atara kutxatik, jaietako oiñetako zuri politak garbitu eta, aizpatxoa ogeratu danean, ankapunttatan irten du etxetik.

Gaua illun dago, baña berak ez du biderik galduko, bioz-zean biztuta daraman zuziak, argituko deutso bidea Zubi-zaarreraiño eta azpiko txoko batean gorde dau here burua erne eta urduri noiz Abdon agertuko.

Luze doakio denbora; baña, ezer nai dabenak here goguari eutsi bear deutso gogor, asmorik sendoenagaz, Matxalen'en antzera...

Artan, dorreko kanpaia orduak jotzen. Amabiak amaitu barik ara, erreka beetik eta goitik, iskanbilla bizian, lami-sailla nun agertzen dan, guztiak zubi-azpiko uretan murgiltzera. Ango zalaparta eta ango berba egin bearra, alkarri berriak emoten. Guztiak berba egiteko; iñor be ez entzuteko.

Matxalen ikaratu da ezurrak urtuteko eran; barrua erretzen dautso bildurrak eta ez da arrazoirik palta: leengo batean, Errekaldeko ganbaran, arto-xurietan ari zerala, lamiak eta sorgiñak atara ebezen platerera eta Matxalen'ek auxe esan eban:

—Sorginik eta lamirik ez dago; siniskeri zoroak dozak orrek eta neuk ez dodaz sekulan be ikusi eta ikusten ez dana, ez da sinistu bear.

—Eta, ikusten dozuna, zelan sinistuko dozu? Sinisten dira, ikusten ez diranak. Neuk, beintzat, sinisten dot.

Beste guztiak be, Aitaren eginda, orixe esan eben, ao batez. Matxalen'ek ezetz eta ezetz, danen aurka. Orrek danak esanda geno, amen dago, lamien aurrean, biotza koi-pearren antzera urturik. Konturatuko ote dira?

ii *

Orixe bai konturatu dirala. Lamiña gazte batek ikusi dau, beregan borobilduta, arri baten babesean here burua iskutatu eziñik, eta arek jo dau zantsoa:

—Ara amen Andres-kale'ko Matxalen lamiñik ez dala esaten dauana!

Ori entzunda, bata bestearen ondoren gerturatu dira Matxalen'gana eta Lami zaarrenak onela diñotsa:

—Gu ez gerala: baña, bagaitun. Mari Petralin ez, beste guztiak emen gaitun.

Oii esanarekin batera, bakoitzak ule bat burutik kendu eutsoen eta aizkenerako ule-matasa orixka ederra lamiñen esketan; buru-soil Matxalen koittadia.

– Orain etorri gurekin dantzara.

Eta, besterik gabe, murgildu dabe uretan bein eta berriz, ia itoteraíño. Tximia buzti sorbaldatik beeraiño; jaietako perkaliñazko soiñeko zuria gorputz-azalakin bat eginda, berak be, lamia zirudien. Baña, ur-azpian, arnasik artun ezin.

*
:P

Eskerrak aldameneko Doniane basarrian, perretxikoak janda, nagusia presaka, sabela arintzera, kortara joanik dala, krisaillua eskuetan dauala. Makil baten puntan zegoen Martiollarrak, argia ikustean, egun-sentia irudituta, jo dau bere kikiriki indartsua.

011ar-irrintzina entzutean, tximistak artuta, aide egin dabe lamia guztiak, Matxalen il-zorian utzita. Zubi azpian geratu da intzirika gau osoan.

* *

Goiz-aldean, Mari'k, aizpa palta dala ikusirik, aurretik susmoa artuta egoen, eta an joan da arin-aringa Errota-zaarreko zubira. Abdon'en orde, lamiak topatu dauz Matxalene'k eta aizkeneko arnasetan zirudien. Ez zan gutxigorako. Gau aretan buru-ganbarako ordularia naastu zearo Matxalen'eri, atzera eta aurrera, iñungo ordenamenturik bage...

A T -I.

Nere amak eskubiko besoa perlesiak jota eukan eta orregaitik dei egiten eutson Matxalen'eri baratzako lanetara. Oneri, buru soillean, zidarrezko ule-matasa sortu jakon, aurpegiko azala zimeldu eta burua naastu: baña, baratzako lanik ez dau aztu eta orretan oso trebea da.

Sei errial irabazten dauz egunero, eta bere aispatxoak beste orrenbeste irabazten ba'dauz, bidean aurrera joango dira.

Abdon'ek, txapeldun zalarik, damatxo aberatsa topa eban lagun, eta joanak ziran biak uri nagusira; aren arrastorik ez da errian arrezkero baña. Matxalen beti aren zai. Itxaropenik ez dau galdu; sekulan galduko be.

><~.

Martolo Morokil zaartu da eta oraindik barre egiten dau tso Matxalen'eri; berak, ordea, beste orrenbestekorik ez dau topa bizitza osoan. Naiko leuke leengo kanta zaarra beretzako idatzita ba'lego, ezer ez baiño oba izango litzake-ta:

"Nere andriak kamixa zaarra
bernia ba'lu ezer ez
zazpi astian soiñian dauka
garbitzeko alperrez..."

Matxalen lamien bildurrez bizi da:

* * *

"Lamiak eta sorgiñak leize-zuloetan bizi ba'dira, zergaitik ez dozue zulo oietan gazoliñia botatzen, su eman eta danak erre?"

ARRINDA'tar ANES

EUSKERAZAINTZAREN ASMO BI

EUSKERAZAINTZA EUSKEREAREN ERRI-AKADEMIA'k asmo bi daukaz aurtengo udarako. Oraingoz zeaztasun geiegi barik iragarten doguz gure ZER onetan:

1.ª – UDARAKO LENENGO IKASTAROA (1998)

Donostia'n izango da, Uztaillan. Manu Oñatibia'ren izena daroa eta here irakasbideak be erabilliko dira. Elburuak: Euskalerraren edestira eta kulturara sartu, euskeraz itzaldiak emoteko izlariak Qertatu, Bertso -papelen saltzailleak adoretu.

Gaiak: Euskera jolas-bidez, euskera arteza eta euskal-aditza (Laxaga'k). Euskal kristutasunaren sorrera (Latiegi'k), kristau-aurreko sinismena (Anes'ek), Sabino Arana'ren emaitza (011o'k), Euskal-albistaritza (Zubikarai'k) Azkue ta erri-literatura (Olazar'ek), Elebarria (Zubiri'k) Bertsolaritza (Legarreta'k), Bertso papelak.

Azkenean 15 orrialdeko lan bat egin ezker, Diploma bat artuko da. Edo orrialde bateko azterketa gainduta, B-maillako agiria.

2.ª LETARI-EGUNA

Aralar'era, maiatzaren ogei ta amarrean.

- Alkartzea, Basozaiñaren etxean.
- Oiñez San Migel'era txistulariak lagun dirala. (Nai dabenak an).
- Abesti zarrak abestu.
- Euskal Santuen Letariak (San Migel'era eldu).
- Ibildeuna irudiagaz.
- Orixe'ren Letari atala irakurri Euskaldunak liburutik.
- Letariak eta Euskalerrria lau aldeetara bedeinkatu.
- Meza Santua.
- Senide-arteko bazkaria.
- Basaburua ta Itxaso'ko eleizea ikusi.
- Etxeetara.

ANES EZ DA ANE

Arana-Goiri'tar Sabin'ek atera zuen bere garaian Euskal Izendegi bat. Santuen izenak ziran euskera-antzeria ipiñita. Esate batrako: Anastasio Anastasi.

1972'garrenean J.M. Satrustegi'k beste bat Euskal-erri'ko idaztietan arkitzen direnak.

Gaurko egunez, berriz, Izaki osoaren izenak jarri dizkiete gurasoek euren umeei: Aizea, Itsaso, Lur, Arri, Arkaitz, Ibai eta bestelako izen xeble guztiak. Orretan askatasun oso-osoa dago bai Elizaren aldetik eta bai Udal-etxeen aldetik; baña, ni orain 81 urte jaio nintzanean ez zan orrelakorik: Elizako santuen izenak bear ziran, nai ta nai ez.

ANES izena lekittarrek erabiltzen zuten eta oso zan ezaguna Lekeitio'ko kaleetan 1912'garren urtean, Eustakio'k bere lenengo aurra izan zuenean. Berau Sabin'en jarraitzalea zan eta bere semeari euskal izena ipiñi nai zion. Itz egin zuen bere emaztearekin eta, Anastasio'ren orde (nere amaren aita), ANES ipintzea erabaki zuten.

Joan zan Eustakio eleizara eta ori ez zala santuen izena, bota zion aurpegira txanburuak. Andik Udal-etxera abiatu zan; baña, alperrik. Emen ere berdin erantzun zioten: Ori ez zala ume bateri ipintzeko izena.

Eustakio'k, ordea, bere astuari arre: Au neure semia dot eta neuk nai dodan ixena ipiñikotzat. Baita ipiñi ere: Sekulan, jaio nintzen egunetik eurok il ziran egunerarte, neure gurasoen agotik ez det ANES beste izenik entzun. Nere senitarte guztian ez zekiten nik beste izenik nuenik ere. Bada gure artean Anastasio bat (Albisu Ayerdi), ni baño iru urte gazteago, eta izen ori berak eraman du beti, nik neurea eraman dedan bezala.

Nik paperak bear izan nituen artean, ez nuen jakin neure paperetako izena ANASTASIO (ANASTASI) zanik ere. Apaiztu ninduenean, Meza berriko txartel-letan Anastasio izena ikustean, arriturik galdetzen zidaten: - I ez al aiz ba Anes?

* *

Nere izenaren okerkeriak ez dute amairik. Orain ogei urte inguru, Anes Lazkauko ezizenakin lanak argitaratzen nituenean, nere OTO TA POTOTO'tik, txiste bat aukeratu zuen irakurgai Zarautz'ko Ikastolak eta izena ANE biurtu zidaten: Ane Lazkauko. ZER, gure aldizkari jatorrean ere, aldi batean Ane Arrinda izenakin zuzentzen zidaten ale bakoitza. Eusko Jaurlaritzak bialtzen dituen BERRIPAPERA oietan ere ANE ARRINDA nintzan. Zuzentzeko esan eta gauzatxo batzuek zuzendu zituzten, baña izenik ez, ANE ori or zegoen zutik. Bigarren mezua bialdu nien; alperrik. Irugarrenean Anes izenari, "apaiza" irantsi nion eta oar auxe: Zalantzarik ba'dezute galdetu Mari Carmen'eri, izen orretxekin eza-gutzen nau aspaldiko urteetan. Irugarrenak balio izan zuen. Okerrak ez dute etenik: TXO, itxasgizoneen aldizkarian, nik idatzitako Lekeitio'ko kanta batzuek artu dituzte gure EUSKERAZAINTZA aldizkaritik, eta berriro, ANE ARRINDA...

Onek ez du amaierarik. Orrelako izen aldrebesa al da ANES? Bada izen orrekin mutiko bat Deba onetan eta bere amari galdetu nion, zergaitik ipiñi zion Anes izena bere semeari. Euskal buruzagiren bat ote zan edo, erantzun zidan; baña, gauza garbirik ez zekien. Erruki diot. Nik eskari au: Nere giza-izakia ez aldatu, mesedez. Emaztekiak izaki xarmantak dituzu; baña, ni ez naiz emaztekoa.

Ekainillak 26.1993.
ARRINDA'TAR ANES

=>=< =>=< =>=<

EUSKAL AZTARNAK

ANIMISMOTIK ERROMANIZAZIORA

VI. ERROMA



– Noiztik da Erroma ori?

– Euskaldunek tupiki (urraida) - aroan eta oraindik europeotarrak geure medi-gallurretan bizi zirelarik, Tiber izeneko ibaiaren ezker-aldean, erri berri bat ari zan sortzen, "Septem Montium" (Zazpi mendi) en artean. Tiber ibaiaren eskubitik, ordea, eta ipar-alderago-ko Arno beste ibaiaren artean, an zeuden kokatuta Etruskoak, Euskoen antz-irudikoak. Amabi uri aundi zituzten Erroma joaio ordurako, eta onen asierako erre-

geak, berak ere, etruskoak izan ziran, Errepublikan sortu arte, Erroma'n.

– Eta, zer egin zuten etruskoek?

– Amagi uri nagusi zituzten eta amabiak iranunsi zitun Erromak, bata bestearen ondoren, ondorengoz euren arrastorik, bat ere utzi gabe. Erria zabaldu ala, Erroma'k bide berriak urratu zitun, sendoak, iraunkorrak eta egokiak. Estuenak ere, bi gurdi alkarren ondoan pasatzeko aiñakoak. Nagusiek, beriz, zazpi metroko kalzada zuten, eta bi aldamen, andik zamariak, zaldiak eta oñezkoak ibilli aal izateko.

– Gure amamaren esanetan, bide guztietatik joaten da Erroma'ra.

Ori egia zan, bide guztiak Erroma'n zutelako beuren kilometro guztien asiera "Miliario Zero" deritzan arri borobillean. An dago oraindik "Foros Imperiales" zan tokiaren

erdian. Autopista berri auek sortu diran artean, Italia'ko erripideak erromatarrenak ziran. Munduan zabalduz, bide berriak eraiki zituzten, aal zanik erosoan, Mediterraneo itxaso osoaren inguruan. Benetan arrigarria da, nola Uri bakar batek Europa, Asia eta Afrika'ko baztar asko menperatu zituen. Txapela kentzekoa da.

– Eta, nola etorri ziran guregana?


– Etruskoak garaitu ondoren, itxas-ertzean gora, Italia eta Frantzia zear, Hispania'an sartu ziran Tarragona'ra; baña, or eldu aurretik, Narbona'tik Burdeos'era beso bat zabaldu zuten. Tarragona'tik aurrera, Zaragoza, Kaskante eta Bribiska'raiño... Burdeos'tik beera Orreaga'ra eta andik Iruña'ra. Emendik, berriz, Sakana'tik Araba'ko Lautara eta andik Bribiska'ra bide au ere. Orra bi bide nagusi nundik gurera etorri...

– Bi bide nagusi oien artean gaude...

Burdeos eta Tarragona'ko bi bide oien artean, euren erdian artu zuten Pirenee-mendiak eta Euskalerra osoa. Bribiska'n alkar joko zuten bi bide auek eta andik Astorga'ra. Burdeos'tik, itxaso zear ere, egoalderuntz, Euskalerra zegoen... Oneri, meatzen billa datoz: zillarra eta burnia. Zillarra Oiarzun'en eta burnia Flaviobriga'ko Bilbao inguruan.

– Eta, gure mendien gallurretan bizi ziran europeotarrak...?

– Erromatarren bideak ibarretatik datoz eta euren uriak ibarretan egiten dituzte. Onek bere ondorioa ekarri zuan berekin batera eta auxe da: mendi-gallurretako kastro, gaztelu eta arri-esiak bertan beera erori ziran, larren janari eta txorien egoitz; erriak, bideak eta bizia azpitik zijoazen abiadan, goiko gallurra aldamenara utzita. Arkeolojiak ez digu esaten zer egin zuten ango biztanleak; desagertu egin zirala. Orra guztia.




Nora joan ziran? Gure erriakin naastu ziran? Bear ba'da, bai. Eta, bear ba'da, geure odoletan agertzen dan A zerki ori, eurok utzitakoa Izan liteke, Europa ifar-aldeko ezaugarri bait da A zerki ori...

- Aien siniskeriak ere gurekin daude.
- Bai, ala da. Ain maite degun lauburua, eurena da San Juan suak bezela. Euslakerrria'n ez dago baztarrik San Juan surik egingo ez duenik. Ituren'go Yoaleak gureak direnik ukatu ezin: alaz ere 1963'garren urtean, Davos erriko elizaren apaiz batek esaten zidanez, bere erriko aldamen batean, udaberria eltzean, orrelako Yoaleak bazirala. Eta, oraindik orain, komunika-bideek eman digute Yugoeslavia'ko erri batean oien antzeko zerbait, ardi narru eta yoale aundiak gañean zituztela.
- Europatan•en siniskeriak auek danak.
- Eurak gure artean urte akotxo igaro zituzten: Naparro eta Araba'n millatik aurrera; Gipuzko eta Bizkaia'n ez ainbeste; baña lareun urte bai. Gure artean urtu ziran, euren buruko siniskeria geuren buruetan lagata gero. Erri-sikologia-ren lege batek dionez, siniskeri edo ipuin baten Norkia, denboraren poderioz. aastutzen zaigunean, edo ura baño indar aundiagokin beste bat agertzen danean, orduan lenego Norkiaren ipuin eta siniskeriak, bigarren Norkiari eansten zaizkio...
- Basajauen gauza batzuek Jentillanak izaten dira.
- Eta. gero Sanson'enak eta bda Aralar'en arri aundi bat Rondan'ek botatakoa... Lenego eguzkiari egiten zitzaizkio suak, gerora San Juan'eri... Ori da sikolojiaren legea... Euskaldu errietan Jentillanak diran zenbait gauza, euskera galdutako errietan, moroenak izaten dira... Dana dala, suak irauten du oraindik. Euskerak eta Kristautasunak ekarri dizkigute, euren tolestetan, antxiña-antxiñako siniskeri asko.
- Don Joxe Miguel Barandiaran Ataun'dik asi zan lanean.
- Ataun erri euskalduna eta kristaua zan eta etnoloji-arazoa andik asi zuan. Eiztariak gintzala aztikeriak egiten genduzen koba-zoloetan, eize-irudien aurrean. eizea arrapatu aal izate-

ko. Geroago, artzai bihurturik, belarrari aztikeririk egin ezin eta gora begira asi giñan... An zeuden belarrak bear zitun eguzki eta ur... Andik asi zan euskalduna Ortzia eta onen indar guztiak.

- Izakiaren indarrei anima bat ipiñi zien?
- Eta jainko txiki biurtu. Euskalduna artzaia zan eta bera menperatzera etorri ziran europeotarrek ere bai: siniskeri berdiñak eta antzeko bearkizunak... Baña, ondoren etorri ziran erromatarren bide berriek galdu zituzten kastro, kastillar. kastillo eta Jentillen gaztelu guztiak. Ez zitun kristautasunak galdu, aurretik etorritako erromatarrek baizik.
- Burdeos, Garona, Dordoña
- Erromaterrak euren bideetatik etorri al ziran?
- Bai; baña, gurera kosta-ertzetik ere agertu ziran. Burdeos zan euren Uririk nagusiena eta andik zeuden Baiona, Bidasoa, Pasaia, Donosti, Getari, Deva, Artibai-Ondarru, Lea-Lekeitio. Gernika-Forua... Nervion-Bilbao-Flaviobriga...
- Burdeos'ek badu Garona izeneko ibaia.
- Eta Garona'ri. itxasoratu aurretik beste ibai bat datorkio, Dordoña deitua, eta onen inguru guztian daude Paleoliti-garai-ko kobarik famatuenak, Cro-Magnon'etik asita... Dordoña ibaia an goian gelditzen da Burdeos'tik sorkalderuntz; baña, Garoña, ez: goitik beera dator Pirenee mendartera. Onen gallur batean sortzen da zazpi iturburutxoetatik eta Burdeos'eraño jeistean, mako aundi bat egiten du. Mako orren barruan egon dira beti Akitania'ko euskaldunak...
- Garona berba bi itzez egiña dago: Gar eta Ona.
- Biak dira euskaldun utsak: Gar, mendi gallurra da (Garmendia, Gar-ate, Garaiko-etxea...) eta Ona. Ona de ur asko emeten duen mendia. Garona (Guide de Tourisme. MICHELIN PYRENEES. 3 Edition, 91 orrialdean dionez) izena errekatxo batzueri ematen zaio eta guztiak dira Gar-Ona, batez ere Garona de Ruda (Saboredo mendiaren inguruan) eta Garona de Jueu (Maladetta'ren ifar-aldean) sortzen direnei... Badirudi izena ez dala urarena, mendiarena baizik. Eta euskeraz orixe esan nai du Gar-ona'k.



– Garonak mako aundi egiten duela esan dezun.
 – Mako orren barruan ibiltzen ziran, ifal-alderuntz, Pirenee mendietako artzaiek... Or zegoen asierako Akitania. Gero Akitania gorago zabaldu zuten eta orduan sortu zan, or bertan, Novempopulania (Bederatzi Erriak). Hiztorian zear beste izen auk artuko zituen Ducado de Guyena eta Gascuña.

- Baña, ez al ziran amabi erri?
- Asieran Bederatzi zirenak gero Amabi gertatu ziran.

Ona izenak:


- 1/ Metropolis Civitas Elusantium (Eauze).
- 2/ Civitas Ausciorum (Auch-Armagnac).
- 3/ Civitas Aquentium (Dax).
- 4/ Civitas Boiatium (Buch eta Born).
- 5/ Civitas Beharentium (Lescar-Bearne).
- 6/ Civitas Turba Ubi Castrum Bigorre (Tarbes eta Saint

Lizier-Bigorre)

- 7/ Civitas Convenarum (Saint Bertrand de Comminges)
- 8/ Civitas Consoratorum (Saint Lizier. Conserans)
- 9/ Civitas Aturiensium (Aire Sur l'Adour)
- 10/ Civitas Vasatica (Bazas-Basadois)
- 11/ Civitas Lectoratium (Lectoure-Armagnac)
- 12/ Civitas Iloronensis (Oloron-Bearne)

Ortxen zeuden Novempopulania'ko Amabi Iriak, bakoitza bere buruaren jabe eta guztiak erromatarren menpeko... Etruskoek ere Amabi Uri aundi ederrak zituzten benetako alkarterik gabe; bakoitza aske eta libre; Erroma'k banan banan zanpatu eta ezereztu zitun. Euskoak Etruskoen antzirudi omen gera; baña, gu bizi gera eta aiek bimilla urte aue-tan ilda daude; Ez erri, ez izkuntza, ez ezer. Illerriak bai, gurdi batek beera jo zuen egun artatik; zulo aretan aurkitu zituzten Etruskoen izugarritzko illerriak. Arrezkero dira famatuak; baña aurretik, izan zirenik ere ez.

- Eta, gure arteko indoeuropeoak?
- Erri osoak ekin zioten Europa'ko egoaldera, zituzten



gauza guztiekin, sekulan euren sorlekura ez itzultzeko asmos. Ezpataz (iñungo ederrenak zituzten brontzezkoak eta gerora burnizkoak) edo itunez, eurak aukeratutako mendi-gallurretan eraiki zituzten, euren egoitzarako, kastro edo gasteluak arri-esiz ondo ornituak. Artzai eta nekazari ziran; baita olagizon trebeak ere, bai brontze bai burni arazoetan. Euretatik ikasi genduen burnia lantzen. Galdetu bestela San Martin Txikiri.

– San Martin Txikik Jentillei arrapatu zien burniaren templea eta ez Europeotarrei.

– Biak bat dira, geure ipuiñetan naastuta ba'dabiltza ere. Tenplearekin batera, baita burni-zerra eta itaia ere ostu omen zien. Aurretik, berriz, garia. Europeotar Jentil aueri azkena Erroma'k ekarri zien, Kristautasuna sortu orduko. Erromatarrekin ez zan erririk etorri, soldaduak bai eta euroekin batera jaurlaritzako jendea eta merkatariak. Euskalduzentzako obe.

ARRINDA'TAR ANES





APOSTOLUEN ETA MARTIRIEN DENBORAKO ELIZA

Eliz-Edesti-Sorta.
Euskerazaintza. 1992.
Latiegi'tar Bixente.

Aurretik ere baditu Eliz-Edesti-Sorta onetan beste lau liburu argitaratuak: "San Ignazio'ren Denborako Eliza" (1447-1623). "Denbora berrietako Eliza" (1623-1814); "Demokraziaren Denborako Eliza" (1814-1914); "Gure Denbora Auetako Eliza" (1914-1978). Oraingo au bosgarrena du eta Elizaren asieratik dator (30-323). Seigarrena ere aterea du, eta zazpigarrena eta zortzigarrena ere bidean ditu.

Liburu au moldatzeko berealdiko liburu-zerrendak erabili ditu. Geiago ezin. Eta, zeatz agertzen dizkigu Eliza onen bizi-xeatasun guztiak Latiegi'tar Bixente'k.

Asiera emateko Eliza Mizteriozko Izakia dala agertuko digu. Jesus da burua, anima berriz Espiritu Donea Jainkoagandiko biziaren sortzaillea. Kristauak, Jesus'en Gorputz Mistikoa osatzen duten gorpuzkiak dira. Guzti ori, izakiaren gaiñetik dagoen eskutuki utsa. Badu ikusten dan Erakunde bat ere eliza onek: Baditu agintariak, jarraitzalleak, ekintzak historian zear eta oiek bai, oiek ondoto ikusten eta ezagutzen dira, Elizaren Edestia osotzen bait dute.

Jesus'en jaiotza orain 1993 gertatu zala diogu, Erromaren sorreraren 749 urte-mugan. Egia esan, asieran ez zuen iñork Jesus'en jaiotzaren kezkarik; naikoa zuten bere eriotza eta piztueraren berri jakitea. Eta ori bazekiten; jaiotzarena, berriz, 540'garren urtean Dionisio Exiguus lekaideak asmatu zuan. Asmaketa ori ez zuan bear diran xeetasun guztiekin egin eta badirudi erruren bat badala eta Jesus lau urtez aurretik jaiotz zala Dionisio'k esan baño. Asmaketa onen aurretik, urteak Erroma'ren sorreratik asten ziran; gero, asi ziran Jesus'en jaiotzetik aurrera zenbatzen.

Jesus judutarren lendabiziko illearen 14'ean il zan, 33 urte bete ondoren, Pazko-jaietan. Ostegunez arkumea jan oi zuten arratsalde, Ejipto'tik irteeraren gomutaz eta oroimenez; urrungo egunean il zan eta igande goizean piztu.

Jesus, Cesar Augusto Octavio'ren egunetan jaiotz zan, eta 14 urte jaiotz onen ondoren il zan César Augusto. Ona gertaera batzuen zerrenda:

- 14'ean: Tiberio, enperadore berria.
- 37: Tiberio'ren eriotza.
Caligula enperadore.
- 41: Caligula'ren eriotza.
Claudio enperadore.
- 49: Jerusalem'go Konzilioa.

- 50/51: Paulo'ren Tesalonikatarrei lenengo epistola: Testamentu Berriko idatzirik zaarrena.
- 54: Claudio'ren eriotza.
Neron enperadore.
- 64: Erroma sutan: Kristauei zigorra lenengo erasoaldian.
- 66: Judutarrek Erroma'ren aurkako iraultza.
- 67: Pedro eta Paulo'ren eriotzak.
Lino Aita Santu.
- 68: Neron'en eriotza.
- 68-69: Iru enperadore bata bestearen ondoren: Galba, Oton eta Vitelio.
- 69: Vespasiano enperadore.
- 70: Tito'k, Vespasiano'ren semeak, Jerusalem menperatu eta erre.
Ondoren enperadore.
- 76: Anacleto Aita Santu.
- 81: Tito'ren eriotza.
Domiciano enperadore.
- 88: Clemente Aita Santu.
- 96: Domiciano'ren eriotza.
Nerva enperadore.
- 97: I Evaristo Aita Santu.
- 98: Nerva'ren eriotza.
Trajano enperadore.

Idaztiak

Testamentu Berriko idaztiei buruz, au esaten digu Bixente'k: ez dirala izenak eta egilleak alkar ondo konpontzen. San Marcos'ena bai, berea omen da; besteak, San Mateo eta San Lucas, ordea, ez. San Lucas'ena eta Bidalien Egiñak, biak batena dirala... San Joan'ena, berriz, San Joanen Eskolakoa omen da: Aren ikasleek San Joan'i entzundakoa idatzi eta borobildu omen zuten...

San Pablo'ren epistoletatik, bereak, 7 omen dira: Erromatarrena, Galaziarrena, Filipotarrena, Gorintotarrenen biak, eta Tesalonikatarren Lenengoak. Besteak San Pablo'ren Eskolakoak omen dira...

San Pedro'renak, aren ikasle batzuenak omen dira: berari entzundakoa idatzi eta, bere omenez, bere izena ipiñi zieten. Jacob eta Juda'renen egillea ez dakigu nor izan zan.

Apocalipsis eta Joanen epistolak, onen Eskolakoak omen dira.

Sinistu bearrezkoa

Gai oneri buruzko jokabidea au da: Sinistu bear da Jainkoa dala idazti auen egillea, ori erakusten bait du Elizak. Norenak diran, ordea, eta noren eskutik idatzita dauden, ori ez gaude sinistera bearturik.

“Gizakume oiek nor izan ziran erakustea, (ori) ez da Elizari dagokion gauza. Elizarena, zera da: Liburu oietan Jainkoagandik idazlea-zear datorrena eta idazle beragandik datorrena bereiztea; edo, berdin dana, Liburu oietan, Jainkoaren irakaspena zen dan, eta zer idazlearen kultura dan, munduari erakustea; eta Jainkoagandiko irakaspen orren zentzu zuzena gizakumeoi azaltzea, ortarako bai bait du elizak - eta Elizak bakarrik bait du - Gogo Deunaren la-guntza berezia”.

Palestina=Israel, Elizaren sorterrria

Lurralde txikia da (34.000 kilometro lauko), Afrika eta Asia'ren bidegurutzean kokaturik dagoena, eta Europa'tik gertu. Gure artzaiek, Histori-aurreko Neolitiko-aroan, aberegintzan asi baño 4000 urte aurrerago asita zeuden Palestina'n lan oietan eta nekazaritzan ere. An dagoen Jericó erria, Prehistoria guztiko uririk zaarrena.

Antxe sortu zan Jesus Nazaretarra, Mediterranee itxasoa eta Jordan ibaia-aren atartean. Ifar-aldetik an dago Genezaret'eko zingira borobilla 168 kilometro laukoi dituena. Zingira onen beste bi izenak auek dira: Galileako itxasoa eta Tiberidades'eko itxasoa. Aurrerago, Hermon mendia dago 2.814 metro gorakoa. Mendi onen oñetan sortzen dan Jordan ibaia gero Ur Illetako zingirara bere urak botatzen ditula. Mar Muerto deritzan zingira au, Mediterrane itxasoa baño 397 metros beerago dago.

Jesus'en garaiean iru zati zituen: Galilea ifar-aldetik, Judea ego-aldetik eta Samaria bien bitartean.

Galilea

Naiko zelai eta nekazaritzan naiko aberatsa. Antxe dago Jesus bizi izandako erria, Nazaret, eta ortik datorkio Jesus Nazaretarra izena. Bere zingira ertzean zeuden Cafarnaum erria, erromatar gudarien egoitza, eta Betsaida, Pedro eta Andres'ena. Ingumari aietan ibilli zan Jesus eta bertako arrantzale taldetxo bat aukeratu zuen laguntzalle.

Samaria

Egoalderago dago, menditsu eta legor. Erdia israeldar eta beste erdia asiariatar, odolean bezala, ala erlijioan ere. Jerusalem'erako joera ebagitzeko, erregeak eleiza eraiki zuan Garizim mendian. Judutarren etsai ziran.

Judea

Ego-aldean. Menditsu au ere eta oraindik legorrago. Bertan zegoen Jerusalem, Israel'go iri nagusia eta benetan santua bertan zegoelako israeldarren jauretze bakarra. An erail zuten Jesus Nazaretarra bere erriaren eta erlijioaren aurkako jokabidea zeramalako. Ego-alderago dago Negeb deritzan lekaro legorra, Akaba'ko itxas-ertzeraiño.

Erromatarrak Israel'en

Pompeio erromatar gudariak menperatu zuen Palestina Jesus jaio baño 63 urte lenago. Palestina osoko agintaritzza Erodes, Idumea zan Negeb'eko erregeari, eman zioten. Antipater, Erodes'en aita, Idumea'ko buruzagi bat zan eta Pompeio'ren laguna; orregaitik Judea'ko agintzari izendatu zuten eta bere seme Erodes (Aundia) Galilea'koa.

40 urte Jesus aurretik, Erroma'ko Senatus Lege-biltzarrak Erodes Palestina osoaren errege aukeratu zuen eta iru urte geroago etorri zan Erodes, 36 urteko gizaseme gordiña, Jerusalem'era agintaritze ori jasotzera.

Erroma'n Octavio eta Antonio'ren arteko burruka sortu zanean, Erodes'ek Antonio'ren alde jokatu zuan. Antonio eta Cleopatra'k burruka galtzean, euren buruak irail zituzten; Erodes'ek, ordea, ez zorionez. Palestina'n pakea gordezkeko Octavio'k Erodes'en bearra zuelako, orregaitik utzi zuan Erodes bere agintzaritzan.

Octavio'k, Cesar Augusto izena artu zuenak, bazuen laguntzaille bat: Vespasiano Agripa buruzagia, (Tito'ren aita). Onen lagun miña izan zan Erodes. Aita eta semea, (Vespasiano eta Tito) biak eldu ziran enperadore izatera. Octavio Cesar Augusto eta Erodes (Aundia)'ren garaian jaio zan Jesus, Octavio'ren pakea lurralde ezagun guztietan irauntzen zuan bitartean.

Erodes'ek, beretzako, jauregi eder bat jaso zuen Jerusalem'en, bertako jauretze edo eliza berri eta erria edertu ere bai. Alaz ere, Idumeatarra zalako, gorroto zioten judutarrek; baita, Israel Erromatarren menpean edukitzen, laguntzen zuelako. Jesus jaio eta lau bat urteetara, il zan...

Ondoren Erroma'k Arkelao, Erodes'en semea, izandatu zuan errege, aitarren ondorengo; baita, bi urtez, erbesteratu ere, Israel probintzi biurtuz. Probintzi onen gobernadorerik famatuena Poncio Pilato izan zan. Galilea'ko errege, berriz, beste Erodes bat zan, Antipas'en semea. Pilato eta Erodes, bi auek, izan zuten zer ikusirik Jesus'en eriotzarekin.

Ogeita amairu urte zituela erail zuten Jesus. Andik beste ogeita amar urteetara judutarrek Erroma'ren aurka jeiki ziran. Tito jeneralak, Vespasiano emperadorearen semeak, erre zuan jauretzea eta erria, milloi t'erdia judutar ezpataz ebagi zitun triskantza ikaragarri batean. Eta, gelditzen ziran apurrak mundu osoan zabaladu zitun.

Israel'go Gizartea

Bi talde nagusi zeuden Jerusalem'en eta Israel guztian: Farisaitarrak eta Saduzeoak.

Fariseoak:

Erljio-talde bat osatzen zuten, tradizio eta oitura zaarren maitale. Erriarekin arremen biziak zituzten; baña, erlijio-aginduak betetzean, oso itxura zaleak ziran. Askotan azala bete ezkeroz, konforme. Moises'en Legeari erantsitako arau, aolku eta abarren maitale, aoz beintzat. Askatuko zituen, David'en antzeko, Mesias baten itxaropenean bizi zira eta eurok gidatzen zuten erri xee. Jesus'en etsai agertu ziran asiera asieratik Jesus bere burua Mesias egiten zuelako; ez bait zuen Jesus'ek eurok espero zuten Mesias'en antzik ere.

Saduzeoak:

Erljio-erakundearen agintariak osatzen zuten talde au. Politikariak eta Erroma'kin konponketak egitearen aldeko. Aberatsak eta jauretzetik probetxu onak ateratzen zituztenak. Biblia (Pentateuko batez ere) onartzen zuten bakar-bakarrik, aozko tradiziorik, ordea, ez iñolatan ere. (XVI'garren eunkian Protestanteek egin zutena berbera egin zuten auek aurretik). Aragiaren piztuerarik ez dago eta mundu onetan zigortzen ditu Jainkoak gizonen okerkeriak. Aberasta-

suná Jainkoaren doia degu. Israel'go agintarítza euren eskuetan zegoen. Anas eta Caifas ziran Sanedrin'eko buruak; ango aulki onenak eta pixu aundiena zutenak eurenak ziran. Auek erabaki zuten Jesus'en eriotza, (euren ustez) erriaren onerako. Ustegabeko profetak gertatu ziran. Eta, aueri atsegin ematearren, erail zuan Erodés'ek Jesus'en lengusu zan Santiago Apostolua.

Bi talde aundi auen tartean bazegoen beste taldetxo bat ere:

Zeloteak (Zelatariak):

Ez ziran asko baña, bai indarkeriaren aldeko abertzale sutsu purrukatuak, beti Erroma'tarren aurkako burrukarako prest. Bere burugabeko iraultzak eraman zuan Israel ondamendira, Jesus jaio ondorengo 64'garren urtean, Tito'k jauretzea eta Jerusalem erre ondoren milloi t'erdiko bizien triskantzak egin zituenean. Ez ziran bere orrekin baretu eta andik 61 urteetara barríro burrukara eta berriro triskantzak. Arrekin amaitu zan arazoa betirako. Gaur egun israel-darrek beste arazo batzuek izan dituzte aizkeneko munduko gerra amaitu ondoren, Israel'go laterri berria Palestinoen bizkarretik sortu zutenetik.

Beste taldetxo berezi bat ere bazan:

Esenioak:

Lekáide-etxeetan, monastegietan, bizi zan erligiosoen taldetxo bat ziran Esenioak. 'Qum Ran' derítzan, Itxas-illaren inguruko lekáidetxean ere bizi izan ziran. Erromatarren erasoaren denboran zenbait Bibliaren zati leize zuloetan gorde zituzten, buztíñezko ontzietan. Zati oiek Jesus jaio aurretiko III'garren mendetik asi eta Jesus il ondorengo 64'garren urtearen bitartekoak dira. Isaias-liburua osorik dago eta orrekin batera beste atal asko Jesus jaio aurretik idatzia eta gaur eskuetan erabiltzen degun Bibliaren zati berdín-berdiñak. Aurkitu berriak dira.

Esan izan dute norbaitzuk Kristau Eleiza eseniotarren adar bat besterik ez dala; baña, ori ez da egia, ez bait dute alkarren antzik ere. Esenioen asmo bakarra mundutik aparte, bere lekaroan gordeta, bizitzea zan; Jesus'ek, berriz, bere Apostoluei auxe dietze: –“Zoazte mundu zabalera, Berri-ona aldarrikatzerá”. Jesus ez zan bakardadean bizi izan, jende artean baño. Eta berdín aren ikasleak ere. Esenioak penitentzi latzetara emanak zeuden; Jesus, ordea, otordu oparo batera deitzen ba'zuten, joan egiten zan, Esenioek sekulan egingo ez zutena. Auen mundua bere erria zan, besterik gabe; Kristaúena, berriz, gizaki osoa.

Orra itz gutxietan agertu Israel'go gizartea. Oietatik kristau egin ziranak errietako jende xeea izan zan; fariseo eta apaiz banakan batzuek ere bai.

2

Elizaren Sortzea

Jesus Nazaretarrak sortu zuan Kristau eleiza eta ezarri zizkion elburua eta bertarako bideak:

- a) Dotriña bat eta dotriña ori mundura zabaltzeko agindua.
- b) Dotriña ori utsik gabe erakusteko aalmena.
- d) Zazpi sakramentuak, Jainko-graziaren iturriak, azken elburua lortzen laguntzeko.

Agintaritza edo Jerarkia bat ere sortu zuan idazleen artean: Berak izendatu zituen eta berak eman zien legeak sortzeko aalmena, damu danari barkamena eta gaizkileari zigorra. Eta, agintaritza ori da eleizaren ardatza: –“Zu zera arria eta arri orren gainean eraikiko det nik nere Eleiza... Eta, ni egongo naiz zuekin munduaren aizkenerarte”.

Baztar guztietara eta garai guztietara zabaldu bear zan Berri Ona eta orretarako tajutu zituen bere Apostoluak. Eleizak duen guztia Jesus'ek emana du; bera da, beraz, Eleizaren sortzaille eta eraitzalle bakarra.

Pentecostes Eguna

Baliteke egun artako gertakizunak kontatzeko era 'genus literarius' bat izatea; baña, dana dala, egun artako gertakizunak benetakoak izan ziran. Pentecostes, judutarren festa egun ura, izan zan Eleizarekiko Edestiaren lenengo eguna. Aldatze miragarri bat gertatu zan Apostoluen barruan eta goiz aretan eman zioten bere ekintzari asiera, bildurrik gabe, zalantzarik gabe eta ziurtasun osoz.

Noiz gertatu zan ori?

Tiberio enperadorearen egunetan eta Ponzio Pilato Judea'ko gobernadorea zalarik. Aurretik ere Eleiza eratuta zegoen eta, txikia izan arren, osorik zegoen eratuta. Pedro agertzen zan buru kemenez beterik Eleizari asiera aman zioten goiz artan.

Amabietako batek, Judas Iscariotek, bere burua urkatu zuen eta aren ordeztu beste bat, Matias, aukeratu zuten beste Amaiketik, Jesus'en bizitzaren, eriotzaren eta piztueraren lekuko izateko. Mundu zabaletik Jerusalem'era etorritako judutar guztiek, bakoitzak bere izkuntzan, entzuten zituzten Apostoluen goiz artako izketaldiak.

Diaspora

Atzerrira, Ninive errira, eraman zituzten preso Israeldarrak (bi zatitan zegoen banatuta Erria: Ifar-aldeetik Israel erresuma eta ego-aldeetik Judea'koa), Jesus jaio aurreko 721'garren urtean, Erroma iria sortzen ari zan une berean. Andik 200 urteetara, judeatarrak Babilonia'ra erbesteratuak izan ziran. 71 urte desterruan pasa ondoren, berriro itzuli ziran Judeara; baña, ez ziran joan guztiak. Batzuek an bertan galditu ziran betirako. Ninive'tik ez zan iñortxo ere itzuli.

Diasporako judutar geienak eta jakintsuenak Babilonia'n zeuden. An sortu zuten Talmud deritzan liburu-sorta. Gerora, ordea, Alejandria'ko juduek izan zuten garrantzirik aundiena. Uzta ondoren ospatzen zuten Pentekostes-jaiak, Jaunari eskerrak emateko. Eta Elizaren sortzeko egun artan, diasporatik etorritako juduek zebiltzen kaleeta Espiritu Santua aize-burrundara baten antzera agertu zanean.

Erbestean bizi zan judutar erriari deitzen zitzaion Diaspora izen onekin, eta garrantzi aundia izan zuen, Pentekostes egunetik asita, Elizaren zabalkunderako. Palestina'n milloi bat judu bizi ba'ziran, Diasporan bost. Erromatar Inperio-ko uri aundienetan beti izaten zan sinagoga bat gutxienez, judutarren biltoki eta otoitz-leku. Palestina'n bizi ziranek, ia geienek, bazuten Diasporan senitarteko edo ezagunen bat eta orrek laguntza ederra ematen zien erbestera joan bear zutenean munduan-zear. Lenengo lana izaten zuten sinagogara agertzea

eta bertako buruak billatuko ziren nun jan eta lo egin, baita lantokia ere, langilleak zirenez. Bazuten, ba, erbestean zeñekin itz egin. Sinagoga agertzen ziranean, buruzagiak ezer esan nai ba-zuten, esateko agintzen ziren. Apostoluek orretaz baliatu ziran Jesus'en Berri Ona errez eta urrutira eramateko.

Jerusalem'era erromes joateko oitura zuten Diasporakoek, eta diruz ondo ornituak zetozen ezkerro, dirutza mardulak uzten zituzten jauretxean. Pentekostes egunean Pedro'ren erakutziak entzun zutenek, oiek izan ziran munduan-zear Jesus'en Berri Ona eta piztuera zabaldu zutenak. Entzun zutenen artean baziran jaiotzez judutar ez zirenak; baña, sinismenez bai judutarren erlijioa onartzen zutenak. Auetako asko ere kristau egin ziran.

Pedro'k egun artan azaldutako mezua auxe zan:

Jesus da salbatzalle bakarra.

Gurutzean erail zuten Jesus ura Piztu egin da.

Gu gera gertakizun oiek lekuko.

Bi arrazoi-bide:

Profetek aurretik igarri zuten Mesias, Jesus da.

Jesus'ek mirariak egin zitun ugari bere bizitan zear.

Mordoxka ederra egin zan kristau.

Eleizaren Santutasuna

Eleizaren lenengo egunetako berri ematen diguna Lukas da; baña, ez Eleiza osoarena. Bereiziki Pablarena ematen digu. Lukas'ek dionez, asieran elkarrean bizi ziran kristauak, elkar maite izanez eta guztien ondasunak guztien artean banatzen zituztela. Orrelako elkarteak aurretik ere ezagunak ziran Esenioen artean; ez zan ba gauza berria. Esan bear da, baita ere, ez zirala kristau guztiak orrela bizi.

Euren arteko eztabaidak ere izan oi zituzten. Lenengoa izan zan auxe: Grekotarrek (griego-mintzaira zuten diasporakoek) marmarka ari ziran, ondasunak zabaltzean, judutarren alargunei geiago begiratzeko ziela eurenai baño. Arazo ori dala-ta, Apostoluek zazpi Diakono aukeratu zituzten ondasunen zabalketarako egiteko. Eta, euren izenei begiratu-ta, badirudi grekoen artekoak zirela.

Geroago beste eztabaida ere sortu zan erdaintzeari buruz: Baziran judutar kristauak jentillen artean zetoztenei, beste bearkizun bat, erdaintzea eta judutar sinimena artzea, ipiñi nai zieten. Ori dala bitarteko, Jerusalem'go Konzilioa eratu zuten Apostoluek. Orixe izan zan Eleizaren lenengoko Batzar Nagusia.

Eleiza santua da bere sortzaillea, bere dotriña, bere sakramentuak santu diralako; baña, kristauak ez dira santuak, santutasunera deitutako pekatari batzuek, baizik. Ori ikusteko naikoa da Pablo'ren eskutitzak irakurtzea.

Eleizaren aziketa

Millaka lagunek sarrera eskatu zuten Apostoluei egun artan entzun eta gero. Apostolu oiek egunero jarraitu zuten, erri guztiaren aurrean, Jesus'en eriotza eta piztuerari buruz itz egiten. Jesus erail eta andik bigarren illebeterako, Anas eta Kaifas'en Sanedrin ura berbera bildu zan apostoluekin zer egin era-

bakitzeko. Baña, Pedro'k aurpegira bota zien euren pekatua... Jesus'en gorputza Apostoluek lapurtu zutela esan zuten aiek berberak, daude emen epaitegian, Apostoluak epaitzeko. Ez diete lapurrak izan zirenik esaten; ez dituzte Jesus'en mirariak ukatzen, erri guztiaren aurrean egiñak zirelako; auxe bakarrik esaten diete: –“Izen ori ez aitatu geiago emen”.

Illobitik gorputzak lapurtzearen zigorra eriotza zan judutar errian; Erroma'n, berriz, meatz-minetarako lan gogorra. Apostoluei ez zieten ez bat eta ez betea eman.

Oien antzeko arazoekin arduratzen da Bixente liburuaren 356 orrialdeetan zear, Eleiza Katakunbeetatik urten eta aizea libre artzea lortu zuan arte.

Baña, orrekin ez du naikoa eta, ondoren, beste liburu berri bat, ELIZAK ETA ESTADUAK BAT EGIN ZUTEN DENBORAKO ELIZA (306'garren urtetik 476'garren urtera). Iztegia ere badu eta 677 orrialde. EUSKERAZAINZA'k argitaratua, 1993'an.

Arranegi'ko Anes'ek
IV - 1994

ARALARKO ARDIAK

Unako Putzuaren inguruan dabiltz artzaiak, negua itxalsaldean pasa ondoren. Udarako Aralar mendira etorrita dagoz, garaiko larrainetara. Ardiak esnea ematen dau axuriak azi-arazteko, gaztaiak egiteko eta artzaia berbera janaritzeko. Esnearekin bakarrik ez da, ordea, ardiaren iturria agortzen; badau beste zerkirik ere beregan, illematasez gorputza estalirik dauka-ta.

Udaberriak alde egitean, udarako beroaldiak emoten dautse artzaieri ardien illeak mozteko aukera, il-beeran bada. Auzotasunak, gure artean, bere legeak beti izan oi ditu eta alkarrri lagundu bear; orregaitik batu jakoz Ataungo Pellori artzai lagunak, ataundarren ardiak illez arintzeko asmotan.

Aurretik Pellok errenka zebillen Petralin ardia il dau eta, Zaldibiko erara, odolosteak egin. Odoloste zuriak ere egin nai ebazan, baiña artarako bear ziran aña arrautza ez dizkiote oilloek ipiñi; beraz, odoleste baltzakin konpromete bearko dabe. Egunsentirako agertu dira lagunak eta ekin dautsoe etengabeko lanari, goraiza aundiekin ille-moltsoak osorik ebagiz, soiñeko baten antzera, abereak billutsik laga arte.

Tartean Premin betelutarrak sua biztu dau babesleku-aterpe batean eta ardia erdibi egiña gurutz batean eskegi dau suaren aurrez-aurre... Laister aragi errearen usain gozoak egan egin dau artzaian sudurretaraño.

—Naikoa dogu-diño Pellok-eta bazkaltzeko atseden artu dagigun, eguna luze joango jaku-ta.

Pertza odolkoz bete agertzen da eta andik ekin dautsoe lenengo... Koipea ikotzetik beera zein gozo! Ondoren ardiari eldu dautso bakoitzak aal eban aldetik, iztarretik edo besotik, naiz saietzetatik, azurretan eskuak eta ortzak aregietan, berbetarako astirik gabe. Korroskada ederrak ardao baltza zintzurretik beera doan bitartean.

—Gu lez bizi danik non jagok mundu zabalean...? Otsorik eta artzik ez balego, gu aiña iñortxo ere ez...!

—Nik, Pello-diñotso Lakuntzako Peruk-, otsoari baiño bildur geiago jautxeat erensugeari. Orixe bai dala bildurgarria...!

—Erensugea sorginkeria dok-erantzun dautso Premin Betelukoak-eta sorgiñik ez dala esan oi dabe Leireko abadeek.

—Bai, eurak an barruan seguru dagozalakoan-berriro ekin dautso Peruk-; baiña, nik emen ikusi nai neukezak larraiñean, gau baltzeko tximista eta trumoi artean, kaskabarra eta arriak goitik Marik bidaltzen dauskuza-

nean... Sorgiñik ez dala? Izena dauan guztia bada, eta sorgiñak izena ba-jok; baita erensugeak ere...

—Neri ere (Antonek) zarrasta aundia egiten dauste barruan sorginkeriz betetako gure gizabideak: mendiakin, euriakin, gauakin, argiakin, naiz bero, naiz otz, naiz eguzki, naiz illetargi... Auek guztiak gorputz-azalean erantsita daukague eta barruraino odoletan eta biotz-muiñetan sarturik.

—Zeiñek erabiltzen dauz Ilargi amaren aldaketa oneik? Eta, illargi barrian batez ere, eize epeletan, gaurdikoan ikusten diran an goiko zuloxo argitsu areik zer dira? Zeiñek birtuten ditu? Illargian an dabil oraindik, beree gur-sorta bizkarrean, okerra egindako agurea; ikusi ere ikusten da illargi beteko aize bigunetan... (Pellok oldozkoi).

—Sorgiñak edonun ea sorginkeria nun-nai (berriro Peruk). Leire eta Iraxekoek esango jabek nai dabena; baiña eurak an jagozak beeran, gu berriz emen goietan Izaki guztiakin bat egiñik. Gurekin aizearen epela eta aizearen ixilla, baita zalaparta eta burrundara guztiak ere; gurekin euriaren erauntsiak eta ekaitzaren txingorak; gurekin elur-maluta zuriak mara-mara txabola gailurrean kokatzen diranak; gurekin biziak eta illak ebagitzen dituen ifarraldeko aize miña... Emen sorginkeria besterik ez dago.

—Mari ez bada, nor da? (Pello ataundarra berriz ere). Mari gurea dogu. Nun bizi dan ere badakigu: leizeetako atakan agertzen da; baiña bizi, lurpeetako eremuetan bizi da. Lurrak baditu gutxienez iru bizi-leku saila: bata goietan laiñoentzako, bestea lur-gaiñean, gizakientzako eta irugarrena lurpeko eremuetan. Goikoetan eta azpikoetan ez dau gizonak zer egiñik; Marik, ordea, bai. Or ikusten dogu zeru-goietan leize batetik bestera doanean su eta argiz inguraturik illargiaren itxuran edo, asarre danean, zalaparta osoan bere zaldi-gurdian; lurrera, berriz, noiz-nai jeisten da, eza kobratzera batez ere gezurrik esaten badozu; eta lurpeko eremuetan bizi da, an dau bere egoitza beste sorgin eta deabru askorekin. Erensugea ere arpe-zuloetatik agertzen da eta leize-zuloak lurpeetako atek dozuz...

—Bai, ba, gure aitaitak esan oi zuan (Anton amezketarren txanda da oraingoa) sorgiñak denetarikoak dagozela: onak eta gaiztoak. Txindokiko Maribera ere alditan ona eta alditan gaiztoa izan oi da. Zergaitik ori? Tarteka gau gaiztoak garalako, eza kobratzen duanean lez: guzurre esaten badozu, egia izateko falta dena, kenduko dautzu. Eun ardi izan eta larogeita amar dozuzala esan dozu? Egi osorako amar ardi falta dira, orreixek kenduko dautzuz Marik, ezetik bizi bait da. Egirako falta dana ezetza da. Zenbaitatan, ordea, Mari bera ere okerra da eta Irabe

OITURAK

baserriko neskatoa arrapatu eta bere leizera eroan eban. Beia galdu zan mendian eta neska bialdu eben gurasoak bei-billa. Illunabarrean Mari agertu jakon bei gorritxo baten antzera. Isatsetik eldu eutzon neskatoak eta tximistak arturik eroan eban bere leize-zulora. Arrezkero an omen da eta atakan ikusten ei dabe bere ille-tximia urregorriko orraziakin orrazten...

—Zuek uste dozue sorgiñek eragiten dautsoela biziari, lurra bizibarriz udaberriro? Sorgiñek biurtzen dabez loreak fruitu eta igali? Beteluko Preminek.

—Gizona, nungo munduan bizi aiz? (Pellok eraso berriro) Ataunen sorgiñari sorgain esaten dautsogu, sortzea eurak zaintzen dabelako. Sor guztien gain. Ori ume batek ere ba-jakik gure artean. Beraz sortzen dan zer guztietan dago sorgiña eta sorginkeria. Ara zer entzuen neutson nere amari zazpi urte betetzeko nituala: bein Garitasoro baserriko alabea joan zan gau batez arto-zuriketara auzoko etxe batera. An barriketan egozala, sorgiñak ukatu ebazan Garitasoroakoak; etxera doala, Maizpeko zubian, sorgin moltso bat agertu jakon, esanez: Ez gerala, baiña ba-gozan; Mari Petralin ez beste guztiak emen gozoan. Eta ori esanez bakoitzak ille bakar bar kendu, buru-soil itzi arte. Kontuak atera diran ala ez...

* * *

Ortan ari dirala, orra goiko malkorretik kate otsa arkaitz artean; gizona dator kateak arrastaka orkatilletatik zintzilik, kapusai urratua gañean dauala eta abarkak amantarrakin oiñetan naiko zikiñak; bizarra eta tximia orrazteke, sasien antzera naasi..

—Zer da ori? Diño arriturik Anton amezketarrak.

—Penitentzia egiten dabillen gizakia. Emen dabil Naparroako mendietan malkorretik malkorrera eta gaillurretik gaillurrera. Oker aundiren bat egiña izango dau. Lakuntzako Peru mintzatu da.

Azkeneko itza bukatzerako gerturatu jake gure gizon menditarra.

—Eguerdi on, jaunak! Goikoak emon daguzuela bere laguntza eta grazia.

—Zein Goikok, Illargiak ala besteak...?

—Neretzako illargia zerki bat da berez ez dana eta beste bateren bear dana...

—Emen giñarduan barriketan, itz-jario, sorgineiri buruz. Sorgiñak badirala sinisten al dozu zuk?

—Gai orretan sartu baiño naiago neuke nik ardi-zati bat baneu jateko...

—Artu gizona nai dozun beste eta ez egon bagira. Edan ardoa ere. Naparra da eta baltza. Onek egingo dau-

tzu odola barruan, arpegiko kolore oiek apur bat gorritzeko.

—Ardorik ez. Penitentzia egiten nabil.

—Zer da ori?

—Ibilli nabil batetik bastera, etenik gabe, kate oneik ausi eta apurtu arteko guztian.

—Ez duzu lanbide makala, orratio, orreik ausi arte emen bizi bear badozu...

—Ibilli bearko nere okerkeria parkatuko baizat...

—Atrebentziakin, eta zer okerkeria da ori? Iñoan Pello ataundarrak.

—Ara-erantzun eutson bere lagun Lakuntzako Peruk-onek erantzun baiño leen nik emango duaz Sakana baillarako barri batzuek. Erensugea Artxueta inguruan bizi da eta urtero Sakanako gizaki bat, neskatxa aal bada, eskeiñi bear izaten dautsoe janaldi baterako.


—Ori arazo baltza dok!

—Zelan arazo ori konpondu eta korapilloa askatu ez ekiela, jakin dabe Sakanakoek gizona dabillela mendietan penitentzia egiten. Eta beregana etorrira dagoz laguntza eske.

—Bai, egia da. Erantzun dio menditarrak. Ni Urbasa eta Andia mendietan nenbillen nere eginkizuna betetzen; baiña orain Aralar mendia artu dot neure egoitzarako eta erensugearen billa nabil.

—Arabeko kazketarra terebita ta tximista anketan puz, puz, putz...! Dio Pellok eskuarekin iru kiñu egiñaz.

—Zertan zabilz?



ARANTZADI'REN DOLMENA
(887 m.)

—Konjuroak egiten. Nik ez joat emen erensugerik ikusi nai. Aparta sartago kendu ansenago mendi Beriain, sar, sar, sar...!

Pello kiñuka dabil eta Aralar menditik kanpora bota nai dau erensugea Sakana beste aldera.

—Kiñu orreik alperrikakoak dozuz-erantzun dautso Pellori-. Ni Teodosio naiz Goñi baillarakoa, etxe oneko zalduna eta bizitza latza daroat gailur oneitan baiña egin neban okerra ere benetan baltza eta latza zala...

—Esan, esan...

—Okerkeri guztiek badabe euren ondorena zuzentasunaren aurkakoa. Zuzentasunak besoak bear ditu berdiñak aldamenetara balantzarik egin barik. Zuzenean bear eta zuzentasuna galtzean balantza eginda, orduan okerra sortzen da eta gaitza egiten izakiaren aurka eta gizakiaren aurka, Goigoikoaren aurka lez. Oker ori zuzendu bear ekilibrioa besoetan barrero sortzeko...

—Bai, bai, jan egizu beste mokautxo bat, ederra dago-ta... Eraso eutson Antonek ardi-koipea ezpañetatik dario-la; ez eutson tutik entenditzen eta.

—Nik zuzentasunaren besoa lurrerañi jetxi dot eta okerkeri aundiagorik egindedana baiño, egin ezin.

—Zer arraio egin dozu, ba? —Ataundarrak barrero—. Esaiguzu bein betiko zertan dan okerkeri ori. Arranoa lez zabiltz jira-biraka aidean, ariari eldu gabe. Zatoz ardatzera eta jo emen muga.

—Gauzak urrutitik datoz eta bi itzeetan ezin. Esan dautzuet Goñikoa naizela, zalduna eta etxe onekoa...

—Zalduna bazara, ez zera nolanaiko etzekoa izango.

—Zaldun naizen ezkeroz, mairuak burrukatzera alde egin neban Tudela aldera.

—Tudelaraiño elduta dagoz mairuak?

—Bai, antxen dagoz, eta Ibar erritik gora pasa ez ditzeten, antxen bertan eutsi bear dautsegu. Orretan gabiltza danok alkartuta. Urte bete gerratean pasata, pozik netorren etxeruntz, nere barruan biotza kantari nabari nebala. Etxeko beroak eta etxeko maitasunak itxaron ninduen. Zoriona nekarren barruan gaitzezka. Eguraldia ez zan eder-ederra, baiña kanpoko illunak ez eustan barruko argirik itzaltzen. Nere poza illargi betearen antzekoa zan: borobil-borobilla, bete-betea.

—Eta, gero Zer?

—Goñi ballarako egira eldu nintzanean, eremuetako gizon bat agertu jatan esanez: Teodosio, zoaz lenbailen etxera; emaztea dozu ogean beste batekin. Bat-batean aldendu zan ikuskizuna. Gau illuna, illargirik gabeko gau

illuna. Laiñoak baltz. Tximist-argiak zeru-sapaiean bere santzo ikaragarriekin. Eremuetako berriemallea lurrak irentsi eban. Parte txarrekoa zan benetan, gerora ikusi nebanez nere zori gaiztorako. Sua dariola ekin neutson aldapabeeran etxerañi, ainbeste bidar zorionez beterik egin nituen bidexka areitatik. Ezpata motza eskuan nebala sartu nintzan lo-gelan eta ogean egozanak, biak il nebazan batera amorrut beterik.

—Ondo egiña. Pellok.

—Odoldutako ezpata eskuan nebala, ekin neutson berriro mendiruntz nere asarrea baretzeko. Alaz ere, nere barruan odol-egarria ez zan asetzen, burua neban irakiten, euria eta kaskabarra gora begira artzen nebazan begietan, ezpañetan, bekokian barruko beroaren lasaigarri... Egun-sentiak arte baten azpian arkitu ninduen, lur-gaiñean aserita, ezpata alboan... zeru garbia egoan. Laiñoak eta ekaitzak alde eginda egozan eta nere barrua baketuta. Etxera biurtzeko garaia zan. Nere gurasoek eta seme-alabek erailtzearen barria jasoko eben onezkero...

—Merezi ebena amon zeuntzen. Elagi eutson Lakuntzako Peruk. Gu kanpotik gabiltzanean auskalo zertan ibiltzen diran gure emazteak. Neu ere nereakin ez najatzu geiegi piatzen...

—Ni bai, nerearekin zera eta oso-osorik piatu nintzan eta amorrut orretzek bete nindun: nik orrelako uste osoa beregan izan eta berak ni orrela iruzurtzea...

—Geienon korapilloa ortan datza-ebagi eutson Peruk: gu emen gabiltz mendirik mendi udaberri, uda eta udazken; gure emazteek barriz beetan gu gabe eta askotan geure premirik gabe, etxeko giltza eskuetan dabela eta gu beti etxetik at. Eurak nagusituta bizi dira lurra lantzen asi ziren azkeroztik eta alkartzen ez bagara gure eskubideak defenditzeko, errukigarri izango gara...

—Ixilleko alkarte bat bear dogu-diñotso Pellok.

—Sakanean-berrero Peruk-asita gagoz. Noiz-beinka, il barruan, alkar ikusten dogu emaztekien nagusitasuna salatzeke eta alkarri laguntzeko...

Eskumuturrekin ezpañetako koipea garbitu eta Antonek itz:

—Arazoa beste baterako itzi eta entzun daiogun Teodosiori bere gertakizunak agertzen.

—Argiarekin batera jatsi nintzan etxeruntz eta goiko malkorretik entzuten nebazan negar-garraxiak. Benetan esan neike, une artan malkoak katilluka edaten zituela nere senideek. Gauza ez zan gutxirako. Gerturatu nintzanean, biotza gelditu jatan konorte barik: nere emaztea ikusten neban sotinka etxe-atarian. Emaztea il ez badot, nor il dot? Arra sortu jatan barruan: nor il dot? Ekin neutson arin-aranga eta txakurra urten jatan bidera, buztana ankartean. Zer gertatu da? Esan neutsen arnas-estuke.

OITURAK

Gurasoak il dituela gabaz eta nork ez dakigula. Arritzekoa izan da txakurrak inor ez salatzea. Esagunen bat dogu anima elkor gaizto ori. Gorroto gaituenen bat...

—Gogorra egin zenduan! Eraso zion Premin Betelukoak.

—Barruko indarrek itzi ninduen bat-batean eta belauak alkar jotzen asi. Lurrera jausi nintzan, pitzatutako orma zaarra jausten dan antzera. Odoldutako ezpatak biotzaren erdia zulatu eusten. Nere errua, nere okerra, osin beltza... Malkoz betetako osiña, baltza, mendia baiño aundiago... Barkamen gabea. Emazteak, lepotik elduta, jaiki-arazi nindun negarrez. Baiña, Teodosio, gaitzen batek jo zaitu. Zer dozu? Nolatan naastu zera orrenbeste-raiño...! Sorginkeri batek galdu nau. Gaiztoa agertu jat aingeruz jantzia, aolkua eman daust, bultzatu eta osin beltzera bota nau... Nik iñuzu-iñuzu bere esanak sinistu eta esan orrein ondorenak jaso dodaz, maillaz-mailla beeko infernuetara jatsi arte... Nork aterako nau emendik...! Barkamenik ez dot, salbamenik ez dot, itxaropenik ez dot...! Bai, Teodosio, salbamena badozu eta itxaropena ere bai. Gogoratu egizu Iratxeko abadeak zer esaten dauskun: gure siniskeriak utsak zirala. Illargia ez dala Jainkoa. Beste Jaun bat dagoela gorago eta Semea bialdu dauskula bere odolez gu askatzeko. Okerrak badu zuzenerako bidea. Arrek ordaintzen dau, Semeak, gure gaiztakerietatik sortzen dan zorra. Aurretik ordainduta dago, itxaropena zearo galdu ez dagisun. Gogora egizuz orreik, Teodosio maitea, eta goazen bertan Iruñara, apezpikuarengana, gurasoak eortzi ondoren.. Eta alaxe egin genduan.

—Eta, seme ori al da Kixmi? Pello ataundarrak.

—Gure aurrekoek ala deitzen ei eutsoen Jesus Salbato-reari eta argi aundi bat sortu omen zan arekin batera eta gure aitona batek etorkizuna ageri: Kixmi jaio da eta gureak egin dau.

—Gureak egitea, zer da? Pellok berriro eraso.

—Gurea aztikerietan sinistea izan da beti. Goikoa ez dala illargia, ezta eguzkia ere. Orreik baiño gorago beste Jaun bat dagoela eta goienean dagoen zerki orrek maite gaituala eta gure okerkeriak zuzentzeko, Semea bialdu dauskula lurrera. Orrexek emeten daust poza barruan eta nere malkoak txukatzen.

Ataundarra ez zan ixilik gelditzekoa:

—Nik uste dot, eta Ataunen danok sinisten dogu ori, aziak bearrezkoak dirala gaitzak gugandik aldentzeko, indarrak sortarazten dituelako euren kiñuz eta itz misteriosoz. Adurra sortzen dabe eta adurra bada gauza baten eta bere itxuraren artean...

—Ori ere, bear bada, ala izango da; neri, ordea, Kixmi orrek pakea dakargit barnean eta lasaitasuna biotzean. Eta, zuek ondo artuta banao ni, zueiri askeintzeko txabolarik ez dot. Koba zaarrak billa oi ditut nere atsedentoki eta egoitza. Altxuetara bidean noakizue eta bertaraten

bazeree, alkar ikusiko dogu berriro. Agur, jaunak eta esker milla.

Ango burni-zarata Teodosiok alde egin zuanean.

—Gure Sakanara ere eldu dira berri orreikiñoan Lakuntzakoak-; baiña azतिक ez jagozak batere pozik: gure aurrekoen siniskerieri eutsi bear jakela...

—Bai baiña illargia jainkoa ez badok-iñoan Beteluko Preminiek-zergaitik gurtu bear dogu Jainko lez? Jarri dagigun beste bat gorago eta segi dagigun ilberriak eta ilbeteak ospatzen oitura dogun erara. Zer ardura jok orrek?

Jarraitu eutsoen oraindik ere apur batean, Teodosiorekin asitako gaiari; bereala, ordea, aspertu ziran gaiez; ez bait ziran orretan artzantzan bezin maixu. Alaz ere, kezka barruan euken eta bigaramonean ardiak illez arindu ondoren, Altxuetara joatea erabazi eben Teodosiorekin izketa aspertu bat egitera.

Ifar aizea sortu zan une aretan eta laiño-matasak aldendu ebazan Andia mendiaren gibelerantz eta ortzia garbi agertu zan. “Goiz gorri, arrats euri” diño esaera zaararak eta “arrats gorri, goiz aizetsu”; emen ez zan ez bat eta ez bestea gertatu; beraz, eguna ondo etorriko zan, naiz-eta Putterriko ttonttor-ttonttorra laiñoz estalita egon, txapel baten antzera. Orrek au esan nai dau, Mari ogia erretzen dabillega leizeko bere labeen, patxara ederrean, eta ori beti izan da agerbide ona, ez dau ekaitzik sortzen aserre ez danean eta. Borda-atarian bertan lo egiteko ere ez zan giro txarra, an goian izarrak kiñuka...

* * *

Goiz-sentirako itxarrik egozan. Bakoitzak bere ardiak larraiñera bialdu eta eguerdi-osterako asi ziran Altxuetarako bidean. Mendia ifar-aldeetik artu eta gaillurrera igo ziran. Beriain mendia lukeen aurrez-aurre; atzerago Andia eta Urbasa; eskubitan Aizkorri eta ezkerretan, an beko zuloan, Iruñea eta emen aurrean auspez, Sakana. Atzetik, berriz, ifar-aldeetik, an urrutian Pirenee-mendial. Ikusmira osoa eta biribilla. Begiak zabal-zabalik ditue euren erriaren ingurueri begira. Ikusmira zoragarria.

—Baiña, gertatzen da or? Orru ikaragarriak entzuten asi dira or beeko zelai-gune orretan... Diño Antonek.

—Bai, bai-erantzun Peru Lakuntzakoak-an erensugea, begira beren zulotik agertzen. Bildurgarria da benetan, mizto luzea, ezpataren antzo, ortzez jositako agoan dararama.

—An Teodosio bere aurrean egurrezko gurutzea esku-bian konjuroa egiteko. Ikaratu da, igesi doa, gurutzeak ez dautzo laguntzarik eman eta... Pello ataundarrak.

—Segitzen dautso erensugeak eta kateetatik eldu dautso, kate luzeak irentsiz... Galduta dago Teodosio.

Une aretan, bere burua galdurik ikusita, Goiñiokoak eskuak gora jaso eta santzo egin dau:

—Mikel, Mikel gurea, salba nagizu!

Artzaiek sundituta gelditu dira begien aurrean agertzen zaien ikuskizunarekin: Mikel goiangeruak ezpataz lepoa moztu dautso erensugeari eta lepo barruan irentsita zeuden kateak zatitu. Mikelek gurutzeta dakar burugaiñean. Odolik gabe dagoz beera begira sorginkeri aren aurrean. Lakuntzako Peru da bere onera lenen etorri dana:

—Sakana libre da, Sakana libre da, erensugea akabaturta gero!

Teodosio lurrean etzanda erensugearen alboan, kapusaia odol-zipriztiñez, oiñak eta eskuak aske kateak ebagi ondoren, arnasarik bueltatu ezinda eta bere penitentziaren azkenetan. Kateak eten artekoa zan eta kateak etenda egozan... Biotz-biotzetik urten jakoz eskerrak Teodosiori, bene-benetako eskerrak Gaoiko Jaunari... Pitartean artzaiek inguratu jakoz eta euren esku aundiz bizkarra berotzen dautsoe zorionak emonez. Onela berbatu jako Peru:

—Zorionekoa zu, Teodosio, sinistu dozulako. Sinismenak ekarri dautzu salbamena. Sinismenez oiur egin dozu eta zure oiura Mikel ingerua etorri jatzu. Zorionekoa milla bider, zorionekoa milla bider...!

Izan ere Lakuntzako Peru artzaia kristautasunez kutsututa daukaze eta itz-jario biurtu jaku; besteeri izua ez jake oraindik biotz-barrendik aldendu; baiña, ori bai, Teodosiori lagundu dautsoe eskuak eta oiñak kateetatik askatzen. Ondoren Igaratzara eroan dabe, naiz-eta arek Goñira abiatu nai. Bide luze ori egiteko atsedean bat bearezko jako eta orretarako festa bat antolatzea erabagi dabe artzaiek. Beste ardi bat il etra festa ospatu. Bigaramonean, gorputza apur bat sendoturik, bialdu eben Teodosio bere Goiñiko etxera Peruk Lakuntzaraiño bidean laguntzen dautsola...

* * *

“Egia bazan, sartu dedilla kalabazan” esaten da gure artean ipuin bat esan ondoren; baita sorgiñenak eta erensugeanak diranean ere. Dana dala eta dena den ipuiñak esaten dausku Teodosio barriro zaldun gertatu zala eta bere esker ona erakusteko, arri landuz egiñiko elizatzxo bat eregi ebala gertakizun onein oroigarri.

Gaurko egunez ere antxen dago Altxuetaren zabalgunean Teodosioren eliza. Zortzigarren eunkian jasoa. Polita benetan. Romaniko garbi-garbia. Ez da ipuia, istori zeatza baiño. An dago Mikel Deunaren irudia, gurutza burugaiñean duela.

Mikel Deuna Goikoari (In Excelsis) arrera ona egin outsoen Sakana osoan eta Sakanatik, oligoa bezala, zabaldu zan Aralar inguru osora, Naparro eta Gipuzkoan zear, bere jaiera Euskadiko lurraldeak bete arte.

Jaiera orrek, lenengoaren gaiñetik, beste eliza aundiagoko bat jaso eban, txikia aundiaren sabeleamñ kokaturik. Amairugarren gizaldikoa. Ederra. Erromaniko legetara makurtzen dana eta napar erregeen jaiera aitortzen dauana. Jaiera onen testigu eta lekuko ona Aralarko erretablo

zoragarria, esmaltez egiña eta Bizanziotik ekarria. Oraindik orain lapurtua, ez da geiago bere tokira biurtu, naiz-eta zati geienak berriro eskuratu agintariak.

Eliza txikian daude Teodosioren kateak erromea bakoitzak bere gorputzaren inguruan pasa oi ditunak gaitzak aldentzeko; baita burua sartu ere aldara ondoan dagoen zulo batean, Kredoa esanaz, buruko miña kentzeko.

Anton, Pello, Peru eta Preminen ondorengo artzaiak ikusi doguz Corpus-Christi egunean prozesiñorako palioa, guante zuriz estalitako atzamarrez eroaten. Kixmi onartu eben, aztiak konforme izan ez arren. Baiña, orduko eta aurreragoko kutsurik ez da galdu. Zenbait siniskeri eta oitura zaar kristautasunaren magalean eldu dira gurerañño. Triku-arriak, dolmenak, egin zituztenen semeak dozuz gaurko artzaiak, lengo mendietan bizi dira gaur ere eta lengo bizibidetik jatzen dabe gaur ere ogia.

Aralarko mendiak, bere larrainetan, millaka asko ardi janaritzen ditu, eta ez gutxi larrabei, moxal eta urde. Baiña, ez orain bakarrik, millaka urteetan baiño, gizaldietan zear. Euskalerriko biotza dogu Aralar. Maparen ardatzean dago. Neurtu egizu Aralartik Zubero-Benabarra-Lapurdira, batetik; Naparroako egaletara, bestetik; Bizkai eta Arabako lurraldeetara irugarrenez eta ikusiko dozu mendi-kate au erdi-erdian dagoela.


Ez da bakarrik geografia aldetik; baita ekonomi eta kultura aldetik ere gure erriaren ardatza zan. Ori garbi asko erakusten dauskue orain bost milla urteko trikuarriak. Proporzioz, alkarren arteko gertueraz, ugaritasunez Aralar mendia da mendi guztien artean trikuarrietan txapeldun.

1933'garren urtean irurogei baiño geiago ziran ezagunak. Arrezkero moltso aundia topa dabe. Ugaritasun onek zera esan nai dau, orduko aberastasunak emen dagozela, aberea bait zan aberastasunaren neurria. Artzaia dabillen tokian dago aberea, eta artzaien illobiak dira trikuarriak. Illobi aberatsak. Goiko larraiñetako illobiak. Itsasaldean ez dago trikuarriak, orrelako neurrian beintzat; euren illobiak arpe-zuloetan egozan, pobretasun aundian. Gerora, nekazaritza ugaritzen danean, orduan aberastasuna ibarretara jatsiko da; baiña, goikorik galdu gabe. Goikoak eutsi dautso gaurdaiño.

Trikuarriak nabarmentzen dau zer lekuetan bizi zan bertan eortzitako artzaiña. Ez goieneko tontorretan, bera-xeagoko zeliagoneetan eta larraiñetan, baiño: zortzireun metrotik millarako bitartean. Belarrik gozoena dagoen tokia; gatzairik ederrenak sortzen dauzan lekua.

Eortzeko moda berriak eldu ziran euskaldunen artera eta trikuarriak zertarako ziran aaztu jaken gure artzaiñai. Zertarako ziran ez ekien; baiña, misterioren bat gordetzen ebela, ori bai. Trikuarri edo tregoarri izenak berak ere zeredozer adierazten; baiña, beste izen bat ere ipiñi eutsoen: jentillarri. Jentillak gizandi indartsuak ziran eta goienetako besoetan eben euren egoitza; kristautasuna, berriz, erririk-erri zabaldu zan eta gero igon gaillurretara, Sakanatik Aralarrera. Gertakizun onein lekuko dogu Mikel Deunaren zortzigarren eunkiko elizatzxo polita.

ANES ARRINDA



Jesus'en lagundiko

ARANA'tar JOSE IGNACIO aita..!

Azkoiti'k izan dituan gizon jakintsu ta euskaltzaille artean, aipatu izan ditugu iñoiz Munibe'tar Francisco Xavier Maria (Peñaflorida'ko kondea), Mogel eta Elgezabal'dar Bixenta Antonia eta Aizkibel eta Epelde'tar Jose Francisco, leengo batzuk aipatzearren...

Baiñan ez degu sekulan aipatu izan Arana'tar Jose Ignacio, Jesus'en lagundiko aita, Eta ez, merezi ez dulako.

Villasante aitak, bere "Historia de la Literatura Vasca" liburuan, onela ematen dio asiera Arana aitaren bizitzaren laburpenari: "uno de los vascófilos más sabios e ilustres que florecieron hacia 1.880, fué, sin duda, el jesuita F. Arana".

Penagarria da benetan, baiñan Parrokiatako liburak Donosti'ko Apaizgaitegian ditugu gaur bilduak, eta ezin esku-artearen izan, nai ditugun bakoitzean.

Eta gogoz irakurriko nuke nik gaur, berriro, Arana aitaren bataioko agiria. Bertan ez bait-zaigu bere ama amezketarra zanik esaten bakarrik, baita beste "zerbait" ere, nik orain, besterik-gabe, egiztatu ezin dezakedana...

1838-garren urteko maiatza'ren 26'ean jaio zan Jose Ignacio Azkoiti'n... Gure basarrietako batean...? Gure kaleko etxetako batean...? Ona-emen, sekula jakin ez dedan gauza. Nik-neronek basarrikoa joko nuke, baiñan ez dakit, jakin, ezerezen-ezer. Bestalde, basarri bateko mutiko bat izateko, ez ote zan eskola geiegieta joan...?

Bere lenengo eskola Azkoiti'n, Amezkata'n eta Ezkioga'n ikasi zituala, esaten digute danak... Baiñan gaztelera, latera ta gerkera ikasteko, Azkoiti'n ez ezik, Albiztur'en, Aranzazu'n eta Iruña'n izan zala, esaten digu Manterola jaunak...!

Aranzazu'n egon zanik, ez dago dudarik txikienik ere. Ba'zan an, konbentutik-at, latera erakusten jardutzen zuan lekaide bat: Albeniz'tar Jose Domingo aita (azkoitiarra au ere) ta onen ikasle izan zan umetan gure Arana aita ere... Eta ez zitzaion ain-gaizki joango, oroimen ederra gorde bait-zuan beti Aranzazu'ko elizaxo ontarako. Onela idatzi bait-zion Orduña'tik Arantzazu'ko nagusi zan Epelde'tar Jose Esteban'i: "por gran dicha mia, tuvieron (ahí) principio los primeros albores de mi vocación religiosa". Eta ez det emen esan-gabe utzi nai, Villasante aitak bere liburuan dion au: ain-ezaguna ta ainbeste biderrez abestu dan "Arantzazu'ko ama birgiña" abesti ederra, gure Arana aitarena dala ziurki...

16 urte zituala, 1854-garren urtean, sartu zan Jesus'en lagundian, eta España'ko eta Frantzia'ko bazter batzuek ezagutzeko zoria izan zuan...

32 urte zituala, 1870-garren urtean, argitaratu zuan bere lenengo liburua, erderaz bera: "vidas de algunos claros varones guipuzcoanos de la Compañía de Jesus".

Bi urte geroago, 1872-garren urtean alegia, argitaratu zuan bere "San Ignacio Loyolakuaren bizitza laburtua, euskeraz eta gaztelaniaz", eta bi-erazkin ezarri zizkion: euskal-izkuntza eta euskal-literaturari buruzkoa bata, ta euskal-idazkerari buruzkoa bestea.

1880-garren urtean, sortu zuan Manterola'tar Jose jaunak "Euskalerria" izanezko aldizkaria. Ta aldizkari onetan idazten zuten orduko, Bidasoa-alde bieta-ko, euskalzale ta euskerazale ospatsuenak. Ala nola Arana'tar Jose Ignacio, Artola'tar Erramun, Arrese-beitia Felipe, Azkue'tar Eusebio, Baroja'tar Serafin, Etxegaray'tar Karmelo, Abbadie'tar Antoine, Elizanburu'tar J.B., Vinson'tar Claudio, Soroa'tar Marzelino, Adema'tar Oratien, Urruzuno'tar Pedro Migel Arana'tar Bizenta, Antia'tar M.A., eta abar eta abar...

43 urte zitularik, Orduña'ko ikastetxera joan zan. An zegoan ikasle Arana Goiri'tar Sabin ere. Eta naiz-eta gure Arana au baiño 27 urte gazteagoa izan Arana-Goiri'tar Sabin, ala ere oso-lagunak egin ziran eta eztabaida asko izaten zituzten, euskera-zala-ta. Eta bien arteko artu-eman auek ez ziran, noski, azalekoak izango, Sabin'ek bere "Lecciones de Ortografía del euskera bizkaino" liburuan, gure Arana aitaren aipamen bat egiten duanean...

1882-garren urtean argitaratu-erazi zuan Tolosa'n, Kardaberaz aitak idatzirik utzi zuan "Ama veneragarri Josefa Sacramento gucz Santuaren Vicitza ta vertuteac" liburua.

Garai ontakoa degu ere, Iruña'ko "Revista Euskara'n" Mendiburu aitari-buruz idatzi zuan "Notas bibliográficas sobre el Cicerón euskaro P.S. de Mendiburu"...

Aldi artan eztabaida aundia sortu zan "liberal-izatea" pekatu ote zan ala ez? Ordurako idatzia zeukan Sardá eta Salvany katalandar apaizak gai oni buruzko liburu bat: El liberalismo es pecado, eta 1888-garren urtean euskerara biurtu zuan gure Arana aitak eta izen onekin argitaratu: Bai, pekatu da liberalqueriya".

1890-garren urtean, eta 52 urte zitularik, Durango'n bizi zan gure Arana aita, eta an argitaratu zuan bere "Disertación sobre la ortografía euskara" idaz-lana...

57 urte zituan, Henao aitaren "Averiguaciones de Cantabria" liburuari 6-garren erazkiña ezarri zionean.

Baiñan Arana'tar Jose Ignacio aita, idazle ugalkor izateaz gaiñera, olerkari jatorra izan genduan. Bere olerki oietako batzuek Manterola'tar Jose jaunak argitaratu zuan "Cancionera Vasco'n" arkitu dezazkegu, eta baita-ere Auñamendi'k argitaratu duan "Literatura" lenengo alean, eta Onaindia'tar Xanti aitak orain urte batzuek argitaratu zuan "Milla euskal-olerki eder" liburuan... Bere olerkietatik aipatuena noski "Euskaldun izkribalarien gaiñean" deritzana da. Arana aitak, bai euskeraz eta bai erderaz eta bai erderaz idatzi zuten euskal-idazleen aipamena egiten du bertan. 16 aapaldi ditu olerki onek.

Eta leen aipatutako "Milla euskal-olerki eder" liburuan, MAGNIFICAT'en itzulpen bat ere ematen zaigu Arana aitak itz-neurtuaz egiña.

Oraindik gazte, 58 urte besterik ez zitularik, il-zan Jose Ignacio Arana aita, Burgos'ko Oña'n 1896-garren urteko abenduaren 19'an.

Goian bego azkoitiar jator au...!

Anastasio Albisu Ayerdi.

ARGIA AMATATEN DANEAN

"Conriliium Vaticanum" antolatzen diarduan abade eta praille moltso eder bat. Euren artean egozan. salmoak abestea ain maite daben, beneditarrlk. Salmoetan topaten dabe euren bizitzarako argia eta Jainkoarekiko indarra.

Bededitarrekin batera dominikarrak ere bai. Auek, Tomas Akinoko Deunaren jarraitzalleak diranez. arrazoia dabe elhuru eta jomuga nagusia: burua erabiltzen dozak onek. mutillak.

Euren artean ba egozan Loiolako lñigoren semeak ere. lñigok koruko salmo-kantak kendu eutsezan bere semei, cguneroko lanetan askatasun geiago izan dezaten lagun-urkoaren alde lana egiteko: ikastolak jaso mailla guztietakoak. gaixotegiak eraiki eta abar.

Billera artan, bat-batean, argia amatau zan eta gelditu dira danok illunetan. Beneditarrak berealako batean asi ziran kantari: "Jauna dut argi..." Argia gora eta argia bera... Dominikarrek, berriz. kandela bat hiztu eta asi ziran argiaren goraltzak egiten eta errotik bere sortzea aztertzen: nundik norakoa dan, zer indar-mota dituen... Eztabaidan ekin eben. lñiQoren seme batek. bien bitartean. txiskeroa biztu eta "plomo"aren billa asi zan erretako alanbratxoa kanbiatzeko. Bcrrri batekin aldatu ebanean. orra berriro argiak billera ura argitu.

Kantuan berriro beneditarrak. Jainkoari argiagaitik eskerrak emanaz... Arrazoibidetik dominikarrek argiaren ederra aztertuz... Loiolatarrak. bien bitartean eta badan ezbadan be, "plomoa"ren ondoan beste alanbretxo bat ipiñi eban urrungorako.

Otoitz-bitartean, mailluakin emon.

Edo, beneditarrek euron beuren biziaren zuzenbiderako daukaten ikur au: **ORA ET LABORA** . Biak batera.

Baiña. Oto maltzurak, beneditarrekin praille-mutil egoala. onela euskaratu eban bere kolkorako: **JAN DA LO**.

GATU GORRI

Baserri zaar-eder batean. Qizaldietan zear, Xagu-erri osoa hizi zan. aukera onean askatasun eta pakearen naian.

Atea indarkeriz botata Gatu Gorri sartu zan eta izugarrizko triskantza egiñ ondoren. etxearen jaun da jabe gelditu zan.

Bizirik gelditutakoak, edo etxetik iges, edo etxeko zuloetan gorde ziran dar-dar. Zenbaitzuk. ordea. Gatu Gorri'ren serbitzuan jarri ziran eta lotzaz gorri-gorri zebiltzen.

Pakea sendotuta, Gatu Gorri'k jan da lo lasai egiten zuan. Lanean. etxeko xaguak jarri zitun eta jana ere aora serbitzen zioten.

Xagu asko izkutuan bizi eta izkutuan ugaritu ziran, illunpean; Gatu oso lodi bait zegoen koipetsu eta gizen. Gatu Qizenago eta xaguak askatasun geiago. Ezin iñundik atzeman zituan, iges egiten bait zioten anka-artetik ere.

Gatu Gorri'k, aiekin bwrutu ezin eta bere serbitzari katu-kumeekin alkartuta, deabrukeri bat asmatu zuan: gatu izanik. xaguen itxurak artu. eta xagu-zuloetan sartu xaguak balira bezela...

Izkutuen arteko xaguetan burrukak sortu zituzten: alkarren arteko burruka zitalak. Gatu bitartean lo, muturreko bibotcak miazten...

Gatu Gorri'ren kumeak, nabarmen kolorea artuta. kata-kumeekin naastuta, sortu zituzten Xaguerriko burrukak zirala bide, erdibi zituzten batean zeuden gauza guztiak... Gero asi ziran batasunaren billa eta bitartean askatasuna aaztu zitzaian: kolorearen butasuna ohea bait zan, guztien askatasuna baiño; burgeskeri utsa bait zan bere etxearen jabetasuna nai iatea...

— Gure alkarren arteko auziak. geuk konponduko ditugu.— Zioten xagu sentzudunak. Lenengo Gatu Gorri bear degu etxetik bota...

— Ez jauna: zuek burgesak zerazte. Leenengo katakumeekin bat egin bear degu eta batasun osoa lortu...

— Baiña, ez al dezute ikusten Gatu Gorri'k ere orixe nai duala...? Orain ere alditunak arrapatzen ditu; zuenik ez, ordea, bat ere... Zergaitik ote? Eta nola izango gera bat Gatu eta xaQuak etxe batean...? Katukumeak xagu egitan biurtu. edo bestela beti xaguak Gatu Gorri'ren mende...

— Bai, baiña, gure artean Gatu Gorri'ren plateretik jaten ari diran xagu gizenak dira gure lenengoko arerioak...

—Mutilla iXaguen etsaia gatu dek beti...!

Ekin zioten alkarri koska, ainka, arrika xaguak, katu-kumeak naastean zirala...

Gatu Gorri'k begi bat iriki du, irriparre maltzurra ezpañetatik dario eta lo-zorrora berriro. Zertarako kcskatu? Eurak alkar jango bait dute...

ARRANTZALEEN ITZAK

IZTEGIA ABERASTEN

Iztegia aberastu egiten da arlo guztietako berbak batuta. Ori da batuaren benetako bide aberasgarria. Baiña zori txarrez, kulturak aldatu egiten dira eta barruan daroazan berbak betiko galdu: Non dagoz euleen itzak? Edo ikazgiñenak? Edo artoa igertzeko labearenak? Edo errotarie-nak? Edo ola-gizonenak? Edo oraintsu estaltzen doan lugin/baserritarrenak? Edo gatzagetako langi lleenak? Edo antxiñako artzaiñenak?

Eskuarteau daukagu gure adiskide ta lankide dogun Anes Arninda'ren lan bat, eskuz idatzita. Ori artuta itzzerrendea egingo dogu arrantzaleen berbakaz. Berba bakoitxa azaltzen ibilli barik, sarritan erderazkoa ipiñiko dogu alboan. Guk euskerea ta gaztelerea biak dakiguz eta zeozetarako balio bear dau orrek.

LANAK ETA SARIAK

Jito/jitua: gabaz egiten dan arrantza sare ta guzti: sardiñea ta bokarta (antxoa).

Manjin: Itxaspeko sardiña edo bokart-taldea.

Kaxe: kutxa edo arkea.

Kaxarranka: Lekeitio'ko dantzea, kofradiko arka baten gaiñean egiten da.

Maria osodunak: egun osoa (ración) kobraten dabenak.

Maria erdikoa: eguneko erdia kohratzen dabenak.

Orekariak: arraunlariak, geienetan baserrikoak.

Ontziari eutsi egiten dautsoe oreka galdu ez dagian, arraintza egiten dan artean ur-korronteak croan ez dagian.

Partilla: Arrantzan irabazten dana.

Zeru-dirua: Maria osokoak kobratzen dabena.

Urtxakurra: Mariñelai laguntzeko ontzian eroaten zan txakurra: arraiñak arrapau iges doazeneak. Euren saria irabazten eben.

Agin-zorrotza: Atunaren antzeko arraiña.

Ardi-urte=Atun urte: Ardia arkakosoa da.

ARRAIÑAK:

Akula: Aguja.

Albakera: Bonito.

Antxoa.

Arraingorri: Escarcho.

Arrain zuri: Escualo.

Astun: Alacha.

Baloi: Ballena.

Berdel.

Besigu.

Billan: Sollo.

Bokart: Antxoa.

Bota: Arrain gorria, eskuakaz.

Dondari: Bota-antzekoa.

Duerdoi: Durdo.

Ega-labur: Atun goiztan-a, zimarroia.

Ega-luze: Beranduko atuna.

Egatzibi: Jibia.

Galera: Marmota.

Gata: Lija.

Gorroti: Babosa.

Itxas-kabra: Cabracho.

Izurda: Tonino, delfin.

Kaiamu: Gayano.

Kaisparro: Gayano?

Kaisparro aundi: Isabela.

Kardax: Zimarroia.

Kolondrin: Trigla.

Lampreo: Albakora.

Lantes: Berrugate.

Lebatz: Merluza.

Lentoi: Aligote.

Lixa: Lija.

Luia: Julia.

Lupiña: Lubina.

Makallau: Bacalao.

Makon: Cabruza.

Mielgu: Mielgo.

Otazotz: 6m.'ko luzea, eztenagaz.

Marmoka: Marmoca.

Mauts: Atxetako arraiña.

Millu: Atxetako arraiña.

Papardo: Palomita.

Perloi: Perlon.

Platusa: Platija.

Pota: Jibia.

Sabai: Besegu-antzekoa.

Txibi: Jibia.

Tximiñoi: Chipirón.

Txitxarro: Chicharro.

Txitxin: Antxoa txikia.

Txistu: Dorada.

Zarbo: Mujarra.

Zimarro: Cimarrón.

Tontxorro: Ur-gaiñeko antxoa moltzoa.

Baltza: Sardiña-moltzoa.

Bagera: Ur sakonetako arrain-lekua. Maguriyo: Hélice.

Lapa: Lapa.

Txirla: Almeja.

Anperna edo Pertzeba: Percebe.

Ezkira edo izkira: Quisquilla.

Geldu: "Quisquilla" txikia.

Abakando: Langosta.

Txangurru: Centollo.

Aitz-karramarro: Cangrejo de mar.

Olagarro: Pulpo.

EUSKERA

ITXAS-TXORIAK

Antzar: Ganso.

Kopla: Cofre.

Kaio edo Kalatxori: Gaviota.

Karrabaso: Itxasoko belea.

Millagarrika: Itxasoko elaiia edo enara.

Potorro: Atxetako errege-txoria.

Anpor-maixu: Atxetako zuri-baltza.

ITXAS-SORGIÑAK

Beste mutillak: Demonio.

Putz egitekoa: Gato.

Belarri txikiña: Rata.

Pedulen kontrakoak: Sorgiñak (Pedulenak sondak dira eta aurka-koak arrizkoak ziran eta palangreetan Iotzen ziran, "Tretzak", or'elan beraiño eldu daitezana. Lau izen oneik ez ziran sekulan aotan artzen. Orregaitik asmatu ebezan beste gaitz-izen orreik).

TXALOPEN ALDERDIAK:

Branca: aurea edo proa.

Artekunea: Erdi-ingurua.

Popa: atzea edo popea.

Brankan, aterkunean eta popan erre-zen zituzten San Pedro bedarrak lau izaki gaizkille orreik alde-erazteko.

Tostak: jesarlekua.

Tosten lekua.

Auretik: Aurre, kontraurre, kontra-buru.

IZTEGIA:

Ballena: Bale. balei, balai, baloi, bali-arrain, lumera, zaiñarrain, lumera, arbanoa, dramuna.

Groelandia'ko bale aundia, bale egaztuna da.

Balearen koipea: Lumera-sain, bale-gantza, bale-lumera, bale-uriña, lumera-saiña.

"Ballena": bale-bizar, balopi-kume.

Ballenato: Seria, bale-kume, balea-kume.

Ballenero: Bale-ontzi, balen-ontzi, lumerantrako.

Ballenero: Bale-zale, baloi-zale, balea-zale, lumera-zale, bale-ar'antzale.

TOSTEN IZENAK:

Bermiel, treskoeta kontrakoa.

Txalupa nagusiak: Ur aundietan dabiltzanak, 20 gizon, 12m. luze.

Pinaza: Ontzi luzea, ariña, killa biribilla daukana eta popea laburra malta meakaz, batez be besegutan erabilten dira.

Trainerua: Traiña sarea da, sardinak ekarteko dira, killa laburra dauka, 8 edo 9 m. eta 16 gizon. Patroia.

Baideko: Traiñerua antzekoa da, geien be 6 m.

Lema: Erderazko timón.

Ankillak: Anklak, aingurak.

Arrankillak: Egur eta arriakin egiñak dira aingurak.

Señeru edo talaieru: Itxasoaren egoe-
ra ikasi bear dauan gizona.

Atabaka: Botoentzako kutxa.

Gastukelak: Umeai emoten jakezan ogia ta gaztaia.

Eretia: Talaiatik egiten eben siñua.

Narria: Narraz eroateko burdi-antzekoa.

ITXASOARI BURUZKO ESALDIAK:

-Gorri-gorri, aize edo euri.

-Itxas zuri, aize edo euri.

-Euriaren gaiñeko leia (izotza), curia-
ren deia.

-Enarak goi-goian ara ta ona dabil-
tzanean, luzaro egualdi ona.

-Antzarrak batera ta bestera dabil-
tzanean, itxas-antzarrak urperatzen dira-
nean, curia.

-Barikuan (ostiralean) trumoiak ots
egiten ba'dau, eurizko bederatzi-
urrena.

-Aingeru guardakoaren egunian,
eguzkia ikusi baiño, ardi artean otsoa
ikusi naiago.

-Eguzkia ta curia, martiko egualdia.

-Mendebala euri barik, ez dago aize
obarik.

TXALUPETXEA:

Itxas-ontzi bakoitxak taberna bat
eukiten dau partillak banatzeko.

Gerriko: Garria lotzeko baltzari esa-
ten jako.

Txamarra, txamarrote: eunezko
jakea, idun barik, zerrenda baltzakaz
eta ia beti urdin-illuna.

ARRANTZA-TRESNAK:

Tretza: Palangre.

Traiña: Sardiñak batzeko sare biribi-
lla.

Txardango: Traiñari eusteko urkulu
txikia.

Ezpeleta: Palu luzeak ontzi-alboe-
tan, atunetarako tramankuluak euki-
teko.

Txinbo: Zulatuta dagoan egur biri-
bilduaz, "txepela" arrapatzeko, kor-
del bat: metroa dau luze eta lebatza
arrapatzeko da.

Txanpel: Lebatza artzeko kordela.

Astra: Ariz edo alambrez egindako
lanabesa, lebatzaren edo kongrio edo
olakoan amua daroana.

Tuntuxa: Ur gaiñera datorren boia,
palangreak bideratzeko.

Koraña: Berunezko lanabes luzeak,
amu askogaz.

Karpin: Amua iru edo lau puntagaz,
aingura antzera.

Amua: Anzuelo: Txikia.

Katxikamu, pantxoetarakoa; txilla-
mu, besegurakoa; bisigamu; lebatze-
rako danean lebatzamu: lixetarako
lixamu; atunetarako atunamu.

Butroi: Butrino.

Salabardo: Redeñoak edo retelak.

Traolak: Aparexuak batzeko.

Atabaka: Berunak, amuak eta abar
gordetzeko kutxa.

Otzara: Otzarea: Atunetarakoa:
asto-otzara besiguterakoa; otzara txi-
kia antxoatarako.

Treotzara: Tretzak eukitekoa; domi-
niña: tapaduna; palangrearentzat.

Belotzara: Oialak eroateko.

Narria: Narraz eroateko burdi-
antzekoa.

Dei-egitekoak: Mariñelak itxarteze-
ko andreak.

ANES ARRINDA
· M. OLAZAR

ARTZA ZURIA

P.Y.S.B.E. Donostia'n bakallau-arrantzarako 1927'garrenean sortutako konpañia bat zan. Berreun urtez Terranoba'ra joanik gabe zeuden ego-aldeko euskaldunak, 1713'ko Utrech'ko Itunaren debekua zala bide.

Bi barkuekin eman zion asiera bere lanari konpañi onek. 1.600 toneladako ontziak. Arrantzarako oso aundiak eta bakarka ekiten zuten arrasteko sareekin. Nere aita izan zan lenengo kapitana eta orregaitik dakit konpañi onen berri. 1927'an sortu eta 1973'garrenean kiebra jo, amazapi ontzi, 62 gizaseme ontziko, uraren gañean zituztela.

Groenlandi eta inguru artako Spitzberg'eko ugartee-tan ere ibilli oi ziran. Goiz argi batean lenengo Pillotua eta beste iru lagun, txalupa artu eta lurreratu ziran ikusmira. Txalupa ertzean lotu eta barrura abiatu ziran pozik eta alai muñorik muño. Lur eta izotz zati galantak, uda izan arren, Euskalerrian ez bezala.

Alako batean, ara nun agertzen zaien, elur artetik, artza zuri aundi bat, euren bidera zetorrena. Ekin diote laurok arin-aringa txaloparen billa.

Madarikatua, maria beera jetxita zegoen berrogei metro. Eldu txalopari eta ekin diote lorrean uraren billa. Ez nai bezin bizkor. Artza zetorren zanga ta zanga, lau ankan, euron billa. Mutillak estu eta larri. Belarrietan zuten artzaren arnasa. Elduko ote dira itxasora artza baño lenago?

—Gaitz-erdi! Garraxi egin zuan kapitanak barkutik, txalopak ura ikutu zuenean.

Baña, artza ez zegoen orrela bere lanari usteko, eta txopalekin batera salto egin zuen uretara. Orixe izan zan artzaren okerra. Barkutik tiroz ilko zuten eta barrura jaso. 800 kilo aragi eta ezur. Aren larrua Pasaia'n egon zan esegita jendearen miragarri.

—Gaizki pasatu al zenduten? Galdetu nion pillotuari.

—Kontuan artu. Une batean egon nintzan, txalopa irauli eta geu barruan gordetzeko agindua emateko ere!

—Eta, maria-goran, zer?

ANES ARRINDA

EUSKARA BESAMOTZ

Nork ankerki
euskara zaarri
besoa ebaki?
Zertarako, zergaitik
gorrotoa euskarari?

Gure mintzaira
itolarrian,
belarri-motzak
arrokerian

Euskaldun zaren orrek
oiukatu gure izkuntzan
euskara jauzika enparantzan

Garrasi egin
euskara osatu dadin"
Besamotza izateaz
lotsatu barik,
euskaldunon mintzairaz
arrotasuna adierazi

Ezin dogu gure mintzaira
odoluzten utzi
ez orixe

Euskaldun denok
bateginik
lurbira guztikook
abots batez


Izkuntza goraturik
arnasberiturik
udaberriko lore
lirain biurturik

Ikas bezate
erdaldun barbaroek
badela, badela
izkuntza ederrik
izkuntza lirainik
eztia bezain goxorik

Entzun bezate
euskaldunon elea
euskara dela

KAI A. ETXABARRIA

ARTZAINAK



EUSKALDUNEN LEIÑUAK



ERRONKARI'tik Egoaldera

EUSKALDUN AZTARNAK II



EUSKALDUNAK KANPOTARREN BEGIETATIK

Euskal Taldeak

– Euskaldunen arteko bereiztesunak eta taldeetan banatzea, erromatarren lana izan zan. Erki edo tribuetan banatu zituzten: Akitaniarrak ifaraldean eta Vascones egoaldean. "Baskunes" izena, indoeuropeoak ipiñitakoa omen da eta "arroak" edo "aundiak" isan nai duela itz orrek. "Baskunes"setik "Vascones"era ez da orrelako alde aundirik. Baskunes edo Vascones, Naparroaldean bizi izan ziran Pirene mendartearen egoaldeko babesean.

– Eta, Varduli?

– Oiek, oraingo giputzak ziran eta Gipuzkoa eta Araba'ko zati bat artzen zuten Kantabria mendiraiño. Carsti, berriz, Bizkaia eta Araba'ko beste zati bat. Autrigoni ziran, Bilbotik sartalde eta egoaldean bizi ziranak.

– Izen oiek erromatarrek ipiñitakoak al dira?

– Ez dakigu orrela aurkitu ba'zituzten ere. Dana dala,

eurok zabaldu zituzten munduan zear izen oiek. Erkirik garrantzitsuena, ezpairik gabe, Akitania'koa izan zan. Pirene-menditik gora, Garona ibaia itxasoan murgiltzen dan arteko lurralde zabalak; baña, egoalderagokoen izena Vascones izan zan. Eta ortik sortu ziran Wasko, Uasko, Vasko eta Eusko.

Vascones

– Nundik nora bizi ziran Vascones oiek?

– Oiratzun'dik asi eta Calahorraraiño; andik Jaca'ra... Alde oiek guztiak Vascones'enak ziran. Gogoan izan bear degu arazo onetan bazirala Naparroan "ceca" edo diru inprimatzalleak Baskunes edo Barscunes izenekoak.

Varduli

– Plinio'k Varduli esaten die; Mela'k Vardulli; Ptolomeo'k Warduli; Estrabon'ek Bardietari, Barduetes eta Bardetuai... Gizajo onek ezin zituen geure izenik asmatu eta gorroto zien... "Bar" orrek indoeuropeoz Marca, Estrema

edo Ertza esan nai omen du; ala ba'da, Barduli izango lirazke Vascones'en azken ertza edo azken muturra. Eta orren itxura apur bat badu; geroago ere Gipuzkoa (Varduli edo Barduli) Provincia Vasconozita (Vascongada) zan, geure euskera aien (Vascones'en) euskeraren antzekoa bait da.

– Deva ibaitik aurrera bizkaiera dator.
– Orixe ba; bizkai berba ez dago vasconizatua; beste era batekoa da eta Bizkaia ez da sekulan Provincia izan, Señorío baizik. Bizkaiera oraindik vasconizatu gabe dago. Oraingo aldi onetan Batuak egingo du erromatarrek berberak ere egin ez zutena: Bizkai berba vasconizatu; Bizkaia, Provincia Vascongada biurtu.

– Orixe bai izango dala benetako marka.
– Varduli onek oraingo Gipuzkoa, Araba'ko zati bat, beeko Kantari mendarteraño ziran. Kostaldean, berriz, Oiartzun'dik Deba'raiño; eta Oiartzun'dik egoaldeko Arakil'era, andik Estella'ra eta Los Arcos'etik, Kantauri maldatik Trebiño'ra eta, Vitoria-Gazteiz zear, Deba ibaiaren ballaratik, itxasora.

– Eta, Cariati'ak?
– Caristi (Carietes edo Caristoi, griegoz); auen errialdea Deba ibaiaren sartalderutz, Bilbao'raiño zan. Baña, Araba'n Trebiño'ra sartzen zan Araba'n dik, eta Miranda de Ebro'ra. Sartaldeko mugak, auek ziran: Nervioni ibaia, Orduña'ko aitza eta Arkamo'ko mendiak.

– Eta, Autrigoiak?
– Ifaraldean, Nervion'dik Santoña'ra; egoaldetik, Miranda'raiño eta, Haro'tik zear, Burgos'era sartzen ziran. Anson ibaia, Villarcayo eta Bureba inguru guztia artzen dute Burgos'eraño berriro. Varduli eta Caristi'en, biak alkar artuta, lurraldea baño zabalagoa da Autrigoi'ena.

– Eta, Berones?
– Vascones, Varduli, Caristi eta Autrigoiak, giztiak dite muga Berones'en lurraldeekin. Auek, kelta edo keltoi izenekoak dira... Ibero erriak eraso jo zutenean auren aurka, besteak Santander eta Galizi aldera bota zituzten; baña auek Errioxa'n kokatuta gelditu ziran, Kantauri mendartearen babesean...

– Eta, nun topa dituzu xeetasun oiek guztiak?
– Sánchez Albornoiz jaunak dakarzuki bere Mapa de los Territorios Tribales izeneko liburuan... Erriak ere aitatzen ditu erki bakoitzeko; baña, esan dezagun erri guztiak dau dela erromatarren bide nagusietan: Burdeos'tik Astorga'ra-ko 34 bide nagusian; Tarragona'tik Astorga'koan (Bribieska aldean alkartzten dira bi bide onek); eta bien artean, Naparroa'n zear, dauden beste txikiagoetan. Berones'enak ere barruan direla. Kosta-aldean, berriz, Oearso (Bidasoa), Tritium Tuboricum (Deba) eta Flaviobriga (Nervion); zillar meatzak, ura ugari eta burni meatzak aitatzen dira; Forua, oraindik ez.

Euskaldunekin ar-emanak artzaaien bidetik.

– Gure errian sartu ziran jaun berri onek, beurok sortutako bide berrietatik daukate nundik bertako jendearekin ar-emanetan jarri: Tarragona'tik Oiartzun'era: Burdeos, tik Astorga'ra Araba eta Naparroa'n zear... Beste bidea, itxasotik zetorren: Baiona, Bidasoa, Gernika, Nervion-Flavio-



ARTALDE BIDEAK


briga... Tarte orretan, kaiak ugari... Auek ziran erromatarren gudaroste eta merkatariek erabiltzen zituzten bideak, mendietako bide zaarrekin zer ikusi ez zutenak; artzaaien bide auek bestelakoak ziran, mendirik-mendi zebiltzenak.

– Pirineetako bi maldak artzaiez beteta daude gaur ere.
– Bai, ala da, beteta daude eta orrela egon ziran orduan ere. Iparaldera Akitanian zear, eta egoaldera Ebro'ren ibarrean zear. Mendi nagusi orrek ematen ditu Euskalerrian beste mendi txikiagoak ugari: Aralar, Aizkorri, Urbasa, Entzia, Gorbeia eta abar. Batzuen urak Kauntauri itxasora doaz eta besteenak, Maditerrane itxasora... Bide oietatik beti ibilli dira artzaiek.

– Bada oraindik Pirinee menditik beera datorren orrela-ko bidea.

– Karkastelutik aurrera Bardenas Reales'etara datorrena eta Cañada de los Roncaleses deritzana. Bestelako mendietatik Kantauri itxasora, bide motzak dira orren aldean. Araba eta Naparroa'koak luzeago, Ebro'runtz. Bide auetatik erromatarrek ere ibiltzen ziran... Dana dala, gure artzaiek menditik jeisten ziranean, an egiten zuten topo kultura berri onekin.

EUSKALDUNAK



ARTALDE BIDEAK



—Eta, orduan, zer gertatzen ote zan artzai aien buruetan?

—Kultura eta indar berri auen aurrean, txundituta geldituko ziran, Agripa'ren irulerroko "trirreme" aien aurrean kosta-aldekoak gelditzen ziranen antzera... Ez zan berdin "canoa monoxila" bat erabilli edo "trirreme" aietako bat... Artzaiek urtearen erdian mendi-gallurretan ibilli arren, neguan beera jetxi bearra zeukaten eta, nai ta nai ez, kultura berri arekin topa bear...

—Berdin gertatuko zitzaizen Saltus Vasconum aietakoei ere...

—Oiartzun'go Arditurriko meatz zuloak eta ango jendetza lanean ukusita, ao-zabaladik egongo ziran begira... Ura ez zan mendiko bakardadea! Ango zarata, ango gurdi eta zamari, ango amaigabeko joan-etorri, ango soldadu-talde, ango Irun eta Bidasoa'ko etxe eta, aberegabeko aberastasunak...!

—Ura ez zan ardiek ematen zuten aberastasunaren antzekorik...!

—Berdin gertatuko zitzaizen Forua-Gernika, Nervion eta Flaviobriga'ko ingumarietako jendeari. Europa, Asia eta Afrika'ko jenero guztiak zetozen erromatarren gurdietan... Mundu osoaren emaitzak saski berean... Oraindik ere arzulotetan bizi ziran aiek, ao-zabalik begira-begira egongo ziran, ezipairik gabe, ainbeste gauza eder ikusita.

—Araba'ko Iruña'n bada arlosa bereizi bat.

Arlosa arek onela dio: "Rhodanus Atilii F. Servos "Anul Tychia" uxor "Illuna" Socra...". Emaztearen izena "Ttikia" eta amagiarreba "Illuna"... Benetako izennik ere ez: Txikia eta Illuna... Biak ziran euskaldunak, emaztea eta onen ama; baña, izenik gabeak; senarrak, berriz, bai: Rhodanus Atilii'ren Semea. Aiek euskaldunak eta au erromatarra edo bestela erromanizatua. Zer aide batetik bestera...

—Nor ote zan Rhodanus ori?

—Soldaduzka utzitako gudari zaarren bat eta arlosa bat jasotzeko aria ondasun bazuena. Gudaritza ondoren ezkonzen ziran, agosto'ren garaian; baña, Adriano'k (Margarita Ycenar: "Memorias de Adriano", Barcelona, 1986, 102 orrialdean) asmo berri bat artu zuen, tokien tokiko jendeakin gudariak ezkon aal izateko baimena ematea. Orrela, lurak eskeñiz, bakoitzak bere lurak zaintzen obeto sasiatuko zirelako... Gañera, gudarozteko ofizialek euren atsedenerako zeuskaten ainbat egoitza eder, soldadu zaarren ostatu eta gaxotegi biurtu zitun...

—Ez da bat ere arritzeko Araba'ko gazteluan orrelako soldadu zaarren bat aurkitzea eta bertako emekumearekin ezkondata egotea...

ARRINDA'TAR ANES

ASTIGARRIBIA ETA TRITIUM TUBORICUM

1.– San Andrés Apostoluaren Eliza

Astigarr-ibia, aldebatetik bestera ibaia pasatzeko unea, itsasotik lau kilometrorra dago. Auzoa Mutriku da eta bertan zegoen Deba'ko portua, Monreal erria sortua izan baiño lenen. Itziar'ko Monreal izan zan asieran, Deba'koa sortu aurretik.

Zergaitik eskatu zuten itziartarrak Deva'ko Monreal sortzea? Arrantzatik bizi ziranez, Astigarribia'ko kaia urrun zegoelalako; beste aldetik, berriz, itxas-lapurren arriskuak amaitu ziralako.

Astigarribia'n, gaurdaño, eldu dira bi izen auk: moillatxua eta astillero. Beraz, an barkuak egiten ziran, Lastur'en ainbat burni-ola zegoen garaian. Lastur-beatik aurrera doa Sasiola'ra irteten duen bidea. Gerora, ordea, moillak eta astilleroak Deba'ko Monreal'era jeitxi ziranean, olak ere bai: or daude astillero kalea eta Errota-zar fut-bol zelaia. XVIII'garrenean olak, errota biurtu ziran.

Astigarribia'k moillatik eun metrora, eleiza berezi bat dauka edo obeto esateko, bi, bata bestearen barruan, Aralar'ko Mikel Deunaren elizan bezela. Orrek errespeto aundia ematen dio barruko eleizari, kanpokoaren babesean dagoenez (LEKUONA, Manuel. Tomo III, Obras Completas, pp. 151, Ed. KAR-DABERAZ, Tolosa, 1978).

Eliza aundiak leio luzanga batzuek ditu, andik geziak botatzeko portu alde-
ra, ibaitik itxaso-lapurrek agertu ezker.

Mutriku dala esana daukagu; baña, Mutriku (1.200) baña eunka urtez aurretik bizi da Astigarribi; antxen bertan daude zubi zaarrak eta berriak. Baita auropista berarena ere. Aita San Franzisko'ren semeek, euren Gipuzkoa'ko irugarren komentua ez zuten ez Deba'n ez Mutriku'n egin, astigar-ibi onen ondoan, Sasiola'n, baizik. Zergaitik? Batetik besterako ibirik ez zegoelako: andik pasa bear zuten bai batzuek eta bai besteak.

Errromatarren Tritium Tuboricum aitatzen danean, guztiak ao batez esaten dute Mutriku'n dagoela: Astigarribia'n ala Mendaro'n. Biak dira Mutriku. Lekuona'k ere orrela dio; baña, nik usten det ez zegoela ezkerretara, ibaiaren eskubira, baizik: Itziar'ko aldean, geroago ikusiko degunez. Astigarribia ballaratxo batean kokatzen da, kare-aitzeko mendi artean, Mutriku eta Elgoibar'erako bidean.

Mutriku ba'da ere, Gazteiz'ko Gotzategia 1862'ean sortzerako, Calahorra'koa zan Astigarri'ko eliza; baña, ez mutrikuarra. Ertze orretaraiño eltzen zan Calahorra'ko Gotzaiaren eginkizuna. Bear ba'da, ordea, D. Manuel Lekuona'k dionez, aurretik Bayona'koa ere izanda dago; XII'garren eunkian, Bayona'ko Gotzai batek sagaratu bait zuen eliza au. Egi ori sendotzeko D. Manuel'ek LANDAZURI'ren "Historia de Guipúzcoa" eta LUCIANO SERRA-NO'ren "Cartulario de San Millán de la Cogolla" aitatzen ditu.

Orren ondoren Calahorra'koa dala agertzen da paparetan; baña, ezker-eskubi, Mutriku ere bai, Iruña'koak dira. Adar antzeko mutur luzea sartzen du Calahorra'k, Azpilgoetatik gora, Astegarribia'raiño. 1081'garren urtean –D. Manuel'ek dio bere Irugarren Liburu orretan– Castilla'ko Alfonso Laugarrenak


San Andres'en eliza au, "inter Byzcahiam et Ipuzkoam" zegoena Rioxa'ko Monasterio de San Millán de la Cogolla'ri eman zion. Ez dakigu ziur zer esku-bideekin, esaten digu Lekuonak, "eta, ain xuxen, an dago San Milla'n Suso'ko elizan kapera bat bisogtiko antzerakoa arko perradunekin, moroak sartu aurreko estiloan".

Aurreko orrialdean esan digu berak, Don Manuel'ek, Astigaribi'ko eliza ere bisigotikoa dala, erromanikoaren aurretikoa, aldarean duen leioaren perra-antzagaitik. Bisigotikoa ez ba'da, mozarabea: dana dala, erromanikoaren aurrekoa.

Astigarribia izango zan kristautasun-zabalkundearen toki barezi bat, bisigotikoen garaikoa: Sevilla'ko San Isiforo, Toledo'ko San Eugenio eta Armentia'ko San Prudenzio'ren egunetakoa eta aren lekuko degu San Andres apostoluaren elizatzaxoa eta bere aldarako leiotxo perraduna... Elizatzxo bat beste baten barruan.

Zarra dala historian agertzen digu baita ere, lenago esan degun beriztasu onek: Astigarribia Bayona'ko Apezpikuaren mende zegoela, Gipuzkoa'ko barrutian. Lacarra jaun naparrak, Erdiaroko arazoetan jakintsua, ez zan batere arritu nik esan nuenean, emen bisigotiko aztarnak zeudela –dio Don Manuel'ek– Emen, Lacarra'k dionez, merkataritza ugari izan da Bayona (Lapurdum) eta Bizkaikosta artean itxasoz.

Ez daigun aastu –dio berriro– Deva ibaiko portua or zegoela eta barku-



Situación de los nombres de lugar citados por los autores grecolatinos en la Provincia de Guipúzcoa.

merkaritza ugaria izan zala gure artean; egunez bakarrik itxasoratzen ziran eta gauero kai baten babesa billatu bear, gure itxas-ertzeko ibaieta. Barku bat daukagu ondoratuta Asturiaga Bidasoa'ko Higuier muturrean; beste bat Gara-na ibaiean, Burdeos parean; irugarrena, Galizia'n Corteagada auzoan... Orra iru otxas-ontzi erromatarrek ondoratuta: bata Galizia'n, bestea Euskalerrian eta irugarrena Burdeos'en... Gertaera onek garbi erakusten digu nundik ibiltzen ziran erromatarrek itxasmerkataritza egiten. Egunez udetan, gauetz legorreen. Astigarribia'n zeukaten babesa eta edateko ur geza naikoa, Ugartemendi eta Lastur'en galtzen diran urak, Astigarribi-alboan agertu. Orra arrazoi galantak erromatarrek an agertzeko.

2.– Azter-lanak Astigarribia'n

Lekuona'k lau aizetara botatako S.O.S. ura, Astigarribia'ko eliza bisgotiko zala, alegia, ez zan alperrik galdu: Donostia'ko aldundegiak eliza aretan azterlanak egiteko Ignazio Barandiaran, arkeologoa, Zaragoza'ko Ikastola Nagusiko erakuslea, aukeratu zuan. Onek berri apuir batzuek eman zitun "Guipúzcoa en la Epoca Antigua", Gipuzkoako Kutxa 1973, liburuxkan eman zitun. Bere adierapen bakarra auxe izan zan: bisigoitko ez baña mozarabea da Astigarribia'ko egitura.

Gauza auen berri, ordea, Don Manuel'ek berak emango diskigu euskeraz, lenago aitaturako III Liburuaren 392'ti,k 396 orrialdetara. Onela dio berak:

"Leio romaniko bezela, ezaguna zan leen ere Astigarribia'ko San Andres Elizaren Abside Prebisterioko leio luzexka estua.

Lopez Vallado'ko aipaturik zeukan bere "Geografía del País Vasco-Navarro"ko lanean; bañan "ventana (románica), bezela, de arcos concéntricos, muy ruda, pero muy interesante". Berdin baita 1930'eko Serapio Mugica'ren eta Fausto Arocena'ren "Guía de Guipúzcoa" deritzan liburu polit batek ere: "un ventanal románico en el ábside".

Iñork ez ziion jaramonik egin leioaren goiko arkoari; arkoa zaldi-perra-antzekoa dala, alegia... Seminario'ko Arkeologi klaseetan, aipatu, askotan aipatzen nuan nik Astigarribia'ko zaldi-perraren detalle ori... Eta gero, berriz, gerra-teak itzali zizkigun, gauza auetarako gogo eta adore guztiak.

Bañan, gerrondoan, denboraren buruan, Gazteiz'en Arkeologi-Batzar bat izan zan: "De Arte Paleocristiano"... Bañan, ez dakit nola ta zergaitik artarako egiña neukan Memoria, etzan iritxi batzarrera.

Bañan, andik laister pentsatu nuan, Aldizkariren batean ezagunerazi bear nuela nere sekreto... Eta, esan-da-egin. 1963'gn urtean "Boletín de la Real Sociedad de Amigos del País"era bidali nuan artikulo bat, gauza nola dan esanaz. Eta, danok dakizute, geroztik, Astigarribia'ren inguruan sortu dan ikusi eta ikasi nai bero bizia. Eta, geroztik artu degu Gupuzkoa'ko Diputazio'tik, gauzari degokion azterketa eta erakuntza guztia egiteko agindua; eta egin ere, ola egin da... Eliz-barru artan egin dan azterketa eta erakunde ederra.

Lan luzea izan da, iru urte ontan, Urkola Manuel Arkitekto jaunaren ardura-pean... eta kontu aundiz eginbearrekoa. Lenengo-lenengo lana, barru-aldetik leio estaltzen zuan Aldare Nagusiko retabloa kendu zan, leioa agertu zedin. Gero, karez estalitako Presbiterioko orma zabalari, karea kendu... Kare-kentze ortan, Presbiterioko goi-goian, beste leio bat azaldu zan, leio estua, saieterantzekoa, ez, ordea, perra-itxurakoa.

Gero kendu zitzaioan Elizari, azken-urte otan bobeda-orde izan duan “cielo rasoa”; eta orduan azaldu zan bere izaera osoan, Elizak leen zuan egurrezko bobeda, naiko interesantea, bere frontal eta kapirio-jokuz. Andikan bereala garbitu ziran, esker-ezkubiko ormetako kare guztiak, eta arria agerian utzi...”.

Andik laister –Lekuona’k dionez– Elizaren lurra aztertzeari ekin zitzaion “ea nolako zimentegia agertzen ote zan... gauza bat agertu da naiko argi: Kruze-roaren burua estua zala, eta Elizaren ardi-aldea, zabalagoa; ala berean agertu zan argi-argi, antxiña-antxiñako aldare-maiaren oiñarria, oiñari estu-antza Presbiterio-erdian, ormatikan bereiz”. Lurrak urratzean, “ango gorputz obiratu-tuen artean... ondar-arritzko bloke batean illobi antropomorfo eder bar: buru-aldea biribil, eta sorbaldak zabal eta gorputza luze-alean estu... –San Millan de la Cogolla’ko “Los Infantse de Lararenak” derizatzen antz-antzekoa”.

“Azkenik... Don Ignazio Barandiaran’ek arakatu eta atxurdu du berriro lur guztia... gero lanaren ondorenak liburu eder batean eman dizkigu... Orain dana bear bezela eratu dago: lurra ol leunez estalia; illobi antropomorfoari dagokion lekuan ola jaso eta ikusteko eran; Presbiterioan malladia ta dana lengo neurrian; arrizko Aldare-maia bere lekuan; bobedatik txintxilik Gurutze Santu antxiña-antxiñakoa...”.

Ignazio Barandiaran’ek leioa bisigoitko ez baño, mozarabe dala esan digu. Alaz ere D. Manuel pozik dago bere S.O.S. bisigoitko arrek, mugitu dituela bazterrak arakatze auek sortuz. “Bañan, baita geroko D. Ignazio Barandiaran’en azken-itx jakintsuagatik ere: gure Astigarrabia’ko leio polita XI gizaldikoa dala, alegia, esan digunagatik”.

Lekuona’k onartzen ditu Barandiaran, Ignazio, jakintsuaren intzak; baño, ez diote biotza lasaitzen era baretzen, orregaitik jarraitzen du era onetan:

“Ala ere, ordea, uste det oraindik, nere lengo itza eta iritzia es dirala bertan beera uztekoak. Oraindik aztertu litezke orduko nere argumentu eta arrazoi-bideak: eta ortara noa orain azkeneko nere itz auetan”.

Ignazio Barandiaran’ek ez du bere esana sendotzeko, arkeologiatik zuzenean ateratako arrazoi-bide bat ere ematen. Eta D. Manuel’ek orretan erasotzen dio:

“D. Ignazio Barandiaran’en argumentazioa –argumentazioa “negatiboa”– ontan dago:

A) Arkuari berari dagokionez, perra-arkua, ez da, naita-nai-ez bisigotikoa; VIII gizaldia baño onutzago ere –X’an erebadegu perra-arkurik, mozarabe-estiloan.

B) Astigarrabia’ko leioari “kontextua” falta zaio: ots! Bere inguruan, garai urruti artako zerbait “giro” esan ditekianik”.

Bi esanaldi auri onela erantzuten dio D. Manuel Lekuonak:

“Nere argumentazioa:

A) Perra-arkua, bere zaarren zaarrez, ain da “gure artean” gauza bakana, beste olako bat arkitzeko San Milla’n de la Cogolla’raino joan bear degu. Leire’n bertan, bere antziñatasun aundi-aundia arren, ez dago perra-arku garbirik.

B) Kontextu-kontuari buruz, auetxek ditut esan bearrik: argumentu “positiboa”.

1.– Astigarrabia, bere erri-izatez ez dala atzo goizekoa: ba dirudi Geografo Klasikoen (erromatar eta greziatarak) “Tritium Tuboricum”, gure Astigarrabia dala: Tolomeo’k dion “Deva attingit Tritium Tuboricum”, alegia,; ots! Astigarrabia dala, Deba ibaiak ikutzen duan “Tritium” erria, gero batean Alfonso VIII’k, izena

eta erri-izate, gaurko Motriko'ra eramana. Kontextu klasikoa (orduko greko idazleak izendatzen dute).

2.- Astigarribia Erdi-Aroan ibai-portu izana dala, artean Deba erririk etzeanean... an bertan dago kao-muturra (mollatxua izenakin) eta "astillero"... nun-bait itxas-bastarrean porturik izaten itzan garaian an sortuak; garai artan, Bayona'tik Kantauri kostara merkatari-itxas-ibilliak egiten bait ziran, ibaiportuetan gabez egonaldiak egiñez. Erdi Aroko kontextua. (Kontextu orrek balio du Erromatarren garairako ere, Astigarribia'ko eliza sortu aurretik).

3.- Ikusgarria dala, gañera, ibai-ertzetik bertatik ateratzen dan galtzara sendo-sendoa, leratan kargak erameteko egoki-egoki egiña. Arkeologi-kontextua. (Elizak dituen saeterak bide orrei begira era kontextu arkeologikoa da).

4.- Gipuzkoa'ren izena bera, lenengo aldiz azaltzen dan dokumentua, Astigarribia"ri dagokion dokumentu bat dala... San Millango Monategiari Astigarribia erregali egiten zien dokumentua, 1086'gn dokumentua. Dokumentu kontextua.

5.- Ala berean, baita, beste gauza berezi bat ere: dirudianeaz, Bayona'ko Gotzaiak bazuela zer ikusi -jurisdizio?- Astigarribia'ko Elizan; 1108'gn urtean etorri bait zan zerbait konsagrazio egitera... Historia kontextua.

6.- Aipagarri dala, gañera, Elizaren beraren izaera berezia -antziñatasun-kontextu-: ots! Tellape berean bi Eliza izatea, alegai; oso gutxitan ikusten dana, Eliza baten barruan, beste bat: emen oetan Aralar'ko San Miguel'en bait degu ori, eta Orreaga'ko "Santispiritus"'en, eta Eunatē deritzan Nafarroa'ko beste Elizatxo ots aundikoan. (Baita Irun'go Santa Elena'n ere; barruko etxetxoa erromatarren illerri izana).

Gero aipatzen ditu Ormaiztegi eta Idiazabal'ko ponte zaarrak bisigotiko aztarnak topatzen dizkielako eta Astigarribia'ko illobii antropomorfoa (giza-irudikoa) San Millan de la Cogolla'n eta Araba'ko eskuz egindako kobeetan berdiñak daudelako...

Onela amaitzan du Manuel Lekuona'k bere kontextu arazo onekiko erantzunak. Nik usten det Astigarribia'ko kontextuari buruz oso larria dala eta astuna, Tritium Tuboricum zorienerako ori.

3.- Tritium Tuboricum

Ignazio Barandiaran jaunak, berriro aitatzen degun bere "Guipúzcoa en la Edad Antigua" liburuan, 31'gn orrialdean, mapa bat dakar izen-buru onekin: "Situación de los nombres de lugar citados por los



Astigarrabia.

autoreas grecolatinos en la provincia de Guipúzcoa”. Kosta-aldean, eskubitik asita Aquitani izena dator egalean; ezkererago, Bidasoa ibai inguruan, Oiason; ondoren Magrada (Urumea) ibaiaren aldamenean, Morogi; Urius ibaia eta bere ezker aldean Menosca (Guetaria); ezkererago beste izen-gabeko ibai bat eta azkenik Deva ibaia eta bertan Tritium Tuboricum.

Onela dio, itzez-itzez, Barandiaran Ignazio'k, bere liburuaren 32'gn orrialdean eta guk, aal degun zuzenean, euskeratuko deguna:

“Deva ibaia Plinio, Mela eta Ptolomeo'k ipintzen dute Nervión ibaia eta Higer-muturraren tartean, Varduli'en muga bezela sartalderuntz... Ele-aztarnetan dabilzan guztiak, alkarrekin bat datoz, Deva izena zeltarena dala edo beintzak zelta-itxura duena. (Tovar'erekin beste lau jakintsu aitatzten ditu esatera orren agerbide): latiñeko “divus” setik datorrela (edo bestela indoeuropeo “deivos”, jainkosa edo jainkoarena esan nai duen izena), da berea. Eta orrek eramaten gaitu zelteen denboretara; ibaiak eurentzako jainkosak ziren... Hispania'ko lurraldeetan Devfa asko dago emendik kanpora ere: Deva ibaia Santander'en, beste Deva bat, Miño ibaiara dijoan erreka; Portela Deva Pontevedra'ko mendate bat eta Riodeva Teruel'en.

Tritium Tuboricum Vardulia'ko Deva ibaiak ikutzen du: “Flumen Deva Tritium Tuboricum attingit”. Ala esaten du Pomponio Mela'k (De Situ Orbis, Liber III, Cap. I) Aita Fita idazleak dionez. “Attingere” eskuakin ikutzea da; beraz, ibaiak Tritium ori ikutzen du, uraren ertzean dagoelako. “Attingere” itzaren esan-nairik errezena eta zuzenena orixe da.

Tritium ori nun dagoen asmatzen dabilzanak esaten dute, ao batez, Mutiku'n dagoela, Astigarribia'n dagoela, baita Mendaro'n dagoela ere. Dana dala Astigarribia eta Mendaro Azpilgoeta, Mutriku ziran. Mutriku esanakin asmatzen dute.

Aitatutako idazki orretan Aita Fitak au dio: “...haciendo reacer el sitio de Tricio várdulo cerca de Astigarribia”. Badago Astigarribia'ra eldu aurretik ibaiak egiten duen mako aundi bat, Iruoin baserria egon dan tokian, Arno mendipean. Laua da eta zaldi-perra baten itxura du. Ez du berezkoa danik ematen, ain txukun eta ain borobil eta ain neurri berdiñak ibatiik mandia... Astigarribia'ra eramatea Tritium ori, bidezkoa da; bera izan bait da Deva ibaiaren lenengo portua. Erromatarrek ibai-barruetan billatzen zituzten euren kaiak: Bidasoa'n, Irun'go El Juncal'en; Urumea'n, Ernani'n; Artibai'en, Berriatua'n; Gernika-Oka'n, Forua'n eta abar.

Beste alde batetik, berriz, JULIO CARO BAROJA jaunak, bere “Materiales para una Historia de la Lengua Vasca en Relación con la Latina”, Universidad de Salamanca, 1944, 124-25 orrialdeetan, onela dio:

“Esta división por valles se encuentra expresada desde época muy remota... Y en la demarcación del Obispado de Pamplona, que quería pasar por una documento del año 1027, siendo una falsificación de algo después, se dice: “...cum vallibus subscriptis, scilicet Lerin, Oiarzun, Lavaien, Araiz, Larraun, Araria, Ozcue, Ernani, Seyar, TICIAR... cum omnibus supradictis vallibus et toa Ipuzcoa”.

TICIAR ballara neronek azpimarratu det.

Itziar, dokumentu orretan, ballara bat da eta izena, Ticiar. Benetan interesgarria da xeetasun au: ITZIAR = TIZIAR. Batak I dauka T'ren aurretik; eta besteak I ori T'ren atzetik.

AURELIANO FERNANDEZ-GUERRA, “Geografía Romana de la Provincia Alavesa” izeneko bere lan batean (Bol. De la Real Academia de la Historia,

1883), “Deve Tritium Tuboricum attingit” gogoratzen digu onela ondoren esanaz: “En Plinio, en Tolomeo y en las inscripciones son neutros los más de los nombres geográficos” eta orregaitik berberak erderaz itz oiek ipintzean onela deitzen die: Tricio Tuborico. Errietako izenak ez dira UM’ekin amaitzen, latíñez ala egiten ba’dute ere, “neutroak” diralako. Latíñez, erderaz bezela, iru eratako itzak daude: masculino, femenino eta neutro. Euskeraz danantzako bat egoten da: naiz gizon, naiz emakume, naiz errien izenak izan. Ederra, berdin esaten da gizonagaitik, emakumeagaitik, mendiagaitik; latíñez, ordea, iru amaiera bear dira: o, a, um. UM euskeraz ez dagoenik, ezin izan litezke Tritium Tuboricum’en amaiera oiek euskaldunak.

Zer amaiera zuten euskeraz? TuboriKo, amaiera ona dala euskeraz iruditzen zait, tokiko izenak Ko orretan amaitzen dirata: Debako ibaia. Orrela izan ezkerro, Tuborico Tritium’en tokia da.

Baña, Tritium ori, zer da? Erderaz, Tricio egin dute; baña, itz ori euskaldunada eta ez erdalduna; beraz, Tricio ez da UM ori ez da O. Kendu dezagun O ori. Zer gelditzen da? TRICI. TICIAR izateko A bat falta. Kundu deiagun TICIAR’eri A ori. Eta ona TICIR izena. UM ipiñi dutenean amaierako A bat sobrea zeukaten eta R izkiakin zer egin ez zekiten eta T’aren ondoren ipiñi zuten: TRIZI = TIZIR; Galdutako A’kin orra TIZIAR.

Tritium Tuboricum Tiziar Tubori-ko biurtu da. Badu euskerazko kutsua. Iruña’ko dokumentua idatzi zuenak, Plinio eta Tolomeo’k egindalo okerra egin zuen: ITZIAR’en lenengo izkia, I, T izkiaren ondoren ipiñi: ITZIAR - TICIAR.

Oker au beste toki batzuetan ere ikusi degu. Bada erromatarren garaiko Bide Zabalen artean Via 34 deritana, Burdeos’tik Astorga’ra zijoana. Baditu geldiuneak (statio) tarteka: Burdeos’tik Iruña’ra bitartean orretan daude Immo Pirineo eta Summo Pirineo (Orreaga). Andik Iruña’ra beste bat dator: Turisa, Turissa, Iturisa, Iturissa. Lau itz ‘statio’ edo geldiune berdiña esateko. Bi alditan galtzen da I asierako ori: Turisa eta Turissa’n. Gañera ikusten degu S orrekin ez dirala bat etortzen: S batekin edo SS birekin idazten bait dute. Erromatarrek ainbat aldiz orrela ibiltzen ziran, gure euskal itzekin batez ere.

Zailtasunen bat aurkitzen zuten izen orretan. Lekuona Manuel’ek, zailtasun berdiña topatzen du, bere erriaren izena, Oiartzun, idazten. Batzuek S batekin eta beste batzuek SS birekin. Tolosa’n atera ziran Bere lan Guztien liburuteko XII’ganean, 1978, 15-16 orrialdietan, onela dio euskeraz:

“Bi ejiptotarrak (Tolomeo’k eta Estroban’ek) gure Erriaren izena, OIASSO idazten dute... deklinabidean sartu ezkerro, bukaeran -N artzen duala... gaurko Oiartzun’en antza-apur bat geiagorekin...”

Nolabait dala, itz orretan, -r’rik gabe idaztea, ez da, bear bada, ain arritze-lo gauza. Bear bada, gure bi grekoak –Tolomeo’k eta Estrabon’ek– -ss- doble baten bitartez -rs- bat, edo -rz- esan nai zuten. Ez dakigu garbi-garbi, zer misterio ezkututzen dan -ss- orren barruan; bear bada, ain zuzen, guk -rs- eda -rz-’tarekin esaten degun gauza bera... -r-ren eta -s-ren artean diran artu-emanen indarrez...”.

Geiago ere esaten ditu ondoren Oirtzun’eri buruz; baña, guretzako oiek begien aurrean idukitzea naikoa degu, Turissa edo Iturissa itzen gaia aztertze-ko. Azterketa ori JULIO ALTADILL jaunak egiten du bere liburu onetan: ‘De Re Geográfico-Histórica’ Vian y vestigios romanos en Navarra. 1923. (Publicado en el Homenaje a D. Carmelo de Echegaray. San Sebastian. 1928).

504-507 orrialdeetan, Via 34’ren Geldiune orrek lau izen dituela (Turisa, Turissa, Ituisa, Iturissa) esaten digu eta ondorengo orrian, onela dio:

“La vía romana al ascender y tocar en ‘Iturrisa’ (ha cambiado a posta el ‘Iturissa’ por ‘Iturrisa’) brindaba al caminante el agua pura y cristalina de una fuente cuyo nombre de ‘Iturizar’ subsiste único y generalizado todavía...”. Don Manuel Lekuona’k Oiartzun’en ikusten zuan illuna, ‘Iturizar’ en argitu da. Bi SS’ak R eta Z gordetzen dute... Garai artako Erroma’tik zetozen idazleek, emengo itzak eurentzako errestu egiten zituzten naiz-eta aldatu, latin kutsua emanez. Eta orixe berbera egin zuten gure Tritium Tuboricum’ekin.

Garrantzi aundiko gertaera au: Iturizar’ en ‘statio’ edo geldiene bat ipin- tzea, Orreaga’tik Iruña’ra. Besterik ez dago. Eta zergaitik sortu dute ‘statio’ ori? Edateko ura dagoelako. Iruña’tik 32.582 metrora dago eta andik gora, Orreaga’raiño, ez zegoen besterik. Iruñati’k Orreaga’ra, bat bakarrik; ura zego- elako. Eta Gudarosteak bearrezkoa zuen edateko ura eta Iturizar’ en sakone- ko lana egin zuten erromatarrek (Altadiill. 580 orri.) ura ugari une batean izate- ko.

Legorreko Gudarosteak ura bearrezkoa ba’zuten, baita itsasoko ontziak ere: gerrarako barkuak eta merkataritzakoak. Gogoan izan gauez biltzen zirala geure kaietara eta Astigarribia’ra areago: ur-billa.

Ignazio Barandiaran’ek dakarren mapa orretan, Gipuzko’n lau txoli adieraz- ten dira: Oiasson, Oyartzun’go zillar meatza; Morogi Pasai edo Donosti’ko kaiak; Menosca, Getaria’n eta Tritium Tuboricum Deva’ko ibaian. Oiartzun’go Arditurri zillar-meatzak garrantzi aundikoak ziran oso (400 gizasemek 200 urtez landutakoak); Donosti ta Pasaia berezko kaiak dira, oso ederrak; Getar- ria’k beti eman die babes a itxas-ontxiak, ekaizetan batez ere; baña, Deva’ko Tritium Tubotikum orrek, zer zeukan, orrelako mapa baten bereizteko? Ura ugari. Izarraitz’etik Ipar-aldera biltzen diran urak, ugarte baserriko osin batean galtzen dira; eta Lastur’koak, ainbeste ola erabiltzen zituztenak, aiek, berriz, Lastur-bean desagertzen dira. Eta mendi barrenetik pasata gero, an agertzen dira Astigarribia-aurrean, ibitik beste aldera, Itziar’ko (Deba’ko) Tubori’ko are- tan. Ez daude Astigarribia’ko auzoan, aurrean, baizik: Ticiar’ko ballaran. Eta tokia da Tubori-ko. Via 34 deritzan erromatarren bide zabalean, ‘statio’ egin bazuten ura zegoelako; emen ere berdin jokatu zuten: iturria erakutsi nun zegoen: “Flumen Deva Tritium Tuborikum attingit’: eskuakin bezela ikutzen du ibaiak iturri berezi au. Ibaitek amar metrora agertzen da, ez iturri bat, errekatxo bat. Baizik. Ibaiak ikutu eta berekin eramaten du. Ontziak bertaraiño joaten ziran, naidan beste ur an bertan artzeko. Ontzi batentzako ez, ontzi-talde oso batentzako urak datoz. Xeatasun au ez zuan D. Manuel’ek ezagutu; ez det uste idazleetako beste iñork ere, errekatxo oso motza bait da. Nik ori banekien bertan perretxiakutan ibilli-ta gero eta orretxeagaitik konturatu nintzan Tubori- ko Tubori-ko ori iturria zala.

Ticiar’ek bezela, itz onek ere T aurreko I galdu du edo tokiz aldatu. Ipiñi zagun bere tokian: Itubor-ko (Itur-buru-ko ikustea ez da zailla). Itziar Iturbu-ko. Onelako murrizketak, euskeraz, edonoiz egiten dituguz (Joxemiel Barandiar- ran)... Kanpotarrek egitea, errezago. Itur-buru au Itziar’ko lengo ballaran dago. Iruña’ko Gotzaitegia zabaltzen zan Itziar’ko ballaraiño = ‘el valle de Ticiar’ ... Itz-ziar, ur-ziar izango da eta Ballara onek Ifar-aldeetik Itxasoa (Itz-oso) dauka; aldamenetatik bi ibai-erreak: Urola eta Deva; eta egoian, Izarraitz (Iziar-aitz)... Iru aldamenak urez eta laugarrena, aitez: or biltzen da Itziar’ko ballara eta ballara orretan dago Itziar’ko Iturbu(rua), gaur-egun Deba’koa bada ere.

Iñork ez du arrazoibiderik ematen, erromatarren garaiko idazleetan, Deva ibaiko Tritium Tuborikum ori azpimarratzeko. Lau gauza kostalde osoan, eta

bat, ori. Zergaitik? Inortxok ere ez digu sekulan esan; baña, nere iritziz beste arrazoirik ez dago, gaurkoz beintzat, urarena baiño. D. Manuel'ek billatzen zuen 'kontexto'rako interesgarria da oso, uraren arazo au: erromatarrek, baskoiek eta ondorengo ontzi guztiek Astigarribia'tik pasa dira beuren ezarriak bustitzeko. 'Kontextu' hau sekulako kontextua da. Kontexturik ez zala zion Ignaio Barandiaran'ek, elizako arku-perraduna bisigotikoa zala esateko. Ori ba'da bear zana, ortxen dago. Bazuen Lekuona'k beren argibideak, bisigotikoa zala esateko; bañan, kontextu au ez zuan gargi-garbi ikusi.

Urrutira joan gera Astigarribia'ko bide onetatik, baña, merezi zuan D. Manuel oorez jazteko, berak ikusi bait zuan lenengoz, begi-biztan zegoen arku perraduna. Bisigotikoa izan leike, berak asiera aretan esan bezela; gerora, ez gogo onez, besteen iritxira makurturik, atzera egin zuan. Baña, bisigotikokezka ori ez zitzaion sekulan burutik aldendu.

Astigarribia'ko Eliza orrekin, gure arteko kristautasuna oso zarra zala, agertu nai zigun, eta ez gizaldikoa beste batzuek ziotenez. Erromatarrek ibilli ziran Tritium Toboricum'en etenik gabe eta ez da batere arritzeko, lenengo kristauen gunee bat or kokatzea.

Arrinda'tar Anes

ASTITSU**DESFASADOAK ETA BIBOTEAK**

—Orreik dozak “desfasados”. Ez jabe Batuarik erabilten-da.

—Euskaraz ari diranei esateko itza al dok ori? Esan egik ori euskeraz. Oiek “desfasados” eta i fasean sartzeko oraindik.

—“Desfasados” zer dan edozeiñek ezagutzen jok.

—Erdaldunak baietz esatera noioak; baiña, ez jakiat erdaldunak eurak ere “desfasados” zer dan ulertzen da-ben...

—Ezetz? Des-fasados, fasetik igaroak. Orra gauza gar-bia.

—Eta, ze fase dok ori? Illargiak be bere faseak eta bere aurpegiak ba jaukazak: ilgora, ilbera, illargi barria, illargi bete eta tarteko beste guztiak. Noiz jagok illargia bere des-fasean...?

—Nik ori ez jakiat; baiña, persona bat “desfasada” noiz dagoen, ori bai baijakiat.

—Ori topikoren bat izango dok.

—Zer topiko gero! Des-fasados, fasetik kanpora.

—Modatik kanpora, dok? Eta ire biboteak zer dozak “fasados” ala “desfasados”?

—Ni “fasean” nago.

—Ilgora ala ilberan...? Illargi barrian ala illargi be-tean...? Orain ogeita amar urtetik gora, geure gurasoak izugarrizko ule-matasak zituen sudurpean... Bizarra ken-tzeko tresna barriak sortu ziranean, bibotedunak “desfasa-dos” gelditu ituan, muturrak garbi. Eta orain ogeita amar urtetik gora bere fasetik igaroak al dozak orain fase-dunak...?

—Zergaitik ez...?

—Ilberan egozalako...? Zuek lez pentsatzen ez dauan guztiak dozak zuentzako “desfasados”. “Faseak” eta modak sortu orduko aldatzen dozak. Moda-aparretan ibil-tea dok norberentzat egokia norbere burua agertzeko eta illargiaren antzera gora ta beera ibilteko... Orretarako oiñarri gitxi bear da.

—Zuek zaree oiñarri bakoak. Oiñarri utsekoak.

—Zuek, barriz, “fase” billa atzeraka joan zaree eta gizonak bere pentsakeran oiñarria bear jok eta ez bakarrik modan ibiltzeko asmoa. Fundamentu apur bat, edo funtsa “fasadoak” diñoanez, oiñarri lez... Nere amonak, sudur-pean biboteak ezezik, ba-eban funtsa ere bere kolkoan eta, badakik zer esaten eban...?

—Niri ire amonaren esanak ardurarik ez jaustek sor-tzen.

—Ala ere esango duat zer esaten eban: modak eta “fa-seak”, saku zaar bat dirala, goitik lez azpitik be zuloa dau-kana: azpitik ateratako trapuak goitik sartu. Orra zer dan modan eta “fasean” egotea. Zuek orixe egin dozue: “des-fasatuta” egozan trapuak azpitik atera eta gaiñean ipiñi eta ori onartzen ez dauan guztia “desfasado” lez jo.

—Zuek ez dakizue gaurkotasunaren barririk. Arri biur-tutako dinosaurio batzuk besterik ez zarie.

—Soiñeko bat izan guztokoa eta illargiak in batera aldatzen ez ba’dozu, ori al “desfasados” izatea? Emakume gazteak aldatzen dabezan euren soiñekoak goizetik gabera emeretz aldiz, sakela bete diru kostata, ordea.

—Zuekin izketan egitea alperriko lana dok, eta banoa.

—“Faseak” laister aldatzen dozak. Moda ez dok seku-lan geldi egoten eta zuen fasea buelta ematen asia dok. Agur, agur eta bueltara arte.

* * *

OTOTXOREN PROBLEMAK

Gaur urduri agertu da etxean Ototxo eta aita aldamen batera eroan ete ekin dautso:

—Aitaxo, aunditzen nago eta zure laguntza bear dot bizitzako zerari aurpegia emoteko.

—Bai, semetxo. Nundik asiko gera?

—Artatik asi.

—Lorak zelan sortzen diran...?

—Loren ardurarik ez dot.

—Erleak zelan ugaritzen diran...?

Erleen ezta asko gustatzen jat; baiña, erleen ardurarik ez dot.

—Zer dozu, ba?

—Nere korapilloa eta problemak latzagoak da.

—Bai...?

—Bai, orixe.

—Esan, esan...

—Zazpi urte bete dodaz eta nire jaietako betebearrak bost ogerlekogaz zelan nai dozu ondo betetea? Gutxienez amar bear dodaz.

ARRINDA’TAR ANES

ASTO BATEN ASTA-PENAK (1969)

Anes Arrinda

I.

– Astoa naiz. Astarra. Ogeita amar urte bete berriak. Asto zaarra.

– Aizu, Periko, egeita amar urte ez dira aldi luze...

– Zertarako dan. Astakeriak esan eta egiteko, naikoa. Zenbat astakeri esan eta egin ditezken aldi orretan, kontuan artzen al dezu...?

– Bai, bai. Ori ere ala da.

– Jaio ezkeroz, Iñaki bat izan det nere jaun da jabe: kopeta aundi, euskaltzale purrkatua. Ez du erderarik erabilliko ezertarako ere, oso beartuta ez bada. Ikullua daukat kale-barrean eta aldamenen nere nagusiaren sagardotegia upel eta guzti. Ogeita amar urte jaio nintzala guda madarikatu bat amitzean eta orduko nagusiak dirau oraindik... Noiz arte? Galde egiten du Iñaki kopeta-aundiak.

– Orixe galdetzen degu guztioak, Periko.

– Ba, oraindik, puska baterako zaudete. Orregaitik edo, alkartzen dira sagardotegian nere nagusia eta bere lagunek. Zeru eta lurra aztertzen dituzte eta arakutzen. Euskeraren egoera maiz aitutzen dute eta aren auzi-mauziak ondo ezagutzen ditut. Egoera larrian omen dago... Esaten duten guztia entzuten det ikuillutik, tartean ol zaar bartzuek besterik ez bait dago; zirrikietatik ikusi ere ikusten ditut. Zenbat alkarriketa berritsu, zenbat eztabaida gartsu, zenbat asarre eta trumoi...

Euskalzaleek ez dute alkar artuko sekula sekulotan.

– Orrenbestez...

– Bai, jauna, orresbestez. Bakoitzak bere astoari arre. Ori esan zuanak bazekien euskaldunen berri.

– Gaitz ori ez de euskaldunena bakarrik izango...

– Orixe bai nik ez dakidala. Emen agertzen diranak guztiak dira euskaldunak. Bestelako belarrimotxik ex da emendik sartzen. Danak dira ni bezelako belarri aundikoak. Ondotxo ezagutzen ditut. Goiak eta beiak jotzen dituzte; ezeri ez diote barkatzen. Ara esango dizut joan dan astelenean gertatutakoa. Pelis Txorta eritegitik zetorren, Donostian gaixo egonda gero eta bertako lagun batek esana agertu zigun. Istori latza.

*Homo homini lupus:
gizona gizonaren areno.*

Bi oge zuri burnizkoak. Leio zabal bat ezkerara; bi gaueko-mai eta bi aulki. Nere aldameneko ogea utsik dago. Bost egun daramazkit ospitalean. Seigarren gaua. Gauegian gelako argiak piztu dituzte. Leusoz eta lo-alez betetako begiak iriki ditut. Baiña, zer da au...!? Bi moja, bi sendagille eta Ianguntzaille bat sartu dira barrura eta eurokin batera gizona zerraldo bat etzanda dakarte. Etxetik zuzenean ekarri ere, lotarako pijama kentzeko astirik gabe...

Eletrokardiograma aiñako guztiak egin dizkiote oge barruan. "Infarto de miocardio" aditu dut euren arteko mintzairan.

Eguna argitzearekin batera, sendagille gazte bat agertu zaigu aurrean:

– Zure izena?

– Juan Termosil

– Nungoa zera?

– Andaluziakoa

– Nun bizi zera?

– Emen Donostian

– Zer Ian egiten dezu?

– Nere kontura nabil gauza-karriotan.

Esan bear det aurretik, berarekin batera beste bi anai etorri zirala. Aundiak. Arpegi zabal eta bekoki illun. Golde-arrastoak aurpegian. Zimur gogorak. Asko eramandako giza-semeak. Zamarra lodikote eta motzak.

Lepo-ingurua larruzkoa. Oge-aurrean daude zutik. Medikiak:

– Zenbat anai zerate?

– Iru

– Aita bizirik al dezute?

– Ez

– Zerk eraman zuen beste mundura?

Gaixoa gelditu da erantzunik gabe. Aurrez-aurre daukan anaiari begiratzen dio. Kiñu egiten dio buruakin, baietz; esateko, alegia, zerk eraman duan:

– Goseak

Oraingoan mutu gelditu dana sendasgilea izan da. Geiago galdetzeko ausardirik ez...

* * *

Goizeko zazpiretarako ekartzen digute izparringia gelara; baiña nere aldameneko oneri ezer ez irakurtzeko agindu zion medikuak eta itzik ere ez aotik ateratzeko... Gerora, ordea, gauzak argitu dira: biotzekorik ez du ezer.

* * *

Eritegietako ordu luzeak: danetarako dago asti eta denbora. Itz-jario asi zitzaidan: Andaluziakoa lurralde zabaletako bastartxo batean jaio zan, kortijo oietako batean:

– Bizia eta eriotza jauntxoan eskuetan genduzkan

– Ainbeste!?

– Bai, ainbeste. Zerorrek ezagutuko dezu. nere etxearen berri emango dizudanean. Nere bi anaiak emen izan ziran.

– Gizon galantak

Ni naiz zaarrena eta aita nola il zitzaigun entzuna daukazu.

– Gogorra benetan

– Bai, oso gogorra; gaiña egi utsa. Aita gaixorik gendukan eta ni nintzan etxera ogia ekartzen zuan gizaki bakarra. Beizaia nintzan. Lurrean billatzen nituen paperetatik ikasi nuan irakurtzen; ez bait zan guretzat eskolarik. Anaiak gaztetxo eta aita gaixo. Emertzoti urte betetzean, pezeta bat geiago egunero irabazteko eskubidea ematen zidan legeak. Egun artan pozik zoratzen agertu nintzan nagusiarengana:

– Zer nai?

– Ara, jauna, gaur bate ditut emertzoti urte eta gaurtik daukat eskubidea pezeta bat geiago irabazteko...

– Bai, e...? Orregaitik ez kezkarik izan: zure lan ori zuk baiño pezeta bat merkeago zeinek egin, ez da emen faltako...

– Erantzun zitala

– Egun artan galdu nuan gure etxeko ogibea. Egozetatik estutzen dezun txoria bezela gebiltzan danok etxean, ito bearrean... Andik laister aita aldendu zitzaigun, goseak eraginda. Berrogei urte betetzeko bat falta.

– Egoera larria...

– Bitartean soldaduzka egiteko garaia eldu zitzaidan eta uraxe izan zan nere askatasunaren ordua. Ondo jantzi eta ondo jan. Gizendu nintzan eta gizondu. Baita begiak iriki ere: bazirala, alegia, gure kortijotik at makiña bat lurralde zabalik munduan.

– Soldaduzka eginda, kortijora etxeratu al ziñan?

Zoroak emanda ere ez. Ez naiz ant geiago joan. Neure lurak ogi eskasa eta mingotza eman dit jateko. Gizarteak oinpean eduki gaitu zapalduta. Ez diogu zorrik. Geran apurra geure indar utsez egin degu. Ez jakinēan eta nekepean erabilli gaitue... Zer zor diogu gorrotoa ez bada...?

– Eta, nora abiatu ziñan?

Inora ere ez. Emen, gaur bizi naizen erri onetan egin nuan soldaduzka, asi nintzan lan billa eta ostatu eman zidaten nere lenengo ogibidea.

– Zer lan?

– Boteilla utsak ardoz bete. Sei urte amaigabekoak pasa nitun bodega illun bate-tik irten gabe. kaleko argirik ikusi gabe. Astegunez eta jaiez

Gero...?

– Diru apurtxo bat egin nuanean. berriro lan-eske. Arakin batekin gelditu nintzan morroi. Andik errekadere batengana jo nuan eta ofizioa gustatu. Arekin gelditu nintzan eta gerora neure kontura asi.

– Ondo, beraz?

– Lan-hide onen zirrikitu guztiak eza-gutzen ditut eta nere anaiak ekarri ditut sozio.

– Guztientzako lanik, bai?

– Nai-aiña lan izanen degu. Aundirikio jokatu bear. Ezagutzen ditut Madrid eta Barzelonako merkatuak. Erroman eta Paris'en izana ango merkatu zentralen berri jakiten...

– Etorkizuna zuekin dezute. noski...

– Zalantzarik gabe. Elburua badakigu eta bideak ezagutzen ditugu. Gogoa eta indarrak ez zaigu falta.

Garraioari merkataritza erantsi zioten Termosil Anaiak eta konsumo, elkartearren-tzat ekin zioten lanean. Burruka berriro. Latza eta kupirigabea:

– Ara, egun batez nere furgonetarekin nengoan kale-ertzean eta "kanpora emendik" esan zidan gure etsai baten langilleak. "Berebil au nerea da eta badet emen egoteko eskuhidea ere" erantzun nion. "Begira izenari"... Baiña, aren erantzuna zer izan zan badakizu...?

– Zer?

– Kamio zaar aundi batekin nere furgoneta itzuli barruko langostino guztiak lur-gaiñera boteaz. Guztiak alperrik galdu. Aste osoan irabazitakoak, une artan galdu...

– Erreklamazioa egiterik izan zendun?

– Lagun ezagunenganajo genduan justiziaren eske: baiña, jauntxoa nor zan jakitea-reakin batera, alde egin ziguten. Bildurra zio-ten: baiña gu bildurtuko gaituen kristaurik ez da jaio oraindik.

– Zer egin zenduten?

– Gau artan jautxoak zitun kamioi guz-tien kurpillak ondatu. Lana eragotzi eta bien bitartean errespetoa sartu.

Ekintzak ugaritu ala, lan aberatsen billa saiatu dira. Sare osoa zabaldu dute bere inguruan: akarrioetatik bankuetara, merka-tzaritatik "club"etara. alkoletik marijuanara, morfina-tik emagalduetara... Olkiak ordaiñe-tan: eurari gizarteak egindakoa gizarteari itzuliko die...

Beuren jabetasuna geroz eta aundiago. Iru Anaiak piñu-azieran antzera zeuden elkartuta. Irurak bat. Gogorrean aziak, gogor artzen zituzten mendekoak.

Pozioia zeukaten gorrotoarekin naastuta eta pozioia gaztediari sartzen saiatu ziran eta gaztedia, artalde baten antzera, arakiñen eskuetan erori arazi arte.

Ertegitiko egunak aaztuta zeuden. Gazte-dia menpean, lur eta mendiak menperatzeko oraindik. Elikoteroz ekin zioten lurraldeari begira bat ematen. Zoragarriak zeuden men-diak eta ibarrak: gaillurreetan aitzak gorri, nabar-kolore: beerago baso oparoak orlegi-illun: azpian larraiñak orlegi-bizi. Errekak mar-marrean garbi eta aize meea biriken pozgarri...

– Madarikatua! Or pozik bizi dituk...! Goazen ara: mendiak ordekatu, ordekatu bete aizea kireztu, ura zikindu, bizitza gogortu; bitartean urre guztien jabe geu eginen gaituk.

Gauza bakar bat falta zitazien: politika-agintaritza. Aalmen lillugarri orren ondoren asi ziran. Demokrazia etorria zan ordurako eta agintaritza erriaren eskuetara etorria. Auteskundeak egin ziranean euren mende zegoen zabalkunde osoa. bai radioz eta bai telebistaz. Aldizkarietatik, zer esanik ez. Indarrez lortu edo diruz erosi botoak... Azkenik:

– Lortu diagu nai genduen. Orain erria ordenan jarri. Ez iñork ankarik mogituko gure baimenik gabe.

Lagunek ugari sortu zitzaizkien gorroto eta gogortasunerako prest. Illerriko arri zabalak garbi oso, Termosil Anaiei erria iduri: oso txukun, oso apal, oso menpeko. Biotzak eta buruak koipearen neurriera bigunduta, idien antzera mantso-mantso, gizatasunik gabe.

– Gizatasuna geuk daukagu eta ori nai-koa. Pailasoak eta ogia, orra auek bear duten gauza bakarra. Ez dute besterik bear.

Taldea pake santuan eta ordena berei-zian. Zoragarri. Illerri baten pakea. Arrak. atsa eta ustelkeria azpitik zebiltzen.

Zimaurtegitik aundienean ere loreak sortu oi dira noz-beinkaz. Egoera orren aurrean, "Danen Aurka" gizasemea jeiki da:

– Ardiak arategira bezela zoazte: illea mozten dizute, esnea jeisten. lukainkatarako aragia ebagitzen... Jeiki zaitezte! Ez al dezute zuen zoritxarrik ikusten? Konortea galdu al dezute?

Ardiek begiratu apala egin diote. Alperrik da. Entzungogor daude, ez aalmen eta ez gogo. Ez dute ezer. Drogari emanak dau-de. Menpean bear. ko.

Gizartetik artutako iraiña gizarteari biurtu diote Termosil Anaiak. Eta, gañezka.

Pelis Txorta ixilsu zanean, maikide guz-tiak asi ziran batera:

– Baiña, ori zer da: gertakizuna ala asmakizuna?

– Nik ondo ez dakit zer dan. Nik ez nituen Termosil Anaiak ezagutu; baiña, eritegian entzun nuen istori ori. Erdizka bein-tzat egia dala badakit; asmakizuna noraiño-koa dan, orixe ez dakit... Bear bada, profeta-ren bat ere bada tartean.

* * *

Ekin zioten oraindik ere eztabaidan gaz-tain erreka amaitu arte. Berba-jardun aretan eutanasia atera zuan batek platerera. Eutana-siarik egiten ote zan eritegietan, alegia. Berandu zan artan asteko eta Anton Kaleri Arantzazun praille egona degu eta teolojia ere ikasi zuan. Zeiñek obeto? Sagardo-baso bana eran zuten eta alde egin. ni ere ikuillu-ko pakean itzirik. Bazan ordua. Ez didate nai aiña lorik egiten uzten eta biar nere jaun kopeta-aundi orrek naiko du ni lanean eduki erremonta arte. Egunen batean nik emanda-ko ostikara pareakin illargiraiño bialduko det. Gabon.

Eutanasia eta eritegiak

Gaur larunbata. Taloak eta gaztaiñak erretzen ari dira sagardotegian. Biar lan gu-txi: nere ondoko bei onentzako helar apur ekartzea. Ori gauza erreza da nere jaun lña-ki ospinduta ez badator beintzat. Arrazoirik gabe makilka asiko balitz, lepezamarretik ainka egingo diot, ortzaka...

Anton Kale betaurreko eta guzti etorri zaigu. Gaztaiñak erretzen ari diran artean, paper zuri batetik asi da irakurtzen. Besteak ao zabalik daude bere inguruan. Onela asi da Anton Kale.

Eutanasia itzak zera esan nai du: nekeetan dagoen gaixoa iltzea, eriotza zuzenean dakarren zer-edo-zer egiñez. Orrelako eutanasiarik, zuzenean gaixoa erailtzen duena, ezin liteke inñolaz ere onartu. Orrelakorik onartzen bada, orduan gaisoak ez du uste onik izango bere sendagillenganako; ez bait du jakingo zertarako diran botikak, arek emandakoak, sendatzeko ala iltzeko.

—Bai, bai, ala izango dela-zion Praiskuk.

Eutanasia ori gaixoak berak eskatuko balu ere, gogo orreri amor ematea, gaixoari brere burua iltzen langutzea litzake. Ezin liteke orrelakorik onartu. Eutanasia (eriotza) erailketa onean bihurtzen degu, orrela jokatu ezkeroz.

Eutanasia beste era batera ere artu genezake; baiña, orduan ez da benetako eutanasia. Ortik sortzen dira naiko naaste. Esate baterako, gaixoari sendabide oso gaitzak eta kostosoak ukatzea; edo-ta miñak kentzeko lo-belarrak ematea naiz-eta bide orretatik gaixoari bizia murriztu... Bide oiek erabiltzea ez da benetako eutanasia. Garbi erabilliz leizke barruko kezkariz gabe.

Ori ere bizia kentzea da. Ez al dira bi eutanasiak berdiñak? (Anton Kalek).

—Ez dira berdiñak: lenengoan gauza bat ematen biziari alperrik luzatzen ez diogu uzten; bide kostosoak alperrikoak diralako gaixo orrentzat eta familiarako ondamendia; ori alde batetik eta bestetik, berriz, lo-belarra emanda miñari aurpegi ematen laguntzen diogulako eriotza xamurragoa izan dezan. Irten-biderik ez duten gaixoeri buruz ari gera.

—"Dakixenak bakixela" esaten ditek Lekeition eta ala izango dek.

Eriotz ona

Iltzeko era eta modu on baten eskubidea badu gizakiak, iltzeko era onik arkitu baliteke, beintzat. Gizon-emakumeen eriotza gizamaillakoa bear du izan eta eriotz-mota orreri esaten diogu Eriotz Ona. Erderaz Muerte Digna esan oi dana.

—Orain urte gutxi dirala, jenderik geien zion Pelix Txortak-etxean iltzen zan; orain, berriz, inñor ez da etxean iltzen. Geienak ospaletan.

Aurrera doa Anton Kale:

Egoera zearo aldatu da gaixoeri buruz: gaurko eritegiatan jende-multsoa biltzen da artaldean antzera. Berdin sendagille eta beste laguntzaille guztiak. Danak talde aundia osatzen dute eritegi bakoitzean. Eta gaiso bakoitza egunero askoren eskuetatik pasako da; baiña inñortok ez du izango gaixo orren

norkiaren ajolik. Zaintazailleen erantzunkizuna taldean urtutzen da eta gaixoa gelditzen zambaki edo numero bat besterik ez dala, nortasuna galduta eta zerki bat bezela. Zerki interesgarria ala arrunta; baiña, zerki uts bat bezela (caso clínico). Eritegi batean gaixoa ez de norki hat izango, persona bat izango. bere senide eta lagunentzako ez bada.

Eritegiak, osategiak, hispitalak teknika-bidea dute begien aurrean eta ikuspegi orretatik datorkie aurrerapena; goxotasunik, maitasunik eta gizatasunik gabe, ordea. Gai onetan ez du inñor an ez erantzunkizunik, ez ardurarik ere.

Millaka gaixo ditun eritegiak fabrika baten antza du: teknika onarekin lana saillean eta erretegi egiten da; baiña, sendagille bakoitza gaixo geiegi ikusiko ditu egunero eta gaixo bakoitzak sendagille eta erizai geiegi... Danen artean gaixoa utziko dute bere bakardadean bakarrik. Bere bildur, bere pena, bere buru-auste, bere larri-aldiekin... bakardadean bakarrik. Eta jendez inguraturik egon arren, eriotza etorriko zaio ixilka bere bakardade artan.

Hospital aundi batean azterketa bat egin zuten elizaiñen artean. Galdera auxe zan: —Nun nai zenduke il? Eta geien arantzuna: —Neure etxean, neure senitartean, lagunez inguraturik; ez beintzat onelako eritegi batean.

Elkarteak du errua, beste bideak baztertuz, teknika-bideetan bakarrik dabillelako. Sandegilleak, eurak ere, ez dakite zer egin il-zorian dagoenarekin lo-belarra ematea ez bada: konortea kendu eta burua galdu-erazi... Beste erremediorik ez dakite ez medikuek, ez beste erizaiñek ere.

Soka orretan sartzen dira, bear bada, ara joaten diran senitarteko eta lagunek, kapellauak berberak ere tarteko direla. Hispitaleko giroak, moltsoka gaixoak egoteak edo, ez du, nunbait, lan orretan asko laguntzen.

Pelikula italiar batean Sofia Loren agertzen da hospital aundi bateko moja eta berekin batera erizain komunista bat. Burruka sortzen da bien artean, zeñek il-zorian gaixoari obeto lagundu: mojatxoak bere otoitzeekin eta otoitza eragiñez; komunistak, berriz, eskutik elduz eta ondoan egonez bere kidekoekin.

Bien bitartean aukera kentzen zion mojatxoari, komunisteiri laguntzen etortzeko.

x

Gaur egun sekula baiño bakarrago iltzen zaizkigu gure gaixoak. Larritu orduko eritegira eramaten dizkigu eta inñor etxean geldit-

zen bada, ez dakigu ordu larri oietan laguntzeko zer egin ere, lo-belarra ematea ez bada. Ez dakigu nola lagundu eta zer jokabide erabilili.

Illetak ondu dira eta edertu; baiña, il-zorian dauden laguntza murriztu eginda. Lanik izaten zuten orain urte batzuek parrokietako apaizek larri-aldian zeuden gaixoeri laguntzen; orain, berriz, gaixoak hospitalera eta bertan iltzen dira geien bere etxetik eta bere girotik aparte, orixe geien zuten orduan.

Baziran gure erri txikietan zerora antzeko emakumetxoak ere laguntzen doi berezia zutenak, aldi orretan bereiziki. Aiek ere galdu ziran... Bearrik ere ez, ez bait inñor errian galditzen iltzeko...

Gure gizarteak ez dio, inñundik ere, eriotzari aurrez-aurre begiratu nai. Alegiñak egiten ditu eriotza etxean gertatu ez dedin eta, al bada, gorpua hospitalean eduki illeta-ordurarte. Orrela, "gaubela" egin bearrik ez. Garai batean eliza barruan edo elizondoan zeuden illerriak, urrutira eraman ditugu eta gorpua ixillean eraman gizartea konturatu ez dedin. Ez dezala eriotzaren arrastorik begien aurrean ikusi ere.

Gizakia onurak emateko dago munduan jarria eta goi-maillako produktibitateari euzteko. Orretarako gauza ez dana, erditik kendu, ez bait du ezertarako balio. Traste zaarrak ganbarara eramaten dira eta ganbararik ezean, zaborretara bota eta erre.

Eutanasia (eriotz-ona, eriotz-egokia) asmoi oietatik sortua dirudi. Baiña, orrela jokatzu "eriotz egokia"ren ordez "ilketa egokia" gerta litzake: esku garbiekin gizakia erail eta neu lasai gelditu... Tranpa-kale. Hospitalak sendategi izan bearrean, erioztegi gertatzen dira: matadero egokiak eta sendagillea, berriz, korridetako puntilleroa.

5

Gizon-emakumeek gizaki-erara iltzeko eskubidea dute eta eskubide orrek eskatzen du, gaixoak bere egoeraren berri jakitea; naiz, eta egoera ori larrira izan. Ezin lezaioke egi ori gaixoari ukatu. Eskubide ori berea du eta bere izateari dagokiona. Ezjakiñean gizakia iltzen uztea ez da jokabide zuzena.

Nork, noiz eta nola berri eman, ori beste arazo bat da. Neurriak artu bear gaixoaren gizatasunaren erara, apurka ala bete-betean, esateko; baiña, dana dala, egia esan. Ez dezagula beste aldera bialdu ezereen berri gabe.

Maitasunez eta kristau-fedez bear da.

Maitasunez eta otoitzez.

Otoitz egiten lagundu. Aldamenean egon, eskutik eldu eta laztandu, berarekin, berak alduen eran, otoitz egin... Ori bai dala ondo iltzen laguntzea. Kristauek, ordea, orrelako oiturak aztuta gahiltza. Gaixoaren aurrean zutik, ezer egin gabe, larri dagoanari begira... Laguntza eskasa da ori. Orretarako sukaldean egotea ohea litzake. Aldiko bat naikoa da, gaixoak besterik eskatzen ez badu.

Erioz Ona bide orretatik etorri lezake. Eutanasia, berriz, Erailtza Ona gertatuko da.

Oiek danak entzunda kezkatu gelditu ziran, urteetan aurrera bait zeuden. Nere nagusiak ni, Periko Fortuna naizen au, txoritxotako salduko nau egunen batean; baiña, bera ere, eta bere lagunek, egon dezakete kontuz: euren seme-alabak izan dira saltzailleak. Zeifiek erosiko ditu? Giza-aragia lukaiketarako, mitegia. Ez du ezertarako balio. Lurpean usteltzeko.

II.

Zaarren eriotzatik berrien eriotzara pasa ziran etenik gabe.

- Bai-zion Iñaki nere jabeak-gure auzolo Jospifisiren alaba gazteena Ingalaterrara joana degu

- Igelesez ikastera?

- Nungo munduan bizi aiz i, Anton Baxari? Orretara ez, beintzat.

- Zerfara, ba?

- Aurgaltzera

- Orretarako araiño joan bear da? Edozein atsok-dio Pelis Txortak-, sorgin oietako batek, egin lezaken lana deza...

- Ixilpean egiteko bai eta orrek arrisku asko ditu; Ingalaterran, ordea, aurgaltzea legez onartuta dago.

- Nola onartu lezateke ori? Lege ori onartu ezker, eutanasia ondoren dator eta orduan, errukarriak gu...

Peru Kirten sartu da sagardotegian eta entzun ditu alkarizketak:

- Zergatik onartu ez? Erri aurreratuenak onartzen dik orrelako lege bat; gaitzera, olatuaren aurre-puntan diranak, oiek, Erriaren diruetatik ordaintzen ditek lan ori...

- Eta, erriaren dirutik, geure dirutik, ordaindu bear ditugu besteen okerrak...?

- Zergatik ez? Ori emakumearen askatasunerako da.

- Bere askatasuna inoren kalterik, bere seme-alabeen eriotzetik... Aitzaki orrekin gizona gertatzen da benetako aske...

Iñakik, berea da sagardotegia, auzia erabaki du eta eztabaida ebaki:

- Emen daukat nik euskal aldizkari batean gai oneri buruz idatzi dutena. Arretaz entzun.

Aurgaltzea, amnistia eta askatasuna

Kirofanoa

Ilunbarra aurrera doa. Eguzkiak bere uregorrizko printzak galtzen ari dan neurrian, gauak bere estalki beltza kokatzen du izaki osoaren gainean... Goizeko izarra agertu ortzian, zero gau illundu baiño lenago: "Ez negarrik egin eguzkiak alde egin duela, malkoak ez dizute izarrik ikusten utzikota".

Sendagillearen egon-gelan zai dauden iru neskato auek ez dute izarri begiratzeko astirik; gau beltzak artu bait die biotza... Sabelean daramaten aurra galdu nai dute bera ezagutu aurretik, ezagututa gero damutu ez ditezten.

Arratsalde osoa daramate zai. Eurak etorri diranean, gela nezkatoz gainezka zegoen. "Cien mil mujeres siguen abortando en el extranjero" zion 1986garrengo abustuaren lan Donostiako egunkari batek.

Kirofanoan sendagillea eta bere lagunek izaridan daude eta ez bero dagoelako, lanaren poderioz baizik:

- Orratzak! Dio sendagilleak.

Eta orratza eskeintzen diote aurra zirikatzeko. Bursan barrena sartu dio, amaren sabelean gordeta dagoen aurrari, burnizko jostorratza. Aurra protesta bizian diardu. Ez alperrik. Preso daukate, loturik, amaren sabel biguñean, ain eskutuki goixo eta segurua zan sabel orretan. Lotuta daukate; eskapatu ezin eta jaiño baiño lenago, amaren erabakiz, il egin bear...

Gizon prestua izateko sortutako aurra, ez du argirik ikusiko. Bere amak eraman du eriotzara. Sendagillearen eskutik. Gizartea sendatzeko prestatu dan gizonak erail du. Zenbat diru txautu eta gastatu ditun gizarteak gizon ori sendagintzarako prestatzeko... Orretxek erail ditu amen seme-alabatxoak!

Aur-galdua eta bere aur-lagunak, oraindik epel eta dar-dar, zikinpotora bota dituzte. Ogei aldiz egindako erailketa egun onetan:

- Gaurko naikoa degu. Aspertu naiz.

Emakume laguntzaillea gerturatu zaio belarrira:

- Beste iru daude zai.

- Gaurkoz ez besterik ekarri. Nekez iguinduta gaude.

Aur-galduak eta aur-lagunak kosmetikagaiak omen dira, emakumearen azala leguntzeko eta elikatzeko oso egokiak. Bear bada ama orrek kosmetika-gantza erosten duanean, bere seme-alabarekin egindakoa gerta liteke; eurok lagunduko diote gorputz-azala lirain gordetzen... Zikin-pototik ontzi aundi batzuetara irauli dituzte eta aur-lagunak eten diranean, nauste berraste artan aur-galduak agertu dira eskutxuak gora dituztela, laguntza eske... Ez alperrik. Urreak arri biurtu dio gizakiari biotza. Askatasunaren izenean amak, irabaziaren izenean sendagilleak.

Ogei intziri larrik irten dute gaur goruntz gela onetatik, odol errugabe aun alde justizia eskatzen...

Manifestapena

Aurra galdu duten emekumeak kalera irteetan, manifestaldi batekin topo egin dute kalean: Amnistia orokorra, Presoak kalera, Eriotz-zorrik ez inoentzat... Orra zenbat gauza eskatzen dituzten... Gizon-emakumeek, alkarri eskuak emanez, katea osatu dute. Preso guztiak kaleratu nai dituzte. Giltzapeturik ez. Askatasuna danentzat, Eriotza inoentzat ere ez: eriotz-zorrik ez.

Bat-batean polizikoek agertu dira kaleertz batetik. Ango ankaotsa. Manifestaldikoek kale-zarrera jo dute. Burruka sortu da. Arrika batzuek esku-utsik eta fusillekin besteak pelota eta ke-potoak botatzen... Une batean kale-zaarrak guda-leku zirudian.

Presoak askatu ez eta libertatea kalceetan galdu. Askatasuna eskatzeko aña askatasunik ez da. Gizonak gizona menperatu. Aldunak alduan eran. Goikoak bekoari. Estaduak erriari. Indartsuak ergelari. Norbera libre izateko besteak katepean ipiñi, besteak giltzapetu, besteak zanpatu...

Besteen askatasuna eskatzeko eskubidea badegu. Bai, orixe. Erailde kriminalari ere errespetoa bear zaiola uste degu. Bai, orixe. Erailde-kriminala ez dala eraildua izan bear uste degu, eriotz-zigorren aurka gaudenok. Bai, orixe.

Baiña ama batek ere bere sabeleko aurri indarkeria egiten dio aur-galtzean: eriotz-raiño indarkeria. Kriminal bateri eriotzari eman bear ez bazaio, nola liteke aurra beuren amean sabeletan irailak izatea...! Eta, ama bateri eskubide ori ezagutzea...!? Eta ori gizarteak berak ordainduta...!?

Erailketa

Manifestalditik etxera bildu geranean, orduantxe ari ziran irratia eta telebista, biak

KONTU-KONTARI

batera. berri au ematen: atso xaarra erail zuen gaztea arrapatu dutela, alegia. Aitortu ere aitortu du. beste zazpi atso xaar illak ditula aurretik.

Bere jokabidea: Pasealekuetan ikusten zitun andratxoengana urbiltzen zan, bakarrik zeudetenean, oso ezagunak balitu bezela. Aurtzarotik ezagutzen zitun. Bere bakardade artan, andratxoa poztu egiten zan orrelako ezaupide batekin eta ar-emanetan asi. Gazteak konfiantza osoa lortzen zunean. etxera joaten zitzaion laguntzera eta denbora pasa. Eraman aundiz jokatzeko zuan eta apurka-apurka ikasten zuan nun zeuzkan andratxoak here dirutxuak gordeta. Aurrezki-kutxak baiño bi aldiz geiago emango zion berak korritu bezela. Eman ere bai. Diruak eta beste gaiñontzeko aberastasunak bereganatzen zituanean, andratxoa baiñura joaten zan batean. sartu eta lepezamarretik elduz, ur-azpian itoten zuan.

Andratxoa etxetik irteten ez zuela auzo-koek konturatzerako, pasa oi ziran iru edo lau egun. Bitarte orretan gure gaztea andik urrutian beste amonaxto baterekin artu-emanetan asita zegoen...

– Eriotza zor zaio. Dio Fiskalak.

Baiña. eriotzaren aurkako manifestaldia kalean dabillen artean, ez zaio erreza izango fiskalari, gaztea eriotzara eramatea... Eriotza batengatik beste eriotza bat eskatzea, alperrikako gauza bait da: bizitzarako eskubidea izanik gizakiaren eskubiderik oiñarrizkoena. Aurgalduari ukatzen zaiona.

Egoi-aizea. zoro-aizea, sorgin-aizea. Orra iru izen: kostaldean, berriz, erreka-aizea. Egoi-aizeak eta illargi beteak alkar jotzen dutenean, orduan izaten da gure burugarunetan alako ari-eten eta lotura-askatze bereizia... irudimenaren ganbara puztu. goiak arrotu eta zorabioa sortutzeko moduan.

Gaur il-hete eta ego-aize.

Eriotz-zorraren aurkako manifestaldiak, amnistiaren aldekoekin tipo egin du Barrenkalean. Jende-moltsoak kaleak bete dabilta, erlauntzaren zurrumurrua sortuz gorutz datorren eta teillatutik teillatura zabalitzen dana laino baten itxuran... Bi manifestaldi naikoak ez dirala, Emakume Askatuek sortu dute irugarrena Goikolatetik Barrenkalera oiuka:

– Emakumea, kateak eten. Aur-galtzea libro. Aur-galtzearen eskubidea, askatasunaren gaillurra...

Kriminalari eriotzik ez. Amaren sabeleko aurrari eriotza bai. Preso dagoen gaizkille guztiei, askatasuna... Orra zer konpota eder... Orra zer saski-naski trakets... Zer naaste-

borraste ikaragarri... Gaizkillearen bizia gorde artarako eskubidea ematen diogulako eta une berean, aur errugabearen eriotza eskatu, amaren askatasuna dala aitzaki...

Gure gizarte au erotasunari emana dirudi.

Sortutako aurrak askoz geiago galtzen omen dira, jaiogaiño aur-galdu auentzat betetzen da Joberen aieneka:

Utikan nere sor-eguna eta 'sein arra sortu da' zioten gana. Egun ura itzali bedi. goitik Jainkoak ez dezaiola hegira ez eta argiak bere izpirik eman aren gaiñera... Gau artaz illunbea jabetu bedi... goi-izarrak ez bekio bere argirik eman. Zergaitik ez nintzan umontzitik arat amasabeletik sortzean bizia galdurik? Zergaitik, aitaren belaunak nere zai zeuden eta amaren ugatz biak ni azteko gerturik? Orain nare nintzake, Iotan atsedeten...

Gentza eta pakea bere bizi osoan nabari izan zuenak esaten ditu itz negargarri oiek kortako gorotzetan neke miñez etzanda dagoenean; lenago zorionez gaiñezka eta orain erio-samingarri baten zai... Bizitzan, ordea, argia berriro piztu zitzaion eta madarikapen oiek ukatu. Eguna berriz ere, gau beltzaren ondoren. piztu zitzaion. Jainkoari barkapen eskatzen dio eta eskerrak ematen kantari.

Madarikapenak bedeinkapen biurtzen aukerarik ez zaie, Job'eri bezela. ematen milloika eta milloika aurreiri: bein betirako irailak. beste aukerarik gabe.

Bera mundura ekarri zuen emakumearen askatasunaren izenean...! Kateak autsi. semeari buruan mazoakin emanez.

Libertade merkea!

Arazo oneri buruz, ona ipui zaar bat:

Iniuxente egunean eun aurtxo gerturatzen omen ziran Herodes'en illobira: Belen'en illerazi zitun umetxoen animak. Alkarri eskuak emanda Herodes'en illobiaren inguruan dantzan eta kantari iltzaillea madarikatzen... Herodes, izuak artuta, iges doa eta aurrek bere ondoren garraixika. Zorabio artan lapur-zulo batean sartzen da: baiña, lapurrek bere zulo artatik makilka ataratzen dute, ez bait dute euren artean orrelako gizon ankerrik eta zitalik nai. Lapurrak dira eta lapurretan egiten dute: tarteka, besterik izeñean, odola ere ixuritzen dute. Aunak erail ordea, beste arazo bat da eta eurok ez

dute orrelako biotz beltzik... Andik irten eta eroturik korrika itsas-lapurren ontzira salto egiten du, aurrak ondoren ditula. Kapitanak ezpata-muturra ipintzen dio Herodes'ri ^{errian} eta kanpora ateratzen du asarre bizi. Begi bakarria izan arren eta errena. oietxek izaki bere eginkizunaren señalirik onenak, aurrak erailtzea ez da bere lana, naiz-eta tarteka barkuan ondoratu. Baiña. burruka leia batean, begia eta anka galtzeko arriskuan... Aurrak erailtzea, ordea, arrisku gabeko lan negargarri bat besterik ez da:

Kanpora nere barkutik biotz gabeko gizakume ustel ori...!

Igeska doa berriro errian zear eta estutasun artan etxetxo baten atea iriki eta barrura sartu da babes billa. Une artan sorgin antzeko emekume zikin batek jostorraz luzea du bere eskuetan, ogean dagoen ama gazteak sabelean daraman aurtxoari, sartzeko. Ori ikustean Herodes'ek burua jasotzen du arro:

– Ni ez nintzan zuen ama. Ama orrek berak galtzen du here aurra! Umetxoek. burua makur eta malkoak begietan, bakoitza bere illobira. Arrezkero pakean omen da Herodes.

Gogorak iruditu zitzairen Iñakiren itzak eta bereala ziran ez eta bai. Ni bien bitartean lasai: guk ez ditugu geure aurrak galtzen berezko okerkeriren bat ez bada. Astoak gerala eta astakeriak egiten ditugula... Esker-rrak gizon sortu ez nindutela: bestela gizon

Oiek bai dirala benetako okerkeriak. Nagon asto. Anton Baxarrik eman zion mintzairari asiera:

– Esandako itz oiek gogorak dituk benetan oiek orrela al dira?

– Zer iruditzen zaik? Dira ala ez dira? Iñakik erantzun.

– Bai, ala ematen dik: baiña jendea ez zegok orrekin konforme...

– Konforme ez egon arren-zion Anton Kalek-izan ala dituk, naiz-eta askatasunaren ikurriñaren azpian zatorkeri asko gorde...

Zer zatorkeri...? Anton Baxarrik.

– Norberekeria ugari: ni ondo izan ezkerro, besteak orkonpon. Anton Kalek.

– Geure burua maite, beste guztien kaltean bada ere. Iñakik.

Jainko txiki orreri eskeintzen diogu baita geure semeen bizia ere... Ori bai dala benetako Molok.

– Anton Kale, eta nor dek Molik ori? Anton Baxarrik.

– Israel inguruko errien jainko txiki bat.

– Eta. zer egiten zioten ba jainko orreri?

– Bere brontzeko irudia sutan goritu eta seme-alabatxoak berari bota bertan erre zitezen.

—Ori bai dala astakaria, ori!

—Eta. aurgaltzea astakeri txikigoa al da? Iñakik.

Nik, nere jabearen aotik, oiek entzutean ekin nion arrantzaka ikuilluan. protesta bizian: guk ez degu orrelako gizonkeririk egiten...! Nere nagusi kopeta aundia kortan sartu eta makilka asi zitzaidan. ni ixil arazteko. Ni. berriz. ari ostikoka. Artan amaitu zan hart arratseko billera. Asarre jeiki da nere aurka Iñaki, arazoa bukatzeke utzi zutelako. Gaur bilduko omen dira herriro.

Bildu dira gaur berriro nik esan bezela. Atzo erabillitakoari eldu diote, baiña giroa ostuta zegoen. Gaiari amaiera emateko one-lia zion Iñakik:

—Dana dala eta dena den, ibilli oker aietatik etorri zitzaion pakea Herodes'eri.

Pelix Txortak erantzun:

—Pakean utziko zuten aurrek, baiña ez bere konzienziak...

—Konzienzia —Anton Baxarrik— berdea zan eta astoak jan omen zuan.

Ori entzutean ekion diot arrantzaka: gizakumeak okerra egiten duen bakoitzean, zergaitik ateratzen gaitue platerera...?

Iñakik orru egin zidan sagardotegitik:

—Ago ixillik. Periko. sekulako pasadea artu nai ez badek!

Ixildu bearko eta ixildu naiz, makilka ilko nau bestela. Beiña Pelix Txorta ixilduko duenik ez dago. esatekorik duenean. Eta gaur esateko dago. Gerratean entzundako gertakizuna dakar maira.

Kontuak

Egun gorriak ziran egun aiek.

Erri osoak kamiñoetan zear, nora ez zekitel, euren aberastasun apurrak bizkarrean zituztela. Geienak andrazko, ume eta agurreak ziran. Gaztedia eta gizaseme gordiñak mendietatik zebiltzen, armak eskuetan...

Anai-arteko burruka beltz iguingarria. Guda legorra. Odolez gorri, bekaitzez illun. Malko mingotzak begietan... Gose eta egarri. Bero eta otz. Aterperik eza. Kamiño bazterretan lo...

Mendietan arerio zital errukigabea, jaun eta jabe.

—Cien a ochenta! Cien a ochenta!

Zenien aide...?

—Gorrien aide.

—Bai.

Laterriaren kapitaleko irratian Prieto jauna:

—Gu gera nagusi, gu garaille! Ona emen gure armak...

Ontzako-urreen tin-tina. iratiaren bidez, erri guztietara. sukalde guztietara... Urrea gorri bait zan... Udiñek ez zuten deusik.

—Zuek ez zerate ezer. urre-gorria gurea bait da...!

Urre-gorritik kanpo bada besterik, ordea.

Egun artan urregorridunak aurretik igeska eta urdiñek ondoren aurrekoak arrapanaiean. "No pasarán" bide-ertzetako ormeetan. Esan bearra dago, Espaiñiako urregorriak Madrid'en zeudela eta ez Euskadin. Emen ez diru. ez egazkin eta eskuetako armak ere oso urri.

"Detente bala, el Corazón de Jesús está conmigo" erasoka zetozenen kaki koloreko soiñoekoetan... Naparrak geienak. Oietako batek iru arrasto ori gerreraren esku-muturrean: brigada-maillako adierazgarria:

—Etorri zera berriro, Petrikorena?

—Bai, gizona. Makiña bat egun larri pasa dugu.

—Nundik zatoz?

—Bizkaitik, Lemonako aitzetatik.

—Ara año eldu zerazte?

—Neke eta odol-ixurtze ugari bitartean...

—Ainbeste...?

—Odolez ditut eskuak zikindu.

Begiak zitun larri, beuron zuloetatik irten bearrean. Barruko larriak eragiten zion mingaiñari. Itz-jario gendukan gau artan eta pattarretan barruko arra il nai. Taberna zuloan geuden berarekin iru lagun zaar. Barubarruko korapilloa askatu nai. Karga aztuna estomago-zuloan. Gonbito-larria eta nora-ara bota bear zikin aiek. Gu gerta giñan zikin-zulo.

—Zazpi illebeta dira guk emendik aide egin genduela...

—Zazpi illebeta luze.

—Zuk ez dakizu ondo...! Negu osoa mendian aterperik gabe. Eurria eta bisutza, elurra eta kaskabarra... Ezurretaraiño bustiak. otza ezur-muiñetan eta izotza animaren biotz-erdian: eozkor eta legor. Espirituaren toleste izkutuenean gure aingerua illik... Deabruaren menpean...

—Zer ari zeran, gizon...!?

—Guda anker onek maitasuna antzutu digu biotzean eta pizti nazkagarrien antzeko egin gaitu.

—Ez dizut tutik entenditzen.

Gerratean ezagutu nuen Petrikorena. Ezaupidea bai, besterik ez; beartuta egin bait

ninduen curen arteko eta euren mendeko. Arrituta nengoen ark neri esan bearrekin. Begiak zeuzkan urrutian, beuren zulotik irtetzeko zorian: ezpaitetako ertzak txistu-appearrez, hiboteko illeak dar-dar. ames-larrian erortzeko larri:

—Aizu. etxeoandrea, kopatxo Nana pátar ondoezak emango dio bestela-ta.

—Utsune illun batean erori nai nuke eta an illunpeetan neure burua galdu...

Zer ari zera? Zer dezu?

—Ezin dut burutik kendu.

Zer da. baiña, burutik kendu nai dezun on...?

Aurpegiko giamrak eten bearrean, zimurak sakoni eta luze gora-ta-bera bekoki eta matrail-egur inguru guztian...

Tinko.

Leertzeko zorian.

Zubi ondo batean giñan. gure buruak erreka malkarrean gorderik, oiñak udetan. Egun-sentiaren argia, sutautsaren kolorea galdurik. urdiñez jazten ari zan. Txoriak beuren ezarriak ganbitzen, egunari agur egiteko. Izaki guztietan Udaberria nabari. geure biotzetan ezik. Begiak mendi aren gaillurrean genduzkan josita, aitzaren erpiñean... Goi aretan bazan ezer, guz ez jakin, ordea, zer.

—Zenbat ziñaten?

Gizaseme asko. Millaka. Bat-batean kañoi-burrunda aidean. Mendi-inguru osoa sutan. Ke-mordoak. perrikoen antzera, sortzen ziran gaillur aretan kañoisoiñu bakoi-tzeko...

—Musika ederra

Ondoren ogeita amar egazti aitzetatik zear beuren bonbak botatzen.

Baillara osoa zarata-oiartzunez bete zan eta biotzeko korapilla zarata aretxek lasaitzen zigun. Nola argizari itzal-berriak keia darion, ala millaka kandeleen keiak Lemonako aitzetatik zerurantz. Izugarriko zumnu-mummu aren ondoren. ixilla. Txoritxuak izu eta mutu. Egun-sentia epel eta ixo. Errekako ur gardenak marmarioka itsasoruntz. Beste otsik, ez inguru guzian...

—Eta. zuek?

Gu mendi-totorrera begira, bizirik ote zan iñor.

—Luze iraun zuten bonbardeoak?

—Kañoi eta egazkiñez ordu pare bateko lana egin zuten. Turutak urratu zuan ixil-aldi, jeiki nintzan lurretik eta mutillak ondoren nitula, ekin nion mendiko egaletik gora. Ez zan ikusten ezer ez-eta sentitzen ere... Ames batetik bezela, ametralladora batek esnatu nindun ta-ta-ta-ta-ta-ta-ta... Ondoren garraxia, aiena, madarikazioa...

KONTU-KONTARI

- Eta...?

Lurrari itsatsita gelditu giñan, al zuanak al zuan tokian. Laparik ez da selulan atzari josi guk lurrari eldu giñun bezela... Oraindik ere bizi dituk madarikatu oiek... Burua jasotzen zuanari zuloa egiten zioten txapelean...

Belar-izpi batek egiten zidan kili-kili sudur-zuloetan... Lurraren usaia bai usai gozoa eta sentikorra; ama lurraren babesak gordetzen nindun bere magalean.

Lur-ikara batek azpia jango balidake...? Orduantxe susmatu nuen lur-erdibitze baten ikaragarria. Lurraren segurantzaz galduta, an galtzen dira gizonaren ziurtasun guztiak. Lurraren ziurtasunak ematen dio gizonari bere segurantzaz.

- Luzaro egon ziñeten mogitzeke?

- Ordu luzeak lurren gaiñean etzanik.

- Noiz arte?

İñularrean turuta otsa berriro: errekarra berriz ere izkutu billa. Gau osoa ibaiaren babesean izarreiri begira. Amabiak inguru izango zan illargia mendigaiñetik agertu zitzaigunean. Il-gora. Izotza. Ez jan eta ez lo. Errekako ura edateko. Esku-oiñak izoztuta eta burua galdatan. Ames eta esnai, lokuluska batzuek egin nituen.

- Gaua luze?

Bai eta eguna zabaltzeko bildur. Biddurrakin batera, zirt edo zart egiteko gogoia eta irrika. Goizaldean kañoiak eta egazkiñak atzo baiño areago: Lemonako aitzak inpernuko ate.

- Lagun berririk?

Oste berriak etorri ziran, batallaoui geiagi. Guztiok mendira, bata bestearen ondoren. Eldu gera maldan gora erdiraino. Lurraren kontra arnasa apur bat artu eta, gora mutillak...! Eun metro egin baiño lenen gure elkarteko amaika lagun galduta daude: ogeita amarretik, amaika. Zeiñ elduko da goraiño?

Ainbeste bonbardeo eta oraindik bizi ziran?

Bai, bizi ziran; ez dakit nola. Goienengo gaillurrak zuloz beterik zeuden. Une artan eguerdi-eguerdia zan eta eguzkiak nolabait ere berotzen zuan apurxo bat. Arri baten babespean gordetzen nuan neure burua. Eguzki epeletan tiroak aide guzitik... Zein ederra dan bizia; nik, ordea, egoera artan bizitzarako itxaropenik ez. Etorkizuna beltzez agertzen zitzaidan goiz artan; aurrean nuen orma beltz aundia igaro eziñan zan. Eguzki argitsua azalean, illuna biotzaren erdian...

- Zer jokabide izan zenduten?

- Arriskuan gaude denok, pentsa nuan eta kañoiak ekin diote berriro goiko

amallan. Egarri naiz; ai beko ur gardena banu

edateko... Sukarra odoletan eta txorabioa buruan. Jeiki naiz: goraiño mutilla, gaillurreraino...! Jeiki eta etzan, zoro baten antzera, beti babes baten billa... Tiroa eskubitik eta tiroa ezkerretik, esku-bonbak arrika nun nai... Eldu gera goraiño eta gure etsaiak ige-si dijoaz... Gurea da garaipena! Gora gu eta gutarrak! Aurrean zanga-zuloak; argaletik indarrak atera eta salto baten sartu naiz barrura pistola eskuan dedala. Ni ikustean:

"Confesión!" deadar eritutako etsasi batek.

"Que te confiese tu padre!" esanez bost bala sartu nizkion buruan.

* * *

Arnasa barru-barrutik artu du nere lagun onek eta arpegiko tinkoa lasaitu zaio, burua makur... Etsaiari ukatu zion konfesioa, berorrek bear, gizarajo orrek. Badu bere bizitzarako naiko atsekabe eta konzintziko aztun

Sagarditegikoak ixilik entzun istoriaren amaiera. Une baten ondoren Anton Kalek artu zuan itza:

- Ori benetan gertatu zan?

Lemonako aitzak urdiñek artu zuten egunean.

- Gogortxo dek.

- Eta gerra ura zer izan zan, gogorkeriz asetako guda zital bat besterik?

Orduko okerkeriak amaierarik ez dute: sinisgabeko ateak egiñak aundiak izan badira, gurutzedunek egindakoak ez dira atzean galditzen. Aien okerkeriak berrogei urteen zear milla modutara entzunda dauzkagu; baiña, urdiñek egindakoen berri tokian tokikoek bakarrik jakin izan dituzte...

Bai, orduan ezaguera zutenek erailtze asko ikusi edo entzun izan dituzte gure artean, kamiokada gizaseme amiltegian bera botatzea bezelakoak...

Gure errietako edozein kirtenek egin dezake orrelakoak eta egin dituzte; baiña, kapellau bateri entzunda daukat "Brigadas Internacionales" oietako saldadu polako bateri gudazale kristauak egiña...

- Zer zan, ba...?

Erasoaldi batean preso artu zuten eta sokaz barrabilletatik lotuta erabilli ondoren, ametralladora baten ankakin errematatu.

- Ezin liteke ori orrela izan.

Nik ez det asmatu. Entzundakoa esaten det itzez-itzez. Eta arek ez zuan penaz esaten, kontakizun xeble baten antzera baizik. Ez ziran karpeto-betonikoak; guretarrak baizik.

Anton Kalek:

Ikaragarriak izan gaituk, onbidetik bezela txarbidetik ere. Loiolako İñigo eta Xabierko Prantriskorekin batera agertzen zaigu Lope de Aguirre "El Traidor", Araoz'ko semea, Felipe Agarren aurka jeiki zana, eriotza zabalduz bere inguru gurtian. Irurak, bakoitza bere bidetik, aundiak. Badira kaskarrak ere biotzgabeak. Ona mixiolari batzueri gertatua:

Katu beltz

Urte asko dira Euskalerrria Ameriketara begira asi zanetik, ango erri atzeratuari Kristautasun bidean laguntzeko. Gazteizko Eliz aurretik, mixiolariak bidaltzen asi zan. Naparroak ere bialdu izan ditu; baiña, bere kasa jokatu du beti gauza auetan bezela besteetan ere.

Mixiolari artean Euskalerritik Ameriketara eta andik onerako joan-etorria ugaritu ziran. Ekuador'eko Los Rios probintzia aukeratu zuten asierarako. Geroago El Oro'ra zabaldu ziran. Andik Manabi'ra, Venezuelara, Brasil'era, Angola'ra, Ruanda'ra... Nora ez?

Ekuador Ego-ameriketara dago. Curacao, itsas-ertzeke erri aundi eta naasia, zan Euskalerritik arako bidean tarteko. Bere moilletan enda eta arraza guztietako kristauak billa zizezkean: esnea bezin zuri eta kafea bezin beltz. Baita kafe-esne kolorekoak ere: mulato eta kriollo, enda guzieren ondorenak.

Egun artan bi mixiolari, itsas-ontzitik irtenda, moilletan itzjario:

- Zenbat euskaldunen oiñek zapaldu ote dituzte moilla auek...?

- Cristobal Colon'ekin asi, bere barkuko euskaldunekin, eta arrezkeroko etengabeko errenkada luzea...

Geu ere aien tartekoak gaituk.

Izan ere euskaldunok ez gaituk jaio gelditako.

Lurraldean eman zigun Jainkoak eder. Millaka urteetan egon gaituk Auñamendiri itsatsita bezela geldi; Geure jatorria mendiarri lotutako baserrietan zeukagu... Zer arrano gertatzen zaiguk...?

Biotza urduri eta eziñ-egona zaiñetan; lur zabalagoak bear, nun bait.

Bai, gizona. Millaka urteetan geldi egoteko kapaz gaituk. Bitartean, ordea, mundu borobillari buelta osoa emango dion euskaldunik, gogora zak Elkano getariarra, ez dek egundo faltako Euskalerrrian...

İllargian ere ataudarren bat ba omen da, diotenez...

—Tipoloji gaicko ikerketa bat egiteko ez giñake gu elemento txarrak izango, etxetik kanpora gabiltzanotik asita...

—Euskaldunok, beste erri askok bezela, badiagu guk ere berezko jatorrasun bat odolak emana...

—Izketan ari aizela Uzkudun zetorkidak burura eta bera bezelako indartsu asko. Karga jasotzen eta aizkoran iñor ez bezelakoak...

—Boxeoan ere Europako txapeldunik ez dek gure artean falta.

—Gorputz tinko lerdena eta bei batek aña indar. Orrelako tipoak maiz jaiotzen dituk gure mendietan...

"Arta-buru" galantak ere bai; baiña, baita ere buru argikoak eta ez bat ere tontoa, bizkorra eta maltzurra...

—Zenbat orrelako sortzen ditu gure lurrak...

—Gure baseritik lurralde zabal auetara ekarri eta emen bota libertade osoan... Eta, zer gertatzen ote da?

—Kirten galanta izateko aukera ederra.
—Bakita Bolibar baten antzeko.

* * *

Izketan ari zirala, ikatza baiño beltzago-ko emakume gazte bat aldamenen jarri zi-

tzaien eurari begira-begira eta esaten zutena entzun naiean... Mintzo andreak:

Zuek euskaldunak zerazte

—Nundik antz eman diguzu...?

—Tankeran eta izkeran. (Andrea erderaz ari zan).

—Euskeraz al dakizu?

—Ez, ez dakit askotan entzun arren.

Zuek beste jaun batekin erderaz ari izan zerate; bakarrik geldi zeratenean, ordea, beste mintzo bateri eldu diozute...

Euskeraren antza artu diot. Gaiñera zuek nere gizonaren antzekoak zerazte...

—Bai?

—Bai, jauna. Arren tankera eta itxura dezute biok.

—Euskalduna al dezu ba gizona...?

—Bai, euskalduna nuen.

—Ilda daukazu?

Ez.

—Gizona euskalduna "zendula" esan diguzu...

—Euskalduna nuen, bai. Gaur nere aldamenetik joana det eta ez dakit nora. Alde egin zidala, orixe bai, badakit.

—Besterik gabe utzi al zaitu?

—Bai.

Ori jokabide eskasa da...

—Neretako ona zan.

—Ez du orrelakorik ematen...

—Nik asko maite nuen. Nere semetxo au berea da.

Ori esatearekin batera, bere semetxoa erakusten die: bel-beltza; kirkirra baiño beltzago.

—Berea da...?

—Bai, berea da.

—Bere aurrekoen antzik ez du.

—Nere aurrekoena bai, ordea. Eta semea biona degu.

—Zer izen du?

—Izen euskalduna.

Euskalduna, e...!

—Aitak zionez, bai.

—Eta, zer izen?

—Katu-beltz.

Guk, astuok, astakeriak egiten ditugula esango du gizonak; baiña, orrelako gizonkeririk ez degu guk sekula egingo: katua-izena ipiñi bere semetxo bateri, alazankoa...! Bere ondorengo bat katu-maillara jetxi...!? Noizko dute gizatasuna eta arrotasuna...? Utikan gizona! Lotuta naukatelako; bestela alde egin nuan... Bai orixe... Gizona al da izaki guztien errege...!? Nagon asto.

(Periko Fortuna)

IPUIN-SARIKETA 1996 (BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN)

Urte guztietan lez, auten be Euskerazaleak Alkartek Ipuin-Sariketa eratzen dau, baiña aurten sariketa au Aita Santi Onaindia'ren omenez izango da eta ipuiñak edo idaz-lanak bere giroan izatea nai ganduke. Ona emen urte guztietako egitaraua:

Ipuñak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearko dabe eta idazkerea, EUSKERAZAIN-TZA'k argitaratua eta ZER aldiskarian erabilten dana.

—Ipuñak asmatuikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.

—Luzera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER'en argitaratuko dira.

Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.

—Azillaren azkenerako EUSKARAZALEAK ALKARTEA'ren etxean (Bilbao'ko Colon de Larreategi, 14, 2^a eskois) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta ZER'en agertuko da, urterrillean, baita DEIA Egunkarian be albat lasterren.

—Sariak lau izango dira:

1° 40.000 pezeta.

2° 30.000 pezeta.

3° 20.000 pezeta.

4° 10.000 pezeta.

Ipuñak izen ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.

OARRA: Epea abenduaren azkenera-arte luzatzen da.

EUSKERAZALEAK

AUGUSTIN ZUBIKARAI'REN AKADEMI-SARRERARI ERANTZUNA (IRAILLA. 1992)

Augustin'ek Ondarru'ko berba eta itzen aberastasuna, egokitasuna eta bizitasuna erakutsi dauzku: baña, berak esan dabenez "Izkuntza ez da bakarririk itzekaz, berbekaz osatzen. Orrez gain izkuntzak bere egitura dau, Ez uste erderazko berba batzuk sartuarren izkuntza erdera biurtzen danik...." Eta arazo orretan ondarrutarrok euskaldunak zarie.

Euskereak badu bere sena eta bere pentsa-molde berezia erdera guztietatik oso alderantziz dabillena. Euskaldun jator direnak, erdera gutxi dakite-nean, euskerakadak botatzen dituzte galantak, erderaz ari diranean. Etorri zan nere errira inguruko baserriar bat eta illea mozten irabasten eban bere aloguera. Lagun batek galdetu eutzon:

-Praixku, ¿qué haces en este pueblo?

_ Yo pelo cortando. Erantzun zion. Arrezkero "pelocortando" deituten eutzen.

Praixku'k, euskeraren egituraz pentsa "illea mozten" eta, erderazko itzakin esan: "pelo cortando"; erderaz, berriz, esan bearko leuke "cortando el pelo". Zumarraga'n, Santa Luzi eguneko asto-azokan, alderantziz gertatzen zan: ijitoak etortzen ziran astoei illea moztera eta onela esan oi zuten: "Ni motxa-illea" eta izen orregaz ezagutzen ebezen. Baserriarrek "pelo cortando" esatean berba erdaldunak erabiltzen ebezan, baña esaera euskalduna: ijitoak, berriz, "Ni motxa illea", itzak euskaldunak baña esaera erdalduna (Yo corto pelo). Erri orretan bertantxe, orain berrogeta amar urte, erderaz ari zirala, onela esan oi zuten: "Quién si sería y..... " Zein ote zan eta.... Eta Lazkao'n, "bakoitza beriakin esateko" onela esaten eban: Cada suyo con él. Esaera au, erdera utsean, entenditzerik ez dago. Nork ez du onelakorik entzun: "Once para ver hemos nacido y" amaika ikusteko jaiok gaituk, esateko?.

Bazan trikitixako kanta bat onela: "Debajo de la torre de la campana (bis) /está matando pulgas la sacristana / Ay ay ay la sacristana...." Kanta onen asmatzallee euskaldun jatorra zan, bestela onela esango eban: Debajo de la torre de la campana....Euskeraren egitura du orrek: Torreko kanpaiaren (azpian) : De la torre de la campana (debajo). Erderaz: (Debajo) de la campana de la torre.

Ona Lekeitio'n gure gerratean gertatua: Nere amama Pillipa Aranburu oso lodia zan eta bere lagun Gergori ere bai. Egun batez Franco'ren "Cervera" gerra-barkua inguratu zan kai-aurrea eta eliz-torreko kanpaiak asi ziran dilindalan abixua emoten. Nere osaba Joxe-Pelix'ek taxis bat eukan, artun bere sendia eta Gergori, eta erritik kanpo irten eban aitz-zulo batzuetara. Bi andre

totoluak, Pillipa eta Gergori, ez zuten nai izan kobara igoterik eta kotxe-barruan gelditu ziran.

Orretan dagozala, ara nun datorren eurakana miliziano taldetxo bat. Miliziano erdaldunak barrukoei: -Qué hacen ustedes aquí? Barrukoek ixilik. - Pero, ¿qué hacen aquí? Orduan, Gergori'k nere amamari: -Berba eixu Pillipa. Baña, Pillipa'k berbarik be ez. Orretan, Gergori bera asi zan itz egiten: - Este señora, de hijo de auto, no poder ser andar.- ¿Qué dice usted, señora, que no le entiendo nada? -Hombre, hombre, fácil, fácil (astiro-astiro eta berbak banan-banan esanaz): Este señora de hijo de auto.....

Miliziano aien algara eta parriak Lekeitio'tik entzutekoak ziran. Andikaldi batera, gertaera gogoratuz, onela esaten euztan Gergorik: -Miliziano arrek tontuak ziran, nik errezago esan ezin: Este señora de (Andre onen) hijo de (semearen) automobilla (auto) eta ain garbi esanda be, ez eben ezer entziditen.

Bere esan-aldia erderazko berbekin jantzi eban Gergori'k, baña, alaz be, Gergori euskeraz ari zan eta orregaitik miliziano erdaldunek ez eben ezer ulertu. Gudari euskaldunak izan ba'lira, erdera ori ulertuko eben, euskeraren bidetik; baña, erdera utsetik, berbeta ori entziditzerik ez dago.

Euskera eta Erderaren joka-bideak ez dira berdiñak. Gergori'ren esanaldia Euskeraren joka-bidetik zijoan: Lenengo asi zan an bertan zegoen Pillipa'ren gandik, gero bere semearen gandik eta aizkenean semearen automobillarekin amaitu eban: El auto del hijo de esta señora. Automobilletik asi, semearengana jo eta andrearekin amaitu. Dana alderantziz.

Ez al zan egokiago an bertan zegoen amaregandik astea? Ama onek bazuan semea eta semeak automobilla. Orra lojikaz eta sentzunez betetako berba-jokoa: andre onen semearen automobilla. Erderaz, berriz, automobillengandik asten da, gero semearengana jotzeko eta azkenin amarengana: El auto del hijo de esta señora.

Gergori'k erdera gutxi zekien; baña, Amoroto'n jaioa izanik, burua zeukan euskeraz moldatua eta euskera-moldea irteten euzton erderaz ari zan bakoitzean. Gerratean, bein nor zan galdetu eutzen. Eta onela erantzun zion erdaldunari: -Arriba La Churrera Gergori la gorda, siete milicianos lavar, siete milicianos colgar en el balcón. Onek danok euskera utsean esanak daude; erderaz onela erantzungo zuen: Yo soy Gergori la gorda, vivo arriba de La Churrera, lavo la ropa de siete milicianos y cuelgo esa ropa en el balcón.

Erderazko izkuntza-legeetan lenengo ipiñi bear da Nor dan edo Nork egiten duan; gero aditza eta ondoren zer dan edo Zer egiten duen; eta, ostean, beste aditzaren osagarriak. Baña, euskeraren legeak beste era batekoak dira. Gergori'ren arazo onetan zer zan Gergori'k azpimarratu nai zuena? Zazpi milizianoen jantziak garbitzen ebazala, eta ori aditzaren aurrean ipiñi bear da. Orixe egiten du Gergorik: Siete milicianos lavar, siete milicianos colgar.... euskera utsean ari balitz bezala.

Euskeraren jokabide onen garrantzia azpimarratu du Augustin'ek bere lanaren asieran: Euskeraren joko-garbia gordetzen dan bitartean erderazko itzak sartzeak ez duela aibesteko garrantzirik. Gaurko egunez, ordea, Euskeraren joko berezia dago kinkan eta arriskuan. Asko dagoz gure artean, Euskera arloan, kursillo batzuetan izan diralako, euren buruak maixutat daukatenak, naiz eta euren buruak erdaldun iraun. Eta, orrela euskerazko itzetan

bilduta sartzten digute erderaren pentsa-moldea eta jokabidea. Euskera-aritzaren mamian erdal-sitsa sartzten ari zaigu eta orretxek ilko du betirako Euskera, eta bere ordeaz Erdera emango digute euskal berbez jantzia. Irakurri egizuez egunkarietan agertzen diran iragarkiak (Udal-etxe, Foru-Aldundi, Jaurlaritza eta bestelakoena) eta, erderaz idatzita dagoena irakurtzen ez badozu, euskera utsekin ez dozu ulertuko zer esan nai daben. Gisa-orretako idazleak ugaritzen ari dira erdaldunentzat, euskaldun utsak ez bai die tutik entenditzen. Auxe bai dala benetako tamala!

ANES ARRINDA



AUR-EZIKETA (3)

Soiña bakarrik ez dau Juantxo-txikik; badau bere barruan bizia be eta ez edozelakoa. Ez azi-eragiten dautson zugaitzaren bizia bakarrik. Barre eragiten dautsoen begi urdin orreik ba-dabe besterik...

Zugaitza lez azi, abereak lez sentidu, aingeruak lez pentsau eta maitatu. Orra zenbat gauza. Orra Juantxo-txiki zurea: animalia eta aingerua, soiña eta gogoa, gorputza eta arima...

* * *

Soiña eta gogoa biak alkarregaz bat eginda bizi dira. Alkarrenganako eginda dagoz. Gogoa soiñaren leioetatik begira daukagu eta leio orreik sentsumenak dozuz. Gogoa, espiritua, arima, gorputzaren barruan sartuta dago eta kanpora urteteko soiñaren sentsumenak bear ditu. Orreik dira leioak.

Umearen leiorik zabalenak bi oneik dozuz: begiak eta belarriak.

Esaera zaarrak diñonez: 'umeak zer ikusi, a ikasi'.

Ume jaio-barriak, bere inguruko gauzak ezagutzeko, soiñaren azala dau leio bakarra. Beingoan, irigiko jakaz belarriak eta begiak.

* * *

Ume jaio-barriaren ezaguerari buruz, ona zer diñon Spoch jakintsuak:

—Sei illebeta ezker ez leuke umeak bere gurasoen gelan lorik egin bear... Berak sentitzen dauzan gauzak urduri jartzen dabe umea... Itxarrik dagoanean jazoten jako ori; baiña, baita lo dagoela be.

Esan dodana garrantzi aundikoa dalako, barrero esango dautzuet, ez eukiteko umerik zuen gelan, alboan baiño. Umea ipinteko beste lekurik ez ba'daukazue, tartean esi edo bionbo bat egokitu...

* * *

Ikasteko, begiak irikitzea naikoa dau umeak, besterik gabe. Zure Juantxo-txikik zer ikusten dau bere inguruan? Etxea da bere ingurua, zer ikusten dau bere etxean? Gurasoen bizimoldetik zer onik aterako dau? Zer ikusi eta ikasiko dau bere etxean?

—Ez; baiña, gure Juantxo oso umea da...

ARRINDA'tar ANES

BIZKAIEREAREN ASTEA-1987

- Orrillaren 4'an, astelena:** Eusko-Jaurlaritzaren 50 urteak. ZUBIKARAI'tar Augustin'ek.
- Orrillaren 5'ean, asteartea:** Arrantzaleen oiturak Bizkaia'n, ERKOREKA'tar Josu Iñaki'k.
- Orrillaren 6'an, eguastena:** Euskal-liburuen eta aldizkarien argitalpenak gaur, LEGARRETA'tar Josu'k.
- Orrillaren 7'an, eguena:** Jaungoiko-Zale Taldearen kondaira laburra ta lanak. ONAINDIA'tar Santi'k.
- Orrillaren 8'an, barikua:** GERNIKA SUTAN (50 urte). AURRE-APRAIZ'tar Barendin'ek.

ORDUA: ZORTZIRETAN

AUR-EZIKETA (17)

JUANTXO-TXIKIREKIN APAL

Semea ondo ezitzeko, arrokeri gitxi. Arrokeri-bidea ez dozu bide ona; oso txarra baiñe. Arrokeriak alde batera itzi eta apaltasunean ibiltzen ikasi bearke dozu, ezitzaille ona izan nai ba'dozu beintzat.

—Zeñiek eta nork ez dau bere umetxoen ezitzaille ona izan nai...?

—Aia bear litzake.

Apaltasuna arlote jantzita agertzen jaku gaurko gizarte onetan. Ez dau inork apal izan nai. Egia eta justizia dagoz modan gaurko egunez; baiña apaltasunari eta maitasunari giroa aldatu jake. Giro onik ez dabe gizarte onetan.

Izena ez da izana, izate guztiak izena euki arren. Apaltasunaren izena ez jaku gogoko; bere izana zertan dagoan ez badakigu be. Apaltasunaren izana zer da? Zertan dago apaltasun ori?

*

Apaltasuna egia da. Orra zuk ainbeste maite dozun izena agertu da: egia. Nun dago apaltasuna? Arrokeria eta ergelkeriaren erdian, bien artean eta erdi-bidean.

Arrokeria, apaltasunaren beste ertz, guzurre da. Zeure burua jotzen dozu ontzat, edertzat, aunditzat... geiegiko neurrian; ez zara ainbeste, gitxiago be... Ingurukoak parre egiten dautsoe zure uste inuzurri.

Zeure burua izarretaraino, arrokeriak artara eroanda, goratzen dozu konturatuta ala konturatzeko eta gezurretan zabiltzala danen bistan dago zeurean ezik. Itsututa zabiltzala dirudi. Zure jokabidea ez da egiazkoa...

—Orduan, nire burua lurreraino zapaldu bearke dot...?

—Ori be ez litzake egia izango eta egia ez ba'da, apala be ez. Daukazuna aitortu, egia esateko eta apala izateko. Ez daukazuzenen jabe ez egin; daukazuzanak, ukatu barik. Daukazuzanak ukatzea ez da ez egia eta ez apala, lelokeria baino.

Daukazuzan doaiak euren neurrian ezagutzea, ori apaltasunaren egitekoa da. Ez daukazuzanak ez daukazuzala ezagutzea eta autortzea, ori be apaltasunaren lana dozu. Orra egia berriro. Doaiez beterik agertu zara mundu onetan baiña, zure izakeraren doai orreik inork emonak dozuz eta ez zeuk sortutakoak... Nondik dozu arrokeri ori...?

Auzoko Urliak baino geiago dozula eta aizez puztu...? Arrotu...? Sorbaldagaiñetik lagunurkoari begiratu...? Billotsik eta nerru-gorritan jaino ziñeen biok eta alantxe ilko zaree biok. Bitartean bateri bost, besteari bi eta irugarrenari bat bakarrik talentuetatik. Bakoitzari eman jakon neurrian eskatuko jako berezko doai orreitatik. Zeure lagunek baino geiago al dozu? Kontu geiago eskatuko jatzu. Orra dana zertan gelditu jatzun...

Arrokeriz ez dozu umetxorik ondo eziko eta aziko. Orretarako apaltasuna bearke dozu eta Jainkoaren laguntza. Jainkoa arrokeritik urrun dabil.

AUR-EZIKETA (18)

JUANTXO-TXIKI ZURE ANTZEKO

Umeak zer ikusi a ikasi eta zer entzun a erantzun. Orain Iau urte dirala, eskolatik etozen gurasoak euren umetxoekin arratsalde. Umetxo bat negarrez etorren bere ama gaztearen ondoren. Onek asarre:

—Zer ostia nai dozu?

Zer nai dozu zure umetxoak ikastea eta zer nai dozu zure umetxoa izatea? Gizon eta emakume egiñak? Mingaiñ onekoak? Egiaren maitaleak? Justiziaren serbitzariak? Maitasunaren zabaltzailleak...?

Zagoz zu bere aurrean gizon oso eta emakume egiña. Zagoz bere aurrean egiaren maitale: guzurra dariola ikusten bazaitu, zelan ikasiko dau egia maitatzen? Oker bazabiltz eta justizitik urrun, nundik ikasiko dau zuzen ibiltzen eta zuzentasuna maitatzen? Gorrotoak erretako biotza agertzen badozu Juantxo-txikiren aurrean, nun ikasiko dau onek maitasuna?

Egia, iñoren eskubideen errespetoa eta begirunean, maitasuna... orreik danak maite dozuz? Benetan eta biotzetik ala ortzetatik kanpora bakarrik?

* * *

Zer ikusi... Juantxo-txiki egun osoan zuri begira dago. Zer ikusten dau zu ikustean? Zure antzeko izango da. Zuk zer egin, axe egingo dau berak. On-bidetik ibiltea oker-bidetik ibiltea baiño gaitzagoa da. Neketsuago be bai... Alan be, zu bere aurrean ona bazara, ona izaten laguntzen dautsazu zure aurrari, zure umetxoari; sermoirik ederrena ejemploa da.

Ikas-bide ona erakutsi, ejemplo ona emonez. Orrelan Juantxo-txikik zuk erakutsitako ikas-bidetik, zeure bizitzetik, ikasiko dau ona izaten...

* * *

Ejemploaren bidea da biderik luzeena; baiña, onena. Indarkeriak, barriz, bide motzak ditu. Ona izan dedin, Juantxo-txiki indarrez biurtzeak ez dautzu frutu aberatsik emongo. Ez dot uste. Indarraren arrazoia baiño ohea dozu arrazoiaren indarra: indarraren orde, arrazoi-bidea erabili. Eta, arrazoi-biderik onena zure bizitza da. Zure ejemploa.

Alan be ejemplo onaren frutuak ez dira sortzen nai ta nai ez. Juantxo-txikik nortasunaren jabegai da eta azken-muturrean bere esku dago ona ala txarra aukeratzea.

* * *

Norki edo persona geienak indarkeria gorroto dabe. Geienak esan dogu; baiña zori txarrez badira gogoz indarkeria maite dabenak eta besteen bizkarrean indarra probatzea gogoko jakenak.

"Mal domado, buen domador", esan oi da erderaz: eurak indarra euren bizkarrean jasan ezin dabenak orreixek dira askotan indarkerirako amorratuenak; baiña, beti indarra iñoren bizkarrerako. Nortasuna dabenen artean, animala biurturik ez bada, probetxu gitxi dator indarkeria utsetik. Okerra bera aundiagoa irabazia baiño.

* * *

Bere buruaren jabe egin nai badozu Juantxo-txiki, persona bateri dagokion eran ezi bearko dozu zure ejemploaren bidez eta ez indarkeriz. Indar utsez ez dozu sekulan bere biotzik irabaziko. Bere biotzaren giltza berak dau bere eskuetan eta ez dautzu aren aterik irikiko, zuk on merezi ez badozu.

Merezimenduak zure bizitz onaren bidetik aterako dozuz eta ez indarkeriz. Indarraren kontrako griña jaiotzetik dario Juantxo-txikiren biotzean. Ordu artatik bertatik.

AUR-EZIKETA (15)

JUANTXO-TXIKI MAITE IZAN

—Baiña, zuk uste dozu guk gure umeak ez ditugula maite, ala zer? Maite izateko? Ori be esan egin bear da, gero...

—Bai, ori be esan. Izan be maitetzeko era asko dagoz...

—Eta...?

—Tximiñoak be maite dituela euren umeak...

—Txarto eta dago ori...?

—Maitearen maitez, bere umea ito egin ebalu tximiñoak. Ez zara tximiño izango...!

* * *

Gauza guztiak lez, maitasunak be, bere neurriak bear dauz. Neurriak ez badozu, zeure Juantxo-txiki ito egin leikezu.

—Baiña, neurriak izan leike maitasunak, ala...?

—Maitasunean bertan ez bada, maitatzeko eran eta moduan... Geiegizkorik badago...

—Zelan izan leiteke geiegizkorik gure umienganako maitasunean...?

—Maitasunaren agerpena bear dau lako bada, orduan ez da geiegizkorik izango maitasunean; agerpen ori, alan ez bada, orduan okerrak ekarri leikez gure umetxoari. Bere amak ito eban tximiño-txikia esku artean, eta maite ebalako ito be. Maitasun agerpena ez zan ona izan.

Besarkada maitasunaren agerpen bat da: agerbide on bat. Baiña, geiegirik gabe, esku-arte itoko dozu bestela Juantxo-txiki tximiñoak bere kumea ito eban antzera.

* * *

Semea maitatzea bere onaren billa ibiltea da. Baiña, bere ona ez da zure ona izaten zenbaitzuetan. Bere onaren billa ibilli bearrean, tarteka zeure lasaitasuna, zeure atsegiña, zeure arrokeria billatzen dozu...

Zeure norberekoikeria eta egoismoa ez da neurri egokia Juantxo-txiki maitatzean; bere ona da neurri egokia zuretzat... Juantxo-txiki maitatzea ez da zeure burua maitatzearekin amaitzen. Juantxo-txikiren maitasuna aitzaki dozula, ez ibilli zeure onaren billa. Bere on utsa, orra or zeure elburua. Interesik gabe. Utsik. Zeure ondorenari begiratu barik.

* * *

Era orretara maitatu bear dozu Juantxo-txiki. Orrean irabaziko dozu bere biotza. Bestela, ez da erreza izango. Biotza eta uste osoa irabazitakoan, orduantxe egongo da Juantxo-txiki pozik zeure menpean. Pozik egon be zeure aginduak pozik eta alaitsu betez. Zeure atsegiñerako eta bere onerako izango da.

* * *

Begirunea eta errespetoa izan bear dautsozu maitasunarekin batera. Juantxo txikia izan arren, nortasuna dauko, persona bada eta orregaitik errespetoa eta begirunea bear jako.

Bere buruaren jabegai da eta askatasunerako egiña. Bere eskubide orreintzat izan egizu begirune aundia. Ez jo. Ez beeratu. Ez zapaldu... Maitasuna eta begirunea, erabilli bearko dozuz zure eta Juantxo-txikiren arteko artu-emonetan.

AURRERAKOIAK ETA ATZERAKOIAK

(Orain amar urte burruka bizia egoan gure artean. Orduko itzak eta berbak dira onek. Arrezkero ez da gauztia aldatu, okerrera ez ba'da. Ona orduko berbak.)

* * *

Atzerakoi eta aurrerakoi aspaldian erabilitako berbak dira. Baiña, bi taldeetan jendia banatzea, aspaldiko xistima da, antxiñakoa: geu aurretakuak, gure etsaiak atzeratuak.

Gurekin ez dagozanak, orrek danok atzeratuak dozak; gurekin diranak, orrek danok, aurreratuak dozak, kangrejuen antzera atzeraka ibiltzen ba'dira be.

* * *

Atzeraka ibiltzea da benetan, esate baterako, izki alperrikako bat, atxea, indarrez erabilli eraztea. Nai ba'dozu eta nai ez ba'dozu. Berreun urte badira zenbait euskaldun idazleek baztarten asi zirala. Oietako bat zan Aita Kardaberaz.

Eta, zergaitik kendu eben? Alperrikakoa zalako gure artean.

Atxedunak berreun urteko saltoa egin dabe atzeraka; baiña, atxea artu ez dabenari, ao betean, *atzerakoi* esaten deutse. Izen ona galdu nai. Eta eurari esan baiño lenen, eurak esan berba zantar ori.

Eurak dozak *aurrekoiak*, berreun urte atzeraka eginda gero be.

Ori dok aurpegia ori.

* * *

Guda negargarri bat sortu eta gero, euskaldun idazleak bi zatitan eginda gero, *batasun* berbea lau aizeetara intzirika zabaldu.

Berba bat, besterik ez.

Izena ez da izana. Baiña, onek izena erabiltzen dabe, izane tapatzeko. Berba, itza eta izena izanaren estalgarri. Esku batekin erlauntza zirikatatu eta besteagaz keia bota erleeri.

Batasuna apurtu eta ondoren batasunaren itza makillamuturrean jaso ikurrin baten antzera. Beste aldetik barriz, gurekin ez dagozanak txistuz eta iraiñez bete eta batasunaren aurkako salatu.

Salatu bein eta barriz.

Salatu eten barik.

Salatu berbaz eta idatziz.

Salatu, salatu eta salatu...

Aizkenerako ainbeste alditan esan dana eta entzun dana, ontzat emon eta egi bezela artu gizarteak. Guzurreta bota borobil-borobil bein da berrito eta azkenerako egi argizat artuko dautzue erriko tontolapikuak, Orren antzera esaten eban Hitler jaunak.

Makiñatxo bat jarraitzaille ba-dauz jaun orrek geure artean.

* * *

Guzurrezko eta gizatarreko erasoak bere frutua emoten dau, esan dogunez, amaika inusente zoratuz eta bereganatuz; baiña, bestelakoa ere bai, ardiak ez diranak edo aprobetxategiak ez diranak, alkartzuz... Akuilluagaz zirika-

tuak izan diranak alkartzuz geranean, geure indarra agertzen dogu, eurok uste baiño aundiagoa.

"Atzerakoiak", atzera joan ez diranak kangrejua lez, aurrera doaz euren bidean, mordo ederrean, aginpiderik ez ba'dogu be gizarte onetan.

"Aurrerakoiak", atzera salto egin dabenak, sakabantzuz asita dagoz, eurak aurrera doazela ots egiñaz, euren indarrak beti bistan ipiñiaz eta lau aizeetara zabalduaz, zenbat diran egunero kontatuaz... euren buruak konbenzitu naiz edo...

(Nik au idatzi ezkerok diru asko lortu dabe, indarra gizartearen ere bai, euskal gobernu, kapitalismoa eta abar ere euren alde dagoz; baiña, euren artean burruka asita dago. Itzala. Kojo dabilenak, kojo ipintzen ditu bere inguruko guztiak.)

* * *

Bitarte orretan zubigilleak agertu ziran. Zubiak zertarako? Nundik norako? Zubia bera artungo genduke burrukaren elburu. Zubiaren nagusitasuna burrukaren elburu.

Zubia egin bearrean, oba zuloa tapau. Lana egiñaz. Lana eginda zuloa tapako dogu danon artean. Utsunea bete; zuloa tapau.

* * *

Onk zubigilleok orain amar urte agertu ziran. Gaur egungo zuloa amiltegi biurtu da.

Euskal arloa legor eta siku dago. Gozobako lurra. Giroa aldrebesa. Solo elkorra.

Bi idi lanerako, biarrerako, uztarpe batean: bata eskerretik eta bestea eskubitik. Bien artean irikitzen da ildo lurrean. Biak aurrera ba'doaz bai; baiña, bat nagusitzen ba'da eta bestiari ostikoka egin, zer lan arraio atarako da ekintza orretatik?

Zertan gabiltza? Euskeraren onerako lanean ala euskeraren bidez geure buruen nagusitasuna agertzeko? Geure nagusitasuna beste guztieri indarrez burutik beira sartzeko?

Negargarriak gara. Era onetan lana egiteak antzutu egiten gaitu. 1975 garaiko arazoetan nabil. Gaurkoak guretzako okerrago jarri ziran, ipiñi ziran. Ez zan arritzeko Zeruko Argiak onelan idaztea (7-VI-75):

"Villasante... (eta abarrek) ez dabe lanik agertzen...".

* * *

Aurrerakoiak edo atzerakoiak, guztientzako da giroa eskasa, gaiztoa eta txarra. Ala izan da amar urte onetan. Arrezkero sortu dira idazle barriak batuen inguruan. Baiña, onen lanak Afrikako Bantuen atsa dariola diño jaun ospetsu batek Gabon inguruko DEIA batean. Jaun ori ibilli zan Batua sortzen eta idazleak egin ditu Bantuen antzeko. Ori dok ona, ori! Orretarako ainbeste zarata eta ainbesta okerkeri...!

Bearrezkoa dogu geu alkartzuz, geure artean giro ona lortzeko. Onetan ZER'ek biar ona egiten dau. Zorionak.

1986'ko Urte-barri egunean.

ARRINDA'TAR ANES

AZKEN-IDAIZTI BI

EUSKAL USAINA

Gizon bizkorra zan. Seminarioan erakusle ere bai.

Zenbat apaizgaei sortu ote zitzaien euskalsena Manuelen eskutik? Badakit Ander Manterola eta Mikel Zarate, beste batzuen artean, bere eskuetatik pasatu izan zirala apaiztegian...

Bere biotz zabaletik euskal usaiña zerion eta berekin ibilli ezker, kutsutu egin bear nai-ta-nai ez...


Buru zuzena

Seminarioan apaizgaiak Geografia eta Historia ikasi bear al zuten? Ederki. Asi gaitezen Euskalerritik. Naiz eta programetan egon ez, lenengoko lana orixe izango da.

Orain ori errez egiten da edonun, giroak ala eskatzen bait du; baiña orain ogeita amar urte, ez zan ain erreza.

Mundu osoari buruzko Geografia eta Historia zitun sakondutako gaiak eta orretan maixu zan.

Orrek laguntzen zion gero Euskalerriko gaiari buruz... Euskal gaiak zitun benetan maite. Oietxek ziran bere «hobi» guztiak, Euskeratik asita.



Euskeraren arloan sari asko zitun irabaziak eta oiek ez ditut nik emen aipatuko, lan berezi bat merezi dutelako eta jasoko al du bateren batek gai ori.

Nik emen aren bi liburu, aizkenekoak, aitatu nai ditut.

LOS VASCOS: EUSKAL KONDAIRA

Au lenengoz aitatu det. Bear ba'da auxe izango da Manuel'en biotza geien poztu zuan bere lana eta bi arrazoi auekatik: alde batetik, arin-aranga egin bear izan zutelako eta bestetik, aren zabalero ikusgarriagatik.

Abenduaren 13'an egin zuan bere eskabidea argitaratzailleak. Euskalerriko kondairaren laburpen bat bear zuan eta len-bai-len bear ere.

Abenduan eskatutako liburua, Ilbeltzaren ama-bosterako egiña zegoen.

EPE LABURRA

Gabonetako festeetan, turroi artean, eratu zitun aurretik berak eginda zeuzkan lan batzuek. Aueri beste zortzi atal erantsi zien, lana osotutzeko.

Bere mixiolari lagun izandako Donato'k erderara itzuli. Orrela bien artean agertu zuten liburua.

Urte artako apirillean, lenengo egunetan, zabal-kundea asi zan eta zabaltzen asi eta egun gutxi barru, ia eun milla ale zabaldua zeuden Bilbo'ko etxeetan.

Ikusgarria, benetan. An egon bear izan biak beuren izenak liburuari ipintzen: firma botatzen, alegia.

INGLESERARA

Bilbao-Argitaldarian eskatu zioten Donato'ri liburua inglesera itzultzeko baimena, Iraillaren 21'an. Berri ori ez zitzaion Manuel eri eldu. Gaba orretan «biar-arte eta gabon» esan ondoren oeratu zan. Ez zan oetik geiago jeiki.

Beraz, Estomba'ren liburu orrek bi itzul-aldi izango ditu: Bata gaztelerara eta bestea ingleserara.

ETNIA VASCA

Ona bigarren liburua. Ez da berak bakarrik egiña; baiña, bere azkeneko lanak emen daude.

145 atal ditu liburuak, Oietatik irurogei Manuel'ek egiñak. Nik amaika kapitulu eta nere anai Donato'k beste guztiak.

Irarkolan, moldetegian, dago lan ori eta La Gran Enciclopedia Vasca'k aterako du argitara.

Manuel'en eriotzaren bezperan, Gloria Castresana, Fresno'ko (California) Ikastola Nagusiko irakasleak, liburuaren galak ikusi ondoren, ingleserara itzultzeko baimena eskatu zion nere anaiari. Iraillak 21. Arratsaldea. Manuel'en belarrietara ez zan barri ori eldu.

Anes Arrinda



AZKOITIAR BATZUEN ATERALDIAK...!!!

(Gertaerak)

1/. "PITTIN" zuan bere izena Etxetxoneko txakurrak, eta ezin aundia izan izen orren jabe zan txakurra.

Neska-langille bat zan Matxo, ta egunero eramaten zuan lantegira bere amak gertatzen zion ogi-bitarteko bat. Egun artarako gertatu zion ogi-bitarteko txorizo-muturra, ain txikia iruditu zitzaion Matxo'ri...

Etxerakoan onela esan zion bere amari:

- Zer gertatu zaizu gaur, ama?

- Egia dion, erantzun zion onek. Zartagira botatzerakoan ez zaiten aintxikia iruditu. Gero, ordea...

- Egia esango dizut, bada, ama... Ortxe ikusi det Etxetxoneko Pittin, eta arek-berak ere nere ogi-bitarteko txorizo-muturra baño aundiagoa zeukan bere "zera" ori... Ulertzen, ama?

- Bai, Matxo, bai...

2/. Biak ziran ezkongaiak, eta biak gizen-gizenak.

Amabosten-bat urte geiago izango zituan batak, besteak baño.

Oraindik zapiak jazten zituan bere illobatxo batekin agertu zan, igandeguardi batean, bietan gazteena. Eta orra-nun asten zaion orruka-negarrez bere illobatxo ori.

Alperrikakoak ziran izekoaren alegin guztiak. Ume ark ez zuan ixildu nail!

Eta orduan asi zitzaion albotik zirika beste nezkazarra:

- Orrek bularra nai du, Arantxa...!

- Zergatik ez diozu ematen...?

- Eman zaiozu, ta bereala ixilduko zaizu!

Aspertu zan Arantxa jardun onekin, eta onela erantzun zion:

- Eman zaiozu zuk, nik baño aundiagoak, eta beteagoak dauzkazu-ta!

Eta biak neskazarrak izakil!!!

3/. Neskazar, birgiña-birgiña oietako bat zan TEIXA.

Etxeza'n egiten zuan lana.

Egun batzuek besterik ez ziran, Etxeza'ko langille bat, neskazar antzeko batekin ezkondu zala. Ta ori zala-ta, broma pixka-bat egin nai izan zioten Teixa'ri bertako bi langilleak:

- Zuk zer uste dezu, Teixa... Lengo-egunian ezkondu ziran oiek "asmatuko" dutela, edo ez dutela "asmatuko"...?

Eta Teixa'k bat-batean:

– Zergatik, ba, ez dute “asmatuko”...? Zuk, beintzat, orduz-leen “asmatu” zenduan, eta ez da ain-zailla izango...

4/. Eta arrigarria ba'da ere, TEIXA berarena da besta ateraldi au ere. Ez ziztaigun emen ain-zorrotza agertu!

Bere lagun betekin zan.

Uxula-baserriko zelain, errepe aundia bete-betea zeukan bei bat ari zan larrean...

– Aizu, Teixa... Ori zer da...? Beia ala idia...?

Zergatik galdetzen didazu ori...?

– Zergatik galdetuko dizut ba! Beia ala idia dan jakin nai dedalako...!

Eta Teixa'k bei aren errapea erakutziaz...

– Ez al'dezu, zuk-zeorrek, umea egiteko dagoala ori, garbi-garbi ikusten...?

5/. Emakumea, alarguna zan eta gaztea oraindik... Gizonezko-askoentzako tentazio berri bat...! Anak zeuzkan, ordea, zaiñ-miñak zatartuak...!

Abarketak erosi bear zituala-ta, aberketeri batera joan zan bein-atean, gure emakume-alargun au.

Abarketak aukeratzen ari zalarik, ez zion beste emakume batek au-bestetik albotik esaten:

– Oiek ditun, oiek anak...!

– Oiek ditun, oiek anak!

– Oiek ditun, oiek anak!

Aspertu zan, letani onekin, gure alarguna, eta bizi-bizi erantzun zion:

– Ago ixillik, neska! Oraindik, beintzat, etzidan gizonezko batek ankarik eskatu-ta...!

6/. Gona-motzak zirala-ta, bizi-gaiztoa emeten zion amagiarreba batek bere errañari...:

– Izan ere, gaurko-emakumeak ez daukazute lotsarikan... Eseritzen zeraten bakoitzean, agirian uzten diozute, ikusi nai ba'dizute beintzat, ipurdi osoa...! Leen ez zan olakorik...! Senarrarentzat bakarrik izaten ziran leen gauza oiek, eta mantapean aientzat ere...

Eta bai errañak askar erantzun ere:

– Bai, ama, bai! Orregaitik dira zure seme oiek, manteperako obeak...!

7/. Arotza zan Joxe Manuel Aldako.

Oe bat konpondu-bearrean zeukatela-ta, Granada'ko Dukeen ETXE-BELTZERA deitu zioten bein...

Kontua-bialdutzekoan (erderaz bialdu bear izaten ditugu guk, euskaldunok, gure kontuak) onela ipiñi zion kontu-agirian Joxe Manuel Aldako'k:

– Por unas cosas que le hice en la cama a la Señora Condesa 150 pesetas! Ba'dek garestigorik...!

8/. Ba'da Azkoiti'n emakume bat, arraindegira joan eta an beste iñor baldin ba'dago, onela ekingo diona beti...:

– Amalita, tienes merlu...? Y chipis...? Y angulitas...?

Eta besteak joan, eta bera-bakarrik gelditzen danean, onela esaten duana:

– Amali...! Jarri-an libra-erdi bat tolla!

9/. Azoka-plaza erdian ari-zan, beste bein, izketan au-bera lagun betekin. Ba'zuan, orduan ere, arrokeria pranko...!

– Egia esango diñat! Ementxen natxion, zer-egin asmatu ezin! Joxe getaria-
rreanean legatz aundi ta prexko-prexko bat ikusi diñat, eta uraxe, oso-osorik,
erosi edo ez, natxion...!

Eta orduantxe, ain zuzen, deadar au egin zion Joxe getarriarrak bere arrain-
degitik:

– Aizazu, emakume! Txipiroi-konjelatuak ekartzeko esan didazu zuk, ez
al’da ala...?

10/. Berak asmatua bezela kontatzen zuan Profesionaleko eskolan “Gazte-
lu” mutil-koxkorrak kontu au.

Lengusu bi joan ziran bein soldadu... Bat, bestea baño leentxuago, bañan
kuartel batean gertatu ziran biak.

Etorri zitzaion “bandera juratzeko” ordua bateri, eta galdera au egin zion,
bandera erakutziaz, kapitanak:

– Qué es esto...?

Ura bandera bat zala esatea, gutxi iruditu zitzaion azkoitiar-soldadueri, ta
zerbait-gelago esatearren, onela erantzun zion kapitanari:

– Un palo con un trapo bicolor!

Zapla! eman zion kapitanak belarrondoko bat!

– Esta es tu madre! Y debes estar dispuesto a dar tu vida por ella! Quedas
arrestado!

– Zer dala-ta arrestatu aute?

– Ba al’zekiat, ba, nik? Banderea erakutsi ziak kapitanak, eta banderea zer
dan galdetu! Ondo erantzun zioat nik, nere ustez, bañan ark “banderea nere
ama dala” esan zidak, eta orregaitik bialdu natxiok kalabozora!

– Ire ama dala banderea?

– Bai, ala esan zidak: ésta es tu madre...!

– Ortaz... nere... izango dek?

Etorri zitzaion beste oni ere, “bandera juratzeko” ordua, ta galdera berdiña
egin zion kapitanak oni ere. Eta baita mutillak azkar-asko erantzun ere:

– Esa es mi tia!

Zapla! Eta arrestoa onentzat ere!

Eta lengusu biak kalabozoan:

– Izan ere, kapitan txatxu orrek nundik jakin bear dik, ire ama ta nere ama
aizpak diranik biak...?

11/. Leengo garai artan iru eske egiten ziran elizan meza bakoitzean.

– Eliza onen iraupenerako!

– Purgatorioko animeentzat!

– Mixerikordientzat...!

Baserritar ura, bost irukuartokoekin etortzen zan beti mezatarara. Iru, irukuar-
toeko, mezatan botatzeko izaten zituan, eta beste biak, Ixpixuaneko trabenan,
baxo-erdi bat edan, eta ogi-zati bat jateko.

Igande artan, ordea, laugarren gizona agertu zan eskean:

– San Jose’ren argiarentzat...!

Laister oartu zan gure baserritarra, ez zeukala, egun artan, ogi-zatirik jate-
rik, eta onela esan zion, asarre, eskean ari zan laugarren gizonari:

– I, esan akiok San Jose’ri, ni bezela, goiz oeratzen ba’dek, ez dikela, ark
ere, argi-bearrik izango!

12/. Mixerikordian il zan TORI.

Iru-iturrietan egoten zan zoru-josten. Adar-jotzallea zan Pako Txakolin, eta ez zuan TORI pakean uzten.

– Goizeko seirak-ezkero ago emen, eta ez dituk, oraindik, bi zoru besterik josi alper-aundi orrek!

Aspertua zukan Tori, Pako Txakolin'en "lata-bedeinkatu" onek, eta onela esan oi-zuan sarri:

– Nai ez duana, aittuko zidak, ba, orrek egunen batean...!

Eta Luis Errexillek albotik:

– Ortan aiz, i, beti!

– Aittuko ziak, ba...! Ta ikusten diaten bezin-laister gañera!

Eta goiz batean, Pako Txakolin andik igarotzean, onela esan zion, asarre, Tori'k:

– Ala, INDIVIDUO!!!

Eta lagunari gero:

– Aundixe esan zioat, ba! Etzik ez, geiago, ezer esango...!!!

13/. Txukun-txukun oietakoa ez, bañan igeltseroa zan Otxelu. Paretak baño zuriagoak uzten zituan ark lurrak!

Etxe batera eraman zuten bein zuriketara, ta etxe artako etxekoandreaki garestia iruditu zitzaion Otxelu'k ekarri zion kontua...!

Eta Otxelu'k:

– Ezin kejatuko zera, emakume! Lurrera eroritako igeltsuaren kontua ez dizut, beintzat, sartu-ta!!!

14/. Leen, ostiraletan, Kristo'ren gurutzeko eriotza oroituaz, il-kanpaia jozten zan Gipuzkoa'ko parroki guztietan, eta Azkoitikoan ere bai... Gizonezkoak, zeuden tokian zeudela, txapela kendu ta "kredoa" errezatzen zuten orduan. Eta ez gaurko kredo motz-motz ori, leengo luze-luze ura baizik. Otxelu'k, ordea, txapela kendu-orduko, jazten zuan berriro!

– I, Otxelu! "Kredoa" ain-azkar errezatzeko, zer-arrario esaten dek ik? esan zion, bein, bere lagun batek.

– Zer esango diat, ba! erantzun zion Otxelu'k "Creo" esaten diat nik. Eta naikoa dek ori! Ibiliko ote baituk, ba, "igo zala, ta jetxi zala, jetxi zala ta igo zala" esaten? "Creo" esan ezkerro, dana esana zioak!

15/. Don Pedro'k, Azkoiti'n izan genduan apaiz arrek, gurutz-bidea egiten ikusi zituan emakume batzuek GABON-JAIETAN, eta aliengana joan eta onela esan zien:

– Jaiotzea besterik ez du egin, eta ez zazute, mesedez, ain-azkar ill!

16/. Baztarrika-aldean bizi ziran Plorentiñe-ta...

Gau batean, argiak itzali, ta illunpe osoa sortu zan Azkoiti'n.

Zer ordu ote zan jakin nai-ta onela esan zion Plorentiñe'k bere aizpari:

– San Martin-torreko erlojuan zer ordu dan, ikusi zan!

– Nola ikusiko diñat, ba, argirik ez zegon-da!

– Argiarena besterik ez ba'den, artu zan kandela bat!

Eta San Martin-torreko erlojuan zer ordo ote zan ikusteko, kandela bat eskuan irten zan balkoira aizpa ori...!!!

17/. Ba'zan, Azkoiti'ko Mixerikordian mistika-antzeko neskazar bat.

Azkoiti'ko seme bat zan, orduan, an-bertako kapellaua, ta ez zuan gure gure neskazar onek. ezergatik-ere, kapellau onekin konfesaru nai. Ta iñork ezin zuan asmatu, zergaitik zan neskazar onen nai-ez au...!

Bere lagun bat joan zitzaion, bein, ikustaldirixoa bat egitera. Eta neskazarrak bere lagunari!

– Aizan, Xeberi...! Mesede bat egin bear dian. Konfesatu egin nai niken, eta orrelako abadeari esaion etortzeko mesedez...

– Ez al'daukazute ba emen, ortarako, zuen kapellaua?

– Bai...! Bañan nik ez diñat orrekin konfesatu nai...!!!

– Zergaitik ez, ordea?

– Kofiantzan esango diñat iri, bañan ez akion iñori ezer esan! Orren aitak neri egin ziazen errekaua. Nere seme bear ziñan, ba, orrek! Ezin konfesatuko naun, ban nere semea bear ziñan batekin...!!!

18/. Ez zigun ark, berak asmatua-bezela ematen, berak ikusia-bezela bai-zik, eta Ingalterra'n ikusia. An gertatzen bait-dira onelako gauza geienak. Ala ere ba'zan, bera, au eta onen antzeko beste gauza asko asmatzeko ere lain! Azkoitiarra zan, India'n zegoan mixiolari, ta gazteasun osoaren jabe zan artean...

Ingalterra'n, eta an-bertako eguras-toki batean "hipie" oietako bat ikusi zuala bein, ille luze-narrasa, bizar zikiña ta jantzi arlotea, idazkai aunbi batekin ona-ta-ara. Ta onela ziola idazkai ark:

Gora Gonak eta Beera Prarak...!!!

Emakumeen gona-aldekoa ote zan, ba, "hipie" ura... edo...?

Eta auxe zan gure mixiolari gazteak, guri ere egiten zigun galdera...

19/. Azkoiti'n bat, ezaguna baldin ba'da, Juanita Frabrikere gaztea dezute ori... Amaika "indizio" emandako neskea... amaika gaxoeri on-egindako neskea...!

Etorri zitzaion berari ere operatua izateko ordua, ta Donosti'ko Residenciara eramán zuten.

Labatiba bat artu beat zuala-ta, garbi-asko adierazi zion bertako enfermera batek, labatiba ori nola artu...!

Ez zan Juanita'k nai-bezein-laister ontzi ura ustul!

Jeiki zan komunera joateko, ta iturri batetik-bezela irtetzen zan aren atzetik ere ura...!

– Bañan zer den au...? algaraz Juanita'k berak.

Eta alboko beste gaixo batek:

– Ez unan, ba, labatibaren zirria barruan utziko...

Eta ziri ura atera ez zuan artean, iturritik bezela zerion urak Juanita'ren atzerik...!!!

20/. Oraingo eskaleak egiten ez ba'dute ere, leengo eskaleak "Aita gure" bat erreztatzen zuten atean-atean...

– Etxe ontako ildakoen alde...! esango zuan batek.

– Etxe ontakoak osasuna izan dezaten...! esango zuan beste batek, eta abar...

Eta ba'zan, etxe bakoitzean, au esaten zuan eskale bat:

– Etxe ontakoak eta nik, jana ta lana izan dezagun, "Aita gurea zeruetan zaudena"...

San Martin-auzoko etxeoandre bateri ez zitzaion gustatzen eskale onen eskabide au.

– Zera baño alperragoa den bera, ta ari dek, ba, ori lana eskatzen...!

Eta sukalkedo armariora joan, arria baño gogorragoa zegoan ogi-koxkor bat artu, ta or dijoa askelearengana...

– Jana ta lana eskatzen dezu zuk, e ez al’da ala...?

– Bai, etxeoandre, bai! Ala eskatzen det, ba...!

– Tori ortaz ogi-koxkor au! Onetxek emango dizkizu eskatzen dituzun bi gauza oiek: jana ta lana... Naiko lan izango dezu ori jaten...!

21/. Anai asko ziran Irineo’ren etxean, eta gosetiak danak. Arkume-oso bana errez jango zuten mutillak...

Ez zan, ba, aiek-danak mantentzea erreza...!

– Ez zegok emen orrela jarraitzerik, eta morroi joan bearko dek ik, Irineo...!

– Nora, ordea...?

– Nik zer zekiat, ba? Errijoa aldera, edo...! Erderaz ikasiko dek bitartean...!

Eta pardeltxoartu, ta an joan zan, irineo, morroi Errijoa’ko erri batera. Erderaz ondo ikasi zuala, ezin ukatu, erderaz egiten bait-ditu, gaur ere, Irineo’k bere aitorketak...! Baña erderaz ikasiaz gaiñera, bertako egin zitzaigun Irineo erabat: bertakoen lur-kolorea artu, bertakoak bezela jantzi ta bertakoak bezela itz-egin...! Ez zuan iñundik azkoitiarra-zanik ematen...!


Urte batzuen buruan, etxerako gogoa egin zitzaion Irineo’ri.

Jo zuan “kox-kox” etxeo atean, irten zitzaion atera ama, ta “no, no, no” esan, eta itxi zion berriro atea...!!!

Izan ere, kinkillerotzat artu zuan amak bere seme ura...!!!

Eta kinkillero, azkoitiarrantzat, etxerik-etxe uskariak saltzen ibilli oi-zan mo-txaille-antzekoa zan...

Albisu tar Anastasio



AZKOITI'KO PARROKIAZ ZENBAIT BERRI!

Agirietan, ba-da ere, beste bi izen ere izan zituan leen Azkoiti'k: SAN MARTIN DE IRAURGUI bata, ta MIRANDA DE IRAURGUI bestea... Eta bi izen bezela, beste bi parroki ere bai oraingo-onen aurretik: San Martin'goa lenengoa ta Balda'ko Amarena bigarrenkoa. (Santa Maria de Balda).

SAN MARTIN'goa, San Martin muñotxoan zegoan: gaur erriko ordularia daukagun muñotxo ortan bertan...

BALDA'ko AMARENA berriz, gaur kanposantua daukagun tokian: toki oni esaten bait-zitzaion leen MIRANDA DE IRAURGUI...

Su batek erre zuan San Martin'go eliza au 1.318-garren urte-inguruan... Eta naparrerria (viruela) agertu zanean gaixotegi biurtu zituzten eliza ortatik gelditzen ziran ormazar aiek...

Ni Azkoiti'ra etorri nintzanean, 1943 gn. urtean alegia gaixotegi zan artean San Martin: biriketako gaitzak jotakoen gaixotegi...

Bizi-toki degu gaur San Martin. Eta bizi-toki ortantxe, daukagu, erabat aazturik, eliza zaar onek utzi zigun oroigarri bakarra: erdi-mendeko San Martin'en irudia, alegia.

Gaur kanposantua daukagun toki ortan, ba-zan, antziña, "templarioena" izandako eliza bat, eta eliza au artu zuten azkoitiarrak, gero, beren bigarren parroki bezela.

Balda'ko Jauna'ren lurretan zegoalako-edo eliza au, Balda'ko Amaren ize-na eman zioten, eta Balda'ko Jauna izan zan bati, eliza onen nagusia...

Iru oroigarri eder utzi zizkigun bigarren eliza onek: sarrerako atea, bi aldare, ta bi aldare oietako irudiak... eta ipui-antzeko ixtorio triste bat.

Zutik eta berri-berria dago oraindik kanposatuan eliza onen sarrera-atea. Ta ur-bedinkatu-ontzi ederra du bere eskui-aldean.

Ez du ate onek, beste romaniko-ate askok izan oi dituzten apaingarririk. Ez da, ba, polit-polit oietakoa... Ederra da ordea, ta romaniko oso-osoa. "Gizona" dala au, esango nuke nik, eta "emaztekiak", beste aiek.

Eta kanposantu bertako kapillatxoan daukagu, baita-ere, eliza onek utzi zizkigun bi aldareak, eta aldare auetako irudiak.

Irudi auetako bat, Balda'ko Amaren irudia da. "Antiguako Ama" esan oi diogu gaur, irudi oni...

Beste bi irudiak, Andre Maria'rena bata, ta Joan Ebanjelaria'rena bestea, bere etxera jaso zituan orduko Erretore Jaunak, eta San Joan Bataiatzalea'ren erretabloko goi-goinean daude gaur kokatuak... Berrugete-estilokoak dira biak.

Gurutz bat bear zuten irudi auek ean-bien artean, eta Manuel Lekuona Jaunak dionez: ez ote da Urrategi'ko gurutz, irudi bi-auen erdian bear zuan gurutz ori...?

Eta eldu daiogun orain, Balda'ko eliza onek, irugarren oroigarri utzi zigun ixtorio triste orrei... Nork ez du, Azkoiti'n, ixtorio au ezagutzen, eta nork ez du, azkoiti'n, ixtorio au sinisten...?

Balda'ko Jaun arroak, Balda'ko Amaren elizan zuan jabetasuna ta ortik zitan irabaziak galdu-nai ez zitalako-edo, ez zuan, iñondik-iñora, parrokiak aldatzerik nai...

ANTES BALDA QUE AZKOITIA...!

Alperrikakoak izan ziran eman zizkioten arrazoi guztiak... Ez zegoan ura bere-artatik, aldatuko zuan ez gizonik eta ez apaizik ere...

ANTES BALDA QUE AZCOITIA...!

Baiñan eldu zan aldaketa ori egiteko eguna: JAUNA eliz-berrira eramateko eguna, alegia...

Lerro bitan zetozen gizonezkoak goitik-beera...

Eta lerro bi oien erdian, apaiza "JAUNA"-kin.

Balda'ko etxe-aurretik igaro bear zuten nai-ta-nai ez.

Begira-begira zegoan Balda'ko Jauna leio-zirrikitu batetik...! Izkillu-aundi bat zeukan esku-artean, urduri...! Ez zuan tirorik galdu-nai...!

Eta apaiza tirora jarri zitzaionean...

ANTES BALDA QUE AZCOITIA.

deadar aundi bat egin, eta sutu zuan izkillua...!

Illotzik erori zan JAUNA-kin zetorren apaiza...!!!

Ikus dezagun orain gure gaurko ELIZ-NAGUSI EDERRA... Gipuzkoa'ko elizarik eder eta aundienetako bat degu gure au... Baiñan ez dezu bertan, estilo-berezi nabarmenik ikusiko...

Bi gizaldi igaro ziran-ia, eliza au egiten, eta bi gizaldi urte asko dira, estiloetan ere aldaketarik ez izateko...! eta auxe izan dezakezu, eliza ontan, estilo berezinabarmen bat ez-izatearren zergatia: ia bi gizaldietako elizgintza...!

Eliza au eraikitako baimena, II-garren Julio Aita Santuak eman zuan. Eta bi bulda biali zitan ortarako, 1509-garren urteko Urrillaren 17-an bata, ta 1510-garren urteko Martxoaren 15-an bestea...

Iru izan ziran bertako arkitektoak: Juan de Arteaga, Pedro de Lizaranzu ta Pedro de Alcega.

Eta naiz-eta artean eliza bukatzeke egon, 1553-garren urtean ospatu ziran eliza onen eraiki-jaiak...!

25 urte geroago, 1578-garren urtean erori egin zan eraikitako-elizaren zati bat. Eta elizgintzan ariko ziran gizaldi bat geroago ere.

Gotikoaren-azkenean eta renazimentoaren-asieran amestua da eliza au. Ta garai-arteko elizak ba'dute bere estilo berezi bat: Gipuzkoa'ko gotikoa "esan oi zaion estilo bat...". Estilo ontakoa bear zuan, berez, eliza onek ere, baiñan leen esan degun arazoigaitik ez du eliza onek estilo ori oso-osorik beintzat... Ala ere, gotikoaren azken-aldikoa da atzeko atea, naiz-eta XVIII-garren gizaldiko-barrokoa izan sarrera nagusia ta bere-alboko arkupea.

Aldare-nagusiko ERRETABLO au, ez da eliza onen lenengo erretabloa. Lenengo erretablo ura galdua dago, zoritxarrez, betirako.

XVII-garren gizaldi-azken-aldekua da gaurko au, ta XX-garren gizaldi-asieran erabat berritua gaiñera. 1906-garren urtean su batek erre bait-zuan erretablo au, ta bertako irudirik-geienak ondatu...

Irudi bat gelditu zan suak ondatu-gabe: Andre Maria'ren irudia: gaur erretablo goien-goienean ikusten degun Andre Maria'ren irudi eder ori.

Barrokoa da erretablo au, ta barrokoak dira, baita-ere, bere alboetako bi al-dareak ere...

Aldare auetako bat, Kristo'rena alegia, XVI-garren gizaldikoa da, ta oso-oso

ederra da bertako gurutziltzatuaren irudia... Ba'dira, gurutz ontan, Antxieta'ren eskua ikusten dutenak ere...

JOAN BATAIATZALLEA'rena da, eliz ontako beste aldare eder bat. Plate-reskoa. Geigi ikutua bear ba-da, ta pixka-bat ondatua orregaitik. Naiz-eta, gaur, (1993) erabat berritua ta edertua egon...

Eta erdi-erdian duan San Joan'en irudia, oso-ona da, ta Siloe'en irudien-antzekoa.

Auxe izango da, ziurki, eliza ontako aldarerik zaarrena...

Ba'ditu beste iru irudi eder ere: Asis'ko Franzizko'rena, San Pedro'rena ta Loiola'ko San Inazio'rena...

Eliza gutxietan ikusiko dituzu, emengo-alboetako, bi ateak bezein ederrak.

XVIII-garren gizaldikoak dira. Eta eliz-barrutik begira bear diezu, ate-auen eder-osoa ikusi nai ba'dezu beintzat. Ba'da ate auetan lan-eder asko...!

Eta ate auek bezein ederra dezu, korura-igotzeko arrizko maillaldi-kiribilla ere... Polita benetan...! Eta baita korua bera ere...!

Aipamen-berezi bat merezi du ORGANUA'k, ordea...

Baiñan gai oni buruz zear-mearko bat egiten utzi bear didazu...

Azkoitiarrak, berez, ez dira aberatsak izan bein-ere. Eta ala ere, esku-zabalak izan dira beti eliz-gauzaetarako batez-ere.

Gauzarik-onenak nai izan dituzte beti beren eliz-nagusian: elizkizunik ederrrenak, eliz-jantzirik onenak, elizgauzarik ederrenak eta abar... Eta ez dute, bein-ere, onik-izan, gauzarik onenaran-jabe izan ez diran arteraño. Ikusi, bestela, organuakin nola jokatu izan zuten...

1556-garren urtean, eliza bukatu baño askoz-lenago, ba'zuten azkoitiar auek beren lenego organua: Balda'ko elizatik ekarria, bearba-da...

Baiñan laister egin zitzaien organu obearengo-baten gogoa. Eta Orduña'n bizi zan Vicente Alaman'i enkargatu zioten bigarren organu au... 1581-garren urteko, San Migel-egunerako, elizan bear zuan, eta lanean gaiñera, organu onek...

Laister sortu zan, ordea, ots-aundiko beste organu-egille bat. Rioja'ko Nabarrete erriko semea zan, eta Jacinto del Rio zuan bere izena organu-egille onek... Eta 1648-garren urtean, ba'zuten azkoitiarrak onek egindako bere iru-garren organua... 176 urte iraungo zituan organu onek Azkoiti'ko elizan...

Beste organu berri bat zuten 1824-garren urtean: laugarrena au, ta Juan Monturne'k egiña bera...

Ez zan organu au, azkoitiarren gogokoa izan, eta 21 urte geroago, 1845-garren urtean alegia, ba'zuten azkoitiarrak beste organu berri bat: bostgarrena au, ta Azpeiti'ko Miguel de Amezua, organu-egilleak egiña...

Ederra zan organu au, baiñan...

Garai artan, karlistak zirala-ta, erbestetuak izan ziran, Frantzi'ra, Aldalur anaiak...

Musikalariak ziran anai auek, eta Frantzi'ko musikalari ospatsuenekin egin ziran lagun. Eta Aristides Cavaille-Coll izan zuten lagun oietako bat... Onek egiten zituan organuekin, txoraturik noski, ez zuten onen organu oietako bat Azkoiti'ra ekarri-arteraño pakerin izan...

Eta 1898-garren urteko Otsailla'ren 10-ean egin ziran azkoitiarrak gaurko organu-eder onen jabe.

Seigarren organua dezu au, bada, ta Aristides Cavaille-Coll'ek egin zuan azkeneko organua gaiñera...

Eta organu onekin ase ziran, noski, azkoitiarren ederregoaren gogoak...
Ba'dira, galtzerik merezi ez duten, orduko bertso batzuek.

Bedeinkatua zure sorrera,
zorioneko eguna
gure organu berri ederra
pozik aditzen deguna...

Miragarrizko gertaera bat
izan-ala pozgarria,
ikusten degu argiro zugan
o Azkoiti'ko erria...
Lendabiziko gaur jo, ta aditzen
dezun organu berria,
da zure fede eta birtute
gutziz aundien neurria...

Bedeinkatua...

Don Aristides Cavalle-Coll jaun,
bere lanian bikaña.
Organu au da gizon ospetsu
onek Paris'en egiña...
Onenbestekin esana dago
gauza oso jakiña:
izango dala Catedral aundi
batian jartzeko diña...

Bedeinkatua...

Teklau, pedal ta erregistroak
izanik osoak, danak
eslaitu dira konsultaturik
maixurik onen diranak.
Zenbat meritu duan organu
onetan egin dan lanak,
bakarrik esan lezake, ondo
ezagutzen duanak...

Bedeinkatua...

Eliz-fabrika eta erriak
lagun egiñaz alkarri,
jendearekin batean dute
bear dan dirua jarri.
Danon artian, bada, dezute
organu ori ekarri,
izango dana Eliza eta
Erriaren onrregarri.

Bedeinkatua...

Teklauak iru eskuentzako,
pedalak berriz oñetan,
erregistroak berrogeiraño
dira organu onetan:
tronpetak ezin ederragoak,
kanpo, barru ta goietan,
zeruko boza aditzen dala
dirudi soñu oietan...

Bedeinkatua...

Azkoitiarrak gaurtik beti
biziko zerate pozak,
adituzian organu ortan
gizon ta aingeruen bozak:
bada ain dira atsegín eta
ederrak beraren otsak,
nun txit gozoro igoko diran
zerura zuen biotzak...

Bedeikatua zure sorrara,
zorioneko eguna,
gure organu berri ederra
pozik aditzen deguna...

1703-garren urtean jaso zuten eliza onen lenenego KANPATORREA, ta tximista batek bota zuan kanpatorre au 1741-garren urtean.

Laister jaso zuten berria, baiñan berri onek ere, leengo zaarraren azkenberdiña izan zuan: tximista batek bota zuan au ere, 1943-garren urtean...

1947-garren urtekoa dezu, bada, oraingo eder-eder au ta Azkoiti'ko Raimundo Alberdi, arkitekto jaunak jaso. Ta herreriano-estilokoa dezu kanpatorre au.

Ikus dezagun orain SAKRISTIE.

Ez dezu bertan gauza berezirik arkituko, baiñan ederra da oso.

Iturri ederra du, ta ederragoa izango zan, noski, iturri au, ura gaiñezka erortzen zitaionean...

Irureta'renak dituzu ormaetako margozkiak. Azkoiti'ko margolari bat izan zenduan Irureta au. "Pattaña" goitz-izenez ezagunagoa...

Giza-irudiak dituzu leio-alboetako margozki oiek: Josefa amarena bata, Fr. Ignacio de la Concepcion Villarreal'ena bestea, Excmo. Señor Don Domingo de Idiaquez'ena irugarrena, eta Don Francisco de Zarate'na laugarrena...

Eta onela dio giz-irudi bakoitzeko idazkiak:

La V. Madre Josefa del Smo. Sacramento, Religiosa Recoleta de Santa Brigida e hija de la villa de Azcoitia, murió en de Santa Cruz de la misma en 23 de Febrero de 1721.

Fr. Ignacio de la Concepcion Villarreal, Definidor General de los Trinitarios, Procurador General en España, etc., etc... Nació en Azcoitia el año 1672 y murió en Madrid en 1733.


Excmo. Señor Don Domingo de Idiaquez, Arzobispo de Brindis en el Reino de Nápoles... Natural de Azcoitia. Murió en 1525.

D. Francisco de Zarate, Auditor de la Rota Romana. Electo Obispo de Segovia y Cuenca, y arzobispo de Santiago de Chile... Renunció a todo esto por humildad. Compiló, siendo auditor, varias decisiones de la Curia que quedaron manuscritas. Natural de Azcoitia...

Eta oarpen bat egiteko bidea ematen dit, sakristiko margozkiak dirala-ta, oraintxe esan dizudan guzti-onek: eliza berriztatu zan ezkeroztik (1992) ez dirala sakristian margozki aukerik. Beste nunbaitean daude, noski, gorde-rik...

Izan ere, 1987-garren urtean, Jenaro Lekuona Azkoiti'ko erretore jaunari esker, eta Azkoiti'ko erri-xumeak eman zuan diru-laguntza aundiari esker, eliz-berritze lanak asi ziran kanpantorrean... Eta 1992-garren urteko Martxoan bukatu ziran lan aukerik... Eta leen organuaz esan dizudana orixe-bera esan-zabalak bere eliz-nagusiarekin. Eta eliz ori, beste guztiak baño ederragoa ikustearren, edozer gauza egiteko prest-daudela beti. Eta eman duten milloik-askotako diru-laguntzari esker, arro daudela gaur, beren Eliz-Nagusi orrek etxekoen eta kanpokoaren ardurarik aundiena sortzen dualako... Izan ere, Euskalerrri'ko elizarik ederrenetakoa baldin ba'zán leen ere, zer esango dizut orain...

Anastasio Albisu Ayerdi



BARRE-GAIAK

GABONETAKO ERREGALOA

Gabonak dira eta Erregenak. Andre Joxepak Oto'ri:
– Etorri, maitea, zure Gabonetako erregalo arrigarria erakutsiko dautzut. Uri osoan ibillia naiz billatzeko.
– Ba-noa, ba-noa, bereala.
– Egon apurtxo batean, soñean zein ederto emoten dausten ikusi dagizun...

ZALDI-LAISTERKETA

Oto'k txartelak erosi ditu zaldi-kinieletakoak eta Lasarte-inguruan zaldi batek esaten dautso.
–Oto! Lenengo laisterketa-aldian neuk irabaziko dot.
Oto begira-begira eta zalantzan geratu jako.
– Arritu egiten al zara izketan egiten deutzu dalako, ala?
–Ez, ez, orregaitik, ez, zuk lenen aterako zarala sinisten dozulako, baiña.

AUZOKO ANIXETA

Auzoko Anixeta, atso zaartuak, Pototo'ren dendan sartu eta arratoiak akabatzeko pozoia eskatzen dau. Bigaramonean or datorkio barriro irriparre gozoenarekin, esanez:
–Parkatu, jauna, emen dakarkizut barriro atzo eroandako pozoia eta emon egidazu dirua.
– Zer, ba? Arratoiak amaitu dira, ala?
–Ez, jauna, ez da ori.
–Zer da ba?
–Kasualdidez bart il dala, istripu batean, nire senarra...

OTOTXOREN ALMENDRAK

Gabonak igaro dira umore onean. Turroia be jan dabe nai-koa. Pozik Ototxo eta gaur, barriz, pozago: ez dau ba, kajoi batean, almendraz betetako zorrotxo bat topa...! Au poza!
–Nun aurkitu dozu? –Amak.
–Aitetaren gelan.
–Ai, ene! Ez egizuz jan.
–Zergaitik ez? Oso gozoak dira.
–Aitak eroan dauz agiñak konpontzera.
–Eta zer, gozoak dira-ta!
–Alicante'ko turroia jan dogula aurtan...
–Eta, zer...?
–Ezin dauala jan...
–Eta, zer...?
–Miaztu bakarri egiten dauala...
–Eta, zer...?
–Ari miazkatzen sobratutako almendrak dirala.
–Kotxino...!

OTOTXOREN ATERALDIAK

Ototxo bialdu dau aitak Korreo-bulegora eskutitz bategaz, gizon prestu bateri Gabonetan zorionak emoteko. Zenbaitzue-

kin ondo gelditzea komeni eta marrazki eder-eder bat bialdu dautso. Ofizinakoak mutillari:

–Karta onek pixu geiegi dau eta seillo bat geiago ipiñi bear-ko dautsozu.
–Pixu geiegi dau?
–Bai.
–Eta, orregaitik beste seillu bat ipiñi bear dautsot?
–Bai.
–Ez al dau orrelan pixu geiago izango...?

ETXARRI'KO ERA BARRIA

Europan sartu geran ezkeru, Etxarri'n azoka europearra antolatzea erabagi eben. Ori aurrera eroateko gizon azkar bat fitxatu dabe Udalerako, Pototo jauna.
Pototo komunikabideetako injiniero famatuak, errian ordenamentu barriak ipintzea dau asmo. Erosi ditu kartel-agiri barriak: urdiñak eta gorriak. Sakabanatu ditu erri osoan: emen gorria, an urdiña; an gorria, emen urdiña... Zoragarri polit. Beste erri bat dirudi.

Azoka egunean estrenatu eben ordenamentu barri ori. Goiz ederra eta egusenti argi epela. Ba-datoz lau aizeetatik automobilak jeneroz beterik.

Oto ere emen da.
Alemania'tik ekarri dauz txarri bereziak: saiatza zur bat geiago dauke eta luzegoak dira ogi gabeko eguna baiño.
–Baiña-diñotsa Pototo jaunak —zelan ekarri dazuz karriak Etxarri'ra mendiak txarritz beteta dagoz eta...?
–Baiña oneik, luzeagoak dira.
–Txarria, laburra ohea, iñoan gure aitonak.
Dana dala, txarriak emen dagoz, eta zer ez da errira etorri...! Sekulako azoka ederra.

Illunabarrean asi dira urteteko asmotan berebillak berotzen... Zer arrano gertatzen da emen? Sartu errez sartu dira guztiak; nolanaiko aukerak errian sartzeko; baiña, orain sekulako iskanbilla sortu da.

Otok protesta:
–Sarrerak ugari; urteerarik bat be ez.
IVA kentzeko era ona da ori! Jeneroak sartu eta atera ezin...

ARGI-MUTILLAK ETA ZUGAITZAK

Ototxo bere aitagaz dabil eta "Lagun" bere txakurrak ankatxoa jaso dau zugaitz-enborraren kontra.
–Aitatxo, zergaitik dira tantai-arbolak ain luzeak.
Otok, txakurrak zer egin dauan ikusita, onelan erantzun dautso.
–Txakurrak ureztatzen dabezelako.
–Orduan ba-dakit zergaitik diran ain luzeak erriko argi-mutillak.

LATIEGI'ri

JAUNTXUKERIA

Aspaldi ontan, ez dot ezertxo bere idatzi, bear bada, nagikeriz edo baita be baleiteke zerbait bereizkeri bat naizelako, edo...!!

Dana dala, emen nabil burubideturik zerbait idatzi-naian, eta, ona emen ba, illeroko "ZER" 105'n zenbakian, nire adizkide dan Latiegi jaunak, zelan zirikatatu nauan, bere *EUZKADI: EAJ-EA* lan orrekin.

Egia esan, sarritan eukiten dot nire gogamenetan, guk edo gu, duintasunekuak izan geinken, edo, gure zorigaitzak, zer dala ta jarraitzen dauan gure lepoetan.

Euzkalduna, eskubidetutzen danean, geienetan, burura igoten jako nagusikeria ta olan etortzen dira etortzen diranak.

Nire ustez ba, euzkaldun izakera, ez da Arjentina'n esaten dan añako lez "*palabra de vasco*" baizen, gure kondairak agertzen dau beti gu, burrukan gagozala, batez bere, jauntxokeriko norkeriagaz.

Olan galdu doguz ba Latiegi jaunak esaten dauan lez, lurralde zabal eder asko, batez bere Akitania'ko itxas-ertz galantak, ba, "Golfo de Vizcaya" lez esagutzen dan itxaso guztia.

Euzkaldun izan zalako dator izen ori. Orren lez, Huesca, Errioja ta abar ta abar, eta, arriskun gagoz beste lurraldeak be galtzeko, Naparru berbera.

* * *

IRUÑA'KO BATZARRA

EUZKADI: EAJ-EA lan ortan, iru zatitan argitaratzen dozu zure lana; "*EL BATUA*"ren asmaketa; *ALDERDIAREN ZATIKETA* eta *EUZKO ALKARTASUNA*'ren *JAIOTZA*; Iru zati orrekin gaia, ontzat arturik, nik, zerbait geiago be esan nai neuke.

Gure gaitza, nire ustez, *IRUÑA - ANAITASUNA*'n egin zan zoritzarreko batzar nagusitik dator.

Batzar ori asikerako, bizkorregi egin zan, ez geunkan ez batzokirik, ez genkian nor, nor zan, abertzaletasuna baño "*ANTI-FRANQUISMO*"tasun geiagoko giroan gengozan, kristautasuna baño ezkertasun geiagoko giroa egoan, *J.E.L.*kidetasuna, oso gitxi ezagutzen zan, Alderdi'a *EUZKO ALDERDI JELTZALE* lez baño *P.N.V.* lez ezagunagoa zan, abertzaleak ezkerakin nastuta kalerik txaide ibiltzen ziran, gutarrak, Franco'ren aurka aurrez-aurre ebizan bitartean, ezkerria, bere *Revolución Cultural*'a oñarritzen saiatzen zan, gure gazte asko, abertzale lez espetxeratuak izan arren, komunista egin ziran abar eta abar.

* * *

IRUÑA - ANAITASUNA ortako ponentzi, txosten edo erabagia, oso kaltegarritzakoa izan da gure *ALDERDIAREN ZAT* ba, egun ortan egin ziran asmo-azterpenak, ezker arauak baño ez ziran, batez be, *JAUNGOIKUA* ta *LEGE-ZARRA* *J.E.L.* lez jarraitu ala ez.

Baita be esan ziran "*sobre la explotación del hombre por el hombre*" ta beste antzerako ezker-asmoak.

Bai, Latiegi jauna, gure gaitz madarikatua *ANAITASUNA*'tik dator, or erabagi zalako ate aundiak zabaldu bear zirala eta, sartu ziran danetarikoak, "*Poesía al Baztan*" etik "Social Democracia"raño, sasi "*abertzale*" bada ezpadako guztiak.

Garai artako gure burukideak esaten eben lez "vascos recuperables".

* * *

JELTZALETASUNA

EUZKO ALDERDI JELTZALE'ak, bene benetako *J.E.-L.*tzaletasuna egiztatzen ez dauan bitartean, gitxien uste danean, eukiko dau beste gorabera bat.

Bearrezkoa da ba, gure aita Sabin'en gogamenaren bidetik jarraitzea ta, lotsa barik, lau axetara deadarkatu ta, bear dan lez zabaldu *JAUNGOIKUA* eta *LAGE-ZARRA*'ren araua.

Aita Sabin'en nortasuna, lotsa barik erabili bear dogu ta, ez noizean bein aitamendu, ba lotsagarria da, aita Sabin'en azkenengo bere 122 gn, urtegun zoragarria ain isilik eta igarri barik joatea.

Sabin maitiak, ziur nago parkatuko dauskula, baña, guk zer?...!! merezi al dogu asketsi? Sabin...!!

GORRI

BARREGAIK

ZEIN ASTOAGO

Periko Fortuna makurra zan. Periko Fortuna astoa dogu: asto-astoa izan be. Oto eta bere Periko Fortunak urunetan joan bear eben errotara.

Errotetan beti izanten da zubiren bat. Zubi azpitik ura. Errota-Txiki'n be alatxe egoan eta errotatik uruna ekarriko baizan, zubitik pasa bear nai ta nai ez.

Egun artan, ordea, ego-aizeak jota edo, Periko Fortuna ez zala zubitik pasako. Oto'k baietz, pasako ebala. Eztabaida latza zubitxoaren ertz batean.

— Tok! Pasaadi eu-ñoan astoak.

— Pasa bearko dok! Arre, arre, arre...!

Arre bakoitzeko Perikoren bizkarra berotzen eban Oto'k makillaka. Baiña, Periko Fortuna makurgaitza izan eta ez eban ezelan be mogitzen bere artatik.

Makillakada bakoitzeko, Periko sendoago ezetzean.

—Enauk, ba, teman irabaziko. Oraintxe ikusiko joguk zein dan astoago...!

Sartu da Oto astoaren tripapean, sorbaldan astoa artu eta tapa, tapa or doa beste alderaiño.

—Neri Periko Fortunak ezertan irabazi...? Ez orixe- Aupa, neu kanpeon!

ZORIONAK

Andra Joxeparen lagun bateri aita il jako Donostian. Topo egin dau andre orrekin Otok, tabernatik urten eta gero. Ardoaren alegantzia dau barruan; baiña, oso kunplitua izanik, bere samiña agertu nai dautso!

—Jakín dot aita il jatzula!

—Bai, alan da. Min-bizikiak artuta bere menpean, il jaku giza-joa!

—Bai, ba, ortarako jaijo giñan, iltzeko. Zer egingo dozu? Tokatzen jakonan tokatzen jako, eta abar, eta abar.

Azkenean eskua emoten dautso esanez:

—Zorionak, zorionak.

ANES

JUANTXO-TXIKI BEGI-BELARRI (3)

Gogoratu zure umeak bere begiak irizita dauzala eta badauala, orretzaz gaiñera, zine-pantalla baten antzekoa, bertan berak nai dauanean barritzeko begietatik ikusiak. Gaur ez da konturatzen zenbait gauza zer diran; etorriko da, ordea, konturatuko dan eguna be...

Juantxo-txikiren begiak aurrez-aurre dozuz eta zabal-zabalik.

Bere aurrean kontuz ibili.

* * *

Belarriak be baditu Juantxo-txikik.

Belarritik sartzen jakon itza, umearentzat gogoko izango bada, 'ikusteko' erakoa izan bear dau. Bere irudimenaren zine-
oialean ikusteko modukoa; bestela, alperrik zabiltz beragaz berbetan; ez dautzu jaramonik be egingo. Ez eta kasurik be.

Silojismo astratoetan ba'zabiltz, obe dozu isiltea.

Alperrik zabiltz.

EUSKALERRIAN EUSKERAZ

EUSKERAZ ZALEAK

1.987

UDAKO IKASTAROA

BIZKAIERAZ

IRU MAILLA

EGUNAK: ASTELENETIK EGUNARTE
- GARAGARRILLAN

ORDUAK: ARRATSALDEKO 5'etatik - 7'etara
EDO 7'etatik - 9'etara

ORDAÑA: 3.000 peseta.

IZENA EMOTeko TOKIA: EUSKERAZALEAK
COLON DE LARREATEGUI, 14-2
BILBO.
URRUTIZKINA 422.93.22


CURSILLO DE EUSKERA VIZCAINO. 3 NIVELES

DIAS: LUNES A JUEVES - JULIO 1.987

HORAS: 5 a 7 o 7 a 9

PRECIO: 3.000 pesetas.

INSCRIPCIONES: EUSKERAZALEAK
COLON DE LARREATEGUI, 14-2 BILBAO.
TELEFONO 422.93.22


CAJA DE AHORROS MUNICIPAL DE BILBAO
BILBO AURREZKI KUTXA

Esan, ikusten diran itzak. Edo ikusten diran gauzen itzak. Irudimenean ikusi aal izateko kontuxoa esaten ba'dautsazu, aozabalik eukiko dozu zure aurrean, itz orreik jan bearrean. Tebeo, zinema, telebista... orreik zorabiotzen dabe umea. Zergaitik? Ikusten diralako. Berdin ipuiñak be: irudimenean 'ikusi' egiten dira'ta. Geuri be orreixek gustatzen jakuz; eta ortik kontuak atara...

* * *

Ari oneri jarraituz, beste zertxo bat be esango dogu. Umeak bere barruko irudimenean ikusten dauena, oso argi eta bizi ikusten dauela, bere begiz ikusten dauena baizen argi eta bizi. Ortik sortzen jakon naaste batek ipintzen dau gure umea guzurre dariola. Juantxo-txiki, guzurre-ontzi. Barruko eta kanpoko gertakizunak, guztiak dira beretzat benetako gertakizunak. Zer dan irudimenaren fruitua eta zer ez dan ezagutzeko aalmenik ez, askotan.

Ez egizu zure umetxoa gezurtizat artu.

Orrelako irudimen bizia dauan umeari ez ipuin bildurgarririk kontatu. Kalte egingo dautsoe eta bildurti biurtuko dabe. Kontuz.

Noiz beinka begi-belarriak sendagillari ikusierazo, atzera gelditu ez dedin eskolan eta gizartean. Ardura izan.

ARRINDA'tar ANES

BATASUNA

Batasuna aotan maiz.

Batasunez ao bete. Batasuna zer dan katedratik epaitu. Batasun aldekoa edo aurkako zein den dekretatu itz biribiliz.

Amaika orrelako bada gure errietan

B i tarte...

Batasunaren aitzakiarekin, Teknikaren aitzakiarekin gaztelera-itzez Euskera bete. Euskeraren iturburu jatorrera jo gabe...

Baserriak ez omen du gaurko teknikaren itzik.

Nik ez dizut orretan erantzungo. ez bai bakizkit baserritarrek dakiten itz tekniko guziak... Itz zaarrei askotan erantsi zaizkie esan-nai berriak ere... Bide guziak erabilli bear litzazke gaztelera jo baiño leen. Edo griegotik denak artu.

Zergaitik?

Euskaldunak erdibi gaudelako.

Egoaldekoak gaztelaratik artzen daben itz bakoitza, itz arrotza izan-^eo da gaztelera ez dakiten euskaldun iparraldekoentzat... Aiek prantzetatik artzen dituztenak ere guretzako arrotza, kanpokoak dira.

Orra nun batasuna aotan dariola, gaztelarako itz bakoitzakin BATASUNAREN AURKA jokatzan degun, naiz eta geuk epaitu zein dan batasunaren aurkako.

Jatorrizko itzak billatu, aztertu, denak ikasitakoan orduan esango didazu euskeraz itzik dagoen ala ez. Ta orixe da BATASUNAREN ALDEKO bidea. Sustraietan jotzen bai degu alkar euskaldun guziok.

Euskeraz axaletik ikasi. Erderaz pentsa. Bizpauru bat itz salsa guzietan naastu... ta idatzi Euskeraren batasunaren alde eten gabe... Naiz eta Euskera zatitu ta Euskeraren mamia uztu.

Gaztelarako itzak eta gaztelarako joskerarekin Batasunaren ikurriña jaso gure lanak ikusi ditzaten mundu guziak.

Ta Euskera garbi batean ta al dan jatorrenean idazten saiatzen dana, mundu aurrean salatu:

– Ori Batasunaren kontrakoa dezu.

– Zergaitik ba'?

–Izki bat erabiltzen ez dulako.

– Besterik gabe?

– Naikoa dezu ori. Ori bai da Batasunaren bandera.

Beste gabe joan zait arro-arro ta segurantzarik galtzeke.

Pekatori nauzu ez bai dut H'rik itsumustuka artzeko gogorik... Batasuna maite dut, nortasunik galtzeke...

Batasuna maite dut, baiña nun dago batasun ori...? Funts (fondo, bondo), funtsetan, finkatu (hincar), frogatu (probar) ta oien antzeko itzak erabiltzea H'rekin nahasian?

Funtsezko batasuna billatzeko obeto oiñarritu bearko degu, itz jatorren billa joanik... Batasuna gerturago dago itz jatorretan, erderatik (naiz frantzesera, naiz gaztelaratik) artutakoetan baiño...

Oiñarrietan. funtsetan, fundamentuetan batasuna dago geienetan: zenbat eta oiñarrituago, ainbat eta batasunetik gerturago...

Orretan dudarik ez dut.

Zalantzarik ere ez.

Ifarraldeko euskaldunak frantzesekin izan dituzten beuren artu-emanak eta andik artu dituzte zenbait itz erderazkoak...

Egoaldekoak Gaztelakin: eta andik artu dituzte beuren erderakozkoak...

Orra gaur eguneko desberdintasunaren sustrai garrantzizko bat...

Ori baiño aundiagorik ba da besterik?

Ta zorioneko batasun ori Ifarraldeko frantzes kutsuzko itzen bidez egin bear al degu? Frantzeserik sortutako itzak guri erantsita? Zenbat

batasun izenezko idatzi irakurri ezker ez dezu beste gauza berririk ikusiko... Ori bai, F eta H'dunak al ba da...

Frantzesetik ekarrita ala bertan dauden itz jatorrak billatu ta erabillita?

Emen bertako erdera-motoilloa erabillita, ala euskera jatorraren billa joan da?

M*r

Denok nai degu batasuna... baiña, H batekin, frogatu, finkatu, futsetan eta beste oien antzeko frantzes itzak egoaldera ekarrikin bakarrik ez degu batasunik lortuko... Batasun jatorrik, beintzat.

Sustraietan ba dirau oraindik Euskeraren batasunak, ez, baiña, aizkeneko adarren ostoeetan... Ta bere burua batasun aldekotzat jotzen duten batzuek ikusten dituguz, aizkeneko adarretako itz bizpauruekin beuren euskal-soiña jantzirik, batasunaren ikurriña aintzinean daramatela, batasuna lau itz frantzesekin eginda ba'lego bezela...

Goazen bai batasunera.

Baiña bide onentxoan aukeratu ditzagun aurretik... Lau itz idatu oiekin ba'goaz arro-arro beste guziak menperatu bearrean; gure bidetik ez dijoanari gatza ta ura ukatu bearrean... ez dakit ze batasun-klase egingo degun.

Esango didazu orretan bakarrik ez dagoela batasuna... Baiña ezin ukatu orde, bide ortatik nabarmentzen dala zenbaiten batasun-zaletasuna...

Ze batasun'?

Bi bokal tarte H'k jartzen dituan batasunena?

Bete zazu lege ori itzez-itzez eta ikusiko dezu ze idaz-molde ateratzen dezun...

"Euskaltzaindia" izena eskribu zazu erregela orretan ta ikusiko dezu ze "Ehuskaltzabindiha" aterako za zun...

x~*

Zenbait gauzetan bizkaitarrak Lapurditik gerturago daudela iruditzen zait. Gipuzkoatik (batez ere Gierriko euskaratik) baiño...

Zergaitik ote?

Biak erderakin muga luzeak izan dituztelako edo...?

Gipuzkoa (batez ere Goierri) egon da erdirago gorderik; kutsu oie-tatik urrutirago... (Gaur ez: gaur denok gaude kutsututa, birikietan artzen degun aizea ere erdalduna bai da...). Baiña, mende luzeetan ez da orrela izan... Latiñak berberak ere kutsu geiago utzi zigun Euskalerriarren ertzetan Gipuzkoa-barruan baiño (emen ez diralarik palta, bi itz datozkit bat-batean burura: "Berba" ta "jela" ta bi itz oiek ez dira Goierrian erabiltzen...). Biak dira latiñak: zuk dakizunez "verba" itzak latiñez, ta "gela" isotzak, bat baiño geiago diranean...

Alaz ere, joskera jatorrak ba dira Bizkaian Goierrian ez bezela: esate baterako, Lekeitio esan oi da "ibilli nabill" asko zabiltzela esateko, Goierrian erabiltzen ez dana... Esan bearra dago Lekeitio ez dagoela Bizkaiko kanpo-aldeko ertzeetan "kaballua" ta "bentania" esan arren...

Emen batasunaren gauza ez dago ain erreza.

Ez da naikoa Bizkaitik Lapurdira pasatzea, itsasotik pasatzen ba gera...

"Sustrai Billa" asi bearko Larresorok egin duen bezela... Orixe jotzen dut nik, bw¹u-bide onetan, gauzarik interesgarrienetako bat... Nik neuk interesik aundienak jarriko nizkioke: ez naiz, orde, neure buruakin geiegi fiatzen, ez bai nuen Euskerarik titiakin batera edoski.

Dana dala, ekin diogun guziok lanari, alkar mutur-joka gabe. Ez du lan au batek bakarrik egingo.

Ez da bik ere.

Baiña, askoren artean. bakoitzak bere bultzadaxoa eman da, aurre-ra joango da batasuna bere bidean.

ANES

(1971)

BEI-GORRITXU (5n SARIA)

Gabon-bezperako negu gorria; txingor-tanberrada leioan. Mateo Txistu mendian dabil erbiaren ondoren, eta bere txistuak entzuten dira aizearen burrundadan. Sukaldearen baztar batean amona intxaur saltsa-biarko egokitzen.

Sutegia bero: argia eta epeltasuna inguru guztian zabaltzen. Aparirako maia prest eta taloa esnekatilluagaz bakoitzentzako apari. Eseri dira umetxoak eta irentsi dute amen batean esnea eta taloa.

Amatxo (Txomintxu'k amari), esne-tanta batzuek sobre dodaz eta emoidazu talo zatitxu bat geiago.

– Katilluan gelditzen dan esnea edan egiten da besterik gabe. Ez noia zuregaitik beste talo berri bat erretzen.

– Bei gorritxuaren esnea obia da Zurirena baño.

– Zeure irudipena izango da; bei guztiak solo berdiñeko belarra jaten dabe-ta.

– Bai, baño, bei gorritxua Attittaren ipuiñetan agertzen da.

– Bai, bai, ala da - diote beste maikide guztiek.

Txomintxu eta amatxo eztabaidan ari diran bitartean, beste anai-arebek zurrut egin diote katilluetako ondakiñei, ortzak zorrotz danboliñeko gaztañei ekiteko. Esan bear degu bitarte onetan aita beieri belarra emoten ari dala eta aittitta danboliñari eragiten. Gaztañak asi dira pin eta pun. Maiatik jeiki eta neskato-mutillek, aulki txikietan, su-inguruan jarri dira aittitta erdian dabela, mauka-mauka gaztañei ainkaka.

—Aittitta, Txomintxu'k, bei gorritxuaren ipuiña esan egiguzu.

—Bai, Bei Gorritxuak badauz bere ipuin bereziak gure artean.

—Esan, esan, aittitta - craso diote beste guztiak.

Danboliña jaso, suari eragin biztuteko eta asi da aitona kontu-kontari:

— Bein batean, Goikola'ko neskatxa mendian ganadua zaiutzen dagoela, jo eban ekaitzak zeruan eta etxeko bei gorria galdu eban basoan. Sartu zan bera be basora eta an topa eban bere etxeko bei gorriaren

antzeko bat. Eurena zalakoan, eldu eutson buztanetik etxeruntz eramateko.

Eta, zer egin eban beiak? dio Anetxuk.

Arin-aringa asi zan baso-barreneruntz.

– Ez al eban etxera etorri nai? -Pedrotxo 'k

— Goikola'ko neskatxak buztanari eutsi eutsan indar guztiaz eta beiakin batera an joan zan oian barreanean zear.

– Noraiño eraman eban?

– Koba-zulo sakon bateraiño.

– Baina beia leize-zuloan bizi al zan?

—Bei arek Bei-gorritxu eban izena, baño ez izana.

– Zer zan, ba?

—Bei gorri baten itxurak artutako sorgiña: Mari, sorgin guztien erregiña.

Begoña'ko Andra Mari'ren senitartekoa?

– Ez, umetxo, Begoña 'ko Andra Mari'k ez dau zer ikusirik Mari sorgiñarekin. Batzuek, gure artean, nai dituzte biak alkartu, izaki baten bi aurpegi balira bezela. Bi gauza desberdiñak dira.

—Mari sorgiña jentillen erregiña al zan?

—Eta Begoñako Andre Maria Jesus'en ama eta gurea ere bai. Biar ikusiko dogu korta batean Jesus Aurra eskuetan daualarik.

– Eta, zer egin zion Bei-gorritxu sorgiñak Goikola'ko neskatxari?

– Berarekin koban bizitzen imiñi, neskame bezela.

– Eta, an al dago ondiño?

– An egon zan denbora luzean eta ez zan iñor araiño ausartzen.

– Orduan, Mari gaiztoa da.

– Mari sorgiña gaiztoa eta ona ere bada. Begirude dionari mesede asko egiten deutsoz.

– Au bildurra gabaz etxetik irteteko!

— Gabekoak gabekoentzat, esaten zuten gure aurrekoek eta egunekoak egunekoentzat.

– Eta, amak gauzez metal-iturrira bialtzen ba'gaitu, orduan zer?

– Ba, andik etorrita, sutegiko ikatz goritu bat sartun bear da uretan, gaueko espiritu txarren kutsuak kentzeko...

Gaueko garbiketak eginda, ama urreratu zaie lotarako ordua dala-ta; baiña, umetxo danak asi dira protestaka:

– Biar festa dogu eta utzi eiguzu Beigorritxuaren ipuiña amaitzen!

– Bai apurtxo batean laga neure illobatxoak nerekin. Zer geiago jakin nai dozue?

—Bolueta aldean ebillen artzaiarena.

— Bein batean baserritar batzuek etorri ziran Amboto'ko Mari sorgiñaren gana, mesede eskatzen; baiña, Mari'ren serbitzariak esan eutsen Bolueta aldean zebillela, ezak kobratzen.

—Mari'k gezurra esaten dauana, zigortzen dau.

— Alan bada, Mari ona da; Jainkoa'ren antza dar"

—Jainko baten antzera, aginduak ere badauz.

– Baiña, aittitta, ez diguzu esaten ezak kobratzea zer dan.

– Gezurra zigortzen damita be, esan deusuet.

– Eta, nolan zigortzen dau, ba?

– Bolueta'ko artzaiñak eun ardi eukazan larraiñean; bada, arakiññari larogeita amar eukozala esan eutson.

– Ori gezurra da eta zer zigor emon eutson?

– Eukozanak baño amar ardi gutxiago esan zuen eta orretzek kendu eutsozan gezurraren kastigu.

—Kastigu ederra da.

—Sariak emoten be badaki.

—Goikola'ko neska basoko leizean eukon sartuta Mari Beigorrituak eta zelan esan dozu Anboto'ko aitzetan bizi dala?

– Gure aurrekoek esaten eben - naiz eta benebenetan sinistu ez - Mari'k zazpi zulo-bizitza bereziak eukozala Euskalerriko leizeetan.

– Eta, zelan joaten zan batetik bestera?

– Sua dariola joaten zan beti, batetik bestera, aidean: batzuetan susko zalgurdi batean, txinpartaz inguraturik eta zalapartaka: beste batzuetan sutan dijoan arbola baten antzera; baita illargi eta itaiaren itxuran, baiña, beti sutan...

– Eta Goikola'ko neskatxa ez al zan sekulan kobazulotik unen?

—Bere billa ibilli ziran ibilli guraso, senitarteko eta lagunak; aspertu ziranean, orduan Mari'k, bere menpean ondo portatu zalako, jantzi ederrak eta otzaratxu bat emon eutsozan.

– Otzaratxua zertarako?

– Otzaran ikatza imiñi eutson.

– Bere baserrian olagizonak al ziran, ba, ikatza emoteko?

—Etzerako bidean dijoala neskatoa, otzarako ikatza, urre biurtu.

– Zer poza artuko eben gurasoek urrea otzaran ikustean!

– Alabatxu, urregaitik ala berriro alaba etxean egoalako?

—Biakgaitik, attitta.

Ama agertu zan berriro sukaldean, tresnak jaso eta gelak prestatu ondoren, seme -alabaxuei onela esanez:

—Gaurko naikoa da; laga biarko zeredozer; oak bero-bero dozuez eta lotaratu baño lenen, otoitzak egin.

Umetxoak lotaratu ziranean, amamak errautsagaz sukaldeko sua eztali zuen: bigaramon goizean, errautza kenduz, sua berriro bizi-bizi agertu zedin. Berekasa ziarduan:

Bai, ba, guk egunez bear dogun sua, gure aurrekoek gabaz bear dute. Biziak eta illak danok alkarregaz beti sutegiaren inguruan.

"Egia ba'zan, sartu dedilla kalabazan eta urten Elorriño'ko plazan:'

ARRINDA'tar ANES

≡ ≡ ≡

BERBALAPIKOA

Lotu= batu, alkartu, bat egia.

Jatorri= etorburu. nondiko.

Fogerazino= antxina egiten zan familien zerrendea.

Ingude= burdineari itxurea emoteko azpiko euskarria.

Marai= orain dala 300 urteko dirua.

Gurbizti= gurbizi askoko lekua.

Burdin-meas= burdinazko miuerala.

Andapara= errotako ubidea.

DIDAKTIKA

BERE ETA AREN ARAZOA

Bi berba eta itz auek, Bere eta Aren, erabiltzean benetako naastea sortzen degu. Begiratu ondoren ipintzen doguzan ildakoen "eskela"k. Oietako bi Donostia'ko El Diario Vasco'tik artuta daude Dagonillaren bian. Beste biak Bilbao'ko DEIA'tik jasoak Dagonillaren iruan. Egun baten aldea daukate, urtea eta illa berdiñak dira.

Donostia'ko aldizkariak AREN erabiltzen du eskela bietan. Bilbao'koak, berriz, BERE.

Berdin al da bat ala beste erabiltzea?

Orixe da kezka, arazoa eta korapilloa.

Kezka ori gaintzeko, arazoa argitzeko eta korapilloa askatzeko, badu gure maixu argia izandako D. Manuel'ek lantxo bat.

2-VIII-92 - El Diario Vasco - Donostia

**INMACULADA ESPARZA MUÑOZ
ANDREA**

Irunen il zan 34 urte zitueta, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena artu ondoren

-Goian bego-

Aren senarra: Andoni Iriarte; seme-alabak: Aiert eta Asier; gurasoak: Angel eta Rosario; ezkon ama: Ascensión; aizpa: Hortensia; ezkon anai-arrebak: Felix, Elisabete, Maria Jose, Juantxo eta Iñigo; osaba-izebak, lengusuak eta gainerako aideak.

Aren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaiteztegia BIAR, ASTELENA, arratsaldeko ZAZPIRETAN, LA SAGRADA FAMILIA parroki elizan, egingo diran iletara. Aldez aurretik, milla esker.

Irunen, 1992ko abuztuaren 2an

Zuzenbidea: Luis Mariano, 4-3B.

OARRA: Gorputz laguntza biar, astelena, bere familia artean kanposantura egingo da.

2-VIII-92 - Donostia

ANTONIA PAULA ESNAL IRIONDO ANDREA

Atzo il zan 60 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena artu ondoren

-Goian bego-

Aren alaba: Martina; illobak: Luis Miguel eta Iñaki Aizpurua, Luis, Alberto, Ramon eta Anastasio Esnal; ezkon-illobak, lengusuak eta gainerako aideak.

Aren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela GAUR, IGANDEA, eguerdiko HAMABIETAN, herriko SALBADOR DEUNAREN parroki elizan, egingo den ilelara. Aldez aurretik, milla esker.

Legorretan, 1992ko abuztuaren 2an

OHARRA: Gorputza eliz atarian artuko da.

3-VIII-92 - DEIA - Bilbao

BUENAVENTURA TOÑA LANDA ANDREA

(Goian bego)

Ean il zan atzo, 1992. Abuztuaren 2an, 86 urte ebazala, Eleizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkaziñoa artuta

Bere loba: Ane, Julen, Itziar (Fabian Navera-ren alarguna) eta Ibon Toña, Iñaki eta Maria Jesus Irusta (Frantzisko Arrizabalaga-ren alarguna), Eusebio Kerejeta, Marisa Muñoz, Miren Begoñe Zuazua eta Belen Bilbao; eta beste senideak.

Bere arimaren alde OTOITZ egin eta GAUR, astelena, illak 3, arratsaldeko ZAZPIRETAN, EAKo Jesuseko Andra Mariaren eleiz-nagusian izango diren ileta-elizkizun eta gorpuaurreango mezara joan zaitezela eskatuten dautsue. Aldeaurrez, milla esker.

Bizilekua: Ea.

(Il.Z.: Uribe - Gernika)

3-VIII-92 - Bilbao

EUGENIO MARON ALBERDI

(Goian bego)

Galdakaon il zan atzo, 1992. Abuztuaren 2an, 77 urte ebazala, Eleizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkaziñoa artuta

Bere emazte, Sotera Yurrebaso Larrea; alaba, Mari Luz eta Begoña; suin, Jabier Isasi eta Juan Carlos Valderrama; illoba, Aitziber, Garakoitz, Etor, Ibon eta Iker; koiñatu-koiñata, Juli Castillo (Bernardo Maron-en alarguna), Juan, Biktori (Anizeto Muniozguren-en alarguna) eta Maria Begoña Yurrebaso (Daniel Perez-en alarguna) eta Angelita Uriarte; loba, lengusu eta beste senideak.

Bere arimaren alde OTOITZ egin eta GAUR, atelena, illak 3, arratsaldeko ZAZPI TERDIETAN, GALDAKAOko Andra Mariaren eleiz-nagusian izango diren ille-elizkizun eta gorpuaurreango mezara joan zaitezela eskatuten dautsue. Aldeaurrez, milla esker.

Bizilekua: Urtebieta auzoa, 12-1. esk. - GALDAKAO.

Ona emen D. Manuel Lekuona'ren lantxoak:
Noiz "bere"? Noiz "aren"?

STATUS QAESTIONIS

Erderazko "su" posesiboa, latíñez, batzutan suus da; bestetan eius (eiusdem, ipsius).

Adibidez: a) "Oportebat Christum pati, et ita intrare in gloriam suam", "Verbum caro factum est... et vidimus gloriam eius".

Erderaz bi forma oiek beti su esaten dira: a) "entrar en su gloria"; b) "hemos visto su gloria".

Euskeraz, zer?

HISTORIA APUR BAT

Latiñaren bide beretik ibilli izan dira beti laburditar, be-nafar eta zuberotar idazleak. Batzutan BERE erabiltzen dute, eta bestetan AREN edo BERAREN. Gero ikusiko dogu noiz bata, ta noiz bestea.

Bizkaitarrak gai ontan erderaren bideari jarraiko zaizkio: posesiboa beti ere BERE egitera jo izan dute. A. Lino'k, leengoan esan zigunez, A. Añibarro'k, Axular'en "Gero" bizkaieratu zuanean, AREN guztiak BERE itzuli zizkion.

Gai ontan oso otsaundikoa izan zan aspaldi batean, Orixe'k, Bilbao'n, "Euzkadi'n" zegola, bizkaitar batzuekin, Bizkai'ko oituraren aurka izan zuan polemika. Beti BERE erabiltze ori, erderakada zala, zion, ots! erderaren kutsu txar bat, solecismo bat, alegia.

Gipuzkoar klasikoak ondotxo jarraiki zaizkio Laburdi-aldeko ta latiñaren legeari. Eta guk ere, Liturgi-lanetan, bide oni beroni jarraitzen diogu.

Dana dala, ikusi dezagun orain, nola dan latiñaren eta beste aldekoen legea.

"BERE" ETA "AREN"-EN LEGEA

Gauza argitzeko, ipiñi dezagun eskema bat:

Nik, nere;

Zuk, zure;

Ark, bere;

– Batzutan bai, bestetan ez.

– Noiz bai, ta noiz ez?

Erantzun baño leenago, oartxo bat: Posesivo baten barruan (su baten barruan) beti ere pertsonal bat (ura bat) dabillega.

Orra orain legea: "Posesivoaren barruko pertsonala, eta esaeraren pertsonala bat-bera diranean, BERE izango da; beste bat danean, AREN, BERAREN. Eta guzti ori esaera bat-beraren barruan danean; posesiboa urrengo esaeran-edo baldin badago, berriz ere AREN izango da". "Pedro BERE etxean bizi da"; "Gu, AREN etxean bizi gera". Ori da legea.

Orain, esaera beraren barruko bi pertsonalak bat-bera izatea, lau eratarata gertatu diteke:

1) Esaeraren pertsonala, nominativo danean: "Ura (Pedro) BERE etxean bizi da"; ("Petrus in SUA domo habitat"); "Ark (Pedro'k) BERE etxean lan-egiten du"; ("Petrus in SUA domo laborat").

2) Esaeraren pertsonala, acusativo paciente danean: "Ura (Pedro) guk BERE etxean ikusi degu"; ("Vidimus Petrum in domo SUA").

3) Esaeraren pertsonala, dativo danean: "Arri (Pedro'ri) guk BERE etxean itz-egingo diogu"; ("In domo SUA loquemur Petro").

4) Esaeraren pertsonala, ablativoa danean: "Arekin (Pedro'rekin) BERE etxean egon giñan"; ("Cum Petro in domo SUA commorati sumus").

1'gn. erako nominatiboa (ura, Pedro) alda dezagun, eta leengo BERE ori, orain AREN bihurtuko zaigu:

Ni, AREN etxean bizi naiz;
Zu, AREN etxean bizi zera;
(Beste) Ura, AREN etxean bizi da;
Gu, AREN etxean bizi gera;
Zuek, AREN etxean bizi zerate;
Aiek, AREN etxean bizi dira.

Ala ere, 2'gn., 3'gn., ta 4'gn. erakoetan, aurreko nominatiboa aldatu arren, posesiboa BERE izango da ta ez AREN:

Nik, ura (Pedro) BERE etxean ikusi det;
Zuk, arri (Pedro'ri) BERE etxean itz-egin diozu;
Gu, arekin (Pedro'rekin) BERE etxean egongo gera.

Erderaz, berriz, guzti oietan beti SU esango dute: "Yo vivo en SU casa"; "Tú vives en SU casa" etab.

Bizkai'ko, gai ontako oituraren adibidetzat, ikus arako olerki bizkaitar ezagun- ezagun ura: "Askatasun - eguzkia / basotik urtenda // BERE ergia edonun / arin zabaltzen da". Gure legetan, "BERE argiaren" ordez, AREN (eguzkiaren) argia" bearke luke izan; edo-ta bestela, (eguzkiak) "BERE argia edonun arin zabaltzen DU", olerkiaren rima urratuaz.

PRAXIS

I.-2'gn., 3'gn. eta 4'gn. eraetan, esaeraren nominatiboa, ura danean, esaera naasiak gertatu oi dira: "Ark (Joan'ek) Pedro BERE etxean ikusi du". Ez dakigu zefiña dan etxe ori, Joan'ena a la Pedro'rena. Dagon bezela, ba dirudi Joan'ena dala. Orregatik, Joan'ena ez baño, Pedro'rena balitz, BERE orren ordez beste formaren bat bearke litzake ipiñi: ONEN, BERONEN, BERAREN, alegia: "Juan'ek Pedro ONEN etxean.

II.- Ildakoen eskelaetan azaltzen diran "BERE emazte I. eta I. eta BERE seme-alaba I. ta I." oiek, Gipuzkoa'ko legearen barruan ez daude ondo. Eskelaetan ez dago esaera bat bakarrik: bi esaera datoz, bata bestearen ondotik: (aitaren eriotza, eta etxeko eskabidea). Bigarren esaeran dagon posesibak, legez, AREN izan bear luke. Bañan AREN orrek, esaerari zerbait urrutiko edo aspaldiko kutsu ematen bait dio, AREN ori ez dator or ain ondo. Beragatik, edo-ta emen ere BERAREN edo BERONEN esan bearke litzake (BERONEN emazte I. eta I. k...), edo-ta, obeto, ezer ez: soil-soillik "Emazte I. eta I. k eta semea alaba I. eta I.k"...

III.-BERAREN ori, ederkitxo ageri da Eguerri-kanta batean:

"Kantatu dezaigun / Aurtxo Jainkoari,
poz aundi bat emanaz / BERAREN Amari".

Egoki dago or BERAREN ORI; bañan ez legoke itsuski BERAREN orren lekuan AURRAREN ipintzea; ots! izen-ordekoaren lekuan, izena bera alegia.

Estilistikaz, izen-ordekoak oso zallak dira egoki erabiltzen.

Beste arau praktiku, beraz: "izen-ordekoen ordez, izenak berak erabiltzea".

"Pertza-konpontzallea"
ANES

BIBLIA, JAINKOAREN ITZA, JAINKOAREN BERBEA

Jakintza Munduaren sorreraño eltzen da gaur egun; baña, punto zero deritzan asiera orretan gelditzen da, aurrerago joan gabe. Gaur egun jakintzak egiten ez duena, ori Moises'ek egin zuen orain iru milla urte: Jainkoa dagoela punto zero orren asieran.

Bibliaren lenengoko bost liburuak, Moises'enak edo Moises'en garaikoak dira. Biblia osoak (72 liburu) Jainkoa eta gizasernearen arteko historia agertzen digu.

Bertan esaten digu mundua eta bertako izaki guztiak Jainkoak egin zituela. Historian zear Jainkoak aukeratu zuen Israel erria beretzako eta erri ori esklabutzatik ateratzeko, berriz, Moises.

Israel esklabu zegoen Ejipton'n eta Moises aukeratu zuen Jainkoak, erri ori andik ateratzeko rnariri aundien bitartez. Erernuan berrogei urtez bizi ondoren, eldu ziran Jainkoak agindu zien lurraldera, askatasunean bizi aal izateko.

Askatasun eguna gogoratzeko ospatzen zuten Pazko-festa.

f*

Moises izan zan Jesus'en irudi bat. Beronek askatzen gaituelako pekatu eta betiko eriotzatik. Ama-birjiñagandik sortu zan, Belen'en jaio eta Jerusalem'en iltzan gurutze batean josita. Eliza sortu zuan eta bere Maitasunezko Espiritua bidaldu zigun; Espiritu orreri esker deitzen diogu Jainkoa'ri Aita izenarekin.

Jainkoa ez da gauza bakarti bat. elkarte bat baizik: bakarra izanik, iru notin edo norki ditu beregan: Aita. Sernea eta Espiritu Santua. Gizakiak ere farnili batean sortzen dira: Aita, ama eta seme-alaba. Jesus'ek sorturiko Elizak ere farnili bat osatzen du: guztiok gera alkarren anai-arreba.

Israel eta Jainkoa'ren arteko artu-ernanak Testamentu Zaarreko Biblian daude, Jesus jaio artekoak. Jesus'ek bere ikasle- i agindu bat eman zien: Mundu zabalean berak erakutsitako Jainkoa'ren erreinua itzez zabaltzeko. Aiek itzez esandakoak ikasle batzuek idatzi egin zituzten eta idatzi oiek dira Testamentu Berriko Biblia. Baiña, idatzitik bakarrik ez da gure fedea bizi: Tradiziotik ere bai. Tradizioa zera da, Euskalerrian egin deguna Ageda'rekin (Santa oneri abesten diogu "usarioa galdu ez dedin"). "Usario" ori izango litzake Tradizioa.

"Eskerrik asko, Jauna / biotz-biotzetik".

*x

JAINKOAREN LANA

Fisikako Nobel-saria irabazitako Anthony Hewish jakintsuak onela zion Donostia'an 1988'an (El Correo Español-III-10):

"Zero pututik aruntzago? Gauza guztiak zergatik asi ziren

galdetzean, fisikak ez du erantzunik.

Zientzilari batzuk, neuk ere bai, gorengo maillako adimen bat bearrezkoa dela uste dugu... Jainkoa oiñarrizko dela pentsatzeraz iritxi naiz...

Zientzian ez dago ezer ere neure sinisrnen personalaren aurka dagoenik".

BIBLIAREN ZAZPI EGUNAK

Gauza asko eta eder daude mundu zabalean eta guztien sorrera eta asieran Jainkoa dagoela diote Bibliaren liburu santuak. Berak egin zituela guztiak zazpi egunetan. Onela:

1.- Zeruak eta Lurra egin zitun. (Zeruak utzi eta Lurrarekin asiko da).

2.- Argia (eguna), urak eta legorra.

3.- Legorreko mndietan, belarrak eta arbolak.

4.- Eguzkia eta Illargia agertu ziran (laiño artetik).

5.- Uretan arraiñak, aidean egaztiak eta mndietan, piztiak.

6.- Guztiak prestatu ondoren, egin zitun gizona eta ernakumea, lurrez eta espirituz.

7.- Ez zuan ezer egin, gizonak zazpigarren egunean atsedena artzen ikasi zezan.

* * r

Igandeetan lanari utzi eta atsedena artzen Moises'ek irakatsi zion bere Israel erriari. Orretarako Jainkoaren lan osoa sei egunetan banatu eta zazpigarren Jainkoa atsedena artzen ipiñi zuen. Jainkoak ez du deskansu bearrik; baiña erriak bai, bear zuen. Gaur egun aurreratu egin gera eta jende askoek larunbatean ere jai egiten dute. Garai aretarako igandean jai egitea aurre rapen aundia izan zan, Bibliari eskerrak.

Biblia ez da zienzi-liburua. erlijio-liburua baizik. Gizaki eta Jainkoa'ren arteko ar-emanak ditu aztergai.

Literatur mnotak desberdiñak daude Biblian: pedagoji-gaiak, kontaerak, olerkiak, erri-oiturak, parabolak, profeziak, otoitzgaiak...

Moises'ek eta beste idazleak ez zuten zienzia-libururik egin, baiña Lurraren sorrera berak esan bezelatsu gertatu zan.

Berak azpinnarratu nai izan zuena auxe da: Zerki guztiak, Uniberso osoa, baita gizakia ere Jainkoak egiña da: Gizakia lurra eta espirtua da eta bere sortzaillearen esanetara egon bear du. Eta zazpi egunetik bat, gutxienez, jai egin bear du. Jainkoak egiñiko guztia ona da berez baiña gizakiak okerra egin zuen asiera-asieratik.

Ori diñosku Kredoa'k: Sinisten det Aita aalguztidun zeru- lurren egillea.

ANES'EK

BIOTZEAN BEGIAK

Neure aurtzaroa, gerra ondorengo aurtzaroa, illuna eta tristea izan zan. Ez ogirik eta ez jolasik.

Kale-baserriko alaba nintzan. Bederatzi anai-arreba. Ezkola-apurtxo bat ikasi ondoren, guretzako beste biderik ez, eta aurzai sartu nintzan gure aldeko uri nagusian.

Geroago, lantegi batean eman nuan nere izena. Etxetik joan oi giñan lanera bizikleta baten gainean. Lan luzeak ziran ordukoak eta zortzi orduak bete ondoren, beste bi gañezko egingo ez zuen kristaurik, ez zan gure artean. Amar ordu luze.

Neska multsoa genbiltzan alkarrekin lanean eta, lana amaitzean, astiro etorri oi giñan etxeruntz, gure kideko mutikoei irripar bat egiteko ere adorerik gabe.

Alaz ere, ametsak, ames.

Nere buru-biotzetan dantzari zebillen, amesetako errege-gai zoragarria: mutil lerdena, bizkorra, ar⁸ña, indartsua... bete-beteko gizona.

Topatu ere topa nuen aren antzeko bat. Bazuen zorioneko motoa eta an genbiltzan jaiero, erririk erri, festarik festa, atsedetik artzeke...

Egun batez, ordea, nere aizpa gasteagoa eta ni, biok etxe-inguruan gaudela, orra or, geure aurrean parez-pare, bi gazte alkarri besotik elduta, biziro izketan. Gurera eldu ziranean, agur egin ziguten eta izketa alaitsu batean jardun genduan.

Ez nintzan lenengo batean konturatu, betaurreko illunak zituan gaztea, itsua zala... Berri onek ez zidan barru-txarrik sortu; bestela, baizik... Gustora nengoen berari begira, itz-jario.

Berriro ere alkar jo genduen ondorengo egunetan eta, ustegabea, maitasuna ari zitzaigun biotz-barruan emetzen...

—Ez zenduke orrekin ibilli bear. Zu neska panpoxa zera, argia, osasun onekoa eta, gainera, badezu zeure mutil gazte bikaña ere... Zergaitik eta zertarako elbarri batekin zeure bizia betirako lotu?

Alan jardun zidan Urliak, konturatuta bait zeuden nere ingurukoak, ni zertan nebillen.

—Gaxo-laguntzaille izan bear at dezu bizitza osoan?

Alkar ezagutu genduen egunean, gure aita zegoen etxe-atarian makal... Mutilla atsegin izan zitzaion:

—Ez egin kasurik inguruko aztiei —esan zidan—; mutil on aberatsa dezu barru-aberaztasun eta alaitasunez. Gorputzeko ezbearrak, barruko ausardi apur bategaz sendatzen dira. Mutilla indarkeri edo lizun-keri menpean ba'lego, esango nizuke, bereala uzteko. Bañan emen ez da orrelakorik. Egizu zeure gogo.

Andik aste gutxietara il zitzaidan aita.

—Alabatxo —esan zidan il-aurretik—, arako betaurre illuneko mutiko ura, konbeni zatzu. Arekin zorionsu izango zerala deritzait.

Bitarte aretan nere gogo zalantzan zebillen, aide batera eta bestera, aurreko mutilla ere maite bait nuen. Uzteak min ematen zidan. Alaz ere, aizkenean, erabakia artu nuen eta itsua aukeratu.

Erabaki onek zalapartak sortu zitun nere inguruan. Nere familian baziran esku gogorra erabilli zutenak ere, neri erabaki on burutik kentzeko. Baña, zenbat eta eragozopen geiago, ainbat eta maiteago nuen itsua.

Azkenik, Santa Luzi goiz argi batean esposatu nuen pozik eta alai. Uste osoz. Ez zait damutu.

Ogei urte daramazkigu alkarren ondoan, eta, egia esan, bide guztia ez da lorez bakarrik bete; izan dira arantzak ere tartean. Baña, alkarrenganako konfiantzarekin, alkarri begiratuta, zailtasunik gaitzenak ere menperatu ditugu alkarren pozerako...

Bi alabatxo sortu zaizkigu, eta, nere senarrak begiz ikusten ez ba'ditu ere, biotzez ikusten ditu argi. Itsua izan arren, beste gizonen kideko egin du bere burua, beti alai eta biziaren maitale.

Makrofisioterapia ikasi du eskola famatu batean eta bere eginkizuna betetzen du, ondo baño obeto, Estaduaren osasun-etxe batean. Musika zale da eta erakusten du. Bestetik, berriz, lagun onez inguraturik bizi da.

Gure inguruko pake lasai onek lagundu digula bizitza guztian maitasunaren babesean eta itxaropen-bide izan dedilla, ikusteko biotzaren begiak ez dituen guztientzat.

(Artuta bezela damotzut. EVA-express.
Milano. 1979-VII-3).

ANES

>: >: >:



BIXENTE LATIEGI ELIZAREN HISTORIA EUN URTEZ (I) 1814-1914

Andre-jaunok:

Urte t'erdi da emen Donostia'n bildu giñala beste liburu baten aurkespenerako. Liburu ura eta gaurkoa biak dute Eliza gai bezala eta biak dira egille baterenak. Badute, ordea, beste bat ere aurretik gai berarekin eta egille berberarena.

Ona iru liburuen idazpuruak:

**SAN INAZIOREN DENBORAKO ELIZA,
DENBORA BERRIETAKO ELIZA eta
DEMOKRAZIAREN DENBORAKO ELIZA.**

ELIZA dute gai irurak; baiña, ez denbora berdiñetan. Bakoitzak badu bere aldi berezia historian zear. DEMOKRAZIAREN DENBORAKO ELIZA liburuari dago-kion garaia joandan egunkiaren 14'an asten da eta egunki onen 14'garren urtean amaitzen da. Eta onenbeste atal ditu:

Demokraziaren Zabalkundea, Sozialismoaren Jaiotza, Ameriketako Nazio Berrien Arazoak eta "Irugarren Munduko" Eliza.

Irurak dira EUSKERAZAINTZAK argira emanak ELEIZ-EDESTI-SORTA saillean eta bosteun orrialdeko liburu mardulak dituzue. Gaurkoak ere baditu bosteun eta sei orrialde bete-beteak.

Iru liburu auekin ez da sailla agortzen; badatoz beste batzuek ondoren. Eleiza-ren Edestiak ez du orrelako saillik beste bat euskeraz. Eta, nekez sortuko da besterik. Euskalerriko kristau-agintariek bearko luteke arazo au begien aurrean ipifi, bizkar eman gabe eta ezjakifean egon gabe.

* * *

Iru liburu auen eta ondoren, gai orreri buruz, agertuko direnen sortzaillea eta egillea Bixente Latiegi dezute, euskaldunen artean naiko ezaguna bai El Diario de Navarra'ren bidez, Sasaki-Naski'ren bidez; baita Zer eta Karmel'en bidez ere. "Euskerazaintza" gure aldizkariaren bidez, zer esanik ez.

Itur-buru ugaria du eta emankorra, sekulan nekatzen ez dana idatzi eta idatzi. Idazkera jatorra eta garbia bere jaioterriari dagokion bezala (Tolosa eta Aralar-ingurua) eta, "Batasun" onek, goitik beera indarrez ezarritako onek, sortu dituen

naasketatik kutsatu gabekoa. Izan ere batasunaren aitzekian sortu dituzten naaspillek ez dute amaierarik. José Basterretxea, "Oskillaso", daukat gogoan. Aizkeneko urrillaren 16'an "Deia"n idatzi zuena "Euskerazaintza" aldizkariak dakar euskeratua, bere IX Zenbakian. Auxe aurkitzen degu Atzeko Orrialdean:

"IRUÑEA ALA IRUÑA? Pamplona'ren izen euskalduna Iruña da eta ez Iruñea, baiña Euskal Izkuntzaren Errege Akademiak erabaki du Iruñea esateko.

Zer gertatuko litzake Español Izkuntzaren Errege Akademiak, antxiñako dokumentuetan ala datorrelako, esango baluke Pamplona ordez Pampélone esan bear dala? Iñork ez lioke jaramonik egingo. Ez da Akademi baten lana itz egiten dun erriko izketa aldatzea, zeatz agertu baiño izkuntz ori zelan egiten dan. Erria da eta ez Akademia azken itza duena.

Euskaltzaindiaren aginte au itz egiten dan euskeraren ezezpen utsa da, eta ori ez zan sekula gertatuko Euskaltzaindian euskaltzain osokotzat euskaldun berriak egon ez ba'lira.

Akademiak, bateratu bearrean, eten egiten du; len danok Iruña esaten gendun, orain askok idazten dute Iruñea. Ori batasunaren aurkako da.

Amabikote baten autuak izan ziran Akademia Iruñea'ren aldera makurtu zutenak. Euskaldun berri oien aurrean 500.000 edo 600.000 euskaldun gera. Guretzat Pamplona'k Iruña izaten jarraituko du".

Latiegi tolosarrak iturbururik garbienean edan du bere euskera eta amaren bularrekin batera edan ere. Gertakizun onek berealdiko abantaila ematen dio euskaldunari: bere buru-barrengo moldeak euskaldunak izatea, alegia. Euskeraz pentza eta euskeraz mintza. Gaurko egunez eta gure artean, bada bestelakorik: erederaz pentsa eta euskerazko itzak erabilli. Ori bereziki gertatzen da euskaldun berrietan. Jende asko bizi da Euskeraren errapatetik eta Euskera ikasi dute eta sekulako kursilloak eginda dauzkate; baiña burua oraindik lengo lepotik, erdaldun lepotik, estruktura erdaldunekin. Eta orrela gertatzen zaigu eurak egin-dako iragarkiak ez ditula iñork ulertzen aldamenean erderazkoa ez ba'dezu. Orregaitik edo, beti biak, euskerazkoa eta erderazkoa, batera ematen dizkigute bai Jauraritzak, bai Foru aldundiek, bai Udaletxeak... Ez du iñortxok euskerazkorik irakurriko eta berdin da irakurri-erreza ala irakurri zailla izan. Orren ardurarik Urliak ez du. Euskeraz ipifí ezkerro legea betetzen da eta orrekin naikoa degu nunbait.

Bixente Latiegi'kin ez degu orrelako kezkarik, naiz eta beti irakaskintzan ibilli erdal-arloetan. Baiña, orrek ez dio euskera-kutsurik galdu erazi, oiñarriko euskera jatorra duelako. Euskerarentzat bizi ba'da, ez da Euskera izan bere ogi-bidea.

Bere irakaskintzan Elizaren Edestia erakutsi du eta Gazteiz'ko Seminario Nagusian bizi izana degu eta bertako liburutegi ederrean zitun gai oneri buruzko liburu-zerrenda luzea. Baiña, entzun zer dion berak liburu onen atarian arazo oneri buruz:

"Gai bat erabilli aal izateko, tituloa eskatzea, arrazoizko jokaera da.

—"Liburu auek idatzi dituan jaun ori eliz-edestiaren irakasle al da?"— eskatuzion oraindik asko ez dala iñakitar gazte batek nitzaz, nere lagun bati Urkiola'n.

Iñakitar orrentzat, dirudienez, bear-bearrezko baldintza, "conditio sine qua non", izan bear du noski irakasle izatea zerbaitetaz idazten asteko. Jainkoak onetsi bezaio irakasleetaz duan uste on garbi ori, eta jakin beza alde ortatik ere ez naukala tituloz ain erantzia.

Nere bizi guztian Gazteiz'ko "Institutuko Politécnico Diocesano" edo "Elizabarrutiaren Lanbide Ikastetxean" Soziologiaren, Kulturaren Edestiaren, eta Erliñoaren irakasle izan naiz. Eta ona eratzen nuan erliño-gaiean nere irakasketa:

Aurreneko urtean, dotriña.

Bigarrenean Itun Zarra.

Irugarrenean Itun Berria.

Laugarrenean Elizaren Edestia.

Bostgarrenean, Soziologia. Eleizarena bereiziki.

Esan bearrik ez da, Kulturaren Edestia irakasterakoan ere naroki azaltzen nua-
la Elizak kulturaren arloan mendeak-zear izan duan eraginmena.

Gutxi izango dira, beraz, eliz-edestiaren irakasleen artean, gai orri nik aiña
denbora eta ardura eman diotenak.

On Jose Zunzunegi edesti-ikerle ondo ezaguna izan zitzaidan eginkizun ortan
gidari. Neri lagun izan zekizkidan ekarri zituan Gazteizko apaizgaitegiko liburute-
gi oparora edesti-liburu berri batzuk; Liburutegi artako zuzendari ere bai bait zan
On Jose Zunzunegi'tarra.

Nere ikastetxeko mutillentzat Elizaren Edestiari-buruz esku-liburu bat eta eus-
keraz erriarentzat gai beraz liburu zabalago bat idazteko aolkua-edo berak eman
zidan aurrena".

Luzetxoa izan ba'da ere, agerpen au bearrezkoa zan.

Aita dezagun ere Zubikarai'tar Joseba karmeldarrak egin dion laguntza egokia
akatsak zuzentzen, bai egillearenak eta bai irarkolatik etortzen diranak.

Eta, besterik gabe sartu gaitzen, eun urteko Edestiaren baso zabal, luze eta
sakon onetan.

* * *

Berak idaz-buruan lau gai aitutzen ditu: Demokrazia, Sozialismoa, Ameriketako
Laterri berriak Eta irugarren Munduko Eliza; Baiña, liburuaren erraietan gaiak
ugariago agertzen zaizkigu.

Oianean galdu ez gaitzen bide zabal bat urratzen du batetik bestera, Aita
Santutik Aita Santura .100 urteen buruan 7 Aita santu daude bata bestearen
ondoren. Eta auek dira: Pio VII, Leon XII, Pio VIII, Gregorio XVI, Pio IX, Leon XIII
eta Pio X.

Tarte orretakoak dira Frantziaren Iraultza eta Demokraziaren agerpena Elizaren
Integrismoarekin, Elizak zaukan bere laterriaren arazoak eta Italia'ren Batasuna,
Lenengo Vatikanoko Konzilioa, Marx'en jokaera eta Rerum Novarum enziklika,
Elizaren Legediaren aurkespena (Codex Judicis Canonici), Modernismoa eta
Eukaristiari buruzko jaiera berria.

Artu dezagun aria aurreragoxeatik.

Europa'n burruka zebillen eta, pakea lortzeko, fedea utzi eta arrazoiaren billa
joan ziran eta Jainkoaren orde, Izadia bere Legeekin. Jainkoak, izanik ere, ez
du Izadiaren ardurarik.

Sustrai auetatik sortzen da Argikuntza edo Ilustrazioa. Onen ondoren dator
deismoa; Izadia bera da Jainko. Deismotik, Ateismora: ez da Jainkorik. Teologia
baztatu, Jainkoa jakintza-bideetatik kenduta. Izadia eta bere Legeak ipiñi orde. Jakintza Berri auek Fedearen aurka jokatuko dute, bide oietatik Eliza bera alden-
du zalako; ez beintzat Fedearen aurkakoak zirelako.

Argikuntzaren argi onek salbatuko du gizadia, erriak parte artugabe. Ortik sor-
tuko Despotismo ilustrado: illunbeetan dagoen Erri itsua argidunek salbatuko
dute. Iraultza onen emaitza despotismoa da, errege gustien indarkeria indartuz.

Argi ori zabaltzen ari dan neurrian, Erriko jende asko onetan konturatzen da:
argiak salbatuko ba'ditu, ez dutela errege bearrik beuren buruak zabaltzeko. Eta
emendik sortuko da Frantzia'ko Iraultza: Giza-arrazoia bera da jainko. Erregeekin
batera, Aundikiak (Aristokrazia) eta Eliza erditik kendu eta burgesak jaso aginpi-
dera...

* * *

Askatasuna dute ikurrin, Liberalismoa eta Demokrazia. Aita santuek berealdiko
bildurra izan zieten Liberalismo eta Demokrazia aueri eta arritzeko ez da. Begira
zergaitik:

—Demokrazi liberalak ez zuan aintzakotzat artzen ez Jainkorik, ez Jainko-legerik, ez eta Izaki-legerik ere.

—Demokrazi onen Lege Bakarra autarkien kopurua zan: geienak ona dala esaten dutena, orixe da ona. Txarra, berdin.

—Moral orretan gaiztakeririk aundienak ere ontzat artzen ziran.

—Demokrazi arrek ezkontza-naastea zekarren eta diborzioa.

—Europa osoa kristau izanik, irarkolako askatasun osoak, gaitz asko egiten zion erri xeeari. Berdin erligio-askatasunak ere; mota guztietako sektak erri kristau apalaran aurrean.

* * *

Frantziako Iraultza Nagusiaren ondoren Europa osoa aren aurka jeiki zan; Espaiña eta Portugal zer esanik ez. Apaizak batez ere eta prailleak eta integrista guztiak; baita aizkeneko "Carbonari" beurak ere. Zapalketa aundia egin zuan Napoleonek bere Gudaroste iraultzailearekin; alaz ere, eurokin batera zabaldu zan Europa guzian Iraultzaren ideolojia. Gaiñera, Ameriketara pasa zan Demokrazia eta antxe emango ditu fruturik ederrenak.

Laterri guztiek Napoleonen eta Frantziaren Iraultzaren aurka ekin zuten. Napoleon menperatu zuten; baiña, Demokrazia Ameriketara iraun zuan, bizi ederrarekin garbi eta orbanik gabea.

Errege eta aristokrazi-kumeak ziran ziran etsairik purrukatuenak Demokrazi orren aurka eta eliz-jendea oien alde jarri zan. Iraultzak eliz-ondazunak arapatu zitun; lekaime eta lekaide etxeak erre zituzten; Erroma'ko Elizaren erakundeak (artxibo eta guzti) desegina; gotzaiak eta apaiz-jendeak abantailla asko galdu zituzten ondasunekin batera... Elizaren etsaiak, Liberalismoa sortu zuan Demokraziarekin, bat egin zuten... Beste aldetik, berriz, Elizaren defentsarako obe iruditu zitzaizen Aitasantu eta bere mepekoei Errege despotikoen babesa billatzea, demodrazizaleekin joatea baiño.

Ez zuten Liberalismoak berekin zekarren onura ikusteko ez argirik, ez aalmenik argiari jarraitzeko, zikinduta bait zetorren Demokraziaren Liberalismoa.

* * *

Biena'ko Batzarrea

Napoleon garaitu zutenak, Biena'n alkartu ziran Europa'ko Laterriak berriro banatzeko, saku batean sartu bait zitun guztiak Napoleonek. Banaketa egin zuten Laterrietan bizi ziranez galdetzeke.

Aitasantuari bere Laterriak biurtu zizkioten apur bat murrizturik. (Bada Lazkao'ko Udal-etxean agiri bat au agertzen duguna: Urtia jaunari 6 erreal eman zazkiola, Napoleon menperatu izan zanean, ordu osoa aritu zalako torreko kanpaiak jotzen).

* * *

Erromakeria: L'Ultramontisme

Erriaren pekatu aundia-zion De Maistre jaunak Frantzian-auxe izan da: Konstituzio bat lortu nai izatea, Konstituzio orren bidez, gobernuan parte artzeko. Beraz, Demokrazia nai izatea.

Zergaitik da pekatu?

Agintaritza Jainkoarengandik bakarrik datorrelako. Erriak bere salbamena. Agintariei obedituaz, bakarrik lortuko du. Erriak demokrazia nai izan zuenean, Jainkoaren aurka jeiki zan.

Erremedioa: Monarchia Absoluta edo Bakalduntza Orokorra. Eta, era orretako erregerik bat dago: Aitasantua, Jainkoaren Ordeko, Errege Guztien Gidari.

Demokrazia guztien etsai, teokrazian erori zan De Maistre.

Onen bizkia izan zan Bonald:

Agintaritze Jainkoarengandik dator zuzen-zuzenean. Erria Agintarien esanera egoteko da; gizadiarentzak Askatasuna da galbiderik aundiena... Jainkoak Monarkia erakutsi digu eta ez besterik.

* * *

PIO VII

Elizaren Laterriak

Bein Napoleon menperatu ezkeroz, Laterri guztien asmoa izan zan Iraultza aurreko egoera berriz ezartzea: BIRREZARKETA esango diogu asmo orreri. Erroma 1808'an artu zuten Iraultzaleek okerkeri aundiak egitez. Andik 16 urteetara, 1814'ean, sartu zan Pio VII'garrena berrito Erroma'n txalo artean...

Onen ekintza auxa izan zan: Iraultzalariek ekarritako gauza guztiak, on eta txar, sustraitik kentzea, naiz eta amasei urteen zear eurakin bizi. Beraz, gotzai eta abadeei euren aurreko kargu guztiak onartu; aristokrazi-kumeei lengoko abantaila guztiak eman; oitura zarretara erria makurtu erazi...

Pio'k eskubitarren eskuetan utzi zuen aginte ososa eta auek okerkeri asko egin zituzten.

Biena'ko Batzarrean Erkules Consalvi zegoen Elizaren Ordezkeri eta, Erroma'ra itzuli zanean. Aitasantuak Eliz-laterrien buru ipiñi zuan, bere ondorengo. Eskubitarren okerkeri asko zuzendu zitun. Eliz-laterriak 17 probintzietan eratuak izan ziran eta bakoitzeko burua, lenago bezala, gotzaia aukeratu zuten Consalvi'ren iritziazen aurka; konturatuta bait zegoen nola Iraultza garaian, 14 urte luzeetan, Eliz-laterri eta Itali osoko jendea demokrazi zale eta Itali alkartu baten alde, jarrita zegoen. Orregaitik, demokraziaren alde egonda ere, ezin zekean Italia'ren batasunik onartu.

Europa'ko beste Laterriekin Itzermanak egiten saiatu zan Eliz-laterria. Ala eldu zitzaion Pio VII'garrenari eriotza 1823'an, Jesus'en Lagundia onartu ta gero.

* * *

Demokraziaren garaipena

Aurrera doa XIX'garren eunkian Demokrazia, naiz-eta Elizak zearka begiratu. Ikusi degu zergaitik ezin zekean Elizak Demokrazia, zetorren eran, onartu. Gaur eguneko Demokrazia eta ordukoa, ordea, ez dira berdiñak. Gaur Elizak Demokrazia jotzen du Laterri eldu batentzako politika-erarik onena eta kristau-filosofiar obotoen egokitzen zaiona. Baiña, ori Elizak beti ez du berdin ikusi; Historian zear argitzen bait zaio bere Sortzailleak eman zion dotriñaren oparoa. Eta, ain xuxen ere, dotriña orretan zetorren Demokraziaren azi-ale guztiak: Legea Jainkoaren gauza dala; gizonak berdiñak gerala; baita Errege-enperadoreak ere; guztiok, baita esklabuak ere, eskubide osoak ditugula eta abar...

Elizak ez du, Jainkoak emandako dotriña ori sekulan, bere osoan, une berean, ulertuko, gure adimenaren gaindikoa dalako... Dotriña ori, Elizaren begien aurrean, zabaltzen doakio gizaldietan zear... Aldiko bearkizunetarako erabilli bear du; baiña, orretarako aldiko seiñaleak ezagutu bear aurretik. Eta, onetan maizetxo, Eliza motel eta nagi ibilli izanda.

* * *

Rousseau'ren demokrazia bitarte-gabekoa zan: direkta, agintaririk gabea; orregaitik guztiek agindu bear dute errian. Ori anarki utsa da. Anarkistek diotena: geu gara demokrata bakarrak, agintaritza ukatzen dagunok.

Marx bera ere bide orretatik, anarkismoaren bidetik, ibillia zan. Komunismoa ezarri nai du munduan iraultza baten bidez. Iraultzak **prestakizun** bat du aurretik: proletarien eta kapitalisten alkarren aurkaku burruka. Eta bi **maila**: 1.^a burruka odoltsua eta 2.^a proletarien diktadura, demokrazia anarkista batekin naastuta.

Erlijioa alienatzailea da eta jainkoa gizonaren asmakizuna. Eliza, berriz, kapitalisten laguntzaile, langillen arerio eta ezereztu bear dan erakunde bat..

Oiek danak demokrazia batean bilduta datoz. Arritzekoa al da Elizak bildurizatea demokrazia orrerri?

* * *

Liberalismo-demokratak laizismoa ipifi zigun modan:

1.—Eskolak Elizari kendu, erlijiorik beraietan ez erakutsi eta parregarri agertu, ateismoa zabaldu.

2.—Ezkontza naastu; zibilla agindu eta maitasuna askatasunean bizi ezkondu gabe ezkondu bezala. Diborzioari ateak iriki eta aur-galtzeari.

3.—Elizari bere ondasun oro kendu.

Oiek danak orrela direla, nola asiko da Eliza demokrazi liberala bedekintzen?

* * *

Jainkoaren, Erlijioaren eta Elizaren aurka dituguz gizaldi osoan jakintsuek:

Kant: Jainkoa danik giza-adimenak argitu ezin.

Hegel; Gizadia bera da Jainko.

Feuerbach: Gizakumea da Jainko.

Durkheim: Erlijioa, bildurrak sorturiko mito-sail bat, besterik ez da.

Heine, poeta: Jainkoaren eriotza lenengoz aitatu duena.

Nietzsche: Il da Jainkoa; gizakumea da jainko.

Renan: Kristau-moralitatea eta dogmak desigindu bear dira...

* * *

Bi erakunde erabilli zituzten Jainko eta Elizaren arerioak: Ikastolak eta Masoizta, katolikotasunaren aurka, batez ere.

XIX'garren mendeko Elizaren teolojia ez zan izan gai-arazo oieri erantzun on bat emateko. Beste aldetik, berriz, Jakintza Berri aueri, ez zien Elizak, bear zan garrantzirik, eman. Ez zitun apaizak eta kristauak bide oietatik bultzatu. Beraz, jakintsurik geienak Elizaren aurkakoak ziran eta demokrazi-zaleak.

* * +

LEON XII (1823-1829)

Pio il ondorengo Konklabean Genga kardenala aukeratu zuten Aintasantu, integrista zalako eta, zaarrez eta gaixotasunez, laister iltzeko zegoalako.

Sei urte besterik bizi ez arren, geiegi bizi zala bota zioten aurpegira, integrista motela zalako, lñauteriak kendu eta tabernak erdi-itxi egin zituelako. Debekatu zuen ardoa taberna-barruan edaterik, saldu ere ateak itxita, leiatilla batzuetatik egin bear zuten.

Diplomazian trebetasunik ez, jakintzetan eskax, laguntzaille ifuzueez inguratuta, Consalvi bere ondora erakarri zuen arte. Gizon onek asko lagundu zion, berandu bazan ere; urte beteko laguntasuna. Baiña, denbora orretan aolkuak eman zizkion Aitasantuari etorkizunerako. Onek ura, Propaganda Fide'ko buru, aukeratu zuan.

Eskubitarrek lengo era zaarrera biurtu nai zuten Laterri osoa, okerkeriak egiñez; baiña, okerkerik aundiena, berak, Aitasantuak, egin zuan Bolonia'n 508 gizakume espetxeratu eta oietatik 7 urkatu Italia'ren batasun-alde jeiki ziralako. Kalte aundia ekarri zion Elizari ekintza onek; lendik ere, erri osoa zeukan aurka eta batasunaren alde. Agintariek usten zuten Carbonariek bakarrik zirala kontra-koek.

Limosna-emaille, otoitz-egille eta penitentzi-zale; baiña, estuegia eta zorrotzegia bere buruarentzako, besteentzako bezala. Erria indarrez santutu nai izan zuan eta Pazkoarik egiten ez zutenak, kartzelara.

Chateaubriand idazleak, enbajadore zala Erroma'n onela zion:

"Gaitzen sustraia, elizgizonek aldaketari izan zioten iraiña, izan zan eta Era-kunde berriei lagundu bearrean, edo pakean laga ixilik, irrikazko itzak besterik ez zieten aurpegira bota".

Aitasantua iltzean Erroma'ko erri xeea kantari:

Sartu izkiguk, Leon,
iru ziri sakon:
Aitasantutza artzea,
ain luze bizitzea,
iñauteriz iltzea.

PIO VIII (1829-1830)

Kardenalek integrista zorrotz bat nai zuten; Laterrietako Erregeek, ordea, mai-teago zuten goxotasuna, gogorkeria baiño. Castiglioni kardenala aukeratu zuten guztien pozerako, laister ilko zalako, gaitzak jota bait zegon eta Aitasuntuzak berekin daraman zama eramateko ez zan gauza. Bere Laterrian danak zeuden aurka eta Italia-batasunaren alde.

20 illebeteko erreinua izan zuan.

Artzai ona eta lege-emaille jaioa agertu zan.

Tabernetako leiatillak kendu zitun eta barrura sartzeko baimena eman. Orre-gaitik, erriak esker ona agertu zion, naiz-eta erri orrek artzaiaren bizitza itz aue-tan bildu:

Jaio zan, negar egin du eta ilda.

* * *

Elizaren laterriak

Elizaren lurak 41.000 k² zitun, gaur eguneko Suiza'ren antzera. Ekonomia oso gaizki zebillen. Lanak errezago ateratzen zituzten lfar aldeko fabrikek, Erroma'ko esku-langilleak baiño eta gotzaiek ez zuten izan kemenik Eliz-laterrietan fabrikak sortzeko. Langabezia ugari... Nekazarien lurak esku gutxietan zeuden; peoiak ziran geienak eta mixerian bizi ziran... Zerga nagusienak txiroen bizkarretara zijoazen, eguneroko gastuetatik ateratzen bait ziran... Ez zijoazen gauzak obeto sal-erosketa arloan; Iraultzak legeak sortu zitun obeak artarako, baiña, itxu-itxuan danak kendu eta zuzen-zunean antxiñakoetara jo...

Urietan jendea lanik gabe eta Itali-batasunaren aldeko. Gorroto zioten Eliz-laterrien egoera oni, Italia'ren batasuna lortzeko, eragozpen aundi bat besterik ez zalako.

* * *

1830'ean Iraultza berri bat sortu zan; baiña, ez Frantziaren Iraultza (1789) bezelakoa. Au burgeskeriarena zan aristokraziaren aurka; baiña, oraingo Iraultzan langilleria dabil azpitik. Proletaritza eratzen asita dago. Au ondotxo ezagutu zuan Mazzini'k Resorgimento'aren buruzagiak; Pio VIII'garren ondotik zetorren Aitasantuak, ordea, ez zion antzik ere eman "denboretako señaleari".

* * *

GREGORIO XVI (1831-1846)

Aitasantua aukeratzeko Konklabe luzea. Eliz-laterriak urduri eta eurak naikoak Kardenalak ikaratzeko. Tiroka Poloni eta Turkia'n. Europa ere keskatzu. Frantzia'ren eskaria zera zan: Eliz-laterriei askatasuna emateko aifeko Aitasantua. Demokrazia, alegia.

Gora-ta-bera askoren artean, Mauro, Kamaldulako Abata Nagusia aukeratu zuten Aitasanturako. Bere gelan kamaldular baten antzera bizi zan, bai jan-orduan eta bai lotaratzean ere. Baiña, jendearen aurrean, oso dotorea zan bere karguari zegokion neurrira. Teolojian, Tomista purrukatua. Politika eta sozioloji arazoetan naiko baldar ibillia... Alaz ere, Eliz-laterriaren eskubideak eta askatasuna oso ondo gorde zitun, etsai askoren aurrean. Ameriketako Laterri berriak onartu zitun eta Mixioetako Jerarkia ipintzen lagundu.

Txiroen maitale eta Erroma edertzeko lan asko sortu zitun langabeziaren alde. Pake gordetzen alegindu zan; baiña, orretan ez zion erriak batere lagundu, etengabeko matxinada artean bizi bait zan. Egoera oiek zirala-ta, bein eta berriz Aitasantuak Austria'ko Erregeari eskatu zion gudari-laguntza. Erriak, berriz, gorroto zitun austriarrak.

Demokrazia erriari emateko Aitasantua ez zan Gregorio, Demokrazia bera okerkeri askorekin batera zetorrelako, asieran esan degun bezala; baiña, bereziki, demokrazia orrek, Italia'ren batasuna eskatzen zuelako. Aitasantuaren kaltean.

Agintaritza babesteko indarkeria beste biderik ez zuan ezagutzen: epai-maiak, espetxeak eta gudariak kalera ateratzea. 1843'an 400 giltzapetu zitun eta 600 erbesteratu. Iskanbillak ez ziran Eliz-laterrietakoak bakarrik; Europako guztiak zebiltzen era berdiñean. Zenbait Laterrietan katolikoak ziran iraultzaille agintari erejeen aurka; erri oietan ere, Aitasantua Agintarien alde agertu zan, Agintaritza zerutik datorren doaia dalako. Arazo onek ere sortu zitun makiña bat oker.

* * *

Ondoren Bixentek bere liburuan Iraultzaren xeetasunak azaltzen dizkigu erriz-erri: Frantzi, Belxik, Oland, España, Portugal, Itali, Suizi, Alemani eta Inglannderrian.

* * *

Lamennais-arazoa

Bixentek gai au sartzen digu ondo, sakon eta luze. Labur adierazi nai gendu-

ke. Apaiza zan Lamennais idazle jaioa, teologo eskasa, irakasle abilla (Frantzia'ko Elizaren eutsigarri izan ziran ikasle jatorrak sortutakoa) eta arro-arroa.

Profeta ere izan zan: gerora Elizan gertatuko ziran gauza asko asma zitun aurretik. "Essai sur l'indiferenze" debekatua izan zan; baiña, debeku orretatik laister atera zuten Erroma'ko epailleek, liburuaren gai-ardatza auxa bait zan: "Erijiotik gabe gizarte bat osatzerik ez dago". Frantzia'ko Erregearen alde zegoen, ura izango bait zan, Jainkoaren aldeko borrokan, borrokalari garaille gurena; baiña uts egin zion eta orduan teokraziara pasa zan: Aitasantua Errege guztien gaitetik dagoan Erregea da, uts-eziña nai-ta-naiez.

Baiña, Aitasantuari idatzi bat bialdu zion eta aren erantzunik ez zuan sekulan jaso. Orrek mindu zion biotza eta arrokeria zauritu; arrokeri zaurituak asarrera bultzatu, geroz eta geiago; asarreak, berriz, demokrazi liberalera. Berorrek sortutako L'Avenir aldizkarian askatasuna eskatzen asi zan; teokraziaren barrutian, ordea, Elizatik kanpora eziña bait da. Onek, erregeen menpekotasunetik, askatu bear du bere burua. Teokrazi orretan erriaren demokrazia izango da lege guztien oiñari eta sorburu.

Demokraziaren aldeko ekintza onek etsai asko sortu zizkion kardenal, gotzai eta abar. L'Avenir il erazi eta bera, Lamennais, Erroma'ra salatu zuten. Abiatu zan Erroma'ra bere lagun maite zituan lacordaire eta Montalembert'erekin. Nekez artu zitun bere aurrean Aitasantuak eta sosokeri batzuek esanda gero, bialdu zitun bere aurretik.

Azkenik Gregorio XVI'garrenak, Itz zakarrez betetako enziklika "Mirari Vos"ekin gaitzetsi zuan Lamennais'en dotriña bere izenik aitatu gabe. Frantzia'ko gotzai eta apaiz ezkubitarrek pozik eta algaraz artu zuten enziklika ori. Ixeka eta burta egin zioten eta erre zitzaion barrua. Onela dio Latiegik: "Iru abe zitun aren erlijioak: Jainkoa, Eliza eta Aitasantuak, irurak alkarri josiak..." Uts egin zion Aitasantuagan zeukan sinismen itxuak eta berarekin batera ondatu zitzaizkion Jainkoa eta Eliza... Dana zan gezurra.

Gai oneri buruz liburu bat idatzi zuan, Aitasantuak bere enziklika "Singulari Vos"ean zionez "liburu txikia baiña gaitzakeriz aundia". 100.000 ale saldu zitun bi illebete-barruan. Bere orretan, Lamennais gelditu zan bakar-bakarrak eta anima zeukan gaixo. Geiegikeriz beteta zegoan gizonak, ertze batetik bestera, jo zuan: apaiz izateari utzi, fedea ukatu eta il zanean, 20 urte beranduago, bere illobian gurutzerik ez ipintzeko agindu zuan.

Ondoren Bixentek, Lamennais'ek erakusten duna eta Aitasantuak gaitzesten diona, ez datoztela bat, erakusten digu. Eta arazoa onela amaitzen du: "Europar, ordea, sakonki sartu zan elizgizon eta teologolarien biotz-adimenetan Gregorio XVI'garren izkera, eta aren pentsabidetik jarraituko digute ondorengo Aitasantuek; eta Eliza eta Laterriaren bereizketaren auzia ez da, Il Batikan Konziliora arte, bear bezela argituko".

Gregorio XVI'garrena apaiz eta praille ona izan zan, garratza eta zakarra bizi-moduz; baiña, ez zan "Risorgimento"ko edestilariak ipintzen duten bezin beltz-illuna.

* * *

Españia'ko Karlistada

Fernando VII'garrena il zanean, onen alaba Isabel'en orde, erregearen anai Karlos nai izan zuen Españi'ko Errege talde batek, eta arazo orretatik, sortu zan burruka. Liberal-demokrazi zaleak Il Isabel'en alde zeuden eta ezkubitarrak Karlos'en alde.

Gregorio XII'garrenak karlisten alde jokatu du.

Karlos'ek Eliza eta Fuegoak babestuko zituela-ta, euskaldunak bere alde jeiki

ziran. Izan ere Frantzia'ren Iraultzaren ondoreak ondatu zitun Ifar-aldeko euskaldunen Fueroak eta bizi-lege guztiak. Jainkoa eta Erregetza ziran Espaiña'ko sutabe zaarrak. Demokrata-liberalak Jainko eta Elizaren aurka jokatu zuten beti.

1833'ean piztu zan guda, "odolaren egarriak erotutako piztien guda", Bixentek dionez.

Mendizabal'eren Desamortizazioak Elizari ondasun guztiak kendu zizkion eta ez erriaren onerako, aberats-kumeen aberastasunerako baizik. Bien bitartean, Madrid'en, 100 praille baiño geiago erail zituzten. Eta, ez an bakarrik... Masoieri bota zizkieten kulpak guztiak, eta, guztiak ez baziran ere, ez zituzten beuren eskuak garbi atera arazo artatik.

Oker asko etorri zitzaizkion Elizari liberal-demokrata aien eskutik; ez da ba arritzeko Aitasantuak karlisten alde jokatzea.

Burruka luze zijoan eta pakea eratzeko modua aukeratu zuten Maroto'k eta Espartero'k Bergara'ko Besarkada'ren bitartez, 1839'garren urtean. Urte artan galdu ziran Euskalerriko Fueroak eta aginte guztiak, naiz-eta Espartero beste era batera itz egin: "vuestros fueros serán respetados y conservados..." Erriak esaten denez: "Aoko lurruna ere, gezur".

Isabel II'garrena erregin izendatu ezkeroz, egin ziran Erroma'rekiko pakeak.

* * *

Katoliko-Jakintza

Iraultzaren bidetik joan ziran jakintza guztiak, naiz-eta Elizak gaitzesenez bete. Politika eta Ekonomia ere jakintza biurtu zituzten Elizatik at... Anarkistek aurretik asita zeuden bidetik aurrera Engels eta Karlos Marx'ek "Komunist-Agiri" atera zuten 1848'an. 1864'ean Londres'en eratu zuten lenengo Internaziola.

Bitartean Eliza itxu eta gor, ez bait zuen Kapitalismoaren pekatuak ikusten. Ona jokaera ori garbitzeko ematen diran arrazoiak:

—Aitasantuak naiko lan zeukan Eliza bera barrutik konpontzen Iraultza-erasoaren ondoren: gotzaiek izendatu, apaiz berriak egin, utsuneak betetzeko... Gaiñera, politikari garrantzi geiegi emanez, erregeetan fidatzen ziran, errian baiño geiago...

—Lekaidetxeak, ikastetxeak, unibersitateak, guztiak zearo deseginda.

—Parrokietako apaizak oso gutzi ziralak eta ziranak espirituzko ekintzetan zearo murgildurik, langille-arazoetan sartzeko astirik gabe... Dirurik gabe eta astirik gabe beuren buruak jakintzez jasteko...

—Seminarioak pobrezian eta bertan apaizgaiak denbora gutxi, apaiz asko bear ziralako, eta apaiz jakintsu irten ezin...

—Elizak, aldiko semea izanik, ez du, bi menderen luzaroan, langintza eta soziologi-arloan gertatzen diran pekatuentzako bear bezelako sentimenik izan. Proletaritzari bere profetak Elizatik kanpora agertu zitzaizkion, ezker aldetik, sinisgabeko anarkista eta komunisten aldetik...

Arazoak konpontzeko Espiritu Santuaren zai egotea alperkerian, orixe bai dala Espirituaren aurkako pekatua. Aro onetan alperrik izango da kristau-sozioloji edo ekonomi baten billa astea: ekonomia liberalena da; soziologia, berriz, anarkista, sozialista eta komunistena. Eliza eta protestalari idazleak apolojiazko defensora jotzen dute edo aszesisera: onek esan nai du teologia egin baiño geiago saiatzen dirala teologia bizitzan mamitzen...

* * *

Arazoia, jainko egin zuan Iraultzak eta orain Erromantikeria (Romanticismo) dator, arrazoiaren ordeztu sentimena gurtzera. Sentimentuei garrantzi geiegi em-

ten zaio: "Nere erlijioa, biotz-erlijioa da osorik; ez da nere baitan beste erako erlijio batentzat lekurik" zion Schkiermacher jaunak.

Bi alderditik asi ziran erlijioari erasoten: Filosofi aldetik eta Biblia aldetik. Garai auetako Filosofiari Kant'ek ipiñi zion oiñarria: Arrazoa bitan banatzen zuan, Ratio Pura (Arrazoi utsa eta garbia) gauzak ulertzeko bakarrik erabiltzen deguna, eta Ratio Practica gure bizitza zuzentzeko erabiltzen deguna. Lenengoak ezin lezake Jainko badanik ezagutu; bigarrenak, bai, Jainkorik gabe bizitza eraterik ez dagoela, ikusten degulako.

Hegel: Jainkoa-dio- "gogapen uts" bat besterik ez da, Izadi biurtzen dana. Beraz, Jainkoa Izadiaren izen bat besterik ez da.

Fuerbach: Izadi osoa gorpuzkia da; ez dago gogorapenik gorputz ez danik. Espiriturik ez da eta jainkoa giza-adimenaren asmaketa utsa da "eta gizonak jainkoa asmatu zuanean, bere burua ukatu egin zuan, bere izatearen arrazoa, jatorria eta elburua berak asmatutako jainko orretan ipiñi zuelako; eta ori egitean 'alienatio' (besteratze) egin omen zuan, bere jabetasuna bere buruari kendu eta jainkoari eman, alegia". Emendik aterako zuan Karlos Marx'ek bere Filosofia (edo Teolojia).

Comte, positibistak: Erlijioa giza-edestiaren aro bateko pentsaera, besterik ez da. Eta, datorren aroan, ez omen da erlijiorik izango.

Kristau-teolojia ez zegoen gogo-sistema oiei aurpegi emateko eran. Garai artan Alemania izan zan Teolojian aintzindari; baiña, teologo bikañak egon arren, itzal aundi eta zabaleko teologilari guren bat ez zitzaigun agertu, ekonomista, soziologo eta filosofi-egille berrien sintesia eman aal izateko.

* * *

Bibliaren aldetik auxe erakuzten zuten: gizonaren asmakizun utsa zala; orrekin batera "eboluzioa"ren arazoa sortu zan eta esaten zuten Bibliak erakutsitakoaren aurka zetorrela. Biblia itzez-itz artu bear zala usten bait zuten orduko maixuek eta ikuspegi orretatik ez zeukaten sentzunezko erantzunik. Orduan erabaki erreza artu zuten, gai oietako Darwin'en liburuak, Liburu Debekatuen Zerrendan sartu eta kito. Gaur egun edozeñek daki ez datorrela sinismenaren aurka eboluzioa, onen asieran sortzaille lez, eta eboluzioaren ibilleran gidari lez, Jainkoa dagoela sinisten bait degu.

Urte oietan kristauen joera eraspen edo debozioetara izan zan: Teolojia jakitea baiño ohea omen da teolojia-bizitzea. Eta, izan ere ala da; baiña, orrek ez dio Teolojiari aterik itxi bear.

* * *

Ondoren Bixentek xeetasun aundiz ematen digu teolojiaren egoera (protestante eta katolikoena) batez ere Alemanian'n; baita andik kanpo ere.

* * *

Kristau-bizitza

XIX'garren mendearen aurren-erdia Elizaren aro bikañenetako bat da: santuratsunaren aroa. Orduko gertakari latzak prestatu zuten Eliz-barne-bizitzaren pizkundea:

—Iraultzaren geiegikeri zakarrak sortutako martiriek, bere odolez, bizi berritu zuten Eliza...

—Gobernuek orain Elizari ematen dioten garrantziak ere lagundu zion Elizari lan orretan; inportantzia ematen zioten Eliza zalako, euren aburuan, oifarririk onena autokraziarako...

—Baita Arrazoikeriaren antzutasunak: jendea konturatu zan arrek axaleko gauzetarako bakarrik balio zula; baiña ez Nor-izatea eta Zer-izatea argitzeko; gutxiago oraindik Jainko-izatea ezagutzeko...

—Erromantikotasunaren agerketa eta onek sentimenari ematen zion garrantziak ere lagundu zion Elizari.

—Eliz-gizonak eurak ere, txiroago izanik eta urriago, langilleago eta sinismen sendoagokoak biurtu ziran Elizaren laguntzagarri...

Iraultza-garaian Aitasantua zapalduta ikusi zuan bere burua; baiña, Birrezarke-ta-Aro onetan, antxiñako era zaarrak berriro ezarri nai zuten denbora onetan, disdiratsu agertu zan Aitasantua eta Agintari gustiek nai aren adiskidetasuna... Beste askoren artean aldaketa au zetorren: lenago Erregeengana jotzen zuten gotzaiek, orain Aitasantuarengana jotzen dute larriaaldietan eta Aitasantuarengandik urbillago dabilta...

Tamalez, ordea, langille-erria Elizatik kanpo dabil eta Eliza langille-arazoetatik at.

* * *

Aristokrazi-kumeak, eta auen ondoren burges-kumeak, asiko dituzte kristau-ekintza ugariak. Makifia, bat Anaidi eta Kongrezazio sortuko zituzten, eskola kristauak sortzeko eta, batez ere, espirituaren osasunerako zuzenduak... Iñakitarrak bizi-bizi, egunero indar aundiagoakin, ikastetxeak sortzen...

Lagundiak ugari sortu ziran, batez ere Frantzia'n, Iraultza sortu zan baratzean ain xuxen, Elizaren azpi-azpitik, anarkiarik aundienean, ekintzarako asmatuak, Gotzaien menpetik Eliz-osora zabalduak... Geienak mixio-zaletasuna berekin zeramatenak.

Anaidi eta lagundi auen Elizaren azpi-azpitik loratze onek auxe agertzen digu: bazala azpi orretan kristau-bizitza gartsurik.

Une aietan liturjia ere loratu zan Solesmes-Abadiari ezker eta, musikalaria bikañenak (Beethoven, Listz, Schubert, Berlioz...) ari ziran gogoz Elizarentzat asma-ketan. Kristausunak Iraultza-ondoko gizartean irabazitako ospe aundiaren adigarrri degu... Ez arkitekturan, ez margolaritzan ez zan oien maillako gizonik agertu.

(Jarraitzeko)

Anes Arrinda



BIXENTE LAITEGI'REN ELIZAREN HISTORIA EUN URTEZ (III) León XIII (II)

“Rerum Novarum” Enziklika

1891'ko Maiatzaren 15'ean agertu zan enziklika ospetsu au, ogei urteko sozio-ekintza katoliko baten ondoren. Gotzaia zala irakurri zitun sozio-ekintzan zebiltzen katolikoen liburuak... Idatzi ere idatzi zuan Pastoral bat gai aueri buruzkoa, gotzai zalarik. Lagun asko zitun ekintza onetan zebiltzenak...

Pio XI'garrenak bere enziklika “Quadragesimo Anno” gogoangarrian, berrogei urte beranduago onela dio:

“Egin zuan oles, trumoiaren antzera, luzaroan itxaroa izandako abots arek; ez zuten ez gaiaren zailtasunak izutu, ez zartzaroak auldu; indar berbistuarekin erakutsi bai zizkion giza-sendiari gizarterako bide berriak”... Arrazoiketa buruzkoegia eta espiritual usaiñekoa; baiña, Liberalismo (eta Totalismo) oien erruak garbi agertzen ditu; baita Proletaritzaren egoera latza ere. Ekonomia, justiziaren barrutia dala eta Laterriak gai orretan sartu bear duela, lege egokiak emanaz aldamera begira egon gabe. Sindikalismoaren ateak zabaltzen ditu eta betirako ezarria laga zuan auxe: Elizak gizarte-arazoak zuzentzeko berak ere parte artu bear duela. Gizartean aldakuntzak dirala, eta izango dirala, eta kontuan artu bear dirala”.

* * *

Sortaldeko Elizak

Sortaldeko Elizekin Erroma'k izan dituan auzi-mauziak dakartzki 22 orrialdietan. Eliza zaarrak izanik, Apostoluen garaikoak ere bai, beti izan dute nortasun bereizi bat. Ia milla urte dira, Aitasantuegandik alde egin zutelala... Eta, alde egin ez dutenak ere, gordetzen dituzte euren antolamentu bereziak...

Sortaldeko Elizak, bere izaeraz dira, persona bategan aalmen guztiak biltzearen arerioak; orregaitik edo, Erroma'k ez die antzik ere ematen.

* * *

Rerum Novarum Enziklikaren ondorioak

Juan XXIII'garrenak dionez (Mater et Magistra): "Gutxitan izan du Aitasantu baten itzak, orduan izan zuan aifeko oiartzun orokorra ludian". Katoliko geienen konzientzian eztena bezala sartu zan... Katolikoek lanean asi ziran; baiña, ekintza geienetan jokaera bikoitza zeramaten aurrera; eskubitar integristek Liberalismoaren aurka eta bigarren taldea Demokraziatik gerturaxeago...

Ekintza ederrak sortu ziran, baiña eginkizun aietan langillea lankide artu gabe; sortzailleak eurak beuren gixara guzia zuzenduaz... Bildur ziran langilleen eskuetan gauzak utzi ezker, anarkisten eta sozialisten eskuetan ereriko zirala... Aizke-nerako, ordea, bat baiño geiagok oker ori kontuan artu zuten eta akats orretatik libratzen saiatu.

Bixentek, beti bezala, ekintza bikoitz ori luze eta zabal eskeintzen digu xeetasun guztiakin Europa'ko Laterrietan zear.

Ekintza asko, Alkarte asko langilleen alde etengabeko lanean. Zenbait gotzai eta apaiz-taldea buru-belarri sartuta. Izan ziran bat edo beste, asarratuta, Elizatik alde egindakoak, onek beuren bide arrixkutsua onartzen ez zietelako. Onela amaitzen du Latiegik arazo au:

"Egia; "Rerum Novarum" eta aren ondorengo "Quadragesimo Anno" izan ez ba'lira, Kristo'ren Elizatik kanpo ikusiko bait genituzke gaur, oso-osoan, Kristo'ren gizamaillako gizakumeak: langilleak, proletariak. Orregaitik, Enziklopedi berak aitortzen duanez, "Ordurarte Elizak erabilitako bideetatik irtetze (eta bide berriak erakuste) zirrargaille bizkorra izan zan Rerum Novarum".

Bañan ez omen zuan Leon XIII'garrenak ori lortzerik izango, aren aurretik Pio IX'garrenak aitasantuaren nortasuna, ain sendoki, Elizaren barruan tinkotu ez ba'lu.

* * *

Españi Mendearen Erditik Aurrera

Mendearen erditik aurrera goaz, Karliten lenengo guda bukatuta, Isabel II'garrena erregiñ egiten dutenean. Elizarekin Konkordato bat egin zuan eta kendu zizkioten ondasunak itzultzen alegindu zan, pakeak egin naiean. Bere Jaurleri-tza liberala, oso zan konserbatzaile eskubiar. Gotzaiak baiño konserbatzailleagoak ziran apaizak, tradizionalista utsak. Lengo denboren maitaleak; leen ori Felipe II'garren aroa zan: "Urrezko Aroa..." Euskalerruari buruzko 4 orrialde dakarzki benetan interesgarriak.

Isabel'en ondoren Saboia'ko Amadeo italiarra izendatu zuten errege; ez zan onartua izan eta laga zion erregetzari. Alfonso XII'garrena dator gero, Isabel'en semea... Ortik sortzen da Bigarren Karliten guda.

1876'ean Euskalerriko mendietan karlistak errenditu ziran eta Lege Zarraren azken ondarrak kendu zizkiguten. Azken ondarren ondarrak, berriz, Franko'k Bizkaia menperatu ondoren 1937'an.

* * *

XVIII'garren gizaldian Euskalerriko apaizak oso izan ziran argiak; erria, berriz, pake giroan eta jatortasunean bizi zan, kanpotar bisitariak arritzeko moduan. XIX'garrenean pakea, jatortasuna, argia... Guztiak galdu ziran batera... Odolustu zuten erria eta odol-egarriz biotsak kutsutu... Gure mende onetan ere berdin ari zaigu gertatzen: odol geiegi gure artean...

* * *

Ipar-ameriketean Eliza sendotzen

(20 orrialde) Demokraziaren pake-giroan bizi zan geroz eta indartsuago, ezberdiñeko jendeen bilduma zan Eliza. 1850'ean bertako katolikoak apur batzuek besterik ez ziran. Arrapalada osoan iritxi ziran kanpotarrak. Geienak Irlanda'tik;

baita Alemania eta Frantzia'tik ere. Amar urteen buruan 2.000.000 irlandar sartu ziran, besteak beste. Jarraitu zuten etengabeko etorreran erbesteko katolikoak Europa guzitik. Esandako guztiak ziran katoliku.

Inmigratzaille txiro aiek, gaiñean zekarzten jantzi zarpailduak, beste aberastasunik ez zuten eurokin. Gotzaiak eta apaizak geienak irlandarrak ziran, katolikoak ere ala ziran-da. Gaiñera ingeles zekitenak eurok bakarrik ziran. Elizak bere altzoan artu zitun enda eta izkera desberdiñeko inmigratzaille aiek eurokin Eliza bat egin arte.

Egia da, Europa'tik joandako katoliko askok fedea galdu zutela bidean, bear ba'da an bertan bere kideko talderik topa ez zutelako.

Elizak ikastolak, lenengo eta bigarren maillakoak, erruz egin zitun naiz-eta Unibersidade bakar bat egiteko bere eztabaidak erabili. Egoera aldatuz joanik da eta ona zer esaten digun Bixentek 422'garren orrialdean:

"Izugarrizko lana egin du Laterri Alkartuetako Elizak erakuskintzaren arloan. Ikus zenbaki batzuk: 1970'garren urtean, 10.927 lenen mailleko ikastola zituan; bigarren maillekoak, 2.341; apaizgaitegi eta praillegaitegi, 575; eta 303 unibersitate..."

* * *

Beltzen arazoa aitatzten du gero Bixentek luze eta zabal. Beuren garaiko jendea izanik, ez zuten gauza ondoegi ulertu.

Bizkorrago ibilli ziran langillediaren erakundeetan; bertatik sartu bait ziran eurotan inmigrante zarpaillu aiek, proletari margoa Eliza osoari emanaz. Edestilari onenetako batek onela dio:

"Katolikoek Ipar Amerika artako langille-igikundean izan duten itzal eta esku aundiari zor omen zaio bâ, an anarkistek eta marxistek jarraillerik aurkitu ez izatea... naikoa etsitzen omen dute langilleek beren "Labor Unions" edo "Langille-Alkarte" izeneko sindikatoen zugurtasuna, ta kemena, beren eskubideak politikaren arloan ere babestu aal izateko. Bâ... zugartasun ori eta kemen eta bizkortasun oiek langille-buruzagi katolikoei zor omen dizkiete Ipar-Amerika'ko sindikatoek".

"Ekintzaren maillan-dio Bixentek-ederki jokatu zuan, beraz, Eliza katolikoak; sindikatoei emandako babezpean landa, zenbatu ezin aña izan bait ziran karitategintzarako osatu zituan mota guztietako erakundeak".

* * *

Aitatzten du baita ere "Amerikanismus" deritzan Aitasantuak gaitzetsitako okerra. Baiña, eurak esaten zutenaz, Amerikako katolikoek ez omen zuten sekulan Aitasantuak aipatutako okerkeri oiek babestu.

Eta, gauza geiagoren artean, Gibbons kardenalaren goraipea egiten du beste guztien eredu bezala eta onela amaitzen du leloa:

"Guk ere Gibbons Kardenalaren oroipena berritzean, ekarri dezagun, batean, gogora Laterri Alkartuetako Eliz osoaren bizkortasuna, bere ariketa sendoa, eta bere pentsaera zabala. Erakus ezaiogun, gañera, gure eskerra; astiro-astiro, baña gero ta geiago, oparo zabaldu bait da Eliz gazte aren itzala munduko beste Elizetara, eta, ziurki, itzal ori onerako izan bait zaigu guztiok".

* * *

Iber-Amerikan Eliza Sendotzen

Eliz eta Laterrien arteko auziak osatzen dute Histori osoa. Agintariek Elizaren laguntza eskatu dute beti, Liberalak izan ezik.

Laterri aien axaleko Historia matxinadaz eta odol-arazoz beteta dago, España eta Portugal'en seme-alabei dagokien eran... Teoriz beintzat, Liberalen elburua

Laterrian aberastasunak lortzea da, danen onerako; bizitza-maillan, ordea, bakoitza bere aberastasunen billa ibilli oi ziran... Positibistak eta ondoren sinisgabeak. Konserbatzaileak, berriz, ekonomiari aztu gabe, bere elburu nagusia onetan zeukaten: jendearen eziketa egokia erlijioaren erakundeetan, orrela pakean bizi aal izateko. Ori ere teoria zan; gero, bizikeran, liberalen antzeko.

Liberal antiklerikalak Laterria eta Eliza alkarren artetik berezita nai zituzten... Konserbatzaileek, berriz, biak alkartuta, Elizak Laterriari laguntzen pakea lortzen, onek indarkeria erabiliko ba'lu ere, elburu ori lortzeko. Gai oneri buruz onela amaitzen du Bixentek:

"Gure egunotan, zorionez, Eliza izan da politikaren barrutian Laterriengandik berezi dana, eta espairik gabe, teoriz beintzat, beartsuen alde gartsu jeiki zaiguna. "Askapen Teolojia" izan dugu igikunde orren gaillurra. Bai noski, bide berriak irikitzean beti gerta oi dan bezela, izan da igikunde orren altzoan bide zuzena galdu duan teologilari bat edo bat, baiña, ala ta guztiz teoloji ori dugu, "La teología de la Liberación", Elizaren edesti osoko idoroketarik pozgarrietako bat. Gutierrez deritzan apaiz perutarra izan du sortzaile. Bitez beretzat gure txalorik eskertsuenak". (442 orrialdea)

* * *

Mexiko, Guatemala, Argentina, Ekuador (García Moreno, bereiziki), Perú, Colombia, Brasil, Laterri auen guztien berriak ematen dizkigu...

Liberal-aroa argitzen digu ondoren, Frantziatik artuta eta ez Ipar-Ameriketatik, Mexikon bezala Kolonbian, Txilen, Ekuadorren, Brasilen eta Benezuelan.

* * *

Elizaren Itxarkundea

Ondorengo Elizaren berri ematen digu Bixentek Mexiko'ri buruzkoak, luze eta sakon, ia orain arte. Ekuador dator berriro eta ondoren Uruguai, Benezuela, Txile, Kosta Rika, Guatemala eta abar...

Eliz Orokorraren itxaropena Iber-Ameriketako Elizeetan dago, ekaitz artean ibilli arren. Ona zergaitikiak, argibideak eta bitartean dauden arazoak:

- Biztanleen neurrigabeko ugaritzea...
- Jende landerraren ugaritzea...
- Protestalarintzaren aritze...
- Komunismoaren arriskua...
- Proletarien ekintzak...
- Era berriak aurkitu bearra...
- Apaizen urritasuna...
- Sinkretismoaren zabaltzea...
- Atzerriko apaizen bearra...

Badu Elizak sekulan izan ez duan askatasuna... Badu gotzaidi jatorra edestiarren samiñak erakutsia... Baditu apaizak beartsuekin bat egiñak... Badu urduritasunik ere eta erakunde berriak, CELAM adibidez... Asmamen berria ernettu zaio Elizari arazo garratzei aurpegi emateko "Askapen Orokorraren Teolojia": Teología de la Liberación... Euskalerriko Mixioak ere aitatzen ditu, Los Ríos eta abar... Amaitzeko ona zer dion:

"Ondo etorria bedi, uda legorrean intza bezala etorri zaigun Askapenaren Teolojia. Eta ezin ukatuko dugu teologilari berri auek badutela teologilari zar batzuekin, Bitori'ko Franzisko'rekin adibidez, aidetasun berezi bat. Bitori'ko Franzisko ere, inditarrak kristau biurtu nai izateak ez ezik, teolojiaren aberastasunak, berak ere, bultzata mintzatu bait zitzaigun gizarteko auzietaz".

* * *

PIO X

Jose Sarto, izen-abizenaz, Italia'ko Iparraldean jaio zan. Apaiz-aizken maillatik asi (parroko, kanonigo, Seminarioko erretore, gotzai, Benezia'ko patriarka, kardenal) eta Aitasanturaino eldu zan, 1903'ko Dagonillaren (abustuaren) 4'ean. Gauza guztien gaiñetik, apaiz jator bat izan zan beti il arte; Eliz osoaren apaiz parroko bat.

Politika arloan Italia'n bertan zitun zeregiñik latzenak, batasuna egin eta Aitasantuari bere erregetza kendu ezkeroz. Batasun ori betirakoa izango zala konturatu zan eta obe zuala Agintariekin konponketa on bat egitea. Integristek ez zioten asmo ori onartu; baiña, berak naiago zuan aurpegikera paketsua erakutsi, asarratua baiño.

Onela dio Enziklopedia Britanikak:

“Alkarrekin bizitzeko era egoki baten antzeko zerbait lortu aal izan zuten, amorerik emateke, bi alderdiek”, Elizak eta Italia'ko Jaurlearitzak, alegia. Benezia'ko Patriarka zalarik ere, katolikoek (banan-banan, ez Alkarte bezala) liberal baretsuekin, alkarrekin lan egiteko, ez zuan eragospenik jartzen eta zabaltasun ori Jaurlearitzarekiko arrematera ere luzatu zuan. Garai aietarako ori asko zan.

Bere ustez, sindikato eta langille-elkartearen elburua, apostoladutza bear zuan izan, geroagoko Azion Katolikaren antzeko zer-edo-zer. Orregaitik, gotzaien eskuetan nai zitun eta marxistekoekin naasi gabeak, Alemania'n ezik.

Dana dala, ez zuan konfiantzarik, ez politika eta ez diplomaziarekin; berak bere eskuak iare eta libre nai zitun Eliza zuzentzeko.

Modernismo-berrikeriaren arazoa

“Berrikeri” au asmo berri askoren bilduma bat zan: pentsakera bat. Batzuek zuzenak, besteak okerrak. Bereizketa ori egin gabe gaitzetsi zuan Modernismoa Aita santuak.

Aztarrikatu ezker, bi gauza auek aurkituko dituzu: protestalarien askatasun-zalekeria eta erromantiko-sentimenkeria. Bi apaiz izan ziran arazo onen sortzailleak, Loisy eta Tyrrel.

Ona Loisy'ren eldozkera nagusiak:

—Orain arte teologia metafisikan oiñarritua egon da eta erne duan kristau-bizitza legorra izan da.

—Giza-arrazoia ez da Jainkoa ezagutzeko gauza. Erljioa ez da arrazoitik sortzen, gure barruko erlijio-sentimen batetik baizik.

—Barruko ezagumen ortatik, izadiak historian zear, erlijioaren zentzua garbitzen ari da, etenik gabe.

—Kristautasuna da gizadiak lortu duan erlijio-zentzurik garbiena; baiña galduko da bere zentzu ori garbitzen eta garbitzen ez ba'doa. (Loisy'rentzat erlijio garbitzen aritzea da, besterik gabe).

—Erljio-mota guztiak garbiketa-aritze orren maillak dira, beste gabe.

—Sinismena, ez da Jainkoak esaten diguna sinistea, gure barruan Jainkoatzaz, barne-ezagueraren bitartez, sumatzen deguna ontzat artzea baizik. Sentipen utsa.

—Biblia, gizadiak Jainkoa garbiago ezagutzeko saiaketan igaro dituan sentipen-maillen edestia, besterik ez da. Ez da Jainkoaren itza; Jainkoa billatu nai izan duten gizakumeen itza da.

—Dogmak, edestian zear, aro bakoitzean, gizadiak Jainkoari buruz bere barruan sumatu duan sentipenaren azalpenak dira. Ez dira aldakaitzak; dogma berriak sortuko dira, gizakiak bere erlijio sentzua garbiagotzen duan eran.

—Orrela, kristautasuna, garbitze-bidean aurrera ez ba'doa, galduko da.

* * *

Loisy'renak Tyrrel'ek borobildu zitun. Erri-maillara ez zan siniskeri ura jeitxi; bai, ordea, apaizen maillara Frantzia'n bezala Italia'n ere. PASCENDI enziklika eman zuan Aitasantuak Modernismoaren aurka eta bereala asi ziran salaketak integristen aldetik; baiña, ez ziran modernizat salatutakoak baizik; ez benetako modernistak. Apaizak makurtu ziran; Loisy eta Tyrrel ez...

* * *

Integrismoaz landa, egoki ari izan zan beste arazo guztietan:

—Gizarte auzietarako sendo babestu zuan Elizaren eskubideak. Auzi oietan, oitura zuzenak edo moralitatea jokoan daudelako, bai omen du Elizak arlo ortan bere itza adierazteko eskubidea...

—Saiatu zan Eliza eraberritzen. Konklabeetan Laterriek zituzten eskubide guztiak ezeztu zitun eta konklaberako arau berriak eman.

—Eraberritu zitun Erromako Kuria, "Kongregazioak" era berrian antolatuz.

—Katekesi-testo bat Italia osorako gertuarazi zuan.

—Seminarioak, ugariegiak zeuden Italia'n, bateratuz, egokiagoak moldatzen saiatu zan.

—Apaizentzako otoiz-liburu "brebiario" a tajutu zuan.

—Elizetako musika-eresiak garbitze-lanean ekin zuan.

—Aldizkari ofiziala eraberritu zuan; Acta Apostolicae Sedis.

—"Institutum Biblicum" Erroma'n eraiki zuan, Biblia-ikasketak egiteko eta "Vulgata", latinezko Biblia, bir-argitaratzeko lana beneditarrei eman zien.

Baiña, bi ekintzarik aundienak, Jaunartzea erreztea eta Elizaren Legedia (Codex) eratzea izan ziran.

Elizaren Legedia milla tokietan bilduta zegoean. Pio'k Aitasantutza artu zuan une beretik, agertu zuen lege aiek danak aztertu, araztu, bateratu, eraberritu eta liburu bakar batean argitaratzeko asmoa. Batzorde bat aukeratu zuan orretarako. Mundu guziko Gotzaei galdetu zitzaien beuroen iritzia, tajutzen zituzten eskemeri buruz. Pio iltzerako, bukaturik zegoan Bilduma Berria, edo Codex Judicis Canonici.

Bigarren ekintza Jaunartzea erreztea zan. Bera izan zan egunero Jaunartzearen apostolua. Jansenio eta Saint-Cyran'en gogorkeriak, arindu zitun Pio X'garrenak. Aientzako gizonak ez zuan merezi Jaunarengana urbiltzea. Errespeto aundia sor zitzaion Jaunari. Gutxitan joan bear zan eta ondo prestatuta, errespetoz eta bildurrez. Pio X'garrenak kendu zitun bildur oiek guztiak eta umetxoak, ezaguerara eltzen ziranean, Jaunartzera eramateko agindu zuan. Jainkoak bakarrik daki zer on aundiak egin dituan Elizan Aitasantuaren zabaltasun orrek.

* * *

1914'ko dagonillaren 20'ean il zan. Maiatzaren 29'an 1954'ean Santu aldarrikatua izan zan. Auxe degu San Pio X'garrena.

Aizkeneko itz auekin amaitzen da Bixente Latiegi'ren liburu eder-eder au. Zorionak egilleari eta eskerrak gure aldetik.

Elizaren Edestiari buruz, liburu aun bezin ederrik ateratzerik, ez da beste inoiz errez izango. Izugarrizko lana egin du, eta ondo egiten ari da. Euskal-kristauen liburutegietan ez luke falta bear. Erderaz ere naiko lan izango da beste orrenbes-tekorik aurkitzea. Garaiak luze eta lekuak zabal izanda ere, xeetasun gustiz bete-ta dagoz. Itur-begi oparoa eta urak garden, Araxe errekaen iturburua bezin ugari-emankorra. Izkera aberatsa, errez eta jatorra. Elizaren okerrak argitzeko, ez du mingaiñean eragozpenik: itzalguneak eta argitasunak, danetarikoak daude garbi adieraziak.

Bijoazkio egilleari gure agurrik beroenak.

Anes Arrinda



BIXENTE LATIEGI'REN ELIZAREN HISTORIA EUN URTEZ (II) 1814-1914

PIO IX
(1846-1878)

Erriaren maitasuna galduta il zan Gregorio XVI'garrena, integrista agertu zalako eta politika arloan garratzasuna erabili zuelako. Konklabean 60 kardenal. Kezkarik aundiena, Eliz-laterrien askatasuna. Bi taldeetan banatu ziran: biguñiak eta gogorrak. Goxotasuna nai zutenak irabazi zuten eta Masai kardenala aukeratu zuten. Pio IX'garrena artu zuan izan.

Irikia eta biotz-zabala izan omen zan gizon ura; gotzai zala, demokrazizaleekin ederki etorria. Baiña, Laterriaren Jaurlaritzarako oiturarik gabea. Gizon ona, eraspenkoia edo debotoa, animen osasunaren maitale zintzoa, Elizaren serbitzari leiala, txiroen laguna, biotz zabaleko apaiz atsegiña eta itzlari jaioa. Aldi larrietan sendotasuna agertu zigun. Erregetza sendoki defenditu zuan Elizarentzat, bearrezkoa zala usten zuelako, ez bait zuan beste amesik Elizaren askatasuna gordetzea baizik. Askatasuna autokraziarekin batzen zuan, liberaltasuna, nai-ta-naiez, Elizaren askatasunaren aurkakoa izan bear zuala, iruditzen zitzaiolako.

Bere akatsik aundienak ortik sortu zitzaizkion, laguntzaille integristez inguraturik zebillen-eta. Jokaera orren bidez, Aginte guztiak bere aurka ipiñi zitun eta kulturaz jantzitako jendea, sekulan baiño geiago urrundu zitzaion...

Alaz ere, kristau-erriaren barne-bizitzaren susperketa, apaizen sendokuntza, Mixioen indartzea eta eraso gogorrenetatik Eliza bizkorrago irtetea, oiek danak, Pio IX'garrenak egindago lanaren fruituak dituzu.

Sekulan baiño urbillago izan zuan Eliza osoa bere ingurruan; ospe arrigarria lortu zuan, txit maitatua izanik. Maitasun ori izarretaraiño igo zan italiarrek tiroka erregetza kendu ziotenean. Martirien antzeko santu gurutzatu baten itxura artu zuan kristautasunaren aurrean.

Pozaldiak ere izan zitun bere Aitasantu-bizitza luzean (32 urte) Laterri Batuetan katolikoek artutako indarrarekin, 208 eliz-barruti berriak munduan zear eraikitzean, Aitasantuaren Utzeziña eta Ama Birjiña Sortez Garbia'ren dogmekin; au erri-kristauek eskatutako dogma izan zan eta 1854'ko Abenduaren 5'ean erabaki zan Eliza osoarentzako.

Ama Birjiñaren eraspenakin batera aunditzen zijoan Aitasuarenganako erriaren maitasuna eta onen autoritatea sendotzen.

(Ondoren Latiegi'k Pio IX'garrenak Mixioen alde egindako lanak eta liberaltasunaren aurkakoak; baita Frantzia'ko gertakizunak eta Risorgimento italiarrenak ere bai, Aitasantuaren erregetzaren amaiarekin. I Batikan konzilioaren berri ematen digu luze, bertan aldarrikatu ziran dogmerek: Aitasantuaren Utzeziña eta Ama Birjiñaren Sortzez Garbitasuna).

Konzilioa 1869'ko Abenduaren 8'an asi zan. 7 illebere eta 11 egun iraun zuan. 2.100 kongresistetatik 700 bakarrik bildu ziran; geienak italiarrak izanik, benetan esanenezake Italia'ren Konzilioa izan zala. Eskema guztiak Aitasantuaren eskuetatik pasa ziran eta laister Aitasantuaren Utzeziña artu zuten eztabaidarako gai. Aizkenean muga bat ipiñi zioten: "Ex Cathedra" itz egiten zuanean bakarrik zala utzeziña. Aitasantuak berak eman zien baimena eta 1870'eko Uztaillaren 18'an aldarrikatu zuten, ekaitz aundi baten erdian...

Berealaxe artu zuten Italiar-batasunekoek Erroma eta Konzilioa bertan-bera utzi zuan Aitasantuak garai obe baterako. Konzilio onartu ez zuan gotzai bat ere izan zan, Doellinger, eta onen ikasleek "Katoliko Zaarren" eliza zismatikoa sortu zuten. Oraindik ere bizi dira, baiña sekulan 30.000'tik gora ez dira iritxi.

Oar onekin amaitzen du Bixentek Pio XI'garrenaren bizitza luzea: Ezin litekela gaurko begiez, atzoko gertakizunik ondo ikusi. Berak Demokrazi liberalaren orduko okerrak eta akatsak ikusten zitun eta aiek begien aurrean zitula, ezin zitekean ez ulertu eta ez onartu orrelako demokraziarik.

Baiña, barne-bizitz kristaua bizkortu zuan.

Aitasantuaren maixutasuna ondo sendotuta utzi zuan.

Mixioeri arretaz lagundu zien eta 33 Bikariotza eta 10 Prefeturitza sortuta joan zan beste mundura.

17 Konkordato ere egin zitun Laterriekin.

Il zanean Eliza batasunean sendo eta osasunez indartzu zegoen; baiña, munduko arazoetatik urrun eta, ibillean geldi, zaartuta bezala. Konturatua zegoen giroa aldatuta zegola; lan ori aurrera eramateko, ordea, adorerik ez bere buruaren zaartzarogaitik. Urrungoentzat utzi zuan lan ori.

* * *

LEON XIII

Aitasantu berri, Pecci kardenala aukeratu zuten iru egunen buruan. Erregetza galdu arren, iñoiz baiño indar aundiagoa zeukan Aitasantuak. Leon XIII'garren artu zuan izen. Kardenal zalarik iru Laterrietan ibilli zan Aitasantuaren ordezkari bezala. Bere jokaera liberalegia zalako, ez zuten eskubitarrek gogoko. Baztertua eduki zuan Pio'k, beronen azken-aldian, Kamarlengo aukeratu zuan arte. Kargo ori zuenak agintzen zuan Konklabe garaian.

Ez zan ez ezkertiar, ez liberal; baiña, bai kultura zabalekoa eta bere buruaren jabetasunik galtzen ez zuana. Begi zorrotza zuan gartakizunetan axala mamitik bereizteko. Integristez inguraturik zegonez, ez zitzaion gauza erreza izan laguntzaille onak aukeratzea. Azkenik, ordea, Rampolla kardenala aukera zuan aukerakoa. Estadutzarako Idazkari izendat zuan.

* * *

Bere enziklika "Inmortale Dei", Laterri eta elizaren artuemanak onela garbitzen ditu: "Bakoitza bere arloan nagusi da..." baiña, Elizarena da "Aalmenik Garaiena" Potestas Suprema. Ori esaten zuan tesis bezala; baiña, lanerako hipotesis bezala, zeru orretatik lurrera jetxi bear zan, gaur eta emen nola lana eratu liteken,

jakiteko. Pio IX'garrena tesis-zero orretatik lurrena jeisten ez zekien; aitasantu onek, ordea, bai, garrantzi aundirik ez zuten gauzetan, amor emanaz. Rampolla kardenalak laguntzen zion orretan. Laterrien uste ona irabazteko, Laterri guztien, katoliko izan edo ez, Jaurlearitzek onartu zituzten eta, anarkiaren aurkako sendagai onena Eliza zala, adierazi, eta, babesik ziurrena. Espero zuan Leon'ek Laterri oien laguntzarekin eskuratuko zuela berriro bere Laterriaren Erregetza.

Aizkeneko bi Aitasantu auek Totalismoaren okerkerien susmoa artuta zeuden: Laterrien aalmenak osotu ezker, erriaren kaltean izango zirala, alegia. Estutasunak izan zitun Erroma'n Itali'ko Jaurlearitzarekin erabilli zitun joeren erruz, matxinadak kalean agertu ziranean "Aitasantua urkamendira" garraxi egiañez. Iges egiteko ere ibilli zan.

* * *

Langilleen Aitasantu

Bere aintzarik aundiena Elizari sozioloji-bideak irikitzea izan zan. Egia da izan zirala katoliko asko, Elizak proletaritzaren alde jokatu bear zuala, igarri zutenak, eta, arazoa ez zala bakarrik karitate-arazoa, zuzentasunarena baizik. Ikusi degu nola langilleriak fedea galdu eta mixio-lur gertatu dan.

1760'tik 1820'ra bitartean ola galantak jaso ziran eta beuroen inguruan, abereak lez, langille-talde ugariak. Proletaria izenak Marx'ek atera zuan jende aientzat. Prole itzak ume esan nai du, umeak nai bait zituzten lanerako ola-jaunek ume langille billa jotzen zuten zoko guztietara, umezurtegi guztiak ikertuz. Umeak beti billatzen zuten lana, naiz-eta gurasoak lanik gabe egon.

Lantegietan egiten zuten jan da lo. Egunez eta gauez, txandaka, egiten zuten lan, 6 edo 8 ordu, adiñaren neurrian, eta beti kontramaixuaren zigorpean. "Ez du merezi bizitzerik, lau urteko adiñean bere bizia irabasteko gai ez dan umeak" idatzita utzi zigun Edgar Poe jaunak.

Langille zarragoek 12 edo 14 ordu egiten zituzten lanean egunero. Sindikatoen lenengo eskaria 10 orduko lana izan zan eta umeen ariketa lege zuzenen bidez goxatzeko... Ameriketako eskabidea da; Europa'n beranduago egin zuten.

* * *

Lan-saria bizitzeko aña bearrezkoa zana, besterik ez. Ortik berakoa zanean, langilleria iltzen zan ugari eta, langille-ezean, saria jasotzen zuten. Saria jasota langilleak sortzen ziran nekazaritik eta orduan saria jetxitzen zan. Berriro korapiltoa, berriro saria jaso, berriro jeisteko... Liberalek ziotenez ekonomiak berak eta berez zuzentzen ditu berak sortutako okerrak.

Langilleria gaizki bizi zan, baita nekazariak ere, mundu guztia bezala. Ugasaben bizikera aldatu ez ba'ltz, ez zan agian munduan soziologizko arazo ain larri eta gogorrik sortuko; baña, beuroen bizitza, geroz eta aberatsagoa, nabarmenki aldatutzen zijoan... Langilleak oartzen asita zeuden, aberastasun aiek ez zirala diruaren emaitza bakarrik; euren lanak ere bazuela zer ikusirik... Ortik asarrea eta egoera ura irauli nai izatea... Langilleak alkartzen asi ziranean agintariekin eraso zieten pisti amorratu batzuen aurka bezala... Anarkistak asi ziran lenen, agintzaritza kendu bear zala aldarrikatzen; agintariekin batera, baita Jainkoa ere... Gizarte agintaritzarik gabe... Guztia danena eta ezerez bakoitzena...

* * *

Frantzia'ko Iraultza burgeskeriaren serbitzuan zegoen; langilleak, berriz, legearen aurrean aske ziran, baiña ekonimiaren aldetik leen bezin esklabu... Urten zuten kalera eta zapaldu zituzten... Langilleen gidariekin konturatu ziran, berdintasuna lortzeko, bide gogorrak erabiltzera beartuta zeudela...

Gerora dator Marx; bere pentsakeraren ardatza borroka eta iraultza dira. Iraultzaille guztiek langelleari bere eskubidetaz itz egiten diote. Elizako gizonak ikusi ere ez eskubide oiek. Zoritxarrez-dio Bixentek-ez zan orduan gaurko "Teología de la Liberación" orren antzekorik agertu.

* * *

Marx

Judutarra, sinisgabea eta materialista utsa. Burgesa eta anarkista. Ez zan zientzia-gizona, berak bere Sozialismoari Zientifikoa esan arren. Marx filosofari eta naiko erromantikoa da. Lojika mardula darabil. Oñarri bat ipintzen duanean, lojika osoaz, jasoko du aren gainean jaso bear duena; baiña, oñarria ona ala txarra dan begiratzeko. Ez dio begiratzen materialari, egi edo gezur dan; etxea eraitzeko balio ba'du, berdiña da bat ala bestea, egia edo gezurra.

Ona bere ideolojiaren zutabe nagusiak:

—Izate guztiak materia uts dira.

—Gizakumea ere materia uts da: bere elburua, materia berria sortzea=produktzioa.

—Orregaitik ekonomia da historia osoaren ardatza. Ori da gizadiaren infraestruktura edo azpi-erakundea; beste guztiak supraestruktura edo gain-erakundeak dira. Eta, nolako azpi-erakundea, olakoak izango dira azpi-erakunde orri dagokion gain-erakundeak ere.

—Gizakumearen lana da, produktzioa obeagotuz, Historiari aurrera bultzatzen diona. Langilledia da, beraz, munduaren salbatzaillea.

—Gaur egun, ordea, ori ez zaio langillediari ezagutzen. Langilleen bizkarretik bizi dan kapitalismoa da nagusi.

—Kapitalismoak produktzioaren baliotik jasotzen duana, lapurreta bizia da. Gauza bat egitean erabiltzen da lana, orixe da gauza orren balioa, eta, besterik ez.

—Kapitalismoa erortzera dijoa eta laister eroriko da. Ona zergaitik:

a) Kapitalisten arteko konpetentzi latzak eta alkarren arteko burrukak, geienak mixerira botako ditu eta gutxi batzuek geldituko dira eta mundu osoa langille izango da. Orduan, gutxi batzuetan oiñarritutako gizartea, piramide baten antzeko izango da; baña, alderantziz ipiñita, punta base bezela eta base zabala aidean. Orrelako piramide batek ezin lezake luzaroan iraun, jausi gabe.

b) Naitanaiez, Izadiaren legeek beartuta, kapitalismoa laister ezereztuko da.

* * *

Hegel'en ikasle izan zan Marx. Asmakizun berriak nola sortzen diran gure barruan argitzeko onela dio Hegel'en teoriak:

Gogapen "baiezkoa" sortzen danean, orduan beste "ezezkoa" ere sortzen da. Biak alkar jotzen dutenean, gogapen berri bat sortzen da. Lenengoa da TESIS, bigarrena ANTITESIS, irugarrena SINTESIS.

Marx'ek asmakizun ori bere erara egokitu zuan:

TESIS da kapitalismoa; ANTITESIS, proletaritzta eta biak alkar joko dutenean sortuko SINTESIS dan Komunismoa, langillediaren paradisu.

* * *

Ori bereala sortuko zala uste zuan Marx'ek. Iraultzak bi une izango ditu: borroka odoltzua eta langilleen diktadura. Ondoren kapitalistei lantegi guztiak kendu eta Laterriari eman eta gero gizartearen eskuetara pasa.

Orrekin desagertuko dira Kapitalismoa, Proletaritzta, Gizarteko maillak eta Late-

rria. Laterriakin batera Jaurlaritza ere bai, Agintaritza, Legeak, legeak emateko Aalmena. Eta, ori izango da KOMUNISMOA.

Dogma oiek dira “Sozialismo Zientifikoa”ren bizkar-ezurra. Baña, Proletaritzaren Diktadura eta onen ondorengo Komunismoa **nola** eratu bear ko dan ez dizu Marx'ek esango. Diktadura Rousseau'ren bitartekotasunik gabeko demokrazia izan bear du; baña Demokrazia Direkta ori **nola** eratu daiteken ez dizu esango.

* * *

Ez zan Marx langilleak salbatzeagaitik komunista egin, kapitalisten ganako zeukan gorrotoa asetzeko baizik. Egunkari kapitalista baten (Reinische Zeitung) zuzendaritzatik bota zuten. Berak ez zuan komunismorik ezagutzen eta orduan asi zan sakonetik ikasten.

Marx'en erabaki onek garrantzi aundia du sozioloji-arazorako, langilleria bere inguruan bildu bait zan, beste guztiek baiño organizalari ohea zalako. Ideolojia bat eratu zion langilleriari eta gudarozte bat ere bai burrukarako, Internazionala. Gaiñera zerbait izateko itxaropena ere eskeiñi zion Proletarien Diktadura eskeintzean.

Ez zuan bere bizitzan zorion aundirik izan bere lagun Engels kapitalista aberatsak lagundu zion arte. Iru alaba izan zitun eta sasikume bat: baña ez zion bere izenik eman.

* * *

Anarkista izanik, gorrotoa zion aundia erlijioari, lo-belarra eta alienazio dalako; zerura begira dauden artean, mundu onetako arazoak aztu. Orrelako esanak ikerketa baten bidez sendotu bear litzazke “zientifikoak” izateko; baiña, Marx'ek ez zuan ikerketarik egin, bera zientifiko ez zalako, filosofolari, baizik.

Bere esakizunak borobil-borobil botatzen ditu probarik gabe, arrazoibiderik gabe, filosofi aldetik bezala zientzia aldetik ere. Gizarteko erakunde guztien infraestruturara ekonomia da. Esatea egiztatzea baiño errezagoa da. Marx'ek ez zuan ezer egin egiztatzeko; esan, besterik ez. Badira gaur esaten dutenak, erakunde guztien infraestruturara, eta ekonomiarena bereiziki, erlijio dala (Werber); gizarte bakoitzak nolako erlijioa, alako ekonomia. Ortan emen dago, esate bate-rako, judutar eta arabiar arteko desberdintasuna.

* * *

Marx eta Engels aburu batekoak ziran eta bien artean, 1848'an, argiratu zuten, ordurarteko sozialist-anarkist-komunisten aburuak bilduaz, “Alderdi Komunistaren Azalpena” eta aren ikur-itzak auetxek izan ziran: “Mundu Guziko Proletariok batu zaitezte”.

Bien artean argitaratu zuten “Das Kapital” liburua 1867'an.

* * *

Soziogille katolikoek

Eten gabe ari ziran lanean Europa osoan, karitate arloan batez ere. (Izenak eta ekintzak aitatzen ditu ondoren). “Baña, ideolojiaren arloan, ez zan kristauen artean-dio Bixentek-Marx'en aurka egin zion pentsalaririk sortu...” “Ez ziran bear-kizun ortaz konturatu”. Anarkistek kezka geiago ematen zien. Marxismoak, berez, ez zuan iraultzarik sortzen, onartu baizik. Iraultza berez sortzen zan...

Gero Bixentek Keteler gotzaiaren ekintzak aitatzen ditu luze, soziokoji arloan egiñak... Langillearen alde lanik geien egin zuan gizona... Alemania'ko Parlamen-

tuan lege bikañak eman ziran gai onetan Keteler'eri esker... Jarraitzailleek izan zitun Alemania'n bertan, Frantzia'n, Austria'n eta abarren. Beste askoren artean Albert de Mun eta René de la Tour du Pin datoz; luze auek ere. Geroago Leon Harmel famatua; bere ekintzak Frantzi guztian zabaldu ziran erlijio, sozioloji eta ekonomiaren alorrean...

Beljika'n ere lanerako giroa bazegoen Lobaina'ko Unibersitatean, Manilas'ko Batzarra elkartearen eta abar... Ingalanderra'ko Manning kardenala, Estatu Batuetako Gibbons gotzaia, famatuak izan ziran beste askoren artean...

Leon XIII'garrena beti ibilli zan gizarte arazoetan kesaratu; baiña, Italia'n, 1871'garren urteko Iraultzararte, abaro gozoan egon ziran... Karitate egille ospetsu asko: Don Bosco, Cotolengo eta abar; egiazko soziologorik, ordea, ez zan agertu... Bonomelli gotzaia asi zan sozioloji-bidean eta Toniolo'k segi zion langilleen apostolu bezala. Onela dio Bixentek:

“Oso-oso dabiliz oker, emeretzigarren mendean soziologiaren eta ekonomiaren arloan katolikoek ezer egin ez zutela pentsatzen dutenak. Izugarria izan zan katolikoaren egidura. Ezin zenbatu daitezke arlo onetan ari izan ziran gizakumeak: jakintsuak, izlariak, idazleak, izparringilariak, ekintza-gizonak... Ezin dezakegu aipatu ere sortu ziran liburuak, izparringiak, billerak, alkarteak, bazkunak, kofradiak, aureski-kutxak, babes-lagundiak, korporazioak...” (365 or.)

España zijoan arazo onetan atzeratuen. “Gaitz aundia egin zion España'ri karlisten guduek”. Ondo desegina utzi zuten beintzat Euskalerrria. “Gure olagintza ere gudu oiek bukatzean asi zan, ots, gure Lege Zarra ezereztua izan zanean. Orregaitik, Euskalerrriko kapitalismoa ez zan sortu eusko-legediaren altzoan, España'ko legedi liberalaren altzoan baizik. Eta orregaitik ain zuzen, euskaldunoi esperientzi kilikagarri bat faltatu zaigu: Lege zarraren altzoan euskodemokraziak kapitalismoari zer erantzun emango zion jakin aal izatea”. (366 or)


* * *

“Rerum Novarum” enziklikaren aurretik bazan, ikusi degunez, sozio-ekintza kristauen artean, eta bizkorra gairera. Akatasak ere bazitun: Beranduegi... Geiena sekular aberatsen eta apaizen lana... Ez zan langilleen ekintza... Paternalista... Motzegia... Kooperatiba-lana...

Bi talde zeuden: Eskubiagokoak esaten zuten Latorria eta Eliza ez zirala sartu bear ekonomi arazoetan... Beste taldeak, baietz, sartu bear zutela...

* * *

Anes Arrinda



Gizarte-Sikologia

BOCACCIO-DECAMERON ETA EUSKALDUNAK

1. Euskaldunen Erregiña.
2. 'Jauja' Euskalerra'n dago.
3. Bocaccio eta Errenteriak.
4. Fernando Amezketarra eta Decameron:
'Arria Errekan' eta 'Erretorearen txerria'.
5. 'Gizon Bikañak' eta Decameron.

Giovanni Bocaccio, Firenze'ko merkatari baten sasi-kumea zan: Paris'en 1313'garren urtean jaioa. Bocaccio. Petrarca bere lagun miña, eta Dante. irurak izan ziran XIII eta XIV garren mendeetan italiar-idazkera goigorako maillara jaso zutenak: Bocaccio'k itz-lauz eta beste biak itz-neurtuetan (Lirikan Petrarca'k eta Epikan Dante'k).

Bocaccio ren itz-lauzko lanen artean, osperik aundienekoa, 'Decameron' da: amar egunez amar neska-mutillak esaniko kontuak dira. Beraz, 'amar egunez' (Decameron) amar kontu egunero, eun. Geienetan gaia bat berbera da: senarra ala emaztea nola iruzurtu, 'adarrak ipiñiz'. Pipar-miña botatzeko apaizak, prailleak eta mojak sartzen ditu tartean.

Gure garaiko literatur-liburuak esaten zutenenez. oso lizuna da Decameronen ori. Nik esango nuke gaiak dirala lizunak. esateko era baiño geiago. Gaurko egunez Irratietan eta ETB'ean entzun diran 'txisteak', entzun da gero, Bocaccio berbera lotzatuko litzake: izan ere. bere liburuaren azken orrietan. barkamen antzeko zerbait eskatzen digu, ar eta emen arteko emanak adierazi nairik. iru irudi auek erabili dituelako: iltzea eta zuloa, almaiza eta zapailua, saltxitxa eta mortadela.

Gañera argiratzen digu, kontu batzuetan lizunkeria ikutu ba'du ere, ori orrela izan dala. gaiak berez eskatzen zuelako, eta, buruz ondo arteztu ezkeroz. gai ori, nai ta nai ez, orrela bakarrik argitu zeikeelako. Ez zala, alegia, gauzak bear bezela esateko, beste biderik. Arazo onek auxe dakarkit gogora: orain urte batzuek dirala, billotsik TB'an agertzen ziran emakumeak, baldintza au eskatzen zuten: 'siempre que lo exija el guión', berez bearrezkoa danean... Orra Bocaccio seireun urtez aurreratu.

Bere kontuak —dio— ardoaren eta suaren antzeko dira:

batzuk mozkortzen dira ardoakin eta suakin erre: baña erru oiek ez dira ez suarenak ez ardoarenak... 'Eta. barrua zikiña duenak, ez du sekulan inun gauza garbirik ikusten'... Orra Bocaccio, praille sermolari sartun. Praillei buruz esaten ditunak. berriz, ez omen dira praille guztientzako esanak, bereizi batzuentzako baizik; prailleak gizon jatorrak dira. Jainkoaren gaitik artu dute bide latza eta lanean dabiltza itz onak ereiten eta zabaltzen, ordaiñik eskatzeke eta orregaitik arrotu gabe...

Eun kontu asko dira —dio— eta txarrak ere badaude tartean: baña. dana ondo egingo duenik ez dago inor, Jainkoa besterik... Luzeak ornen dira batzuek eta. ori ala izanik, 'beste lan bat duenik kontu auek irakurtzen astea, zorakeria deritzait...'. Liburuaren amaieran Jainkoari eskerrak ematen dizkio, lan nekagarri oneri azkena ematen lagundu diolako.

Onezkero galdera au egingo zenduan: 'eta Euskalerra'ri buruz, zer dio Bocaccio'k?

1. Euskaldunen Erregiña

Decameron itzak amar egun esan nai duenez, Amar alditan zatiten du bere liburua: egunero aldi bat. Eta egunero, amar kontu. Zortzigarren Aldian, Bederatzigarren Kontuak, izen-buru au dakar: 'Simon Maixuaren Sorgintza'. Sorginkeria darion erri bat aitatzen du: bertako uriak oso dira demokratikoak eta gizarteko ar-emanetan. bakoitzaren merituei begiratzen zaio, bakar-bakarrik, beste arrazoiek ez dute balio... Bertako etxeak zoragarriak. jantziak zoragarri josiak. eresiak zoragarri moldatuak... Dana da bertan zoragarri.

Baña, 'gauzarik zoragarrienak ango atsegiñak dira, batez ere emakume ederrek ematen dizuenak; gogoia izatearekin batera, ekartzen dizkizute, une batean. mundu guztiko ederrenak: an ikusiko dituzu Barbanischi'ren emakumeak, Euskaldunen Erregiña. Sultan jaunaren emaztea...'

Ba ote zuten erregiñik euskaldunek? Eta, ala izan ezkero, zein ote zan Euskaldunen Erregiñ ori? Bocaccio'ren garaian, euskaldun naparrek, Juana II zuten erre-

giñ. Bocaccio'k 15 urte zituela. 1328'an izendatu zuten kargu orretarako eta 1349' an il zan. Bocaccio'k 36 betetzear: 21 urte erregintzan. Bocaccio' ren garairik onean.

Felipe El Luengo errege naparraren alaba. Evreux'eko Felipe'rekin eskonduta zegoen. Napar-erri-nuan txertatutako Frantzia-Etxearen kimua zan Felipe. Bere emaztea Juana' k bazuen Frantzia' ko Erregiña izateko eskubiderik ere. Auzia erabakiteko Evreux'eko Felipe. Juana'ren senarra. eta Valois'eko Felipe. errege frantsesa, elkartu ziran eta erabaki aukeratu zituzten:

a/ Ebreuz'eko Felipe Naparroa' ko errege izango zan, Juana'ren senarra izateak ematen zion eskubidearen bidez.

b/ Juana' k, bere Frantzian erregiña izateko eskubideak. baztertuko zitun. baita Champagne eta Brié'ko Kondaduak ere. Aren orde. Angulema, Mortain eta Longeville' ko Dukaduak artuko zitun.

Korte Naparrek. Gares (Puente La Reina) errian bildurik. Naparroa' ko Erregiña onartu eta izendatu zuten: baita bere senarra ere. Juana'ren senar izateak ematen zion eskubideagaitik.

Frantzia' ra joanik zan bere seme Karlos'en Estaduak zaintzera. eriotzak arrapatu zuenean: 1349'ko Urrillaren 6' ean.

Auxe zan Bocaccio' k aitatutako Vasconum (euskaldunen) Erregiña, Champagne Etxeko alaba. Karlos II. bere serneak emango dio asiera Naparroa' ko Erreinuan. Evreux'eko Etxeari.

Juana II. Naparroa' ko Erregiña Frantzia'ko erregintzarako eskubideekin. Kondadu eta Dukadoal berekin zituela, naiko ezaguna zan Paris' en jaiotako Firenze' ko merkatari arentzat. Bocaccio'k orrela aitzeko, bere irudimenean beintzat. emakumerik ederrenetakoa izan bear Juana erregiña.

2. "Jauja' Euskalerria' n dago

'Calandrino. Buffo Buffalmano' du izen Zortzigarren Aldiko Irugarren Kontuak eta asieratik au adierazten digu: Calandrino inuxente bat dala eta inuxentekeriak sinisten dituela...

"Calandrino' k galdetu zien, ia, orrelako indarra zuten ari miragarri aiek. nun zeuden. Berlinzone' n, Euskaldunen Errian zeudela batez ere, erantzun zion Maso' k, Bengodi izeneko lurraldean. An, lukainekin lotzen dituzte txakurrak, xentimo batzuekin erosten dezu antzar bat eta indiollar bat ematen dizute gañera. Lurralde aien erdian dago Parma-gaztaiakin egindako mendi aundi bat eta gain artan bizi dira makarroiak eta pastak, kapoien saldatan. egosten ari diran gizasemeak, eta bein egosi ezkeroz. guztiak botatzen dituzte maldan be'fra. eta geien

arrapatzen danak, geien jango du: mendiaren oñetan. berriz, uren tantarik naastu gabeko, mama-goxoa dario aitzak. errekatxo baten antzera.

—Ori toki ederra (esan zuen Calandrino'k): baña, kapoiekin zer egiten dute?

— Euskaldunek jaten dituzte.

— Zenbat milla daude emendik ara?

— Milla baiño geiago eta beste orrenbeste.

—Neretzako urrun egiten da: gerturago ba'lego. joango nintzake makarroi ez neure urdailla betetzera. Baña, esan eidazu. mesedez. ondo ba'dirizkiozu: lurralde artan al daude arri miragarri oiek?

—Ainbeste daude! Ez diete kasurik egiten; ezta esmeraldei ere: auetako arri-bitxiak mendia aiñakoak dituzte, eta aien dizdirara, gana egin biurtzen dute...'

Ikusten degunez Jauja-erria Bocaccio'k asmatu zuen orain 650 urte eta Euskaldunen artean ipiñi zuen. Moroan kontra ainbeste urte burrukan egon arren. bitarte orretan, Napar euskaldunek, kristau burrukak aitzaki artuta, abiatu ziran Frantziaren egotik eta Italiaren Ifarretik. Yugoeslabia' n zear. Albania artu eta Grezia'raiño zabaldu zituzten euren lerroak...

Bocaccio'k ezagutzen gaitu eta zeruraiño jaso, amezko erria bat sortuz gure inguruan: txakurrak lukainka ederrekin lotzen zituen erria...! Propaganda aintzagarria egiten digu Bocaccio'k. Gaur. Donosti'ko San Sebastian, egunean. Urrezko Danhorrak ematen diran unean... Ez ote dago bat Bocaccio' ri eskeintzeko?

3. Bocaccio eta Errenteriak

Portuetan eta ibaietan, portu ziranean, egotea ziran Euskalerria'n etxe bereziak, gorde-toki, eta sal-toki ziranak, 'casa-lonja' edo 'renteria' izenarekin. Zerga-etxeak eta muga-etxeak ere baziran.

Zertarako errenteri oiek? Bertan gordetzen ziran burnioletarako meatzak, galtzairuak. iltzeak, bestelako burni landuak eta merkagaiak. guztiak ondo zenbatu eta pixatu ondoren, salneurriakin batera. Gaiak barkura eraman ala. kobratzen zituzten arduradunek, zergak edo 'errentak'. Ortik dator 'errenteria' izena.

Errenteriak benetako muga-etxeak ziran. benetako 'aduanak'. Gure artean iraun zuten, portu guztietan eta portutik kanpora ere bai. karlisten gerraren amaierarte. Zorioneko 'Abrazo de Vergara' arek ondatu zitun gure lege guztiak, gure eskubide guztiak. gure Euskal Furoa... XIX'garren eunkiaren asieran amaitu ziran guztiak. Bergara'ko Besarkada gezurtia Maroto karlistak eta Espartzero Madril'eko nagusi liberalak moldatu zuten. bien artean, azpikerizko saldukeri dollor ori... Orduan amaitu ziran benetako erreuteri eta aduana auker: baita

ELERTIA

Ebro ibaiekoak ere. Auek Pirinee mendietara pasa zituzten. eta beste guztiak, portu nagusietara, baña Madril'aren eskuetan.

Errenteria izena dirau oraindik ere zenbai portuetan. Or daukagu Pasaia-portuko Renteria erria. Villanueva de Oyarzun sortu zan Pasaia'ko renterian, Orereta izeneko tokian: iraun duen izena ez da ez Villanueva ez Orereta. Renteria haizik. Etxe baten izena.

Oria errekak bazuen bere errenteria Orio'n, inguruko ola guztientzat. Urola ibaiak, Bedua'n zeukan errenteria, Zestua inguru osoarentzat. Deva ibaiak etxe bat izan zuen Deba erriaren aurrez aurre. Urasandi izenekoa, 1996'ean erretakoa. Gabon inguruan. Mutriku aldetik zegoen. Deba tik Mutriku' rako ihia Sasiola' ko Astigari-bia'n, an daude gaur ere zubi zaarra, berria eta Autopistakoa. Orregaitik edo. Alzola 'n ere bazun errenteria bat.

Donosti 'ko Urumea ibaiak Hernani 'n zeukan etxe auetako bat. Osinaga kaian; eta Donosti'ko uriak berak. molla-gañean. Zaintzaillaren lana auxe zan: meatzak. hurniak. zurak eta bestelako merka gaiak Donosti'ko Santa Katalina portura eta. Urola ibaiean zear, Hernani'ko Osinaga'ra eramatea.

Ondarru'ko errian bada oraindik Renteria auzoa. Artihai ibaiean. Gernikan, berriz. San Juan auzoan, gerora la renteria ' izena izan zuen parajea.

Portuetatik alde ere bazeuden errenteriak: Durango'n. erriko eta inguruko oIetako burni totsoak jasotzeko: Jemein 'en. gain batean. Azkoitia. sortu zanean, inguru guztirako errenteri bat errian egiteko baimena eman zioten (1324-1-4).

Fueroa zeatzan zan gai oneri buruz eta errenterietako zaintzaillak debekatua zeukaten iñungo sal-erosketarik egitea errenterietako jeneroarekin. diru-zigor gogorra jaso nai ez bazuten.

Decameron 'en Zortzigarren Aldiko Amargarren Kontuak, izen-buruan onela dio: 'Blancaflor eta Salahaeto'. Bocaccio'k, kontu onetan. zeatz-meatz. ematen digu errenteria auetako bizitza eta ordenamentuak. XIV 'garren eunkiaren erdi-aldean idatzita dago, Azkoitia'ri bere ingururako errenteria eman zionetik laister.

Onela ari da Bocaccio jauna:

"Bazan oitura bat –eta bear ba da iraungo du oraindik– portua zuten itxas-ertzeko erri guztietan: barkuetan zetozen merkagai guztiak, 'aduana' izeneko etxe batean biltzen ziran eta gorde... Bein ara ezkeroz, merkatzaillak. 'aduana' oietako zaindariei. salgai dakarren gauza guztien zerrenda bat ematen diote. jenero bakoitza bere prezioarekin. Portuko erri-gizonek. berriz. markatari bakoitzari biltoki bat ematen diote. giltzapean euron jeneroak gordetzeko eta aduanakoek, beuroen liburuetan idazten dituzte merkatari bakoitzaren salgai ekarri dituzten gauza bakoitza curen sal-neurriarekin edo prezioare-

kin. Gerora zergak ordainduko ditu saltzaillak, gauzak atera ala.

Era orretara, eta eskerrak liburu oietan idatzitako gairerrenda eta sal-neurriei. artekari eta erre kardariak, badakite merkatari bakoitzak zer ekarri duen saltzeko eta zer diru-neurri duen gauza bakoitzak eta nolakoak diran. Merkatariaren izena an dagoenez, sal-erosketan asteko badira...".

Aduana izena berak. Bocaccio'k. erabiltzen du.

Errenterien berri eman ondoren. ipuia dator. onela jarraituz:

Sizilia'ko Palermo portuan ere ba'zan onelako errenteria eta aduana bat. Badira. baita ere, emakume oso ederak. zuzentasunaren etsai diranak, gizonak erruki gabe larrutzen iaioak. Sizilia ugarteia danez, Palermo errian agertzen diranak, urez etorri dira eta auetako kanpotarren bat ikusten dutenean, badoaz arin-arina errenteriako liburuak ikustera. la zertzuk ekarri dituen.

Gero, aberastasunaren neurriera, leunkeriz asentzen dituzte gizarajo mertatzaillak... Euren eskuetan gelditzen dira merkatari gaiak... eta tarteka, berkua eta ezurak ere bai. A zein ez tiki eta emeki erabiltzen duten curen liban zorrotza!

Auetako eme bat zan Blancaflor eta labandutako iñuxentea. Salabaeto, portura etorri berria. Ekarki zitun artilleroialak. Salerno'ko azokan aurreratu ziotenak, gutxienez 500 urrezko-florin balio zutenak. Ez zeukan salmentan arteko gogorik eta kaleetan zear abiatu zan atsegin billa. salgai ekarritakoak errenterian gorde ondoren.

Ibilli ta ibilli. Blancaflor'en eskuetan erori zan. labana maixu batek baño obeto erabiltzen zekiena. Salabaeto zoratzen zebillen neskaren eskuetan, nai zitun guztiak eskeintzen bait zizkion: bere burua eta zitun guztiak.

Amabost egun esne-aparretan pasa ondoren, errenterian zeuzkanak salduta. 500 urrezko florin kobratu zituenean. orduantxe agertu ziran akatsak eta ezbeharak:

– Nere anaia itxas-lapurren eskuetan erori da. eta etxera nai ba det, milla urrezko florin eman bearko diet oraintxe bertan luzatu gabe.

– Ara, nik milla ez ditut. bai ordea bosteun; emango nizuzke bosteunak, baldin emendik amabost egunera biurtzen ba'dizkidazu.

– Nola ez ba? Oraintxen bertan bear ditudalako, bestela ondasunetan ori baño geiago daukat eta astia dagoenez, zuri itzultzeko salduko ditut...

Eman zizkion bereak ez ziran bosteun floriñok. damia lasaitu aal izateko... Lasaitu, lasaitu zan eta ez gutxi ere: arrezkero ez zuan damarik iñun topatzen.

Itxaroten aspertu zanean. Salerno'ko bere lagun bateara jo zuan, estualdi artatik irteten laguntza billa. Artarako bidea argitu zion lagunak...

Etorri zan berrira Palermo'ra ogei pardel oial eta ogei

olio-barrirekin. bi milla urrezko-florin balio zutela esan zuan erreterian: baña. ez zuela ezer saldu nai alik eta beste iru milla florinezko salgaiak bere izenean etorri arte. Gorde zitun giltzapean oial eta olioak eta berak eraman zuan giltza.

Bere burua nabarmendu zuenean Palermo'ko kaleetan. Blancaflor gerturatu zan erreteriarara, zer ekarri zuen jakiteko: liburuetan bi milla urrezko florin agertzen ziran eta beste iru milla etortzekoak. Oiek danak ondo ikasita, mutillari ots egitea erabaki zuan bosteun floriñak itzulzeko, bosmillaren jabe izateko itxaropenean.

Bere burua xuritzeko sekulako gezur-sorta aotik dariola agertu zan Blancaflor eta Salabaeto'k sinisteko itxurak egin. 500 floriñak eskuratu ondoren, etorri ziran mutillaren negar samiñak: bere pardelak. iru milla flori-nekoak. zekarren barkua itxas-lapurrek eraman. Barku osoaren ordeaz amar milla florin eskatzen zuten lapurrek eta berari. Salabaeto'ki, milla ematea tokatzen zitzaion. Beste bosteun palta.

Blancaflor adi-adi entzuten egonda gero. merkatari bzterengana jo zuan eta eraman zuan jaun ori erreteriarara. ango liburuetan idatzita zer zegoen erakustera. Alkarrekin erabaki zuten 500 floriñak ematea Salabaeto'ri, eurak merka-gai aiekin gelditzekotan.

Salabaeto'k baietz, dirua len-bai-len billatzen ez bazuen iru milla galduko zitula... Artu oraingo bosteunak. lengo bosteunak artuta zeuzkan. eta ospa: ez zuan iñork geiago mutillaren aurpegiarik Palermo'ko kaleetan ikusi.

Mutilla agertzen ez zala eta. joan ziran pozik erreterira Blancaflor eta merkataria. Atea ausi eta sartu ziran biltoki barrura: an zeuden ogei pardel oial eta berrogei olio-harrika. Lenengo pardela benetako oial ederra zan; baña. beste guztiak zabor utsak. Barrikek. berriz, olioak zeukaten aonan, andik azpira, ura. Siri ederra sartu zien.

Kontu onen egitura, eta Don Manuel Lekuona'ren EUN DUKAT'ena. biak dute antz berdiña. Pikope batean eun dukatu dauzka itxuak. eta bere illobek. arrapatu. Zer egiñ jakin ez, eta jo du itxuak aztiarengana. Onek aopean esan dio. agertzeko asmoa beste eun bertan jartzekoa... Orella gauzak dirala, ona abesten duana:

"Eun dukatu dauzkat
pikope batean,
beste eun jartzera noa
lengoen gañian..."

Ori entzutean, illobek ostutako eun dukatak jartzen dituzten berriro pikopean, palta dirala konturatu ez dediiñ itxua. Bai onek azkar-asko jaso ere.

Boccaccio'ren kontu onetan ere, lapurretan egiten dio Blancaflor'ek gezur batekin eta gero berak. beste 500 lapurtzen dizkio gezurretan.

Dana dala, kontua aitzaki dala. Boccaccio'k erakusten

digu xeetasun guztiakin zer eta nola egiten zan lana erreterietan, aduanetan. Guretzako amaitu ziran Karlsten gerra bukatzean. 1839 urtearen inguruan. Fuegoakin batera. Espartero jeneralaren eskuz. Enbor-ondo bat gelditu zan bizirik Concierto Económico izenakin eta Franco jeneralak sustraitik atera. 1937'an, Gipuzkoa eta Bizkaian, Errepublikaren alde jokatu zutelako biak. Erreteriak kendu aurretik. Deba'ko Eliz-kabildoak 'piano-forte' bat erosi zuen Londres'en: bien bitarteko barku baten kapitana; berak erosi. ordaindu eta portu onetara ekarri. Besterik gabe. Orretara oituak zeuden geure aurrekoek. Madril'eko Jaurlaritzak Euskalerrria bere mende aurtu arteko guztian.

4. Fernando Amezketarra eta Decameron

Aspaldidanik (Martxoa, 1998) ETB jolasean dabil, marrazki biziz. Fernando Amezketarra'ren gertakizunak eta bizitza ematen. Gizon au ez da asmakizun baten fruitua, aragizko gizakia, baizik. Aio. Amezketan jaio zan. Bere aita Joxe Bergaretxe, Aduna'ko semea: ama. berriz, Joxepa Antoni Altuna. amezketarra.

Fernando gizon abilla eta bizkorra zan, eta ba-batean ematen zitun bere erantzun zorrotzak, bai eguneroko bere bizitzan. aita errietako plazetan, bersolari. Erri guztiek nai zuten Fernando euren festetarako. Ateraldi bikañak zitun.

Gregorio Muxika'k ateraldiak eta, jaso zitun 'Fernando Amezketarra' izeneko liburuxka batean. Liburuaren itzaurrea Karmelo Etxegarai'k eta argitaldaria, Zarauz'ko Itxaropena. Noizkoa dan, falta da; baña gutxi^g ora-beera atera litzake 12 peseta balio bait du, eun orrialdeko liburuak. Zillarrezko pesetak. Urteak dira galdu zirala.

Karmelo Etxegarai'k adiera emate digu, ipui guztiak ez dirala Fernando'renak. Bereiziki, ARRIA ERREKARRA: kontu ori aspaldi argitaratu zuen Pedro Alonso idazle erdaldunak, bere 'Disciplina Clericalis' idaztian.

Neuk ere beste orrenbeste topa det Decameron'en Zazpigarren Aldiko Laugarren Kontuan. bosteun urte Fernando jaio aurrekoa.

Baten ekintzat edo ipuiak, beste ondorengo bateri ezartzeak. Gizarte-sikologiaren Transposizio-Legeak. Alda-Arauak, betetzen ditu. Lenengoaren ospea galtzen danean, aren ipuiak, aren gertaerak, aren esanak beste ospedun berri batek jasotzen ditu. Esate baterako, euskaldun gogoetetan Basajaunen zenbait gertaera. Jentillengana aldatu ziran, ondoren Erromatarrengana. Moroengana. baita Sanson eta Erroldanengana. Euskal-

ELERTIA

dun jatorren buruetan alkarrekin naastuta ere ibilli dira. Euskera galdu zutenak, ez dakie Basajaun eta Jentillen berririk; auen zenbait kontu. Moroei ezartzen diote... Ipuiak eta abar batetik bestera pasatzen dira ospaeren eta goramenaren neurrian. Astutako zaarrei kendu, eta gogoan daukagun berriak ezarri.

Euskaldunek gure kulturarik zaarrena ere gogoan izan dute. etxeari esker. Etxea eta illobia danentzako bat gizaldi-gizaldiz. Maiorazgoa. beti etxerako: etxeari eusteko... Etxearen betikotasun onek lagundu dio euskaldunari bere kultur-ezaugarriak gordetzen... Aizkenerako ezaugarri oiek naastuta ere egon arren, Alda-Arauk askotan hete dituzte.

Fernando Ameztarraren 'Ar'ia Errekara' eta 'Erretorearen txerria' kontuetan betetzen dira naiko garbi, nik uste, Gizarte-Sikologiako Alda-Arau oiek.

a/ Arria Errekara

Fernando Amezketarraren kontu au eta Bocaccio'arena, bizkiak dira. Lenengoan. Fernando da tabernatik berandu datorrena. Emazteak ez dio aterik zabaltzen eta orduan senarrak. bere burua errekarra botako duela Biotza. Paret zaar batetik ar'i aundi bat jaso eta putzura botatzen du. Zalaparta arekin emaztea bildurturik, etxetik irten eta putzura doa senarrari laguntzera. Bitarte orretan Fernando etxean sartu eta kale gorrian utziko du bere emaztea gau osoan.

Bocaccio'k, berriz, bere Decameron idaztiaren Zazpi-garren Aldiko Laugarren Kontuan, gertaerak alderantziz esaten dizkigu: emaztea da ganez berandu datorrena, baña ez tabernatik. bere maitalearen etxetik baizik. Artarako, gauero aparti-unean. gustoko duen ardo goxoa ematen dio senarrari, zearo mozkortuta utzi arte. Lotara lagundu, eta loak artu duenean. bizkor-bizkor, bere maitalearengana urbiltzen da berandurarte.

Baña. Tofano (Bocaccio'ren Fernando) egun batez konturatzen da, emaztea asko saiatzan dala bera mozkortu eta lotaratzan. Zertan ote dabil? Gau artan mozkorren itxurak egin ditu: emazteak irten duenean, morrolloz itxi du etxeko atea. Gau-erdian emaztea ate-joka asi danean, Tofano bere oian epel-epel eta geldirik. Ez dio aterik iri-ki. Emazteak meatxu egin dio. bere burua errekarra botako duela. Bota du arri aundi bat putzura. Otsarekin sumindu zaio barruan biotza senarrari. eta arin dijoa emaztea putzutik ateratzera. Senarra irten bezela, sartu da barruan emaztea eta atea itxi. Leiora irten eta garraxi bizian asi da esaten:

— Ara, nun datorren nere senar mozkorra! Auek al dira orduak tabernatik etxera etortzeko!

Auzoko emakume guztiak leioetan daude emazte gaixoa-
ren larriak entzuten eta senar gaiztoari sekulakoak esaten...
Tofano oso gizarajo gelditzen da Fernando'ren ondoan.

b/ Erretorearent txerria

Ba du Fernando'k orrelako gertaera bat eta Bocaccio'k beste bat: biak antzeko. Bien arazoa au da: lapurtuaren itxurak egiteko, gauean etxearen kanpo aldetik txerria esegi, benetan lapurtu eta goizean jabeak lapurrari esaten dio benetan lapurtu diotela txer'ia... Baietz, baietz. or'ela segitzeko eta sinistuko diotela.

Fernando'k bere Erretore apaizari lapurtzen dio txerria: Bruno eta Buffalmano'k bere Calandrino lagun inu-xenteari... Urrango goizean Erretore-apaiza eta Calandrino, biak dute portaera berdiña esanez:

—Bart txerria lapurtu didate.

Lapurrek. Fernando alde batetik eta Bruno ta Buffalmano bestetik:

—Oso ondo. Segi ori esaten. mundu guztiak sinistu dezan.

—Baña, egia dala!

—Segi. segi orretan...

Fernando'k Erretoreari lapurtutako txerria txikia zan. Eta. oiturari jarraituz, auzo guztiari banatu bear ba'zion 'txerri-erregaloak'. bere ezer gabe geldituko zan. Orduan Fernando'ri aolkua eskatu zion, zer egin. Eta Fernando'k esan zion, gauez esegiteko leiotik txerria, il zuela mundu guztiak ikusi zezan; gero, ber'iz. urrango goizean. txerria ondo izkutatu, eta, arrapatu ziotela esan. Eta, bitarte or'etan. Fernando berak arrapatu Erretoreari txerria.

Orain eun urte famili guztiak iltzen zuten, Azarotik asita, etxean azitako txerri bat: gazitarako ez zira puska, ^sorde ezin eta ortik sortu zan 'txerri-erregaloen' oitura. Auzoko lagunei eskeintzen zitzaien odolki, urdai. bizkar-
ezur zati bat... Gero bakoitzak artzen zitun ordaiñetan txer'i-erregaloak... Erretoreari geinak eskeintzen zioten zer-edo-zertxo eta mokau goxoak sarritan. Ordañak ematen asi ezkeru, txerria urtu. Eta orregaitik zegoen Erretorea kezkatu-
rik aolkua Fernando'ri eskatu zionean.

Lapurketa onek beste ondorio bat ere ekarri zuan: Fernando'k ez zuen txerririk iltzen; txerri-erregalorik ernaterik ez, eta artzerik ere ez. Orain txerria badu eta saskitxo batean odolkitxo bat. urdai zati bat. xerra bat... garbi-garbi ipiñi eta erriko atea jo zitun galdezka:

—Zuek ekartzen al didazute txerri-erregalorik?

— Ez ba, Fernando.

— Agur. ba orduan.

Saskitxoa ustu bearrik ez. Arrezkero erri guztiak ekartzen zioten txerri-erregaloak.

Bruno eta Buffalmano'ren zergatia beste bat da; baña, jokatu. berdin jokatzan dute. Calandrino'k erritik kapora zeudan borda bat eta txerria gizontzen. Bere bi lagunek txerri ura jan nai zuten mendian eta orretarako Fernando'ren asmakizuna agertu zioten Calandrino'ri... Eta. gau aretan txerria arrapatu zioten. Gero lagunek Calandrino'ri Fernando'k apaizari egindako egiten die. baña dollorkeri geiagokin: bi antzar ematen ez ba' die, txerria maitale gazte batentzako izan dala, esango diote emaz-

teari... Txerria naikoa ez dala, bi antzar eman bear Calandrino inuxenteak.

Boccaccio-ren kontuak Fernando-renak baño garratza-go dira; denborarekin legundu egin dira apurtxo bat...

5/ Decameron eta "Gizon Bikañak"

1930'en amarkadan bazebilen gure artean 'Gizon Bikañak' izeneko antzerki bat, (erderaz 'Los Tres Valientes'). 1936'ko gerraren aurretik, Lazkao'n antzesu genduan, eta gerra ondoren, Zumarraga'n.

Fernando Amezketarraren kontuak ezezik, 'Gizon Bikañak' duen gaia ere, aurkitu det Boccaccio-ren Decameron liburuan Beratzigarren Aldian, Lenengo Kontuan, 'Los Muertos de Doña Francisca' izen-buruakin.

Euskal antzerkian etxeokandrea bat, bere ondasunen zaindaria bikain baten billa, dabil. Iru agertu dira lan orren eske eta bakoitzak ez daki beste bien berri. Andreak jolas-aldi bat prestatzen du onela: bateri esaten dio ildakoen gorpua zaindu bear duela gauetz; besteari, il-itxurak egin eta zaindaria ikaratzen saiatu bear duela; irugarrenari, deabruz jantzita, ildakoaren zaindaria ikaratu.

Ildakoa etzanda dago maai gañean, izara batekin estalita. Zaindaria bere alboan silla batean, botella-ardoa eta basoa, maaian dituela. Ildakoak ardoa edaten dio ontzitik, zaindaria konturatzeke. Irugarren aldirako, keskatzen asten da ardoaren jabea. Gau-erdian, sorgiñak aske galditzean, zaindaria eta ildakoa erdi-lotan daudela, baztar batetik ateratzen da deabrua garraxika eta saltoka. Zaindaria ori ikustean, alde egiten dio deabruari; ildakoak deabrua ikustean, bere burua maaitik botatzen du; deabrua, ildakoa bizirik ikustean, maai-azpian iskututzen

da... Une orretan, etxeokandreak, argiak piztu eta iru 'gizon bikañak' bildurrez biotza urturik ikusten ditu.

Boccaccio'k Bederatzigarren Aldiko Lenengo Kontuan (Decameron: Los Muertos de Doña Francisca) ere iru zerki dakartz, ildakoa, zaindaria eta Erriko Jaunaren Gau-ertzaiñak, deabruaren orde, arazo guztia ankazgora ipintzeko. Doña Francisca 'k ez du zaindaririk bear; berak auxe nai du: bi maitale, gaiñetik bota ezin ditunak, betirako galtzea. Oso maite-minduak daudenez, eta maitasuna edo-zertarako prest, gauza gaitzak eta zailak eskatzen dizkie era onetara: Bateri, gaur eortzitako ildako baten orde bere burua illobian gorde, ilda ba'lego bezela eta artan eutsi... Besteari, berriz, joateko gauerdian Franziskotarren illerrira eta ekartzeko gaur eortzitako gorpua. Joan da eta atera du illobitik, izara baten bilduta zegoen gorpua, eta badator etxeruntz illunpean eta etxeokandrea leiotik begira. Bat-batean Jaunaren Gauertzaiñak agertu dira, lapur baten ondoren eta, argia eurari zuzenduz, alto! bota die. Zaindaria bota du gorpua lurrera eta korri, tximistak artuta; jeiki da ildakoa, arri-eta-zur utzirik Gau-ertzaiñak eta zaindaria.

'Doña Francisca' pozik leioan: maitale sutsu aspergarri orrek ez dira geiago agertuko bere aurrean.

Ez dira kontu berdin-berdiñak, baño bai antzekoak. Izan ere, seireun urte daude bien bitartean.

Zine bat egiteko Boccaccio'rena, antzerki baterako, 'Gizon Bikañak'. Izan ere, antzerkia da.

Orra euskaldunen zenbat gauza, atsegin eta zaarrak, italiar baten idaztietan.

ARRINDA'tar ANES
Udaberria. 1998

IPUIN-SARIKETA (BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN)

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k, urte guztietan lez aurtan be, ipuin sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

—Ipuiñak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearko dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINTZA'k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.

— Ipuiñak asmatuikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.

— Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER'en argitaratuko dira. Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.

— Azillaren azkenerako EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren etxean (Bilbao'ko Colon de Larreategi. 14, 2.º eskoia) egon bear dabe.

— Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta ZER'en agertuko da, Urterillean, baita DEIA Egunkarian be albait lasterren.

— Sariak lau izango dira: 1.º 50.000 pezeta.

2.º 40.000 pezeta.

3.º 30.000 pezeta.

4.º 20.000 pezeta.

—Ipuiñak izen ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.

OARRA: ipuiñak ekarteko epea abenduaren azkenera arte luzatzen da.

“DENBORA BERRIETAKO ELIZA” LIBURUAREN AURKEZPENA (DONOSTIA, 1987-4-24)

Andre-jaunok:

Liburu baten aurkezpena egiteko batu gara gaur emen: *Denbora Berrietako Eliza* (*Argikuntza, Jakintza Berriak, Iraultza* dau izen-burua idazti onek, bosteun eta berrogeita amabi orrialde aundi-beteak osatzen dabena.

EUSKERAZAINTZA-ren illeroko azken billeran aukuratu ninduen aurkezpen au zuei egiteko Bixente lez, neu be abadea apaiza naz eta idazlea.

* * *

Liburu bat ez da zugazpean sortzen dan perretxikua. Perretxikoa ba'litz, kiloko ondio baltza eta mardula litzake. Ondioa berez sortzen da; liburu, ordea, beste baten eskuz eta adimenez.

Kilo bateko liburu mardul au ez da bakarra, sorta baten bigarrena, baiño. *San Inazioaren Denborako Eliza* dau izena lenengoak eta lareun eta ogeita amar orrialdek osotzen dabe. Urtebeteko epea bien artean eta egillea, berbera.

ELEIZ-EDESTI-SORTA saillekoak dozuz biak eta beste iru be laister agertuko jakuz egille berberaren eskutik, sail onetan.

EUSKERAZAINTZA'k argitaratu dauz biak eta badiu beste idatzi batzuek be argitara emonak. “Mirri”k, Euskadiko paillasoak, EUSKERAZAINTZA'ren bizkarretik txistea egin zigun Euskal-Telebistan, Martxoaren 25'eko domeka arratsaldean. Txiste-gai baiño geiagotarako be bagarala, uste dot.

Nor da liburuaren egillea?

Latiegi'tar Bixente (Euskerazaintzakoa) diño idaztiaren azalak.

“Bixente” izen aukerakoa dozu. Irugarren gizaldia-zen azken-aldeko martiri euskaldunaren izena. Diokleziano'ren erasoan erail eben Zesar-Augusta'ko diakono zala. Bere gotzaila “ignarus linguae”, “mintzaira gabekoa”, zalako, diakono Bixente erabiltzen eban itzultzaile Jainkoaren itza erriari banatzeko. Euskalduna zan Bixente a, gurea lez. Gurea Latiegitarra dogu, Euskalerrian sustraitua. Errotik euskaldun. Ez edonun errotua, Gipuzkoan baiño; Tolosan baiño.

Amabost milla urtetik onako sustrai luzeak ditu euskaldunak European. Bere mintzairak be badiu millaka batzuk. Orduko Franko-Kantauri-Kultura begien aurrean ipiñi ezkeru, auxe ikusten dogu: Asturias, Santander, Bizkaia, Gipuzkoa, Naparroa, Pirenee-mendiak eta Garona ibaitik gora, Dordoña'arteko tartean, eunka dagozala leizak gure arbasoen egoitza izanak. Orrean arteko askotan itzi dauskuez marrazki margodunak eta xixilikatuak, geure aurrekoen kultura berezia osotzen

dabenak eta garai bateko Europa'ren sustraktum izana da kultura au.

Geure gaurko erri zaarra, kultura onen ardatzean dago, ertz zabalak galdu badiu be, Asturiastik Bizkaira eta Naparroatik Dordoña'ra bitarteko egalak dira galdu ditunak. Alan be, dirau oraindik erriak kultura zabal orren biotzean. Ez dau nortasunik galdu, mintzairari eskerrak.

Mintzairak, ordea, oraindik Erri zaar onetan dirau-nak, berak be egalak galdu dauz eta Erriaren biotzean kokatu da. Euskalerrria Franko-Kantauri-Kulturaren biotzean eta ardatzean ba'dago, Tolosa biotz orren biotzean eta ardatz orren ardatzean daukazue. Ez da bada arritzeko Tolosa-ingurukoa ba'da Euskerarik jatorrena.

Bizkaiak, Arabak, Naparroak, Lapurdik eta Zuberoak, bostak ditue euren egalak erderaren lurraldeekin bat eginda. Gipuzkoa, barriz, bosten erdian gelditu da gordeta mendeetan zear, guztien biotzean antzeko. Baiña, guzti orrean ardatzik ardatzeena Tolosa ingurua da: Tolosa'tik Aralar aldera. Ez da kasualidade bat Orixe ingumari orreitan sortua izatea, Euskeraren gordelekurik ziurra eta garbiena toki ori izan da beti eta.

Ba-eben ba, arrazoirik Azkue eta bere Euskaltzaindiko lagunak Gipuzkoako euskera batasun-biderako aukuratu ebenean... Orain, barriz, ez dakit nungo aizeak emon-da, iturri garbienekoa eta jatorrena itzi eta egaleko euskera bat artu dabe euskera guztien batua egiteko...

* * *

Esandako onek danak onetara datoz: Bixente euskaldunak, Latiegitarrak, Tolosa'ko semeak, iturburu garbienean edan dauela bere euskera.

Eta euskera ori amaren bularetik edoski ebalá. Gertakizun onek izugarrizko abantaila eta onura emoten dautso gizaki euskaldunari: buruko estrukturak eta moldeak euskaldunak izatea. Euskeraz pentsa eta euskeraz mintza. Ez dago bien bietartean aldaketarik: pentsamoldea euskalduna eta orreri dagokion mintzaira be bai. Eta ori, nekerik gabe lortua amaren magalean...

Bixente'ri ez jako ainbeste eta ainbeste euskaldun barriei gertatzen jakena gertatzen: erderaz pentsa, eta euskerazko itzez mintza. “Traduttore traditore” gertatzen jake euren barruan, euskerarik menperatzen ez dabelako. Bai, bai, kursillo pilloa dauka eginda; agiriak, barriz, kartera-bete; baiña, irakurri egizuz orrean idazlanak eta, begien aurrean erderazko idazkia ez ba dozu, lanak izango dozuz euskerazko itzulpenak ulertzen.

Gaurko egunez jende asko bizi da Euskeraren erra-petik. Iragarkiak lurralde osoa bete dabe bi izkuntzetan:

ELEIZEA

erderaz eta euskeraz. Ez dau iñortxok euskerazkorik irakurriko eta, orregaitik-edo, iragarkia ipintzen dauanari bardin jako ulertu-erreza ala ulertu-gatxa izatea. "Legea betetzen da" euskeraz ipiñi ezker; ondo ala txarto, orrek ez dau nunbait orrelako garrantzirik, legea bete ezker. "Legea bete", ordea, euskaldunentzat auxe esan nai dau, legearen azala betetzea, mamirik beteten ez ba'da be.

Gure arteko gerratean nere amama eta bere lagun Gergori, biak oso gizenak, Lekeitio'ko ingumarietan egozan, mendi-bide batean, automobil baten barruan. Geruratatu jake milizano-taldetxo bat galdezka:

—¿Qué hacen ustedes aquí, señoras?

Gergori Amoroto'ko alaba euskalduna zan eta onelan diñotso nere amamari:

—Berba eixu, Pillipa... Eta, Pillipak barbarik be ez esaten eustan andik denboratxu batera.

Pillipak berba egiteko asmorik ez ebalu ikustean, bera asi zan:

—Este señora de hijo de auto; no poder ser andar. Miliziano aien algarak. —¿Qué dice señora?

—Fácil, fácil: este señora de, hijo de, auto...

—Areik mutil tontuak ziran, esaten eustan Gergorik. Ez eben ezer be ulertzen.

Berarentzat arazoa oso garbia zan: Andre onen (esta señora de) semearen (hijo de) automobilla (auto): esta señora de, hijo de, auto... Errezago esan ezin. Euskeraz pentsa eta euskeraz egin berba erdaldunekin; gaur eguneko zenbait itzultzaileek orixe egiten dabe, baiña alde-rantziz: erderaz pentsa eta erderaz itz egin, berba euskaldunekin...

Latiegi'ri ez jako orrelakorik gertatzen, naiz-eta doto-retasuna dauen apaiza izan, irakaskintzan beti ibilli euskeratik at eta izkuntza askoren jabe bere burua egin bere bizian. Oiek danak ez dautse euskerarik galdur-arazo, azpiko oiñarriak eta beeko solairua euskera jatorrez egiña dauelako. Gaiñera Euskera zaindu dau, Euskerari ekin dautso eta Euskerazaintzaren sortzaille bat be bada. Liburugintzan lanean ikusten dogu eten barik eta bien bitartean or dabil su-ta-ke aldizkarietan lanean (ZER, KARMELETA eta SASKI-NASKI) eta izparringietan (Diario de Navarra) euskera-arloan...

Euskera, ordea, ez da izan bere ogi-bidea: euskarentzat bizi ba da be ez da euskeratik bizi. Gazteiz'ko Instituto Politécnico'ren zuzendari izan da urte luzeetan. Beraz, bere lana ez zan euskeraz idaztea, ez eta.

Elizaren Edestia egitea be. Beste lan askoren artean au be egin dau atsedeen-aldietan, lasai-uneetan... Atsedena lana aldatzea da. Bixentek bere ogibideko egin-bearrak bete ondoren, lau au osotzea artu eban atsegin-bide...

Lagungarriak

Gazteiz'ko Seminarioan bizi izana dogu eta bertako liburutegi ederrean eban liburu-zerrenda luzea, gai oneri buruzkoa. Liburu onen asieran, bosgarren orrialdetik amargarrenerako bitartean, dakaz idazti orreik banan-banan... Sailla, luzea benetan.

Areik danak eskuetan erabili eta areitatik liburu barri bat ateratzea, orixe bai buru argi eta indartsu batentzat benetako lana... eta gozamina. Buru ergel batentzat, zorabioa.

Joseba Zubikarai Markiñako karmeldarrak lagundu dautso makiña-utsegiteak zuzentzen.

Denbora eta garaiak

Edozein liburuxkaren egilleak esango dautzu, itzetik-ortzera, bosteun ordu bear izan dituala idazti-arazoa bere elburura eroateko. Eta gero, barriz, neurri orretan egiten ditue euren eskabideak gizarteko elkarteeri.

Zenbat ordu bear izan dozuz edesti-liburu oneik bere onera ekarteko? Erantzuna zuk emon dauskuzu ogei urte. Ogei urtez arazoa eskuartearen, irakurritz eta oarrak idatziz... Ogei urte zazpi milla eta irureun da bost egun dira... Egunak esaten ari gara eta ez, orduak. Eskerrak ez zendueta lan au ogibidetzat artu...!

Gai oneri buruz ara zer diñon liburu onen amaseigarren orrialdean Latxaga ospetsuak:

—“Pozik eta atsegin aundiz irakurri dot zure liburua. Ondo oartu naiz zuk be pozik idatzi dozula; zoriontsu izan zerala ori idazten ibilli zaran denbora guztian; egiazko gozotasuna izan dala zuretzat eginkizun au.”

Eta lana gozo egiten danean, orduan lanaren futua eta ondorena be gozoa izan oi da.

Eliza osoaren edestia gauza zabala da bai tokiz eta bai denboraz. Tokia laburtu ezin, esirik ipiñi ezin, Eliza osoa bait doa aurrera ibilli eta ibilli... Garaiak banatu bear.

Eta liburu onen garaiak bi gizaldi osotzen dabez: amazpi-garren eunkia eta amazortzigarrena. Berreun urte! “Codex Juris Canonici” egin arte, Elizaren Lege-diak liburu asko batzen ei ebazan eta, jakintsuen iritzira, “onus multorum camellorum” omen ziran, “kamelu askoren zanpagarritzko pixua” osotzen ei eben danen artean. Elizaren berreun urte alakoak liburu baten esitzea, ori ere “onus multorum camellorum” iruditzen jat. Amazoniako oianean sartzearen antzeko. Basoa ikaragarria gurdibidez eta bidetxigorrez betea eta josia...

Nundik nora jo?

Amazonian urratsen diarduen antzeko bide zabala egin dausku Latiegi jaunak: Aita Santurik Aita Santura doan bide zabala. Andik aterako dira zearretako gurdibide eta bide txuak. Orrelan, ez dago arriskurik norbere burua oianean galtzeko.

Liburuaren gaiakin sartu baiño lenago, beste oartxo bat be esan bearra daukat. Euskera jatorraren jabe izanik, bere pentsakera eta pentsakera orren itz-moldeak jatorrak izanik, idazkeraren soiñekoa be jatorra erabiltzen dau Bixentek: Euskaltzaindiak irurogeita amabost urte luzeetan erabilitako soiñekoa.

Orain urte gutxi, gazteen iraultza bateri amor-naz, Euskaltzaindiak, bide zabala itzi, lortuta egoan batasunari bizkarra emon eta zearkako bidea artu eban; euskerari buruz, biotzekoa laga eta egalekoa artuz, eta idazkerari buruz naaspilla eta zailtasunak bear ez dirala sortuz.

Erabilten eta aoskopzen ez zan izki edo letra bat tartean sartu eben belardian karda-azia baiño ugariago, idazkera zaildu eta itsusituz, irarkola galestituz eta barritik ikasi bear dauanari eragozpenak duan ipiñiz. Antzutu sekulotan egon dan Euskeraren errapea, gaur aberatsa dogu eta esne orrek eraginda, jendeak lanean ekiten dau zailtasun eta guzti, gaitzez betetako euskera ori ikasten... Barriro antzutuko ba'litz, orduan ikusiko genduke euskalzale barri onein edorea noraiñokea dan.

Izki barria naikoa ez dala, zaarrak kendu ditue Ñ, Ll eta J eta edonoiz entzungo dozue lan-gi-lea esaten, langillea esan bearrean... Jota erditik kendu ezkeror dabiltz axolakeriak esaten eta bitartean *dijoa* aditza idatziz ezin eta orretarako h'a ipiñi jota'ren ordez *dihoa* eta aoskopzen ez dan izkia, emen jota bezela aoskopu bear... Oraingo egoerak negar-gura emoten dautsola, esan euskun joan dan asteen D. Manuel Lekuonak telebistatik...

Liburu onetan orrelako zailtasunekin ez dozu topo egingo. Euskera bera erreza eta jatorra eta idazkera be berdin: gain-soiñokea, tolestu bakoa.

Kanpotik be ondo egiña dago liburua, paper onez eratua eta moldetegiko lana, bera be, garbia eta errez irakurtekoa. Orriak, barriz, lokarriz josiak eta onek asko esan nai dau, askotan pegamentuz erazten bait dira alkarri.

Gauza bat dau eskasa: azala, Liburu onek jantzi dotoreagoa merezi leuke. Akatsik aundiena orixe dauela uste dot. Irarkolako utsak be baditu; baiña idatzit bat ortik libratzea, batez be euskeraz ba'dago, oso da gaitza eta zaila.

Gaia

ELIZ-EDESTI-SORIA onen gaia, denbora aldetik, bi milla urteko Eleizaren kondaira dozu eta, toki aldetik, mundu zabala. Denbora aldetik mugatu bear eta orrela edesti onen lenengo alea XVI'garren gizalditik argitaratzen asiak gara, naiz-eta gertaerak aurretik etorri: Erdi-arotik.

Erdi-aroak moldaketa luzea izan eban, bein Erri basatiek, Erromako Erresuma apurtuta, laterria barrigazteak sortu zituenetik aurrera. Orreik danak eta aurreakoak, gerora argitaratuko dira.

EDESTI onen lenengo alea joan dan urtean... San Inazioekin alkartuta etorri zan, onek eta bere Konpañiak garai areitan izandako garrantziagaitik. Inigo, barriz, gurea da, gain-gaiñoeko euskalduna.

Erri basatien artean Elizak begirunea eta aginpidea ba eban, jakintza, eta buruko argitasuna beragaz eukalako. Jakintza Eleizaren eskuetan izanik; gizartea bere erara eratzten saiatu zan, Jainkoa ipiñiz jakintza guztien gai. Ikastola Nagusieta, Unibersitateetan, teologia era-kusten zan gairik nagusien lez.

Jakintzarekin batera agintaritza be Elizaren eskuetan egoan: Aita Santuenean batez be, baiña baita Gotzaienetan be. Gotzaia, "pontifex" zan: "zubi-egille", eta Aita Santua, "pontifex maximus"... Orrek esan nai dau jakintzarekin batera, ba-ebala dirua be eta agintaritza.

Gizadia aurrera doan neurrian, sekularrek euren adiñera eldu ala, Elizaren menpetik euren buruak askatzeko irrika egozan eta ortik sortzen jake Elizaren aurreko garaletara begiratzeko gogoan: Erroma eta Greziako jakintzara eta artegintzara, jentillen bizi-moldera. Baita Eliza

beronen lenengo egunetara be. Orixe dozu Renacimiento edo Birsortzea.

Elizaren menpetik euren buruak libratzeko giro orretan, jaso eban Luterok bere askatasun-ikurriña. Elizaren aginpideetik libratzeko, errege eta printzipeengan ipiñi eban aginpidea eta orretarako euren errien Aita Santu eta Gotzai izendatu ebazan. Ortik sortuko da erregeen absolutismoa eta Estaduaren eliza. Beste aginpiderik ez dau Luterok ezagutuko Bibliarena ez ba'da; baiña, Biblia ori bakoitzak bere erara argituko dau.

Biblia orrelan irakurtzetik eta erregeen eliz-aginpedetik izugarrizko zatiteketa sortu zan Kristiandadean. Zatiketa orretatik, barriz, Elizaren eta Bibliaren mesprezioa...

Zatiketa burrukaz beteta etorren. Nundik pakea lortu? Nundik batasunera eldu? Emendik artzen dau asiera orain aurkezten dogun Sortaren bigarrena liburu onek.

Lenengo Ingoterran eta geroago Holandan arrazoia- ren aldeko kanpaiña sortzen da pakearen eta batasuna- ren oiñarri lez. Fedearen ordez, arrazoa: giza-arrazoa. Jainkoaren ordez, Izadia beronen legediarekin. Jainkoak, ba'da be, ez dau Izadiaren ardurarik.

Sustrai oneitatik sortzen da Argikuntza edo Ilustrazioa.

Onen ondoren Deismoa dator. Izadia berbera da jainko.

Deismotik Ateismora: ez da jainkorik.

Jainkoa jakintza-bideetatik kendu eta bere ordez Izadia ipiñi eta Izadiaren lege guztiak. Oneik dira Jakintza Barriak.

Fede barri au kirstau-fedearen aurka jarriko da; naiz- eta berez aurka egon ez. Argikuntzaren argi barri onek salbatuko dau gizadia, erriek parte artzeke. Orixe izan- go da *despotismo ilustrado* deritzana. Illunbeetan dagoen erri itsua argidunek salbatuko dabe. Iraultza onek despotismoa dakar alde guztietatik, erregeen indarkeria indartuz.

Argi ori zabaltzen dan neurrian, erriko jende asko onetan konturatzen da: argiak salbatuko da'ditu ez dabe- la errege bearrik euren buruak salbatzeko eta ortik sortuko da Iraultza barri bat: Frantzia'ko Iraultza. Giza- arrazoa bera da jainko. Erregearekin batera aundikiak eta eliza kendu gizartetik eta burgesak jaso aginpidera...

Bi gizaldi luzetako edestia da eta bitartean Elizak zer jokabide dauan ikusteko Latiegik, lenago esan dogun lez, bide zabal bat urratu dausku Aita Santurik Aita Santura eta ortik urtetan dabe zenbait bidezear bi giza- ldi oneitan Elizan bertan izan diran ezbidetaziñoak eza- gutzeko: Jansenikeria, Galikeria, Febronikeria, Josepe- keria eta abarren okerkeriak; baita masoienak be...

Garai nastau eta urduriak, gaur eguneko zenbait okerren sortzaille eta sustrai; baiña, garai onein eta aurrekoen barri beste iru liburuetan agintzen dauskuz Latiegi jaunak.

Eta, amaitzeko, ona barriro Latxaga'ren itzak:

"Lan ederra egin dozu; bikaiña; argiñen lana. Arriz- arri arreta aundiz, poliki eta dotore landutako arriz egiña; mamiz eta azalez lan biziro egokia".

Artu liburua eta ao-gozatu patxara onean. Onenbes- tez naikoa dogu. Esaera zaarrak diñonez: "gaizki esa- nak barkatu eta ondo esanak gogoan artu".

LIBURUAK

"DENBORA BERRIETAKO ELIZA"

LIBURUAREN AURKEZPENA

Donostia. 1987-IV-24

Andre-jaunok:
Liburu baten aurkezpena egiteko bildu gera gu gaur emen: Denbora Berrietako Eliza (Argikuntza, Jakintza Berriak, Iraultza) du izen-buru idazti onek, bosteun eta berrogeita amabi orrialde aundi-beteak osatzen dutena.
EUSKERAZAINTZA ko illeroko aizken billeran aukeratu ninduen aurkezpen au zuei egiteko. Bixente bezala, neu ere apaiza naiz eta idazlea.

Liburu bat ez da zugaizpean sortzen dan perretxikua. Perretxikoa ba 'litz, kiloko ontto beltza eta mardula litzake. Onttoa berez sortzen da; liburua, ordea, beste baten eskuz eta adimenez.

Kilo bateko liburu mardul au ez da bakarra, sorta baten bigarrena, baizik. San Iñazloaren Denborako Eliza du izen lenengoak eta lareun eta ogeita amar orrialdek osatzen dute. Urtebeteko epea bien artean eta egillea, berbera.

ELEIZ-EDESTI-SORTA saillekoak dituzu biak eta beste iru ere laister agertuko zaizkigu egille berberaren eskutik, sail onetan.

EUSKERAZAINTZA k argitara ditu biak eta baditu beste idatzi batzuek ere argitara emanak. "Mirri"k, Euskadiko paillasoak, EUSKERAZAINTZA ren bizkarretik txistea egin zigun Euskal-Telebistan, martxoaren 25"eko domeka arratsaldean. Txiste-gai baiño geiagotarako ere bagerala, uste dut.

Nor da liburuaren egillea?

Latiegi 'tar Bixente (Euskerazaintzakoa) dlo idaztiaren azalak. "Bixente" izen aukerakoa dezu. Irugarren gizaldiaren aizken-aldeko martiri euskaldunaren izena. Diokleziano 'ren erasoan erail zuten Cesar-Augusta 'ko diakono zalarik. Bere gotzaia "ignarus linguae", "mintzaira gabekoa", zalako, diakono Bixente erabiltzen zuan itzultzaille Jainkoaren itza erriari banatzeko. Euskalduna zan Bixente ura, gurea bezala. Gurea Latiegitarra degu, Euskal-lerrian sustraitua. Errotik euskaldun. Ez edonun errotua, Gipuzkoan baizik; Tolosan baizik.

Amabost milla urtetik onerako sustrai luzeak ditu euskaldunak European. Bere mintzairak ere baditu millaka batzuek. Orduko Franko-Kantauri-Kultura begien aurrean ipiñi ezkeroz, auxe ikusten degu: Asturias, Santander, Bizkaia, Gipuzkoa, Naparroa, Pirenee-mendiak eta Garona ibaitik gora, Dordoña 'rarfeko tartean, eunka daudela leizeak gure arbasoen egoitza izanak. Oien arteko askoetan utzi dizkigute marrazki margodunak eta xixilikatuak, geure aurrekoen kultura berezia osatzen dutenak eta garai bateko Europa ren sustraktum izana da kultura au.

Geure gaurko erri zaarra, kultura onen ardatzean dago, ertz zabalak galdu baditu ere: Asturiastik Bizkaira eta Naparroatik Dordoña 'ra bitarteko egalak dira galdu ditunak. Alaz ere, dirau oraindik erriak kultura zabal orren biotzean. Ez du nortasunik galdu, mintzairari eskerrak.

Mintzairak, ordea, oraindik Erri zaar onetan diraunak, berak ere egalak galdu ditu eta Erriaren biotzean kokatu da. Euskalerria Franko-Kantauri-Kulturaren biotzean eta ardatzean ba "dago, Tolosa biotz orren biotzean eta ardatz orren ardatzean daukazute. Ez da bada arritzeko Tolosa-ingurukoa ba 'da Euskerarik jatorrena.

Bizkaiak, Arabak, Naparroak, Lapurdik eta Zuberoak, bostak dituzte beuren egalak erderaren lurraldeekin bat eginda. Gipuzkoa, berriz, bosteen erdian gelditu da gordeta mendeetan zear, guztien biotzaren antzeko. Baiña, guzti oien ardatzik ardatzeena Tolosa ingurua da: Tolosa 'tik Aralar aldera. Ez da kasualidade bat Orixe ingumari oietan sortua izana, Euskeraren gordelekurik ziurrena eta garbiena toki ori izan bait da beti.

Bazuten, beraz, arrazoirik Azkue eta bere Euskaltzaindiko lagunek Gipuzkoako euskera batasun-biderako aukeratu zutenean... Orain, berriz, ez dakit nungo aizeak eman-da, iturri garbienekoa eta jatorrena utzi eta egaleko euskera bat artu dute euskera guztien batua egiteko...

Esandako onek danak onetara datoz: Bixente euskaldunak, Latiegitarrak, Tolosa "ko semeak, iturburu garbienenan edan duela bere euskera. Eta euskera ori amaren bularretik edoski zuela. Gertakizun onek izugarritzko abantailla eta onura ematen dio gizaki euskaldunari: buruko estrukturak eta moldeak euskaldunak izatea, alegia. Euskeraz pentsa eta euskeraz mintza. Ez dago bien bitartean aldaketarik: pentsa-moldea euskalduna eta orreri dagokion mintzaira ere bai. Eta ori, nekerik gabe lortua amaren magalean...

Bixente 'ri ez zaio ainbeste eta ainbeste euskaldun berriei gertatzen zaiena gertatzen: erderaz pentsa, alegia, eta euskerazko itzez mintza. Tradutore traditore gertatzen zaie beuren barren, euskerarik menperatzen ez dutelako. Bai, bai, kursillo pilloa daukate egiña; agiriak, berriz, karfera-bete; baiña, irakurri itzatzu oien idaz-lanak eta, begien aurrean erderazko idazkia ez ba 'dezu, lanak izango dituzu euskerazko itzulpenak ulertzen.

Gaurko egunez jende asko bizi da Euskeraren errapetik. Iragarkiak lurralde osoa bete dute bi izkuntzeetan: erderaz eta euskeraz. Ez du iñortxok euskerazkorik irakurriko eta, orregaitik edo, iragarkia ipintzen duanari berdin zaio ulertu-erreza ala ulertu-gaiza izatea. "Legea betetzen da" euskeraz ipiñi ezker; ondo ala gaizki, orrek du nunbait orrelako garrantzirik, legea bete ezkeroztik. "Legea bete", ordea, euskaldunentzat zera esan nai du, legearen azala betetzea, mamirik betetzen ez ba 'da ere.

Gure arteko gerratean nere amuma ete bere lagun Gergori, biak oso gizenak, Lekeitio 'ko ingumarietan zeuden, mendi-bide batean, automobil baten barruan. Gerturatu zaie miliziano-taldetxo bat galdezka:

Qué hacen ustedes aquí, señoras?

Gergori Amoroto 'ko alaba euskalduna zan eta onela diotza nere amumari:

Berba eixu, Pillipa... Eta, Pillipak barbarik bez, esaten zidan andik denboratxu batera.

Pillipak berba egiteko asmorik ez zuela ikustean, bera asi zan:

-Este señora de hijo de auto; no poder ser andar.

Miliziano aien algarak.— Qué dice, señora?

—Fácil, fácil: este señora de, hijo de, auto...

—Aiek mutil tontuak ziran, esaten zidan Gergorik. Ez eben ezer be ulertzen.

Berarentzat arazoa oso garbia zegoen: Andre onen (este señora de) semearen (hijo de)

automobilla (auto): esta señora de, hijo de, auto., Errezago esan ezin. Euskeraz pentsa eta euskeraz itz egin berba erdaldunekin; gaur eguneko zenbait itzultzaileek orixe egiten dute, baiña alderantziz: erderaz pentsa eta erderaz itz egin, berba euskaldunekin...

Latiegi 'ri ez zaio orrelakorik gertatzen, naiz-eta dotoretasuna duen apaiza izan, irakas-kintzan beti ibilli euskeratik at eta izkuntza askoren jabe bere burua egin bere bizian. Oiek danak ez diote euskerarik galdu-arazi, azpiko olfiarriak eta beeko solairua euskera jatorrez egiña duelako. Gaiñera Euskera zaindu du, Euskerari ekin dio eta Euskerazaintzako sortzaille bat ere bada. Liburugintzan lanean ikusten degu etenik gabe eta bien bitartean or ari da su-ta-ke aldizkarietan lanean (ZER eta SASKI-NASKI) eta izparingietan (Diario de Navarra) euskera-arloan...

Euskera, ordea, ez da izan bere ogi-bidea: euskerarentzat bizi ba 'da ere, ez da euskeratik bizi. Gasteiz 'ko Instituto Politécnico 'ren zuzendari izan da urte luzeetan. Beraz, bere lana ez zan euskeraz idaztea ez eta Elizaren Edestia egitea ere. Beste lan askoren artean au ere egin du atsedeen-aldietan, lasai-uneetan... Atsedena lana aldatzea da. Bixentek bere ogibi-deko eginbearrak bete ondoren, lan au osatzea artu zuan atseginbide...

Lagungarriak

Gasteiz 'ko Seminarioan bizi izana degu eta bertako liburutegi ederrean zuan liburu-zerrenda luzea, gai oneri buruzkoa. Liburu onen asieran, bosgarren orrialdetik amargarrene-arako bitartean, dakartzki idazti oiek banan-banan... Sailla, luzea benetan.

Aiek danak eskuetan erabili eta aietatik liburu berri bat ateratzea, orixe bai buru argi eta indartsu batentzat benetako lana... eta gozamina. Buru ergel batentzat, zorabioa.

Joseba Zubikaral Markiñako karmeldarrak langundu dio makiña-utsegiteak zuzentzen.

Denbora eta garaia

Edozein liburuxkaren egilleak esango dizu, itzetik-ortzera, bosteun ordu bear izan ditula idazti-arazoa bere elburua eramateko. Eta gero, berriz, neurri orretan egiten dituzte beuren eskabideak gizarteko elkarteeri.

Zenbat ordu bear izan dituzu edesti-liburu auk bere onera ekartzeko? Erantzuna zuk eman diguzu: ogei urte. Ogei urtez arazoa eskuartean, irakurriz eta oarrak idatziz... Ogei urte zazpi milla eta irureun da bost egun dira... Egunak esaten ari gera eta ez, orduak. Eskerrak ez zenduela lan au ogibidetzat artu...!

Gai oneri buruz ara zer dion liburu onen amaseigarren orrialdean Latxaga ospetsuak:

—"Pozik eta atsegin aundiz irakurri det zure liburua. Ondo oartu naiz zuk ere pozik idatzi dezula; zoriotsu izan zerala ori idazten ari izan zeran denbora guztian; egiatzko gozotasuna izan dela zuretzat eginkizun au".

Eta lana gozo egiten danean, orduan lanaren fuitua eta ondorena ere gozoa izan oi da.

Eliza osoaren edestia gauza zabala da bai tokiz eta bai denboraz. Tokia laburtu ezin, esirik ipiñi ezin, Eliza osoa bait doa aurrera ibilli eta ibilli... Garaiak banatu bear.

Eta liburu onen garaiak bi gizaldi osatzen dute: amazapigarren eunkia eta emezortzigarrena. Berreun urte mando! "Codex Juris Canonici" egin arte, Elizaren Legediak liburu asko biltzen omen zituen eta, jakintsuen iritzira, "onus multorum camellorum" omen ziran, "kamelu askoren zanpagarritzko pixua" osatzen omen zuten danen artean. Elizaren berreun urte alakoak liburu baten esitzea, ori ere "onues multorum camellorum" iruditzen zait. Amazoniako oianean sartzearen antzeko. Basoa ikaragarria gurdi-bidez eta bidetxigorrez betea eta josia...

Nundik nora jo?

Amazonian urratsen ari diran antzeko bide zabala egin digu Latiegi jaunak: Aita Santutik Aita Santura dijoan bide zabala. Andik aterako dira zearretako gurdi-bide eta bidexkak. Orrela, ez dago arriskurik norbera burua oianean galtzekoa.

Liburuaren gaiakin sartu baiño lenen, beste oartxo bat ere esan bearra daukat. Euskera jatorraren jabe izanik, bere pentsakera eta pentsakera orren itz-moldeak jatorrak izanik, idazkeraren soiñekoa ere jatorra erabiltzen du Bixentek: Euskaltzaindiak irurogeita amabost urte luzeetan erabillitako soiñekoa.

Orain urte gutxi, gazteen iraultza bateri amor emanaz, Euskaltzalndiak, bide zabala utzi, lortuta zegoen batasunari bizkarra eman eta zearkako bidea artu zuan: euskerari buruz, biotzekoa laga eta egalekoa artuz, eta idazkerari buruz naaspilla eta zailtasunak bearrrik gabe sortuz.

Erabiltzen eta aoskatzen ez zan izki edo letra bat tartean sartu zuten belardian karda-azia baiño ugariago, idazkera zaildu eta itsusituz, irarkola galestituz eta berritik ikasi bear duanari eragozpenak duan ipiñiz. Antzututa sekulotan egon dan Euskeraren errapea, gaur aberatsa degu eta esne orrek eraginda, jendeak lanean ekiten du zailtasun eta guzti, gaitzez betetako euskera ori ikasten... Berriro antzutuko ba ' litz, orduan ikusiko genduke euskalzale berri auen adorea noraiñokoa dan.

Izki berria naikoa ez dala, zaarrak kendu dituzte Ñ, LL eta J eta edonoiz entzungo dezute lan-gi-lea esaten, langillea esan bearrean... Jota erditik kendu ezkeror or dabilta axolakeriak esaten eta bitartean dijoo aditza idatzi ezin eta orretarako h 'a jota 'ren ordez dihoa eta aoskatzen ez dan izkia, emen jota bezela aoskatu bear... Oraingo egoerak negar-gura ematen diola, esan zigun joandan astean D. Manuel Lekuonak telebistatik...

Liburu onetan orrelako zailtasunekin ez dezu topo egingo. Euskera bera erreza eta jatorra eta idazkera ere berdín: gain-soiñekoa, alegia, tolesterik gabea.

Kanpotik ere ondo egiña dago liburua, paper onez eratu eta moldetegiko lana, bera ere, garbia eta errez irakurtzekoa. Orriak, berriz, lokarriz josiak eta onek asko esan nai du, askotan pegamentuz erazten bait dira alkarri.

Gauza bat du eskasa: azala. Liburu onek jantzi dotoreagoa merezi luke. Akatsik aundiena orixe duela uste dut. Irarkolako utsak ere baditu; baiña oietik idatzi bat libratzea, batez ere euskeraz bal dago, oso da gaitza eta zailla.

Gaia

ELIZ-EDESTI-SORTA onen gaia, denbora aldetik, bi milla urteko Eleizaren kondaira dezu eta, toki aldetik, mundu zabala. Denbora aldetik mugatu bear eta orrela edesti onen lenengo

alea XVI 'garren gizalditik argitaratzen asiak gera, naiz-eta gertaerak aurretik etorri: Erdi-arotik, alegia.

Erdi-aroak moldaketa luzea izan zuan, bein Erri basatiek, Erromako Erresuma apurtuta, laterri berri-gazteak sortu zituztenetik aurrera. Oiek danak eta urrerakoak, gerora argitaratuko dira.

.

EDESTI onen lenengo alea joandan urtean San Iñaziorekin elkartuta etorri zan, onek eta bere Konpañiak garai aietan izandako garrantziagaitik. Iñigo, berriz, gurea da, gain-gaieneko euskalduna.

Erri basatien artean Elizak begirunea eta aginpidea bazuan, jakintza eta buruko argitasuna berekin zuelako. Jakintza Eleizaren eskuetan izanik, onek gizartea bere gixara eratzen saiatu zan, Jainkoa ipiñizjakintza guztien gai. Ikastola Nagusietan, Unibersitateetan, teologia erakusten zan gairik nagusien bezala.

Jakintzarekin batera agintaritza ere Elizaren eskuetan zegoen; Aita Santuenean batez ere, baña baita Gotzaienetan ere. Gotzaia, "pontifex" zan: "zubi-egille", alegia eta Aita Santua, "pontifex maximus" .. Orrek esan nai du jakintzarekin batera, bazutela dirua ere eta agintaritza.

Gizadia aurrera doan neurrian, sekularrek beuroen adiñera eldu ala, Elizaren menpetik beuren buruak askatzeko irrika zeuden eta ortik sortzen zaie Elizaren aurreko garaietara begiratzeko gogoia: Erroma eta Greziako jakintzara eta artegintzara, jentillen bizi-moldera, alegia. Baita Eleiza beronen lenengo egunetara ere. Orixe dezu Renacimiento edo Birsortzea.

Elizaren menpetik beuren buruak libratzeko giro orretan, jaso zuan Luterok bere askatasun-ikurriña. Elizaren aginpideetik libratzeko, errege eta printzipean gan ipiñi zuan aginpidea eta orretarako beuren errien Aita Santu eta Gotzai izendatu zitun. Ortik sortuko da erregean absolutismoa eta Estaduaren eliza. Beste aginpiderik ez du Luterok ezagutuko Bibliarena ez ba 'da; baiña, Biblia ori bakoitzak bere erara argituko du.

Biblia orrela irakurtzeetik eta erregeen eliz-aginpideetik izugarrizko zatiteketa sortu zan Kristiandadean. Zatiketa orretatik, berriz, Elizaren eta Bibliaren mesprezioa...

Zatiketa burrukaz beteta zetorren. Nundik pakea lortu? Nundik batasunera eldu? Emendik artzen du asiera orain aurkesten ari geran Sortaren bigarren liburu onek.

Lenengo Inglateran eta gerorago Holandan arrazoiaren aldeko kanpaiña sortzen da pakearen eta batasunaren oiñarri bezala. Fedearen orde, arrazoa: giza-arrazoa. Jainkoaren orde, Izadia beronen legediarekin. Jainkoa, baldin ba 'da ere, ez du Izadiaren ardurarik.

Sustrai auetatik sortzen da Argikuntza edo Ilustrazioa.

Onen ondoren Deismoa dator Izadia berbera da jainko.

Deismotik Ateismora: ez da jainkorik.

Jainkoa jakintza-bideetatik kendu eta bere orde Izadia ipiñi eta Izadiaren lege guztiak. Oiek dira Jakintza Barriak.

Fede berri au kristau-fedearen aurka jarriko da; naiz-eta berez aurka egon ez. Argikuntza-aren argi berri onek salbutuko du gizadia, erriak parce arteke. Orixe izango da despotismo

ilustrado deritzan zera. Illunbeetan dagoen erri itsua argidunek salbatuko dute. Iraultza onek despotismo dakar alde guztietatik, erregeen indarkeria indartuz.

Argi ori zabaltzen ari dan neurrian, erriko jende asko onetan konturatzen da: argiak salbatuko ba 'ditu ez dutela errege bearrrik beuren buruak salbatzeko eta ortik sortuko da iraultza berri bat: Frantzia'ko Iraultza. Giza-arrazoia bera da jainko. Erregearekin batera aundikiak eta eliza kendu gizartetik eta burgesak jaso aginpidera...

Bi gizaldi luzeeko edestia da eta bitartean Elizak zer jokabide duen ikusteko Latiegik, lenago esan degun bezala, bide zabal bat urratu digu Aita Santutik Aita Santura eta ortik irte-ten dute zenbait bidezear bi gizaldi oietan Elizan bertan izan diran ezbiderazioak ezagutzeko: Jansenikeria, Galikeria, Febronikeria, Josepekeria eta abarren okerkeriak; baita masolenak ere...

Garai naasi eta urduriak, gaur eguneko zenbait okerren sortzaille eta sustrai; baiña, garai auen eta aurrekoen berri beste iru liburuetan agintzen dizkigu Latiegi jaunak.

Eta, bukatzeko, ona berriro Latxaga'ren itzak:

"Lan ederra egin dezu; bikaiña; argiñen lana. Arriz-arri arreta aundiz, poliki eta dotore landutako arriz egiña; mamiz eta azalez lan bizi-egokia".

Artu liburua eta ao-gozatu patxara onean. Onenbestez aski dugu. Esaera zaarrak dionez: "gaizki esanak barkatu eta ondo esanak gogoan artu".

Anes ARRINDA



DESFASADOAK ETA BIBOTEAK

—Oiek dituk desfasados. Ez ditek Batuarik erabiltzen-da.

—Euskaraz ari diranei esateko itza al dek ori? Esan ezak on euskeraz. Oiek desfasados eta i fasean sartzeko oraindik.

—Desfasados zer dan edozeiñek ezagutzen dik.

—Erdaldunek baietz esatera ninjoan; baiña, ez zekiat erdaldunak eurak ere desfasados zer dan ulertzen ote duten...

—Ezetz? Des-fasados, fasetik pasiak. Orra gauza garbia.

—Eta, zer fase dek ori? Illargiak ere bere faseak eta bere aurpegiak ba dizkik: ilgora, ilbera, illargi berria, illargi betea eta tarteko beste guztiak. Noiz zegok illargia bere des-fasean...?

—Nik ori ez zekiat; baiña, persona bat desfasada noiz dagoen, ori bai bazekiat.

—Ori topikoren bat izango dek.

—Zer topiko gero! Des-fasados, fasetik kanpora.

—Modatik kanpora, alegia? Eta ire biboteak zer dituk fasados ala desfasados?

—Ni fasean nago.

—Ilgoran ala ilberan...? Illargi berrian ala illargi betean...? Orain ogeita amar urtetik gora, geure gurasoek izugarrizko ille-matasak zituzten sudurpean... Bizarra kentzeko tresna berriak sortu ziranean, bibotedunak desfasados gelditu ituan, muturrak garbi. Eta orain ogeita amar urtetik gora bere fasetik pasiak al dituk orain fasedunak...?

—Zergaitik ez...?

—Ilberan zaudetela, alegia...? Zuek bezela pentsatzen ez duan guztiak dituk zuentzako desfasados. Faseak eta modak sortu orduko aldatzen dituk. Moda-aparretan ibiltzea dek norberentzat bistosoa norbere burua agertzeko eta illargiaren antzera gora ta beera ibiltzeko... Orretarako oiñarri gutxi bear da.

—Zuek zerate oiñarri gabekoak. Oiñarri utsekoak.

—Zuek, berriz, fase billa atzeraka joan zerazte eta gizonak bere pentsakeran oiñarria bear dik eta ez bakarrik modan ibiltzeko asmoa. Fundamentu apur bat, edo funtsa fasadoak diotenez, oiñarri bezela... Nere amonak, sudurpean biboteak ezezik, bazuan funtsa ere bere kolkoan eta, badakik zer esaten zuan...?

—Neri ire amonaren esanak ajolik ez, didate sortzen.

—Ala ere esango diat zer zion: modak eta faseak, alegia, saku zaar bat dirala, goitik bezela azpitik ere zuloa duena: azpitik ateratako trapuak goitik sartu. Orra zer dan modan eta fasean egotea. Zuek orixe egin dezute: desfasatuta zeuden trapuak azpitik atera eta gaiñean ipiñi eta ori onartzen ez duen guztia desfasado bezela jo.

—Zuek ez dakizute gaurkotasunaren berririk. Arri biurtutako dinosaurio batzuek besterik ez zerate.

—Soñeko bat izan guztokoa eta illargiak in batera aldatzen ez ba'dezu, ori al da desfasados izatea? Emakume gazteak aldatzen dituzten euroen soñekoak goizetik gabera emeretzi aldiz, sakela bete diru kostata, ordea.

—Zuekin izketan egitea alperrikako lana dek, eta banoa zuetik.

—Faseak laister alda oi dituk. Moda ez dek sekulan geldi egoten eta zuen faseak buelta ematen asia dek. Agur, agur eta bueltara arte.

DIRU PALTSOAK

DIRU PALTSOAK

Oto kartzelan egona dogu eta an barruan egin ebazan berealdiko ezaupideak. Aietako bat zan Krispolo jauna.

Krispolok esku-beatzak ariñak oso: iñor konturatzeke ateratzen ebazan praka-poltxikoetatik bertan gordeta egozan diruak. Ura erreztasuna eskuetan. Zoragarri!

* * *

Goiz batean, Donostia'ko kai inguruan, orra or nun datorren Krispolo karrerako automobil gorri aundi batean.

—Kaixo, motel.

—Kaixo.

—Nundik nora, Oto?

—Emendik ara, Krispolo. Eta, i?

—Andik ona.

—Au dok kotxe ederra, Krispolo. Nun arrapatu dok?

—Arrapatu? Ez, mutil, neure diruekin ordaindu joak.

—Ire diruekin? Ez joat sinisten.

—Sinistu bearko, alan dok eta.

—Orduan, ori ala ba'da, diru paltsoekin ordaindu dok.

—Zoroa naizela usten al dok diru paltsoak arrapatzeko, ele...?

ARTZAINZA: Trikuarriak, arrespillak eta zut-arriak

Artzaintza aspaldikoa dogu gure artean (bost milla urtekoa gutxienez); baiña, gaur egun ez dau oraindik bere garrantzirik galdu.

Trikuarriak (dolmen), arrespillak (cromlech) eta zut-arriak artzaien lanak dira. Eneolitos edo Tupiki Arokoak dira: brontze garaikoak, alegia. Brontzea arria baiño gogorragoa da eta orregaitik gizonak arria itzi eta brontzeari eldu eutzon bere armak eta lanabesak egiteko. Tupiki edo brontze aroan gertatu zan, artzaien denboretan. Artzaintza sortuta gero.

Millaka urteetan zear gure aurrekoek basoetako piztiak eta abereak arrapatzen ebezan jateko eta bere gorputza jazteko. Gerora abereak arrapatu eta ezi egin ebezan (txakurra, ardia, auntza, beia, zaldia) bere probetxurako; orrela ez zuan basora eta mendira joan bearrik piztiak arrapatzeko, etxean eukazan abere orolik... Ordurarte eiztaria zan gizona eta eizetik bizi zan; gero artzai egin zan... baiña eizeari, ez dautzo sekulan itzi. Ez gaur bertan ere. Nere lagun batzuen baserrian, erritik oso urrun dagoena, beiak daukez ikullua bete, larrabeiak mendian eta ardiak; lau gizaseme dira eta lau eskopeta daukez, bakoitzentzako bat: semeentzako bi tirokoak eta aitarentzat eta osabarentzat, bost tirokoak...

* * *

Euskalduna artzai biurtu zanean, orduan asi zan batetik bestera bedar-billa, bere abereak aurretik ebazala. Ibilkera oietatik sartu ziran gure errira trikuarriak, arrespillak eta zut-arriak. Eiztari bakarrik zanean, kobeetan bizi zan eta leizetan bertan edo bere inguruan eortzen ebazan bere ildakoak. Gero, barriz, artzaintzari eldu eutzonean, bere bizi-tza mendi-garaietan igaro ten eban eta ain goeitan sortzen zitun ildakoak trikuarrietan eta arrespilletan. Trikuarrietan osorik eta egozan lez ipinten ebezan ildakoak; arrespilletan, berriz, lenengo erre eta gero errautsak arrespillen erdian egindako zulo batean sartu, lurrezko ontzietan eta ezer gabe ere bai.

Trikuarri eta arrespilletan gauzatxo asko arkitu dira: lurrezko ontzi-zatiak, ikatza, ezur erdi erreak, errizko tresnek, aizkora txiki-txikiak kutun bezala erabiltzekoak eta abar.

Oraingo artzaiek lengo artzaien tokietan bizi dira.

Toki berberetan. Joxe Miel Barandiaranek diñonez, bazan artzai-txabola bat (Aralarren uste dot) trikuarri baten gaiñean egina.

ARRINDA'TAR ANES

UNE, TINI...


Bakoitzarekiko bizigune ezbarदिनेz une bakoitzari bere alangoa dario, bizitza zear poz-atsegin edo, samिनेz zorituriko ainbat gertaera, ondorio.

Ordua ordu da, ta, minutua minutu... danontzako bardiña bere iraun-aldia ta, bizidun danok neurri beraz neurtzen gaitu leporatuz eriotzazko elburu larria.

Bai, lagun, zuk nik negar dagidan bitartean barre dagizu bizikiro zoriontsu, alai edo, alderantziz negar, nik barre egitean.

Une, tini..., Gure izate onen barruan... Zenbat eriotasunezko zauri ta bizigai, gure aldiberazko ibilizko munduan!

MUNIATEGI-TAR SABIN



DON JOXE MIEL BARANDIARAN GARAI BATEKO OROITZAPENAK

Arrinda'tar Anes

Primo de Rivera Jeneralaren agintaritzza gogorra 1929'an amaitu zan eta ondoren beste jeneral batena etorri zan, Berenger jaunarena, auteskundeak prestatzeko.

1931'ko Apirillean egin ziran Udaletxeetako ziñegotziak aukeratzeko. España osoan, Errepublikak aldekoak agertu ziran geien. Ori ikustean Alfonso XIII'garrenak, España'tik alde egin eta Erroma'ra erbestaratu zan.

Orrela, errez eta leun, pasa zan España Monarkiatik Errepublikara tirorik botatzeko. Apirillaren 14'ean sortu zan Errepublika España'n zear; baña Eibar'en, besperan; orregaitik izendatu zuten "Ciudad Ejemplar".

1930'reko Urrillean, Gazteiz'ko Seminario Nagusiari asiera emateko ospakizunean, Alfonso XIII agertu zan gure artera. Lenengo arriak ipintzea baiño geiago guztatzen zitzaiola egindakoak martxan jartzea, esan zigun.

Seminarioari 1930-31 ikastaroan, sei illebeta Errepublika etorri aurretik, eman zitzaion asiera. Ikastaro artan ezagutu nuen D. José Miguel Barandiaran ataundar apaiz txiki eta melarra, urdailletik gaizki zabillena. Elektroiak nundik nora jokatzen zuten aretxek erakutzi zigun.

Irakasketari buruzko aren eginkizuna, ordea, ez zan Fisia eta Kimiarekin agortzen. Ostegunero Historia de las Religiones izaten genduen ikasgai, eta atal orretan gogoko zitzaion (baita guri ere) Euskalerriko Erliijo Zaarraren sasi-jainkoen berri eman izatea: Mari'renak, koba-zuloetako aztikerienak eta abar.

"Sensim sine sensu" eta ustekabean, gure arbasoen aztarnabidean ipiñi ginduzen: bai leize-baztarretan astutakoenenak, bai euskaldunen buru-ganbarretan gordeta zeudenenenak ere. Bi bide daude aztarna oiek billatzeko: Arkeologi bidea eta Etnologi bidea. Bietatik abiatu ginduzen Ataun'go baserritar arek.

"Oñien bitartez ikasi bear da" esan oi zigun, eta, guretzako eredu, udara guztian mendirik mendi eta koba-zulotik koba-zulora ibilli oi zan. Gure mendietan asterako, Europa'n zear ere makiña bat pausu eman zitun, bere burua argitzen, eta besteen lanak ezagutzen...

Zoragarria zan arekin izketaldian jardutea; aldiko leio bat irikitzen zizun buruan, milla arazoeri buruzko leioak.

Leize-zuloetan gure arbasoek utzitako jan-ondokiñak, lanabesak, marrazki eta margoak, oiek danak, gure aurrekoen berri ematen digute eta oien billa saiatu zan gure begien aurrean.

Baña, D. Jose Migel'en garaiko euskaldunen bizi-eran eta beuroen buru-moldegietan, ainbat eta ainbat berri zeuden gordeta, gizaldietan zear, millaka eta millaka urteetan zear bildutakoak eta gureraño eldu ziranak. Oiek danak gaitzeko arriskuan zeudelako, eurak biltzen indar oraindik aundiagokin ekin zion.

Arrizko eta ezurrezko erreusak garrantzi aundia ba'dute Euskalerraren historia ezagutzeko, euskaldunen buruetan geratzen ziranak (baserrietan gizaldiz-gizaldi bildu eta gordeak), oietxek bai zutela benetako garrantzia. D. Jose Migel'en lan ori aukera aukerakoa izan da. Bera lan orretan asi zanean, baserrietan euren aurrekoekin etenak asita zeuden, baña arrobia or zegoen oraindik baserri askotan gordea.

Oiek danak gordetzen zitun kutxa, bizirik ziraun oraindik. Arrezkero izan da etenik. Jose Miel, ordea, baserri bateko semea izanik, egun batez, altxorra nun zegoen konturatu zan, eta bere etxetik ekin zion lanari. Bere etxetik eta bere erritik.

Baña, bilketa-lanak ez ziran bere etxean eta bere errian amaitu, Euskalerrri osora zabaldu zitun, eta, aberastasun oiek biltzen, iraun zuen eriotzararte.

Aren gureganako irakaskintza ez zan teori utsean gelditzen: lanean ipintzen ginduzen, ikerketak egiten: Gabonari buruzko oiturak; argiari, eguzkiari, illargiari eta suari buruzko itzak; sorgin-siniskeriak, ipuiak eta esaera zaarrak... Orra zenbat ikerketa-gai.

Gazteiz'ko Apaizgaitegian (orrela esaten giñon Seminarioari) seireun gazte bizi giñan Araba, Bizkaia eta Gipuzkoatik joanak. Toki berezia ikerketak egiteko eta egin-erazteko.

Gabonetan, opor-aldirako, galdera sail bat prestatzen zigun eta guk, talde-txo batek, apaizgaien artean zabaldu, Gabon-ondoren biltzeko. Orduan ikasi genduen enkesta bateri zenbatek erantzuten dion: EUNETIK amar edo amabi erantzun bildu ezker, zorionekoak giñan. Alaz ere, erantzun moltsu bat biltzen genduan Don Jose Migele'eri itzultzeko.

– Zur nola irauntzen dezu emen Seminarioan preso? Galdetu giñun bein.

– Udarán iru illebeta ditudalako mendian ibiltzeko.

Alaxe zan izan ere. Gogoratzen naiz udarako oporraldi batean Urkiola'n San Antonio'ri bederatzí urrena egiten ari giñala geure gurasoekin, nola jetxi giñan Atxarte inguruko koba-zulo batera, an Don José Migel zegoela jakin genduanean.

Leize-atakan topa genduen, lau korapillozko pañuelo zuria buruan, buzo zixinxamarra soñean, lurra galbaian astintzen, ezurtxo eta sukarrí zatien billa...

Eta zer esango degu Anuario de Eusko-Folklore oiei buruz?

1921'ean asi zitun argitaratzen. Urtean bat. Ikerketa guztien bilduma ziran gure gerra negargarria sortu zan arte. Lan orretan apaizak eta apaizgaiak lagundu zioten geien. Eta oiek or daude betirako galduko ziran siniste eta oituz-raz beterik. Gordeta zegoen altxorra, guztien eskuetan ipiñi zigun.

Seminario batean, urteetan zear, ikasi eta aztertu bear diran gaiak asko baiño geiago dira eta Don Jose Migele'n ikuspegia oso zan zabala, eta ez zan, iñolaz ere, Arkeologi eta Etnologian mugatzen.

Euskeraren arloan D. Manuel Lekuona zeukan bere alboan eta bien artean osatzen zuten Seminarioan Euskalerra'ri buruzko lanak. Oiek, ordea, euren-tzako arazoak ziran, baña ez benetako Seminario-lanak. Barandiaran erretore ordeko zan eta Lekuona prefekto; biak ziran irakasle. Nik aitaturutako ekiteak, oiek ordutik kanpora egitekoak ziran eta ez euren eginbear bereizia.

Mutillak lanerako presta zitezten aldizkari bateri asiera eman zion, GYMNASIUM izenekoa. Zacarías Martínez Núñez, agustindar jakintsua, zan Gazteiz-Elizbarrutiko Gotzaia: (Revista Bimensual de Iniciación Científico Literaria de los seminaristas de la Diócesis de Vitoria). Orrela dio izenburuaren ondoren. Eta gero: Año 1 Vitoria, Enero-Febrero de 1927. Num. 1.

D. Jose Migele'en izenik ez da bein ere agertuko, baña berak prestatutako apaizgaiek idatziko digute maixuaren agotik entzun-zutena.

Urtean sei ale. 1927'an asi eta 1932'ko udaran amaitu: Bost urte t'ardi: 34 aldizkari.

Lenengo alearen itz-aurreak, beste gauza askoren artean, au ere badio:

“No pretendemos ofrecer a los lectores una revista de altos vuelos, sino más bien brindar a nuestros queridos seminaristas con unas páginas familiares, donde empiecen ellos a concretar sus conceptos sobre las diversas materias que estudian”.

Gero datozte, lenengo alean, 80 orrialde. Ona zertzuk diran:

Erderaz:

El Método en las Ciencias. Egillea, Secundino de Rezola, dicácono. José Rezola, lenengo Eusko-Jaurlaritzaren ministrariaren anaia. De Historia de las Religiones. Egillea, Eulogio de Gorostiaga, dicácono. Oar batean onela dio: Barandiaran: Historia del Hombre Primitivo, en preparación. Sección Misional. Egillea, Angel Sagarmínaga, gerora España'ko Misio arazoetan buru izango zana.

Bigarren alean:

Un aspecto de la transición ideológica contemporánea. Egillea, Joaquín Goikoetxeaundia, apaizgaia. Apaizen artean oso ezaguna gaur egun. La Moral y la Religión. Egillea, Juan Bautista Otaegi apaizgaia.

Iruugarren alean:

El Criterio Teleológico en el conocimiento de Dios. Egillea, Jacinto de Elgarresta, apaizgaia. La Teosofía. Egillea, Pedro Anitua, apaizgaia, Gazteiz Elizbarrutiko Misioen buru izango zana. Dos lecciones de Geología y Prehistoria: 1. En el monte de Santa Cruz de Olarizu. 2. En las Conchas de Arganzón y en Iruña (Alava). Egillea, Casimiro Saralegi, apaizgaia. Gaur-egun naiko zarata atera du, bere garaiko Fanco aztertzen duen liburuakin.

Laugarren alean:

Valor de las Ideas Religiosas. Egillea, Bernardino G. de Albéniz, apaizgaia. La Irreligión y la Blasfemia. Egillea, Jesús Cerio, apaizgaia. La Escuela de Durkheim y la Religión. Egillea, Jesús Romero, apaizgaia. El Primer Obispo Japonés. Egillea, Roberto Aguirre, apaizgaia. Errenderi'ko erretorea izango

zana. Estudios del Hombre Primitivo en Saturrarán. En las cuevas de Arrigorrieta. Egillea, Ramón de Erce, apaizgaia, gero STV'koekin lan egiteko Manillas aldean ibilli zana gerra aurretik.

Bosgarren alean:

Notas criteriológicas. Orientaciones equivocadas. Egillea, Miguel de Urta-sun. Apuntes acerca de los Rotarios. Egillea, J. I. de Otaegi, apaizgaia.

Seigarrenean:

La Religión del Hombre Primitivo según los datos actuales. Egillea, Constantino Laskibar, apaizgaia. La Irreligión y la Blasfemia. Egillea, F. de Isasi, apaizgaia. San Juan de la Cruz. Doctor Místico. Egillea, Joaquín Goikoetxe-aundia, apaizgaia.

Auek izan dira 1927'garren urtean erderaz egindako lanen artean, batzuek.

Euskeraz egindakoak ogei lan dira.

Euskeraz: De Re Catechetica. Egillea, Patxi Iraeta. Atsegin goxua (olerkia). Egillea, Anixeto Zugazti, apaizgaia, gerora euskal-idazle jatorra. Pakea lurrean. Egillea, Anjel Albisu, apaizgaia, gero frankotarrek, apaiz zalarik, Errenteria'n eraikito zutena. Bere ikasketaren bosgarren urtean egindako lana da.

Bigarren alean:

Zertarako da Kirstau-ikasbidea? Egillea, Imanuel Madariaga, apaizgaia. Olerkia. Egillea, Anixeto Zugazti, apaizgaia. Apaizgaiaren ama. Egillea, Iñazio Larrañaga, apaizgaia.

Irugarren alean:

De re Catechetica. Egillea, Patxi Iraeta, apaizgaia. Olerkia. Egillea, Praisko Garmendia. Neure semearen eskuak. Egillea, L.k apaizgaia.

Laugarren alean:

Zergaitik sinisten dozu? Egillea, Lanziogo'tik. Maite izatearen indarra. Egillea, L.k. Olerkia. Egillea, Meliton Sarasua.

Bosgarren alean:

Maite izatearen indarra. L.K. Bideak Ikasten. Egillea, Martín Lekuona, D. Manuel'en anaia, Errenterian apaiz zegoela, Frakotarrek ilko zutena, Anjel albisu'rekin batera.

Seigarrenean:

De Re Catechetica. Egillea, L.k. Olerkia, Meliton Sarasua. Jesus'en jaiot-etxie. Egillea, L.I. Araba Menditik. Egillea, Patxi.

Apaizgaiek egindako aldezkaria zan; baña apaizgaien itzalean D. Jose Migel zebillen lanean, idazleak prestatzen; D. Manuel, berriz, euskera-gaie-tan.

Orrela iraun zuan 1932'an, udaran, D. Mateo Mujika'k ixil-arazi zuen arte. Baziran Eleizbarrutian orrelako lanak gogoko ez zituztenak eta auek jo zuten, bein eta berriz, Gotzaiarengana eta Gotzaia aien eskarietara makurtu egin zan.

Baña, Don Jose Migele'ek atera-bide bat billatu zuen eta IDEARIUM izene-ko beste aldizkaria sortu zuen, irakasleak idazteko apaizgaiantzat. Gure guzto-koa, ordea, GYMNASIUM zan, ez IDEARIUM eta onek ez zuen luzaropen aundirik izan.

GYMNASIUM'en agertu ziran lan sakonak, ez ziran berez sortu, perretxi-kuen antzera. Bazuten beuren arrazoi-bidea. Taldeak zeuzkan antolatuta gure

irakasleak jakintza-gaier buruzkoak eta talde oien kopuruari Laboratorios GYMNASIUM izena ipiñi zien. Lau taldeak onek ziran: Sección de Filosofía, Sección de Etnología Moderna, Sección de Psicología Colectiva eta Sección de Sociología. Talde bakoitzeko liburuskak bat argitaratu zuen 1930'ean eta liburuskak oiek prestatzeko itz-aurrean onela dio:

“Su finalidad es entrenar a los alumnos en funciones varias. En seguir de cerca el pensamiento filosófico y teológico contemporáneos. En conocer los motivos ideológicos, las nuevas fermentaciones sociales y los problemas de orden religioso y social de que se halla preñada la atmósfera moral de nuestro pueblo...”

A tales ensayos corresponden muchos artículos de nuestra revista Gimnasium, algunos de los cuales, recopilados en folletos vuelven a salir a la luz desde hoy”. Eta ordoren datoz lanak egin dituzten apaizgaien izenak: Ogeitabat izen, lenengoa Roberto Agirre eta aizkena Jose Zunzunegi, biak oso ezagunak gure artean. Danen ondoren, itz-aurrearen egilea: J.M. de B.

Orra zein gelditzen dan itzalean.

Filosofari buruz amar lan datoz. Ona danen zerrenda:

La Metafísica en las ciencias positivas.

La Filosofía y las Ciencias.

La Filosofía de las Ciencias.

Estructura de los cuerpos.

Valor del conocimiento humano.

Lo racional, lo irracional y lo supra-racional.

La racionalidad del mundo.

El mundo y su estructura teleológica.

El sentido de la vida.

La relatividad del tiempo.

Etnolojiari buruz, zazpi:

La Etnología y sus orientaciones.

Orientación y Método de la Etnología Moderna.

Factores de la vida étnica.

Los ciclos culturales y sus áreas.

Edad relativa de los ciclos culturales.

La mentalidad del hombre primitivo.

La idea de Dios y las instituciones religiosas en los pueblos primitivos.

Alkarteko Sikolojiari buruz, bederatz:

Las tendencias humanas en la vida colectiva.

El instinto gregario y la vida social.

Conservatismo y plasticidad.

La percepción como producto colectivo.

El influjo social en nuestra memoria.

La colectividad y nuestros estados afectivos.

Estudio psicológico del contacto de los pueblos.

Cómo se trasmite una cultura.

Desarrollo y decadencia de una cultura.

Soziolojiari buruz, amairu:
Morfología social.
Carácter y origen de las formas sociales.
Las instituciones.
La división del trabajo.
Función social de la propiedad.
La enseñanza y los derechos paternos.
La sociedad como estímulo.
La economía y la vida cultural.
La familia.
Nación y Estado.
El Estado y los individuos.
Relación entre la Religión, la Ciencia y el Arte.
Religión y Moral.

Lan oiek guztiak 1930'garren urtean argitaratu ziran; baña, aurretik egiñak zeuden. Eta, eskolako lanetatik aparte egiñak.

Emen ikusten degu zer mundu zabalean zebillen Seminarioko irakasle ataundarraren burua. Bere aizken urteetan bizirik ikusi deguna, aiz-zuloetatik irtegarabeko aguretxoa zirudian.

Azkorentzako orixe izan da Barandiaran'go Joxe Miel: sekula beste pentsamenturik izan ez duen agure paketsua; Prehistoriako laño-artean bizi izan dana... Ori, ordea, Don Jose Migele'ren gezurrezko irudia da.

Don Jose Migel de Barandiaran (aizkenean, Barandiarango Joxe Miel) kulturaren olatu guztien puntaren puntan, eta aparretan, bizi izan dan gizakia degu eta irudi ori itzaldu egin dala iruditzen zait gure errian.

Egia da Etnologi eta Arkeologi arloan Euskalerra'ri, bear bezela eskertu eziñeko mesedea egin diola bere bizitzan; baña, orrek ez du esan nai, bere "nirvana" orretan, bertan-goxo bizi izan zanik, bere barnean beste ardurarik izan ez ba'lu bezala.

Don Jose Migel eta Don Manuel'en babesean bizi izan giñan 1936'garren-go udarako oporaldietararte Gazteiz'ko Apaizgaitegian. Don Jose Migel'en talde auetatik kanpora, bazan Kardaberaz Akademia ere, euskera gure artean ikasi eta idazteko... Zenbat euskal-idazle sortu ziran Akademia artatik...Historia-taldea ere bagenduen D. Manuel'en estutik. Talde artakoa zan Andres Eli-seo Mañarikua, gerora Bizkaiko Cronista Oficial izendatuko zutena...

Gerra sortu zanean, orduantxe amaitu ziran gure ekintza guztiak: Don Jose Migel erbestera iges eginda, (orduan arrapatu izan ba'lute, gaur egun ez genduen bera gogoratzen, lanik izango) Don Manuel ere erbesteratua eta luzaroan izkutuan gordeta... Gu, berriz, apaizgaiok, bi fronteetan sakabanaturik...

Gero, arlosa aundi baten azpian zapaldurik... Urte asko pasa ondoren, agertu zan berriro D. Jose Migel gure artera eta ekin zion betiko lanari. Orain ez zuen apaizgairik inguruan; berak, ordea, laguntzailleak sortu zitun lan berezi ura aurera eraman aal izateko. Euskalerra osoa izan da bere zartzaroaren testigu eta lekuko eta gure maixuaren lan guztien kopurua argira emana ikusi degu. Artu dezala gure esker ona eta Zeruan bego.



**Jose Miel Barandiaran
betiko argira joan zaigu.**

**Anes eta Joxe Miel "Sara" etxean:
19-XIII-1970. Ataun-San Gregorio.**



SECCIÓN LITERARIA

Arantzazu

(Oroipenak)

<i>Aizkoñi-mendi, bizkar galantaz ta arkaitz zoñotzez erpiñal... Urbi-zelaia, ota loratsuz ta belar goxoz berdiñal... Bion ondoan Aloña-mendi, egutera-gain argia, txilar, ota-motx, aritz, pago ta elofi zuriz jantzial...</i>	<i>Ortxen zaude Zu, kabitxu ortan, Aitaren Uso laztana... Ortxen, Maria, Zeruko Etegin ta pekatarien Ama. Or zaude, Ama, aspertu gabe, guri begira zorutzen; gure miñentzat poz atsegiñak Jaunari beti eskatzen. Ona, ba, emen laveun semetxo Zu Eteginzat goratzen: zureak gera; ez utzi, afen, zure mendetik aldatzen.</i>
<i>Ortxe, Aloña'n, elofarantzán, usotxo batek jaría, ortxe, bai, dago euskuldun danok ain moite degun kabia.</i>	

Latiñean 5^{gn.} urteko.
PRAIXKO GARMENDIA
Gaintatufak.

1927-IV

D. Jose Migel'ek zuzendutako GYMNASIUM
aldizkarian ateratako olerkia. 1927-IV'an.
Praixko Garmendia 5'garren ikastaroan.



SECCION LITERARIA

Belen'go Artzaiak

<i>— Ofen alaiki, artzaiak, Nora zuazte? Afen, zer gergatutzen dan Esaiguzute. — • Alaitu gaitezen! Jayo da Belen'en Agindutako Mesias, Jesus Nazarens.</i>	<i>• Zeru etu munduaren Jaun Egilea Guregatican ofela Gizon sortzea Abere artean Estalpe batean!.. Gurtu ta gora dezagun Ara joatean!.</i>
<i>• Ez bildurtu, — esan digu Aingeru batek— Beti edef pozkatia Dakarkizutet: Zoaate Belen'a Aufik edefena An aurkituko dezute Askon etzana.</i>	<i>Artzai ta aingeruekin bat Orain eginik Danok abestu dezagun Biotz-batendik: • Aintza txit ugari Zeruan Jauna'ri Eta lufean pakea Gizon onari.</i>

Philosophia'n II urteko
MELITON SARASUA'k

1927'ko XII'an.

D. Jose Migel'ek zuzendutako GYMNASIUM
aldizkarian ateratako olerkia. 1927-XII'an.
Meliton Sarasua 7'garren ikastaroan.

ARAZOAK

DROGATUAK

Bide errezetara jarriak gaude... Nekearen etsai... Norbere burua ukatzea...? Alienazio bat... Alkoola, lizunkeria, droga... Irurak eskillera baten maillak...

—Droga itz ori ez al da modako gaia...? Ez ote da itz-utsa...? Mitoa...? Topikoa...?

—Droga-arazo ori askok uste daben baiño gauza larriagoa da. Marihuanakin ematen zaio asiera. Leenengo zigarrotxo bat. Merke. Oso merke. Erregalo ere bai, askotan. Baiña, erregalo merke orrek kakoa dakar ondoren...

—Zer kako...?

—Zera... proba ori bertan geldituko balitz, gaitz-erdi; marihuanak, ordea, eroina dakar eskutik...

—Ta orren txarra al da eroina...?

—Iru artu-aldi naikoak omen dira betirako oitura nekegarri orren menpean gelditzeko... Bein artara oitu ezkeru, galdua zaude betirako... Ondamendi onetan bere burua galdutako gazte baten itzak intzun ditzagun.

* * *

Juan dan Azaroan gertatua. Bere izena: Percy Patrik Pilon. Amazortzi urte bete-berriak. Tiroz bere burua garbituaurretik ona zer idatzi zuen:

"...Bateren batek drogarik eskeiñiko ba'lizu, erantzun beriala ezetz, nik jokatu nuen baiño gizonkiago jokatu dezazun... Nere ondamendia zuentzako salba-bide izan dedilla. Zuen artekorik ez dezala iñortxok ere nik ezagutu ta eraman dedan inpernurik ez ezagutu ez eraman..."

"Izango dituzute zuek ere, nik bezela, droga eskeiñiko dizuten «lagun maiteak»... Ez fia...! Gaur erregalo ba'da ere, laister asiko zaizute kobraketan. Merke oraindik ere. Geroxeago droga fuertegoa eskeiñiko dizute. Merke ura ere..."

"Baiña, droga oien menpean zuen buruak ikusiko dituztenean, orduan izango da zuen errukarri ... ! Marihuana eskeintzen dizun lagunak berberak eskeiñiko dizu eroina ere... Zertarako...? Zuri lapurretan egiteko: diruakin batera kenduko dizute bizia... Orixe nai dute droga eskeintzen dizuten orok. Ta au gogoan ondo artu...!"

* * *

Aurrerago onela dio:

"...droga oiek lausoa sortu didate nere gogapen maitekorren artean; nere ausardi ta gizatasuna erdibitu didate; droga aurretik ain maite nuen nere etxe-barne bizitza ondatu didate..."

"Drogak apurño batean zoriona ba dakarte ere, sekula akabatzen ez diran urte luze samiñak dituzte beren ondorenak..."

Azaroaren zortzian gertatu zan eriotza Joliet-en (Illinois: U.S.A.).

Bein drogara jarri ezkeru, drogadunen eskuetan zaude: zu larrutzea dute oiek asmo.

Ona zertzuk dakarzkina drogak berarekin batera: lan eta estudiorako gogoak kendu, edozertarako moteldu, alperkerira jo, gau ta egun droga billa... pakegabeko inpernurik nazkagarrienean gaztaroa alperrik erretzen...

Patarrari ta tabakoari ezezkoa ematen ikasi duten gazteak arrisku gutxiago omen dute droga-sareetan erortzeko... Etxeko giro ona galdu duten gazteak, berriz, arriskurik geien... Negozio itzala omen da drogaren merkatua. Dirua erruz. Ta, diruagaitik...?! Iru urte-barruan, gazte drogari emanak Alemanian amar aldiz geiago omen dira... Alemania ur daukagu: etxean bertan. Zur, ba.

ANES

ERIoTZA ETA ILLETAK



Erroma'ko katakunbak: Illobi bateko itzak.

TACCHI VENTURI, Pedro, "Historia de las Religiosas" T.II. Gustavo Gili S.S. Barcelona 1947, 163 orrialdean (eta ondorengoetan) onela dio:

"Ez dago Erroma'n apaizen kastarik, etxeko burua dalako famili bakoitzean apaiz-lanak egiten dituen". Eta, ondoren diona: "Focus Patrius, edo Etxeko Sutegia, zan etxe bakoitzeko Zaindaria eta etxe batek ez zuen aldame-nekoakin zer ikusirik arazo onetan..." Focus aretara eramaten zuten ezkonduetako etxekoandre berria; eta an, zere-moni baten bitartez, senitarte berrian sartzeko. Andik aurrera bere jainkoak etxe berriaren jainkoak izango ziran eta serbitzuan egon...

—Gure errian etxe bakoitzak famili bat edukitzen zuen.

—Ona aitatutako jaun orrek erakusten dizkigunak Erroma zaarrari buruz: 1/ Sukaldea da etxea zaintzen duena eta bera da etxeko eliza. 2/ Eliza orretako apaiz bakarra etxeko jauna da. 3/ Ara eramaten zuten etxekoandre berria ezkondu gero, elizkizun berrietara sartu zedin. 4/ Etxe berean zeuden bizidunak eta ildakoak; auek bazkarietan parte artzen zuten, baita eskeintzak jaso ere. 5/ Otsaillean, guraso eta seme-alabek, illen aldeko elizkizun bereziak egin bearra zeukaten. 6/ Illen aldeko elizkizunik aundiena Caena Novendialis (Apari Bederatziurrena) izaten zan.

—Eta, oiek danak gure artean ere egiten al ziran?

—BONIFACIO ETCHEGARAY. "Algunos Ritos Funerarios en el País Vasco". Eusko Ikaskuntza Sociedad de Estudios Vascos. San Sebastián 1928". Liburu orrek erakusten digu, xeetasun guztiekin, gauza auek nola betetzen

ziran Euskalerriko oituretan. Neuk ere badet "Euskalerrria eta Eriotza" liburua, Kardabera Bilduma 10, Tolosa. 1974. Bertan luze eta zabal erabiltzen ditut eriotzari buruzko arazo guztiak eta, emen, bi itzetan esango ditudanak.

—Erromatarrak etorri aurretik, zer?

—Egoitzak ziran leizeetan eortzen zituzten gorpuak; zeuden bezela, edo bestela, gorpuzki biguñak erreta. Gerora, artzaiek trikuarrietan, eta beste euskaldunek ildakoentzako bakarrik ziran kobeetan. Etxeak egiten asi ziranean, berriz, etxe barruan, etxeko istilla barruan, edo-ta, baratzetan. Gaur egun, baratzak etxe-ondoko ortuak dira; baña, garai batean, illerri. Bizien ondoan lurperatzen


zituzten ildakoak, beti alkarrekin bear zutelako.

—Lazkao'n Emapaundi'ko etxeko andre zaarrak esaten zigun 1930'garren urtearen inguruan, sukaldeko sua ez zala itzali bear, gauetz ildakoek bear zutelako. Errautsetan arrastoak ere uzten zituztela...

—Bai, ala zan eta orregaitik estaltzen zuten errautsekin, sua bizirik irauteko. Gauza asko aldatu zitun kristautasunak eleizeetan illerriak ipiñi zituenean. Etxe bakoitzari sepultura bat. Saldu ere, biak alkarrekin saltzen ziran, sepultura bakoitza etxearenak zirelako. Zergaitik eraman zitun sepulturak eleizetara? Kristau-eleizak Katakunbetan sortu ziran; an biltzen bait ziran Eukaristia ospatzera, martin famatuenen aldera gañetan. Gero, 313'garren urtean, kristau erasoetatik aske gartatu ziranean, euren elizak (Basilica) jaso zituzten martiri oien aldera gañetan eta bazuten tokia ere, martiriari jaiera zuenentzako illobiak gertatzeko. Eliza aiek sortzetik ziran illerri.

—Ez al ziran an beste illerriak ala?

—Erroma'n ez zan illeri bereizirik; nai zuenak nai zuen baratzen eortzi zezakean ildakoa; baña, Erroma'ren arriesitik kanpo eta Katakunba'k kanpoan zeuden; kristauek euren illerri biurtu zituzten. Eta, andik sortutako elizak ere berdin. Baila, emen etxeak sepultura zuen elizan eta bien artean lokarri Gorputz-bide bat, ama eta bere semearen arteko zillaren antzera. Anda-bide ere esaten zitzaion bide orreri eta bearrezkoa zan bide orretatik irten gabe, gorpua elizara eramatea. Baserrietara egin dituzten automobilentzako bide berriak galdu dute asiera-asierako usuario zaar



MARTIRIEN Sepultura gañeko BASILICA

ori. Beste usuario asko, geienak, Vaticano II Kontzilioaren ondoren galdu dira, XX'garren eunki onen erditik aurrera.

– Sepulturak ala galdu al dira?

— Benetako elizetako sepulturak Carlos III España'ko Erregeak galdu zitun, bertan gorpuak eortzea debekatu zue-
nean. Arrezkero, sepultura oiek itxurazkoak, besterik ez; baña, sepultura gañetan egiten ziranak, egiten ziran gero ere: argizarizko argiak, ogi eskeintzak, diru txanponak Erresponso-otoitzak ateratzeko... Oiek egiten ziran jaietako Meza Nagusian eta etxeoandreak egiten zitun. Basen-ira etxeoandre berri bat ezkondata etortzean, bi gauza egiten zion etxeoanda-ndreak: Bat sukaldean, burrunzalia eman eta bestea elizan, Meza Nagusikoan, bere lana erakutsiz. On-en berri elizako Erretore jaunak ematen zuen aurreko jaiegunean. Baña, Batikano ondoren Mezak arratsaldean ematen dira eta ez dago lengo amarretako Meza Nagusi ura eta apurka-apurka sepulturak gutxitzen joan dira. Azkenik, 1970'ean edo, banku berriak eliza osoan ipintzen asi ziran apaizek eta orretzek galdu zitun betirako elizetako sepulturak.

— Ez al zan bankurik elizetan ala?

— Bai, baziran aurreko aldean, gizonentzako; baña, elizaren zatirik aundienak ez zuen bankurik eta sepultura gañetan sillatxo berezi batzuek egon oi ziran sepulturaren jabearenak. An egoten ziran etxeoandreak beuren sepulturak gobernatzen, argiak pistuz, ogiak ipiñiz, erresponsoak ateraz... Silla aurrean zeuden piztu bearrezko ziran bildumenak eta argizariolak.

— Eta illeta-bazkariak zergaitik kendu zituzten?

– Illeta-bazkariak, erromatarren usuario, geure artean ere ondo sustraitu ziran. Asieran etxea zan elia, eta etxean egiten ziran illetak eta illetako bazkariak (esanda daukagu ildakoak ere parte artzen zutela janarietan). Bazkari oietan

agertzen zan etxejoauna apaizen antzeko. Elizetan ez ziran illetak erabat amaitzen. Elizakoa amaitu ondoren, segizioak (mindunak) irtetzen zuten bata bestearen ondoren, apaiza buru zutela. Eliza-atarian otoitz bat egin eta andik bazkaltzeko tokira, segizioa joaten zan lerrorik ausi gabe. Etxea gertu ba'zan, etxera, eta bestela, aukeratutako tokira. An etxejoaunak otoitz egiten zuen bazkal-aurretik eta ondoren. Orrela amaitzen ziran illetak.

– Nortzuk joaten ziran bazkaltzera?

– Senitartekoak eta auzokoak. Jende asko. Baserriak ondatzen ziran bein baño geiagotan; baña, alaz ere, naiago zuten ondamedia orrelako bearkizunari uko egin baño lenago. Gure en-ian agintariak, erriko eta elizako, debekatu an-en, bazkariak aurrera joan dira beti, Batikano II'garrena etorri dan arte. Orretzek eman die azkena geure illeta-bazkariari. Nola? Uztekabean. Leenago illetako meza amarretan izaten zan: Meza Nagusia eta naiko luzea. Andik irten eta bazkarira. Baña, gero illetak arratsaldean asi ziran, orduan ez zegoen bazkarietako aukerarik eta egokierarik... eta kito. Urte gutxietan usuario zaar guztiak ankazgora.



ALBISTEAK



SARA'ko ILLERRIA – "GAR-ate". IL ARRIAK

– Erromatarrentzat etxe bakoitza eliza bat al zan?
 – Bai eta euskaldunentzako ere almoduz izan da beti etxea. Bera gauzarik sakratuena, gizakien eta askatasun guztien babesleku eta aterpe. Ez zeukan inork eskubiderik etxe batean sartzeko bere nagusiaren baimenik gabe... 1936'garren urteko Abenduaren 29 erre zan Etxorroi, Olaberri'ko baserria, Lazkao'ren mugan. Etxe bikoitza zan eta tellatutik gora zeukan orma lodi bat eta arreri esker ez zan bigarren etxearen zatirik erre. Eta orixe azpimarratzen zuten an ibilli ziranak. Baña, paret ori ez zuten suaren salbagarrirako egin, bi etxeak bereizteko baizik. Asieran, biak ziran bi etxe eta bi eliza; orregaitik zeuden alkarrengandik barezita. Bi etxe, bi eliza, bi apaiz, bi elizkizun eta bi fami-bakoitza bere aurrekoen elizan... Oiek burutik aide egin-da zeuden; baña, etxeak erakusten zigun burutik aide egin-dakoak zertzuk ziran...
 – Gaurko etxeak erlauntzak ematen dute...
 – Gauzak zearo aldatu dira; baña, eunki asko zear, etxe-ak bakarka zeuden eta famili bakar batenak ziran. Senitar-teko guztiak izango zuten beti toki bat etxean bezela sepul-turan ere... Guztientzako segurantzi eta guztientzako elei-za... Biziak eta illak alkarrekin guztian lokarri zan etxe berean...

– Eta, maiorazgoak?
 – Etxea zaintzeko eta etxea gizaldietan zear luzatzeko zan maioraz-go. Ori zan bere eginkizunik latzena. Orregaitik, gurasoengandik eskubi-deak artzen zituenean, une artako lorrik aztune-na, ildakoen aide elizki-zunak egin-araztea izaten zan... Illetak egin, bazka-ri ta guzti, sepultura gor-de, urtebetzeak zaindu eta etenik gabe eskeint-zak egin ildakoen alde. Ildakoak gurtu eta pozik eduki, etxeko etsai biurtu ez zitezen...
 – Nundik sartu ziran oitu-ra oiek gure artean?
 – Berrero esango degu, Erroma'k zituela oitura eta siniskeri oiek eta geu-re artekoekin ongi etorri-

ko ziran, era orretara guztiak onartzeko... Bear ba'da oitu-ra erromatar oiek, kristau izan aurretik ere artuta izango zituzten euskaldunek. Dana dala, kristaua munduan bizi da, (Erroma'n bereiziki) eta munduan bizitzeko munduko oitu-rak artzen ditu bere fede edo moralaren aurka ez diranak. Eta, orixe egiten du mundu zabal osoan... Emen erromata-rrek ekarritako zenbait oitura artuko zituzten. Ori argi asko ikusten degu. Gaur egun, arlo onetan, beste askoetan beze-la, etena eginda dago. Zearoko etena. Baña, gu oraindik lantxo onetan, orduko gauzekin gabiltza.

– Kanpotik artzen al dituguz oiturak ala?
 – Guk danetatik artu izan degu beti; baña, gauzeri geure kutsua eta ikutua emanda gero. Bein artutako oiturari eus-ten, zintzo iraun degu gizaldi eta millaka urteetan zear. Ori izan omen da euskaldunen bereiztasunik argiena. Europa'n erri zaarrik ba'da, oitura zaarrak... Ez gera bakardadean bizi izan. Europa'ko erriekin izan dituguz ar-emanak eten gabe... Eutsi diogu bide orreri; baña, bereiztasunik galtze-ke.

ARRINDA'TAR ANES.



IL-KAJA BAT Erroma'n.

ERIOZ-DANTZA BILDURGARRIA

Amaika inpernu ba omen dituzte drogazaleak...!

Kartzela-inpernu.

Emagaldukeriaren inpernu.

Salatarien inpernu.

Erremediogabeko gaxoaren ospital-inpernu.

Norbere burua xistenaz apurtzen dituztenen inpernu.

Maitasun-eziñaren inpernu.

Eta danen azpitik, drogari zor zaion serbitzu-inpernu: onek irteera bakarra du, utsa, ezerreza, norbere buruaren desegitea, aizken-aizkeneko ezbear guzien maillan...

* * *

Inpernu oien mailla guztiak jeizten dituzte drogazaleak.

Banan-banan eta ariñ-ariñ.

Mailla guzti oiek berriro, bere oiñez, igotzeko zeinik izango du indar...?

* * *

Drogaren lenengo okerra, zorabiatzeko bildurra biotzean sortzea da.

Zeren bildur? Droga-ezaren bildur.

Bildur orrek estutzen dio biotza drogazaleari.

Nun eta nola droga billatu...?

Ta, gero, zer?

Lapurretan ekin, lotsarik gabe;

erailketan, bear bada,

eta ala gertaiko balitz.

Ondoren, kartzela.

Ta, gero, zer?

Neure gorputzarekin merkatu egiñ, lotzakizunik gabe.

Neure aragia saldu diru-paperetan.

Ta, gero, zer?

Lagun-urkoa salatu bear bada,

droga ematekotan,

drogaren truke.

Ta, gero, zer?

Zorabioa, kirio-naaste,

gaixotasunak, ospitala.

Ta, gero, zer?

Gero eta areago neure burua apurtu

eta birrindu.

Ta, gero, zer?

Maitasuna saldu, aztu,

biotza legortu,

anima uztu,

borondatea galdu...

Ta, gero, zer?

Aizken maillara eldu:

lurrean loietan etzanda,

drogaren egarritan,

amesetan,

gose amorratu batean...

Jostorraz-akuilluaren zai,

zorabiozko bildur

eta ikara utsetan.

Beerago eziñ.

Lur-jotago eziñ.

Eriotz muzu-luzea zai.

Gizona, Jainkoa'ren seme,

munduaren errege,

txerrikumeak baino areago,

lokatzetan leporaño,

ar edo eme

naasian,

aragi illun-orixka,

zuloz zauritua,

zornaz betea...

* * *

Orrek zer-ikusi gutxi

du poesiakin.

Gaitz utsa; ezer onik ez.

Eriotz-dantza zorabioa.

ANES

JAKIN-EZA

Geure baratzen, zugatz andian
abar artian ezkutauta
bere kabia, udabarrian,
egin dau txori bizkortuak.

Birigarrua, geure laguna,
geure malluki —zaintzen daunak.
Marraskilluak, geure areyuak
jan ta garbitu landar danak.

Lau txorikume dagoz abian,

lumaz estaltzen egotxuak.

Lazter, bai, Lazter, andiak einda
abia itxita, juango dira.

Astea igaro. Mundua ikusten
pozik juan dira txoritxuak.
Abia utsik. Eztakar amak
iñorentzako janaria...

¿Ba dakizue ze ikusi dodan
geure auzo igertegian?

Birigartxua ilda, itota.
Lenengo egazka, bertan jausita,
jakin-eziñaz gaixiotxua!

* * *

Euzko gaztedi! Ba zuaz azken...

¿nori jaramon egin biar?

Gaztia zara. i0i, jakin-eza!

Ezta zerua igertegia.

UTARSUS

~

ERRAMU ERENOTZA

Erramu edo ereñotza misterioz inguratutako zugaitza egu.

Nundik datorkio misterio ori? Bere erriak iraunkorrak dialako...? Besteak ez bezelako sustantziak dituztelako orriiek...? Dana dala, basarri askok erramu-zugaitza dute etxetarian.

SANTIMAMIÑE

Bizkaiko koba ospetsua.

Leize barruan daude orain amar milla urtetik gorako marrazkiak. Aien aurrean egiten omen zituzten gure arbasoak eren azikeri ta sorginkeriak...

Santimamiñe leizeko mendia ereñotzez josia dago.

Erramua bazter guzietan ta ereñotzarekin batera esaera zaarrak sorgiñez beteak... Koba-barneko dibujoak, sorgiñak ta ereñotza, orra iru gauza alkarrekin Santimamiñen...

Mendi gaillurrean San Migelen ermita. Beerago, berriz, Santimamiñena.

Santimamiñe edo San Mames:

"Sanmames bart ein dot ames;

ona bada bion partez;

txarra bada, bijoa aldrebes..."

SANJUANAK

Badute sanjuanak gure antxiñako eguzkiarenganako oituekin zer ikusirik...

Sanjuanak... suak... lorak... lizarra... goizeko intza... sorginkeriak... Ezin zeikean erramurik palta:

"San Juan gabean, etxe atarian egiten dan suan, errtzen dira aurreko urtean bedeinkatutako erramuak..."

"Erramu egunaren bezperan erretzen dira erramu zaarrak. Ori, San Juan suak aurreratzea dala esan oi dute zarrak..."

EKAITZAK ETA TXIMISTAK

Tximistan kontrakoak arrizko aizkorak ziran koba-zuloean euskalduna bizi zan garaian. Gaur-egun aizkora oiek urnizkoak ditugu...

Baiña, aozkorarekin batera baita erramua ere tximist eta ekaitzen kontrakoa omen da:

"Ekaitza sortzen danean, bi erramu orriekin gurutze bat gifi eta bular gaiñean jarri..."

"Erramu bedeinkatua zapaian edo tximiñi atzean gordezen da. Ekaitza sortzen danean, aldi bakoitzean, pittin bat erre bear da..."

"Erramu bedeinkatua, ekaitz egunetan erretzeko, gorde oi

da; ta, erretzean, garrrik ateratzeke, erre bear da. Orretarako su-autza botatzen zaio gañera, estaltzeko..."

SORGIN ETA GAITZEN KONTRA

"Etxeko leioetan erramu gurutze txikiak ikusten dira, sorgiñen kontrakoak..."

"Gaitzetatik libratzeko gurutze txuriak (erramuzkoak) Jartzen dituzte leio ta ateetan..."

Etxeak eta soroak ere zaintzen ditu erramuak. Bertatik sorgiñak alderazi ere. Sanjuan suak bezelaxe. Sororik soro ibilli izan oi gera, umeak giñala, sorgiñak uxatzen sanjuan suakin:

"Txarrak kanpora;

onak barrura... !"

Gure Euskalerra zaarrean ez da erramuzko gurutzerik palta izan soro bazterretan, sorgifi, ekaitz, tximista ta beste gaitz guztietatik libratzeko...

ERRAMU EGUNA

Ereñotza erramu biurtu zan.

Jentillen ereñotza bataiatu egin zuten, ta orreri ezkerrek dirau.

Arrezkero, Erramu Eguneko ereñotzak erabiltzen dira bai leio, bai ate, bai ikullu, bai etxe, bai baratz, bai soroak bedeinkatzeko ta gaitzetik libratzeko...

Leio ta ateetan jartzen dituzte.

Ikuilluko atean alkarrekin daude erramu bedeinkatua eta eguzki-fora...

"Erramu Egunean gurutze txiki mordoixkak eraman oi dira eleizara bedeinkatzeko. Gurutz oien egurra saratzezkoa izaten da. Baiña gurutzean erramu ostoak jarri bear dira..."

BESTE ZENBAIT GAUZA

"011alokak, txitoak okerrik gabe atera ditzan, arrautz azpian bi erramu osto jarri bear dira..."

"Medikuak agintzen duten botikekin erramu Egunean, etxeari buelta bat emateko oitura da, eleizean bedeinkatutako erramuakin..."

"Ildakoak, erramu ostoak dituan zapi zuri batekin estali bear dira gerriraño".

Etxeari tellatu ematean, monttorra erramuakin egiñ oi zan.

ANES (1970)

ERROMA ETA EUSKAL KULTURA

KULTURA

— Euskaldunek Pirenee mendietan, Naparroa'ko ifaraldean. Bizkaia n eta Gipuzkoa'n, bizi izan ziran bizi-bide onez eta euren nortasunik batere galdu gabe; baña Araba eta Naparroa'ko egoaldeetan ez ziran gauzak berdein gertatu... Eraso aundiagoak jaso zituzten bai erromatarren aldetik eta baita indoeuropeotan-en aldetik ere. Auek. erri osoak etorri ziran guregana emen bertan gelditzeko asmo sendoakin: en-omata-rrek. ordea. ez ziran orrela erri osoak etorri, gudari, merkata-ri eta funtzionariak baizik.

— Baña, euskaldunek parte artu zuten erromatarren burruketan...

— Bai, Sei Gudaroste bereziak (Cohorte Miliaria Equitata), milla gudari bakoitza, izan genduzen eun urtez baiño luzaroago... Baita Sertorio'ren aide jarri ere onek Pompeyo'-rekin izan zuen burruka artan. Sertorio'k galdu eta galtze orren ondorioa izan zan Pompeyo'k Kalagurris erretzea 72 urte Jesus jaio aurretik. Arlosa baten ikusi degu nola kalagurritar batch bere burua iltzen duen, Sertorio il ondoren. Kalagurris erretzea Pompeyo ren Metelo jeneralak egin zuan.

— Lugdunum Convenarum ere burruka orren ondorena izango zan.

— Pompeyo'k berak bildu zitun gaztelu orretan (gaur egun St. Bertrand de Comminges) eta bere landatan, Pirenee gallurrean arapatu zitun Sertorio aldeko euskaldun guztiak. Lenago ere esanda daukagu mendiak erriak bereisten ditula eta banatzen: artzaiak. ordca, batu egiten ditu. Pirenee mendiak ere berdin: beti batu izan ditu bi aldeetako euskaldunak. Banaketa Erroma'k egin zuan, bien arteko muga Pirenee mendian gallurrez-gallur ipiñi zuen egunean...

— Urte askoz berandugo, berdin egin zuan Napoleon'ek.

— Bai, baña, erromatarrek ez ziran lenengo zatiketa orrekin baretu eta beste bat egin zuen egoaldeko euskaldunekin: Naparroa eta Gipuzkoa (Vascones edo vasconizatuak) Zaragoza'ra eta Araba Bizkaia'rekin, Cluny'ra (Burgos'era). Eta zatiketa au dirau oraindik Elizan: Naparroa eta Gipuzkoa Zaragoza'ra eta Bizkaia eta Araba, Burgos'era. Bi Gongotzai edo Arzobispo euskaldunentzat: Bata Zaragoza'koa eta beslea Burgos'koa. Iruña'n bearko luke euskaldun guztien Gongotzaia.

— Etsaia garaitzeko, lenengo zaititu.

Reconstrucción de volúmenes de la villa romana de Almenra de Adaja (Valladolid), según Cruz Fernández Castro.

— BASERRI edo BASETXE (ATALAK). LIEDENA (NAPARRO)

Plano parcial de las edificaciones de la villa romana de Liédena (Nay.) según Taracena.

— Orixe egiten zuen Erroma'k zatitu eta berarekin geiago low; orretarako izendatzen zituen Cives Romani, abantalla gurtiekin. Dana dala, auxe eduki bear da begien aurrean, gauzy bat dala erromatarren bizitza ofiziala, zergak ordaintzea... eta beste hat erriak segi zezakean bizitza, oitura, erlijioa eta abar.

Fundus eta Ager

— Nekazaritza arloan, Erroma'k berrikuntza bat darama Eruopa'ko baztarretara Fundus eta Ager auekin eta, bereizki, Ebro-ballara eta here ingumarietara.

— Eta. zer da Fundus bat?

— Lur eta etxe biak alkarrekin, nekazaritza aurrera eramateko. Ori zan oraingo "inversio" baten antzeko. Fundus batek nagusi bat du aren jabe. Arazo onen asieran, Erroma'ko jende aberatsak, euren diruak zaintzeko, lurrak erosten zituzten eta erdian eurentzako etxea jaso eta langilleentzako etxetxo batzuek. Geienetan nagusia Erroma'n bizi izaten zan: beste batzuetan, berriz, "Villa" ere esaten zitzaion, jauregi antzeko Fundus orren baserri-etxeari. Lurrak etxerik ez zuenean, orduan, Ager esaten zitzaion.

— Nolako lurrak bear ziran Fundus bat osatzeko?

— Garia ercitzeko zati bat, maztegiak ardoa ateratzeko, olio sortzeko arboledia, belartegiak. mendiak, iturriak eta errekek, bide zabal baten ondoan eta uri bat gertuan, emaitzak saltzeko... Nagusiaren etxean ura ugari eta pizsina beroak (terma), arkupe edenak, danetariko gela sailla. Dei Manes (Etxeko Jainkoak) gurtzeko kapera batekin...

— Zer neurri zeukaten Fundus oiek?

— Frantzai eta Akitania'n 10 milloi metrotik 15'rekoak izaten ziran gutxi gora-beera (1.000 ektareatik 1.500'era). Naparroa'n txikiagoak: 500.000 millatik milloira metrokoak. Hispania'ko egoaldean oso aundiak eta itxuragabeak ziran (latifundio): eta orrela gizaldietan zear iraun dutenak. Naparro eta Araba'n Fundus oietatik sortu ziran ainbat erri txiki.

— Nolakoak ziran nagusiaren etxeak?

— Arri ederrez egiñak, mannolez jantziak, margoak eta mosaikoak lur-gañean eta ormeetan... Etxe zoragarriak, gure euskaldunen borda edo txabolekin konparatzeko. beintzat. Baña, nagusiaren etxeakin ez ziran bearkizunak amaitzen; Fundos batean langille asko ziran bearezko: nekazariak, olagizon eta errementariak, buztin-moldatzal leak, artzai eta unai, uraren zaindaria. baso-gizonak, serbizari eta morroi... Zer, ez? Oien danentzako etxeak inguruan zeuden. korta, ikullu, labe eta abar bezela. Mundu oso bat sortzen zan Fundos baten alboan.

Ebro-ballara ez zan txarra izango orretarako.

— Oso ona: lur sakonak eta ura ugari... Erromatarrek eka-rritako goldeak, oraindik orain, XX'garren gizaldiaren asieran, milloi bat baño geiago zeuden España'ko nekazaritzan... Gure artean, goldearen ordez, laiak; alert golderik ez zan sartu Bizkai eta Gipuzko baserrietan. Emen, laiatik alduzkako goldera (Bravante) salto egin dute. Alaz ere, arazo auetan erromatarren ekintzak izugarritzakoak izan ziran bertako jendearentzat.

— XX'garren eunki onen asieran ez dago Errioxa'ko errietan tolarre gabeko etxerik.

— Tolarea. kupelak... maastiak eta mastiko matsa ardo biurtzeko aalmena. Baña, 1959'an, Naparroa'ko Funes errian, arlo onetan, sekulako aurkitzeak egin dituzte: 700 laukiko metro-tokiak eta bertan ardoa egiteko bear diran tolarre. matsa



Kulturureu eutsigurri.

zapaltzeko lau gela, upelentzako lekuak... Zazpi metro zabal eta eun luze edo orren antzeko lantegi bat. Bi urrezko diru ere topa dituzte: bat Domiciano'rena (76'garren urtekoa) eta beste Adriano'rena (1'engo eunkiaren zearrekoa). Diru oiek esaten digute noizkoa zan ardotegei on.

Baña, gure baserritar eta artzaiek Ebro'tik oso urruti zeuden.

— Alaz ere, erromatarrek ekarrirako ardo-kultura ori, sagardo-kultura biurtu zuten eta ez da egon gure artean tolaire eta kupelik gabeko itxurazko baserririk... Gauzak bakarrik ez ziguten erekutsi; baita izenak eurak ere, "tolare" eta "kupela" latinezko berbat bait dira biak.

EUSKERA

— Latiñez "torcular" eta guk "tolare" biurtu degu. "Kupela" latinez Cupa-cupella esaten da. Cupellak Cupa txikia esan nai du eta guk Kupela Cupa aundia egin degu. Itz oieri geure ikutua eman diegu; baña, berez, latinak dira. Gure artzaiek kultura emen bertan mugatua zegoen Pirinee inguruan; erromatarrena, ordea, Mediterraneo-ertz guztietatik zetorren: Asia, Afrika eta Europa tartean zirela. Kultura-aberastasun aren aurrean bazuten zer ikasi gure orduko arbasoek. Kulturaren agerpen bakoitza bere izen bakoitzekin etorri zan eta, bi mila urte pasata gero ere, izen oiek diraute orduan esaten ziran moduan; naiz-eta latina bera aspaldian ilda egon.

— Ori nun agertzen da?

— Esate baterako, guk Porru esaten degu, aiek Porrum eta erderaz Puerro. Guk Kipula, aiek Kepul-la, erderaz Cebolla. Guk Piperra, aiek Piper, erderaz Pimiento. Baba, Faba eta haba. Bararruna = Erromatarren baba. Piku, Fikum, Higo.

Kereiza, Kerasum, Cereza. Oliao, Oleum, Aceite. Mertzika, Persika, Melocotón. Sekale, Secale, Centeno. Marrubi, Marrubium = Fresa silvestre. Gorpua eta Gorputza, Corpus, Cuerpo. Soin eta soñeko euskera utsak dira. Erdera latiniaren semea da; baña, euskerak obeto gordetzen ditu latinezko itzak erderak baiño.

— Animalien arteko itzak Zaldi eta Asto ez dira latina; Zamari, bai (Sagmarium = animal que lleva albarda para carga), erderaz, Mula. Antzar, Anser, Ganso. Aate, Anate, Pato. Aragi, Aarikitik dator, txerriki txerriki bezela. Lukainka, Likanica, Longaniza. Sukaldean: Sartagi eta Sartain, Sartago, Sartén. Katillu, Catillum, Platillo: (esan-naia aldatu diogu). Galdara, Caldaria, Caldera. Lapiko, Lapis, Puchero... Bañan sukaldeko ekintzak euskeraz diraute: egosi, erre, irakin; baita zuku, gatz, ardo, sagardo, esne, ur, ogi, opil, ore, oremai, gazte, gaztanbera, ezti, erle, erlauntz, abaraska eta abar.

— Eta, jantzieta?

— Zerki berriak agertzen dira: Praka, Braka, Pantalones. Sakela, Saccela (Sakel-la), Bolsillo. Kaltza (kaltzer-

di), Calceus, Zapato. Matassa, Mataxa, Hilo. Gona, Gonna, Falda. Goru, Colus, Rueca. Titare, Digitale, Dedal... Liñu (liñazi), Linum, Lino. Istupa, Stoppa, Estopa. Lixuba, Lixivium, Lejía... Ingude, Incudis, Yunque. Mallua, Mal-leum, Martillo. Aingura, Ancora, Ancla. Katea, Catena, Cadena. Errota, Rota, Rueda...

— Eta, etxegintzan?

— Etxegintzan, beste kultura gaietan bezela, gorengoan mailletan ebiltzen erromatarek; gu, berriz, txabol, borda eta leize-zuloak ugari eta andik irten eziñik. Ona itz batzuek; Gaztelu, Castel-lum, Castillo. Dorre, Turrís, Torre. Gela, Cel-la, Celda. Tella, Tegula, Teja. Tellatu, Tegulatum, Tejado... Baña, etxeko gorabeerak euskera utsez diraute: sua, sutegia, sutautsa, sukalde, ikatz, egur, zuzi, zura, gar, txingar, txinar...

— Eta beste-kultura agerpenik?

— Berriak diranak Buren izenekin datorte eta ekintza berriak sort-arazten diturte etxegintzan bezela, arrobi lanetan, ermentari eta arostegetan, burtigintzan, mosaikogintzan, margolaritzan eta abar. Soñeko, moda berriak eta gai berriak... Tresnerian ere berdin. Nekazaritzan tramankulu berriak eta ematiza berriak... Dana zan berri. Bideak zer esanik ez: lengo bidetxur eta gurdi-bideak zabaldu ziturten, sustraletatik berrituz, sendotuz, zuzenduz, malkarrak legunduz, mendiak jetxiz eta ibarretan zubiak jasoz... Euskaldun artzaiek, begiak zabal-zabalik, kultura agerpenezko egin zuten Bizkai eta Gipuzkoa'ko biotza; alaz ere, kultura orren aztarnak aurkitzen dituguz aizken-muturreko mendietan ere... Ez gera iñorekin ar-emanik izangabeko erri basati bat izan. Kultura-gaiak artu ditugu; baña, beti, kultura orreri geure ikutua emanez...

ARRINDA'TAR ANES

ERROMA'TIK GORBACHOB ETA JOAN PAULO II

"Eresia da nere bizirako eutsigarri bat; entzuten dedan bakoitzeko, otoitz egiteko gogoia sortzen zait eta Jainkoarengan urbil nauela nabaritzen det nere barnean." Franzisko Asis'tarraren itzak dirudite; baiña, Gorbachob'enak dira, naiz-eta aldi berezietan bere burua ateo bezala agertu.

Dana dala eta dena den, gauza ageria da Gorbachob batiatutako kristau dala eta badiuela ama bat bere aide otoitz egiten diarduena errixka berean.

* * *

Joan Paulo II'arekin egon-berria da, 80 minutuz alkarrekin. Amaitzerakoan, Aitasantuarekin bakarka egon nai zuela adierazi zuan. Eta, orrela, 5 minutuz egon ziran biak bakarrik ixilleko autumutuetan.



Gorbachob eta Aitasantua alkarrekin 1989'ko Abenduaren 1'ean Vaticano'ko egoitzan.

Zer esan zioten alkarri? Zer zeukan Gorbachob'ek Aitasantuari bakarka esatekorik? Aitortu egin ote zan? Bere bizitzako pekatuen barkapena eskatu ote zion? Bataiatua izanik, Aitortzako sakramentua artzeko gai bazan. Alkarren arteko ixilleko eskutua.

Garai batean Stalin'eri Erroma'ko Aitasantua aitau ziotenean, "Zenbat soldatu eta gudaroste ditu?" galdetu omen zuan bere burua arro jasorik... Nor naizela usten dezute orrelako txiro-eskale batekin ni autuetan asteko?

Egun auetan aldaketa ederra sortu da Historiak daraman zuzenbidean: Stalin-en ondorengoak Aitasantuari Erroma'n bisita egin dio eta gainera, Errusia ikustera joateko konbite egin... Eta on asko ez dala, begira zer esan dion: —"Badakigu erlijio-arazoetan munduan Agintaritzarik aundiena duan gizonarekin ari gerala eta, orrezaz gain, eslabiarra dala."

Polako izatea bota izan oi diote Joan Paulo'ri aurpegira, okerra ba'litz bezala. Bear ba'da, Gorbachob'en itzetan, orrexek laguntzen dio Errusia'rekiko arreman bereizi auetan.

* * *

Errusia eta Komunismoaren ordua jotzen ari ote da Europa'n? Ikustaldi onen ondoren, URSS eta Vaticano arteko diplomazi-arazoak asiko dira bereala.

Vaticano'ko Laterria ezereztu bear dala esaten duten katolikoak badira gaur egun. Laterritxo bat edukitzeak, ordea, Aitasantuari eskuak libre usten dizkio onelako lanetarako; beste baten mendean egoteak, lan auetarako, eragozpenak besterik ez lioke sortuko.

* * *

Billera bukatu zutenean, onela zion Joan Paulo II'garrenak:

— "Itxaropenez betetako azia izan zaigu alkarrizketa au".

Ez ziran makalagoak Gorbachob'en ateraldiak:

GIZARTEA

— "Erljio desberdiñetako gizakumeak bizi dira gure Errian: kristauak, musulmanak, judutarrak, budistak eta abar. Oiek danak beuroen erlijioak bizi izateko eskubideak badituzte eta laister, legez, emango diegu orretarako bear duten askatasuna."

72 urteetan zear egon dira URSS eta Eliza iñungo arremarik gabe eta 1989'ko Abenduaren 1'ean eten zan aldi ori.

Datorren udaberrian joango omen da Joan Paulo Errusia'ra bere nai biziena betetzera. Gorbachob'ek, berriz, bete du Berea: "naia, billatua eta eskatua" izan da bisita.

Gorbachob'ek bere "perestroika" demokrazi-asmoa aurrera eramaten, eragozpenak eta ostopoak billatzen ditu bere errian, espiritu zaar eta txarrekoen artean eta ezin da ariñago ibilli... Oietxek Aitasantuak jakitea, zan bere gogo-naia.

Elmuga lortu du Erroma'n eta une au izango omen da, berak dionez:

— "Istoriaren aldi barri baten asiera."

Aitasantuak errusiarren eran asi omen zuan bere mintzaldia. "Azkenean, orratio, alkartu gera eta alkarrekin mintzatzerik izan degu." Erantzun zion Gorbachob'ek; Joan

Paulok zera esan zionean: "Aitasantuaren etxea erri guztien ordezkarien etxea da; orregaitik da emen onartua Gorbachob jauna."

Luzaroan egon ziran alkarri eskuak emanda. "Gure arteko arremanetan auxe da unerik garrantzitsuena" zion Joan Paulo'k. Eta, Gorbachob'ek erantzun: "Atsegin zait oso alkarrengandik ain gertu egotea, ekintza bereziak alkarrekin aurrera eramane aal izateko bai URSS'ek eta bai Aulki Santuak."



Aitasuntua Gorbachob'en Reixa emazteari errosario eder bat eta beste laguntzallei Vaticano'ko domiñ-aundiak ematen.

— "Bai, Aulki Santuak interes aundienekin ikusten ditu zuen eraberritze onetan darabilkizuen ekiñaldiak eta errien eta personenen eskubideen aldeko zuen lanak. Ekintza oien garaipearen zai gaude." Erantzun zion Joan Paulo'k.

Abenduaren 7'rako, seigarren egunerako, eldu ziran Erroma'ra bizitza onen ondoren lenengo berri onak: "Erriaren referendum baten bidez ezagutuak izango dira Ukraina'ko katolikoak." Ala zion Novosti ajenzia errusiarrek.

ANES ARRINDA



ETXEKO MAITASUNA

Gizakiak gizarterako egiñak gara eta on familia batean agertzen dan arazoa da. Beraz, iñorenganako maitasuna ere famili bateau agertu bearko da. Famili bateau sortu eta aziak gara eta maitasuna hera ere gure etxean ikusi eta ikasi genduan.

Jesus'ek berak ere izan zuan famili hat eta etxe bat. Gurasoak nola maitatu bear diran, berak irakatsi zigun. Egia da maitasun on ez zala bere etxe barman agortu, mundo osora zabaklu gabe.

Lagun-urkoa maitatzeko agindua, norheraren etxetik betetzen asi bearko dogu. Nere lagun-urkorik gertuenak, nere aita-amak dira eta nere seme-alahak. Guretik urbillen daudenak, gure senitartekoak dira. Orra nundik asi.

Gurasoek saiatzen dira maitasun on agertzen, heuren semea-labeentzat etxea, jantziak, janariak, ikastetxeak hillatzen... Zer, ez? Jainkoaren Erreinuan seme-alaha oiek sartu ditezana ere alegindu hearco (lute).

Seme-alaba geranok, herriz, erantzun ona eman hearco diegu, gurekatik ainheste Ian egin duten guraso oieri. Eurentzako geu izan gara gauzarik aundiena eta garrantzirik aundienekoa. Esker ona eta maitasuna agertu hearrean gaude.

Nola? Jesus'ek berherak erakusten digu nola: Ogeita amar urte bete zuen artean, Nazaret'en here gurasoen mende bizi izan zan maitasunez eta alaitasunez.

Neuk ere asmo auxe artzen dot nere etxekoen ar-emanetarako: Gauza guztien gaiñetik, maitasuna agertzen duten egintzak egitea. Jesus'ek Nazaret'eko here hizi illun aretan, orixe irakatsi zidan, geuk ere nola bizi ikasi dezadan: alai eta pozik, ez izan kanpo-larros, etxe-mazuzta: kanpoan alai, etxean asarre.

Maitasuna zahaldu etxe barruan, larrosa usai-gozodunaren antzera; ez agertu legor eta kopetillun, biotz-gabeko baten antzera.

Urkamendira kondenatu zuten gizarajoak auxe eskatu zien ilko zuten agintariei: Urrutian bizi zan here ama xaarrari, illean bein, il ondoren, here eskutitzak bialtzeko. hera oraindik bizi halitz hezala. Eta, orrela. il aurreko egunak, amari idazten igaro zitun, here bizitzan etxean igarotako gertakizun gozo guztiak gogoratzan... Urkatu zuten, baña ama xaarrak illero here semearen berri gozoak artzen zitun, hera il zan arte...

BIZITZA JAINKOA'RENA DA

Geu ez gara geure biziaren jabe. Jainkoaren doia dogu eta bizi ori, bai geurea eta bai geure lagunurkoarena ere, maitatu egin bear dogu eta here aide jokatu.

Maitasunezko pakean.

Maitasuna da-ta biziaren sortzaillea; eta gorrotoa, eriotzarena.

Jainkoa'k mundua sortzean, munduaren edertasunik ederrena, bizidunak izan ziran: Belar eta zugaitzak mendietan; arraiñak udetan; egaztiak aidean; ahareak eta gizakiak lur gaiñean.

Guztien burn eta guztien artean ederrena gizakia: gizona eta emakumea. hiak Jainkoa'ren antzeko, munduaren errege eta Jainko heraren seme-alaba.

Bizia dogu doairik ederrena eta doi guztien oiñarri eta sustrai. Iñori hizia kentzea, okerkeririk aundiena da, doi danak eta eskubide osoak kentzea da-ta.

Bizirik gahe ez da besterik ezer mundu onetan.

Orregaitik du garrantzirik aundiena onela Won Bosgarren Adinduak:

IÑOR EZ IL.

Agindu on alderantziz, ipintzen ha'dogu. era onetara irakurriko dogu:

INOREN BIZIA GORDE.

Bai jaiotzeko dagoen aurrarena eta hai gaxotasunez edo zaarrez eriotzatik gertu daudenena ere.

Bizia gordetzeak ha ditu herarekin beste agindurik ere: Bizitari eta osasunari kalte egiten dietenak baztartzeta, ez da-ta naikoa "hizia ez kentzea", 5'garren Agindua betetzeko. Bizia here osoan bete-betea izateko bear direnak, oiek danak errespetta bear dira eta aurka direnak aldentu: Indarkeria, torturak, esklabutza, drogak, gosea, emagaldukeriara beartzea eta abar.

Irugarren Munduko Erri beartzuei, ogiaren orde, armak bialtzea, alkar erail ditezana... Aur-galdu eta Zaarren eriotzari buruzko Legeak... Munduarentzako bearrezko diren janariak erre edo izkutatzeta merke-aldia gertatu ez dadin...

Okerkeri astunak dira onek.

Zergaitik gure aurrek. Olentzero eta Iru Magoei jolasteko armak ertzen dautsoez... Zergaitik telebista eta zineetan ainbeste indarkeri, sexoarekin naastata, erabiltzen da etenik gabeko saioetan... Orrelakoak ikusita geure aurrak, eta aur ez direnak, zer ikasi bear dabe euren bizitzarako... "Zer ikusi, ura ikasi", gure aurrekoen esana da.

Eriotza dakarren gorrotoa geure biotzetik kentzea, on be Bostgarren Agindukoa da.

"Zuk egiña da mundua / Zuk lurra eta zerua
Zuk egiña da mundua / Eta amaren muxua". (Lertxundi).

DITUGUNAK AI, KARRE, KIN BANATZEN

Jaunak egin ditunak alkarrerik banatzekoak dira. Gaurko gizarte onetan hatzuek geiegi eta geienak gutxiegi: bizitzeko bearrezkoak diranak ere ez. Ori al da Jainkoaren asmoa? Ez, orixe.

Solidaritza, gureak gizakien artean banatzea, orixe da Jainkoa maitatzeko erarik onena eta ederrena:

- Ator nerekin zorioneko ori: gose nintzan eta jaten eman zenidazun...
- Noiz, Jauna'?
- Gose zegoanari jaten emandakoan.

Aberastasunak kalte egiten al diote gizakiari? Gizon-emakumeak diruaren morroi jartzen diranean, bal.

- Eziña da bi jaubeen morroi bitten.) izatea... Ezin deikezute Jainkoaren eta Diruaren morroi hater' izan... Bat ala beste... Jainkoa'ren morroi ala Diruaren morroi.

Gaur eguneko ezberdintasunak ikaragarriak dira gizartean. Munduko ondasunak gero eta esku gutxigoetan daude... Bakoitzak geure hurua geiegi maite degulako, hesteenak ere geuretzat biltzen dituguz. Eta, hide orretatik, gero eta ezberdintasunak aundiago.

Zertarako ainbeste? Gordeta edukitzeko. Eta, gordeta daudenak zertarako hallo dute geiegizkoak diranean? Bestela ere...

Onela zion Orazio poeta jentillak: Nullus argento est color / avaris abditio tervis = Lurpean gordetako zillarrak ez du ezertako balio.

Legeko Zazpigarren eta Amargarren aginduek diru gosearen aurka doaz: Biotza diruarengan ipintzen ba'dogu, diru-billa asiko gara neurririk gabe, eta, errez-errez, hesteenak diranak ere, geure altxorrean pillatu dituguz.

Jesus izan da gure betiko eredu: Aberastasunari uko egin zion; beartsu bizi izan zan, zituenak, bizia ere hai, besteen aide emanez. Gu here antzeko izatea da Jesus'en naia eta gure ondaneekin bearrean dagoanari laguntzea, orixe da bera maitatzea eta bere naia betetzea. Gure eskuan izaten dira artzeko zabal eta emateko estu...

KRISTAU EGIZALE

Geuk, guztiok, badogu egia entzuteko eskubidea, baita egia esateko bearkizuna ere. Jesus'ek egia esan oi zuan beti. Onela esan zioten bein beure etsaiek:

- Badakigu egizale zerala eta egia esateak ez dizula iñungo bildurrik ematen, esan eiguzu ba, zillegi at da Erromako Enperadoreari zergak ordaintzea?

Bere etsaiek, eurok, ezagutu zuten Jesus'en egizaletasuna.

Neure egia auxe izaten da: Nere huruko pentsamentuak eta nere aoko itzak, biak alkarrekin hatera ibiltzea. Ez, bat pentsa eta beste bat esan. Ez, beltz pentsa eta zuri esan. Ori "zurikeria" da: Bakoitzari berak entzuk nai dituenak esatea, naiz gezurrak izan.

Baña, Jesus'ek ez digu orrelakorik irakasten, hestela baizik: -Bai danean, hai esan eta, ez danean, ez esan, hesterik gahe.

Egia esatean, zuzentasunaren legea betetzen dogu, lagun-urkoarekin zuzen jokatzuz. Eta, lagun-urkoa maitatzeko, orixe da lenengo oiñarria: zuzen jokatzea.

Baña, gure inguruan gezurra dabil pil-pil. Bein bateau, Egia munduan zehillera, loak artu omen zuan arholape batean. Orduan Gezurra etorri eta Egiari bee soñekoa kendu omen zio eta, arrezkero munduan Gezurra omen dabil Egiaren jantziak soñean dituela.

Gezurra esan nuen Getarian eta ni baiño lenago zan atarian. Gezurra bereala arrapatu izan oi da, ankamotza dalako. Okerkeri aundia da Egiaren aurkako pekatua, lagun -urkoak bearrezko duen eskubi hat kentzen diogulako. Baña, zenhaitetan egia gorde egin bear da, hearrik gahe egia esanda, lagun-urkoari kalte egiten diogunean. Esate baterako, here oker izkutuak zabalduz... Izen onaren eskubidea ere hadu, eta, izkutuko okerrak, izkutuan geldituta, iñori kalte egiten ez diotenean, oriek izkutuan gorde hear dira.

Oker oiek ixilduta, beste baterentzako okerra ba'letor, orduan, ixilpeko oiek, esan egin bearko litzazke.

Gezur-zale ba'zera, egia esandakoan, ez dizu iñortxok ere sinistuko. Egi-zaletasuna, herriz, jatoritasunaren oiñarri hat dogu. Persona edo norki orreri sinisten diogu, borondate onez eta Ieialtasunez jokutzen duelako.

Kristauontzako Jesus berbera da Egia, eta egi guztiak maitatzean, Bera maitatzen dogu, egi guztiak bere Egiaren erraiñu eta izpillu direlako. Egi guztietan bere Egia nahari da.

Egia maitatzea Jesus eta here Aita maitatzea da.

Gezurrak, berriz, deabrua du aita eta gezur guztiak aita orren irudia daramate soñean. Liburu Santuak diotenez, asiera asieratik asi zan Eba'ri, Izakien Amari, gezurrak esaten: Ez zerate ilko eta Jainkoaren antzeko izango zerate, oker egiñez.

ANES'ek

EUN RUBLOAK

Erriko kaleak utsik dagoz.

Lokatza eta edur-nabarra buztinetan. Tanke gudatresneen arrastoak ugari eta naasi. Gerratea da.

* * *

—Ez, ez, ez..! Ama, lagundu eidazu..! Mesedez..!

Intziri luze penagarri batek eten dau gauaren ixilla. Etxeetako ate guztiak barrutik trunkaz itxita dagoz; baiña, beti izaten dabe etxeetansartzeko aitzakiren bat soldatu zar auk:

—Dan, dan.

—Nor da?

—Atea irikitzen ba daustazue... Ura bear dot, ez bait dago erri onetan iñungo iturririk kalean...

Aterik irikitzen ba'dozu, galdura zera. Bildurrak eraginda, etxeko atea zabaldu daben zenbaitek intziri eta negar atea iriki ondoren...

* * *

Errixka txiki kutuna.

Mendi-magal luze batean etzanda. Goiko gailurrak, zuri elurrez; beerago, nabar; errian loa buztinez... Erriaren erdian, etxez inguraturik, oillaloka txitaz bezelatsu, eliza kanpai-dorrea zerura begira dauala, kristau zaar auen begiak dagozen bezala.

Bei, zaldi, asto etaardi ikuilluetan; pipar-gorri xortak sukaldeetan zintzilik. An beeran, Bekokalean, ikastola eta maixuaren etxea. Gaur da bigarren gau tristeia soldaduak sartu ezkeroztik. Maixua, emaztea eta seme-alabak urduri dagoz. Iñor dabil kaleko etean. dan-dan. Yuskak maigaiñeko kutxillorik aundiena artu du eskuetan. Kateriñek, berriz, yuskarem arrebat, ikuilluan gorde dau bere burua, egur-artean.

—Dan, dan. Berriz ere atean.

Yuskak kutxilloa eskuetan. Aita-amak alkarri begira ate alkarri elduta atsekabearen atsekabez.

—Dan, dan. Irugarrenez.

—Zer egingo dot, aita?

—Eragin, seme ateari okerragoak gerta ez ditezen eta gorde begien artetik kutxillo ori.

—Ez, aita, ez; nere arrebari ez dio iñortxok ere ikuturik egingo!

—Yuska, kendu nere aurretik arma ori.

—Dan, dan, dan...

—Neuk irikiko dot! diño Amak. Bai, banoa...

Poliki-poliki eragin dio amak ateari. Arnasa eta biotza biak batera gelditu zaizkio une artan:

—Ur apur bat nai nuke... Ez bait da iturririk kalean...

Kutxillo-kirtenari eldu dio Yuskak. Bildur zutena gertatu da: sovieta-gudaria daukate ate-ondoan, barrura sartzeko baimenaren zai. Ofizial jazkera dau. Une batean denak ixil, ez itzik, ez arnasarik...

—Pasa neike aurrerago..?

—Bai, jauna, bai, pasa barrurairiño. (Aitak gudariari.)

—Eskerrik asko.

—Ez da zeren.

—Ur apur bat, mesedez...

Amak dakarkio ura sukaldetik antxosin batean.

—Eskerrik asko.

Zanga-zanga ura soldaduaeren zintzurretik beera.

Edanda gero:

—Eskerrik asko, berriz ere. Emen semea apaizgaia dozue.

Argizari zuria odolaren ordez zaiñetan: zuri gelditu dira irurak, aita, ama eta semea:

—Bai, jauna.

—Esan apaizari biar Pazko-Eguna dela eta Errusian ere Pazko-Eguna aspatzeko oitura badogula. Kanpaiak nai dodaz goizetik eta Meza ondoren.

Besterik gabe, gudari-agurra egin etabadoa etorri dan bidetik.

Ikuillutik urten dau Katariñek. Emezortzi urte bete-barriak. Gordin, panpoxa, baltzarana. Begi baltz, illematasa baltz:

—Entzun al dozue?

—Bai, aita-Kateriñek erantzun-baiña ez geiegi fia.

—Ez dauku okerrik egin...

—Eta, zenbat oker egin dabez bi egun larri oneitan..?

Auzo guztia kezkatu dago. Kontuz, aita.

—Zergaitik ez..? (Yuskak Kateriñeri.) Zure onagaitik, orren kontra, aitzoz jagiko nintzan, bearrik izan ba'litz; orain barriz, bere agindua bete bearrezkoa dala deritzot.

—Baiña, seme (amak erantzun) apaizengana joatea arrisku aundiegia da...

—Aundiegia, ez.

—Eta bidean gudari gorri oietako batek elduko ba'li-zu... Eta biar Meza ematea txorakeri aundi bat ba'litz...

—Ama, biar Pazko-Eguna dogu eta ez nuke nai nere kulpaz orrelako egunez Mezarik ez egotea... Apaizengana joan bear dot!

—Ez, seme, ez zaitez joan..!

—Bai, andratxo, joaten utzi egiozu, ez dau bestela bakerik izango ta.

—Bai, ama. Eta oraintxen bertan noa; gero apaizak jakingo dau Mezarekin zer egin.

Iltzedun oiñetakoak jantzi eta orra or nun dijoan saltaka, loitik loira, Yuska apaizgai mutil gaztea...

* * *

Gertakizun auk 1944 urtekoak dira. Hungriako errixka batekoak. Erri txikia, erri xarmanta, baserria... Pazko-Eguna biar. Errusiako soldaduak errian sartu ziranetik bi egun t'erdi. Gudari oneik dirala ta, bildurra kokatu jako erri politari bere barruan. Basauntzek baiño bildur geiago dabe baserritar oneik euren biotzean...

Jo dau apaiz-etxeko atea Yuskak.

KONTU KOTARI

—Nor da?
—Yuska naiz, jauna.
—Sartu bizkor barrura. Ate zaarrak txirrio... Apaizak berekiko: Ate onek koipe apur bat blar dau. Yuska apaizaren aurrean, arnas-estuka, itzik atera eziñik.
—Zer dok, mutil. Bildurra ematen daustak...
—Ara, jauna... soviet-ofizial batek agindu daust zuri esateko, biar goizean kanpaiak jo eta Meza emateko...
—Zeeerrr..?!
—Kanpaiak jo eta Meza emateko...
—Kanpaiak jo eta Meza eman..?!
—Bai, bai, orixe esan daust.
—Ez al dok tranparen bat izango..?
—Ez ba jakin...
—Izango ba'litz..?
—Kaiola barruan, xagu baten antzera, arrapatuta geldituko giñakela.
—Eta, izango ez ba'litz..?
—Mezarik gabe Pazko-Egunean bildurkiak izan generala-ko.
—Korapilloa dok au, Yuska, eta ez nolanaikoa.
—Zer egingo dogu..?
—Orixo galdetzen joat neuk be...
—Nik, jauna, Meza emongo neuke.
Goizeko seiretan kanpaiak jo eta Meza ematekotan gelditu ziran biak.

* * *

Ez zan gau ura berealako batean pasa. Gelako solairuari begira igaro eban denbora gure apaiz zaarrak. Aspaldian ormak zuritu gabe egoala konturatu zan. Gudara gorri areik errian egozan artean kanpaiak jo eta Meza ematoa, ez al zan zorakeri utsa..? Ez ote zan ori zuur-falta izugarria..? Zuurkeri eta prudentzia bildurkeriarekin bat gertatu oi dira sarritan... Bere bildurkeriaren kulpaz eta erruz, Pazko-Egunean, erria Mezarik gabe iztea, ez al zan Jainkoganako maitasun gutxi agertzea..? “Ni gizen aurrean ukatzen nauena, neuk ere bera ukatuko egingo dot neure Aitaren aurrean...” “Bere bizia gordetzen dauanak, berorrek galduko dau bizi ori; neregaitik galtzen dauanak, berak gordeko dau beretzat...” Jesusen esaera oneik eta onein antzeko beste asko etorkiozen burura etengabeko errenkada luzean... Alderantzitik gauzari, arazoari, begiratu ezker, ez al zan Mezea emotea zuurkeri edo prudentziaren kontrako pekatua..?

—Zuurkeria, askotan beintzat, bildurkeriaren tapaki bat, estalki bat, besterik ez dozu. (Esaten euzon adimenak.)

—Bildurra badot nerekin, bildur aundia; baiña, nik ez dot nai bildurragaitik jokatu, ezta zuurkeriaren aurka ere...

—Martiri bokaziorik ez dozu nunbait; konfesoarena bakarrik... (Adimenak berriro.)

—Geiago gustatzen zait konfessore martiri baiño, eziñ ori ere ukatu...

—Eta bildurra dala-ta Meza zenduke Pazko-Egunean..?

—Ori ere ez!

Bere buruarekin eztabaidan igaro eban gau osoa gure apaiz onek. Gezurretan ari ote zan soviet-gudaria? Egitan

ari ote zan? Nolajakin pruebarik egin gabe? Bere Jainkoaren eskuetan ipiñi eta pekatu guztien barkamena eskatu euzon: —Jauna, zure naia bete dedilla. Ez dot nik korapillo au eskatzeko aalmenik.

Yagi eta bizarra kendu ondoren, eleizara txiliña jotzera. Sokari eskuekin eldu eutsonean, biotza zeukan neurri-gabeko taupadaka: —Latzta dok eskuetan soka au. Nere urkamendiko soka ote..? Ez dok leuna izango samea estutuko daustanean... Zalantzatik urten bear: —Jainkoaren izenean! Ori esanaz batera ekin deutso sokatik tiraka gora ta beera: Tilin talan, tilin talan, tilin talan...

Enara bizkorren antzera kanapi soiñu alaiak arbolatik arbolara, etxetik etxera, malkorretik malkorrera, menditik mendira agur zoragarria kantari... Erriko oge guztietan izua zegoan, tristurarekin batera, kokoldurik. Egoera larri aretan kanpai-ots alaiak zarrada eragiten eutsen kristau bildurki arei bizkarrean gora: —Zer asmo txar ete erabilliten buruetan Errusiako soldadu sinisgabe areik Pazko-Egunean kanpaiak jotzen asteko..?

Leioetako kurtiñapeetatik ikarak zabalduriko begiak agiri ziran nun-nai. Biotza kuskurturik, arnasea geldirik, oiñak loturik... Zer ete zan a..?

—Mezatarako deia da. Joango gera..?

—Ez, gizona, Jainkoak daki kanpaiak zeiniek jotzen dituan..!

—Apaiza izango al da joalea...

—Ez burutik eginda ez ba'dago. Ori tranpea da.

* * *

Bigarren kanpai-saiorako Yuska elizan da.

—Egun on, Yuska. Iñor ba'da kalean..?

—Ez, jauna, ez dot iñortxo be ikusi.

—Lo egin dok?

—Ez asko, jauna.

—Aldarako argizariak biztu eta liburua iriki.

—Nik, jauna, konpesatu nai neuke aurretik...

Yuskak bere bizi guztiko pekatuen barkamena eskatu dio Jainkoari etabere ordeko dan apaizari. Ondoren Mezatarako jantzi da apaiza.

—Begira, Yuska, elizan iñor dagoen.

—Iñortxo be ez.

—Jo egik irugarrena.

Irugarrenez kanpaiaren soiñu alaia, kaleetan zear, etxeetako ate-zirrikitu artetik, baserritar bildurki arein belarrietan kokatu da:

—Ze deabru ote dabil kanpai-joka..?

—Ori tranpea dala gu iruzurtzeko. Engaiño utsa.

Meza asteko ordua da. Eliza utsik. Iñortxo be ez da agertu.

—Zertarako etorri ete gara, Yuska. Engaiñua dogu eta tranpan jausi gara.

Iruzur egin gaitue. Beste guztiak gu baiño zurrangoak tonto lehiko galantak gu...

—Gaur Pazko-Eguna dogu, Jauna.

—Bai, ori bere alan da. Geure buruak arriskuan jartzerik merezi du dau. Goazen!

Urten dale aldarara: —In nomine Patris et Filii et Spiritus Sancti... Elizako atek txirrioka. —Koipe gutxi dau ate orrek (pentsau dan aladeak). Bat-batean apaizak eta Yus-

kak, biok batera, atzera begiratu dale: —Nor ate da? Nor izango eta soldatu komunista da sartu dana elizan... Danba, danba, danba... Pauso bakoitzaren danbadak ormeetan gora dijoaz, eliza-goienak arrapatu arte. Zapaian jo eta beera datoz berriro: danba, danba, danba...

Aurrera dator. Apaiza eta bere akolitua, biak mututu dira. Izarditik bekokiak otz. Bizkarretik barrura bala baten ziria noiz sartuko dagoz ixil eta geldi. Danba, danba, danba pausoak aurrerago eta urrerago. —Ain gertutik ez dau utzik egingo (apaizak berekiko). —Ene Jainko, artu egizu nere anima (Yuskak otoi). Pausoak gelditu egin dira. —Oraintxen asiko da tiroka... Ez, ba... Belaunikatu egin da... Dominus vobiscum. —Et cum Spiritu tuo.

Izardi larritan, Meza aurera doa. —Noiz sentituko ete dodaz bala-zuloa bizkarrean..? Zertan ete dago?

Meza-erdikoa. Tilin, tilin...

Jaunartzea. —Orain asiko ete da tiroka..?

—Txiist, txiist..! Gudariak.

Yuskak eta abadeak, biok batera, eragin dautsoe buruari atzera begiratzeko...

—Komunioa emateko..? Gureak egin jok oraintxen...

Une onetan garbituko gaitu...

—Ecce Agnus Dei... Ona emen Jainkoaren Bildotsa...

Ez da tirorik.

—Kristoren Gorputza.

—Amen.

Sobiet-gudari izardunak Jauna artu dau apaltasunaz. Yuskak eskuetan daraman zillarrezko bandejatxoan eun rubloko diru-papera dar-dar...

* * *

—Garai aietan eun rubloko papera diru aberatsa zan, sinistu eidazu.

—Soviet ofizial aren barririk izan al zenduen geiago, Yuska?

—Ez. Etorri zan bidetik joan zitzaigun iñungo aztarnik utzi gabe.

—Nik usten neban ruso guztiak adardun deabruak zirela...

—Oietakoak be izango dira, eta nun ez? Baiña kristau zintzo bildurgabeak be bai dirudienez...

* * *

Yuska, gerrateko goseak eraginda edo, birikietatik gaitotu zan. Sendatzeko biderik ez errian eta erbestera exilatu bear bere burua. Urte asko dira Hungriatik alde egin ebala eta Erroman ezagutu neban. berak esandakoak sinisten dodaz. Bera bait zan gertaera onein lekuko eta testigu.


ARRINDA'TAR ANES

MUNGIARRAK BIZI-BIZI DIARDUE LANEAN

UDAL-BATZA BULTZAGILLE DALA.

ONA EMEN ATERA DABEN ALDIZKARI EDERRA!

- Erriko lanak
- Mungialdeko barriak
- Kondairako jakingarriak
- Literatura
- Musika
- Osakuntza
- Argazkiak
- Margolaritza
- Kirolak...



.... Beko-kaletarra naz,
arri-bitsiz sortua,
jakintza zalea ::
Aldizkari emea,
zatoz gure etxera,
osasun alzea

Paulin

50 PTA.

GIZARTIZTI

EUSKAL-ERRIKO MERKATARITZA

II

ITXAS-ONTZIAK

“Euskalduna arbolaren etsai da” keixatzen dira frantsezak. Bizkaia zegoan “arbolaz betea” eta Lege Zaarrak bizkaitarreri baimena ematen zien arbola oiek botatzeko, bear zituenean etxeak egiteko, oletako egur-ikatsa egiteko eta itxas-ontziak egiteko. Olagizonaren ondoan, barkugillea.

Barkuak egiteko egur asko bear: “Domingo de Goizueta, iru galeoi egiteko, 1.000 aritz eskatzen ditu. Errenderian 800 toneladako ontziak egiten zituzten. Zenbait Errietako Udaletxeko agintariek beuren mendietako zugaitzak gordeta zeuzkaten oleetarako eta itxasontzietarako. Zura bear ugari itxasontzi aundiak egiten bait ziran; baiña, arbola bat kentzen zanean beste bi aldatu bear ziran kendutakoaren ordeaz. Udaletxetako poltxaren amarrena arbola berriak aldatu eta zaarrak zaintzeko bear zuan izan Gipuzkoan Lege Zaarraren aginduz: “distribuyan la décima parte en plantar árboles y en guiarlos y beneficiarlos; y que no se permita cortar ningún roble por pie, sino es que esté inútil” (Tít. 38, c. 3).

Barku asko. Bizkaian bertan 200 baiño geiago zeuden une berean.

Trastamara'ko Etxeak itxasoan segurantzia sortu zuanian, kostaldeko erri guztietan sortu ziran barkugilleak: Bilbao, Portugalete, Plenzia, Bermeo, Gernika, Lekeitio eta Ondarroa, guztiak ziran barkugille.

Gipuzkoako Fueroak dionez baztar guztietan daude barkugintzarako olak eta ontzi mota guztiak egiten dira bertan: “Capitanas Reales Armadas, vageles de guerra y de carga en muy copioso número” (Tít. I, pág. 4).

1548'an ba ziran Bilbo-inguruan, bere poltxikotik iru eta lau barku urteero egiten zituzten bizkaitarrak.

1552'an, Flandesera egiten zan merkataritza La Rochelleko itxaslapurren eskueetatik gorde aal izateko, an zebiltzan Gipuzkoako barku armatuak amar ontzi aundi, bi zafra eta millaka gizon beoien barruetan. Oien antzera berreun urte beranduago Real Compañía Guipuzcoana de Caracas de Indias egiten zuna Venezuelako kostaldean itxaslapur eta kontrabandoaren aurka.

1580'an Portugal eta Espaiña itxasoetan indartsuen egin ziran; ondoren, orra gure kostalde guztiak Europako barku-lantegi egifa. Inglaterrako erregeak, Frantziako dukeak, Andaluzi eta Italiako zaldunak, Euskalerrira etorri oi ziran barkueskean.

Errege katolikoak, euren barkuak egiteko, Sevilla eta Bilbo aukeratu zituzten. 1475'an agindu au ematen diote Bizkaiari Errege oiek: "que preparen el mayor número posible de naos, galeras, carabelas y fustas". Andik denbora gutxi barru, eskabide berdina Gipuzkoari, eta berriro Bizkaiari. Bereala 50 galeoiek irten zuten Napoles'erako. Itxasoko ondamendiak, 25 ontzi ondoratu ziran batera 1493'an, ez zituzten batere ikarutzen; une batean sortu ziran berriak aien orde.

Burniaren egoerarik onena XIII'tik XVIII'ra izan zan. XIII'an 5.000 tonelada burni ateratzen zan Inglaterrarako Baionako portutik. Merkatu ori zala-ta, ontziak ugaritu ziran Baionan.

1248'an, Sevilla moroeri kendu ziotenean, San Fernando Erregearen denboran, Bonifaz Almirantea berbara etorri zan gure portuetara, burruka artan parte artu bear izan zuten barkuak eta bere pertretxoak ikustera bere begiz.

Malaga artu bear zaneko burrukan ere an ziran gure ontziak.

Gerora, Kolon'ek egin bear zuan bigarren ibillaldirako, euskal itxas-ontziak aukeratu zituzten Iñigo de Artieta Lekeitiarraren menpean; irten ere bai Bermeotik 1493-VII'an. Portugal zebillen urdurik ordu artan, eta bada-ezbada euskaldunak, Ameriketara barik, emen bertan eduki zituzten. Orrela, Muley Boabdil errege mairua Almuñecar'tik Berberia'ra eramateko erabili zituzten gure ontzi oiek. Ondoren Granadako kostaldea zaintzeko ere gure barkuak izan ziran, Garcia Lz. de Arriaran eta Juan de Lezkano buru egiten zutela...

Gure portuetatik mundu guzira bidean irtetzen zuten ontziak burni-meatza, burnia, galtzairua, burni-iltze, granada-bola-burnizko, artille-saka, ardo-upel, narru, fruta, egur, arraiñ eta abarrekin. La Rochelle, Nantes eta Flandes ziran tarteko-bideak gure artilleak zabaltzeko; gero, "Bolsa de Comercio" euskaldunek Brujas'en zeukaten alkarteak bide oiek luzatzen zitun Tronsberg, Bergen, Lund, Scarsa, Stockholm, Upsala eta abarreko kaietaraiño.

Euskaldun asko zabaldu zan munduan-zear, eta bertan gelditu. Ala gertatu zan Brujas'en ere. Ba zan an "Casa de Contratación de Vizcaya" eta bere aurreko plazuelari "Area Cantabrorum" esan oi zioten. Brujas'en Bezela gelditu ziran La Rochelle, Nantes, Saint Malo, Rendon eta abarretan. beti burni-tratoan.

"Consulado de Bilbao" elkarteak sortu zitun estranjeriko kai askoetan "Casa de Contratación" zeritzanak. Ala Nantes'en ere. Orrela sortu ziran bideak artu-emanetan mundu zabalarekin jartzeko U.S.A. Amerikatako-Estadu-Batuak itxasorako legerik sortu ez zuten artean, "Consulado de Bilbao"koa erabili zuten geienetan.

Sevilla bertan ere, XIV eunkia baiño leen, an zeuden euskaldunak merkataritzan bezela itxas-ontzietako buru. Bertan sortu zituzten itxas-gizonen Kofradiak, inguru aietan eta Mediterrane itxasoan zebiltzen euskaldunak ibillerak zaindu eta zuzentzeko.

Cadiz'en antxiñatik zegoen bizkaitar-pilotuen Eskola. Gerora bere antolamentua onartu zuten Errege Katolikoek. 1403'an Cadiz'ko euskal-gizonen izenak aitatzen dira, Levante'ko itxas-zaindari bezela.

"Itxas-gaietan argiak" eta "munduko itxas-gizonik onena" esaten dute euskalduneri buruz, Errege Katolikoek garaiko bi idazteik. Baiña, okerra gertatu zan Fernando eta Isabelek 1501-VIII-11'an, atzerrietara barkurik ez saltzeko ordena eman zutenean. Kanpora saltzerik ez ba dago, barrurako ere ez ditugu egingo, ezta geu itxasoratu ere, izan zan euskaldunen erantzuna. Gerora gauzak konpondu ziran eta euskaldun barkugille eta itxasgizonen izarra goi-goienean irauñ zuan dizdiratzu.

ARMAK

Gure sal-erosketako laugarren alderdia, armak ziran. Armak ez-erik bestelakorik ere egiten genduan: errotak, labeak, tella-fabrikak (loi-olak), burni-aria, burni-kolatua, galtzairua, urraida, oialak, mantak, marragak, txapelak, kapelak, eunezko mainderak, burdi-mota guztiak eta abar.

Oñatian egiten zituzten "husos, prensas, planchas, palas, picos, zapapicos, azadas, mazos, yunque, bogas y otras piezas..." Balaustrak, sartagiak, burni-ariak eta abar egiten ziran Durango aldean. Narro-lantegiak Tolosa; oialak Erronkarin...

Eta, olak baztar guztietan.

Nafarroako mendi-aldeetik ba zeuden berrogei ola. Bidasoatik ifar-aldera ola-lantgintzak Larrañe eta Baigorri ingurukoak ziren.

Danetatik egiten zuten gure langilleak; baiña, arma-gintzan izan ziran benetako maixuak. Orrelakoak edonun ziran; baiña, bereiziki Soraluze (Plazenzia), Mondragon, Bilbo eta Orbaizetan. Soraluzeren goitizenak, "armas de España" eta "la madre de la armería" izan dira. Flamenko batek zionez (Lomot jaunak) "Europa guztian leena". Deba-ibaieko galtzairuaren tenplea, onena. Mondragoeko ezpatak oso ziran famatuak. Baita Bilboko armak ere.

1480'en Isabel erregiñak bizkaitar armagille maixuengandik auk eskatzen ditu: "15.000 lanzas de mano, 4.000 paveses, lombardas y cervatanas...".

1488 eta 1489'an eskari berdiña dator bizkaitar eta giputzentzako, egin zezatela arma eta kañoirik asko Sicilia'ko erreinuarentzat. Berrero eskabidea bizkaitar, giputz eta arabatar maixuentzako. Guztiak, ordea, bear beziñ bizkor egiñ eziñ, Europako ere ezpata-eskabide luzeak bait zituzten.

Nafarroa berbera ere ba zan zer-edo-zer: Estereibar ballarako Eugi errian ba zuten Real Fábrica de Armas bat eta Orbaizetako olak, Pirinee mendietan, burnia lantzen zuten eta munizioak egiten. Lau labe zeuden errian bertan: bik Espaiñiarako lan egiten zuten; beste biak Indietarako. Labe oiek illero 1.200 kintal baiño geiago ateratzen zuten.

Soraluze'ren ingurua, arma-fabrikarena alegia, oso zabaltzen zan. Ona inguru orretan dauden erriak: Ermua, Elorrio, Arrazola, Abadiano, Durango, Berriz, Zaldibar, Mañaria, Mallabia, Zenarruza, Bolibar, Gerrikaiz, Markina, Markina-Etxeberri eta Ondarroa Bizkai-aldeetik; Eibar, Elgoibar, Mendaro, Deba, Motriko, Bergara, Elosua, Angiozar, Elgeta, Mondragon, Oñati, Aretxabaleta, Eskoriza, Legazpia, Urretxua, Azkoiti, Azpeiti, Urrestilla, Zestua, Arrua, Oikiña, Ipiñarrieta, Zumaia eta Ormaiztegi Gipuzkoan.

Ba zan Errege-Etxea ere Soraluzean. Armegille maixuek elkartu ziran "Fábrica de armas portátiles de fuego, y blancas, de guerra de la Villa de Placencia" erailtzeko. Geroago Erregeari utzi zioten Lantegiaren nagusitasuna, orrela Gudarosterako armak egiñáal izateko.

Ona orduko idazti baten xeetasunak: 1.748'tik 1833'era, 564.000 arma egin zituzten Gudaroste Nazionalentzako, eta 30.000 Frantziarako: fusillak, karabiñak, baionetak, ezpatak, sableak, petoak, espalderak, pistolak, eskopetak...

Arma-eskabideak edonundik datoz. Mazalkibir konkistatzeko kañoiak Bizkaian erosi zituzten 112 lonbarda. Arma oien izen onak eraginda, Beljika eta Alemaniako arma-gilleak emengoen markak jartzen zieten euren armeeri; baita alogera ederrik eskeiñi emengo langilleak ara joatekotan. Joanik ziran bat baiño geiago. Flandeserako boluntario apuntatu ondoren.

1509'an ere an agertzen dira Afrika'ko Orangen Cisneros'ekin joanak.

Espaiñian zer esanik ez: guztian zabaldu ziran. Madrideko Carlos V'ren Real Armería'ra. Toledo'ko armagilleak, XVIII'an, izen auek zituztenak ba ziran: Arizaga,

Garate, Leizalde, Agirre, Orozko... Granada'ko fusil-fabrika jaso zutenak ere euskaldunak ziran. Pedro de Aldazabal'ek antolatu zuan Jerez de la Fronterako arma-lantegia. Oviedo'n arma-fabrika eraultzeko Sorluzetik eraman zituzten gizonak. Eta Oviedo, Trubia, Grado eta Mieres'en fabrika berrietako gremioak sortu zituztenak plaentxiarrak eta eibartarrak izan ziran...

Orain bukatzeko ikusi dezagun Hernaniko erriak Erregearekin egiten duen trataoa: 20.000 kintal aingura egingo dituzte lau urteen buruan Erregearentzat. Urtea, 1.750. urrillaren 19'an. Gillasasti maixuak egiten zitun aingura eta burnizko txamartak oso onak ziran, Donostiako mollan ikusita, estranjeriako itxasgizonak esaten zutenek. Gillasti maixuak Aia'n zuan bere Arrazubia'ko ola. Amasa-Billabonan ere ba ziran, erri barruan, lau lantegi aingura egiteko.

KONPETENTZI GAIZTOAK

XV eunkiaren erdi-aldera agertzen da Europako merkatuetan Suezia'ko burnia. XVI'an euskaldun burniaren neurrian jartzen da.

1559'an Gipuzkoako Junta Jeneralak urduri dabilta eta burnia obeto garbitzeko arau batzuek ematen ditu. Arau oieri ezkerrek bai burnia eta bai galtzairua garbiagoa eta ohea ateratzen da gure oletik. Alaz ere, Suezia'ko burnia aurrera dijoa Europa guztian eta gure Peninsulan ere sartu da.

Cadizko portuan suekoak beuren burnia 70 errealean kintala saltzen dute; gureak, berriz, kostatako prezioan salduta ere, 80 erreal baiño gutxiago kobratu eziñ.

1700'an Gipuzkoa eta Bizkaiak Elgoibarko Junta Jeneraletan alkar artzen dute eta erabaki au artu: dirudunen artean elkarte bat sortu burni eta galtzairuak Arabako ingumarietan gordetzeko, andik Gaztelanian zuzenean sart aal izateko. Durango, Abadiano, Billaro, Balmaseda, Zegama, Bergara eta Oiñatiko errietan almagazak jaso zituzten... Baiña, dana alperrik eta 1750'an Zuezia'ko burniak nagusituta dabilta eta 50.000 tonelada sartzen dira urteoro merkatuetan. Ori asko ez dala, Errusiatik, Eskoziatik eta Inghlaterratik ere agertzen dira burniak eta galtzairuak.

Suezia'ko era Errusiakoak izan ziran gure burnien ondamendia.

Arrazoiak?

Mota auetakoak erabili oi dira gauza garbitzeko: Suezia'k meatzak obeak eta ugarriagoak, bertako basoak aundiago eta ikatsa ateratzeko errezagoak, oleentzako urgeiago eta gardenagoak, kargak eramateko zelai-izoztua errezagoa eta abar.

Gure iritzirako oiek ez dira benetako arrazoiak. XV eta XVI'an bentaja oiek danak ba zituzten; baiña, gure oletan bezela aiek ere baserriar ez jakiñekin lan egiten zuten. Galtzairua egiteko teknika Suezian aldatu zanean, orduan gallendu ziran eta geureak baztertuta utzi. Bitartean, ez.

1783'an Fausto Elhuyart, "Amigos del País" alkartearen izenean, Somorrostro ikusi ondoren onela zion: meatzak ateratzeko xistema atzeratua darabile eta lana kondizio eskasetan egiten da bertan. Orra muestrarako ale bat.

Beste bat? Ona. Mondragoeko galtzairua, "vencedora espada de Mondragón tu acero y en Toledo templada", leendik zana, gero 1744'an Dowling jaunak zionez ez zan "hierro agrío e indómito" besterik.

Orra gure burnien arrazoi benetakoa.

Modak ere, askotan, izaten du zer-ikusi. Garai batean mundu guztiak eramaten bere ezpata ederra; gerora, berriz, Borbondarrak beste moda bat ekarri zuten Espainiara, ezpata sendoen orde, ezpatatxo fiñak.

Gauzak orrela galbidean ikusita, erremedioa jarri nai eta Peninsulako merkatua irabazi nai berriro. Orretarako, meatzak etzetik kanpora bialtzea debekatu, eta, batez ere, Sueziaiko burniari eragozpenak ipiñi (Carlos III, 1775).

Une larri orretan Real Compañía Guipuzcoana de Caracas de Indias elkarteak ekarri zigun arnasa apur bat. 1727'an Donostiarrak sortua, Errege Felipe V tarteko zala, urrengo urtean Reales Fábricas zeritzenak bere mende artu zitun eta armak saldu zitun Ameriketara. Elkarte orrek egiten zitun eskabideak zirala-ta, kutxillo fabrika berria sortu zuten Bergaran.

Real Compañía orrek ontzi-sailla zitun bereak eta Venezuelako kostaldea urez eta legorrez zaintzeko eginbearra artu zuan beregain. Ordurarte holandesak ziran ango merkatuan jabeak; eta bekaitza eta gorrotoa erakutzi zuten itzez eta egitez Real Compañía'ren kaltean. Gipuzkoarrak ez zuten etsi, ezta mutil gazteak Venezuela'ra joateari ere.

Holandesak alde aietan beti aurka; gero emen, inbidia galanta. 1778'an, 50 urte betetzean, Madridetik merkataritzari buruz emandako aginduak deseginzuan Real Compañía.

Arren ordez, "Compañía de Filipinas" sortu zuten emen; baiña, bi urteen buruan, erregearen dekretoz, galdu zan au ere.

Burnigintzaren arnasa berriak 50 urte iraun zuan, Real Compañía bera bezela.

BIDEAK

Oso eskasak ziran bideak gure artean. Bide zabalik ez, eta zauden apurrak zuloz beteak. Bizkaitar Gaztelaniarako irteerak iru ziran: Mena'ko balarra, Orduña eta Urkiola. Gaztelaniako zabalgunera igotzea lan gaiztoa zan eta artarako ausardia bear.

Astorgatik Burdeos'era zijoan biderik, zabalik beintzat, ez zan ez Gipuzkoatik, ez Bizkaitatik pasatzen.

Bilbotik Zaragozarako bidea ez zan Burgosera luzatzen.

Gaztelaniara joateko burdi-bideak eta mando-bideak erabilli bear. Zabalik, ez. Idiak eta mandoak, itzaiek eta mandozaiek kargak eramateko: "arrieros, trajinantes, mulateros, acemileros, aventureros y bueyerizos" ziran bide oiek egiten zituztenek.

Andoindarrak, zati on bat, karreoan itzai ibilli oi ziran Donosti eta Tolosa bitartean. Idiak ziran indar-iturri. Orduan bezela, automobilak sortu diran arteko guztian. Santa Mariako kanpai aundia, bera osatzen zuten zati guztiekin, danetara 3.327 libra, bost idi-parekin ekarri zuten Luzaide'tik (Valcarlos) Iruña'ra.

Lan oietarako bear-bearrezkoak ziran kamiñu-ertzeko bentak.

Toki egokietan jarriak, aldapa gaiñetan eta toki lekaroetan, eurak ziran ibillaldietan geltoki. Ondo zainduak bear zuten izan. Aberatsa ez zanak ez zuan benta irikitzen baimenik lortuko Oiñatin: 20 bei aundi, 10 txiki, 120 ardi eta 10 txerri eduki bear guxtienez. Gaiñera bear ziran ogi, ardo beltz, sagardo, ozpiñ, gazta, urdai, baratzuri, tipula, gatz, lasto, garagarra, olo (garizuman olio eta sardiñak), sei leiarrezko ardo-ontzi eta iru oge.

Gipuzkoako leendabiziko kotxe-bidea San Adrian'go atekoa, Aizgorrin, izan zan, 1737'an Elgoibarko Junteetan erabakia. Mondragoeko Juntek 1755'an artu zuten asmoa Kanpanzarkoa irikitzeko. Urola ballarakoa Zumaiatik Urrestillako Arrastiolaraiño eldu zan.

XVIII'an iriki zituzten Gaztelaniarako bideak, Gipuzkoak Arlabandik eta Bizkaiak Orduñatik: kotxe-bideak, alegia.

Bide oiek egin zituzten burnigintza baztartuta gelditu zan une berean. Astoa ilda, garagarra buztanetik.

ITXAS-LAPURRAK

Itxasoa zabala da eta bere bideak edonoraiño luzatzen eta zabaltzen dira. Euskaldunak itxaso guztietatik zebiltzan, eta guzti oietan egin zute topo itxas-lapurrek. Eurak ere ez ziran makalak gertatu.

Bizkai-kolkoan ugaritu ziran batez ere.

Hendaiak izan zuan itxas-lapur sonatua, Pellot kapitana; menpekoak zitun italiar eta grekutar lapurrak ere.

Urrugne, Doniane Loitzun eta Baionak ere izan zituzten bereak eta bost.

Baionako "Muelle de los Corsarios"tik atera ziran egun berean 30 barku 5.000 gizonekin itxas-lapurretara.

Gipuzkoa eta Bizkaiak beste orrenbeste egin zuten. Ondarrabiko Udaletxean ematen zuten itxas-lapurretarako agiria, "patente de corso"; baita ere eurak erabakitzen zuten arrapatutakoak eskubidez egiñak ziran ala ez.

Pedro de Berrotaran Ondarrabian bere agiria lortu ondoren, bere ontzi N.^a S.^a de Aranzazu'rekin Arcachon'era inguratu zanean, lau patetxe frantsez ondoratu zitun.

XIV'aren erdialdera, Inglaterrako Errege Eduardo III'k keixak zitun garratzak Ondarrabi, Donosti, Mutriku, Lekeitio, Bermeo eta Portugaleteko itxas-lapurrak ondasunetan eta personetan kalte aundiak egiten zituztelako.

Ematen dunak artu egin bear. Martín Sánchez de Arbolantxa, euskalduna, Portugal aldean zebillen, genoves batzuek bere galeoia eta bale-ontzia ondoratu ziotenean. Mendoza da Arteaga eta bere emazteari karabela bat arrapatu zieten La Rochelleko kaian.

1488'an, kapitan bretoiñ batek, 15 ontzi arrapatu zitun bituallaz beteak (80.000 korona balioa) Burgos, Gipuzkoa eta Bizkaiko merkatari batzuenak.

1470, Abenduak 24, mekatari bizkaitar sail bateri lapurretak egiten diete Inglateran. On lapurtuen izenak: Domingo de Amezketa, lekeitiarrari, bere ontzi Santa Maria galeoiakin 66 ardo-upel; Esteban de Ribadeo, donostiarrari, Santiago ontziaren maixuari 40 Burdeosko ardo-upel; Juan R. de Larrauri, bermeotarrari 15 ardo-upel f'ardi... Eta abar.

Gai oneri bukaera emateko gertakizun ikaragarri bat azalduko degu. Gertaera onek atzeratu zitun luzaroan Ingalaterra eta Euskalerrriaren arteko artu-emanak. Ona emen gertakizunak Gorosabel'ek dakarrenez:


Urtea, 1476. Ingles merkatari batzuek oialez, urre-pitxiz eta beste merkagaiez on-

tzia beteta abiatu ziran Londres'etik Gipuzkoara. Irtenda gero, beste Inghaterrako portu batean geldi-unea egitean, barrura etorri zitzaizkien Miguel Nekola, oriotarra, Juan de Larrea, asteasutarra, beste izenik ez dakigun mutrikuar bat eta beste bizkaitar bat. Lau lagun. Gipuzkoarako eskabidea egin zuten, eta barruan artu zituzten laurak. Bidean datoztela, ekaitz baten ondoren, nekeak artuta inglesak lo daudela, euskaldunek ezpataz eraill zituzten. Gorputzak itxasora bota ondoren, Galiziara jo zuten eta bertan saldu zituzten bai barku eta bai merkagai guztiak. Gorputz batzuek Bre-taiñako kostaldean agertu ziran eta orduan agertu zan euskaldunen okerra. Sasiola jaunak, Inghaterran enbajadore zegoena, arrapatu eta kartzelan sartu zitun; baiña, berak bear-añeko agintaritzarik ez zuelako libre utzi zituzten berriro. Hermandadeko Alkateak kargu egin zan arazo orrekin eta gauzak ondo aztertuta, errudun aurkitu zitun eta erioztaren zorpean jarri. Urkatu, bakarra urkatu zuten; besteak alde eginda zebiltzelako.

Andik sei urteera, 1482'an Inghaterra eta Gipuzkoaren artean Ituna egin zutenean, orduan paketu ziran bien arteko artu-emanak.

Iratzeder'en bersoekin bukaduko degu lantxo au:
"...Txuti, Eskual-semeak
Eskualdun leihorreko harrokak bezela".

Arrinda Anes eta Donato



EUSKALDUN ERROMATAR ALDIA (III)

PIRENEE ETA AKITANIA'KO ARLOSAK

—Erroma'k Italia osoan luzatu zitun bere bideak. Mideterrane itxasoaren ertzetik zijoan Via Aurelia, Erroma'tik Tarragona'raño eltzen zana. Hispania'ra orduko bide on-en lerro bat ateratzen zan Narboana'tik Toulous'era etae andik Burdeos'era. Bide orretatik sartu ziran Akitania'ko euskal errira erromatarrek. Lerro orrek bazitun besoak egoalderuntz, Pirenee mendietan zear, Tarragona'tik Bribiesca'ra zijoan bideakin bat egiteko. Era orretara Akitania lotuta zegoen aide guztietatik eta bertarako ate guztiak zeuden zabalik...

—Orduan, on ala ba'da, edozein sartu zizekean barru artan...

—Orregaitik jaso zituzten erromatarrek euren "oppida" izeneko muño-gañetako gaztelu -sail bat. Baña, emen oietako "oppida" bakar bat izango degu begien aurrean: Lugdunum Convenarum, gaur eguneko St. Bertrand de Comminges. Euskalerria'ren egoaldean ikusi ditugu makiña bat jainkoen arlosak; inguru onetan ere badaude bat baño geiago erromatarren eta euskaldunen jainkoeri eskeiñiak. Pare orretako Pirenee gallurrean degu Garona ibaiaren sorburua, andik Burdeos'era dijoana. Gallur oietan sortzen da baita ere Adur ibaia, Baiona'ko itxasoan murgiltzandana.

— Or al daude arlosa oiek?

—Ibai oien iturburu eta ingumarietan daude euskaldun jainko txikiz betetako arlosak. Latiñez idatzita egon arren, euren jainkoen izenak euskaldunak dira. Eta ez dira ez nolanaiko jakinkoak; geure euskaldun buruetan oraindik orain bizirik zirauten. Ona zer zion D. Joxe Miguel Barandiaran'eri 1943'garren urtean 90 urteko agure batek:

"Gizonak badu lur bat bertan bizitzeko. Baña, andik aruntz ez du ez aalmenik, ez aalik. Odeiak gizonaren baime nik gabe dabilta gaiñetik. Lurazpiko eremuetan, berriz, deabruak dira nagusi. Deabruak lurgañera ateratzen dira animaliez jantzita eta animalia gisan. Bei-gorri, zaldi-xuri, aai eta suge...".

—Ori nere amamak ere sinisten zuen...

—Beigorri, zaldixuri, zezengorri, aari, aker, asto eta abar dira animalia itxuran munduan dabiltazen sorgin eta deabruak, euskaldun zaarren buruen neurrian... Orrelako siniskeri asko bildu dira gure artean, batez ere, Mari sorgin guztien erregiñari buruzkoak. Izen oiek berberak agertzen dira Pirenee mendiko arlosetan...

—Esan eiguzu izan batzuek.

—Ona zerrenda bat:

ANIMALIAK

ARITXO DEO (Adur ibaiaren iturburuan): Aritxo jainkoari eskeiñia.

MARTI ARIXONI: Marte Aritxo onari eskeiñia. Marte eta Aritxo alkartuta. Izan ere, asieran, Marte bera ere Aritxo zan.

ASTO ILLUNO DEO: Asto Illuna jainkoari eskeiñia. Aritxo'ren arlosatik gertu.



Arfosa: "Asco Illnro Deo ..."

BEIGORRITXO DEO (BEICORRIXO): Beigorri jainkoari eskeiñia. Garona ibaiaren iturburuan. Andik beera badaude arlosa geiago, baña izena aldatzen dijoo: Baigorriso, Baiorix, Baigorisco, Baigorrix, Buacorrrix, Buaiorix... Bai, Bai aldatzen da, euskeraren legera: au gertatzen da bi itz alkatzen diranean: Maite + kendu = Maitakunde. E biurtu da A.

AHER BELSTE DEO: Aker Beltza jainkoari. Bagneres de Luchon inguruan. H zan K latiñentzeko.

ABELIONI DEO: Abel On jainkoari. Abel itza berdin esan nai du Zezen ala Bei, eta Azkue'k dionez, Auntz, Ardi eta Ganadu besterik gabe. Dana dala, Ganadu Ona.

ABERRI DEO: Abel (gorri) jainkoari. Arixo eta Asto Illuno'tik gertu.

ERGE DEO: Ergi jainkoari. Idixko edo idi gaztaeri esaten zaio Ergi.

IDIATE DEO: Idiate jainkoari. Ate edo Athe, talde ere esan nai du: Idi-talde, ar-talde bezela.

ELE DEO: Ele jainkoari. Ele da ganadu taldea. Milia Lasurko olerkian easten da: "Aita jaunak ereisten dau elia / amandreak apaintzen obia".

EDELATI DEO: Zaldi-talde jainkoari. Ed-ele-ate: aurreko emen aitatutako bi jainkoetan agertzen dira Ele eta Ate. Ede, zaldiari aoan ipintzen zion burnia de Ede. Beraz zaldi talde au ezitako zaldien taldea da.

BASAERTE DEO: Basurde jainkoari. Arrizko aldara onek basurde bat du korrika, aldamen batean. St. Bertrand de Comminges alboan dago Gourdan erria eta onen auzo bat da Basert. Narotasun eta ugaritasunaren irudia da basurdea.

BOCCO HERAUSONI DEO: Heraus On jainkoari. Eraus (Zuberoa'n) txerr-arra da... Basurdearen antzeko narotasunean. Bocco zer da ez dakit.

ERDIT ETA ERDITSE DEO: Erditze jainkoari. Erditze ona artzai eta unai guztien aizken elburua da.

LEERENO DEO: Lekera On jainkoari... Animalien erne-

aziakin zer ikusia du. Ardiegia izena duen eliza batean daude amalau aldiz. Bostetan, Marte'rekin batera (Arixo berbera)...

ILLARGIA

ILLIXONI DEO: Illargitxo Ona jainkoari. (Luchon eta Bagneres de Luchon'en arlosa asko billatu zituzten). Luchon erriaren benetako izena llixon da.

ILLUNO DEO: Illuna jainkoari. Illargiaren illun aldiko jainkoari.

ILLUMBERRI DEO: Illun Berri jainkoari: Illunetik illargi ben-ira.



GARONA-GOIA "Peyresourde" BIDEA. LUCHON

MENDIAK

GARRI DEO: Gar jainkoari: Mendi gallurreko jainkoari (Gar-mendia, Gar-ate, Gar-aikoetxea...).

CARRI DEO: Aurrekoaren berdiña. C eta G nasten eta alkar illuntzen dute.

MENDIKO OLA-GIZONAK

AGEIO DEO: Pagani Ferrarienses: Agea jainkoari baserriko olagizonek. Agea itzak bi esan-nai ditu: arboletatik emaitzak botatzeko egur luzea eta oletan erabiltzen dan porra edo matxinoa.

ALAR DEO: Alar jainkoari. (Alar-be = ezigabeko). Eziketaren jainkoari.

ALAR DOSTO DEO: Alar totso jainkoari (D = T) Dosto=Totso. Agoa da labetatik ateratzen dan burni sail eta Totxo ago orren erdia. Alar=eziketa. Izan ere oletako matxinoak totxoaren burnia ezitzen du, animaliak ezitzen diran antzera... Totxo ezitzen duen jainkoari.

BESTERIK

LAKAE DEAE: Laka jainkosari, (A'kin amaitzen diran itzak emeak bait dira latinez). Laka itzak bi esan-nai ditu:

gurutzebide eta uraren zurrumbilloa. Garona ibaira dijoazen bi errekatxo alkartzen diran tokian zegoen aldara bat "Consecrani'ek jasota. Consecrani ziran jainko baten serbitzariek. Laka onek bazitun bere serbitzariek ere.

ERROMATARREN PANTEOIKO JAINKOAK

— Emen ere ba al dira orrelakoak?

—Bai, Euskalerrri osoan bezela emen ere erromatarrek ekarri zituzten euren jainkoak. Oien artean daude Jupiter, Marte, Mitra, Mater Magna, Sol Invicto, Apolo, Minerva, Tutela, Silvino, Diana, Ninfae, Dei Manes, Hercules...

—Mitra on lenago ere esanda daukazu.

—Sol Invicto Mitra'ren jaiera Ekialdetik ekarri zuten Erroma'ra eta andik gudariak bazter gurtietara zabaldu. Leize zuloetan zituen bere irudiak eta aldarak zezena gañean iltzeko. Berak menperatzen zuen illuna, berak argia sortzen eta berak argitzen zuen eguzkia. Urarekin zer-ikusi ere bazuen. Eguzkiaren argia eta ura, orra artzaiantzako bi gauza bearrezko. Mitra oven irudi bat Pireneetako leize baten atakan lurperatuta aurkitu zuten, 1.288 metrotik gora dagoen St-Lary-Sulan auzoan. Koba orrek ura Bario eta elizatzko bat dauka bere gañen jasota, ondorengo kristauk egia.

GIZAKIEN EUSKAL IZENAK

—Atal au amaitzeko ona arlosa oietan aurkitzen diran zenbait gizakien euskal izen:

OSSON PRIAMI FILIUS: Otso-on Priamoren semea.

HARBELEX HARSI FILIUS: Arbel-leize Artza'ren semea.

ANDERE ANDERESENI: Andere Anderesena.

ANDUS, ANDOSSO (Andotxo), ANDOXUS (Andotxo)

ANDEI DEAE: Jainkosa Aundiari.

ILUMBERRIXO ANDEREXO: Ilunberritxo Anderetxo.

CISON: Gizon.

LEXI DEO: Leizearen jainkoari.

Eta beste erdi-ipurdiko itz auk:

XUBAN, ULBELTESO, USECE, TULLONIO eta Araba eta Naparroa'n lenago ikusiak.

ARRINDA'TAR ANES



EUSKALDUNAK BARREKA**MOZKORTUTA OTE?**

Pototok Oto'ri:

- Bart, Oto, zearo mozkortuta itzan?
- Ni, mozkortuta...? Iñundik ere ez!
- Bai, gizona.
- Ezetz!
- Ez al aiz gogoratzen nola jeiki eta andre bateri eskeiñi iokan ire eserlekua?
- Nungo munduan bizi aiz? Ori al dek iretzat mozkorraren ezaugarri bat?
- Nola dan...
- Orrek esan nai dik ni gizon prestu bat naizela.
- I, prestua? Preskua, bai beintzat.
- Eta, gaiñera, emakumeari begirunea diotela...
- Ago ixilik, mutil.
- Zergaitik ixildu bear dut
- Gizona, gizona, autobusean i eta ni eta txoferra; besterik ez bait zan iñor...

AURRA OTO'REN ETXEAN

Aurra zuten etxean lau illebetekoa eta Agustinak andre Joxepa'ri:

- Zuek guraso onak zerate.
- Bai, orixe.
- Eta gauerdian aurra negarrez asten danean zein jekitzen zerate lenago, zu ala senarra.
- Ez bat eta ez beste.
- Zein, ba?
- Auzoko guztiak.

OTO'REN ORTZAK

Pototok Oto'ri:

- Eraneun etxera nekez jo genduan eta i, ire ustez, ez itzan batere mozkortu; baiña, andra Joxepak sekula zaratak atera omen zitun...
- Ez ainbestekoak; gaiñera aurreko bi ortzak kendu bearrezkoak nituan.

GARAJEAN

Otok garagera automobilla eraman baiño lenago, gizon zuurra danez, prezioa eskatzen du:

- Zenbat kostatuko zait berebillaren reparazioa?
- Lanaren neurrian.
- Zer neurri?
- Lanarena. Zureak zer lan du?
- Ez dakit.
- Orduan, ogei milla pezta.

TXILIBRISTO ETA ORDUA

Txilibristo Mexiko aldetik ibillia degu eta andik bi gauza aukeratu ditugu: kapel aundi-aundi bat eta lanerako alperra.

Oto inguratu zitzaionean, siesta ederra egiten zegoan, lurrean eserita eta egal-aundidun kapelaren itzalpean.

- Aizu, Txilibristo, esango aldidazu zer ordu dan?
- Besteak, lurretik mogitzeke, aldameneko astoari buz-tana jaso eta onela diotza:
- Bederatziak eta ogeita bi minutu.
- Aurrerago joanda, Otok eliztorreko ordularia ikusten du:
- Arraioa...! Ziur-ziur asmatu dik ordua iñungo errurik gabe. Astoaren ipurdiko zulotik nola asmatu ote du ordua ain xuxen...!
- Joanda berriro Txilibristo'arengana:
- Nola asmatu duzu ordua astoaren isatsa jasota...?
- Orrela eliztorreko ordularia ikusten dudalako.

OTOTXO KOSMONAUTA

Zortzigarren ikastaroan dabil Ototxo eta etorkizunera-ko prestatzen asi bear. Joan da aita irakaslearengana:

- Nere mutilla azkarra da, oso bizkorra; zer izango ote da egunen batean...?
- Kosmonauta.
- Kosmonauta, or goietan ibiltzekoa...?
- Bai, kosmonauta.
- Oi, zein eder...! Eta, zergaitik ori...?
- Ara: ikasgaia esplikatzen dudanean, orduan illargian egoten da; galdetzen diodanean, berriz, lañoetatik errotzen.

ARRINDA'TAR ANES**KOPIN AUSIA**

Aserre ugelen zapladakin zabilkidaz astindu gurarik. Zergatik, Jauna, dozu aldegin gure bion maite-egonetik?

Beti izan dot Zure alboan amodio lurrunen gozoa. Zergatik, ba gaur, nire lepoan ain gogorra zigor-erasoa?

Atzo, bai Jauna, Zuk baninduzun Zure begien kilikilia. Zergatik, baña, zergatik egun, dizdira guztien itzalia?

Len, egunek luzea altzoka; gaur, zer Jauna? Sastada lakarrak; aize latzak ditut azur-joka, gauak dakardaz izu-aztarrak.

Il bion arteko maitemiña? Sakonetik darizu aserre. Ba dakit zer dan bizien miña, amets larrosak dituna erre.

Orain ba dakit nik zer dan poza. Zur galtzea dakarren itunak darakust nire sentzunik eza. Aro ememduek matzu onenak.

EUSKALDUNAK ETA ARRAINTZA

ATAKA

EUSKALDUNAK sailleko irugarren alean esaten digu Lekuonatar'tar Manuelek onela:

"Oinarrizko iritzi jatorra da Etnologian, gogo-lantze edo kultura-aldiak bata bestearen ondoren etorri oi dirala; gizakia, eiztari da lenengo, artzain da urrena ta nekazari ondoren..."

Baziran, ordea, arrentzale ere eta tresnagille.

Arrantza da, aiñ xuxen ere, gure gaurko arazo-gaia eta ona emen ni gai onen berri eman nairik.

* * *

Euskaldunen artean gauza guztiak lerroak dituzte oso luzeak eta beuren sustraiak Histori-aurreko garaietara luzatzen zaizkigu.

Egia esan, ez degu uste euskaldun zaarretatik inor arrantza utsetik biziko zanik, gutxiago ere. Ori, arrantza utsetik bizi izatea, oraintsungo gertakizuna dezu, milla urtetik onerako arazoa. Eta milla uteko tartea, tarte txikia da euskaldunen kondaira luzcan.

Histori-aurreko euskaldunek aragia zeukaten mendian lau ankan gainean opero. Arraiña baiño ohea eta arrapatzen errezagoa. Legorreko aragia ohea.

* * *

Euskalduna eiztari izatetik, artzai eta nekazari izatera eldu ziren, denboraren poderioz; baiña, eizerako griña galtzeke. Ez bait-du oraindik galdu.

Itxasertzean segurantzi apur bat sotu zanean, orduna itxas-kolko-babeseetan agertu ziran arrantzale erriak. Esate baterako iziartik jetxitako nekazariak sortu zuten Deba erria eta portua. Zenbaitek geiegi aldatu ere ez. Itxas-ertzeako baserrietan maiz ikusi izan ditugu itai eta laien ondoan arpoiak, lau-ortzeko burniak kirten batekin, olagarruetako kakoak eta arrantzarako tretzak.

Iaioak dituzu baserritarrak bai gau-arrantzan, bai anguletan. Galdetu Sasiolan eta Aginagan. Eizea eta artzantza. melazaritza eta arrantza, guzti oiek alkar jotzen dute, aukera danean, euskaldun baserri zaarretan.

* * *

Histori-aurreko gizon euskaldunak ere, eiztaria izan arren, arrantzan ere bazekian. Gipuzkoako zazpi leize nagusiak ibeietan daude eta itxasotik gertu. Gipuzoako arrantzak leize oietan ditu bere aizken muturreko erro

eta zuztarrak. Gipuzkoan bezela Bizkaian eta Lapurdin ere.

Leizeetan arkitzen dira arantzarako arpoiak, geroago bale-arrantzan ainbesteko garrantzia izango duten arpoi oek; bertan arkitzen dira araiñ ezurrak; bertan, txirla-azal ugari-ugariak. Auetakoak Santimamiñen millaka asko dago. 25.000'ko talde batetik, 18.724 ostra-azalak ziran. Arraiñen marrazkiak daude mendiko animalien ondoan. Ekaingo leizean, Urola ibaiean, izoki eder baten irudia daukazu zaldi artean. Altzerriko leizean, berriz, Orion, izokiakin (salmón) batera, unaburua (dorada) eta arondo-lazak (rodababallos)...

* * *

Histori-aurreko gauari buruz baditugu argi-une txoak; baiña, argirik-eza eta illuna ere bai askotan. Gerora, berriz, illunbe aundiak.

Onenbestez egin dezagun salto bat Historiaraiño.

ASPALDIETAKO ARRAINTZAK

Arrantza arraiñetik dator. Emengo arraiñ aberatzenak auek dira: bisigua eta atuna, legatz eta sadiña, itxas-aingera eta abar.

Aitzodoetan beste arraiñ-mota asko izan oida. Arraiñ gozoak; baiña ekonomialdetik garrantzi akorik ez dutenak. Babel txiki-txilien lana. Gizon bat naikoa: lupiñ, urraburu, kraba, sarbo...

Ibaietan, berriz, angula eta izokiak ugari urak kutsatu ez diran arte.

* * *

Arrantza guztiak ez dira, ordea, berdin. Batzuek egiten dira legorretik gertuan; besteak, aurreragoko kaltetan; ondorengoak itxaso aundietan. Itxaso aundietara joaten diranean gure arrantzaleak legatz eta bakallau billa joan oi dira. Garai batean balearen ondoren ere bai.

Dana dala, arrantzara abiatzeko legorrean kai bat, babes-leku bat bear zan alde guztietako segurantzi apur batekin. Itxas-ertzean segurantzi apur bat sotu zanean, orduan agertu ziran itxas-kolkoetan arrantzale erriak.

Segurantzi itxas-lapurrek galdu zuten aspalditik. Gerora, euskaldunek beurak ere ez ziran itxas-lapur makalak gertatu. Lapurren aurka, erri-esiak kaiaren inguruan.

Itxasoak berak ere badakar berekin bere arriskua anontzen danean, Kaia bearrezkoa da arrisku oiek gainberatze-

ko. Gure itxaso onetan olatuak beti saltalde edo oestetik datoz: orregaitik kaiak lur-mutur baten babesena egon oir dira, sartaldeari bizkarra ematen eta eguzkiaren irteerari begira. Kastro-Urdiales, Bermeo, Elantxobe, Lekeitio, Ondarroa, Mutriku, Getaria, Pasaia, Ondarrabi, guzti oiek beuren eskerretik oeste aldetik mendia dute babes. Pasaia lur barrura sartzan dan kolkoa dezu, segurantzirik aundienakin.

Ibaiak ere batez dira babes-leku. Bilbo, Ondarroa, Deba. Zumaia, Ondarrabi, Doniane Loitzun, Baiona, auek guztiak ibaia dute kaiaren oiñarri.

Protua bear arrantzatik bizi izateko, arrantzale-erri izateko. Kaia badugu; itxasoan sartzeko artarako ontziak bearrezko. Nolako ontziak? Nolakoak bear diran arrantzak berak esango digu.

Gaur eguneko portueten, iru-arrantza mota diranez, iru ontzi mota izan oi dira: itxas-ertzean ibiltzeko dira potiañak edo betelak eta motor-txikiak; ontzi aundiagoak bajura-arrantzarako aurreragoko kaletan egiten dana (auek Galiziara eta Dakarrena ere joaten dira, Afrikako kostaldean); Irlandara legatzetan joateko alturako baporak... Baiña, Pasaian badira Terranoba eta Groendlandiara bakallautan joateko aundiagoak ere; 300 toneladatik 1.600 toneladarakoak (PYSBE'renak ziran aizkeneko auek).

* * *

Bear diran aldakuntzarekin, gaurko egoera, ontzieren buruz, eta orain bosteun urtekoa antzekoak dituzu. Ikus dezagun paper zaarrek esaten digutena orduko lekeition zeuden ontzieren buruz.

"Pinaza" aundiak eta "pinaza" txikiak zeuden.

"Pinaza" dokumentu zaarretan asko erabiltzen dan itza da. Txalupa bateri pinaza deitzen zioten eta iru mastako ontziari berdiñ.

Galiziara eta Irlandara joateko, alturko arrantza orduan, amasei metro luzeroko pinazak egiten zituzten, lau metro zituzten zabalerona eta iru metro beetik gorakoa. Barruan amarretik amalaurako gizon-sailla.

Gertuan ibiltzeko amar metroko pinazak egiten zituzten eta balea arrapatzeko zortzi gizonetzko eramaten zitun pinaza bakoitzak. Batzuetan zazpi edo sei ere joaten ziran.

Lau gizasemeentzako pinazak ere baziran.

Baita batel txikiak ere:

batel txikiak gizon bakarentzako edo bi gizonentzako;

motorrak lau gizonentzako legatzetan joateko gertuko kaleetan;

bajuarako ontziak, aundienetan amalau gizon, txikiagoetan, amar gizon.

* * *

Orduko euskalduna Terranobara bidean jarri zanean, ontziak ere artarakoak egin zitun: txikiak eun toneladakoak, aundienak seireun toneladakoak.

Gizasemeak, berriz, ontzi txikienetakoetan berrogeita bost ziran eta aundienetan irurogeita amabost.

Pasaian PYSBE (1927-1973) bakallautan asi zanean ontziak egin zitun 1.600 toneladakoak eta irurogeita bi gizaseme barruan.

Nik uste gauzak ez dirala ainbeste aldatu bosteun urte auetan: giza-beso-aren eta ainzearen orde, maki-na-indarra; besteak, antzeko xamar.

* * *

Amabost garren eunkian Lekeition egiten ziran ontzi aundiak auek ziran: galeoiak (beste bere izenak ziran nao ea patache), karabelak, zabrak eta frustak. Lekeition bezala ibai-erribera guztietan.

Galeoia: iru masta. Aurreko bietan lau-kudroko oialak; atzekoan, ial luzea goitik beerakoa. Goian estua eta beeran zabaka. luzanga eta ontzi ariña Uretan ibiltzeko. Ur-audietan ibiltzeko maiteenak euskaldunentzat.

Zabra: bi mastako ontzia. Masta bakoitzean luakiko oial bana. Oso antziñatik erabiltzen zutena euskaldeenek.

Fusta: arraunekin eta oialakin batera erabiltzen zan ontzia. Masta bateko edo biko. Oso ariña.

* * *

PORTUEN ANTOLAMENTUAK

Portu bakoitzean Korfradiak zeuden, beuren lege-zaarreakin portu bakoitzeko bizitza guztiak antolatzeko. Oituretan mamiturik zeuden lege oiek eta oso berandu idatzi ziran paperetan.

Lege aueri buruz ona zer zioten lekeitiarrak 1562 urtean:

"an tenido e tienen entre si las dichas hordenanzas, usos e costumbre e prebilegios pra en consebacion de la dich su Cofradia e de la nabegacion de ella, e con ellas se an regido e gobernado e se rigen e gobiernan en todas las cosas tocantes a la buena gorbarnacion de la dicha su Cofradia, las quales dichas ordenanzas son justas e buenas y en serbicio de Dios nuestro Señor e de su magestad y en probecho e utilidad de la dicha villa de Lequeitio, e sin perjuicio ni daño de nadie".

Legeak ez dira betirako izaten, gauzak eta gauzen ingurua aldatzen diranean eta orregaitik 1766an erabaki au arta zuten:

Lege oiek kofradiko ziran guztieri urteero irakurtzea ezer aldatu bear bazan aldatzeko:

ARRAINTZA

"en congreso público juntos y conragados en la casella de la athalaia... cada qual sin miedo y con ttodo liberttat exponga lo que añadir o quittaa se les debe; pero cada qual ha de exponer viéndose unos a otros y haciéndose cargo de las proporciones con ttodo conocimiento y urbanidad, sin albo-rotarse ni inquietarse".

Maiordomuak ziran Kofradiako buru egiten zutenak eta eurak zeuzkaten bear ziran indarrak eta aginteak legea bete-arazteko:

"disponen como jueces las cosas que tocan a la direzion de la mar y obseruancia de dichas ordenanzas".

Txalupa-maixuak ziran maiordomuen laguntzaille Kofradiaren gobernuan; baiña, batzar nagusietan boto bakar bana zeukaten, beste Kofradiko guztiek bezela.

Urteroko batzar nagusian diskutitzen ziran Kofradiako ordenamentu eta legeak. Itz-egiteko asko ziranen, lenengo ittza txalupa-maixuak zeukaten zaarretatik asita. Duda edo zalantza sortuko balitz zeñek lenen asi, orduan maiordomo izandakotik asi bearko litzake. Kanpotik etorritakoek ez zuten ez itzik ez boto-rik, alik-eta errian sei urtean bizi eta lanik egiten ez zuten artean.

"para que de este modo, assi inteligenciados, puedan resolver mexor y como se quiere sobre el assumpto de que fuere la conferencia".

Urte beterako aukeratzen zituzten maiordomoak Urrillaren lenengo egunean eta Ekainaren 30 an, urtea pasatzean, Kofradiko guztien aurrean, kontuak eman bear zituzten beuren buruak zuritzeko. (A.E.F. XII. 30-orrrialde).

* * *

Bi ziran, baita-ere, kai bakoitzeko seiñeruak. Talai-gizoana, berriz, bakarra.

Seiñeruak azaroren lenengo egunetan aukeratzen zituzten eta une beterako aukeratu ere. Zeñek aukeratzten zitun? Kofradiako maiordomoek eta auek txalupa-maixueri presentatu. Aukera ori ontzat ematen ez bazuten, orduan pratroien esku geratzen zan aukeramena.

Gaixo edo erritik kanpora joateko baziran, eurak, txalupa-maixuan baimenarekin, ordezkoak billa bear zituzten.

Beuren alogera Kofradiatik iru alditan jasotzen zuten: artarako izendatutako egunen zati bat; andik sei illebetera, bigarrena;urtea betetzen zuten egunean, irugarrena.

Gizon prestuak bear zuten izan eta itxaso-arazoetan ondo jantziak eta jakintsu. Beuren eginbearrak auek ziran:

Itxasoari begiratu ondoren, itxasorako baimena eman edo kendu. Zalantzarik ba da, Itxasorako maixueri dei

egiñ eta danen artean erabakia artu etxerako edo Itxasorako danean deiak egin bear dituzte kalerik-kale eta etxerik-etxe.

Lan ori egiteko neskatilla taldea daukate seiñeruek.

Zalantzako erabakietan, botoal atabaka batean bota oi zituzten bai seiñeruek eta bai txalupa-maixuek.

Bein itxasoann daudela, seiñeruren batek itxaso-aldaketaren susmoa balu, edo txalupak legorrera dijoatzela ikusiko balu, orduan bere señaleara jasoko du bere ontziko mastaren mutuurrera. Seiñalea ikustean, beste txalupak seiñeruari inguratuko zaizkio. Etxera joateko edo bertan gelditzeko, txalupa bakoitzak bere botoa emango du. Ondoren seiñeruak erakutsiko die bidea etxerako edo bertan gelditzeko.

Etxerako balitz erabakia, txalupa guztiek bearko dute etxerako bideak artu, zigorpean erori nai ez badute. Zalantza alturako arrantzan balitz, bajurako arrantzan gelditzeko baimena bada. Areago portu-aurreko arrantzetan.

Kaira eldu ondoren eguraldia onduko balu, orduan seiñeruek itxasora irten bear dute berriro, beste guztierri bidea erakutsiaz; ez bait-da egoki irabazibide bat, arrazoirik gabe, alperrik galtzea.

* * *

Talaiako gizonak bista-luzeko antiojua erosi eta egunero talaiara eraman bear izaten zuen, andik baleari begiratzeko eta beste arren antzeko arraiñeri.

Baldin ustegabeen, eguraldia txarrerako aldatuko balitz, itxasoan dabilten txaluperi, kearen bidez, seiñalea egingo die etxeratzeko. Kea ikustean, seiñeruek beuren seiñalea jasoko zuten masta-muturrera, txalupa guztiak legorrera bidean jartzeko.

Bale-arrantzarako estatxak eraman oi zituzten txalupa guztiek bestelako arrantzeetan ibiltzen ziraten ziranen ere. Bale batek aberastasun aundiak zekarzkin portura eta segurantzi guztiak artu bear ziran baleak alde egin ez zezan. Orretarako estatxak eta apareju guztiak ondo egotea konbeni. Seiñeruek bear zuten txalupa guztietako estatxak aztertu ono zeuden al ez ikusteko. Eta ono ez zeudenak zigortzeko; ez bait-dago eskubiderik balea bezelako aberastasuna galtzeko alperrikako arriskua jartzetik.

* * *

Talai-gizona negurako bakarrik aukeratzen zan: Azarotik Marti-erdira. Balea neguan agertzen zan kostalde onetan eta balea zan talaiaren arrazoi berezia. Soldata Kofradiatik jasotzen zuan ea seiñerueri bezela, iru alditan ordaintzen zitzaion.

Talai-gizonak itxasoko arrai eta beste abere guztien berri ondo zekiña bear zuan izan, bata bestearengandik ondo bereizteko eta seiñale bakoitza bereiziki egiteko;

seiñaleak ondo egitea bait-zan bere eginbearrik nagusia.

BALE-ARRANTZA

Euskaldunen arrantza-histori guztian bale-arrantza izan zan ederrena. Balea itxasoan bizi dan aberea da eta titiak ditu tripa-barrenean. Bale-mota asko (lago: batzuek bizardunak eta agindunak besteak.

Bizkaiko Balea (Balaena Biscayensis asieran eta gerora Balaena Glacialis zeritzana) buru-kakoduna zan eta bizardun. Groenlandiako izotz-artean bizi zan ea andik jentxi oi zan Kantauri itxasora eta emen euskdunek arrapatu.

Gerora ikasi zuten gure aurrekoek bertara joaten bale-billa. Eta en, moltsotan zebillela ikusi zuten. Orregaotik Sardako Balen izena jarri zioten.

* * *

Baleak kantauri-itxasora banan-banan etorri oi ziran. Ama bere umearekin ere bai. Noiz-beinka, erra emearen ondoren.

Sardako Baleak ia alde egin du mundo onetatik, arrantzarako tresnak aldatu diran neurrian. Gaurko egunez ontziak motordunak dituzu; arpoiaren barnean, dinamita; arpoia botatzeko, berriz, gira-besoaren ordez kañoia.

* * *

Euskaldunak izan ziran lenenoko bale-arrantzaleak.

Asieran, beuren kostaldean, kaietatik gertu eta banan-banan. Urte asko igaro zuten zeregiñ onetan eta bitarte orretan bale-arrantzarako teknika asma eta osotu zituzten. Baita baleari probetxua ateratzeko erak arkitu ere.

Balea arrapatu bear zan lenengo eta gero portura ekarri.

Gero legorrera jaco, zatitu, koipeak urtu, gorde eta saldu. Lan aundiak sortzen zitun bale batek, irabazi aberatsak eta alogera ugariak.

* * *

Balearen arrantzari buruzko paparetako berriak 1.200'n urtean agertzen dira. Urte orretako, Abenduak 31, dokumentu batean au agertzen da: Mutrikuarrak arrapatutako bale bat Kastillako Errege Alfonso zortzi-garrean Santiagori eskeintzen diola.

Aurreragoko aztarnak ere ba dira:

1.059 urtean bale-aragia saltzeko baimen berezia eskatzen du Baionako plazak. Inguru aietan balea arrapatzen zan seiñalea.

Geroragoko berrietatik beste au ere badakigu: Gipuzkoan ez zala bale-aragirik jaten. Jateko aragiak Baionara bialtzen zituzten.

Beste aldetik, berriz, esdribitzeko afizio aundirik ez ziguten gure aurrekoek agertu. Paperetan fede gutxi, nunbait. Ez da ba arritzeko gauza auen berri paperetan gutxi agertzen badira. Eta agertzen diranean, bitartean burruka dagoelako agertzen dira. Bestela, ez.

Oietako bat degu Privilegio Rodado derutzan dokumentua. 1.233 urtean egiña.

Toledoko unan izenpetua. Erregeak berak ematen dio bere buruari Mutrikuarrak arrapatuko dituzten baleetatik bat, urteero eta betiko. Ondoren zeruak eta inpernuak astintzen ditu bere borondateari uko egingo diotenen aurka.

* * *

Ingles, danes, holandar, noruego eta rusoak 1.600 n. urte inguruan asi ziran bale-arrantzan, euskaldunek Ifar-aldeko itxasoetan jasotzen zituzten aberastasunak ikusi ondoren.

Ameriketara euskaldunek etxean erabiltzen zituzten teknikak berberak eraman zituzten alde aundirik gabe, atzeritarrei erakutsiko zien teknikak. Erakusbide orreatik sortuko zan gerora gure ondamendia.

NOLA ARRAPATZEN ZUTEN BALEA

Kai bakoitzak bazuen bere talai-gizoana. Onek, balea ikustean, seiñale berezia egin bear zuen. Talaiako seiñalea ikustearekin batera, asiko ziran deika Kofradiako kanpaiak eten-gabea; baita pregoiak ere kalerik-kale kantoi guztietan. Jende guztiak, eurak ere, seiñalearen berri ona zabalduko zuten erriko txoko guztietara.

Zergaitik ainbeste istillu?

Ikusitako balea len-bait-len arrapatzea kobeni eta errira ekartzea. Orretarako auzoko kaietako ontzieri aurea artu bear. Aberastasun aundiak zekarzkin bale batek. Zamba-ta txalupa geiago presatu, ainbat-eta arrantzua seguroago.

Itxasotik bizi ziran. Arraiñ txikietik: bixigu, legatz, aingera, sardiña... Kalderilla utsa. Balea, berriz, urre-ontzako eltzea zan.

* * *

Talaiako seiñaleak biztu ditu erriko bastarrak. Erlauntza dirudi kai-inguruak. Etxeetako ate guztietatik mutil gazteak eta gizaseme gordiñak, bakoitzak bere tresnak bizkarrean, ausardia bekokian eta sua begietan. Ainbeste egunen buruan itxarotako unea eldu da.

ARRAINTZA

Txalupak, geienak zortzi gizonezkoekin, asi dira arraunean, kaietik itxaso zabalera, bale-billa. Sei arraunlari, edo zazpi, arraunak eskuetan eta popan txalupa-maixua arraun luze batekin. Estropadak asita daude, zein leenago baleari inguratu. Bat, bi, tau, zortzi txalupak, abanikoaren antzera, itxasoan zabaltzen ari dira, balea erdian arrapatzeko.

Txalupa bat eldu zaio ondora. Beste guztiak gelditu dira. Zai daude. Maixuak arpoilariari keinu egiten dio noiz jo. Onek oiñ bata brankan eta bestea tostan sendotuko ditu, arpoia eskuan. Urreratu dute, ixilka, txalupa muturra balearen ondora.

Bat, batean, arpoi luzca aidean eta sartu aragi koipe-tsu artan barru-barruraino.

Txalupa igesi doa; balea, berriz, miñak eraginda, esatza aztindu du txalupa iraultzeko arriskuan. Murgildu da balea ur-azpian, arpoia eta soka bere ondoren eramanaz. Arpoiak eutsi dio. Beste txalupa baten ingururan agertu da balea ur-azalean. Sartu diote beste arpoi bat txalupatik. Aberean murgildu da berriro. Orain bi soka daramazki bere ondoren. Naikoak dira. Oiek eutsiko diote.

* * *

Balea preso dago; baiña, oraindik bizirik. Il egin bear da eta ori ez da gauza erreza. Orretarako xabolinak erabilli bear. Xaboliñak ez dute kakorik bere muturrean eta sartu-irtena erreza dute. Txalupa guztiak saiatuko dira beuren xaboliñak balearen gorutzean sartzen.

Birika edo biotz-inguruan sartu bear da xaboliña balea odol aundietan jartzeko eta ori orrela gertatzen dansan, orduan erreza da balea akabatzen. Odol txiki-tatik gaitza da aberea iltzen.

Aizkenetko arnasetan dabil balea; murgil egiten du bein eta berriz kresala odoletan gorrituz. Azkenik, burruka amaitu da.

Orain, txalupa guztien arean, atoian edo erremul-kan, portura eraman bear aberea. Marea-puntan ondartzan laga, gero, ura jetxita, polearen bitartez gora jaso.

Lan orretarako puntalak, poleak eta soka lodiak bearezko dira eta kai guztietan egon oi dira prest.

Balearen ondoren jasoko zituzten txalupak ere legorrera.

* * *

Arriskuak pasa dira, orain datozte irabaziak; benetan egia zala arrantzalearen otoitza:

"Biziarengaitik dugu arriskatzen bizia".

IRABAZIAK ZABALTZEN

Salmenta Kofradian egiten zan. Maiburuan Kofradiako bi Maiodomoak, txalupetako patroiak eta lege-

gizona notaritza egiteko. Argizaria piztuko dute. Orrek irauten duan artean iraungo du dalmentaren jokoa:

"primeramente pusieron por empresa calidad y condición que toas las ballenas... se pongan en almoneda y candela pública... por testimonio de escribano público que de ello dé fe y con asistencia de los Maiodomos y los Maestre-txalupas que se hallaren en dicho puerto". Debako Ordenamentu Berriak, 1685.

* * *

Geien ematen dunak eramango du balea zatituta, labean urtetzeko. Labeak egon bear zuten erritik kanpora, koipeak urtutzean usai txarra sortzen zalakoz.

Irabaziak banatzen asi aurretik gauza aukeratu kontuan izan bear zituzten:

Zenbaitetan balearen buztanak txalupan jo oi zuan, arraunak zatituz, gizonak uretara jaurtiz eta txalupa berbera ondoratuz. Gertakizun negargarri auetarako erri-legeak eta oiturak beure neurriak artuta zituzten. Txalupa eta gizonen okerrak, balearen bizkarretik ordaindu bear ziran, sari-banaketak asi baiña leen. Okerrak egin ondoren, baleek iges egingo balu, orduan Kofradiatik egingo ziran ordainketa aukeratu.

* * *

Talai-gizonentzako, berak balea ikusi badu, balearen zati bat. Lenengo arpoia sartu daunari bi kintal okela. Ondorengo beste bost arpoi sartutakoeri kintal bana. Xaboliñ bakoitzeko bosna libra aragi... Aukeratu dira "abantaillak" edo sariak.

Bale aundia zan amar lendariziko txalupek zuten sari ori. Lenengo arpoia sartu dion txalupari buztanetik eta burutik laurdena (esanda daukagu arpoilariari bi kintal okela emten ziotela gaiñera). Beste buru eta buztanaren iru laurdenak bederatzi txalupen artean banatuko dira bakoitzak parte artu duan neurriri. Estatxa edo apareju onak erabiltzeagaitik ere ba zuten bere saria. Beste alditik, berriz, zigorra ere bai estatxak gaizki daudeanean. Ori seiñeruek ikusi bear.

Bale-kumea izan balitz, orduan berdiñ bantuko ziran abantzillak edo sariak; baiña sei txalupeen artean bakarrik.

Beñiñ okerrak, abantaillak eta mingaiña ordainduz gero, gelditzen zana, zati aundia oraindik, balea il baiña leen parte artutako txalupen artean banatzen zan.

Lekeition mingaiñetik iru zatitatik bat eleizentzako zan; beste biak, erriko moillak konpontzeko. Eleizak bere kontura "manobrero" bat bear zuen eduki, baleak eta ontziak legorreta jasotzeko bear zuen eduki, beleak eta ontziak legorrera jasotzeko bear ziran tresna guztiekin.

Gizonez eta estatxaz ondo ornitutako txalupa guztiek irten zezaketen arrantzara. Itxasoan bale bat baiño geiago balego, eta bale batek iges egiñ, bale orren ondoren ibillitako guztiak ere arrapatutakoen partillan sartu bear ziran.

* * *

Toki eta garai guztietan berdiñ izan ez bazan ere, gutxi gora-berea antzekoak ziran. Getarian, esate baterako, bale bakoitzetik iru zati egiten ziran. Bat erriarentzat moillak eta kaia zaintzeko; bigarren zatia txalupa-maixuentzako beurenak izaten bait ziran txalupa eta tresna guztiak; irugarrena, mariñelen anean zabaltzeko. Aurretik sariak banatu bear eta okerrak zuzendu.

* * *

Baleak eta beste arrainek ordaintzen zituzten beste zorrak ere gure kaietan.

Garai batean agindua eman zien erregeak getariarrei, berari zor zioten bale-erdia Donostiako Prebosteari emateko. Baiña, erriko jendeak agintzeko juezak aukeratu zituzten kontzaille. Bale-erdiaren orde, 640 burni-kintal ematekotan gelditu ziran.

Erriak "villa" (bilduak) egiten ziranean, arraiñetatik onenbesteko bat eskatzen zieten erritik kanporako agintariak.

Eztabaidak sortzen ziran aundiak. Ala gertatu zan Lekeition ere. Prebosteak amabostna arraiñetatik bat eskatzen zien jaiero. Baiña arrantzaleak ez ziran orrekin konforme eta burrukan ekin zioten luzaroan. 1457 tik 1.536 raiñoko burrukatik auek ateratzen ditugu:

Eun arraiñetatik Prebostearentzako iru zirala.

Baiña, saldutako arraiñetatik bakarrik eta ez saldu gabe gelditzen ziranetik. Ezta ere beuren otzara edo saskiten arrantzala bakoitzak txera eraman oi zuenetik.

Eta iru arrainek bakarrik ordaintzen zutela zor ori: amabi brazako itxasotik kanpora arrapatzen zituzten bixigu, legatz eta itxas-aingerak. Ez beste arraiñek. Gaiñera kontztzen asi baiño leen karnatera prezioa kendu bear zan eta beste berezko gastuak. Gelditzen zanetik, eunetik bat Prebostearentzat.

ARRANTZALEEN EKINTZARIK AUNDIENA

Neguro lau illabeteetan egiten zuten bale-arrantza, beste arrantzari utzi gabe. Bataz-beste Getarian gutxienez lau eta geienez amar bale arrapa oi zituzten XVI ganen eukiaren asieran. Kilotan jarri ezker, milloi erdi kilotik milloi t'erdia. Millaka kilo asko dira aragitan, koipeetan, bizarretan...

Alaz ere, balea gure itxasoetatik alde egiten asita zegoan.

Balea Ifar-aldeetik zetorren. An, goi artan bizi zan eta itxasoa izozten zanean, orduan zenbait baleek ego-alderutz jotzen zuten gure Kostaldean agertzeko.

Gure arrantzaleek Galizia eta Irlandako aldeak eza-guzten zituzten aspalditik. Bai Islandia bera ere.

Errez jo zuten terranobara.

Noiz? Ez dakigu noiz. Colonek Ameriketa aurkitu baiño leen? Euskaldun ez diran zenbait idazleek ala ditoe. Dana dala eta dena den, Ameriketako bideak azaldu ziranean, an zeuden gure arrantzaleak balearen ondoren San Lorenzo ibaiaren agoan. Terranobako beste aldetik dago eta itxaso naiko zabala egiten du kolko batean gordeta.

Antxe arkitu zuten Euskalerriko balea sardatan, molsotan eta ordutik izena jarri zioten Sardako Balea. Gertakizun onek eragingo zitun gure euskal portu guztiak, berreun ontzi baiño geiago Terranoba bidean jartzeko. Ontzi bakoitzean gutxienez 45 gizasemem eta geienez 75, ontziaren neurrian.

* * *

Ontziak ziran edo galeoi edo karabela. Aundiak. Txikienak, gerora bakallautan zebiltzenak, 100 toneladakoak. Aundienak 600 toneladako ontziak.

Aberastasunarekin batera lapurrak ere agertu ziran (oietatik ez gutxi politika arazoak sortutako lapurrak) eta ontziak armatuta jan oi ziran, bai kañoiez, bai arkabuzaz, bai ballestaz, espetaz eta abar.

Itxas-ontzi auek danak gure erreka baztarretan egiten ziran.

Balea urtu egiten zuten, gero Euskalerrira koipea ekartzeko. Koipea urtutzeko labeak jaso eta labeekin batera egurrezko moillak eta txabolak. Orretarako ondartzeta edo kaitxo bat aukera bear zuten. Orrelako lekuak millka daude pareje aietan.

Tokia aukeratzean lenengo lana zan, egur baten muturrean ontziaren izena jartzean, eta izenakin batera etorritako eguna. Besterik ez zan an sartuko burrukarako eza bazan.

* * *

Tokia aukeratu, labeaka eta txabolak jaso, gizonak legorrerako aukeratu eta beste guztiak balearen ondoren.

Koipea barriketan ekartzen zuten eta barrika oiek ondo ekartzeko, ontzi bakoitzak iru kubierta zitun bata bestearen gaiñean. Kubierta oietan barrika alkarri santsita, elkanengana bilduta, jartzen zituzten segurantziagatik. Itxasoa arrotzen danean eta barrikak mogitzen asiko balira batetik bestera ondamendia sortuko litzake ontzian. Ontzi asko ondoratu dira itxasoan barruko kargaren mogimentuak itzulita.

ARRAINTZA

* * *

Masta-gaiñeko zaindaria "balea ezkeratik edo eskubitik" deadar egitean, kapitana igoko da mastan-gora zer bale dan eta nundik jokatu erabakitzeko. Bi kilometrorra inguratzen diranean, orduan bota bear dira txalupak uretara, belaz edo arraunez balearen ingurura joateko. Guztiak ixil; toletak amukoz bilduak ea estroboak koipez, otsik ez ateratzeko.

Lau txalupa ontzi bakoitzean: leengoan kapitana dijoa partroi, bigarrenean pillotua, irugarrenean mai-xua eta laugarrenean kontramaixua. Ortik aurrera Euskalerrian bezela jokatu dute balea arrapatu eta ondar-tzara erameteko.

INDIOEKIN TRATOAK

Indioekin izan zituzten tratoak beti izan ziran lagun arteko tratoak. Aiek kastor-narruak eskeiñi; auek, gureak: narruen orde burnizko lanabesak (aizkora, aisto, azkon eta abar), sagardoa ea ogi trukean. Orrezaz gaiñera lan ere eskeintzen zietan alogeran. Euskaldun- en lagun zintzoak eta laguntzaille benetakoak izan ziran, eskimalak ez beste guztiak.

Eskimalekin eun urteko asarre bizia izan zuten, gureak aien buruzegi baten emazta arrapatu zutelako. Pekatu au ez zieten euskalduneri eskimalek zekulan barkatu.

Beste guztiekin beti ibilli ziran pakean. Udaberritik udazkenara egongo ziran alkarrekin. Gero, agur eta datoren urterarta.

Euskaldunak ez ziran ez konkistadore, ez politiko, ez kolonizadore. Arrantzaleak ziran uts-utsik. Indioekin artu-amanetan paketsu ibili ondoren, berreiro Euskalerrira biurtzen ziran indioeri beuran lurraren jabeta-sunik kentzeke...

* * *

Egoera orretan ibiltzeak eta tankera orretan jokatzeak galdu zitun euskaldunak gerora. Jokaera jatorrean zebiltzan euskaldunak beste errien maltzurke-riak galdu zitun. Batez ere Inglaterraren maltzurke-riak.

Nola?

XVI'garren eukiaren asieratik gutxienez zebiltzan euskaldunak arrantzan Terranoba eta Kanadako itxa-soetan; gerora etorri ziran inglesak eta auek bota zituzten itxaso aietatik gure arrantzaleak sakulako. Kolonizatu zituzten indioen lurak eta lurretik itxa-soen jabe egin ziran, gaurko egunez gertatzen ari zai-gun bezela.

* * *

Maltzuekeria agertu zuten garbi asko. Lenengo, euskaldunen askuetatik ikasi zuten bale-arrentza, euskaldun txalupa-maixu eta arpoilariak beuren barkustan eramenaz. Maiz izan gera euskaldunak etxe-kalte eta arazo onetan ere alaxe izan ziran gue aurrekoak; bakoitzak berea jasotzeagatik guztien ondamendiaren alde jokatu.

Bale-arrantzan ikasi ondoren, bale-arrantzarako alkarte aundiak eta indartsuak sortu.

Ordurako gobernadoreak jarrita zauzkaten bai Inglaterrak eta bai Frantziak Terranoba eta Kanadako lurraldeetan. Gobernadore auek bale-arantzarako kon-paño barrietan parte ziralarik, euskalduneri petxak eta eragozpenak lepoan ezarri, askatasuna kendu eta indioen kastor-narruak euak jaco...

* * *

Eta, emengo agintariak?

Madrid'era begira. Madrid'en, ordea, beste lanik bazuten Ameriketa osoan, an goiko Terranobako punta arten zebiltzan euskaldun arrantzaleari begiratzeko.

Arrantzaleak, eurak, iñoren laguntzarik gabe, jokatu bear eta geienetan alkarren arteko batasunik gabe.

Felipe Bigarrenak moltoan joateko agindu zien; baiña, naiago zutela bakarka erantzun zien.

BURRUKAK: ONDAMENDIA

Españiak zitun burrukak (Frantzia edo Inglaterrarekin) itxasoraño zabaltzen ziran. Lurraren jabe etsaiak eta itxasoan burrukak. Euskaldunak burrukan sartu ziran eta Terranobako barkuak kaiñoiez eta beste edo-zer klaseko armaz ondo ornituak joaten ziran, burruka-rako prest.

Ortik sortu ziran itxas-lapurrak.

Korsarioak, alegia.

* * *

Terranobara joan-etorria egiteko gauza asko ziran bearrezko ontzian: masta, aingura, bela, era guztietako sokak, txalupak bakoitza bere tresna guztiekin, emoko edo istupa, pikea ontzia istupatzeko (kalafatearen lana zan). Ontzia istupatu bear zan azpitik, aldamenetatik eta gaiñetik Terranobara irten baiño leen. Gero, berriz, andik onantza ere berdiñ egin bear zan itxaso aundia aldetik-alde igarotzeko. Lan oiek egiteko bearrezkoa zan abere-koipea, kintal bat.

Arrantzarako tresnak bear ziran, txalupetatik asi eta arpoi, xabolin, estatxa eta abar. Ugari.

Labeak egiteko gaiak eta koipe urtua lortzeko bear ziran tresna guztiak: aizkora eta aisto koipe eta aragiak ebagitzeko, tiña eta barridak koipe erabili eta gorde-tzeko. Egur-ikatsa labear pizteko.

Janariak eta edariak: ogia, galletak, aragia, zezina, urdaia, babak, ardo, sagardo, txakolin, pattar...

Arrantzale bakoitzak narruzko jantzi bereziak lane-rako.

* * *

Diru asko bear zen ontzia antolatzeko eta orretarako dirua aurretzen zutenak ere ba ziran. Korritua eue-netik 28, 29 eta 30. Diru galestia: baiña, bearrezkoa.

Ba ziran segurantzia ematen zutenak ere.

Artean inglesak ez zuten beuren barkuen seguran-tzirik egiten. Inglesak 1604'ean asi ziran barkuen segurantzia egiten. Euskaldunek 50 urtetik gutxienez artu zien aurrea ingleseri. Tresna, ontzi, koipe edo bakaillau eta gizasemeak, ora danak segoipean jarriak Juan López de Soto'ren bitartez.

Bera zan segurantziak ematen zituna.

1567'tik 1569'ra gizon onek egin zitun seguroen berri Burgos ko Konsuladoan daude. An agertzen dira, bi urte oietan, Debatik Joan de Espilla, Domingo de Sorazu, Miguel Zerain, Iziartik Pedro Otxoa de Arriola; Mutrikutik Esteban Lete eta Domingo Gan-txegi; Elgoibartik Andres de Alzola eta Joanes Boli-bar; Azpeitiatik Joan de Otxoa; Azkoitiatik Martin Perez Idiakez eta Domingo López Irazarra; Oñatitik Joan Igarza; Oiartzundik Miguel Isasa; Pasaiatik Miguel de Villaviciosa eta Ramón de Arrieta; Erren-deritik Juan Zubieta; Donostiatik Juan de Erauso eta abar...

Ontzien kapitanak ziran guzti oiek.

* * *

Arrantzu auetako jokoan iru alderdik parte artzen zuten: ontziaren nagusia bat, armadorea bere poltxatik arrantzarako bear ziranak prestatu zituna bi eta kapita-na tripulazioarekin iru.

Banaketa onelatsu egiten zuten: irutik zati bat arrantzaleentzako; beste irutik biak nagusiarentzat eta armadorrarentzat. Baiña, arrantzaleeri ematen zitzaiz-kien abantailla eta sariak armadorearen bizkarretik ziran. Esate baterako, arpoilariak beuren saria eta abantaillak jasotzen zituzten, bere lanaren arabera: arpoi geiago sartutakoak geiago jasotzen zuan abantail-lez, Euskalerriko errietan egiten zan bezela.

1566'an Debako kapitan Joan de Espillak 1.195 barrika koipe ekarri zitun Terranobako itxasoetatik. Ontziaren jabea Landaverde bilbotarra zan eta diruak jarri zitunak barkua armatzeko beste bilbotar bar. Ona nola zabaldu zituzten 1.195 barrika aiek.

Tripulazioak irutik bat = 398 barrika koipe.

Nagusiak = 298 t'erdi

Armadoreak = 497 t'erdi

Armadoreak banatu zitun bere barrika oietatik abantailletan: 113 1/3 barrika.

Nagusiak, berriz: 25 5/6 barrika, berak aukeratu zitun gizoneri. Auek dira: kapitana, kontramaixua, aro-tza, kalafatea, zaindaria eta kañoi-zaindaria.

Berak, 398 barrika danen artean banatu ziran neurri berean. Gaiñera, beste 113 1/3 armadorenak eta 25 5/6 barrika nagusienak ere tripulazioan zabaldu ziran: baiña, bakoitzari eure abantailen neurrian.

* * *

Terranoba, Kanada eta inguruko itxasoak oso ziran aberatsak. Lurrak kolonizatu zituzten eta euren artean banatu ere onetara: Kanada inglesentzako, Terranoba ingurua frantsesentzako, Groenlandia danesentzako. Eta, euskaldunentzako, zer?

Ezer ez.

* * *

Beste guztien merituak gutxi-etsi gabe (dio Belan-ger jaun kanadatarrak) ordua da euskaldunak argitara ekartzeko; batez ere XVI'garren eunkian egin zuten lanagaitik... Ez ziran lurbilla zebiltzen esploradoreak, ez eta lurraren jabe egin nai zuten kolonoak...

Oiek danak orrela dirala, eta erri askoren maixu izan arren, andik bota zituzten.

Amaseigarren eunki osoan beurak izan ziran itxaso aien jau eta jabe, iñori eragozpenik jartzeke; baiña, eunki orren aizken aldera gauzak okertzen asi ziran.

Amazazpi garrenean, okerrago.

Emezortzigarrenan eman zioten "puntilla" euskal-dun terranobazaleen arazoari, Utrech eko Itunean. Itun au gerra baten amaiera izan zan: Ingalterra eta Holan-dak Espaiña eta Frantziaren aurka zeukatzen gerraren amaiera.

* * *

Esanda daukagu nola lurraren jabe egin ziranak itxasoaren jabe ere egin zirala. Euskaldunak, beste biderik ezean, bakoitzak bere kasa burrukari eldu zion eta itxas-lapurretara jo. Etsai aundia aurrean eta ausar-keriak ez zuan azken onik izan.

Azkenaren azkena Utrech'eko Ituna: 1713-VIII-13'tan.

Urte orren ibeltzean, Ituna firmatu aurretik, Gipuz-koako Junta Jeneralak auxe eskatzen zion Espaiñaiko Erregari: Euskaldunak Terranoban arrantza egiteko zeukatzen eskubide zearrak ondo zaintzeko. Egingo zituztela alegiak. Baiña, dana alperrik.

* * *

ARRANTZIA

Terranobarako bideak amaitu ziran: aurrera, ez bale eta ez bakaillau.

Baillaua ez degu aitatu ere Terranobako arrantzetan; bigarren klaseko arrantzia bait zan. Euskaldunak bale-billa joan ziran Terranobara; an bakaillaua itxaso-etzali arkitu zutenean, bakaillauari ere eldu zioten. Ordezko arrantzia zan. Ontzi txikienak egiten zuten bakillautan.

Berreun urteetan Terranobara joateke egon ondoren, 1927 urtean PYSSE'k eldu zion berriro bakaillau arrantzari. Euskaldunak izan ziran mundu baztarreeta-ko arrien maixu bale-arrantzia nagusian eta, aien semeak bakaillaua arrapatu eta ondutzeko atzerrira joan bear maixu billa.

Bretoiñak izan ziran berritze onetan euskaldunen maixu. Euskaldun zaarrek arrai sikua, aizeetan legortua ekarri oi zuten Euskalerrira. Bretoiñe, berriz, arrain "berdea", legortu-gabea, bodega barruan gatzetan. Eta PISBE'ko arrantzaleak orrela ekarri izan zuten Pasaia-ra bakaillaua 1927 tik 1973'ra. PYSBE giputxa zan, donostiarrek Pasaian sortutako konpañia. 1.600 toneladako 17 barku izan zitun batera; 62 gizaseme barku bakoitzak barman...

Onen ondoren, eta konpañi onetatik irtendako gizonekin ornituak, sortu ziran geroago PEBSA eta COPIBA Santander eta Vigon bakaillau arrantzarako.

* * *

Kanadako Gobernuak berriro, 1976'ko Uztaillaren azkeneko egunean itxi ditu betirako Terranobako San Lorenzo ibaiaren ao zabaleko atreak.

* * *

AZKEN URTEETAN

Euskalerrriaren arrantzia-historiaren zatirik ederrena eriotzaren illunpean sartu zanean, gure kaien egoera ez zan eder-ederra. Ona zer zion Dr. Camino Orella jaunak bere "Historia de San Sebastián" liburuan:

qué utilidades no redundarían de ello al comercio de la costa de Guipúzcoa, que desde que se abandonó la pesca del bacalao y la ballena se hallan en lamentable estado, disminuida su población, arruinados sus edificios, causando descon-suelo... sin que se vean en sus puertos sino algunas lanchas de pobres pescadores..."

* * *

Baporak sortu ziranean 1920'aren inguruan, asi ziran gure portuak berriro pizten. Ez ziran aundiak; baiña, erreztasuna ekarri zuten itxasoko joan-etorriak egiteko. Ikatzakin zebiltzan.

Gerora bapor aiek Galizi aldera saldu ziran, berriak eta aundiagoak egiteko. Auek gasoilla erretzen zuten. Auekin ere pokiki jarrai zuten arrantzan. Baiña, beti aurrerapenari begira, aizken urte auetan (1960'garren urtetik edo) barkuak egin dira aundiagoak, eta aundiegiak gertatu dira emango arrantzia bajurako.

Berriro (1970'tik edo) ontzi txikietara goaz. Lekei-tio dut begien aurrean. Saldu dituzte eta saltzen ari dira aizken aldietako ontzi aundiak eta, oien ordez, txikia-goak egiten asiak daude: lau edo bost gizonentzako ontziak. Bixigu, legatz, itxas-aingeraetan berriz ekin-tzeko aintxinakoen antzera.

* * *

Garai auetakoak ditugu ere biñaka dijoazten barku-arrastreroak. Auek Irlandako itxasoetara dijoaz. Aberastasun aundiak ekarri dituzte Pasaira eta Ondarrura batez ere.

1977'garren urteak eman dio arrantzia oneri mazo aundiakin burua, berreun millak dirata eta ez-dirala. Irlanda eta inguruko itxasoeri atepak jarri dizkiete gure ontzientzat. Eragozpenak izugarriak. Ondamendia berriro gure arrantzaleentzat. Ez dakit uñ onen azpitik sekula aterako geran. Egoera negargarria berriro gure artekoa. Sardiñarik ez da aspalditik Kantauri itxasoan agertzen; antxoa eta bokarta Frantziako uretan gorde-tzen da, bizxiguetara barku aundiak ez dijoaz. Atuna gelditzen zaigu Galizi partean edo Algecirasen edo Dakarren.

Besteri, zer?

Frantziatik onuntz datorren antxoa apur bat edo Fran-tzian bertan, preso gelditzeko arriskuan, arrapatutakoa.

Gauza gutxi.

Itxasoa bera ere naiko loa eta zikiña.

Iru Zentral Nuklearrak (Lemoniz, Ea eta Deba) bakar-bakarrik falta ditugu R.I.P. portuetan jartzeko: requiescant in pace.

Emen izan ziren gizon ausartak, itxaso aundietan arrantzale iaioak. Izan ziren...

ANES ARRINDA
(Deba'n, 1975)

EUSKALDUNAK ETA BALEA

I

EUSKALDUNAK ETA BALEA

Lekeitio'ko Udaletxean, enparantzara begira, auxe egoan idatzita:

Reges debellavit
Horrenda cete subjecit
Terra marique
Potens Lequeitio.

Amaika urteekin asi nintzan, an bertan, latina ikas ten eta latinak in batera ikasi neban berba afek zer esan nai eben: Reges debellavit, erregeak burrukatu ebazan; Horrenda cete subjecit, bale ikaragarriak, menperatu ebazan; Terra marique, legorrez eta itxasoz; Potens Lekeitio, indartsu Lekeitio.

Baina, ondarrutarrek, bekaitzez edo, aizkeneko berba aiek Terra marique potens Lekeitio, onela itzultzen ebezen: Por mar y tierra potes en Lekeitio.

Bazan Arranegi kaleko enparantza txikian iturri bat eta goikaldetik bale baten irudia eukan eta berau atrapateko leian ebillen trañeru batena ere bai. Kostaldeko erri euskaldun askoren ikurra zan ori berori: Lekeitio'n bezela Ondarru eta Bermio'n, Mutriku eta Getaria'n, Zarautz eta Odarribia'n... Erri oientzako garrantzirik aundiena baleak euki eban, bestela ez eben balerik euren ikurrin bezela artuko.

* * *

Emen agertzen zan balearen izena Eubalaena Glacialis da: Izotzetako Balea; baiña aurretik beste deikera au ere euki eban: Balaena Bizkayensis edo Bizkaiko Balea, izotzetatik Bizkaiko Kolkora etorten zalako goialdeko itxasoak gogortzen ziranean.

Negua izaten zan Euskalerrian. Orregaitik talaferoak eukiten ebezen portu guztietan Azillaren 15'tetik Martzoaren 15'ra balea bistatzen zanean seinaleak egiteko. Kea erabiltzen eben seinaletarako eta kearekin batera izara zuria balea ba'zan eta makilla utsik, bestelakoak ba'ziran, diote Lekeitio'ko Kofradia Aginduak: "...reconocer y distinguir los peces como ballenas, gíbarres, trompas y demás... y assi dístinguiendo alze en el monte y parage... las respectivas señales de vanderá blanca o sábana y esto se atenderá de vallena y palo seco para gíbarres y trompas..."

Bale urdiña da balerik aundiena. Bizidun izakietatik, bera aundiena. Baiña, geurera etorten zan bale buru-kakodunak ere balio aundia eukan. Eun milla kilo-

koak ere izaten ziran. Gaur egun galbidean dago; baita bale urdiña bera ere.

Orrelako animali batek lanpostu eta ogibide asko sortzen ebezan: zatiketak egin, labeetara karriatu, koipeak urtu, barrillak egin, Europan zear koipeak zabaldu... Garai batean, Paris'eko kaleak ere koipe orrek in argitzen ziran.

* * *

Bale-arrantza iru illebetekoa zan, baiña gure kaietan urte osoan zear arrain-mota asko atrapatzen ebezen. Neguan bertan ere, bixigu ugari artzen eben. Bixigua aztuta dabiltza arrantzaleak orain; ni gastetxo nintzanian, ordea, Lekeitio'n egunero irteten eben bixigutan. Arranegi kalean bizi nintzan, lenengo zenbakiaren lenengo bizitzan. Irugarrenean arrantzale bat ere bai eta domeketan, goizeko irurak aldian, Kofradia baldutako neska bar agertzen zan eta, iru aldiz beeko atea joaz, onela deadar egiten eban kantari:

"i Sabiño, Jainkoaren izenean mezia entzuteko!"

Andik minutu batzuetara an sentitzen nebazan Sabiño'ren egurrezko txankloak eskillereetan beera taka, taka, taka... Gero kalean, eliza aldera. Arratsalde kaian agertzen ziranean, an egoten gihan danok itxas-ontziak begira zenbat bixigu ekarten... eta arrantzale bakoitzak bixigurik ederrena etxerako.

—Etxerako? (Esate eban nere amuma Pillipa dendariak). Tabernetan eurok, zantarrok, jateko bai. An egongo dira emaztea eta seme-alabak goserik etxean...

Dendaria izanik, neure amuma Pillipak etxe askotako berria jakiten eban eta garai aietan, 1923'an, atunetako txalopa aundiak baztatuta egozan molla txokotan eta baporak asita; baiña, txikiak eta gutxi. Etxeetan 'terrala' egoan. Baiña, a zan tabernetako edertasuna: kanpotik begiratu eta barruan ez zan ezer ikusten bixiguen kearen-keaz. Sutegiak txikiak ziran egur-ikatze tximiñi-gabeak eta keak irteten eban, geienak beintzat, tabernako atetik.

Bixigu bana, ederrena, bakoitzak aukeratuta, jasotzen ebezan arrantzaleek; baiña, bada orain lareun urteko paper-ageri bat, eztabaida baten ondorengoa, eta bertan esaten digute Lekeitio'ko arrantzaleak, bixigutan ebillela, sei bixigu jasotzen eba7ala bakoitzak, 1536'garren urtean.

Bixigua aberatsa zan. Deba'n gaur ez porturik, ez arrantzalerik ez egon arren, garai batean, Deba'tik bixigu eskabetxatuak bialtzen ebezen Kastilla aldera.

Bixigua neguko arrantzua dogu; urte osoan, ordea; egiten eben arrantzan gure portuetan. Baiña, ez iturrietan, ez udaletxeetan, ez dago ez bixigurik ez bestelako arraiñik. Baiña, balea bai.

Estropadak

Tala, talaia edo atalaiariak ez duen erririk ez da itxas-ertzeko Euskalerrian. Baleak gorputz aundia duelako eta sudurretatik ura botatzen dabelako, ikusten erreza da itxasoan. Eta lenen ikusteak baeban bere komenentzia portuarentzat.

Zergaitik?

Balea lenengo arpoiarena izaten zalako. Lenengo arpoia sartzen eban txalopak eruatzen eban balea bere portura. Eta balea oso aberatsa izaki. Orregaitik ez da arritzeko portu bakoitzean talaia eta talaiero bat egotea, balea itxasoan agertzen zanean, berri ori lenbailen emoteko.

Eta orduan asten ziran benetako estropadak. Talaia-ko seiñalea ikusi orduko, asiko ziran deika Kofradiako kanpaiak, etenik gabeko tulin-talan batean. Baita pregoiak ere kalerik kale, kantoi guztietan. Erritarrak berberak be erriko txoko guztietara eramango eben berri pozgarri ori. Ikusitako balea arin arrapatzea konbeni, auzoko portuen ontziera aurrea artuaz.

Zenbat eta txalupa geiago eta bizkorrago prestatu, oba balea portura ekarteko. Itxasotik bizi ziran eta eguneroko alojera arraiñetatik jasoten eben: bixigutik, lebatzetik, sardiñetik, itxas-aingeratik... Baiña, onek guztiok, arrain txikiak ziran, kalderilla utsa; balea, ordea, arrain aundia zan eta urregorriz beteta etorren.

Kofradiako ouia entzun orduko, etxe guztietatik arin-aringa urteten eben mutil gazteak eta gizon gordiñak, bakoitzak bere tresnak bizkarrean, portura, txalupak gertatzera. Ainbeste egunez eta ainbeste aste osoz itxarotako unea eta garaia eldu da. Erriotzarekin burruka egitera, alojera ederraren itxaropenean. Ausardia bekokian eta sua begietan, an doaz balearen bila. Etxean gelditzen dan ama xaarrak egingo dau Joannes de Etxeberry idazleak dakarren otoitza (1.627):

" O jaun Tobias gaztea ongi begiratua, guardaritzat bidalduzik Arkangelu Saindua, eta kostara arraiña erakarrasia, aren iltzeko egiten ziñoela grazia. Guri ere ekarguzu urbillera Balea, segurkiago armaren landatzeko kolpea. Biziazen gatik dugu arriskutzen bizia, arren egiguzu aren gelditzeko grazia "

Erriko jendea itxas-ertzerantz doa estropada eta ondorengo txalupa eta balearen arteko burrukak ikustera. Estropada ez dabe erriko txalupak bakarrik jokatzeko; auzoko portuetakoek ere bai. Bermio'n ikusten zan

balea, Elantxobe'n ere ikusiko eben eta, bear ba'da, Lekeitio'n ere bai.

Txalupak era guztietakoak ziran, naiz trañneru eta naiz batel. Kaian egozan guztiak irtetzen eben bale-billa, baiña egokienak zortzi gizonen osatzen ebezan: sei arraunlari tostartean, popan patroia lema luze bategaz eta brancan arpoilaria arpoia eskuetan. Zazpi ere izaten ziran gizonok eta artan arpoilariak ere arraunean egiten eban, balearen ondora inguratu arte. Eta an, arrauna laga eta arpoia artun.

Txalupak, bata bestearen ondoren, abaniko baten antzera zabaltzen dira itxasoan, balea erdian atrapatuko. Lenengo gerturatzeko irakonak sartuko dautso bere arpoia bein, eta, aalik badau, birritan. Txalupak zai geratuko dira, balea menperatu arte; baiña, gertuen daudenak beste arpoiak sartzen saiatuko dira. Baleak bere gorpu aundi koipetsua ur aundietan murgiltzen dau. Azpitik ibilli arren, azalean ere eragiten dautso urari eta brankan doian arpoilariak erakutsiko dautso patroia nundik jo. Beste txalupak urduriz daude nun agertuko dan balea.

Balea preso dago; bizirik, ordea, orañdik. Il egin bear eta ez da gauza erreza bale bat iltzen. Arpoiak sartu ondoren, xabolñak erabili bear dira balea akabartzeko. Xaboliñek ez dute kakorik eta errez ateratzen dira balearen aragietan sartu ondoren eta txalupa guztiek saiatuko dira beuren xaboliñak baleari sartzen. Parte artu daben guztiek izango dabe beuren partilla, bakoizak beure lanaren neurrian.

Burruka orretan okerrik gartatuko ba litz, baleak berak ordainduko dauz okerrok. Baleak iges egingo ba'leu, orduan Kofradiak ORDAINDUKO DAUZ.

Atoian

Izaten dira, il da gero, ondora joaten diran baleak ere, eta kontuz ibilli bear. Azalean eutsi arazteko, bi txalupa aundienak aukeratu eta balearen egaletan esker-zubi ipiñi; ondoren, txalupa batetik bestera, iru txikot bota: bat buztanaren azpitik, bigarrena gerriaren azpitik eta irugarrena buruaren azpitik.

Lan orrek eginda, atoian, ondartzara eruan maria-puntan eta maria berutz danean, ondartzan geratuko da. Gerora, polea bateaz, gorago jaso zatituteko. Lan ori Lekeitio'n elizaren kontura zan. Onela dio Ciri-quaiñ Gaiztarrok: "La Ordenanza e Mantenencia de Lequeitio reducida a cuaderno en 1486, establece que el Manobrero (Elizarena zan arazo au), había de tener a disposición de los balleneros, cuando se abriera la campaña, material de cables, tornos, vasos, barriles, imanas y puntales para esta operación (varar y levantar las ballenas) como para el varado de las embarcaciones".

Bein balea jaso ezker, ondorengo lanak Kofradian dira. Bertako txiliña oska eta deika asita dago. Guztiak

Kofradira doaz kanpaiaren ondoren salmenta asíko da-ta. Mai-buruan Kofradiako Maiordomoak, txalupetako patroiak eta lege-gizona notaritza egiteko. Argizari bat píztu dabe eta argi orrek írauten daben arte iraungo dau salmentaren jokoá.

Deba'ko Ordenanza Berríak, 1685'ko Abenduaren amabostekoak onela díñote: `Primeramente pusieron por espresa calidad y condición que todas las ballenas que tuvieren fortuna de matar se pongan en almoneda y candela pública en el puesto acostumbrado por testimonio de escribano público que de ello dé fe y con asistencia de los Maiordomos y los Maestre-chalupas que se hallaren en dicho puerto...' Getaria'n, berriz, auxe: `Se puso un cabo de candela de cera encendida, declarando que durante su incendio se haría el dicho remate en la persona que mas díere'.

*

Balea oraíndík ondartzan dago, eta, Kofradian erre-matea egin dabenak zatituko dau: Buruko azalari zulo bat egin eta ebagi bat buru aldetik; zulo aretan txíkot lodíkote bat lotu. Bi mutil bale-gaiñera igo dira eta, txírristarik ez egiteko, egurrezko iltza luzedun oiñeta-koak jantzí dabez eta larruzko soiñekoak. Lurrean dago-zan beste bíak, polearen bitartez, txíkotatík tíraka así díra. Bitartean, gaiñean daudenak, bakoitzak bere alde-tik, azalari tarratara bana egíten dautsoe burutík así eta buztaneraíño. Orrela, zati luze eta estua kentzen dau-soe balearen azalari.

Ondoren, beste zati bat. Eta orrela jarraitzen dabe gorputz osoa larrutu arte kutxillo luze kirtendunekaz. Larrutzean, aiztoa gorputz eta azalaren tartean ere sar-tzen dabe. Orrela erantsi dute azal guztia, aldiko balea-rí gíra egiñaz.

Azal dana kendu ezkeroz, lau kuadroko zatiak egí-ten dabez, labara eruan eta bertan urtuteko: 20 zenti-metro aldeko. Barruko aragia eta saiña aizkoraz eta aízto aundíz zatituko dabez. Labarako orrek ere. Zatiak jasotzeko ba daukiez artarako ontziak eta labara eruate-koo, gurdíak eta narrak.

Koipeak urtuten

Azal zatíak eta koipedun aragiak, edo seína, erritík kanpora dagoen labara eruan dabez. Debekatuta egoen labak erri-barruan egitea, keiak eta atsak eragozpen asko sortzen ebelako. Donostiko 1415'eko lege batek orixe agíntzen dau. Lekeitio'n ere, bardin.

Labak ladrilluz egíten ebezen eta lau kuadrokoak zírán: alde bakoitzetik kana t'erdi zabal, eta gora, berríz, kana bat. Beeran zulo bat barruraíño, andík ikatza sartu eta sua egiteko, eta bertan, bi burnizko barra, lurretík

jasoak, gaiñean koípearen txíngarrak erreteko, ikatz-egurra berbera baíño obeak ziran-da.

Gaiñetík ere zuloa eukien lurreraíño onek labok, kaldara ípinteko. Kaldara edo lapíkoak iru neurritakoak zírán: bi pipakoak, pípa batekoak eta pipa erdíkoak. Pipa bakoitzak 450 litro ebazan. Kobrezkoak ziran eta loditasuna, aunditasunaren neurrián: bi pipakoak, bí beatz lodi; batekoak, bat eta erdíkoak, erdía. Lumera izena be erabíltzen dabe laba eta kaldarak esateko.

Seína urtuten danean, an inguruan gertu dagoen lau kuadroko ontzi batera eruan. Egurrezko ontzi orre-tan ura ipiñi dabe erdiraíño eta koipe urtua botaten danean bertara, azalean gelditzen da igerí eta zaborrak azpíra doaz. Badauko ontzi orrek txotx bat, uraren parean, zulotík koípea atarateko. Noiz edo noiz ura aldatu eta garbitu; gero azpítík zaborrak kendu.

Koípea garbitzeko beste modu bat be erabíltzen eben: burruntzali edo tangarta aundiekin artu labatík eta urez erdiraíño betetako barríka batera bota; gero barríka aretatik beste batera pasa, au be urez erdiraíño; andik, írugarren barríkara, koípea garbitu arte.

Garbitutakoan, orduan, gazítuta berrilletan gorde. Barrillak Fueroaren aginduz 400 librakoak bear zuten izan. Koipea bera íru klasetakoa zan: zuria, oria eta gorria. Baíta oietatík ataratako nansteak be. Onena zuria zan eta eskasena gorria.

Zertarako zan bale-koipea?

Argitarako batez be. Argi zoragarria egíten dau (argi-zariak bezín ona eta askoz merkeagoa) eta, elízak, naiz etxe guztíak, naiz urí nagusietako kaleak, bale-koípeakin argítzen ziran garai batean. Mingaiñetik ataratako seína, ordulariak eta beste tramankuluak leuntzeko, bera koi-perik onena.


Bale-aragiak ez eban batere estimaziorik euskaldu-nen sukaldeetan. Jateko Frantzira eramaten eben. `Gari-zumako urdaia' esaten eutsoen. Okelea jaterik ez zanean, bale-aragía librea zan, Elizaren usteetan arraiña zalako. Círíquiain-Gaiztarro jaunak onela dio:

"Esta pesca —dice Lefevre, en `Les modes de vie dans Les Pyrénées orientales'— adquirió tal importan-cía que, en 1059, el mercado de Bayona se hizo con-ceder el privilegio de la venta de carne de ballena".

Baño, gure artean, ego-aldean izen txarra eukan. Dana dala, ona emen bale-okelea jateko era batzuek: Gatza emon eta tipula, berakatza eta perrejillagaz egosi. Parríllan erre eta naranjakín jan edo bestela azukre eta espeziákin egíndako zukuakín. Erreta jateko onenak, míngaña eta gibela.

*

Barrilletako koípea Naparroa eta Kastilla'ko bídean



EUSKALDUNAK MUNDUAN. IÑIGO LOIOLA'KO

Deitura desberdiñak ditu bere izenak. Latiñez **Enecus** deitzen diote; gero, berriz, **Ineco** eta aizkenik **Iñigo**. Berak aldatuko zitun izen oiek Erromako erara eta **Ignatius** izenpetuko ditu bere idazlanak.

Garai artako oitura zan patronimiko bat artzea abizenaren aurretik. Orrela ba, berak ere ba zuan bat; Iñigo López de Loiola. Anai zarrenak, ordea, beste izen bat artzen du López'eren ordeaz: Pérez de Loiola, Juan, beuroen aurreko batek izen ori zeramalako. Juan onen aurrekoak beste izen au zeraman: Martín García de Oñaz.

Emen agertzendana auxe da: Oñaz eta Loiola biak dirala Iñigo'ren sustraiak. Beste al detik, berriz, abizenari edo apellidueri ez ziotela inportantzi aundirik ematen. Iñigo eta bere anai apaizak biak artu zuten etxearen izena: Loiola, López aurretik zutela: Peru eta Iñigo López de Loiola.

Gurasoak eta gurasoen gurasoak, aundikiak izan arren, baserritarrak ziran berez eta etxea zeukaten lurrez inguratutik. Lur oietatik at ere bazituzten baserriak, burni-olak eta Elizaren emaitzak. Orra Loiola etxearen emaitza aberatsak.

Loiola torrea zan, erri guztietan daudenen antzekoa, gerora moztu bazuten ere. Ladrilluz jasotako zatiak adierazten digu zer nolakoa zan botatakoa.

Aide Nagusiak

Aundikiak bi taldeetan banatuta zeuden, alkarri gorroto ziotenak: Oñaz eta Ganboa. Burruka luzea eta negargarria izan zan euren artekoa Euskalerrri osoan eta andik kanpo ere bai.

Burruka oietan nor geiagoka zebiltzan: "e qual seria maior", Salazar idazleak dionez. Arrijasotzen eta aizkora jokoaren antzera, orduan gerra eta burruka jokoan, alkar iltzen eta alkarri lapurretan.

Burruka oiek dirala bide, moztu zituzten Aide Nagusien torreak.

Oñaz-torrea mendian eta Loiola-torrea ibarrean, oiek biak izan ziran Iñigo'ren jatorrizko bi sustraiak. Eta, loiolatarrak oñaztarren buru ibilli ziran beti. Gertakizun onek gero, Iñigo'ren bizitzan, zer-ikusi aundiak izango ditu bere jokabideak argitzeko; Iruña'ko gerratean batez ere.

Aide Nagusien aurka sortu ziran Erri-billak, etxeak alkarren inguruan bilduak (villa) eta ez ordurarte zeuden bezala mendietan sakabanatuta. Erri-billetan sortu ziran baita ere Hermandadeak edo Anaidiak aundikieri arpegi emateko. Anaidi auek sortu zituzten zenbait ermita baztarretan, gaurko parrokiaren eginkizuna betetzen zutenak. Aide Nagusiek ere bazituzten eurenak. Amar aia zituzten loiolatarrak XIV'garren gizaldian; guztien artean San Sebastian de Soreazu zan aundiena, gerora Azpeitiko parroki bihurtuko zana; Anaidien babesean asieran eta geroago loiolatarren eskuetan eroria. Andik aurrera ez zan arazo orreri buruz eztabaidarik palta izango...

Egibar'ko baserria

Iñigo-ren ama-titi Maria de Garin, Egibar baserriko etxeoandrea, izan zan eta bien arteko artu-emanak ez ziran sekulan galdu. Errementari baten emaztea zan eta berak eman zion titia Iñigo'ri.

Iñigo il da gero, bere bizitza idaztean, bi urteko aldea zegoen batzuen eta beste-ten iritxietan, zaarrago ala gazteago. Alkartu eziñik, idazleak Egibar'era jo zuten, ama-titi bizi zalarik, berari galdetzeko noizkoa zan Iñigo. Baserritar arrek memori ona zeukan oraindik eta bere esanetara bihurtu ziran idazleak: batzuek esan baiño bi urte geiago zitun Iñigok: Egibar'ko etxeoandreak zionez, Iñigo 1491'garren urtean jaio zan.

Iñigo bera zebillen naastuta zaartzaroan: 1555'an berak zionez 62 urte zeukan. Ala balitz, 1493'garren urtean jaioa bear luke. Baiña, Egibar'ko etxeoandreak arrazoi; memori ohea zeukan Iñigo berak baiño. Agiri notarial bat dago Azpeitian 1505 garren urtekoa eta bertan agertzen da testigu edo lekuko bezala Inego de Loiola. Amalau urte bear ziran gutxienez testigutza egiteko. Amalauak izan ezker, orra 1505'ri amalau kendu eta 1491'garren urtea ematen digu. Ama-titik agertu zuena, ain zuzen ere.

Bere erriko, bere etxe eta baserriko kutsua ez du sekulan galduko Iñigok, Erroman bere egoitza izan arren eta mundu zabalari begira egon. Gipuzkoako zati bat Calahorra'ko gotzaitzegikoa zan eta bertako arabar gotzai batek Iñigo'ri eskabide bat egin zion Erroma'ra: bialtzeko, alegia, euskaldun aita Gipuzkoa'ra. Aita Araoz eta aita Otxoa bialduko ditu, euskaldun jatorrak biak. Aiekin batera gizon prestu bat, erdalduna izan arren: gerora Francisco de Borja santua izango zana.

Erroman bizi zalarik, bere zaartzaroan, lagunek festa egin nai ziotenean "lau gaztaña erre ematen giñun, gustokoak bait zitun oso...". Gaztain erreak ezik (zenbat jan ote zitun aurtzaroan Egibar'en), Euskalerriko dantzak eta kantuak gogoan zitun. Ona zer dion historiagille batek: Iñigo Paris'en zegoala apaiz, gaxo bateri laguntzen zion eta onek eskabide bat egin zion esanez, poz aundia artuko zuela apaizaren erriko dantza eta kantuekin. Iñigo aren gogoetara makurtu zan eta gaixoaren aurrean sekulako dantza euskaldunak egin zitun eta kantak abeztu... eta orrenbestez gaixoak barnean zitun tristurak kanpora botatzen asi. Au esaten duena Portillo historiagillea da "Razón y Fe" deritzan aldizkarian, 1915, 295-196 orrialdeetan.

Beti izan zuan musika-zaletasuna Iñigok eta Erroman bere zaartzaroko gaixotasunak gaintzeko musikak asko laguntzen zion. Orregaitik eskatzen zion Lagun-

diko aita Frusio'ri klabikomioa jotzeko eta beste anai koajutore bateri, kantatzeko abots ederra bait zuan onek.

Iñigo kapitan gudaria izana zan; baiña, Loiola baillarako musikak eta dantzak bere gogoan itsalita zeramazkin eta orduko zaletasunak ez zitun guztiak aaztu, arazo larriekin bere barruan estalita bazitun ere...

Egun batez, organoa jotzen entzun ondoren, onela esan zion aita Ribadeneira'ri: "nere gogoan beteko ba'nu, Jesus'en Lagundian kantua eta koroa ipiñiko nituzke...". Baiña, ez zitun ipiñi gizonak lanerako libreago egon zitezen.

Beste orrenbeste gertatzen zitzaion izadi eta naturaren aurrean: goiko zero urdiñak eta mendi orlegiak ikusi ondoren, barru-barruko eragifia izan oi zuan beti. Badirudi Iñigo soldadu zaarra gaztain-morkotza legorra izanduko zala. Oiek, ordea, itxurak besterik ez ziran. Arazo larrietan sartutako gizonak orretarako astirik ez zuela dirudi, sentimentuentzako, alegia; baiña, gaiñeko soifñeko besterik ez zan ori. Barruan, euskaldun mendikoi sentimentalak ziraun.

Jesus'en Lagundiak, Iñigo'ren asmoetan, uri aundietan egin bear zuan bere lana; baiña, bere Lagundiarentzat, beretzako bezela, etxe-baserriak maita zitun eta alantxe agintzen die etxeak toki erosoan jasotzeko izadiarekin artu-emanak ez galtzeko eran. Berak ere Lagundiaren Kostituzioak idazteko lagun baten baratza-ra joan oi zan aulki eta maitxo batekin. Giro artan, bere etxeko giroan, lana obe-to ateratzen zitzaion.

Iñigo eta Euskera

Iñigo, Loiola'ko baillaran ezia eta baserri-esnea edozkia, euskalduna zan mamiraifño. Euskeraz bazekian eta orregaitik aita Araoz'ek, besteak aditzerik nai ez duenean, Iñigo'ri idaztean, euskal itzak sartzen dizkio tarteka.

Berak, Iñigo'k, ez dakigu euskeraz idatzi zuenik; baiña, Azpeitiko kaleetan bere parrandako lagunekin euskeraz itz egin bear, gaur bertan ere ez bait da besterik egiten. Orduan areago. Bere lanetan ez dago euskarazko itzik; baiña euskera dago bere idaz-lanen mamian. Itzak erdaldunak dira; barruko josketa eta mamia, ordea, oiek euskaldunak dira. Euskeraz ezitako gizon batenak.

Badira gaurko egunez makifña bat idazle beuren buruak euskalduntzat dauzkatena idaztean itz euskaldunak erabiltzen dituztelako. Itzak euskaldun eta joskera eta mamia erdaldun. Iñigo'k egin zuena, baiña alderantziz. Onen idaz-lanak beti izan dira gaitzak eta zaillak beste izkuntzetara biurtzeko: joskerakin ez dute asmatzen.

Iñigo euskalduna zan, baserritarra naiz eta torre batean jai, Egibar'en azia eta Azpeitia'ko giro euskaldun oso batean. Gerora Kastilla'ra aldatu ba'zan ere, erderarik ez zuan sekula ondo ikasi. Erderarik menperatzen ez zuelako gertatu zitzaion Paris'en eta Erroma'n gertatutakoa: erdera naastu zuan frantsez, italiano eta aleman itzez.

Bere bameko giarra euskalduna zan, naiz eta Erroma'n bizi eta Europa'ko orduko arazo larriak biotzean eraman.

Besteen aurrean, euskaldun itxura ez zuan sekula galdu: gizon barrukoia, kanpora bere barruko bizia nekez azaltzen zuana, errealtateari eta eguneroko bear-kizuneri lotua eta bere asmoak aurrera eramateko burnia baiño gogorragoko borondatea eta espiritu-indarra.

Soldadu eta kapitana, orregaitik ipiñi zion bere Lagundiari "Compañia" izen; baiña, soldadu ura euskalduna zan, baserri-giroan ezia, menditarteko gizadiarekin alkartua... Oiek eta ermitatxoen kanpai-aspedena bere biotzean ifoiz ere zearo aaztugabea.

Kastilla-bidean

XIII eta XIV'garren gizaldiak, Iñigo jaiotakoaren aurreko biak, Gipuzkoa eta Naparroa arteko mugak burrukez beteak daude: lapurretak, suak eta giza-erailketak ugari.

XIII'garrenean, 1274'tik 1328'garrenerarte, frantsezak ziran nagusi Iruña'n eta gipuzkoarren etsai. Kastilla'ren aurka presta dute sekulako eraso eta, bide batez, Gipuzkoarren aurka ere bai. Eraso artatik sortu zan Beotibar'ko burruka eta giputheen garaipena Tolosa inguruan, gertakizun artatik artuta daude Gipuzkoa'ko arma-arriak dituen amabi kañoiak, naparreiri arrapatutakoak. Naparrekin batera zetozen gazkoiñak eta frantsezak.

Gipuzkoa (Ipuzkoa zan garai artan) gizaldi aren, XIII, asieran aldendu zan Kastillaruntz; bitartean Naparroa'rekin bat egiña zebillen eta Beotibar'ko gertakizunak eman aizkeneko bultzada aldentze artan. Andik aurrera giputxek beti Kastilla'ko Erregearen alde jokatu dute.

Beotibar'en giputheen buruzagiak Gil López de Oñaz eta Juan Pérez de Loiola ziran. Orra loiolatarran bi izenak: Oñaz eta Loiola. Andik aurrera Loiolako begiak, gipuzkoarrenak bezala, ego-alderuntz egongo dira jarriak. Ortik sortu ziran Kastilla'ko Kortearrekin berebiziko ar-emanak, oñaztarren artean batez ere. Andaluzialdean ikusiko ditugu mairuen aurka burrukan. Mairueiri kendutako lurraldeetan izen euskaldunak agertzea ez da batere arritzeko, an ibilliak bait ziran Erregearen Kortean bezala. Egite oietatik atera zituzten, Erregeak emanak, ainbat eta ainbat onura eta mesede.

XV'garren gizaldia izan zen Iñigo. Gizaldi orrek makiña bat burruka ikusi zitun: Oñaz eta Ganboa, Aide Nagusiak Erri-billen aurka eta Agramont Beaumont'en kontra. Auek naparrak.

1451'an Aide Nagusiek desapio egiten diete gipuzkoar erri-billeiri: Azkoiti, Azpeiti, Deba, Mutriku, Getari, Tolosa, Ordizia eta Segura'ri. Auek Anaidi bat, Hermandade bat, sortu zuten elkarren artean beuroen erriak Aide Nagusien era-soetatik gordetzeko.

Burruka oiek dirala-eta, sei urte beranduago, 1457'an apirillak 21, Enrike IV'garrenak Aide Nagusien torreak mozteko agindua eman zuan eta gaiñera Ximena errira, Andaluzian, baztatu zitun, mairuen aurka burrukatzera euren zaldun eta oiñezkoekin, eta beuroen kontura. Lau urte iraun zuan dezterruak. An ibilli zan Iñigo'ren aitaita Juan Pérez de Loiola eta beronen aita zan Lope Garzia de Lazkano. Ordukoa da Loiola torrearen mozketak.

Alaz ere, ez zuten Kastilla'ko Erregearen faborerik galdu, aurretik eurak eta euren aurrekoek berari eta beure aurrekoei egindako serbituengaitik. Orrela Jaun Loiolakoak, Iñigoren aitaitak, bere seme Beltran'eri, Iñigo'ren aitari, Loiola'ko torrea jauregi biuriturik eta azienda osoa utzi aal izan zion eragozpenik gabe.

Ordez, Beltran jauna an zebillen Grranada'ko eraso-aldian, aizken garaipena lortuta, mairuak Afrika'ra bota zituzten arte. Serbitzu oiek mesede berriak erakarri zituzten Loiola'ko torrearari. Kastilla'ko Erregearen agintzapean zibiltzan buru-belarri loiolatar guztiak: Iñigo'ren bi anai zaarrenak Napoles-gerratean il ziran, irugarrena Indietan eta beste bat Hungria'n turkoan aurka burrukan. Martin maiorazgoa, berriz, Naparroan Belateko artan frantsezeiri erasoka...

Odol ustutze aundiak Loiola'n; baiña, Loiola'ko odola aberatsa izaki: Iñigo zan etxean amairugarrena. Bere aurretik amabi anai-arreba zitun.

Mairu eta turkoen aurkako burruka aiek berealdiko giroa sortu zuten "zaldun-liburu"entzat. Zorioneko "Libros de Caballería", Iñigo'k gaxoaldian Loiola'n eskatu zitunak, mairuen aurkako burrukak zituzten gai. Zortzireun urteko burruka eta gerra mairuak Afrika'ra bota arte; ondoren turkoek erasoka Europan. Gizonak guda-giroan sortu eta ezitzen ziran. Iñigo'ren gastaroan giro ori zeruraino igota zegoan; ez da, ba, arritzeko Iñigo'k ere arma-bidea aukeratzea.

Oiek asko ez dirala, Ameriketarako deia: urrea, zillarra eta aberastasunak ugari indietako bideetan. Abenturak, zer esanik ez. Danak batera.

Ar-eman aundiak Kastilla'kin soldaduzka dala bide; merkatu-arrazoibidea ere bazan tartean: Kastilla'ko artilleak euskal kaltetik irten oi zuten bai Ingalaterra'ra eta bai Flandes'era ere, andik oial biurtuta etortzeko. Urrea bazan, zillarrik ere bai, zertarako gauzak egiten saiatu? Errezagoa zan zeuden lekutik artu eta erosi. Konponbide orrek ez zitun ondoren eder-ederrak ekarri: auzoko errietako lantegiak aberastu eta urrea amaitu zanean, ez erre eta ez lantegi. Orra Amerikeetatik itzulitako zigorra, erre lapurtuaren truke.

Ikusten danez lokarri aundiak eta ugariak zeuden Gipuzkoa eta Kastilla'ren artean. Arritzekoa ez da orduko egoera: Kastilla'ko aundikien etxeetan (zenbaitzuk euskal jatorrizkoak) giputx giza-seme asko zegoela, alegia, bai serbitzari, bai idazkari eta notario, baita zaldunak ere zaldun-jokoak ikasten.

Iñigo gure Urrezko-aroakin batera jaio zan eta bizi. Amerikeetako urreak, burrukak eta garaipenak edonun, barku-gintza ibai-baztar guztietan urduri, burniolak etengabeen, ikasgintza eta garraioak, armagintza eta balaustrak, Kanada'ko baleak eta Terranova'ko makailaua, artoa amerikarra baserrientzako aberastasan, etxe-berritze, jauregi berriak, eliza galantak...

Zorabioak artutako gizarte-giroa.

Loiola'ko semerik gazteena, soldaduzka aukeratu du oore billa... Aundikia zan, Aide Nagusien kimua eta bere indarrak ezagutzen zitun. Gogoraino elduko zan; ez zion etsiko bien bitartean. Asmoa eta gogoa tinko eta elburua garbi.

Bere anai Peru'k apaizgoa aukeratu zuan; baiña, Iñigo'k letrak ikasteko afizio gutxi. Joerarik ez eta bertan beera utzi zitun asitako latiniak. Soldaduzka naiago Erregearen serbitzuan, beure aurrekoen antzera.

Bere seme gazteenak aukera ori egiteak ez zion penarik eman aita burrukalaria, eriotzaren arriskua ezagutu arren; eriotza, edonun eta edozelan galtzen da bizia, ez dakigu nun topako degun. Gudateak eriotza ekarri lezake; baita oorea ere beste onura askorekin batera.

Kastilla'ko Arevalo'n

Arevalo Valladolid'etik egoalderuntz dago Avila'ko probintzian. Erregeak Valladolid'en zeukan egoitza bere Kortearekin batera. Nundik nora jo zuan Iñigo'k Arevalo'ra?

Maria de Velasco andrea, Iñigo'ren amaren senitartekoa zan; bere senarra, Juan Velázquez de Cuellar, Erregearen "Contador Mayor" liburu-kontu eramailleak Loiola'ko Beltran'eri seme bat eskatu zion berak ezi eta zaintzekotan, geroa Erregearen serbitzuan sartzeko. Esker ona izan zion beti Iñigo'k etxe oneri.

Fernando eta Isabel ziran Kastilla'ko errege-erregiñak eta beuroen Kontu-eramaile Nagusia Juan de Velázquez zalduna, Iñigo'ren babeslea, Kortean denboraldi luzeak egiten zitun gizona. Arévalo eta Madrigal'eko gazteluak, lurralde guztiekin, bere mende zeuden eta, naiz eta bereak izan ez, jaun osoa bezala jokatzeko aalmenak zitun.

Isabel erregiña il zanean, bere senar Fernando berriro eskondu zan Germana de Foix frantsezakin: "pinguis et bene pota" - "gizena eta ondo edana". Erregiña onek Maria de Velasco, Arévalo'ko etxeakoandrearekin ar-eman estuak izan zitun. Beti alkarrekin nai eta konbite ederrak editen zizkion, janez eta edanez. Iñigo María de Velasco'ren etxean bizi zalarik, aukera zuan persona auen berri izateko eta eurak ezagutzeko ere bai. Areago Korteko pajea izanik.

Fernando'ren ondorengo Felipe Lenengoak, il da gero, alabatxo bat izan zuan oso polita eta ederra. Bere garaian Portugal'eko Juan III'garrenarekin ezkondu zan eta María de Velasco, Arévalo'ko etxeakoandreak lagundu zion Portugal'era eta ez zan geiago andik biurtuko. Bertan gelditu zan betirako.

Velázquez'tarrak errege eta printzeekin zituzten ar-emanak irikiko zioten Iñigo'ri Errege-korteko atepak. An pasatako urteek utzi zioten Iñigo'ri noblezi-kutsu bat, sekulan galduko ez zuena eta urteak pasata ere, pobre bizi arren, nabarmentzen zitzaiona.

Arévalon bizi zala, kaligrafia ikasteari ekin zion lanean, eskribau oso on batere-na lortu arteko guztian.

Iñigo bizi izan zuan giroa une artan fededuna zan; oiturak, ordea, naiko lizunak. Polanco historiagilleak dionez, Iñigo'k fedea gorde arren, emakume eta arma arazoetan oso zuan konzientzia lasaia: emakume ondoren ibiltzeko beti prest eta, armak eskuetan, iskanbilleetan sartzeko ere bai. Bere giroa bizi zuan, burua zaldunen-nobelaz beterik.

1515'garren urtean Azpeitia eta Iruña'ko auzitegietan erantzunkizunak zitun egin bearrezkoak Iñigo'k, 24 urte eder gaiñean zitula eta Erregearen Korteko pajea izanik. Bere bizitza aztertu zutenak begira nola agertzen diguten Loiola'ko semea. Gauza bitxia da eta erderaz, dakarten bezala, eskeiñiko degu. Ona zer dioten:

"Vestía el joven desgarrado y vano traje acuchillado de dos vistosos colores, capa abierta, calzas y botas ajustadas, espada y daga al cinto y sobre la erguida cabeza de rubia cabellera cuyos bucles caían hasta el hombro inclusive, la gorrita de escarlata (divisa del partido oñacino), tocada de pluma gallarda y ondulante. Dejábase ver algunas veces armado de punta en blanco: loriga y coraza relucientes, y, además de la indispensable espada, ballesta con saetas y todos los demás géneros de armas".

Auzia Iñigo eta Peru bere naiaren kontrakoa zan, Iñauterietako (1515) (1512) arazoak ziran: arma-iskanbilla batean odola ixuri zan, eriotzik izan ez bazan ere.

Auzi orretan Enecus deitzen diote Iñigo'ri.

Fernando il eta bere seme Karlos Lenengoa etorri zanean Kastilla'ra, Velázquez gaztelu gabe gelditu zan; gazteluekin batera lurrak ere galdu zitun itzalik gabe gelditurik. María de Velasco andrea alargunduta zegoan eta une larri artan alargunak Iñigo bialtzen du, gomendaziozko gutun batekin, Najera'ko Kondearengana. Biderako bi zaldi eta 500 eskudo eman zizkion.

Orra nundik nora ipiñi zuten Iñigo Iruña-bidean.

Iruña'n

Agramont'eko naparrek Frantzia'rekin bat egiñak zebiltzen eta ganboatarrak ziran; Beaumont'ekoek, berriz, oiñaztarrak ziran eta Kastilla'kin alkartuta. Frantzia'ko erregea Naparroa'koa ere bazan eta une batean Franzisko lenenak Naparroa salduko du Napoles'en ordez.

1512'an Fernando, batzuentzako "Katoliku", besteentzako "Gezurtero", erregeak Naparroa menperatzen du Beaumont'arren laguntzarekin eta iru urte beranduago, 1515, Burgos'ko Kortesak Naparroa Kastilla'kin bat egiten du. Bi urte oiek dira, 1512 eta 1515, ain zuzen ere, Iñigo auzietan ikusi zutenak Iñauterietako erronkagaitik.

Ondorengo urtean, 1516, martxoan Katilla'ko koronel zan Villalba gudariak gaindu zuan Frantziako eta Agramont'eko gudarostea Albrit buru zekarrena. Dagonil edo abustuan, Franzisko erregeak Naparroa Napoles'gaitik truke egingo du. Arrezkero naparrak beti izan dira Kastilla'ren menpean.

1512'an eraso egin zuten Frantzia'rekin batean Agramont'arrek Belate inguruan. Kastillak irabazi. Gipuzkoarrek Kastilla'rekin bat eginda zebiltzen une artan ere, Martin Garzia de Oñaz loiolararra tartean zalarik.

Karlos errege berria laister konturatu da Naparroa dala Frantzi-aldetik Kastilla'ri erasotzeko biderik errezena. Ori dala-ta, Doniane Garazi'ko arri-esia berritzen du eta indartzen; baita Iruña'koa ere. Emen gaiñera ziudadela deritzan arrizko itxitura bat egiten du beste zabalagoaren erdiunean. Arri-esi bat beste baten barruan. Ementxe zaurituko zuten Iñigo andik urte gutxi batzuetara.

Naparroa'n Erregearen ordezkaritza (Virrey) Najera'ko Dukeari eskeintzen dio Cisneros'ek. Dukeak, bere kontura 3.000 oiñezko eta 700 zaldizko presta zitezkean eta bere alde zeuzkan beamontar naparrakin batera, baita giputzak ere aldi larrietarako.

Bere eragozpenak izan zitun izendatze onek, ez bait zegon konforme Kastilla'ko Kondestable zan Fernando de Velasco Agramont'en aldekoa eta ganboatarra. Najera'koa, ordez, Beaumont'en aldeko eta oiñaztarrak.

Arazo onek bere lerroak zitun urrun: Fernando de Velasco onek eta Enrique de Lara, Najera'ko Kondeak, biak, euskal mendietan zituzten beuren sustraiak Ganboa eta Oñaz'en zaiñetan.

Oiñaztarrak, batez ere, Kastilla'ko aundikien artean senitarteko asko zituzten; mairuen kontrako gudaketatik zetorkien senitartekotasun ori. Oiek orrela dirala, ez da ain aritzekoa ere aita Araoz'ek diona: Oñaz dala, alegia, Espaiña'ko etxerik zaarrena, eta Espaiña bi zatitan erdibi dagoela, alde batetik oiñaztarrak eta bestetik ganboatarrak; edo bestela, gutxienez, bi talde oietan dituztela beuren zuztarrak.

Naparroa'ko arazo onetan Gipuzkoa geroz eta geiago Kastilla'rekin buru bat eginda zebillen. Batasun au sendotzeko, gotzai gipuzkoar bat izendatu zuten Errege-ordezkoaren konseju-emaille. Rodrigo Mercado de Zuazola zan berau, Mallorka'ko gotzai geroago Avila'koa izango zana. Onek eraiki zuan Oñati'ko lkastola Nagusia. Giputxa aginpidean sarturik, Gipuzkoa'ko gudariak errezago joango ziran Naparroa'ko agintedunari laguntzera, Kastilla'ren alde.

Garai aietan Gipuzkoak Naparroako gotzaitegitik alde egitea erabaki zun eta eskatu ere bai; baiña, eskabidea ukatu egin zioten.

lñigo, gudari gaztea, ondotxo etorri zitzaion Najera'ko Duke eta Naparroa'ko Errege-ordezko zan beaumontar eta oñaztarrari. Biak ziran talde berekoak. 1517'an sartu zan lñigo Dukearen arma-serbitzuan. Urte orretako agorrean etorri zan Espaiñi'ra Karlos Lenengoa eta atzerritik ekarri zitun bere Korterako lagun eta serbitzari ugari. Atzerritarrak nagusi Kastilla'n. Orren aurka jeiki ziran Comuneros deritzan abertzaleak.

Orduko naastea aundia zan: Aide Nagusiek Erri-billen aurka, Oñaz eta Ganboa, Agramont eta Beaumont. Orain agertzen zaigu elemento berri bat, iraultza orren uifak eta olatuak Gipuzkoa'raiño eldu bait ziran. Esate baterako, or daukagu Donosti eta Hernani'ren artean sortu zan burruka.

Iraultza orrek estanda egin zuan Najera'ko errian; baiña, bere Kondeak, Lerin'goarekin batera, erria zanpatu zuan eta gudarieri nai zituzten lapurreta guztiak egiten utzi. lñigo bera ere an zan burruka artan, naiz eta lapurkerietan parte artu ez.

Lerin'go Kondeak ekin zion Naparro osoa menperatzen eta artan lagundu zion Najera'koak, Errege-ordezkoak. Laguntzaille naparrak ere baziran; baiña, benetako indarra Najera'tik eta Gipuzkoa'tik zetorkion menperatze ekintza oneri.

Errege-ordekoak bere serbitzari lñigo gudari gaztea bialtzen du Gipuzkoa'ra, Comuneros'en iraultzak eragin zitun asarreak pakeatzera. Giputxa berez temoso buru-gogora zala, ondotxo zekian loiolatarrak; ezaupide oieri eta bere buru argiari esker, asarrea baretu eta pakea sortu zuan bi taldeen artean. Orixe konbeni zitzaion Najera'ko Kondeari, Naparroa'ko baretasuna azalekoa bakarrik bait zan. Sua lur-azpian gorderik egona, bere garaian leertuko zan.

Karlos eta Franzisko alkarrekin asarreturik, guda sortu zuten Frantzia eta Espaiña'ren artean. Frantzia'ko Erregeak eraso antolatatu zuan eta bere gudarostearen buruzagi André de Foix izendatu zuan. Enrique de Labrit Naparroa'ko errege-aulkian ipintzea zuten asmo eta bien bitartean, Naparroan zear, Kastilla'ri erasotzea bertoko Comuneros'ak lagun zituztela. Bi urte gertakizunak prestatzen igaro zitzairen.

Enrike de Labrit 1521'ren otsaillean eldu zan Bearne'ra 12.000 oiñezko, 800 lantzaun eta 21 kañoekin. Martzoaren 24'an Errege-ordekoak ez zitun berekin 250 soldadu besterik eta eurak erreminduak illebeteetan alogerarik jaso gabe zeudelako. Beste guztiak Kastilla'n zitun Comuneros'ekin burrukan. Une larri artan Gipuzkoa'ri laguntza eskatzen dio; baiña, erantzun au artu zuan giputxen aldetik: geuk ere guda geure mugeetan daukagu... Lerin'go Kondearen anai, Francés de Beaumont'eren laguntzarekin, milla lagun bildu aal izan zitun, 19 kañoi aundi eta beste asko txikiagoak. Bera, ordea, Najera'koa, alegia, Kastilla'ra abiatu zan, Francés de Beaumont Iruña'ko buru utzita. lñigo bialdu zuan Gipuzkoa'ra laguntza billa, aurreragoko erantzuna ezezkua izan ba'zan ere.

Bitarte orretan, maiatzaren 12'an, festa egiten du Iruña osoak, agramontar guztiek eta zenbait beamontarrak ere, Ronkal'etik sartuta Naparroan zear aurrera datorrelako Enrique de Labrit bere gudarostearekin.

Maiatzaren 17'tik 19'ra Iruña-ateetara eldu dira Oiartzun eta Loiola'ko gudariak lñigorekin batera eta onen anai Martin guztien buru. Iruña-barrean, geienak, Labrit'eren zai. Agintedunak, berriz, bi aldetan erdibituta: alde batetik Francés de Beaumont eta bestetik erriko Konzekua. Onak esaten zuan, bein Errege-ordekoa erritik alde egin ezkeroztik, bera zala erriko buru mailla guztietan; baita gudatean ere. Arrek, berriz, ezetz: gudarostearen buru bera zala eta berak eramango zuala burruka aurrera. Eztabaida gogorra une larri artarako.

Oiek asko ez dirala, Loiola'ko Martin ateetan barrura sartutzeke, guda artako buruzagitza beretzat eskatzen. Berak defendiko zuala lruña. Ezetz esan ziotenean, artu bere gudariak eta or dijoa berriro Gipuzkoara, danak bertan beera utzita. Ez, ordea, lñigo. Ez zion barruak ori agintzen eta bera bakarrik lruña'ra sartu zan, gerrarako prest.

Foix Kondearen gudarostea Villaba'ra eldu, lruña'ren aurrez-aurre ifar-aldetik, eta bertan egokitu zan. lruñatarrek, Labrit'eri ongi-etorri ospetsu bat egiteko, gertakizunak prestatzen. Francés de Beaumont, bitartean, Logroño'ra dijoa egoaldetik bere gudariekin, lñigo umezurtz utzirik. Onek arekin abiatu bear zuan; baiña, naiago izan zuan lruña'n gelditu Foix'ekoari aurpegi emateko. Karlos Erregeak lruña barruan beste itxitura bat egin zuala esan genduan arri-esiz: zitudadela izenako fortaleza bat. An sartu zan lñigo.

Bertako gudariak armak lagatzeko asmotan zeuden, Errege-ordekoak eta Francés de Beaumont'ek alde egin ondoren. lñigo'ri, kapitana zanez eta naiz barruko gudaria izan ez, bere iritxia eskatu zioten. Onela erantzun zien: "il bear ba'dezute il, armak eskuetan; baiña, ez etsi". lñigo'ren itzeetara, asmoa aldatu zuten eta defensarako prestatu ziran.

Erriko Konzejuak, eurokin ituna eginda gero, ateak iriki zizkieten burrukan zetozteneiri.

Bein erri-barruan, Foix'ekoak kañoiak ipiñi zitun zitudadela-arriesiaren aurrez-aurre kañoika erasoan asteko. Zarata asi zanean, barruko buruzagiak eta bere iru kapitanekek burua makurtzeko asmoa artu zuten; baiña, lñigo'k ezetz, gudariak zirala eta gudarako zirala gudari eta ez lenengo kañoikadari burua makurtzeko.

Beste aldetik, berriz, Foix'ekoak mezu bialdu zion lñigo'ri, burruka laga eta lagun bezala etortzeko. Alperrik. Bere eginkizuna garbi zeukan lñigo'k begien aurrean eta iñork ez zion biderik okertuko. Ez orixe. Naiago il. Mezuaren arrazoi-bidea Germana De Foix, Fernando "Katoliku"aren bigarren emaztea zan: beronen serbitzuan egona bait zan lñigo garai batean...

Loiola-bidean

Sei orduko bonbardeoak arri-esiaren zati bat ausi zuan. lñigo oiñezkoa zan eta ez artillero eta bere eginkizuna une onetan egokitzen zan. Ar-esi etenaren zulora salto egin eta, ezpata eskuetan, oiñezko etsaieiri erasotzeko prest. Orma apurtuaren erdian zutik, kañoi-bola batek ezkubido zangoaren ezurrak zatitu zizkion; ezkerrekoan ere zauriak izan zitun; baiña, ezurrik apurtu ez.

lñigo erori zanean, burrukari laga zioten beste guztiek. Gudari frantzitarrek jaso zuten, zaindu eta ondorengo egunetan Loiola'ra eraman. Eramailleak ez ziran naparrak izan, lñigo berak gerora zionez, frantziarrak baizik. lñigo'ri buruz lagun bezala jokatu zuten, naiz-eta gudatean lñigo'k aurpegi eman.

Zergaitik jokabide ori? Bazekillako Foix'ko Dukeak lñigo nor zan.

lruña'tik ekainaren lenengotik bosgarren egunerako bitarte orretan eraman zuten lñigo Loiolaruntz. Bide luze eta nekagarria. Gaixoarentzat izugarria. Bidean zortzi egunez geldirik egon ziran, deskantsuan. Nun? Bear ba'da Ozaeta'ko errian; emen lñigo'ren arrebak lagun maite bat ba zuan eta aren etxean atsedean artuko zuten lñigo'ren larriak ala eskatuta.

Loiola'ra ekainaren amasetik emezortzira eldu ziran, lñigo erdi-illik zakartela. Irugarren bizitzan ipiñi zuten eria. Be-bekoan upeltegia zeukaten nekazari-tresnakin batera eta orromaia, ogia egiteko. An ez zan ikullurik. Lenengoan sala bat zeukaten, sukalde eta sukalde-ostea eta gela pare bat morroi-mirabeentzako. Bigarrenean sala aundi bat bisitak artzeko, komedore nagusia, kapilla eta jaunen

gela zabala alkobakin batera. Bertan jaio zan lñigo. Irugarrenean seme-alaba eta bisiteentzako gelak.

lñigo'rena aundia zan eta bi leio zitun: bata iparraldera eta bestea sorkaldera. Bera ez zan asko konturatu erdi-illik bait zetorren.

Inguruko sendagille guztiak bildu zituzten loiolatarrek gaixoaren inguruan eta sekulako triskantzak egin zizkioten zorioneko anka zauritu aretan. Lo-belarrak ez; ukabillak estutzea beste erremediorik ez zan "zaldunentzako".

Ekainaren 24, San Juan eguna. Azken sakramentuak artzeko garaia eldu dala esaten diote lñigo'ri sendagilleek. Ekainak 28, San Pedro bezpera. Berri txarrak dira Loiola'n: gauerdiko aldakuntzarik ez ba'da, illa izango da lñigo.

Ala gertatu ba'litz, gauza auek idazten ez nuan lanik izango; ez bait genduan sekulan izan zanik ere jakingo. Zorionez, beste aldera gertatu ziran gau artako gora-beerak: onerako asi eta egun gutxi barru arrisku guztietatik at zegoan lñigo.

Ala gertatu ba'litz, gauza auek idazten ez nuan lanik izango; ez bait genduan sekulan izan zanik ere jakingo. Zorionez, beste aldera gertatu ziran gau artako gora-beerak: onerako asi eta egun gutxi barru arrisku guztietatik at zegoan lñigo.

Bigaramonean Noain erriskan Najera'ko Kondeak, giputzak lagun, Froix'koa garaitu zuan. lñigo'ren lagunak irabazle eta berri ori ematera etorri zitzaion azpeitiar Pedro Zabalakoa.

Egun gutxi naikoak izan ziran berriro Naparro osoa Kastilla'ko Errege Enperadorearen menpean ipintzeko. Gipuzkoarrak leial joka omen zuten. Euskaldunok beti erdibituta: bata bestearen aurka. Lenago eta orain. Ez al da beti orrela izango.

Izan zitun Arevalo'ko bisitak ere.

Une artan Katalin, Juana eroaren alabak, gerora Juan II Portugal'eko Erregearekin ezkonduko zutenak, amabost urte bete zitun, eder eta panpox... Guda-gizonnek bere edertasuna goraiatzeko. Berarekin maite-minduta zebillen aspalditik gure lñigo ere eta gaixotasun egun luzeetan ez zuan bere iduririk burutik kenduko. Txorabiatuta egon oi zan ñaiz iru naiz lau orduetan, denbora igarotzen zanik konturatzeke.

Gai oneri buruz lñigo berak esango digu zaartzaroan, 1554'garrenean, nola zebillen gaztaroan burua txoraturik, bere maiteari nolako arma-serbitzuak egingo zizkion pentsatzen, naiz eta ondotxo jakin ezifezko gauza zala, ez bait zan nola-naiko emakumea, ez kondesa eta ez dukesa, gorangoko maillakoa baizik...

Gauzak orrela izanik, egunak pasa ondoren, ezurak gaizki erantsita, eskubiko zangoa gelditu zitzaion ezkerrekoa baiño motzago, ezur-mutur bat agertzen zitzaiola. Itxusi oso. Gaiñera bere galtza eta polairia estuak habarmenkeririk gabe jantzi ezin.

Ebakitzea erabaki du, berriro ezurak ondo antolatzeko.

Ebago zioten eta zaiñak luzatzeko, tramankulu batean sartu zuten geldirik mogitzeke egun askoetan, martirien antzera... Bere maitearen aurrerako bearrezkoak ziran neke oiek. Ukabillak estuturik eraman zitun min guztiak bere senideak ikaraz betetzen zitula.

Alaz ere eskubido anka motzagoa gelditu zitzaion; baiña, ofñaren azpian txaltxo bat ipiñi ezker, errenik ez zitzaion ezagutzen ondo begiratzen ez ba'zitzaien.

Irrikatzen zegoan noiz Kastillara biurto bere maitearen ingumarietara. Bitartean denbora nola-ala pasa bear, eta igaro bear ori errezteko, liburuak eskatu zitun zaldunenak. Amadis, Esplandian eta oien antzeko zaldun-nobelak nai zitun bere biotz-grifteen araberaoak.

Baiña, Loiola'n ez zan Libros de Caballerías zeritzan aietakorik; oien ordezt Santuen bizitzak (Flos Sanctorum) eta Kristorena (Vita Christi Cartujano) eskeiñi zizkioten. Besterik ezean, eurokin konformatu bear.

Ez zien liburu aieri arretaz eldu egun asko pasa arte. Bere barneko gogoetan aspertzen zanean, orduan jote zuan liburuarengana. Orrelako libururik irakurtzeko afiziorik ez; bestelakoak ere, or nun bait. Apurka apurka, ordea, irakurrialde aieri gustoa artzen asi zan bere aietan zearo murgildu arte.

Gauza aiek irakurrita ondoren au atera zuan lenengoz: oiek egin zutena neuk ere egingo neuke. Auek gogoan erabilli arren, bere maitearen arazoa aaztu ezin. Joko bikoitza zan: bi aurpegikera zituena.

Santuen artean Asis'ko Franzisko agertzen zitzaion indar audienakin Iñigo'ri: biak ematen bait zuten antza berdiña. Biak zeukaten bizitzaren lenengo zatia munduari eta panparrokeriari emanak. Bigarren zatia ere berdiña izango ote zan? Orrek au egin dik, nik ere beste orren beste egin bear diat, zion bere buruari.

Gerora beste santuekin ere berdin gertatzen zitzaion: aien bizitzan ikusten zuana egiteko aalmenez beterik ikusten zuan bere burua. Baiña, danen artean, Kristo'ren bizitzak sortu zion eragiñik biziena. Cartujano'ren Vita Christi arretaz irakurri eta ausnartutako zenbait pentsakera bere Ejerzizio'tako Liburuan agertuko ditu. Esate baterako, Kristo zala Erregea eta Santuek berorren zaldunak.

Ausnartze auek berekiko eta bakarka egiten zitun, iñungo laguntzarik gabe, Jainkoarena ezik. Euskalduna izanik, nekez irikiko zion bere biotza iñori. Bere barruak ausnartzen zitunak, bere kolkoan gelditzen ziran. Bere artan, bakardadean, sortu zitzaion bere bizitzari elburua aldatzea, iñoren aolkurik gabe: arma-bidea utzi eta Kristoren zaldun izango zan andik aurrera Santuen ekintza miragarrien irudira.

Monserrat'era

Lenengo aolkularia Monserrat'en izango zuan Iñigok bere bizitzako okerkeri guztiak eta bizi berrirako asmoak aitortu bait zitun ango konfesore batekin.

Kastilla'ko gudarosteko kapitana emakume zale eta iskanbiletan errez sartzekoa izanik ere, bazitun bere doaiak; bestela Najera'ko Kondeak ez zuan Gipuzkoa'ra bialduko pakegille bezala. Idazten baiño erreztasun geiago ezpata erabiltzen; orrek ez du esan nai, ordea, argia falta zitzaionik buruan, idaz-lanetan baiño arma-lanetan geiago saiatu zala baizik.

Loiola'ko buru-jokabideak, ez bereala nekez baizik, auxe erakutsi zion: maitasun-mifeko pentsamentuetan pozik egoten zala ordu luzeetan; baiña, ondoren mikatza eta barru txarra sortzen ziola egoera orrek. Eta beste aldetik, Santuen ekintzeeri begira ordu pozgarriak pasa ondoren, gero ere biotzeko pakea eta poza uzten ziotela.

Ortik, bere bizirako eta besteentzako lagungarri, ondorio bat aterako du: espiritu txarra eta onaren arteko aldea eta diferentzia. Espiritu txarrak poza dakar eta ondorio tristea: Jainkoa'ren espiritu onak, berriz, pakearekin poza eta ondorengo gozamena.

Argi bat sortu zitzaion barruan lenengoz; eta bigarrenez indarra, argiak erakusten ziona aurrera eramateko. Asmoak ere aldatzen zijoazkion: asieran Santuen ekintzak garaitzea zan, nor geiagoka bezala; gero, berriz, bere bizitzaren uskeria eta lotsa. Garbi ikusten zuan penitentzi latza eginbearrezkoa zuela.

Gauza auetan sortzen zitzaion pake eta pozarekin batera Jainkoa'ren laguntza etorri zitzaion bere asmoak aurrera eramateko. Berez ere ez zitzaion lñigo'ri gogo-indarrrik falta bere aurrean eginbearra ikusten zuanean. Ikusi degu bere jokabidea Iruña'ko ateetan Martin anaia Loiola'ra itzuli zanean; bera, ordea, Iruña'ra sartu zan bere eginbearra an barru artan zegoalako. Francés de Beaumont'ek alde egiten duanean Logroño'runtz, bera ziudadela barrura arri-esia defenditzera; bertako kapitañek burrukari amor eman nai diotenean, berak ezetz, il arte burrukan egiteko. Ala egin zuan berak zauritu zuten arte eta arriskurik aundiena zegoan tokian bertan...

Beraz, begien aurrean bide berriak iriki zitzaizkionean, ez du geiago atzera begiratuko eta orduan artutako erabakiari ez dio bizkarrrik sekulan emango.

Erabakita zeukan Jerusalem'era erromes joatea, gertakizun paregabea gertatu zitzaionean: Ama Birjiña, alegia, bere seme Jesus'ekin agertu zitzaion aurrean, esnai zegoalarik. Ikuskizun arrek berealdiko poza sortu zion bere biotz-barnean; poz orrekin batera bere aurreko aragikerizko bizitzaren nazka; sekulan bere bizitza osoan alde egingo ez dion nazka. Berberak esanda dakigu gaur.

Agertze ori bere irudimenaren asmakizuna ala bere burutik kanpoko gertakizuna ote zan? Orrek ez zion kezkarik ematen. Alaz ere, bere iritiz, gauzak bere irudimenetik at gertatu ziran.

Dana dala, gaixo zaneko gertakizuna zan. Ogetik jeiki zanean, lenengo lana belaunikatu, bere biotzeko Birjin Amari ezkerak emateko... Une artatik aldatu zitzaion lñigo'ri bizitza osoa. Une artatik eginda Loiola ezaguna mundu zabalean.

Ekainean etorri zan lñigo Loiola'ra eta zortzi-amar illebeta pasa ondoren, 1522'garren urtean, ilbeltzetik martzora bitarte orretan, seguru jakin ez, alde egin zuan etxetik.

Bein bere asmoak sendotuta, lñigo'k Loiola'n otoitzari ekin zion eta irakurgaitan sakondu, barrua ikutzen ziotenak idaztiño batean idatziz. Idaztiño onek serbitzu ona egingo zion Manresa'ko koba-zuloan bere liburu Ejerzizio Espiritualak antolatzeko.

Txirotasuna eta penitentzia aukeratu zitun bere doai berezi bizitza osorako. Iraulitza oneri asiera emateko Palestina'ra joango zan, Jesus'ek bere oiñez zapal dutako lurraldeetara. Eta, andik etortzean zer? Kartuja batera joango zan penitentzi egitera.

Baiña, kartuja batean berak nai aiña penitentzi egiten ez ziotela utziko pentsatuz, asmoa aldatu zuan. Garai artan kartujek ospe eta izen aundia zuten eta, beste aldetik, berak Cartujano'ren Vita Christi irakurrita zeukan; ez da, ba, arritze-ko kartujarako gogoia bere barnean sortzea. Beste arrazoibidea ere bazuan bide ori baztartzeko: animen alde jokatzeko deia nabari zuan bere biotzean. Baiña, ez otoitzarekin bakarrik.

Penitentzi gogorrek egiteko irrika zegoan eta Jerusalem'erako bidea artzeko; baiña, ez zuan nai iñork jakiterik zer asmo zitun; ez eta bere bizitz-aldaketaren

berri ere. Ez zedilla iñor konturatu. Euskaldun barrukoia agertzen zaigu Iñigo berriro.

Zalantza orretan Monserrat etorri zitzaion burura. Monserrat'era eskabideak egiten ziran Gipuzkoa'n eta ezaguna zan oso. Gaiñera, Zaldunen Liburuen artean ospe aundikoa zan "Melusina" idaztia. Gai oietako ainbeste nobela irakurritako gizonak Melusina'ren berri jakin bear. Melusina'k suge-itxuran gaztelutik alde eginda gero, bere senarra Monserrat'era baztertu zan penitentzi egitera eta an bertan il zan. Bear ba'da ori ere gogoratuko zitzaion Iñigo'ri.

Monserrat Gipuzkoa'n ezaguna zala esan degu eta bazuan bere elizaxoa ere Aizkibel (Jaizkibel) mendiaren maldan, gaur Guadalupe'koa dana. Berri auek Gipuzkoako Aldundian dagoen eskuz idatzitako "Villa de Fuenterrabia" (1625) liburutik artuta omen daude.

Dana dala eta dena den, Barzelona'n artu bear zuan Jerusalem'eraiko ontzia eta, bide batez, Monserrat'eko Amari bisita egitea erabaki zun.

Najera'ko Dukea ikusi-bearrak emango dio aitzakia etxetik irtetzeko. Andik Monserrat'era erromes eta an aldatuko zitun bere zaldun-jantzi ederrak arloteare-nak soiflean ipintzeko eta ango jendetza artean ez zan iñor konturatuko bere aldaketarekin.

Najera'ko bidean zitun Iñigo'k Oñati eta Aranzazu. Emen zeukaten frantzizko-tarrek beuroen ardurapean Ama-Birjiña'ren elizaxo baserritarra. Oso txukuna eta ez ain zaarra ere. Indar berriak bear zitun Iñigo'k eta aien billa. Gero Monse-rrat'en jantzi-aldaketak egin eta Palestina'ra erromes. Andik etortzean artuko zitun erabaki berriak.

Ona Loiola'n Iñigo'k sortutako egitaraua.

Iñigo gaixorik zegon bitartean bere anai Martin, Loiola'ko maiorazgoa, guda-arazoak zirala bide, etxetik kanpora zebillen geienetan. Noain'go burruka irabazi zuten Foix eta Labrit'eren kaltean; baiña, bi illebeta pasa ordurako, berri txarrak zetozen Frantzi'tik: 25.000 gudari eta kañoi aundiekin zetozen berriro erasoan. Maia edo Amaiur gaztelua napar agramontarren eskuetan laga eta frantziarrak Gipuzkoa'n sartu ziran Ondarrabia artzeko asmoz.

An bildu ziran giputzak, baita Martin Loiolatarra ere bere gudariekin batera. Udar zan. Arazo artan konturatu zan Martin bere anai Iñigo ez zala lengoa; guda-santzoak ez bait zion zirkiñik ere egiten barnean.

Bi illabetera etorri zan barriro etxera bere anai kapitanari gudako berriak ema-ten: Ondarrabi erori zan frantziarren eskuetan. Urriaren 6'an asi ziran kañoika eta 16'an barruko buruzagiek ateak iriki zizkioten erasotzen zieten etsaieiri... Gertaki-zun oiekin Gipuzkoa osoa zebilela erlauntza baten antzera urduri eta zer-nola-koa zan, berak Iñigo'k, une artan lortu zeikean ospea, beregan bait zuten gipu-txek itxaropena...

Gai orreri buruz, erantzunik ere ez.

Errioxa'ko Nafarrete'ra joan bear zuala, Najera'ko Kondea bertan zegoelako... Ez joateko: lotsagarri utziko zuela senitarte osoa... Ez zuan asko uzte Martin maiorazgoak nolako ospea ekarriko zion bere Loiola'ko Etxeari Iñigo'ren igesak...

Martzoaren 24'an egin zion Iñigo'k bere gau-bela Monserrat'eko Ama-Birjinari. Aurretik iru egun egin zitun bere konfesorearekin okerkeri guztien aitortza eta asmo guztien azalpena egiten.

Noiz eldu zan Iñigo Monserrat'era? Beranduenez martzoaren 21'an.

Nafarrete'tik zetorren, Errioxatik, eta aste pare bat bearko zitun bidean. Etxetik Nafarrete'ra, Aranzazu'tik zear, beste aste bete. Beraz, geienak diotenez, otsailaren aizkenetan edo martzoaren asieran irtengo zuan Iñigo'k Loiola'tik. Ilibeltzean irten zuela esaten duna ere bada idazleen artean.

Bitartea artan, Ondarrabi'ko gudaketa zala-ta, Kastilla'ko Errege-etxea eta Kor-tea Gazteiz'era etorrita zegoen. Donosti'ri erasotzeko aalmenik ez zuen izan Frantzia'ko gudarosteak.

Adriano, Utrech'eko Kardenala eta Erregearen Ordezkoa, Gasteiz'en zegoala, albistea etorri zitzaion Erroma'tik, Aita Santu izendatu zutela. Garrantzi aundiko albistea, Italia'ko errege-nik nagusia Aita Santua bait zan.

Istilluak gertatu ziran Araba'n eta bere ingumarietan, agintari-mota guztiak bertan bildu ziralako Aita Santu berriari agur egitera... Onek eta bere talde-laguntzail-leak Erroma'ra joateko Barzelona'ko bidea artu zuten Zaragozan zear. Martxoaren 12'an irten zuten Gazteiz'tik Errioxa'ra eta andik Zaragoza'ra. Beraz, Iñigo'ren bide berbera. Eta aldi berean.

Iñigo'k ez zuan nai aiekin topo egiterik eta aurrea artu zien, ezagun zaarrak bait zitun talde artan, eta ez zan Zaragoza'n gelditu. Emen aparteko jendetza bil-du zan ongi-etorri ospetsua Aita Santuari egiteko.

Etxetik irteera

Najera'ko Kondea zan etxetik irtetzeko aitzakia: bere jaunarengana joatea, ale-gia. Jantzi ederrez apainduta mando gaiñean abiatu zan bi eskudero laguntzaille zitula aldamenetan: bata Andrés de Narvaiz eta bestea Juan de Landeta, biak azkoitiarrak.

Loiola'tik Arantzazu'ra, Amaren aurrean gau-bela egitera beste erromes askore-kin batera. Bear ba'da, an bertan egingo zuan bere garbitasunaren eskeintza Ama-Birjiñari.

Andik, Gazteiz'en gelditzeke, Errioxa'ra. Nafarrete'n Najera'ko Kondea'rekikoa bete ezkerro, librea zan bere asmoak eta bizimodu berria elbururaino eramateko. Dukat batzuek zor zizkion Dukeak eta aiek eskatu zizkion Dukearen diru-zaiñari. Berekin esku-zabal izan zan famili bateri lagundu zion aurrena eta gero bere laguntzaille-morroieiri. Biak etxera itzuli-erazi zitun mezu onekin: Monserrat'era zi-joaala erromes penitentzian eta pobrezian.

Beste mezurik ez zuten jaso ondorengo urte luzeetan.

Tudela'tik Zaragoza'ra bidean moro batekin izan zuan eztabaida bero bat, Ama Maria'ren birjintasuna zala-ta. Eskerrak bide-gurutze batean alde egin ziolari, zalantzan bait zegon atzetik joan eta ezpataz garbitzeko ere. Bere dama berria Ama Birjiña zan eta onen izen ona moroak iraindu zuan...

Zaragozan mogimendu aundia zebillen Aita Santu Adriano'ri ongi-etorria anto-latzen eta an sartu gabe aurrera ekin zion Iñigo'k. Igalada'ra eldu zanean zakuzko soifeko bat, orpoetaraiñokoa, egin erazi zuan; jantzi, ordea, Monse-r-rat'eko Amaren aurrean jantziko zuan betirako, zaldunen antzera gau-beilla egi-teko.

Bein Monserrat'en, mandoa ikuilluan laga eta bera aitorle baten billa asi zan, Gipuzkoa eta Kastilla'ko berririk jakingo ez zuena. Roselloi-aldeko apaiza auke-ratu zuan bere bizitzaren berri emateko.

Monserrat'en eunen bat lagun bizi ziran, danak alkar jota; beneditarrak ziran otoitzari eta liturjiari emanak, bereiziki Errosario eta Eukaristiaren debozioak zabaltzen zutenak.

Iru egun, martzoaren 21'tik 24'rako bitartea, otoitzean, barau gogorrekina batera, pasa zitun bere azterketak egiñez aitoritza preparatzeko. Gauzez ez zitun ez jantzirik ez oiñetakorik kendu. Idatzi zitun geien ikutzen zioten ideiak eta sentimenduak; baita pekatuen zerranda luzea ere. Guztiak irakurri zizkion bere aitorleari 24'an. Ondoren, pakea eta poza biotz-muiñean.

Abadegian utzi zuan mandoa eurentzako; ezpata eta puiñala aitorleari eman zizkion aldara-aurreko burni-esian esegiteko ex-boto baten antzera. Antxe egon ziran denbora batean beste ex-botoak ipintzeko kendu zituzten artean. Ordurako ez zan lñigo oraindik ospetsu; bestela gordeko zituzten ondotoxo.

Bere jantzi aberatsak eskale bateri eman zizkion gauzez, alkandora aiñeko guztiak, bere burua sakukiz jantzirik. Alaitasuna gaiñezka zuan, gixa artan ez bait zuan iñork ezagutuko. Orrela egin zuan gau-pasa bere Damaren aurrean, zutik edo belauniko, erromes askoren artean... Zenbat pentsamentu buruan eta zenbat sentipen biotzean...! Ainbeste ziralarik, Jerusalem'era joan aurretik, ingumari aietan gelditzea erabaki zun, zerki oiek guztiak bere idaztiñoan, Loiola'koan, xeetasun osoan ipintzeko.

Albako meza entzun zuan 25'an, Ama Birjiñaren festan, eta, argitu baiño lenago, iñork ezagutuko ote zuan bildurrez, alde egiten du Monserrat'etik. Zuzenean Barzelona'ra joan bearrean, zearka Manresa'tik joatea erabaki du, ara zuzenean joan gabe, zenbait ezagun bait zitun Barzelona'n. Najera'ko Dukesa katalana zan eta katalan zaldunak ezagutu zitun lñigo'k Najera'koekin. Askatasun osoa nai zuan bere bide berriari jarraitzeko, iñungo ezagunik gabe inguruan, santutzat artu ez zezaten alako aldakuntza ikusi ondoren.

Lau illebate igaro zitun Manresa'n etengabeko otoitzean eta izugarritzko penitentziak egiten. Garai ortako Jainko-esperientziakin konparatzeko utsak iruditu zitzaizkion Loiola eta Monserrat'eko argietatik ateratako jakinduriak.

Manresa'tik atera zitun bere Gogo-jardun edo Ejerzizio Espiritualak, soldadu bat besterik ez zalarik oraindio. Gerora Jesus'en Konpañia sortuko du Protestalaritzak dakarren burrukari aurpegi emateko. Burruka orretan murgildurik igaroko du bere bizi osoa lñigo'k: burruka batetik bestera aldatu da; baiña, beti burrukan il arte. Zaiñetik burrukalari gure giputxa.

Lutero'k sortarazitako gerrak berekin eramango ditu Europa'ko zatirik ederrenak eta andik zetorren ujolari lñigo'k ipiñiko zion aldaparoa urari eutzi aal izateko. Lan ortarako aukeratua izan zan Loiola'ko amairugarren semea.

lñigo aukeratua izan zan egunetan, begira zer gertatzen zitzaion Lutero'ri:

Lutero'k 1521'an austen du zearo eta betiko Erroma'ko Elizarekin. **Maiatzaren 4'an** gordetzen dute Watenburg'eko gazteluan Alemania'ko Printzeek.

lñigo Iruña'n zauritzen dute urte ortan berean; eta **ekainaren 24'rako** Loiola'ko etxean da.

Lutero'k **1522'ko martzoaren** lenengoan gaztelutik iretzen du bere protesta-ekintza asteko... **Egun oietan** zijoan lñigo Monserrat'eko bidean eta **24'an** egingo du bere aitoritza Monserrat'en, ondoren Manresa'ko leizean bere burua gordetzeko otoitz eta penitentzi artean.

Une artan lñigo'k ez zeukan Lutero'ren berririk; baiña, onen erasoari aurre egindakoen artean, lñigo aiñakorik ez da izan beste bat.

Ez da, ba arritzeko Lope de Vega antzekigille miragarriak onela ba'dio bere "Vela de Armas" antzerkian.

"En aquel monte serrado...
 un soldado vizcaino
 (y cansado de servir
 guerras del mundo, en Navarra
 contra las flores de lis)
 la espada al altar ofrece
 porque se quiere ceñir
 armas que conquistar almas:
 que Dios se lo manda así:
 Mucho le pesa al soldado
 de verse cojo, al salir
 a guerra tan peligrosa,
 que se han vuelto más de mil.
 Pero, díjole una voz:
 'Ignacio, fuerte partid
 que no ha menester los pies
 quien ha de ser querubín...'
 No se ha de preciar España
 de Pelayo, ni del Cid,
 sino de Loyola sólo
 porque a ser su sol venís".

**Arrinda'tar Anes
 Ekaina. 1986**

San Ignazioren jaiotzaren
 U. Mendurrena



Ignacio de Loyola
 (1491 - 1556)



kutxa

gipuzkoako donostia kutxa
 caja gipuzkoas san sebastián



EUSKALDUNAK MUNDUAN: XABIER

Agramontar naparrak, gaskoiñ eta Frantzesak lagun dituztela, Erronkari-tik sartu dira Iruñako bidean, berau artzeko asmoetan, Kastillaren men-pean bait dago. Enrike Labrit, errege naparra dator eurokin.

Laister eldu dira Xabierreko gaztelura eta bertako jaunak atekak iriki dizkio, pozak zorutzen, bera izanik Napar Konseilluren maiburu Erregearen serbitzuan eta semeak ditu gudaroste orretan. Gazteena, Franzisko, gazteetxo oraindik gudarako, amabost urte bete berriak bait ditu, bera aterada gaztelutik, txakurrak lagun ditula, soldaduen bidera.

Xabier gazteluko jauna Joan de Jaso Atondo degu eta etxeakoandrea, berriz, Maria Azpilkueta Arnarez. Biak daude etxe-atarian gudarien zai. Txaloka artzen dituzte erri guztiek, askatasuna dakartelako euroekin batera. Izan ere Kastillako Fernando errege aragoitarra menperatu berria du Naparro osoa. Izan ditu artarako lagunak bai Lerin'go Konde Beaumontarra eta baita ere Najera'ko Kondea. Auxe izenda dute Erregeordezko eta onen serbitzurako etorri zan Iñigo Loiolatarra Arevalo'tik. Gipuzkoan da lagun-billa joana Iruña defenditzeko asmoetan. Franzisko zan Xabiertarren seigarren semea eta Iñigo, berriz, Loiolatarren artean amairugarrena. Biak alkartuko dira egunen batean; baiña gaurko onetan, 1521 garren urtea aurrera dijoala, aurka jokatu dute...

Artu zuten Iruña eta bai laister galdu ere. Ondorenak ez ziran alaiak Xabietarrentzako: kartzelak, desterruak, eriotzak... Ondamendia. Franzisko-ri ez zaio sekulan aaztuko arazo au. Aita ere laister il zan ezbear auen ondorioz.

Franzisko 1506'garren urteko apirillaren 7'an jaio zan eta emeretzi urte beterik, abiatu zan Paris'era Sorbona Ikastetxe Nagusian ikasketak egiteko asmoetan. Amaika urte pasa bear izan zitun Maixutasuna lortzeko, naiko naigabeen artean, ez bait zeuden etxeokoe gastu aundiak jasotzeko eran gerrako ondamendiaren ondoren.

Paris'en Loiolatar bat ezagutu zuan. Euren aurka burrukatutako gizona. Gerrate artan erren gelditua: Iñigo. Gogoramen txarrak zerkarzkion burura erren arrek: gazteluko dorreak desegifak Cisneros'en aginduz, kartzelak eta desterruak, ondoren aitaren eriotza eta beranduago, tristuraren poderioz, amarena ere bai. Gorroto zion bere etxearen kaltean eta Kastillaren onean jokatu zuan gizon arreri.

1530'garren urtean, martxoaren 15'an, lortu zuan Xabierrek Lizanziado titulua, Iñigo Paris'en agertu eta bereala. Beste lau urte bearko zitun Maixutasuna lortzeko.

Bitarte artan Iñigo ari zitzaion ondotik; adiskidetasuna nai. Naparra, loiolatarrak biotz-biotzetik eta bene-benetan lagundu zion bai diru-emaitez eta baita ere berarentzat ikasleak billatzen.

Napar maixuak ames ederrak egiten zitun bere kolkorako; eguraldi txarrek alde egin zioten bein betirako eta andik aurrera aberastasunarekin batera ospea eta aginpidea espero zitun bere bizitzan. Geroz eta geiago izan; geroz eta geiago euki...

"Zertarako du gizonak lur osoa irabaztea...?" Ebanjelioko itza auek bein eta berriz Iñigok aldamenetik. Xabierrek, musin; ez zuan orrelako mintzotik entzun nai. Baiña, ur tantoak ere ekin eta ekin, aizkenerako arria zulatu...

Iñigo'ri ez zitzaion beste iñor orrenbeste kostatu, berak zionez. Egurrik trinkoena eta burnirik gogorrena; aizkenean, ordea, Loiolak bere elburua lortu eta bere asmoak nagusi.

Ejercicio edo Gogo-jardunik egin ez arren oraindik, Iñigoren bidetik jarraitzeko prest zegoen. Artea baiño gogorragoko espiritu aretan landutakoa, iraungo zuan sekula sekulotan.

1532'ko iraillean egin zitun illebeta osoko Ejercicioak bera bakarrik etxetxo batean. Iñigo joaten zitzaion ikustera maiz; baita beste bere lagunek ere. Arin-arifniketan eta saltari oso jaio zan eta bizkorra gure mutil gazte naparra eta orren aurka egite arren edo, bere besoak eta zangoak lotu zitun lokarriz eta ez arrisku barik; ia-ia besoa moztu bearrean izan ziran. Lau egunez barau eta aldameneko elizatxo batean egunero Meza entzun; geroago ondorengo ordu luzeak otoitzean eta ausnarrean...

Andik, beti bezin bizkor eta alai, baiña "barrutik zearo aldatuta" irten zuan. Arrezkero beti liburutxo ura, Ejerciziotakoa, berekin eramango du munduko baztar guztietara. Iñigok asmatutako liburutxoa. Arekin Iñigo'ren ganako maitasuna goi-maillak arrapatuko ditu, zorabiatzeko moduan, "Nere biotzeko Aita" esango dio bein eta berriz eta, bere ustez, arrazoi guztiekin beronen bidez aurkitu bait zuan bere biotzean Jainkoaren mintzaira. "Nere biotzeko Aita Kristo'gan".

Urte artako urrillean, Ejercicioak egin ondoren, Xabier eta beste bere lagun guztiak, bakoitza bere ikaskintzak egitera, Ikastola Nagusira. Bi urte falta zitzaizkion Xabierri Maixutasuna lortzeko. Talde osoak lortuko du bakoitzak bere Maixutasuna. Zazpi ziran eta zazpirak Unibersitateko Maixuak. Gerora, Jesus'en Konpañia sortu-ta gero, auen goitizena "Paris'ko Maixuak" izanen da.

Maixutasuna Xabierrek 1534'garren urtean lortu zuan.

Gogo-jardunak arrakasta aundia izan zuten Xabierrengan; baiña, beste asko eta askorengan ere bai. Eurak izan dira biotz-barruak aldatzeko era egoki bat naparrarentzat bezala, beste lagunentzat ere bai.

Monmartreko botoa

Parisko zazpi Maixuek (Láinez, Fabro, Rodrigues, Salmerón, Bobadilla, Iñigo eta Xabier) bere botoa egin zuten Abustuaren 15'an, Ama Birgiñaren Jasokundeko egunean, Xabierrek Gogo-jardunak egin baiño illebate lenago. Fabro zan apaiz bakarra eta berak eman zuan egun artako Meza. Jauna artu aurretik, banan banan, Jainkoari beuren buruak eskeifi zizkioten botoaren bidez pobrezian eta garbitasunean, beartsuen alde lan egiteko.

Pakean biotzak, pozetan igari.

Ez zan une aretan Jesus'en Lagundiarik sortu oraindik; baiña oiñarriak ipiñitak zeuden. Bi urte buruan berritu zuten botoa. Iñigorik ez zan tartean eta bere ordeaz beste iru lagun berri Fabrok ekarriak: Jay, Broet eta Codure.

1532'garren urte onetan Xabier ez zan oraindik Maixu; lenago esan degu 1534'an lortu zuala eta andik iru urtera, 1537'ko ekainaren 24'ean apaiztu zan. Iraillean, Landibar euskaldunak, Xabierren morroi izandakoak, lanik gabe gelditu zalako, sekulakoak esan zitun Iñigo eta bere lagunak aurka, egien artean gezur galantak naasturik.

Iñigok garbitasun osoak nai izan zitun arazo orretan eta ori dala-ta, Aita Santu Paolo III'garrenak aukera izan zuan gure Maixuok ezagutzeko.

Begi onez begiratu zien eta taldeak Aita Santuari boto berezi bat eskeintzea erabaki zuen. Boto orren bidez beuren buruak Aita Santuaren eskuan, eta edozertarako, ipintzen zituzten, noranai bialduak izateko. Pobrezia eta garbitasun botoari beste au erantsi zioten eta boto onetan datza Jesus'en Konpañiaren bereiztasuna.

Talde osoak Erroman lan egiten zuan, bakoitza bere aldetik, baiña maitasunean alkartuta eta Iñigo'ren gidaripean, bera bait zuten "guztien Aita". Berak landu eta alkartu zitun. Aurrerantz, ordea, bakoitza bide berriren batetik alde egin bearko zuela ikusten zuten Aita Santuaren gogora. Bat eginda zeuden aiek laister zabalduko ziran bakoitza bere bidetik.

Amar lagun. Amarrek onartu zuten euren artean osatutako Jesus'en Konpainia, Lagundia.

Buru aukeratzea

Erabakita zeukaten guztien artean buru bat aukeratzea. Sakabanatzen asita zeuden Aita Santuaren naira eta Xabier India-bidean. Egun batzuek otoitzean eta ausnartzean pasa ondoren, bakoitzak bere botoa eman zuen; guztiak Iñigo'ren aldekoak. Iñigok, beriz, geien izan zuanaren alde eman zuan berea. Botoa "Iñigo" izenez izenpetzen du. Ordurako, ordea, Iñazio esaten zioten geienetan.

Xabier alde eginda egon arren, bere botoa utzi zuan Erroman Iñigoren alde eta onela zion: "berak, eta ez neke gutxiz, bildu gaitu guztiok". Gai-

ñera lñigoren ondorengo Fabro aukeratzen zuela adierazten du. Fabrok, berriz, Xabier aukeratzen du lñigoren ondorengo. Orra Paris'ko gela batean alkarrekin bizi izandako irukotea: lñigo, Xabier eta Fabro. Irurak bat.

Botoa eman ondoren, profesioa egin zuten Konpañian. Xabierrek berea Goa'n egingo du 1543'garren urtean.

Kostituzioak

Konpañia onek oiñarrizko Legedi bat bear zuan, beste Lagundiak zuten antzekoa. lñigok bildutako legeak beste Paris'ko Maixuen eskuetan ipiñi zitun, eurok zuzendu eta onartzeko.

Xabier Indietara joana zan eta besteak ere sakabanatuta zebiltzen. Ez ziran guztiok batera etorri, tarteka baizik eta taldeka. Polanko, lñigoren idazkariak onela dio Xabierreri idatzitako arazo oneri buruzko idaztian:

“Gure Aita Maixu lñazio erdipurdi dabil osasunez, alaz ere espero dut lagunduko diola Jainkoak Konpañiaren kostituzioak eta ordenamentuak burutzen eta sendotzen; eta beraren laguntza bitarteko, itxi gabeak gelditzen dira oraingoz, gauza asko bizitzaren esperientziarekin ausnartuta gero, sustrai sendoak toki askoetan izan arteko guztian”.

Irikita zeuden oraindik Xabier eta lñigo ilda gero ere.

Indietara bidean

1540 urtean, irailla. Konpañian emandako botodunak amar ziran: Fabro Parma'n, Laínez Piacenza'n, Bobadilla Napoles'en, Rodrigues Siena'n, Salmerón eta Codure Eskoziara joateko asmotan Aita Santuaren borondatez. Une aretan Portugal'eko erregeak amar mixiolari eskatzen ditu Indietarako. lñigok ezetz, geiegi zirela. Aizkenerako Aita Santuarekin bi bialtze-kotan gelditu ziran: Siena'ko Rodrigues eta Napoles'etako Bobadilla.

Bobadilla gaixotu zan eta bere ordeztu beste bat aukeratu bear. Aukera ori egiteko lñigok iru lagun zitun berekin: Jay, Broet eta Xabier. Berak Xabier ezagutzen du beste biak baiño geiago, auek Fabrok aukeratu bait zitun Lagundirako eta onela esaten dio bere lagun maiteari:

— “Badakizu, nere anai maite Maixu Franzisko, guretako bi lagunek Indietara pasa bear dutela Aita Santuaren ordenaz eta aita Bobadilla, orretarako aukeratua, gaixo dagoela. Erabakia presa guztian artu bear da, enbajadoreak bere negozioak atzeratu ezin ditulako; beraz, Jaunak zu aukeratu zaitu lan orretarako”.

— “Bai, aita, emen naukazu edozertarako prest”. Xabierrek erantzun.

Orrenbestez jantziak txukuntzera eta Aita Santuaren onespina artzera joana da. Geroago Jaunari egiteko botoa idatzi; baita lendakaria aukeratzea ere. Oiekin batera, Kostituzioak onartzea. Iru idatzi. Oiekin bere gogoia pakeratu...

Bigaramonean irten zuan Erroma'tik Loreto'ra Lisboa'rako bidean, enbajadore-taldearekin batera. Bitartean Rodrigues'en ordeztu Paolo de Cameri-

no italiarra izan zuan lagun biderako. Lisboa'n bederatziz illebeta igarota, irten zuten itsas-ontziz Indietara.

Urtea 1541, apirilaren 7'an (35 urte betetzen zuen egunean) irten zuten; Monzabike'n negua pasatzera beartuak izanik, urrungo urtearen (1542) udaberrian eldu ziran Indietako Goa urira.

Bien bitartean Aita Santuak Konpañia onartu zuen; baiña, egun artan iru lagun besterik ez zeuden Erroman. Beste guztiak munduan zear banatuta. Sakabanatze onek miñak sortzen zitun biotzean, Paris'tik asi eta Erroma'raifoko bide danetan alkarrekin bat eginda bizi izan ziran Maixu aieri.

Naiz eta Iñigo zaarren izan eta beste guztien elkartzaille, euren arteko arremanak oso ziran maiteak eta lagunartekoak. Araoz, Iñigo'ren illoba, Erroma'ra eldu zanean ate-joka, Xabier zegoen ate-zain eta iriki zionean, onela ots egin zion Loiola'koari: —"Iñigo, emen dek Araoz". Lagunkidetasun orrek biotza ikutu zion, Iñigo etxera eramatera zetorren Araoz illobari. Senideen aginduz zetorren eginkizun ori betetzera; baiña, gauzak ez ziran neurri orretan bete, alderantziz baizik, bera gelditu bait zan betirako Iñigo'rekin.

Eskutitzak

Iñigo Erroma'n utzi eta berak alde egiteak zauritu zion biotza Xabierri. Ondotxo zekian Iñigo'k ori, eta bidean dijoazela, Bolonia'ra idatzi zion karta bat. Zer poza Xabierrena eskutitz ura artzean eta onela erantzuten dio: "zenbat poz, atsegin eta alaitasun jaso ditudan zure kartarekin Jainkoak bakarrik neurtu lezazke".

Alkarretik urrutian, alkar geiago ikusteke, bizi bearko zutela betirako pentsatzeak, biotza jaten zion maixu naparrari: "lanik ez danean alkarrengan pentsa bear dugu guztiok eta gure arazoan berriak alkarri eman eskutitzen bidez...".

Lisboa'tik irtendako egunean (1541-IV-7) onela idazten dio bere lagun, aita eta maixu zan Iñigo lagun maiteari: "Indiatara idatziko didazunean, lagun guztien berriak banan-banan eta oso luze eman, nik orrela zortzi egunetarako irakurgaiak izan dezadan; nik ere orrenbeste egingo dizut...".

"Societas amoris": "maitasunezko alkartea" deitzen zion Xabierrek euren arteko Lagundiari eta orrela izatea, lagun denak sakabanatuta izan arren, eskutitzek lortu zuten. Iñigok Erroma'tik millaka karta idatzi zitun lagunentzat eta auenak artzea izaten zan zorabiozko poza, batez ere Xabierrenak ziranen. Orduko korreo ez zan abioiez egiña: bi urte luze bear zituzten Xabierren eskutitzak Iñigo'ren eskuetara elduko balira. Alaz ere ez zuten bidean ezetasunik eta freskurarik galtzen karta oiek, "el hijo menor en destierro mayor" izenpetutakoak.

Beti Iñigo'ren berrien zai eta artutakoan, belaukiko irakurtzen zitun lerro aiek, begietatik negarra zeriola. Lanez eta arazoz menperatuta ibilli arren (mixiolari, Orienteko Aita Santuaren Nunzio eta Ego-afrikatik Japonera bitarteko Konpañiaren probinzial nagusia) gizon arrek tarte arkitzen zuan eskutitz oso luzeak idazteko... umetxoeri dotriña erakutsi eta lepradunak sendatu ondoren an egoten zan zai-zai noiz korreoak kartarik ekarriko ote zion.

"Nere benetako aita", "nere Aita Kristo'ren erraietan" deitzen dio Iñigo agurtzean eta amaitzeko beti aizkeneko itza "lagun" eta batez ere "seme" izaten da.

Zer maitasun zioten alkarri bi euskaldu auek eskutitzetan nabari da, naiz-eta lurperatuta egona izan, naiz-eta eurak bere emozioak gordetzan iaioak izan. II-aurretik, 1552'an, onela idazten dio Xabierrek Iñigo'ri: "Zure ainbat itz eder eta gozoen artean, auek irakurri ditut gozenak: Zuretzat osorik, iñoiz zurekin aaztu eziñezko Iñazio; oiek malkoz irakurri ditut eta malkoz idazten ditut orain, lengo denborak gogoratzuz, ainbeste maite izan nauzu eta orain ere maitatzen nauzu...".

Amar urte orrela pasa ondoren, alkar ikusteko irrikatzen zeudela, Xabierrek argi eta garbi esaten dio Iñigo berak naiko balu, obediendiaren bitartez, alkar ikusteko aukera izango zutekela: Iñigok Erroma'ra joateko agindu eta berak obeditu...

Aizkenean, orratio, Iñigok ots egin zion Urrutietako Ekialdeko berriak Xabierren aotik zuzenean jakin aal izateko. Aantziz itxarotako agindua eldu zan Indietara; baiña ordurako Xabier ilda zegoen bi urtetik eta eriotzaren berriak ere beste bi urte bear izan zitun Erroma'raiño eltzeko... Indietarako bideak artu zituanean, orixe zan Xabierren bildurra: ez zutela geiago alkar ikusiko, alegia. Bildurra, egi biurtu; ez zuten mundu onetan aukerarik izan alkar geiago ikusteko.

Ez al zeikean Iñigok beste bietako bat bialdu Xabierren ordeztu? Bai, bere esku zegoen zein bialdu; bazekien, ordea, berak lan zail eta gaitz ura ez zuela iñork beteko Xabierrek baiño obeto. Bere bizia zearo aldatzeko grazia Iñigo'ren bidetik etorri zitzaion Xabierri eta aren ardurapean egin zitun onek Indietara joan aurreko urte guztiak. Alkarren artean orrelako maitasun sendoa sortzea ez da arritzeko. Beste bizi-arrazoibide batzuk egon zitekeen bien artean; esate baterako, biak ziran euskaldunak eta biak gelditu ziran gazteerik umezurtz. Gazterik galdu zituzten aita-amak... Dana dala eta dena den, alkar orrela maitatu arren, ez zuten alde egiteko eta bein-betirako alde egin ere. Jainkoaren maitasuna maitasun guztien azpitik eta gaiñetik.

Iñigo, Konpañiaren buru izendatu zuten ezkeroz, lanpetua bizi zan eta arazo ugari eramaten zitun aurrera; baiña, artarako indarra ez zan gorputz gazte eta sasoiko batengandik sortzen zana, ez; gorputzetik makal zebillen, soiñeko indarrak gutxitzen zijoazkion. Soiña makal, gogoia ordea indartsu. Bere idazkariaren bidez idatzitako karta luze batean, eraskin au ipintzen dio bere eskuz: "para que sepáis que estoy vivo en la miseria de la triste vida": "miserizko bizimodu tristea" ez zan aitzaki bat alperkerian egoteko. Eskutitz orretan bertan, Polanko'ren eskutik, berri asko ematen dizkio: Santa Maria de la Strada'n, euron etxean, zeramaten bizimodu; Colegio Romano zeritzan ikastetxean, berak eraikian, bosteun ikasleekin egiten ziran lanak eta baita beste ikastetxeetan eramaten zana:

Tivoli, Napoles, Ferrara, Bolonia, Venezia, Padua, Messina, Trento, Ingolstadt, Viena, Colonia, Lovaina, Paris, Portugal eta Espaiña'koetan. Arazo oiek guztiek nekeak sortzen zioten guztien buru zan Iñigo'ri. Alaz ere "miserizko bizimodu tristea" zeraman gorputza, naigabez betea zeukan. Ilzanean, autosiaren medioz, jakin zuten zenbat arri zitun gibelean bezala gultzurdifetan ere...

Itz oiek idazten dion egunean berean, Xabierrek ere Iñigori idazten dio Cochin'dik: "Yo estoy lleno de canas... Con esto acabo sin poder acabar, escribiendo a mi padre y hermano tan querido y amado": "Illea zuritu zait... eta orrenbestez emen nago ni amaitu bear eta amaitu eziñik, zuri idazten nere biotzeko kutuna zeran aita eta anaiari".

Idatz luze orrekin beste motzago bat biatzen dio Iñigo'ri berarentzat bakarrik eta bertan agertzen dio, ze gogo bizia duen alkar ikusteko eta eskatzen dio milagrotxo bat egiteko orrela gertatu dadiñ: zuk agindu (orrera joateko) eta nik obeditu (joanez).

Xabierrek berak era baditu bere tristurak barnean: "Ya pasó el tiempo en que deseé vivir más que ahora": "bizi izateko gogorik izan dut geiago garai batean gaur baiño". Il-aurreko kartan idazten dizkio itz oiek, bere aizkeneko eskutitzean. Alaz ere, ez dio lanari etsiko il-arte. Orduan bakarrik, atsedena. Bitartean ilusio aundienakin ematen dizkio Japoi, Txina eta Indietako berriak; baita bere iritsiak ere Konpañari buruzkoak: naiago ditu gutxi eta onak, epelak eta gutxirako direnak baiño ugariagoak izan arren. Oso-osoak bear dira eta ez erdipurdikoak...

Esana degun bezala, Iñigok Europa'ra etortzeko baimena eman zionean, Xabier illik zegoen bi urtez. Penak eta naigabeak biotz guztietan azitzen dira mundu onetan; Iñigo eta Xabierren bizitzak ez ziran larrosa kolorekoak izan.

Xabierren eskutitzak Europa'n zear

Xabierrek, beste lagunek bezala, Iñigo'ren agindura eta berari bere biotzak agintzen zion naiera, tarteka-tarteka eskutitzak idatzi zizkion bere lagun eta aita loiolatarrari.

Karta auek Europa osoan zabaldu ziran ospe aundiz.

Oien kopiak Portugal eta Espaiña'ko Korteetan, Trento'ko Konzilioan, Paris, Colonia eta Coimbra'ko Ikastola Nagusietan irakurtzen ziran. Izan ere Urrutiko Ekialdeko berriak berez ziran lilluragarriak. Baiña, Xabierren biotzeko goi-maitasunezko garrak, bere urratsak segitzeko egiten zituen deiak ere bazuten euren arrakasta.

Oietako iru idatzi Paris'en 1545'garren urterako argitara emanak ziran bertako moldetegi batean. Onelakoak esaten zizkien ikasle eta irakasleeri: "Gure alde auetan gizaki asko gelditzen da kristau egin gabe, lan santu auek egitera ortik onera jenderik ez datorrelakoz. Banago oietako ikas-tetxeetara joateko, Paris'era batez ere, Sorbona'n santzoka asteko zoro baten antzera, ikasteko gogo geiago bait dago, ikasitakoekin frutua ateratzeko baiño...".

Ausnartuko baluteke, ikasten ainbeste saiatzen diran oiek, zer kontu eman bearko duten beuroen jakinduriagaitik, egingo lituzteke eskeintza oberik, Jainkoaren miserikordia lortzeko.

Xabierrek bazekien, garai batean bera ere tarteko zalarik, Ikastetxe oietan ari ziranak besteen onerako baiño beuroen probetxurako lan egitezen utela, gerora ospearekin, dirua eta agintaritzaz lortzeko asmoetan. "Buru-gabeko biozkadak" deitzen die orrelako gogoetari Asia osoan galdurik zebillen Unibersitateko irakasleak. Bera millaka ta millaka kilometro egitez bakardadean eta lanez zapalduta eta bien bitartean klerigo eta apaiz-multsoak alkarrekin eztabaidan burukeri utsak ziren gauzeetan; okerrago oraindik, ospea eta aginpidea diruarekin lortzeko ekintzeetan...

Aietako karta batek lortu zuan lñigo'k bere lanez lortu ezin izan zuena, Nadal Konpañira ekartzea, alegia.

Urrutiko urratasak

1541'garren urtean Lisboa'tik irten eta lau urtez, 1545'ra arte, Indian ibilli zan: Goan, Ceylan'en, Cochin'en eta ingumarietan.

Andik Urrutiragoko Ekialdera jo zuan Santo Tomé Meliapor'eko zeritzan errira: 1545'ko maiatzean eldu eta 1547'ko abendurarte bertan egon. Garai onetan antolatzen du Japonerako bidea; baiña, bien bitartean, Indietara dator berriro eta 1549'ko ekainaren 24'an Malakatik artuko du itsasontzia Japonerako, Kangoxima deritzen irira.

Bi urte t'ardi igaro zitun Japon'en eta 1551'eko azaroaren erdialdera Singapur, Cochin eta India ikusi ondoren Malaka'tik irtengo du berriro, baiña oraingoan Txina'ra.

Zergaitik Txina'ra? Bere ibillaldi aietan, Txina zala kultura guzti aien sustrai, konturatu zan eta bertatik asi bear zala erri aiek kristautzeko. Orretxegaitik zijoan Txina'ra.

Malaka'tik uztaillaren 15'ean (1552) irten eta abustuan elduko da Sanchon'era. Ugarte batzuek dira Sinchiang ibaia itsasoan murgiltzen dan kosta-aurrean, Canton'en inguruan.

Gaixorik eman zuan bere azken Meza azaroaren 21'an eta abendua-ren 3'an ilko da Sanchon'en, Txina'ren aurrez-aurre, bakardadean, sakramenturik gabe, Aita Santuaren onespenerik gabe... Zerua goian, lurra oinpean: 1552.

46 urte eder zituen.

Anes Arrinda



EUSKALDUNAK ORAIN ETA BETI

Noizkoak eta Nungoak?

Galdera oiei erantzuteko. orain eun urte. Euskera bakarrik zuten jakintsuek esku artean.

Lan orretan ibilli diran geienak. danak ez ba'dira. apaizak eta prailleak izan dira: latīna bazekiten: griego ere bai: hebreo apur bat zeñek ez? Ortik Semiten izkerak ikastera pauso bat dago: pauso ori bat baño geiagok eman zuten.

Emendik kanpora eta Ekialdean. izenak topa zituzten emengoan antzeko berdiñak: Araxes erreka Ararat mendia azpitik... emen bazela (Araxes erreka eta Aralar mendia aren gairietik). . Arno erreka Italia' n, Amo mendia Mutriku' n...

Euskera

Zer ondorio atera zituzten Euskera utsarekin?

1/ Euskera ez dala Indoeuropeotarren izketariko bat... Aurrekoa dala... Aiek Europa'ko izkera eta kultura guztiak zapaldu eta desegin zituztela orain 3.000 urte... Ordurako Euskera zaarra zan eta dirau.

2/ Ekialde edo Orienteko. mintzaira zaarrek badutela Euskeraren antza apur bat... Eta. ortik edo, ondorio au atera zuten: andik etorri ziralako onera Euskaldunak.

3/ Erroa apaiz giputzak esaten diguna da, Adam'ek euskeraz egiten zuela (Erroa: "Paraiso Terrenal") eta Diharce de Bidassonet Abate prantzesak bere "Histories Cantabres" liburuan diñoenez Kreatzalleak berak be Euskeraz egite eban: José García Oregon Aramburu idazleak ere badu liburu bat izenburu onekin: "Euskera Paradisoko Izkera".

Guri gaur. esate auek barregurea ematen dipute: baño. eun urteko jakintzarekin ez zebiltzan ain bidetik alde. Orduko Biblia'ren agerpenak oso ziran motzak eta Adam'en denborek Jesus'en gandik 4.000 urteko aldea besterik ez zeukaten. Gure jakintsuek bazekiten Euskerak 6 000 urte zituela, lanabesak euskeraz arri itzakin sortu ziralako: aizkora. atxurra, artasiak, aiztoa, zulakaitza... eta abar.

Jakintzaren une aren egoerarako ez egozen ain gaizki landuak Adam eta Euskeraren arteko ar-emanak...

4/ Euskerak. bere erara, erakusten digu geure aurrekoen historia. Euskerak berak agertzen digu zer gauza eta zer izenegaz artu genduzen erromatarren eskutik. Esate baterako orra bi izen sagardotegietan bearrezkoak diranak: tolare eta kupela.

Zeñek ez leuke esango biak euskera utsa ez diranik?

Atan be, biak dira latin utsa: 'torcular' eta 'cupella'. Torcular, euskeraz tolare, murriztu egin da. silaba bat galduz: kupellak. berriz. zer-esana aldatu dau. Latīnez cupella cupa txikia da: guk. berriz. Kupela cupa aundia egin degu. Erromatarrek bi itz onek ardotarako erabiltzen ebezan; guk, ordea. sagardotarako. (EUSKERA-ZAINTZA aldizkarian. XXIII zenbakiaren 13-15 orrialdean zerrenda luzca dator erromatarrek erakutsitako gauzen izenekin).

Latīnezko itzak erromatarren erara gorde ditu Euskerak: C beti da K (pace=pake): H ere K da ("aher belste" idatzi eben orain bi milla urte Pireneetako arlosa batean eta guk "aker" esaten degu K bihurturik H ori).

Euskera eta euskal-edestia

Euskera gure historiaren gorde-lekua da. Gauzatxo bat agertuko dizuet Lekeitio'kca. Bi gizaldietan. XVI-XVII eunkietan, gutxienez ibilli ziran euskaldunek Ternua (Terranova) bidean arrantzarako: baño Utrech'eko Itunaren (1713) ondoren. ez ziran geiago joan 1927'garren urtean PYSBE bakallautan asi arteko guztian. Berreun urte joanik gabe.

Lekeitio'n, beste errietan bezela, aztuta zeukaten Ternua. Alaz ere 'Tierno-kabria' erabiltzen eben. kabra gorriska baten izen. Itxaskabra gorri-illuna da eta aiteztan arrapatzen da. Tierno-kabria. berriz, argi goa, kanpoko arraiña da. Nere aita PYSBE'ko Ontzietan Ternua bidean asita zegoen. makallautan. Gabon inguruan joan giñan biok Donosti'ra La Brecha izeneko merkatura bixigu billa. Kabra gorriskak egozan eder-ederrak eta onela esan neutson aitari:

– Kabra onek bai itxura polita emoten dahiela.

– Orrek Terranova'n ugari dagoz: baño guretzako probetxurik gabe.

Une aretan argitu zitzaidan burua: Lekeitio'n. berreun urtez ez iñor Ternua'ra joan eta ez dakite iñor sekulan an egon danik be; baño. kabra gorriska oneri orduko izena gorde diote, naiz zer esan nai duen, jakin ez. Or Ternua-kabria, Tierno-kabria biurtu. Galdutako oroipena, itzak gorde. Millaka orrelako gauza gordetzen ditu Euskerak bere sabelean; ikusten jakin bear.

Eta ez geure Historia bakarrik: Euskera Europa ko izkereen "subtractum" da; azpiko oiñarri antzeko zerbait. Bi urte dira Alcoy (Alicante) errian Ibero-idazkera bat agertu zala eta idazkerea iberoa izan arren. ango berba zerrenda batek euskeraren antza du. Euskera ilko

ba'litz. zelta, ibero eta Europa'ko mintzaira eta bizikerak, lagun bat galduko luteke...

Alaz ere. nundik etorri geran, Euskera utsakin. asma-tu ezin.

Orain 100 urtetik onera

Gaurko egunez. Euskera bakarrik baiño gauza geiago dauzkagu gure histori-aurreko bizimodua ezagutzeko.

Altamira koba-zuloa (Santillana del Mar - Cantabria). Koba orretako bisonte-gela zoragarria Santuola medikuak aurkitu zuen. Bera margolaria izanik. ez zion iñork sinistu: berberak egiñak zirala: gezurretan ari zala; gezurtero bat besterik ez zai a...

Amar urte luze iraun zuen gizon arren nekaldiak. Amargarren urtea betetzeko, Les Comberelles Frantzia'ko leizean. agertu ziran marrazki berriak... baña. ordurako Santuola il berri zegoen: illerrira joanik zan, ezer jakin barik. Altamira'k eman zion biotz ondoko larria berarekin eraman zuen beste mundura...

Arrezkero eun baiño leize geiago aurkitu dituzte. Borden in guruko Dordoña tik asi eta Asturias'eraíño. Euskal-lerria koba guzti oien ardatza da. Bizkaia'ko Santimamiñe, Gipuzkoa'ko Ekain eta Altzerri. margo eta xixilikatuz betetako leizeak dira. Koba onek Dordoña tik datoz Pirenee mendietara. eta onen bizkarretik zear sartzen dira Gipuzkoa. Bizkaia, Kantabria eta Asturias en.

Beuren marrazki eta margoekin leize oiek. geure aurrekoen bizitza argitzen digute orain 20.000 urtetik onuntzarako bidean amar milla urtez... Hiztoria-aurreko zati ori agertzen digute su-ziri argitsu batzuen antzera...

Koba oien gaiñetik badira beste orrenbeste egoitzak izandakoak eta oietan ere, curen bizitzaren millaka arrasto utzi zizkiguten. Illobiak diran leizeak ere badira gure artean pillo bat.

Gauza onek asko ez dirala. badituguz geure mendietan. artzaiek beuren illentzako egiñiko bosteun trikuarri. Orain 5.000 urteko biziera erakusten digute oiek ere.

Geroago, gaurtik 3.000 urtez. Cromlechak etorri ziran geure erriaren ertz batera. eortzeko beste era baten agerpenak. Castro eta gaztelu egoitzak izan zituzten lagun.

Orain bi milla urteko erromatarren garaian, euskaldun jainko txikiei eskeiñitako arlosak, azaldu ziran Pirenee-mendietan.

Orra zenbat gauza berri. eun urtetik onera. antxiñako Euskal-lerria ezagutzeko lagungarri.

Mula eta Geneak

Oiek danak asko ez dirala, gau' eguneko euskaldunen odolak eta geneak beste bide berri bat eskeintzen digute noizkoak eta nungoak geran jakiteko.

Urriaga da aitatutako egoitzak izan diran leizeetatik bat eta Deba'ko Itziar auzoan dago. Eta ango kaska-ezurretatik atera zuen D. Joxe Miel Barandiaran'ek hipotesis bat. susmo jakingarri bat. auxe: Euskaldunek ez zirala Ekainetik, Orientetik, etorri, bertako umeak ziralako; Cro-Magnon'etik zuzenean datoztelako.

Nola gertatu zan?

Urriaga'ko koban bost kaska-ezur aurkitu zituen eta ezur aietatik atera zuen susmo ori. Eboluzioaren bitartez CroMagnon'eko askaziak. etniak, beste askoren artean, etnia berri bat sortu zuen Pirenee-mendien inguruan. Kaska-ezur batek CroMagnon'ekoen antza du eta besteak guruko euskaldunen berdiñekoak dira. 1936'garreneko anai-arteak gerrak estanda egin zuenean, On Joxe Miel Urriaga'ko aztarnategian zebillen. kaska ezur -oiek eskuetan zituela. Susmo orren ondorena au da: Gu ez Bera iñundik etorri; bertakoak gera.

Odolak eta geneak egi biurtu dute Don Joxe Miel'en susmoa.

Odola

Nondik-nora ateratzen dute odoletik geure antxiñatana?

Iru odol mota daude gizakien artean: O, A eta B. Iru oien artean, garbia O da: ez ditu ez A eta ez B. Bi zerki auek giza-odolean sartutako bi kutsadura dira. A zerki Europa'ko Iparraldekoa da; B zerki, berriz. Ekialdekoa. Orientekoa. A eta B zerki edo elementoak odola kutsatzen dute. Garbia, beraz. O odolmota da.

Bertoko Euskaldunen artean, erdiak O odolmota dute; $\frac{1}{2}$ 45 odol mota A; besteak, % 5, odol mota B. B zerki Ekialdekoa ba'da euskalduna ez da Ekialdetik etorri. ez da Oriente'tik etorri. Euskera, eta besterik gabe. zebiltzanak, aiek bai urten zuten Ekialdetik etorri giñala: baña, odolak beste era batera erakusten digu. A zerki euskaldunek badute ia erria, % 45; kutsadura au Europa'ko Ipar-aldetik etorri zaigu gure artera. Baña. odolik garbiena Pirenee-mendietako Sartaldean. Occidentean, dago.

Nundik sartu zan A kutsadura euskaldunen odolean?

Ez digu iñork arazo ori argitzen baña, Europa'ren Iparraldekoa ba'da. andik etorri bear. Indoeuropeoena Europa erditik eta iparretik, European zear zabaldutako erria zan. Geurera ere bai: Araba eta Naparroa ko gallur askotan kokatu ziran orain iru milla urtetik atzera: eta geroago, Gipuzkoa eta Bikaian ere bai, lareun urte Kristo jaio aurretik. Erromatarrek. geure artean agertu ziranean, orduan galdu ziran mendi gallurretako (castro, castillo. castillite... gaztelu) egoitzetan bizi ziran indoeuropeoak. Nola galdu ziran ez dakigu, galdu zirala, baizik. Ainbeste A zerki edo elemento gure artean izateak gure artean urtu ziralaren antza ematen du. Nundik, bestela?

EUSKALDUNAK

B zerkia Ekialdekoa da eta oure artean $\frac{1}{5}$ besterik ez dago. Elemento onek lenago esandakoa argitzen digu berriro, euskalduna ez dala Ekialdetik etorri. Andik etorri izan ba'litz. B kutsaduraz beteta etorriko zan, Ekialdekoa bait da B zerki au...

Orra berriro On Joxe Miel Barandiaran'goaren susmoa argitu.

Odolaren zorioneko Rh

Oraintsu, 1944'garren urtean, kutsadura berri bat topa zute gizakien odolean eta orixe da Rh. Izena Macacus RHesus tximiñoaren izenetik artuta dago: arrek duen zerki edo elementoa da. Oso dago gizaki guztien artean zabaldua...

Arazo onetan be, euskaldunen odolak leku berezia du Europa'ko odol guztien artean. Rh gutxien Pirenee-mendietako gure ertzean dago. Ertz orretatik gora, beera ala Ekialdera, ugaritzen dijoa, batez ere, Ekialderantz. Asia'n eta Afrika'n dan ek dute Rh zerkia; guk. erri osoak ez degenez, ezta gutxiago ere, ez gera andik etorri. ez Asia'tik ez Afrika'tik; ancik etorri ezkeroz, kutxatuta etorriko giñan... Emen bertan sortuak gera; Rh gutxiena Euskalerra'ko Pirenee mendiek duten lekuan.

Orra susmoa berriro egiztatu.

Geneak

Genei buruz zer diñozu?

Luigi Cavalli Sforza, Genova'ko italiar au. Laterri Batuetako Ikastola Nagusi batean, genetika arazoan dago irakasle. Eta jakintsu onek au diño: Euskaldunen genetatik ateratzen da. eurak dirala Europa'ko erririk zaarrena. Seure acaben aztarnak topatzeko, ez daukagu Historian atzera joan bearrrik; aztarna oiek gaur eguneko euskaldunen gorputzetan diraute. Eta, eurak dira jakintsuen azter-gai. "Orain 30.000 t'ite euskaldun guztiak zeuden Rh kutxaduratik aske. gaur % 30 besterik ez badira ere. Euren inguruko errietan $\frac{1}{15}$ bakarrik dira Rh gabeak". Onetan be, odola eta geneak. batera datoz.

Baña, zer dira gene onek?

Gorputzean bizirik diraun zati txikienari zelula, soinkizkin edo bizi-alea deitzen diote. Zelula onek badu beste kizkin edo nukleo bat ere eta beronen barruan. nukleo barruan, zurubi baten antzeko diran kromosomak; kromosoma edo zurubil onen mailletan daude geneak.

Kromosomari gun-aril ere deitzen diote eta kromosoma bakoitzeko 50.000 gene daude. Gene bakoitzak. mezu bereizi baten bidez (mensaje codificado). proteina bat sortzeko apaindura edo ordenamentua du.

Gure gorputzak izugarritzko lantegi baten antza du, eta

geneek zuzentzen dute miragarritzko gorputzaren naaste eta zailtasun guztien kopurua.

Gene oietan daude (Sforza jakintsuak dionez) munduko gizatal de bakoitzaren historia. Eta, berez, ez dira sekulan aldatzen.

Don Joxe Miel Barandiaran'gok susmoa artu eta bere ondorengo jakintsuek susmo ori egiztatu: Euskalduna, alegia, Cro-Magñon'eko gizakiaren ondorena da. Ez ba bere billa emendik inora joan bear.

Gaur-egunetako bideak

Ogeigarren gizaldi onetik aruntz gure Erriaren asiera billatzeko Euskera beste bide Tik ez zuten jakintzuek. Gaur, berriz, Euskera euskal odol -motak. Rh eta geneak dituguz artarako bide berriak.

Auek dira euskaldun biziengandik sortutako bideak; gaurkotasun guztia sabelean dabenak. Arkeolojia'tik artutako beste bide asko badaude gaur. atzo ez zeudenak. Ez dira bizidunen bideak, ildakoek utzitako arkeoloji aztarnak eta gizaldi onetan aurkituak.

Euskaldunen egoitza izan ziren leize zuloak: 20.000 urte.

Eleiza izan zirenak, manazki eta margoz beteak.

Illobi izan zirenak.

Trikuarriak. auek ere illobi: 5.500 urte.

Castro eta gazteluak, europatarren egoitzak: 3.000 urte.

Cromlechak eta tumuloak: illobi: 3.000 urte.

Erromatarren arlosa eta aldara: 2.000 urte.

Erromatarren galtzarak eta zubiak.

Gaurtik aurrera zer bide berri izango dituguz? Auskalo. Nork asmatuko zuen orain eun urte, arrezkero aurkitu diran ainbeste bide berri?

Paperak

Ondorengo euskaldunen historia paperak osatzen du; geure etsaiek idatzitako paperak.... Erroma'ko kultura txikitu zuten Ifar-alde'tik agertu ziran Barbaro-basatiek. Aien ondoren, illuna.

Erri basati aietatik sortu ziran frankoak eta Bisigodoak. Frankoek Ipar-alde'tik eta Bisigodoek Ego-alde'tik, eraso zioten etenik gabe euskaldunci, urteak joan eta urteak etorri. Pirenee mendiak ziran euskaldunen gorde-leku eta ezin izan zuten erri basati onek euskalduna menperatu. Nola egoten da zaldi-perra goritua mailluaren eta ingudiaren tartean? Ala-moduz euskalduna Pranco eta Bisigodoen tartean.

Bisigodo errege guztien ikurra beti izan zan au: euskaldunak menperatu ditut; baña, ori gogo utsa gertatu

zan... Ori. idatzi bah euskaldunak gaiztoak zirala idatzi bai, nola frankoek ala bisigodoek. Prensa txarra izan degu beti: "Largos en facellas y cortos en contabas" izan ornen gara, "egiten luzeak. kontatzen motzak". Garai aietan ez giñan motz idazten. ezer ez bait genduen idazten. Motzago ezin. Orduko paperei begiratu ezker, euskaldunak beti izan gera gaiztoak, okerrak, erruki gabeko terrorista ankerrak... Eurak egiten zituzten sarraskiak eta erri txikizioak. oiek danak garaipen aipagarriak ziran dizdiraz eta oorez beteak... Eurak idazten zituzten burruka guztien kronikak eta beti jokatzten zuten curen buruca alde... Geuk ez gendukan iñor. geure alde idazteko...

Arabiarrak

Bisigodoek euskalduna menperatu eziñik dabilzala, arabiarrek agertu ziran Ego-aldetik eta unetxo batean zabaldu ziran baztar guztietara Ifaralderaiño, bisigodoak beuren mendean arturik.

Aldi aretan, euskaldunen artean. 'Ducado de Vasconia' sortu zan. Arabiarrak Pirenee-mendiak igaro eta Frankoen erreinoan aurrera jo zuten Bordenetik gora. Eudon, 'Ducado de Vasconia' ko buruzagiak eta Carlos, Francoen erregeak. aurpegi eman zioten AbDe-Raman arabiarri Poitier deritzan erri-inguruan. Bidea moztu eta atzera bota zuten arabiarrean gudarostea. Zearo zuntzituta geratu ziran eta lur jota. Gertakizun auen ondoren, iges egin zuten moroek: batzuk. Toulouse aldera eta beste batzuk, Ab-De-Raman buru. Erronkaritik igaro zituzten Pirenee-mendiak. Andik beera. pasadizo estu batetik pasatzean. erronkaritarrek arabien burua il zuten; orregaitik daukate. beure erriaren arrizko ikurrean, arabiar baten burua, 'Abdunamen' berbarekin.

Berjabetza edo Errekonkista

Eunki bat galtzeko. zortzi eunki jabetasuna berrezkuratzeke

Onela agertuko lizake. esanaldi batean. Errekonkista ain luzca Sartu ziran Afrika'tik Hispania'ra. E Salado ibaian burruka-aldia irabazi eta, besterik gabe. Peninsulan zear. Poitier' eraiño zabaldu ziran.

Arabiar jende ori eta curen ondoren etorritakoak. berriro Afrika'ra botatzeko. burrukan latz eginda gero, 800 Dute bear izan ziran. Goitik beera eraman zuten burruka ori, Ifarretik Egoaldera. Galizia ezkerrean, eta beste eskubiko muturrean Katalunia.

Galizia'k aurrera egitean Portugal sortzen du bere gallego izkera bereziakin; Katalunia'k ere berdin egiten du, bere mintzaira Valencia eta Baleares'era eramanaz. Baskoiak zeuden Arangoi'en. Euskalerrria'n, Kantabria

aldean. Baskoiek aurrera doazela, gaztelera sortzen dute Errioxan bertan... Berceo eta San Millan lekuko eta testigu. Euskaldunen artean sortu zan Gaztelera eta 'Castelle' izena bera ere. lenengo aldiz Bilbao'tik gertu dagoen Mena ibarreko toki baten deitura zan. Berri auek San Millan de Yuso monastegian dagoen orduko liburu zaararak dionez.

Liburuak latinez daude; baña, latina argitzeko. 'Glossas' deritzaten apunte batzuek dituzte aldamenetan: Or daude gaztelera itz mordoia eta. euskerazko bi esaera (latina errezteko irakurleari) eta Castelle izena Mena'ko ibarrean.

Euskera erabiltzen ba'dute latina argitzeko, gaztelera ezik adierazten digu euskeraz ere bazekitela. Euskerazko bi esanaldi oietan, erderaren orde. euskera erabiltzen du. Idurituko zitzaion erderaz baño obeto entendituko zutela irakurleak, euskeraz esan ezker. Beraz, ez da gauza ain alderantzia, beste orrek esan zuena: "El castellano es el latín hablado por los vascos"... Orixe bakar'ik falta genduan...

Alan be, egiaren itxura badu esaera orrek: Erdera latinetik sortua da euskal agotan. Latinak. euskal agotik pasatzean, euskal kutsua artu du. Latinak bost bokal eta bi diptongo ae eta oe ditu: euskerak bost bokal diptongorik gabe. Erderak bost bokal oiek artu ditu, diptongorik gabe; euskerak bezela. Latinak bokal luzeak eta motzak ditu. Euskerak ez; erderak ere ez. Euskerak bokalen bat luzatu nai ba'du, errepika egiten ditu, bat bestearen ondoren ipiñiaz: zaarra. Ez dira bi bokal, bokal luze bat. baizik. Gauza bat azpimarratu nai degunean eta bere esan-naia sendotu, bi alditan esaten degu gauza bera: gozo-gozoa. on-ona, sendo-sendoa, eder-ederra... Bokalakin egiten deguna, orixe berbera. Zaarra itzaren A ori, luzca da. Euskerak latinak bokal luzeetan berdin jokatzen du; motzetan ez. Zaarraren A bokal luzeari erdian H bat sartzea, bokal luze batekin bi egiten dira. Eta H aoskatu eskeroz. are ta okerrago. Latinarean antzeko diptongorik Euskeran ez ba'du, zertarako bear da bestelako bi bokalen artean Ha sartzea? Diptongoren arriskurik ba'lego, gaitzerdi; baña, bate arriskurik ez ba'da, zertarako da Ha? Alperrikako zailtasun ugariak sortzeko: orretarako bai, balio du. Iraultza baten 'símbolo plástico' a ba' da. orduan nagon ixilik.


Or. Errioxa euskaldunean, ipiñi dute jakintsuek Gaztelaren jaiotza eta milla urte bete diranean, San Millan'en jendetza agertu da ikusmiran: Erregea bera ere bai.

Deba'n. Urrillak 10. Urtea 1998.

ARRINDA'TAR ANES

EUSKALDUN AZTARNAK VIII

ITXASONTZIAK



MERKATARITZA

- Bidasoa'ko Asturiaga kaian badago ontzi bat ondoratuta.

- Urte auetan makiña bat arkeologi gai arrapatu dituzte bertatik, etxeetan gordeta daudenak. Burdeos'en ere, Garona ibaiean, aurkitu zuten beste bat 1964'garren urtean eta bere barruan "sigillata hispanica" topa zutela, esanda degu. Baña, arazo au ez da or amaitzen. Begira zer dion "Brigantium" aldizkariak, 1983'ko 4'garren alean, gallegoz.

- Gallegoz ipiñi bear al dezu?

- Euskeratuko det: "Mundu zaarreko merkataritzarik geiena itxasoz egiten zan, naiz-eta neguan, eta eguraldi txarretan uretara irten ezin... Erromatarrek bazekiten, egoaldetik gorantz. Atlantiko itxasoan sear ibiltzen. Betika'ko emaitzak. Britania eta Rhin ibaieraino eltzen bait ziran... Batez ere I eta II'garren eunkietan... Orixen da, diot nik, Arditurri zillar-meatzetako garaia.

- Baña, itxasoan gauzez ez ziran ibiltzen.

- Egunez bakarrik ibiltzen ziran eta gaberako kaiaren bat billatu bear zuten. Gure itxas-ertzeko kaiak ontzi asko ikusi zituzten alde batera eta bestera ibiltzen. Aldizkari

gallego onek dionez Cortegada'n (Vigo) badago beste ontzi bat ondoratuta eta bertatik ataratako "terra sigillata", italica da...

- Orra Burdeos, Bidasoa eta Vigo, iru mugarri eta ezauzarri.

- Kantauri itxasoan ontzi ondoratuak aurkitzea ez da gauza erreza urak baztarrak asko astintzen duelakoz; alaz ere, or daude iru itxasontzi oiek merkatarzi ugari baten ezaugarri. Erromatarrek errez ibilli ziran geure itxasoan batetik bestera, Vigo'ko Cortegada'n ontzia aurkitzea batera dator, Labrador'en XVI'garren gizaldiko euskaldun ontzia topatzearekin. Canada'ko jakintsuek arrituta daude San Juan izeneko ontzi orren taju eta sendotasunakin... Erromatarren garaian, ordea, ez ziran gauzak geureartean orrela gertatzen.

- Nola gertatzen ziran ba?

CANOA MONOXILA

- Estrabon jaunak (Geog. III, 3.7) dionez, Hispania'ko Ifaraldekoek ontziak erabiltzen zituzten nurriz egiñak edo bestela enbor batekin. Noiz? Kristo jairo aurreko eunkian.

KONDAIRA

Oietako "Canoa Monoxila" Irun'en topa zuten, 12 metrora sakonean, 1954'ean, oiñarri batzuek egiten ari zirala. Baña, ez zuten gorde.

– Zenbat orrelako!

– Beraz, gure aurrekoek orrelako ontzi ximpleekin ezin urrutira joan; baña, kosta aldean ibiltzeko naikoak ziran eurak. Ontzi aundiek ere ez bait ziran itxasoan barrurago joaten.

– Zelan egiten zituzten "monoxila" oiek?

– Enborrari zulo luzanga bat egin, gizona bertan sartzeko modukoa eta naikoa zan orrekin. Gerora, enbor orreri beste bat lotu aldamenean; orra bi enbor batera. Egoak ipini, ondoren eta, azkenik, egurrak alkarri lotu, enborren orde... Ontzi oien odoan erromatarrenak, izugarriak ziran... Nagusitasuna euren eskuetan zeukaten.

– Gure mendietako artzaiek, eta artzai ez zirenek, zer ez ote zuten ikusten itxasoan...

MARKATARITZAKO ITXASONTZIAK

– Lenengo aldiz itxaso zabaleko Fenizioek izan zuten euren eskuetan, 1500 urte Jesu jalo aurretik. Egipto'n ere ba zituzten auen antzekoak. Baita Palestina inguruko Tiro errian be, onela esaten bait dio Erregeak Salomon'eri: Nik ebagiko dituz Libano'n zedroak eta itxasoz, atoian, erman-go dituk zuk esaten didazun zeure erriko itxas-ertz batera...

– Asia'n eta Grezia'n izan zituzten itxasontziak...

– An ibillj ziran ibillj grekotarrek, ugarte batetik beste-

ra, etenik gabe itxasontzietan, Erroma sortu orduko'... Baña, sortu ondoren, erromatar merkatari-ontziak agertzen diranean, guztiak ematen dute itxura berdiña: Guztiak dira barru zabalekoak eta borobil antzekoak; guztiak dute brankako bularra (roda) irtena eta popako korasta goruntz egiten duena eta aurrerantz makurtzen dana antzar-lepoaren itxura artuz...

– Eta, brankako bularra?

– Aurrerantz okertzen dana, olatuak obeto erdibitzeko. Agertzen diran irudi batzuetan, aurreko mastako oiala, atzeko "maiorra" baño aundiagoa eta, geinetan, aurreko mastan oial txiki bat eramaten dute "artimon" izenekoa, ontzi-gobenuaren laguntzarako, ez bait dute oraindik lemarik asmatu... Timoiaren lana arraunekin egiten dute, trañeretan bezela.

– Orduan, lemaren lana arraunak eta artimonek egiten al dute?

– Ez zan beste lemarik asmatu oraindik. Lenengo eunikiko barkumarrazki batek txabolatxo bat darama aurreko aldean eta oial aundiaren gañean beste ojal txikiagoak (velas de gavia)... Alea (batez ere, garia) erametekoak oso aundiak ziran. Pompeia'ko arlosa batean xixilikatua ikusten degu barku bat. Aren antzekoa izango zan Grezia'ren El Pireo ikusi zuna, II'garren eunkian, Luziano'k (barregarrien idazleak).

– Nolakoa zan ba'da?

– Barruko mariñelekin itz egin ondoren, onela dio, arrituraz beterik: "55 metro luze, 15 metro zabla eta 13 metro sakonda. Eta, mastaren luzeroa! Eta arrek bear ditun estat-

Naves egipcias


1.- Los remeros de la primera nave usan los remos como en las piraguas.

2.- Los de la segunda bogan como en las traineras.

En esta tercera imagen hay remeros y vela. El timón lo hacen con los remos.


EGIPTO'KO MERKATARITZA MILLA URTE KRISTO AURRETIK

Una reproducción de este navío egipcio mil años a.C.



Bajorrelieve de una estela funeraria de Pompeya. Data del año 50. Según este modelo se reconstituye más abajo un modelo de nave romana para el transporte de grano.

MERKATARITZA



xak eta sokak tente irauteko! Popako korasta ateratzen zan gora antzar baten itxuran. Eta brankako bularra Iris'en irudiarekin! Goiko oial txikia (gavia) gorri-gorri, margoak, aingura bere molineterekin eta popa-aldean kamaroteak... Dana zan zoragarri! Esan zidatenez, ontzi arrek Atenas uria urte betean mantentzeko aria gari, ekarri zezakean aldiko...!.

– Zenbat mariñel?

– Barruko jendeak gudaroste oso bat zirudien eta kapitana zaartxo batek erabiltzen zituan atzeko lema aundiak (alde bakoitzean bi arraun galanta) makillatxo bategaz, gauzarik erreza bezela...". Onen esanekin eta Pompeia'ko irudiaren bitartez, atera dezakegu nolakoak ziran, gutxi gora-beera, merkataritza-ontziak.

– Zertzuk zituzten ba'da?

– Ona zertzuk: Balkoia popan, oial batekin estalia, kapitana eta bere lagun bereizientzat; lemarako, arraun aundiak, aparixu bategaz uretatik kanpora jasotzen diranak; beste txabola bat erdian pillotu eta beste aukeratuentzat; eskotillak barrura sartu eta barrutik irtetzeko; branka edo proa aldean, egur Iodikote bat zer edo zer xintxilika ipintzeko

(serviola) edo bestela zaintzallearentzat (vigía); galeri bat branka inguruan; oial aundia eta txikiak (gavia); oialak bildu eta gordetzeko sokatxoekin; artimoia bere bilkurekin...

– Orrelakoak izango ziran euskaldunek itxas-ertzetik ikusten zituzten merkataritza-ontziak?

Orrelakoak eta oien antzekoak. Ona Apokalipsis liburuan Joanek zer dion, Erroma'ren azkena ikusten duenean (18,1-20): "Merkataritza-ontziak (11-13) negar egingo dite eta illetak joko dituzte arengandik, aien salgairik ez bait du geiago inork erosiko; ez urre-zillarrik edo perlarrik, ez liñu, ez purpura, seda edo eun gorriarik; ez usai onezko zurik, ez marfillezko edo zur ederrezko ontzirrik; ez brontzezko, burdiñezko edo marmolezkorrik; ez kanela, ez zinamomo, ez lurrin gozorik; ez mirra, ez inzentsurrik; ez ardo, ez oliorrik; ez iriñ, ez garirik; ez zamari, ez ardi, ez zaldi, ez gurdirik; ez esklabu eta ez gizakumerik...". (15) "Gauza auen merkataritza serbitzariak eta aren bizkar aberasten ziranak, urrun geldituko dira..." (17) "Eta ontzigidariak, itsasoan portuz-portu dabilzatan mariñelak eta itsasotik bizi direnak, urrun gelditu dira..."

ARRINDA'TAR ANES

EUSKALDUNEN AZTARNAK (V)

SINISKERI BARRIAK

– Eiztari euskaldunak aztikeriak zitun maite. Irudia eta gauzaren artean "adurra" deritzan indar berezi bat dago. Indar orren bidez, irudiari egiten diozun gaitza, gauzak berak jasoko du. Azkona irudiari biotz-parean sartzen ba'diozu, animala berari sartu diozu.

– Orregaitik al daude leizeko ormeetan ainbat animala ar azkona edo beste armeen arrastoa biotz-aldean dutenak?

– Bai eta aztia da, kiñuz edo itz misteriosoz, adur ori sortarazi leikeen gizakia... Baña, eizeari utzi ala (euskaldunak ez du eizea erabat laga), aztikeriak ez zion, bizia aurrera ateratzeko, serbitsurik egiten. Artaldeak mendian larraña bear dute eta larra ez da aztikeriz sortzen.

– Belarrak eguzkia eta ura bear ditu.

– Eguzki eta euriari azkikeririk egin ezin eta, ortik ara, siniskeri berriak sortu ziran Euskalerrria'n bezela Europa osoan ere bai... Argia bearrezko, ura bearrezko... eta oiek or goian dabilta gizonaren eskutik kanpo. Argiaren nagusi egunez Eguzkia.

Eta, gauez Illargia.

Argia, Eguzkia, Illargia, Zeru-sapaia... Orra jainko-txiki sail bat... Goiko Ortzitik datoz urak; baita ekaitzak, txingorak, arriak... Beeko ibaiak eta iturriak... Goietako

Gar-mendiak, Basoak, Arbolak...

– Ez dira siniskerietarako gai gutxi!

– Aldi batean goiko Zeru Urdiña zirudien guztien jaina; baiña, Eguzkiak badu bere nagusitasuna... Etenik gabe-koak dira gure artean Eguzkiari buruzko siniskeriak. Kristauak berak ere, Jainkoaren Begi esango dio. Laiburua da bere irudia; lau edo iru edo bi edo bat... edo milla buru. Guztiak dira Eguzkiaren ikur eta irudi.

– Eta, uda-buruan eta negu-buruan egiten diran suak?

– Uda-buruko suak gaur San Juan Bautistaren izenean egiten dira Europa guztian; baña sorreran, Eguzkiaren omenez egiten ziran. Baita Gabonetakoak ere. Olentzaro mokorra euskaldun sukalde guztietan bizte zan Gabon egunean eta arbola-mokir arek bedeinkatzen zituen bere gañatik pasatzen ziran animala eta gizakiak. Eguzkia orduantxe egoten da aulduta, burua ezin jasorik eta berpizten laguntzeko egiten ziran su oiek.

– Eta, guregana etorri ziran Europa'ko erriak?


Aiek ere artzai eta nekazari eta gu bezela aiek ere animistak. Or zituzten jainko txikien kopuru bizia eta jaun bat, guztien gañetik, Zeru-Urdiñ Ortzia. Euskaldunen siniskeriak osotu eta indartu zituzten. Eurak ekarri ziguten Laiburua eguzkiaren irudi eta ikurrin.

– Eta, Mari nun sartzen dezu?



Cmnilec h (Euskalerrri) (Altuna).

KONDAIRA



- Bereari eustea izan da beti gure aurrekoen oitura; naiz e5ta era berriak onartu, zaarrai ere eutsiko zioten: kobeetako aztikeriak galdu ziran eta aastu euskalduna artzai egin da gero, baña euren burutean dirau oraindik, aztikeriz betetako. Mari'ren irudia. Bera ere kobeetan bizi da, eta, atarian dagoenean, emakume ederra izan arren, oiñak ditu auntzenak edo egaztienak. Barruan, lurpeko eremuetan, animala itxura dute berak eta bere menpeko guztiak...

- Irudi ori gureraño eldu da.

- Aizken aldi ontako millaka urtetan, iñork ez zekien kobeetako barruko izkutuetan, animalien marrazkirik zegoenik (eun urte eskas dira aurkitu zituztela); baña, ango "lurpeko eremuetan" Mari eta bere animalien erreinua bizi zala, bai, ori bazekiten euskaldun kristauak. XII'garren eunkian, aymaric Picaud zionez, euskaldunek Jainkoari Urzia deitzen omen zioten. Itz zaarra Jainko berriarentzat:

Urtzi, Zeru urdiñaren Jauna.

- Baña, urtzi ortzia da.

- Urtzi, ortzi, osti... zeru urdiña da; baña, baita zeru orretako Trumoiak ere. Itz orretatik dator Ost-eguna, Zeru urdiñaren eguna, bizkaitar Egu-ena Egutik datorren bezela. Eta Egu, Zeru urdiñaren argia da. Biak berdin... Berba onek gureraño eldu dira.

- Eta, tximista?

- Ort eta Ost'etik datozen Oñ eta Oz sartzen dita tximisten izenetan: Oñeztu (tximistaren argizabala), Oñeztarri (Oñezt'en arria). Tximmistarri ere esan oi da. Europeoar siniskeria dakar berarekin itz orrek: Tximista, zerutik botatako arrizko aizkora omen da... Orregaitik, aizkorak badu indar tximistaren kontra. Aizgorri'ko Zabalaitz aizkora, artzai-txabolaren atarian zegoen lurperatuta, tximistaren kontrako.

Ortik sortuko zan Odei jainko txikia?

- Zeanuri'n eta Orozko'n. Odei, eta Laño, ei da jainkoarik aundiena; bere esku daude ekaitzak. Europatarren artean. berak artu zuan Urtzi'ren lekua, Odei izenagaz. Gure artean. herriz. (Arratia'tik kanpo) Mari'k irauten du ekaitz eta tximista guzien nagusi.

- Eta, nun gelditzen da Eguzkia?

- Eguzkiak badu bere zera eta karda-lora bere irudi. Auxe josiko dute korta-atean, erramu bedinkatuakin egin-dako gurutze batekin batera. San Juan suak, lorak, arbola... guztiak ziran eguzkiaren ooretan. San Juan'ek bere lekua artu ha' du ere. Ura ere San Juan'ekin zer ikusi aundia du... eta sendatzeko birtuteak ere baditu.

- Eguzkia eta ura bearrezkoak dira artzaintza eta nekarizitzako.

- Neguko Gaboneko Olentzaro mokorrek eguzkiari laguntzen dio burura jasotzen, beeneko maillan dagoe-

nean... Gaur eguneko siniskriak izan dira, baña antxi-antxiñatik datoz zuzenean, bidean aldaketaren bat izan ba' dute ere. Eguzkia eta sua, biak ibilli dira alkarrekin.

- Sua eta etxeko sutegia ere batera dira.

- Sutegia etxearen ardatza izan da; orregaitik, lurren mugarrietan sutegiko ikatza ipintzen zan oiñan'ian, guztien batasuna adierazteko. Baita ildakoena ere: ez da gauez surik itzaltzen, errautsez estali baizik, ildakoek bear dutelako. Espiritu txarrak auxatzen ditu soroetan San Juan suak eta gauez ekartzen dan ura, espiritu txarrez datorrenez, sutegiko ikatz batekin ikutu bear da garbitzeko.

- Eta, illargia?

- Eguzkiarekin batera dator illargia eta Europatarren artean, illargia udez betetako ontzia da. Gañera, illezkorra, illero il eta berpizten dalako. Ura, illargia eta ugaltasuna, irurak alkarrekin daude; eta ugaltasunean emakumearen antzera dabil illero. Argia eta illuna, bizia eta eriotza, illar-

EGUZKIAREN IKURRAK



HACHA CON ESVASTICA



HACHA DOBLE

DIVERSOS SIGNOS DEL SOL.
TANTO HACHA COMO ESVASTICA CON SIMBOLOS DE PROTECCION

SIGNOS SOLARES EN LAS COCINAS DE LABURDI Y BENABARRA



FRANCE



"HORZA".SUKALDEA


V/PUZC O,

NAUARE

cSPAGNE

Philippe Veyrin. A. de E-F. 1931





gian ikusten dira garbi 28'egunero. Itxasoa bera ere, gora ta beera dantzan etenik gabe illargiaren aginduetara. Baita nekazariak ere, beti illargiari begira noiz aldatu eta noiz ebagi.

Zenbat izen ditu illargiak?

— Illargi, illetargi, argizagi, goikoa... Orra izen barzuek... Bere sustraitetan "argia" dago, eguzkiarenean "egu" dagoen antzera. Argi eta egu, biak dira berdiñak: Eguneroko argia, eguzkia; gaueroko argia, ilargia. II-argi bi itzez egiña dago: argi eta illa: ildako argia, illa bete, illun: orria iru gauza batera. Argizari izena, badirudi argi-ontzi edo, adierazi nai duela... Illargia emea da eta onela esaten giñun aurtzaroan: "Illargi amandrea / zeruan ze berri?". Jainkoaren aurpegi ere esan oi zaio...

— Oiek danak europeotarrekin batera dauzkaguz?

Zeru-urdiña, eguzkia, sua, illargia, ura, iturriak, igaiak euren Iamiñekin, mendiak, basoak Basajaun eta Basaanderekin, arbolak eta arriak, izaki mitologikoen oin arrastoekin... Mundi oso bat jainko txikiz eta sorgiñez beteak europatarrekin bat euskaldunen buruetan bizi izan diranak...

Oiek danak europatan-ekin batera dauzkaguz?

Europa'tik gurera etorritako erri aiek urte askotan irauñ zuten gurekin, lagun edo etsai, eta aizkenerako euren siniskeri guztiak geure buruetara pasa ondoren, zearo galdu ziran betirako, erromatarrek gure lur-aldeetan agertu ziran.

— Eta, nola galdu ziran?

— Iñork gaur oraindik, jakin ez. Errezak defenditzen

ziran goiko gallurretan bizitzeko oitura zuten, arri-esiz inguraturik. Artzaiak eta nekazariak izanik bazuten garia, bazuten ganadua, bazuten urrea eta brontzea eta azkenik, burnia lantzen ere iaioak izan ziran... Etxe illarak zituzten kale eta guzti... Lanbide asko eta, azkenik, merkataritza be bai.

— Gure ipuietako "jentillen" antza ematen dute.

Aiengandik ikasi genduan, bai Bizkaia eta bai Giupzkoa'n burni-lanak (burniaren tenplca San Martin Txiki'ri eskerrak ipuiak dionez).. Gure ipuietako Jentillek mendigañeko gazteluetan bizi ziran, aberatsak ziran urrez, bazuten ogi zur ederrabeta San Martin Txiki'k lapurtutako garia, baita burni lantzen jakintsuak ere... Beko ballaretako jendea bere mend zuzkatzen... Ataun'en beuren aurka ere jeiki ziran San Adrian'g zulotik aurrera bota arte Arabara' iño...

— Kixmi jaiotzean desagertu omen ziran...

— Jesus'eri deitzen orren zioten Kixmi; baña, ortan ez dotoz ba ipuiak eta historia. Arkeolojiak dionez, erromatarrek gurera ctortzean, orduan galdu ziran mendi-gallurretako atzerritar oiek Erromatarrek ballaretako bide zabaletik etorri ziran eta an egin zituzten euren erri indartsuak... Goi-koak alperrik zeuden eta larrez bete ziran. Oraintxen ari gera egoitza aien zazpi metro lodiko arri-esiak, baso-azpie-tan arkitzen... Jentillen antza ematen duten Europa'ko erri auk, eunka urte Kristautasun Euskal-erri'ra eldu baño lenago galdo ziran...

ARRINDA'TAR ANES

EUSKALDUN-ERROMATAR ALDIA (I)



EREÑO' KO ARROBIA.
(BLkaia).



"NERVION" IBAIA

Leizeetako aztarnak

- Zer da aldi ori?

—Juan María Apellaniz jaunak (MUNIBE, 1975) dienez, garai edo aldi onek galdera batzuek eragin erazten ditu eta au da bat: Aldi onetan euskaldunek euren ildakoak leizeetan eortzen zituzten; baña, euek nun bizi ziran? Eta, ondorengo galdera: Noiz uzten diote leizeetan eortzeari, bein romanizatuak izan ezkeroztik?

_ Noiz aide egiten dute leizeetako egoitzetatik?

—Brontzearen aizken aldian baztarten dituzte ar-zu-loetako egoitzak; baña, zer egiten dute arrezkerok, Jesukristo jaio ondorengo IV'garren gizaldirarte? Noiz agertu ziran Bidasoa'ko inguruan erromatarrek? Historigilleek diotenez, erromatarrek Euskalderria'n Kristo jaio aurretik agertu ziran. Baña, aien etorrerak ezer gutxi agertzen digu Bizkai eta Gipuzkoa'ko leize-aztarnetatik...

— Zer esan nai dezu itz oiekin?

— Apellaniz jaunak, galdera aueri erantzun aal izateko, asmakizun bat egiten du eta asmakizun orrek mailla auek ditu:

1/. Erromatarren taldeak emen (Bizkai-Gipuzko'an) kristautasun garaian sartzen dira, kosta-aldetik, arrain-lantegi eta meatzen billa eta eurak zaintzeko.

2/. Bizkai eta Gipuzkoa'ko euskaldunek leizeetatik kanpora dituzte euren egoitzak; baña, ildakoak kobeetan eortzen dituzte.

3/. IV'garren gizaldian, edo bear ba'da leenago, leizeetara datoz berriro bizi-izatera, gizarte-giroa okertu danean; baña, V'garrenean berriro utziko dituzte, bein betirako, leizeak igoitza bezela. Bitarte orretan zerbait erromanizatzen dira eta ildakoek euren antxiñako erara eortziko dituzte oraindik ere, naiz-eta erroma-gauzez eurak inguratu.

4/. Egoitzak berriz ere lur zabalean jasoko dituzte,



EBRO ibaia: "Mantible" =tibia.



Gastei: AZTARNAK

El director de la excavación, Eliseo Gil -primero por la izquierda-, muestra un maniquí DEIA 21-1-1993 (Foto Luis Ciarrusta)

baserri edo borda-taldetxoan tankerara.

5/. Burni-lana erromatarrek dakarte eta nekazaritzamota geiago ere bai. (Burnia eta garla ezagutzen zuten lendik ere gurekin bizi ziran europatarrek).

—Eta, nun daude erromatarren ondakin oiek?

—Milagros Esteban andreak ("El País Vasco Atlántico en Epoca Romana". Donostia. 1991) dionez, kobeetan aurkitu diran erromatar ondakin oiek, gurtiak kostalaldean daude, edo bestela, artzaien bide berezietan (naiz neguko, naiz udako) dauden leizeetan.

—Eta, ondakin geien, nun?

—Esate baterako, or daukazu Bizkaia'ko Ereño errian, Ereñuko-Arizti deritzan koba: an daude eortzita, zero erromanizatutako jendea. Gurtiak it ziran aiñagu-adarrez (cornezuelo del centeno) pozoituak. Bertan aurkitu diturte

oiñetako sandali erromatarrek, brontze-burnizko erastunak... Kontuan izan, Ereño'n daudela erromatarren garaiko marmol-arrobiak. Eta, ildako oiek, guztiak batera iltzeko, danok jan zuten ogi berdiña une berean; bear ba'da, bertako langille oiek, esklabu ere izango ziran.

—Eta, Bizkaia'n ba al da besterik?

—Gernika inguruan zegoen Peña Forua edo Ginerraldi izeneko koba eta bertan aurkitu zuten Isia-Fortuna'ren iruditxo bat; "santu" onek arrera aundia izan zuen Inperio osoan eta batez ere Hispania'n. Irudi au II'garren gizaldikoa da eta IV edo V'garrenean eortzia izan zan ildako baten laguntzarako.

—Eta, geiago?

—Ereño'n berriro: Ereñuko Arizti II leizea. Bertan aurkitu zuten berebiziko pixu-neurketarako balantza berezi bat. Orren antzekorik ez da beste bat, ez Euskalerra'n, ez Hispania osoan. Xeetasun aukeragertzen digutenez, Forua zan erromanizazioa zabalkundearen ardatza Bizkai'ko inguru onetan.

—Besterik, ba'alda?

—Gipuzkoa'ko kostalaldean badira koba batzuek erromatan-en ondakiñekin: Amalda-koba Zestoa'n, Ekain eta Ermitia Deba'n, Jentiletzeta Mutriku'n, Goikolau Artibai-Barriatua'n, Lumentxa Lea-Lekeitio'n, Kobeaga Izpazter'en, Gerrandijo Ibarrangelua'n, Sagastigorri eta Santimamiñe Kortezubi'n, Aurtenetxe Gernika'n, Arenaza I Galdames'en, Getaleuta Yurre'n, Oialkoba Abadiño'n, Iruaxpe III Aretxabaleta'n, Anton Koba eta Aitxgain Oñati'n, Sastarri Ataun'en, Ezpilleta Aralar'en, Akelarre Leze Zugarramurdi'n...

—Eta, noizkoak dira ondakin oiek?

—Apellaniz'ek dionez, euskaldun-erromatar aldi onen denbora-neurri edo kronolojia, oso motza eta ximplea da. Bertan agertzen diran diruak, IV'garren gizaldia adierazten dute: Constantino Aundiaren Semearen garaia... Terra Sigillata'k berdin: IV gizaldiaren erdia eta ale batzuek V'garrenera luzatzen dira... Onela dio Apellaniz'ek: Kristo'ren ondorengo 330-410'ra dijoa aldi au. Bertan, brontzezko kultura darion gizaki euskadun batek, erromatar kulturaren ondakin batzuek artzen ditu...

—Eta, zer gauza erabiltzen ditu euskaldun orrek bere bizitzan?

—Ar-zuloetan naastuta agertzen diran beraren tresnak, aukeratu: 1/ Sukarrizko lanabesak. 2/ Metalezkoak: bertakoak edo erromatarrenak, biak naasian. 3/ Kontxazko Cardium zulatua, aurreko garaiekin lekuko eta testigu. 4/ Ezurrezko lanabesak; batez ere, kirtenak, lendik ere baziranak. 5/ Bi eratako zeramika: bata errikoia eta zaarra; bigarren, erromatar Terra Sigillata eta erromatarren bestelakoa ere bai.

—Gauza gutxi?

—Bai, Ereñuko Arizti I eta Forua'ko Ginerraldi kendu ezkeroz. Brontzezko gauzak, IV'garren aldeko erromata-

Navarra. Puente de la Trinidad de Arre (Ezkabarte) sobre el río Ulzama, en el camino de Santiago.



Trespuentes-Iruña. "Guinea": Ayunt. de Vitoria (Javi Berasaluce).



rrren ondakiñekin naastuta egoteak, badu agerpen bat: Leizeak aspalditik utzita zeuzkaten eta IV'garrenean berriro datoz kobeetara bizi izatera. Dana dala, garbi ikusten dan gauza auxe da: euskaldunak aurrekoen kultura-gaiak gordetzen saiatu zirala beti. Inperioaren egon-eziña eta beera-kada, uri nagusietan agertzen zan batez ere. Uriak beera doazen neurrian, doaz gora artzaintza, nekazaritza eta base-riak...

– Zergaitik etorri ziran berriro leizeetara bizi izatera?

– Inperioaren berakadak, iraultzak sortu zitun baztar guztietan: lapur-saillak, "bagauda" taldeak, soldadu alkar-teak... bakoitza here kasa okerkeriak egiten... Orra zergaitik, segurantza billa, biurtu ziran leizeetako egoitzeetara. Artzaintza oiñarritu zan sekulako eta olagintza ere bai... Kobeetatik aide billatu diran erromatarren ondakiñak, geigi ez ba dira ere, diruak izan dira.

– Eta, Forua'k Isis-Fortuna beste "santurik" ez al da emen?

– Irudirik ez ba'da ere, "santuen" arlosak, bai badira. Dei Manes (D.M.) etxeko jainkoak dituzu. Oietakoen lau arlosa daude: iru Lemona'ko Elorriaga'n eta laugarrena Gordexola'ko Zaldu'n. Beste iru aldaratxo eta arlosa bat, urak Atlantikora dijoazen lekuetan: Ivilia'ri Forua'n; Eguzki Garailleari (Soli Invicto) Ibañeta'n; Genik Pagi, Tokian

tokiko jainkoari, Hasparren'en; eta Atherratzte errian Herauscorrisca'ri, Txerri-arrari (aketzari).

– Besterik ez al da Kantauri-itxaso aldetik?

– Soli Invicto'rekin bat dator Mitra jainkoa eta onen izenean bazan Pirenee-mendiko gallurretan, ifaraldera, arzulo bat. Ivilia'ri buruz, berriz, esan oi dute, "ibilli" itz euskaldunetik datorrela; ala ba'da, orduan Lares Viales'en (Bideetako Zaindarien) antzekoa litzake Forua'ko Ivilia.

– Beste irudirik ez al da ezer?

– Larrosa, lauburu eta orrelako eguzkiaren irudiak asko dira Bizkai'ko arlosetan: Morga'ko San Esteban ermitan eta Emerando'ko Santa Elena'n, Boroa'ko (Amorebieta) San Pedro'n, Gordexola'ko Zaldu'n. Berreaga'ko gazteluan zortzi arlosa billa dituzte eguzkiaren orrelako ikurrekin. Bada gizon-irudidun arlosa Natxituko elizan; baita zaldun bat Oiartzun'go Andrearriagako arlosan ere...

– Ez diraz asko.

– Ezer gutxi... Beste Bizkai eta Gipuzko baztarretan ixiltasan aundia. Inguruan, gutxi eta barruan, ezer ez. Zer pentsate ote zuten Oiz, Izarraitz, Gorbeia, Aralar, Aizkorri'ko artzaiek? Esan bearra dago gañera arlosak elizetan aurkitu dirala: Forua'n arlosa bat eta Ivillien iruditxoak; Morga'ko San Esteban elizaxoan, onen aoiñarrietatik batzuk atera zituzten, baña gaur iru daude bere ormeetan;



Muruzabal de Andión, Mendigorriá (Nay.). Pozo del sistema de distribución de aguas de la ciudad romana de Andelos. ANDION



Trespuentes-IRUÑA (T. Alfaro). Rep. J. Berasaluce

Emerando'ko Santa Elena ermitan bat; Boroa'ko San Pedro ermitan beste bat; Lemoa'n San Pedro ermitan, bederatzi; Galdakao'ko Obispo-etxean, bat; Zaratamo'ko San Lorenzo ermitan, bi; Arrigorriaga'n Abrisketa'ko San Pedro elizan bi; Mungia'n Mesterika'ko San Lorenzo ermitan lau; Natxitu'ko elizan bat; Zegama'ko San Pedro elizan bat; Oiartzun Andreunga ermitan bat; Hasparren'go San Juan Bautista elizan bat; Zuberoa'ko Atherratzte'n Santa Madalena ermitan bat...


Elizetatik kanpora ez al daude?

Bai bada bat edo beste: Jainko'n bat; Zaldu'n beste bat; Aizkorriko Olza txabolan bada bat Araba'tik ekarria; Ondarribia'n beste bat, ura ere kanpotik ekarria... Ikusten degunez, geienak elizetan gordeak. Berdintxu gertatzen da Prehistoriako beste garaietako leizeetan ere: geienak daukate bere inguruan eliza edo ermitatxo bat Santimamiñe'k bezela (Santi Mames ermita) Urriaga'k (Salba-

tore ermita) eta abarrek... Bizkaia eta Gipuzkoa'n ez digute arlosa askorik utzi erromatarrek; bai, ordea Araba eta Naparroa'n...

ARRINDA'TAR ANES

~...
 A L A I V S I
 A R ~ ~ E N t
 A L A X X X
 H I S S T L



EUSKALDUN-ERROMATAR ALDIA (II) ERROMATAR ARLOSAK



PANTEON: *Jaiuko gu_tien el =a.*

Araba'n

Erromatarrek gauza asko egin zituzten onak eta oien artean auxen da bat: menperatu zituzten erri gustietako sinsisleriak eta jainkoak onartzea. Onartu bakarrik ez, baita eurentzako eliza nagusi bat jasotzea Erroma erdian. Antxen dago oraindik zutik Vittorio Emanuele eta Corso kaleen artean, izen-buru onekin: M. AGRIPA LF COS TERTIUM FECIT. Bola erdi baten antza du eta izena PANTEON du (JAINKO GUZTIAK). Kristauekin ausi zuten arau ori.

—Zer egin zuten ba kristauekin?

– Erlijio guztien aurkakoak ziralata, eriotzaraiño eraso zieten; iru eunki luzeetan eraso ere, 313'garren urtean Constantino Aundia enperadorea kristau egin zan arte. Erromatarrek euren eta grekotarren Panteoiak alkartu zituzten, biekien bat egiñik. Ortik sortu zan, jainkoen izeneri buruzko naasqueta, jainko bakoizak bi izen zituelako, bata grekoz eta bestea latíñez... Beste aldetik, berri, ainbeste jainko eta jainkosa, ainbeste aien seme-alaba jainko txiki bihurturik... Oiek naikoak ez zirala, besteenak artu ondoren, naaste-borrasteko Panteoia sortu zan.

Erronzatar arlosak ugari



– Eta, jainko oiek gure artean ere ba al daude?

– Araba'n badaude batzuek eta auek dira: Laguardia'n Matribus Useis (Tokian tokiko, iduriz ooretutako, Ama Zaindariai); Ninfae, (uren sorgiñei), Araia'ko erreka baten iturburuan eta Cabriana'n; Laguardia'n Lares Quatrivi (Bide-gurutzeetako Zaindariai), Lar izenak Etxe-zaindari esan nai du, baña beste izen batekin datorrenean (Quatrivi) onek erakusten du Lar'en esan-naia eta Quatrivi bide-gurutzeak dira... Laguardia'n Lares Viales (Bideetako Laguntzalleak); Iruña'n Tutela, (Zaindariai)...

– Eta Dei Manes?

– Dei Manes (Etxeko Zaindariai): Laguardia (Ama Donearen ermitatxo oiñarrietatik aterea); Nabaja'n kamiño batean; Armentia'n kalostrako baratzan; Gabariñ'en San Martin ermitan eta erretore-etxean; Iruña'ko aztarnategi batean eta Errioxa'ko San Milian de la Cogolla'n...

– Eta, bertako jainkorik ez al dago?

– Angostina'n bi: Genio Suestatiense eta Baelisto; Suesatio Angostina bera da (Bertako jakinkoari) eta Baelisto=Belisto, Beltzetik etorri litzake (or daukagu Aker Beltza); Alegria de Dunanci errian Tullonio (Toloño mendar-tekoa dirudi); Miñano Menor erriskan Hellice Helase; Lasa Lats izan liteke eta erreka urakin esan nai du itz orrek; Cabriana'n Uvarna, osasunaren aldeko espiritua da, gaixo baten aide eskatzen bait diote; Arziniega'n Vimumburu, aizkeneko Buru orrek euskera ematen du; Comunion'en Liurma, ez du ematen euskalduna danik, izan liteke indoeuropeoa.

Ildakoen Arlosak

Ildakoen arlosa asko al daude Araba'n?

- Pillo bat: Iruña'n. era desberdiñetakoak 16 eta beste 8'ren berri badegu, baña. galduak; Luzkando'ko elizan iru; Angostina'ko San Bartolome elizan bat: Trebiño'ko San Este ban'en bat; 01 Iabarria'ko San Pedro de Saslesces ermitan bi: La Puebla de Arganzon'eko San Esteban muñoan bat; Pancorbo'ko Santiago auzoan bat; Contrasta'ko Elizmendi ermitan zortzi...

- Araba'ko zer alderditan daude?

- Arlosa oien egoerak Araba'ko zatirik berezientak azpimarratzen ditu: Iruña (Trespuentes) aldea da hat; bertan bait dago gaztelua Antonino Pio'ren 34'garren Bideari segurantzia ematen ziona eta an daude 22 arlosa eta Tutela'ren aldarea-txoa. "Santu" onek, naiz eta asieran itsasontzietan eramana izan, here babosa ematen zien, batez ere. gudariei. Dei Manes'en arlosarik ez da bertan falta.

- Eta, beste alderik?

- Laguardia'rena da: An zegoen Ebro ibaiaren zubirik nagusia, Mantible edo Cantibre izeneko zubia. Gertueneko beste zubia Deobriga'n zegoen, Miranda de Ebro'tik sartalde-runtz. Matribus Useis eta Lares Quatrivi'en aldaratxoak an daude. Quatrivi gurutz-bide esan nai du eta Laguardia ere gurutze-bide hat da. Laguardia'tik kanpo, Araba'ko Lardan zear dijoan Antonino Pio'ren 34'garren bide orretan daude Ninfae, Lares Viales, eta Dei Manes ugari.

- Eta, Contrasta'n

- Contrasta'ko Elizmendi ermitatxoa oso berezia da. Altsatsu'tik gory dijoan Opakua aldapa baño aurrerago Contrasta errixka digo, Naparro'rako bidean, bere oñetan Arana ballara duela. Mendi orren beste aldera daukagu Gasteain, Lana ballara menpean Buena. Bi errien artean Enzia'ko mendiak eta mendiak erriak banatzen ba'ditu ere. artzaiak eta artaldeak batzen ditu eta alkartzen... Zortzi arlosa daude Contrasta'ko Elizmendi ermitan eta beste orrenbeste Gaztein'go San Sebastian elizatxoan... Eta bietan agertzen da, gizonezkoen artean. Cantaber izena. Andik daude Cantabria mendarteak eta Cantaber edo Mantible, Araba'tik Kastilla'rako zubia. Aide auetan Erroma'ko jainko aundiak falta dira. Arlosak berriz, elizetan daude.

Naparroa'n

Erromatarren Jainkoak auek dira Naparroa'n: Jupiter'eri arlosa bat Ujue'n eta beste bana Aibar eta Eslava'n. A. Apenino (Jupiter) jainkoari Arellano'ko Unzizu ermitan. Deo Maximo Peremusta (Jupiter) jakinkoari Rocaforte'ko sukalde-sutegi batean. Marti Invicto jainkoari Monteagudo'n. Soli Invicto jainkoari Ibañetan eta San Martin de Unx'eko Santa Cruz aldean. Mater Magna (Cibeles) jainkosari San Martin de Unx'eko Santa Cruz aldean. Ninfae. Leire'ko monastegian.

- Eta ez al da Dei Manes'erik Naparroa'n?

— Bai, tilde bat: Iruña'n bat; Liedena'n bat; Gazteain'go San Sebastian ermitan zazpi; Maraño'n en iru; Aguilar de Codés'en. tau: eta Calahorra'n arlosa berezi bat, here burua it zuenena, Sertorio it zutelako: Diis Manibus (Q. Senora): ME BREVITIUS CALAGURRITANUS / DEVOVI / ARBRITATUS / RELIGIONEM ESSE / EO SUBLATO / QUI OMNIA / EUM DIIS INMORTALIBUS / COMMUNIA HABEBAT /

ME INCOLUME / RETINERE ANIMAM / VALE VIATOR QUI HAEC LEGIS / ET MEO DISCE EXEMPLO / FIDEM SERVARE / IPSA FIDES / ETIAM MORTUIS PLACET / CORPORE HUMANO EXUTIS.

- Eta, illarriak zenbat?

- Gasteain'en host; Aguilar de Codes'en bi: Villatuertan bi; Maraño'n, Carcastillo. Javier, Lerga, San Martin de Unx, Sos del Rey. Agreda, Sofuentes'en bana. Izenik gabeko illy rriak: Liedena'n bi; Aguilar de Codes'en bi; Sos del Rey'en bi: Andion, Eslava, Galipienzo, Gasteain, Zabel'en bana.

- Bestelako arlosak ba al dira?

- Ooretan eskeñitako bat Santa Cara'n; Eslava'n Dispensator bateri (Abastotako arduraduna) eskeña: Oteiza de la Solana'n bi eta oietako bat XX urteko lapurrek ildako gastea-ri. Leire'ko Ninfae arlosak ere ogibide bat aitatzen du: Aquilegus (uren arduraduna)...

- Eta, zer irudi daude arlosetan'?

- Makoak. giza-irudiak eta batez ere eguzki, illargi eta izarrez beteta daude... Auetatik geienak Lana hallaran daude (beste aldean dago aitatu degun Araba'ko Arana ballara) eta kristau elizetan (baita santuen izeneko muñoetan).

- Eta, nungo tokietan daude arlosa eta aldara oiek?

— Erromatarren hide nagusietan daude. Arlosa auen bitartez ikusten degu nundik nora ibilli ziran jaun auek eta nun utzi ziturten markarik geien. Lenengo eragiña Burdeos'tik datorren 34'garren Bidean: Ibañetan dago Soli Invicto Deo: andik Iruña'ra Dei Manes: Atondo'tik Sakana'ra, an degu Arakil (Ara Coeli=Zeruko Aldara) izena... Bigarren eragiña Iruña'tik egoaldera dijoan bidean: An daude Puente La Reina aide bate-tik eta bestetik Milagro. Villatuerta, Andion, Barbarin (Salatse'ren iru aldaratxo): Estella'ra bidea eta emendik Los Arcos eta andik Araba aldera daude Gasteain. Maraño'n, Aguilar de Codés ainbeste Dei Manes eta eguzki-illargi-izar ikurrekin...

- Eta, irugarren eragiña?

- Tarragona'ko bidean dagoen Kaskanten asi eta andik ifarralderako bidean daude Liédena, Rocaforte, Aibar, Gallipienzo, Santa Clara, Ujué, San Martin de Unx, Carcastillo, Eslava, Sofuentes, Sos del Rey, Javier... Inguru onetan daude Jupiter. Deo Maximo Peremusta, Sol Invicto, Magna Mater (Cibeles), Ninfae eta Dei Manes. Kaskante ondoko Monteagudo'n Marti Invicto eta Arellano'n Jupiter A. Apennino. Liedena'n dago erromatarren "villa" edo basetxe bat eta aren inguruan agertzen dira emen aitaturako Erroma'ko Jainko aundiak. Dei Manes, etxeko jainko oiek, berriz, Araba aldera. Kantabria mendartearen ifaraldetik...

— Eta, bertako jainkorik?

- Ujue'n Jupiter'eri arlosa bat eskeñi ziotenak, aietxek eskeñi zioten beste bat Lacubegi'ri (Askako Iturbegiari), euskaldun utsa; Salatse'ri iru arlosa Barbariñen; Loxa edo Loxa'ri bi Larate'n Loxa edo Lotsa, Verrecundia izango litzake; eta Atta'rena Sos del Rey'en...

- Eta, geiago, zer?

- Atal au D. Joxe Miel Barandiaran'en itzekin amaitu nai det: Onela dio berak (El Hombre Primitivo en el País Vasco. EKIN. Buenos Aires 1944): "Ez dakigu zer itxura ematen zuten Erroma'ko jainkoek euskaldunen buruetan... baña, izadiaren indarreri espiritua eman zieten eta orrela animismoa zan buru aieri kolorea ematen ziena..."

EUSKALERRIA: EDESTI-GIOIA (VI)

BURNI-OLAK

("Los Vascos. Euskal Kondaira" eta "Etnia Vasca" Donato Arrinda eta Manuel Estomba. 1980 eta 1983. Bilbao).

Lenengo burni-olak meatza zegoen inguruan egiten zituzten: arboladiak ere izaten ziran mendietan ikatza egiteko: ikatzakin meatza urtu eta totxoak egin. Errexa zan egitura: labea eta sua bizitzeko aspo bat. Agor-olak zituzten izen eta gizakien indarrez mogitzen ziran.

XIII'garren eunkiaren azken-aldira, urez ibiltzen dan errobera (rueda hidráulica) asmatzen dute eta uraren indarrez, eta ez gizonarenez, mogitzen dana, eta indar aundiago izanik aspo (barquines) aundiagoak erabili, meatz geiago eta totxo aundiagook. Zear-olak, izena.

XV'garren gizaldian asiko dira. Urakin dabillen erroberari erantsita, maillu aundiak, kirten luzeekin (gabia), burni guria jotzen. Maillu orrekin osatzen dira zear-olak, XIX'garrenean Labe Aundiak sortzen diran arteko gutzian.

Langilleak

Lau ziran aldi bakoitzeko: Meallea, meatza, arragoa, maillu txikiakin apurtzen zuena; Urtzaillea, palanka luze eta lodiakin agoa mogitzen duena, urtuta dagoen ikusteko. Agoa urtuta dagoenean, burni-errautsak sutegiaren azpiko zulo batetik ustuz, Meallearen laguntzarekin urtutako agoa aterako du. Irugarren gizona Iyela da eta burdin-kako aundi batekin, agoa maillu edo mazora (gabia) gerturatzen du, gero ur-kanaleko atea kendu eta urak errubera indarrez jotzen du, gabi-ardatza edo malluaren ardatza mogituz, zartadak ematen dizkio agoari, bere itxurak emanaz. Laugarrena, Arotza da; beste irurak zuzentzen ditu lan orretan. Agoari bere itxura eman diotenean, makinak gelditu, eta ago gañean aitzo gogor edo burni-piko bat ipiñi, eta maillu aundiaren golpeka, agoa zatitzen da, totxoak egiñaz, bear diran neurrian.

Mailluaren kirtena edo gabiaren ardatza, lau metro luze-ko zutabe bat izaten zan; lodian, berriz, mailluak eskatzen zuena. Orrelako maillu berezi batek eun edo eun da ogei golpeak eman bear zituen minutu batean.

Burni-ola aundiak eta txikiak

Aundiak amabi edo amasei arruako agoak urtutzen zituzten, lau zati edo totxoak egiñaz. Txikiak, totxo oiek zatitzen zituzten burnizko gauza txikiagoak egiteko; batez ere barkugintzarako bear ziran ate-ardatz, iltza mota guztiak eta abar...

Españia'ko Armada Real'lentzako aigura aundi eta

motzak Hernani'n egiten zituzten. bestelakoentzat, berriz, Usurbil, Zubieta, Lasarte eta Ayan'n.

Legazpi'ko Mirandaolan maillu ola bat zegoen eta bi kurpil, egurrezko palekin, urak oletan jotzen zuenean mazoa mogitzen zuan. Kurpil orren izena mazukari zan.

Irureun burni-ola (gutxienez) batera zebiltzen aldi berean Euskalerrria'n. Ola bakoitzak eun gizonei ematen zien lanbidea: ikatz-egurra egiteko, meatza eta ikatzak karreatzeko, aldiko lau alditan lau gizonek burni-olan lan egiteko, burniak ateratzen eta errementerietan gordetzen kanpora saltzeko... Gizon askok aurkitze zuten eguneroko ogia burni-oletan.

Euskalduna arbolaren aurka

Aurka ala alde, arbolak bear zituzten egur-ikatza egiteko, barkuak egiteko, etxeak egiteko eta labean erretzeko ere bai. Erriak erretzen asi ezkeroz, oso-osorik erretzen ziran zurezkoak ziralako guztiak; ala gertatu zitzairen Arrasate'n 1488'garren urtean Maiatzaren 18'an, urtea 1499, agindua ematen dute Errege Katolikoek, aurrerantz Tolosa'ko etxeak arri eta kareakin egin bear zituztela...

Furoa'k agintzen du arbola gazterik ez ebagitzeko, zaararak diranean baizik. Eta kentzen duten zugaitz bakoitzeko beste bi aldatu bear dirala. Bereiziki gaztaiñak eta aritzak aldatu bear dira. Gipuzkoa'ko Batzar Nagusiak Deba'n bildu ziran 1738'an, agintzen duenez "frutua ematen duten arbolak (igaliak, gaztaiñak, ezkurak) ikatzetarako ez dira gazterik ebagi bear, zearo zaartzen diranean, baizik". Eta, ogei metroko arbolak zaindu behar dira, etxeetako abeak eta barku-mastak egiteko...

Berriz'ko Villarreal jakintsuak dionez, arbola aldaketarako onena da Intxaurra, bere igalia eta lan guztietarako egur egokia dalako; Gaztaiña, bere frutu aberatsagaitik eta sitzak jaten ez duelako; Aritza, gogorrena bera da lantegietarako; Pagoa mallukirtenak, gabi-ardatzak, oletan egiteko, baita mazukeroentzat eta aldabarrentzako... Bizkai eta Gipuzkoa'rentzat onenak Aritza eta Gaztaiña dira... Berak ematen duen aizkeneko konseillua au da: "Erretzeko ez dan egurra ebagi bear da Urterrilla eta Otsaillaren ilberetan, ebagi azalakin gorde, Ekaiñera arte, orduan garbitu eta Burni-olara eraman".

Burni-oletako Alkateak

Ola askotan gau eta egun lan egiten zan, lau orduko alditan. Olan bertan lo egiten zuten eta Arotzak jotzen zuen txistu berezi bat aldaketak egiteko.

Burni-olak Bizkaia eta Gipuzkoa osoan zabaltzen ziran; baita Nafarroa eta Araba'ko zati batzuetan (180

Bizkaia'n, 100 Gipuzkoa'n, 30 Nafarroa'n eta 20 Araba'n. Danetara 330 mila XVI'garren eunkian eta 33.000 gizon lanean).

Burni-olak eta barku-lantegiak zituzten aukerarik onenak basoetako zugaitzak jasotzeko. Lau karga egur bear ziran ikatzetako bat egiteko; eta lau ikatzetako, burnizko bat egiteko.

Burni-ola bakoitzak mila kintal burni egiten zituen urtean eta orretarako amabi aldiz egur geiago bear zuen. Era guztietako agintzariak oso ardua aundia artzen zuten basoetako zugaitzak aldatzeko. Burni-olak bakarrik ez ziran egurra bear zutenak, baziran sutegiak ere burnia lantzeko eta lanabes mota guztiak burnitik ateratzeko. Egur geiago eta gizon geiago burniaren serbitzuan.

Burni-meatzik onena Bizkai'ko enkarterrikoa zan eta toki bakoitzekoakin naasten zan. Kadagua ibaitik (Sestao eta Barakaldo'ren mugan) etenik gabe irteten zuten era guztiko itxasontziak burni meatza kostarik kostatu eta ibaietan barrura al zan lekuraño eramateko errementerietan gorde eta andik artzen zuten ola bakoitzak, erreketan gora, andik gurdiakin ola bakoitzera eramateko.

Errenteri auetan egoten zan baita ere burnia eta egur-ikatzak andik bakoitzak artzeko ordaindu ta gero; "errenta" ere ordaintzekoa zan, gorde-lekuaren errenta; ordik zetorkien "Errenteria" izena. XIX eunkirarte iraun zuten.

Burni-olak elkarrekin biltzen ziran. Ballara bakoitzak zeukan berea. Burni-olek euren agintaria aukeratzen zuten urteoro Burni-olen Alkate izenakin. Bere eginbearra auxe zan: ordenak bete azi eta olagizonen arteko auziak konpondu. Erregearen aurrean bakarrik zeukan erantzun bearra.

Burni-olen Fueroa

Olen ordena auek Burni-olen Fueroan oñarrituta zeuden: erri bilduetan egoten ziranen antzekoak. Teobaldo Nafarroa'ko errege frantsezak orrelako erri fuero asko eman zitun (Olive'koa, Logroño'koa, Bitorri'koa...) Frantzia'tik Euskalerra etorritako franko ugariantzat. Erri bilduetako fueroak ez ziran Euskalerra'ko Fueroekin naastu bear: gauza desberdiñak ziran. Erri bilduetako fueroak abantailak ziran bertara bizitzen etortzen zirentzako; beste Fueroa, berriz, Euskalerra'ko Legediaren bilduma zan: oiturak lege biurtzen zirenean idazten zituzten.

Erri eta Burni-oletako fuero auek, askotan sortzen zituzten lege batzuenak bestearen aurka. Orrela gertatu zan Bilbao erriaren fueroa, Bizkai osoaren aurka...

Garai bat eldu zan burni-olei lapurreta eta okerkeri ugari egiten zizkiontenak; orduan sortu ziran burni-olen fueroak. Kastilla'ko Alfonso XI'garrenak, 1338'an, Oiartzun eta Irun'go ola-gizonei ematen dizkie fueroak. Eta Fuero onetan ematen dio burni-oletako Alkateari, iñori, Erregea bera ez bada, ez emateko iñungo konturik. Urrengo Erregeek fuero ori berritzen dute: azkenik Errege Katolikoek konfirmatzen dute.

Fueroaren abantailak

Askatasun osoa zura ebagitzeko, egur-ikatz egin bear danean. Askatasun osoa burni-olak jasotzeko. Meatza aurkitzen dan tokian lan egiteko, askatasun osoa. Aldaparoak egin eta ura nai dan bezela erabili. Garraioak petxa gabeak. Edonundik igarotzeko askatasuna, bide zabalagoak billatzen. Askatasuna fueroaren aurrean: bere aurka Burni-oletako Alkatearen aurrean bakarrik egin zezateken. Burniaren zergak bakarrik ordaindu bear. Eriotzaren aurrean ez zuten erantzunkizunik... Alfonso XI'garrenak (Burgos maiatzaren 15'ean urtea 1328) edozein aginte motari agintzen die "burni-olako jaunei eta olagizonei lagundu dietela, eriotzako zigorra eta diru berriaren 1.000 maravedisena nai ez ba' dute".

Burni-oletan egiten zirenak

XII'garren eunkitik burnia osorik edo landuta, estranjerrirako bialtzen zan. XIV eta XV'garren gizaldietan burnia zan burnirik onena Europa guztian: kañoiak eta aingura aundiak, arma zuriak eta suzkoak (arkabuzak) eta iltze mota guztiak (barkuentzako, etxegintzarako, aundiak eta txikiak, lauko burua ala borobilla...), toberak, auspoak, mazoak, ingudeak... balkoiak, burni-esiak... aizkorak, atxurrak, palak nekazarietako... sukaldeko ontziak, sartañak, marmitak, lapikoak, kazuelak...

Garrantzi aundienetakoak eta ugariak euetzek izan ziran: Iltzeak, burni-esiak, aingurak eta kañoiak.

Aingurak

74 kintalekoak ere egiten ziran "Armada Real"entzako (Cádiz, Ferrol, Cartagena) eta Itxasoz-beste alderako. Urteoro 400 egiten ziran. Obeak ziran eta ederragoak Europa'ko beste guztiak baino. 1748'an Gipuzkoa'n bertan 19 aingura-egile zeuden.

Danen artean famatuena Aya'ko Arrazubia oleko Fernán Gilisasti. Arek egin zituen "munduko gogor eta ederrenak". Ikaskizunak Holanda'n egin zituen, andik etortzen bait ziran aingurarik aundienak gure artera. Karlos III'garrenaren Marinako Ministrariak esan zuenez, Gilisasti'ri ekarri bearrik eta bitartean Portugal, Frantzia eta Ingalaterra'ra bilatzen dituguz.

1739'an lortu zuan 72 kintaleko aingura bat egitea. Orretarako "bear izaten dituguz 18 egunez maixu nagusi bat, 20 erreale egunero, bigarren maixua, 9 erreale eta amar maillukari 6'na erreale". Egunero lau kintal aingura lantzen ziran.

Gilisasti buru dala, Hernani'ko erria alkatuta, konpromiso bat artzen du "Armada Real"rekin, lau urteetan 20.000 kintal aingura egiteko. 1752'garren agutzuko 6' an Erregeak ordena baten bidez, nola Erregearen ontzietan jokatu ainguruei buruz. Onela dio: "68 kañoiko ontzi batek, iru aingura eraman bear ditu 72 kintalezkoak, bat 66'koa,

EDESTIA

eta txikiagoa 25 kintalekoa. 17'koa beste bat eta azkena, 9'koa"

Armak

XIV'garren eukadan Gipuzkoa osoan egiten dira armak eta XV'garrena amaitu orduko, orretan famatua zan Eibar. Zer arma egiten ziran Eibar'en: kañoiak, arkabuzak, mosketak, pikak, lantzak, dardoak, azkonak, benabloak, ezpatak, alfanjeak, matxetak, lonbardak, pasabolanteak, geziak, zerbatanak, espingardak, ballestak, korazak, kapazeteak, zeladak, aiztoak... Garrantzirik aundiena Felipe II'garrenarekin artu zuan, 1572'an, Plazentzia'ko "Fabrica Real de Armas" sortu zuanean... Lantegi orretan biltzen ziran Soralue'kin batera Eibar, Elgoibar, Bergara... 1538'an Juan Orbea eta Juan Ermua eibartarrak 1500 arka-buz egiteko agindua artzen dute...

Burni-esiak

Gure lantegietatik sortu ziran Madrid'eko "Jardin Botánico"ak bear zituen burni-esiak: baita Santiago de Txileko "La Casa de la Moneda"k (gaur Palacio Residencial) bear zuena ere: Felipe II'garrenak San Lorenzo del Escorial egiteko bear izan zuen burni-esi guztiak.

ARRANTZA

Leizeak

Gipuzkoa'n bezela Bizkaia'n eta Lapurdi'n ere arrantza kobeetan agertzen da. Bere sustraiak an daude. Ajen barruetan billatzen dituguz arpoiak, arraiñen bjzkar-ezurak, arraiñen marrazkiak: izokiak, arrondo latza, urraburuak... eta sareak. Baita ere txirla-azalak, marrazkilloak eta mojojoiak: batez ere, ostra-azalak pilloka leize atarietan.

Baserriak

Leizeak izan dira etxe-bizitza eta orain baserria da. Leizean bezela itxas-ertzeko baserrietan ere arrantza egiten da. Gau-arrantza batez be, arpoi eta guzti, asierakoen antzera. Baserrian abere zaintza eta nekazaritza egiten dira; baña, suertatu ezker, baita eizean eta arrantzan. Itxas-ertzeko baserrietan bizi-molde guztiak erabiltzen dira: asiera-asieratik izan diran danak.

Portuak

Arrantza jbaietan eta itxasoan egiten da. Itxas-ertzean ala barruan. Onetarako kaiak bear dira eta ontziak. Portua izan liteke edozein baster, itxaso zabaletik gordea: aitz

baten ostea, ibaiak... Bilbao'tik asi eta Baiona'raino kai asko dago ontziei babes ematen dienak. Sarkaldetik izaten dute aitzen bat edo mendiren bat, mendebaletik datozen olatuei babes emateko.

Ontziak

Lurretik arrantza egin liteke, baña, ur barrura joateko ontziak bear dira. Enbor baten gaiñean joan liteke eta joan izan dira; baña, gero, ontzi obeak egiten saiatu dira beti. Zenbat eta urrutirago joan, ainbat eta ontzi ohea bear. Orain bosteun urte direla badakigu zer ontzi mota egiten ziran Lekeitio'ko astilleruetan. Ona zer motakoak: Guztientzako izena berdiña zan "pinaza"; lau gizonentzako pinazak; amar metroko pinazak 8 gizonentzat balea arrapatzeko; amasei metroko pinaza 14 gizonentzat, Galizia'ra eta Irlanda'ra joateko. Terrenoba bidean asita gero 100 eta 1.000 toledako ontziak bear ziran. Galeoiak ziran aundienak, iru mastakoak eta oial laukiak iru mastetan eta astun xamarak. Fragatak ziren galeoien antzeko masta eta oialetan, baña askoz ariñagoak. Karabelak, ontzi ariñak iru masta eta oial laukiak bi mastatan, bestea iru puntakoa. Euskaldun geienak maite zituzten karabela auk. Zabra, bi mastako ontzia eta ojal laukiak bietan. Fusta, masta bat edo birekin, oso ari-nariñak, arraunekin batera. Eta beste ontzi asko txikiagoak. Bateltxoak kulunkaren antzekoak.

Zer arrai arrapatzen ziran

1599'aren Ekainaren 21'ean Erregeak agintzen dio Gipuzkoa'ri jakiteko zer arrai mota arrapatzen zan bere kaltetan. Deba'ko Alkateak bi lagun auei, Garzia de Soarte, 52 urtekoa, eta Jorge de Lariz, 60'koa, agindu zien emateko Erregeari erantzuna. Ara zer erantzun zuten:

Itxasoan arrapatzen diran arraiñak auk dira: Legatza, Itxas-aingera, Tolla, Mielgia, Bixigua. Atuna eta Sardiña... Eta beste arrai genero geiago, txikiak eta garrantzi gutxi-koak... Legatza, Itxas-aingira eta Mielgia neguan arrapatzen dira; baita Bixigua ere... Besteak, udaran... Bixigua eskabetxerako erabiltzen da, Kastilla'ra saltzeko; baña, baita gordiñik ere...

Arrantza egiten da kordela eta amuakin; sareekin ere bai. Frantzia'tik eta beste toki geiagotik gure Erreinutik kanpo, ekartzen da gurera Makallau gazi asko eta izoki gazia, Tolla eta Itxas-aingera sikua, Sardiña eta Arenkea, eta oietatik eramaten da Naparroa eta Kastilla'ra mandoetan.

Bi arrantzale auentzako itxasoan arrapatzen ziranak auk ziran: Legatza. Itxas-aingira, Tolla, Mielgia, Atuna, Sardiña eta Bixigua. Ibaiean, berriz, auk: Izokiak, Amorrañak, Arrondo latxak eta Barbariñak.

Beste errietatik (Mutriku, Zumaia, Getaria, Zarauz, Donosti, Pasaia eta Ondarrabi) osatzen dituzte Deba'koek emandako arrainak beste auk erantziz: Antxoa, Mero, Breka, Txitxarro, Raia, Langosta eta besteren bat geiago. Ibaie-tan, berriz, Aingirak, Lupiñak, Aingera txikiak (angulak)...

1923'an, umea njntzala, ikusten nituen arrantzaleak bar-

kutik bixigu bana artzen etxerako Lekeitio'ko kaian. Baña, Markiña'ko Artxiboan dagoen eztabaida batean, Prebosteak eskatzen die mariñelei, eurak eramaten dituzten sei bixiguen amarrenak emateko, eta mariñelek. ezetz... Orra 1923'an bixigu bat mariñiruarentzat, eta XVI'garren eun-kian, sei.

Donostia'ko arrantzaleak onela amaitzen du berak egi-ñiko lana: "Urte batzuetan arrapatzen ziran baleak, Donosti, Getari, Deba eta Mutriku'n, suertearen neurrian..." 1599'an Terrenoba bertan arrapatzen zituzten baleak.

"Arrain auen arrantzara joaten dira Pinaza eta Txalupetan: Pinazetan itxaso aundira 10, 12 edo 14 lagunekin gutxi gorabeera eta txalupetan, 4, 5, edo 6 gizon gutxi gorabeera".

1883'an Lekeitio'ko Kofradiak Memoria bat bialtzen du Londres'ko Exposizio batera, erderaz, euskeraz eta ingelesez. Xeetasun guztiekin agertzen digute Atuna'ren arrantza (bi aparejo mota), Bixiguarena (palangre), Legatza (aparejo). Itxas-aingera, Liza, Pota, Berdela. Txitxarrua, Tximiñoia eta Langosta...

BALE-ARRANTZA

Urtean zear gure portuetan arrapatzen ziran arraiñak lгатza, atuna, bixigua , sardiña , berdela, txitxarrua, antxoa... eta langosta ziran. Baña, neguan beste arraiñ antzeko mamu bat agertzen zan gure kosta-aldera: balea. Banan-banan, eta arra ala kuma lagunduta ere bai.

Bere egoitza Kanada'n zeukan eta itxasoak izozten ziranean, orduan etortzen zan ego-alderuntz Kantauri'raiño. Gurera etortzen zan baleak izen au du: Balaena Glacialis. Izen orren aurrekoa zan Balaena Bizkaiensis; baña, gure aurrekoek Kanada'n topatu zutenean, Sardako Balea eman zioten deitura. Euskalerrri'ra bakarka agertu arren, an bere itxasoetan, sardan ibiltzen zalako, multsoan.

Lenengo balean buruzko papera Baiona'n ikusi zuan argia 1059'an: hale-aragiaren salmenta du gaia. "Documento Rodado" deritzan idazkia, latiñez dago eta beraren bidez Kastilla'ko Erregeak bale bat eman-erazten clic mutrikuarrai. 1233'garren urtekoa da.

Talaieroa

Ez zan kostako erririk atalaiarik gabe. Bale batek diru-tza aundia ekartzen zion errian, arraptu ezkeroz. Balea ez da arraiña eta titiak ditu tripa-barrenean eta arnasa artzeko auspoak. Udazpian dabilenean, noiz beinka, kampa irten bear izaten du arnasa artzeko. Talaieroa ortarako dago, irte-ten duanean. ikusteko.

Atalaiako gizonak bale-arazoetan, ondo jantsita bear du: bale-mota guztiak ondo ezagutu eta aien senitartekoak ere bai... Balea ikusi bezik bizkor, señale bereziak bota bear ditu errira eta garbi adierazi balea ala bere senidetartekoa dan. Une aretan oiua bat entzuten de errian eta gizaseme^suztiak doaz korrika curen batelak prestatzera, balearen eizera irteteko.

Itxurazko ontziak zortzi gizon bear ditu; eta bestela, gutxienez, zazpi. Patroia popan, arraun luze batekin; bere-ekin beste sei arraunean; zortzigarrena brankan zutik, arpoia eskuetan noiz jaurtiko baleari. Arpoiari lotuta soka luzea dioa; arpoia aragian sartzen danean, aurrera eramaten du soka guztia eta ontzia berarekin batera. Balea seguru danean, asten dira lanza moduko sangraderak; sartun eta atera, balea il arte... Askotan ez da xamurra izaten.

Batelean arpoiakin batera dijoaz sangraderak, balde bat barruan soka biltzeko, aizkoraren antzeko pala luze bat, larri dabilzatenean baleari buztana ebagitzeko, gantxo luzeak eta aizkora motza. Bearrezkoak dira patroia-zen zur-tasuna eta arpolariaren pelotari-besagaiña.

Bale illa legorrera ekarri atoian, ondoratzen ez ba'da; bestela, bi txaloperi azpitik lotu. Lurrean dala burutik buztanera ebagi tira luzeak eta bira osoan. Koipeak eta aragiak, guztiak gantzak egiteko, lumera egiteko. Urtzeko labeak kana bat altu eta kana t'erdi zabal. Goiko zuloan kaldaria sartu, tupikizkoa edo urraidakoa. Azpitik badu labeak errekiña sartzeko beste txulo bat. Kaldariak iru moldekoak ziran: bi pipa, pipa bat eta pipa erdia. Pipa batek 450 litro zituen. Koipea gordetzeko barrika, berriz, 400 libra zituen bakoitzak Foruaren aginduz. Koipea kaldariatik, bein urtu ezkeru, udakin erdi bete dagoen tina batera pasa, garbitzeko. Eta garbituta, barriketara.

Balearen koipea urre gorria zan eta maiz ikusten ziran gure portuetan Europa'ko ontzi danesak, holandesak, ingelesak... koipe orren billa.

Terrenoba'rako bideak

Terranoba'ra bale-ondoren lenengo joan ziranak euskaldunak izan ziran. XVI'garren gizaldian millaka euskaldunek egiten zuten Terranoba'rako bidea: geienak, baletan, gutxienak makallautan eta danak kastor-larruak merkatzen indieoiekin galtzairuzko aizkora eta aiztoa, sagardoa eta arto-opillen truke.

Terranoba eta Kanada'ko arrantza-bideak zortzi illebetekoak ziran eta orretarako ontziak ere alakoak bear. Balararako txikiena 200 tonelada baño geiago zan; baziran 500 eta 1000'koak ere. Docenaerdi bat txalupa, 8 gizonentzako bakoitza, eramaten zituzten barruan. Kañoiak eta bestelako arma-mota guztiak ere eramaten zituzten... Arrantza eta burruka, biak zebiltzan batera. Euskaldunen ontzi maiteena iru mastako karabela zan, iru solairuekin bertan barrik koipeak tolestatzeko. Karabela bateko barruko jendea auxe zan: kapitana, pillotua, maixua eta kontramaixua, toneleroa, kalafatea, arotza, kañoi-serbitzariak, bi gazte ots egiteko balea noiz agertzen zan, 15 mariñeru, 5 azitako gazteak, 20 gazte 18'tik 20'ra bitartera urtekoak, ikasle bezela.

Balea ikusita, ots egiten zutenean, lau txalopa udetara bota eta patroia, lenengoaren kapitana izango da; bigarrena, pillotua; irugarrenak maixua darama eta laugarrenak, kontramaixua. Mariñelen artean sei arpoiari izango dira: lau irteteko eta beste biak, ba'da ez ba'dan. Txalopa oso ari-

EDESTIA

ñak dira, kanpotik mako baten antzekoak, 7'tik 8' metrora luze eta 1'70 zabal.

Txalopa bakoitzak eraman bear ditunak: konpas bat, tanga bat ura barrutik ateratzeko, masta eta oial bat, kako bat, aingura bat, metro erdi aldeko kaja uts bat ondoratuko ez dana. Baleak arriskuan ipintzen ba'du txalupa, soka askatu eta kaja oneri lotuta bota itxasora, balea nun dabillen jakiteko. Gañera, barrika bat, ur gezakin eta beste bat gauza auekin: farola, kandelak, poxpoloak, metxeroa, gazta eta galletak. Zenbaitetan balearen ondoren joan bear, noraiño eta noiz arte jakin ez.

Orrez gain eraman bear ditu bost arpoi, iru sangradera, pala luzea buztana ebagitzeko baleari, aizkora eta maillu bat. Eta 200 metro 16 arikoak, balde baten barruan. Balde-tik soka kabrestantera pasatzen da eta andik txalopa-muturreko zulo batera eta andik arpoilariaren eskuetako arpoira... Arpoia sartu eta al ba'da, asiko dira sangraderak, balea ilda gelditu arte.

Ainbeste arriskuko lan batek Seguru onak bear ditu, eta armadorearen irten aurreko lana, barkua eta arrantzak aseguratzea. Bein ori egin ezkerro, martzoaren egun batean, kaia laga eta itxasoratu. Ille osoa beteko da Terranoba eta Kanada tartea arrapatzerako. Bein San Lorenzo ibaiaren kolko luzean izan ezkerro, ondartza bat billatu, piñu bat bertan jaso barkuaren izena eta egunakin, eta ez da beste barrikurik an sartuko. Legorrean labeak eta txabolak eraiki eta eurak erabiltzeko gizonak. Beste guztiak, itxaso zabalera, balearen billa. Balea agertzen danean, bi millara barkua gelditu eta txalopak uretara. Eizea asi da...

Baleak il ala, koipez betetako barrikak barrura. Bodegak betetzen diranean, Euskalerriruntz. Barrikatik irutik bat, gizonentzako. Besteak armadorea eta nagusiaren artean zabaltzen dituzte...

Arpoilarien lanari, zenbat bale arrapa dituzten neurrira, sariak eman; berdin pillotu eta kapitanari. Beste guztien artean, berdintzu. Barrikak 400 librakoak dira.

Doniane Loitzun'en, 1743'an St. Sprit izeneko barkuak 58 gizaseme eraman zitun eta guztien izenak eta adiña badakigu: 1 zan 50 urtetik gorakoa; 7, 41-50 bitartekoak; 15, 31-40 bitartekoak; 18, 21-30 bitartekoak; 17, ortik bera-koak. Bat falta da; bere adiña ipintzen ez dutelako.

Barrikak nola banatzen ziran beste dokumentu batetik dakigu: San Nikolas galeioak 475 tonelada zitun eta 72 gizon barruan. Getaria'tik irten zuan Terranoba'rako, 1564'an, Joan de Espilla debarra kapitan zalarik eta Landaberde bilbotarra armadore eta jabe. 1 195 barrika bete zitun Kanada'n eta onela banatu zituzten Bilbo'n: 398 barrika tripulaziñorako; jabearentzat 298 t'erdi; armadorearentzat 497 t'erdi.

Armadoreak bazitun bere bearkizunak: sei ziran arpoilariak, eta euren lanaren arabeera, laurek artzen dituzte 10 barrika bakoitzak sari bezela; beste batek 5 eta seigarrenak bi. Pillotuak artzen ditu sari bezela 27 t'erdi; kapitanak 15; eta besteak 4 t'erditik, 1 t'erdira. Jabeak ere baditu bere sariak berak aukeratutako gizonekin: kapitanari 10; kontra- maixuari 5; arotzari 3 eta iru laurden; guardianari, kalafateari eta kañoikuari 2 t' erdi bakoitzari. Oiek ziran bakoitzak irabazitako abantailak. Guztien lanak, ortik aparte, 398 barril ziran danen artean banatu bearrezkoak.

Bukatu baño leenago esan dezagun euskaldunek festa ona izaten zutela indioekin: ez zuten euren lurrik nai, eurokin merkatua egiten zuten kastor-larruen truke eta lagun-tzaille bezela ere artzen zituzten...

ARRINDA'TAR ANES

IPUIN-SARIKETA (BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN)

BILBAO
UDAL AYUNTAMIENTO

LAGUNTZAILLE EUSKARAZALEAK ALKARTEA'k, urte guztietan lez aurten be, ipuin sariaketa iragarten dau, oi-

- ñarri-arauak oneik dirala:
- Ipuiniak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearko dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINTZA'k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.
 - Ipuiniak asmatu-rikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.
 - Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER' en argitaratuko dira.
- Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.
- Azillaren azkenerako EUSKARAZALEAK ALKARTEAren etxean (Bilbao'ko Colon de Larreategi, 14, 2.^a eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta Zer'en agertuko da, Urterrillean, baita DEIA Egunkarian be al bait lasterren.
 - Sariak lau izango dira:
 - 1.^a 50.000 pezeta
 - 2.^a 40.000 pezeta.
 - 3.^a 30.000 pezeta.
 - 4.^a 20.000 pezeta.
 - 5.^a 10.000 pezeta.
 - Ipuiniak izen ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.

EUSKALERRIA EDESTI GIOIA (VII)

BI BALE-ONTZI EZAGUNAK

"San Nicolas" eta "San Juan"

Bi bale-ontzi oien berri zeatzak: bat. "San Nicolas". Joan de Espilla debarra zan bere kapitana: Terranoba'rako bidea bete zuen 1564 urtean. Eta, bestea, "San Joan". Portu bere kapitana, Labrador' en (Kanada) ondoratuta gelditu zan 1565'an, urte bete beranduago.

"San Nicolas"

Bilbao'ko astilleroetan egin zuten. Landaverde zan nagusia eta Joan de Espilla kapitana. Nagusia eta kapitana desberdiñak ziralako paperetan idatzi zituzten arremanak, tratoak. 475 toneladako bale-ontzia zan, 72 gizaseme barruan.

Iru mastako galeoia zan. Sei kañoi aundi eta ama-bi txiki zitun; bederatzi alde bakoitzeko (arkabuzak ere bai), bi kintal polborarekin; bi dozena ballesta bakoitza amabi azkonekin eta eunka bestelako bur-nizko armak.

Espilla'k barkua bere mende Portugalete'n artu zuen. Nagusiak sei aukeratu zitun: maixua, kontra-maixua, arotza, kalafatea, mariñel bat eta zaindari bat. Ogeta lau kapitanak aukeratuak ziran Lekeitio eta Deba'n. Beste berrogeita lau bear zitun oraindik eta oien billa Getari'ra gerturatu zan. Eta, andik irtzen zuen Terranoba'rako.

Joan-etorria egiteko gauza asko bear ziran ontzi-barruan: masta, aingura, belak, soka ugariak, txalupak bakoitza bere tresna guziekin, amoko edo istupa (estopa: Calatayud'ekoa zan onena), pikea ontzia istupateko eta abar. Ontzia istupatu bear zan azpitik, aldamenetatik eta gañetik itxasora irten baiño lenago. Gero an barriro egin bear zan onuntz etorri

aurretik. Pike eta amokoakin batera, lan oien osagarirako, animalien kintal koipe bat ere bearrezkoa zan.

Arrantzarako tresnak ziran bearrezkoenak: txalopetatik asi eta arpoi, xabolin, estatxa eta abar. Labeak egiteko bear ziran gaiak, zer esanik ez: arriak, buztina, tellak, galdarak... Koipeak ebagitzeko bear ziran aizkora, aizto, tiña, barrika eta egur-ikatza labeak pizteko.

Janak eta edanak: ogi-galletak, aragia, zeziña, urdaia, babak... Ardo, sagardo, txakoliña, pattarra... Ez dakigu zeatz-meatz zertzuk eramane zitun gai aue-tatik San Nicolas barkuak; baña, egun aietan Doniane Loitzun'etik irtendako 140 toneladako ontziak (40 gizaseme barruan) zertzuk eramane zitun bai, badakigu. Ona zeintzuk: 20 tonelada ardo, 120 kintal galleta, 10 kintal urdai, bi kintal t'erdi olio, 22 binagre barrika, 120 libra kandela, barrika bat baba, beste bi barrika ale eta bituallakin...

1770'garren urtean berreun toneladara iristen ez ziran barkuak, ona zertzuk eramane zituzten Marinako Agintariak ziotenez: 230 kintal galleta, 60 sagardo barrika, 12 ardo barrika, 12 barrika baba, bakallau sikua eta sardiña zaarrak... Orretzaz gañera mariñel bakoitzak eramane zuen urdaiazpikoa, gazta eta pattarra jantziak gordetzeko zeuzkaten kutxatilletan. Bota luzeak ere eramane zituzten larruzko jantziekin, toki otz aietan lan egiteko modukoak...

Lau barkuen berri badakigu edateko zer eramane zuten: 1681'urteko lau barkuak auek ziran: San Pedro, Na. Sra. de Aranzazu, Na. Sra. de Begoña eta San Juan; edana, gizon bakoitzentzako 2 barrika t'erdi sagardo, lau gizonentzat txakolin barrika bat eta gañera edatekoa beste toki batetik ere ekarri ornen zuten. Zer edari? Ardo'? Pattarra? Egarriz ez ziran

iltzen. San Nicolas geure barkua, Bilbo'n armatu zuten, armadorea, bertakoa zan da.

Segurantzirik gabe ez zegoen orrelako ibillaldi luzerik asi eta orixe egin zuten Terranoba'ra irten aurretik. Eta negua amaitzearekin batera irten zuten Getaria'tik Kanada'ra. Etsairik gabe eta eguraldi onarekin eldu ziran Akadia eta Terranoba arteko pasadizora. Aurrerago aukeratu zuten ondartzat bat; mollak egin, labeak eta txabolak jaso eta indioekin azoka bat antolatu: kastor-larruak sagardo, aizkora, aizto eta ogiaren truke... eta balearen ondoren ekin...

Atak badoaz egaka egoalderuntz, 1195 barrika egokituta daude iru ganbaratan; kalafateak istupatu du berriro ontzia azpitik, aldamenetatik eta goitik... Agur, Kanada; agur, indio lagunak; agur eta datorren udaberrirarte...

Bilbo'ra eldu dira eta egin dute barriken banatzea. Badaukagu 1566'garreko dokumentu bat eta San Nicolas'es barriken banaketa onela egin zan: 1195 barriketatik irutik bat arrantzaleentzako, 398 barrika; nagusiarentzat laurdena, 298 1/2 eta beste amabi aurretik jasoak, danetara 509 1/2.

Ibillaldiaren soldata danentzako berdiña zan: 5 barrika, 200 kilokoak: danetara, 1.000 kilo.

Orretzaz gañera abantallak eta sariak banatzen ziran. Geienak armadorearen bizkarretik. Ona urte orretan zer sari jaso zituzten armadorearen eskutik:

- Kristobal Txanez, oriotar arpoilariari	10 barrika
- Domingo Zarraondo, zarauztar arpoilariari	10 barrika
- Domingo Sebi, getariar arpoilariari	10 barrika
- Juan Lpz. Murgurizar, ondarrutar arpoilariari	10 barrika
- Juan Arana, getariar arpoilariari	5 barrika
- Juanes Lersundi, zarauztar arpoilariari	2 barrika
- Gaspar Elgueta, ondarrutar pilotuari	20 barrika
- (eta beste lan batzuegaitik)	7 1/2 barrika
- S. Juan de Gorostizu, laguntzailleari	1 barrika
- Domingo Mallona eta bere laguntzailleari	3 1/2 barrika

- Ramon, Baiona'ko barrilleruari	4 1/2 barrika
- Joannes de Aranza, Getariar barrilleruari	3 1/2 barrika
- Domingo, barrilleruari	2 1/2 barrika
- Agustin, barrilleruari	2 1/2 barrika
- Juan, Baiona'ko barrilleruari	4 1/2 barrika
- Txo, guztientzako	8 1/3 barrika
- Kapitanari	15 barrika

Emen agertzen dira 6 arpoilari eta 6 barrilleru.

Arpoilariak 4'k egiten zuten lana batera. Beste biak errepuestorako ziran. Orregaitik irabazten zuten gutxiago: bale gutxiago arrapatzen zutelako. Baña, barrilleruak zergaitik diferentzi ori? Baiona'ko biak, maixuak dirudite.

Armadoreak 113 1/3 barrika banatzen ditu eta beretzako gordetzen ditu 396 2/3 barrika.

Nagusiak sei gizon aukeratu zitun, eta seirentzako ditu abantailak:

- Kapitanari	10 barrika
- Kontrainaixuari	5 barrika
- Arotzari	3 1/3 barrika
- Zaindariari	2 1/2 barrika
- Kalafateari	2 1/2 barrika
- Kañoi serbitzariari	2 1/2 barrika

Nagusiak 25 5/6 barrika banatu zitun eta beretzako gorde zitunak 272 2/3 barrika. Dirutza aundiak ziran bale-arrantzan erabiltzen zirenak. Aizkeneko gizonak ere milla kilo (5 barrika) erabazten zitun, abantallak alde batera utzita.

Oraindik orain arkitu duten San Juan barkua aztertzen ari diran Kanada'ko jakintsuek diotenez, barika bat oraingo dirutan ipiñi ezker, 700.000 pezetatik 1.050.000'ra zuen prezioa. Ori barrika bakar batek. Gutxienaz 5 irabazten zitun bakoitzak eta abantailak aparte.

Baña, bale bakoitzak 250 bizar zituen (ballenak) eta ainbeste barrika betetzeko baleak ere ugari izango ziran; baña, bizarren konturik ez dakarte. Badegu, ordea, beste ontzi txikigoaren banaketa. Onela dio: Matin Goyangos ontzia, "Filibote" izenekoa, txikiagoa zan San Nicolas baiño eta 206 barrika besterik ez zuen ekarri. Banaketa egiten dutenean, bizarrak ere

aitatzen ditu: Kapitanari, 28 barrika eta 200 bizar; pilloturari, 14 barrika eta 40 bizar; maixuari, 8 barrika eta 16 bizar... eta abar. Beraz, ekartzen zituzten.

Beste ontzi batek, Le Saint Sprit, Joannis Sopite kapitana, 200 barrika ekarri zitun Terranoba'tik, iru bale t'erdi il zituzten eta bale oietatik 80 kintal bizar ekarri zituzten. Neurri orretara, San Nicolas'ek 1995 barrika betetzeko 36 bale il bear zituzten eta 480 kintal bizar ekarri... Baña, ori suposizio bat besterik ez da. Ez bait degu bizar oien berririk. Arrisku aundiak eta dirutza aundiak. Jende gaztea prest joateko.

Arrisku aundiak ustegabeen

Belanger, Kanada'ko istorigilleak dionez, bere liburuaren, 144 orrialdean, 1577, gure bi barku auen joan-etorria baño amabi urte beranduago, Gipuzkoa'ko barku-talde osoa izotzetan preso artuak izan ziran. Bale eta bakallau ontziak, eta 540 gizon il ziran. Aien artetik 17 zarauztarrak. Barku-pilloa galdu, giza-seme gazteak galdu eta bildurra sartu barruan... Oraingo Labrador'eko ikerketan 125 ildako topa dabez illerri batean. Gazteak: 20 urtetik 40'ra bitartekoak.

Alaz ere irabaziak gizonaren biotza tentatzekoak ziran. San Nicolas ontziak 5 barrika soldata bezela jaso zuen bakoitzak. Barrika batek 700.000'dik 1.050.000'ra pezeta balio zuen. Boztek, 3.500.000'tik 5.000.000'ra. Diru asko zortzi illebetetan irabasteko. Orretzaz gaiñera datoz abantailak: lau arpoilariak bakoitzak 10 barrika sari: 7.000.000'tik 10.500.000 pezetara sari. Kapitanak, berriz, beste orrenbeste: 20 barrikatik gora...

Izotzak dakarren eriotza; Felipe II'ak emandako agindua; baleontziak "La armada invencible"rako bear zitula; Igalaterra eta Frantzia'ko politika, lunaren jabe egin indioen bizkarretik eta euskaldunak andik kanpora bota kañoi-tiroka; euskaldunen aotik balea arrapatzen eta urtutzen ikasi, konpañi aundiak jaso, eta indar geiago euskaldunak baztartzeko...

San Juan bale-barku ondoratua

Pasai'tik irten zuen Labrador'era eta udazkenean, 1.000 barrika koipe barruan zituztela, aize-bolara

batek, amarrak eten, aurreko aitzen aurka jo, eta ondoratu. 1565'aren udazkena. Ur-azpian egon da lareun urtez, 1978'an billatu zuten arte, Red Bay deritzan parajeen; gure aurrekoek Gran Baya deitzen zioten leku arreri.

Nundik nora aurkitu zuten ontzi ori?

Selma Huxley ibilli zan ibilli liburutegietan euskaldunen aztarna-billa eta aizkenerako Oñati'ko unibersidadera jo zuen, artxibora. Euskaldunek ez degu idaztirik uzten baldin bitartean eztabaida ez ba'dago. Eta ango paperetan San Joan'en kapitan Portu'ren eta Ramos Arrieta eta Borja jabearen arteko burruka agertzen da. Nagusiak erruak kapitanari botatzen dizkio. Kapitanak bere buruaren garbitasuna egiten du. Eta ori egitean, esaten digu nun zegoen izugarritzko Ifar-aize-bolada sortu zanean; amarrak eten eta ontzia aitzen kontra bota zuenean. Golpeakin ontzia lertu egin zan eta ondoratu. Gizonak eta barrika pillo bat salbatu zituzten baña, barrika talde bat eta ontzia ondoratu.

Selma'k eskatu zion Kanada'ko Gobernuari ikerketak egiteko toki aretan eta antxen topa zuten, erditik irikita, bixigua parrillan bezela, oztzia eta zenbait gauza xeeak ere bai. Amar metrora edo dago ur-azpian.

Inguru aretan labeak ere aurkitu dituzte lau edo bost; baleontziak dauden tokietan labeak ere bearrezkoak dira. Baña, ontziaren egurren artean gauza zeeagoak ere agertu dira: burnizko arpoi bat M señaleakin (Euskalerra'n galdetu dute eta erantzun diete M ori Mondragoi'ko produktoa dala) eta bi metroko maki-lla eldu-leku eta 160 metroko soka luzea; matxete bat, 41 zentimetro luze eta 4 1/2 zabal; aizkora bat, 18,30 zmt. luze eta 8 1/2 zabal; ballesta baten zatiak; errosario baten 15 ale beltzak; artillezko erroa zatiak; kutxa baten giltzatxo bat (mariñelak eramaten zituzten kutxatxoak gaztaia, urdaiazpikoa, pattarra eta jantziak eramateko)...

Barrika duelak ere agertu dira, aritzezkoak; lotzeko ez zuten burnirik erabiltzen, lan ori unen txotxe-kin egiten zuten eta urren adar asko an daude; barrikak, upelak, an bertan egiten zituzten emendik eramandako materialakin (San Nicolas baleontziak sei tonelero zitun; barrikak armatzen lana danentzako) eta artarako bear ziran opatxur (azuela), plankai edo

aasa (cuchilla de cepillar) eta beste lanabesak, guztiak daude ondoratutako San Juan ontzian.

Euskalerritik eramandako tellak edonun sakabana-tuta daude; angoek esaten dutenez, soroetan tella geiago dago azak eta patatak baño. Lur aietan ez dago buztiñik eta ez dute tellarik ezagutzen emendik eramandakotik aparte, Zeramikako (mayólica) jarra bat bi belarriekin 10 zentimetro luze eta fuente polit bat. Kristalezko kopa oso fiña, 15 zentimetro luze, arrautza-azala bezin meea. Arriak ere badaude, emengoak; labeak ereikitze eta gero, barrikak gelditze era-billiak bodegetan.

Txanel osoa ere bai, bale-arrentzarako erabiltzen zutenetako. Orretzaz gañera itxas-orratza, eta bere ontzia; arilkai bat aria biltzeko edo, ontziaren ibiltasuna neurtzeko; arezko erlojuaren bastidore bat, izarren mogimentua neurtzeko "astrolabio" bat (gaurko sextantearen aurrekoa) eta bale-ontzi baten irudia aiztoaren muturrekin egiña aga batean... Sas-kitxo baten makallau gazitua ere topa dute, aizto baten arrastoeekin, jaten zuten señaleara. Bear ba'da, bale-koipeakin batera ekarri ere ekarriko zuten makallaua.

Ontziaren olen irudi berdiñak atera dituzte eta oiekin beste ontzi txikiagoa, proporziñoan berdiña, egin dute... Ontzia ez zan gauza bitxia, lanerako egiña baik. Lanerako egokia eta artarako bear ziranak, bazitun egoki ipiñiak... Barku osoak egitura miresgarria

erakusten digu; ordu artarako oso aurreratua... eta laboratorio izugarria barkugintza ikusteko...

Terranoba eta Labrador Pasaia'tik urruti daude; bitartean badaude 3.700 kilometro eta bela-ontziekin egiteko ez dira gutxi. Urruti egon arren, Colon'ek Amerika arkitu eta andik amabi urtera euskaldunek bazuten Kanada'n arrantza-industria sendoa... Ez ziran lo egon; eragozpenak ez ziran txikiak eta zailtasunak edonundik zetorzkien: gatzik ez zegoen Euskalerrian eta Cadiz'era joan bear billa; istipua Calatayud'etik ekarri bear eta pikea bera atzerritik.

Baña ez zituzten ezerk ikaritzen; Red Bay, 300 biztanle eskasakin an zegoen Jainkoak dakien tokietan eta, alaz ere, udaberrian 900 arrantzale euskaldunek uraxe artzen zuten bizileku udazkenerarte... Koipeak balio aundia zeukan argitarako, makinak leguntzeko, botikak egiteko... eta abarretako. Bizarrak ere ba'ziran koipearekin batera; makallauak itxasoa estaltzen zuen eta arpoilari onak dirutza aundia irabazten zuen. Barku onen aztergilleak diotenez, arpoilariak gizon fuerteak ziran eta guztiak ziran ausartak, asko gelditzen bait ziran betirako erbestean, etxeko sepulturarik gabe eta zenbaitetan etxekoek nun lurperatuta zeuden sekulan jakin gabe...

Bi barku ezagun auek asko eta zeatzak ematen dizkigute gizon ausarta auen epopeiari buruz. Etxeberri lapuditar medikuak bale-arrantzaleai buruz ziona: "Biziaren gatik arriskatzen degu bizia".



ITXAS-GIZON BIKAÑAK

Magallanes eta Elkano

Pazifiko Itxasoa 1513'ko Iraillaren 25'an ikusi zuten lenengo aldiz, Andes mendarteko gañetik, Vasco Nuñez de Balboa eta euskaldun beste bere lagunek. Bilbao'ko Pedro de Arbolantxa'k ekarri zuten aurkitze orren berria España'ra 1514'an. Itxaso artara joateko bidea billatzen saiatu ziran bat baño geiago.

Baña arkitze ori Hernando de Magallanes'eri tokatu zitzaion. Sevilla'tik irten zuen 1519'garrenge Abustuaren 10'an. Berarekin zijoan Juan Sebastian de Elkano, 31 euskaldunekin. Guztira 237 gizon zijoazen bost ontzi auetan: Santiago, San Antonio, La Concepción, La Trinidad eta La Victoria.

Iru urte iraun zuan ibil-aldiak. Patagonia'ren egoan aurkitu zuten bere izena daraman El Estrecho

de Magallanes. Urte bat eta bi illebeta Sevilla'tik irtenda gero, 1520'garren urteko Abenduaren 27'an eldu ziran Pazifikoko itxasora. Kañoika ospatu zuten berri ori: kañoiak Bilbao'koak ornen ziran (Plaentzia-Soraluze'koak seguru) eta polbora Ondarribia'koa.

Baña ara orduko Santiago ontzia galdu zan eta San Antonio'k, zapuztuta, alde egin zien, Iru ontzi bakarrik eldu ziran Pazifikora. Itsaso zabal artatik aurrera islas Filipinas'etara jo zuten eta an Concepcion ontzia erre, bear aria jende ez zutelako.

Ugarte aietan il zan Magallanes eta bere ordekoak, indioen eskuetan. 237 gizonen urten zuten; baña, 115 besterik ez dira gelditzen. Elkano da guztien gidari.

Bi urte Sevilla'tik irten eta gero, 1521'en Azaroaren 6'ean Islas de las Especies deritzaten ugartetan legorratzen dira eta bi ontziak, Trinidad eta Victoria, espeziak betetzen dituzte: clavo, canela eta nuez moscada.

Une aretan zalantza bat sortzen zaie, auxe: España'ra ezagun zuten bidetik itzuli, ala aurrera segi eta munduari bira osoa eman. Erabakia, aurrera joateakoa da; baña artan dabilzala Trinidad ontzia galdu dute, espeziak eta guzti.

Aurrera eta aurrera. Afrika'ko ego-muturretik (Cabo de Buena Esperanza) igaro dira. Gero, kostatik kostara, San Lucar'eraño eldu dira Irailla'ren 6'ean, urtea 1522, irteeratik iru urteetara. Munduari lenengo bira eman diote; andik 60 urteera, Drake ingelesak emango zion bigarrena.

Iraillaren 8'an, oiñutsik eta lur-jota, joan ziran Sevilla'ko Eliza Nagusira Jainkoa'ri eskerrak ematera. Elakano'rekin batera ziran Juan de Akurio kontra-maixua, 30 urtekoa eta bermiotarra, Juan de Arratia, bilbotarra 20 urtekoa, mari-erdi eta Juan de Zubileta, Barakaldokoa, txo, 18 urtekoa.

Elkano'ren eriotza

Iru urte beranduago, 1525'eko Uztaillaren 24' an, La Coruña'tik irten zuen, zazpi ontziekin, munduari bira egiteko asmoetan. Lau ontzi Elkano bereberak

prestatzen ditu Portugalete'n eta an emango dio asiera ibil-aldiari La Coruña'ra.

Andres Urdaneta, Ordizia'ko pillotua darama bere lagun; baita beste pillotu bat ere, Martin de Uriarte, eta Juan de Areizaga, apaiza. Aiekin batera Elkano beraren bi anai eta amairu euskaldun geiago.

Zazpi ontzi oietatik lau bakarrik eldu ziran Pazifikoko itxasora. Zabalgune aretan dabilzala il ziran barruan gizon asko eta aien artean Leaza, taldearen Kapitana (20-VII-1556) eta Elkano bera erabai (4-VIII-1556) bi aste beranduago.

Sakabanatu ziran ontziak eta amar urtez ibilli ziran basterrik baster. Moluka ugarteetara eldu zan Elkano'ren ontzia, Toribia Alonso de Salazar, enkarterrikoa, buru zuela. Onen ondorengoa, berriz, Elgoibar'ko Martin Iñiguez de Carquizano kapitana.

Gogoratu dezagun Martin de Urdaneta, ordiziarra, Moluka'ko ugarteetatik ez zan aldendu amar urte beranduago, baizik, 1535'urteko Otsaillaren 15'ean. Andik Islas de las Especies'era jo zuen España'ra etorri aurretik; azkenik Lisboa'n legorreratu zan 1535 urtearen Ekainean.

Amasei urte ondoren, Pralle Augustinotarra sartu zan Mexico'n 1552'an. Pillotu famatua pralle sartu zan; baña, ez zion itxasori laga. Konturatu, ez zata kosta-aldean jaio, Gipuzkoa'ko Goierrian baizik. Izan ere aldi aietako itxaso-egoeraren otsak kostak bakarrik ez, baita barruko mendiak ere betetzen zituan.

Orduan gertatu zana, gertau zan PYSBE'rekin ere. 1929'an, bi urte bretoinekin ibilli ondoren, gizon berriak bear ziraneean Terranoba'ra joateko, Gipuzkoa'ko goierriarrak, Urdaneta bezela, izen eman zuten makallautan joateko: Lazkano, Ataun, Olaberria, Beasain, Ordizia, Zaldibi eta Naparroko gizasemeak joan ziran, makallau-arrantza berriztatzerak. Zergaitik? Kapitana, Eustakio Arrinda, lekeitiarra, Lazkano'n ezkondu zegoalako. Gizonak bear zitun Terranoba'rako sareak zaintzeko, gatza emateko, buruak mozteko, zabal-zabal arraia uzteko... Eta bertatik asi zan billatzen; baita aurkitu ere mutil gazte ederrak... 200 urte zeramazkiten euskaldunek makallautan joan gabe eta nundik asiko eta Goierriko base-rietatik asi ziran. Danak ez ziran kostakoak.

Urdaneta eta Legazpi

Andres Urdaneta, Ordizia'ko pillotua, Elkanorekin irten zuan munduari bira bigarren aldiz emateko asmotan; baña, asmoa ustel gertatu zan, Elkano bera ere bide erdian il zalarik. Amar urte itxaso zabal artan ibilli ondoren, etxera biurtu zan 1536'an. Bereala Mexico'ra itzuli zan eta 16 urte beranduago Pralle Agustino sartu zan 1552'an.

Andik 7 urteetara, Felipe II'garrenak, España'ko erregeak, ontzi talde bat eratu zuan Filipinetako Ugartera. (Isla Filipinas izena Felipe II'garrenak eman zien menderatuta gero). Urdaneta'ri dei egin zion lan orretan parte artu zezan; berak ezagutzen zitualako itxaso aiek eta ugarteak; gañera itxasoko mapak egiten jakintsua zan.

Lau ontzi ziran danetara: San Pedro, kapitan nagusiarena, San Pablo, San Juan eta San Lucas. Zuzendari nagusi Miguel Lopez de Legazpi eta Gorrotxategi, Zumarraga'koa, izendatu zuten, naiz eta itxasgizona ez izan. Berak eta Urdaneta, Ordizia'koak, biak, zuzendu zuten ontzi-taldea.

San Pedro ontzi nagusian, Martin de Ibarra, bilbotarra kapitan, eta Ontzi-maixua, zijoan eta Andres de Ibarra Alferreza, mexicotarra; Infanteriako kapitan Martin de Goiti, Andres de Mirandaola (Urdaneta'ren illoba), Felipe de Salcedo Legazpi'ren billoba, bi Aita Agustino euskaldunak... Beste ontzietan beste amar euskaldun zijoazen...

Mexico'tik irten zuten 1564'garren urteko Abenduaren 20'ean eta Cebú deritzan Filipine'tako ugartera 1565'garrengo Apirillaren 27'an eldu ziran. Ontzi-taldea Filipine'tara eramanda bete zuan bere eginbearra Urdaneta'k eta Mexico'ra ituli zan, joandako San Pedro ontzi berean. Urte orren Eikaineko lenengo egunean irten eta Acapulco'ra eldu ziran Urriaren 3'an, irten eta lau illebete beranduago.

Legazpi gelditu zan bertan, Filipinesetako ugarte guztiak menperatu arte. Bera izan zan ugarte guztien lenego Gobernadorea. Manila uria berak eraiki zuan ugarte guztien uri nagusia lez. urtea 1570. Berak menperatu eta zibilizatutako Ugarteen buru, Guido de Labezarri gelditu zan, aren ondoren.

1575'an Labezarri'k Txina'ra enbajada bat bialdu zuen, Martin de Rada, agustino euskalduna Urdaneta'rekin joana buru zala... Urte batzuek beranduago, 1611'an, Sebastian Bizkaino euskalduna Japoi'ko Erregearen aurrera joanik zan...

Atlantiko eta Pazifiko-itxaso baztarrak, Filipinas ugarteetaraiño, guztiak ziran guren zabalak mutil euskaldunek beuren ausardia agertzeko. Jakiña da maiorazgoak etxerako ziran eta aurrekoen etxea bere osoan gorde bear zutela; baña, ondorengo semeak munduko zabalgunek eurentzako eskaiñiak zeuzkatela... Eta alaxe ibilli ziran ibilli itxaso guztietan... Euskalerria, barku-olaz beteta zeuzkan beure kosta guztiak eta ez zan ontzirik falta asmo ausartenak betetzeko...

Bete zituzten sinistu eziñezko ekintzak, baña, idazten murriz izan ziran beti: "Largos en facellas y cortos en contallas" erdaldun esaerak dionez.

Gai oneri buruz, gaia ugaria da: itxasoak euskaldun ausartez beteta daude eta euren billa luzatu ezin. Au ez da euskaldun ekintzeen istoria zeea, edestigioia, baizik. Eta une onetan emango diogu gai oneri amaiera.

Arrinda'tar Anes

GOIZALDIA

Gau ametsak ba doaz
lo larrien artean
eskutu-zulora:
argi izpia dator
itxaso barrenetik
mendi tontorrera.

Eguzkia asten da
goi aldean zabaltzen
urrezko dizdiraz;
ta aidean egaz doa
lurrak poztueraziz
goizeko argiaz.

Paulin

EUSKALERRIA EDESTI GIOIA (VIII)

NAPARRO ETA FRANTZIA'KO ERREINOA

SANTXO VII INDARTSUA (ETA CHAMPAGNE'KO ETXEA)

Santxo, onderengo gabe il zan eta Naparro-errei-narako bere illoba Teobaldo, frantziar Champagne-etxekoa, aukeratu zuten (1234-1253) eta aren ondoren Teobaldo II (1253-1279), Enrike I (1270-1274), Juana I (1274-1305). Juana seme-alabarik gabe il zanean, Naparroa' ko Korteak, ordezkokoak bialdu zituzten Frantzia'ra beste errege baten billa.

FRANTZIA'KO ETXEA

Luis I aukeratu zuten Frantzia-etxekoa (1305-1316); eta ondoren Felipe II (1316-1332). Onen garaian Carlos 1 eta Juana II (1328-1349) Iruña'ko katedralean koroiatu zituzten Naparroa'ko Errege Erregiña, baña aurra izatean il zan, ondoren auen seme Carlos II, Evreux-etxekoa aukeratu zuten (1349-1387) eta Juana de Valois, Frantzia-erregearen arrebarekin ezkontzen da. Eta Frantzia'ko erregiña izan nai du. Ingalaterra'ren laguntzarekin gerra egiten dio Frantzia'ri eta ingelesak Naparroa'n agertzen dira. Ori naikoa ez dala, naparrak Albania artzen dute beuren mende eta Grezia, kruzaden aitzakiakin. Erregiña iltzen da eta bereala Erregea. Aien ondoren Carlos 111, Noblia, (1387-1425) Naparroa'ko Errege eta Evreux'ko Kondea (gero Nemours'ko kondea izango dana, aldaketa batengatik). Paris'era doa Leonor erregiña Naparroa'n utzita... Alaba Blanca Don Juan Aragoi'koarekin ezkontzen da, eta Carlos aurra jaiotzen da, Carlos III'garrenaren billoba eta orrela ematen dio bere asiera.

ARAGOI'KO ETXEARI

Carlos, Viana'ko Printzea, aukeratzen dute Naparroa'ko Korteak erregerako eta orduan, Blanca bere amak egiten du Erregiña'ren lana. (1425-1441) Blanca iltzean, orduan, izango da errege bere Juan II Aragoi'koa (1441-1479), naiz eta erregiñak

aulkia bere seme Carlos Viana'ko Printzeari laga. Au zan benetako erregea eta bere aitari soka luzeegia laga zion eta aizkenik, burruka sortu zan bien artean. Carlos printzeak Naparroa laga eta kanpora joan zan bere ordezkoko D. Juan de Beaumont Kanzillerra utzita.

Juan II'garrenak, Estella'n, Agramonte'en Korteak biltzen ditu eta berdin egiten du Beaumont jaunak, Iruña'n. Estella'koak D. Juan aukeratzen dute errege eta Iruña'koak Viana'ko Printzea Carlos IV izenarekin. Paris'tik Sicilia'ra baztertuta zegoen Carlos... Mallorca'raiño etorri zan eta aitaren erregeuz Barzelona'ra iritxi zan eta aitak Kartzelan sartu. Barzelona'n il zan eta susmoak badira aitak pozoitu zuala semea.

Bere ordezkoko Erreinoan izendatu zuan Don Juan'ek bere alaba txikiena Leonor de Foix, Viana'ko Printzearen ordezkoko. Leonor ezkontuta zegoen Gastón de Foix'erekin eta biok artu zuten Viana'ko Printze-izena. Carlos'ena zana, onen Blanca, beste arreba, Orthez'en preso zegoela, il zanean 1464' an.

Leonor gelditu zan erregiñarenak egiten Carlos Viana'koaren lekuan, Don Juan bere aitaren aginduz. Aren seme Gaston de Foix, Gaston'en semea, Magdalena de Valois'erekin seme nagusia izan zuen Francisco izena zuena; eta El Febo (Eguzkia) gaitzizena, bere edertasunagaitik. Bi Gaston du Foix dabilta emen tartean: bat aita eta bestea semea.

Gaston du Foix, semea, Bearne'an baztertuta eta noiz errege izango zai aspertuta, Naparroa'n sartzen da gudari frantzesekin eta Naparroa'ko zati aundi bat bereganatzen du. D. Juan, Erregea, bere alaba eta Gaston'en ama, Leonor'ekin alkartzan da Olite'n, Leonor'ek eramaten bait zuen Erregearen ordezkotasuna Naparroa'n.

Lerin'go kondeak (Beaumont) ez du onartzen aita-alabak Olite'n egiñiko ituna. Leonor'ek, Gaston'en amak, Iruña artu nai du... Anai arteko gerra (Beaumont-Agramont) sortuta dago, Leonor eta Lerin'go kondearen anean...

Gaston du Foix, Leonor'en senarra eta beste Gaston du Foix'en aita, il da eta emaztea Leonor uzten du bi seme-alabarekin, Francisco du Foix, El Febro,

EDESTIA

eta Catalina du Foix, Don Juan, Leonor'en aita ere iltzen da; baita Gastón gaztea ere, Leonor'en semea eta Magdalena de Valois'en senarra, 26 urterekin (1469-11-22) eta ama Leonor'ek artzen du Naparroa'ko Erreinoaren aulkia.

FOIX'EKO ETXEA

Leonor du Foix, Gaston'en emaztea eta beste Gaston'en ama izango da Naparroa'ko Erregiña 1479 urterarte. Bere ondoren aren iloba Francisco du Foix, El Febo, errege (1479-1483). Foix'tarrak (Pedro Elizaren kardenal eta bere anaiak) alegintzen dira Naparroa'ko anai-burruka baretzen, baña alperrik. Ori ikusita Erregeak, bere Korteak, Pau'ra (Bearne) eramaten du eta amasei urtekin il zan Pau'en. Anaiaren ordez, arreba erregiña, Catalina du Foix (1483-1517). Anai-arteke gerra aurrera doa...

Catalina du Foix, erregiña, Juan de Albret'ekin ezkontzen da. Naparroa'ko errege berria Sevilla'ra dioa Fernando "Catolico" a ikustera. Fernando eta Isabel, bere lengusiña, ezkontzen dira alkarrekin eta bat egiten dituzte Kastilla (Isabel) eta Aragoi (Fernando)... Jarraitzen du anai arteke burruka Naparroa'n eta Erregeak Lerin'go Kondearen lurraldeak arrapatzen ditu. Eta orrekin pakea sortzen da Naparroa'n. Ez luzaroko.

Kastilla'k Frantzia'ri gerra dala bien artean jakin-erazten dio eta aitzaki orrekin, Naparro'tik bidea eskatzen du Frantzia'ra. Ingalaterra'ko ontziak, Naparroa'ren alde, Pasai'ra etorrita daude. Kastilla'k Naparroa'ri bide zabala eskatu bakarrik ez, artu egiten du bidea Naparroa'n zear: Uztaillaren 21, urtea 1512. Naparroa Kastilla'ren mende Lerin'go Kondearen laguntzaz.

Aurretik gauzak onela zeuden:

Leon eta Kastillan, Isabel I / Aragoi'en, Fernando II.

Naparroa'n, Catalina du Foix eta Juan de Albret.

Fernando II eta Isabel I, alkarren lengusu-lengusiña ziran; alaz ere, alkarrekin ezkondu ziran eta orretarako Aita Santuaren baimena bear zuten. Erroma'ko agiri ori, Fernando eta bere aitak asmatutakoa dala, esaten dute zenbaitzuk.

Lerin'go Kondeak, Luis de Beaumont jaunak, eskeiñi zion bere laguntza Fernando'ri. Onek zuen Beaumont'ek Frantzia'ren aldekoa izango zala, eta zearo puztu zan orrelako eskeintzak: aren uri esituak lagun izango zuelako.

1492'an bukatu zuten moroen kontrako burruka, Granada artzean eta andik 20 urtera sartzen dira indarrez Naparroa'n Duke de Alba aintzindari zala. Juan de Albret eta Catalina du Foix. Kastilla'ko ikurriña Iruña'ko arresietatik zintzilik dago. Banan banan erri guztiak erortzen dira Kastilla'ren menpean. Eta bere eskuetan agertzen da "Pastoralis Ille Coelestis" Aita Santuaren Bula agiria; Istoriagillerik ez da falta esango duenik, Fernando berak asmatutako Bula dala.

Fernando'k Iruña'ko Korteak beartzen ditu, bera Naparroa'ko errege bezela artzen. Bederatzi urte beranduago, Pirenee-bidetik gudaroste bat sartzen da Naparroa'n Foix, Bearne eta naparrak osatuta. Erri-rik erri Iruñe'ra datoz eta erriak beso-zabalik artzen ditu. Bertan gelditu bearrean, frantzesek aurrera jo nai dute Kastilla'ra, Los Comuneros'en iraultza bat lertu dalako.

Comuneros'en arazoa nundik sortu zan:

Isabel I il zanean, Fernando'k erregetza bere alaba Juana, La Loca, Austria Etxeko Felipe I, El Hermoso'rekin ezkondu zegoenari emon eutson. Andik urte gutxitara, 1506'ean, il zan Felipe eta Fernando berriro erregetzara biurtu zan. Felipe eta Juana'ren semea zan Carlos I eta au eseriko da errege-aulkian (1517-1556); eta bi urte geroago ilko da Yuste'ko Monastegian (1558).

Umetatik Flandes'en bizia, andik ekarri zitun bere lagunak, erderaz ez zekitenak, kargu guztientzako eta Korteak osatzeko... Arrazoi aukeratu eta beste batzuek sortu-arazi zuten Los Comuneros'en iraultza Kastilla, Leon eta beste alde batzuetan. Gertaera aukeratu eta Naparro'ko askatasunaren gudarostea, batera datoz. Eta frantzes buruzagiak, Iruña eta beste artutako errietan sendo sustartu gabe, naiago du aurrera jotzea Kastilla'ra Los Comuneros'en iraultzari esku bat ematera. Logroño artu nai dute aurrera baño lenen; baña uste baño indar aundiago aurkitu zuten aurka. Iraultzaille Komuneroak menperatuak izan ziran eta Padilla, Bravo eta Maldonado buruzagiak eriotzara emanak... Eta, ondoren, frantzes-naparrak zapalduak Noain'en; gudoreste askatzaille onen buruzagia Andrés du Foix, Señor de Caparrós, izan zan; gaztea, ausarta baña esperientzirik gabea.

Ies egin zuten Frantzia'ra, baña Amayur'en 200 gizaseme napar Agramonte'koak utzi zituzten Kastilla'ren erasoai aurpegi emateko; danak il arte eutsi zioten erriari; eta Kastilla'k oiñarrietaraiño txikitu zuen Amayur eta arrezkero da napar askatasunaren ikurriña.

Karlos I, Enperadorea, Iruña'n sartu zan 1523'ren Urrillan.

BENABARRA ETA FRANTZIA'KO ERREINOA

NAPARROA'REN MENDI-OSTEKO SEIGARRREN MERINDADEA

Benabarra zan Naparroa'ren Seigarren Merinda-dea eta ara bildu ziran Catalina du Foix eta bere senarra Juan de Albret, Naparroa'ko errege-erregi-ñak. Duke de Alba, Kastillako erasoaren buruzagia, alegin batzuek egin ondoren Benabarra menperatzeko, gauza eskasa eta gaitza zala ikustean, bertan beera utzi zuan ekintza ori.

Juan Albret il zanean, bere seme Enrike de Albret II eseri zan Benaparroa'ko errege-aulkian (1517-1555), eta Naparroa osoko Errege izendatzen da. Lege-biltzarra antolatzen du, Diru-etxea Saint-Palais'en ereikitzen du eta Margarita de Angulema'rekin ezkontzen da. Bere ondorengo izango da Juana III de Albret (1555-1572), Antonio de Borbon'ekin ezkondua. Felipe II'garrenaren aurkako gorrotoak eramane zuan bere burua protestante-hugonote aitortzera. Aita Lizarraga'ri agindu zion Biblia euskerara biurtzeko. Eliza katoliko eta bere elizkizunak apurtzen ditu. Beeko Naparroaren erregiñak Felipe II'garrenari Goiko Naparroa eskatzen dio ausardiz eta ez du ezertxo ere lortzen. Orduan aldarrikatzen du Protestante biurtu dala. Eta bera izango da aurrerantzean, Frantzia'ko Protestanteen eutsigarrik sendoena.

Bere senarra il zanetik aun-era, ez zuen beste lanik izan katolikoak zapaltzea baiño eta euskaldunetan anaiarteko guda eta ermitak birrinduta, errietan apai-zen ordez Protestante hugonote ministroak ezartzen ditu... Baña, alaz ere, Benabarra katoliko izaten jarraitu zuen. Eta Erregiña'ren gorrotoa eriotzak itzaldu zuen 1572'an.

BORBON'AK ERREGE

Juana III erregiñaren ondoren bere semea dator, Enrike Borbon eta Albret (1572-1610): Naparroa'ko Enrike III eta Frantzia'ko Enrike IV.

Erligio katolikoa berrizatzen du eta Margarita de Valois egiten du bere emazte. Valois'tarren aizken frutua. Enrike III de Valois Frantzia'ko erregea erailtzen du Pralle Dominikar batek eta aren ordez dator, Enrike III, Naparroa'ko erregea, Margarita de Valois'en senarra, Enrike IV tituloakin. Orregaitik da Naparroa'ko Enrike III eta Frantzia'ko Enrike IV.

Errege napar onekin (Enrike Borbon eta Albret) sartzen dira Frantzia'ko erregetzan Borbon'darrak; gobernuan 1830' arte iraun zuten denbora guzian, Frantzia'ko Iraultza eta Napoleon'en Inperio ez ezik.

Frantzia'ko errege-aulkira igo zan 1584'an.

Pau'en jaio eta Protestante ezi zuan bere amak. 1593'garren urtean katoliko biurtu zan, eta ondoren, 1594, egin zuen bere san-era garaitsua Paris'en. (Berak esan ornen zuan au: `Paris'ek ondo merezi du meza bat').

Errege naparra Frantzia'ko Errege izatean, orduan, Naparroa'ko Erreinoa (Benabarra) bat egiten du Frantzia'koarekin Naparroa'ko Enrike III eta Frantzia'ko Enrike IV Erregearen persona bakarrean. Errege bakar onek, bere amak bezela, Felipe II bigarrenari Goinaparroa'ren erreinoa ertsiki eskatzen dio.

Pireneetako erreino txiki au da Enrike III-IV'rentzat gauzarik aundiena, Iruña'ko erreino txiki oneri itsatsita daude Foix, Armagnan, Comminges, Bigorre eta Maule'ko kondadoak; Limoges, Marsan, Nebouzan, Lautrac, Geraudan'go bizkondadoak eta azkenik Albret eta Bearne'ko estaduak.

Apirillaren 13'an, 1590, ez du nai iñolaz ere Naparroa'ko erreinua Frantzia'rekin bat egiterik... Baña Paris'eko Parlamentuak erabaki au artzen du: Erregearen lur-aldeak eta Frantzia'renak bat egin bear dute, erregea ez bait da persona partikular bat, laterriaren Errege baizik.

Alaz ere, berak Naparroa'ko Lege-biltzarra eta beste arazo bereziak gordetzen ditu eta agindu bat ematen du Uztailean, 1607, (bere 1590'ko asmoak agertuz) esanaz Naparroa erreinu berezia dala eta Frantzia'tik alde, nere buruan bakarrik uztartzen dana Frantzia'rekin!

Margarita de Valois ukatu eta Maria de Medicis'erekin ezkontzen da eta onek semea ematen dio ondorengo. 1610 urtean erailtzen dute eta bere emazte Maria de Medicis'en semea izango da ondorengo errege-aulkirako.

EDESTIA

LUIS II NAPARRO'RAKO ETA XII FRANTZI'RAKO (1610-1643)

Bi erregetzak bereizita artzen ditu; baña, 1620'ean, Urrian, bere gudariekin sartzen da Bearne'n, eta il orren 20'an indarrez Naparroa'ko Erreinoa eta Bearne, Donezan eta Andorra, bat egiten ditu danen Lege-biltzarra Pau errian ipiñiaz: ("Naparroa'ko Fuero eta beste libertade guztiak kendu barik; oiek nik gordeko ditudaz betirako").

Benabarra'k protesta bizia egiten du eta lau urtez agindua atzeratzea iristen du, Cardenal Richelieu agintari egite duten arte 1624'an. Benabarre eta Bearne'ko Agintaritzak bateratzen ditu, Pau errian izango dan `Naparroa'ko Parlamento' batean. Atan be euren Lege-biltzarra, Kortese'n ordezkoa, gordezten dute. Beti bezela Naparroa'n erregeak Fueroa onartu bear dute eta Fueroaren neurrian bere agintaritzak makurtu.

"Orregaitik, emendik aurrera ere bai, naiz-eta bi koroiak bat egin, beti aitortu bearko dute Benabarra, ez da Frantzia'ren erantsi bat, baizik eta Erreino berezia; orregaitik beuren izena izango da Frantzia eta Naparroa'ko Erregeak".

Luis, Naparroa'ko II eta Frantzia'ko XIII bederatzirekin egin zuten errege eta bere ama Maria de Medicis'en ardurapean egon zan... Bi koroiak bat egin zutenean, 1624, Kardenal Richelieu, Armando Juan du Plessis'en eskuetan utzi zuan erregetza. 1642'an iltzen da Kardenala, eta ondorengo 1643'an Erregea. Onen lekua artuko du bost urteko aurrak:

LUIS III NAPARROA'KO, ETA **XIV** **FRANTZIA'KO** (1643-1715)

Maria de Medicis, Erregearen aman gogoratu zioten naparrek Errege gazteak Benabarra'ra etorri bear zuela Fuero eta askatasun guziak berriztatzea ziñ egiñez. Alaxen etorri zan, 17 urte geroago, 22 urte zituela Donibane Loitzunera eta an ezkondu zan España'ko Erregearen alaba eta Carlos II'en arreba, Maria Teresa'rekin. Enrike eta Maria Teresa bikote onen biloba izango da Felipe V, España'ko Erregea. Izendatze au dala medio sortu zan guda "Guerra de Sucesión" deritzana. Guda amaitu zan Utrech'eko Itunaren bidez. Itun orrek itxi zizkien Ego-Euskalerrri'ko arrantzaleei Kanada eta Terranova'rako bideak.

Erregeari gogoratu zioten berriro etorri bear zuela Benaparroa'ra Fuero eta Askatasunak ziñatzera; Doniane Doitzun'era eldu eta an ziñatu zitun; baña, Benaparroa'ra ez zan agertu. Alaz ere, Benaparroa'ko erreinoa beste Frantzia'ko probintzietatik bereizten du. Bere ondoren etorri zan erregetzarako:

LUIS, NAPARROA'KO **IV** ETA FRANTZIA'KO **XV'GARRENA (1715-1774)**

Ume txikia zan eta aurreko Erregearen biloba eta bere adiñera etorri arte (1715-1723) ordezkoen eskuetan egon zan Erreinoa eta bear ez diran aundikerietan eraman zuten aurrera. Ori eta guda nekegarriak bitartean direla, porrot egin zuen Erri-diruak. Oker oiek zuzendu naiean, erriari izugarritzko zergak eta petxak ipiñi zioten bizkarrean. Bera, berriz, jostallu bat gertatu zan Pompadour Markesaren eskuetan. Eta, au ilda gero, okerrago oraindik Du Barry'ren Kondesarekin.

Naparrek eskatu zioten Fueroa ziñatzera etortzeko; baña, ez dakigu juan zan ala ez... Bere eriotzean, ondorengoai utzi zion egoera eutsi-eziña eta Erregeak eta Aundikiak gorroto zituen erri arlote bat.

LUIS **V** NAPARROA'KO ETA **XVI ERAN-** **TZIA'KO (1774-1792)**

Okerretik okerra, malkorretik malkorrera, zijoan Laterriaren gurdia. Ibillera ori zuzendu naiean, Rechelieu'ren garaitik, (1624) itxita zegoen Legebiltzarra irikitzen du. Iru Malla daude beregan: 1) Apaiztegia, 2) Nobliak, aundikiak eta 3) Erria... 200 ordezkoko aukeratu zituzten eta Versailles'en bildu ziran Maiatzaren 5'ean, urtea 1789.

Billera ori izan zan Frantzia'ko Iraultza Nagusiaren azia. Lege-biltzarrek zoramen bero gartsua sortu zuan errian, Naparroa'n ez ezik, oituak bait zeuden Lege-biltzarra izaten eta askatasunean bizitzen. Orregaitik naparrek, asiera asieratik, uko egin zioten Lege-biltzar orreri eta ez zuten euren ordezkorik bertara bialtzerik; Naparroa'ko Erreinoa Frantzia'ko Erreinetik bereziki bizi bait zan.

Naparrak zirela eta ez zirela, makiña bat eztabaida izan da gero, Urrillaren 8'an, urte orretan bertan 1789, bost illebeta eta bost egun Lege-biltzarra sortu zuen egunetik, erabaki au artzen dute: emendik aurrera "Frantzia eta Naparroa'ko Erregea" izenaren

ordez, "Frantzes guztien Erregea" esango da eta kito. Naparren protestari kasorik egin gabe, frantzes guztiek onartu zuten erabaki ori.

Urte orren Azaroaren 11'an, Frantzi osoa Departamentuetan erdibitzen dute; guztiak berdiñak. Laburdi, Benaparroa, Zuberoa eta Bearn Departamentu bakar batean bilduko dira: Be-Pirenetako Departamentuan. Eta orrela dirau gaurko egunerarte. Naparrek asarre bizian protestaka ekin arren, urrego urtearen (1790) Martzoaren 4'an biltzen da Be-Pirenetako Lege-biltzarra eta Naparroa'koa ez da geiago bilduko.

Une onetan iltzen dute, orain arte bizirik iraun duen, Naparroa'ko Erreinoa. Kastilla'k lortu ez zuena, Frantzia'k lortu.

Frantzia'ko iraultzaileak ez ziran asetu Naparroa'aren eriotza politikoarekin, eta eraso negargarri odoltsua asten dute euskaldun guztien aurka: errien izenak aldatu, elizak erre, apaizak eta prailleak aurretik eramane eriotzararte eta erri osoak euren etxetik atzerrira bota...

Iraultza igaro zan, Inperioa ere bai, lengo era zaarra berritu zan... Baña, ilda zegoen Naparroa'ko Fueroa, ori ez zan berritu; ori ez zan bizitu... Ilda datza oraindik ere. Betirako ote?

Fernando, Kastilla'ko Erregeak, Cisneros eta Alba'ko Dukea lagun, Naparroa menperatu zuten; baña, Seigarren Merindadea, Benabarra, aske gelditu zan eta an iraun zuan Naparroa'ko Erreinoa Frantzia'ko iraultzaileak il zuten arte. Alba'ko Dukea an izan arren bere gudarostearekin, alde egin zuen artatik defenditzen zailla zalako. Zailtasun orreri esker, lortu zuten askatasuna. Ara bazartu ziran Naparroa'ko Errege Erregiña eta errege-familiekin izan zuten ar-emaneri esker, Frantzia'ko errege izatera eldu ziran. Orregaitik Frantzia'ko Erregeak, Naparroa'koak ere baziran. Baña, Iraultza Frantsezak desegin zuen Naparroa'ko Erreinoa, Frantzia'ko Departamentu baten zati bihurturik.

Urte batzuek geroago Iraultza orrek, Cadiz'eko Constituzioa'ren bidez, España osoaren lurraldeak Probintzi izendatuko dituzte, guztiak berdiñak, lurraldetako Fuero guztiak, Araba, Gipuzkoa, Bizkaia, Naparroa eta besteak, deseginda gero.

GARAI-NAFARROA

Goazen orain Bee-Naparroa'tik Garai-Naparroa'ra. Bat Beekoa ba'da, bestea Garai'koa izango

da. Kastilla'ren Fernando'k, Alba eta Cisneros lagun, arrapatu zuen Garai-Naparroa, Beekorik gabe. Urtea 1512.

Iru urtez beranduagoa Burgos'en Lege-biltzarrak erabakitzen du Naparroa Kastilla'rena dala eta berekin bat egiten dula. Urtea 1515. Alaz ere, Fernando II'ak Naparroa'ko Fuero eta Libertadeak ziñatzen ditu eta Errege ordezkioak izendatzen ditu eta orrela Naparroa'k ez du Erreino izenik galtzen.

Ordurako, 1504'an, Fernando'k bere erreinoa Juana La Loca eta aren senar Felipe El Hermoso'en eskuetan uzten du. Auen seme eta Fernando'ren billoba izango da Carlos I.

Suiñaren eriotzean, Felipe'renean, Fernando II dator berriro errege aulkira. Isabel emazte iltzean, Foix'eko Kondesarekin ezkonduko da. Kastilla'ko Koroiaikin Naparroa bat eginda bigarren urtean, ilko da bera ere.

Bere ondoren, billoba Carlos I, Juana eta Felipe'ren semea, izango da Kastilla'ren Errege eta asiera emango dio Austria'ko Etxeari, austriarra bait zan Felipe bere aita.

CARLOS I (ESPAÑA'KO), V (ALEMANIA'KO) ETA IV (NAPARROA'KO) 1517-1556

1556'ean bere errege-aulkia utziko du eta andiki bi urteetara, 1558, Yuste'ko Monastegira baztertuko du bere burua.

Aurretik, Ekainaren 13'an, urtea 1542, Iruña'ra etorri eta arresiei begiratu bat emanda eta eurak sendotzeko agintzen du. Urte baten ondoren agindu au ematen du zeatz: "Ez dedilla arri-esi inguru guztian iñungo etxerik, ez sororik, ez arbolarik".

Felipe II, Carlos I'ren semeari, eskatzen diote naparrek etortzeko Iruña'ra Fuero eta Libertadeak ziñatzera, bera izango bait da ondorengo erregea. Dagonillaren 20'ean, urtea 1551, etorri zan. Ziurtasunik nai zituzten Naparroa'n Fueros'en inguruan Naparro eta Kastilla'ko koroiaikin Erregearen buruan bat egitean... Baietz, berak zainduko zitula Fuero eta Libertadeak; zaindu eta ondu... Eta berriro etorriko zala errege izandaten zutenean.

Carlos I, 1554'an bere testamentua egitean, barruko kezka agertzen ditu, bere aitaitak egin zue nagaitik Naparroa indarrez artzean eta injustiziarik ba'lego ekintza orretan, emateko askatasuna Naparroa'ko Erreinoari. Flandes'etik etorritako lagun-tzaileak erreino txiki orreri askatasuna emateari

EDESTIA

baiezkoa esan zuten; baña, kastillarrek ezetz iñundik ere.

FELIPE II (ESPAÑIA'KO) IV (NAPARROA'KO) 1556-1598

Iruña'ra etorri eta Ciudadelari begiratu bat eman eta urrengo egunean Katedralean Fueroak eta Libertadeak ziñeztu. Aitzaki orrekin Naparroa'ko dantzari-talde guztiak dantzan egin zuten. Aien ondoren zezen-korrida bat prestatuta zeukaten 27 zezenekin; baña, Erregeak naiago zituen zaldun-torneoak eta 48 lagunek egin zuten bata bestearen aurkako burrukak.

Ingalaterra artzea zeukan buruan, Isabel I'earenganako gogo txarrez eta 130 gerra-ontzi aukeratu zitun ekintza orretarako. Aietatik asko bale-ontziak; baña, ekaitzak artu eta 60 ontzi ondoratu zitun; ontziak eta gizonak. Ori dala ta bale-arrantzak atzeraka aundia egin zuen ontziekin batera gizonak ere galdu ziralako.

Carlos I bere aitak izan zituen barruko kezkak Naparroa'ri buruz, bere barruan sortu ziran zartzaroen eta buruauste ori garbitzeko lanak bere seme Felipe II'ari utzi zizkion.

FELIPE III (ESPAÑIA'KO) ETA V (NAPARROA'KO) 1598-1621

Errege onek bere aitaren kezkak onela erabaki zitun: "Erregeen paperak erre bitez, ala sekula agertuko ez diran toki batean gorde... persona jakintsu eta zuzenen bidez arazo au ondo begiratuta gero, ikusten da ez dala kezkentzako arrazoirik izan ez orain eta ez lenago". Era orretara gelditu zan Naparroa betirako Kastilla'ri batuta.

Naparroa'ko Korteek Erregearen juramentua artu zuten Abenduaren 11' an, urtea 1611. Seme oneri buruz esan zuan bere aita Felipe II'gamenak onelako au: "Ainbeste erreino eman didan Jainkoa'k eurak gobernatzeko aña izango dan semea ukatu dit. Bes-teen jostaillu izango dan bildur naiz". Eta alaxen gertatu zan. 1621'en Martzoaren 21'ean il zan.

FELIPE IV (ESPAÑIA'KO) ETA VI (NAPARROA'KO) 1621-1665

Errege au izan zan bere aitaren ondorengo.

Onen seme eta ondorengo, Carlos II, 1632'ean Fueroak juratu zitun eta berriro egingo zuan, bere aita lagun zuela, Maiatzaren 25'ean urtea 1646. "Ogeita amar urteko" gerra, bere aurrekoari jarraitu zion Austria'koen alde, bere senitartekoak ziralako eta erligioagaitik ere bai. Frantzia'kin burrukan, Richelieu Ondarrabi artzeko asmotan etorri zan; baña, naparrek lagunduta, giputzak frantzesak garaitu zituzten.

Zerga geiegizkoak zirala-ta Naparroa eta Kataluña jeiki ziran bere aurka... Flandes'eko gerra galdu eta Flandes'eri askatasuna eman bearrean gertatu zan eta Inperioa urtetzen asita zegoela ikusi zuen, il aurretik.

CARLOS II (ESPAÑIA'KO) ETA V (NAPARROA'KO) 1655-1700

Lau urterekin egin zuten errege eta ama Mariana de Austria'ren babespean egon zan. Ama zuen Felipe bere aitaren illoba eta emaztea. Oso gaixo eta murrizta; ez zekien bere izena idazten bederatzituzte... Austria'ko Etxearen akatzak dira auk: ezkontzak egiten zituzten senitartekoen artean... Apirillaren 10'an, 1677, egin zuen Fuero eta Libertadeen juramentua Naparroa'an.

Segi zuen aurrera bere koñatu, Luis XIV (Frantzia'ko) eta III (Be-Naparroa'ko), aurkako gerra. Galdu ere bai. Ekin dio berriro Holanda, Suecia eta Alemania'ren laguntzarekin... Baña, alperrik. Beti galtzen... 39 urte zituen il zanean 1700'garren Azaroaren 1'ean. Semerik ezean, ondorengo, Felipe de Anjou, Luis XIV eta Carlos'en ameba Maria Teresa'ren billoba... Arazo onek, ordea, ondoren ekarriko ditu.

ARRINDA'TAR ANES

EUSKALERRIA: EDESTI-GIOIA (V)

Aizgorri'ko San Adrian kalzada

Aipatu ditugun San Julian de Aistra eta San Juan de Araya (eta aitatu ez degun oien antzekoa), San Martin de Hermua) bide erromatar famatu baten inguruan daude: 34 deritzan bide nagusitik gertu; baña, alde batera. Eurak ematen zioten asiera beste bide zaar bateri, bide euskaldun bateri: San Adrian'go kalzadari.

Araba aldetik Aizgorri'ra igo eta San Adrian'go leize-zulotik aurrera, Gipuzkoa'ra aldatu, milla metroko alturan, eta andik jetxi, Oria ibaiaren aldamen bat artu eta Hernani'tik Oiartzun'era; an bidea bikoiztu, beso bat Ondarribi'ra eta bestea Irun' era, Frantzia' n sartzeko. Orixe zan biderik zuzenena Errioxa eta Kastilla'tik Frantzia'ra igarotzeko. Ez zegoen Alsasua'raiño joan bearrik Gipuzkoa'ra jeisteko.

San Adrian'go tunel orretan, Gipuzkoa aldetik, beti izan da ermita bat eta ostatu bat naiz eta milla metroko alturan egon. Ori zan Kastilla' tik Frantzia' rako bidea. Ba dirudi, aurkitu diran ermitatxo bisgotiko oiek adierazten digutela, leizeetako erremutar kristauek bide ori artu zutela Gipuzkoa'ra sartzeko.

Gerora ere Santiago bidean zebiltzan erromesek ere bide ori artzen zuten, Frantzia'tik Kastilla'ra joateko. Eta San Adrian'go ermite orretan bataiatu zuten euren

aurra Lazkano'ko Jaunek, eta ara etorri ziran aitabitxi eta amabitxi izateko Felipe Ederra eta Juana Eroa, Kastilla'ko Erregeek. Bide erdira, San Adrian'dik Gipuzkoa'ko ballarara milla metro jetxiera dago eta lazkaularak joan ziran gora, Kastilla'ko Erregeei jetxiera errezteko.

Beste xeetasunak ere badaude: milla metroko jetxiera orren bailaran, egiten ziran zalgurdien errepassoak; frenoak eta beste okerrak zuzendu. Gorarako ere berdi egiten zan: lan gogorra zan igoera, gurdiak ondo prestatuta joan bear zuten bidean. Orregaitik edo, gizaldieta-ko lanen ondorenak guarko egunez ikusten dira: ortxen daude Beasain' en F.A.C. (Fabrica Auxiliar de Ferrocarriles), Bilbao'ko Metrorako trenak egiten duna, eta Irizar lantegia Ormaiztegi'n, curen autobusak mundu osoan zabaltzen dute Euskalerria'ren berriak. Txiripaz? Emen ere esan genezake gauza guztiak dutela curen zergatia.

Alsasua'ko bidea

Bi asierako bideak ziran San Adrian'go kalzada eta Alsasua'ko bidea. Biak, artalde bideak, San Adrian'goak Aizgorri mendarte erdi-erditik igotzen du

IPUIN-SARIKETA (BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN)

BILBAO
UDALA
AYUN
LAGUNTZAILLE

EUSKARAZALEAK ALKARTEA'k, urte guztietan lez aurten be, ipuin sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

Ipuinak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearko dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINZA'k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.

Ipuinak asmatuikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.

Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabena ZER'en argitaratuko dira.

Saririk irabazten ez dabena be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean. Azillaren azkenerako EUSKARAZALEAK ALKARTEA'ren etxean (Bilbao'ko Colon de Larreategi, 14, 2.^a eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta Zer'en agertuko da, Urterrilean, baita DEIA Egunkarian be al bait lasterren.

Sariak lau izango dira:

- 1.^a 40.000 pezeta.
- 2.^a 30.000 pezeta.
- 3.^a 20.000 pezeta.
- 4.^a 10.000 pezeta.

Ipuinak izen ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.

EUSKARAZALEAK

EDESTIA

Kastilla'tik datorren bidetik zuzenean. Besteak, berriz, Aizgorri'tik ez du igotzen; ekialdera jotzen du jetxiera bat billatzeko Aizgorri eta Aralar mendarteak alkartzen diran gunean.

Auek biak dira bide zaarrak; oraindik orain iriki da beste bide berri bat Salinas'tik beera, Aizgorri'tik sartaldera. Deba ibaiatik beera doa. Deba'ibaiaren sakanetik Zumarraga'ra igotzen da eta emendik Oriá ibaia artzen du. Baña, bide au XVIII'garren gizaldikoa da.

Oriá'ko sakanera jeisten dira bai Alsasu'ko eta bai San Adrian'go bideak ere eta Ondarribia'ko edo bestela Behobia'ko ibaietatik pasatzen ziran Frantzia'ra gure artzai zaarrak. Bi jetxiera auetan, Alsasu'koan Idiazabal'en eta San Adrian'goan Ormaiztegi'n aurkitu zitun D. Manuel Lekuona'k bataiatzeko pila-arriak, erromaniko baña zaarragoak. Badirudi, bide oiek izan zirala kristautasunaren bideak. Ortik aurrera jotzen ba'degu Altzo'ra elduko gera, Altzo Azpiko'ra; aurrerago, berriz, Irun'go Santa Elena ermitatxoa eta El Juncal'eko eleiza.

Aztarna kristau onek San Adrian'go kalzadatik datoz eta andik, iru ermitatxoen bidez, Kantabria'rako bidea artzen dute, ainbeste aremutar kristau bizi izandako tokiak. Leku artatik datoztela dirudite aztarnak; an dau de Bilibio'ko malkarrak, San Felices'en egoitzak, eta au izan zan San Millan de la Cogolla'ko eremutarraren mai-xu, Disterzio-mendietan bizi zana, VI'garen eunkiaren aldera. Auen aztarnak San Adrian'go kalzadatik sartzen dira Gipuzkoa'ren biotzera.

Baña ez da au kristauaren bide bakarra; Alsasua'tik beera datoz Ekialdeko aztarnak, San Juan de la Peña eta Pirenee-mendietatik Naparroa'ra, San Miel Exzelsis'ko eleiza'tik Gipuzkoa'ren biotzera.

Bide oietatik kanpora, itxasotik etorria, or daukagu Astigarribia'ko eleiza bisigotikoa edo... Altzo-Azpi eta Santa Elena, egoaldetik datoz, San Adriango kalzadatik; Ekialdetik or daukagu San Juan de la Peña eta San Miel; itxasoaldetik, Astigarribia... Alde guztietatik dator kristau-kutsua... Ifar-aldeetik, berriz, Akitania daukagu Gotzaitzegiz beteta... Andik ego-alderuntz Gipuzkoa daukagu kristau-aztarnaz inguraturik...

Erromanikoa Gipuzkoa eta Bizkaia'n

Ainbeste bidetik kristautasuna agertu ba'da gure artean, arritzekoa da erromaniko kristau-aztarna ain gutxi eta txikiak azaltzea. Manuel Lekuona jaunak, dauden apurrak, San Adrian'dik datorren bidean ipintzen ditu; geienak ate-aurreak eta leioak. Onoko erri auek aitatzen

ditu: Hernani, Igeldo, Pasai San Pedro, Urnieta, Berastegi eta Helduayen, Tolosa'ko San Esteban, Amezketa'ko Huarte, Abaltzizta, Albistur'ko San Marina, Itsaso... Oriá ibaiean, San Adrian'go bidean. Orió eta Urola ibaiaren artean Zumarraga'ko Antigua; Urola'tik beera Azkoitia'ko eliza zaarra; eta Deba ibaiaren ballaran Aretxabale'ko illerria, Mondragoi'ko Garagartza, Eskoriatza'ko Bolibar eta Bedoña'ko apaiz-etxea... (Orió, Urola eta Deba ibaiak, irurak dute beuren sortzea Aizgorriko aitzetan).

Oiek Gipuzkoa'n eta Bizkaia'n berdin: gutxi, garrantzi gabeak eta lurralde guztian zabaldua: Arrigoarriaga'ko Abrisketa eleiza, Santurze'ko San Jorje eleiza, Lemoniz, Mungia'ko San Pedro, Fruniz'ko eleiza, Zumatxaga'ko San Miel, Bakio'ko San Pelaio, Arteaga eta Kortezubi'koak, San Bizente Mujika'koa eta ermite Abadiño'ko San Torquato, Zenarruza'ko illobia, Tabira Durango'n, Yurre'ko Santa Luzi, Orozko'n Ibarra'ko ermita eta Galdakano'ko Santa Maria.

Zergaitik ain urri?

Manuel Lekuona jaunak dionez, elizak berri eta aunditzeko joera sortu zalako, txikitxoak zirelako ala besteak baiño gutxiago ez izateagaitik... Txikiak apurtu eta berri-berriak egin, leengo zati zaarrik gorde gabe. Beste arrazoi bat ere ipintzen du eta auxe da; elizak zurezkoak zirelako; zura kendu eta arria erabili berriak sortzeko. Irugarren zergatia ere badakar: gure artean ez zegoelako ez Gotzairik ez Erregerik. Oiek egiten bait zituzten jauregi ederrak eta monastegi zabalak, Naparroa'n gertatzen dana eta apurka Araba'n ere bai.

Astigarribia'ko San Andres eliza

Itxaso-bidetik agertu zan eliza bikoitz au: bata bestearren barruan. Orixe gertatzen da Irun'go Santa Elena'n, San Juan de la Peña'n, Aralar'ko San Miel'en, Cogolla'ko San Millan'en...

Astigarribia ezaguna zan erromatarrentzat, Tritium Tuboricum izenakin. Euren Gipuzkoa'ko mapa batean, Oyarzun (zidarrezko meatzak), Donosti-Pasai, Getari eta Deva ibaiko Tritium Tuboricum. Zer billatzen zuten lau izen oietan? Oiartzun'en zidarra, Donosti-Pasai eta Getaria'n itxas-ontzientzako babes ederrak; baña, Deva ibaiko Tritium Tuboricum orretan, zer? Astigarribia dala diote aots batean edestigilleak. Baña, inguru aretan ez

dago babes onik, ez meatzik... Gauza bakarra dago an: edateko ur eder ugaria. Ibaiara bertara dator aitz-artetik iturri eder-eder bat, errekatxo baten antzera. Barkutik bertati artzeko eran. Barkuentzako edateko ura ugari eta artzeko erreza... Eta erromatarrek edateko ura ardura aundiz ipintzen zituzte euren mapetan...

Eliza bikoitza da: bata bestearen barruan eta ibaitik gertu. Badirudi kanpo aldeko eliza, bestea zaintzeko egin zutela; zulo luzanga (saeteras) batzuek ditu ibai-aldera, andik arriskua etorriko balitz bezela. Barruko elizak, aurrean leioa du zaldiperraren antzeko. Don Manuel Lekuona k bisigotikoa zala esan zigun. Baña, ondoren an ibillitako jaunak, mozarabe garaira atzeratu zuen, bisigotiko izateko inguruan bisigotikoen garaiko agerpenak falta zirelako. Baña, Astigarribia (Tritium Tuboricum) erromatarren garaikoa da, bisigotikoa jaio baño eunkada asko zaarragoa. Nola esan liteke, bisigotiko kontestorik ez dagoela Astigarribia 'n?

Dana dala eta dena den, San Andres'en Astigarribia'ko elizak, bere zaldi-perra leioagatik, bere bikoitzta-sunagaitik, San Andres izena berberagaitik... deika daukagu esanez: bera izan dala kristautasunaren lenengoeta-ko agerpena Gipuzkoa'n eta itxasotik etorria.

Erromanikoa Naparro eta Araba'n.

Errege eta Gotzaien eragiña

Lenego erregetik asiko gera: Iñigo Arista (Ximeno'ren semea). Onen garaian (Claveria, Historia de Navarra) "Opilano, Gotzai jaunak zuzentzen zuan Iruña'ko Gotzaitzia. Orren denboran San Euljio martiriak, Aritza zan errege, ikustaldi bat egin zien gure mendietan bizi ziran monastegia geienai eta 851'garren urtean Welesindo Gotzaiari egiñiko eskutitz batean zer arrera ona egin zion Gotzaiak, zer onaldi eta espirituko atsedenean bizi ziran eremutarren taldeak, eta zer pake eta lasaitasunean bizi ziran Panplona'ko baskoiak, printze kristauaren ardurapean".

Eremutarren talde ugariak Pirene-mendietan eta Arizta'ren erreinoan eta beste orren beste Kantabria eta Errioxa'ko aldeetan, San Millan tartean dala...

Irugarren Erregea: Fortuño Garzes I. Bera sartu zan Leire'ko monastegian, mesede aundiak egiñez (882-905) Leire 'ri.

Laugarren Erregea: Santxo Garzes I (905-920). Albelda'ko monastegia jasotzen du.

Zortzigarren Erregea: Santxo Garzes III, Aundiena (999-1035).

Kristau-giroa eraberritzeko Oka'ko emakume-monastegira eta San de la Peñako'ra monje berriak ekarri zitun San Benito'ren ordenakoak. San Vitorian'neko monastegia berritzen du eta beste batzuek jasotzen ditu. Leire'koai emaitza aundiak egin zizkion. Laorre'ko (Aragoi) militar-erligioso naasteko monastegia eta Ujue'ko eliza eraikitzen ditu. Bere garaian, eta bere laguntzarekin, Leire'ko monastegiako Abata Santxo'k, berritze ederrak egin zitun monastegian; Estella'ko Beremundo Abatak Iratxe eta Irantzu'ko monastegiak egiten ditu, eta Fitero'ko Raimundo Santuak, bertako monastegi ederra... Iruña'n bertan "Pedro de Roda" edo "de Paris" Gotzaiak, katedral erromanikoa jasotzen du; beranduago errezana.

Bederatzigarrena: Gartzia Santxez, Najerakoak, bertako monastegia eta San Millan de la Cogollakoak eraikitzen ditu.

Amargarrena: Santxo Gartxia IV (Peñalen'goa) (1076'an il zutenak).

Leire'ko monastegia berritzen du, Clunia'ko monjeak ekartzen ditu eta mozarabe liturgia kendu, gregoriano' a ipintzeko.

Amalaugarrena: Gartzia Ramirez IV, Berritzaillea, (1134-1150), Oliva 'ko monastegia jaso eta Cister 'eko monjeak ekartzen ditu.

Amaseigarrena: Santo VII, Indartsua, Navas de Tolosa eta Naparroa 'ko kateak ekarri zitunak, Orreaga Kolejiatan dago eortzita, sepultura ederrean...

Orra or erregeek egiñiko zenbait erromaniko eleiz eta monastegi ederrak; baña, oiekin ez degu errenkada amaitu: ba daude baztarretan jauregi ederrak bai Gotzaiak bai Erregeek egiñak.

Araba

Araba arloteagoa da. Armentia'ko Gotzaitzia Kalahorra 'ra indarrez eraman zutenean, andik laguntza batzuek izan ziran, Armentia'ko eleiza eta Estibaliz'ko monastegia egiteko.

BARKUGINTZA

Iruña'ko Erregeak

Amairugarrena: Alfonso Santxez I, Burrukatzaillea (1104-1134).

Gudari napar, aragoitar, Bearne eta Bigorre'ko men-

EDESTIA

dekoekin, Tudela eta Zaragoza (1118) menperatzen ditu. Bederatzi urte ondoren Pirenee-mendartea igota, beste aldera jeisten da bere mendekoen laguntzan, Poitiers eta Akitania'ko Dukeen erasoei aurpegi emateko.

Baiona'ri esia jartzen dio eta "ibaian bertan barkuak egiten saiatzen da eta Gipuzkoa eta Bizkai'ko portueta-tik itxas-ontziak ekartzen ditu, itxas-aldetik laguntzarik artu ez zezan Baiona'k". Goseak eraginda burua makurtu zuen erriak 1131'garren urtean.

Orra Iruña'ko Erregea berbera, barkugintzan XII'garren eunkian.

Amabosgarrena: Santxo VI, Jakintsua (1150-1194).

Esanda daukagu nola sortu zuen Donostia eta berak emandako Fueroak argitzen digu zer gauza sartzen eta irteten zuten portu orretatik: gauza askoren artean bat da pikea, barkuak kanpotik igortzi eta zirrikitu guztiak betetzeko; eta bestea, sokak oialak mastari lotzeko, bearrezkoak auek bela barkuentzako... Baiona eta La Rochelle'kin ar-emanak sendotu zitun; baita Gipuzkoa eta Bizkaia'kin ere.

Emen daukagu Iruña'ko bi Errege, XII'garren mendean, barku eta itxaso-merkataritza aitaten dituztenak.

Zer-edo-zer geiago ere bada tartean: Donostia'k bere erriko ikurran, seilloan, barku bat erakusten digu, erromatarrek erabiltzen zituztenen antzekoa: popako gaztelu berdiña, leman egiteko arraun berdiñak, masta eta oialak berdin, sokak lotzeko sistema berdiña, eta ala ematen du artimoiak (lemari laguntzeko muturreko bela txikiak). Xee-tasun guzti onek agertzen digute, euskaldunen mai-xuak barku-gintzan erromatarrek izan zirala eta ez bikin-goak. Auek barkuak arraunekin erabilten zituzten lapu-neta eriotza gure errian ereintzeko.

Erromatarrek geure kaietan lareun urtez bizi izan ziran euskaldunen artean; Asturiaga'n bat eta Garona ibaiean (Bordel ondoan) beste bat utzi zizkiguten ondoratuta... eta beste asko zatituta gure kaietako ondartzetan. Gañera gizaldi oietan euskaldunek egingo zituzten lan asko, arotz bezela, errementari bezela, mariñel bezela, kalafate (pikea ematen) bezela... Denbora naikoa eduki zuten barkuak aien antzera nola egin ikasteko.

Baiona eta arraiñak

"Juan sin Tierra", Ingalaterra'koak Fuero bat eman zion Baiona'ko udalari, arraiñak saltzeko nai zuen toki guztietan, baña estranjeruekin batu barik. Ingles baten-tzako kanpotarrak Gipuzkoa eta Bizkaikoak izango

ziran. Arraiñ asko arrapatzen zuten eta beste euskaldun-ekin bat eginda.

Ebro ibaiean ontziak

Plinio'k esaten digunez, Vareia'k (Logroño) oso zuen merkataritza aberatsa barkuz Ebro ibaian zear. Moret istoriagilleak (Anales III, 243 orri.) dionenez, 1132'garren urtean, barkuz eraman zituzten Tortosa'raiño zurezko tramankuluak burrukarako Tortosa'ri egindako esian.

Almadiak ere or daude erreketatik aurrera enbor sail-lak eramateko era berezia; batez ere barkuak ezin ibilli diranean. Musulmangaraitik onera erabiltzen direnak.

Barkugintzak beste labide asko sortzen ditu, naiz zurezko, naiz burnizko, naiz liñuzko eta abarrezko. Burnia era askotara bear da ontzi batean: aundia aingurak egiteko, txikia iltzeak egiteko... Burnia lantzen Zeltek erakutsi ziguten; aiek ziran orduan Europa'n nagusi ekintza orretan. Aiengandik ikasi genduen burnia lan-tzen gure artean egondako bosteun urteetan eta geu ere maixu gertatu izan gera gizaldietan zear.

Padura'ko Burruka

Asturias Bizkai'ko Sartaldean kokatu zan, Enkarterria bere mende arturik. Artan Leon'eko Erreinoa sortzen da, Kastilla barruan duela. Kastilla bere askatasunaren billa jeikitzen da eta berdin egiten du Bizkaia'k. Egoera orretan gertatzen da Padura'ko Burruka, Arrigorriaga'n. Bizkaitarrekin Durango aldea, Araba eta Gipuzkoa'k jokatzen dute, Jaun Zuria buru dutela; Leon'gokoek, berriz, Ordoño Printzea. 870'garren urtean austen da betirako burruka onekin leondarren jauntasuna.

Ingalaterra eta Baskoniako Duke-erria

XII'garren eunkian Akitania eta Baskonia'ko Dukea, Ingalaterra'ko Erregearekin ezkontzen da; dote bezela eramaten ditu Akitania, Baskonia Laburdi eta Zube-roa'kin, danak batera. Arrezkero Ingalaterra'ko Erregearen mende gelditzen dira. Naparroa'k, berriz, Benabarra artzen du beretzat. Erregetza onek Santxo Aundia iltzean, Frantzia'ko Champagne'tarren Teobaldo artuko du beretzat errege. Onek asiko du Frantzia'ko etxea Iruña n.

1.200 urtea

Urte onetan Araba, Giupuzkoa eta Bizkaia, Nafarroa utzi eta Kastilla'ren uztarrria artuko dute, errekonkista amaitu arte, Granada'ko erreinoa menperatzean. Santxo Indartsua, Afrika aldetik zebillela, Alfonso VIII'garrenak Gipuzkoa'n sartu eta Bizkaia eta Araba'kin bat egingen du. Orduan uzten dute napar erregea, Kastilla'koa artzeko. Arrezkero euskaldun aundiki asko joango dira moroen aurka burrukatzera Kastilla'rekin bat egin da. Oien artean Lazkano eta Loiola'ko jauntxoak.

EUSKALDUN BARKUAK ETA KASTILLA'KO ERREGIAK**Fernando III'garrenak Sevilla atzeman**

Sevilla menperatu zuten Azaroan 23, urtea 1248. ("Gestas Vascongadas", Javier Ibarra y Bergé. Biblioteca Vascongada de los Amigos del País. San Sebastián, 1951. 39-43 orri.). Egun arretan bi barkuek eraso-aldia jo zuten, Triana auzoa Sevilla'kin bat egiten zuen, txalopa aundiekin egindako eta katez lotutako zubiari. Bi barku oien kapitana batek Zaldibar zuen izen eta lekeitiarra zuen. Bonifaz almiranteak amairu galeoi astunak eta bost galera ariñoagoak zituen bere mende egun aretan. Erregeak agindu au eman zion aurretik: Joateko Euskalerrri'ra lenbai-len galeioak eta galerak prestatzera... aal zitun geienak eta onenak eta gure mendietako zura, eta gure oletako burnia eta gure barkugintza lantegietatik egiñak... Baita mariñelik onenak ere billatzeko.

Moroen ontzien aurka burrukatu zuten zeatz: iru arrapatu, bi ondoratu eta beste bat erre. Egun artan sortu zuen Kastilla'ko Itxas-ontzi Taldea. Legorretik ere ari izan ziran burrukan euskaldunak ("vizcaínos"), Lope de Haro'ren gidaripean.

Itxas-maixu Eskola (Maestranza) eta Ontzi-ola

"Burrukan ari izan ziran euskaldunetik asko Sevilla bertan gelditu ziran bizitzen eta aieri eskerrak sortu zuen Fernando III'garrenak Itxas-maixu Eskola (Maestranza) eta Ontzi-ola (Astillero) Ontzi-taldea'ren eutsigarri...".

Algeziras'eri esi-aldia

Eun urte beranduago or nun ikusten degun Gipuz-

koa'ko Jaun aundi bat bere itxas-ontziekin Aljeziras'eri egindako esi-aldian parte artzen. Eta ori bere gogoz egin zuan iñork beartu gabe. Ala dio Alfonso XI'garrenak Maiatzaren 25'ean, urtea 1345'go idazki batean. Eta andik Estretxo'ra joan ziran, zain, moroen ontziaz, etorri ezkeroz, aurre emateko.

Juana Manuela Bizkai'ko Jaunesa, Enrike de Trastamara, Kastilla'ko Erregearekin ezkondu zuen eta euren seme Juan I, izan zuen batera Kastilla'ko Errege eta Bizkai'ko Jauna. Furoen gañean zin-egitera joan zuen 1371'ean.

Londres'ekin Itzarmena

Merkataritza ausita zegoen ingeles eta euskaldunen arteko itxas-burruka zala medio. Ori zuzentzeko itxarmen bat zifiatu zuten euskaldunen eta ingeles artean Agostuaren 1'an 1351'garren urtean. 20 urterako pakea itxasoz eta legorrez. Eduardo VI'garren izenean lau gizonak zifiatu zuten itzermana; eta euskaldunen artetik iru jaunek.

Ondoren, bi urtez beranduago, Baiona'kin egin zuten beste orrenbeste gipuzkoarrek eta bizkaitarrek. Baiona Ingalaterra'ren mende zegoen une aretan.

1372'an bizkai eta gipuzkoarrek, itxasontzi talde bat jaso zuten euren kaletan, Ingalaterra'ren aurka, Frantzia'ri laguntzeko. Ontzi-taldea La Rochelle'era eldu zanean, legorrera sartu eta bertan zeuden ingelesak menperatu zituzten.

Turko'en kontrako itxas-burrukarako, Don Fernando Erregeak, 1480'garren urtean, euskaldunei eskatu zien laguntza eta auek, iñork beartu gabe eta beuren gogoz, 50 gerrarako barkuak eta Don Fernando'ri eskeiñi zizkioten Bizkai eta Gipuzkoa, bien artean.

Amerika aurkitzea

Juan de la Cosa izan zuen Maria Galanta'ren pillotua, gero Santa Maria izango zana. Beste biak baño aundia goa zuen. Eta ibillaldi orretan euskaldunak izan ziran tar-tean.

(Colón y los Vizcaínos". Ramón López Domech. BBK. Temas Vizcaínos 214. Octubre 1992). Idazle onek dionez, esan liteke, Colon'en mariñeletan bit talde zue-dela: bata Andaluziarrak eta bestea Bizkaitarrak, Pinta eta Niñaren jabeak aukeratu zituzten Andaluzia'koak, eta bizkaitarrak ziran geientxuenak Santa Maria

galeoian, bere nagusia, Juan de la Cosa, bizkaitarra ez ba'zan, Bizkai ingurukoa zalako.

Taldea bi karabela ariñak eta galeoi astunak osatzen zuten. Urria'ren 6'ean urtea 1492, Santa Maria'ko bizkaitarrak, 62 egun itxasoan pasa ondoren, Colon'en aurka jeikitzen dira, ibillaldian egunero 6 edo 9 nudo gutxiago esaten dielako; engañu egiten dielako. Pinzon anaiak, bi karabalen nagusiek, baretzen dituzte bizkaitar mariñelak. Baña, berriro sortzen da asarrea lau egun beranduago, bi bakarrik falta ziranean luna aurkitzeko.

Colón ez zan familiz mariñela eta 19 urte zituen itxasora lendabizi joan zanean. Madeira'ko ugarteetan mariñel zaar batek aoz (euskaldun balezaleren bat ziur) jakin zuen Sartaldean lurak zeudela. Egi ori izkutuan gorde zuan eta ez zien mariñeleri ezer esan; baña, bai Errege Katolikoen laguntza lortzen lagundu lezakeanai.

Bein luna aurkituta, Colon kostarik kosta ibilli zan eta Natibitate Egunean, lurrari eraso zion galeoi zaar arekin. Presa zuen Colon'ek Espaiña'ra itzultzeko eta ez zuen nai galeoi astun aretan etorri, karabela ariñetan, baik.

Galeoiaren zatiekin gordeleku bat egiten dute eta an bertan 39 mariñel utzi zitun; batez ere berarekin burrukan egin zuten bizkaitarrak. Andik urte batera etorri ziranean, guztiak ilda zeuden. Eriotza oiengatik senitartekoek egin zituzten escabideen bitartez, dakigu izen batzuen kopurua:

Chanchu edo Chacu, emakume debatarren semea, baña Leitio'n bizi zan kontramaixua; Domingo, tonele-rua, Ispaster'koa; Domingo lekeitiarra, María Bizkarraren semea; Juan Martin de Azoke, Deba'n bizi zana; Juan Ruiz de la Peña, bizkaitarra (bi azkeneko mariñel auen senitartekoek dirua jaso zuten debar baten eskutik); Lope, kalafatea, Bilbo inguruko bizkaitarra; Martín de Urtubia, txo, bere soldata, Lekeitio'ko Likona prokuradorearen eskutik jaso zuen Na-txitu'ko bere amak... Lau izen geiago daude; baña, an ildako gizonak 39 ziran.

1493 urteko Iraillaren 25'ean irten zuen Colon bigarren aldiz Ameriketarako: 17 barku eta 1500 inguru gizon; aien artean euskaldunak ere bai.

Bigarren biajerako Bermeo'n prestatu zituzten karrika bat, bost galeoi eta karabela bat, Lekeitio'ko Iñigo de Artieta'ren gidaripean. Baña, Amerika'ra bearrean, Afrika'ra joan ziran Boabdil, Granada'ko erregea, eramaten. 1493 urteko Urria'ren 3'an, Colon baño zortzi egun beranduago, Almeria'ko Adra'tik irten zuen Bizkai'ko Talde onek Boabdil eramateko. Karraka merkatariontzian zijoazen 100 mariñel eta 250 gudari; ia guztiak Lekeitio'koak Artieta buruzagia bezela. Bigarren ontzia,

galeoia, Martín Perez de Fagaza, Bilbo'ko kapitanaren mendean, 40 mariñel eta 160 gudari, geienak bilbotarrak (Bilbao-Barakaldo). Irugarrena, galeoia, Juan Perez de Loyola giadari, 40 mariñel eta 80 gudari, geienak Deba'koak. Laugarrena, galeoia, Anton Perez de Leyzala, kapitan, mariñel eta gudariak, guztiak gipuzkoarrak. Bosgarrena, galeoia, Juan Martin de Amezketa, lekeitiarra gidari, 25 mariñel eta 40 gudari, Lekeitio'koak. Seigarrena karabela txiki bizkorra zan, kala guztietan sartzeko modukoa, gorde-lekuak billatzeko era "bear ba'zan lapurretan ere egiteko"...

Colon'ek Artieta'kin ar-emanak zitun, baña Errege Katolikoek eragozpenak ipiñi zituzten tartean. Zer nai zuen Colon'ek? Portugesai indarra erakutsi, berari, Colon'eri Ameriketako bidea libre usteko? Indar erakutsi zien euskaldunek Boabdil erregea Afrika'ra eramateakin... eta naikoa izan zan Tordesilla'ko Itzarmena siñatzeko 1494'ko Ekainean: bertan markatu ziran munduan zear nundik España ibilli eta nundik Portugal.

Bizkai'ko Gerra-ontzi Taldea Mediterraneo'n

("Etnia Vasca", Donato Arrinda-Manuel Estomba. 227-8 orri.). Giovanni Villana, Florenzia'koak idaz-lan batean 1304'ean dionez: Garai auetan Baiona'ko itxasgizonak agertu dira emendik lapurretan ontzi arin batzuetan; kokak deintzen dicte... Arrezkero Genoba eta Katalunia'ko mariñelek koka erabiltzen dute itxasora curen ontzi astunek orde... Mediterraneoako galera, arraunekin, bixkorra zan burrukarako baño oso neketsua merkataritzarako... Ontziaren tankera eta kodasteko lema, euskaldunek erakutsi zizkiguten; baña, eurok ere ikasi zuten zerbait: curen ontzien egurrak bata bestaren gaiñean ipintzen zituzten (tingladillo), ertzeetan banatu bearrean; onela ariñago ibiltzen da ontzia... Bela asko ipintzea ere ikasi zuten, masta askotan banatuak eta orekan... Ifar-orratza, itxasoan ibiltzeko mapak eta ortziari begiratzen ere ikasi zuten... eta ekonomi aldetik, segu-ruak; itxasoak dakarren arriskutik gorde.

Orrela sortu ziran gure barkugintza-oletan karabela, pinaza mota guztiak eta galeoiak... Auek ziran batez ere, gerra ontzietako taldeetan, nagusienak eta ugarienak. Gure itxaso-ertz guztiak, Zierbana'tik Baiona'ra bitartekoak, barku-gintza olez bete ziran ibaietan barruan ere.

ARRINDA'TAR ANES

EUSKALERRIA: II EDESTI GIOIA

Erromatarren Panteioa. Erljio-jarrera Arri-zaar aroko (Paleolitico)

Gizona eiztaria zan eta eizera joan aurretik aztikeriak, majia, egiten zuen leize-zuloetan animalien irudi aurreetan. Irudia menperatu ezkeroz, animalia ere menperatuta zegoen indar berezi baten bidez. Indar ori sortzen zuen aztiak kiñuz eta itzez. Arrak il eta emeak gorde eta ugartu zan eiztariaren asmoa. Trois Freres Pirenetako koban dago orrelako azti bat, animalia itxuran. Orixe izanen litza-ke euskaldunen ikurrik zaarrena.

Arri-berrikoak (Neolitico), berriz, aztikeriz ez zuen lortzen belarra azitzerik. Eguzkia eta euria bear ziran. Orduan, begiak gora jaso eta Eguzkia gurtzen asi zan eta Eguzkiarekin batera, beste Izadiko indar guztiak... Orrela sortu zan lauburua eta antzeko ikurruak, eguzkiaren irudi ziralako.

Erromatarrek

Indar oieri, giza-irudia ematen die, bakoitzari berea. Orrela sortzen dira Jupiter, Mercurio, Marte, Silvano, Diana, Mitra (Ekialdetik etorria) eta beste milla irudi. Pirenee mendietan utzi dizkigute arlosa sail bat euren izenekin.

Euskaldunek

Izan ziran arlosa eta aldara oien egilleak. Erromatarren jainkoak or daude (Jupiter, Marte, Mater Magna, Diana, Silvano, Mitra...) eta oiekin batera, euskaldun jainko txikiak beste sail bat: (Beigorritxo, Aritxo, Aker-Beltza, Astoilluno, Basurde... eta beste zenbait animalien erditze eta narotsaunari buruzkoak).

Laister agertzen da Erroma'tik, baña erromatarra ez dan beste irudi, edo ikur bat: Kristoren Anagrama: X eta R alkarri gurutzaturik, aldamenetan A eta O dituela.

Erromako Panteioa

Erromatarrek, erlijio zaletasun aundiko jendea, Inperio osoaren jainko txiki guztiei eliza bat jaso zioten, Panzeon grekar izenakin. Pan-Zeon, Jainko Guztiak esan nai du. Guztientzako zegoen tokia, baña Kristautasunarentzako ez. Alderantziz: alegiñak egin zituzten irureun urtez, mundutik kentzeko. Constantino enperadorea kristau egin da gero, askatasuna eman zion artean: 313'garren aurtea zan. "Martirien odola, kristauen azia" idazle zaarrak esan zue-nez.

Elizmendi'ko ermita

Araba'ko Arana ballaran ba dago ermitatxo bat: jaso zutenean jainko txikien 8 arlosa erabilli zituzten beste arri askoren artean. Eta Naparroako Lana ballaran dagoen San Sebastián ermita jasotzeko, beste amairu. (Aztarnak: 94-116).

Erroma eta euskal kultura

Erri euskaldunei kanpotarrek ipiñi zizkioten beuren ize-nak. Dirudienez, lenengo izena "Baskunes" izan zan, euro-parrek ipiñia. Gerora erromatarrek geure erria zatitu zuten izen auekin: "Vascones" (Naparroa eta Ebro'ko ballara Pirenee mendietan zear); "Varduli", (Naparro-mugatik "Deva" ibaira); "Caristii", ("Deva"tik "Nerviön" ibaira); "Autrigonii" ("Nerviön" ibaitik Kantabria aldera eta egoalderutz, Burgos, Bureba eta Campoo lurretaraño)... "Aquitani", (Pireetik ifar-aldera Garona ibaiak egiten duen kakobarruan, Bordel'eraño).

Euskaldunen zatiketa Erroma'k egiten du "Tarraconense Provincia" aren muga Pirenee mendietako gallurretan zear ipintzen duanean: orduan gelditzen dira ifar-aldera Aquitani eta ego-aldera beste euskaldun guztiak.

Vascones latin itzak balio du erderaz plurala esateko, askorentzako danean; baña, batentzako danean, ez da Vascon, Vasco baizik. Itz ori irugarren deklinabidekoa da latifñez. Sermo Semonis bezela; pluralean Semones da baña singul arrear Sermo eta ez sermon.

Vasco izenetik sortzen dira beste itz auek: Wasko, Uasko, Usko, Eusko. Eurok beuren buruari zer izen esaten ote ziotzen?

Kantabria mendartearen ego-eldera, Errioxa'n, zeltak gelditu ziran baztertuta Iberoekin burrukan. Berones izenekin.

Erromatarren Kulturaren zarrara gure artean

Gure kultura artzai neolitikoena zan eta jo-aldi gogorra eman zion Midetarraneo itxaso ingurutik (Europa, Afrika, Asia'tik) zetorkion kultura arrek. Zazpi metro zabaleroko bide zabal aiek, euren zubi ederrekin, miragarriak ziran gure gurti bideen aldean. Gure borda eta txabolak, urradar eta buztiñakin sendotuak, zer ziran aiek egiten zituzten etxe eta erriekin konparatzeko? Ez ziran falta bañu-etxeak, merkataritzako plazak (Foro), antzerki lanentzako egoitza bereziak (Anfiteatro) eta abar.

Baserri-etxeak ere, izugarritzakoak ziran; erromatar aberatsak jasotzen zituzten euren diruei etekin ederrak ateratzen.

tzeko... Liedena'n (Naparroa) agertu da oietako etxe edererra. Erri baten itxura duana: nagusientzako gelak, eta langille mota guztientzakoak ere bai...

Erromak ez dituz bere kulturaren arrasto asko utzi Bizkaian eta Gipuzkoa'n: alaz ere artzai euskaldunek euren ardi-bidetik ebiltzen etenik gabe batetik bestera eta orrela jaso zituzten kultura berri arren xeetasun guztiak. Gu ez gera izan bakarti basatiak: gure ingurura agertutako kultura guziak jaso dituguz; Erromatarrenak ere bai. Eta ez gutxi.

Funes'ko (Naparroa) ardotegia

1959'an 700 metro kuadrado ardotegi bat aurkitu zuten Funes errian: lau gela zeuden curen ontzi eta tolareekin; beste lau aundiagoak matza zanpatzeko eta abar. Lurgaiña zementozkoa. Gauza geiagoren artean, bi urrezko diru azaldu ziran. Domiciano'rena bat 76'garren urtekoa eta Adriano'rena bestea 119-120 urte garaikoa. Diru auek erakusten digute zer garaian ardotegia martxan zegoen. Jorge Navascues idazleak esaten digu erromatarren etxe guztietan zeudela tolareak, bai ardotarako eta bai oliotarako; Baña, Funes'en azaldu dana nekazaritzarako benetako lan-tegia dala.

Pablo de Zabalo, en su obra "Arquitectura Popular Vasca" (Santiago de Chile: 15-VI-1943) 13-17 orrialdetan euskal etxearen edestia osatzen digu: lenengo zurezkoa adarrekin estalia; gero arriakin egiñak. Ortik sortzen dira ainbat etxeen izenak: Arretxe (arrizko etxea), Ormaetxe (arrizko ormak). Tellaetxe (tellakiko tellatua=tellak jabetza agertzen digu)... Baserrietan "azpiko solairuan gela bat dago lanabesak gordetzeko eta tolarea sagardoa eta txakoliña egiteko". Erromatarren baserri aundien antzera joka dute bai arria erabiltzean bai etxeari tellak ipintzean. Izenak ere antzekoak: Tella=tégula; tellatu= tegulatum; tolare=torcular, beti ere itzen luzeroa murriztuz. Kupela euskeraz aundia da; baña, cupella latíñez cuba txikia: emen alderantziz jokatu zuten euskaldunek, cupella txikia kupela aundian biurtu dute...

Etxegintzan aldaketa aundiak ekarri dituzte erromatarrek eta lanbide geiego: baita arrobiak lantzen ere marmolak ateratzeko... bideak egitean eta zubiak jasotzean; errementarietan eta arostegetan zenbat gauza berri; berdin zeramikan, mosaikoetan eta margolaritzan... Laiaren ordezkoldea... eta abar eta abar.

Kultura mota guztiak curen izen berriekin onartu zituzten: etxegintzan Gazteluak dauzkagu (castellun=castillo); Dorre edo Torre (Turris = torre); Gela (cella = celda)... Jantzetan, berriz, Praka (braka=pantalón); Sakela (sacellum = bolsillo); Matasa (matasa = oவில்); Goru (collus = rueca); Titare (digitale=dedal) eta geiago. Liñu-liñuazi (linum = lino); Lixuba (lixibium = lejía)... Sukaidean, Sartagi-sartaña (sartago = sartén); Katillu (catillum = platillo); Galdara (caldaria = caldera); Lapiko (lapis = puchero); Mairidire (mantille = mantel) eta abar. Janariak, Kipula (cepulla = cebolla); Porru (porrum = puerro); Piperra (piper = pimienta); Baba (faba = haba); Babarruna (haba romana); Piku (ficum =

higo); Gaztaña (castaña = castaña); olio (oleum = oleo); Mertxika (persica = melocotón); Sekale (secale = centeno); Marrubi (marrubium = fresa silvestre); eta askoz geiago.

Gauzak artzen dituzte dakartzen izenekin eta curen berba-altxorra aberasten dute. Beuren itzak, ordea, ondo gorde, ani-arotik onera: lanabesak arrizkoak zirenean, arri edo aitz dute curen izenetan: aizkora, aiztoa, atxurra, zulakaitza eta abar. Artzai euskalduna ao-zabalik zegoen erromatarren kulturaren aurrean...

Erroma eta illetak

Asieran ildakoak eortzen ziran bizi ziran kobeetan. Neolitiko aldean, berriz, Prikuarrietan eta leize berezietan... Geroago etxeetan eta etxeinguruko baratzetan.

Erromatarren berriak

1) Sukaldeko suak ematen dio babesari etxeari eta sukaldeko etxe eliza da. 2) Eleiz orretako apaiz bakarra etxe eliza jauna da. 3) Etxeko andre berria zanean, sukaldara eramaten zuten illeta berrietan sartun zedin. 4) Tellatupean zuten egoitza biziak eta illak: auek janarietan parte artzen zuten eta ofrendak artu ere bai. 5) Otsaillean guraso eta seme-alabek eskeintza bereziak egin bear zituzten ildakoen alde. 6) Elizkizunik garrantzi aundienekoa Caena Novendialis da: apari berezia ildakoen alde.

Bonifacio de Echegaray ("Algunos ritos funerarios en el País Vasco". Eusko Ikaskuntza: Sociedad de Estudios Vascos. San Sebastián, 1928) idazle ospetsuak erromatarren oitura oiek. Euskalerrria'n betetzen direla esaten digu. Europa osoan, emen ere bai garai batean, gorpuak osorik eortzen ziran, batzuetan, berriz, zati bigunak erreta eta besteetan auts bihurturik. Erroma'n askatasun osoa zegoen eta gorpuak erriko arresitik kanpora eortzen ziran. Baña etxe bakoitzean zegoen Dei Manes, Etxeko Jainkoentzako, aldera bat. Etxea danen egoitza zan: biziena eta ildakoena. Geuk ere geure aurtzaroan, ikusi izan degu gabea, lotartzekoan, sukaldeko suak bildu eta errautsakin estali, ildakoentzat, eurak ere sua bear zuten gauez eta.

Kristauen Eleiza Catacumbas deritzan illerrietan jaiotzen zan: erri arresitik kanpora; an biltzen ziran erasotutako zirelako eta indarkeritik iges egiteko. Toki aietan gorpuak osorik eortzen zituzten. Elizak bere askatasuna lortu zuanean (313 urtean), leku artako zenbait martiri famatuen sepulturan, basilikak (eliza aundiak) jaso zituzten. Martiriaren zaleak elizan bertan eortzen zituzten. Orregaitik edo, kristautasuna gure artean erroto zanean ildakoak, etxetik eleizara eramane zituzten, etxe bakoitzeko sepulturar bertan egiñez. Eta, etxea saldu ezker, sepultura ere berarekin batera saltzen zan.

Etxea eta elizako sepultura bat zirala adierazteko, 'gorputz-bideak' sortu ziran. Etxetik eleizarako sepulturar gorputz-eramateko, beti egin bear zan gorputz-bidetik. Uraxe

zan bide bakarra eta ala egiten ez ba'zan, gorpua pasatzen zan tokitik bide berri bat sortzen zan, guztien aurretik nagusia bera joaten ez ba'zan igarotzeko aukera emanez.

Elizako sepultura orren gainean, gorpua an zeuden eortzita, egiten ziran domekaero, ildakoen aldeko eskeintzak: argia, ogia eta bestelako janak, dirua otoitz egiteko... Eta ori, etxe-ko-andrearen eginkizuna zan... Erroma'n etxeo gizona zan apaiza; gure artean apaiz lanak etxeoandreak betetzen ditu.

Etxekoandre berria zetorreanean, lenengo lana zan sukaldean burruntzalia jasotzea etxeoandre zaarraren eskutik; gero, eleizako sepultura gainean ango jabetasuna agertu: etxeo ildakoen aldeko eskeintzak etxeoandre berriak egingo ditu, naiz eta bera beste etxe batetik etorri. Aurreantz, bere etxeo ildakoak aztu eta etxe berrikoak zaindu. Sepultura artze au. apaizak adierazten zuen aurretik zein egunetan egingo zan; Meza Nagusian, jakina.

Illetak zirenean, eleizkizunak ez ziran eliza barruan amaitzen, kanpoan baizik, eleiz atarian. Zenbait tokietan ildakoaren etxera joaten ziran 'segizioan', bata bestearen ondoren, apaiza aurretik. Baña, apaiza ez zan etxe barrura sartuko; atarian geldituko zan. Etxera sartu eta etxeo jaunak edo etxeo andreak, otoitza egingo zuen. Orduan amaitzen ziran illetak.

Illetako bazkariak

Auek ziran illetaren amaiera berezia eta bearrezkoa. Erroma'ko Caena Novendialis aparten antzera, etxe-koak bazkaria egin bear zuten, ildakoen alde. Bazkari auek askotan ondamentia ekarri arren, eta naiz debekatua agintari guztien eskutik etorri, erriko eta eleizeko agintarien eskutik, euskaldunak danen kontra egin ditu bazkari auek. Etxea zan benetako eleiza asiera-asieratik, eta orregaitik etxean egin bear ziran illetak eta illeta auen sustraia, bazkaria zan: bizientzako eta ildakoentzako.

Etxe bikoitzak

Etxe bakoitza, familiaren eliza da: eta ez dago beste inoren tartean sartzerik. Orregaitik, etxe batek bi famili ditueanean; bien erdian orma bat jasotzen da tellaturik gora dijoana: Bi bizitzak ondo bereizturik. Zenbaitzuk usteko dute sua izan dala orma orren arrazoibidea, etxe bat erretzen danean, bestea ez erretzeko; baña, asierako asmoa bi bizitzak, bi eleizak, bereiztea zan. Tellatupe batean, bi eleiza alkarrekin ezin zitekean gauza zan.

Illeta bazkariak, gureraño eldu ziranak, Vaticano II'garrenakin amaitu dira; onek illetak arratsaldean egiteko baimena eman zuanean. Orduan aukera galdu zan bazkariak egiteko. Eta, bertan bera galdu ziran.

Aur galduak eta aur-lagunak, etxearen istilla barruan eortzen ziran eta oitura au gureraño eldu da. Kristauak eleizara eramaten zituzten; aur galduak, kristau ez ziranez, lenngo lege zaarrera, tellatupean eortzi bear ziran. Asierako eleiza etxea bait zan.

Etxe-baserriak bakan bakan kokatuak, bakoitza famili batentzako ziran: etxe bat, famili bat bizientzako eta ildakoentzako. Maiorazkoa egiten zan etxearen jabe eta sepulrarena... Biak famili osoarentzat... Gaurko egunez etxeak erlauntzak ematen dute eta famili zaarra, kristautasunaren aurrekoa, galdu zan betirako.

Erroma lur jota

Keltak eta Germiniarrak, Europeotarrak Erroma'k erditu egin zituen: Rhin ibaiaren ezker aldetik Keltak, erdi erromatar egiñak eta eskubitik Germaniar basatiak. Erroma'ren kutsurik artugabeak. Erri basati auek ego-alderuntz egin zuten, euren aurrekoek aurrerago egin zuten antzera, eta Erroma'ko Inperioaren aurka asi dira erasoka. Erroma'n bertan arazoak ez ziran falta, eta Lejioak frentetik kendu bearrean aurkitu ziran erromatarrek. Urira ekartzeko. Eta Lejio auen ordez, Rhin'eko frentera Kohorte Laguntzailleen Leteak eraman zituzten, erromatarrek ez zirenak eta auekin batera, lurrari lotuta eta lurrakin batera saltzen ziran nekazariak.

Franko eta Alamanes erriak izan ziran Galias. Kelteen lurrean, lenengo sartu ziran erri basatiak, III'garren mendean. 276'ean 60 uri erre eta Euskalerriko Pireneetara eldu ziran... Aien beste berririk ez dakigu izkutueta gordetako diruak ematen diguna besterik; diru altxorra bat Pirenee oñetan ipar-aldera eta Naparroa'ko Liédena'n bestea. Emen 105 denario (langille baten eguneroko alojera) aurkitu zituzten 240'garren urtetik 270'ra egiñiko txanponak. 270'garren urtetik laister erre zuten erria. Etxetik 15 metro-ra agertu dira, metro t'erdiko labeak, zeramika erretzeko. Barcus eta Briscus, baita Clunia'ko diruak ere, garai onetakoak dira. Onek adierazten digu erri basati oiek 276'ean sartu zirala Orreaga'tik aurrera.

Liédena'ko erromatar baserri eder onek, beste orrelakoen antzera, bazituen mosaiko ederrak, pizsina beroak...

Erroma III'garren mendetik VIII'garrenera

III'garren menderate Erroma bere agintea zabaltzen eta aunditzen doa, batez ere irietan, kultura mota guztietan. III'garrenetik VIII'garrenera, larri-uneak etenik gabe datoz batez ere Europa'ko erri basati oien erasoak azkenik ez dutelako: 378'ean Godo eta Visigodoak; 405'ean Suevos, Alanos, Vándalos eta Burgundioak: 493'an Héruloak... 450'garren inguruan, europarra ez zan Atila agertzen da. Erromatarrek Rhin eta Danuvio ibaiak sendtzen saiatzen dira, baña dana alperrik.

476'garrenetik aurrera ez dago Enperadorerik Sarkaldeko Inperioan: orren ordez, basati buruzagi ugari, noiz errege izendatu.

Frankoek Iparraldeko Galia, Loira errekatik Rhin'era, artu dute eta Visigodoek Loira ibaitik egoaldera Pirene mendietaraño. Erri basati auen artean Frankotarrenak bakarrik dirau; eta aiengandik sortu zan gaurko Frantzia.

Bagaudatarren iraultzak

Bagauda jendea gure artean agertu zan 435'garren urtean, baña Erroma'ko jeneral batek garaitu zitun Arakil'en. Alaz ere, berriro azaldu ziran emen... andik urte batzuetara. Erroma'ko kronikak Bagaudei lapur eta terroristak deitzen dicte: etsai guztiei bezela. Gizartean gauzak gaizki zeudelako sortu ziran zenbait probintzietan jende iraultzaillea. Inperio guztian zerga geiegi, nekazaritza esklabuen antzera, lurra saltzen zanean nekazariak ere lurra-kin batera saltzen ziran. Lur eta lanik gabeko jendea. Erromatar baserri aundiak galdu ziranean, langille asko, eta azkenik, gudariak eurak ere, ezer gabe galditu ziran. Ortik sortu ziran Bagauda multsoak edonun. Euskaldunak ere ez ziran falta euren artean; batez ere Ebro ballarako baskoiak Wisigodotarren aurka burrukatzeko. Azkenik kristauak eurak ere tartean daude, Erroma'k kendu bait zien zituenak eta ez zituenak: aberastasunak eta eskubide osoak.

Suevoak eta Vandalok

Suevoek Hispania'ko zatirik aundienetan kokatu ziran eta Egoa-aldean, Wisigodoak; auek, baita Afrika'ko iparaldean ere. Frankoek goitik beera datoz ego-aldera. Godoek 461'ean Novempopulania baskoia arrapatu eta Pirineemendartea. Hispania eta Portugal'ekin berdin egin nai dute. Suevoak baztarten dituzte Galizia eta Portugalera.

Frankoek Euskal-mugara eldu dira eta 507'an Wisigodoak Tolosa'ko erresumatik Hispania'ra botatzen dituzte. Eta orra, euskaldunak Franko eta Wisigodoen artean, burni guria maillu eta ingudearen tartean bezela. Ifar-aldeetik Frankoek eta Wisigodoek ego-aldeetik erasoan gelditzeke. Baña, euskaldunak biai eutsiko diote.

Justiniano, Orienteko Emperadorea (533-554)

Galdutako Sartaldeko Inperioa reeskuratu nai du eta erasoan ekin dio: Ifarretik eta Egoa-aldeetik, bietatik batera, Mediterraneo'an zear. Erroma'tik, Konstantinopla'ra (Istanbul) aldatu du bere Uri nagusia. Andik Afrika aldera: guztia menperatu eta Hispania'ko Betika ere bai. Baña, Ifar-aldeetik ez du gauza onik egin, ezin izan bait du Italia menperatu. Justino'rekin batera etorri dira ainbat funtzionari eta monje kristauak: Siria (Kapadozia) eta Egipto'n sortu diranak, Betika'ra.

567-571, Franko'en erresuma eta Akitania euskalduna, biak, eskuz-esku dabilta erregearen ondorengoan artean.

Baskonia'ren Independentzia sendotzen

Bosgarren eunkiaren azken-aldera eta Seigarrenean, idaztietan ez da ezer aitatzen ez Kantabro'ei buruz, ez Euskalun'ei buruz... Leobigildo, Wisigotoen errege izaten eltzen danean, ordutik agertzen dira euskaldunak Wisigo-

toekin burrukan. Afrika'tik musulmanak etorri ziran arteko guztian.

Paperetako ixiltasun orrek adierazten diguna au da: erri basatien denboran euskaldunak askatasuna izan zutela. Baña, Leobigildo erregeak askatasun ori arriskuan jartzen duanean, orduan, armak eskuetan, zaintzen dutela. Garai aietan sendotu zuten euren askatasuna, erri bereizi baten askatasuna.

Vitoriano erria sortzea (580)

Hermenegildo errege izendatzean Euskalerraren egoaldetik biurrikeri aundiak izan ziran. Euskalerr osoan zabaldu ziran okerkeriak eta euskaldunen aurkako ekintzak batera egiten dituzte franko eta godoek. Godoek egotik eta frankoek iparretik. Mallu eta ingude tartean, euskalduna.

Kronika 'historikoak'

'Kronika' auek Franko eta Godoek idatzita daude. Euskaldunen etsaiak. Gu beti agertzen gera labur, iltzaille, terrorista utsak bezela; eurak, berriz, zeruraino igotako eroen antzera. Guk egiten ditugunean, triskantxa eta okerkeria besterik ez dira; eurak egiten dituztenean, oorez betetako goraltzak merezi dituzte. Arturo Campion idazle naparrak dionez, gudarostearen gorrotoa, soldaduen gorrotoa, monje idazlearen gelara igo zan. Eurak idazten zituzten gorrotoz betetako kronikak. Euskaldunak, berriz, ez dute sekulan kronika bat idatzi.

Pirineemendartea euskaldunen babesa

Burruka bikoitz onetan euskaldunak beuren babesa Pirineetan aurkitzen dute: eta garaia danean andik irtetzen dute curen burruka bereziak egiteko; 'Guerra de guerrillas' deritzanak, 587'an Akitania guztian zabaltzen dira...

Gotoen errege guztien asmoa eta gura bizia, esaera onek agertzen du: "Domuit Vascones". Baskoiak menperatu ditu. Baña, ames oietatik musulmanen erasoak esnatu zitun VIII'ganen gizaldian.

Akitania eta Novempopulania

Asierako euskal Akitania (Dax uria zan Aquis) Bordel'eraño zabaltzen zan eta Garona ibaia zuen bere muga. Gerora, Erroma'ko Enperadoreak Loira ibaiaño luzatu zuen, Galoak eta baskoiak naastuz.

Asparren'go Verus, jainko txikien apaizak, Augusto'ren denboretan, Erroma'ri eskatu zion, eta lortu ere bai, bere eskaria: Novempopulania (asierako Akitania) banatzeko Akitania aunditik. (Loira'ño luzatu zanetik, eta Galoen lurralde zanetik).

Novempopulania bederatzi uri zituen; gerora amabira zabaldu ba'zan ere. Uri aundi auetan galoek eta erromatarrek euskaldunekin batera bizi izan ziran garai batean. Erro-

EDESTIA

ma erori zanean, frankotarrek nagusitu ziran uri oietan: eta naiz eta uri batzuek desegin, iraun zuten besteak, murriztuta ba'da ere. Euretako bizi-lagunek pozik artu zituzten Pirenee-mendartetik zetozten euskaldunak, lapurtu zieten lurak berreskuratzera.

Baskonia Duke-erri

587'tik 602'garren urtera sortu zan Baskonia Duke-erria. Frankoek begi txarrez begiratzen diote Duke-erri onei eta galerazpen guztiak ipintzen diote burruka bizian. Duke-erri onen zati bat euskaldunen eskuetan dago eta bestea frankoenetan. Gora-beerak Frankoren politikaren neurrian zebiltzan.

621'ean euskaldunek Ebro bailaran aurrera ekin diote. Laister dute Godo eta Franco'en erantzuna: bi aldeetatik batera. Olite erria sortzen dute lagun bezela euskaldunen aurkako burrukarako. Francoek etengabe ari dira Baskonia duke-erria indarrez artzen. Gotoen "Domuit Vascones"en antzera. Alaz ere 635'ean euskaldunek mendietatik irten eta Novempopulania osoan zabaldu ziran. Erasoak bi aldetatik jaso arren, berriro irteten dute burrukara. Godo eta Franco'en bitarte orretan aske bizi dira euskaldunek gora-beerak izan arren.

Lupo I, Printze, Akitania eta Baskonia'ko Dukea (670)

Felix frankoaren agindupean, bi Duke-erri sortu dira. Onen eriotzean, guztien buru, Lupus I (Otxoa) agertzen da. Dirudenez, aren aukeratzean Jaunek, baita baskoiek ere, parte artzen dute. Errege frankoari buruz, badu Printze onek askatasuna 673'an Konzilio batera ots egiteko Bordel'eko elizbarrutian. Garona ibaiaren aldamenean kokatutako erriska batean egingo da. Dax eta Bigorra'ko Gotzaiak falta dira.

Lupo'k berrogei urtez agindu zuen eta 710'garren urtean, bere ondoren, Eudon dukea dator, Lupo'ri esker eta bere esku indartsuari sor zaio Baskonia'ko Duke lanerako euskaldun jatorrizko gizonak sartzen ba'dira.

Eudon Aundia

Aundia esan zitzaion bere indar, ausardi eta ekintzarako gaitasunagaitik. Akitania eta Baskonia'ko Duke egin zuten (710), musulmanek Hispania'n eraso jo zutenean (711). Ortik aurrera Akitania eta Baskonia biak lanean ekingo dute eraso ori geldiarazteko.

Musulmanek Hispania'n sartu ziranean, Wisigodo'en Rodrigo erregea, gure artean zebillen Iruña artu eziñik. Lenego sartu zana Tarik izan zan (711, 713, 714) eta arren ondoren Muza (712, 713, 714) eta Hispania osoan zabaltzen dira. Baztarretan sendotu ziranean, Orreaga'tik aurrera Bordel'era jotzen dute eta errotik larrutu. Eudon'ek erasoari eutsi ezin eta Frankoen errege Carlos (Marte) billatzera, laguntza eske, joan zan. Moroek Akitania aundian zear doaz

Poitiers ingurura, Loira ibaitik gertu, baña Akitania'n oraindik. Bere asmoa Tours'eko Abat-etxea arrapatzea zan.

Poitiers (732)

Eudon eta Karlos, ingumariko erriekin batera, aurpegi ematen diote Abderraman erregeari Poitiers errian. Burruka izugarri baten ondoren, gaua danean, musulmanek kanpamentuko suak bisten dituzte... Baña, goizean, an ez zegoen iñor. Illunaren laguntzaz alde egin zuten guztiak, bertan untzirik Bordel'en arrapatutako aberastasun osoak.

Moroen gudarostea bitan banatu zan: batzuek, Toulouse'ra eta besteak, Erronkari'tik beera. Bertako jendeak Olas'teko estuan, Leire'tik gertu, eraso zion eta Abderraman erregea il zuten. Orregaitik Erronkari'ko arrizko ikurraren moro baten irudi dago izen onekin: Abdurramen.

Abderraman'ek Afrika'tik ekarri zituen gudari berriak eta gudaroste oso aundiakin erriz erri zetorren baztarrak menperatzen ildakoez betetzen eta lapurreta bizian. Ainbeste aberastasunek azkenerako estorbu besterik ez zien egiten. Bi gudarosteak alkarri begira egon ziran aste bete osoan, nundik jo asmatzeko. Zortzigarrenean Abderraman berak daramazki gudarozteko zaldunak, kristauen lantza-esiaren aurka. Eutsi die erasoai eta esirik ez da apurtu. Burrukak ez du etenik egun guztian; baña, Eudon'ek bere jende akitani eta euskaldunekin, jira bat eginda, moroen kanpamentuan sartzen da eta su ematen dio. Sua euren gibeletik ikusita musulmanek uste dute atzetik datorrela kristaun eraso eta ortik sortzen da burrukan ikaragarriko naaspilla. Gauaren illunakin batera alde egin zuten betirako Europa'tik.

Eudonen eriotza

Egoaldetik moroen kontrako burruka ez zan bereala amaitu. Karlos Martel Eudon'en lagun moroen aurkako ekintzetan, 735'ean eraso egiten dio bere lagunari, eta il. Burruka jarraitzen du Eudon'en semeekin.

Moroek egoetik Frankoek ifarretik, orra berriro Euskal-erria mallu eta ingudearen tartean. Une orretan asturiarrak agertzen dira Sarkaldetik. Alfonso I erregea buru dutela. Ebro ballaratik aurrera datoz eta Bizkaia'n sartzen dira Karranza eta Sopena bere mende artuz. Urteak 743 ta 745.

Eudon'en ondorengo buruzagia Waifre euskalduna da (744-768), frankoek Akitania artzean (768) erailla eta Baskonia alde batera ipintzen dutenean Akitania aundia, Loira ibaitik Garona ibaiara, euretzeko artuko dute. Orrela Baskonia asierako Akitania'ren neurritan gelditzen da. Karios erregea ilten danean, bere Erresuma zatitu egingo du: Karlos (Magno) eta Karloman'eri (768-771).

Lupo II, Waifre'ren ondorengo. Karlos'ek eraso egiten dio Baskonia'ri eta Lupo II bere mende gelditzen da. Berdin egiten du Europa'ko errege guztiekin eta bere Erreinoaren muga, Ebro ibaiaren bailaran ipiñi nai du.

ARRINDA'TAR ANES

EUSKALERRIKO MERKATARITZA LEGORREZ ETA ITSASOZ

Nere artu-emanetarako dirua eskatzen du merkataritzak; baña gure errian diru gutxi zegoen esku-arte. Merkataritza gauzen trukea zan eta orretarako dirurik bear ere ez. Gure erritik zear igaro zan atzerritar batek zionez, gure artean ez omen zegoen "sagarra, sagardoa eta esnea" besterik. Kanpotik zetozen gauzen trukerako, zer gendukan Euskalerrian? Araba eta Naparroan ardoa naikoa eta gari geiegirik ez.

Ez ote genduan besterik?

Bai, bagenduzen gauza auek: burnia, barkuak, armak eta artillea.

Gauza oieri esker lasai bizi izan zan gure erria gizaldietan zear. Krisis garaiak ere izan ziran, bai Burgos'erekin artilleak zirala-ta, estranjeriak arma eta burnia-ri buruz, eta barkugintzan Erregearen ordena batek sortutakoak ere bai. Emezortzigarren gizaldian, euskaldunak larru-gorritan gelditu zirala zirudien; ondorengo gizaldiak, ordea, osasuna ekarri zigun berarekin batera.

Gure lan au emezortzigarren eunkian bukatuko degu. Nundik ibilliko gera? Ebro ibaetik Adur ibaiera.

Dirua

Sal-erosketak dirua eskatzen du berekin. Diru gutxi egon arren gure artean, zer-edo-zertxo bazegoen; baita diru-eramailleak ere. Pedro Etxezarreta eta Martin Mugerza, 1.331 garren urtean, diru-eramailleak ziran eta mando-zaiñak. "Real Tesorería de Navarra'k Gipuzkoa'ri zor zion dirua ekarri zuten Iruñatik. Salbatier-rra'ko alkateak baimena ematen die arabatar batzuei Aragoi'ko erreinura joateko, 250 dukatekin, 14 karga olio bertan erostera. Beraz, dirua bazan asko edo gutxi.

Baita diru falsorik ere. Abanto'ko San Mames elizan artu zuten preso 1450'garren urtean Zaballa Martin diru-falso-egillea eta Erriko zubi-azpian "putzuratu" zuten ("empozado"). Urte batzuen ondoren, beste orrenbestegaitik, urkatu zuten Iruña'n Berdabio'ko baserritar bat.

Fernando "Katolikoak", Nafarroa azpikeriz artu ondoren dirua ebagitzeko aalmena ematen dio Zaragoza eta Burgos'en pareko. Auek ziran sal-erosketarako erabiltzen ziran diru-motak: Florines, libras, ducados viejos, nuevos y milaneses, grosas, torjas, reales navarros y castellanos, y doblas de la banda.

Dirua bazan, baña gutxi bistatzen. Onela zioten euskaldun baserritarrek: "Idia marabedi batean; baña, nun da marabedia?"

Trukean

Sal-erosketa geienak trukearen bidez egiten ziran. Ortarako gauzak izaten zuten beure baloarearen neurri bat: errotak, idiak, bestelako abereak, gariak... Bereterretxe'ko jaunak bere kantuan dio eun idi emango dizkiola, bere etsai zan Lerin'go Kondeari. "Zazpi errota berri" emanda ere ez du Ursua'ko baserrira etorri nai Lantain'eren alaba Joana'k. "Jaunarentzako bost bei" izaten zan sarritan kastigua.

Abereek egiten zituzten kalteak ikatz-kargetan neurtzen ziran. Burnia ere erabiltzen zuten diruaren ordeaz trukeak egiteko. Bizkaia'n Bedia'ko Aitxola'ri 560 ikatz-neurrutan ematen zaio errematea. Garitan ordaintzen ziran zenbait alogera. Gure Lege-zaarak zorrotz ematen dio gauza bakoitzari beuren balioa: "Uzta erretzen duanari eriotza zor zaio"... "Bost edo geiago sagar-arbola okerkeriz ebagitzen duanari eriotza zor zaio"...

Aberatsa ez zan diru askoduna, abere askoduna, baizik. Aberetik dator aberatsa. Ez da txiripaz gure euskal kondairaren xeetasunak bei, txerri, mando eta beste aberrez beteta ba'dago: Iza Martin aberatsari bi bei eta sei txerri arrapatu zizkioten; Oñaz Otxoa eskuderoak, bere jauna lagun zuela, Arraras'ko txerriak eraman zituen indarrez... Eta, abar, eta abar.



XIV'garren eunkian asarre dabilta gipuzkoarrek narfartarrekin: merkataritza eta abereak daude bitarte orretan. Burruka orren ondorenak sortu ziran ainbat erri-bildu (Sanguesa, Estella, Gares edo Puente la Reina...) Nafarroa'ko lurraldeetan. Gipuzkoa aldetik ere berdin gertatu zan Errenteri, Tolosa, Ordizia eta Segura'kin. Nafarren erasoetatik gordetzeko sortu ziran erri bildu aiek. Nafarrek, berriz, lapurretan sartzen ziran Oiartzun, Berastegi, Elduaien, Gaztelu'tik. Gipuzkoarrek, berriz, beste orrenbete egiten zuten Amezkoatik, Burundatik.

Lege zaarra burruka onetan tartekoa zan. Onela dio (T. XXIV. Cap.II) Gipuzkoarren Fueroak: "Por quanto en tiempos pasados se acostumbraban hacer muchos rovos, muertes y daños por los Navarros... que cuando pareciere necesario, resistan los de esta Provincia y hagan el daño que pudieren a los Navarros y otros estrangeros que les hiciesen daño".

Bizkaitarrekin artu-eman obeak zeuzkaten giputxek; baña, ez beti. Markiña erria lapurretak eta indarkeriak bizkaitarren aurka giputxek egiten zituztelako, jaso zuten.

Euskalerrriak eskeintzen zuena trukerako

Sal-erosketak trukearen bidez egiten ba'ziran, Euskalerrriak sagardoa eta esnetik alde, zer zeukan eskeintzeko truke orretan? Ez ogi eta ez ardo. Sagarra, sagardoa eta esnea; besterik ez. Lopez de Haro bizkaitarrai buruz onela dio "Fernan Gonzalez" poemak: "Sagarretan aberats, ardo-ogitan eskas".

Donostia'ko Fueroak arraiñak, ogia, ardoa eta aragia aitatzen ditu; baita baraski, matsondo eta beste muetako arbola geiago ere. Estella'ko Fueroak, berriz, ardi, txerri, mando eta astoak, oillo eta usoak... baso eta oianak. Bizkaiakoak garbi adierazten du beuren eskasia: "por quanto la tierra de Vizcaya es muy montañosa e non siembran ni cojen pan nin han las otras vituallas q. asi puedan mantenerse". Gipuzkoakoak onela dio: "producen los campos todo género de granos para el uso de las gentes, aunque no en la abundancia conveniente".

Nafarroa'ren bizi-moduak nekazari-lanetan zuen bere oiñarria. Ardoa zuen naiko ugari, eta betidanik izan du. Garia, berriz, bear zuanaren erdia bakarrik 1.428'garren urtean. Andik berreun urtera, 1.695'an, idazti batek dienez, ardotik eta garitik ateratzen dute dirua; beste guztiak etxerako dira. Nik ere, Anes'ek orixe agertu nezake Araba'ko Errioxari buruz: dirua ardotik sortzen zutela 1.940'garren urtean; beste nekazariaren emaitzak etxean jaten zituzten, bai garia, bai garagarra, bai olio, bai barazkiak eta baita fruta guztia ere. Dirua eskuetan izateko ardoa saldu bear zan. Elvillar'eri buruz ari naiz, an bertan parroko egon nitzalako.

Araba'ri buruz, berdintsu esan bear. Beraz, ezin esan Euskalerrria'n ez dagoa-
la ez ardo eta ez gari: Araba eta Nafarroa'n badaude. Benabarra beti izan da
Nafarroa'ko zati bat, seigarren merindadea: "La Merindad de ultrapuertos". Beste
Euskadi'ko lur-aldeak (Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi eta Zuberoa) oiek bai sagarra
zuten nagusi eta esnea.

Gipuzkoa'n sagarra ugari. Garai batean emendik pasa zan Leon Rosmital jau-
nak zionez, Hernani'ko baztarretan sagasti ugariak ikusi zituen iñun ez bezela-
koak; milaka sagarondo ditu edozein baserritarrek.

Eta Bizkai'ko Lege Zarrak onela dio 1.526'ean (Tit. 34.Ley 1): "Hay abundan-
cia de muchos ganados y cría". Bizkaiak ziona esan zitekean alderdi bakoitzak
ere Euskalerrri osoan. Nafarroa eta Araba'n ganadu geiena ardia eta auntza zan.
Beste alderdi guztietan, berriz, ardiak izan arren, beiak eta idiak ziran nagusi, bai
aragitarako eta bai lanerako. Artillea ere bazan, liñuakin batera eunak egiteko.

Bi itzetan esanda: garia, garagarra, oloa eta artatxikia edonun artzen zuten;
naiz eta, bear zuten aña, alderdi guztiak izan ez. Oietxez gaiñ bai Nafarro eta
Araba'n, babak, illarrak, lentejak, añaia jasotzen zuten. Ardoa zeresanikez; baita
olioa ere. Danetatik zerbait.

Feri eta azoka

Esandako gauza oiek, eta askoz geiago, azokeetan agertuko dira. Erri askoe-
tan egiten ziran azoka-egunak: Estella'n, 1.164'ko Fuegoak dionez, asteero;
Urroz eta Monreal'en ere bai; Huarte-Arakil'en 1.461; Segura'n 1.491; Ordizia'n
1.751. Tolosa'n, berriz, iru egun ziran asteero feridunak...

Baiona'ko feria oso zan apartekoa, berezia eta antxiñakoa. Goieritik ere joa-
ten ziran ara giputxek. Araba'koak erri auetan egiten ziran: Gazteiz, Puente Larra,
Berguenda eta Armiñon. Guztiak Miranda de Ebro'ren aurka.

Beste bi feri arrigarriak ziran, bat Iruña'koa eta bestea, Euskalerrri'tik at, Medi-
na del Campo'koa. Ara joaten ziran bai Bilbo'tik, bai Gazteiz'tik, baita estranjeria-
tik ere. Azoka erdaldun onetara euskaldunek eramaten zituzten gauzak auek
ziran: ardoa, La Rochele eta Normandia'tik ekarritako gariak, oialak, konserbak,
narruak, Ingalaterra eta Flandes'eko esku-lanak. Aldi batzuetan bale-koipea ere
bai.

Garrantzi aundiena zuen feria Iruña'koa zan. San Fermiñe'tako azokak 22
egun irauntzen zuen. Euskalerrri osotik etortzen ziran Iruña'ra merkatariek. An
agertu ziran 1.541'ean Iparraldeko erri euskaldun auek: Sara, Urtubi, Hasparren,
Doniane Loitzun eta Ainhua. Lapurdi'ko "Bost Uriak" ere an dira, petxarik gabe,
Iruña'tik jeneroak ateratzeko, beuren eskubideak aitatzen. Gipuzkoa'ko Fuegoak
ere beste orenbeste egiten du (Tit. 18, Cap. CII): "Que durante la feria de Pam-
plona no se hagan pagar derechos algunos de Aduana en el Reyno".

Beste alde batetik begiratu ezkeroz, bazkarietatik eta amarrenetatik auxe
ikusten da: emen ez zala ezerean faltarik. Gipuzkoa'ko erri-arrantzaleetan Felipe
III'garrenak asterketa bat egitea agindu zuen 1.599'an; emen arrapatzen ziran
arraiñak auek ziran: legatza, bixigua (auek eskabetxean eraman ere bai man-
doetan Nafarro eta Castilla'ra), itxas-aingera, tramana, mielgia, atuna, sardiña,
txitxarroa, merua, arraya, itxas-kabra, perloia, langosta eta abakandoa, lupiñak,
saburdiñak, aingera txikiak (angulak, ote?), amorraiak, izokiak (salmón), lupi-
ñak, antxoak eta abar. Mutriku, Deba, Donosti eta Ondarrabia'n baleak ere bai
"do por suerte toca". Kantauri itxasoan, bertan, arrapatzen ziran baleak dira

aukek; baña, errietako barku geienak Terranoba'n zebiltzan bale-eizean eta bakallautan.

Falta ziran arraiñak kanpotik ekartzen zituzten danetatik izateko.

Mugaz barruko merkataritza

Euskalerrriak gauza asko ekarri bear izaten zituen kanpotik. Bearkizun ori Lege Zaarreen eta agintarien asmoetan, betiko lelo bat bezela agertzen da. Enrike IV'garrenak onela zion 1462'an: Bizkaiak ogiz, ardoz, olio, aragiz eta beste zenbait gauzez ornitu bearra du. Bizkai'ko Fueroak dionez bizkaitarrek badute esku-bide ogiz, ardoz eta arraez bere burua janaritzeko. Orregaitik zortzigarren kapituloan onela dio: Bizkai'ra datozen barku guztiak emen bertan deskarga bearko dute euren kargaren erdia.

Gipuzkoa'ko Fueroak dio gipuzkoarrek eta lapurtarrek badutela eskubide batetik bestera jeneroak eramateko "como trigo, abena, abas, zenteno, maíz, garbanzos, arbejas, vino, vacallao, grasas, rabas, sal y generalmente todo género de mercaderías". (Tit.19, cap.IV, 9).

Oiñatiarrek Araba'tik ekartzen zuten garia. Arraiña Deba eta Ondarroa'tik zabaltzen zan. Iru "Aduanilla" zeuzkan Gipuzkoa'k eta ona emen aietatik pasatzen ziranak: pipermiña, azukarra, itxas-aingira, balea, sardiña, kanela, klabillo, pikuak eta izoki gazitua.

Enrike IV erregeak, estranjeriatik Donosti'ra datozen barkuei auxe agintzen die: Donosti'tik ezer eraman nai ba'dute, aurrez ekartzeko garia Donosti'ra. Araba'tik Donosti'ra ogiak eramateko 300 mando bear izan zituzten (1.522.10.6'an).

Nafarroa'k bere uztak eskasak zirenean, garia Bretaiña'tik ekartzen zuen itxasoz Doniane Loitzun eta Baiona'ko portura; eta andik Nafarroa'ra legorrez. Arrain eta aragiak ere ekarri bearrezkoak ziran. Bizkaia Araba'rekin konpondu oi zan; Gipuzkoa, berriz, Lapurdirekin, naiz eta espaiñolak frantzitarrekin burrukan ibilli.

Iru alditan gutxienez falta izan zan garia Tolosa'n. Oietako bat 1615'garren urtean gertatu zan, Felipe III eta bere alaba Tolosa'ra etorri ziranean. Jai aietarako, ona zertzuk ekarri zituzten Nafarroa'tik Tolosa'ra: 500 fanega gari-iriña, 600 garagarrena, ardorik onenetakoen 30 karga... Proporzio berean idiak, ardiak, urdaiak, egaztiak, arraiñ freskua, egur-ikatza eta abar.

Araba'k bazuen aspalditik bere artileak Nafarroa'n saltzeko eskubidea; Nafarroa'k bere aldetik Doniane Loitzun eta Baionan'n saltzen zitun bereak; batez ere Erronkari, Salazar eta Aezko ballarakoak, an bizi bai ziren 300.000 ardi eta geiago. Baita ere eramaten zuten aruntz ardoa, erregaliza eta burnia. Burni au Nafarroa bertako oletan aterea, Orreaga eta Benabarre'tik aurrera eramana. Keixak zituzten Baiona'ko burnigilleak 1.295'an Nafarroa'ko iltzeek egiten zien konpetentziagaitik.

Orra or zenbat merkatu-arazo Euskalerrri'ko mugaz barrutik. Ikusi ditzagun orain kanpo aldetik zetoztenak.

Mugaz-kanpoko merkataritza

Bizkai'ko Fueroak bear ziran askatasun guztiak ematen zitun bituallak Frantzia, Ingalaterra eta beste nazioetatik ekartzeko. Berdin dio Gipuzkoa'koak ere. Bazuen onek Fernando "Katolikoa"ren agiri bereizi bat, (1.489.01.26), atzerrieta-ko merkatariei eragozpenik ez jartzeko, gari edo beste janari motekin ba'zetozen gurera. Araba, berriz, Burgos eta Tierra de Campos'etik ornitzen zan; larri-aldietan Zamora'raiño zabalduko zan janari-billa.

Merkatu-gaietan, 1.712'an, kakao, azukarra eta tabakoa dabilta naastean. Oiñatiarrek beuren olio Alkarria, Aragoi eta Andaluzia'tik ekarri oi zuten. Bakailaua eta zeziñetako beste arraiñak Irlanda eta Bretaiña'tik guregana. Itxasoz, geienak beintzat. Bizkai'rako, itxasoz, bai arraiñ eta beste eratako janariak, Bretaiña eta beste Frantzia'ko errietatik; itxasoz aiek ere.

Errege "Katoliko"en garaietan Lekeitio eta Bermeo'ra itxasoz ekartzen zituzten ogi, ardo, aragi, gatza, leka-ale, olio eta ezta. Errioxa eta Gaztelania'n eskasia zegoelako, ardoa Burdeos'tik ekartzea erabaki zuen Markiña'k 1.550'garren urtean. Bizkai osorako garia legorrez ekartzen zuten Gaztelania'tik: Andaluzia'tik, ordea, urez; ardoa, berriz, Errioxa eta Gaztelania'tik. Legorrez, alegia. Nafarroa gari-bearrean zegoalarik, 1.566'garrenean, Aragoi eta Gaztelania'tik ekarri zuen; baita "itxasotik"ere.

Zer eskeintza zeukaten euskaldunek janari eta edari oien trukerako?

Tirso poeta erdaldunak onela dio: "Montes de hierro / habitan los vascos". Orra lenengo eskeintza: Burnia.

Burnia

Burnia zan tratoan erabilia eta bere eginkizuna ondotxo bete zuena. Lege Zaa-rean onelako itzak erabiltzen dira une oro: "Hierro por vituallas": jatekoaren ordez, burnia. Euskal burnia munduko baztar guztietara zabaltzen zan: Legazpi'koa e.b. Gaztelania, Portugal, Ingalaterra, Flandes, Italia, Afrika eta Amarike'taraiño.

XVI'garren eunkiaren erdi-aldera Nantes urian sartzen zan burnitik %90, burni euskalduna zan Bilbo, Mondragon, Zestua, Balmaseda'tik eta abarretik. etorria. Baiona inglaterra'ren mendean zegoen 1.152'tik 1451'erarte; orregaitik bera Baiona gertatu zan Ingalaterra'rako bide ingles eta euskaldunen arteko artu-emanetan. Baita Bearne eta Normandia'rako ere: bertarako burniak bide orretatik irten oi zuten.

Indietara zijoazen ontzi guztiak eramaten zuten beuren sabelean burni euskaldunetik tonelada asko. Florenzia'ko idaz-lan batean irakurtzen danez, gure burniak ugari baño ugariago irtetzen zuen Bermeo, Getaria eta Donosti'ko portueta-tik. Nora? Edonora: Sevilla, Brujas, Lisboa, Ingalaterra... eta Barzelona'ra.

Burni arazo onetan gurekin artu-eman estuenak, eukazana Europa'ko errietan, Holanda izango zan garai aietan... Normandia'ra joaten ziran ontziak burniz, andik etortzen ziran gariz. Gariakin batera urdaiak eta eunak etorri oi ziran Deba, Mutriku eta Ondarru'ra, gero emen burni-barrak eta aingurak kargatzeko. Oietako barku batek, "Katarine" izenekoak, bretoiña, Riou de Bocec kapitanaren izena, 46 tonelada gari, 500 barrika-koipe, 4 pipa-neurri arraiñ eta 18 oial zuriko piezak ekarri zituen eta iru portu oietan banatu; gero, bertatik 507 kintal burni eta 6 aingura eraman zituen.

Gipuzkoa'ko Korrejidoreak, 1.515'ean, Deba'tik itxasora irtetzera zijoan burniari eragozpenak ipiñi zizkion. Probintzi osoa aurrez-aurre jarri zitzaion Korrejido-reari, emen landutako burniak bideak libre zituela edozein Estranjerirako portueta-tara. Eztabaida orretan Probinziak irabazi zuen eta Felipe II'garrenak eskubide ori ezagutu zuen 1.518'an: "en retorno de bastimentos traídos a Guipúzcoa".



Burni-meatzak baztar gutzetan agertzen ziran Euskal-mendietan: Zuberora'n Montory eta Santa Garazi; Nafarroa'n Bost-Uri. "Cinco Villas"; Gipuzkoa'n Mondragoiko Udala-mendia, eta batez ere Zerain erria. Zerain'dik sortzen omen zuten bere burni-gaia Azpeiti, Ordizi, Areri, Zegama eta Segura'ko ola guztiek, eta ori antxi-antxiñatik.

Oiek orrela direla, ordea, Bilbo eta bere ingurua ziran burni-meatzetan aberatsenak. Mendi osoak ziran burni-gai. Oietzaz ari zan, ziurki, Plinio erromatarra onela idatzi zuenean: "Totus mons ex hac materia ferri est". Kantabria itxasaldean "mendi osoa dago burniz".

Somorrostro'ko burni-meatzak, bertatik eta Bermeo'tik, irtetzen zuten mundu zabalera itxasoz; legorrez, berriz, Balmaseda'tik ego-alderuntz, mandoetan. Burniari buruzko eztabaida batean onela zion frantzez batek beste ingeles bateri: "Itxas-ontziak egiteko burnirik onena, euskalduna da, ausitzeke okertzen dalako". XIV'garren gizaldiko esanak dira oiek. Baztandarrek Somorrostro'ko meatza eramaten zuten bertakoekin naasteko. Bidea itxasoz Somorrostro'tik Doniane Loitzun'eraño eta andik legorrez, Amayur'etik Baztan'era.

Burniak in batera artillea ere erabiltzen zuen euskaldunek trukean.

Artillea

Euskaldunen ekonomian burnia eta artillea izan ziran garrantzi aundikoak. urteero, XVI'garren gizaldian, Nafarroa'tik ia 30.000 arrua artille eraman oi zituzten La Rochelle eta Flandes'era. Nungo bidetik? Urez Donostia'tik eta Doniane Loitzun'etik. Salazar eta Erronkari ballartako artilleak, Donosti'tik irten zuten 1.604'garren urtean Ingalaterra'rako.

Gaztelania'ko artillea, merino motakoa, nafarroakoa baiño bi aldiz galeztiagoa zan. Zazpi mila tonelada irtetzen zuten urteero Bilbo, Portugalete eta Deba'tik Frantzia eta Flandes'era. Fleteak galestiak zirala-ta, andik eunak eta oialak ekartzten zituzten etortzerakoan.

Burgos'ek aurretik zeukan "Consulado" bat eta Bilbo'k berea lortu zuanean, orduan sortu zan burruka bien artean, esportazionerako eskubide guztiak Burgos'ek beretzako nai zituelako. Orregaitik boikota egin zion Bilbo'ri eta andik aurrera Gaztelania'ko artillea Protugaletete'ra bialtzen asi zan, Bilbora barik. Segobia'raiñoko Gaztelania'ko zati bat, Errioxa, Nafarroa eta Bizkai'ko artilleak Deba'tik irten oi zuten itxasora.

Ona zerrenda bat agerpen bezela:

URTEA	BILBO	DEBA	URTEA	BILBO	DEBA
1.561	827	-	1.561	158	-
1.562	1.336	-	1.562	-	-
1.563	550	-	1.563	-	-
1.564	1.395	-	1.564	-	-
1.565	56	-	1.565	-	-
1.566	352	-	1.566	57	-
1.567	557	-	1.567	317,5	-
1.568	483	-	1.568	-	-
1.569	-	-	1.569	273	-
1.570	256	205	1.570	1.248	-
1.571	298	330	1.571	1.405	-
1.572	70	14	1.572	2.299	183
1.573	91	129	1.573	2.104	88
1.574	159	270	1.574	259	-
1.575	-	498	1.575	948	785
1.576	-	536	1.576	649	448
1.577	-	412	1.577	546	83
1.578	18	522	1.578	276	237
1.579	87	454	1.579	49	-
Auek Flandes'erakoak			Auek, berriz, Frantzia'rako.		

Saken neurriak auek ziran: Flandes'en saka bakoitzak 8 arrua; Frantzia'n, 10. Donostia'tik ere irten oi zuten artilleak, Salazar eta Erronkari ballarakoak; baita Iruña, Tudela, Errioxa eta Zaragoza'koak ere. Nafarrek beti izan dute Donostia'rako joera. Errenderia'k ere eskeintzen zien bere Pasaia'ko portua; baña, nafarrek naiago zuten Donosti Errenderia baño. Santxo Jakintsua'k eman zion Donostia'ri bere Fueroa eta arrezkero nafar biurtu nai Donosti.

Alfonso VIII, Gaztelania'ko erregeak, Gipuzkoa bere mende artu zuen unetik bertatik, asi ziran nafarrek Baiona'ra begira, Nafarroa'rako porturik egokiena izan-go balitz bezela.

Barkuak

Denboraz barkuak ugaritu ziranean itxaso eta ibai baztarretan, barku geiago zegoen artillea baiño. Barkuak Terranoba'ko bale eta bakallau-arrantzarako; barkuak Ameriketarako, eta merkataritzarako ere bai.

Artillea ezezik, bestelako jenero guztiak zebiltzan tartean merkataritza onetan: Burdeos'ko ardoak Flandes eta Ingalaterra'rako. Itxas-ertz auek naiko ez zirala, bideak Mediterraneo'ra zabaldu zituzten merkataritza egiñez Italia'tik Flandes'era. Euskal itxas-gizona itzal aundiko merkataritari gertatu zan. Berak erakutsi zien kodaste-lema (timón de codaste) arraunen orde z erabiltzen. Baita "tingladillo"ren orde z olak zuzenean zuaker edo kuadernetan josten. Orrela ontziaren sabela legunago gelditzen da eta koskarik gabe. "Tingladillo"an olak bata bestearen ertzean josten dira eta orreka koska beterik gelditzen da ontziaren sabel ori eta nekezago txirristen da ur-gañean.

Mogimendua portu guztietan egoan eta zelako ugaria zan ikusteko naikoa degu une batean, berberan, zenbat flete edo pleita (ortik dator "barku pleitero" izena) zegoen: Artillea Flandes eta Frantzia'rako; burnia Balentzia'rako; Malaga'ko frutak Jerez'erako; xaboia, piperra, klabo, eta kanela Galizia'rako; intxaurmoskatua, koipea, urraida (cobre), olio La Rochele'rako eta ardoa Gazkurnia'rako. Oietzaz gañera jenero auek zeuden mogimentuan: konejuak, azafroia, seda, Frantzia'ko oial gordiñak, arroza, almendrak, Bretainia'ko eun zuriak, Flandes'ko oialak, datillak, India eta Irlanda'ko narruak, garia, zekalea (centeno) eta abar.

Barkuen ugaritasunak merkataritza ugaltzen zuen eta merkataritza onek barkuak ugaldu. Barku mota guztiak egiten ziran gure "astillero"etan. Europa guztitik zetozen barku-billa euskaldun lurraldera. Kañoi ugariko barku nagusiak eta txalopa txikiak, guztiak sortzen zitun gure itxas eta ebai-bastarreko barkugin-tzak Udaberrian perretxikoak bezela sortzen ziran itxas-ontziak gure urertzeko soroetan. Eta, auxe izan da euskal-ekonomiaren beste zati bat.

Gure barkuen aldaketa gizaldietan zear era onetara osotu genezake:

1.- Amairugarren gizaldian Donosti uriko seilluak agertzen digu itxas-ontzi mota bat; Masta lodia eta bakarra, oial bat, popan kastillo bat eta lema arraunen bidez egiten zuena.

2.- Bi masta ez ain lodiak, oialak eta arraunak eta lema kodastean arraunik gabe. Era orretako bi ontzi ikusten dira: bata Lekeitio'n eta bestea Elantxobe'n.

3.- Bi masta lodi eta bi oial; bi kastillo bata popan eta bestea proan; lema kodastekoa. Oien tipokoa zan "zafra", 20 toneletik 60'ra, arrantzarako erabiltzen zana eta udaran merkataritzarako, kostarik kosta. Orren antzekoa zan beste barku bat 90 toneledera eltzen zana eta burrukarako beste barku aundi baten

laguntzalle izaten zana. Aurretik joan eta kostetako biurguneak begiratu eta ibai estuetatik sartu. Lan orretan dabillenean "patatxe" du izen.

4.- Iru masta lodi eta oial bat masta bakoitzeko; lema kodastekoa. Orren antzeko bat zegoen Deba'n Uresandi lonja zaarrean, ate-gañeko arrian: XIV-XV eunkikoa.

5.- Iru masta lodi eta iruretan iruna oial laukiak. Oso sendoak eta itxaso aundietako erregea. Izena: "galeoia". Felipe II'ren agindutik aurrera, bi aldemenetan eta kubieta azpian, 18 kañoi eramaten zituzten. Eta beste txikiak karel gañetik. Bale-arrantzarako Terranoba'n ibiltzen ziranak. Baita burrukarako ere. Lema kodastekoa.

6.- Iru masta. Eta oialak lenengo bi mastetan berdiñak; irugarrenean oial luzanga. Izena "karabela". Barkuaren proportzioak luzeago "galeoia"k baño. Ariñagoa eta erabiltzen errezagoa. Euskaldunek geien maite zutena. Bi barku-mota auek erabiltzen zituzten urrutietako arranketan.



Barku aundiagoak ere egiten zituzten, bereziak bear ziranean eta kañoi asko dunak. Kosta-aldeko erri guztietan zeuden "carpinteros de ribera" izenarekin eza-gutzen ziran arotz barku eta barril-egilleak. Bere lan orretan abillak eta famatuak. Barkuak ez-eze barrillak ere millaka asko bear ziran bale-arrantzarako. 1.566'garren urtean "San Nicolas" izeneko barku baten berri zeatzak dauzkagu: Bilbo'n egiña, Landaverde jauna nagusi eta armadore, Joan de Espilla debarra kapitan; urte aretan 1.195 lumera-barril ekarri zitun Terrenoba'ko itxasoetatik. Barril-pilloa.

Iru urte beranduago Labrador'itxas-ertzean beste Pasaia'ko barku bat ondo-ratu zan, 1.000 barrika barruan zituela. Ondoratutako barku au, Oñati'ko iru dokumentuen bidez, 197.garren urtean aurkitu dute Shelma Barkham andereak esandakotik. Orra bi barku jakiñen zeaztasunetatik 2.000 gorako barrillak. Une aretan berreun inguru zebiltzan Terranoba bidean gure kaietatik irtenak, aundi eta txikiago, baleetan aundiak eta bakallautan txikienak. Begira zer barrik pillo bear zituzten. Ez zan bakarrik barkuak egitea; barkuak egiteak, barrillak egitea eskatzen zuten.



Ameriketarako bideak ez ditugu aitatu ere egin. Arako barku eskabidea ere aundia zan bai burrukarako eta bai merkataritzarako: ontzi aundiak. Gertuko arrantzetan ere portu bakoitzeko asko zebiltzan urte guztian. Onziak txikiago; baña, ugari. Europa'tik eskea ere ba'zan Euskalerrira barku-billa. Gure barku-gintza ugaria zan baztarretan, eta europako eskabidea zan lan oien osagarri.

Egoera onek burni-olak eskatzen zituen, eta garai batean, errotak ere burni-ola biurtu zituzten. Gerora, barku-gintzarako berotasun au oztu zanean, berriro ikusiko ditugu olak errota egiten; baña, bitarte onetan, gure errian ez zan lanik gabeko gizonik ilbarriak ez ba'ziran. "San Nicolas" ontziak 435 tonelada zituen eta 75 giza-seme barruan bale-arrantzarako. Burrukarako gertatzen ziranean, neurri orretako ontziak 300 giza-seme eramango zituen beregan.

Barku-gintzak basoak eskatzen zituen ugari eta aundiak: mastak egiteko zugaitz luze eta sendoak eta bestetarako zura ugari. Burni-olak, berriz, erretzeko egurra neurririk gabe, ikatz egiteko. Oiek danak karrioa ugaltzen du neurri gabean. Lanik gabeko giza-semerik ez zala gure artean, agerian dago.

Barku-gintzarako egurrari buruzko ageri bat badago Errege Carlos III'garrenak onartua. Onela dio: "Proyecto solicitado por la Villa y aprobado por el Supremo Consejo para un muelle corrido..." y una estacada con compuerta para levantar-

la al borde de la ría y formar una presa desde Latsurregui a fin de aumentar el caudal del riachuelo "para custodiar las maderas de construcción para los baxeles de S.M." para el Ferrol y Cartagena. Onek esan nai du barku-gintzako berotasunak oztuta ba'zeuden ere, Deba'ko basoak or zeudeka lenago bezin ugariak 1.783'an. Carlos III Napoles'tik etorri zan errege izateko 43 urte zituela eta 72'rekin il zan, proiektu au onartu eta lau urtera.

Aurreko gizaldian, ordea, 1.628'an, ez ziran naikoak emengo basoak ainbeste ontzi egiteko eta Santiago de Larragil'ek egur eskaria egiten dio Mallabia'ko Martin de Antio'ri onelako olen neurrietan: 6.000 kodo-olak 5 kodoko neurrietan; 3.000, 7'etan eta 1.000, 10 kodoetan. Bi taldeetan ekarriko zituen Alzola'ko Juan Lopez de Oibar'en etxera. Gero andik Deba'ra ibaiean zear ekarriko zitun debarrak. Okerren bat izan zan bien artean gertarera au Oñati'ko Protocolos Guipuzcoanos'etan agertzeko: Sección Primera, Legajo 1.438 folio 35. Erri onetako "DEBA" aldizkarian, Udaberria 1993'koan, idazten du Koldo Lizarralde Elberdin'ek.



Burruka aitatu degun ezkerro J. Ignacio Tellechea Idigoras'ek 2.000'garren urteko Martxoan agertu zuen Donostia'n bere aizken liburu au; "CORSARIOS GUIPUZCOANOS EN TERRANOVA. 1552-1555". Carlos Lenegoak, gipuzkoarrei eskatzen die, Frantzia'ko muga direnez, sartzeko burrukan itxasotik, bakoitza bere poltxikoaren kontura, eta ez erregearen kontura. Bera, Erregea burrukan zebillen Frantzia'ko Franzisko Lenengoaren aurka, eta orregaitik nai zuen gipuzkoarrek euren barkuekin frantzezei alzanik okerrik audienak egitea.

Armadore gipuzkoarrek 350 ontzi prestatu zituzten burrukarako eta bost urte oietan kalte aundiak egin Frantzia'ko itxas-ertzeko lurraldeetan eta baita Terranoba'ko itxas zabaleetan ere. Okerrak jaso ere bai eta milla giza-semeen eriotzak. Erregearen ingurutik esker onik ez zetorrelako, Gipuzkoa'ko agintariek erabaki zuten ikerketa bat egitea. Eta ikerketa ori egiteko, burrukan ibilli ziran artekoetan, amalau gizon aukeratu zituzten, ikerketa orreri erantzuteko. Oien artean iru ziran Deba'koak. Eta, Deba'ko burruka orren bi berri gasoko ditut.

Ikerketa au 1.555'ean egiña dago, burrukaren aizken egunetan. Eta iru debarrak auxe esaten digute: Orain lau egun irten dute Deba'tik burrukarako sei ontzi eta zazpi. Ez det ondo ikusten "sei edo zazpi" diran ala "sei eta zazpi". Ontzi aundiak, 200, 300, 400, 500 toneladakoek askotan eramaten zituzten ontzi txikiagoak, 30-90 toneladakoak, laguntzaille bezela. Orregaitik izan litezkean "Sei ontzi aundi" eta "zazpi txiki", ala bestela "sei edo zazpi" ontzi aundi. Dana dala, Deba bezelako erri txiki batentzat ontzi asko ziran eta giza-semeak geiago oraindik. Berreun edo irureun giza-seme barku bakoitzeko giza-seme pilloa zan. Ontzi oiek betetzeko Beeko-Daba ibaieko jendea bearko zuten. Or ikusten da Gipuzkoa'ko kosta-aldeko errien indarra.

Gipuzkoarrek milla ontzi frantziar baño geiago arrapatu eta ondoratu zituzten. Martin Ochoa de Irarrazabal, Deba'ko kapitan eta testiguak dionez 1.500 ziran frantzesek galdu zituzten ontziak. Eta, debarrei buruz onela dio:

"Y que sabe que solos los vezinos de Deba (sic) en esta presente guerra an tomado seyscientos naos pasagaz entre naos, galeones e otras fustas grandes, pequeñas y medianas, las doscientas dellas armadas con mucha artillería y diversas munyiones que valian más de quatrocientos mylil ducados".

Kañoiak, berriz, 5.000'tik gorakoak ziran gipuzkoarrek arrapatutakoak, amalau lekukoen itzetan. Deba'koek diotenez, eurok arrapatutakoak, 1.300 dik gorakoak izan ziran. Brontzez eta burnizkoak.

Armak

Geure ekonomiaren arazoa armak osatzen zuten. Baña, armak "burnia" gaian sartu genezazke. Alaz ere, España'ko Erregeak kañoi-fabrika Soraluze'n ipiñi zuan "Placencia de las Armas" izena emanaz. "Deva" errekek, euskalerriko zenbait errekek bezela, salto bakoitzeko sortzen zitun ola eta arma-fabrikak Alzola, Elgoibar, Eibar, Sorauze, Arrasate-Mondragoen... Nafarro eta Bizkaiko olak ere famatuak ziran.

Ikusten degu zenbat kañoi zebillen itxasoetan zear. Baña, ez ziran kañoiak bakarrik. Goian aitatu degun "San Nicolas" ontziak emezortzi kañoi zituen, sei aundiak eta amabi txikiagoak. Orretzaz gañera barruan zituen arkabuzak bi kintal polborarekin, amabi ballesta bakoitza amabi azkonekin, eta eunka arma zuri: pika aundiak eta txikiak, ezpata, puñal... Arma kargamentu oso bat barku bakoitzeko. Itxasoko burrukak ez ziran kañoiekin amaitzen. Barkuak alkarren ingurura etortzean, orduan, arkabuzak eta ballestak eta alkar jotzen zutenean asten ziran pikak eta ezpatak; azkenik, puñalak Zenbat arma bear ziran ainbeste itxas-ontzi ornitzeko! Eta, arma erabilketa ez zan itxasoan amaitzen...

Lumera

Lumera edo arrain-koipea ez degu merkataritzan sartu; baña, XVI-XVII'garren eunkietan, bale-koipea merkataritza eta ekonomian garrantzi aundi-aundikoa izan zan. Ikusi dituguz bi itxas-ontzi baleetan: bat "San Nicolas" eta bestea "San Joan", biak barrika-koipez beteak: 1.195 batek eta besteak 1.000. Barril bakoitzak 400 libra zituen, berreun kilo inguru. Lumera orrek argia egiten zuen argizariak beziñ ona eta askoz merkeago eta ugariago. Garai batean Paris erriko kaleak lumera euskaldunekin argitzen ziran eta Europa osoak zuen geure kaietarako joera: bale-koipea nai.

Gerora, euskaldun askok "etxe-kalte" gertatu ziran ingeles, holandes, ruso eta abarrei, bale-arrantza eta koipe-urtzearen teknikak erakutsiaz. Erri oiek Terranoba eta Canada'ko indioei lurra arrapatu eta beuren nagusitasuna agertu zuten ango itxasoetan; eta euskaldunak, etxera. Orrela amaitu zan bale-lumera. Gure kaietan Itxas-ertzen inguruan bat edo beste arrapatzen zituzten; baña, ezer askorik ez. Emengo bale "bizkaiensis", banan banan etortzen ziranak, Kanada eta Terranoba tarteko kolkoak sardan agertzen ziran eta izena ere alakoa ipiñi zioten gure arrantzaleek: Sardako Balea. Ura galdu zuten eta banan-banakoa gelditu. Beti ibilli ziran artu-eman gozoetan indioekin, aien lurra errespetatuz; baña, ondoren etorri ziran ingeles eta frantzesek indioen lurren jabe egin ziran indarrez eta ondoren, itxasoaren jabe. Oorea euskaldunentzat; balea, ordea, eurentzat. FINIS CORONAT OPUS esan barko.

Deba'n maiatzak 10. Urtea 2.000

EUSKALERRIKO OITURA ZAARRAK (OTO TAPOTOTOII)

I.— IÑAUTERI ETA MAMU

—Gogoratzen aiz, i Oto, nola ibiltzen giñan Lazkao'n, Ortegung Gizen egunean (Iñauteri aurreko egunean) kaleetan atez-ate, kantari

Otsaliko, Otsaliko

Nik otsoa bizirik ilko;

Okela bat eta okela bi

Nere burruntzie bete bedi... ?

—Gaur egun oitura ori galdua dok; gaurko umek ez dakite Otsaliko abesten.

— Burrentzia eskuetan, bertan saieski, solomo, txorixo, urdai zatiak ezartzeko.

— Ataun'én beste era batera abesten eben umiek. Orra nola:

Otsabilko, Otsabilko,

Ni basora joan da

Otso aundi bat

Ekarriko, ekarriko.

Neri lukaika mutur bat

Ematen ez diñai

Tripati aurrean burruntzie

Sartuko, sartuko...

—Nundik ote dator oitura ori?

—Ni Napparroa'ko Huizi'n izana nok eta an onela esaten dabe egun orretan:

Zistor mistor

emakunde...

—Eta Emakunde izen onek zer esan nai dau, Pototo? Emakunde, Gizakunde eta Orakunde, or dozak iru berba alkarregaz zer ikusirik badaukatenak:

Gizakunde zan gizonen eguna

Emakunde, emakumeena

Orakunde, guziena.

— Eta, zer esan nai dabe berba orrek?

— Iru egun oneik, Iñauteri eta Karnabal aurreko iru ostegun ziran.

—Otsaliko bezela?

—Bardin. Gizakunde egunean konbita andreak egiten eutson gizonari. Emakunde egunean, alderantziz, gizonak andreari.

—Eta, Orakunde egunean?

— Biak alkarri. Orra Iñauteri aurreko iru ostegunetako festa.

— Iñauteri edo Karnabalak zer dozak, Pototo?

— Iñautegi, Zaldun-iyotiak eta Karnabalak, bat dozak danak.

— Karnabal-bariko erririk ez da izan gure artean sekulan.

—Mamu eta mozorroz jantziak erri guztietan ikusten ziran. Eta Iñauteriak ez dozak gaurkoak.

—Noizkoak, ba?

— 1682'garren urtean Oyarzun'go alkateak San Juan, San Pedro eta San Marzial eguneko Iñauteriak debekutzen ditu.

— Eta, Sanjuanetan be, Karnabalak egiten al ebezen?

—Garai aietan bai; baña, orain aldiko egunetan, Kandelario egunetik asita Austerre egunerarte irauten eben Oyarzun'go Karnabalak.

— Eta, jantzi, zelan jasten ziran?

— Buruan, ardi-larruz egiñiko mozorro bat; gerrian andrearen soñeko edo gona bat, baita oeako estalkia bizkarretik beera... eta, eskuetan Sorgin-Goraizak edo Artasiak.

* * *

— Zer da mozorro, Pototo?

— Mozorro eta Zomorro, mamarro eta mamurro, mamu eta mumurra, danak dozak berba berdintxuak.

— Baña zer esan nai dabe izen oneik?

— Karnabaletako jantziak eta izate txiki-txiki batzuek.

— Sorgin txikiak?

—Bai, Galtxagorri eta Famelirekoen antzekoak.

— Eta, sorgin oneik zer ikusi dauka be Karnabalakin?

—Alde batetik, izena antzekoak. Sorgin oneik jostorraz-ontzi batean gordetzen dira eta eurok emoten deutez, aztiei indar bereziak aztikerirako... Beste aldetik, berriz, aztiak abere-narruz ibiltzen dira aztikeriak egiten, mamu baten antzera.

—Karnabalen antzera.

—Obeto esanda: Karnabalak aztien antzera. Azti onei indarra emoten deutesen Galtxagorri eta Familirekoek dabe mamurro, mamarro eta mamu izenak. Sorginak eta abere-jazkerak alkartzen dozak Karnabaletan.

—Iñauterietan txintzarriak ber erabiltzen dozak.

—Bai galantak Ituren eta Zubietako dantzariak erabiltzen dabezenak.

—Eta dantzak?

—Erri askoen oitura zan Iñauterien dantzariak ateraztea... Sorgiñak, aztiak, abereak, txintzarriak eta dantzak, ez ote dabe orre guztiok zer ikusirik gure aurrekoen leize eta koba-zuloetako bizi-moduarekin...?

– Alan ote da?

– Koba-zuloetan izaten ebezen gure aurrekoek euren elizkizunak: an egiten ebezen aztikeri eta sorginkeriak animali-irudien aurrean. Zulo aietan aztiak mozorroz jazten ziran euren sorginkeri eta dantza rituaalak egiteko...

– Orreik gauzok ez al daude urrutitxo, Pototo?

– Geure euskal-sustraiak be zulo aietan daude... Geure odola andik ba'dator, oiturak, be, zer esanik ez. Ango kutsua eta usaiña dago geure gaurko karnabal-oituretan.

II.— ZOZOMIKOTEAK

– Alditan, Pototo, Martxo il gogorra izaten dok.

—Baña, Oto, Martxoak kalte gogorrek egiteko Apirillarena bear izaten jok.

– Apirillaren laguntza?

– Bai; badira gai oneri buruzko esaera zaarrak Euskalerrian: Zozomikoteak.

– Eta, zer dozak Zozotnokoteak?

– Martxo jauna asarre bizian zebillen zezen gorri baten aurka eta bera akabatzea erabaki eban.

—Zer erabaki erabilli eban orretarako Martxo jaunak?

Zelai eta mendiak elurrez bete goi-goikoraiño: ez zan ikusten belar izpirik iñun.

– Orrela ilko eban zezena?

—Ez ba; zezenak arte zaar baten azpian gorde eban beure burua eta ango belarrak jauda iraun eban Martxo amaitu arte. Zezena bere eskuetatik alde egiten ziola ikusirik, bi egun t'erdi eskatu eutsozan Apirillari, zezena il aal izateko.

– Bi egun t'erdi oneik al dozak Zozomikoteak?

– Bai; baña, beste era batera esaten dabe Ataun'en: Apirillak Martxoari:

A Martxo, Martxo!

Diat esker gaizto!

Martxoak erantzun:

A Apiltxo, Apiltxo!

Ekatzak egun bi

Ta erditxo.

Artzai orri

Kendu iotzan

Eun arti eta une

Eta berari

Ezkerreko begie.

Emon eutsozan egunok eta izugarrizko ekaitzak eta urjolak sortu ebazan Martxok. Ur oiek eun ardiak aurretik artu eta eraman zituen arzulo batera. Artzaiak arie artu eta bazeraman uretatik aparte; baña, ardiak aldamenara begiratzean, sartu zion adarra begitik eta gelditu zan artzaia begi gabe. Martxoak egun gaiztoak luzatzen ditula, alegia.

III.— ERRAMU-EREÑOTZA

Erramu edo ereñotza misterioz betetako zugaitza da. Nundik datorkio misterio ori eta erriak dautson errespetoa? Bere orriak iraunkorrak direlako? Bere ostroek dituzten sutantziengatik? Ez dakigu nundik norakoak diran arrazoibide orreik. Arri-arotik onera ala izan da beti. Baserri askok dabe bere inguruan erramu-ereñotzaren zugaitza.

Santi7amiñe

– Pototo, zergaitik da Santimamiñe koba ospetsua?

— Bere leize-zuloan dagoz orain amar millatik gora urte asko, egiñiko animalien marrazki miragarriak: irudi oien aurrean egiten ebezan gure aurrekoak curen eizerako aztikeriak.

— Santimamiñe leizeko mendiak ereñotzez josita dagoz.

– Ereñotzakin batera sorginkeriz betetako esaera zaarrak, be bai. Kobazuloa, animalien marrazkiak, sorginkeriak eta ereñotza; guztiak alkarrekin Santimamiñe'ko leizean.

– Beste gauza bat ere badago mendi-gallurrean: San Migel'en ermitatxo (Oto'k).

Beerago, Santimamiñeko koba-zulo aurrean, beste ermitatxo bat: San Mames'ena.

– Guk onela abesten genduan:

San Mames, bart egin dot ames;

Ona ba'da bion partez

Txarra ba'da bijoa aldrebez...

Sanjuanak

– Badabe Sanjuanak geure antxiñako oituren eguzkiganako zerbait.

– Sua, Pototo.

– Sua, lorak, lizarra, goizeko intza eta siniskeriak ugari.

– Eta ereñotza?

—Ez zaio erramurik falta. Ona zer dioten esaera zaarrak: San Juan gabean etxe-atarian egiten daqn

EUSKALERRIA

suan, erretzen dira aurreko urtean bedeinkatutako erramuak.

—Beste esaerarik?

—Era berri baten: Erramu egunaren besperan erretzen dira erramu zarrak. Ori, San Juan suak aurreratzea dala esan oi dute zarrak...

Ekaitzak eta tximistak

—Arri-aroko oitura da koba-aurrean aizkora bat, aoz gora, imintzea tximisten aurka.

Pototo, zer da Arri-aroa?

—Prehistoriako garai bat; orduan arria erabiltzen zan lanerako tresna bezela

—Aizkora be, arrizkoa al zan?

—Aizkora eta beste lanabes guztiak. Adarrezkoak ere baziran. Tximistari, tximist-arri be esan oi zaio. Tximistak jotzen duanean arrizko aizkora bat jeisten da lurrera eta zazpi estadio sartu lurpean...

— Orregaitik al da aizkora tximistan kontrakoa?

—Baita ereñotza be: Ekaitza sortzen danean, erramu orriekin gurutze bat egiten eta bular-gañean jarri...

—Erramu bedeinkatua?

— Erramu bedeinkatua zapaian edo tximiñi atzean gordetzen da; ekaitza sortzen dan bakoitzean, aldi bakoitzean, pittin bat erre bear da

—Eta geiago zer?

—Erramu bedeinkatua, ekaitz egunetan erretzeko, gorde oi da; ta erretzean, garrrik ateratzeko, erre bear da. Orretarako su-autsa botatzen zaio gañera, estaltzeko...

Sorgin eta gaitzen kontra

—Zer diote oitura zaarrek?

—Etxeko leioetan erramu gurutze txikiak ikusten dira, sorgiñen kontrakoak.

—Eta, gaitzak?

— Gaitzetatik libratzeko gurutze txuriak (erramuzkoak) jartzen dituzte leio eta ateetan.

—Eta, soroak?

—Etxeak eta soroak zaintzen ditu erramuak.

—Zaindari ona al da?

— San Juan sua bezin ona eta geu ere ibillitzen giñan Sanjuan suakin sororik-soro sorgiñak aldentzen, kantari:

Txarrak kanpora

Onak barrura...

—Geure Euskalerrri zaarrean ez zan erramuzko gurutzerik falta soro bazterretan.

— Gaitz guztietatik libratzeko?

— Eta, batez ere sorgin, ekaitz eta tximistetatik.

Erramu-Eguna

Jentillen ereñotza bataiatu egin eben eta Erramu biurtu. Arrezkero Erramu-Eguneko ereñotza erabiltzen da etxe, leio, ate, korta, baratz, solo eta abarretan eurak bedeinkatu eta gaitz guztietatik gordetzeko.

—Bentanetan be jartzen dabez?

—Ikulluetako ateetan an egoten dira erramu-gurutzea eta eguzkilorea biak alkarrekin.

—Zertarako?

—Biak dabe tximisten aurkako indar berezia.

— Zer dio oitura zaarrek?

— Erramu-egunean bedeinkatzen dira oen gañean jartzen diran erramuak.

— Eta, geiago zer?

— *Erramu Egunean gurutze txiki mordoskak eraman oi dira elizara bedeinkatzeko. Gurutze oien egurra saastzezkoa izaten da. Baña, gurutzean erramu ostoak jarri bear dira... Soro bakoitzeko iru gurutze...*

Maiatzeko Santakutzak

— Zer diote oitura zaarrek?

— Erramu Egunean eta Maiatzaren Iruan, sarastz edo erramuakin egindako gurutzeak eraman oi dira bedeinkatzera...

— Eta, zer geiago?

— Maiatzeko Santakutz egunean, artzaiak erramu gurutzak (kandela tanto batzuekin) egin oi dituzte txabola atean, ardiak gordetzen diran kobetan, ardi-esietan, baratzetan eta landetan jartzeko ekaitzaren kontra...

—Besterik?

— Erramu gurutzeak, kandela bedeinkatu tanto batzuekin... Erramu gurutzeak erriaren mugetan jartzen dira Maiatzeko lendabiziko egunetan.

— Sanjuan suak, Maiatzeko Santakutzak, Kandelario (kandelak bedeinkatzen diran eguna), erramua... Orra zenbat gauza alkarrekin naasirik.

Beste zenbait gauza

—Bada besterik, ala?

— OI la-lokak, txitoak okerrik gabe atera ditzan, arrautz azpian bi erramu osto ipiñi bear dira...

—Nun besterik imiñi bear dira erramu ostoak?

—Ermitetan, bedeinkazioak egiten diranean, erramu ostoak jarri bear dira urbedeinkatu-ontzian...

IV.— ELORRI-ARANTZA

Elorri Zuri

Udaberriakin batera agertzen dira gure mendietan elorri-lora txuriak ikuskizun zoragarria: elur-malutak adarretan zintzilik, ala tximeletak alkarri beuren amorioak kantari...?

Elorri-arantzak eta erramu-ereñotzak alkarren inguruan dabiltz euren artean badabe zerikusirik asko.

—Zer, baña?

—Erramua bezela, elorri-arantza be, oso da misterio-soa: ez zaio falta ez Sanjuanik, ez Maiatzeko Santakutzik, ez tximistarik...

— Arri-arokoak al dozak orrek, be'?

— Illunbe aietan dabez beuren sustraiak. Nork argitu illun aiek?

— Zeuk argitu.

— Ni belar-arteko ipurtargia nauzu; baña, ona emen argi-izpitxo batzuek.

Erramu-gisan

Zeanuri'n diñoena:

— Maiatzaren Iruan bedeinkatutako elorri zuriekin gurutzeak egiten dira soroetan jartzeko.

Ipar-aldeko Euskalerrria'n:

— San Juan egunean, goizean goiz, eguna zabaltzerako, juaten da etxeko jauna bere soroetan elorri txuria aldatzera. Geroago, berriz, bi adartxorekin gurutzea eginda, etxeko atean josi. Aurreko urteko adar zarrak San Juan eguneko sutan erre oi dituzte.

Urbia'n, berriz:

Artzaian txabolako atean San Juan egunean bedeinkatutako gurutzea jartzen dute elorri zuriakin egindako gurutzea.

Tximistak

Berrero Ipar-aldean:

— Sara'ko ermitearen kanpo aldeko gurutzearen ondoan elorri zuria jartzen dute, tximistak ermitea jo ez dezan. San Juan egunean, ikulluko ate-buruan elorri arantza jartzen dute. Txismisten kontrakoa oi da.

Ataun'en:

— Txabolako atean, helar onakin batera, elorri zuria jartzen dute tximistaren kontrako.

Oyartzun'en:

— Maiatzeko Santakutzetan Urkabe mendira joaten dira errogatibetan mutil koskorrak, loretutako elorri zuri adar bat eramaten dute bakoitzak. Errogatiba ondoren, adarrekin gurutzeak egiten dira, leioetan jartzeko, tximistaren kontrako.

— Zergaitik da elorri txuria txi misten kontrakoa?

— Ara zer dioten Iparaldeko Euskalerrria'ren ertzean: Gazkuña'n uste dute elorri zuriaren gañera ez dala tximistarik erortzen.

—Zergaitik?

— Ekaitz batean Ama Birjiña Jesus aurra besoetan zuela, elorri zuri baten azpian gorde zalako.

Lapurdi'ko kontu zaarretan maiz aitatzen da elorri zuria. Ona eman, gauza askoren artean, zer dion Mary Aristi'ren "Mutil baten historioak":

—Elorri txuri baten azpitik ateratzen zaio emazteki zahar bat (ura zan Ama birgiña...) Andre arrek eman zion elorri zuri adar bat... (Mutila deabruakin burrukan eginda)... Gogoatu zitzaion bear zue la bere elorri txuria: artu zuen eta arekin eman ziozkan iru golpe eta kasatu zuen.

— Eta zer da "Istorio mistorio"?

— Mutiltxo baten kondaira. Bera jaio baño len, bere gurasoek deabruari saldutako ume baten istorioa.

— Umeak jakin al zuen ori?

Jakin zuanean etxetik alde egin zien, Kamiñoan zijoala atxo zaar bat atera zitzaion bidera: Azkenean gan zen aurra. Eman zen bidean; suerta zaion ikustea atxo zahar bat. Galdetu zion nora zoan. "aide kurri noa". Eman nion aurrari elorri txuri adar bat, jo zezala lehendabiziko atzeman zituen portalak.

— Eta, elorri beltza, zer?

—Badegu berriren bat Ataun'en: Artzaiak ez dute sekulan elorri beltzaren arantzarik ezertako erabiltzen; benenoa oi dauka. Sugeak sustraiak jaten omen dizkio elorri beltzari neguan.

Arrinda'tar Anes, lekittarra
(Deban - 1968)

==x= =x= =x=

KONDAIRA

EUSKAL-ERRIKO OLAK

Olak ziran denbora bateko burnifabrikak.

V'garren gizaldirako ba ziran Euskal-errian.

X'garren gizaldiratik aurrera artu zuten gerora izan zuten indarra ta garrantzia.

XV'garrenian ba ziran Gipuzkoa ta Bizkaian 300 (iru-reun) ola baño geiago. Ola aietatik sortutako burnia fama-tua zan bai Iberia guztian, ta Auñamenditik beste alde.

Euskal-erriko olen antzekoak ziran Kataluniako "farga" k ere. Gizaldi artan ba ziran Katalunia'ko Auñamandiko ibai zulotan 150 (eun de berrogeta amar) farga baño geiago.

Euskal-erriko oletarik eta Kataluniako fargetatik irtezen zan Kastillara zijoan burnia, Toledoko Capilla Mayorreko burni-ezia, edo ta Granadako Capilla Realekoa egiteko... Baita Toledo'ko armak ere burni orrekin egiten ziran; bai ezpata, bai mandoble, bai estokeak ere...

XIX'garren gizaldian galdu ziran olak gure errian. Olakin batera beste gauza asko ere galdu ziran eunki orretan. Burrukak ekarri ziguten ondamentia Euskal-errira...

OLA AUNDIAK

Erreka bazterretan zeuden, uraren indarraren bidez lan egiteko. Su-labea, mallu aundia ta bi aspo zituzten ola bakoitzak.

Bi kurpil edo errueda urak erabiltzen zituan. Kurpilla, berriz, mallua ta aspoak erabiltzen zituzten.

Olaren tresna guziak zurezkoak ziran, malluaren burua ta txingudia kendu ezker.

Kurpillak ematen zioten indarra ta bizkortasuna bai malluari, bai aspoeri ere. Zenbat ur pasatzen zan, ainbat indar ta bizkortasun.

Mea edo minerala burni biurtzeko, egur-ikatzarekin berotzen ziran labeak. Labearentzako aizea bi aspoak ematen zuten. Narruzko aspoak ematen zuten. Narruzko aspoak, ala ere.

Labetik ateratako burniak "agoia" zuan izana, Zikin-xamarra: errautza bai zueen geiegi. Zakar aiek kentzeko mallu aundiarekin jotzen zuten agoia.

Orrela burnia garbitu ondoren, berriz ere malluarekin jotzen zuten, berotu bat emanda gero. Burnia luzatu ta zabaldu, bear zuten eratan, merkatura eramateko.

Ola bakoitzean bi langille taldek lan egiten zuten. Talde bakoitzak bost lagun zituan ta gañera laguntzalle bat. Laguntzalle bakarra bi taldearentzako.

Taldeak alkarrekin aldatzen ziran, bata bestearen ondore. Etenik gabe. Gau ta egun.

"Urtzailleak" zuan labearen kontu.

"Teleak", malluarena.

"Peaillea" zan bestien laguntzallea: Onek ekartzen zuan ikatza ta mea laberako. Orretaz gañera, giltza baztuen bitartez, aspoen eta malluaren bizkortasuna ta indarra, bere mende zeuden. Giltza iriki edo itxi, ieieak esaten zion erara ta modura. Zenbat ur, ainbat indar.

Mea labean sartu, berotu, burnia atera ta jo malluan: ori zan talde bakoitzaren lana. Lan ontan bostak ekiten zioten alkarrekin. Lana bukatzean, sartzen zan bigarren taldea. Laguntzallea etzan aldatzen. Onek bere deskansua, tarteka, bestien lanak libre uzten ziotenean, egin bear zuan.

Udaran, errekek agortzen ziranean, orduan ekarten zuten urterako bearko zituzten ikatz eta me edo minerala.

Ola-gizonak olan bertan zuten bizibidea. Etzuten bertatik irtezen ez gau ta ez egun. Jan da lo bertan egiten zutelarik. Bakar-bakarrik larunbata gabean irtengo ziran olatik jai arratsalderarte.

OLA TXIKIAK

Mendi gallurretan zeuden. Labea mellurik gabe. Asporik ere ez. Aizea mendi gallurrak zekarrena sartzen zuten labean tubo batzuen bitartez.

Labetatik ateratako agoia, zurezko mazo aundi batzuekin jotzen zuten, errautza ta zikiña kentzeko.

Agoi ori, gero, ola aundietara eramaten zuten, lantzeko: zapaldu, luzatu, borobildu...

Euskal-erriko olak, Katalunia'ko fargak ziran.

Agoiari "massers" deitzen zioten. Malluari, "Mall", ta olari, "farga".

X'garren eunkian Kataluniako Auñamendietan (Pirineoetan), sarkaldean, erri euskaldunak bizi ziran. Eunki orretan euskera galdu ta katalanez ikasitako ballara ba omen zan.


Euskerazko kutzuak ba ditu oraindik ere alde arrek, parte arrek.

Ez aldago iguru aietan "Valle de Aran" izeneko ballara? "Aran" itzak ez al du "Valle" esan nai?

Olak eta fargak ez ote dute jatorri berdiña.

ANES





EUSKALTZAINDIAK 25 URTE BETETZEAN BATUAREN ARAZOA

25 urte dira Euskaltzandi berria sortu zanetik: Zaarkeriak utzi eta Gaztekeriak sartu. Ori izan zan Euskaltzaindi berri onen eginbearra. Aurreko 50 urteen lanak ukatu eta era berri bat, betirako, sortu.

Zelako girotan egin zan aldaketa eta iraultza ori agertu nai nuke eta orretarako Don Manuel Lekuona'ren aurka zabaldu zan agiri bat. Agiri ura artutakoan artean Jose de Artecheko idazleak gendukan bat. Ondoren, 1970'ko Dagonillaren 9'ko Zeruko Argian idatzi zuen lan au:

LOTSA GORRIZ

Gaur uztaillak 23. Karta bat ekarri didate goizean nere lantegira. Korreoz iritxi da. Donostian botatako eskutitz aztun xamarra. Ireki det. ¿Zer ote dakar?

Zazpi zortzi edo orri aunditako idatzia. Ez dauka firmarik. Erderaz esaten dan bezela «anonimoa», izen-gabea, baiñan bere egillea aalegindu da, ori bai, idazki txukun bat ateratzen.

Guztiz apaiña da, eta ez diot au parre egiteagatik. egia esaten det, besterik ez.

Osoan ez det irakurri. Aurreneko orria bakarrik, eta au ere erdizka. Alde batetik firma gabe datorrelako, bestetik oso luzea, eta arrazoi guzien gaiñetik, ezin esan alako pena artu dedalako.

Gipuzkoar benetan agurgarri baten kontra dago egiña.

Agurgarria edadez, agurgarria jakitez, agurgarria berezikoitasunez. Eredu argi bat dan apaiz jaun batez gizatasuna ezereztu nai du «anonimoak». Au da egia.

¡Ai orrelako asko bagenitu Euskalerrian!

Ez naiz ni bakarrik idazki ori artu dedana. Beste batzuen eskuetara ere iritxi da. Miñez irakurri dute, nerekin itzegin dutenek beintzat. Eta aizkenean nik egin dedana egin nazkaz kartakin.

Ez det emen idazki ori ezerezteko asmorik. Iñundik ere ez. Esan det ez dedala osorik irakurri. Beste bat da nere asmoa.

Es dakit, eta ez det pentsatzen jarri nai nork idatzia dan. Ez det juizio txarrik egin nai. Gaiñera etzait batere inporta.

Baiñan «anonimo» orren egilleak lanean oso ondo daki. Esan nai det ondo eta txukun idazten ba dala norbait.

Ezta egun batean edo bitan egindako lana, oso astiro egindakoa baizik. Pentsatuta dago eta kostatu zaio berea egilleari.

*Aizkenean burua izkutatzeko. Ori da benetan penagarria.
 Baiñan utzi dezadan alderdi ori.
 Auxe besterik ez nuke esan nai. ¡Zenbat eta zenbat alperrikako egiñaal ez
 degu ondatzen!
 Erremediorik ez degula esango nuke. ¡Zenbait aalegin txikikeritan!
 Eta gaitzerdi kaxkarkeriak bakarrik balira.
 Gure etxeko tellatuari arriak botatzeko afizio berezia daukagula ezin ukatu.
 Gure gizonik aipagarrienak lokatsatu bear baditugu, gureak egindu.
 Ni beintzat paper oiek irakurtzen ostean lotsatu egin naiz lotsa gorritz.
 Tristurak jan bear ninduen...*

Jose de Arteche

«Zeruko Argia»: 1970-VIII-9'an.

Baña, ez zan Don Manuel bakarrik erasotua baita, Eizmendi'tar Iñaki "Basari", Franco'ren garaiko euskal-idazle jator eta ugarienetako bat. Ona zertzuk esan zituzten "Euskal Elerti 69" Bilbao-Donostia 1969. KRISELU-7-8-9 Hatsapenak-2 (Orrelaxe dakar liburuak), 547'garren orrialdean:

"Euskeraren batasunik nahi ez duten euskaldunak euskeraren eta Euskalerrriaren etsaiak direla deklaritzen du.

Are gehiago negarreztatzen du batasun hori gonbatitzen dutenen portaera, bereiziki Eizmendi'tar Iñaki "Basari" jaunarena, zeinak Euskaltzaindiak Arantzazun hartutako erabakiak onartuko zituela publikoki manifestatu ondoren, bere itzari ez dion eutsten..."

Au idatzi zutenek bere izena ipiñi zuten aurretik: Gabriel Aresti, Xabier Kintana, Ramon Saizarbitoria eta Ibon Sarasola. Don Manuel'en aurkako idaz-lanak ez du izenik. Liburu au ez zan 69'an agertu, urrengo urtean, baizik eta aizkeneko orrialdean daude gauza oiek idatzita. Orrek esan nai du D. Manuel Lekuona'rena eta idatzi au garai berdiñekoak dirala.

Baiona eta Eibar'eko ziñu eta mezuak urte berekoak dira; Baiona'koa Pazko-igandekoa da eta Eibar'ekoa maiatzaren lenengokoa: 1970. Ziñatzalleak berdiñak dira.

Urte orretan bertan, 1970, Dagonillaren 2'an, Xabier Kintana'k idatzi bat atera zuen Zeruko Argia'n Baiona'ko billeraren berri ematen. Ona zertzuk dion:

"Bizkaitik gazte pilo ederra zegoen, andereñoak batez ere. guztiek esaten zutenetik hauxe geratu zan garbi: Lapurdiko liburuengatik ez bazen (Atsularren GERO famatu gatik hain zuzen),... ez zutekela ezertxo ere adituko... Gauza bat edo beste gaizki eginda egotea (izan diteke) baina horiek zuzentzeko... atzera bihurtzerik ez dago, zaharreria zenbaitek hala nahi badu ere..."

Euskalkikeriak urrundu egiten gaitu eta frantsez edo espainolez balia erazi...

Abarkak baztertu eta zapatak jantzi. ez dut uzte negozio ona denik inongo herritan abarkagintza..."

Azular'en GERO liburutik ikasi zuten euskera zenbaitzuk eta aren okerkeriak ere ikasi zituzten: (Zeñak, Zeren, latiñekotik artutakoak, zergatiak erakusteko. Latiñez QUI, quae, quod eta jenitivo Cujus erabiltzen da orretarako eta ortik dator Zeñak eta Zeren. Abadeek, latiñez ikasiak, sartutako okerrak dira eta Axular'ek ere erabiltzen zitun, abadea izanik.

Frantzia'ra joan ezkerro, an euskalkiek alkarrengandik urrundu egiten gaitu, eta gazteleraz itz egin bear. Orain, 25 urte beranduago, Batuari esker, ez daukagu Frantzia'ra joan bearrik. Emen bertan, batez ere Bizkai osoan ori berori gertatzen da guraso eta seme-alabaen artean. Batuari aintza eta esker ona; Frantzia'ra joan bearrik ez daukagu gazteleraz egiteko.

Abarkak baztertu dituzte zapatak jazteko eta abarkagintza ez da negozioa gaurko egunean. Ez orixe. Gaur Batuaren zapatak jazten ez ba'dituzu, Euskera ez zaizu 'negozio' biurtuko. Ez daukazu errapera urbiltzerik, zapatadunen baimenik gabe. Or gelditu bearko dezu zeure abarkatxoak eskuetan.

Zer zan Euskaltzaindiak Arantzazu'n erabaki zuena? Ona:

'LITERATURA EUSKERAREN BATASUNARI BURUZ EUSKALTZAINDIAREN AGIRIA'.

Arantzazuko billeren ondorean, han izan ziran euskaltzainak elkaturik argi-bide hauek eman zituzten...

2) H-ren hauzian, izan diren iritziak entzun ondoan, erdi-bide bat auke-ratu da hasteko: alegia, begi onez ikusiko lukeala Euskaltzaindiak letra hori bi bokal berdín nahiz ezberdinen artean erabiltzen astea.

Honek ez du esan nahi gorago jo nahi dutenen saioak ez direla ongi ikusiak izango...

EUSKALTZAINDIK
Arantzazu-Oñati, 1968
urriaren 5-ean.

Bilbon, 1079-eko Abuztuaren 6-an.

Zeruko argia'n agertu zan idatzi au il orretan berta, XXXI-garren urtea 392 zenbakian. 1970'ko urtea izan zan Baiona eta Eibar'ko ziñarena, Don Manuel eta Basarriren aurkako idatziak, Kintana'ren agerpenak eta oraingo Euskaltzaindiaren agerpen au...

H'a bi bokal berdín naiz ezberdinen artean 'begi onez ikusiko lukeala Euskaltzaindiak erabiltzen astea'. Orrela, bi bokal berdín eta ezberdinen artean H erabilli ezkerro, idatzi guztiak H'ez bete bearko litzazke.

Baña, aurrerago joan nai dutenak ere, ondo ikusiak izango dira. Beraz, ipiñi ditzagun H'ak aurretik eta atzetik eta orrela ez du arazo onek amaierarik izango. Orregaitik izan dira ainbeste naaspilla idazleen artean. askoren lanak torrez beteta agertu izan dira; H bakoitzak torre bat, petroleoa ateratzen ari diran landa oietakoen antzera. Zenbat alperrikako lan! H'ak salbatu duela euskera esateko, aurpegia bear da.

Urte orretan, 1970, ikastoletako zenbait andereño ez ziran lo egon. Kintana'k esan zigun Bizkaitik gazte asko izan zala Baiona'n; batez ere, andereñoak. Loolako Agiria atera zuten plazara. Onela diote:

“... a) Arantzazuko arauak, erabakitzat hartzen ditugu eta batasunaren bideen oinarritzat...

c) Liturgia taldearen batasunaren bidea ez dugu geuretzat onartzen...

Loiolan, 1970.
IKASTOLETAKO IRAKASLEAK”.

Erabaki onek ondamendia ekarri zigun Ikastoletako liburu arazoan. Millaka ta millaka liburu eder, bost mailletarako atera ondoren, margoz eta marrazkiez beterik, or dauzkagu oraindik usteltzen, H'rik erabiltzen ez dutelako.

Urteak pasatu dira, atzera martxarik ez dutela esan digute bein eta berriz (Biscuter auto txiki aiek ziran atzera- martxarik ez zutenak) eta or dabilta batera ta bestera. Bitarte onetan, 1989 Uztaillaren 30'ean, ia 20 urte berandua-go, onela zion Federico Krutwig euskaltzaiñak Gaur-Express, El suplemento, aldizkarian:

“EL BATUA NO SIRVE PARA NADA

... Sí, sí, porque el batua no sirve para nada y la verdad es que se está desanimando la gente. Muchas regiones en que se habla bien el vascuence, el chiquito llega hablando batua y el padre empieza a pensar: me están engañando, ésto no es euskera... el batua se ha convertido hoy en la lengua de los que no saben hablar vascuence. Y no tiene más que mirar la forma en que se da el título de EGA a un profesor. Ese título no da noción más de lo que sabría un niño de diez años y si un profesor está hablando a los chicos y habla peor de que ellos...”

Finis coronat opus.

Arrinda'tar Anes'ek.

EUSKARA, JAIKI ADI PLAZARA!...

—Amar plaza baietz!...
Bergarako Dema: 9-11-78

*Euskara,
zer zara?
Idi-aposturako gaia?
Mando-arteko dema?
Egin dezatela dema
eurak,
giza-dema bada-ta.
Baiña, Euskera
zu zer zera?
Jai-arratsaldeko festa?
Mandoen indarra
proatzeko dema?
Egin baietz amar plaza?
Euskera nerea,
Zergaitik
eantsi dizute alperrik
orrelako karga?
Il-zorian zaudela
diote dotore jaunaren inguruan
dabiltzan akolitoak.
Zer dala-ta
eantsi dizute orrela
Hatxe zarra
alperrikako zama?
Lenbailen gorde zaitzaten
[artxiboan
galartsuetan,
diskoetan,
kaseteetan
lurperatu nai zaituzten
[enterradoreak?
Ilda gero
edo bizirik zaudela,
aterako dizute muiña,
gibela,
egiteko salda bero.
Ikullu-usaiña
dariozu sortzetik...
Zurerik ez dute beste akatsik
ezagutzen, baiña,*

*robot berria
bear omen dute
ariña,
garbia,
korta-usaiñik
gabea...
Beuren burutik
erdia.
Euskera zaarra,
konbeni zaie
zu iltzea.
Zatiak
bear omen dituzte
zureak
sortu aal izateko
robot berria,
usai-gabea
bizi-gabea...
Frankestein berri auen
mistro zatarra.
Requiescat in pace
Euskera zaarra,
ez bait dezu jaso oraindik
baserri-maillarik...
Zurekin badoa
iñularrean
Euzkadi osoa...
Millaka urteko kultura
gordailloa,
aspaldiko kutxa,
bota dute kanpora,
zaarra bait da, zaarra;
txatarra besterik ez, txatarra...
Pipiak jota omen,
pipiak jota,
kalera bota
barruan daraman
aberastasunekin batera.
Arrian arotza,
burnian arotza,
egurrean arotza...
Arri-arotik arriak lantzen*

*arotza,
burni-arotik burnia lantzen
arotza,
egur-arotik egurra lantzen
arotza...
Arotza, beti, arotza...
Amar milla urteko kulturaren
[kutxa,*

*Euskera zaarra,
kultura berriaren aurzaia.
Euskera berria
probetetan sortua?
Amandre zaarra bezelako
aurzai egokia
ez dezu bela topako
Euskerazaindia.
Zergaitik beartu iltzera
oraindik bizi dan Euskera?
Gorpua, ikerketarako gaia?*

* * *

*Olimpo'tik turuta-otsa:
—Madarikatoak
Euskera zaarraren biotza
bizirik gorde nai duten
tonto-lapikoak.
Iltzera zoazte idazle bezela,
Euskera zaarrakin batera.
Arranoak gera gu, arranoak;
zuek, berriz, eltxoak...
—Eltxoak gara gu, eltxoak,
arranoak zuek, arranoak;
baiña, eltxoa begi-barruan
sartzerakoan
begiak gorri zaizkizu, begiak,
begietan odola dezu, odola,
bista-gabeko arranoa
gelditu zara,
bestela,
ez zenduke ilko Euskera.*

A. ARRINDA

II

"EUSKERA...? EZ DA ILKO"

Automobil batean giñan iru gizaseme.

Baserritarra bat, erdaldun gastea bigarrena ta irugarrena ni.

Euskera genduan gai.

—"Nola leike euskalduna izan da erderan aritzea? Gure aurrekoetatik orrelako aberastasun ederra artu ta itxasora bota...!? Euskera zapaldu nai dutenak ba-dira (bai euskaldunak ere), baña alperrik dabilta, Euskera ezta ilko!!!".

Berari begira begira nengoan.

—"Nungoa zera?" Galdetu nion.

—"Baserritarra naiz. Idahon zazpi urte igaro ditut eta antxe ikasi det Euskera maitazen. Ikustekoak dira an zer Ian egiten dituzten Euskera gordetzeko, ta bizi-rik irauñ dezan. Ta emen, Euskalerrian!, oinperatu...!? Ez, eztago ortako eskubiderik.

—"Izan ere-erantzun zuan erdaldunak euskeraz-ez det konprenditzen euskalduna izan da erdera nola erabilli leiken...

—"Baña zu erdalduna zera", eraso nion.

—"Bai erdalduna naiz, baña ume nintzanetik amalu urte betetzerarte baserri batean bizi izan nintzan... ta gaur gustora egiten det euskeraz..."

* * *

Nerekasa nengoan pentsatzen Idaho'ra joan bear ote genduan guztiok Euskera maitatzen ikasteko...!

Naaspilla gogorra sortzen ari zaigu aspalditxo onetan: erdaldunak euskeraz ta euskaldunen semeak erderaz...

Euskalerrian badira (bat baño geiago) senar-emazte zaarrak, alkarrekin erdera motrolloan ari diranak.

Ezagutzen ditut pare batzuk.

Zergatik ori?

Euskera kategori gutxikoa dalako, euren iritzian...

Euskera ta politika naasten dituztelako...

Euskera dala ta euren bizitzetan ezbear asko eraman izan bear izandutelako...

—"Oye, Joxepa Iñasi, traeme los pospolos para quemar pipa", zion Joxe Ramonek bere berrogei urteko emazteari.

—"¿Dónde están?".

—"En la calicaciOn de la chimenera".

("En la chimenea de la calefacción" esan nai zuan gizajo arek.

Orrelako ateraaldiak ez dira antzerkitan bakarrik entzuten, euskaldun artean ere bai...

Zergatik Naparroa'ko ballera askok euskera utzi ta erdera artu izan dute bat batera...?

"Ez bai du ezertako balio..."

* * *

Gure gizartea erderara eginda ba'dago, gizarte on aldatzen alegiñak egin bearko ditugu "baldin gure zañetan odolik badegu"...

Eta bitartean euskaldunak, bere burua defenditzeko aña erdera, jakin dezala...

Baña ez jakingarriak erderaren bidez ikasita!

Ori, ez!

Jakingai guztiak euskaldunak euskeraz ikasi bear ditu.

Ikastola euskaldunetan bear ditu ikasi.

Eta gañera erdera erabiltzen ere bai, bere burua parregarri ikusi ez dezan gure gaurko gizarte burugabe-ko bedeinkatu ontan.

Gai oneri buruz negar egitekoa da.

Gizaldiak joan, gizaldiak etorri, euskaldunen eskubi-deak ez ditu iñortxok ere betetzen. Eta on gaitzerdi litzake eukaldunak eurak eskubide oiek eskatuko bali-tuzteke. Ez gera orrenbesteraño eltzen. Alabeardakoan ixildu ta egon.

Konforme algera morokilla janda?

Sakela betetzea naikoa al degu?

Ala bada, probetxu deizula!

* * *

Baña ume euskaldunari jakingaiak euskeraz erakus-tea, Yainko'aren Legeko sustraiean dagon gauza da! Gizasemeak jaiotzean berakin besaspian dakarren esku-bideetan lenengoetakoa!

Eskubide oiek zapaltzen dituan gizartean zuzentasu-nik ote leike Zuzentasuna, nun?

Euskera ilko ez bada Idaho'ko artzaiaren antzeko asko bearko ditugu.

—"Euskera, ez ta ilko!"

Guk nai ez ba'degu ezta ilko, bañan baserrietan Euskerarik maitatuko ez balitz, elbarri ta gaxo geldituko zaigu... Baserri askotan maitatzen dute Euskera (bestelakoak ere izan arren), baña ondo begiratzen badiogu, erederaz ere tajutzen diranak dira geienentxoetan.

—"Para Pili del caserío Arat-erreka de Amboto, "Espasmo" de Viriato Rebollez". Orrelako zentzungebakeriak ez aldituzu radioan entzun, gure baserritarrak eskatuta?"

Ez da aurrenekoa izango, erritik kanpora bi urte neskame pasata, errira etortzean, erderakazoka ekiten dutenak... Sortzez euskaldunak diran askok biotza pipiak jota daukatela uste det, gai oneri buruz...

Zer poza nerea oker ba'nego!

* * *

Gizaldietan zear baserria izan da Euskera ta euskal oituren Ikastola Nagusi ta Unibersidade. Berari eskerak gera gaur euskaldun.

Gure gizartean, oraintzurarte, baserria zan jaun da jabe.

Etzan erderarik bear.

Bada gaur kalea nagusi egintzaio ta kalean erdera da jaun da jabe... Eskola eskasenean ere erdera da nagusi... Ez dio Euskerari sartzen usten ezertako ere...

Elizatik kanpora nun du Euskerak bere giroa?

Ez toki askotan...

*

—"Ez da ilko!"

Baña artarako bearrezkoa da lenengo Euskera ikastoletara eramatea. Ta bigarren, ume euskaldunak euskal ikastoletara eramatea... Postutzen nau biotza euskal ikastoletan erdaldunen semeak ikusteak. Nik baserritarrak nai nituzke ikusi.

Samiña da: gure euskal ikastoletan baserritarren umerik ikusten ez.

Oker banabill, errutik atera nazazute euskal ikastoletako andereño oiek. Zuek dakizute zer klasetako umeak dabilzan gure ikastoletan.

Ez diazute esango baserritarrak ez dutela euskal ikastolen bearrik euskeraz badakitelako...

Euskal ikastolak kultura euskeraren bidez emateko dira, ez Euskeraz ikasteko bakarrik ta gure baserritarri kultura ta jakingarriak euskeraz artzea iñori baño geiago konbeni zaie ta iñork baño probetxu geiago atera ere bai.

Orduan bai esan genezakegula lasai:

—"EUSKERA EZTA ILKO!"

ANES-1966

III

EUSKERA, IL BEAR OTE DEZU?

Askotan entzun izan degu "Patxi Tellatu"ren istorioa: egoaldetik etorritako semea (Francisco Tejedos). Euskalerrian bersolari.

Iazkau'ko erriak ondo daki orren berri. Bai "Lazkao-txiki" k ere.

*

Gaur emen kaso baten berri eman nai nuke. Amalau urte bete berriak ditu:

—"Zer dezu izena?"

—"Lorenza Bravo".

—"Nungoa zera?"

—"Extremadura'koa".

—"Zertan zaoz eman?"

—"Dotriña erakusten".

—"Zeñeri?"

—"Ume euskalduneri. Bost edo ze iurtekoak dira".

Orain arte esan deguna ez da arritzekoa. Lan ori askok eta askok egiten dute gure elizetan. Baña Deba'ko eliz bastertxo batean Dotriña erakusten dagoan neskato apal ori, extremeñoa izada, Euskeraz ari da Dotriña erakusten. Euskaldunen umeai erakutzi ere, alajafietan!

Ez al da ori txalogarri?


—"Nun ikasi dezu Euskera?"

—"Iziarren".

Bejondeizula, Iziar!

Betiko lelora gatoz orain ere.

Erdaldunak euskeraz erakusten ari diran artean, eukaldunen semeak, zer?



EUSKERA ETA ANTXIÑAKO EUROPA

EUSKALERRIA EUROPA'KO ERRIRIK ZAARRENA.

Gure artean egi ori ez da berria, baña kanpotik ori berori entzuteak badu bere grazia. Ona DEIA aldizkarian, Urriaren amarrean (1992), irakurri nuena: "El pueblo vasco es el más antiguo de Europa... afirmó ayer el destacado experto en genética Luca Cavalli Sforza". Italianoa da eta Genova'ko Bioteknologia Egoitzan esandako itzak dira.

Orren antzeko bat esanik dute Ana María Cobos eta Adolfo López de Muñiain (DEIA-Irailak 3-1992) genetika arloan irakasle diranek. Ara emen euren itzak: "La evolución genética que hemos estudiado en los vascos no tiene nada que ver con las que hay en la Península (Ibérica)".

Guk oiek bagendekigun genetika gabe ere; baña, pozgarria da orrelakoak entzutea gaurkotasan aundienez. Gizakiaren asiera Afrika'n dagoela diote; Gizon Benetako Jakintsua, ordea, Cro-Magnon'eko leizean topa zuten orain 30.000 mila urtekoa. Uraxe da, izan ere, benetako Homo Sapiens-Sapiens, Prehistoriaren gau luzean, izugarrizko argi miresgarria zero-sapaiean piztu zuena, margo eta marrazkiak leizeetako ormetan egin zituenean.

Eun baño koba-zulo geiago daude Europa'ko mendabal-ertzean edertasunez beteak. Oien artean Deba'ko Ekain, Aia'ko Altxerri, Kortezubi'ko Santimamiñe, Kantabria'ko Altamira eta Asturias'eko zenbait leze. Eki-aldera jotzen ba'degu, or arkituko degu Isturitz Benaparroa'n eta Pireneetako gallurretan beste zulo asko eta geiago oraindik andik gora, iparraldean, Garona eta Dordña ibai inguruan: Cro-Magnon, Madalein, Lascaux, Ruffignac eta beste orrelako leize famatuak.

Eta, auxe da azpimarratzekoa: Kultura orren ardatzean dagoela Euskalerrria, erdi-erdian. Or dago, or zegoelako iñora aldendu gabe, Kultura ori sortu zanetik: Cro-Magnon leize-zulotik gatoz zuzen-zuzenean. Gizaki arengandik

sortutakoak gera, geure bereistasunak aldean ditugula. Andik onera bere zerean iraun duen azkaziarik, arrazarik, etniarik, erririk ez dago beste bat Europa osoan, euskalduna besterik.

Geu gera orduko Europa'ren sustraia edo sustratum deritzan zer ori. Jose Miguel Barandiaran susmoa artuta zegoen aspalditik eta bere susmo ori indartzera etorri ziran 1.974'garren urtean bi irakasle: bata Jean Bernard Sorbonakoa, Paris'en, eta bestea Jacques Ruffié, Toulouse'koa, gu euskaldunok Gro-Magno'netik zuzen zuzenean gatoztela diñoenak. Eta, egi ori gaurko euskaldunen odoletik sortarazi zuten.

Badakizute giza-odoletan A eta B zerki edo elementoak izaten dirala. Bate-re ez dutenek ere badira. Ortik sortzen dira lau odol-mota: O, A, B eta A+B, zerki oiek dituzten araberan. Ezer ez dutenak dira O, uts. Garbiena.

Beste zerki edo elemento bat ere izaten da giza-odoletan Rh: Macacus Rhesus tximiñoek dutena. Rhesus izenetik artu dute Rh ori. Elemento ori ez duen odola Rh-eza da; duena Rh+bai. Erderaz Rh- negatibo, Rh+ positivo. Beraz, O eta Rh-eza da garbiena. Odol au Euskalerrian bezin ugaria ez da iñun Europa osoan: ugariena Zuberotan da.

Ortik atera dute gu generala, Europa osoan, erririk zaarrena odolik garbiena geuk daukagulako. Gure mendietatik Ekiaruntz alderatzen geran neurrian ugaritzen dira B eta Rh+. Zazpi milla urte dira gaur eguneko euskal-etnia Cro-Magnon'etik bereizten asita zegoela, eta orain 5.000 urtera bereiztasun oiek, eginda zeuden. Orduko euskalduna eta gaurkoa berdiñak dira bereizketarik gabe. Ez da erri onetan etenik izan: berbera dirau ordutik onera.

Euskerari buruzko itzaldi batean zergaitik asi naizen orrelakoak esaten? Bost milla urteko gizaki ori euskalduna zalako eta izkera berezi baten jabe zalako. Berak erabili duen izkera ori, eusko-era, Europa'ko izkerarik zaarrena dalako; europeotatik sortutako izkera guztietatik bereizia; iñun senitartekorik ez duena; iñundik artu ez deguna. Erria bera bezin zaarra da bere izkera, bere eusko-era, bere euskera.

Erria Europa'ko sustrai eta sustratum ba'da, bere izkera ere izkera guztietako sustratum izango da. Filologia ikasten ari diranak, esandako ori begien aurrean eduki beariko dute beti, zalantza bat agertzen danean, beste arrazoirik ezean, euskeraren alde jokatzeko.

EUSKERAREN ARAZOAK.

Millaka urte auetan euskaldun-kaska-ezurrari bereiztasunak sortu zaizkio eta izkeran agertzen dan bere pentsa-moldeari ere bai. Izkera euskalduna Europan ezagutu ditugun mintzaira gustien aurrekoa dalá esana daukagu; gastelera, berriz, latiñaren kuma bat izanik, milla urte oraintxe bete ditu, jaiotzen asi zanetik.

España'ko mapari begiratu bat emanda gero, egia dirudi garbi-garbia. Moroak zeuden iparralderaiño etorrira Peninsula osoan VIII'garren eunkian. Orduan latiña eta moroen izkera besterik ez zegoen moroen menpean. Katalunia'n katalana eta Galizia'n gallegoa. Katalunia'tik Galizia'ra euskera, latiña ez ba'zan.

Zazpireun urteko gerra luze bat sortu zan, Peninsula osoan, moroak emendik botatzeko egoalderuntz. Katalanek beera doaz eta bere izkera daramate Valencia'ko erreinora; gallegoak ere berdin egiten dute bere izkerakin Portugal'ean zear. Euskaldunek, berriz, latiñetik sortutako izkera berri bat daramate beeruntz. Orra or nun eta nolan jaió zan gaztelera. Katalunia eta Galizia'k beuren izkerakin doaz, euskaldunek berriz erderakin.

Baña, erdera ori euskalerara sortu zuten, euskal-izkuntzaren zenbait bereiztasunekin. Bata da izki-bokalen bereiztasuna: Bost ditu Euskerak: A E I O U. Eta bost oiek eman diskio gaztelarari latiñetik sortua izan arren eta latiñez beste bi geiago egon arren: AE OE. Latiñak zazpi ditu; baña, erderak bost, euskeraren bostak.

Euskerak, ordea, badu bere sena esanaldiak eratzeko orduan, gaztelarak gaur ez duena. "Egurra ebakitzen" esaten degu euskeraz ari geranean; erderaz, ordea "cortando leña". Alderantziz. Euskeraz, Egurra aurretik doa eta erderaz Leña atzetik. Gure Aita otoiña egitean "zeruan bezela lurrean ere" esaten degu; erderaz "así en la tierra como en el cielo". Alderantziz au ere. Erderaz, Lurra aurretik; euskeraz, Zerua aurretik.

Lenago ere esanda daukadan gertaera bat esango dizuet emen, erazo onen adierazgarri garbia dalako. Gerratean Gergori eta Pillipa'k, biak oso lodiak, bonbardeo arriskutzu batean ez zuten nai izan koba baterara igo eta berebillean gelditu ziran. Ortan daudela, etorri zitzairen miliziano erdaldun taldetxo bat:

Señoras, qué hacen ustedes aquí?

Eta Gergorik erantzun:

Este señora de hijo de auto, no poder ser andar.

Ez zioten ezertxo ere ulertu. Gerora neri Gergor'ik onela esaten zidan:

Aiek miliziano tontuak; nik garbiago esa ezin: Andre onen, este señora de, semearen, hijo de, automobilla, auto. Este señora de hijo de auto. Ez aldago klaru? Ba, ez eben ezer entenditzen.

Erderaz alderantziz esaten da: El auto es del hijo de esta señora. Gergorik itzak erdaldunak zebilzkian, baña euskeraz ari zan. Bere esanaldiaren sena euskaldun utsa zan. Amoroto'ko alaba zan, euskeraz azia eta ezia, eta erdera oso gutxi zekiena. Beste bein nortasun agiria eskatu zioten:

Yo arriba la Churrera Gergori la Gorda, siete milicianos lavar, siete milicianos colgar en el balcón.

Itzak erdaldunak, esan-moldea euskalduna. Erderaz esan bearko leuke: Lavo a siete milicianos y cuelgo a siete milicianos. Eta ez: Siete miliciano lavar, siete milicianos colgar.

Eta auxe da gauza arrigarria: Asierako gaztelerak euskalsena zeraman beregan, gerora galdu ba'du ere. D. Manuel Lekuona'k badu gai oneri buruzko lan bat: "Euskerismos en el Castellano antiguo. (En el Fuego de Sepúlveda)". Sepúlveda erria Segovia'n dago; ez dago Euskalerra'ren mugan, Gaztelania'n sartuta baizik. Eta onela dio Lekuona'k asieratik: "En el Castellano actual es constante que los Complementos vengan después del Verbo, y no lo precedan. Ahora bien, en el Castellano del Fuero de Sepúlveda se quebranta esta regla en tal forma y cantidad, que parece regular lo contrario... con una rara coincidencia con la Construcción vasca".

Ondoren Fuero orretan dauden adierazgarri batzuek ipintzen ditu:

"Madera tayando e llenna haciendo". Madera eta Leña atzetik bearko luteke: Tayando madera e haciendo llenna, gaur eguneko erderan; baña euskararen antzera "Zugaitzak ebakitzen eta egurra egiten" esaten du.

"Derecho defendiendo". Euskeraz bezala:

"Eskubideari eusten diola". Erderaz onela bear luke: Defendiendo derecho.

"Qui mal ficiera". (Qui ficiera mal, erderaz).

"Gaizki egiten duena", euskeraz.

"Qui casa apedreare". (Qui apedreare casa).

"Etxeari arrika ematen diona".

"Non pueda y facer casa, el dueño non queriendo".

"Ezin dezakeala an etxerik egin, jabeak nai ez duela".

Orrelako euskerakadak Sepulveda'ko Fueroan eun arkitu zitun D. Manuel Lekuona'ak eta or azaltzen ditu amabost orrialdetan, ondoren au atereaz: "El Euzkera ha sido un factor muy importante en la formacion de la Lengua Castellana". (IDAZ-LAN GUZTIAK. 8. Euskeralojia. Kardaberaz Bilduma 29. Tolosa 1.984. 188-204 orr.)

Euskal-sena bakarrik ez zion Euskerak Gastelerari eman, baita itz-mordo bat ere, guk erderaz darabilzkgunak euskaldunak direnik konturatzeke. Esate baterako: Zanaoria nola esaten da euskeraz? Zaña oria euskera utsa da.

Laister galdetuko digute, nola esaten da Zulo edo txabola euskeraz? Erderak artu ditu eurenak balira bezala. Baña, au ez da gaur eguneko Euskeraren arazorik larriena, larria izan arren.

•

Euskal-senari buruzkoa da gaurko Euskeraren benetako arazoa. Garai batean onela esan oi zuten: "El Euskera es una lengua que perdió la bolsa para ganar la vida". Gaur egun la Vida galduko du Bolsarik gorde gabe. Orain arte zenbait itz galduko zitun, baña ez danak, gero ikusiko degunez; eta euskal-sena gorde du. Egundo, berriz, sena galtzeko arrisku bizian dago; azal uts gelditzeko arriskuan, marraskilloak ilda gero gelditzen diran antzo.

Amoroto'ko Gergori'rena, alderantziz, gertatzen da. Naiko eta geiegi jende dabil Euskeraren inguruan buru erdaldunekin, kursillo batzuek eginda gero, Euskera erakusten eta beuren buruak maixukeriz agertzen. Amaren bularretik euskera ikasitakoak, berriz, buru-makur, lotsatuta bezala, kursillorik egin ez dutelako, Batua berri au ikasi ez dutelako, analfabetotzat artuta, Euskeraren arloan eskubide guztiak galdua, naiz-eta euskal-sena beuren agotik bizi-bizirik irten. A! Baña ez dakite euskararik, euskara batuarik, beuren burua euskaldun ba'dirau ere!

Maixukeria esan det eta ona emen ale bat muestrarako: Gure gerra ondoren, Franco'ren aginpean, iñork euskeraren alde jokatu ba'du, ori Iñaki Eizmendi "Basarri" izan da. Batasuna sortzen aritutako batzuek liburu bat argitaratu zuten EUSKAL ELERTI 69. Lur Editoriala 1.969. Donostia. Onela dio azken orrialdean:

"LUR... Beren autapen konseiluak Gabriel Aresti, Xabier Kintana, Ramon Saizarbitoria eta Ibon Sarasolarekin osaturik dagoenak euskal gaiztoko dialekto mordoiloetan idatzitako lanak ukatuko dituela jakin-arazitzen du, eta bide batez euskeraren batasunik nahi ez duten euskaldunak euskeraren eta Euskal-erriaren etsaiak direla deklaritzen du. Are geiago negarreztatzen du batasun ori gonbatitzen dutenen portaera, bereiziki Eizmendi'tar Iñaki "Basarri" jaunarena, zeinak, Euskaltzaindiak Arantzatzun hartutako erabakiak onartuko zituela publikoki manifestatu ondoren, bere hitzari ez dion eutsten. Seguru asko bere hitza eman zuelako batasun hura bere dialekto mordoiloan izanen zela us-tean". 547 orrialdean.

Orain ogeita lau urte argitaratuta daude itz oiek eta ori idatzi zutenean gaztetxo batzuek besterik ez ziran.

Erdaldun jaiotako ume auek Basarri'ri erakutsi bear zein zan Euskera eta Euskal-erriaren etsai! Beste euskaldun jator arrek esaten zuena: Once para ver hemos nacido y...!

Zenbait maixu berri batzuek, buru erdalduna izanik, erderazko senarekin idazten dute euskeraz eta, euskaldun utsa danak, ez die tutik entenditzen: Itzak euskaldunak dira, baña mintzoaren sena, erdalduna.

Urte auetan zenbat euskerazko iragarki ezer entenditzen ez diranak; ezker-
rrak aldamenean erderaz datoztela, bestela jai dauka euskaldun irakurleak.
Egia esan ez ditu iñortxok euskeraz irakurtzen eta orretarako berdin da zuzen
edo oker idatzi. Ondo egiten saiatzen diranak ere badaude; baña, zabarkeria
ere ugaria da. Euskal-sena ez da erreza izaten euskera jaiotzetik ikasi ez da-
nean. Sepulveda'ko Fueroaren erderak orduan zeukan euskal-sena galduta
dauka erderak eta orain Euskerari berari ari zaio galtzen erdera dala-ta. Fran-
co'ren garaian idatzi nuena, betetzen ari zaigu gaur, ainbeste diru Euskararen
alde zabaltzen ari dan une onetan. Ara zer nion:

“Euskerarengorde-lekumuiñean
sitsa sartu da arratsaldean...
Sitsak jango du euskal aria
erdalerra bihurturik Euskalerra.
Il-kanpaiak joko ote digun
bildur naiz, bildur.”

Erdal-sena da Euskeraren sitsa, eta Euskal-sena galtzen ba'du Euskereak,
Euskera bera galduko da, erdera bihurtuko dalako. Erdaldunen buruentzat erre-
zago izan dedin edo, Erromanizatu nai digute euskal mintzaira, eta, dabiltzan
bidetik, bear ba'da, lortuko dute. Une aretan bai joko digula benetako il-kan-
paiak.

Baserría izan da, gizaldietan zear, Euskeraren gorde-leku oparoa eta ikasto-
la nagusia. Gaurko egunez baserri asko utsik eta zenbaitetan atserritarrak na-
gusi. Gelditzen diranetan, erdera ari da sartzen gelditzeke komunikabideetatik,
euskal-senaren kaltean. Orduan esaten zan: Perdió la bolsa por salvar la vida.
Orain, berriz: Perdió la vida sin salvar la bolsa, esan beariko dute, baserriaren
babesa galduta, kale-umeeek euskal-senari eraso egiten asita daudenean.

ARRI-AROA.

Bizia gorde zuan, euskal sena gorde zuan, bere zorroa era bat galdu gabe.
Euskeraren zorro orretan badaude millaka urte dituzten makiñatxo bat itz. Itz
eta berba oietan izkututzen da Euskalerrriaren kondaira; irakurtzen jakin bear.

Gure arbasoen kultura, marrazkien Kultura miresgarria, Arri-Aroa deritza,
euren lanabesak, lanerako tresnak, arriz egiñak zirelako. Marrazki, margo eta
xixilikatuak ormeetan, lanabesak, janari erreusak lurrean, oiek osatzen dute
guretzako utzitako altxorra.

Gizonak erabilli zituen lenengo lanabesak egurra eta arri landugabeak ziran;
baita ezur eta adarrak ere. Urteak aurrera doazela, arri oiek landu egin zituen
aizkorak, aiztoak, aitzurrak, azkonak, zulakaitzak, mailu eta porrak ateratzeko.
Baita karrakagailluak (raspadoreak) eta torno txikiak ezurrak borobiltzeko
(jostorrazak egiteko). Gaur egun gure lantegietan izan diran torno, fresadora,
taladro eta bestelako lan-tresnak, oiek danak bazituzten emen Ermitiako
leizean. Eskuz edo tximista-indarrez erabilli, lan-mota berdiña zan.

Arria zan gaia; orregaitik lanerako tresneria arriz egiten zuten. Aitatutako lanabes oiek (aizkora, aiztoa, aitzurra, azkona, zulakaitza) arriz egiñak ziran eta euskeraz dituzten itzak ere AITZA dute bere sustraian, Arria. Izenak ipiñi zituzten arriz edo aitez egiten ziranean, eta orduko itz oiek ez dira gaurdaño galdu, bitartean millaka urte pasa izan arren. Itzak diraute eta beuren esan-naia ere bai. Euskerak izen auek millaka urteetan gorde ditu beuren esan-naia aldatu gabe, naiz-eta gaia aspaldian aldatu. Gaur ez dira arriz egiten, galtzairuz, baizik. Alaz ere Aitezko izen zaarrek diraute.

Itzak or egon dira garraxika, guk ordea belarriak gogor eta entzuten ez beuren mintzoa. Oraindik-orain ikasi degu orduko lanabes aiek aitezkoak zirala, aitzakin egiñak. Gu argiak izan ba'giña, itzeetatik atera bear genduen egi ori. Arkeologiak egi ori illunpeetatik atera arte, ez gera ori asmatzeko aña izan. Eta garbiago euskerak esan ezin. Zenbat orrelakoak ote daude euskeraren alzoan gordeta, guk argira ateratzeko zai!

Neri gertatutako bat esango dizuet. Itxaskabrak izaten dira gorri-illunak eta aitzetako arraiña da. Badira beste oien senide bat, askoz argiagoa, eta aitzetaik kanpo arrapatzen dana. Arrain onek Lekeitio'n, nere aurzarroan, Tierno-kabria izena zeukan. Urte batzuen ondoren, nik amabost urte nituela, euskaldunak bakallau-arrantzan asi ziran eta nere aita ere bai. Egun batez, bixigu bat erosteko asmoz, arrandegira agertu giñan aita eta biok. An zeuden itxura ederreko Tierno-kabra oiek eta onela esan zidan aitak:

– Kabra auek ugariak dira oso Terranovan.

Ori entzun nuen, baño belarri batetik sartu eta bestetik irten zidan. Urte geiagorot, D. Manuel Lekuona'rekin euskera ikasten ari giñala, onela esan zigun:

– Euskaldunok itz luzeak murriztu egiten dituguz.

Nik pentzatu nuena: Bai, ortxen daukagu D. Jose Miguel Joxemiel biurturik, Irun'go Santa Elena Xantalen eta Terranova Ternua. Orduantxe argitu zitzaidan argitxo bat kaska-ezurreko garunetan: Bai ba, Tierno-kabria Terranova'ko kabria izan, murriztuta. Lekittarrak berreun urtez Terranova'ra bidean ibilli ziran, kabra oiek ugari dauden arrantza-tokietan. Ondoren beste berreun urte andik agertu gabe, eta, bitarte orretan, Terranova izan zanik ere geiago gogoratu ez, 'memoria historikoa' zearo galduz. Ortxen egonda itza bera lekittarrei garraxika; baña, entzunik ez. Ez entzun eta ez ikusi, euskaldun guziei gertatu zaiguna arrizko lanabes eta arma zaarrekin.

NEOLITIKO EDO ARRI-LANDUAREN AROA.

Euskalduna eiztari eta arrapatzalle zan: Zeuden tokietatik artzen zituen bai animaliak eta baita lurraren emaitzak ere. Baña, orain bost milla urte, asita zegoen animaliak ezitzen: txakurra lenen, beia, auntza eta urdea ondoren, zaldia azkenen. Astoa egoaldetik sartu zan zeltiberoekin batera. Ariaren arazoa, beste arazo bat da. Ardia Euskalerrira ezita etorri zitzaigun, Ekialdetik etorri ere.

Eiztaria, eizearen billa dabil batetik bestera; artzai biurtzen danean, ordea, artaldearen ondoan bizi bear du: udaran mendigoienetan; neguan, berriz, naiz mendi-oiñen ibarretan, naiz itxas-ertzean. Eiztariaren ibillaldiak moztu egiten dira. Gerora, lurra lantzen asiko danean, orduan eta areago: Lurrak eta etxeak alkarrekin lotuta egon bearuko dute. Gertakizun onek aldaketa aundiak ekarriko ditu gizakiarentzat: Aurrerantz etxea izango da gizonaren egoitza. Asierako zenbait mendi-txabol eta borda, etxe biurtuko dira; egurrezkoak lenengo, orma-etxeak geroago eta tella-etxeak azkenik.

Artzaintzak basoetako animaliak abere biurtu ditu. Larrabei, basauntz eta basurdeak bei, auntz eta urde biurtu dira eta kortan aziko dituzte. Era orretara, gizonak ez du eizera joan bearrik, okelea jan nai duenean, naikoa du okel ori ikullutik artzea.

Baso-ardia falta zan gure mendietan eta D. Jose Miel Barandiaran'ek dionez, Eki-aldeetik ekarri zuten, ezita gero. Beraz, andik etorri ba'zan, bere izena ere angoa izango da. Beia, auntza, urdea, zaldia bertan ezitakoak dira eta izenak ere bertakoak dira. Ekialdean ardia 'arnia' izenakin ezagutzen zuten. Joan'en Ebangelioak dionez, Jesus'ek, piztu ondoren, Apostoluei ondartzan agertu zitzaientean, onela esan zion Pedro'ri: "Boske ta arnia mu": Zaindu nere ardiak. Griegoz Arnia, euskeraz Ardia. Badute alkarren itxura.

Bateren batek esan lezake, Arnia eta Ardia itzak, Europa'ko sustraietakoak izan litezkeala, euskerak griegotik artu bearrik izan gabe. Izan, izan litezke, jakin ez, ordea; baña, gaur guk ziur dakiguna auxe da: Ardirik ez zegoela Euskalerrian, eta Eki-aldean bai eta Eki-aldeetik etorri zirala, ezita gero, gureraño. Beraz, andik etorri ba'ziran, euren izenekin etorriko ziran, ola gerta izan bait da beti gauza berri bat agertzen dan bakoitzeko.

Beste aldeetik, berriz, ardiaren arra "aria" deritza eta latiñez ar ori Aries da eta Aries ori Griegoen Ares'etik datorrela dirudi. Ares eta Aries biak dira Ekialdekoak, aria eta ardiak etorri ziran lekukoak. Alaz ere, Ardi eta Ari itz auek, kanpotik etorritakoak izan arren, badituzte gure artean iru milla urtetik gora. Eta, zaarragoak dira Bei, Zezen, Urde, eta Zaldi izenak.

Aro onetakoa degu Aberatsa izena: Abere asko kortan zuena, uraxe zan aberatsa. Ordurarte ez zan "aberatsik", eiztari onak baizik. Eta, D. Jose Miel'ek dionez, auxe berau gertatzen da indoeuropeotarren izkeera guztietan ("El Hombre Primitivo en el País Vasco", Donostia, 1931, 66 orrialdean): Aberastasuna abere asko izatean dagoela, alegia.

Beraz, Abere, Aberatsa, Aberastasun bost milla urteko itzak dira. Gaur egun aberatsa esateko diruduna ere esaten degu eta diru itza bera ere "denario" itzatik dator, bi milla urtetik gora dituen latiñezko itzetik.

Zugaitzei buruz zer esan?

Orain emezortzi milla urte elur eta izotz aundiak zeuden gure Euskaleriko lurraldearen ingumarietan. Renoa Akitanian ugari zebillen eta Dordoñako Ruffig-

nac leize-zuloan mamut illedunak daude eun baiño geiago ormeetan marrazturik; eta rinozeronteak ere ez dira falta, aiek ere illedunak. Eguraldia biguntzen joan zan neurrian alde egin zuten, emendik ifaralderuntz, reno, mamut eta rinozeronte illedunek. Tundra emen belardi eta baso biurtu zan millaka urteen poderioz eta amar milla urtetik bost millarako tarte orretan, gure baztar guztiak zugaitzez bete ziran: Urra eta aritza ziran, artearekin batera, ugarienak; ondoren zumarrak, astigarrak (tilos) eta agiñak (tejos).

Urraren atzetik agertu zan intxa-urra eta, aritza beeruntz doala, bere orde, z, pagoa. Pagoak latiñ-itza dakar berekin, Fagus-fagotik bait dator. Pagoaren aurrekoak, ordea, bertako izenak dituzte arrezkeroz.

Renoak alde egin zigun ifar-aldera eta bere orde, z oreiña agertu zitzaigun baso eta oianetan; malkorretan, berriz, basauntzak eta basurdeak; gaillurretan, larrabeia, k eta zaldiak bakoitza bere izenakin.

Neolitikoaren ezaugarriak auek ziran: Arri-landua, abereen eziket, nekazaritza eta buzingintza. Nekazaritzako erabiltzen dan aitz-urra tresna zaarra da, benetan: Urraren antzeko aitz.

Nekazari arteko izen bat badegu euskeraz, "artoa" deritzana. Gaur egun artoa deia erabiltzen da maiza eta maiz-opilla esateko. Artoa, maiza, Ameriketatik orain lareun urte ekarritako alea da, maiz izenarekin agertu zana Euskalerrira. Izen orren arrastoak diraute gure artean oraindik maiza-lastoa, maiz-gona, maiz-opil euskal itzak erabiltzen diskutugunean. Maiz itzari buruz onela dio JORGE LUIS ARRIOLA idazleak bere "El libro de las Geonimias de Guatemala". Diccionario Etimológico. Ministerio de Educación. Editor José de Pineda Ibarra. Guatemala. 1.973. 133 orrialdean: "MAIZ... se originó de la voz haitiana MAHIZ... El vocablo se generalizó entre los españoles". Andik etorri zan eta, uste degu, bere jatorrizko Maiz itzakin etorri zala.

Zer gertatu ote da Maiza Arto biurtzeko?

Badirudi Ameriketako maiza agertu baño lenago, bazala gure errian ogimotaren bat artoa izenekin. Arta-txiki edo izkiri-beltzekin (mijo) egindako ogia jaten omen zuten gure aurrekoek Erromatar historiagilleek diotenez. Ura ere artoa. Maiza etorri danean, maiza ogi biurtzean, lengo ogiaren izena erantsi diote. Orra bi ogi, bi arto; berria ohea, eta maizak zaarragoa zan arta-txikia baztertu du gure nekazaritzatik. Maizak arto-txikia aztu erazi eta ordañetan arto-izena beretzat artu.

Beraz, Artoa izena maizaren etorrera baño zaarragoa da gure artean. Izan ere bada grekotarren izkerean "artos" itza, ogia esan nai duena. Bear ba'da Artos ori artuko zuten arta-txikiakin egindako ogia izendatzeko. Dana dala, arto izena maiza da eta maizakin egindako ogia. Oraindik ere ikusten degu ogi ori errietako azoketan. Nere aurtzaroan, 1.920..., bazan Lekeitio'n arto-laba bat eta egunero joaten nintzan, eguerdi-eguerdian, zati bero-bero bat erostera gero indiarren urdaiakin jateko.

Bada Euskalerrian bertso bat (ez dakit Xenpelar'ena ez ote dan) onela dio-na:

Jainkoak nai ba'du eta
dirurikan ba' du
artoari utzita
ogia jango gu.

Gaur egun ogia itza gariakin egindakoa da; baña, garia beti izan da eskas. Gure aurrekoek burniaren truke ekarri oi zuten estranjeriatik; itxasoz ekarri ere. Gutxi eta galeztia. Artoa, berriz, bertakoa zan, Ameriketatik ekarri ezkeroz, eta soroak bete zeuden. Geiago eta merkeago garia baño. Orregaitik dio bersolariak: Dirurikan ba'du(gu), artoari utzita, ogia jango gu. Gure arbasoek ez zuten garirik ezagutzen. Europatik etorritako erriek ekarri zuten gurera garia; baña, bertakoek ez zuten ezagutzen. Ipui zaarrak dionez, San Martin Txikik Jentillei arrapatu zien garia. Garia eta ogi zuria Jentillena zan, erri aberats batena. Gurea ez zan orrenbesteko maillara igo eta arta-txikiakin eta ezkurrekin egindako artoakin konformatu bear.

Griego-iztegian amairu itz topa ditut Artos itzetik datoztenak eta amairuak ogiarekin lotuta daude: Ogia egitea, ogia egiteko unea, ogia egitenduna, ogia saltzen duna (bi itz arra edo eme), ogia jatea (iru aditz), ogi jatuna eta ogi-saskia...

Griegotik artutako beste itz bat ere badala dirudi: Anoaia itza. Mendira, arratsaldea ematera, joaten giñañean onela esanten giñun amari: Ama, anoaia prestatu. Anoaia mendira eramaten dan janaria da eta griegoz Anoeon jantokia da. Alkarren arteko zer ikusirik badutela dirudi.

METAL-AROA.

Euskaldunek Arrilandu-Arotik Metal-Aroa bi milla urteen buruan, pasa ziran. Bost milla urte inguruan agertu zan Arrilandu-Aroa eta bi milla urte beranduago, orain iru milla urte dirala, Eneolitiko edo Kalkolitiko deritzan Metal-Aroa.

Aurretik esan bear degu metal-gaiak bi direla berez agertzen direnak izakian: Bata da urrea eta bestea, zidarra. Bi metal auek dira aurrenen agertzen diranak kultura guztietan. Gerora sortzen dira kobrea edo tupikia eta estañoa. Kobrea eta estaino itzak Natur Zientziak deritzan "Jakin Hiztegiak" salteko (1.976) lenengo aletik artu ditut. Baña, goazen D. José Miel'en eskutik aurrera itz auek aztertzeraz.

Lenengo ta bat, auxa azpimarratu degu: Urrea eta Zidarra edo Zillarra, direla lenen agertzen diranak eta zaarrenak. Bi itz oiek Metal-Aro aurretikoak dira. Gerora, orain 3.000 urte, agertu zan kobrea eta gure maixuak dionez, kobreak euskeraz badu bere izena: Urraia, urrearen aidekoa dalako. Ala da izan ere. Biak, urrea eta urraia, naasten dira urre gutxiago erabiltzeko urrezko gauzak egiten.

Berdin gertatzen da Zidarra eta estañoarekin: Onek aren antza du, orregaitik bere euskerazko deia Zirraida da, Zidarraren aidekoa dalako.

Orrela emen lau itz euskaldunak dauzkagu begien aurrean: Urrea eta Urra- da, Zidarra eta Zirraida. Urra- da eta Zirraida (Kobre ta estaño) agertu ziran unean, bazeuden gure artean Urrea eta Zidarra, eta bi metal berri auek aien senitarteko egin zituzten. Gertakizun ori itzeetatik ateratzen degun egia da: Peru izena Perurena baiño lenagokoa dan bezala, Urrea Urra- da baiño len sor- tu zan. Badirudi Urra- da eta Zirraida emengo bertakoak dirala, izen euskaldu- nak ipiñi bait zizkioten. Orrelako bi itz jator aldamenara utzita, Kobre eta Estai- no artzen ditu Natur Zientziak deritzan iztegiak. Eta, orren ondoren atera diran Zientzia Hiztegiak, orrelakoak ugari baiño ugariago artu dituzte gure gaurko egun auetan, Euskera bei emankorra gertatu danean. Zenbat eta geiago, ain- bat eta okerrago.

Esate baterako, kobre eta estaino utzita, beste itz bat artuko det eredutzak: Eje erderazko itza ("Porque no engraso los ejes, me llaman abandonao, si a mí me gusta que suenen, pa qué los quiero engrasao"). Atagualpa Yupanki're- na). EZEI Histegia badaude beste geiago, goian aitatu deguna baiño. Oietako batean Eje dator erderaz eta Ejea euskeraz. Ain errez eta ain gaizki. ("Batista Bazterretxe, mutiko pijua, nere gurdi-ardatza, nere gurdi-ardatza ostuta di- joa..." Euskal-abesti zaarra). Orrelako itz jatorra errian eduki eta Ejea aukeratu- ko degu, ba?

Brontze Aroa dator ondoren.

Emen ez dago izen euskaldun bereizirik; bear ba'da, kanpotik etorrita dala- ko, eta bere izenakin etorri ere. Brontzea urraida eta zirraida elkarturik atera- tzen da. Brontzea ez zuten euskaldunek ezagutzen indoeuropeoak guregana etorri arte; eurak bait ziran egintza orretan maixu. Urra- da eta zirraida alkarre- kin urturik, sortzen da brontzea. Metal berria gazteago, izena zer esanik ez.

Euskal istorian zazpi urra- idazko lanabesak arkitzen dira eta sastakai edo puñal bat. Baita aizkora egiteko arrizko moldea ere. Brontzezkorik, Mondra- go'en arkitutako aizkora bat, indoeuropeen antzekoa.

Burnia eta galtzairua.

Burnia eta galtzairua lantzen zelta erria izan zan maixu (Hallstatt garaikoak) eta aiengandik ikasi genduen gure mendi erpiñetako gazteluetan bizi izan ziren garaian. San Martin Txiki'k arrapatu omen zien Jentillei, burnia gozatzeko (templea emateko) xistema. Gure artean bizi izan zan Indoeuropear-zelta erria, erromatar gudariak gurean agertu aurretik, galdu zan. Burni eta galtzairu itzek ordukoak bear dute izan.

Burniari buruzko erderaz erabiltzen diran euskal izenak auek dira: Agoa (goa) eta Totxo (tocho). Agoa da labetik ateratzen zan alde bakoitzeko burnia eta totxo, agoaren erdia da. Bi itz auek, geroago ikusiko degun bezala, gutxie- nez bi milla urte ba dituzte gurekin.

ERROMATARRAK ETA EUSKERA

Lendik ere esanda daukagu, gauza berriak beuren izenekin onartzen zirala eta erromatarrek gauza berri asko ekarri zituzten gurera euren izen berriekin batera.

Gure artean ibilli ziran nai zuten bezala. Ifarraldean bazuten, eurok egindako Burdeos'tik Orreaga'ra zetorren bide zabala eta andik Pamplona'ra. Bide onek Iruña'tik mendabalera jotzen zuan Sakana'ra, eta Sakana'tik Araba'n zear Pankorbo'ra.

Beste bidea luze auek erdian artzen zituzten bai Araba eta bai Nafarroa. Gipuzkoa eta Bizkaia'ra itxasotik agertu ziran: Burdeos-Bayona-Irun eta emendik, Bilbo'raiñoko kostalde guztira. Oiartzun'go zillar- meatzak nai zituzten eta Bilbo'ko burni-meatzak. Bidasoa, Pasaia, Donosti, Getari, Deba, Artibai, Lea, Gernika-Forua'ko kaiek barkuen gau-babesak ziran, ez bait ziran egunez besterik itxasoz ibiltzen. Auek dira erromatarren kostaldeko ibillerak. Barrutik ere ibilli ziran, Ataun'en eta Zegama'n beuren arrastoak topa dituzte beintzat, Nafarro eta Araba'ko bidetik Gipuzkoa'ra sartuak. Bizkaia'n ere badaude Araba'tik etorriak. Oso gutxi.

Gure artzai-kultura naiko mugatua eta murrizta zan: Pirenee mendietatik neguan ifar-aldera joan oi ziran artzaiek Akitanian zear Garona ibaiaren inguruan; eta egoaldera, berriz, Teruel'eko ingumarietara: Ebro eta Burdeos ziran gure artzai-kulturaren muga guztiak. Erromarena, ordea, Mediterrane-itxasoaren inguru guztian zabaltzen zan: Afrika, Asia eta Europa'n zear bide zabal ederrak urratu ondoren.

Mundu guztiko kulturen emaitzak batetik bestera zabaldu zituzten erromatarrek. Aberastasun aien aurrean zunxituta gelditu ziran gure artzai euskaldunak. Bazeukaten zer ikusi eta zer kopiatu; kopiatzen oso abillak izan bait gera beti euskaldunok, eta ez eibartarrak bakarrik.

Rodney Gallop, 1930 urtearen inguruan idatzia eta Madrid'en bigarren aldiz, 1955'ean argitaratutako LOS VASCOS liburuan, 233 orrialdean, onela dio:

“¿Dónde radica la fascinación de los Vascos? Tal vez Camille Julian haya facilitado la mejor respuesta a esta pregunta:

Cada época desaparecida -escribe- parece haber legado a la civilización vasca por lo menos una costumbre imposible de desarraigat.

Para los que se acercan a ellos sin prejuicios son los Vascos, infinitamente preciosos... como un museo viviente de la historia humana, donde puede uno estudiar todo lo que ha quedado de una Europa más antigua, desaparecida de todas partes, mas demorándose aún en este tranquilo rincón de los Pirineos”.

Auxe gertatu da erromatarren kulturakin ere: Aren zenbait zerki edo elemento gure artean diraute oraindik orduan zituzten izenekin.

Porrua ez genduen ezagutzen erromatarrek etorri arte eta or daukagu eurak erabiltzen zuten izenakin: Porrum latiñez, Porru euskeraz, Puerro erderaz.

Berdin gertatzen dan eurak ekarri ziguten Kipulakin: Cepulla (Kepula irakurtzen zuten latiñez), Kipula euskeraz eta Cebolla erderaz. Kipularen I orreri buruz auxe esan bear degu: Euskeraz E askotan I biurtzen degula. Esate baterako or dauzkagu izenak Ennecus> Eñecus> Iñeco> Iñigo. Danak dira batetik sortuak. (Ikus Euskerazaintza aldizkaria, XXI, Urrilla-Gabonilla, 8'garren orrialdean, Latiegi'tar Bixente'ren lana). Cepullaren C ori K gogorra zan erromatarren garaian; gerora aldatu dute erdaldunek Ce eta italiarrek Chi aoskatuz; baña, euskaldunek orduan artutako ots gogorrakin jarraitu dute, eurak entzundako otsakin.

Porru eta kipula orra or bi gauza erromatarrek ekarritakoak euren izenekin. Gaurko egunez porru eta kipularik gabe, zer egingo ote luteke gure sukaldariek? Porru eta kipulakin batera datoz Piperra (Piper latiñez, pimiento erderaz), Baba (Faba, haba), Babarruna (Baba erromatarra), Piku (Ficum, higo), Kereiza (Cerasum-Kerasum, cereza), Gaztaña (Castanea, castaña), Olioia (Oleum, aceite), Mertxika (Persica, melocotón), Sekale (Secale, centeno), Marrubi (Marrubium, Fresa silvestre)...

Gorpua eta Gorputza latiñezko Corpus da; baña, Soin eta Soiñeko, oiek euskaldunak dira.

Animalien artean Zaldi eta Asto ez dira latiña; baña Zamari bai (Sagmarium, animal que llava albarda para carga) eta ortik dator Zama itza. Txorien artean Antzar (Anser, ganso) eta Aate (Anas, Anatis, Anate, pato)...

Aragi Aariki-tik etorri lezake, aari-okela jaten zuten artzaien garaikoa, txerriki eta idiki esaten dan antzera. Gero daukagu Lukainka (Lucanica, longaniza) eta abar.

Sukaldeko ontzietara ba'goaz, or dauzkagu Sartagi (Sartago, sartén), Kati-llu (Catillun, platillo o escudilla; esanaia aldatu diogu), Galdara (Caldaria, caldera), Lapiko (Lapis, puchero), Kollare (Coclearium, cuchara), Maindire (Mantile, mantel), Maida (Magis-magidis, artesa); baña sukaldeko arazoak euskeraz diraute: Egosi, erre, irakin. Berdin zuku, gatz, ardo, sagardo, esne, ur, ogi, opil, ore, oremaia, gazta, gaztanbera, ezti, erle, erlauntz, abaraska eta abar.

Jantzietan zerki berriak agertzen dira: Praka (Braca, pantalones), Sakela (Saccelum-a Sakel-la, bolsillo), Mainka-Mainkutsik (Manica, manga), Kapela (Capillus, cabello), Mantar (Mantum, mantillo), Kaltza-kaltzerdi (Calceus, zapato), Matasa (Mataxa, hilo), Goru (Colus, rueca), Titare (Digitale, dedal),

Liñu-liñuazi (Linum, lino), Istupa (Stuppa, estopa), Lixuba (Lixivium, lejía)...

Ardoa eta sagardoa egitean bi itz dauzkagu bereziak: Tolare (Torculare, prensa) eta Kupela (Cupa-cupel-la, tonel-tonelito) txikiak izango ziran asieran kupelak, baña gaur galantak ikusten dituguz sagardotegietan. Errementarie-nean ona: Ingude (Incudis, yunque), Mallua (Malleum, martillo), Aingura (Anco-ra, ancla), Katea (Catena, cadena), Errota (Rota, rueda)...

Etxegintzan orra batzuek: Gaztelu (Castel-lum, castillo), Dorre-Torre (Turris, torre), Gela (Cella, cuarto), Tella (Tegula, teja), Tellatu (Tegulatum, tejado). Baña, erromatarren etorrera aurretik gure artean zeudenak, aiek diraute oraindik ba-koitza bere izen jatorrakin: Su, sukalde, sutauts, laatza, ikatz, egur, zuzi, gar, txingar, txinar...

Erromatarren etxeak ez zuten gure txabol eta bizitzen antzik ere. Etxegintzan, beste kultura-gaietan bezala, gorengoan malletan ebiltzen erromatarrek; gu, berriz, mendietako borda eta aitz-zuloetatik irten eziñik. Ez da ba arritzekoa, kultura-agerpen oiekin batera, itz berriak agertzea Euskalerrian. Baña, beti ere, itz oieri gure ikutua ematen diegu, batez ere, itzen luzeroa murrizten eta mozten: Tegula-tella, Tegulatum-tellatu, Torculare-tolare, Digitale-titare. Orrelakoak, etenik gabe, egin izan dituzte euskaldunek. Deba'n dituguz bi basarri, ermitak izandakoak, Doniane eta Santixo: Domine loane-Doniane, Sancte Iacob-Santixo. Eta, Gipuzkoako buru dan Donosti, Domine Sebastiane da. Orixe bai dala benetako murrizketa.

Kultura-agerpen berriek ekintza berriak sort-arazten zituzten, etxegintzan bezala, arrobi-lanetan, ermentaritzan, arostegitzan, buztzingintzan (terra sigillata hispanica eta subgallica), mosaikogintzan, margolaritzan eta abar. Soñekoak egiteko gai berriekin moda berriak. Tresneria ere berdin. Nekazaritzan traman-culu berriekin fruitu berriak... Dana zan berri. Bideak zer esanik ez: lengo bide-txur eta gurdi-bideak zabaldu zituzten sustraietatik berriztuz: zabal, sendo, zu-zen, malkarrak legunduz, mendiak jertziz eta ibarretan zubiak jasoz...

Etxe berriak, erri berriak, bide berriak, zubi berriak eta millaka urteetan eiztari eta artzai zan Euskalerrria begiak zabal-zabal kultura agerpenezko ekaitz arreri begira. Ekaitzak Araba eta Naparroa'ko Ego-alde osoa jo zuan; eta Bizkai eta Gipuzkoa'an Ifarraldeko itxas-ertzak. Erromatarrek ikutu bakarrik egin zuten Bizkai-Gipuzkoa'ko biotza; baña, alaz ere, beuren kulturaren aztarnak topatzen dituguz aizkeneko mendi-baztarretan ere.

Orrek agertzen digu euskalduna ez dala iñorekin ar-emanik ez duen basati bat izan. Artzaia izanik, beuren artaldeekin, orduan orain bezala, udara men-dian igarotzen ba'zuan, neguan beste urrutiko tokietara alde egiten zuen, bes-te erri batzuen kulturaren jabe bere burua egiñik. Besteen kultur-agerpenak ja-so dituguz, baña geure kutsua emanetz. Txapela ez zuen euskaldunak asma; alaz ere "boina vasca", "beret basque" deritza mundu zabalean. Berdin gerta-tzen da pelotarekin ere, bere sortzea Euskalerrian ez izan da ere, "pelota vas-ca" deritza toki guztietan.

Erromatarrek agertu-aurreko itzak ere badira gure artera zelta eta indoeuropeotarren garaian etorriak. Odei da oietakoa bat: Odeia goi-lañoa da eta euskaldun jainko-txiki bat ere bai; berak eta Aate'k, Mari'ren agindupean, lan egiten dute; badu Odei onek indoeuropeotar Odheien antza, eta ez gutxi, ura ere jainko, baña ez txikia, aundia baizik, erromatar Jupiter'en maillakoa.

Aymaric Picaud, Santiago'rako bidea egin zuen moje frantziar batek, idatzi zituan bide artako xeetasun eta zertzelada guztiak XII'garren eunkian, eta arrek dionez, euskaldunak Jainkoari Urtzi deitzen omen zioten. Urtzi, Ortz eta Ost gauza berdiñak dira eta Zeru urdiña esan nai du itz orrek berez; baña badu zer ikusirik ere tximista eta trumoiekin. Trumoiari Ostots, Ostroi, Ortzantz, Ozmin eta orren antzeko beste izenak ere (J.M. Barandiaran El Hombre Primitivo en el País Vasco, Zabalkundea Sorta. Itxaropena. Donostia, 1931, 86 orrialdean) esaten zaizkio. Tximistari, berriz, Oñaztar, Oñaztari, Ozpiñarri... Aizkeneko itz auetan Thor eta Jupiter'en susmoa nabari da. Itzak euskaldunak dira; esanaia, ordea, Europarra; eurak egon bait ziran, gizaldietan zear, gure mendi-gaillurretan euskaldunak menperatzen eta eurak izaki gure ipuiñetako Jentillak.

Latiñetik artutako itzen bitartez auxe ikusten degu: Zintzo eutsi diola euskaldunak orduko mintzairari. Eta latiñetik artutako itzak ain garbi irauten ba'dute gaurdaño, euskaldun berba ziranak ere berdin iraungo zuten. Gaurko izkera, orduko mintzaira da eta gaurko itzak, orduko berbak. Euskerak eutsi dio bereari eta kanpotik artutakoari. Ikusiko degu gaurko egunez guk beste orrenbeste egite al degun.

Tiberio Sempronio Grako'ren garaian, 179 urte Jesus jaio aurretik, erromatarren gizarte-arteko burrukan sartuta zebiltzen euskaldunek. Orduan eraiki zuan Enperadoreak Gracurris (Grakoren-uria) Ebro-ertzean, euskaldunen lurraldean. Andik eun urteetara berriro burruka, Sertorio eta Pompeyo erromatar buruzagien artean, eta berriro euskaldunek burrukan, Sertorio'ren alde. Ori dala-ta, Pompeyo irabazleak, Calagurris (Calahorra) erre zuan.

Sertorio orrek berak, Oska (Huesca) urian, ikastola bat jaso zuan Pirenetako buruzagi euskaldunen semeentzat, ez euskera irakasteko, latiña baizik. Beraz, orduko Vascones euskaldunek latiña ikasita zeuden. Izan ere, derrigorrez ikasi bear; bestela analfabeto utsak bezala agertzen ziran adminiztrazioaren aurrean. Era guztietako agintariekin itz egiteko, euskerak ez zuen ezertarako balio. Euskaldunek ikasitako zenbait latiñezko itz eta berbak oso zaarrak ziran.

Euskeraren aurkako latiñaren erasoak 500 urtetik gora iraun zuan erromatarren eskutik, eta, auek alde egitean, beste orren beste bai Iberia'ko errien bitetik. Baña, ona gauza bitxi bat: Erromatarrek ekarritako jainko nagusien aldarak Liédena inguruan aurkitzen dira, San Martin de Unx alde batetik dala eta Sofuentes, bestetik. Tarte orretan daude. Onak adierazten digu naike erromatizatuak izango zirela baztar oiek. Alaz ere, or tarte orretan, euskerak gutxie-

nez XVI'garren gizaldirarte iraun zuan bizirik. Latiñezko itzak gañean zitula, ori bai; baña, euskera.

LATIÑA ETA TOKIEN TOKIKO IZENAK.

Ainbeste urte gurekin biziaren poderioz, euren latin-kutsua utzi zieten Euskalerriko erri-izenei erromatarrek. Gai oneri buruz badu Julio Caro Baroja jaunak "Materiales para una Historia de la Lengua Vasca en su Relación con la Latina" deritzan liburua.

Lenengo orrietan euskeraren egoera argitzen digu: 1.587'tik 1.778'ra bitartean, berreun urteen buruan, ez zan Naparroa'n euskerarik batere atzeratu. Estella eta Tafalla ziran egoaldeko mugak. Estella'n eta Panplona'n euskera zan erriaren mintzaira. Geroragoko atzerakadak azaltzen dizkigu Caro Baroja'k ondorengo orrialdeetan. Berak dionez, Erdi-Aroan euskerak irauten zuan oraindik Vascones, Várdulos eta Caristios izandako erri-aldeetan; baita Autrigones-erriaren zati batean ere. Badirudi izen oiek euskaldunei ipiñi zieten denboran bazirala iru euskera gutxienez eta ori euskeraren antxiñakotasunaren adiezgarri bat da.

Gero Caro latin-itzen deituraz ari zaigu luze eta zabal, zergatik eta nola aldatzen diran. Ondoren, etengabeko abiadan, erririk-erri joango zaigu euren izenen akaberak argitzen eta zeintzuk diran latiñetik etorriak adierazten. Latiñezko ANUS'etik omen datozte AIN eta AN erri-izenen amaierak. Antonius'tik AntoniANUS sortzen omen da, Peru'tik Perurena bezala. AntoniANUS'en ANUS orretatik omen datozte euskerazko AIN eta An, euskerazko erri izenen amaierak. Naparroa'n asko daude, Araban ere bai. Gipuzkoa'n erri auk: Andoain, Beasain, Bellarrain, Orendain eta Zerain. Euskal idazle batzuek esan zioten AIN euskerazko GAIN'dik zetorrela... Ori ezagutu arren, berak bere temari eusten dio oietako erri asko ordekan daudelako.

Errien izenak zein giza-izenetik sortzen diran ere aitatzen du. Ona emen errien izenetik ateratzen dituen giza-izenak:

Latiñetik: Asterius, Aureus, Auricus, Barbatus, Emeterius, Eusebius, Evaristus, Luperius, Macer, Marcellus, Marcus, Marius, Paternus, Sinesius, Urbicus, Valerius, Veranius.

Akitani eta Frantzi'tik: Guerin, Centulo, eta Sembus.

Iberia'tik: Orixo eta Equesius.

Euskalerritik: Anderquina, Belasco, Belaxa, García, Laquide, Muñoz, Sancho, Uridía, Zorraquino, Zuria eta Zurito.

Izen auk ez dira danak latiñetik etorriak, baña erri berrien izenak sortzeko jokaera, ori latiñarena da. Ortik edo, ondoren au ateratzen du: Erri-izen oiek erromatarren garaikoak direla, batzuek beintzat.

Aurrerago IN, ANO, ANA, OÑO, OÑA eta ANIA atzizkiak aitatzen ditu. Guztia dira latiñetik sortuak. IN eta ANO ez direla AIN atzizkiaren aldaketa bat besterik; ANO aldatzen dala AUN egiteko: Atano>Ataun, Etxano>Etxaun, Elkano>Elkaun... Oien antzekoak esaten ditu ANGO, IZ, EZ eta OZ atzizkieri buruz ere. Naiko korapillo badago tartean emen askatzen asteko. Eta, beste gabe goazen aurrera.

ERROMATARRAK AKITANIA'N.

Erroma uri bakar bat zan, besterik gabe. Barruko indarrak Latio deritzan bere inguruan zabaldu zitun eta andik sortu zan Latin-izkera, Latio'ren mintzaira. Italia osoan zear bere erroak luzatu zitun Mediterraneo itxasertzetik aurrera.

Oietako lerro bat zan Via Aurelia, Erroma'tik Tarragona'raño luzatzen zana. Ara eldu orduko, lerro bat ateratzen zuen Narbona'tik Tolosa'ra eta emendik Burdeos'era. Bide onetatik sartu zan Erroma Akitania'ko Euskalerrian. Besoak zitun lerro onek egoalderuntz bat baño geiago, Tarragona'tik zetozen bideekin elkartzen ziranak, Pirenee-mendietan zear.

Orduko Euskalerra luze eta zabala, ertz guztietatik zegoen bidez lotuta; orrela, sarrera-mota guztietako atean irikita zeuden. Andik aurrera edozein sartu zeikean bide oietatik; orregaitik jaso zituzten erromatarrek mendi-muiñoetan 'oppida' izenezko gaztelu sail bat. Bide-gurutzeak baziran bat baño geiago bide-lerro oietan; guk, ordea, bat izango degu begien aurrean: Legdunum Convenarum, gaur eguneko St. Bertrand de Comminges.

Estrabon eta Cesar historiagille erromatarrek ez digute euskeraren berririk zuzenean eman, baña bai zearka. Auxe esaten digute: Pirenee-inguruko erriek mintzaira berezi bat zutela, inguruko errien mintzairatik apartekoa. Mintzaira ori euskera zan. Ez erromatarren garaian bakarrik, baita gerora ere aiek aldendu ezkeroz. "Aran" deritzan aranak eta bestealdetik dauden Ribagorza eta Pallares (Lerida) Pirenee'ko aranak X'garren eunkian, euskera utzi eta katalana artu omen zuten zuzen-zuzenean erderarik gabe.

"Valle de Aran" orren Pirenee-mendiko gaillurrean sortzen da Burdeos'en amaitzen dan Garona ibaia. Bien bitartean mako aundi bat egiten du Frantzia'n zear ibaiak, eta mako orren barruan dago Novempopulania, Gazkuña eta Guyena izenak izan dituen Akitania.

Erromatarrek bazuten jainkoei eta ildakoei arlosa eta aldarak jasotzeko oitura. Euskalerra osoan daude: Bizkaia eta Gipuzkoan gutxi, Araba eta Nafarroan asko; baña, bitxienak Akitania'ko Pirenee-mendietan daude. Auetakoak batzuek Erroma'ko jainkoei eskeiñita daude, beste batzuek jainko euskaldunei; badira ere bie naasteen eskeiñitakoak ere. Arlosa eta aldara oietan daude idatzirik aurkitzen diran euskal-itzik zaarrenak.

Amar milla urtetik gorako gure arbasoen testigantza koba-zulo eta bertako marrazkiek egiten dute. Orain bost milla urte, berriz, gure aurrekoen illobiak diran txikuarriek. Orduko bizitza erakusten digute; baña, testigantza oiek mintzairik gabeak dira. Erromatarren illarriek, ordea, bi milla urte inguruko euskerazko itzak dituzte. Oiek dira gure aurrekoen bizitza argitzen diguten arkeologi-aztarnak.

Arlosa oietara urreratu aurretik bi gauzatxo argitu bear ditut: Itz euskaldunak izan arren, langilleak latin-erara idatzi ditula eta, ori dala-ta, soiñu aldaketak egiten ditula izkiak bere tokitik aldatuz. Bigarren argitu bearrezko gauza auxa da: Euskaldunen buruetan izan dirala, eta badirala oraindik, zenbait siniskeri sorgiñei buruz, Mariri buruz eta Mari'ren mendeko diran eta lur-azpiko eremuetan bizi diran animalia itxurazko sorgin eta jaiko-txikieiri buruz.

Ona zer esan zion D. Jose Miguel Barandian'eri, 90 urteko agure euskaldun batek, 1.943'garren urtean:

“Gizonak badu lur bat bertan bizitzeko eta bertan iltzeko. Baña, andik aruntz ez du ez aalmenik, ez aalik. Odeiak gizonen baimenik gabe dabilta gañetik. Lur-azpiko eremuetan, berriz, deabruak dira nagusi. Deabruak lur-gañera ateratzen dira animaliez jantzita eta animalia gisan. Bei-gorri, zaldi-xuri, zerri-xuri, aari ta suga...” Beigorri, Zaldixuri, Zerrigorri, Aari, Aker, Asto eta abar dira animalia itxuran dabilzan sorgin eta deabruak euskaldun zaarren buruetan. Ona batzuek:

Beigorritxo: Kobeetan bizi diren Mari eta sorgin-deabruen ipuiak badira Euskalerrian: Irari baserriko alabea bei-gorri baten itxura zuen sorgiñak eraman omen zuen bere aitz-zulora. An ikusten omen dute txerri-gorri baten ondoan. Beste neska bat joan omen zan Aizgorri'ra eta “bei-gorritxo” bat ikusi omen zuen, onek neskea arrapatu eta indarrez bere leizera eraman.

Aari: Mari agertzen da Aketegi'ko aitz-zuloan aari baten gañean...

Aker: Akelarretako jauna bera da eta berak gordetzen ditu baserrietako ikuilluak gaitz guztietatik...

Asto: Bizkarrean gurutzea darama eta bidaietan lagun segurua da...

Abel, Abere, Abelgorri: Abel berez ganadua esan nai du eta Abelgorri, ganadu gorria; baña gaurko egunean zezen, idi, beiak, irizkoak abelgorri deritzaite, naiz eta gorriak ez izan. Baña, gure mendietako zezen eta beiak gorriak izan dira beti. “Saka”k ere gorriak izan ditu orain urte gutxirarte, Debara Sanroketan ekarritako zezenekin naastu dituen arte. Abere itza ere, Zubero aldean zezen eta beien deitura da, beste gañontzeko Euskalerrian, berriz, zaldiena.

Animalien izenak eta siniskeriak gureraingo eldu dira eta izen eta siniskeri oiek daude Pireneetako arlosetan idatzirik. Oiek ziran erromatarren garaiko euskaldunen jainkoak. Gure aurrekoek jainko biurtu zituzten animalien euskerazko itzak dira.

Onela dio Jose Miguel Barandiaran'ek bere "Mitología Vasca" liburuan, 81'garren orrialdean:

"En la mitología vasca tienen particular importancia diversos 'genios' que adoptan figuras de animales, principalmente de caballo, de toro rojo (zezen-gorri), de vaquilla roja (beigorri), de carnero (aari), de oveja, de macho cabrío... Habitan generalmente en antros y su función se limita a ser guardianes de tales sitios... No permiten que algunas personas penetren en su habitación. En algunos casos secuestran a jóvenes que han sido objeto de alguna maldición y las retienen como cautivas en su morada subterránea".

"En la 'época romana' debía de estar tan extendida como hoy esta mitología subterránea de nuestro país, pues hemos hallado en las cuevas de Isturitz, de Santimamiñe, de Sagastigorri, de Covairada 'monedas romanas' que, de acuerdo con la costumbre de aquel tiempo, habían sido lanzadas a tales lugares para lograr la protección de los genios cavernarios".

Euskal mitologian diraute oraindik animali itxurazko deabru edo jainkoak; prehistoriako leize-ormeetan badira jainko-deabru animali oien irudiak; baita diru erromatarrek ere animali oieri eskeiñiak eta azkenik, animali izenezko jainko-deabru oien arlosak. Auek sakabanatuta daude Euskalerriko mendietan; batez ere Pirenee-bizkarrean zear. Gaurko mitologia, prehistoriako irudiak, erromatarren diruak eta arlosak, danak batera agertze onek euren arteko lotura argitzen digu. Eta, euskaldunen buruetan ibilli dirala histori osoan. Gureak dira eta gureak izan dira beti.

Aztikeri eta sorginkeri ugari dago, eta egonda, euskaldunen buruetan. Aelio Lampidio idazle erromatarrek, Alexandro Severo enperadorearen bizitza idaztean, onela dio: "Aztikerietan oso zan zale eta trebea, Euskaldunen aztiak garaitzeko aiñakoa". ("ut et Vascones augures vicerit". Vita A. Severii, 27.3). Izena izan degu eta izana ere bai. Orren adieztatzen dira gure mendietan dauden jainkoen arloak eta aldarak.

LUGDUNUM CONVENARUM EDO CIVITAS CONVENARUM.

Izen oiekin ezagutzen zuten erromatarrek gaurko St. Bertrand de Comminges errixka. Garona ibaiaren alboko muño batean dago. Badu garai bateko katedrala eta arri-esi galantak ere inguru guztian. Or bildu zitun Pompeio'k Pireneetatik getxi-arazi zitun Sertorio'ren alde joka zuten euskaldunak. Gerrateetan izaten diran 'campos de concentración' oietakoen antzekoa zan Lugdunum Convenarum.

Ortik gora dago Valle de Aran deritzan ballara eta Lixon'ena ere bai. Garona ibaiaren sorrera Pirenee-gallurrean dago. Andik gertu Adur ibaiarena. Bata bestetik ez aiñ urruti. Ingumari oietan daude jainko-euskaldunei eskeiñitako arlosarik geienak.

JAINKO-TXIKI EDO DEABRU EUSKALDUNAK:

Euskeraz daude, baña latíñezko erara. Arlosak eta aldarak arri-landuez egiñak daude eta jainkoeri eskeiñiak. Emaiegun asiera.

ARIXO DEO, Aritxo Jainkoari eskeiñia. Adur ibaiaren iturburuan dago. Ingu-ru artan dago beste bat:

MARTI ARIXONi, Marte Aritxo onari. Arlosa onetan Aritxo-on euskalduna Marte erromatarraikin alkartzen da. Marte gerraren jaiko biurtu zan; orren aurretik narotasun edo ugaritasunaren jainkoa zan, Aritxo bezala. Orregaitik al-kartu zituzten.

ASTO ILLUNO DEO, Asto Illuna jainkoari. Aritxoren arlosatik gertu. Asto Illuna erdaldun batentzako (erromatar batentzako) castaña oscuro bezela da; orregaitik argiñak ILLUNO ipiñi du eta ez ILLUNA.

BAICORRIXO DEO, Beigorritxo jainkoari. Garona ibaiaren iturburuan. Andik beera daude beste batzuek; izena aldatzen doaz beerago eta ainbat geiago. Ona izen oiek: Baigoriso, Baiorixo, Baigorisco, Baigorrix, Buaicorrix, Buaiorix... Ainbeste arlosa alkarrengandik ez ain urrutian, zera agertzen digute, Bei gorriak zuen garrantzia. BEI itza BAI aldatu da, E A biurturik. Au gertatzen da euskeraz bi itz alkartzen diranean: Maite + Kunde = Maitakunde, "al formar palabras por sufijación o por unión de dos vocablos...". (Nicolás Ormaetxea 'Orixe' y Martín de Oyarzabal, "El Lenguaje Vasco", Impreso en Gráficas Iza-rra: San Sebastián, 1.963. 11' garren orrialdean).

AHER BELSTE DEO, Aker Beltza jainkoari. Bagneres de Luchon inguruan dago. H erromatarrek K aoskatzen zuten; eta Beltse idaztean argiña naastu eginda, S tokitik aldaturik.

ABELIONi DEO, Abel On jainkoari. Abel berdín izan litzake zezen et bej; edo-ta Azkuek dionez auntz eta ardi. Baita ganadua, besterik gabe. Abel eta Bei jainkoek alkarrekin zer ikusirik ba ote dute? Izatekotan auxe: Beigorritxo izango litzake gaiztoa eta Abel ona bere izenak dionez. Gure ipuietan ikusi izan degu Beigorritxo deabrua edo Mari gaizkillea neskak arrapatu eta bere kobara preso eramaten. Jainko oneri eskeiñitako arlosa eta aldarak badira gutxienez bost. Oietako bat Sabinus Barhosis'ek eskeintzen du: Sabino Barkoxe'ren semeak. Barkoxe erria bada lfaraldeko Euskalerrian.

ABERRI DEO. Abel (gorri) jainkoari. Adur ibaiaren iturburuan Arixo eta Asto Illuno topa dituguz; Garona'ren iturburuan, berriz, Baicorrixo eta Aher Belste; beerago Abel, bost aldiz gutxienez, eta Aberri. Baña, Abelgorri bein ere ez, naiz eta gaurko egunez itz ori erabilli aotan eten-gabe. Badirudi Aberri Abelgorri dala.

ERGE DEO, Ergi jainkoari. Idixko edo idi gazteari esan oi zaio Ergi. Ergi itxuran agertzen dan jainkoari.

IDIATE DEO, Idiate jainkoari. Idi badakigu zer dan. Ate edo Athe itzak badu esan berezi bat: Talde. Ar-talde esaten degun antzera esaten da Idi-ate: Idi-taldearen jainkoari.

ELE DEO. Ele da Ganadu taldea: Ganadu-taldearen jainkoari. Garibay idazleak "Milia Lasturko", euskal bertsoak dakarzki eta bertan onela diote: "Aitajaunak ereisten dau elia, amandreak apainketan obia". Erderara onela itzultzen ditu: "Su padre baxaba gran hato de ganado para sus funerarias". Arlosako ELE itza aitatzen du Garibay'ek 1.500 urte beranduago.

EDELATi DEO, Zaldi-taldea jainkoari. Emen agertzen dira aurreko bien itzak: El(e) eta AT(e), biak alkarrekin eta esan nai berdiñakin: Taldea. Baña, aurretik Ed(e) du: Ed-El-At. Zaldiari agoan ipintzen zaion burnia da Ede. Ededun ezitako zaldiari esan oi zaio, basatiak ez diranei.

BAESERTE DEO, Basaurde jainkoari. Arrisko aldara batean dago eta aldamenean basurde bat du korrika; beraz, Baeserte izena Basurde'ren aldaketa da. Ez dago mendian, beeko ordekan baizik, St. Bertrand de Comminges'en alboan, Gourdan erriaren Basert auzoan. Narotasun eta ugaritasunaren irudia da basurdea. Abereak kuma asko izateak badu bere garrantzia, aberastasuna abere asko izatean bait zegoen. Harbelex Harsa'ren semeak eskeñita dago.

BOCCO HARAUSONi, Haraus On jainkoari. Eraus itza, H'rik gabe, urdearra da Zuberoa'n. Urde edo txerri-arrak (verrac) euskeraz itz asko ditu: Apot, aketz, ordots, errautx eta eraus. Zuberoa'n bada beste arlosa bat Haraus-gorrika'ri eskeñia. BOCCO itzak zer dion ez dakit; baña, griegoeran Bokos itzaia da, eta artzai arazoekin zer ikusia dute beste Boko ori daramaten itzak. Badirudi Eraus ori ezitako txerria dala. Goragoko arlosan Basurdea izan da itz-bide eta ura ezigabeko abere basatia da; Haraus-on au, berriz, etxeko ikulluan bizi dan Txerri-ona. Gure artean esaten da txerriak dana duela ona. Basurdea eta Txerria, biak dira narotasun eta ugaritasunaren irudiak. Bien jainkoei eskeintzen zaizkie arlosa eta aldara auek.

ERDIT eta ERDITSE jainkoari. Abere guztien erditze ona lortzea da artzai, itzai eta unai danen arazoan elburua. Erditzea zaintzen duen jainkoa gurtu bear orretarako. Arlosa auek Toulouse ingurukoak dira, goiko gallurretatik ibarrera jexiak.

LEHERENNO DEO, Lekera On jainkoari. Amalau aldiz aitatzen da gai au; batzuetan, bakarrik, bost aldiz Marte'rekin batera. Bat dago Marte'ri berari eskeñia. Gustiak daude toki berean: Ardiegia deritzan erri bateko eleizean Bax eta Toulouse'ko bidean Pirene'tatik naiko alde. Zer jaiko ote da Lekera On au? Mugika-iztegian Lekera da 'goma de pegar' eta Lekeda itzakin bat egiten duna. Lekeda, berriz, zera da: 'liga, goma de cazar, pez, gluten eta viscosidad'. Zer ikusirik ote du animalien erne-aziakin? Marte eta Aritxo alkarrekin ikusi izan ditugu arlosa auetan; Marte narotasun eta ugaritasunaren jainkoa zan, gerraren jainkoa baño lenago. Aritxo eta Marte antzekoak ziran. Lekera On au Marte'rekin lotuta agertzen da; beraz, erne-aziakin, narotasun eta ugaritasunakin alkatzea ez litzake ain aldrebasa izango.

ILLARGIA ETA ARLOSAK.

Illargiak beti izan du abegi ona antxiñako errien artean eta gure artean ere bai, bera bait zan gaueko argia. Badaude berari eskeiñitako arlosa eta aldarak. Bagneres de Luchon'en, orain berreun urte, lurrak arrotu ziran arkeologi ikerketak egiteko eta arlosa sail bat topa zuten. Aien artean zeuden illargiari buruzko auek:

ILIXONi DEO eta LIXIONi DEO, Illargitxo-Ona jainkoari. Iru zati ezagunak daude itz oietan: IL (il-argia) (i) XO (txo) ON: Il-i-Txo On = Illargitxo On. Bagneres de Luchon, Bagneres de Lixon da. Bertako bañu-etxe famatuan BAL-NEUM LIXONENSE ipintzen du latinez bigarren aldarak dion bezala; baña, bada an diskoteka bat 'Ilixon' izenakin. Auek asmatu dute benetako erriaren izena. Gaueko argi-zuziari maitezko Illargitxo On 'Il-i-txo On' izenakin deitzen zioten bertako euskaldunek.

ILLUNO DEO, Illunaren jainkoari. Asto Illuno ikusi degu aurrerago Asto Illuna esan bearrean; emen gauza berdiña gertatzen da: Ori idatzi zuen argiñari Illuna Deo ipintzeak miñ ematen zion belarrian; obeto, Illuno Deo. Jainko au illargiaren illun-aldikoa zan, zearo iskutatzen danean.

ILLUMBERRI DEO, Illun Berriaren jainkoari. Illunetik berriro sortzen illargia ikusten zanean, orduantxe lasaitzen ziran illunetan zeudenen biotzak.

GOAZEN ORAIN ILLARGITIK MENDIETARA.

GARR(i) DEO, Mendi-gallurraren jainkoari. Aurreko arlosen inguruan, bañu Garona ibaiean beerago. Gar ori mendi gallurra da. Ortik datoz Gar-mendia, Gar-ate, Gara-mendi, Gar-ai, Gar-aiko etxea, Etxea-gar-ate... Gar-ona ere bai; ibaiak artu du mendiaren izena. Gar-ona da ur asko dagoelako. Guía Michelin frantziarrak dionez, zazpi errekatxo daude goi artan eta guztiak dira Garona. Beraz, Gar-ona tokiaren izena da berez eta andik beera datozten urak gelditu dira deitura orrekin. Luchon'eko ibarretik irtetean, antxen dago Marnac erria eta bertan aitz zorrotz bat Pic du Gar izenakin.

CARRi, Garriri. Arlosetan C eta G askotan naasten dira: ez dakizu bat ala bestea dan. Argiñak ondo idatzi ez zuelako edo-ta gerora G'ri beko mako gastatu zaiolako. Dana dala, Carr au beste Garr aren inguruan dago, eta jainko berdiña dala argi dago.

MONTIBUS, SILVANO ET DIANA: Leku berean euskerazko Gar, latinezko Montes biurtu da; Montes Nimidi, Mendi-baso oparoak eta baso oietan Silvanus da Basajaunaren irudia. Andik gertu daude SEX ARBORI DEO eta FAGO DEO arlosak: Sei Arbolei eta Pago jainkoei. Latiniak euskerea menperatzen.

MENDIETAN OLA-GIZONEK LANEAN.

AGEIO DEO /PAGANI FERRARIENSES, Agearen jainkoari baserriko olagizonek. 'Jainko eta baserriko olagizonek' latinez daude. Age euskeraz. Age, aga eta agai euskeraz bi esanai ditu: Alde batetik arbolen fruituak jasotzeko erabiltzen dan aga luzea, eta bestetik oletan erabiltzen dan porra edo matxinoa. Olagizonen eskeintza da eta emen porra edo matxinoa da Age ori.

ALAR, Alar jainkoari. Gauregun Alar itz au ez da bera soilki erabiltzen; baña, bai beste bateri lotuta: Alar-be (Alar gabe) basati, ezigabeko animalia, esan nai du; Alar-azle artzai da eta Alar-azi, artzaintza egin. Artzaintza ez da esigabeko abereekin egiten eta artzaia ez da basatien zaindaria, ezitakoena baizik. Beraz Alar animalien ezitza da. Galdutako itza, arlosetan bizirik dirauena. Alar-jainkoa bearrezkoa zan, eizea utzita, animalia ezitik bizi zan erri artzai batean.

ALAROSTO DEO, Alar-totso jainkoari. T izkia, konsonante gogor baten ondoren D biurtzen da: Alardosto Alartosto da. S ori, berriz, Aher Belsten ikusi genduen antzera, bere tokitik alde eginda dago: Alartosto, Alartotso da. Totso itzak euskeraz Agoa baten erdia esan nai du. Burnia egiteko labeetan burnimeatzari ikatza naasten zaio su egiteko. Ortik ateratzen dan burnia Agoa da eta Totso, Agoa baten erdia. Euskerazko itzak dira, naiz eta gero erderak beretzako artu, Goa eta Tocho esanaz. Animaliak ezitzen diran antzera emen burnia ezi da, orregaitik darama aurretik Alar itza. Olagizonek jainko bat bear zuten labeetatik bear bezalako burnia atera aal izateko. Orain bi milla urteko euskera bitxia.

LAKAE DEAE, Laka jainkosari. Laka itzak bi gauza esan nai ditu: aldebatetik, gurutze (grurutze-bide) eta bestetik uraren zurrunbilloa. Laka jainko-emeari eskeiñiak, bi aldara ezagutzen dituguz errekar alkartzen eta gurutzaten diran tokietan. Beraz, euskerazko 'laka' itzaren esan-naia ondo betetzen da bi arlo-sa auetan. Bietako aldara bat 'Consecrani'ek jasota dago. Nor ziran Consecrani oiek? Arlosa guzti auen zerrenda egin zutenak onela diote: "Se designan con el nombre Consecrani o Consecranei, los miembros de asociaciones constituidas con algún fin religioso, bajo la invocación de una divinidad cuyo santuario ellos sirven". Laka jainkosak ba'zitun, Consecrani oietakoak, baita elizatzoa ere bai, Garona ibaiara dijoazen bi errekatxo alkartzen diran tokian.

ERROMA-PANTEOIKO JAINKOAK.

Euskaldun izeneko jainko auen artean badaude beste batzuek ere erromatarrek ekarriak. Oien artean Jupiter, Marte, Mitra, Mater Magna, Sol Invicto, Apolo, Minerva, Tutela, Ninfae, Dei Manes, Hercules eta abar.

Mitra (Sol Invictus Mitra) Ekialdetik (Oriente) ekarria zan Erroma'ra eta gudariek zabaldu zuten jainko onen jaiera. Leize-barrenean zituen bere irudiak, aldara gañetan, zezena iltzen. Berak ekartzen zuen egunsentia eta illuna menperatzen, eguzkia argitzeko. Mitra euskaldun onen irudia Pireneetako leize

baten atakan topa zuten, lurpean, itxasotik gora 1.288 metrotara dagoen St-Lary-Sulan auzoan. Leize onek ura dario eta kobearen gañean elizaxo bat dauka ondorengo kristauek eraikia. Urakin eta eguzkiakin alkartuta zegoen Mitra jainkoa, eta bi oiek, eguzkia eta ura, ondotxo egokitzen ziran artzai aien buruekin. Soli Invicto Deo oneri jasotako aldarak ba ziran beste bi, Naparroa'n, bata San Martin de Unx'en eta bestea Orreagan. Abenduaren 25'an ospatzen zuten erromatarrek 'Natalis Solis Invicti', Eguzki Garaillearen Jaiot-eguna. Gerora, Elizak egun ori aukeratuko zuen Jesus'en Jaiotza ospatzeko.

Beste orretariko jainkoak badira Naparroa'n: Jupiter, Deus Maximus Peremusta, Marte Invictus, Magna Mater, Ninfæ, Dei Manes... Oien artean euskaldun-antzekoak ere bai: Losa (Lotsa) bi aldiz, Selatsa iru aldiz, Atta eta Lacubegi. Ubegi iturriaren sorburua da, eta Laku, arrizko aska. Uxue'ko ermita zaararren azpiko-aldean iturri bat dago eta, oraindik ere, toki arreri Lakobegi esaten diote Uxue'n.

Araba'ko jainko erromatarrek aukeratuak dira: Matres Useæ, Lares Viales, Tutela, Ninfæ, Dei Manes... Bizkaia'ko Forua'n Iulia; batzuek esaten dute itz au euskalduna dala eta ibilitik datorrela. Orduan, jainko au Lares Viales izango litzake euskeraz esana. Lapurdi'n bada Genius Pagi (Pagoaren jainkoa); latiñezko Fago, Pago bihurturik. Zuberoan, Aterratze'ko Soroluze auzoan, ba da jainko euskaldun bat Kerauscorrixka izenekoa. Esanda daukagu Keraus txerri-arra dala.

GIZAKIEN EUSKAL-IZENAK.

Pirenee mendietako arlosetan izen aukerak arkitzen dituguz: Osson Priami Filius, Otso-on Priamoren semea; Harbelex Harsi Filius, Arbel-leize Artza'ren semea; Andere Andereseni, Andere Anderes'ena; Andus, Andosso (Andotxo), Andoxus (Andotxo), Andei Deæ (jainkosa Andiar); Illumberritxo Anderetxo; Cison (Gizon); Lexi Deo (Lezearen jainkoari). Eta beste erdi-purdiko itz aukerak: Xuban, Ulbelteso, Usece, Tullonio... Araba'n berriro Tullonio, Usarna, Helice Helasse, Liucma, Baelisto, Sandao Vimumburu. Eta aukerak batera onelako au: Rodano servo Atilii filius, Tichia uxor Illuna socra (Rodano'ri... TTikia emaztea, Illuna amagiarreba). Gipuzkoa'n ez dago ezer au besterik: Oiartzun'go Adrea-riaga'ren arlosetan Aebeltesonis (Akerbeltzeon'aren?) itza.

Izen-lerrokada aukerak amaitzeko gauza bitxi bat aitatu det eta auxe da: Laroigeita amar urte Kristo jaio aurretik Turma Salluitana osatzen zuten gudari zaldunei goratzarre egiten die Ascoli'ko dokumentu batek. Gudari aien artean bederatzi Egea de los Caballeros deritzan erri euskaldunekoak ziran. Aietako baten izena Elandus Enneges zan: Elando Eñego'rena. Orra Iñigo'ren lenengo deiturak: Ennecus (Eñekus), Enneges (Eñego'rena), Iñeco, Iñigo. Izan ere Loiola'koaren izenak, Euskalerrri'ko edozein gauzak bezala, sustraiak eta erroak izaten ditu luze.

AMAITZEKO.

Euskalerrriako kondairak millaka urte asko ditu bere aurretik. Baita bere mintzairak ere. Millaka urte askoko itzak topa dituguz aitzia sustrai dutenak, abereak sustrai dutenak, metalak sustrai dutenak. Beuroen zaartzaroa itzetan bertan arkitu degu; itzak eurak daramate zaartzaroaren ikurra. Beste itz guztiak, geroragoko ikurrik ez daramatenak, aiek orduko mintzairarenak dira.

Erromatarren garaian berba asko irabazi zitun euskereak kultura gai berriak asko izan ziralako eta bateren bat galdu ere bai. Latiñetik jaso dituguz ale batzuek muestrarako. Beste batzuek arlosetan billatu izan dituguz. Oiek gaurkoen antza berdin-berdiña dute. Gizaldietan zear, euskaldunen mintzaira dan euskereak, berbak gorde ditu millaka urteen buruan aldakuntzarik gabe; bere sena gorde du aldakuntzarik gabe; baita erderari eman ere, bai itzak eta bai sena. Erderak euskeraren sena galdu zuan, erdera uts bihurturik eta orain euskerari berak erantziko dio erdal kutsua.

Orain arte euskereak bere bizia gorde du, eta poltxa galdu duela esaten digute; baña, millaka urteetan itzak ondo gordetzen ere, ikusi degu. Gaurko euskeraren arazoa, bizia eta poltxa, biak batera galtzeko arriskua da. Erne, euskaldunok!

ARRINDA'TAR ANES

(Euskerazaintza Akademira'ko sarrera-itzaldia. Deban, maiatzak 15. 1993)

ESAERA ZARRAK

Etorriko da Maiatza, jango doguna lebatza.

Maiatzak erdia negua.

Maiatzeko beroa, urteko balioa.

Urkoaren maitasuna, erriaren osasuna.

Ur meietan galtzen dana, ur andietan itto.

Urrezko giltzak ate guziak ideki.

Udaberriko legortea, urte guztiko gosetea.

Ugariari, dirua ta osasuna kantari.

Pakerik ez ba da, ez lanik, ez lotsarik.

Langille txarrak, atxur onik ez.

Guzurra ta errena laster jausten dira.

—"Euskera, ez ta ilko!"

Guk nai ez ba'degu ezta ilko, bañan baserrietan Euskerarik maitatuko ez balitz, elbarri ta gaxo geldituko zaigu... Baserri askotan maitatzen dute Euskera (bestelakoak ere izan arren), baña ondo begiratzen badiogu, erederaz ere tajutzen diranak dira geienentxoetan.

—"Para Pili del caserío Arat-erreka de Amboto, "Espasmo" de Viriato Rebollez". Orrelako zentzungebakeriak ez aldituzu radioan entzun, gure baserritarrak eskatuta?"

Ez da aurrenekoa izango, erritik kanpora bi urte neskame pasata, errira etortzean, erderakazoka ekiten dutenak... Sortzez euskaldunak diran askok biotza pipiak jota daukatela uste det, gai oneri buruz...

Zer poza nerea oker ba'nego!

* * *

Gizaldietan zear baserria izan da Euskera ta euskal oituren Ikastola Nagusi ta Unibersidade. Berari eskerak gera gaur euskaldun.

Gure gizartean, oraintzurarte, baserria zan jaun da jabe.

Etzan erderarik bear.

Bada gaur kalea nagusi egintzaio ta kalean erdera da jaun da jabe... Eskola eskasenean ere erdera da nagusi... Ez dio Euskerari sartzen usten ezertako ere...

Elizatik kanpora nun du Euskerak bere giroa?

Ez toki askotan...

*

—"Ez da ilko!"

Baña artarako bearrezkoa da lenengo Euskera ikastoletara eramatea. Ta bigarren, ume euskaldunak euskal ikastoletara eramatea... Postutzen nau biotza euskal ikastoletan erdaldunen semeak ikusteak. Nik baserritarrak nai nituzke ikusi.

Samiña da: gure euskal ikastoletan baserritarren umerik ikusten ez.

Oker banabill, errutik atera nazazute euskal ikastoletako andereño oiek. Zuek dakizute zer klasetako umeak dabilzan gure ikastoletan.

Ez diazute esango baserritarrak ez dutela euskal ikastolen bearrik euskeraz badakitelako...

Euskal ikastolak kultura euskeraren bidez emateko dira, ez Euskeraz ikasteko bakarrik ta gure baserritarri kultura ta jakingarriak euskeraz artzea iñori baño geiago konbeni zaie ta iñork baño probetxu geiago atera ere bai.

Orduan bai esan genezakegula lasai:

—"EUSKERA EZTA ILKO!"

ANES-1966

III

EUSKERA, IL BEAR OTE DEZU?

Askotan entzun izan degu "Patxi Tellatu"ren istorioa: egoaldetik etorritako semea (Francisco Tejedos). Euskalerrian bersolari.

Iazkau'ko erriak ondo daki orren berri. Bai "Lazkao-txiki" k ere.

*

Gaur emen kaso baten berri eman nai nuke. Amalau urte bete berriak ditu:

—"Zer dezu izena?"

—"Lorenza Bravo".

—"Nungoa zera?"

—"Extremadura'koa".

—"Zertan zaoz eman?"

—"Dotriña erakusten".

—"Zeñeri?"

—"Ume euskalduneri. Bost edo ze iurtekoak dira".

Orain arte esan deguna ez da arritzekoa. Lan ori askok eta askok egiten dute gure elizetan. Baña Deba'ko eliz bastertxo batean Dotriña erakusten dagoan neskato apal ori, extremeñoa izada, Euskeraz ari da Dotriña erakusten. Euskaldunen umeai erakutzi ere, alajafietan!

Ez al da ori txalogarri?

—"Nun ikasi dezu Euskera?"

—"Iziarren".

Bejondeizula, Iziar!

Betiko lelora gatoz orain ere.

Erdaldunak euskeraz erakusten ari diran artean, eukaldunen semeak, zer?

KEZKAK

Utzik gelditzen diran baserri askotan erdaldunak sartzen ari dira...

Guk ezagutzen degun kondaira guztian ez da beste orrenbeste gertatu...

Baserria izan da Euskalerrian bere mami, sustrai, gordeleku izkutua ta itur-buru...

Gaurko egunean erdaldunak sartzen an zaizkigu itur-buru ta euskal biziaren sorleku ortan. Gaitz erdi Euskera ikasten ba dute. Izan leike erdera Euskalerrriaren muñetan sartzea betirako!

Dana dala, soziolojiko garrantzi aundiko gertaera dala uste det. Iñoiz Euskalerrriaren kondaira egin bear baldibada, beintzat.

Ona Soziolojiko tesis batentzako gai egokia:

Zenbat baserri ustu dira aizkeneko urte auetan?

Zenbat oietako baserri, erdaldunetz bete dira?

Aldaketa onek, beste zer aldaketa ekarri dizkigu berarekin?

*

Korapillo ta problema asko ditugu gaur gure errian. Etorkizunari begira, ez da esandako au txikienetakoa izango'.

Baserriak iturburuak bezela izan dirala beti, esanda daukagu. Iturri oietatik sortu dira beti euskaldunak, euskera ta euskal oitura ta euskal izatea ere, kaleak irentsi ala...

Beti kimu berriak giñuzten.

Iturburutik zetorren ur garbia eten gabe... beko zelaie-tan zikintzen bazan ere.

Gaur itur burua ari zaigu galtzen.

Azitokia, ondatzen.

Guregana etorrira, euskera ikasten duten erdaldu-nak, txalogarriak dira, egitan...

Zoritxarrez, ikasten ez duten asko ere ba dira.

Zergatik eta zertarako ikasi?

Euskaldunok, geurok, galdera on geure buruari egi-ten ba diogu, nola ez diote ba egingo erdaldunak!?

* * *

Guk arrazoibidea badegu Euskerari eusteko, gure aurrekoendik artutako aberastasun bat ba da...

Gure Euskal izate guztia aberastasuna da. Gaurko egunez batez ere.

Kultura gai asko ia berdiñak dira mundu guztian, trokel batetik sortuak ba'lira bezela. Donostian egiten diran etxeak eta Viena'koak, antzekoak dira... Oiturak, jazkerak, janak... danak berdiñ.

Laister munduak ospizio baten antza izango du.

* * *

Gizon guztiak gera sustrai ta sakon-sakonean berdi-ñak... Baña ez daude bi arpegi berdinak, ez bi beatz-arrasto antzekoak ere. Norberetasuna ordetzea, aberas-tasuna da mundu guztiarentzat. Gure erritik kanpora bagoaz, gure errian ez dauden gauzak billatzea degu gogoko. Gogoko degu erri bakoitzak norberetasuna gordetzea...

Lora-mota asko daude.

Fundamentuzko gauza geienak lore guztiak berdiñak dituzte ta edertasuna ere bai: denak dira eder.

Baña lora batetik bestera aide asko dago. Danak eder, baña lora bakoitzak bere edertasun berezia...

Ez ditugu olandarrak abarkakin ikusi nai.

Ezta gure baserritarrak txokloakin ere.

Bakoitzak bere oñetakoak gordetzea ez da iñontza-ko kaltegarri. Danentzako aberastasuna baizik.

Gure aberastasunak mundu guziko aberastasunak dira. Gure erruz galtzen badira, mundua pobreago izan-go da gure kulpaz.

Euskera ta gure izate berezia gordetzeak ez digute patatak merkeago jarriko, baña patatatik bakarrik ez da gizona bizi...

1990 Batuak ilko ote ditu Euskera guztiak?

ANES-1966

EUSKERAKADAK ERDERAZ

Bazan nere errian illeak moztu eta apaintzen zitun euskaldun bat eta bein batean onela galdetu zion Urliak:

—Zertan ari zera?

—Aquf pelo cortando. Erantzun zion.

Arrezkero gaitz-izen orrekin gelditu zan. Erderaz erantzun arren, aren burua euskeraz ari zan.

x**

Orrelako asko gertatu oi dira Euskalerrian. Zumarraga'n esate baterako, berba auk erabiltzen zituzten ezpañetan noiz-nai:

—Qui n si serfa y, eras tu?

Zein ote zan eta, zu al ziñan?

Araba'n, berriz, orrezaz gaiñera, itz eta euskal berba asko sartzen zituzten erdal-izketaldietan Araba'ko ballaran:

—Tengo una perra! Alperra esateko.

— Me duele la bizkarra. Eta, abar.

Ez da ori arritzeko erdaldun berriak diralako. Baña, euskerakadak erderaz ari dirala Gaztelanian botatzea, ori bai dala benetan arrigarria.

Badu D. Manuel Lekuona'k lantxo bat erderaz egiña gai oneri buruz. Bertan auxe esaten digu: "Orixe'k askotan aitatzen zuela gai ori; batez ere Erdera zaarrean daudela euskerakada oiek sarri eta ugari. Era orretako esanaldiak dira "a Dios rogando y con el mazo dando", "tierras de pan llevar", "quien nisperos come" edo "el que mucho abarca, poco aprieta".

El Fuero de Sepulveda eskuetan izan duela dio D. Manuel'ek eta bertan nai aiña orrelako esanaldi "euskaldunak" daudela. Erderaz aritzean lenengo ipiñi bear dana Nor da, gero aditza eta ondoren aditzaren osagarriak, eta beste izenen osagarriak (complementos directos e indirectos). Erdera zaarrean, berriz, aditzaren osagarriak, euskeraz bezala, aditzaren aurretik ipintzen dira. Euskeraz, guretzako inportzirik geien duen itza, aditzaren aurretik ipiñi bear da, nai ta nai-ez.

Sepulveda'ko Fueroak erderaren legea austen omen du etenik gabe, legea alderantziz balitzake lez: Aditzaren osagarria beti edo geienetan, aditzaren aurretik doa.

Ona jokaera onen ale batzuek:

"Madera tayando e llenna haciendo".

"Zugaitzak ebakitzen eta egurra egiten".

"Derecho defendiendo".

"Eskubideari eusten diola".

"Qui mal ficiere".

"Gaizki egiten duana".

"Qui casa apedreare".

"Btxeari arrika ematen diona".

"Non pueda y (alli) facer casa, el dueño non queriendo".

"Ezin dezakela an etxerik egin, jabeak nai ez duala".

"Pennos en mano teniendo".

"Ageriak eskuan dituela".

Zer ondoren atera genezake gertaera auetatik? Zer adierazi nai ote digu izketa arazo nek, erdaldun baiño lenago euskaldunak zirela? Euskalerrian sortu zan gaztelera, latiñetik, baiña euskaldunen ezpanetatik. Orregaitik erderaz, euskeraz bezela, bokalak bost dira, eta ez geiagorik: A, E, I, O, U. Latiñetik sortutako frantzezeran eta italiaran, bost baiño geiago daude latiñean ere ala daudelako. Latiñez bost izki oien gaiñ beste bi diptongo daude: AE eta OE. Biñakako izki oiek soiñu bat bakararra dute: E soiñua, argiago edo illunago. Gaur eguneko latin erakusleek, latin gutxi dakiten seiñalea, diptongo oien izkiak banatu egiten dituzte: AE, A eta E. Baña, orrela ez zan eta orrela ez da.

Latiñetik artu zuten euskaldunek gaztelera, euskaldunen erara: ez zuten latiñetik diptongorik jaso. Bost izkiak utsik eta bakarrik: A, E, I, O, eta U. Bost euskaldun soiñu.

Latiñak ez duen beste soiñu bat ere eman zioten erderari: Jota soiñua. Euskaldunen jota gogorra. Latiñez iota egiten dute eta Euskeraren salbatzalle berriok euskerazko jota jatorra kendu eta latiñezko iota emekia sartu digute zintzurretik beera eta Euskera guztientzat; orain or dabil-tza erriak darabillen soiñu ori nola idatzi eziñik.

D. Manuel Lekuona'k bere ondorenak ateratzen ditu eta, erderaz datozen, erderaz emango ditut "traduttore, traditore" gertatu ez nediñ. Ona bere itzak:

"Esta problematica afecta directamente al Castellano. El Castellano en la Edad Media revestia formas distintas de las actuales en la construcción de sus frases. Pero, como quiera que estas formas eran semejantes, coincidentes con las correspondientes vascas, ello nos induce a creer que el Euskera ha influido grandemente en las evoluciones del Castellano: que el Euskera ha sido un factor muy importante en la formación de la Lengua de Castilla".

ARRINDA'TAR ANES

EUSKERAREN BATASUNA ETA EUSKALKIEN INDARRA

(20 urte aurretik idatziak)

Orañ arte euskalkiak izan dira

Euskaeraren indarra
erriaren agoan.

Bitartean, bere batasuna eginda zeukaten ele eta izkuntza zenbait
(Iatiña beuren artean) ilda daude liburuetan;

literatura askorekin,
baiña, ilda.

Latiñari buruz bagera, bere latinkiak (romances) bizirik diraute
oraindik errien agoetan.

Euskera "batua"

ilda jaio da;
ez bait du errietatik inork orrela itz egiten.

Alaz ere, batu baten moldeak bearrezkoak ditugu literaturaren alde-
tik.

Baiña,

Euskalkiak (giputxa, naparra, bizkaitarra, lapurtarra...) il gabe.

Euskalkiak ilko diran egunean ilko bait da Euskera berbera ere
errien agoetan.

Bi zaldi

bear ditu Euskararen gurdiak aurrera arin-arin joango bazaigu:
literatur-euskera-batu bat eta euskalkiak bizirik erriaren agoetan.

Batu bat bear da.

Goitik poderioz eta bortxaz trokelen bidez jota egin-da,
edo beetik zabalduaz... Norberak ikusi. "Guztoekin ez bait da
disputarik".

Indarkeriaren emaitzak, ordea, gure inguruan ikusiak dauzkagu:

batasuna-unifikazioa egin zan goitik aginduta.

Ogeita-amar urteen buruan lengora gatoz berriro: orduan troke-
lez bat egiña orañ bereiztera.

Indarkeriaren bidea artzea, gauzak ogeita amar urte atzeratzera bes-
terik ez da izanen. Indarrez egiten diranak burnian balioko dute
(burnian bertan ere, burniak bere giroa bear du; ez da otzik egiten;
ondo gurituta, baizik), baiña gizaseme-alabeen biotzetan ez du ba-
lio inundik ere.

Betiko leloan

sartuta gaude: persona ala elkartea?

Personari hakarrik begiratzeak

oker aundiak ekarri dizkio gizakiari;
zenbait mesede ere bai.

Elkarteari bakarrik begiratzeak

mesede aundiak dakarzki bere orrekin;
baiña, kalterik ere ez da falta.

Kin-kan gabiltza.

Justizi eta zuzentasunak eskatzen diguten erdiko puntu ori, nun
dago?

Batasuna euskalkirik gabe, zer da?

Euskera biziaren eriotza: liburutegiak ederrak.

Euskalkiak batasunik gabe?

Perfezio gutxiago, liburugintza gaitzago, jakinduri-bideak es-
tuago. Euskera bizirik, ordea.

Pelotari onak ezker-eskubiak, biak bear ditu, aurrera joango bada.
Euskerak ere batasunarekin batera euskalkien aberastasuna eta bi-
zia, biak bear.

Euskalki guztien aberastasunak batera ekarri, euskalkieri lepo-
rik moztu gabe...

Bukatzeko:

Aolku apal bat
ikastoletako aurreri buruzkoa.

Ona:

zenbait eta aurra gazteago,

orduan eta amaren izkuntza bearrezkoago. Amaren euskalkian
aurra azi bearko,

gero batasunean eziko badegu.

Laboratorio utsean

sortutako Euskera

jaio-gabe galdutako aurra da.

A. ARRINDA (1970)

IRAKURLEAI OARRA

ZER aldizkariak eta EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k ba-dauke Bilbao inguruan urteko arpidetza eskuratze-
ko erea. Etixerik etxe joaten da kobratzaillea. Baiña gauzea ez da ain erreza errietan. Orregaitik eskari au egiten dau-
tzuegu: Bialdu eiguzue txartel edo txeke bat. EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren izena ipiñi ta 2.000 pezeta di-
rala idatzita. Txartel ori sartu karta-azal baten eta gainean zuzenbidea ipiñi: EUSKERAZALEAK ALKARTEA.

Colón de Larreategi, 14, 2º, eskoia. 48001 BILBAO.

B IZKAITARRAI BIZKAIERAZ

EUSKERA DA GURE EDESTIAREN GORDELEKU

Gaurdaino historia paperetatik ateratzen zan, eta gure Erriari buruzko paperak etsaien eskuetatik irten dute gizaldietan zear, franko eta goioen garaitik asiez gero.

Orduko kronika zaarrak monjeen geletan sortzen ziran eta Campion gure euskaldun idazleak zionez "El odio de los camamentos había subido a la celda de los monjes".

Praille aiek izan ziran kronika idazleak eta aien lanetik ateratzen dana zera da, alegia, euskaldunak beti izan gerala terrorista utsak. Eurok geure erriari egindako sarraskiak, berriz, oorez betetako ekintza zoragarriak ziran. Bitartean gu ixilik, ez bait genduak idazle kronika zalerik: "cortos en contallas y largos en facellas".

Gaurko egunez, ordea, ba dira beste bide batzuek edestia egiteko, paperak ez direnak: arkeologia bezela etnografia eta beste bide geiago ere bai. Guk badegu, zorionez, beste bide eder-eder bat: EUSKERA.

Euskereak badu bere barnean, geure edestia argitzeko aalmena, baldin beure esan-naiak ikusteko argirik ba'degu. Deba'ko erria artuko det azter-gai ikusi dezagun, nola paperik gabe ere, erriaren aurreko bizia ikasi diteken.

LABATAI.

Bada Deba'ko errian kale-irteera bat LABATAI izenarekin. Egun batzez Itziar'tik etorritako Olabetarrek taberna bateri ipiñi zioten izen ori. Eta or dago izena burni-bidearen geltoki aurreko enparantzan.

Don Manuel Lekuona'ren aotik daukat ikasita, euskaldunok oitura zaarra degula itz luzeak murriztekoa, iru silabetara menderatzen. Esate baterako or daukagu bere lagun D. Jose Migel Barandiaran'goa eta berak bere buruari Joxemi el esaten zion. Izketa zaarrak dira tolare torcularen ordez, algara algazaren ordez, beste izkereetatik artutako itzak aitatze...
Era orretakoa da LABATAI ere: LABE-ATARItik sortutako berba. Ataria edo Atea: Labe baterako erriko irteera. Deba bale-arrantzan egiñiko erria da eta Foruak agintzen zuen bale-urdaiak urtutzeko labeak erriatik at egon bear zutela. Erri-esitik irtetzeko atea zan Labatai: labera irtetzeko ataria. Zergaitik egon bear zuten labeak erriatik kanpora? Urtutze orretan sortzen zan atsagaitik, usai txarragaitik.

* * *

Beraz, Labatai izenetik ateratzen degu labe oiek nun egon zitekeen. Labe oiek ez dute beste arrastorik Deba' n utzi; Canada eta Terranova ingumarietan bai, an utzi dituzte aztarnak y aurkitu ere aurkitu dituzte zenbait euskaldunek paraje aietan jasotako labeak; baña, ez Deba'n eta ez Euskalerriko baztarretan ez dute bat bera ere aurkitu. Euskerak, ordea, berak gorde digu bere baitan, euskal labe baten (besterik ote da?) ingurua.

Deba'ko en-ia sortu zutenean, 1343'an, orduko erri-txikien erara, eraiki zuten: eliza bat, bere enparantzarekin mutur batean, eta kale sail bat, erri-esiaren barruan. Badegu era orre-

tako marrazki bat eta marrazki orretan iru irteera ikusten dira: bat Labataikoa, beste bat Poturakoa eta irugarrena mendira, Itziar-aldera dijoana.

* * *

Labataiko irteerak Astillero kalea du berreun metrora aurrez-aurre eta gune aretan egongo ziran labeak, gaurko egunez etxeak tartean baldin ba'daude ere, are gañean jasoak. Balea urtutzeko, ordea, uretatik legorrera jaso bear zan. Orretarako bear ziran tramankuluak, labe-inguruan egongo ziran.

Gai oneri buruz badaude paperetan Lekeitio'ko berriak eta paperek esaten digutenez, elizak balearen mingañetik iru zatietatik bat eramaten zuen, baña, orren ordañez "manobrero" bat eduki bear zuen zutabe, polea eta bear ziran soka guztiakin baleak eta txalopak ondarrera ateratzeko. Deba'n ere beste orrenbeste gertatuko zan Labaitik labetarako bitarte orretan.

* * *

Labeak kana bat gora eta kana t'erdi zabal alde bakoitzeko. Goitik kaldarak sartzeko zuloa zuten. Eta kaldarak pipa t'erdi, pipa bat eta pipa erdikoak ziran. Pipa bakoitzeko 450 kilo. Azpitik, berriz, labeak zulo txikia zeukan errekiñak sartu aal izateko. Suari eusteko labearen txingarrak erabiltzen zituzten.

Balea erre aurretik, ordea, zatitu egiten zan tira luzeak atez burutik isatzeraiñokoak. Gerora tira oiek ogei zentimetroko zatietan ebagi. Barruko aragi guztiak ere berdin zatitu koipeak ateratzeko. Lan orretarako aiztoak bear ziran alakoak eta neurri guztietakoak.


Bein koipeak urtutzen ziranean, tina aundi batera atera. Tina au erdirarte urez beteta zegoen eta koipeak uretan igari egiten zuan eta zaborrak ondora joan. Koipea galbai batetik pasa eta barrilletan sartu merkatura botatzeko.

Erriatik kanporako merkatuak bazuen lonja bat eta an dago oraindik Astillero kalea baño aurrerago, Maxpe kalean: Maxpe deritzan etxea. Ibai-ertzean dago eta badu mollatxo bat ere bere alboan, itxasontziak inguratu eta bertatik bertara, etxetik barkura, merkagaiak errez asko pasatzeko, barrillak bezela, burniak, meatzak eta abar... Etxe orrek izan duen eginkizunik ez da gaur nabaritzen errian; baña, bertako biztanleak, gaur bertan ere, azpiko solairuari "lonja" deitzen diote, zertarako zan jakin barik.

* * *

Salgai zeuden ban-ikak lonjetan gordetzen ziran eta edozein bale-ontziak bear zituzten millatik gora. Gaur-egun ez dago errian barrillerorik; baña, orain 50 urte neronek ikusi nuen Jose Manuel Irureta, "Sagarmiña", bere etxe-aurrean barrillak egiten. Mutriku'ko Sagarmiña baserriatik jeitxi zan Deba ibaiaren ertzera eta, arostegiak besterik ez zegoen errian, arotz ikasi zuen eta barrillak egiten ere bai. Egia esan, barrillak egitea ez

ERRIAK



zan etorkizun aundiko ofizioa Jose Manuel Deba'ra eldu zanean; arosteagiak, eurak ere, bata bestearen ondoren, geienak itzi dira.

Garai batean haj, "carpinteros de ribera" zeritzenak ba'zuten lanik barkugintzan eta barrillak antolatzen. Jose Manuel'ek "Sagarminiak" aurreko Deba argitzen digu bere bizitzarekin barrillak egiten diarduanean.

Gure historian badegu bi itxas-ontzien berri zeatza: bata zan "San Nicolas" 475 toneladako galeoia, Landaverde jaunak Portugaleten egiña. Bera zan armadorea ere eta berberak aukeratu zuen barkuaren kapitan Joan de Espilla debarra. 72 gizon barruan eta aien artean 6 arpoilari eta bost barrillero. 1564'aren udaberrian irten Getari'tik eta udazkenean Bilbo'ra biurtu 1.195 koipe-barrika barruen zituztela.

Orra zenbat lan barrilleruentzako. Jose Manuel Sagarminiak ez zuen orrelako egunik; baña ofizioari eutsi zion orain arte. Berarekin il zan Deba ibaiaren azken barrilleroa. Bera izan da denbora aietako lekuko bat, lekuko zanik jakin barik... Baña, orrek agertzen digu joandako historiaren zenbat testigu dirautzen duela oraindik gure artean.

Bigarren bale-ontzi ezaguna, Pasaia'ko "San Joan" ontzia degu, Espilla Canada'tik etorri ondorengo laugarren urtean, Labrador'en ondoratua. Udazkena zan, etxera itzultzeko ordua, eta 1.000 barrika-koipe beteak zituen ordurako barruan. Guztjak galdu: barkua, armamentuak, koipeak, gauza guztiak... Ipar-aldeko Joannes Etchveerry (1627) jaunak osan zuena:

"Biziaren gaitik / arriskatzen dugu bizia".

Ikusten degu zer lan izaten zuten barrillak egiten eta antolatzen. Batzuek eginda eramaten zituzten; baña, geienak pusketetan, barrika bakoitzaren duelak zenbaki batekin banan-banan markatuta, gero an Terranova'n konpontzeko eta barrillak osatzeko. Lotzeko kurpillak ez ziran burnizkoak, urradarrez egiñak, baizik.

Ala agertu da Labrador'en ondoratutako San Joan ontzian. Oñati'ko artxiboan aurkitu ziran iru dokumentuetatik, atera dute nun egon dan lurperatuta, orain lareun urte ondoratutako

barkua. San Nicolas ontziak bost barrillero eraman zituan lan oietarako: bi Baiona'koak, biak maixu, bat Getari'koa, lenengo maillako ofiziala eta beste biak ez du nungoak ziran esaten: baña, bi auek izan ziran gutxien irabazi zutenak.

Deba "Sagarminiak" ko arotzak barrillak egiten zituen; baña, bere ondoren ez du beste batek barrillak egiten ikasi. Eta ortxen amaitu da gizaldietan zear zetorren barril-egite aria...

Orra zenbat gauza gordetzen dituen bere barrean Labata; itzak. Edestirako oeste zenbait gauza ere bada Deba'ko errian. Bale-gantza urtutzeko labeetatik aurreraxeago, or daukagu aldatpatxo baten asieran Astillero Kalea.

ASTILLERO KALEA.

Barku-gintzan abillak eta trebeak izan dira itxas-ertzeko arotz euskaldunak: (carpinteros de ribera famatuak). Amabost eta amaseigarren gizaldietan Europa guztitik etorri o; ziran Euskalerra itxas-ontzi billa. Castro'tik as; eta Baiona arteko itxas eta iba; bazterrak astilleroz beteta zeuden eta zitekeen mota guztietako ontziak irtetzen zuten curen babesetik.

Deba'n aspaldian ez degu barku-gintzarik ikusi; artarako gizonik ere ez dago gure artean. Baña egun batez izan zirala argi erakusten digu Astillero Kaleak. Toki egokian zegoen: ordartzatik kanpo eta aldatpatxo batean, ontziak uretara botatzeko erreztasunez.

Era guztietako lanak sortzen zitun barku-gintzak: arotz bereziak, barrilleroak, basoak eta basa-gizonak zur egokiak lortzeko, karioan ibiltzeko Burni-olak sortzen ziran barku-gintzaren inguruan, ontziak bear zituzten burnikiak sortzeko. Olak, berriz ere, zura bear zuten egur-ikatsa egiteko eta ikas-kinak ugari. Oiekin batera mandoak eta gurdia, mandozaiñak eta itzaiak.

Meatzak eta garraioak... olagizonak zer esanik ez. Meatzta Bizkaia'tik ekarri o; zuten, bertan meatz-zulorik ez ba'zan.

Orra zer mundu dagoen Astillero-kalean gorderik. Gaur egun ez dago mundu ori Deba'n; baña, garai batean, bai. Badegu baita ere Errota-zar futbol-zelaia. Gaur egun jolas-tokia da, orduan berriz, maria-errota, eta aurrerago, burni-ola. Lastur auzoan daukagu Goiko-ola baserria, aldaparo ta guzti, andik beraxeago bi errota txiki alkarren parean, bata gorago bestea baiño; curen aurrean, ondoratutako Plaza-ola eta Lasturbean Leiza-ola...

Zenbat ola mendi-zulo aretan. Ugarte-mendi'ko urak (Izarraitzeko ipar-malda luzean) Ugarte baserriko alboan galtzen dira leize batean. Lastur'koak, berriz, Leiza-olako leizean. Ur oiek guztjak Sasiola'n agertzen dira aitz-artetik "Deva" ibajaren ertzean.

Sasiola aurrean, Astigarribia'ko aldetik, bada baztartxo bat "astillero" izenakin eta astillero orren barkuentzat burn; asko bear zan. Orra nundik-nora Lastur basatia burn;-olaz bete. Deba'rako ere izango ziran burni oiek.. . Zenbat izan bastarretan gure historia egiteko gai diranak!

SOKAGIN KALEA (Cordeleria).

Elizako Plaza-Zaarretik portura dijoan kaleak du Sokagin edo Cordeleria kalea izena. Bela-barkuak soka mota asko bear zituen ojal zuriak zuzentzeko eta ontzia lurrera lotzeko. Mari baten lana izaten zan sokak lotzen ikastea, korapillo era guztietakoak egitea. Itxas-ertzeko errj guztietan egoten ziran sokagintzak, egon ere badagoz oraindik zenbait portuetan. Deba onetan izena besterik ez dago; garai batean bazegoela, ordea, kale izen orrek erakusten digu.

PORTU - KALEA.

Asierako erriaren erdian, geroagoko Plaza-berrian asita, berutz, ortxen dago Portu-kalea beste plaza batera, Donostia'tik Bilbo'ra dijoan bide zabalera eta tren-bideraño. Orain eun urte or zegoen portua, baña, tren-bidea (FEVE) egiteko bete zuten eta geltidu zan Deba porturik gabe. Gaurko Portu-kalea plaza batetik bestera dijoan kalea da. Izenak, ordea, dirau: Portu-kale.

Orduko "Ferrocarriles Vascongados" elkarreak agindu zuen, portua egingo zuela berriatik. Ez zuen egin. Joan dan urtean, 1998, asi ziran euskal agintariek portutxo bat sortzen, lengoen inguruan, eta 1999-09 jl onetan eman zaio amaiera lanari. Badegu portutxoa. Ez, ordea. Portu-kalean.

* * *

Deba'ko barra ("Itxasoan laño dago / Baiona'ko barraraiño") beti izan da gaiztoa eta jende asko itto da bere olatuetan orain eta lenago. Alaz ere erromatarren garaikoa zan "Deva" ibaiko kaia eta bertan zegoen Tritium Tuboricum Melo eta Ptolomeo idazle erromatarrek ziotenez.

Itxas-ertzean beste iru erri aitatzen dituzte Getaria, Donosti-Pasai eta Oyarzun. Oyarzun (Oearso) zillarrezko minak zeudelako: Donosti-Pasai eta Getari portu seguruak zirelako; baña, Tritium Tuboricum zergaitik? Guztiek esaten dute Mutriku dala edo Astigarribia mutrikuarra. An, ordea, ez dago porto segururik, ez meatzik. Astigarribia aurrean dagoena ura da ugari.

Erromatarrek egunez bakarrik ibiltzen ziran itxasoan eta gauzez kaietara bildu curen barkuak. Deba'ko kaia beti izan da arriskutsua eta segurantzirik gabekoa. Beraz, portutarako ez zuen ainbeste balio; baña erreka beste aldetik eta ez Astigarribia'tik, ura dago, aitzen artetik erreka sortzen dana.

Eta nai dan beste ur artzeko ez dago ontzitik jetxi bearrik, erreka ematen bait du iturri ugariak. "Tritium Tuboricum Deva erreka ikutzen du" dio erromatar idazleak eta Deva erreka dator zuzenean ur ugaria. Izarraitz menditik beera Lastur'era datozten urak, Lastur'en galtzen dira leizetan barrena eta gero Sasiola'n, Astigarribia aurrean, agertzen dira aitz a r etik...

Orra erromatar ontzi eta gudarostearantz arrazoi berezia: Tritium Tuboricum'go ur ugariak. Euren bideetan ur-tokiak markatzen dituzte arreta bereziaz. Tritium Tuboricum papere-tan ematen digute antxiñako idazleek, zer dan argitu barjk; baña, inguru oietan daude «astillero" eta "mollatxua" izenak Astigarribia'ko aldean eta Lastur'en an daude Goiko-ola, Plaza-ola. Leiza-ola, guztiok alkarrekin. Oiek ez daude papere-tan emanak gauzaetan, baizik, arkeolojijan baizik... Gure edes-tia egiten dote paperik gabe.

ONDARTZA-KALEA.

Ondartza-kalea da baña ondarra urrutian dago. Kale orretan Donostia'tik Bilbo'ra dijoan bide zabala dago. Aldame-nean, berriz, itxasoruntz, Calbeton'en zumardi luze zabala. Itxasorago oraindik, etxe mordoxka bat eta akabera, orra or azkenik Deba'ko ondartza. Nun gelditu da Ondartza Kalea? Bertan ondarrik ez dago zoru-azpitik ez ba'da; baña, izenak or gorde dute garai bateko lekuko, naiz-eta ondartzak aspaldian andik aldendu.

BASTIÑOIA.

Arri-esi bulartsua, kaiaren babesa: "bulebard" ere esan oi diote... Erriko kaleak erritik irtetzean an zegoen bastiñoia. Gaur eguneko Ondartza-kalean. Ez arri-esirik, ez ondartzarik: Calbeton'en Zumardia, baizik. Ortik portura egongo zan bastiñoia. Gaur urrutiko kale baterj ipiñi diote Bastiñuixa -kalea. Izen ori berritan ipiñia da; baña. erriaren aotan ez zan galdu Bastiñoi itza. Euskeraz ari zirala esaten zuten Bastiñoia. Gaur egun ez dago ez bastiñoirik, ez ondarrik Ondartza kalean, ez porturik Portu-kalean... Gure izkera euskaldunak gorde ditu izen guztiak bere sabelean. Zenbaitetan, historia egiteko, ez da paperik bear.

MAXPE-KALEA.

Maxpe-kalea Maxpe etxerako bidea da. Ibai-ertzean dago, Astillero-kalea baño ibaiean aurrerago. Uraren gañean ereiki-ta dago eta badu bere mollatxoa ere. Bertako bizilagunek erritik kanpora bizi dira eta, udaran bakarrik, etortzen dira errira. Azpiko solairuari "lonja" izenakin deitzen diote etxe-barruan dabilzenezan... Ate aundi bat badu beko solairutik ibaiera, mollatxua tartean dala.

Aldi batean ontziak gerturatzeko zan eta lonjatik ontzi-barrura, ala alderantziz, gauzak batetik bestera pasatzeko zan mollatxua. Deba'ko portuan bearrezkoak ziran lonja auk. Bertara ekartzen zituzten Labatai'ko bale-koipeak, burni-ole-tako burnizkiak, oletarako meatza eta merkataritzako gai guz-tiak. Bertan gordetzen ziran saldo arteko guztian.

Nagusi bakoitzak bazuen bere gauzen prezioa eta prezio artara makurtu bear zuten erosleak. Deba'ko kaian bezela Eus-kalerri'ko porto guztietan ikusten ziran Europa osoko merka-tarj ontziak erosi eta saltzeko... Gantzak eta burnizkiekin batera saltzen ziran Kastilla aldeko artilleak ere.

On-etarako berealdiko askatasuna zegoen gure anean. Badago parroko artxiboan Londres'en egiñiko erosketa baten bost agiri: Barku bateko kapitanak Londres'en erosi, ordaindu eta elizarako ekarri zuen "pianoforte" bat. Kapitanak eskubide guztiak zeuzkan edonundik edozer ekartzeko.

Maxpe izan zan lonja nagusi bat; baña, ez bakarra. Aurre-rarxeago bada Loja-berri baserrja, gaur lonjarik ez duenak: baña, garai batean Lonja Berria izana. Dana dala, or daude ize-nak errenkadan, gure edestien ezaugarri.

ANES ARRINDA
.Deba'n Irailak 30.
Urtea 1.999.

EUSKERA DA GURE EDESTIAREN GORDELEKU, (DEBA'KO JAKINGARRIAK)

Gaurdaino historia paperetatik ateratzen zan, eta gure Erriari buruzko paperak etsaien eskuetatik irten dute gizaldietan zear, franko eta gotoen garaitik asiez gero.

Orduko kronika zaarrak monjeen geletan sortzen ziran eta Campion gure euskaldun idazleak zionez "El odio de los campamentos había subido a la celda de los monjes".

Praille aiek izan ziran kronika idazleak eta aien lanetik ateratzen dana zera da, alegia, euskaldunak beti izan gerala terrorista utsak. Eurok geure erriari egindako sarraskiak, berriz, oorez betetako ekintza zoragarrik ziran. Bitartean gu ixilik, ez bait genduan idazle kronika zalerik: "cortos en contallas y largos en facellas".

Gaurko egunez, ordea, ba dira beste bide batzuek edestia egiteko, paperak ez direnak: arkeologia bezela etnografia eta beste bidé geiago ere bai. Guk bade-gu, zorionez, beste bide eder-eder bat: EUSKERA.

Euskereak badu bere barnean, geure edestia argitzeko aalmena, baldin beure esan-naiak ikusteko argirik ba'degu. Deba'ko erria artuko det azter-gai ikusi dezagun, nola paperik gabe ere, erriaren aurreko bizia ikasi diteken.

LABATAI

Bada Deba'ko errian kale-irteera bat LABATAI izenarekin. Egun batez Itziar'tik etorritako Olabetarrek taberna bateri ipiñi zioten izen ori. Eta or dago izena burni-bidearen geltoki aurreko enparantzan.

Don Manuel Lekuona'ren aotik daukat ikasita, euskaldunok oitura zaarra degula itz luzeak murriztekoa, iru silabetara menderatzen. Esate baterako or daukagu bere lagun D. Jose Migel Barandiaran'goa eta berak bere buruari Joxemiel esaten zion. Izketa zaarrak dira tolare torcularen ordeaz, algara algazararen ordeaz, beste izkeretatik artutako itzak aitatze...

Era orretakoa da LABATAI ere: LABE-ATARItik sortutako berba. Ataria edo Atea: Labe baterako erriko irteera. Deba bale-arrantzan egiñiko erria da eta Foruak agintzen zuen bale-urdaiak urtutze labeak erriatik at egon bear zutela. Erri-esitik irtetzeko atea zan Labatai: labera irtetzeko ataria. Zergaitik egon bear zuten labeak erriatik kanpora? Urtutze orretan sortzen zan atsagaitik, usai txarragaitik.

Beraz, Labatai izenetik ateratzen degu labe oiek nun egon zitekeen. Labe oiek ez dute beste arrastorik Deba'n utzi; Canada eta Terranova ingumarietan bai, an utzi dituzte aztarnak eta aurkitu ere aurkitu dituzte zenbait euskaldunek paraje aietan jasotako labeak; baña, ez Deba'n eta ez Euskalerriko baztarretan ez dute bat bera ere aurkitu. Euskerak, ordea, berak gorde digu bere baitan, euskal labe baten (besterik ote da?) ingurua.

Deba'ko erria sortu zutenean, 1343'an, orduko erri-txikien erara, eraiki zuten: eliza bat, bere enparantzarekin mutur batean, eta kale sail bat, erri-esiaren barruan. Badegu era orretako marrazki bat eta marrazki orretan iru irteera ikusten dira: bat Labataikoa, beste bat Porturakoa eta irugarrena mendira, Itziar-aldera dijoana.

Labataiko irteerak Astillero kalea du berreun metrora aurrez-aurre eta gune aretan egongo ziran labeak, gaurko egunez etxeak tartean baldin ba-claude ere, are gañean jasoak. Balea urtutzeko, ordea, uretatik legorrera jaso bear zan. Orretarako bear ziran tramankuluak, labe-inguruan egongo ziran.

Gai oneri buruz badaude paperetan Lekeitio'ko berriak eta paperek esaten digutenez, elizak balearen mingañetik iru zatietatik bat eramaten zuen, baña, orren ordañez "manobrero" bat eduki bear zuen zutabe, polea eta bear ziran soke guztiekin baleak eta txalopak ondarrera ateratzeko. Deba'n ere beste orrenbeste gertatuko zan Labataitik labetarako bitarte orretan.

Labeak kana bat gora eta kana t'erdi zabal alde bakoitzeko. Goitik kaldarak sartzeko zuloa zuten. Eta kaldarak pipa t'erdi, pipa bat eta pipa erdikoak ziran. Pipa bakoitzeko 450 kilo. Azpitik, berriz, labeak zulo txikia zeukan errekiñak sartu aal izateko. Suari eusteko labearen txingarrak erabiltzen zituzten.

Balea erre aurretik ordea, zatitu egiten zan tira luzeak atereaz burutik isatzerai-ñokoak. Gerora tira oiek ogei zentimetroko zatietan ebagi. Barruko aragi guztiak ere berdin zatitu koipeak ateratzeko. Lan orretarako aiztoak bear ziran alakoak eta neurri guztietakoak.

Bein koipeak urtutzen ziranean, tina aundi batera atera. Tina au erdirarte urez beteta zegoen eta koipeak uretan igari egiten zuan eta zaborrak ondora joan... Koipea galbai batetik pasa eta barrilletan sartu merkatura botatzeko. Erritik kanporako merkatuak bazuen lonja bat eta an dago oraindik Astillero kalea baño aurrerago, Maxpe kalean: Maxpe deritzan etxea. Ibai-ertzean dago eta badu mollatxo bat ere bere; alboan, itxasontziak inguratu eta bertatik bertara, etxetik barkura, merkagaiak errez asko pasatzeko, barrillak bezela, burniak, meatzak eta abar... Etxe orrek izan duen eginkizunik ez da gaur nabaritzen errian; baña, bertako biztanleak, gaur bertan ere, azpiko solairuari "lonja" deitzen diote, zertarako zan jakin barik.

Salgai zeuden barrikak lonjetan godetzen ziran eta edozein bale-ontziak bear zituzten maillatik gora. Gaur-egun ez dago errian barrillerorik; baña, orain 50 urte neronek ikusi nuen Jose Manuel Irureta, "Sagarmiña", bere etxe-aurrean barrillak egiten. Mutriku'ko Sagarmiña baseritik jeitxi zan Deba'ra ibaiaren ertzerara eta, aroztegiak besterik ez zegoen errian, arotz ikasi zuen eta barrillak egiten ere bai. Egia esan, barrillak egitea ez zan etorkizun aundiko ofizioa Jose Manuel Deba'ra eldu zanean; aroztegiak, eurak ere, bata bestearen ondoren, geienak itxi dira. Garai batean bai, "carpinteros de ribera" zertzenak ba'zuten lanik barkugintzan eta barrillak antolatzen. Jose Manuelek "Sagarmiñak" aurreko Deba argitzen digu bere bizitzarekin barrillak egiten diarduanean:

Gure historian badegu bi itxas-ontzien berri zeatza: bata zan "San Nicolas" 475 toneladako galeoia, Landaberde jaunak Portugaleten egiña. Bera zan armadorea ere eta berberak aukeratu zuen barkuaren kapitan Joan de Espilla debarra. 72 gizon barruan eta aien artean 6 arpoilari eta bost barrillero. 1564'aren udaberrian irten Getari'tik eta udazkenean Bilbo'ra biurtu 1.195 koipe-barrika barruen zituztela. Orra zenbat lan barrilleruentzako. Jose Manuel Sagarmiñak ez zuen orrelako egunik; baña ofizioari eutsi zion orain arte. Berarekin il zan Deba ibaiaren azken barrilleroa. Bera izan da denbora aietako lekuko bat, lekuko zanik jakin barik. Baña, orrek agertzen digu joandako historiaren zenbat testiguk dirauten duela oraindik gure artean.

Bigarren bale-ontzi ezaguna, Pasaia'ko "San Joan" ontzia degu, Espilla Canada'tik etorri ondorengo laugarren urtean, Labrador'en ondoratua. Udazkena zan, etxera itzultzeko ordua, eta 1.000 barrika-koipe beteak zituen ordurako barruan... Guztiak galdu: barkua, armamentuak, koipeak, gauza guztiak... Iparaldeko Joanes Etcheverry (1627) jaunak esan zuena:

"Biziaren gaitik / arriskatzen dugu bizia".


Ikusten degu zer lan izaten zuten barrillak egiten eta antolatzen. Batzuek eginda eramaten zituzten; baña, geienak pusketetan, barrika bakoizaren duelak zenbaki batekin banan-banan markatuta, gero an Terranova'n konpontzeko eta barrillak osatzeko. Lotzeko kurpillak ez ziran burnizkoak, urra-adarrez egiñak, baizik. Ala agertu da Labrador'en ondoratutako San Joan ontzian. Oñati'ko artxiboan aurkitu ziran iru dokumentuetatik, atera dute nun egon dan lurperatuta, orain lareun urte ondoratutako barkua. San Nicolas ontziak bost barrillero eraman zituzten lan oieta-rako: bi Baiona'koak, biak maixu, bat Getari'koa, lenengo maillako ofiziala eta beste biak ez du nungoak ziran esaten; baña bi auek izan ziran gutxien irabazi zutenak.

Deba "Sagarmiña"ko arotzak barrillak egiten zituen; baña, bere ondoren ez du beste batek barrillak egiten ikasi. Eta ortxe amaitu da gizaldietan zear zetorren barril-egite ari...

Orra zenbat gauza gordetzen dituen bere barnean Labatai itzak. Edestirako beste zenbait gauza ere bada Deba'ko errian. Bale-gantza urtutzeko labeetatik aurreraxeago, or daukagu aldapatxo baten asieran Astillero Kalea.

ASTILLERO KALEA

Barku-gintzan abillak eta trebeak izan dira itxas-ertzeko, arotz euskaldunak: (carpinteros de ribera famatuak). Amabost eta amaseigarren gizaldietan Europa guztitik etorri oi ziran Euskalerrira itxas-ontzi bila... Castro'tik asi eta Baiona arteko itxas eta ibai bazterrek astilleroz beteta zeuden eta zitekeen; mota guztietako ontziak irtetzen zuten euren babesetik.



Astillero kalea

Deba'n aspaldian ez degu barku-gintzarik ikusi; artarako gizonik ere ez dago gure artean. Baña egun batez izan zirala argi erakusten digu Astillero Kaleak. Toki egokian zegoen: ordartzatik kanpo eta aldapatxo batean, ontziak uretara botatzeko errezatasunez.

Era guztietako lanak sortzen zitun barku-gintzak: arotz bereziak, barrilleroak, basoak eta basa-gizonak zur egokiak lortzeko, karriotan ibiltzeko Burni-olak sortzen ziran barkugintzaren inguruan, ontziak bear zituzten burnikiak sortzeko. Olak, berriz ere, zura bear zuten egur-ikatza egiteko eta ikazkinak ugari. Oiekin batera mandoak eta gurdiak, mandozaiñak eta itzaiak.


Meatzak eta garraioak... olagizonak zer esanik ez. Meatza Bizkaia'tik ekarri oi zuten, bertan meatz-zulorik ez ba'zan.

Orra zer mundu dagoen Astillero-kalean gorderik. Gaur egun ez dago mundu ori Deba'n; baña, garai batean, bai. Badegu baita ere Errota-zar futbol-zelaia. Gaur egun jolastokia da, orduan berriz, maria-erota, eta aurrerago, burniola. Lastur auzoan daukagu Goiko-ola baserria, aldaparo ta guzti, andik beraxeago bi errota txiki alkarren parean, bata gorago bestea baiño; euren aurrean, ondoratutako Plaza-ola eta Lasturbean Leiza-ola... Zenbat ola mendi-zulo aretan. Ugarte-mendi'ko urak (Izarraitzeko ipar-malda luzean) Ugarte baserriko- alboan galitzen dira leize batean. Lastur'koak, berriz, Leiza-olako leizean. Ur oiek guztiak Sasiola'n agertzen dira aitz-artetik "Deba" ibaiaren ertzean.

Sasiola aurrean, Astigarribia'ko aldetik, bada baztartxo bat "astillero" izenakin eta astillero orren barkuentzat burni asko bear zan. Orra nundik-nora Lastur basatia burniolaz bete. Deba'rako ere izango ziran burni oiek... Zenbat izen baztarretan gure historia egiteko gai diranak!

SOKAGIN KALEA (Cordeleria)

Elizako Plaza-Zaarretik portura dijoan kaleak du Sokagin edo Cordeleria kalea izena. Bela-barkuak soka mota asko bear zituen oial zuriak zuzentzeko eta ontzia lurrera lotzeko. Mariñel baten lana izaten zan sokak lotzen ikastea, korapillo era guztietakoak egitea. Itxas-ertzeko erri guztietan egoten ziran sokagintzak, egon ere badagoz oraindik zenbait portutan. Deba onetan izena besterik ez dago; garai batean bazegoela, ordea, kale izen orrek erakusten digu.



Plaza Zaarretik Sokagin - kalera eskerretik eta Bastiñora eskubiko aldetik.

PORTU-KALEA

Asierako erriaren erdian, geroagoko Plaza-berrian asita, berutz, ortxen dago Portu-kalea beste plaza batera, Donostiatik Bilbo-ra dijoan bide zabalera eta tren-bideraiño. Orain eun urte or zegoen portua, baña, tren-bidea (FEVE) egiteko bete zuten eta gelditu zan Deba porturik gabe. Gaurko Portu-kalea plaza batetik bestera dijoan kalea da. Izenak, ordea, dirau: Portu-kale.

Orduko "Ferrocarriles Vascongados" elkarteak agindu zuen, portua egingo zuela berritik. Ez zuen egin. Joan dan urtean, 1998, asi ziran euskal agintariak portutxo bat sortzen, lengoen inguruan, eta 1999-09 il onetan eman zaio amaiera lanari. Badegu portutxoa, Ez, ordea. Portu-kalean.



Portu kalea: bide zabala eta tren bidea. Plaza bat ere bai.

Deba'ko barra ("Itxasoan laño dago/Baiona'ko barraraiño") beti izan da gaiztoa eta jende asko itto da bere olatuetan orain eta lenago. Alaz ere erromatarren garaiko zan "Deva" ibaiko kaia eta bertan zegoen Tritium Tuboricum Melo eta Ptolomeo idazle erromatarrek ziotenez... Itxasertzean beste iru erri aitatzen dituzte Getaria, Donosti-Pasai eta Oyarzun. Oyarzun (Oearso) zillarrezko minak zeudelako; Donosti-Pasai eta Getari portu seguruak zirelako; baña, Tritium Tuboricum zergatik? Guztiek esaten dute Mutriku dala edo Astigarribia mutrikuarra. An, ordea,

ez dago portu segururik, ez meatzik. Astigarribia aurrean dagoena, ura da ugari.

Erromatarrek egunez bakarrik ibiltzen ziran itxasoan eta gaeuz kaietara bildu euren barkuak. Deba'ko kaia beti izan da arriskutsua eta segurantzarik gabekoa. Beraz, portutarako ez zuen ainbeste balio; baña erreka beste aldetik eta ez Astigarribia'tik, ura dago, aitzen atzetik errekarra sartzen dana. Eta nai dan beste ur artzeko ez dago ontzirik jetxi bearrik, errekarra ematen bait du iturri ugariak. "Tritium Tuboricum Deva errekek ikutzen du", dio erromatar idazleak eta Deva errekarra dator zuzenean ura ugari. Iza-rraitz menditik beera Lastur'era datozen urak, Lastur'en gaitzen dira leizetan barrena eta gero Sasiola'n, Astigarribia aurrean, agertzen dira aitz artetik...

Orra erromatar ontzi eta gudarostearentzat arrazoi berezia: Tritium Tuboricum'go ur ugariak. Euren bideetan urtokiak markatzen dituzte arreta bereziaz. Tritium Tuboricum

paperetan ematen digute antxiñako idazleek, zer dan argitu barik; baña inguru oietan daude "astillero" eta "mollatxua" izenak Astigarribia'ko aldean eta Lastuir'en an daude Goiko-ola, Plaza-ola, Leiza-ola, guztiok alkarrekin. Oiek ez daude: paperetan emanak gauzaetan, baizik, arkeolojian baizik... Gure edestia egiten dute paperik gabe.

ONDARTZA-KALEA

Ondartza kalea da baña ondarra urrutian dago. Kale orretan Donostia'tik Bilbo'ra dijoan bide zabala dago. Aldamenean, berriz, itxasoruntz, Calbeton'en zumardi luze zabala. Itxasorago oraindik, etxe mordoxka bat eta akabera, orra or azkenik Deba'ko ondartza. Nun gelditu da Ondartza Kalea? Bertan ondarrik ez dago zoru-azpitik ez ba'da; baña, izenak or gorde dute garai bateko lekuko, naitzeta ondartzak aspaldian andik aldendu.


BASTIÑOIA

Arri-esi bulartsua, kaiaren babesa: "bulebard" ere esan oi diote... Erriko kaleak erritik irtetzean an zegoen bastiñoia. Gaur eguneko Ondartza-kalean... Ez arri-esirik, ez ondartzarik: Calbeton'en Zumardia, baizik. Ortik portura egongo zan bastiñoia. Gaur urrutiko kale bateri ipiñi diote Bastiñuixa-kalea. Izen ori berritan ipiña da; baña, erriaren aotan ez zan galdu Bastiñoi itza. Euskeraz ari zirala esaten zuten Bastiñoia. Gaur egun ez dago ez bastiñoirik, ez ondarrik Ondartza kalean, ez porturik Portu-kalean... Gure izkera euskaldunak gorde ditu izen guztiak bere sabelean. Zenbaitetan, historia egiteko, ez da paperik bear.

MAXPE- KALEA

Maxpe-kale Maxpe etxerako bidea da. Ibai-ertzean dago, Astillero-kalea baña ibaian aurrerago. Uraren gañean ereikita dago eta badu bere mollatxo ere. Bertako bizilagunek erritik kanpora bizi dira eta, udaran bakarrik, etortzen dira errira. Azpiko solairuari "lonja" izenakin deitzen diote etxe-barruan dabilzenean... Ate aundi bat badu beko solairutik ibaiera, mollatxua tartean dala. Aldi batean ontziak gerturatze-ko zan eta lonjatik ontzi-barrura, ala alderantziz, gauzak batetik bestera pasatzeko zan mollatxua. Deba'ko portuan bearrezkoak ziran lonja auk. Bertara ekartzen zituzten Labatai'ko bale-koipeak, burni-oletako burnizkiak, oletarako meatza eta merkataritzako gai guztiak. Bertan gordetzen ziran saldu arteko guztian. Nagusi bakoitzak bazuen bere gauzen prezioa eta prezio artara makurtu bear zuten erosleak. Deba'ko kaian bezela Euskalerri'ko portu guztietan ikusten ziran Europa osoko merkataritza ontziak erosi eta saltzeko... Gantzak eta burnizkiekin batera saltzen ziran Kastilla aldeko artilleak ere. Orretarako berealdiko askatasuna zegoen gure artean. Bada parroikiko artxiboan Londres'en egiñiko erosketa baten bost agiri: Barku bateko kapitana Londres'en erosi, ordaindu eta elizarako ekarri zuen "piano-forte" bat. Kapitana eskubide guztiak zeuzkan edonundik edozer ekartzeko.

Maxpe izan zan lonja nagusi bat; baña, ez bakarra. Aurreraxeago bada Loja-berri baserria, gaur lonjarik ez duena; baña, garai batean Lonja Berria izana. Dana dala, or daude izenak errenkadan, gure edestien ezaugarri.



Maxpe etxea, aspaldiko lonja bat.

ANES ARRINDA

EUSKERA DA GURE EDESTIAREN GORDELEKU, (DEBA'KOJAKINGARRIAK)



Asieratik ereiki zuten Plaza-Zarra eleizaren aurrean.

Gaurdaino historia paperetatik ateratzen zan, eta gure Erriari buruzko paperak etsaien eskuetatik irten dute gizaldietan zear, franko eta gotoen garaitik asiez gero.

Orduko kronika zaarrak monjeen geletan sortzen ziran eta Campion gure euskaldun idazleak zionez "El odio de los campamentos hab a subido a la celda de los monjes".

Praille aiek izan ziran kronika idazleak eta aien lanetik ateratzen dana zera da, alegia, euskaldunak beti izan gerala terrorista utsak. Eurok geure erriari egindako sarraskiak, berriz, oorez betetako ekintza zoragarrik ziran. Bitartean gu ixilik, ez bait genduan idazle kronika zalerik: "cortos en contallas y largos en facellas".

Gaurko egunez, ordea, ba dira beste bide batzuek edestia egiteko, paperak ez direnak: arkeologia bezela etnografia eta beste bide geiago ere bai. Guk badegu, zorionez, beste bide eder-eder bat: EUSKERA.

Euskereak badu bere barnean, geure edestia argitzeko aalmena, baldin beure esan-naiak ikusteko argirik ba'degu. Deba'ko erria artuko det azter-gai ikusi dezagun, nola papeirik gabe ere, erriaren aurreko bizia ikasi ditekera.

LABATAI

Bada Deba'ko errian kale-irteera bat LABATAI izenarekin. Egun batez Itziar'tik etorritako Olabetarrek taberna bateri ipiñi zioten izen ori. Eta or dago izena burni-bidearen geltoki aurreko enparantzan.

Don Manuel Lekuona'ren aotik daukat ikasita, euskaldunok oitura zaarra degula itz luzeak murriztekoa, iru silabetara menderatzen. Esate baterako or daukagu bere lagun D. Jose Migel Barandiaran'goa eta berak bere buruari Joxemiel esaten zion. Izketa zaarrak dira tolare torcularen ordez,

algara algazararen ordez, beste izkeretatik artutako itzak aitatze...

Era orretakoa da LABATAI ere: LABE-ATARItik sortutako berba. Ataria edo Atea: Labe baterako erriko irteera. Deba bale-arrantzan egiñiko erria da eta Foruak agintzen zuen bale-urdaiak urtutzeko labeak erritik at egon bear zutela. Erri-esitik irtetzeko atea zan Labatai: labera irtetzeko ataria. Zergaitik egon bear zuten labeak erritik kanpora? Urtutze orretan sortzen zan atsagaitik, usai txarragaitik.

Beraz, Labatai izenetik ateratzen degu labe oiek nun egon zitekeen. Labe oiek ez dute beste arrastorik Deba'n utzi; Canada eta Terranova ingumarietan bai, an utzi dituzte aztarnak eta aurkitu ere aurkitu dituzte zenbait euskaldunek paraje aietan jasotako labeak; baña, ez Deba'n eta ez Euskalerriko baztarretan ez dute bat bera ere aurkitu. Euskerak, ordea, berak gorde digu bere baitan, euskal labe baten (besterik ote da?) ingurua.

Deba'ko erria sortu zutenean, 1343' an, orduko erri-txikien erara, eraiki zuten: eliza bat, bere enparantzarekin mutur batean, eta kale sail bat, erri-esiaren barruan. Bade-gu era orretako marrazki bat eta marrazki orretan iru irteera ikusten dira: bat Labataikoa, beste bat Porturakoa eta irugarrena mendira, Itziar-aldera dijoana.

Labataiko irteerak Astillero kalea du berreun metrora aurrez-aurre eta gune aretan egongo ziran labeak, gaurko egunez etxeak tarteam baldin ba-daude ere, are gañean jasoak. Balea urtutzeko, ordea, uretatik legorrera jaso bear zan. Orretarako bear ziran tramankuluak, labe-inguruan egongo ziran.

Gai oneri buruz badaude paperetan Lekeitio'ko berriak eta paperek esaten digutenez, elizak balearen mingañetik iru zatietatik bat eramaten zuen, baña, orren ordañez "manobrero" bat eduki bear zuen zutabe, polea eta bear



Labatai. Kale irteera.

ziran soke guztiekin baleak eta txalopak ondarrera ateratzeko. Deba'n ere beste orrenbeste gertatuko zan Labataitik labetarako bitarte orretan.

Labeak kana bat gora eta kana t'erdi zabal alde bakoitzeko. Goitik kaldarak sartzeko zuloa zuten. Eta kaldarak pipa t'erdi, pipa bat eta pipa erdikoak ziran. Pipa bakoitzeko 450 kilo. Azpitik, berriz, labeak zulo txikia zeukan errekiñak sartu aal izateko. Suari eusteko labearen txingarrak erabiltzen zituzten.

Balea erre aurretik ordea, zatitu egiten zan tira luzeak atereaz burutik isatzeraiñoakoak. Gerora tira oiek ogei zentimetroko zatietan ebagi. Barruko aragi guztiak ere berdin zatitu koipeak ateratzeko. Lan orretarako aiztoak bear ziran alakoak eta neurri guztietakoak.

Bein koipeak urtutzen ziranean, tina aundi batera atera. Tina au erdirarte udez beteta zegoen eta koipeak udetan igari egiten zuan eta zaborrak ondora joan... Koipea galbai batetik pasa eta barrilletan sartu merkatura botatzeko. Erritik kanporako merkatuak bazuen lonja bat eta an dago oraindik Astillero kalea baño aurrerago, Maxpe kalean: Maxpe deritzan etxea. Ibai-ertzean dago eta badu mollatxo bat ere bere alboan, itxasontziak inguratu eta bertatik bertara, etxetik barkura, merkagaiak errez asko pasatzeko, barrillak bezela, burniak, meatzak eta abar... Etxe orrek izan duen eginkizunik ez da gaur nabaritzen errian; baño, bertako biztanleak, gaur bertan ere, azpiko solairuari "lonja" deitzen diote, zertarako zan jakin barik.

Salgai zeuden barrikak lonjetan godetzen ziran eta edozein bale-ontziak bear zituzten millatik gora. Gaur-egun ez dago errian barrillerorik; baño, orain 50 urte neronek ikusi nuen Jose Manuel Irueta, "Sagarmiña", bere etxe-aurrean barrillak egiten. Mutriku'ko Sagarmiña baserritik jeitxi zan Deba ibaiaren ertzerara eta, aroztegiak besterik ez zegoen errian, arotz ikasi zuen eta barrillak egiten ere bai. Egia esan, barrillak egitea ez zan etorkizun aundiko ofizioa Jose Manuel Deba'ra eldu zanean; aroztegiak, eurak ere, bata bestearen ondoren, geienak itxi dira. Garai batean bai, "carpinteros de ribera" zeritzenak ba'zuten lanik barkugintzan eta barrillak antolatzen. Jose Manuelek "Sagarmiñak" aurreko Deba argitzen digu bere bizitzarekin barrillak egiten diarduean.

Gure historian badegu bi itxas-ontzien berri zeatza: bata zan "San Nicolas" 475 toneladako galeoia, Landaberde jaunak Portugaleten egiña. Bera zan armadorea ere eta berberak aukeratu zuen barkuaren kapitan Joan de Espilla debarra. 72 gizon barruan eta aien artean 6 arpoilari eta bost barrillero. 1564' aren udaberrian irten Getari'tik eta udazkenean Bilbo'ra biurtu 1.195 koipe-barrika barruen zituztela. Orra zenbat lan barrilleruentzako. Jose Manuel Sagarmiñak ez zuen orrelako egunik; baño ofizioari eutsi zion orain arte. Berarekin il zan Deba ibaiaren azken barrilleroa. Bera izan da denbora aietako lekuko bat, lekuko zanik jakin barik... Baña, orrek agertzen digu joandako historiaren zenbat testiguk dirauten duela oraindik gure artean.

Bigarren bale-ontzi ezaguna, Pasaia'ko "San Joan"

ontzia degu, Espilla Canada'tik etorri ondorengo laugarren urtean, Labrador'en ondoratua. Udazkena zan, etxera itzultzeko ordua, eta 1.000 barrika-koipe beteak zituen ordurako barruan... Guztiak galdu: barkua, armamentuak, koipeak, gauza guztiak... Iparaldeko Joannes Etcheverry (1627) jaunak esan zuena:

"Biziaren gaitik / arriskatzen dugu bizia".


Ikusten degu zer lan izaten zuten barrillak egiten eta antolatzen. Batzuek eginda eramaten zituzten; baño, geienak pusketetan, barrika bakoizaren duelak zenbaki batekin banan-banan markatuta, gero an Terranova'n konpontzeko eta barrillak osatzeko. Lotzeko kurpillak ez ziran burnizkoak, urra-adarrez egiñak, baizik. Ala agertu da Labrador'en ondoratutako San Joan ontzian. Oñati'ko artxiboan aurkitu ziran iru dokumentuetatik, atera dute nun egon dan lurperatuta, orain lareun urte ondoratutako barkua. San Nicolas ontziak bost barrillero eraman zituzten lan oietarako: bi Baiona'koak, biak maixu, bat Getari'koa, lenengo maillako ofiziala eta beste biak ez du nungoak ziran esaten: baño bi auek izan ziran gutxien irabazi zutenak.

Deba "Sagarmiña"ko arotzak barrillak egiten zituen; baño, bere ondoren ez du beste batek barrillak egiten ikasi. Eta ortxe amaitu da gizaldietan zear zetorren barril-egite aria...

Orra zenbat gauza gordetzen dituen bere barnean Labatai itzak. Edestirako beste zenbait gauza ere bada Deba'ko errian. Bale-gantza urtutzeko labeetatik aurreraxeago, or daukagu aldapatxo baten asieran Astillero Kalea.

ASTILLERO KALEA

Barku-gintzan abillak eta trebeak izan dira itxas-ertzeko arotz euskaldunak: (carpinteros de ribera famatuak). Ama-



Astillero
Kalea.

ERRIAK

bost eta amaseigarren gizaldietan Europa g uztitik etorri oi ziran Euskalerrri'ra itxas-ontzi billa... Castro'tik asi eta Baiona arteko itxas eta ibai bazterrak astilleroz beteta zeuden eta zitekeen mota guztietako ontziak irtetzen zuten euren babesetik.

Deba'n aspaldian ez degu barku-gintzarik ikusi; artarako gizonik ere ez dago gure artean. Baña egun batez izan zirala argi erakusten digu Astillero Kaleak. Toki egokian zegoen: ordartzatik kanpo eta aldapatxo batean, ontziak uretara botatzeko erreztasunez.

Era guztietako lanak sortzen zitun barku-gintzak: arotz bereziak, barrilleroak, basoak eta basa-gizonak zur egokiak-lortzeko, karriotan ibiltzeko Burni-olak sortzen ziran barku-gintzaren inguruan, ontziak bear zituzten burnikiak sortzeko. Olak, berriz ere, zura bear zuten egur-ikatsa egiteko eta jkazkinak ugari. Oiekin batera mandoak eta gurdiak, mandozaiñak eta itzaiak.

Meatzak eta garraioak... olagizonak zer esanik ez. Meatzza Bizkaia'tik ekarri oi zuten, bertan meatz-zulorik ez ba'zan.

Orra zer mundu dagoen Astillero-kalean gorderik. Gaur egun ez dago mundu ori Deba'n; baña, garai batean, bai. Badegu baita ere Errota-zar futbol-zelaia. Gaur egun jolas-tokia da, orduan berriz, maria-errota, eta aurrerago, burni-ola. Lastur auzoan daukagu Goiko-ola baserria, aldaparo ta guzti, andik beraxeago bi errota txiki alkarren parean, bata gorago bestea baiño; euren aurrean, ondoratutako Plaza-ola eta Lasturbear Leiza-ola... Zenbat ola mendi-zulo aretan. Ugarte-mendi'ko urak (Izarraitzeko ipar-malda luzean) Ugarte baserriko alboan galtzen dira leize batean. Lastur'koak, berriz, Leiza-olako leizean. Ur oiek guztiak Sasiola'n agertzen dira aitz-artetik "Deba" ibaiaren ertzean.

Sasiola aurrean, Astigarribia'ko aldetik, bada baztartxo bat "astillero" izenakin eta astillero orren barkuentzat burni asko bear zan. Orra nundik-nora Lastur basatia burniolaz bete. Deba'rako ere izango ziran burni oiek... Zenbat izen baztarretan gure historia egiteko gai diranak!

SOKAGIN KALEA (Cordeleria)

Elizako Plaza-Zaarretik portura dijoan kaleak du Sokagin edo Cordeleria kalea izena. Bela-barkuak soka mota asko bear zituen oial zuriak zuzentzeko eta ontzia lurrera lotzeko. Mariñel baten lana izaten zan sokak lotzen ikastea, korapillo era guztietakoak egitea. Itxas-ertzeko erri guztietan egoten ziran sokagintzak, egon ere badagoz oraindik zenbait portutan. Deba onetan izena besterik ez dago; garai batean bazegoela, ordea, kale izen orrek erakusten digu.

PORTU-KALEA

Asierako erriaren erdian, geroagoko Plaza-berrian asita, berutz, ortxen dago Portu-kalea beste plaza batera, Donostia'tik Bilbo'ra dijoan bide zabalera eta tren-bideraiño.



Plaza Zaarretik Sokagsii-kalera eskeri-etik eta Bastiñoira eskribiko aldetik.

Orain eun urte or zegoen portua, baña, tren-bidea (FEVE) egiteko bete zuten eta gelditu zan Deba porturik gabe. Gaurko Portu-kalea plaza batetik bestera dijoan kalea da. Izenak, ordea, dirau: Portu-kale.

Orduko ' Ferrocarriles Vascongados" elkarteak agindu zuen, portua egingo zuela berritik. Ez zuen egin. Joan dan urtean, 1998, asi ziran euskal agentariak portutxo bat sortzen, lengoen inguruan, eta 1999-09 il onetan eman zaio amaiera lanari. Badegu portutxoa, Ez, ordea. Portu-kalean.

Deba'ko barra ("Itxasoan laño dago / Baiona'ko barraraiño") beti izan da gaiztoa eta jende asko itto da bere olatuetan orain eta lenago. Alaz ere erromatarren garaiko zan "Deva" ibaiko kaia eta bertan zegoen Tritium Tuboricum Melo eta Ptolomeo idazle erromatarrek ziotenez... Itxas-ertzean beste iru erri aitatzen dituzte Getaria, Donosti-Pasai



Portas-kalea: bide zabala eta tren-bidea. Plaza bat ere ba .

eta Oyarzun. Oyarzun (Oearso) zillarrezko minak zeudela-ko; Donosti-Pasai eta Getari portu seguruak zirelako; baña, Tritium Tuboricum zergatik? Guztiek esaten dute Mutriku dala edo Astigarribia mutrikuarra. An, ordea, ez dago portu segururik, ez meatzik. Astigarribia aurrean dagoena, ura da ugari.

Erromatarrek egunez bakarrik ibiltzen ziran itxasoan eta gaez kaietara bildu euren barkuak. Deba'ko kaia beti izan da arriskutsua eta segurantzirik gabekoa. Beraz, portutarako ez zuen ainbeste balio; baña erreka beste aldetik eta ez Astigarribia'tik, ura dago, aitzen atzetik erreka sartzan dana. Eta nai dan beste ur artzeko ez dago ontzirik jetxi bearrik, erreka ematen bait du iturri ugariak. "Tritium Tuboricum Deva erreka ikutzen du "dio erromatar idazleak eta Deva erreka dator zuzenean ura ugari. Izarraitz menditik beera Lastur'era datozten urak, Lastur'en galtzen dira leizetan barrena eta gero Sasiola'n, Astigarribia aurrean, agertzen dira aitz artetik...

Orra erromatar ontzi eta gudarostearantz arrazoi berezia: Tritium Tuboricum'go ur ugariak. Euren bideetan urtokiak markatzen dituzte arreta bereziaz. Tritium Tuboricum paperetan ematen digute antxiñako idazleek, zer dan argitu barik; baña, inguru oietan daude "astillero" eta "mollatxua" izenak Astigarribia'ko aldean eta Lastur'en an daude Goiko-ola, Plaza-ola, Leiza-ola, guztiok alkarrekin. Oiek ez daude paperetan emanak gauzaetan, baizik, arkeologian baizik... Gure edestia egiten dute paperik gabe.

ONDARTZA-KALEA

Ondartza-kalea da baña ondarra urrutian dago. Kale orretan Donostia'tik Bilbo'ra dijoan bide zabala dago. Aldamenean, berriz, itxasoruntz, Calbeton'en zumardi luze zabala. Itxasorago oraindik, etxe mordoxka bat eta akabera, orra or azkenik Deba'ko ondartza. Nun gelditu da Ondartza Kalea? Bertan ondarrak ez dago zoru-azpitik ez ba'da; baña, izenak or gorde dute garai bateko lekuko, naiz eta ondartzak aspaldian andik aldendu.

BASTIÑOIA

Arri-esi bulartsua, kaiaren babesa: "bulebard" ere esan oi diote... Erriko kaleak erritik irtetzean an zegoen bastiñoia. Gaur eguneko Ondartza-kalean... Ez arri-esirik, ez ondartzarik: Calbeton'en Zumardia, baizik. Ortik portura egongo zan bastiñoia. Gaur urrutiko kale bateri ipiñi diote Bastiñuixa-kalea. Izen ori berritan ipiñia da; baña, erriaren aotan ez zan galdu Bastiñoi itza. Euskeraz ari zirala esaten zuten Bastiñoia. Gaur egun ez dago ez bastiñoirik, ez ondarririk Ondartza kalean, ez porturik Portu-kalean... Gure izkera euskaldunak gorde ditu izen guztiak bere sabelean. Zenbaitetan, historia egiteko, ez da paperik bear.

MAXPE-KALEA

Maxpe-kale Maxpe etxerako bidea da. Ibai-ertzean dago, Astillero-kalea baño ibaiean aurrerago. Uraren gañean ereikita dago eta badu bere mollatxoa ere. Bertako bizilagunek erritik kanpora bizi dira eta, udaran bakarrik, etortzen dira errira. Azpiko solairuari "lonja" izenakin deitzen diote etxe-barruan dabilzenezan... Ate aundi bat badu beko solairutik ibaiera, mollatxua tartean dala. Aldi batean ontziak gerturatzeko zan eta lonjatik ontzi-barrura, ala alde-rantziz, gauzak batetik bestera pasatzeko zan mollatxua. Deba'ko portuan bearrezkoak ziran lonja auk. Bertara ekartzen zituzten Labatai'ko bale-koipeak, burni-oletako burnizkiak, oletarako meatza eta merkataritzako gai guztiak. Bertan gordetzen ziran saldu arteko guztian. Nagusi bakoitzak bazuen bere gauzen prezioa eta prezio artara makurtu bear zuten erosleak. Deba'ko kaian bezela Euskal-erri'ko portu guztietan ikusten ziran Europa osoko merkataritza ontziak erosi eta saltzeko... Gantzak eta burnizkiekin batera saltzen ziran Kastilla aldeko artilleak ere. Orretarako berealdiko askatasuna zegoen gure artean. Bada parrokiko artxiboan Londres'en egiñiko erosketa baten bost agiri: Barku bateko kapitanak Londres'en erosi, ordaindu eta elizarako ekarri zuen "pianoforte" bat. Kapitanak eskubide guztiak zeuzkan edonundik edozer ekartzeko.

Maxpe izan zan lonja nagusi bat; baña, ez bakarra. Aurreraxeago bada Loja-berri baserria, gaur lonjarik ez duena; baña, garai batean Lonja Berria izana. Dana dala, or daude izenak errenkadan, gure edestien ezaugarri.

ANES ARRINDA



Maxpe etxea, aspaldiko lonja bat.

EUSKERA ILGARRI

RAJOY, ESPAÑIAKO ENDAKARIORDEZKOAK

ZER DIO?

Euskal-eziketa gauza "letal" bat dala.
Letal eta mortífero, biak berdiñak dira = eriotza ekarri dezakenak.
Ziza maltzurra eta Amanita faloidesen antzeko.
Norentzako da iltzaille? Euskaldunentzako?
(DEIA: maiatzak 18, urtea 2002. Igandea).

ZER EZIKETA NAI DUTEN GURETZAT

Bederatzi urte betetzeko nituen 1921'ko Urteberrietan, Barakaldo'tik Lazkao'ra aldatu ninduen. Orduantxe ezagutu nuen errixa baten eskola "nacionala" zer zan: 60 ume euskaldun, adiñean naasi, maixu erdaldun bakar batentzako.

Garai artan Lazkao'k 1.800 biztanle zitun; erdiak baserriar eta beste erdiak kale-euskaldunak. Aien artean ni nintzan Barakaldo'ko maketoa: euskerarik ez zekiena, alegia.

Nere aldamenen eserita Antonio Arkaiaga (ni Arrinda), Lazkao-mendiko baserri bateko maiorazgoa. Auzo aretan bizi izan zan, beranduago, Lazkao-txiki bersolaria. Ez zion maixuari tutik entenditzen; ezta maixuak berari ere. Eskola artatik ez zuen inungo kulturarik jaso. Ezkerak, etxean, amamak Kristau-dotriña erakusten ziola euskeraz. Uraxe ikasi zuen mutur batetik bestera, ete-nik gabe.

Ez da, ba, antzeko maixuak, lista pasatzekoan, Antonio Arkaiaga deitzen zuanean, gure mutillak zutik, onela erantzuten ba'zion; "Sardina ustel"; "Servidor de Usted" en antza apur bat bazuen. Ez zuen ori ere ikasi.

Gizonduta gero, basoan arbolak botatzen ari zirala, batek azpian artu eta il zan gizarajoa.

ZER-EDO-ZER IKASI ZUAN.

Kantatzen ikasi zuen eta erderaz. Or'etan maixuak arreta aundia erabiltzen zuan. Ona lenego abesti oiñarrikoa:

Banderita tú eres roja
Banderita tú eres gualda
Llevas sangre llevas oro
En el fondo de tu alma.
El día que yo me muera
Sólo quiero que me cubran
Con la bandera de España.

Ez ukatu ume euskaldun baten eziketarako, ez dala ori otoitz eta kanta egokia eta ederra. Beste au ere ikasi zuen:

Soldado soy de España
Y estoy en el cuartel
Contento y orgulloso
De haber entrado en él.
Es honra singular
Vestir el uniforme militar.

Nik oiek an ikasi nitun eta Antonio Arkaiaga'k ori ikasteko baño milla bider geiago memori zuen. Orren antzera ibilli giñan eskola "nacional"etan, 1931'eko Bigarren errepublika agertu arte.

BIGARREN ERREPUBLIKA ETA ONDORENGO UGOLDEA.

Zorioneko Bigarren Errepublika agertu zanean, askatasun-aizebolada batek jo zuan Euskalerra. Guztion asi gintzan euskera eta Euskalerriko historia, giltzapean gordeta zeukatena, ikasten.

Orduntxe esnatu.

Sei urte eskas.

Seigarrenean, 1936'ean, Naparroa'tik agertu zan ugolde negargarriak, sei urteetan egindako lan guztiak infernuetaraiño bota zituzten: erriak txikituta (Gernika ez zan bakarra), gizakumeak il eta bizirik iraun zutenak atzerrira desterratu. Gau illun beltza erori zan Euskalerra-gañera.

Lazkao'n dauka "Duque del Infantado" k bere jatorrizko jauregia eta an gelditu ziran soldaduek izugarrizko pancarta aundi bat esegi zuten aurreko paretan, gorritz eta oriz:

SI ERES ESPAÑOL, HABLA EN ESPAÑOL.

Eta Donostia' n, itz eta berba bat euskeraz entzuten zieten, 20 zillarrezko ogorleko mando, kentzen zieten.

Noiz? 1936-1937.

"LOS SEPARATISTAS VASCOS..."

Une aretan solddu nengoen Donostia'ko Loyola-kuartelelan. Bi kuartel zeuden; bat "Ingenieros Minadores Zapadores" (ni oietakoa nintzan) eta bestea "Artillería" (16'ko obusak kañoirik geienak).

Goiz batean, Donostia'tik Hernani'rako tranbia soldaduz gañezka zijoan kuartelelara eta ni tarteko. Erlauntza zirudien, euskeraz. Escrita zetozen, guztien erdian, bi falangista, mutil ederrak, alkandora urdiñetan ugal beltzak eta pistolatxoa gerrian. Ikastola Nagusiko jendean zebillen falangisten artean eta aiek universitari-osaña zeukaten dariola.

Alako batean, asi dira biak indar guztiaz kantari:

Los separatistas vascos
No lo pueden remediar
Si se juntan tres o cuatro
Empiezan a rebuznar.
La cucaracha, la cucaracha...

Tranbia osoa ixildu zan tximistak jota bezela. Aientzako, euskeraz egitea eta separatista izatea, biak bat ziran. Euskera bera, berriz, asto baten arrantza. Falangista universitario aien buruetan, orixe zegoen garbi: euskaldunok asto-separatista, besterik ez giñan.

Eta falangista aiek izan ziran, gerra-ondoren, España'ko gobernuen nagusiak. Eta, 1975'erarte, aiek eta aien ondorengoez eman ziguten berriro, euskaldunei kultura erderaz eta Madril'etik erakutsi Euskalerra' ren historia zer izan dan.

"Zazpi estadio", tximistaren aizkora sartzen zan modura, sartu zuten euskera eta euskal kultura. Baña, erri xeeak eutsi egin dio euskerari ainbeste urtez arri-losa astunpean.

Aize-bolara berria sortu zan 1975'garren urtean, eta falangista aien ondorengoez, nagusitasuna lortu dutenean politika aldetik, berro eraman gaituzte lengo losa-azpira. Gauza oso serioa esan du ministro jaunak.

Arrinda'tar Anes

Ekainillak 26. Urtea 2002

EUTANASIA ETA ERITEGIAK

ZER DAN

Eutanasia itzak auxe esan nai dau: nekeetan dagoen gaixoa iltzea, orretarako eriotza zuzenean dakarren zeredozer egiñez. Orrelako eutanasiarik ezin liteke ezelan be onartu.

ORI onartuko balitz, orduan gaisoak ez leuke geiago uste onik izango bere sendagillearengan; ez leuke jakingo zertarako emoten dautsozan sendagaiak, sendatzeko ala ilteko.

GAISOAK berak eutanasia eskatuko baleu be, bere naiari amor emotea, ori .berak bere burua ilteari laguntzea litzake. Orrelakorik ezin leiteke onartu.

Ez litzake eriotza ona (muerte digna); eraiketa ona baiño (asesinato digno).

Eutanasia beste era batera artzea, ez da benetako eutanasia eta ortik sortzen dira naikoa naaste. Esate baterako: gaisoari sendabide oso gaitzak eta kostosoak ez emotea; miña eta naigabea kentzeko lo-belarrak emotea naiz-eta bizia bide orretatik murriztu... Orrelakoak ez dira benetako eutanasia, eta erabilli leikez.

* * *

GAISO-ETXEAK

Gizakiak, ilteko era on baten eskubidea badau: ilteko era onik aurkitu baliteke, beintzat. Eriotza giza-maillakoa bear da eta eriotz-mota orreri deitzen dautsoغو ERIOTZ ONA. Erderaz "muerte digna" esaten dana.

Gaisoeri buruzko egoera aldatu egin da aspaldian: oraindik urte asko ez dala, jenderik geiena etxean ilten zan; gaurko egunez, ostera, geienak, danak ez bada, eritegietan izaten dabe euren azkena.

Baiña, gaurko osategietan, eritegietan, ospitaletan jende-moltsoa batzen da eta gaisoak artaldean antzera. Sendagille, erizaille eta tartekoak be bardin, talde aundia osotzen dabe osategi bakoitzean.

Gaiso bakoitza egunero askoren eskuetatik pasako da eta inortok ez dau izango gaiso orren norkiaren ajolik. Bakoitzaren erantzunkizuna taldean urtutzen da eta gaisoa gelditzen da numero edo zenbaki bat lez, zerki bat lez. Zerki interresgarria (caso clinico) naiz arrunta: baiña zerki uts bat lez. Gaisoa ez da norki bat, persona bat, izango, bere senide eta lagunentzako ez bada.

Eritegiak, osategiak teknika-bideak ditu begien aurrean eta ikuspegi orretatik dator euren aurrerapena; baiña, gozotasunik gabe, maitasunik gabe, gizakitasunik gabe... Gai orretan ez du inork erantzunkizunik, ez eta ardurarik be.

* * *

BAKARTADEAN

Millaka gaixo daukazan eritegiak lantegi baten antza dauke: teknika onarekin lana saillean egin eta errez; baiña, sen-

dagille bakoitzak gaixo geiegi ikusiko dauz egunero eta gaixo bakoitzak sendagille eta gaiso-zain geiegi...

Danen artean gaixoa bere bakardadean bakarrik itziko dabe. Bere bildur, bere pena, bere buru-auste, bere larri-aldiakin bakardadean bakarrik... Eta eriotza ixilik elduko jako bere bakardade aretan...

* * *

ZER EGIN?

Ospital aundi batean azterketa bat egin eben gaisozaiñen artean: zelan gura zenduke il? Geienen erantzuna: —Neure etxean, nere senitartean, neure lagunen artean... Ez beintzat onelako ospital batean.

Elkartek errua dau teknikaren ondoren ibilli eta beste bideak baztertuz; baiña, sendagilleak eurak be ilten dagoanarekin ez dakie zer egin, lo-belarra emon besterik, konortea eta burua galdu arazteko...

Sendagille-medikuekin batera, beste gaiso zaiñak jokaera berbera darabilte... Ez dakie il-zorian dagoanakin zer egin.

Soka orretan sartu leikez lagunak, senideak eta bear bada, kapeillauak berberak be bai. Ospitaleko giroak, moltsoan gaisoak egoteak, ez dau lan orretan laguntzen.

* * *

ERABI

Pelikula italiar baten Sofia Loren agertzen da ospital aundi bateko moja eta beragaz batera gaisozain komunista bat. Bien artean sortzen da burruka zeinnek gaisoeri obeto ilten lagundu.

Mojatxoak otoitzekin laguntzen eutsen il-zorian egozanai; komunistak barriz, bere inguruan egonez eta eskutik elduz laguntzen eutsen bere kidekoaz eta bien-bitartean aukera kentzen entson mojatxoari laguntzera etortzeko.

* * *

BAZTERTU?

Gaur-egun sekula baiño bakarrago ilten jakuz gure gaisoak. Ordu larri orretan laguntzeko, lo-belarra beste biderik ez jako inori gogoratzen...

Eriotza eta gaisotasunak gorde eta ezkutatu; kendu geure begien aurretik. Bakea kentzen dauskue. Baztatu eta begien aurretik kendu.

Aztu zearo.

* * *

ARTZAIN-LANA

Gero, barriz, gure inguruan gaiso larri bat sortzen jakunean, ez dakigu berarekin zer egin be... Ez dakigu zelan lagundu eta zer joka-bide erabilli...

Illetak ondu dira eta edertu. Sail orretan pastolarak aurre-rapena egin dau; il zorian dagozenen pastorala, barriz, murriztu egin jaku.

Lana izaten eben orain urte batzuk dirala, parrokiak abadeak il-zorian egozan gaisoai laguntzen; gaur, barriz, erriko eriak ospitalera bialtzen ditue an bertan ilteko edo... Asmoa ori ez bada, benetan alaxe gertatzen da: geienak, danak ez badira, an ilten dira.

An, bere etxetik urrutian, bere girotik aparte, giro ori geien bear dabenean, orduantxe bialtzen ditue ara...

Erri txikietan izan oi ziran, garai batean, zerora antzeko andratxoak etxerik etxe ibilli oi ziranak il-aurreko orduetan gaixoeri laguntzen... areik be galdu jakuz... Bearrik be ez. Ez da iñor errian gelditzen ilteko.

* * *

ISILLEAN?

Gure gizarteak ez dautso eriotzari aurrez-aurre begiratu gura; iñondik be ez. Orrelan, gauzak eratu doguz, eriotza etxean gertatu ez dedin. Gorpua be, al bada, ospitalean euki illeta-orduraarte.

Illerriak urrutira eroan dira, garai batean eliz-ondoan egozanak, eta bertara gorpua eroatea be, isillean egin, gizartea konturatu ez dedin. EZ DAGIALA ERIOTZAREN ARRAS-TORIK BERE BEGIEN AURREAN IKUSI.

* * *

EUTANASIA

Gizakia ondorenak emoteko dago munduan jarria; produktibitateari goi-maillan eusteko... Gizona orretarako gauza ez danean, orduan ez da ezertarako... Eta ezertarako ez dana, erditik kendu... Ganbararik etxean bada, ganbarara jaso; ganbararik ez danean, zaborretara bota edo erre.

Eutanasia ez ote dogu ingumari orretatik sortua...? "*Eriotza egokia*" itza (muerte digna) erabilli oi da maiz eutanasia onartzeko; baiña, asieran esan dogun lez, eriotza egokiaren orde, erailtza egokia gerta litzake orrelan jokatuz: gizakia erail egokitasunez, dignidadez. Tranpakale. Gizakia erail eta geu lasai gelditu erailketaren ondoren... Ona orretarako, eutanasia gerta bide egokia.

Gauzak onelan diranean, zeñek izango dau sendagille eta ospitalengan uste onik? Sendategi baizik, erioz-tegi gertatzen dira ospitalak: matadero utsak... Eta sendagilleak, korridetako puntilleroak.

* * *

GAISOARI ESAN

Gizaki-erara ilteko eskubidea eskatzen dabe giza-emakumeek eta era orrek gaixoak bere egoera jakitea eskatezen dau; baita larria bada be. Ez dau iñork eskubiderik gaixoari bere egoeraren egia ukatzeko. Berak bere egoeraren barria jakin bear dau: orretarako eskubidea badau eta ez dago eskubide ori ukatzerik... Ezer jakin gabe iñor ilten iztea, ez da jokabide zuzena. Eskubide ori berea dau eta bere izateari dagokiona da.

Noiz, zelan eta zeñek berri emango dautson, ori beste arazo bat da. Neurriak artu bear gaisoaren gizatasunaren neurria eta erara, apurka edo bete-betean esateko: baiña, dana dala, egia esan. Ez dagigula beste aldera bialdu, ezeren berri barik.

* * *

ZELAN LAGUNDU

Maitasunez eta kristau fedez jokatu bear da. Maitasunez eta otoitzez. Otoitz egiten lagundu. Aldamenean egon, eskutik eldu eta laztandu; beraren aide eta berarekin, berak aldauen eran, otoitz egiñez...

Ori bai dala ondo ilten laguntzea.

Gaurko kristauok, orrelako oiturak aztuta gabiltz.

Gaisoaren aurrean zutunik errenkadan, guztiok larri dagoanari begira egotea, ezer egin barik, ori laguntza eskasa da. Orretarako sukaldean egotea, obe. Aldiko bat naikoa da, berak besterik eskatzen ez badau.

Bat orrek lagundu deiola aldamenetik. Txandaka; ez bakarrik itzi.

Eriotze Ona bide orretatik etorriko da. Eutanasia, barriz, *Erailtze Ona* gertatuko da.

ARRINDA TAR ANES

EZKURRA, URDAI-AZPIKOA ETA GERNIKAKO ARBOLA

Udabariak sortu nau aritz-adartxo batean. Txikia naz oso; baiña, aundirako indarrak eta zuzenbideak neregan dodaz. Ez keixa: okerrik ez ba'da, elduko naz neure elburura.

* * *

Orlegia naz, muskerra, nere inguru osoaren antzera, eta borobiltzua. Badot txapela be bere kirtentxoarekin eutsigarriko eta adarrari itsatsiteko.

Eguzkiak, euriak, aizeak, ama-lurrak laguntzen dauste aurrera bidean, aritza tartean dala.

* * *

Udaberriarekin osotu naz polit eta eder. Begiak idegitan, ene poza biotzean, aizpaz inguraturik ikusten dot neure burua. Zenbat geran! Adarrak bete-bete dagoz eta aizearekin batera kulunka egiten dogu eguzki epeletan.

Adar-artean, an goienetan, ortzi-zabaia ikusten dot urdin eta urrezko erraiñuak datoz tarteatatik beera eta lurrean margotzen ditue milla marrazki argitsu, geldi egon eziñez urduri...

* * *

Udabarria aurrera doa; zugaitzaren oiñetan, gauetik goizera, perretxikoak sortu dira urretxak urdin-more eta gibelurdiñak orlegi. Baita ziza oriak be.

Ez dabe bizi luzerik izan: aldameneko baserritik ume mukizu batzuek agertu dira eta jaso euren betere eldu ez diran perretxikoak.

—Zergaitik orren txikiak jaso dozuez?

—Bestela, beste batek jasoko dituelako.

—Baiña, obe izango litzake danentzako, alkar errespetatuz, aunditzen eta bere onera etortzen lagatzea perretxi-kueri bezala, beste izaki guztieri...

—Obe dot perretxiko txikia, bat be ez baiño.

—Eta, ori ondo al dago?

—Booo... Ori esanez, sorbalda jaso eta ba-doz etxera.

* * *

Or datoz maldan gora, arnas-estuka, gizon eta emakume gazteak. Aupa mutillak! Jantzi gorritz, urdiñez eta oriz, urrutira perretxikoak dirudie, alai datoz eta sasoi sendoa darakuzte.

Atseden artu dabe aritz-pean.

Eguerdi-eguerdia da eta eguzkiak berotzen dau itzalik ez danean. Aritzak bere itzal ozpilla eskeintzen dautse alai eta biotzetik. Etzanda dagoz gora-begira, izardi-tanta sendoak bekokietatik dariela. Ostoartetik igarotzen diran erraiñuek euren gorputzeetan jolasten dira, burutik gerrira eta gerritik oiñetara.

Berri txarrak entzun dodaz euren egoetatik: arizti au ebagitera doazela, alegie egur-ikatza egiteko eta enborretik

etxegintzarako zura aterateko. Protesta bizian ekin dau-tsoe alkarrekin. "Orlegiak" ei dira eta "Ortz-adarra" alkartea osatzen daben orreitarikoak. Indar gitxi dauke oneik gauz onerako. Borondete ona: "al ba'nuke, egingo nuke"... Moto-zerrak, ordea, orreik bai dabela indarra!

Baiña, emen gagoz gu, milliaka, aritz barriak sortzeko. Neure barruan dodaz sustrai, enbor, adar, osto eta ezkur barrien indar-kemenak. Guk sortuko dogu arizti barria...!

* * *

Uda bere aizkenerako bidean dago eta eguzkia aspal-ditik dago berantz asita. Lengo gibelurdiñak orain ondio-baltz biurtu dira. Zein usain gozo beetik gora. Gaur ez da iñortxo be onein billa etorri, bart euritsu izan dalako edo gaur astelena dalako. Unetik unera aunditzen doaz: txapel aundi galanta sortu dabe bakoitzak eta sutabe potoloa... Zer perretxiko ederrak!

Umeak eskolan asita dagoz goizetik eta emen ez da umerik agertu. Biar ikusi bearko.

* * *

Ikusi dot: agure zaarrak emen, pardeltxo bana eskue-tan, iru lagun. Onein poza eta zoriona ondioak ikusi dabe-zenean. Amar urta gaztetu dira. Izan be bederatzia ondio ziran alkarrekin banan-banakoak, oso-osoak eta eder-ederrak...

Onein poza nire tristurarekin batera dator: soiñekoak orizkatzen asi jat eta nire inguruko ostoak be bai...

* * *

Udazkena amaitzera doa. Zerua goibel eta mendebaleko aize zakarra euri-jasarein batera. Astindu dau geure adarra eta aidean bota gaitu eutsigarria etenda. Sail batek lurra jo dogu. Neure buru orlegia gaztain-kolore ikusita, Ituren'go kanta zaarra etorri zait burura:

Atzo ttuntun

gaur ttuntun

beti ttuntun

gaittun gu.

Gure diruak aittun eta

Nork naiko gaittun gu?

Atzo ttuntun

gaur ttuntun

beti ttuntun

gaittun gu.

* * *

Lurrak artu nau bere magalean epel eta aritzetik jausi-tako nere aitzak ikusi dodaz sakabanatuta. Erreten batean nago gorderik. Danon artean sortuko dogu arizti berria... Au poza!

KONTU-KONTARI

Baiña, zer da or datorren zerki ikaragarri ori!?

Bere atzazalak sartzen ditu loietan barruraino eta karterpillar baten muturra dau. Belarri aundiekin begiak estaltzen ditu goiko aritza ikusi ez dagian. Muturrean bi zulo bildurgarriak ekaitzaren aize-kiratsa botatzen dabena, ito bearrekoa.

Sartu dau musturra lurpean mendiak arrotzeraino. Mustur artetik likaz beteteko misto lodikote bat atera dau eta arekin sartu nau errotara. Arririk gabeko errotea. Arririk ez ba dozu, bai gain ikaragarriak, gora eta beera dabilzanak. Agoa zabaltzean batak gora egiten dau eta besteak beera, agin-illara osoak; agoa ixtean, ordea, biak alkartzen dira karraska mingarria lagun dabela. Birrintu nabe bi sailleen artean eta iruntsi este-gorrian barrena, irakiten dagoen pertzaraino. Bertan naastu gaitue aizpa guztiak, zapero eta morokila gurekin egin ondoren, odol-erreka gorri batean zabaldu gaitue gorputzaren bideetan zear. Atze-aldeko laurenekoetara eroan nabe eta bertan urdaiazpiko biurtu.

* * *

Nere aldamenean egoan aizteak suerte ohea izan dau: lurrak arrotzean, azpian geratu da, lurpearen magalean gozo kokatuta, udaberriaren zain. Urteero izaten da udabarri barri bat. Bitartean edurrak eta euriak, aizeak eta eguzkiak lurra onduko dabe aritz barriari ongi-etorria emoteko. Arek beteko dau gure eginkizuna, bizia aurrera gertatu dedin; gu, berriz, emen gizonentzako janari gozo biurturik.

* * *

Gure mustro au-txerria deritza-or dabil ariztiko ezkurrez bere sabela beteten. Ondo miazten ditu baztarrak. Bai gizendu be sendoki koipez baiño geiago aragiz etta okelaz. Korrikalaria da eta ez kortan bizi osoa etzanda igaroten daben orreitarikoa.

Begiak dauz beti berantz, belarri aundiekin estalita, lurrera begira. Sekula ez dau, ez eta alditxo batean be, aritzarengana bere begi txikirik jaso. Lurrera begira, beti lurrera begira...

* * *

Sanmartiñik gabeko txarrik ez da oraindik sortu eta goietan edurrak agertzearekin batera, arrapatu dabe gure txarria mendian eta arategira eroan. Aizto zorrotzez odol-uztu dabe odolosteak egiteko. Atzeko laurenak, piparrez eta gatzetz, aize otzetan eskegi ditue eta, ara gu, ezkurrok,

negua zintzilik pasatzeko asmotan urdaiazpikoa umatu eta ondu arte.

* * *

Ama-lurraren magala galdu, negu osoa atzetan zintzilik eskegita pasatzeko, ez da gozo-gozoa izan. Alan be emendik jatsiteko eguna eldu da. Esku biguñez eta leunki artu gaitue begirun aundiz eta artillezko zorro zuri batean gorde. Tokiko marka ipiñi eta bialdu gaitue Urlia jaun euskaldunaren tabernara.

Emen be zintzilik. Aize otzik ez da; bai, ordea, zigarro-keiaren atsa. Barriro umatzeko ete da? Mendi garaiko aizea au baiño ohea, otzago izan arren. Aize garbia zergaitik zikintzen dau gizonak ezañetan, kentzeke deroan zigarro narratx orrekin?

* * *

Zenbat itz, zenbat berba eta zenbat mintzo egiten daben gizonak gure urdaiazpikopean... Emendik begiratu-ta, naiko kaskarrak ikusten dodaz: txerria aundiago ikusten zan ariztian.

Gaur berbetako gogoa dakarte: futbol-zelaitik datoz. Atletik eta Real nastetan ditue. Zein geiago dan ala ez dan.. Real'ak sei gol sartu dautsozale Valencia'ri eta Atletik'ek ez dauala orrenbeste sekulan egin... Baietz eta ezetz: eztabaida gogorra sortu da.

* * *

Gol ori gauza interesgarriren bat dogu, aizez puztuta eta itz-jario etorri bait dira futbol-zelai orretatik. Zer ete da gola? Jainkoren bat ete da?

Guztiak ekin dautse urdaiazpikoari ortzak ezartzen mauka-mauka... Gauza gozoa gera, antza. Ez da inortxo be txarriarekin gogoratu, ezkurarekin gogoratu, aritzarekin gogoratu...

Txarriak ezkurra lurrari begira jan; gizonak urdaiazpikoa lurrari begira jan, gora begiratzeko... Txarri-kumak ete dira...? Ez dabe, ba, belarri ain luzerik, ez eta mustur ain zekarrik be...

Ebagi nabe. Irutsi nabe. Pertza txikiagoa: atsa aundiago, ardo-usaiña... Galdua naz...

ARRINDA'TAR ANES

P.D. Konsolagarri gertatu zitzaion bere aizpa bat Gerrika'n erne zala jakiteak, aritz eder bat sortuz, sekulan galduko ez dana.

FELIPE GONZALEZ ETA EUSKERA (DISKRIMINAZIÑO)

Gabonilla edo Abenduaren lenengo egunetan, Laterriaren Lendakari Felipe González Márquez jaunak esan deuskunez, Euzkadin gaur-egun aukera da Euskeraren alde, erdaldunen kalteetan. Diskriminaziñoa.

Oraindik Euskera Erderaren neurrira eldu aal izateko, urte asko pasa bearko dabez. Noizko ori lortu? Bidean asi besterik ez dogu egin eta orra zenbat keixa. Ez nolanaikoak; gizon ospetsuen aotik irtenak...

Ikusten dogunez Euskerak beti morrontzan biar dau eta burua jasotzen asten danerako, makilkadea burutik beera.

* * *

Baiña, gizon onek, ez beste askok be, ez daki nolako morrontza larrian bizi izan dan Euskera; andaluzia da eta Andaluzian ez dabe orrelako buruausterik izan. Diskriminaziñoa zer dan jakiteko, irakurri bear leuke Arturo Campion'en «Blancos y Negros» eleberria. Gure ume euskalduneri, kultura eurak ez zekien izkuntzan emon dautsee beti. Orrelako torturarik ez da ondiño munduan asmatu, emen baiño.

* * *

Ori ez zen izan Campion'en asmakizun bat. Emen neure etxean daukot, neure amak egiñiko jostorraz-lan bat lauki edo kuadro batean sartunda. Urtea be badauko: 1.900.

Bere ezpañetatik irtenda eta neure belarrietatik entzunda daukot, bera umetxua zanean zer gertatzen zan eskoletan. Goizean goiz, eskola asten zanean, umetxu bateri jartzen jakon atzamarrean eraztun bat. Arek emon bear eutson Euskeraz itzik eta ber-

barik egiten eban umetxuari eta onek beste bateri. Orrela egun osoan. Negargarrizko salakuntza sortzen zan umetxuen artean; bai ba, eraztuna azken eukanak, kastigu zitala artzen eban bere bizker gaiñean.

Kultura izkuntza arrotzean emotea ez zan naikoa, egarria kentzeko ura belarritik emotea lez, zapalkuntza agertzeko; gaiñera umetxuak tortura larritik pasatzera beartu egunero-egunero... Orrelako astakeriak nolan onartu eta eraman ditu euskaldunak...! Makilletara oituta egon, nunbait.

* * *

Nik neuk ez dot eraztunik jaso bear izan; tortura aundirik be ez. Lekeitio'n jaio arren, Barakaldo'n bizi gintzan eta erderaz mintza; orregaitik, Lazkano'ra bizi izaten aldatu gintzanean, zortzi urte nebazala, erderaz banekian; baiña, neurekin egozan lazkanotar umetxu askok tutik be ez. Maixua bilbotarra zan, gaztea eta ez zekian Euskerarik. Nere alboan eskolan ezartzen zan laguna Antonio Arkaiaga zan, Lazkao-txiki bersolariaren auzoko baserritarra. Lista pasatzen eban maixuak eta guk erantzun, «servidor de usted». Maixuak Antonio Arkaiaga esaten ebanean, gure mutilla zutunik ipintzen zan, eta onela erantzuten eban serio-serio:

—Sardiña uztel.

Kristiñau Dotriña izan zan Euskeraz ikasi eban gauza bakarra. Baiña, Dotriña artan be, zelango Euskera? «Jainkoa da... justoa, poderoso, gauza guztien prinzipioa eta fiña». Eskolan ori ere erderaz. Mandamentuak: «Amar a Dios sobre todas las cosas». —Eta ori zer dok?—. «Jainkoa amarratzeko

soka guztiaz»... Orra gure kultura eta gure kultura-bideak. Azkenerako mutiko eta neskato euskaldunak, gorrotoa Euskerari. Tortura tortura gaiñean Euskera zala-ta...

Itziar'en bizi izandako donostiar bateri entzunda daukot, bera eskolan Itziar'en ebillela, kantu bat ikasi eben:

—«Arre niña bi puzkar...

Baiña, kantuak esaten ebana auxe zen: A reir y a disfrutar... Barre ala negar?

Orixe bai dala gizarte-erakundeek sortutako «diskriminaziñoa»!

* * *

—Gauza zarrak dozak orrek...! Esango dau baten batek.

Esango dautzut berrigorik be.

1936, guda madarikatua sortu ondoren, laister frentea Ondarrua'n egoan; bitartean Gipuzkoa'ko errietan kartel luze-zabalak ebezen gorri eta ori, esaera onekin:

—Si eres español, habla el español.

Ori bakarrik izan ba'litz ez zan geiegirik izango; baiña, ondorengoa ez zan bapere ohea. Donostian bizi nintzan eta etxeoandreaki *zazpi* pezeta ordaintzen neutson egunero lo eta janagaitik. Egun baten negarrez egertu zan etxean:

—Zer dozu negar egiteko?

—Nere anaiakin topo egin dot Abeniden eta Euzkeraz berba egin dodalako, *eun* pezeta kendu deusta multa: ogei zidarrezko ogorleko mando...

Eta ez zan bera bakarrik izan.

* * *

Beste bein, Donostian bertan, Loiolako kuartelera goiazen tranbia bete soldadu. Danok Euskeraz. Orretan, an egoazen bi falenjistik deadarrez ekin eutsen kantuan:

«Los separatistas vascos
no lo pueden remediar,
si se juntan tres o cuatro,
empiezan a rebuznar.
La cucaracha, la cucaracha...»

Tranbia bete soldadu geratu zan ixilik eta mutu. Euskera baztertuta toki guztietatik, elizetan ez ba'zan. Ogeita amar urte zapalduta. Urte oietan «Basarri»k egin dauan lana irratitik eta izparringitik, egunerokotik, Euzkadik ez dio sekulan bear bezela ordainduko... Eun urtetik gorako zapalketa; oiñazpian artuta Euskera. «Diskriminaziñoa» ei da gaur Euskeraren alde!!!???

Aizken aldiko gertaerak beste kontu batzuek goguz. 1969'an batuberrizale mordo bat agertu zan iñolakoak Baserri'ri aurpegira boaten, Z-Argia asterokotik, euretarikoa egin ez zalako. Asko ziran (amaika asko da eta arek amaika baiño geiago ziran) ba-

ten kontra. Gizon balienteak. A bakarrik ez zan izan; besterik be bada. Ona emen «Euskal Elerti 69», Lur Editoriala, 1969, Donostia, zer dakarren 547 orrialdeen:

«AZKEN OHARRA.

LUR/KAISELU/HASTAPENAK euskera-
ren batasunaren serbitzuan jartzen dira. Beren jautapen-jautapen-konseiluak Gabriel Aresti, Xabier Kintana, Ramon Saizarbitoria eta Ibon Sarasola'rekin osaturik dagoenak euskal gaistoko dialeko mordoiloetan idatzitako lanak ukatuko dituela jakin-arazitzen du, eta bide batez euskeraren batasunik nahi ez duten euskaldunak euskeraren eta Euskal-erriaren atsiak direla deklaritzen du. Are geiago negarreztatzen du batasun hori gonbatitzen dutenen portaera, bereiziki Eizmen-di'ter Iñaki «Basarri» jaunarena, zainak, Euskaltzaindiak Arantzatzun hartutako erabakiak onartuko zituela publikoki manifestatu ondoren, bere hitzari ez dion eutsten. Seguru asko bera hitza eman zuelako batasun hura bere dialekto mordoiloa izanen zela ustean.»

AMEN.

AMEN.

* * *

Arrezkero Euskera, korta-usaiña duala-ta («dialekto mordoiloak»), baztatu egin bear da eta erail, eurak, euskaldun-berri kaletarrak, sorturiko Euskara, Hacheduna, indarkeriz sartzeko burutik beera... Zapalketa berriro. Gaurkoa zantarragoa, etxebarrutik dariona. Lengoa zan amorragarria; oraingoa, negargarria.

Ba .omen da ikastola bat (ez dot uste bakarra izango danik), bertan zapalketa egin dana euskaldun umetxoen kaltean. Lengo eskolak, erdera sartzeko; orain, berriz, Euskara Batu fenomeno bat burutik beera sartzeko. Irakasleak, Batua besterik jakin ez edo, betiko Euskeraren jabe ziran umetxo baserriterak zapuztu eta suspensio emon Euskeraren arloan. Irakasleak berak jaso bear zuan zigorra, umetxoen bizkarrera bota.

Ezagutzen dot gau-eskolan Euskara Batua erakusten ibillitekoa, bere langille baserritar lagunari esaten:

—Ik ez dakik Euskerarik. Ik ez dakik gramatikarik. Ik ez dakik ezerbez. Gau-eskolara etorri bear dok Euskara ikasten.

Euskeraz besterik ez zakian gizon euskalduna konplejos beteta laga. Ori ondo dalakoan. Egin bear dana, «dialekto mordoiloak» akabatzeke.

Guatemala'tik urten eta Guatapeor'ean sartun. Au dok euskaldunen mixeria. Bitartean, González jaun agurgarria kezka betetik.

ARRINDA'tar Anes



FILOSOFI GAIETARAKO IZTEGI TXIKIA (I)

ATARIA

Orain amar urte EUSKARAZAINTZAK iztegi batzuek egiteko asmoa artu zuen eta ni gelditu nintzan Filosofi Iztegia egiteko. Lan orretarako Tolosa'ra jo nuen Luis Eguia'rengana. Gaixo zegoen eta gaixotasun artatik ilko zan; baiña, burua zeukan argi; euskera amaren agotik ikasi zuen. 1972garren urtean NEURRIZTIA argira eman zuen, KARDABERAZ BILDUMAren bigarren alea. Ona zer esaten nuen liburu aren atarian:

"Luis Eguia'rena da. ANDIMA IBIGANABEITIA SARIA, 1971'garrenean irabazitakoa. Euskalerritik at ibillia izan arren, ez zuan euskerarik aaztu. Gutxiago ere. Aaztu ez, maiteki zaindu baizik. Tolosarra da Eguia. Ta inguru artako errietan ditu bere sustraiak, Euskera jatorra erabiltzen dan tokietan... Ez da ba arritzeko fruituak alakoak irtetzea".

Liburuak 324 orrialde ditu eta badu Iztegi Berezi bat ere gaiari buruzkoa. Badu beste liburu bat ere argitara oraindik eman gabea: ALJEBRA euskera jatorrean bere kabuz egiña, NAURRIZTIA bezela. Oietzaz gaiñera baditu beste erlijio-gaieko liburuak ere argira emanak.

FILOSOFI IZTEGI au udaberrian asi zuen eta iraillaren 15ean (1981) ona zer esaten zidan eskutitz batean:

"Anes: aurreneko itz-sorta ("genetika" arte) zensura pasia zegok, Txomin'en eskuetatik. Bigarrena ("paradigma"raiño) garbi kopiatu bearrean zegok, eta aurki bialduko Txomin'eri. Dana ilbeltzean buka leikela uste diat, Jainkoa lagun. Bañan nola? Or da koxka. Nik alegiña egiten diat, beintzat. Urren arte. Luis Eguia".

Or aitutzen duen TXOMIN Zumarraga'ko eleiz-erretorea zan, TXOMIN IRIGOIEN euskal idazle jatorra, Oiartzungo semea. Beraz IZTEGI au Luis'ek egin eta Txomin'ek aztertutakoa da.

Anes Arrinda

ABSTRACCION (Abstraction) BURU-LAN

Latiñezko ABSTRAHERE aditzak (verboak), alde batera ekartzea esan nai du; eta, filosofi gaietan, alderatze ori BURUZ egiten dan lana da. Adimenak bakarrik egin dezakena. Orixe da, ain zuzen, giza-gogoari berez dagokion eginkizunik jatorrena, berezkoena. Gogaiak (pentsamentuak), izan ere, gure adimenak sortuak dira. Izadiko gauzetatik bakanduak. BURU-LANEZ bereziak.

Jakíña, gauzak ezagutzean ez dira (izadian daudenez) gure buru barruan sartzen; bai ordea, adimenaren eragin indarrez gauzetatik alderatutako gogapenak. Eta berenez zabalkorrek dirala esan genezake. Au da, zer askotara zabaldu ditezke. Adibidez, “Iñaki aberatsa da” diogunean, aberastasun ori, aurrean daukagun Iñaki’ri ezik, iñun, iñoiz eta iñolaz dirudun diran guztiei dagokie. BURU-LANEZ alderatutako gogaia bait da. Hegel’ek berak, giza-pentsakera nolakoa dan adierazi nairik, adimenaren eginkizunik nagusia dala dio.

Ortiz, “abstracción” BURU-LAN esaten ba’degu, “abstracto” BURUZKO esan leikela iruditzen zait.

ABSURDO (absurde/absurd) ITXURA GABEKO

Euskeraz asko dakian bati galdetu nion: “Nola esango zenuke ABSURDO”? Eta, bereala, “ITXURA GABEKO” erantzun zidan. Geroztik, deitura orri bein ta berriz eragiñik, egoki esana dala pentsatu det. “Absurdo”, izan ere, bururik gabe eta zentzuz-kontra egindako gauzari esan oi zaió. ITXURARIK ez duanari. “No tiene visos” esango genduke erderaz.

Gure burura etor ditezken gogapenak iru eratako dituzu: ARRAZOIZKOAK edo adimenaren neurrikoak, ARRAZOIZ-GAIÑEKOAK edo goi-sinismenaren argiz ikasitakoak, eta ARRAZOIZ-KONTRAKOAK edo ITXURA GABEKOAK. Adibidez, OBO (kurpil) KUADRATUA.

ABSOLUTO (/) UTS

“Absoluto” itzak bi zentzu ditu gutxienez: “askatua” eta “naasi gabea”. Latiñezko ABSOLVERE’tik datorrenez, “askatua” dala dirudi. Bañan, filosofiaren argitan, “askatua” itzak ez du ABSOLUTUM ongi adierazten. ABSOLUTUM, izan ere, bakarra da, eta ezin ditekete loturik egona izan, “askatua” izan dala esateko.

Bigarren zentzua askoz egokiagoa degu. “Bien absoluto” ON UTSA da. Ots, “naasi gabea”. Eta, era berean, beste millaka esakuntza: ZUZEN UTSA (okerrik gabea), JAKINTSU UTSA (buru txit onekoa), INDAR UTSA (auleririk gabea) ...eta abar. Ortiz, “absoluto” adierazteko, UTS itzaz balia gaitzekela deritzait.

ALIENACION (Alienation) IGESA

“Alienacion” itza alemanez ENTEREMDUNG esan ci da; eta, erriko izkuntzaz, ALKARTASUN DESEGIÑA esan nai du. Adiskide ziranen arteko asarrea. Alde baneara anka egitea. Igesa.

“Alienacion”, jabetasunaren legeen barruan, zerbaiten jabetasuna bati legez kendu eta beste bati ematea izango litzake. Jabetza aldatzea. Sendagillien iztegiari, berriz, “alienacion” burua galtzea da. Erotzea. Eta, zenbait filosofoen izkeran (Hegel, Marx, Sartre), “alienación” nolabaiteko IGESA da. Ikus ditzagun iriztiak.

Hegel jaunarentzat, gizonak asieran pentsa-modu xaloa zuan. Tolesik gabea. Egi-egitatzat artzen zituan mundua eta bere inguruko goraberak (gertakizunak). Bañan geroago, bere gogo barruari begiratuaz, zalantzetan asi zan, mundua eta gogo-barrena egiazko gauzak ote ziran. Eta, zalantza orren bultzak eraginda, IGESI egiten omendio gizonak bere inguruari. Eta IGESTE orrek (ala dio Hegel’ek) indar ematen nunbait gizon-izatearen aulari.

Marx iraultzallearen ustez, benetako IGESI egin bearra dagokio gizarte osoari. Gizon guztiak (dirudunak alde batean eta gabeak bestean) elkarri bizkar emanaz bizi omen dira, elkarren arteko maitasunaren bearrik gabe. Maitasunak ez du Marx’erentzat zentzurik. Maitasunak giza-maillak berdindu eta bateratu egiten ditu; eta gizadia salbatuko ba’da (au da, bere buruaren jabe nagusi egingo

ba'da), gorrotozko iraultzaren bearrean arkitzen da. Giza-maillen arteko ezin-konponduak su eman bear dio gorroto orri, erabateko aldaketa egin dedin gizarte osoan. IGESIKAKO burruka gogor ortan dago (berak dionez) langilleen azken-garaitza. Eta Erljiioari (maitasun zale dalako) "opio" (belar lo-arazle) deitzen dio.

Sartre jaunak, azkenik, ateo askoren buru izanik, guztiz illun ikusten du gizonaren nortasuna. Giza-bizitza barruz erdibiturik omen dago. Ez omen du beragan gizonak bere izatearen oifarririk arkitzen, eta alperrik ari omen zaio zeruari deika, argitasun izpirik izan dezan. Beltz baño beltzago ipintzen du Sartre'k gizonon izatasuna. Dana gau biurtzen bait da, zentzumen onari IGES egin ezkeru.

ALTERIDAD (Alterité/Otherness) BESTETASUN

Gauzak, egoera batetik bestera igarotakoan, aldatu egin dirala esan oi degu. Aldaketa ortan ba-leike zer-izate berria sortzea, edota lengoa bera geratzea. Dana dala, egoerak berenez aldakorrek dira. Igarotzen errezak. Eta buruz ongi banatu ditezke.

Ortaz, egoera aietako bat (edozein) buruz aldebanatzen ba'degu, une baterako bederen, gañorantzeko egoera guztietatik bereziaz, bakarra dala esan genezake. Gañorantzekoak ez bezelakoa. BESTEA, aientzat. BESTETASUN ori dagokio, beraz, gauza aldakorren egoera bakoitzari.

Renouvier filosofu frantzitarren iritziz, BESTETASUNA da izakien arteko arremanen sorburua. Arremanak, ain zuzen ere, ez-berdintasunean oifarritzen omen dira. BESTETASUNEAN, alegia.

GU itzak (dio Madinier jaunak) NI eta EZ-NI besarkatzen ditu. NI eta BESTEAK. Guztiak (bakoitza bere izanean) errespetatuaz. Maitasunak itzala dio lagun-urkoari (BESTEARI), dio jaun onek berak, eta maitasunik ez danean, basakeria biurtzen da lege. Guztiak BERDIN, (guztiak NI) egin nai izatea, orixe da "diktadore" guztien ero-aldia.

AMBIVALENCIA (Ambivalence) ALDIN-BITASUN

Itz onek, bere erroz, zerbaitek bi zentzu ditula adierazten du. Bi esan nai. Bi balio. Bi aldin. Eta biak batera.

"Psicoanálisis" deritzaion iker-lanak erakusten digunez, izan omen leizke gogo-barren berean elkarren aurkako bi griña. Maitasuna eta gorrotoa, adibidez, norbaiti buruz. Freud'ek dionez, alaxe gertatzen da zenbait buru-nastuen gaitzaldietan; kezka luze gogorrek eta espa min latzak eramandakoan, batez ere. Baita seksu-indarren makal-aldi batzuetan ere. Esate baterako, aldin-bitasun ori (bi aldetarako joera ori) giza-barrengo estualdi latzak sortu dezaken gaitzaldi samingarra da. Aldin-biko gaixoa, izan ere, "bai ta ez" arteko burruka bizian arkitzen da, atsedean gozoaren pozik gabe.

ANALOGON (ORDEKARI)

Ez da gauza erreza Sartre jaunaren pentsakeran sartzea; eta, "L'Imaginaire" liburuan darabilkian ANALOGON itza, kontuz neurtu bearrekoa da. Filosofu onen iritzian, gizon bakoitzaren konzientzia (giza barrena), berak oartzen duanaz baliatzen da, kanpoan dituan edota buru utsezko diran gauzak nabaitzeko. Eta, pentsamodu orri jarraikiaz, gizonaren barruari (konzientziari) "irudigille" deitzen dio; eta gauzaren ordezeko barne-oartze orri ANALOGON edo ORDEKARI. Oartutakoa eta beronen irudia bi mundu dira Sartre'rentzat; eta azken au (gure konzientzi irudigilleak eratzen duana) utsaren utsa dala dio. Entzuten dedan "egiazko" eresia, adibidez, neronek irudizatzen dedan eresiaren ANALOGON omen da; eta buru utsezko irudien eusgarri.

ANARQUISMO (anarchisme/anarchism) LEGE-ETSAIGOA

Lege-etsaiek (anarkistak) Estadu, Lege ta Gobernu dan guztia mundutik erabat kendu bear dala diote; eta erriari bere gixa utzi, gogo duan bidea artzen, iñoren zuzendaritarik gabe. Beren ikurriña bezain beltza dute pentsakera ere. Mac Stirner (1806-1856) eta Pierre Joseph Proudon (1809-1865) izan dira iraul-eskola omen maisu famatuak.

ANTROPOLOGIA (antropologia/antrpology) GIZA-IZTIA

Emeretzi garren mendearen azken aldean sortu zan, GIZONAZ ari dan jakingai berri au. Euskeraz GIZA-IZTI deritzaio. Frantzitar QUATRE-FAGES DE BREAU jauna izan zan, arlo ontan geientsuenik nabarmendua (1810-1892). Gaur dan egunean jakingai au aurrerako pauso aundiak emana da, eta zenbait gai berri besarkatzen ditu: giza-arrazak (endak), giza-jakite maillak (kultura), giza-izkuntzak, eder-lanak eta abar.

ATOMISMO (atomisme/atomism) ATOM-ESKOLA

Griegozko "átomos" itzak ZATI-EZIÑA esan nai du; eta, antziñako fisikalarien iritziz, "átomo" diralako oiek ezin-ausizko lengai gogorak ziran. Izadiko korpuzki guztien osagai txe-txeak.

Iritzi ontakoak izan ziran, ospatsuenen artean, Demokrito eta Epikuro, bata 470'tik 360'ra eta bestea 341'tik 270'ra Jesukristoz aurretik bizituak. Atom-eskolak, gaur dan egunean, garrantzi oso aundia artua du fisikalarien artean. Atomoa ez da, denbora batean uste zan izagai bakuna eta barru-indarrrik gabea. Atomo bakoitza barru-indarrez jositako mundu osoa dala esan diteke. Arritzeko moduko "ekuazioak" egin bear bait dira, atomoaren erraietan diran kemen-gaiak adierazteko. Atom-indarrari esker sortu dira, eta gelditu gabe sortzen, fisika arloko aurrerapen paregabeak. Guztion atsegiñerako geienak, bañan baita batzuk, atom-lergaiak bezela, guztion beldur eta ikara bizirako ere.

AUTONOMIA (autonomie/autonomy) ASKATASUN

"Autonomo" esaten zaio, bere buruaren jabe dan erriari; au da, berak bere buruari jarritako legeen bidez gobernatzen danean. Kant filosofoak, bere gogozko moraltasuna goretsi nairik, gizonak moralaren zaiepan bizi bear zuala zion, benetan azke eta loturarik gabeko izango ba'da. Zergatik? Morala osatzen duten legeak, norberak bere buruari ipifiak diralako. Ortaz, Kant'en ustez, gizonak bere burua du nagusi, eta ortan dago gizonaren askatasuna.

Bañan lege morala, Santo Tomas Akinotarrak erakusten digunez (quaest. XCI, art. II), betitandik dan Jainko-legearen erraño da. Ez gizonak sortua. Gizonari bere izaerarekin batean itsatsia baizik. Ortaz, jatorrizko legea gordetzen duanak, ontasun uts dan Jaungoikoari men egiten dio. Askatasun berberaren iturriari. Eta zer zuzenagorik pentsa diteke, Jainko-erabakien partedun izatea baño?

Mundu zabaleko politikarien arte indarkeri gutxiago, eta elkarren errespeto oberik ba'lego, erri "autonomo" ugariago litzake noski gizadian. Bidegabekeri gutxiago lurrean, eta pozgarrizko buru-jabetasun ederrik pranko erridi zapalduetan.

HETERONOMIA (heterénomie/heteronomy) ASKATASUNIK EZA

Erri "heteronomo", kanpotik ezarritako legez gobernatzen dana dezu. Erri azpiratua. Menderatua. Lotua. Askatasunik gabea. Moralitasun-eza, ala berean, giza-

izate jatorraren ondamendia da. Ustelkeri eta erri-zapalkei guztien sorburu posoitsua.

AXIOLOGIA (axiologie/axiology) BALIO-IZTIA

Griegozko "axios" itzak baliodun esan nai du; eta "axiología" balio-jakintza da. Emen "balio" diogunean, "ajola" edo "garrantzi" adierazi nai degu.

Filosofi eskola onen sortzalea Wilhelm Windeband (1848-1915) izan zan; eta zabaltzale txit ezagunak onen ikasle Rickert (1863-1936), Tröltzsch (1865-1923) eta Bauch (1877-1942).

Oien iritzian, gizonak dituan gogapenak ez dira adimenaren bidez sortzen. Ez dute kanpoko gauzeekin zer-ikusirik, ezta giza-zentzuen oarmenarekin ere. Gure gogapenak, misteriozko alkartasun batetik omen datoz. Diran gauzak eta goi-ere-du bikain baten arteko alkartasunetik. Eredu ori guztiz azke ta nagusi dala diote. Diran guztien gaiñekoa. "Balio" deitzen diote, eta zerbaitek (izaki, egite, gogapen, itz) eredu orrekin daukan antza, orixe da beraren balioa. Zenbatez ereduarenkin berdiñagoa izan, balio aundiagoa du. Bañan, eredu ori zer dan adieraztean, egundoko naspilla sortzen dute balio-zaleek. Egia billatzea, zerbait gogo biziaz egiazkotzat artzea omen da. Guk gerok ala erabakitzea. Eta, naspil guztien ondorea agertzeko, egia gure naiaren frutu dala uste dute.

Gaurko egunean "axiologia" deitzen dira, balioei buruz egindako lan eta azterketa guztiak. Oregatik, jakintza berri oni BALIO-IZTI izena dagokiola iruditzen zait.

BIOZFERA (biosphère/biosfere) BIZI-MAILLA

Teilhard de Chardin, Jesusen Lagundiko seme argia, gizaldi ontako filosoforik ospatsuenetakoa degu. Berak dionez, iru iza-mail berezi ditezke, mundu eder onen aurrean. Bata, gaidun izaki ez-bizien maila, GEOSFERA. Bigarrena, gogai edo pentsakizunean maila, NOOSFERA. Eta irugarrena, bizidun guztien maila, BIOSFERA edo BIZI-MAILLA. Lau bizidun mota sarten dira mail ontan: 1) Landare aundi ta txiki guztien mundua, LANDAREDIA; 2) Gizona ez beste animaliak. ABEREDIA abere, pizti, egazti, arrai, arrastakari eta gañerantzeko guztiak; 3) Giza-enda edo arrazak, GIZADIA; 4) Menderik mende izaki bizidunek lurbiran utzitako aztarrenak: ezur ondakiñak, itxas arkaitzak, ikatz basoak eta, esate bate-rako, biziarekin zer-ikusirik izan duen izaki guztiak.

CATARSIS (catharsis) IKUZKETA

Griegozko "catarsis" itzak berez garbikete edo IKUZKETA esan nai du; eta asko erabiltzen da, zenbait buru-gaitzen sendabidea adierazteko. Dala "hipnosis" edo loizunezko egoeraz, dala kimika-gaien bidez gaixoari lo-arazi, eta noizbaiten izandako samifaldiak zeatz-meatz gogorazirik, lasaitasun aundia eta sendabidea eman oi omen zaio. Sendabide oni "catarsis" edo IKUZKETA deritzaio. Barren garbikuntza. Gogo-ikuzketa.

CATEGORIAS (categories/categories) MAILLAK

Aristoteles'ek bere amar "kategori" edo maillak erabiltzen zituan, mundu ontako izakien aldarteak sailkatzeko: zer-izate, zenbat, nolako, arreman, ekite, erame-te, nun, noiz, egoera, oitura.

Kant'ek berriz, "categoria" izenaren bidez beste zerbait agertu nai digu. Guk aldeaz aurretik ("a priori") egiten ditugun gogaiak omen dira. Gogai utsak. Gar-

biak. Eta, sortu ere, gogai oien bidez sortzen omen ditugu gure iritzi edo erabakiak.

Ala berean, erri-izkeraz "categoria" edo MAILLA diogunean, gogapenak eta gertakizunak taldeka txukun biltzeko era agertu nai degu.

CAUSA (cause/cause) SORBURU

Erderazko "causa" mota askotakoa izan leike; eta euskerak mota bakoitzari izen berezia ipintzen dio. Ikus ditzagun zenbait adibide.

1) Causa EFICIENTE / EGILLE, ERAGILLE.— "No hay efecto sin causa", "egiñak EGILLEA du leen". "¿Cual habrá sido su causa?", "Zerk ERAGIN ote dio?".

2) Causa OCASIONAL / BIDE.— "Por causa de Ud.", "Zu zerala BIDE", "Con ocasión de sus bodas de plata", "Aren zillar eztaiak zirala-ta (zirala BIDE)".

3) Causa FINAL / ELBURU.— "Esta es la finalidad de nuestros esfuerzos", "ELBURU ontara dijoaz gure alegiñak" (elburu, jomuga, xede...).

4) Causa ORIGEN / SORBURU.— "A esto se deben nuestras penas", "Ona emen gure atsekabeen SORBURUA" (Emendik datoz...) (sorburu, sorbide, jatorri, erro).

5) Causa EJEMPLAR / EREDU.— "Fue modelo de trabajador honrado", "Langille zintzoen EREDU izan zan".

6) Causa MOTIVO / ZERGATIK.— "¿Por qué motivo lo habrán hecho?", "ZERGATIK (zer dala-ta) egin ote dute?", "Esta fue la causa primordial de su vida", "AUXEGATIK batez ere etorri zan".

7) Causa PRIMERA.— "Dios es la causa primera de todos los seres", "Jainkoa da izaki guztien LEN-EGILLEA".

CIBERNETICA (cybernétique / cybernetics) MAKIN-GIDARITZA

Griegozko "KYBERNETES" itzak zuzentzalle edo GIDARI esan nai du. Itxasontzietan iru gizon ari oi dira gutzienez barkua eramaten. Buru-kapitana agintzen, aurreneko serbitzaria aginduak zabaltzen, eta bigarrena (Iemaria) aginduak betetzen. Gaur makinak bi serbitzarien egitekoa burutzen du, elektro-indarrari esker. Eta, gizonaren esanera, makina bera da agindu-emalle eta agindu-betetzaille. Ez da esatekoa norafioko aldaketa ekarri duan MAKIN-GIDARTZAK gaurko teknika-bideen mundura. Zefiek esan bear zuan, orain urte batzuk, makina utsik (gizonik gabe) illargiraño joan, ango arkaitz puskak artu, eta atzera erten zan toki berera etorteko gauza izan zitekenik? Ori ta beste millaka aurrerapen arrigarri ari dira edatzen, jakintsuen electro-lan ugariei esker.

MAKIN-GIDARITZA (makin utsezko gidaritz) elektro-iztiaren frutu bat da. Ona emen elektro-jakintza beraren beste zenbait frutu: soñudun zinema, telebista, "satelite" edo izar-mutilla, urrun-zaiketa edo kontrola, "ciclotron" edo atom-puskagalluak, txikirako elektro-begia, ekis elektro-izpiak, erradar, argi-neurgailua ("fotómetro"), "tansistor" (irradi-gailua), magneto-soñua, elektro-kontagailuak, "célula foto electrica" (elektro-argi begia) eta beste ezin konta ala tresna berri.

CIENTISMO (SCIENTISME/SCIENTISM) JAKINTZA-ESKOLA

Gizonak jakingai guztiak ezagutu nai lituzke, bere adimen argiaren bidez; bañan gai ugariegiak agertzen zaizkio, guztiak sakondu aal izateko. Iru jakingai talde aundi orain gogoratuko: Teoloji-mailla edo Jainko-iztia, metafisica-mailla edo adimen utsezko pentsakizunak, eta saio-jakintzak (oarketaz atereak).

Teoloji-lanetan jarduteko, au da, Jainkoak agertu dizkigun izadiz gaiñeko egiak alik ondoen sakontzeko, goi-sinismena eta giza-adimena erabili bear ditugu. Bi argi-iturri oien bidez egiñak dira, gizaldietan zear, ainbeste teoloji-zale jakintsuen

idaz-lan jatorrak. Adimen-utsezko gaietarako aski da, berez, giza-arrazoi soillaren ekintza; bañan, ontan ere, goi-sinismenak ez dio gizonari laguntza on besterik egiten. Eta azkenik, saio-jakintzetan jarduteko, alegin guztiz egindako oarketaz baliatzen gera. Zer nun eta noiz gertatzen dan oartu, “fenomenon” esan oi zaion agertzen dan aldartearen berri jaso, eta, adimena lagun dalarik, egiazko jakintza-oiñarriak antola genezazke.

Orrela jaio, azi ta indartu dira izadi-iztia, giza-iztia, bizi-iztia, fisika, kimika, mekanika eta beste saio-izti asko (jakintza “experimental” asko). Esan bearrik ote dago, azter-lan ontarako giza-adimena bearrik bearrena danik, eta teolojiaren aldeko argitasunak (naiz eta beste maillekoa izan) ezin dezakenik kalterik ekarri?

Orra, ordea, Augusto Comte (1798-1857) frantzitar filosofoak, teolojiari eta metafisikari muzin egiñik, saio-jakintzak bakarrik onartzen zituan; eta oarketaz ikus-ikasitako ezagutzak bakarrik “jakintza” deitu zitezkeela zion. Onela sortu zan “positivismo” edo “saio-jakintza eskola”. Bañan zer gerta? Comte jaunaren jarraitzaileak, beren maisuaren iritziak ankaz-gora irauliaz, filosofoaren beraren aurka ekin zuten, eta “cientismo” deritzan teori argala ekarri. Eskola onentzat, beraz, filosofiak ez du jakintzarekin zer ikusirik; eta, orrexegatik, “cientismo” dalakoari, “jakintza eskola” baño, “filosofi-eza” edo “filosofi guztien aurkako eskola” deitu bear litzaiokeela dirudi.

COGITO

Latiñezko “cogito” itzak “pentsatzen det” esan nai du; eta, frantzitar Renato Descartes jaunaren iritiz (1596-1650), barne-gogapen orixe izan zan bere filosofi guztiaren len-oiñarria. “Cogito ergo sum” esan oi zuan. “Ni pentsale? Banaizen señaile”. Oldozpen ortan ikusten zuan bere ziur-izate guztien iturria; eta, txit barrengo gogoeta ortatik asita, Jaungoikorik ba-dala eta munduko izakiak egitan dirala aitortzen zuan. Filosofi gaietan ezezik, matematika arloan ere jakintsu eta maisu trebea izan zan. Berea du, beste idaz-lan askoren artean, “Geometria Analítica” (“Azter-Neurriztia”) deritzan liburu famatua. Descartes'en pentsakerak indar aundia izan zuan XVII garren mendean, eta oraindik ere ba-du jarraitzaillerik pranko.

CONNOTACION (connotation) ERANSGARRI

Akino'tar Tomas Santuaren eskolastikan asko erabiltzen zan “connotatio” itz au; eta, berez, egokitasun edo egoki datorren gauza esan nai du. Zerbait ongi datorkiona, ots, berari ERANTSI genezaiokena. Eransgarria. Gaurko zenbait filosofuek itz ori bera darabilkite, gauzaren zer-izateari dagokion zerbait adierazteko. Orrela, gizonaren “connotatio” omen da gizon-izaerari dagokion barren-mamia: animala eta adimendun izatea.

CONTINGENCIA (contingence/contingency) BEARREZKO EZ DANA

Latiñezko “contingens” bearrezko ez danari esan oi zaio; bañan “bearrezko” itzak bi zentzu izan dezazke. Bata, erri-izkeraz darabilkiguna: premiazko, utzi-eziñezko. Bestea, filosofi eta teoloji gaietan erabillia: izamendun, berez izatedun. Bigarren zentzu oni begiratuko orain. Ikusmena, entzumena, adimena eta abar ikus-aal izate eta adi-aal izate diran bezela, IZAMENA izan-aal izate dezu. IZAMEN euskal-itza guztiz egokia dala derizkiot, izan-aal izatea adierazteko. Eta, ortaz, berez danari (berezko izan-aal izate duanari) IZAMENDUN deitu genezaioke. Ona emen, labur-labur, IZATEARI buruzko euskal itz egoki batzuk:

- 1) IZAGAI, izateko gai, izan ditekena.
- 2) IZAKIZUN, izango dana.

- 3) IZATEDUN, dan gauza, ez ametsezkoa.
- 4) IZAMEN, izateko aalmen, izan-aal izate.
- 5) IZAMENDUN, berez dana, naitanaiez dana, Jainkoa.
- 6) EZ-IZAMENDUN, izan eta ez-izan leikena, "contingens".

CORTE EPISTEMOLOGICO (Coupure Epistemologique/Epistemological Break) TEORI-EBAKETA

Ari zaizu filosofoa bere pentsakera adierazten, ikusten dituzu aren iritzien oiñarriak, antz-ematen diozu nundik nora dijoan eta nolako eskola agertzen duan; eta bat-batean, len esandakoak ukatuz, bide berriak zabaltzen dizkio bere pentsakerari, eskolako oiñarriak aldatuaz. Une ortan, irizpide berria artu dan unean, TEORI EBAKETA nabari da, eta ez bein bakarrik, Marx iraultzallearen liburuetan. Izan ere, ordurarte "materialismo histórico" erakusten aritu ondoren, germanitarren burubidetara jotzen du, bere aurreko Hegel eta Feuerbach maisuei bizkar emanez.

COSMOLOGIA (cosmologie/cosmology) IZADI-IZTIA

Beti izan du gizonak, bera bizi daneko mundua ezagutzeko gogoia eta artaz teori egokia antolatzekeo irrika. Zer da mundua? Zer izadi osoa? Galdera oiei erantzunik sortu zan IZADI-IZTI edo "cosmoloji" deritzan filosofi zatia. Jakiña, saio-jakintzak abantaren aurreratu, eta fisikaren aldetiko teori berriak indartu diranean, antziñako "cosmoloji" zaarra ere gaurkotzen ari zaigu, gaurko jakintza mailletara igotzen. irakurtzekoa da, gai oni buruz, Jacques Merleau Ponty jaunak idatzitako "Cosmologie du XXe siècle" liburua. Gauzak "sub-stare" edo geldi egonean baño, beti sortzen, beti berritzen, beti mugitzen ari dirala dio fisikak. Einstein beraren "relativismo" eskolak ere zer ikusi aundia izan du gaurko IZADI-IZTI berriaren aldaketan.

CULTURALISMO (culturalisme/culturalism) KULTUR-ESKOLA

Anglo-sajondarren arteko antropoloji-zaleak, "psico-analisis" deritzaion gogo-ikerketaz baliatzen dira askotan, munduko enda-arraza bakoizaren kultur-mailla erabakitzekeo. KULTUR-ESKOLA, ortaz, gogo-ikerketa eta enda-iztia bateratzen dituan filosofi joera dezu. Freud'etik asita, Malinowski (bere aurreneko lanetan), Ruth Benedict, Kardiner ea Margaret Mead izan dira eskola ontako maisu-buru ezagunak. Bi jakintza auek (enda-iztia eta gogo-ikerketa) alde banatara ibilli izan dira iya beti Frantzian; bañan Roheim jaunak egindako sakontze-lanen ondoren, garbi azaltzen da bien arteko batasunaren bearra. Ikus PSYCHO-ANALYSIS AND ANTROPOLOGY (New York 1950).

DESREALIZACION (DEREALISATION/DEREALISATION) EZEREZTUTZE

"Psiquiatria" deritzaion sendagintza-arloan adierazten danez, buru-nastutako gaixo batzuek gauzak erdi-lañotan eta benetako izatasunik gabe ikusten dituzte, ingurua uts biurtu zaielakoan. Zoro-gaixotasun oni UTS-BIURTZE edo EZEREZTUTZE deitzen diogu.

DETERMINISMO (Déterminisme/Determinism) ALABEARRA

Filosofi eskola onek dionez, gizonaren naimenak era jakiñean beti ari bearra dauka. Beti kanpotiko indarrek eragifiñik eta egitako azkatasunik gabe. Bañan, giza-askatasuna ukatzeko arrazoiak jartzerakoan, alabear-zaleak ez dira iritzi

batera etortzen. Batzuek, metafisikaren kontrako gauza dala diote giza-askatasuna; beste batzuek, askatasun ori eta Jaungoikoaren borondate alda-eziña ezin elkartu ditezkeela; beste batzuek, giza-adimenaren lege jakifiak eta askatasuna ez dirala ongi konpontzen; eta beste batzuek, azkenik, giza-naimena izadiko legeen mendean dagola diote, eta lege oiek naitanaiez bete bear dirala. Esate baterako, alabear-zaleen ustez, giza-naimena bere adimenaren morroi utsa da, eta jabetasunik gabe jarraitu bear du arek agintzen dion bidetik. Eskola onek zearo zapaltzen du gizonaren nortasuna.

DEVENIR (Devenir/Becoming) ALDA-LEGEA

“Devenir” itza latinezko DEVENIRE'tik dator, eta berez ETORRI edo ITZULI esan nai du. Gauzak ixuri, joan, linburtu egiten dirala diogu, beren egonean irauterik ez dutelako. Bañan “devenire” oni zer garrantzi ematen zaion, edota zenbaterañoko aldaketa dakarkian aitortzean, ortxen dago filosofoen arteko eztabaidarik biziena. Auzia ez da atzo bertan asia. Heraclito, filosofo grezitarra, 540-480 urtetan bizitu zan, Jesukristoz aurretik; eta, Izadiari buruzko bere idazkian (idazki onen pusketak bakarrik gorde dira) mundua mugimentu toki eta aldaketa leku dala esaten du. Txit ezaguna da pentsalari onen esakuntza: “PANTA REI”, “dana dijoa”, “dana ixurtzen”, “dana aldatzen”. Aristotele'sen filosofian, berriz, IZATEA guztiz iraunkorra dala aitortzen da. Nabaitzen ditugun aldaketak “accidens” bakarrik dirala. Ots, ez dutela izakiaren mamirik ikutzen. Axal-axaleko goraberak dirala. Descartes'ek berak, XVII garren mendean, gizadiaren bizikera asko aldatuko dala dio, eten gabe datozen aurrerapenai esker; bañan aldakuntza orrek ez duala gizonaren espiriturik urratuko. Giza-adimenak gero ta obeto ta errezago ezagutuko duala noski egia, bañan bere barrengo iza-aldaketarik gabe. Eta ori, gizonaren izate sakona beti irauteko egiña dalako.

“Devenir” dalakoaren gai ontan, oso beste era batez mintzatzen da Nietzsche jauna. Onen ustez, ezer diran gauza guztiak barruan dute arra. Beera bearra. Akitu bearra. Utsera bearra. IZAN eta EZ-IZAN, biak elkarren leian arkitzen dira izaki bakoitzean. Eta burruka ortatik omen dator, aularen eroriarekin, indartsuaren garaitza. Ustel dan guztiaren erioa eta bikain guztien bizia. Izadia, beraz, bein ta berriz beren artean burrukatzen diran IZAN eta EZ-IZAN indarren kondaira da. Azkenik gabeko itzultzea. Nietzsche'ren pentsakeran, batetik ezeren federik ez dutenen illuntasun samiiña agertzen da, eta bestetik neurririk gabeko arrokeria. Zer tankerakoa da, izan ere, berak goresten duan gizona, berak itxaro duan “super homo” (gain mailleko gizona)? Guztietatik aparta eta oraindaño izan diranak ez bezelakoa: ez maitalari, bai zapaltzalle; ez kupibera, bai indartsu purrukakoa; ez biotz samurreko, bai serbitze guztien kontrakoa; ez Jainko gurtzalle eta bai bere burua Jainko orde z goraldua. Arrokeri utsaren frutua.

DIACRONIA (Diechorie/Diachronism)

“Diacronia” itza griegozko “dira” eta “cronos” itzetatik dator. “Cronos” ALDI edo denbora da eta “dia” aurre-izkiak zentzu auek izan dezazke: batzutan ALDEBANATZE, bestetan ZEAR (mendi zear, aldi-zear), bestetan ARTEAN (gizonen artean, atsekabe arean), eta bestetan -KIN (nagusiarekin, langilleekin). Emen, filosofi gai auetan, ALDI-ZEAR (aldiz aldi, aldirik aldi) esan nai du. Asko erabiltzen da izkuntzak ALDI-ZEAR edo denboraren denboraz nola aldatzen diran adierazteko. Era ortan egindako izkuntza azterketari “estudio diacrónico” esan oi zaio. “Diacrónico” itzaren kontrakoa SINCRONICO izango litzake; eta ala deitzen zaio BATERA (une berean) egiten dan gauzari.

DIALECTICA (Dialectique/Dialectics) ARRAZOIKETA

“Dialectica” Platon’entzat “elkar-izketa” zala esan leike. Berak esaten zuenez, eztabaida egokien bidez agertzen da egiaren argitasuna; eta gizona orrela, zentzuen maillatik adimenaren goi-mailetara igotzen, benetako filosofi trinkoa iristeraño. Erdi-Aroan “dialectica” itzaz arrazoiketa edo “logica” bakarrik aipatzen zan. Giza-pentsakeraren bideak zuzen eta zeatz godetzea, alegia, ortan yayotasunik garbiena erakutsiaz. Kant’ek ere, XIX garren mendean, “dialectica”-ri “logica” deitzen dio. Arrazoiketa. Bañan beste esan-nai bat emanez. Ea ori bera gertatzen zaie geroztiko filosofo famatuena (Hegel, Marx, Bachelard, Sartre eta abar). Bakoitzak bere erara ulertzen du “dialectica”, egundañooko naspilla sortzen dutelarik. Bañan, alaz guztiz ere, eta sasi jakintsuen naspillak naspil, “arrazoiketak” (dialectikak) bere balio galanta gordetzen du, zentzumenik duten guztien artean. Zer, izan ere, ederragorik, elkar-izketa ondo eramaten ikasi, iñoren arrazoiak onartu, eta, dala gizarteko goraberatan, dala politika arazo estuetan buruz eta lojika garbiz jardutea baño?

DINAMISMO (Dynamisme/Dynamism) KEMENA

“Dinamismo” ta “mecanismo” elkarren kontrako itzak dira filosofi gaietan. Renato Descartes’ek “makinari” aundi bat bezela ikusten zuan mundua, eta makinari ortako aldaketak, fisikaren aldetik, igidura edo mugimentu uts zirala zerizkion. Korputz batak besteari eragindako bultzada. Leibniz’ek, berriz, Newton’en pentsakerari jarraiki, “izadiko erakar indarra” (“gravitacion universal”) aitorzen du; eta, fisika berriaren erakutsiz, munduko ikuspen berezia agertzen. Izadia, agirizko mugimentuz ezezik, barne-indarrez ere josia dago. Descartes’en makinari soillaren ordez, Leibniz’ek kemen biziaren mundu arrigarria erakusten. Bi liburu ditugu gai ontan noski aipagarrienak: Newton’en “Los principios matemáticos de la filosofía natural”, 1687’en argitaratua, eta Leibniz’en “Nuevo sistema de la naturaleza y de la comunicación de las substancias”, 1984’an aterea.

DISCURSIVO (Discursif/Discursive) ADIMENEZKO

“Discurso” itzak filosofian ez du “itzaldi” esan nai, adimenaren lanaz sortzen dan gogoeta baizik. Pentsamentu eldua, esango genduke. Oldozpen astiro landua. Beste aldera, berriz, “intuición” deritzana daukagu. Bat-batezko burutapen bizkorra. Adimenaren neke gutxiz eta ikusi utsez (begi ziztan) erretako ezagutza. Oni BEGIRATUZKO ezagutza (conocimiento intuitivo) deituko; eta aurrekoari ADIMENEZKO ezagutza (conocimiento discursivo).

DUALISMO (Dualisme/Dualism) BIGATASUN ESKOLA

BIGATASUN ESKOLA deitzen diogu, elkarren kontrako bi alderdi azaltzen dituan filosofi eskolari. Alderdi oiek berenez desberdiñak eta era banetan ipiñiak dira, txuria eta beltza, eguna ta gaua bezela. (Sokrates’en eskolak garbi agertzen du bikotasun ori. Batetik anima (espiritua) eta bestetik korputza (gaia) noiznai aipatzen bait ditu. Bitasun ori ez da iñoiz zokoratua izan, sartaldeko pentsalari geienen artean. Descartes’ek ere sendo eusten dio bigatasunari; eta, gizonaz mintzatzen danean, onen bi osagaiak (anima eta korputza) batu egin dirala dio, zer-izate berri bat sortzen dalarik. Orretzaz gaiñera, eta bigatasunetik erten gabe, ezin konta ala gogapen burura genezazke, sail ortan sartu ditezkenak: ona eta txarra, zuzena eta okerra, egia eta gezurra, aundia eta txikia, goia eta bea... eta abar, iya azkenik gabe.


**ECONOMIA POLITICA, POLITICA ECONOMICA / ERRI OGASUNKETA,
EKONOMI ERA**

“Economía Política” erriaren alde erabiltzen dan ogasunketa da. Erriaren onerako zaintzen diran ondasunak. Esate baterako, erriko ondasunak nola ondoenik sortu, zabaldu, banatu eta sal-erosi zitezken agertzen digun jakintza.

“Política Económica”, berriz, ekonomia zuzentzeko modua da.

Luis Egia

Jarraitzeko continuara



GABON-APARIA

(2n. SARIA)

Marikutz, etxeko seme-alaben artean zaarrena, maldan gora dator basarriruntz, pardeltxo bat eskuetan daularik, Bai, ba, Donostia'n neskane urte osoan eta Gabon aparirako dato aurrez. Etxekoandreak makallau bat eskeiñi dio, etxerako opari, eta pozik dakar biotza. Etzi da Gabon eta gau orretako apararian ez da iñortxo faltako etxekorik sukalde baztarretan...

Gabon eguna eldu da. Txoko batean amama eta bere illobatxo Aitor:

— Amama, itxaur onek zertarako dira?

—Intxaur-saltza egiteko: baña, txotxo, zeuk jaten ba' gelditzen diran apurrak jan eta erdiko mamiak gorde.

— Amama, pillo bat aukeratu doguz eta orain zer?

— Botella bategaz zapaldu eta birrinduko doguz.

—Eta, gero?

— Gero uretan egosi, olioia bota eta iriñakin naastu.

—Eta gero?

— Ba, gero makallau-izpi batzuek bota eta gozokia ugari.

—Gozua egongo da, amama...

— Bai, ume, gure artean Gabon-gabarik ez da intxaur-saltzarik gabe.

Aita eta Mikel basoan dabilta, iri-parea lagun, joan dan neguan botatako aritz-enborraren billa.

—Gerritik lotu, Mikel, lodi aldetik, kateak iges egin ez dezan.

—Aita, ez aldegu aundegia?

—Begira, mutil, urte osoan iraun beariko du Olentzaro-mokor onek, etxeko arazoak bide onetik joango ba'dira.

—Baña, zertarako ipintzen dogu sutan onelako mukur aundia?

— Eguzkiari laguntzeko. Berantza ibilli da orain arte eta galduko ez ba'da, lagundu egin bear.

—Nola, ordea?

—Su aundiak egiñez. Sua eta eguzkia senitartekoak dira eta suak ematen dio indarra eguzkiari. Entzun, Mikel, Eguna, Eguzkia eta Egurra guztiak datoz sustrai berdiñetik.

—Aita, zuk asko dakizu, e?

—Nere aitaren aotik ikasi nituen zuri erakusteko, zeuk ere egunen batean zure aurrari erakusteko... Guretzako beti eskolarik onena geure etxe-baserria izan da...

Lotu mukurra eta, lorketan, baserriraiño erakarri zuten. Basarri zaarrak sukaldea zeukan etxearen erdi-erdian eta, atetik aurrera, sartu ziran sukaldereiño. Aurreko mokorren errautsak an zeuden oraindik zearo erregabe eta beuren suetatik piztu zuten enbor berria. Goiza igaro zuten suari eragiten, garrik aundienak ateratzeko moduan. Ala konbeni bait zitzaion eguzkiari bere erori-aldeetik gora jasotzeko.

Amama itxaur-saltza prestatzen ari dan bitartean, ama eta Ixabel, etxeko neskatorik zaarrena, Gabon-gabeko aparriekin diarte buru-belarri. Aza-olio legun-legunak asierako, makallaua saltzan ondorengo, intxaur-saltza borobil-tzeko eta gaztaña erreka amaitzeko.

— Iñixio, amak mutikoari, danboliña sutara inguratu.

—Lakari bat naikoa izango degu, amatxo?

—Imillaun bat naikoa da, aurretik jaki asko degu-ta.

— Ama, diotza Ixabel'ek, egia al da Olentzaro tximiñitik beera jeisten dala gaurko gaeuz?

—Suari arretaz begiratzen ez ba'diogu, bai. Itai eskuan duela egertuko litzake, asarre bizian.

—Au bildurra, amatxo...

—Ez izan bildurrik, Ixabel, gaur ez diñagu orrelako arriskurik etxe onetan; mokor galantza ekarri diñe aitak eta

Mikel'ek basotik. Urte giztirako suak seguru dizkiñagu aurten. Aza-ostoak kontuz garbitu, tolesteetan bada edo mozorrorik gorde ez dediñ.

Aparia gertu dago. Amamak Errosario santua amaitu du. Aitak mai-burua artzen du; bere eskubitan Marikutz, zaarrena; ondoren Mikel, Ixabel eta besteak. Aitor, txikiena, ama eta amamaren artean.

—Aitaren, Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.

Ori esanaz batera, aitak ogiari gurutze bat egiten dio ais-toakin eta muturrari zatitxo bat ebagi dio. Musu eman eta mai-gañeko zamaupen gorde du.

—Ogitxo au ez da urte osoan lizunduko eta amorru-gaitzaren kontrakoa da; alaxe dira, baita ere, amamk gaur baratzan erein dituen baratzuri-atalak, baldin San Juan egunean jasotzen ba'dira.

—Aita, —dio Mikele'ek— biar goizean kortako abereak Olentzaro mokorraren gaiñetik pasa-aziko dituguz?

—Bai. Orrela gaitz guztiak aldentzen dira gure ikullutik; baita etxe osotik ere.

Maieko jakien lurruñak urdaillak erne arazi ditu eta ekin diote guztiok batera, mauka, mauka... Itzik eta berbarik egiteko astirik ez du iñortxok artzen. ARTan ari dirala, atariko atea jo dute.

—Iriki, mutil. Aitak Mikel'eri.

Sukaldeko argira, gazte bat agertu da kantari:

Emen eldu gerade
berri on batekin
gure embajadero
Olentzerorekin.
Olentzero joan zaigu
mendira lanera
intentzivadekin
ikatz egitera.
Aditu duenian
Jesus jaio dala
laisterka etorri da
berri ematera...

kanta-sorta osoa amaitu dutenean, etxeko jaunaren kiñu batera, sartu dira barrura, mokautxo bat artu eta ezterria sagardoakin leguntzera. Eman dizkiete lukaika, odoloste eta txerrikiak. Ondoren badoaz mendian beera, farolak eskuetan, beste basarri batera.

Marikutz'ek aitari:

— Olentzaro eguzkiaren languntzaille ba'da, nolatan egin da Jesus'en albistari?

—Gure aitonak esaten zigun nola, Aralar'ko zelaigune batean jentillek dantzan ari zirala, laiño ikusgarria agertu zan sorkaldetik.

— Zer da sorkaldea? Dio Ixabel'ek

—Eguzkia egunsenkia egunsentian agertzen dan aldea. Eta, eguzkiak aria argi ematen zuen laiñoak. Ikaratu ziran jentillek eta txabolla batean zeukaten jentil zaar jakintsua atera eta laiñoaren aurrean ipiñi omen zuten; baiña, betazalak eroriak zituelako, ez omen zuan ezer ikusten. Iriki zizkiotenean, garraxika asi omen zan:

—Kixmie jaio da eta gure askazia galdu da betirako; bota nazazue mendian beera.

Bota zuten amiltegian eta eurok sartalderuntz igesi joan ziran eta arripilla aundi batean sartu omen ziran eta an omen dute euren azken illobia. Jentil-arri esaten diogu arripilla arreri.

— Trikuarria ere esaten zaio. Mikel'ek aitari.

—Baiña, ez omen ziran guztiak lurperatu. Bat gelditu zan bizirik. Ibarrera jetxi eta Jesus'en berri ematen asi omen zan erririk-erri. Uraxe omen da Olentzaro, euskaldunen lenengo mixiolaria. Erririk-erri eta aterik-ate ez da oraindik bere lanean gelditu.

— Eta, zergaitik —dio Mikele'ek— esaten dute Olentzaro tripazai eta mozkor aundi bat dala?

—Ori beste arazo bat da, Mikel. Euskera geiegi ez zekien bertsolari baten errua da ori. Olentzaro -mokorra eta Olentzaro -mokorra eta Olentzaro -moskorra, (biak dira berdin) Olentzaro mozkor -ardozele batekin trukatu zuten. Eta, ortik edo sortu dira makiñatxo bat era orretako kantak. Asieran ez zan Olentzaro orrelakoa; gerorakoak dira oiek.

Gaztañak mairatu diranean asi da Marikutz kantari:

Ator, ator, mutil etxera
gaztaña zimelak jatera,
Gabon gaba ospatuzeko
aitaren ta amaren ondoan...

Orduan aurrera doaz ustekabeen eta Mezatarako ordua eldu da. Aita, Martikutz, Mikel eta Ixabel maitik jeiki eta amantarrakin batera abarkak jantzi dituzte. Baita kapusaiak ere soifnekoen gaiñetik. Ganbaratik lasto-zuziak jetzi, eta bat piztu ondoren, irten dute elizarako bidera. Sakonetik goruntz kanpai-otsak dilin dalan:

Ogeita laugarrena / negu abenduan
deso genduena / iritxi genduan.
Gabeko amabiak / jo duten orduan
gure Salbadoria / jaio da munduan.

ARRINDA'tar ANES

GABONETAKO SORGINKERIA

Oi Betleen,
 etorri da zure garaia.
 Oi Betleen!
 Ongi bait du dizdiratzen
 zugandik eldu den argiak
 bete ditu bazter guztiak.
 Oi Betleen,
 Oi Betleen!

* * *

"Genesis" deritzan liburuak argi erakusten digu gizonaren okerkeriak nundik nora jotzen duen. Aske gera bai; baña, askatasun ori ondo erabiltzen ez da gauza erreza izaten.

Askatasunik ez ba'lego, ez legoke okerrik ere. Alaz ere Jaunak naiago izan zuen gizona aske egitea eta ez animalien antzera askatasunik gabea. Ar-emeak egin zitun eta bien arteko jokabideak okerra sortu. Orra gizadia pekatari.

Zuk duzu kulpa batek besteari. Biak errudun. Baita irugarrena ere: ostopo jarri zien Tentalaria.

Izarditan jango duzu zeure ogia eta zuk, emakume, aurmiñetan izanen dituzu zeure umeak. Zuri, berriz, Okerra zeran orreri, Emakumearen ondorenak zapalduko dizu burua.

* * *

Itxaropena argitu zan lurrean. Askatzaille baten itxaropena. Urte luzeak pasa ziran bitartean; baiña, aizkenean ere, orra eguna eldu:

"Ogeita laugarrena negu-abenduan
 deseo genduen iritxe genduan;
 gaueko amabiak jo duten orduan
 gure Salbatzaillea jaio da munduan..."

Gezurra dirudi, baiña egia izan: 1986 urte dira, gutxi gora-beera, andratxo gazte xume ezezagun batek, aurtxo bat izan zuela pobrezian, ijito-kume baten antzera.

Ez zan jaio Erromako errege-jauregian, ez eta iñungo jakintsuarenean ere. Aita-ordeko, erriko arotza eta ama, neskato apal bat. Ez aberats, ez jaintsu, ez indartsu... Ezer ez.

* * *

Gabonak ba-dute beuren sorginkeria. Eguzkiaren sortzea ospatzen omen zuten gure arbaso jentillek garai onetan eta orrexagaitik omen da gabonak aundikiro ospatzea... Emen ez du iñork aspaldiko milla urte auetan eguzkiaren gogoramenik egin; baiña, bai Aur txiro aren gomuta.

Nola liteke, ainbeste urte pasa eta gero, Umetxo aren gogoratzeak orrelako arrakasta izatea munduzabalean...? Sorginkeria esan dugu? Misterioa esan dezagun. Goi-goikoaren Jakinduria, Aitaren Seme bakarra, aragiz jantzi da eta onek ez du Erromako jauregirik bear, bere gogorarena eragiteko munduan.

"Jainkoaren Itza aragiz jantzi da eta gure artean etxola jaso du. Guk ikusi degu aren ospea..." Joanez arrazoi: orretan datza Gabonetako sorginkeria.

ARRINDA'TAR ANES

*Urtero lez eurten be
 Ospatzen da Gabon.
 Bakezaleok alkar
 Zorionak emon.
 Herodes be or dago
 Eta lo ez egon.
 zerura begiratu
 Izarra non dagon.*

*Jesus Salbatzallea
 Munduratutean
 Ostatu eske dabil,
 Atean-atean.
 Askenezjaio bear
 Aterpe batean,
 Andirik andiena
 Txikien artean.*

B. Pujana.

Udaberriko goiz alaitsua zan ta Gernika-ibaiaren ettzetik nebillen; lore baten gañean Galtxa-gorri ikusi neban niri deika:

—Aizu, Euskaldun, nora zoaz...?

—Ikusmira nabil, ta... zu nor zaitugu...?

—Ni, Galtxa-gorri naiz. Ez dozuz nire galtza gorriak ikusten, ala...?

—Mallukia ziñala uste neban...

—Mallukia...? Ja, jaiiii...! Txikia naiz ni mallukia izateko...

—Ta, zertan zabiltz zu, Galtxa-gorri...?

—Ni beti gizonaren morroi ta gizonari Iaguntzen...?

—Zertan...?

—Edozertan. Nik eta nere lagunak egiñ ez daikegun gauzik ez dago.

—Ezer, be ez? Ezer, be ez?

—Egia esateko... dan-dana ezin daikegu. Ona zer jazo jakun egun batean, Kortezubi'ko baserritar batekin:

Erosi ginduzan baserritarrak, soloan lan egiteko.

Agindu euskun lana egiteko. Lan amaitu ta an joan giñan barriro Ian eske. Emon euskun beste bear bat. Amaitu gendun. Beste bat... eta orrelan, lau aldiz. Bosgarrenean etorri giñan baserritarragana:

—Zer Ian egingo dogu?

Ez ekian zer Ian emon, beriala amaitzen ba'genduzan Ian guztiak. Orduan agindu euskun ura galbaian ekarteko. Asi giñan lanean, baña, alegiñak eginda be, ezin genduan urik ekarri. Gelditu giñan, azkenik, agindurik bete ezin gendulako...

—Orduan, gizona zuek baño azkarragoa da...?

—Baiña guk, berak baño indar geiago...

—Ta, zu niri Iaguntzeko be prest zagoz?

- Bai orixe...! Zertan Iaguntzea nai dozu...?

—Ni, Euskaldun gazte barria naiz, ta emengo barririk ez dakit...

—Nik emongo dautzut zuri Euskaldun zaarren barria.

SANTIMAMIÑE

Ori esatearekin batera, loretik nire eskura salto egin ta, bere beatzakín Kortezubiko mendi bat erakusi eustan.

—Mendi baltz ori ikusten dozu...?

—Gallurrean ermita zuria daukana?

—Mendiaren izena Ereñusarre da, ta mendi orren egalean "Santimamiñe" koba-zuloa dago...

Artu nindun aidean, ta izugarritzko errun eroan nindun Ereñusarre mendira. An ikusi neban leize-zulo aundi bat. Leizearen atakan, lapa ta txirla, azalak ugari...

—Zer dira oneik? —galdetu neutson Galtxa-gorri'ri.

—Zera... zuen aurrekoak jandakoen arrastoak... Ez dozu, or beean, Gernika'ko ibaia ikusten...?

—Bai.

—Ta, an, beerago, itsasoa?

—Bai, ta.

—Ba, antxe batzen zituen lapa ta txirla oneik...

—Ta, ortik bizi al ziran...?

Orretzaz gañera, arboletako frutu ta igaliak, lurreko bedar ta sustraiak be, jaten zituen... Baña, eizatik bizi ziran batez be...

—Eiztariak al ziran...?

—Bai.

—Ta, zer arrapatzen eben eizan?

—Pizti ta abereak: zezenak bezela, bisonte, basauntz, zaldi, basurde ta beste asko be bai...

—Bisonteak...?

—Bai, bisonteak be, bai... Orain emen ez dago bisonterik, baña, orduan ba'ziran Euskalerrian...

—Ori, ipuifien bat izango da...

—Ipuiña...? Etorri kobe barrura neugaz...

Sartu nindun leize-zuloko illunpe artara. Biztu eban krisa-llua, ta, barru-barruan, ezkerreko ormatik gora, kuarto txiki batean sartu giñan biok.

—Enee! orreik, zer dira...?

—Zuen aurreko Euskaldun zaarrak egindako marrazkiak.

—Zenbat urte, egiñ zituela...?

—Amabi milla urtetik gora... Ezagutu nituan euskaldun areik. Zuen antzekoak ziran...

—Ta, arek aalmenik ba'eben orrelako marrazki egoki ta ederrak egiteko...!?

—Alan dirudi... Ara emen, aitatutako bisonteak... Ikusten dozuz...?

—Bisontekin batera, beste pizti batzuk be ikusten dodaz. Ara, artza ta basauntza, be....

—Ipuiñak al dira...?

* * *

Txoraturik nengoan marrazki arei begira. Preistoriko Euskaldun areik ez ziran beti lo egon... ez ziran nola-naiko artistak izan...!

—Aizu, Galtxa-gorri, ta piztien marrazkiak zergatik egin zituen orrelako toki ezkutuetan...? Or kanpoan, argia dagon tokian, egitea ez al zan obe...? Jendeak obeto ikusiko ebazan.

—Baña, irudi orreik ez ebezan egin jendeak ikusteko...!

—Zertarako, orduan...?

—Euskaldun arein elizatzokak ziran zulo oneik...

—Elizak be, ba'zituen...!

—Elizen antzekoak... Eizara urten aurretik, Ieizara etorri, ta leizako illunpe onetan egiten zituen euren otoitzak, pizti onein aurrean...

—Abaderik ba'euken otoitzak egiteko...?

—Aztiak ziran arein abade. Eta, otoitzak egiteko, mozorroz jazten ziran.

—Iñauteri ta Karnabalak al ziran ba, mozorroz jazteko...?

—Euskaldun zaarren aztiak mozorroz, jantzita aztikeriak egiten zituen euren koba-zuloetan; Zuek, barriz, Iñauterietan, astokeriak egiten dozuez galantak...

—Ori be olan da ta eziñ ukatu... Baña, mozorroz jaztea orduko gauza izango da...?

—Bai, orduko oituratik datorrena da... Baina ori zertarako zan, aitzu jatzue.

Euskal Jainko Zaarrak

GARRI DEO

—Gaur, Otsailak 17, Garizumaren lenengo astelena. "Irteera" liburutik irakurgaia, apaizen liturji-otoitzetan. Seigarren kapituluaren asieran: "Ni, Jauna naizen au, zuen arbaso Abraham, Isaac eta Jakob'ei agertu nintzaizen Mendietako Jainkoa bezela; baña, nere izenik ez nien agertu...".

—Mendietako Jainkoa?

— Bai, Mendi-gallurretako Jainkoa.

— Jainko ori Euskal-erri zaarrarena ere bazan.

—Nun eta nola?

—Nun? Elurretara joaten ba'zera Kandantzu'reraíño, andik beste aldera Aspe'ko ballara dago.

—Aspe? Bizkaian bezala.

—Bizkaia'n bezala eta esan nai berberarekin: Aiz-pe. Andik beera ninjoala, artalde bat ikusi nuen menditik jeisten (26-IX-84), goienetan elurra egoan ugari.

—Euskalduna al da ba, paraje aura?

—Pelota-lekuak ikusi nituen pare bat, jexierako erri txiki aietan. Sarrance dau batek bere izen.

— Pelotan egiten al dabe Frantzia'ko erri txikietan?

—Garai batean denak ziran Pirene-mendietan euskaldun. Akitania'tik onera, eta mendik ara, lenengo pasadizua Orreaga'n dago. Somport'ekoa da bigarrena.

—Andik dago Oloron.

— Oloron laga eta aurrera ba'goan Ekialdera, beste bi ballara bereizi topako dituguz: bata Aran'goa eta bestea Luchon'goa. Auxen da urrutien dagoena; ba;a, bertan be, pelotan ekiten dabe.

—Baña, mendietako jainko ori, nin dago?

—Bi ballara onek alkartzen diran gunean. An dago Saint Beat izeneko beste errixka bat, Garona ibaia erditik duena.

— Garona ala Garonne?



—Garone frantzez izkeran dago; berezko izena, Garona dau. Eta, Aran'era eltzen garenean, Garonne, Garona biurtzen da.

—Orrek be, euskalduna dirudi: Gar-Ona.

—Alaxen da izan be: Gar Ona. Lantxo onen izen burua Garri Deo dozu eta or daukazu Gar ori: Gar-ri Deo.

— Eta, zer esan nai dau Gar orrek?

—Gar, mendi gallurra da: Gar-mendia, Gar-ate, Gar-amendi, Etxegar-ate, Gar-aiko-etxea...

— Ortik al dator Gar-Ona?

—Izen ori ibaiak eraman arren, berez, mendi gallurren izena da. Tontor aretan zazpi errekatxo sortzen dira eta uraren ugaritasunagaitik da tontor a, Gar a, ona. Andik

beera, errekek berak eramango dau Gar-ona izena Burdeos-eraiño.

– Zergaitik ez dau esaten Gar Deo, GARRI DEO esan bearreran?

– Ori idatzita dagoen jainkoen arlosa, jainkoa euskalduna izan arren, GAR, latinez idatzita dago: GAR jainkoari eskeiñita. DEO datiboa da eta GAR ere datiboan ipiñi bear, berba latina izan ba'litz bezala. Orretxegaitik ipintzen dau GARri DEO.

Nola dagoen esan diguzu, baña, nun dagoen, oraindik jakiteko gagoz. Eta, zuk esan deiguzu, nundik asiko ziñala...

– Nun be, esaten nengoen. Bi ballaraiño eldu gara: bata Val de Aran eta bestea Luchon. Biak dagoz gaizki idatzita: Val de Aran, gazteleraz eta Luchon, frantsezeraz.

– Zelan bear dabe, ba?

– Biak dira euskaldunak: Aran'ek ez dau Val'en bearrik, bera da Val. Eta, Luchon euskeraz Lixon da. An dago izugarrizko Bañu -etxe bat eta bere aurpegian izen au ipiñi dabe: Balneum Lixonense. Baña, bada-go diskoteka bat be Luchon'en Ilixon izenakin eta au da erriaren benetako izena: Ilixon.

– Nundik ataratzen dozu izan ori?

– Balneum Lixonense etxe berria da baña erromatarren garaian be bazan an bertan bañu-etxe bat. Etxe berrirako oiñariak egiten agertu ziran Lixon eta Ilixon izeneko arlosa asko: Ilixon kainkoari eskeiñiak. Ortik sortu zan lekuaren izena.

– Eta, nundik ataratzen dozu euskal itza dala?

– Il asierako itza, illargia da; Xo arlosa askoetan agertzen da, txikia edo maitekorra adierazteko eta On ere bai, Ona esateko. Berbak murriztu eta moztu egiten dira mintzatzean eta

maiz, iru silabetara. Nik uste Ilixon onda konpontzen dala: Il-i-Xi-On = Illargitxo Ona.

– Ori zeuk asmaurikoa izango da.

– Ba daude arlosak Arixon Deo: latinezko datiboan imiñita. Aizkeneko i (datiboa) kentzen ba'dogu, orra: Ari-Xo-On = Aritxo Onari. Bei-gorriko be aitaten da; baña, bei-gorritxoari ez diote Ona danik bein be esaten. Gaiztoak izango ziren, zezen-plazetara Saka'k ataraten dabezen antzekoak.

– Eta, GARRI DEO astu egin al zaizu ala?

– Bi arlosa daude: bat Garri Deo eta bestea Carri Deo; baña, biak dira berdiñak eta Gar jainkoari eskeiñiak. Pirenee-mendiko inguru aietan arlosa asko billatu zituzten jainko auskaldunnei eskeiñiak, Aran, Luchon eta andik onera. Menditik beera bi ballara oiek alkar jotzean, an dago Marignac izeneko erritxo bat eta kaleak ikusten nagoela, zer ikusi nuela urten dozu?


– Esaten ez ba'dozu, ez dot jakingo.

– Rue Du Pic Du Gar. Ara amen, kale erdaldun batean, arlosako Gar euskaldun izena. Galdetu nuan ia nun zegoen Pic du Gar ori? Eta, an erakutsi eusten, Anboto edo Txindokiren antzeko aitz-mutur gorri bat. Gar jainkoaren arlosak galduta egozan eunkietan zear; baña izena, bizirik gorde dau euskeraz ez dakien erri batek.

– Bai, orretan arrazoi dozu: euskera dala gure historiaren gordelekurik ziurrena.

– Alaxen da izan be.





GAU-ARRANTZA, OLAGARRUA ETA ADOKIÑAK

(Magnetofoiaren bidez artutakoak). Deba eta Urrilla. Urtea 1993.

- “Pedro Gorritiberea Goizeru. 64 urtekoa, Arronamendi baserrikoa.
- Zu zein zera?
 - Pedro Gorriberea.
 - Eta zu nun bizi zera?
 - Orain Deba’n baña Arronamendixan.
 - Eta Arronamendixa zer da?
 - Arronamendixa da zatiuta Arrano Mendi da. Arranomendi kanterria zan or.
- Orain Deba’n baña an bizi ta orain ere an animalixak daukat. An jaiotakua eta andik Deba’n bizi eta orain e antxe animalixak daukat konejo ta txakurra ere badaukat. Ta egunero ara eta gero arrantzara.
- Ta ori itxasotik gertu al dago?
 - Ez dakit ba, eun metro edo egongo da.
 - Eta ordun gau arrantzara joaten zera.
 - Ba askotan ere despeskara baña olagarrotara; ta gero arrantzara; baita kañaberiakin ere bai, lau karrete daukat eta itxaso ona ikusten detanian joaten naiz zera arrantzara eta gero gabaz ibiltze gera gu, alde batera proibittuta dago, baña karburuakin karburu-ontziakin eta gero sakua ere ematen degu arpoia, arrankasixa esaten diogu, arek izaten ditu bost zera banderillak bezelakuak eta aiekin arrapatze ditugu ba itxaskabrak, lupiñak eta baita zeak ere lasunak ere bai, baita kongrixuak ere, zea aingerak ere bai, ikusten degun dana gabian. Bai.
 - Gaueko arrantza ori espelikatu iazu zer dan. Eta arraiña ekartzeko zer eramaten dezu?
 - Arraiña ekartzeko sakua. Sakua ematen degu eta gero ze ori nai degu-nean zea arrapatzeko kiskilloia, bolsia eramaten degu kiskilloia ez aldatzeko (?)... Bi gau-arrantzu klase daoz: bat da ilargi berrixan eta ilargi betian. Ilargi betekua eskasa da porque illargixak berak argi egiten du eta arraiñak igesi egiten du, baña ilargi berrixan ez; ilargi berrixan arraiña zuzen-zuzen etortzen da argira; baña gero beste bat dao, arrainzuritegia esaten dioguna. Ori ifñork ez zekiten egiten. Ori neuk ikasi nuan amuak ipintzen ari nitzela. Ori zan sei egun, ilargi berritikan sei egun, ordu bitikan inguruko bajamarra; beste ori danak

bost egun lenao arratsaldeko zazpirak inguruko zera ori arrainzuritia. Ori da sartu ta ura gora datorrenian, sartu uretan, arraiña dana baztarreratu sarbo, lupin da dana ta gero baztarra jotzen duanian ara orixe (arrankasixa) klabau ta orduntxe gaizki, saltoka asten da arraiña. Aa Kristonak eginda, kantidadia arrapua det arraiña nik orrela.

– Eta gaueko arrantz ortan e, argirik ez danean, orduan, putzuak egiten al dira?

– Bai, ta tontuena itxaskabria, goxuen ere bai, baña tontuena ere bai, aieketa gañean kolpia jo arte aura ez da mogitzen; orain kolpia ematen diozun garaitik, zera egiten du koloria kanbixau bezela eta aitzen kontra eskutau egiten da, bañan tonto-tonto egoten da, ura arrapatzia zaila ez da.

– Eta arrain zuriari nola botatzen diozu kolpia?

– Arrain zurixari? Segun ze zera daon, ori konparazioko metro ba dao, ba zera berrogei zentimetro bai aurrerago kolpia tira biar da; ortarako norberak pentsau golpe utsa ba da gauetan arrai zurixak jotzen dun golpia, orduan arraiñak egiten du aurreratu; baña orrelaxe arrapatzen da arraiña; baña bera-berari ez zako jo biar. Orain ur txiki-txikia egon ezkerro, bera bistan egon ezkerro, orduan burura golpia aurrera bota biar zaio.

– Aurrerago bota bear zaio?

– Kolpia aurrerago bota biar zaio baña ez dakizenak ba egunetik egunera eutsiko dio eta bueno, parre arekin parre edo egin biar. Ori arrapatuko ez det ba? Golpe utsa bota biar da. Ori ikasi arte ez diteke sinistu ere batek kolpia jotzen du arraiñari eta orduan eztezu araña arrapatuko, aurrerago botatzen ez badezu, baña aurrerago bota biar zaio.

– Eta zuk bakarrik egiten al dezu gau-arrantza?

– Bai badet laguna baña en general zera bakarrikan.

– Eta beste basaririk ba'dago kostea onetan gau-arrantza egiten dutenak?

– Bai an ee, zera orain ez dira ibilliko baña Aaztikoak eta gero Pikotekoak...

Orain kaleko asko asi da e. Bai lengo egunian Zumaiatik ere etorri ziran... Gero amengo gaztiak ere bai etorri zira txala (txanela?) artuta; baña ez dakie arrañetan, ez dakie.

– Orain olagarruren berri emai dazu.

– Olagarruena, olagarruena gauza tristia da: ogetabost olagarru bakarrik arrapatu ditut emen nik aurten,

– Ogeitalau olagarru gutxi dira?

– Bai orixe gutxi dira. Nik arrapatu ditut aurten eun da ogeta zazpi olagarro Mutrikutikan, zera Mutrikutikan, igual da, Saturrirandik Mutrikura eun da bie ta en cambio Arronamentitik Atxurira arrapatu ditut ogeta bost bakarrik eta ez det uste geixao arrapatuko ditudan datorren urterarte. Au da kontaminaziua, auxe da kontaminaziua. Ta juendiak uste du lziarkua, zera Sakonetara juten dana. Sakonetara juten dan zeak kontaminaziua ez dator Atxurira, ura dijua atzetikan Zumaialdera eta Deban, au asko azagutia da e, baña gero an ere iñor ez litzake bañau bear, iñor ere aik eta olagarrua sartu arte. Porque olagarrua daukan debilidadia, badakizu nun dan? Begixetan, begixak erreten diue olagarruai. Ta olagarruak egin ezian, arraiñak jaten du olagarrua. Ta ori dagon bitartietan, inork ez luke artu biar bañua. Ori da Natureleziak berak erakusten dun gauzia.

– Bañoa artzeko.

– Bañua artzeko. Ori derrigor atera dutela porque olagarruai begixak erretzen dio, baña nekoriai ez; nekoriai gogorragua dauka eta nekoriai aguanta-

tzen du; baña olagarruai begixak erreten dio ta da gero orduan arraiñak jaten du olagarrua.

– Eta olagarrua beti txoko batian egoten al da?

– Ez, ez, ori, bere zuloak billatzen ditue. Ori bai: bere zuloak berak billatzen ditu. Baña, olagarruak, konparazio baterako, nik aurten, nola esango dizut, garagan txikixan, zer ori Aitzurixan egunetatik (?) zea ori aitzaunderarte olagarro bat ez da egon; zikiñak sartuta or daude txokolatia bezela eta olagarruak ez du nai zikiña; olagarruai gustatzen xako garbixa eta arek, urtero-urtero jendeak bakaxiual arte, bere zulora sartu arte. laz artu nituen nik Santixao bueltan; aurten arrapau det lenengua ba agostun amarran eo, arrapakao nitun bi edo iru bakarrik ta gero, bate uste gabean, aizkeneko marixa onetan Atxurixn ibilli nitzan ni baña markaik ez, ta alperrik jutia; baña zeozer nai diau, ia zeozer aterazen dan nekoria edo, eguenian juantizan ta amar, kilotik gora dakak; gero uno ochociento bai...

– Baña, olagarrua?

– Bai olagarru ederrak arrapau ditut.

– Eta, olagarrua nun egoten da?

– Olagarrua egoten da aitzen azpitan; bueno, aitzian zuluana. Itxaso txarra dagoanian egiten du arek aitxa berena tirau baña, gero dauka defetua aitxa tiratzerakuan, arnasia tubo batetik irtetzen du zea batek e eta arek botatzen di ba ondarra ta gero bere kaka, bere zea, zer esango dizut, amaruna bezeloko-xea botatzen du, zuritasun zea, ta ura ikuste detanian badakit ua zer dan. Nik ez det trapu zuririkan bear. Batzuk trapu zurixakin juten dira, kañaberian puntan trapu zurixarik. Nik ez det alakorik bear. De repente iartzen diot zea nun dagon, aien markak. Beste batzuek eukitzen due kamarra peluduak zea, kamarra azala janda o sea kapatxo zea beltz auen azala usten bait du: Emen ibilli dek. Orain itxaso txarra dagoanian, neuk ere ez det orrela askorik arrapazten; baña itxaso baria dagoanian, de repente danon markak, bai...

– Baña zuk badakizu karramarua, zea olagarrua, nun egoten dan gutxi gora beera. Ezagutzen dituzu tokiak.

– Bai, bai, bai, Jesus tokiak... Neuk ipiñita tokiak eta putzuak; onelako putzuan onelako zuloa ziok. Ni juten naiz tapa tapa tapa. Lengo baten joan naiz Zumaiara eta neure zea pariente ori ezkondata dagona, ta aiek, zumaiarrak, ikusi nai eta neu ez nitzan portunau. Aiek esan zien: Ori tipua, ori; egon bear diau arekintxe; arek artu ta zulotik zulora juten dek eta dak bat eta dak bestia... ta berak guk, berriz, trapu zurixakin atera ezin... Ori aiek eta zeatik etorri zeatik Atxurira, ori gogoan artuta zulo danak... Bai.

– Zu zulotik zulora ibiltzen zera.

– Bai, kapitana batek bezelaxe, igual igual. Zer esango dizut, Jainkoak arte-rakoxe ipiñitta.

– Ta gero olagarruakin zer egiten dezu?

– Olagarruakin? Sekau. Baña ori sekau aurten ez det sekau, ez det ezer arrapau-ta sekau ori, orain kamaran sartu. Ta orain dala bi urte Mutrikuko zeak, ori nola esango dizut, Aitzetakua gallegua, zea gallegoa dao Aitzetakua-kin eskonduta eta arek esan zidan: – Gorriti, zer egiten diok alagarruai? – Jo ta zea preparauta... Keba esan zidan, Orain ez: olagarua artu ta garbiu eta sartu zea kamaran eta euki konparazio baterako amabost egun edo illebete, urte bete berdin da; baña ola euki eta ez daukak jo bearrik eta askoz obia olagarrua, biunagoa.

– Baña, lenago?

- Lenao jo biar izaten zan, zeakin egurrakin jo ta benga.
- Eta nola sikatzen zenduen olagarrua?
- Ba olagarrua sikatzen da, artu ta sartu zea lapiko baten, artu tapia ta tapapian euki an, sartu ta euki iru edo lau egun eta artu tapia, onezkeru ondu-da ta gero gorri gorri gorri egiten da, usaiña txarra, kalia ipiñi ta gero ura artu ta balda batera, zea egin garbiu, artu ta zabaldu zortzi lerro, erdi-erdian, eba-gia egin eta sokakin paretian ipiñi... Aurten ez iñor jun; ies bai arrapatu zituzten baña aurten ez du iñor arrapatzen lanik Suraitxikik eta...
- Eta zenbat lerro ditu?
- Zortzi lerro.
- Ta gero zer egiten dezu.
- Sekautakuan?
- Bai.
- Sopia egiteko ta baita patatakin eta zea bueno du gustua...! Aizkeneko zean lau millan pesetan da saltzen zitun...
- Baña, zu ez zera berez arrantzale. Zu zera afizionatu bat.
- Bai afizionatua.
- Zer lan egiten dezu?
- Ara, begira orain amaika urtetik katean (?) jardutzen det nik ogeta amairu arte; baña kanteran ibiltzen giñanian orduan ogeita amairu urte...
- Baña zure etxea baserria da e?
- Ez, baserria ez; kale-baserria da. Ori zan obreruai egindako etxia. Or zan orain dala irurogeita amar bat urte, Gipuzkoan zanik industriarik aundixena zan Arronamendin. Or irureun bat lagun lanean ibilli ziranak adokiñak egiten; baita zea eta Txirrita ere.
- Eta adokiña zertarako erabiltzen zan?
- Adokiña kaliak egiteko. Pentsau besterik ez daukazu, orain, zer esango dizut, dala irurogeta zazpi edo zortzi urte ogeta bost milla adokin(metro), zea Astauriaserako, Oviedo'rako ogeta bost milla metro, zea oiek ogeta bost kilo-metro dira oiek eta gero momento artan bertan beste zazpi milla metro Vitoria-xako. Ta zuen atta ta or ibiltzen ziran zuen aitta, ta guriak gabarretan kargau ta ura udetan kanpuan...
- Zer barku zan?
- Barkua ez dakit Kontxezio ez zan. Aittak esaten zien.
- Bai Kontxesi zan. Nere aita ibiltzen zan karriotan.
- Aitta guriak e, berak e kontatua: Zer da ta, gabarria kargauta lotzen ari dala, itxasua kanpuan pixkat bat mogitu eta gabarria loten ai dala, zeatik artu txikotak ta jota aidian bota eta potzura erori. Ori berak atera zuen kanpora eta bere onian etorri zanian, kabrak eman zizkoien, kabra txikixak; kabrak arrapa-tzen ibiltzen oi zian, ta sekulan bere bizitza guztixan ez zuela obiak jan. Ori ait-tak maikiña bat bider kontatu zuen.
- Emen kanterak asko zien: Txorrotxena bat, Ama Birgiñabistan parian Txo-rrotxena, gero Txarturiña, gero Simonen kanteria, gero Lezamena, gero zee-kua ori Itxuspukua eta gero Usarrandikua ere bai. Kantera asko zan orduan emen.
- Kantera asko zegoen, baña kantera oiek nun daude Itxas-ertzian ala barruan?
- Itxas-ertzian, itxasuan bertan... Bai, makiña bat aldiz esan zuan gure ait-tak...".

* * *

Argitu bearrezkoak

1/. Deba'ko Zumardiaren asieran ala amaieran (nundik zatozen) kilometro baten luzeroko tunela dago Zumai aldera. Tunel orren amaieran, itxas-ertzean, etxetxu bat dago. Orixe dezu histori onetako Arronamendi. Adokiñak egiteko kanteria edo arrubia zegoen or. Egiten ziran adokiñak tren-bidez ala itsasoz eramaten zituzten. Itsasoz gabarra batean itsas-barrura eta ara etortzen ziran barkuak adokiñak kargatzeko. Nere aita "Kontxesi" ontziaren kapitana zala etorri oi zan bertara.

2/. Gau-arrantza, bere izenak dionez, gauzez egiten dan arrantza da; arpoiez egiten da. Arrantza ori egin dute itsas-ertzeko baserri guztiak. Baita prehistorian inguru oietako leizeetan bizi izan ziran euskaldunek ere; billatu dituzte, beintzat, Deba'ko kobeetan ezurrezko arpioak. Eta neronek ikusi ditut Mendata baserrian, Iberduerok erositakoan, (Nuklear Indar-gaillu bat egiteko asmoz), gau-arrantzarako tresneri guztia nekazaritzako lanabesen ondoan, oso txukun ipiñita. Era orretara auxe gertatzen da; itsas-ertzeko baserrietan euskaldunen histori eta prehistoriko lanbide danak irauten dutela (arrantzale, eiztari, artzai eta nekazari, danak batera).

3/. Gure alkar-izketako gizona, Pedro Gorritiberea, langille bat izan da; ez nekazari eta ez arrantzale. Alaz ere, bi ogi-bide oien lanak egin ditu bere etxe inguruan. Aita iziartarra eta bere ingurukoak ere bai; ta berak itziartar egiten du; baña, badu Deba-kaleko kutsua ere.

Aren euskal mintzoa

Itz iar'ko baserriek duten jatortasuna du bere mintzoak, Deba'ko kaleek ez dutena. Baña badu kaleko kutsadura ere:

XA erabiltzen du IA'ren orde: Arronamendixa, animalixak, arrankasixa, kongrixua, barrixan, zurixak, txikixa, Atxurixa, Santixao, azpixan, Vitorixako, marixa, kongrixua. Ez dira geiegi ordu-erdiko itz-jario baterako.

BIAR esaten bu BEAR'en orde: Bota biar zaio, atera biar dutela. Beste bi aldiz ere bai. BIAR ori Deba-kalekoa da eta Bizkaitik etorria, beste bi esaera auek bezela: Daoz eta Gustaten xako.

ERDAL ITZAK: Porque, bi alditan, baña esaten du Bait eta – ta ere, en general, según, igual, en cambio, de rigor, bajamarra, naturaleza, de repente, qué va, uno ochocientos, konparazio, bueno, momento, sikau, golpe. Kolpia ere esaten du.

ITZ-MURRIZKETAK: Aurrerau, diau, garbiu, lenao, sekau, kanbixau, arrapau, portunau, ematen (eramaten orde), eo (edo), ua (ura, zein dan esateko), ziok.

ITZ-"KATXABAK": Iru itz erabiltzen ditu berbetarako "laguntzaille": ZEA eta ZERA, amazpi aldiz, ZEATIK birritan, ZEAN eta ZEEKUA bein; E, EE zortzi aldiz eta ORI, sei aldiz.

Gelditzen dana ezurgabeko urdaiazpikoa da: Euskeraz jator egiten du eta jatortasun ori Itziar'tik datorkio; kutsadurak, berriz, Deba'ko kaletik.

Esanaldi jatorrak ipintzekotan, kutsaduratik libre daudenak ipiñi bearko nituzke berriro.

Arrinda'tar Anes'ek

GENEAK ETA EUSKALDUNAK

Entzunak

Rh'ri buruz esandakoa, berriro esan bear Giza-geneai buruz. Baña, lenengo galdera auxe da: Zer da Gene bat?

Joan dan urteko (1992) Urriaren amarrean, oraintxe amaika illabete, onelako au irakurri neban DEIA, Bilbo'ko aldizkarian:

"El pueblo vasco es el mas antiguo de Europa... afirmo ayer el destacado experto en gen tica Luis Cavalli Sforza".

Berrogei egun aurrerago (Irailak 3,1992), aldizkari orretan bertan, genetika-arloan irakasle diran Ana Maria Cobos eta Adolfo Lopez de Munian'ek itz oneik esan zituzten:

"La evolucion gen tica que hemos estudiado en los vasos no tiene nada que ver con los que hay en la Penfnsula".

Egia esan, nik oiek zer esan nai duten garbi-garbi ez dakit. Irakurrita neukan gai orreri buruzko liburuxka bat, "El Desaffo Gen tico" izenekoa, Jean Marie Moretti eta Olivier de Dinechin jaunek egiña.

Iztegi-arazoa

Gauzatxo batzuek gogoratu ditut eta gauzatxo oneik euskeraz ipintzea da beste arazoa.

Orretarako Gure Azkue aundiaren iztegiak ez dit batereko argirik eman.

Mugica'renak, zer-edo-zertxo.

iztegi berriak erabilli ditut iru auek: "Giza Bizia" aita Carlos Goena'rena (1973), "Natur Zientziak" (Biologia Geologia) Jakin (1976) Arantzazu'ko frantzizkotarra, eta, 1982'garren urtean "Euskera Taldea" Bizkai-Senadalariek "Euskerazko Senda-Jakindi Izen-sailla" (Azterbide Saiaketa) izenarekin aterea.

A-B izkiak bakarrik dakar. Besterik ez dakit atera dutenik.

Beste iztegi kutun au ere izan det eskuartean, "Giza-Soiña", Olabide'tar Erramun'ek 1917'garren urtean aterea.

Gen izena euskeraz Jakin'ek bakarrik dakar: Gene. Besteak ez dakarte ezer. Beraz, euskeraz ere, Gen erabilli bear-ko degu.

Zorioneko Gen oiek bizi-ale barnean egon oi dira. Zer dira bizi-ale oiek?

Bilbo'ko Sendalarien "Bizi-ale" orreri Olagibel'ek (1917) Soin-kizkin eta Soil-xiskin esaten dio. Mugica'k, berriz, Kizkin eta xiskin; Goena'k eta jakin'ek, Zelula. Zelula orreri, Jakin'ek auxe erazten dio: "Bizidunen funtsezko unitatea". Bilbo'ko sendalariak "Bizi-ale" itza onela argitzen dute: Bizi=vida y Ale=unidad, semilla...

Euskera Talde'ko Sendalariak euren alegiña egin dute; baña, tamalez A eta B sailleko itzak besterik ez dauzkat eta

VI-VII'garren orrialdean billatu det aitatutako Bizi-ale itz ori. Olagibel'ek aurretik egin zuan bere lana eta ez txarra.

Onek adierazten digu jakintza berrietan gordiñik gaudela eta errezena dala, gauzak datozten bezela artzea. Erromatarrek gurera kultura berri batekin etorri ziranean orixe egin zuan euskerak: gauza berriak euren izenekin artu. Bear ba'da, beste egiterik ez zutelako edo...

Baña, beti ematen zioten euskerazko ikuteren bat: "torcular" esaten zuten latinez, guk itza murriztu eta "tolare" laga. Zeñek esango luke "tolare" itza euskalduna ez danik?

Bizi-alea zer dan

Ikusi dezagun Bizi-ale, Soin-kizkin edo Zelula deritzan ori, zer dan.

Jakin'ek esan digu ori "bizidunen funtsezko unitatea dala". Bizidun guztiek bizi-alez egokiturik daude. Badaude biziale bateko bizidunak ere. Oiek dromosoma batekoak dira eta gen askokoak.

Genetikan esku-sartzea zer au da: Gen oien ondoan beste Gen bat sartu eta alebateko bizidun oiek izugarritzko bizitasunean sortzen diranez, era orretara esantzitako genea ere ugari sortu. Insulina eta orren antzeko sendagai batzuen lortzeak ortik du bidea.

Azala ta barrua

Bizi-ale, Soin-kizkin edo Zelula orrek azala duen pelota baten antza du. Jakin eta Goena'k azal orreri Zelula-mintza deitzen diote; Olabide eta Mugica'k, berriz, Kizkin-azal.

Azal orren barruan "masa garden eta ligatsu bat dago", dio Jakin'ek eta, erderaren antzera, Zitoplasma deitzen dio; aita Goena'k ere berdin.

Baña, Olabide'k beste izen au ematen dio: Xiskin-mami eta Sor-mami (de "sorta", dio berak). Mugica'k ezer ez.

Bizi-ale edo Zelula orren barruan, beste pelotatxo bat dago. Gun deitzen diote Goena eta Olagibel'ek, Kizkini-gun Mugica'k eta Hun, Jakin'ek. Erderaz, Nucleo. Orrek badu bere azala (Membrana Nuclear), eta Gun-mintza deitzen diote Goena eta Olagibel'ek; Jakin'ek, Hun-mintza.

Gun-mintza orren barruan daude Kromosomak; eta ala deitzen diete Goena, Mugica eta Jakin'ek erderazko Cromosoma'ri; Olagibel'ek, berriz, Gun-aril.

Badu bere arrazoibidea Olagibel'ek orretarako, bi arirekin egiña bai dago Gun-aril ori marrazkillo edo karakol –eskillera baten antzera. Badu zintzilika epiñitako odolosten antza ere.

BILLAKETA

Gun-aril edo Kromosoma oiek biñaka ipiñiak daude giza-
kien goruputzeko zelula bakoitzean 46 kromosoma; biñaka
daudenez, 23 bikote. Gun-aril bakoitzeko 50.000 Gene. Or-
txe dago ondorengoan etorkizuna.

Ori ez da sekulan aldatzen, eskua sartzen ez ba'degu tar-
tean, "manipulazio"rik egiten ez ba'degu. Gen-talde aundiak
dira Gun-aril edo Kromosomak.

Itzen egokitasuna

Orain arte besteen itzekin jardun det, orain minutu batean
neureak izango dira berbak. "C lula" erdal itza, latiña da.
Caela latiñez, erderazko Celda da eta ortik ateratako Gela
euskalduna. Celula da Celda txikia, Celdita, eta euskeraz
Gelatxo.

Gelatxo bear luke Celularen euskal itza.

Gelatxo ori "biziaren funtsezko unitatea" dala dio
Jakin'en Histegiak; baña, nik esango nuke Gelatxo ori
"biziaren lenengoko azalpena dala".

"Funtsezko unitatea" esanaz, bi itz erdaldunak artzen ditu
Jakin'ek: bata frantseza eta bestea latiña.

Baña, ez ditu itzak bakarrik artzen erderatik, baita pentsa-
moldea ere: "Funtsezko unitatea", or azpian dagoen gauza
illun bat dirudi; "lenengoko azalpena", berriz, begien aurrean
daukagun gauza bat da. "Funtsezko unitatea" ulertzeko erdera-
ra jo bear degu; euskera utsetik ez degu garbitasunik aterako.

Euskera ta erdera

Errixka batera etorri zan kanpotar bat eta onela galdetu
zian bere erriko lagun batek:

Tu qu haces en ese pueblo?

Yo? Pelo cortando. Erantzun zion erdal itzekin; baña,
euskal pentsakerakin: Zertan ari aiz erri orretan? Orixe zan
erderazko galdera eta erantzuna ondo eman zion: Ni? Illena
mozten. Yo? Pelo cortando.

Erri orretan astoen ferri famatua izaten da eta ijito asko
agertzen zan astoei illea mozteko. Eta onela esaten zuten:

Ni, motxa illia. Euskerazko itzak, erderazko moldea: Yo
corto pelo. Eta orregaitik edo, ijitoei motxailliak esaten die-
gu. Makiña bat orrelako ijituak bagaude gaur-egun euskaldun
idazleen artean: Ezpañak euskaldun, baña burua erdaldun.

Arrautza ta gelatxua

Arrautza baten itxura du Gelatxoak. Arrautza ere gelatxo
bat da, borobil antzekoa. Badu kanpotik karezko azala eta
azal gogor orrekin batera, badu barrutik mintza biguna ere.

Barruan zuringoa (citoplasma) eta barrurago gorringo
borobilla, mintza inguruan duela. Or dituzue C lula ta Mem-
brana celular, Nucleo ta Membrana nuclear.

Gorringo orren barneko aldean daude Kromosomak

(eskillera biurri baten antzekoak), bi ariz egiñak eta eskaille-
ra-maillak dituztenak. Mailla oietan daude Geneak.

Sortu eta galdu

Bizidun guztiek bi gauza egiten dituzte: Bildu eta Banatu.

Bilduz (anabolismo) sortu egiten ditu gauzak; eta Banatu
erretzez (catabolismo) eta bien arteko neurrian (metabolis-
mo) bizi da gure gorputza.

Bien arteko neurri ori apurtzen danean, okerra sortzen
zaio gorputzari. Bilduz sortu eta erretzez banatu, orixe da
gorputzaren etenik gabeko lanbidea. Sortu eta galdu. Sortu
eta erre, etenik gabe. Erretakoak berriz ere sortu.

Sortze ori Geneen lana da. Gene bakoitzak sortzen du gai
bat, proteina bat. (Euskal-iztegiek proterinari, proteina dei-
tzen diote).

Gen bakoitzean dago proteina bat egiteko ordenamentu
osoa, oraindik jakintsuentzat argitu gabeko illunpean dagoen
agindu edo mezu berezi baten bidez (mensaje codificado).

Gure gorputz osoak izugarizko lantegi baten antza du eta
geneek zuzentzen dute ikaragarriko naastea eta zailtasuna
duten lan guzti oien kopurua.

Jakintsuen araketak

Gene oietatik ateratzen dute jakintsuek, (nik ez jakin
nola) Europa'ko erririk zaarrena generala. Gauza berbera ater-
ratzen dute genetatik eta odoletik. Eta, oiek ez dira atzoko
ipuiak, gaur eguneko jakintsuen araketak, baizik.


Luigi Cavalli Sforza Genobatar jakintsuak dionez (DEIA,
25-V-1993), gene oietan daude giza-talde bakotzaren histo-
ria.

Geneen historia eta izkuntzarena, alkarreko ar-emanetan
doazela dio.

Euskalduneri buruz onela ari zaigu: "Orain 30.000 urte
euskaldun guztiek zuten Rh-eza, gaur egun eunetik 25-
30'rek bakarrik badute ere; euskaldunak ez direnak, oiek
eunetik 15 dira Rh gabek".

Odola eta geneak alkarrerkin datoz euskaldunen antxiña-
tasuna erakusten; 35.000'rik 10.000 urte bitarteko erri paleo-
litikoetatik omen dator zuzen-zuzenean euskalduna.

Klonizazioa



Erderazko "embrinn" itzak baditu euskeraz bost berba auek: Burno, muskil, miniko, ozi eta ozio. Baña, zera esan nai du: emearen arrautza eta arraren azia, biak bat egiten dutenean, orduan ernaldutako egiten da bien arteko gelatxo edo zelula.

Ernaldutako gelatxo ori, zelula ori, ugaritu egiten da bi, iru, lau, bost, sei... Alkarretik banatzen ba'ditugu une orretan, berdiñetik gizaki berdiñak sortuko lirazke bi, iru, lau, bost, sei... Orixe da klonazioa. Oiek izango lirazke gizaki klonikoak, berdin-berdiñak, fotokopiak bezala, trokel batetik ateratako txanponak bezala...

Gaur egun klonazio-arazoetan asita daude eta ernaldutako azi bat ugaritzen asten danean, sei añako gelatxo berriak banatzen dituzte; baña, azi berri oiek ez dute sei egun besterik irauten bizirik.

Bide orretan asita daude, ordea, eta ez dute etsiko, ugari-tutako azi oiek euren elburua lortzen ez duten arte.

Egun aretan, gizaki klonikoak izango dira munduan.

Aurrerapenak dira eta aurrerapen guztiak datoz beuren akatsekin. Aurrerapena da, esate baterako, zuk aur bat sortzen dezunean, azi orren beste azi klonikoa izotzetan gordeztea, eta, baldin zure aur ori galduko ba'zenduke, bestea zeure barnean ernaldutako erian eta osotu. Orrela izango zenduke berriro beste bat ildakoaren berdin-berdiña.

Atzerapena izango litzake, despota batek, arrautza batetik eun serbizari berdin-berdiñak ateratzea, menpean edukitzeko edo burrukan egiteko... Atzerapena litzake, lenengo gelatxoak okerkeriren bat izan, eta eun okerkeri batera ateratzea...

Bizkiak antzeko dira; klonikoak, berriz, berdin-berdiñak.

Gizakien ar-emetasuna

Gizakien gelatxo edo zelula bakoitzak 46 kromosoma edo gun-aril dituela esana daukagu. Berrogeita sei kromosoma oietatik, bi dira gizakien ar-emetasuna erabakitzen dutenak.

Nola?

Emakumeen zeluletako bi kromosoma bereizi oiek berdiñak dira: X X eta gizonenak berriz, desberdiñak: X Y. Bi zelula, ar eta emea, alkartzen diran unean, bakoitza bi zati berdiñetan erdibitzen da.

Emeak erdi-bi eta arrak ere erdi-bi. Or daukazu lau erdi: emakumeenak biak dira X eta gizonenak bat X eta bestea Y.


Ernaltzean, erdi oietako bi, (bat emearena eta beste arrarena) alkartzen dira. Emearena beti izaten da X, baña arrarena X edo Y. Biak X ba'dira, sortutako aurrak, emea izango da; amaren X eta aitaren Y danean, berriz, ume ori arra izango da.

Seme ala alaba izatea aitak dakar bere bi kromosoma desberdin oietan: X eta Y.

Kromosoma, XX eta XY, oietan eskua sartzerik izango danean, orduan erabakiko dute gurasoek zer nai duten, ar ala eme. Bitarte orretan izadiak berak erabakitzen du zer izango dan, eta, gutxi gora behera, erdizka izaten dira ar eta emeak. Arrak ugaritzen ba'dira, esan oi dute zenbaitzuk, gerra baten arriskua sortzen omen da. Baña, gerrateak berak, zer ekartzen du bere sakelean? Ebro-erriberako soldadu aiek ebesten zutena gure anai arteko burruka itzal aretan:

"Si continua la guerra
y los combates tan fuertes,
se van a quedar las chicas
al precio de los tomates".

ARRINDA'TAR ANES'EK



GERNIKA SUTAN (4n. SARIA)

– Silencio todo el mundo que van a dar el Parte!

Esan zuan falangista alkondara-uridin batek eta guztiok gelditu giñan mutu. Ikutu bat eman zion irrati-gaillu arri eta fiiru-fiiru egin ondoren asi zan berbetan:

– Aquí Radio Sevilla, el general Queipo de Llano al habla: Hace aagun tiempo tuvimos que fusilar a los sacerdotes de Mondragon por colaboracion con los rojos-separatistas. A todos esos sacerdotes que colaboran con rojo-separatistas los voy a colgar del Arbol de Gernika, si es que le queda alguna rama, porque Aguirre el Napolentxu Chocolatero, en la retirada de sus tropas, ha prendido fuego a la ciudad que lo cobija. Asi dejan los rojos sus pueblos cuando se retuan...

– Viva España, arriba España! Ekin zion alkondara-urdiñak.

Arriba! Erantzun zioten beste guztiak. Ni nengoan ixilik, nere burua lurpean izkutatu nairik!

– Nik garbitu ditut berrogei baño geiago; emen garbitasun aundiak egin bear dira, apaizetik asita. Askotan eman diot guztua nere beatzari gatilloa estutuz.

– Ori, ori! Erantzun zioten mai-inguruko batzuek. Garbitu bear dira emengo gorri guztiak!

Falangista arrek zearka begirutzen zidan. Bederatzi lagun, gizon eta emakume, genden mai luzanga aren inguruan apaltzeko zai. Atera ziguten sopakoz egindako suku ariña eta bi piper aragiz beteak. Ardoa ona zan. Gure tabernarako ardo-billa agertu nintzan Logroño'n arratsalde aretan. berandu xamar. Kanean zijoa bateri auxe galde nion:

– Nun da emen ostate merke bat?

Ortxe bertan, burnizko zubi orren ondoan. daukazu "La Fonda de las Animas": orixe dezu merkea.

Joan nintzan bertara eta Ebro ibai-gañera leio zuen gela eskeñi zidaten.

– Aparia amarretan. Esan zidan etxeoandreak.

Falangista, alkondara-uridin ura, pozik zegoen apaltzera-koan eta mundo osoa, apaizetik asita, garbitu ondoren, kontu-kontari asi zitzaigun. Gure taldetik alde batera. maitxo bat zegoen "Legion Condor"eko aleman batzuekin. Arrautza frijituak eta txorixo ederra jaten ari ziran.

– Badakizue joan dan ostegunean zer gertatu zan emen?

Zuk esaten ez ba'diguzu, guk ez dakigu ezertxo ere.

– Auek arrautzak txorixu ederrakin apaltzen ari zirala. agertu zan emen "Flechas Negras"etako kapaitan beltzaran flakusta bat eta galdetu zien alemaneri, ia nola esaten zan a erderaz.

Nik ez dakit. Erantzun zion doixtarrak. Baña, ori erreza da; joan zaitez sukaldera eta an...

– Ori besterik ez ba'da, orrenbeste neuk ere egingo det. Joan zan sukaldera... ta ba'dakizute zer ekarri zioten? Txistorra melar bat bi azeitunakin.

Algo algara eta parreak! Nik ez neukan parre egiteko gogorik, andik len-bai-len alde egitekoa, baizik. Goibel nengo. Nola liteke Jose Antonio Agirre lendakariak Gernika erretzea? Gudako tatika bat, jokaera bat, ote zan? Gau aretan ez nuan lo aundirik egin; begiak itxi ezin; loa atzeman ezin...

Gozaltzekoan, irratiak bezperako gauza berbera esan zigun. Artu nituen "El Diario de la Rioja" eta Iruña'ko "Arriba". biak berdin. Illundu zitzaidan biotza...!

* * *

– Ba'dakizute atzo zer gertatu zan?

– Emen ez digute aldizkaririk erosten uzten; ezta irratiak entzuten ere.

– Obe dezute ez jakiñean orrela bizi.

Ez nien ezertxo ere esan nere seme eta bere lagunari. Logroño'ko apaizgaitegian zeuden. Beuren Gazteiz'ko Seminarioa moroen eritegi birtu zuten ezker, eurak etxe gabe gelditu ziran. An zeuden emezortzi urteko gazteak nere semea eta bere erriko lagun Joxe. Bazkaltzera atera nituen biak Zaarreko restarate batera. Jaten ari gerala onela esan zidan semeak:

– Aita, emendik zortzi kilometrora El Reajo deritzan egazkiñentzako soloa dago eta atzo berealdiko taldeak irten zuen Bizkai aldera.

– Atzo?

– Bai, atzo. Egunero irtetzen dute aruntz: baña atzo talde aundi batek irten zuan.

– Bai. Esan zuan Joxe'k. Gutxienez ogeita amar, talde bakar batean. Guztiak Bizkai aldera.

Ori entzunda, nereka nengo pensatzen, oiek izan ote ziran Gernika erre eta apurtu zutenak? Eta, ori ala ba'da. nola esan litezke orrelako gezur borobillak. lotsarik aurpegi-ra agertu gabe? Gezurra ote da Agirre lendakariak Gernika erre dula?

Alde egin nuen nere errira eta Gipuzkoa'ko La Voz de España eta El Diario Vaseo artu nituen eta Errioxa'ko aldizkariak ziotena berdin-berdin auek ere. Donostia'ko ir'atia ipiñi nuen; berdin. Salamanca'koak, berdin. Burgos'ekoak, berdin. Guztiak zioten AginTe'k erre zula Gernika.

Bigaramonean, komunika bide guztiak, aurreko eguneko leloa. Aldaketarik gabe: Agir7-e'k erre du Gernika. Amabost egun luze gauza berbera bein eta berrir esaten. Asieran ez zuten egazkiñik aitatzten; gerora, bai. Baña, egazkin oiek itxasotik etorri zirala, zioten. Errioxa'ko Reajo, berriz, egoaldea dago. Zer ote zan egia?

"Gutta cavat lapidem", dio latinezko esaerak: Ur tantak arria zulatzen du. Esan da esan da esan, ari ta ari ta ari, aizkenerako munduak, batez ere katolikoak, sinistu egin zuan: AQirre'k erre du Gernika.

"Gezurra esan nuen Getari'n eta ni baño lenago zan atarín". Gure etxeko atarira etorri eta emendik alde egiten konatatu zitzaion gezur orreri; baña, aizkenerako gure etxetik alde egin zuen.

Atxubitetxe baserriko Mai-Kutz, gudak bultzata, or zear joan zan emendik urrun. Bizkai-aldera. Etorri zala esan zidatenean, berarekin izketalditxo bat egitera joan nintzan berarengana:

Kaixo, Mai-Kutz. Etorri zerala?

– Xenpelarrenak ikusita etorri naiz.

– Gauza gogorren bat gertatu da Gernikan...

– Zuk ez dakizu ondo zertzuk pasa diran.

Nik irratiek eta aldizkariak esandakoa dakit.

Eta zer da zer ori?

– Ba, Agirre k erre zula Gernika. Agirre'k eta gudariek.

– Agirre'k eta gudariek? Zeñek sinistu lezake orrelako gezurrik?

Ia mundu osoak sinistu du ori, Mai-Kutz.

An egon ba'lie, cz zuten sinistuko.

Zer gertatu zan, ba?

Astelena zan; feri eta azoka eguna. Jende asko. Ni ere an nebillen sei urteko nere alabatxoa eskutik nuela. Alako batean, egazkin bat agertu zan lenengo; gero, besteak.

Agirre'nak zirala esan dute.

Agirre'n gudariek gurekin zeuden egun artan, antxe bertan, egazkinak agertu ziranean.

– Bai? Irrati eta aldizkariak ez dute ori esan.

– Eta, sinistu egin diezute?

– Egia jakiteko ez gendukan beste biderik. Zuek, egazki aien azpian egon zeratenak, zuek zerazte gure jakin bidea.

– Azpian izan gera, bai. Suzkoak eta apurtzekoak ziran lergailluak: batek erretzen zuena besteak txikitu; batek puskatzen zuena besteak erre. Infernu latza gertatu zan Gernika.

– Eta, nola irten zendun infernu artatik?

– Erritik iges, Bermio'ko bidea artu nuen beste askoren artean arin-arina, nituan indar guztiakin. Egazkin lergalludunen ondoren beste ariñagoko batzuek agertu ziran jendea-ri tiroka. Euren bidea lurrean balaz markatzen zuten.

Baña, gudariei botako zieten tiro oiek...

Ez, Txomin, tiro aiek guretzako ziran. Larritasun aretan badakizu zer egin nuen? Nere umetxoa zangara, errete-nera bota, eta neu gañean nere gorputzarekin berea ez tali.

– Baña ori orrela ezin diteke izan.

– Ba, alaxe izan zan; joan zaitetz zu orain or zear Agirre eta bere gudariek erre zutela Gernika esaten...

* * *

Urte asko pasa dira arrezkero. Orain danok dakigu zeñek erre zuen Gernika; batzuek, ordea, joan ziran beste mundura

orrelako egi mardul eta galantak jakin barik. Alemania'ko Jaurlaritzari kalteak ordaintzeko eskatuta, sorbaldak jaso ditu... Izan ere, gaur egia dakigun arren, eta mundu guztiak dakien arren, zeñeri ajola zaio Gernika zeñek erre zuen?

Ipuin-antzeko au EUSKERAZALEAK'en Ipui-sariketara bialdu nuen Azillaren 20'an edo. Andik illebetara, Abendua-ren 21'ean, 1993, Zumarraga'n nintzan Jesus Arana'ren gorputz aurrean otoitz egiten. New-York'eko Corpus Christi parrokiaren laguntzaille zan, gaitzak arrapatu zuenean bere mendean. Bere etxera ekarri zuten iltzera. Arrebak eman zidan anaiak egindako liburua. Egillearen eskuz idatzitako eskeintzak onela zion:

"Anes Arrinda apaiz zintzo
eta aspaldiko lagunari
biotzez Jesus Arana".

Liburua orain artu ba'det ere, eskeintza 1993'ko Dagoni-llan eginda zegoen. San Roke egunean, Deba'ko Festa, eguerdi-eguerdian agertu ziran nere etxcan eta alkarrekin bazkaldu genduen berak eta beste Julita eta Maria Rosario bere arrebek. Liburua ekartzea aztu zitzairen. Liburua nola zabaldu, izan zan alkar-izketaren leloa alde batetik eta bes-tetik, berriz, Ameriketara (Buenos Aires, Bahia Blanca eta Patagonia) egindako ibil-aldia.


Nik ipui onetan esandakoak dakartzki Arana'k bere liburuaren aurreneko orrialdeetan. Berdin-berdin. Dagoni-llan liburua nere eskuetara etorri ba'litz, nik ez nuen ipuirik idatziko, andik artutako kontakizuna dirudielako.

Jesus Arana Urkiola, Zumarraga'n jaiotako apaiza, Alemania'ko agintari mota guztiakin ibillia da (baita Españikoekin ere) Legion Condor alemanarrak Gernika erre zuelako, Alemania'ri esker-oneko agerpen bat eskatuz. Sinistu eziñezko lanak egin ditu agerpen ori eskatuz. Bide zabalatik eta bide txigor guztietatik ekin dio zortzi urtez; baña, alperrik.

An, Franco'k egindako zabalkundearen ondorenak, diraute oraindik eta ikasitako jende dotoreak, lenengo mailletan daudenak, sinisten dute "gorriek" egin zutela errete-lan ori. Oraindik ere! Zergaitik nik esandakoak eta Arana'k esandakoak alkarrekin diran? Biok egi bakar bat esaten degulako. Biok gera Franco'ren zabalkundearen lekuko; bera ni baño amar urte gazteago. Nik 24 urte eta arek 14. Baña, biok gauza berdin baten testigu. Nere ipuia, benetan gertatutako zatiekin egiña dago. Ipui baten itxura izan arren, histori utsa da. Arana'k berriz, histori-liburua idatzi du.

ARRINDA'TAR ANES'EK
1994'ko Ilbeltzean

B IZKAITARRAI BIZKAIERAZ



Eusko Jaurlaritzaren

Laguntzaz.

Kultura Saila

GERRATEAN; ZEARKAKO EZBEARRAK (3n. SARIA)

La Muela'ko Aitza

Franco'ren Gudarosteak Katalunia Balenzia'tik aldendu nai du eta orretarako La Muela menperatu bear. "Gorriek gogor eusten diote mendiari, bera bait da Kastellon laudarako bidea eta andik itxasorakoa irikitzen dauana. Kosta ala kosta lortu bear dute "Urdiñek" elburu ori.

La Muela menperatzeko burrukan ari diren militarren artean, kementsuena, gogorrena eta kupiri gabekoena, Jerote Koronela da. Aurrera! esaten duenenan, joan bearko aurrera, bizkarretik tiroa artu nai ez ba'dezu, beintzat. Sarraskiak egiten ditu etsaien artean eta sarraski gogorrek jasotzen ditu etsaien eskuetatik; ajolarik ez, ordea, elburua arrapatu ezkeru.

Gaur, zorritzarrez edo zorionez (zeñentzako dan), bera erori da seko, mendian gora dijoala...

Gauerdi-aldean urduri geure ospitala: zerraldo batekin etorri da frentetik automobilla. Medalladun gizona da ekarri dabena. Ildakoentzat daukagun gelatxoan laga dabe, lau kandela piztuen artean. Goizean etorriko omen dira agitarick billa.

Ia amabiak izango ziran familikoak, eta ondoren, agintari goienak agertu diranean. Emengo zalaparta eta emengo berebilla. Erresponsoa, falanjisten irrintziak, musikeroen "marcha reala", besarkadak, malkoak, agurak... Inguruko automobil guztiak gorpuaren ondoren irten dabe, txitak ollo-lokaren atzetik bezala.

Obiedo'raiño eldu diranean, uriaren sarreran, lorez apaindutako mako berezia jaso, ongi etorria emoteko... Erriko Agintarick zai; Gotzaia bera be bai. Andik katedralera; illeta zoragarriak; marmolezko illobi zoragarria. Dana izan da zoragarri.

Baña, frentetik kezka bat agertu da, au galdetuaz: Nundik eukan tiro zauria, aurretik ala gibeletik? Ixilleko polizikoek dabilta galderak egiten; geurean ere bai. Bañan, iñork ez deutse erantzun zuzenik emoten.

Zergaitik egiten ote dabe galdera ori? Susmo au artu zegoen: tiroa atzetik eman ez ote eutsoen, berak egiten eban lez. Egia argitu eziñ, eta Gudaroste baterako gau-

za naiko larria izanik, illobitik gorpua ixilka ateratzea erabaki dabe polizikoek.

Joan ziran gau illun batean illerrira eta illobitik ilkaja atarata, kapelara eramane eta irikitzen saiatu ziran. Ez zan gauza erreza: iltze ugariz josita zetorren. Estalkia eragin ebenean, ordea, mutu gelditu ziran alkarri begira.

Susmoa ez zan susmo ustela gertatu... Zerraldoa bere illobian gorde ondoren, egitasmo bat borobildu zen bien artean: Ixilik arazoa gorde eta gorpuaren bideak asiera asieratik jorratzea. Joan ziran La Muela'ra eta zeatzmeatz arakatu ebezen gora-beera guztiak: gorpua nortzuk jaso eben, nortzuk il-kajan sartu, nortzuk eritegira eramane... Frentetik eritegirako bidean, ez ziran gelditu; ez zerraldoa trukatzeko aukerarik izan...

Argirik iñun arkitzen ez ebelako, naiko erreminduta agertu ziran gure ospitalean; baña argi-izpi bat bera be ez eben bertan aurkitu; gauza guztiak oso garbi egoen: utzitako il-gelatik jaso eben gorpua... Emendik eramane zutenak, berriz, goi-maillako militarrek ziran.

Alan be, polizikoek ez eben arazoa bertan beera laga nai; bañan, itzalpean eta kontu aundiz ibilli bearra zegoen. Erbi-txakurrek bezala asi ziran berriro arrastoen billa: ango istilluak, ordea, errezak ematen zuten. Bi erizañek beeko il-gelatik gora ekarri ebela zerraldoa, ori garbi egoan. Erriko agintariek berebillean sartun eta Obiedo'rarte ez zirala baztarretan gelditu, ori be bai. Frentetik bertatik ekarritako il-kaja zan. An ez zegoen zuriketean ibiltzeko astirik, eta kaja guztiak berdiñak ziran, iltzez ondo josiak, bidean gorpurik ez galtzeko.

Asuntxi mojatxoari begirune eta zuurkeri aundienaz, egun aietako xeetasunak ataratzen deutsoez: koronela ezik, beste dozenerdi bat soldadu be ekarri ebezela guda-muturretik; baita erizain neskato bat be, ospitalean illa eta Burgos'era eramane.

Polizikoek Burgosén katedralera jo zuten. Ango sakristauari galde zioten, ia amabost egun dirala, iñor frentetik ekarri eben. Ezetz. Eliz-eliz ibilli ziran eta erantzuna berdiña: gerratik ez zutela iñor ekarri bi aste auetan...

Urrats guztiak alperrik. Ez zuten koronelaren arrastorik aurkitzen. Gauzak orrela laga ezin Gudaroste batean. Arazo larria zan eta argitu bearrezkoa. Ekin diote berriro lengo leloari: frentetik eritegira, eritegitik Obiedo'ra... Dana ondo; zer bakoitza bere tokian. Naaspilla apurra, izatekotan, eritegikoa bear zuen izan. Gorpua il-gelan dagoela, zer-edo-zer gertatu ote zitzaion? Unerik une, zerraldoa eldu zanetik aurrera aztertu bear.

Ez zuten geiegi nabarmendu nai eta mojatxoarengana jo zuten berriro eta il-kaja jaso zuten mutillekin itz egin: eurok jetxi ziran il-gelara eta zerraldoa an zegoen maai-gañean lau kandela piztuen erdian. Bien artean artu eta kapelara ekarri zuten, beste maai batean ipiñi, loraz jantzi... Besterik iñor ez zan zerraldora inguratu eta eurok utzitako kaja eraman zuten Obiedo'ra... Polizikoe, ordea, bazekiten zerraldoa ez zala araña iritxi. Zer sorinkereri ote dago emen tartean? Begikoa egin ote digute? Nora jo ez dakite...

* * *

Ez ziran oraindik polizikoe erritik aldendu, eritegira telefonoz jotzen asi ziranean:

-Eritegiko Komandante jauna?

-Bai. Zer nai?

-Alabatxoa il zitzaidan, operazio baten ondoren.

-Gogoratzen naiz.

-Falanjeko Neskatek eroe baten antzera egin zioten arrera.

-Eta, zer?

-Bere attitta eta amama Galizia'n bizi dira; orduan ezin eta orain etorri dira beuren illobatxoa ikustera. Illobi berezia daukagu eta zerraldoa atara dogu, iltzez zearo josita eta arotza ekarri bear izan degu irikitzeko.

-Gerratean ezin degu zerraldoak bear diran baldintzetan bialdu, eta orregaitik sendo josten dituguz. Baña, zer dozu?

-Gure alabatxoa ez dagoela zerraldoan.

-Utzik al dao?

-Ez, jauna. Barruan militar bat aurkitu degu.

-Emaidazu zure telefonoa. Ni saiatuko naiz arazoa argitzen.

* * *

Komandante jauna, eritegiko zuzendaria, suturik gelditu zan; baña ez zekien nundik asi. Nor zan militar ori? Frentetik eri asko zetorren aldi artan eta ildakoak ez gutxi. Aien artean Jerote Koronela ere tartean izan da... Iñundik ez da, ordea, orrelako kexarik izan... Bildu ditu mojatxoak, medikuak, erizaiñak eta tarteko guztiak:

-Jaunak, ildako baten orde, beste bat bialdu degu; baña, nor?

Banan banan ildako guztiak aztertu ondoren, militar batek irten eban neskatoaren egun berean, Jerote Koronela.

-Baña, gauza arrigarria, Obiedo'tik ez da iñungo kezkarik agertu.

-Jauna -dio Asuntxi mojatxoak- bi gizona agertu ziran amen; gauza garbirik ez zuten argitu eta gorpua il ekarri zutenekin egin eben berba.

-Neri eta Pedro ri galdetu ziguten, ia zerraldoa beetik gora ekarri genduen... Baietz, berbera zala.

-Oiek jasoko zuten -dio Joxe'k guk mai-gañean imiñi genduen Perote Koronelaren gorpua. Gau-erdia zan ekarri zutenean eta il-gelara eraman genduen biok; an zegoen erizain neskatoaren gorpua mai gañean. Ura kendu, baztar batean laga, eta Komandatearen zerraldoa imiñi genduan. Eta, uraxe artuko zuten Pedrok eta bera lagunak...

-Eta, nun dago neskatoaren gorpua? Militar bat Burgos-en eta neskatoa, nun galdu da?

-Jauna -dio Pilar mojatxoen buruak- goiz artan oso goiz, erizaiñaren gurasoek etorri ziran eta guardia aldatutako erizaiñek lagun zien. An mai-gañean zegoen zerraldoa artu eta abiatu ziran Burgos'era.

-Orduan, orregaitik izango zan: guk zerraldoa lurrean ikusi genduen eta maai-gañerajaso Agintariek etortzerako...

-Ia, ia ondo ulertzen dedan: neskaren zerraldoa kendu eta Koronelarena imiñi...

-Bai, Jauna, Joxe'ek eta nik erizaiñaren gorpua il-gelara eraman genduen eta maian imiñi lau kandlekin; gero, gauerdian guk guardia aldatzeko unean, Jerote Koronela ekarri zuten eta neskaren zerraldoa baztar batean laga, eta Koronel jaunarena imiñi gañean...

* * *

Eritegiko Komandanteak Gobernadore Militarri azaldu zion korapilloa eta onek Obiedo'koari. Illobitik atera eben Jerote Koronelaren zerraldoa eta, bere orde, zuriz jantxitako erizain panpoxa bat aurkitu eben...

A zer poza gurasoena, militar bizarduna bialdu eta bere alabatxoaren gorpua ekarri zitetenean...

Ori, bai, dan-dana izkaturik aundienagaz egin zan, ez zedin orbandu militarren oore disdiratsua.

Azilla 1998
Arrinda'tar ANES

DEBATIK

GIPUZKO ETA FRANTZI ARTEKO ITXAS-BURRUKAK (1552-1555)

(350 Bela-ontzi presta zituzten giputxek burrukarako)

Karlos I'aren aginduz

Karlos I, Espaiña eta Alemania'ko Enperadorea, Juana *La Loca*'ren semea zan; Fernando II eta Isabel *Katolikoak* ziran amaren gurasoak. Aita, berriz, Felipe *Ederra* zanez, Alemania'ko Enperadorearen biloba zan. Alde orretatik etorri zitzaion Alemania'ko enperadore izatea Karlos V izenarekin.

Flandes'en aurtzarotik azia, amaren ezbearra tarteko zala, andik etorri zan Espaiña'ra erregetza jasotzeko eta andik ekarri zitun bere lagun minak emengo kargu nagusietarako. Gertaera orrek arrankura sortu zuen Kastilla aldean eta ortik sortu zan *Los Comuneros*'tarren iraultza. Villalar'en menperatu zituzten eta bertan erail Bravo, Padilla eta Maldonado iraultza-buruak. Gertakari onek izan zuan zer-ikusia Iruña askatzeko erabili zuten burruka-aldi artan.

Alba'ko Dukeak, Lerin'goa eta Beaumontarrek lagun, Naparroa menperatu zuen Kastilla'rako eta Napar Erregeek alde egin bear izan zuten Benabarre'ra, "Sexta Merindad de Ultrapuertos" zeritzanera. Baña, 1.521 garren urtean Foix'ekoekin batera Naparroa'ren rekonkista asi zuten mugatik beera. Errege naparren aurka Iruña defenditzen Loiola'ko Inigo degu buru, kañoi-bala batek ezkerreko berna ausi zion arte. Ordu artan amaitu ziran Iruña'ko defentsa-lan guztiak. Auxe da gauza arrigarria: Iñigo'ren lepa-zamarra urkatu bearrean, eskuetan emeki artu eta bere Loiola'ko etxera eraman zuten; bañan, berberak zionez, ez zuten naparrek eraman, Foix'eko frantsezak baizik.

Iruña Errege naparren eskuetan erortzean, Foix'ekoek aurrera joatea erabaki zuten, erria zaintzen gelditu barik; *Comuneros*'en iraultza aprobetxatu nai izan zuten Kastilla menperatzeko. Ez alperrik: bitarte orretan Kastilla'ko indarrek Noin'en bertan burruka zituzten Foix'eko gudarosteak eta Napar erregeek sekulako bueltatu ziran Benabarre'ko ingumarietara.. Andik aurrera an bizitu izan ziran eta Frantzia'ko erregeen senitarteko ere gertatu ziran. Azkenik ango Errege izendatu ere bai. Orixe gertatu zitzaion Enrike IV'garrenari. Juana erregiñaren semea zan. Onek Espaiña'ko Felipe errege Bigarrenari, Goiko Naparroa eskatu zion, berea zalako eta aren aitaitak lapurtu. Arenganako gorrotoagaitik-edo, Erregiña protestante biurtu zan eta protestante bezela azi zuen bere semea Enrike IV. Paris'eko errege aukeratu zuenean Enrike napar protestantea, eskatu zioten len-dik protestanteai utzi eta katoliko egin bear zuela. Onek esana da itzaldi famoso au: *Paris bien vale una misa*.

Andik aurrera erregeek izen au eramaten zuten: *Naparro eta Frantzia'ko Errege*. Luzaro Iraun zuan oitura orrek Frantzia'ko Iraultza nagusi aurreko Konbenzio-

ra arte; Onetxek erabaki zuen “Naparro” izena kentzeko eta aurrerantz *Frantzia-ko Errege* naikoa zala.

FROIX'EKO KONDESA

Isabel *Katolikea* iltzean, bere senar Fernando'k berriro ezkontzea erabaki zuen eta Foix'etik ekarri zuen emazte berria. Angoa zan Labrit edo Albrite'ren emazte Katalina Foix'ekoa eta orretxegaitik etorri ziran foixtarrek, Errege naparrekin batera, Naparroa errekonkistatzera. Andik etorri zan Froix'eko Kondesa Kastillako kortera Fernando Erregearen bigarren emazteki bezela: *pinguis et bene pota*, orduko kronistek ziotenez: *koipetsua eta ondo edana*, alegia.

Arevalo Gazteluko etxeakoandreak, Iñigo-amaren lengusiñak, Loiola'ko Beltran'eri seme bat eskatu zion zaldun baten antzera ezitzeko. Eta bere seme txikiena, Iñigo, bialdu zion. Amabost urte zeuzkan Iñigo'k Arevalo'ko gazteluan agertu zanean, Gazteluko Jaunak eramaten zituen Fernando eta Isabel'en erreinuko diru-kontuak. Kastilla'ko Korteza Valladolid'en zegoen, Arevalo'tik gertu eta Iñigo'k arako bideak irikita zeuzkan.

Erregiña berriak Arevalo'ko etxeakoandrea aukeratu zuen bere lagun maite eta, orra nundik- nora, Kortarako bidea zabalago gertatu Iñigo'rentzat. Ezagutu zitun, eta ezagutu zuten ondo, Foix'etik Kortera etorri ziran erregiñaren lagunak. Gertaera onek bere ondorenak ekarriko zitun Iñigo, Iruña'ko artan, elbarritu zutenean. Zaurituta erori zanean, bertan urkatu bearrean, bera izan bait zan gogorren jakatu zuena Napar erregen aurka, kontu aundienakin jaso eta bere Loiola'ko etxera eramango zuten. Baña, Iñigo berak esaten du, ez zirala naparrak izan eramango zutenak, frantsezak, baizik. Nundik nora? Begi-bistan dago ezaguna zutela eta, Valladolid'eko Kortetik ez ba'da, nundik? Bestela, berezkoa zan, Iruña'ko ormetatik zintzilik urkatuta gelditzea.

ONDARRABI-PASAI-DONOSTI NAPARREN ESKUETAN

Napar eta foixekoak mugatik beste aldera bota zituztenean, orduan Ondarrabi'ri eraso zioten eta menpean artu ere bai. Ondarrabi eta bere inguru naparren eskuetan erori zanean, erlauntza zirudien España eta bere Inperioa: urduritasuna guztien nagusi eta Erregearen Korte osoa Gazteiz'era gerturatu zan. Alemania'tik ekarritako Utrech'eko Kardenala, Imperioaren zuzendari orokorra ere emen zan. Gazteiz'en zegoela etorri zitzaion Erroma'tik mezu au: Elizaren Aita Santu izendatu zutela, alegia. Adriano VI artu zuen izen.

Araba'tik Zaragoza'rako bidean Barzelona'raiño izugarrizko ostea jarri zan martxan Aita Santu barriari Erroma'ra laguntzeko asmotan. Iñigo Loiola'n dago zauri nekagarri aiek sendatzen. Nekez sendatu ere; baiña, aizkenerako, sendatu da. Bitarte orretan Gipuzkoa guztian gudariak biltzen ari da Martin,

Loiola'ko maiorazgoa. Zai-zai dago noiz Iñigo sendatu gudari guztien buru bera ipintzeko.. Baña, bai zera: Iñigo'k zutik egoteko aiña dan une berean, zaldia eta bere bi eskudero azkoitiarrak artu eta or zijoak Najera'ra.: Naparroa'ko Erregeordezkoarekin egon bearra du. Aitzaki bat besterik ez da. Egoera onek Martin bere onetik atera du eta zin dagi, ez dala geiago sekulan bere etxean Iñigorik sartuko.

Najera 'n txanpon batzuek jaso eta bi azkoitiarrekin mezu au bialdu dio anaia-ri: *Banoa apaltasunean eta penitentzian*. Orixe izan zan lñigo'ren betirako agurra. lñigo'ren aurrerako arrasto guztiak galduko dira bere Loiola'ko etxean. Ez zan geiago aren ateetatik sartuko.

Errioxa'tik Monserrat'eko bideak artzen ditu; baña, Aita Santuaren laguntzailerik ez du ikusi nai, ifundik ere, ezagunak bait zitun mordo bat Valladolid'eko Kortetik. Ez zuen alkarrekin topo egin nai, ezagutu ez zezaten.; oraindik ere zaldunen jantzi eta tankerakin zijoan bidean. Monserrat'en utzi zituen betirako.

FRANTZIA ETA ESPAIÑIAKO GUDA

Ondarrabia'ko arazoa Espaiñia eta Frantzia'ren arteko azalpen bat besterik ez da. Galdu zan bein eta kostatu zan berriro irabaztea. Karlos I eta Franzisko l'en (eta bere seme Enrike II) arteko gerra ez zan sekulan amaitzen. Garairik gogorrenak 1519'tik 26'rakoak izan ziran.... Pakea eta burruka, biak naasten zituzten bata bestearen ondoren. Gaur idazti onetan ari degun gerra-garaiak 1550-1555 bitartekoak dira.. Une orretan ematen dio Karlos'ek Gipuzkoa'ri itxas-gerran sartzeko baimena eta eskubidea. Laguntzarik ez dio emango; baimena, bai *guerra guerrea* orretan parte artzeko; baiña, bere buruaren kontura. Frantzia'ren kaltean. Zergaitik ematen dion Gipuzkoari *korsorako* baimena? Frantziaren auzo diralako eta mugak alkartuta dituztelako.

Urte luze oietan *gerra-gerrera* zeritzan burruka orretan, Gipuzkoak milla giza-seme galdu zitun eta Karlos'en kortean giputx bazter onetako arazoak aaztuta zeuzkaten. Izan zirenik ere ez.

Egoera onek suspertzen ditu Gipuzkoa'ko Batzar Nagusiak eta Segura'ko billeran (1554 maiatza) erabaki au artzen dute: bear diran galderak egin guda berezi onen zeaztasun guztiak ondo argitzeko eta galderak burruka orretan ibillitako giza-semei egiteko. Urrengo Azpeitia'ko billeretan (1555 maiatza) agindu au emango dute: berriak billatzeko "*de todas las naos que en esta guerra se han tomado*". Berriak biltzeko Korrejidorea aukeratu zuten Miguel de Idiacaiz eskribanoa lagun zuela. Galderak egiteko baimena Amador López de Zubizarreta, Azpeitia'ko lizenziaduari ematen zitzaion Eta testiguak aukeratzeko baimena, beriz, Bartolome de Loyola, Azpeitia'ko Alkateari. Berau, Korrejidorea eta Idiacaiz, irurak joango ziran erririk-erri testigutzak jasotzeko.

Lanak 18 egun iraun zuen eta lanaren deskargua Zarautz'eko Batzar Nagusian (1555 azaroan) eman zuten. Gertakera auek ondoren datozten datuei ofialtasuna ematen diete.

Arazo oso au liburu berri batetik atara degu. Ona idaztia: *CORSARIOS GUIPUSCOANOS EN TERRANOVA 1552-1555*. Egillea: José Ig. Tellechea. Donostia'n 1999. KUTXA fundazioa. Agiri au "Vargas Ponte Fondo" an arkitzen da Madril'eko Museo Naval'eanean. Eta kopia bat da. Berezko agiria Tolosa'n dago: "Archivo Provincial de Guipúzcoa" "Bajo la signatura J D; M/12/11".

BERRI-EMAILLEAK

Galderak guztientzako berdiñak ziran eta Gipuzkoa osoan 14 testigu eta leku-ko aukeratu zituzten: 6 donostiarrak; 1 oriotarra; 4 Pasai-Ondarrabikoak eta 3 debarrak.

1. Martín Cardel, Capitán Armador de San Sebastián.
2. Domingo de Albistur, Capitán Armador de San Sebastián.
3. Francisco de Illarreta, Capitán Armador de San Sebastián.
4. Pablo de Aramburu, Capitán Armador de San Sebastián.
5. Martín Pérez de Hoa, Piloto, vecino de San Sebastián.
6. Juan del Puerto, Piloto Mayor, vecino de Orio.
7. Juan de Erauso, Capitán Armador de San Sebastián.
8. Martín Sanz de Echave, Capitán Armador vecino del Pasaje de Fuenterrabía.
9. Domingo de Mendaro, Capitán Armador, vecino del Pasaje de Fuenterrabía.
10. Miguel de Iturain, Capitán Armador vecino del Pasaje de Fuenterrabía
11. Capitán, Joanot de Villaviciosa, idem.
12. Domingo de Gorocica, Alcalde de Deva y Capitán Armador.
13. Miguel de Zaldivia, vecino de Deva.
14. Martín Ochoa de Irarrazabal, Capitán Armador, vecino de Deva.

GALDERAK:

Lenengoa: Zenbat ziran armadora Gipuzkoarrak?

Danen artean 350 bela-barku prestatu zituzten armadora gipuzkoarrek: Donosti, Pasai- ondarrabi, Deba, Orio, Zumaya, Mutriku, Getaria, Irun, Urantz eta Oiartzun'goak izan ziran.. Eta eurok parte artu burruka onetan.

Bigarren galdera: Zer gerra-ekintza eraman dituzte aurrera?

Danen artean, kapitana-armadore auek irureundik gora (350) bela-barku armatu dituzte burrukarako *“con todas las municiones necesarias para la guerra: lombardas, mosquetes, vesos, arcabuces, ballestas, gurguces, echafuegos, lanzas, dardos y otros géneros de armas ofensivas...”* Lombardak kañoi aundi- gizenak ziran eta vesos, berriz, txikiak eta meeak, mosquetes eta arcabuces su-iskilluak dira Mosketek eutsigarri bat bear du tiroa egiteko.

Garai eta giro artako bela-barku baten berri zeatzak badauzkagu: garaia 1564; bela-barkua San Nicolás 475 toneladakoa. Bere kapitana Joan de Espilla debarra eta armadorea Landaverde bilbotarra. Galeoia zan, iru mastakoa eta belak, berriz, laukiak, 18 kañoi aldamenetan, bederatzi alde bakoitzeko, arkabuzak, ballestak eta eun baño galtzairuzko arma- zuri geiago... Eta, ez zan gerra-barkua, bale-arrantzarakoa, baizik.

Gipuzkoarrek ondo armaturik ekin zioten burrukari beuren ikurriñak eta Erregaren insiniak aurretik zituztela: *“Habían navegado por todas las costas, puertos, abras y canales de Francia hasta Noruega.. Y por otros mares”*. Gertaera auek egiztatzean testigu guztiak datoz batera. Domingo de Gorocica, Deba'ko kapitana-armadoreak, orretzaz gaiñera au ere esaten dau: Terranova'raiño eldu zirala etsaien ondoren *“en distancia de mil leguas”*. Eta, ondoren: *“Iban las tropas llevando sus banderas y estandartes y tambores y pífanos y otros menesteriles en gran orden”*.

Martín de Zaldivia, Deba'ko lekukoak, bertako kapitaneekin ibilliak; aitortzen dau, badirala lau edo bost egun Deba 'ko portutik irten zutela *“siete y ocho naos*

galeones y zafras de armada muy bien apercibidas y en orden” frantzesen bila joateko.

LURRERATZE ETA ERASOAK FRANTZIAN

Testigu guztiak diote berdin arazo onetan: Frantzian lurreratu eta eraso-mota guztietakoak egin zituztela *“tomando tierra en Francia y la corrieron con sus escuadrones, saqueando lugares, casas fuertes y llanas y trayendo los despojos a Guipúzcoa.. dando y recibiendo muchas heridas y muertes... apresando muchas naos y trayéndolas a Guipúzcoa.”* Uretatik sartzen ziran aurrera sei edo zazpi legua eta lurrera salto egin lapurretan ekintzeko... Oietako testigu batek dioenez, bein Bretanian gaztelu bat artu zuten aren jabe, emazte eta semeekin batera. Lapurretak egin ondoren, aske utzi zituzten.; baña, beste gaztelu batean askatasunaren ordeztu 700 dukat eskatu zieten..

Gorocica, Deba'ko Alkateak, eta bere erritar Zaldivia eta Irarrazabal'ek agertzen dutenez, egun batean, bi kapitan debarrek batera (Gorocica eta Irarrazabal), beuren ikurriñak aurretik dituztela, 250 eta 300'neko bi taldeekin eraso jo zuten erri eta baserriak errez; bei, idi eta ariak artuz beuren jendearen mantenurako eta bertako ainitz gauza arrapatuta Gupuzkoa'ra ekarri eta beuren jendearen artean banatu zituzten.

Zaldivia itxas-gizona beste debar kapitan-armadoreekin ere ibillia zan, eta Marennes ibaiean galeaza bat arrapatu zuten bere jende guztiekin eta baste ontzi bat gatzetz beteta. Beste bein San Juan Ansorregi kapitatan eta Kristobal Arias'ekin batera Burdeos'ko ibaien sartu, errixka batzuek erre, eta gari guztiak jaso etxerako. Beste ibillaldi batean, Garcia de Iziar'ekin, gaztelu baten alkatea, bere emazte eta semeak preso artu eta bere askatusanaren truke 700 dukat eskatu., Fornya'ko kolkotan.. Beste bein, berriz, Ansorregi debarrarekin eta beste zazpi eta zortzi zabrakin Caperon ugartera eldu ziran; lapurreta biziak egin ondoren, barkuetara bueltatu ziran... Zaldivia ez zan kapitana; baña, gutxienez iru kapitan debar aitatzten ditu amen: Garcia de Iziar, Arias eta Ansorregi.

Gertaera auetan beti egon zan Irarrazabal debarra eta berberak arro zionez, irurogeita amabi barku, generoz beteta, arrapatu zitun beste debar kapitanak lagun zituela.. Beraz, debarren garrantzia ez gan izan makala.

Eta lekuko guztiak diote ekintza auetan milla gipuzkoar baño geigo il zirela

TERRANOBA BIDEAN

Burruka au Terranoba'raiño luzatu zan. Irureun toneladatik gorako barkuak armatu zituzten eta ontzi oiekin egin zituzten Terranoba aldeko ekintzak eta bertan *“han muerto más de 500 hombres y les han quitado más doscientos de naves gruesas cargadas de bacallaos de muy gran precio y valor y aun en este año (1555) los vecinos de la villa de San Sebastián y Pasajes han tomado y traído quarenta y dos naos gruesas cargadas de bacallaos”*.

GERTAERA GEIAGO

Pérez de Hoa pillotuak dio 1555ean Erauso kapitan-armadore dostiarrak 400 toneladako barku bat armatu zuela, 300 gizonezko taldea barruan zeramala.

Terranoba'n zegoela beste bi kapitaneekin alkartu zan: Joannes de Lizarza eta Martin Iturain, eta iruroen artean amabi barku aundi, bakallauz betetakoak arrapatu zituzten, naiz-eta amabiak alkarri lotuta egon defentsarako... Eta iruen artean banatu zituzten.

Ondoren Erausok (Hoa barruan zala) ipar-aldera jo zuen eta beste ontzi frantzez batzuek topatu zitun. Auek ere alkarri lotuta eta euren kañoi lodiak itxaser-tzean ipiñiak barkuen defentsarako. Baña, Erausok jendea lurreratu eta kañoiak arrapatu eta ondoren barkuak ere bai.: *“En su viaje de ida y vuelta se apoderó de 18 naos francesas y de doscientas piezas de artillería de bronce y fierro”*.

Ontzi batzuek, kañoirik gabe, utziko dizkie frantzesai etxera euren buruak itzultzeko.

Hoa berak esango digu nola Erauso beste kapitan lagun batzuekin (Aranburu, Albistur, Iturain, Illarreta, Joannes de Lizarza) 1555'garren urtean *“capturaron 42 naos francesas, unas armadas y otras llenas de bacallaos con un valor global de 100.000 ducados, y las trajo a San Sebastián-”*

MILA ONTZI BAIÑO GEIAGO

Bederatzigarren galderari erantzunez testigu guztiek baieztatzen dute gerrako urte auetan milla barkutik gora arrapatu dituztela merkatari naiz armatu *“más de mil naos... De ellos 400 se consideran mayores de 200 toneles; por lo tanto la mayoría son de 100 toneles más o menos.”* Barkuekin batera, artilleria. Testiguen diote 5.000'tik gora zirela arrapatutako kañoiak: *“5.000 mil tiros de artillería, grandes, medianos y comunes siendo los menores los vesos y esmeriles.”*

“Los franceses apresados se estiman en doce o quince mil, Algunos volvieron en los barcos apresados y luego cedidos; otros echados en sus costas; otros traídos a Guipúzcoa y pasados a Francia en contingentes de 200 a 500.”

“Todo esto se da por sabido y notorio” Gipuzkoa osoan eta orrela egiztatzeko dute aukeratutako 14 testiguen. Oien truke milla gipuzkoarrek galdu zuten euren bizia. Amalau lekuko oietatik bik (Zaldivia eta Iturrino'k) ez dakitela firmatzen, adierazten dute.

Itxas-gerra onek, garrantzi aundia izango zuen Gipuzkoa'n; batez ere Donosti, Pasai eta Deba'n bai ildako eta bai ekonomi aldetik; ildakoak ezik aberastasunak aundiak izan bait ziran.

Gipuzkoarren ekintza arrigarri onek ez zuen iñungo arrastorik utzi ez Espainia'n eta ez Frantzia'n. Batzar Nagusiek emengo galdera auek egitean asmo orixe zeukaten: ekintza auek kalera ateratzea begi-bistan ipiñiz, Ez alperrik; ez zieten kasorik ere egin.

“Guerra-guerrera” onen (ala deitzen omen zioten orduko kazetariak) zeaztasunak onek dirá:

- 1.- 300 bela-barku baiño geiago presta zituztela, beuron dirutik, gipuzkoarrek.
- 2.- Milla gizaseme gazte galduak (frantzesak geiago).
- 3.- Milla ontzi baiño geiago arrapatuak
- 4.- Bost milla kañoi baiño geiago lortuak, brontzez eta burniz. Eta janariak neurri gabe, batez ere makallau eta bale-lumera... Eta bildurra sartu Frantzia'ri gorputzean.

DEBARREN TESTIGUTZA

Orain arte berri orokorrak eman dituguz; asi gaitezen orain Deba'ko lekukoe-kin. Lenengo ta bat, bere Alkate jaunarekin:

Domingo de Gorocica. Kapitán eta Armadore. Bere erantzunak:

Lenengoa: Beste guztiena egiztatzen du, Deba'ko kapitan-armadore eta guerra onetan parte artutakoa danez.

Bigarrena: Probintzi osokoak ikusi ditula burruka onetan parte artzen *“más de 350 velas, asi armadas de todas armas, artilleria y municiones y arcabucería.. yendo a buscar al enemigo hasta Terranova en distancia de más de mil leguas... y de quatro dias a esta parte sabe y ha visto que sólo del puerto de Deba han salido ocho galeones en zafras de armada con gran poder..”*

Irugarrena: Frantzia'ko kanal, portu eta ibaiak ikusi ditu, balta legorrera sartu ere bai... Gazteluak, erriak eta baserriak erre eta abere mota guztiak arrapatu ere bai, barruko jendearen mantenurako... Eta, orain iru urte dirala, barku aundi batekin topa zuela; barku ondo armatua, 50 kañoi eta 100 gizon *“armados con coseletes y mallas y otras armas secretas con la cual combatió todo un día... entró dentro por fuerza... y se apoderó de ella... y la trajo al dicho puerto de Deba.”* (Beti idazten du “Deba” eta ez “Deva”). Merkagai asko arrapatu ditu, Deba'ra ekarri eta bertan barruko (barkua) jendearen artean banatu.

Laugarrena: Badakiela zer kalte aundiak egin dieten gipuzkoarrek frantzesei eta Deba'ko burrukalariek *“han tomado más de seiscientos naos e galeones y otras fustas entre grandes y pequeñas, las 200 de ellas armadas y con mucha artilleria y diversas, municiones que valían más de 400.000 ducados.”*

Bostgarrena: Berberak bere ontziekin parte artu duela gerra onetan.

Seigarrena: Badakiela gipuzkoa'koek etsaiaren ondoren, Terranoba'ra eldu direla *“y les han tomado más de doscientas naos gruesas llenas de bacallaos y grasa lumera, que vallan más de 300.000 ducados...”*

Zazpigarrena: Badakiela gipuzkoarrek, Terranoba'tik etxera datoztela, sei barku frantzes aundi eta ondo armatuak irten zietela bidera; baña, burrukan gogor egin ondoren, Terranoba'n arrapatutako ontzi guztiekin eldu zirala Gipuzkoa'ra.

Zortzigarrena: Burruka onetan Gipuzkoak milla gizaseme galdu dituela; baña, Frantzia'k askoz ere geiago.

Bederatzigarrena: Gerra onetan gipuzkoarrek 5.000 kañoi baño geiago artu dieta etsaiei; oien arteko 1.500 debarrek eurok, kendu diete.

Amargarrena: Esandako guztiak egiztatzen ditu eta bere eskuz siñatzen

Domingo de Gorocica (eta aldamenetan) Baltasar de Hegurza eta Idiacaiz, idazkaria.

13. Martin de Zaldivia, Deba'n bizi dana eta testigu berbera burruka auetan izan dana. Ez da kapitana, baña gerran ibillia Deba'ko kapitan auekin: Gorocica, Juan García de Iziar, Cristobal Arias, Juan de Ansorregi guztiak armadore.

Zaldivia onen testigutzaren gauza berezi batzuek bakarrik jasoko dituguz.

Bigarrena: Gipuzkoa'ko ontziak garra onetara irten dute arma guztiez jantzi-ta: *“lombardas, mosquetes, bersos, arcabuces, ballestas, garguces y echafuegos, lanzas y dardos y municiones necesarias...”* Itxas-ontziak armatzen ikusi ditu

Deba'n bizi dalako eta guztien lekuko dalako. "Echafuegos" Lazkao'n gure aur-tzaroan su-ziriak (cohetes) ziran.

Irugarrena: Gorocica'rekin dabillega Frantzia'ko kanal batetik 160 toneladako ontzia gatzez beteta arrapatu zuten eta baste sei ardoz beteta, eta danak Deba'ra ekarri.

Bederatzigarrena: Debarrek burruka onetan arrapatutako kañoiak 1400'dik 1500'rakoak dira eta Frantzia'ko barkuetan artuta eta Deba'ra ekarritako merkagaik *"valen más de un millón en oro."*

Amargarrena: Ez daki ez idazten eta ez firmatzen. Marka bat agiten du eta bere alboetan Baltasar de Hegurza eta Idiacaiz idazkariak firmatzen dute.

14.Martin Ochoa de Irarrazabal. Kapitan-armadore. Bere erantzunak galderei:

Lenengoa: Lekuko naiz Debarra naizelako eta burruka onetan neu ere ibilli naizelako.

Bigarrena: Guztien antzera erantzuten du; baña, bereiziki au dio: *"Kabo Finis-terre'tik Ingalaterra'raiño gabiltza burrukan eta neuk ere armatu ditut galeoi eta zafrak... Eta debarrek diotena esaten du: "Y de quatro dias a esta parte sabe y ha visto que sólo del puerto de dicha Villa de Deba han salido ocho galeones y zafras de armada..."*

Irugarrena: Guztien antzera erantzuten du eta gañera au: *"Y ha tomado en la presente guerra hasta setenta naos cargadas armadas, grandes y medianas, sin otras muchas naves que ha tomadode merchante, y en compañía de otros armadores de la Villa de Deba y en las cuales ha tomado muchas banderas y estandartes, tambores y pífanos y mucha artillería..."* Eta Martín Debace de Aguirre kapitán debarra lagun duela, Forna'ko gaztelua artu ondoren, aren alkatea eta familia preso artu eta askatasunaren truke 700 dukat jaso.

Laugarrena: Badakiela burruka onetan debarren artean 600 baño ontzi geiago arrapatu dituztela *"naos, galeones y otras fustas grandes, pequeñas y medianas"*. Oietatik 200 ziran artilleria aundikoak *"y diversas municiones que vallan más de 400.000 ducados..."*

Bostgarrena: Erantzunak baste guztien antzekoak.

Seigarrena: Berdin emen ere. Baita esaten du Terranoba aldean 200 ontzi aundi arrapatu dituztela bale-koipe eta makallauz beteta eta Gipuzkoa'ra ekarri.

Zazpigarrena: Danen erantzun berdiñak.

Zorzigarrena: Berdin.

Bederatzigarrena: Burruka onetan danen artean gipuzkoarrek 1,500 baño ontzi geiago arrapatu diote Frantzia'ri eta kanoiak 5.000'tik gora.. Debarrok eurok 1.500 kanoitik gura ekarri dituzte errira *"y las mercaderlas que en dichas naos han traído es cosa cierta y notoria que valían más de un millon de oro y los dichos franceses las estiman en mucho más."*

Amargarrena: Esandako guztiak baieztatzen ditu eta bere eskuz firmatzen Baltasar de Hegurza, Martín Ochoa de Irarrazabl, Idiacaiz.

Orrela amaitzen da Batzar Nagusiek aukeratu zituzten 14 lekukoen testigutza.

Beste esku batek onoko au idatzi zuen:

"Se envia esta información signada a Antonio de Abadía con Bartolomé de Loyola con el correo que llevaré sus despachos para que allá use de ellos, comunicando con los letrados, para la orden y para los efectos que más viesan que conviene y más puedan aprovechar a Guipúzcoa Y en la introducción se le haga particular memoria y encomienda de esto, porque hay notables servicios a su Majestad en esta guerra por los naturales de esta Provincia para le pedir mercedes y hacer lo demás que dicho es".

Martín Ochoa de Irarrazabal gizon famatua izan da Deba erriko istorian; 1570ean bertako Alkate ere izan zan. Bere Torre-etxea Arzabal auzoan zegoen garai batean ibai-ertzean. “Camino Real de Vergara” urratu zuten Torrearen gainetik eta orduan galdu ziran bere arresto guztiak. Alboan baserri bat gelditzen da “Irarrazabal” izenakin. Torrearen lurrak Antzondo’tik Iztiña baserrira igotzen ziran eta andik Errota-zar’era jetxi, eta emendik Iruroin’eraiño zabaldu ibai-ertzean. Antzondo errotea izan da orain arte; Errota-zar futbol-zelaia, berriz, maria-errota (itsaoaren gora-beerak mogitzen duen errota) izan da. Martin’en garaian errota oiek burni-olak ziran...

Bere soloetan zegoan Lonja-zaarra eta oraindik dirau Lonja-Berri’k. Irarrazal’en Torre, lonja-etxea zan, Deba ibai-ertzeko beste etxe batzuek bezela. Lonja oietan gordetzen ziran itsasotik zetozten merkagaiak eta itsaso bidetik kanpora joan bear zutenak.

Garrantzi aundikoak ziran Somorrostro’ko burni-meatzak. Andik etortzen zan barkuetan lonja oietara; gero, ortik, aletan (ala=ontzi zapalak ibaian gora joateko). Ala bakoitzak 15 kintal eramaten zuen eta artarako bi gizon bear ziran. Meatzak ibai inguruan zeuden burni- oietarako ziran: Lastu, Alzola, Elgoibar eta abar... Ondoren ola oietatik sortzen zan burni landua Deba’ra zetorren berrero, andik barkuetan munduan-zear bialtzeko. Lonja oietan gordetzen ziran Araba eta Kastillatik etorritako artilleak Flandes eta Ingalterra ‘ra bialtzeko; eta andik etorritako eunekin ere berdin, Alderantziz: artilleak bialdu eta eunak jaso,..

Egurra ugari mendietan, olak erreka bastarretan eta ibai-ertzeak astilleroz beteak. Irarrazabal, Agirre-torre, Urasandi, Sasiola, Alos-torre, Maxpe, Iruroin eta abar lonja ziran eta nagusiek enpresario utsak. Oien eredu bat izan zan Martin Ochoa de Irarrazabal: olak bazitun, barkugintzan, itsas-merkataritzan, balearrantzian eta burrukan ere egiten zuen. Danetarako zan gai. Politika-aldetik ganboinoa eta Loiola-Oñaz’tarren etsai.

Gerrarako 8 galeoi batera, ondo armatuak irtetzeko, gauza asko bear ziran eta gizasemeak zer esanik ez. Armatutako galeoi bakoitzak 300 gizon eramaten zitun gutxi-gora-beera... 8 Galeoi batera, ia 3.000 gizon dirá. Nundik? Deba’tik bakarrik ez beintzat Deba-goia eta Deba- beeratik emendik izango ziran guztiak. Auskalo nundik etorriko jendea ote ziran ainbeste gizon! Orduko Terranoba’rako ifar-ontzietan Zubero’ko mariñelak agertzen dira. Eta, 1929’ko PYSBE-bakallaurrantzarako ontzi bateko giza-seme pillo bat Gipuzkoa’ko Goierrikoa zan: Lazkao, Ataun, Olaberri, Beasain, Zaldivi eta Etxarri-Aranaz’koak. Kapitana Eustakio Arrinda, lekeitiarra, Lazkaon bizi zana. Neronek egin nizkien gienai PYSBE’n sartzeko eskabide-agiria. Ez litzake, ba, arritzeko izango burruka onetara Probintzia osotik etortzea.

IRARRAZAL’en zertzelada batzuek PATXI ALDABALDETRERU’k 1998’ko urtarrilean izen orrekin argiratutako liburuxkatik atera ditut. Eskerrak.


Lan onen eratzaille

ANES ARRINDA.
Deba’n 2001eko azilla.

GOSEA MUNDUAN



JAINKO JAUNAK mundua danentzako egin eban: danentzako bizi-lekua eta egoitza; danentzako janariak eta edariak... Baiña, beti izaten da, besteerenak bereganatzeko ibiltzen dan baten bat. Berak bi edo iru edo lau... eta besteak bat be ez.



Martiko eduzkiak lurra berotzen dau goizetik eta berotasun orrekin, lurpean dagoen azia esnatzen da lozorrotik.

Lerroak berutz luzatzen ditu eta gorputza gorutz argiaren billa.

Badator Udaberria eta ernetzen asteko ordua!

Tomate azia da eta laister agertuko da lur-azalean eta arbolatxo baten antza artuko dau eguzkiaren eta euriaren laguntazaz.

Agerpen zoragarria izango da.

Aitak, ordea, esan eutson, il aurretik, gizonaren asma-kizunekin kontuz ibiltzeko.

Gizona gaiztoa dala eta pozoi txarrak botatzen dau-tsozala tomatearen landareari.

Beneno edo pozoi orixka bat eta kontuz ibilteko.

Gaiñera esan dautso gizona tontoa dala, pozoi oneik bere kalterako diralako.

Baietz, baietz esan dautso aitari: kontuz ibilliko dala.

Baña, amorratzen dagoela tomatea noiz agertuko dan.



Azia erneta landara biurtu da eta landararen eginbe-rra, loratzea da.

Sortu dau lora oria, polita eta panpoxa, tomatearen itxaropena.

Lora orretatik aterako dan tomatea zein ederra eta gozoa izango dan...

Baiña, momorroa deuka begira-begira.

Zer begiratzen dau momorroak?


Lora ori orretatik aterakò dan tomate gorria.

Tripak mar-mar egiten dautsoe gosearen gosez eta mar-mar orreik ixildu nai ditu...

A zer janari gozoa izango dauen egunen batean...!

Bai orixe!

ARAZOAK



Loretxoia zimeldu da eta asi da tomatea agertzen. Apurka-apurka gizendu da. Lenengo berde, gero gorritzka; aizkenerako gorri-gorri...

A, zer tomate ederra...!

Onekin illebeterako daukat.

Eta onek ez dau pozoirik.

Garbi garbia dago. Gustiz garbia...

Sartuko dautsot nere eztena barruko zukuia edateko.

Au poza...!

Sartu dautso eztena pozaren pozez...

Zukua atera dau eta edan:

Zer dau zuku onek?


Txorabiatzen asi naiz.

Jausi egingo naiz...

Tomatetik lurrera jausi eta bertan ilda gelditu.

Azalean pozoirik ez ba'dauko, zer dau tomate onek orrelan mozorroa akabatzeko...?

Aldaketa bat egin dautsoe tomateari eta gizonentzako ona izan arren, momorroentzako da kaltegarri.



IPUIÑAREN AZKENA

Munduko Gosearen Aurkako Kanpaiña onetan ba-dauko gizonak zer egiñik. Izaki bakoitzak bere jenemoltzoa bereizia dauko. Jene orreik izaki bakoitzaren programazioa egiten dabe: zuk ipintzen dozu labadora bere programa batean eta badakizu aurrera joango dana, naiz eta zuk etxetik alde egin. Berdin gertatzen da bizi diran izaki guztietan.

Baiña, zuk jene-moltzo orretan beste izaki baten jeneak sartzen ba'dozuz, orduan aldaketa bat izango da. Ori igalietan eta lurreko frutuetan egin ezkerro, izugarritzko landara ederrak eta aundiak egin geinkez.

Alde batetik, aundiagoak eta ederragoak; beste aldetik, berriz, aalmen obeak eta indar obeak. Esate baterako eremu eta desertuetako landaren jeneak besteai sartu ezkerro, onek obeto eutsiko dautsoe legorteari; berdin gatz lurren inguruko landareen jeneekin be, beste landareeri eman geunskio gatzaren aurkako indarra; eta berdin mozorroen aurkakoa be eta onelan ez da bearrezkoa izango landareeri mozorroen aurkako pozoiak eta benenoak ematea...

Tomatea, *supertomate* egiten dogun bezala, garia

supergari egingo dogu, meloia *supermelo*i eta abar eta abar...

* * *

Bide orretatik aurrera joanda, mundu osoaren gosea asetzeko ordua gizonen eskuetan dago. Baiña, beti izaten baiñaren bat, "injenieri molekular" deritzan lan orretarako, dirutza aundia bear da.

Dirutza aundiak Multinazionaleetan izaten dira beti. Multinazionalak, ordea, diruari korritu ederrak ateratzeko sortu dira eta ez Miserikordiazko lanak egiteko. Orra zergaitik, injenieria orren onurak erri aberatsen eskuetara joango diran, erri txiro eta pobreen kaltean...

Erri gosetuen eskaria auxa da: arraiña emon bearrean, kañabera bat arraiñak arrapatzeko emon dagiola; uruné erri gosetueri bialduaren ordez, bioteknologia ori mundu osoaren eskuetan ipiñi dagilla, bein betirako gosetearen arazoa konpontzeko.

¿Geiegi eskatzea ote da?

A. ARRINDA

GURE GAITZEN SUSTRAIAK

(1839) Urrillak 25

Gure Fueroa eta Askatasunak orduantxe galdu genduzen 1839'aren 25'eanean, María Kristina Erregeordekoak Lege bat zabaldu zuen egunean.

Onela zion Legearen Lenengo Artikuloak:

"Se confirman los Fueros de las Provincias Vascongadas y Navarra, sin perjuicio de la unidad política de la Monarquía..".

Arrezkero onela bizi gara "sin perjuicio de la unidad política de España". 1978 urteko Kostitutzioak esaten dau, gudaroste espainolak gordeko dauala "unidad política" ori...

Zergaitik izan zan María Cristina'ren Legea?

Karlostarren guda izan zan bide: Carlos María Isidro, Fernando Bigarrenaren anaiak, bere eskubidearen alde jeiki zan Isabel II, Fernandoren alabaren, aurka. Berak zituela eskubideak, alegia, errege izateko, eta ez Isabel'ek...

Bitarte orretan bazegoen, Cadiz'eko 1812'garrengo Kostitutzioaren ondoren, Elizaren eta Euskal Fueroen aurkako amorrua.

Amorru ura Frantzia'ko Iraultzatik zetorren: Onak kendu zitun Be-naparroako Lege Biltzarra eta euskaldunen Fuero eta Askatasun guztiak, Frantzia osoa Departamentuetan zatiturik: Laburdi, Zuberoa, Benaiparroa eta Bearne, laurak Departamentu batean ipiñi zitun. Eta beste bazter guztietan jokaera berdiña erabili zuen.

Orren antzera egingo dute geroago España'n ere: Euskalerrria probintzietan banatu, beste probintzi espainiolen antzera: Araba, Gipuzkoa, Bizkaia eta Naparroa, guztiak probintzi espainiolen berdinduta.

Eliza eta Foruen aurkako jokabide oiek urduritasuna sortu zuten Euskalerrri osoan, eta Carlos María Isidro'k bere iraultza mundu zabalera "Dios y Fueros" ikurrarekin zabaldu zuenean, orduan euskaldun asko jeiki zan bere aide, burrukarako prest.

Burruka ustela gertatu zan eta Maroto, Karlista guztien Buruak saldukeria egin zuen, Espartero Liberal Generalarekin bat eginda, Bergara'ko Besarkada aretan (Convenio de Vergara)... Saldukeri orren susmoa artuta zeukaten batalloi giputz eta bizkaitarrek eta ez zuten armarik lagatzerik nai.

Une aretan, Espartero berak, itza artuta, onela esan zien: "Iñoiz iñork Fueroen aurka ezer egingo ba'lu, neure ezpata onek zainduko ditu Fueroak danen aurka". Itz oien ondoren laga zituzten euren armak; baña, susmoa ez zan era bat aldendu...

Urrillaren 25'eanean, Urtea 1839, gertatu zan besarkada negargarri ura. Andik gutxira, 1840'eanean, iraultza baten bidez bota zuten María Cristina Errege-ordekoa eta bere lekuan Espartero Jenerala ipiñi zuten, España'ren Jaun da Jabe. Une aretan bertan ematen du lege bat, Euskalerrria beste España'ko probintziekin bat egiñik bai gobernuko azaroetan, bai administrazioan eta baita justizian ere. Mugak aldatzen ditu Ebro'tik Pirinee-mendietara eta itxasoko portuetara, Madrid'en mendeko.

Bigarren Karlistada

Euskaldun batalloiak iruzurtzea eta engañatzeak ondorenak ekarri zitun. Isabel II'garrena, amairu urterekin eskondu zuten bere lengusu Francisco Asis de Borbón infantearekin. Bere ama María Cristina Frantzia'ra bialdu zuten, gobernu osoa Espartero'ren eskuetan utzirik.

Orduan España'ko Konstituzio bernia eratu zuten 1845'eanean Espartero'k egiiiiko Euskalerrri'ko kalte guztiak onarturik.

Urteak pasa ziran eta 1868' an Erregin Isabel II bota eta Errepublikak sortu zuten. Frantzia'ko Iraultzaren espiritu txarra areagotu egin zan, Erljio eta Foruen aurka. Eta euskaldun askok armak artu zituzten eskuetan aurreko karlisten gerra artan bezela, beste Don Carlos de Borbón batek, VII'garrenak, beste eskubideak zaintzeko, dei bat egin zienean, Fuero eta Erljioaren aide. 1872'garren Apirillaren 21'teko deia.

España'ko Konstituzioaren aurkako burruka.

Lenengo gerratean Zumalakarregi eta bigarreanean Santa Kruz izan ziran euskaldunik ospetsuenak.

Bergara'koa baiño negargarriagoa izan zan Amorebieta'ko itzarmena eta saldukeri aundiagoa... Lau urtez Euskalerrria ondatu ta gero, amaitu zan 1876'garren urtean, karlistek sortutako gerra.

Naaste aretan, Serrano Jeneralak, bere gudarosteakin, Madrid'en Errepublikak kendu eta bere ordezkari Alfonso XII, Isabel II'ren semea, ipiñi zuen erregeaulkian. 28 urterekin il zan eta bere emazte María Cristina de Hamsburgo'koak semea izan zuen, Alfonso XIII'garrena.

María Cristina au ere Errege-ordezko izan genduen. Amasei urterekin ezkondu zuten Alfonso XIII 1902'an Victoria de Battenberg, Ingalaterra'ko Erregearen illobarekin.

1923'an Primo de Rivera Kataluniako Jeneralak, kolpe baten bidez, Espaiña'ko Gobernua here esku gogor artzen du Abertzale agerpen guztiak kenduz. Sei urte geroago, agintaritzak laga eta Frantzia'ra iges egin zuen.

Urte bateko Gobernua Berenger Jeneralaren eskuetan gelditu zan Autezkundeak egiteko aginduz. Egin ziran Botaziño orrek eta Errepublikanoak irabazi Monarkikoen aurka. Udaletxeetako zinegotziak ziran tarteko. Alfonso XIIIk errerepublikanoak erabazi zutela ikusi zuenean, Erroma'ra aide egin zuen II Errepublikari bideak erreztuz.

Bigarren Errepublika au Erliñoaren aurka ez zan Lenengoa baiño ohea: baiña eskuetan Estatuto bat zekarren euskaldunentzat eta pozik onartu genduen eskaintza ori.

Euskaldun guziei dei egin zitzaizen Lizarra'ra (Estella'ra) Estatu orren aide danok alkarrekin jokatzeko. Aizken orduan Karlistek, Lizarra'ra jo bearrean, Iruña'n alkartu ziran.

Errepublikak gogor ekin zuen Elizaren aurka eta orretzek eragin zien Naparroa'ko Karlistei, Mola Jeneralarekin batera, gerra berri batean murgiltzea. 20.000 txapelgorri jeiki ziran batera, eurentzako Irugarren Karlistada onetan. Errepublikar gorroto zioten. Gipuzkoa eta Bizkaia'k eskuetan zekarren Estatutoa nai zuten eta areri begira daudela, ustekabean, napparak eta arabarrak zituzten bizkarretik erasoka...

1939'an galdu zuten burruka, eun urtez, 1839, Espartero'tik onuntz. Arrek Fueroen Arbola ebagi, eta gelditutako mokorra, Franco'k desegin.

"Betikoa Jainkoa" eta Franco berbera be il zan.

1975'ean, batetik bestera, Konstituzio berria. Euskaldun geienek ez zuten onartu, Espartero'ren gaitza berbera zekarrelako bere erraietan. Orduko arazoa au zan: "Se confirman los Fueros... sin perjuicio de la unidad política de la Monarquía" eta ondoren azpitik ebagi arbola guztia. Eta Franco ondoren (1978) egiñoak diona da, gudarosteak gordeko duala Espaiña'ren "unidad política" ori.

Beraz, lengoetan gaude, Espartero'ren denboretan; baña, okerrago. Orain meatxu egiten digute militar gudarostearekin.

Ez genduen onartu eta arrazoi osoz.

Salburuan, Alderdi Egunean, Iraillaren 27'an, esandako itzak Espaiña'ko ollategi osoa kakarakaz bete du. Zertzuk esan ez dituzten!

Felipe Gonzalez'ek, ETA'ren geldi unea, Espartero'rekin naasten du. Garaikoetxea'k garbiago diño: "La Constitución tiene la misma trampa que Espartero".

Espartero'ren garaietan baziran euskaldunen artean Espartero'ekin bat zetorzen liberalak... Ori, azken batean, askatasunaren frutua da.

Baña, 1978'garren urteko Konstituzioa euskaldunik geienak ez zuten onartu. Eta, ori Demokraziaren frutua da...

Deba'n Urrillak 1. 1998

ARRINDA'tar Anes



GUZTIOK MIXIOLARI

Apostoluek izan ziran antzera, geuretako bakoitzak ere, Jesus'en Eleizean, mixiolari izan bear dogu. -"Zuek zerate -dio Jesus'ek- argia eta gatza..." Argia, illunpetan dagoen munduari, argi egiteko. Eta, gatza, bizirik, usteldu gabe, munduari iraun arazteko...

Mundu berri baten azia ere bagera; baita iriñetan ipintzen dan legamia ere... Argia, gatza, azia, legamia: Orra zenbat gauza batera...!

Xabier'ek urruneko Indietara jo zuan Jesus'en Berri Ona eramatera. Eta, andik miñez idazten dau, Paris'en ainbeste jakitun bizi zirelako, indietara bere jainkoaren berri eramaten saiatu gabe.

Apostoluek Jerusalem'dik asi ziran Jesus'en Berri Ona zabaltzen; baña, andik aurrera jo zuten, munduan zear, Eleiza berriak sortzen.

San Pedro Erroma'raiño eldu zan. An sortu zuan Jesus'en Eleiza eta bertako Gotzaia izan zan. Arrezkero, Pedro'ren ondorengo Gotzaiek, Aita Santu izango dira eta Eleizearen buru.

San Pablo -Saulo zuan bere izena- gaztaroan gorroto bizenaz kristauen aurka ibili zan. Jerusalem'go kristauak kartzelan sartzen saiatu zan. Geroago orixe bera egin nai izan zuen Siria'ko Damasko deritzan uri nagusian. ara zijoala, bidean Jesus agertu zitzaion: - Saulo, Saulo, zergaitik zabilta nere aurka? -Zein zeera zu? -Ni Jesus naiz...

Egun artan itzuli osoa egin zitzaion Saulo'ri bere bizikeran gorrototik maitasunera biotza pasatuz, erasotzallea Apostolu bihurturik. Arrezkero lanik aundiena berak jaso zuan apostolu lanetan, batez ere jentillen artean.

San Pedro, Santiago eta San Juan'ek judutarren artean zabaldu zuten Jainkoaren Erreinua dan Jesus'en Eleizea: Saulo'k berriz, jentillen artean. Baña, judutarren arteko kristau egin ziran zenbaitzuk, jentillak, kristau izateko, Judutarren Legea artu bear zutela, esaten zuten. Oien aurka jeiki zan Saulo (San Pablo)... Sortu zan eztabaida argitzeko, Jerusalem'en Konzilio bat egitea asmatu zuten. Otoitz egin ondoren, auxe da artutako erabakia: -Kristau egindako jentillei pakean uzteko.

Saulo (San Pablo) Siria, Turkia eta Grezia'ko errietan ibili zan jentillen artean kristautasuna aldarrikatzen... Gero, Jerusalem'dik Erroma'ra preso eramán eta an ezpataz lepoa moztu zioten. San Pedro, berriz, Batikano'ko muñoan gurutzean josi.

Espiritu Santuaren garrak eragiten zien Apostoluei eta gar orrek frutu ederrak eman zituen: Millaka kristau egin ziran eta Berri Ona erein zuten munduan zear... Gotzai, apaiz eta kristau guztiek zabaldu zuten Jesus'en Jainko-Erreinoa eta gaurko kristauak geu gera. Geuk zabaldu barko degu Berri-Onaren Eleiza, geu bait gera Jesus'en oin, esku eta ezpañak...

ERROMES DOAN ELEIZA, JAINKO-ERREINUA-REN EZAUGARRI

Aitarengana joan zan Jesus'ek, berriro etorriko dala, agindu zigun. Bitarte orretan bere Eleizea erromes doa Jesus'en bidera, mundu eta gizaldietan zear. Espiritu Donea, bere argi eta indarez, Eleizearen eutsigarria da, onek aurrera egin dezan beti bere eginbearra betetzen, pakealdian bezala eraso-aldietan ere.

**x

Eleizearen lana, Espirituaren grazi-laguntzarekin egitekoea, auxe da: Jaunaren Berri Ona munduko baztar guztietan otsegin eta zabaldu, Kristauen sinismena eta maite-alkartasuna gorderik.

Onela zion Jesus'ek:

Zoazte mundu zabalean zear Berri Ona aldarrikatzerá. Sinistu eta bataiatzen dana, salbatuko da...

Arrezkero Eleizarako atea Bataioa da. Bataiotik asten gera guztiok bat izaten: Bataio bat, Sinismen bat, Jaun bat, Eleiza bat... Poz eta naigabe artean, Jesus'en itzulerean zai, itxaropenez beteta, aurrera doan Eleizea... Ura itzultitakoan, orduan aitortuko dute, zeruan eta lurtean eta lurpeetan, Jesus dala Jauna, Aita Jainkoaren aintzarako.

Eleiza Jainko Erreinuaren ezaugarria da, baña judutarrentzako ostopo izan zan eta jentillentzako txorokeri bat. Sakramentua da: kanpotik ikusten dan seiñale bat; barruko ikus-eziñak adierazten dituguna. Sakramentuak sinismena eskatzen du; sinismenik gabe ostopo eta txorakeri gertatzen da...

Jainko-Erreinoa santua da eta Eleizea ere bai Jesus bere sortzaillea santua dalako, erakutsiak eta sakramentuak santu diralako... Baña, Eleizea aurrera eramaten saiatzen diran kristauak ez dira santuak, santutasun bidean jarrai nai duten gizakiak, baizik... Oñarri oñarrian, pekatarri utsak, ergel utsak, ezjakin utsak... Alaz ere, "nire argaltasunean ezagutzen da Jainkoaren indarra", dio Pablo'k... Benetako ezaugarria Eleizan eragiten duan Espiritu Donea da...

Jainkoak bere ezaugarriak banatu ditu gizakien begien aurrean: Izakia bera da bat: "Jainkoaren ikusi-eziñak, Berak egin dituenai begiratuta, ikusten dira", dio Pablo'k. Ori berbera, ikus nola esaten duen Gurutzeko Joan Santuak: " Paso por estos sotos / con presura / y hi ndolos mirando / con solo su figura / vesstidos los dejo de su hermosura".

Israel Erria izan da beste agerpen bat bere Bibliaren Testamentu Zaarrarekin. Baña, ezaugarririk argiena Jesus berbera izan da, naiz-eta askorentzat ostopo gertatu. Jesus'en ondoren Eleiza...

Asieran esan degu, bataiatu ezkeroz, geu gerala Eleiza. Geu gera ezaugarriak, sinismen eta maitasunezko bizitza daramagunean; ostopo ere bai, okerkerian bizi ba'gera. Geu gera, ekaitzetik ermitatxora, babes-billa, datorren kala-txoriak atarian billatzen duen burni-esia... Eleizan sartu nai du, arengan sinistu nai du, baña... gure bizikera ikusi-ta, atzera egiten dio biotzak.

BAKOITZA BERE LANERA JAINKOAREN ERREINUA JASOTZERA

Jesus'ek Eleizari bere Espiritua bialdu zion eta, arrezkero, Espiritu Done oNek darabil Eleiza gizaldietan zear. Argi, jakinduri eta maitasunezko doaien emaillea dogu. Espiritua bakarra izanda ere, bere doaiak asko dira, eta bakoitzari doai berezia ematen digu. Guztiok balio degu zer edo zertarako; iñork ere ez, gauza guztietarako.

Espirituak berak nai duen eran eta neurrian banatzen ditu bere doaiak: Bakoitzari berea, Eleiza danon artean oatu dezagun.

Gorputz bakar bat gara Jesus eta gu. Gorputz orren Espiritua ere bakarra da. Geure gorputzean atalak dauden antzera, daude atalak Eleizan; baña, ez guztiak berdiñak. Ez gara guztiok oin; ez esku ta ez begi... Gorputza osatzeko danetarikoak bear dira.

**

Iru talde nagusi ikusten ditugu Eleizan: Sekularrak, apaizak eta erlijiosoak. Talde bakoitzean bereiztasunak daude.

Sekularrak dira ugarienak eta munduko lanetan dute euren ogi-bidea; geienak eskondu egiten dira eta euren etxea aurrera eramaten igarotzen dute bizia-elkarteetako lanetan diardute...

Apaizak Gotzaiaren laguntzaille dira Eleizbarrutiaren lanetan: Errietako parroketan, gotzaitegian, kapellautzan... eta lan oietan dute ogi-bidea.

Erlijiosoak, giza-emakumeak, elkartean bizi dira ekin-tza bereizietarako: Gaxotgietan, eskoletan eta abarretan. Baita otoitzean, lanarekin batera. Ora et Labora, Otoitz eta Lan, da auen ikurra...

* **

Eginkizun eta serbitzu auek, eta beste zenbait, betetzeko, talde bakoitzari (talde bakoizean kristau bakoitzari) doai eta karisma edo gaitasun bereziak ematen zaizkio. Zertarako? Eleiza, edo Jainkoaren Erreinuaren alde, lan egiteko. Mota askotako gaitasunak dira, mundu onetako eginbearrak asko diranez... Talde bakoitzari bere karisma bereziak eta talde-barruan bakoitzari berea...

Eleiza, bere sorreratik, Jesus'en Espirituak darabil eta onek erein ditu gaitasun ta karisma ezberdin oiez, serbitzu ezberdiñak bete aal izateko...

Euskalerriko Elizbarrutietako Gotzaiak Iruña, Gazteiz, Bilbo eta Donostia'n bizi dira. Bakoitzak baditu apaiz-moltsoak... Erlijiosoak ere ez dira falta:

Monastegiak: Gizonezkoak: Beditarrak: Nafarroa'n 1 Leire; Araba'n 1 Estaibalitz; Gipuzkoa'n 1 Lazkao.

Zizterrekoak: Nafarroa'n 1 La Oliva; Bizkaian 1 Zior-tza. Emakumezko Monastegiak: Beditarrak: Nafarroa'n 2 Lizarra eta Lumbier; Gipuzkoa'n 1 Oñati. Zizterrekoak: Nafarroa'n 2 011oz eta Tulebras; Gipuzkoa'n Lazkao; Araba'n 1 Oion. Otoitzari emandako ordenak: Danetara 5 gizonezkoenak eta 99 emakumezkoenak... Auek Jesus'en agindua betetzen dute: "Etengabe otoitz egin".

“H'AK SALBATU DU EUSKERA”.

Orixe esan digu euskalzain oso batek. H'ak salbatu ba'du Euskera, toki ederean gaude...! Salbatu, ez dakit; baña, eragozpen galantak ipiñi, bai. Salbatu? Nundik eta zeñengandik salbatu? Bera bai salbatu dala H'ren Euskera Batuari esker!

Bayonako Zina Eta Mezua deritzan agerpenak, izen zerrenda bat du berekin. Zerrenda orretako sail batek bai, oiek beuren buruak salbatu dituzte Euskera Hatxedun Batuari esker. Euskeraren aginpidea euren eskuetan dago. Eta gaur, Euskera, bei emankorra da.

Aspaldi onetan or ari dira Euskalzaindiaren ganako begirune eta errespeto eskatzen; eurok egun batean ukatu ziotena. 1971'garrenean ain zuzen, iraultza egin zutenean Euskaltzaindiaren bizkarretik.

“Euskal Idazleen Elkarteko lagun geranok,

1970 –garreneko Martxoaren 29-an, BATASUNAREN KUTXA liburuan agertzen diren euskerazko idaz-moldeak aztertu ondoren, erabakiok artu ditugu:

1/. Liburuaren argitaraziotik 1971-garreneko azken egun arte, hemen agertzen diren moldeez eta erregelez baliatuko gara.”

BATASUNAREN KUTXA: “Gabriel Areztik eta Xabier Kintanak moldatutako liburua” dio bigarren orrialdean eta azalean berriz, auxe: “Mitxelenaren promesaren pean”. Ondoren datoz (9 orr.) Kutzaren Giltzarien Oharrak, Patxi Altunak, J.L. Alvarez Emparantzak eta Gabriel Areztik siñatua.

Ondoren dator (13-15) or aurrean idatzitako BAIONAKO ZINA ETA MEZUA.

Euskaltzaindiari bizkarra emanda zebiltzen, Luis Mitxelena eurengana erakarri ondoren. Luis Mitxelena jaunak “argumento biológico” aitatu zuen bere erabakia garbitzeko: Zarrok ilko zerazte eta gazteok biziko eta irabaziko.

Arantzazuko billeran, 1968, Batu au sortu zan egunean, itz gogor askoren artean, au entzun omen zan: Ilko zerazte! Bai, danok ilko gera; baña, eriotzak edonola egiten ditu bere aukerak...

Baionako Zinu eta Mezu'aren irugarren atalak onela dio:

“3/ Bitarte horretan hartutako zuzenketa guztiak eta liburua bera, Mitxelena jaunari emanen zaizkio orduan giltzarien eskuetatik, et berak erabaki beharko duena behin eta betiko beteko dugu.”

Baña, Mitxelena ez zan Euskaltzaindia; aietako bat besterik ez zan. Batek erabakia beste guztiak “behin eta betiko” beteko dute. Etorkizuneko gazteek ez dute ezer aldatzerik. Eurok iraultza egin zuten, aitaren etxeko gurdia ankaz-gora bota zuten, Paris'tik berri bat ekartzeko. Ango Maiatzeko (1968) ikasle gazteen iraultza, oiartzuna izan zuen Arantzazun (1968). Baña, “behin betirako”; ez da geiago

iraultzari eskurik emango. Zapuztu dira ondorengo iraultza guztiak. Eta, Hatxea da iraultza orren "Símbolo Plástico". Guk ez degu izen ori asmatu.

Dударик badezu irakurri seigarren Zinaren atala:

"6/ Hemen hartutako erabakiak beteko ditugula
zin egiten dugu geure ohoreagatik.

Baionan, 1970-garreneko Bazko-igandean.

Eibarren, 1970-garreneko lehen maiatzean."

* * *

Au da Euskaltzaindia berriaren sustraietako arra. Iraultza egin dute Euskaltzaindiaren aurka eta Euskaltzaindia berriaren jabe egin dira. Iraultza egin dute, aurrera egin bearrean, atzera eta 50 urtez betetako lanak baztertu eta bide berria atzeruntz artu. Bitarte orretan, euren bide berri ori artuko ez dutenak madarikatu:

"LUR/KRISELU/HATSAPENAK euskeraren batasunaren serbitsuan jartzen dira. Beren hautapen-kontseiluak, Gabriel Aresti, Xabier Kintana, Ramon Sazarbitoria eta Ibon Sarasolarekin osaturik dagoenak euskal gaiztoko dialekto mordoiloetan idatzitako lanak ukatuko dituela jakin-araziten du, eta bide batez euskeraren batasunik nahi ez duten euskaldunak euskeraren eta Euskalerrriaren etsaiak direla deklaritzen du." (Euskal Elerti, 69. LUR editoriala. Donostia. 1969. 547 orrialdean).

* * *

Auek ziran bide berrietako gazteak; baña Gaztetasunaren gaitza berez sendatzen da. Orain zartzarorako bidean daude. Euskera bei emankorra gertatu danean, kontuz ez dedin errapera iñor gerturatu Hatxea eta Batasun atzerakoi ori artzen ez dutenak. Iraultza egiña dago "behin betirako". Gaurko gazteok arazo orretan ez dezute ezer egiterik; dana dago betirako ondo lotua ("atado y bien atado". beste arrek esan zuena berbera).

Asmo guztiak, ordea, ez zeuden orretarako. Don Manuel Lekuona, Euskaltzaindiaren lendakarizatik une orretan bota zuten. 1924'garren urtean, Gazteiz'ko Seminarioan, Kardaberaz Akademia sortzailleen buru zan. Eta, 1970'ean, Kardaberaz'en 40 urtemuga aitzaki zala, Akademia ura berritu genduen eta berriro. Don Manueleri lendakaritza eskeiñi, ordurarte Euskaltzaindiak agindutakoak betetzeko asmoz. Bereala inguratu ziran berreun lagun, geienak idazleak: Lino Akesolo, Santi Onaindia, Augustin Zubikarai, Anbrosi Zatarain, Urrestarazu "Umandi". Aita Laffite, Gabriel Manterola, Damaso Intza, Nemesio Etxaniz, Antonio Labayen, Jaime Kerejeta, Zaitegi Jokin, Yon Oñatibia, Bedita Larrakoetxea (Shakespeare'ren 37 lanak bizkaiera euskeratuak), Onaindia Alberto, eta abar eta abar..

Geroago, Euskaltzaindi berria, bideak utzita, ertzeraño zebillela ikusirik, Kardaberaz'tik Euskerazaintza Erri-Akademia sortu genduan, Madrid'eko Jaurlaritzatik eskubideak lortu ondoren, Gazteiz'kotik ere bai, lortu genduzen.

Zarrak omen gera eta esiz inguratu eta iltzen utzi, beste erremediorik ez omen degu. Baña, ideiak ez dira lotuta iltzen. Arrazoia geuk degu; gauzak oker egin ziran eta indarkeriz mundu guztiari ezarri. Gaur egun Euskeratik bizi dira zenbaitzuk eta ortik jan nai ba'dezu, Euskaltzaindiak esandakoa bete bearko dezu. Baña, gu ez gera Euskeratik bizi, ez orain eta ez leenago. Orduan Euskerari serbitzea, poltxa zimurtzea zan bizirik eusteko. Lan pozgarria. Bizirik eutsi diogu beartsu zanean; ez dezaigutela il, orain aberats biurtu danean.

Anes Arrinda
1994

H' REN AUZIA

H'ren defentsatzaille agurgarri bateri

H'a ez dala ikurrin idatzi dezu eta Euskalerri osoan zure idatzia zabaldu. Ori da nunbait zure ustea eta zure gogoia ere bai.

H'ren alde bioloji-arrazoia aitatu izan dute maiz zenbaitzuk. Ez da arrazoi-bide txarra.

Zeorrek ere H'a artzeko arrazoibideren bat izango zenduan, noski. Erreztasunari laguntze arren, ez zan izango... Beste aldekoeri laguntzeagaitik...? Neretzako indar aundirik ez du arrazoi onek, alaz ere beste aldekoan onraz, erabili izan oi det neuk ere neure liburuetan (Juanxo-Txiki, Oto ta Pototo, Euskalerri zaarra eta "Semenoa de Lazkano") H zorioneko ori, baiña, batera uste sendorik gabe.

H'ren alde eta kontrako eztabaida cntzut dut, eta arrazoi-baierik bat bakarria entzun ere bear bezelakoa eta auxa da:

H'a ikurrin dala.

Alde batek jaso du, ikurrin berria, eta beste aldeak leengo ikurriñari. H'gabe ura, eldu dio. Bi aukerak onartzen nituen, edo beintzat, biezako errespetoa eta begirunea nuen.

Zu etorri zera, ordea, nere "eskema-mental-nibeladorea" ausitzera eta apurtzera. Euskaltzaindia'ren buru izateak ematen dizun indar guziekin esaten diguzu H'a ez dala ikurrin. Zure itz orreri Eskolastikan esaten genduen erantzungo dizut: transcat, pasa dedilla. Ez noa ori zalantzan jartzera; baiña, esaidazu, liburu bateri Harrizko Hei7i Hau edo orren antzeko titulua jartzen zaionean. H'a ikurrin bezela ez bada, ez al da gutxienez "traga-la' bat..1

Dana dala eta dena den, nik zure esana onartzen dut: H'a ez dala ikurrin, alegia. Eta orretzekin nere buruko pentsakera-ekilibrioia puskatzen didazu eta, bat-batean, argi egiñ...

H'ak ez du berez indarrik, esaten ez dalako gure artean, Ziburuko baztarto batean ez bada. Andik kanpora (eta andik kanpora bizi gera euskaldunok) H'ak ez du ezertako balio, estorbuak jartzeko besterik...

Berez ezer ez da eta indarra kanpotik artu bear ezer izateko: ikurrin bezela, kanpotik zuen indarra, ez berez. Ezertako serbitzen ez du, ikurrin izateko besterik. Ikurrin bezela indar aundia du, ikm-rinzaleak indar aundia dutenean eta ikurrin bezela artzen duten artean.

Baiña, zuk esan diguzu, Lendakaritza orren indarrez, H'a ez dala ikurriñ, eta esate orrekin H'ari "puntilla" eman diozu.

Ez bait du oraiñ ezertako balio...!

Eta badakizu biolojiaren legeak zer dion: ezertako ez dan Qorputzaren zatia, berez, bere barru-barruko indarrez, galtzera dijoala, galbidean jarrita dagoela.

Biolojiaren arrazoia arrazoi inportantea da.

DEFASADOAK ETA BIBOTEAK

– Oiek dituk desfasados. Ez ditek Batuarik erabiltzen-da.

– Euskaraz ari diranei esateko itza al dek ori? Esan ezak ori euskeraz. Oiek desfasados eta i fasean sartzeko oraindik.

– Desfasados ser dan edozeinek esagutzen dik.

– Erdaldunek serdan edozeiñek esagutzen dik.

– Erdaldunek baietz esatera ninjoan; baiña, ez zekiat erdal-dunak eurak ere desfasados zer dan ulertzen ote duten...

– Ezetz? Des-fasados, fasetik pasiak. Orra gauza garbia.

– Eta, zer fase dek ori? Illargiak ere bere faseak eta bere aurpegiak ba dizkik: ilgora, ilbera, illargi berria, illargi bctea eta tarteko beste guztiak. Noiz zegok illargia bere des-fasean...?

– Nik ori ez zekiat; baiña, persona bat desfaeada noiz dagoen, ori bai bazekiat.

– Ori topikorcn bat izango dek.

– Zer topiko gero! Des-fasados, fasetik kanpora.

– Modatik kanpora, algia? Eta ire biboteak zer dituk fasados ala desfasados?

– Nifasean nago.

– Ilberan ala ilberan...? Illargi berrian ala illargi batean...? Orain ogeita amar urtetik gora, geure gurasoek izugarritzko illematasak zituzten sudurpean...

Bizarra kentzeko tresna berriak sortu ziranean, bibotedunak desfasados gelditu ituan, muturrak garbi. Eta orain ogeita amar urtetik gora bere fasetik pasiak al dituk orain faseadunak...?

– Zergaitik ez...?

– Ilberan zaudetela, alegia...? Zeuk bezela pentsatzen ez duan guztiak dek zuentzako desfasados. Faseak eta modak sortu orduko aldatzen dituk. Moda-apairetan ibiltzea dek norberentzat bistosoia norbere burua agertzeko eta illargiaren antzera gora ta beera ibiltzeko... Orretarako oiñarri gutxi bear da.

– Zuek, berriz, fasc billa atzeraka joan zerazte eta gizonak bere pentsakeran oiñarritan bear dik eta ez bakarrik modan ibiltzeko asmoa. Fundamentu apur bat, edo funtsa fasadoak diotenez, oiñarri bezela... Nere amonak, sudurpean biboteak ezezik, bazuan funtsa ere bere kolkoan eta, badakik zer esaten zuan...?

– Neri ire amonaren esanak ajolik ez didate sortzen.

– Ala ere esango diat zer zion: modak eta faseak, alegia, saku zaar bat dirala, goitik bezela azpitik ere zuloa duena: azpitik ateratako trapuak goitik sartu. Orra zer dan modan eta fasean egotea. Zuek orixe egin dezute: desfasatuta zeuden trapuak azpitik atera eta gaiñean ipiñi eta ori onartzen ez duen guztia desfasado bezela jo.

– Zuek ez dakizute gaurkotasunaren berririk. Arri biurtutako dinosaurios batzuek besterik ez zerate.

– Soñeko bat izan guztokoa eta illargiak in batera aldatzen ez ba' dezu, ori al da desfasados izatea? Emakume gazteak aldatzen dituzten beuroen soiñekoak goizetik gabera emeretz aldiz, sakela bete diru kostata, ordea.

– Zuekin izketan egitea alperrikako lana dek, eta banoa zuekin.

– Faseak laister alda oi dituk. Moda ez dek sekulan geldi egoten eta zuen faseak buelta ematen asia dek. Agur, agur eta bueltara arte.

ANES (1971)

"IKASTOLAK ETA H'A"

Ikastoletan ari dira batzuk ia H'rik zergaitik erabil-tzen ez duten galdezka, indarrez H'a sartzeari eragin nairik. Arrazoi "peregrinoak" erabiltzen dituzte ande-reñoai indar egiteko:

– Zuen umeak atzeratuak geldituko dira, "desfasa-tuak" eta abar...

Badirudi profeten aoz ari dirala eta etorkizunaren berri iñork ez bezela, dakitela.

"Lo dijo Blas, punto redondo".

Pontifikatzaille berriak sortu zaizkigu Euskal-errian eta zertan pentsaturik ez degu. Len tonto ba gaude ain-beste fut-bolekin, orain, berriz, geure-geureak diran arazoetan ere bearrik, eta buruausterik ere ez. Eurak, "apez-piku" korbatadun berri auek pentsatuko dute gure partez.

Ori duk mutiltxo! Beti amaren gonapean.

Atzeratuak eta "desfasatuak"? Zeintzuk? H'rik era-kusten ez duten ikastolak, ala H'ak zintzurreraiño sar-tzen diskien ikastolak? H gangar orreri utzi egiozute pakean, pakerik nai baldin badezute.

H'ak indarrez sartzen badizkiozute umeai eta lan al-perrikakoak jartzen beuren bizkar argaletan, eurak izango dituzute epaikari eta juez urte asko baiño leen. Orduan, ezaguera izango duten orduan eta gertu dago:

– Zergaitik eragin diguzute ainbeste lan alperrika-ko? Abuso galanta egin dezute gurekin gure auleria aprobetxatuz.- Esango dizute.

Elizari esaten diozute ez lukeela bere dotriñarik umeai irakutsi bear (zuek zuen ideolojiak egiñ-alan za-baltzen badizkiozute ere) eurak aukeratu lezakeen ar-tean. Eta bitartean, zuek ari zerate, inportantzi gabeko gauza batean, H'ren uztarri aztuna umearen sorbaldan indarrez jartzen.

Nun dezute askatasun-zaletasuna? Nun dezute ande-reñoi errespetoa? Ikastola-zuzentzaileei begirunea? H'rik nai ez dutenak, zergaitik menperatu nai dituzute eta nai ez duten bideetik sartu arazi?

Wren ikastolak, biar zuen epaikari izango diran umeak ezitzen ari zerate, eta, setakeriz, bear ez diran lan aztunak lepogaiñean jartzen, alperrikakoak dirala-ko, H'ak ez bait du bioloji aldetik bizi luzerik. Zenbat eta H geiago, ainbat eta pixua aztunago, orduan eta H'ren eriotza leenago.

Bide onetik dijoazen ikastolai utzi, mesedez, pa-kean. Pedagojiak ere zuen H'ri buruz esan bearrik izan-go dula uste dut, ikastoletako lanetan. Kuadroa, on zuek ezagutu edo ez, alderantziz ari zerate margozten. Ori bai, esagutu bearra dago, oso "moderno" da...

ARRINDATAR ANES
(1978)

≠ ≠ ≠

IPUIN-SARIKETA

(BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN)

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k, urte guztietan lez aurten be, ipuin-sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

Ipuiñak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskal-
kia erabilliaz idatziak izan bearko dabe eta idazke-
rea, EUSKERAZAINTZA'k argitaratua eta ZER
aldizkarian erabilten dana.

Ipuiñak asmatuikoak edo errian batuak izango
dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.

Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez
idatzita eta bitarte bi dirala. Sari irabazten dabenak
ZER'en argitaratuko dira. Saririk irabazten ez dabe-
nak be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena
emoten dauanean.

Azillaren azkenerako EUSKERAZALEAK AL-
KARTEA'ren etxean (Bilbao'ko Colon de Larreate-
gi, 14, 2.º eskoia) egon bear dabe. Abenduaren
azkenerako emongo da maikoen erabagia eta
ZER'en agertuko da, Urterrillean, baita DEIA
Egunkarian be al bait lasterren.

Sariak lau izango dira:

- 1.º 40.000 pezeta.
- 2.º 30.000 pezeta.
- 3.º 20.000 pezeta.
- 4.º 10.000 pezeta.

Ipuiñak izen-ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki
baten barruan izen-ordea ta izena.

EUSKERAZALEAK

INAUTERIAK ETA ARATUSTEAK

—Gogoratzen aiz, Joxe, nola gebiltzan aterik ate, erriko kaleetan, Ostegun Gizen egunean, onela kantari:

Otsaliko, Otsaliko
nik otsoa biziik ilko;
okela bat eta okela bi
nere burruntzie bete bedi?

—Burruntzia eskuetan genduela, saiaski, solomo eta Iukaika-zatiren baten zai.

Bañas Ataun'en era onetekoa zan abestia:

Otsaliko, Otsaliko
ni basora joan da
otso aundi bat
ekarriko, ekarriko.
Nei lukaika mutur bat
ematen ez diñai
tripati aun-ea burruntzie
sartuko, sartuko...

—Ataun'en basatiago dituk Lazkao'n baño. Napparroa'ko Huizi'n, berriz, onela?

Zistor, miztor,
emakunde.

Zer esan nai ote dau Emakunde berbak?

—Emakunde, Gizakunde eta Orokunde, orra iru itz alkarregaz zer ikusirik badutenak.

—Zer esan nai dabe?

—Ona beuren esan naia:

Gizakunde zan gizasemeen eguna.
Emakunde, emakumeena.
Orakunde, guztiena.

—Eta, zer dira iru egun onek?

—Iñauteri aurreko iru ostegunak edo eguenak, era onetara:

Gizakunde egunean konbita andreak egiten
eutson gizonari.
Emakunde egunean, gizonak andreari.

Orakunde egunean, zer?

—Batak besteari. Orra Iñauteri edo Aratuste aurreko iru ostegunen festak.

—Eta, Iñauteriak zer dira, ba?

—Iñauteriak, Aratusteak, Zaldun iyoti eta Karnabalak danak dira bat.

—Karnabalik gabeko erririk ez zan gure artean: Mamuak eta mozorro-jantziak baztar guztietan.

—Iñauteriak ez ziran gaurkoak: 1682'garren urtean, San Juan, San Pedro eta San Marzial'eko iñauteriak debekatzen dauz, alkateak Oiartzun'en.

—Sanjuanetan be, egiten ebezen Aratusteak ,ala?

Orduan, bai. Geure egunetan, ordea, Kandelariotan (2—IT) asita Austerre egunerarte irauten eben karnabalak Oiartzun' en.

T Jantzi, zelan jazten ziran?

—Buruan ardi-narruagaz egindako mozorro bat; andrearen soñeko bat edo oiaren estalkia. Eskuetan, berriz, "Sorgin-Goizak" (Sorgin-artasiak).

Bañan, zer da mozorro?

—Mozorro, zomorro, mamarro, mamurro, mamurra ta mamu izen eta berba berdintsuak dira.

—Zer esan nai dabe?

—Karnabaleko jantziak eta izate txiki itsusiak, sorgin txikiak...

—Galtxorri eta Familierrak en antzekoak? Eta zer-ikusi dabe Kamabalekin?

—Izena antzekoa eta gañera izate txiki oiek, jostorraz-on-tzitxo batean gordetzen diranak, orretzek ematen deutsez aztiei beuren indar bereziak

—Aztiak orain, berriz?

—Aztiak be, ardi-narruz jantzita ibilli oi ziran aztikeriak egiteko; ardi-narruz eta edozein abere-narruz.

—Karnabaletan: xintxariak be, izaten dira.

—Bai, galantak Zubieta eta Ituren'en; eta dantzarien anketan ugariz.

—Dantzak be bai.

Sorginak, aztiak, abere-jantziak, txintxariak, dantzak... Ez ote dute zer ikusirik gure arbasoen leize zuloetako bizi-erakin?

—Koba-zuloak ez al dagoz urrun?

—Geure sustraiak be urrun dagoz. Koba zuloetan izaten ebezan geure aurrekoek euren elizkizunak: an egiten ebezen euren aztikeri eta sorginkeriak animalien marrazki-aurrean... Aztiak mozorroz jazten ziran sorginkeriak egiteko; sekulan be ez, giza-itxuran. Ritual-dantzik ez zan paltako.

—Nik usten dot, orrela mintzatzea, gauzak urrunera eramatea dala.

—Gure zuzterrak koba-zuloetan ba'dagoz, geure odola andik ba'dator, geure oituren kutsua (Iñauteriak dira orretariko batzuek) be, andik datoztela pentsa genezake. Badogu orreterako eskubide.

—Baña, ez dozu esan txintxariak zertarako diran?

—Espiritu txarrak uxatzeko, urrunera botetzeko.

ANES ARRINDA



**Eusko Jaurlaritzaren
Laguntzaz.**

Kultur Saila'k diruz lagundutako aldizkaria.

INDARKERIAREN ITURRIAK (LENGO LELOA BARRIRO)

Ikastolatik al zatozte?
Ez. Gaur ez degu ikastolarik.
Zer, ba...?
San Jos de Calasanz dalako. Bera bait da eskoletako zaindaria.
Baita, baita.
Ara, zine bat ikusi nai izan degu Donostia'n arratsalde-pasa.
Eta, zer dago gaur ikusteko.
Zine batean "Carlos el Terrorista ematen dute...
Ederra kontua!
Bestean. berriz "Adios Tio Tom": beltzeeri, morrontzan indarrez beartu zituztenean, egin zieten astakeri guztiak bizi-bizi jartzen omen dituzte...
Ori ere bai?
Beste batera joan gera eta an, berriz, "I... de Icaro": Ameriketako lendakaria nola il zuten, alegia.
Arraioa!
Laugarreanean zera arkitu degu: "Les llamaban y les llaman sinvergilenzas": ez omen diote ñori pakean uzten.
Bosgarreanean, zer...?
Ikusirratira joan gera eta an "La pistola sumergida" ikusi degu.
Oiek danak gaurkoak dira?
Bai. gaurkoak.
Biar suerte ohea izango al dezute...!
Biarko "Forajidos de Leyenda" omen dago programatuta.
Ba, ez da zerrenda makala...!
Ori bakarrik ez: baita beste emakume polit bat ere: "Gloria pistola bat eskuan duela...

* * *

Azaroaren 27. Osteguna.
Begira gaur bertan zenbat, indarkeri erakusten duten eskola, irikita dauden gure errian, Donostia'n, bakarrik. Zoaz errietako zineak ikustera eta ikuspegi oberik ez dezu arkituko.

Zer pentsa?
Indarkeriaren errua Ikastoleeri ezarri nai dizkie lepotik zintzilik.
Erreza da aker bat billatzea beste guztien erruak ordaintzeko.
Erruen lerroak zabaldua daude nun-nai. Makiña bat aleku badago indarkeria ikasi aal izateko. Errez asko.
Zer azi erein, uzta alakoa. Indarkeriaren aziek nunnaitik zabaltzen dira eskuak-bete...

Laister datoz Gabonak eta Erregenak. Ikusiko degu zer jostailu eskeintzen zaizkien gure umetxoeri beuren jolasketarako... Ez da pistolarik faltako. Izantgo da eskopetarik eta guda-tresnarik...

Egunero gertatzen zaizkugun gertakizunak dira eta oien aurrean ez degu azta betazalik ere mogitzen, gauzak orrela bear baluteke bezala.

Era orretara jokatuta, zer ondoren sortuko da gure artean indarkeria ez ba'da...?
Terrorismoa indarkeri orren ertz bat besterik ez da.
Nun erakusten da indarkaria?

Arrinda'tar ANES
16-XII-1980

AMARI

Amaren itz ederra...
Zer esan nai deutzazu
seme maiteari...
Zabaldu biotz ori,
odolak entzun daion
amatasunari.

Itxasoa iduri,
errukiaz beterik,
amaren biotzak;
ezagutzen dan itzik
maitetsuentzat zaukaz
biguntasun utsak.

Semearen jaiotzan
erdibi egin ziñan
aurtxoa sortuaz;
nekeak eta miñak
poz bihurturik, gero,
aurraren zeruaz.

Umearen negarrak
zer sorterazten deutsu
biotz sakoniam...?
Odol bera minduta
zelan ez dau asmauko
amak min semian...?

Irriparreka dago
udabarri-giroan
umea pozetan;
biotz bi bat ein dira
aragi ta odolez
maitasun itzetan.

Aurtxoa lotan dago
seaskatxo barrian
zorion artian:
amesetan dabilgaz
ama eta semea
zorion utsian.

PAULIN

IÑIGOREN IZEN-ABIZENAK

Iñigo Loiolakoak *iru izen* erabili ebazan bere bizitzan: Eneko, Iñigo eta Iñazio. Berezko eta asierako izena *Eneko* zan, Azpeitiako papere zaarretan agertzen danez. Erroman be izen orrekin izenpetu eban, Aita Santuari, Jerusalem'era Joateko baimena eskatuz, egin eutsen eskabidean: *Enecus de Loyola*. Ogeita amabi urte ebazan. Badirudi orixe zala bere izen ofiziala: *Eneko*.

Gerora, La Sorbona Paris'eko Unibersitatean sartzeko, izena aldatu eban, Eneko'ren ordez *Iñazio* ipiñiez: *Ignatius de Loyola*. Izen barri ori erabiliko dau baita, Maixutzako agiritan.

Bi Maixutza jaso ebazan: bat Arteetan eta bestea Teolojian. Titulu orrek irakaskintzarako eskubideak emoten ebazan eta eskubide orreik bearrezkoak ebezan bai Iñaziok eta bai bere lagunek be. Andik aurrera Maixu lez agertzen danean beti *Maestro Ignacio* izenarekin egingo dau.

Or daukaguz bere bizitzako aro desberdinbitan izen ofizialbi: asieran *Eneko* eta aizkenean *Ignacio*. ¿Eta, bien bitartean?

Bien bitartekoa dogu *Iñigo*: errian, lagunen artean, senitartean... beti izango da, asieratik amitzeraino, *Iñigo*. Etxean bere Eneko izena Iñigo'ra aldatu eutsoen eta beti, gauza ofizialik ez danean, izen orrekin agertuko jaku.

Eneko, Iñigo, Iñazio eta gaur, barriz, Iñaki.

Orra lau izen gizon ospetsu batentzako.

* * *

Abizenak. Bi etxe ebezan, torredunak: bat mendian *Oñaz* izenekoa; bestea ibarrean, *Loiola*. Etxe onetatik artu eban bere abizena: *Iñigo de Loyola*. Bere aurrekoek oster, *Oñaz* etxetik be artu eban. Zaiñak Iñigori etxe bi orreitatik datorkioz. Beste aurreko batek *Lazkano* artzen dau.

Ona iru etxe eta iru abizen loiolatarren artean: *Oñaz*, *Loiola*, *Lazkano*. *Oñaz*'tik sortu ziran *Oiñaztarrak* eta oneik *Ganbotarren* aurka burrukatzen eban. Alderdi bi burrukan, alkarri erasoten. *Oñaztarraren* buruzagi, *Lazkano* eta *Loiola*.

Burruka giroa, odol giroa... Bitartean, nagusikeri orreri aurpegia emoteko, sakabanatuta egozan etxeak alkarren inguruan *batzen* asi ziran eta orrelan sortu ziran *erri-billak*. Erderazko "villa", nere ustez, ortik sortuko zan, euskerazko "billa" edo "bildutik".

1451'an, Iñigo jaio baiño berrogei urte lenago, Aide Nagusiak, Gipuzkoako jauntxoek, eupadea egin eutsen billa orrei: Deba, Azpeitia, Azkoitia, Tolosa, Ordizia,

Segura, Getaria eta Mutriku'ri. Danen artean Anaidi bat sortu eban alkarren laguntzarako.

Eupada eta eraso au dala-ta, Henrike IV'ak, Aide Nagusien etxe-torreak moztea erabazi eban eta arrezkeroz Loiolako torreak bere goi-zatiak ladrilluz egiñak ditu ariaren ordez.

Gaiñera, egoaldera bialdu ebazan, Ximena ingurura, moroekin burrukatzera euren kontura eta euren soldaduekin. Lau urte iraun eban erbeste arek.

Alaz ere, Erregearen babesik ez eban galdu, eurak eta euren aurrekoak moroen kontrako burruakaitik.

ARRINDA'TAR ANES

GORAGO BETI, ZEURE GOGO ORI...

Serantes inguruan odei gorriak,
eguzkia sartuta mendin atzian.
Illunak asi dira lurrez ganian,
argi dago bakarrik sarkal-ortzia.
Illunabarra...

Astiro, astiro, eguzkia jatsi da...
Aize otzak otzitu daust biotza;
Alaitasuna, ezta neure laguna.
¡Gorago beti, zeure gogo ori!

Itxas erdian dago anai maitia,
Mexiko'rantza duan itxasontzian.
Onantza bigurtzen dauz bere begiak.
Euzkadi da berentzat, gaur sorkaldia.

Eta ikusten dau itxas ganetik
eguzkia jagiten disditsu, gero
abestuten asi da, alai ta bero.
¡Gorago beti, zeure gogo ori!

Gizonen oldozpenak, uts-utsak dira.
Eguzkia ilten zeure begiaz,
ikusi dozu, ta iezta egia!
Gorago beti, zeure gogo ori!

¿Noraño altsa biar dot biotz epela?
Jaungoikuaganaño
Bera da Egia,
Bizitza ta Bidia.

UTARSUS

IRU ERREGEAK

"Iru errege datoz kale nagusitik
tripa ardoz beterik ezin egon zutik;
Meltxorrek eltzen dio Gasparri besotik
ez muturrez aurrera erortzeagaitik..."

Euskalduna beti adar-jotzaille; ez die barkatzen ezta
Sorkaldeko iru Errege zalduneri, ere.

Mago batzuek eldu ziren Jerusalem'era errege-prin-
tzearen billa. Nora joko eta Herodesengana jo zuten.
Onek bertako apaiz eta jaintsueiri galdetu:

—Nun jaiozkoa da Mesias erregea?

— Belenen, dudarik gabe; alaxe bait dago idatzita igar-
leen liburuetan.

Herodes maltzurak dei egin die eta noiztik dakiten
izar arren berri galdetzen die:

—Zoazte eta an-eta aundiz bilatu aur ori, neu ere bera
gurtzeko irrikitzen nago-eta.

Magoak izarretara begira bizi ziren, izarretan bait
dugu geure etorkizuna. Bakoitzak badugu geure izar be-
reizia... Orduko siniskeriak gaur ere: oroskopoiari begira
bizi zaitzu jendea, izarrak nundik alkartuko diren, bizi-
tzan nola jokatu jakiteko.

Gauza arrigarria ikusi zuten: lendik ez zegoen izar bat
agertu da ortzian. Israelgo kulturaren berri bazuten eta
bertan aitutzen da Jakob en izar berria, Mesiasen ezauga-
ria. Bi jakingarri auetatik ondorena atera zuten, Israelen
Mesia erregea sortu zala...

Ondoren erabaki au: gurtzera joango gera.

Zaldia eta kameluak prestatu, erregaliak aukeratu,
Mapa bat erosi eta badoaz eremuan zear.

—Aizu, idazle, izarra aaztu zatzu.

—Ez, adiskide, etxetik Israelera joateko ez zuten izar
bearrik; naikoa zuten Michelin'en mapa bat.

—Eta, zergaitik margolariak beti izar bat ipintzen diete
aurrean bidean doazela?

—Sortaldean ikusitako izarra, gero Jerusalem'dik Bele-
nera irtetzean agertu zitzaizen berriro. Aien poza ura ikus-
tean...!

—Baita, baita.

—Maparen bidez Jerusalem'era. An dakienari galdetu.
Elburua badakite. Lengo abentura orain egi biurtu zaie.
Zoraturik daude pozaren pozez.

Izarrak Aurrarengana lagundu die. Etxetxo batean
seme-amak gurtu eta doaiak eskeiñi. Errege apala bene-
tan: emen ez da arrokeririk, ez aberastasunik, ez indarke-
ririk... Auspez gurtzen dute...

Zenbat zirenik ez digu Mateo doneak esaten: "Mago
batzuek..." Ez errege zirenik ere. Erregeen konseju-emi-
lleak, orixe ziran magoak. Jakintsuak. Huston Zentro Es-
pazialeko jakintsuen antzekoak, denborak eta neurriak al-
datuz... Gizon ausartzak eta fededunak, itxaropenez ibilli
zirenak espero zutena lortu arte. Zorionekoak: abentura
egi biurtu.

ARRINDA'TAR ANES.

*Belen ganean dogu
Dizdira Izarra,
Borondate oneko
Gizonen iparra.
Biderako Argia
Ta maitasun-garra,
Aldatza igoteko
Umiller indarra.*

*Zeru eder guztia
Dago izerratu,
Belenera doiana
Zuzenbide artu,
Desagertutzen bada
Barriro biurtu,
Ta bide zuzenera
Giatuko gaitu.*

B. Pujana

IRUKOITZA

I

"EUSKERA? ILKO BALITZ OBE, EZ BAI DU EZERTAKO BALIO...!"

Baserritafa zan bera.

Baserrian azi ta baserrian bizi.

Euskeraren goraltzak egiten ari giñan bere aurrean: Europa'ko izkuntzarik zaarrena zala, bere mamian jakinduriaren aberastasun ugariak zituala...

— "Euskera...? Ilko balitz obe, ez bai du ezertako balio...!"

Orrela erantzun zidan nik izketan bukatu baño lenago.

Ez dituk ik, gizajo orrek, erru guztiak.

Ez, orixe!

Ire buru-barruan sartu nai nintzake unetxo batean, barru ortatik Euskerarekiko zeak nola ikusten diran jakiteko.

Aleginduko naiz:

Amaren aotik ikasitako Euskera baserri, inguruan ibiltzeko serbitu dizu, baño errira joatean, milla moduko artu-emanetan ez dizu serbitzu aundirik egin...

*

Kultura gai guztiak, maixu erdaldunak, erderaz ematen dizkiote eskolatan ume euskaldunari...

Zu ere, nere baserritar ori, tarteko ziñan. Nekeak ugari eraman ondoren, kulturarik ez buruan, goxotasunik ez biotzean...

Zure iritxirako Euskerak zuan erru onen kulpa guztia.

Baña etzan Euskeraren errua...!

Ez, orixe!

Gizarteak du errua.

Ume euskaldunarekin egiten dan pekatu ikaragarriaren errua ez du Euskerak, Euskera bastartzen duan gizarteak baño...Kulturagaiak ume euskaldunari erderaz ematen dion gizarteak du erru ikaragarria.

Nungo Pedagogiak erakusten ote astakeri ori!?

Arritzeko al da orrela tratatutako umeak Euskera gorrotatzen astea?

Baserrian automobil txiki baten bearra zeukezuten.

Zu ziñan etxeko maiorazgoa ta txofer ikastera kalera jetxi ziñan.

Txofer ikastolan erdera berriz ere.

Tutik entenditzen ez ta buruz ikasi ziñusten galdera ta erantzun guztiak. Amabost eguneko lana, sei illebeta kosta. Ezer ez ikasteko...

Soldauskan pasatakoak etziran obeak izan...

Gaxotu ziñan artan, berriz, sendagillea erdalduna. Aren aurrean, beia beterrinarioren aurrean bezela ikusten zenduan zeure burua...

Eta zure aitaren eriotz aurretik gertatuak? Nola konpondu notario erdaldun arekin?

Ziñera ba'zoaz, erderaz.

Periodikuak, erderaz.

Trenen txartela ateratzeko ere, erderaz.

Donosti'ko kale baten berri jakin nai badezu, erderaz...

— "Ez bai du ezertako balio...!"

* * *

Zu asitzeko eraman dituan nekeak ama zaarra ondatu dute; ez da ezertarako gauza...

Jo mazo batekin eta garbitu zazu, "ez bai du ezertako balio...!"

* * *

"Euskara, irten adi plazara!"

Ori zan atzoko irrintzia.

"Euskera, sartu adi ikastoletara!"

Au bear du izan gaurko irrintzia.

Ume euskaldunari emaiogun euskeraz kultura eta ikasi beza gañetik erdera. Orduan jarriko ditugu gure umeak Euskera maitatzeko bidean.

Beste bideetatik alperrik edo gabiltzala deritxot.

Gaurko egunetan (negargarria benetan) euskaldunak bere etxean Euskerakin bakarrik, eragospenak eta estorbuak besterik ez du billatzen.

Gauza orrela izan da, arritzekoa al da gure baserritar askoren irteera negargarria?

Ez dituzte beurok erru guztiak.

Ez, orixe!

Kontu zaarrak

ITAIA, OILLARA ETA KATUA

Gure arbasoek gauza arrunteen balioa obeto ezagutzen zuten guk baiño. Katuak ez du guretzako baliorik bat ere; itaiak aiña eta oillarrak baiño gutxiago. Ona ipui zaar batek zer dion iru gauza auri buruz.

Aita batek iru seme zitun langabezian eta munduan zear joatea erabaki zuten irurak. Aitak ondasun aundirik ez eta zeuzkanak eman zizkien: bateri oilarra, besteari gariak ebagitzeko itaia eta irugarrenari katua.

Ibilli ziran ibilli gau eta egun. Bigaramonez eldu dira erriska batera eta jende-moltoia topa zuten garia aizkorakin ebagitzen. Gure mutillak bere itaia erakutsi zien eta euren aurrean, unetxo batean, ebagi zitun gariok. Eros zioten itaia eta diruz ondo ornitu gure mutilla.

Pozik ekin zioten irurak bidean aurrera eta egunsentia baiño lenago gizonak lurra jotzen billatu zituzten beste erri batean:

—Zertan ari zerate? Galdetu zien euretako batek.

—Eguzkiari deia egiten; bestela ez dator-da.

— Nik daukat orretarako asmakizun ederra: zuek lo zaudetela, onek egingo dio eguzkiari deia eta etorriko da.

Jar'iz zuten oillarra ikulluan eta egunsentiaren aurretik, jo zuan oillarrak kukurruku eta eguzkia etorri ere bai. Pozaren pozez, eman zien saku bat bete urregorri eta zilar. Aberastuta pozik joan ziran aurrera.

Irugarren erriarekin topo egin zuten illunabarrean. Xaguz eta arratoiez betetako auzoa zan eta erritarrek zebiltzan eurok akabatu eziñik arrika eta makilka. Mutillak atera zuan sakutik bere katua eta tximistak bezin arin arrapatu zituen guztiak. Poztu zirean erritarrok eta nai dan beste diru eman zien katuaren orde. Arrezkero ez dute arrika ibilli bearrik xaguak eta arratoiak akabatze; katuak dauzkate ondo asko zaindutakoak.

Gure mutillok Ameriketara joan bearrik ez aberasteko eta etxera biurtu ziran.

ARRINDA'TAR ANES.

*Ain da indar andiko
Izarren argia,
Herodes-ek iskindu
Bere Jauregia,
Jesus-en erantzuna
Nitzat larregia,
An euki ebalako
Ume iltegia.*

*Mundua askatu zan
Jesus etortean,
Baña etzan on artu
Andien artean,
Bi milla urte eta
Gizonak katean,
ia apurtzen diran
Aurtengo urtean.*

*Etorri da Mesias
Egon giñana zain,
Herodes be artzeko
Jarri jako apain.
Jesus-ek susmaturik
Salketaren usain,
Naiago izan zitun
Abera ta artzain.*

*Munduari dabiltzanak
Beti zuzen pausuz,
Guzurrez epaituta
Kartzeletan dozuz.
Gizonak askatzeko
ordenak dakazuz,
Munduan egiteko
Naiko dozu Jesus.*

EUSKAL AZTARNAK

VII.- ITXAS-ERTZEKO KAIAK

BURDIGALA

—Zer zan Burdigala?

—Novempopulania'ko Uri nagusia (Metropolis) Eauze izan arren, benetako Metropolis, bai ipar-alderuntz Loira ibaiararte eta bai ego-alderuntz Pirene-mendararte, Burdigala zan. Eta nagusitasun ori bi alde auetatik artzen du: Narbona'tik datorkion bide zabalatik bat, eta itxas-ertzak, Garona ibaitik aurrera, ematen diona, bigarrena.

—Orduan, antxiñako Burdigala, oraingo Burdeos degu.

—Burdeos'etik beera or dago, Adur ibaiean, Baiona, garai artako Lapurdum, Erroma'ko gudarostearen egoitza. Onek artzen zuan Burdeos'en sortutako mogimentuaren lenengo olatua. Onen inguruan zeuden Miarritze eta Getari (emen topa dituzte erromatarren salazoi eta eskabexelantegiak); Loitzun eta Endaia, Asturiaga ere bai Bidasoa ibaieren irteeran; andik Pasai eta Donosti; berriro Getari; Deva (Tritium Tuboricum), Artibai-Ondarru, Lea-Lekeitio, Oka-Gernika-Forua... eta azkenik Nervion-Bilbao-Flaviobriga. Andik aurrera Kastro-Urdiales eta abar.

—Erri guzti oietan daude erromatarren aztarnak?

— Bai; Deba'n ez.

Baña, Pomponio Mela idazleak onela dio (bere De Situ Orbis Lib. III Cap. Y): "Deva Tritium Tuboricum attingit" = "Deva ibaiak Tritium Tuboricum ikutzen du"... Idazle guziek esaten dute Tritium ori Astigarribia'n zegoela; zergaitik an dagoen ez du iñork agertzen. An ez dago meatzik (ez zillarrik ez burnirik); an ez dago ura besterik. Ura ugari. Deva ibaiak ur ura ikutzen du, iturburu izugarria bertara datorkiolako eta iturburu ori da Deva ibaia aitatzearen arrazoia eta zergatia. Ez dago besterik.




—Eta, zer da Tritium (Trizium irakurtzen da) Tuboricum ori?

—Trizi, Itzir eta um ori, a = Itziar; Tuboricum = Iturburu'ko da; biak alkartuta, Itziar Iturburu'ko. Iturburu ori Itziar'en dago, Astigarribia-aurrean. Ura bearrezkoa zuten erromatarrek bai gudarientzako eta bai barkuentzako. Barkuak bertaraño sartzen ziran eta iturburu ibaira bertara dator. Ura ugari barkutik bertatik artzeko eran. Onegatik pasatzen zan 34'garren Iruña'rako Bideak bazun "geldiune" bat, Iturissa edo Turissa, oraindik orain Iturrizar izenekin ezagutzen zan erromatarren iturria. Deva ibaiako Iturburuak ere merezi zuen orrelako aipamen bat.

ASTURIAGA

—Zer da Asturiaga?

—Ondarribi'ko Iger maturrean dagoen berezko kaia da Asturiaga. An dago ondoratuta erromatarren barku bat burni-meatzetz beteta eta andik atera dituzte zenbait zeramika-ontzi, urpeko igarizaleak, Kristo ondorengo I eundikoak. Oietako batek aurkitu zuen ur-azpian amazazpi metrora, 1961'garren urtean... An bertan, lego-



KONDAIRA



rean, barkuetan josteko Minerva, Marte, Elios-Eguzki eta Isis-Ilargiren brontzezko ezaugarriak, aurkitu dituzte. Asturiaga'k gaur eguneko "puerto refugio" baten itxura du.

– Eta Irun'go EI Juncal zer da?
 – Bidasoa'n (Dearso-bidea'n) aurrera joanda zegoen kaia da EI Juncal; Irun'go eliza dagoen tokia; eliza onen aurreko alde osorik dago orduko materialez beteta. Ingumari guzti ura oso ezaguna zan Kristo jaio aurretik, eta izen auek zituen: Oiaso(n), Oiarso(n) eta Oearso. Ortze dago Oiartzun. Egunero ari dira erromatearren garaiko erreus berriak sortzen. Oearso izenak gauza auek biltzen ditu: Asturiaga, Irun, Santa Elena eta Arditurri.

– Zer zan Santa Elena edo Xantalen?
 – Gaur eguneko ermitatxo batean, orduko illerria. 1972'an I. Barandiaran'ek egindako aztarnetatik, au atera zuten: ermitak izan ditun aldaketak. Lenengo izan da Erromatarren errautsezko ilerri bat; ondoren illerri orren inguruan jaso zuten lau aldetako egitura bat; elizatxo baten antzera ere erabili zuten toki ura; azkenik, gaur eguneko ermitatxoa. Illerrian aurkitutako errautsen ontziak, 106 dira (eun da sei), bat ezik; au, kristalezkoa da.

– Noizkoak dira ontzi oiek?
 – Kristo jaio ondorengo 75'garren urtetik 125'ra bitartekoak. Urte oietatik aurrera, gorpuak luerperatzekoa zan oitura berria. "Carta Arqueologica de Guipuzcoa (J. Altuna) 1982"n, ermitaren zatiak erakutsi ondoren, gauz auek aurkitzen ditu bere barruan: zeramikak, metal-zatiak, urrezko belarritakoa, erromatarren eta erdi-aroko diruak, ezurrezko



orratsak, kristalezko ontzi eta zatiak, gizakien errautsak. I-IV'garren gizaldikoak; baita Erdi-arokoak ere.

– Eta, Andrearriaga'ko arlosa?

– Irun'dik Oiartzun'erako mendieren gallurrean antxen dago arlosa ori Andrearriaga ermitaren ondoan: Zaldun bat eta gizaki bat bere aurrean. Esaera bat du, ona: VABELTESO / NIS. Fita jakintsuak aldaketa au egiten dio: AEBELTESON. Orrela badu onek Akitania'ko AHERVELSTE aren




antza. Aker Beltza dabil tartean... Dana dala, antxen dago erromatarren garaiko illen arlosa ori. Andik beera, Oiartzun'era joko degu.

– Eta, Oiartzun'en daukagu Arditurri.

– Arditurri, erromatarren meatz-zulo. An egon ziran berreun urtez lareun gizaseme lanean, zillarra ateratzen. Joan dan eunkian topa zituzten garai artako 46 zearzulo edo galeri eta 82 putzu. Danen artean 18 kilometro beteko zituzten luzeroan... Barru aietan aurkitu dituzte zenbait gauza: erromatarren diruak, meatzetako mailluak, lurrezko krisalluak eta abar... Oraindik orain Compañía Asturiana de Minas ari izan da or lanean, meatzak ateratzen; baña, zillara (galena argentifera) erromatarrek agortu zuten.

– Orduan, Irun'go Xantalen, Bidasoa'ko Asturiaga, eta Oearso'ren izatearen arrazoia, Arditurriko meatzetan egongo zan...

– Baita, Bidasoa'ra Val de Erro'tik zetorren bidearena ere. Tarragona'tik Oiartzun'era bidea egin zuten erromatarrek. Zillar ori eramateko ez ba'zan, zertarako zan? Oiartzun'dik Tarragona'ra zuzenean eta andik itxasontzietan Erroma'ra. Orra biderik zuzenena. Beste bideak ziran luzeago eta arrisku geiegokoak. Zillar oien inguruan mundo oso bat zebillen erlauntzaren itxuran: Lareun langille, zillar oiek





zaintzeko ainbat gudari, garriorako bear zituzten gurdi eta zamari... Zer, ez? Egoitzak ugari Bidasoa inguru guztian...

- Eta, beste meatz-zulorik ez al dago Gipuzkoa'n?

- 1986'garren urteko "Aranzadiana n. 106" garrenean Mertxe Urteaga ari zaigu esaten aizkeneko sei urte auetan zenbat erromatarren aztarna aurkitu dituzten: Zubeltzu, Elatzeta, Altamira, Olaberri, eta Belbia Irun'en; Etxola-erreako ballara Ernani'n; Udala'ko meatz-aldea; Zerain eta Ataun... Ez ziran lo egon.

OKA-(GERNIKA)-FORUA

- Eta, Bizkaia'n zer?

- Erromatarren agerpenik sendoenak Oearso, Forua eta Flaviobriga dira. Iruetan daude meatzak agerpen oien arrazoi-biderik onena. Irurak dituzte portu bana eta legorrerako bideak. Forua aldean ez dira bide oiek ain garbi ikusten; asmatu egin bear; baña, bada bertan burni-errautsik ugari. Forua'ko ibaitik ezker-eskubi, or daude Marueleza gaztelua (Gaztiburua bere illerriarekin batera) eta Luno'ko kastroa ezkerrean, indoeuropatarren egoitzak. Auek errementari onak ziran eta izan zitekeen burni-lan auen aurreratzaileak ere.

- Bazuten erromatarrek beuren portua ere.

- Bai Foruan eta bai Mundaka'n; baita jainkoen aldarak eta ildakoen arlosak eta I-III gizaldiko beste aztarna geiago; 320 zeramika "terra sigillata" zati eta bidrio-zatirik ez da falta... Lenengo eunkitik bigarrenera sustraitu ziran Forua'n eta orretan Arditurri eta Forua bat datoz. Badu, erromatarren "foro"en antzeko aterpe aundi bat; etxeak, lau edo bost gelek in bakoitza, guztiak jende berdiñeko egoitzak, beuren kale eta guzti. Forua izena berbera ere "Forum" izenarekin alkartzen dute jakintsuek.

- Oka ibaiean dago Mundaka.

- Baita Bermeo. Emen egon liteke Plinio'k esaten duen "Vesperies" tokia. Aurrerago daude Plentzia eta sopelana, Neron eta Adriano'ren (I eta II eunkia) diruekin... Eta Nervion ibaia. Bilbao zaarrean, Ribera kalean, aztarrikan egin

barik aurkitu dira Trajano eta Marco Aurelio'ren diruak (I eta II eunkikoak auek ere), Arditurri eta bere ingurukoaren garaia. Bizia dabilela itsas-ertze osoan...

FLAVIOBRIGA

- Izena zelta da eta a"briga", zubi...

- Flavio, berriz, Erroma'ko enperadore bat. Bilbao'tik Trapaga'ko Ugarte auzora bazan portu bat Galindo errekan. Eta Triano'ko (Triano, Traiano da) meatzak jasotzen zituan... aurrerago Somorrostro; onek bere mollak, Muskiz'en... Inguru artan dago "El Cerrado de Ranes", il-erri zabala, erromatarrek erabillia eta gero Erdi-aroan ere bai. Flaviobriga Bilbao bera dala esan digute beti; orain, ordea, izen ori Castro Urdiales'eri dagokiola... Dana dala, or Bilbao eta Castro bitarte orretan egon dira beti izugarriko burni-meatzak...


- Eta, "briga" zubia ba' da, nun du Castro'k zubi ori?

- Emendik Burdeos'era artu-emanak bazirala, an ondoratutako barkuak agertzen digu; beronen barruan aurkitu dituzte "sigillata hispanica Gragendorf 46" itxurazko zeramikak... Asturiaga, Bidasoako portuan, aurkitu degu beste ondoratutako bat burni-meatzek beteta... Flaviobriga erromatarren "colonia" maillan Vespasiano (64-79 K. ondoren) egunetan sortua dirudi... Ezaugarri auek, denbora berdiñak erakusten dizkigute: Jesus jairo aurreko eta ondorengo Oiartzun'go Arditurri zillar-meatzen garaia. Bitartean, artzaiek beuren artaldeekin, mendietan zebiltzan, ballaretako erromatarren jokoari begiratzeke; negua eltzean, jeisten ziran beerago, an gertatzen ari zanari kasu geiegi egin gabe.


ARRINDA'TAR ANES



ITXAS-ONTZIAK ANTIXINA



- KRISTO BAIÑO 70 URTE LENAGOKOAK



Barku-barruan oiñezkoen burruka sortu.

—Ez zituzten gauza gutxi itxas-ertzeko euskaldunek ikusi!

—Orrelako ontzien taldeak ikusi zituzten, batez ere Kantabria'ko burruak aretan, Agripa jeneralak eraso zuanean... Esan degu Burdeos'en zeukatela ontzien gordelekua eta Baiona'n (Lapurdum) gudariena... Gudari-saillak joaten ziran ontzi bakoitzeko, oiñezkoak; bear ba'da, emen bertako euskaldun gudariak ere bai.

Erroma'ko Gudarostea eta Laguntzarako Koorreak.

—Gudari asko eramaten al zuten gerra-ontziak?

—Orduan, eta gero ere bai, gerra-ontziaetan beti izan dira gudariak ugari, merkaratzitan ez bezela. Merkataritza-ko itxasontziek ez dute jende askoren bearrik; lagun gu-

txiekin naikoa da; baña, burrukarakoak beste era batekoak dira; aietzaz gañera, beste asko, burrukan egingo dutenak. Legorrean edo udetan, gudariak berdin jokutzen zuten eta gudarostearen zati bat ziran.

—Eta, gudarostea nolakoa zan erromatarren garaian?

—Cesar Octavio Augusto (Antonio burrukatu ondoren sortu zan pake-aldian) gudarostea txikiagotzen saiatu zan. 20.000 gudari zituen Erroma eta Italiarako eta beste 300.000 Inperio guztirako. Oien laguntzakin zabaldu zuten euren nagusitasuna munduan zear; baña, orain, pakea sortu ondoren, ez ziran bear ainbesete. Gañera, gudari izateko bearkizuna kendu eta, soldadu nai zuenak bere naira izan zitekean.

—Insumisorik ez zan orduan?

—Augustok kendu zitun insumisoak orain bi miila urte. Baña, Jesus jaio eta bosgarren arteetan, soldaduskak 20

EUSKALDUNAK

urte irauten zuen; tarteka, 30 ere bai. Bitartean soldaduzka zearo bukatu arte, ezin zekean gudari batek ezkondu.

– Eta, zenbat diru irabazten zuten gudariek?

– Alogera desberdiña izaten zan: Cesar'en serbirtzuan zeuden "Legiones Pretorianas" takoek urtean 750 denario (Denario bat zan langille baten eguneroko alogera); Uri nagusietako gudariek, 373; bestiek, 225. Laguntzalleak ere izan ziran, menperatutako errietatik sortuak eta aiek, urteero, 75. Ez zan asko; baña, besterik ezean...

– Diferentzi aundixamarrak dira...

– Betikoak. Noiz-beinka izaten ziran diru-banaketak soldaduen artean. Esate baterako, Cesar'ek, Jesus jaio aurreko 43'garren urtean, 2.500 denario eman zizkien gudari bakoitzari. Diru asko. 42'garrenean, 500; 36'garrenean, 500; 30'garrenean, 250...

– Eta, soldaduska amaitzean?

– Orduan, abantallak izaten zituzten dirutan edo lurretan; eta, batez ere, petxak sekulan ez ordiantzeko eskubidea. Oiekin danakin zaartzaro ona lortu oi zuten gudari ibilitakoak. Asiera-asieran, "cives romani" zirenei bakarrik zegokien soldau izatea; baña, gerora beste probintzikoei, "peregrini", ere zabaldu zien soldadu izateko eskubidea. Or sartzan ziran Iparaldeko Italia, Galia, Hispania, Mazedonia eta Asia Txikia. Italia'koak, oiek, Erroma'ko gudari berezi biurtu ziran, lengo "cives romani" aien ordeko.

– Eta, laguntzailleak nortzuk ziran?

– Gutxien romanizatutako errietatik artzen ziturtenak eta talde bakoitza bere jendeakin bakarrik osatzen zan: euskaldunak euskaldunekin, asturianoak asturianoekin eta orrela talde gurtiak.

– Nola zegoen eratuta gudarostea?

– "Legio"etan. Legio bakoitzak 5.500 oiñezko eta 120 zaldizko zituen eta Augusto'k 28 Legioetara murriztu zuen Gudarostea asieran; geroago beste iru kendu zitun; baña, baziran Ala eta Cohorte zeritzenak ere; auek, ordea, Laguntzaille ziran.

– Eta zer ziran Ala eta Cohorte laguntzaille oiek?


– "Ala" deitzen zioten zaldunak bakarrik ziranean eta "Cohorte", oiñezkoak ziranean: 500'ko edo 1.000'koak izan zitekean Ala eta Cohorte oiek. Cohorte "Miliaria" ba'zan, orduan 760 oiñezko eta 240 zaldizko zituen; auek, amar "turmae'tan banatuak. "Turma" bakoitzeko 24 zaldi. Cohorte Miliaria betek, 10 "Centuria" zitun. "Centuria" bakoitzak, 100 gudari: 76 oiñezko eta 24 zaldizko. Erdiketa onekin arintasunaren billa zebiltzen; batetik bestera errez joateko moduan, batez ere, erresumako mugak defenditze-ko orduan.

Laguntzaille Euskaldunak.

– "Cohorte" euskaldunen berri historiak ematen digu. Sei izan ziran gutxienez eta gurtiak ziran "Miliaria", milla lagu-



GURE ARBASOEK IKUSTEN ZITUZTEN GERRA-ITXASONTZIak



- ERROMATERRENA
- GUDARAKO
- OLAKOAK KANTAUARREN AURKAKO GUDAN
- ARRAUNLERROAK KONTUAN ARTU EZKERO
 - IR UK OAK
 - LLAKOAK
 - BOSTEKOAK

IZAN ZEITEKEZAN



IZARTXO

GANONETAN GERTATUTAKO IPUIÑTXOA...)



Izartxo neskatilla bat zan eta bere laguna Katamixar. Orain Katamixar lo dago areztiko enbor zaar batean, negua bait-da. Udazkenean egin zioten agur alkarri, zugaitzak gorri gelditu ziranean, orri ori guztiak oiñetan zituztela, lotsatuta bezala.

Gaur goiko mendi-gailurrak zuri disdiratsu dauda eguzkiaren

argira. Gabon usaira elurra jetxi da lurrera maluta ederretan. Baso Illunean Olentzaro kantari:

Mesias badator
Eguzkiaren sortzetik
ez egin entzungor
sartzen dago atetik.
Bere izar garbia
dizdiraz or dago
argitu du ortzia
or goian gorago.
Badator, badator
Belen'era bidean
ez egin entzungor
biotz-barrean...

Olentzaro7ren oiuiak esnarazi dute Izartxo bere ames zorarrietatik. Katamixarrarekin amesetan, an goiko aritz artean amesetan... Katamixar zeukan eskuetan eta urrak jaten zizkion eskutik... Une berean txori buru-beltxak, sorbalдан zutik, ezpañetatik jaten zizkion ogi-apurrak...

Olentzaro'k esnatu du amets gozo aietatik.

* * *

Ganbaran, leio borobil baten ondoan, du Izartxo'k bere oatzea. Bertatik ikusten ditu izarrak gabeen kiñuka eta illargi zuria parrrez. Leiotik begira dagoala, orra or nun datorren izar berri bat.

Ori ote Belen'era doan izar berria?

Vai, ala izango da, sortaldetik dator-da eta urregorizkoa du margoa.

Zer egin?

—Belen'era joan nai nuke nik ere. Baiña, Erregeekin batera lotatu egiten naiz. Ondoren joango nazaie. Zer dio. Aurtxoari eramango?


Amatxok an, kutxa illunean, baditu intxaur ximurtuak, baita mizpero umatuak ere. Jaiki da oetik Izartxo eta kutxara-bidean, alastatik datorren sagar-usaiñak jo dio sudur-zuloa.

—Auetxek errege-sagar zimalduak!...

Artu ditu dozenatxo bat Jesus'entzako. Oso dira goixo eta gus-tatuko zaizkio.

Aitaren musu-zapi urdin aundiarekin pardeltxo bat egin du.

IPUIÑA



Gorde ditu bertan sagarrak eta kuxtara gerturatuta, estalkia jaso du. Saskitxo batean intxaurreak daude eta kajatxoan mizperoak. Artu ditu eskutaratxo batzuek eta pardelean ipiñi.

An, atearen ondoan, antxen dago aitatzok mendira eramaten duan gorozti-makilla ere. Pardela makilla-muturrean dula, irten du Izartxo'k atzeko atetik mendira. Etxean ez da iñor konturatu. Iñor ez, baiña, Txuri txakurtxo bai konturatu da eta saltako ekin dio bere nagusi txikiaren ondoren.

—Ez, Txiki. Zu etxean gelditu, gure amatxori lagundu bear diozu.

—Ez, Izartxo, nik ez zaitut utziko. Zurea naiz eta zurekin joan nai dut.

—Emen geldituko zera.

—Ez, orixe.

—Esan dizut ezetz.

—Nik zurekin joan nai dut.

—Ez zera etorriko.

—Bai, joango naiz.

—Zurekin alperrik da.

Salto ta brinko, buztanari eragiñez, aurrera joateko prest dago Txuri.

Ez du nai etxean gelditu. Txuri barugogorra dala Izartxo'k ondotoxo daki eta berekin joaten utziko dio. Pozik, alaz ere, maite bait du Izartxo'k bere ttottoa. Ez luke ezergaitik galdu nai. Jostallu poli-

tago eta maitagarriagorik nun topa?

—Ator, Txuri. Pozik eramangi zaitut.

—Eskerrik asko! Eskerrik asko! Eskerrik asko!!!

Asi da ugaletik tiraka tximista baiño bizkorrago. Zeiñek gelditu arazi?

Basoan Katamixar lo dago Udaberrirarte. Goiko zugaitz-adarrrak billutsik daude, sorgiñen beatz luza okerrekin egindako armarma-sarea dirudite. Anka-pean Udazkeneko ostoa, basoaren estalgarri, zurrumurru gozoan...

—txuri, an izarra nun doan!
Txuri'k izarri zaunka. Enbor aundi baten zulotik ontza oska. Izartxo ikaratu da:

—Nor da or?

—Ontza dezu, Izartxo xiuka.

Egia zan Txuri'k esandakoa. An zauden bi begi aundi zabal-zabalik, illargiaren argiz zuri-zuri, elurrazko begi zuri argi-argiak.

Irten dute basotik zabal-gune batera.

—Txuri, an gure izarra. Iges egingo digu.

—Ez, Izartxo, gu gelditzen geraan, bera ere gelditu egiten da. Gu aurrera goazenean, bera ere bai. Lasai ibilli, etxeokandere, bes-tela nekatu egingo zera.


—Zu gabe, Txuri, nik zer egingo ote nuke emen gau-illunean...

Aurreraxeago zarpaildutako txabolatxo agertu da eta bere inguruan umetxo sail bat erdi narrugorri. Gerturatu diranean, barren-dik andratxo bat agertu zaie, aur beltzaran bateri bularre ematen:

—Zer zabilzate emendik, gau illunean? Krisailua dakar eskue-tan.

—Jesus jaio-berriarengana joan nai degu eta aren izarren ondoren gatoz.

—Belen aurrerago dezute; baiña arek aiña beargorri badegu guk ere...



—Sagartxoak baditut emen eta pozik emango dizkizut.

Beste gabe atera ditu sagarrak pardeltxotik Izartzo'k:

—Torizu. Ez da gauza asko eta barkatu.

Urbildu dira aurak amarengana eta ekin diote sagar-jateari. Gosea zeukaten alakoa...

* * *

Badoaz aurrera Izartxo eta Txuri. Pardela ariñago eta biotza ere bai alai-kantari.

Bidexigor bat artu dute mendimuiño batean zear. Muiñoaren beste aldetik eskala bat dator, makulua besapean, ibiltzen asmatu eziñik.

Izartzo eskalearekin izketan ari zala, izarra zeruan geldi.

—Neke aundia izango dezu ibiltzen...

—Bai, erren nabil. Belauna daukat eskubikoa perlesiak jota. Tolestu ezin. Gogortua daukat zearo eta egur batekin lagundu bear ibiltzeko. Lizar-egurrakin egin nuen makulu au.

—Eskean erri batetik bestera joateko aldi luzeak bearko dituzu.

—Bai, alaxe da. Orregaitik jeiki naiz illargi-beteakin batera. Bestela ez dit astirik ematen bear ditudan biltzeko ere. Beti gose.

—Baditut emen nerekin intxaurrak eta emango dizkizut.

—Bai nik eskertu ere. Ekatzu zer ori eta milla ta milla esker...

An utzi zuten bide-ertzean eskalea arriakin intxaurrak puskatzen.

* * *

Ekin diote berrero bidean. Aurretik izarra aintzindari. An, urrunean kanpaitxoaren dan-danak:

«Dan, dan, dan
amabiak Belen'go torrian...

Dan, dan, dan,
Jesus aurra jaio da estal-
pian...»

Zaunka Txuri'k kanpai-doiñuari. Izartxo, berriz, urduri kanpaiak entzunda.

—Goazen, Txori. Gure Erregetxo-
xa jaioa da.

Guazen. —Guazen. Guau,
guau!...

Arbolape betean artzai gaztetxoak artzantzantzan.

—Otzik bai, mutilok?

—Jana baiño obeto.

—Ez al dezute ezer jatekorik?

—Esnea jeisteko gaude, gaztaiak egiteko.

—Umatutako mizpero gozo-gozoak baditut emen. Nai?

—Bai, pozik, tripetako garraixiak ixil-arazteko.

Ekin diote besterik gabe mizperojaten. Iziartxo'ri pardela era bat ustuz zaio eta gorde du musu-zapia poltxikoan...

* * *

Bat-batean, izartxo-talde bat agertu zan kantari, disdiratsu eta argiz jantzita:

Aintza Zeruan, Aintza Zeruan
goian goiko Jaunari,
pakea lurrean, pakea lurrean
beeko Gizontxoari!...

Bitartean, an beeran, erreko ondoko leeze-zuloaren gainean, Izarra zintzilik.

Izartxo ta Txuri gelditu dira txunditurik, oiñak lurrera josita lez.

—Eldu ote gera, Txuri, gure elburura?

—Bai, Izartxo. Asto-usaiña datorki sudurretara. Ikuilluan daude.

Lo sakin batetik esnatuta bezala, asi dira bera bidean, biotza tau-paka lertu bearrean.

—Au zoriona, Txuri. Gure amesak oraintxen beteko dira.

—Bai, etxeoandre. Eta esker-
rrak laguntzen ekarri nauzulako.

* * *

Beerago eta laisterrago doaz. Aizkenean, tximistak artuta agertu dira Belen'go estalpera. Erratz aundiakin lurra garbitzen ibillia da Jose; baiña, ardi-zimaurrearen usaiñik ez da emen galdu oraindik.

Aurra Amaren magalean esnea bularretik edozten. Pozik arrotik tiraka.

Izartxo Maria'ren aurrean auzpeztu da eta Semeari musu eman dio oiñetan. (Txuri'k zaunka buztanari eragiñez). Oial zuri batean gaztaitxoak ikusi ditu eta bat-batean bere pardeltxo gogora zaio. Baiña, utsik atera du. Erakusi dio Amari.

—Zure Semearentzat nekartzen intxaur, mizpero eta sagartxoak bidean eman ditut eta orain zuentzako ezer-ez.

—Zoragarria da zuk egin dezuna.

Aurak, berriz, Amaren titia utzi eta Izartxo'ri maitekor begiratu dio. Amak berrero:

—Izartxo, nere Aurak maiteen ditunak, zure eskutxoak dituzu: maitasunez uztutako esku uts oiek.

...

Pozarren eta kantari biurtu dira etxera, basoari irrintzika eta Izaki guztiati garraixika, pozaren-pozez biotza leertu berrean. Izartxo'k Txuri'ri:

Emendik aurrera nere lagun-urkoaren alde lan egiten saiatuko naiz, ordaiñetan ezer eskatu gabe.

Txuri ez dator bat asmo orrekin:

—Gaurko egunez gauza guztiak daukate ordainkizun bat. Ez du iñok eskurik jasotzen zenbat ordainduko diozun galdetu gabe. Ez du iñok esaten zenbat lan egingo duan; zenbat ordainduko zaion, baizik. Zu alrebes zabilta...

—Bai, Txuri, ori ere ala da. Baiña, guk ikusi degun Aurak ez du galdetu zenbat ordainduko diogun gure aldeko gizakunde eta eriotzagaitik... Alkar maitatzea agindu digu... eta maitasunak ez du ordaiñik eskatzen. Justiziak, bai. Maitasunak, ez. Eta, gu, Txuri, maitasunaren semeak gera...

Deba'n. Ilbeltzak, 6.
1983'an.

ARRINDA'tar ARCES



IZKERA ETA EZIKETA (Julene Azpeitia'ren omenez)

INTXAURRONDO'KO PEDROTXO

Erdiko kalean umetxo baserritar bat negarrez, blusatxo bat soñean eta trapuzko sakelatxo batean ogi zati bat docenerdi intraurrekin. Uraxe izango zan bere eguerdiko bazkaria. Bere aurrean gizon bizardun bat orruka:

—Qué te pasa?

—Mal agiñean.

Bere maixuaren aurpegia eremuetako leoia iruditu zitzaion. Gorputz osoa dardar. Urreratu nintzan bikote aiengana:

—Soy el médico nuevo. Me llamo Ales Zurikaldai. Este niño está enfermo...?

—Este niño es un problema. Soy su maestro y me llamo Pantaleón Ceboleros.

—Tanto gusto. Esan nion eskua emanaz.

—Es imposible hacer carrera con estos aldeanos. Razón tenía mi difunto padre (que en gloria esté) cuando decía: Al aldeano y al gorrión, perdigón.

Ago zabal ura iriki zuanean parre egiteko, nikotinaz betetako ortzak erakuzten zizkidan. Errepublikak sortu berria zan eta aldaketa arekin maixu erdaldun errepublikano zenbait kokatu zan euskaldunen artean.

Umearengana urbildu nintzan:

—Zer dexu, umetxo?

—Agiñeko miña.

Begiratu nion ago-zapaira eta, agin eta ortz, zortzi ale falta zitun.

—Don Pantaleón, permita que me haga cargo del niño. Parece en estado febril.

—Sí, sí. Ya se lo puede llevar. Uno menos.

Artu umea eta nerekin eraman nuen etxeruntz:

—Zer dezu izena?

—Pedrotxo esaten didate; baiña ni Pedro naiz.

—Urrutian bizi al zera?

—Bai, jauna, ordubeteko bidean, Intxaurren baserrian.

—Alkarrekin joango gera.

Zalgardia prestatu nuen eta, muiñorik muiño, ekin genion Intxaurren aldera. Aldapatxoa zegoen eta belardi oparoak. Muiño baten atzetik artalde eder bat agertu zitzaigun begien aurrean.

—Ardi oiek gureak dira. Amamak jeisten ditu gaztaiak egiteko.

—Aberatsak zerazte, Pedro...?

—Bai jauna. Basoa ere badegu eta belardiak. Larrabeiak ere bai eta asto bat.
 —Gauza asko dira oiek...
 —Sei bei ere bai ikuilluan, biantxa bat eta bi zekor.
 —Beiak, larrabeiak, astoa...
 —Baita txerri-emea ere zazpi txerrikumekin.
 —Besterik...?

—Mandoa ere bai eta idiak goldan egiteko.

Gaiñera eldu giñanean, itsasoa agertu zan gure oiñetan: amiltegi baten muturrean geuden. Gurdi bidea beruntz eta zearka asi zan eta, sakonean, ondo zaindutako baserri zaar bat agertzen zan:

—Orixe da gure etxea.

—Izena?

—Intxaurren, intxaure andi bat aldamenen duelako. Intxaure ederrak ematen ditu udazkenean; eskolara ere eramaten ditut...

Nere zaldiaren irrintzira, Pedoren aita agertu zan etxe-atarian:

—Zer du oraingoan...?

Zakar agertu zan. Gizon gordiña eta indartsua; bizarra eta tximia beltzak; bere jazkeran zarpail-antzeko, kirruzko alkora eta prakak eraman arren:

—Iges egin al du eskolatik berriro ume ziztril onek...?

—Barkatu, jauna. Erriko mediku berria naiz eta negarrez ikusi det erriko kalean...

—Berak nai duanean errez egiten du orrek negar... Zer dek? Zeken aitak semeari. Semeak:

—Agiñeko miña...

—Ator barrura eta nik aterako diat agin ori, etorri aizen bidetik itzultzeko...

—Urne au gaixo dago... Sukarra ere badu...

—Aitzakiak onek ugari, eskolatik alde egiteko.

—Izan ezazu kontu: aur au euskalduna izanik eta erderaz jakin ez, erdaldun maixu batek nundik eta nola erakutsiko dio ezer oneri...

—Orixe esaten det ba nik: euskerak ez duela ezertako ere balio eta ilko balitz obe danontzat. Erderaz ikasi bear du eta lan orretarako maixu erdalduna onena.

—Baiña, jakingaiak erderaz ematen badiote, nola ikasiko du, ezer entenditzen ez badu... Ardoa belarritik ematea bezela dezu...

—Abilidadea duenak ardoa belarritik agora pasako du. Une artan amama eta bere alaba agertu ziran barrutik eta gure eztabaida bertan bera amaitu zan:

—Zer dezu, umetxo?

—Agiñeko miña, amatxo.

—Orrela eziko dezute zuek umea, kale-señorito ergel baten antzera...

—Zeorrek ere geure seme euskalduna erderadun señorito bat biurtu nai dezu.

Eta ondoren neri:

—Eskerrak, jauna, etxera ekartzegatik. Gaztaitxo bat emango diot.

—Ez dezu ezer ekarri bearrik.

—Bai, jauna, bai. Ez legoke ondo ezer gabe etxetik bialtzea...

Ori esanarekin batera etxera sartu eta ardi-gaztai batekin agertu zitzaidan. Eskerrak eman nizkion eta orrenbestez alde egin nien. Etorritako bidetik itzuli nintzan. Pentsakizunak zetorzkidan bata bestearen ondoren, etengabeko errenkada luzean... Suerte doakabea gure ume euskaldunena: kultura, ezagutzen ez duten mintzaira baten bidetik, ematen dizkie; ez bait da iñun maixu euskaldunik...

Etixeratu nintzanean, etxeoandreaki baserri aren berri ote zekien galdetu nion... Baietz, ezagutzen zitula. Oitura zaarrekoak zirala; atzeratu xamarrek, baiña jende zintzoa. Berrikuntzarik ez zutela onartzen... Orretzek arritu nindun geien: bat-batean aurrerakoi biurtu ote ziran, ba...? Ala, gizaldietan zear, mintzairari buruz, daramagun diskriminazioak eragite ote zien beuren semeak erdalduntuta

ikusteko gogo bizi artara...? Ainbeste eragozpen, ainbeste irri eta parre euren bizkarretik, euskaldun utsak zirelako...!

Dana dala eta dena den, Intxaurren baserria eta Pedrotxo bere kimuak burutik alde egin zidaten.

Errira etorri-berria nintzen, etxebizitza jantzi gabe neukan, bezeroak oraindik ezagutzeko, agintariekin arremanetan jarri bear... Orrelako ainbat arazoekin burua neukan zero beteta.

Andik illebate batzuetara, arbi-loratan, topo egin nuen berriro mutikoarekin. Negar edo negar-itxurak egiten orain ere. Bere inguruan beste baserriar eskolaguna. Gerturatu nintzaian:

—Zer dezu, Pedro?

—Tripetako miña.

Bekokia bero zeukan eta biotz-taupadak arin. Mutiko aien bitartez mezua bialdu nion Don Pantaleoneri, nerekin neramala Pedrotxo bere etxera, sukarrakin zengoelako. Aita basoan eta ama agertu zitzaigun atarira:

—Berriro badator berori...?

—Kalean arkitu det negarrez.

—Zenbat endredo...

—Gaixo daukazute.

—Bai, jauna, elgorriak arrapatu zuen.

—Eta, zergaitik ez didazute otsik egin?

—Badaki ba, jauna, endredorik ez ematearren... Kaletik urrun bizi gera-ta...

—Sendagilleak orretarako dira.

—Mendian bildutako sendagaiak izaten ditugu etxean...

—Ori ondo dago; baiña sendagillearen laguntza ere eskatu kezkarik gabe. Orretarakoxe gaude. Zer gertatu da?

—Sendatu gabe bialdu degu eskolara; bai ba, aitak nai du onek erderaz ikastea gauza guztien gaiñetik.

—Erderaz ikastea ondo dago; ez ordea gauza guztien gaiñetik... Lenago da osasuna.

—Ba, osasunez naastuta dabilkigu. Don Pantaleoneri badio deabruari baiño bildur geiago. Nik uste, ortik sortzen zaizkiola beste oker guztiak.

—Baliteke. Ume euskaldunek, maixu erdaldun baten aurrean, jaso bear duten presioa eta zama izugarria da.

—Kontuak atera, jauna: Pedrotxo goizero eskolara kafe utsakin joaten da, beste ezertxorik artzeke.

—Oso gutxi da. Ez da ezer kafe utsa, nerbioak astintzeko besterik.

—Ba, zintzurretik ez omen zaio besterik pasatzen...

—Eta, bazkaria?

—Garaiko frutaren bat eta, besterik ezean, intxaur batzuek ogi zati batekin.

—Ogi zati bat eta intxaurrak?

—Ogi zatia, jauna; gaiñeko gozoa kale-umeentzako izan oi da geienetan...

—Zeredozer egin bearko degu ume onekin...

—Arratsaldean, neguan gauez, eskolatik etxeraten da eta orduantxe etortzen zaigu umetxo bere onera, astun ori amaitzean... Orduantxe jaten ditu arrautzak eta aragi-xerra.

—Erdal-eskola orrek ondatuko dio osasuna betirako.

—Asto baten pare jartzen zaigu aita, arazoa aitatzean: berak soldaduzkan jasotako sufrimentuak eta nekeak ez omen dizkio opa bere semeari eta orretzek betetzen dio biotza gogorkeriz bere semearekiko.

—Orren besteraño...!

—Bai, jauna; kosta ala nai du bere semeak erderaz ikastea, naiz-eta euskera galduko balu ere. Orretarako maixu erdalduna, obea.

—Gauzak ez dira orrela; baiña zure senarrarekin alperrik da eztabaidan astea. Ez du besterik ikusten. Alaz ere konprenitu bearko luke erdera bera ere umeak errezago ikasiko lukela, berak aditzen duen izkera baten bidez.

—Beretzat ordea euskerak ez du ezertako balio eta euskera galtzerik ez dio bate penarik ematen.

Bitartean aita basotik etorria zan eta gure alkar-izketako azken berbak entzun ditu. Onela dio:

—Ilko balitz, obe.

—Euskaldunek bere kultura zaarra euskeraz gorde dute eta euskera da Euro-pako izkuntzarik zaarrena... Eta, ezertarako balioko ez balu ere, geurea da eta geurea dalako maite degu, amatxo zaarra maite degun bezala, elbarri geldituta ere... Etorriko da garaia edozertarako balioko diguna eta orduan, euskaldun iza-teak, balio berri bat emango digu...

—Baiña, erdera obea da.

—Erdera ere bear degu; nik ez dizut ori ukatzen; ikasteko biderik onena, ordea, ez da erdal-eskolara bialtzea, euskal-ikastolara baizik.

—Gure mutillak ez du ezer ikasten.

—Ikasiko du, euskeraren bitartez erakutsiko diotenean; orduan, bai. Nik zuri, semea nola zaindu bear dezun, erderaz edo latinez esaten badizut, ez didazu tutik ententituko.

—Bai, ori ere ala da.

—Zurekin euskeraz ari naiz eta zuretzako, nik esandakoak, argi eta garbi dau-de begi-bistan eta zer nai dedan ulertzen didazu...

—Bai, bai.

—Erderaz ariko banitz, latin eta griegoz berbak naasturik tartean, alperrik izan-go litzake zeuretzat...

—Orren beste ententitzen det.

—Orixe da zure semeari gertatzen zaiona Don Pantaleonekin: ez diola tutik ententitzen. Bide orretatik nola ikasiko du ezer? Aizkenerako lelotzat utziko dute baztar batean beste guztien parregarri.

—Orixe ez nuke nai. Naiko parregarri gera bestela ere.

—Biderik aldatzen ez badezu, azken orretara eramango dezu zeure semea.

—Zer egin?

—Galdera zuurra. Eskola berri bat sortu dute errian Foru Aldundiaren babe-sean eta zeastasun geiagorekin etorriko nazaizu berriro. Ikastola deritza eskola berri ori eta bertan sartzeko semea, alegindu bear degu...

Intxaurrondo'ko semearen osasunak eskatzen zidan Pedrotxoren alde jokatzeko eta artarako Julene andereñoa nuen biderik onena. Banekien bera zala ikastolaren buru eta ez nolanaikoa: Bizkaiko Foru Aldundien ikastoletan berak lortu bait zuan lenengo mailla.

Jo nuen beregana.

—Egun on, andereño.

—Baita zuri ere. Nor zaitugu?

—Sendagille berria nauzu.

—Urte askotan izan dedilla. Benetan poztutzen naiz zu ezagutzearekin. Julene dut izena eta Azeptia abizena.

—Nereak, berriz, Ales eta Zurikaldai dira.

—Eta, zer ekarri zaitu neregana, sendagille jauna?

—Ara, Julene, Intxaurrondo baserriko mutikoa erderazko eskolan dabil eta ez du bururik jasotzen.

—Orixe berbera gertatzen zaie beste mutiko baserritar askoeri ere. Eskutuki-
ren bat badegu bien bitartean; baiña, zergaitik guraso baserritarrek, geienak
beintzat, naiago dute maixu erdalduna bere aurrentzako, euskalduna baiño?

—Mutilla galduko da, andik ateratzen ez badegu.

—Goxoa jarriko da Don Pantaleon, bere eskola artatik iñor kentzen badiogu...

—Saiatu beariko degu.

—Gurasoek naiko dute bere semea nere ikastolara ekartzea...? Maiteago dute
erderazko eskola, euskerazko ikastola baiño. Zenbaiteri euskera galtze berberak
ere ez dio buruko miñik ematen, ez biotzeko kezkarik sortzen...

—Zu bezelako andereñoak sortuko dira garaian, gauzak bere onera etorriko
dira. Gaurko egunez oraindik ori ezifezkoa degu. Orain arte zer izan dute?
Eskola-maixuak, udaletxetako sekretarioak, juezak, notarioak, abogatuak... Guz-
tiak dituzu erdaldunak. Iñork ez daki euskeraz. Baserritarra gelditzen da motz
oien aurrean. Parregarri.

—Oiek orrela izanik, ez da arritzeko euskerari gorroto izatea eta euren aurrak
erdera ikastea nai izatea. Izan ere, orain baserritik kanpora egin bear dituzten
arazoetarako, erdera bear dute. Tamalez. Noiz arte?

—Zure ikastola dezu, Julene, garai oberen egunsentia.

—Orixe espero dut.

—Bitartean salbatu dezagun baserriko semetxo bat bion artean. Nik alegiñak
egingo ditut, etxean bezala, Don Pantaleonen eskolan ere. Arazo oiek konpon-
tzen eta korapilloak askatzen saiatuko naiz.

—Nik ikastolan artuko dut eta pozik artu ere, naiz eta ikastaroa aurreratuta
egon. Berdin zait.

—Zoragarri, Julene.

—Beste bide zabalago eta errezagoa utzi dut aldamenara, bidetxigor estu one-
tatik ibiltzeko. Etorrizuna zalantzan; politika aldetik aldaketa bat balego, dana
joango litzake ankaz-gora...

—Arrisku ori ere badago.

—Alaz ere, nik euskera maite dut eta euskeraren alde jokatu nai dut zuzen-
zuzenean nere bizitza osoan, etorriko diran eragozpeneri so egifiñk gabe.

—Zorionak zuri, Julene, eta eskerrak milla bidar.

Bigaramon goizean Ales Zurikaldai Don Pantaleon Ceboleroserekin alkantzen
da eskola "nacional"ean.

—Egun on, jauna. Ales naiz, erriko sendagille berria eta orain illebeta batzuek
egin nuen zure ezaupidea...

—Bai, zeredozer gogoratzen naiz; baiña, burutik alde eginda daukat.

—Umetxo baten arazoak nakar zuregana.

—Zer du ba ume orrek? Erantzun zidan zakar erderaz.

—Pedro da, Intxaurrondo baserriko semea...

—Bo... Itxaropen gabeko mutilla. Kaikua galanta. Sekulan ezer ikasiko ez du.

—Iñuzu aurpegia jartzen du emen kalean...

—Kalean bezala, etxean ere, tonto-aurpegia izango du orrek.

—Orren arrazoa eskolan ote dago?

—Nere eskolan? Ez, iñundik ere. Nik argi eta garbi erakusten ditut erakutsi
bear diranak. Ederki legoke orrelako ume iñuzu baten neurrian nere eskola ipin-
tzea...! Ori, jauna, injustizi andienetakoa da.

—Ez det uste justizi edo zuzentasunaren arazoa danik. Bear bada, ori ere bai.
Zuk oso ondo erakutsiko dituzu jakintza-gaiak; baiña, umeak nola jasotzen ditu
zure esanak...?

—Orixe esaten det ba nik ere: nik ondo erakusten badet eta eurok ikasi ez,

norena da errua, nerea ala eurona? Buru gutxiko aurra bada, Pedrotxo dan bezala, nik garbi erakustea alperrikako lana da.

—Argi gutxiko mutilla bada, nik ori jakin ez, zuk arrazoi izango dezu...

—Zer argi dituen nik esango dizut: ez du bat ere.

Itz auekin zalantzan gelditu naiz, ez bait dakit noraiñoko argiak dituen Intxaurondoko Pedrok. Dana dala, asmo sendo bat artu det: mutillarekin itz-aspertu bat izatea. Don Pantaleoneri onela erantzun diot:

—Zure ikuspegitik ez da beste korapillorik ikusten; egon lezake, ordea, beste arazoren bat.

—Zer arazo?

—Umeak ezagutzen ez duen izkuntza batean ematen diozula gaiak eta ori izan liteke mutillaren illuntasuna sortzen duen arazo bat.

—Erderaz jakintza emateak onurak besterik ez ditu: gerorako jakintza-gaien oiñarriak ipintzea, erderaz ikastea beste bat eta korta-usaiña darion linguajea burutik kentzea, irugarren onura. Zertarako du euskera...?

—Baiña, zuk esandako itzak ezagutzen ez baditu aurrak, nundik eta nola ikasiko ditu itz oien bitartez erakusten diozun gaia...? Zu maixu ona eta Pedro mutil argiduna izan da ere, bion artean egon lezake kakoa: ez dezutela alkarren artean berba berdiñak erabiltzen eta orduan gertatzen da erderazko esaera ura: diálogo de sordos.

—Nere erakuste-moldetik asko dira erderaz ikasita pasa diranak. Tonto-lapiko orrek ez du sekulan ikasiko.

—Ori ere ala izango da eta Jainkoak daki zer neke dagoen bien bitarte orretan.

—Erderaz ikasten badute, nekea prezio ona da.

—Eta ondoren, euskera gorrotatu.

—Neri orrek ez dit kezkarik ematen, ez bait du euskerak ezertarako balio eta orixe sartu nai diet buruan lenengo egunetik asita...

Alkarrizketa gaiztotzen zijoan eta zezen-plazatan “cambio de suerte” esaten dana egin diot:

—Don Pantaleon, nik ez det arazo oietan sartu nai. Sendagillea naiz eta sendagille bezala natorkizu Pedroren osasunari buruz mintzatzea.

—Zer gaixotasun du...?

—Kiriostatik dabil gaizki eta giroz aldatzea ona izaten da olakoetan; beste aldetik, berriz, zure eskolatik tonto-lapiko bat kentzea, zuretzat obe...

—Ori ala da. Baiña, problema, arazoa eta korapilloa ez dator erderatik. Bera da ori alakoa, anormala, tonto-utsa, berekoia, gaizki-edia, ezertarako ez dena... Bera da ori kezka-iturri.

—Eta gurasoak?

—Areago oraindik, ez bait diote umeari jaramonik ere egiten. Laguntzerik, gutxiago oraindik; pentsatu ere ez. Arduragabeak. Aurrak ezitzen dituzte txerrikumeak balira bezala... Ikusiko dezu bai, ikusi: aur orrekin ez dezu burutuko iñundik ere.

Arraiñak amuari eldu dio eta une onetan arrantzaleak egiten dutena egin bear: txikota larga:

—Zuk zedorrek obeto ezagutzen dezu Pedrotxo eta nik ere, sendagille naizen aldetik, baditut nere kezkatxoak eta lagundu nai diot zuretzako eragozpenik ez badakar.

—Nik ez dizut aurra sendatzeko eragozpenik ipiñiko. Ez neuke nai erriaren agoan ibilli, gaixo dagoen aurrari sendabidea ukatu diodalako. Artu eta eraman, iñork artu nai badu, beintzat.

—Sendakuntza errezteko lkastola berrira eramango det; an euskera erabiltzen dutenez, aurrarentzat errezago izango da...

—Eraman, eraman... A zer irabazia izango duen Pedrorekin eskola kaskar

orrek...! Baimena ematen ez badizut, emendik izango ditut "maestro maketo"ka. Eta bide batez, esango al zenidake zer esan nai duen "maketo" itz orrek?

—Maketo Andaluziako izkera izango da; ez bait ditue Srik aoskatzen. Tú pueblo es bueno? Galdetu ziotenean, bere erantzuna auxe izan zan: má que eto más que esto esan bearrean. Má que eto = maketo. Errezago ezin...

—Besterik ez da?

—Ez det uste.

—Ori besterik ez bada...

Don Pantaleon gelditu zan lasai eta Ales pozik baimena eskuratu zuelako. Maixuak ez zuan gogo onez baimenik eman; baiña seguru zegoen aur orrekin frakaso itzala izango zutela eskola berri artan. Gogo txarrez eta irripar gaiztoz, ezin bait zitaion mutiko arreri probetxurik atera.

Nere lenengo lana Julenerengana joan eta berarekin itz-aspertu bat egin. Don Pantaleonerekin izandako zertzelada guztiak azaldu nizkion:

—Poztutzen naiz benetan, Ales, berri auekin. Biotz-biotzetik lagunduko diot baseritar mutiko oneri bere gaitzak menperatzen.

Nere bigarren lana mutilla billatzea izan da. Eskola amaitu danean berarekin topo egin det:

—Kaixo, Pedro. Pedrotxo esaterik ez zazu gustatzen...

—Ez, jauna.

—Etxera eramango zaitut.

—Gurdian?

—Bai, zaldi-gurdian.

—Gurdi polita da zurea eta ariña; baiña, gure idien gurdia sendoagoa da zurea baiño.

—Goazen zalgurdia prestatzera.

Bidean zaldia lasai utzi nuen bere kasa joan zedin. Ez nuen presarik bat ere. Eguna luze, mutilla trankil, itz-aspertu baterako une egokia:

—Zure maixuarekin itz egin det.

—Don Pantaleonek leoi baten antza du; aren begi beltzak nere musuaren aurrean ikusten ditudanean, nun nagoen ere ez det jakiten.

—Bildur ematen al dizu?

—Izuak artzen nau eta belauak dar-dar jartzen zaizkit alkar joka.

—Leoiaren antza ematen al du?

—Bizarrakin eta tximiakin leoia, atzaparrekin berriz artza.

—Arengandik libre zera.

—Au poza! Betirako?

—Bai, betirako.

Zorabioak artuta bezala gelditu zait Pedrotxo bere zoriona siñistu eziñik:

—Beti-betirako?

—Beti-betirako.

—Eta, ez det geiago arengana joan bearrik...?

—Ez dezu joan bearrik.

—Oraintxen tripa lasaitu zait.

Mingaiña askatu zaio zearo gure mutikoari:

—Baserri ura ikusten dezu?

—Bai.

—Ura Paskualene da. Eta, beste ura ikusten?

—Bai, ikusten det.

—Ura Atxubitetxe da. Beiak, larrabeiak, moxalak eta ardiak dituzte.

—Asko dira.

- Bai, baiña guk geien.
- Itzulan ibiltzen zera?
- Guk bi idi-pare dauzkagu. Txuri eta Pintto nereak dira eta aiekin neu ibiltzen naiz itzulan eta ezagutzen naute. Ibiltzea asko gustatzen zait; beiak zaintzen gel-dirik egotea baiño geiago. Baiña, badakizu zer gustatzen zaiten geien-geiena...?
- Nola jakingu det esaten ez badidazu?
- Arrantzan ibiltzea.
- Zer esan nai du arrantzan ibiltzea?
- Ba orixe: arrantzan ibiltzea eta ez geldi egotea.
- Txalopa batekin ibiltzen zera kazan?
- Nik ez dakit zer dan kazan. Aita eta ni gau-arrantzan ibiltzen gara.
- Mutiko, mutiko, gau-arrantza zer da?
- Zuk ez dakizu ezer. Gau-arrantza da gaez arrantzan ibiltzea batetik bestera.
- Ni mendi-gizona izanik ez diot ume oneri zertan dabillen antzik ematen. Zeñek esan du Pedrotxo tonto-lapiko bat dala? Bere inguruan gabiltzanok gera lelo eta tonto-xamarak. Ekin diot berriro:
- Baiña, zuek baserritarrak zerazte eta nolatan egiten dezute arrantza misterioso ori?
- Ori ez da arrantza misteriosoa. Aitzeetan egiten da gaez, marea bizietan, illargi berritan batez ere.
- Baiña, zuek baserritarrak zerazte...
- Bai orixe; baditugu milla gauza: belardiak eta belardietan belar-metak, mendietan basoak eta larrabeiak, ikuilluan beiak eta idiak, baita biantxa bat, bi txekor eta txerri-eme bat, astoa eta mandoa. Baita konejuak eta oilloak arrautza egin eta jateko...
- Eta, gaiñera arrantzan ere egiten dezute?
- Bai, jauna. Guk bakarrik ez; inguruko baserri guztiak ere bai.
- Pedro, esplikatu egidazu ori ondo.
- Ara, jauna: ikuillu-sarreran dauzkagu baserriko aizkora estearekin, aizkora txikia, atxurra, laiak, galbaiak, uztarriak... Eta oien ondoan arrankasixak, kakoak eta karburozko krisaillua. Guztiak errenkadan eta ondo txukun ipiñiak eta gordeak.
- Beraz, zuek baserritarrak eta arrantzaleak, dana batera zerazte...?
- Baita eiztariak ere pase-garaian: usotan, biregarrotan, oillagorretan, istingorretan... Pasean edo kontrapasean datorrenari ematen diogu pasadea...
- Arrituta naukazu, Pedro.
- Baserrietako ume guztiak dakite ori eta kostaldekoek arrantzan ere bai. Goienetako baserriak ez dira arrantzara etortzen; baiña, itsasoaren ertzean dau-denak oiek danak dira arrantzale.
- Ilberritan dala arrantza esan didazu. Zergaitik?
- Ori edozein tontok daki: illargi berritan itsasoa joaten da urrutira marea-beran eta orduan putzuak gelditzen dira eta putzuetan arraiñak preso. Illargiberritan ez dago illagirik eta dana dago illun eta arraiñek ez gaituzte ikusten; guk eurak bai karburozko krisailluakin eta orduan bost ortezko arrankasixakin, zas! lepotik sartzen diogu bost ortzak eta preso gelditzen da arraiña. Leloenak itxaskabrak dira; oiek ez dira mogitu ere egiten. Errez-errezak dira arrapatzen. Lupiñak eta sarboak, eta bestelako arrain zurixak, oiek ez dira ain errezak.
- Zergaitik?
- Zuk golpea botatzean iges egiten dutelako. Baiña, neri aitak nola arrapatu erakutsi dit.
- Nola?
- Golpea arra bat aurretik bota eta iges egitean zuregana dator zuzen-zunean. Eta zas! preso. Sakura.

—Eta, kakoak zertarako dira?

—Bi kako-klase dauzkagu: aundienak olagarroak arrapatzeko eta txikienak aitzetako karramarroak zuloetatik ateratzeko.

—Olagarroak ez dizu bildurrik ematen?

—Zergaitik? Ez du ezer egiten eta burua bueltatzen badiozu barrutik kanpora, indargabe gelditzen da. Nik indarrik ez det oraindik, baiña nere aitak ainka egiten die bi begien tartean eta seko gelditzen dira ilda.

—Nola arrapatzen dira olagarroak?

—Ori ere ez dakizu? Olagarroa beti egoten da bere zuloan sartuta: etxetxo bat bezela daukate bakoitzak eta bat arrapatzen dezunean, gero beste bat etortzen da aren etxetxora. Etxetxoan kakoa sartu, eta kanpora, motel. Bat geiago.

—Olagarroen etxetxoak nun dan jakiteko seiñalaren bat izango da?

—Izango ezta ba? Zu nongo kristaua zera ori ez jakiteko? Gizonen etxe-bizitzak nundik ezagutzen dira? Etxe-atarian dauden zaborretatik. Jendea bizi dan tokietan zikinkeria dago. Berdin olagarroen etxeetan ere: lapak, karakolak, mejillioiak, karramarroak, nekorak... jaten ditu eta oien guztien azalak an egoten dira bistan etxe-aurrean... Gaiña arnas-egiten duenean ura mogitzen da eta ondarra badago, ondarra ere bai... Baiña, seguruen beste seiñale bat da.

—Zer seiñale?

—Aitak esan zidan iñori ez esateko.

—Ni ez naiz arrantzara joango...

—Baiña, bai beste bateri esan. Orrelako gauzak ez dira esan bear etxetik kanpora. Etxekoentzako bakarrik dira. Beste seiñale oiek edozeiñek dakizki...

—Gorde bai ondo zuen sekreto-izkutu ori. Olagarroa oso gogorra izaten da jateko. Nere lagun batek arrapatu zuan bein bat eta ezin jan izan genduen, oso gogorra zegoelako...

—Kalean ez dakizute ezer. Olagarroa arrapatu ondoren iru egunez lurpean eduki bear da zulo batean, ondu arte; bereala jateko bada, orduan egurrezko maillu batekin ondo jo. Gordetzeko bada, esegi eguzkitan txotxa batzuekin ondo zabalduta.

—Eta, olagarro siku orrekin zer egiten da?

—Lerro bat naikoa da sopa gozo-gozoa egiteko gure amamak egiten duen bezelakoa. Baita patatakin ere gozoa gelditzen da.

—Eta, beste kako txikia?

—Orrekin illedun karramarroak arrapatzen ditugu.

—Nola?

—Baiña, gizona, zuk zer dakizu? Karramarro oiek dira fiñenak eta aitzak dituzten zirriztuetan gorderik egoten dira. Kakoak sartu eta kakoan sartuta zulotik atera. Itsasoko urakin egosi eta oso gozoak dira...

—Etxeratu giñan bien bitartean eta guraso eta amamarekin itz egin ondoren, astelenean lkastolara eramango nuela neronek esan nien.

—Pedrotxok bere etxea izan du benetako eskola nagusia. Zenbat gauza ikasi dituen ezaguerara eldu ordurako...

Erriruntz netorrela ez zitzaidan zertan pentsaturik faltatu. Au al da mutiko tonto-lapikoa? Gu bai generala, bere terrenoan, tonto-lapiko utsak...! Ikusi nai neuke Don Pantaleon beronekin eztabaidan gau-arrantzari buruz... Arek ez daki ori zer dan ere... Arraiñeri buruz, eizeari buruz, perretxikueri buruz, belardiei buruz edo kortako ganaduei buruz... Oiek ez al dira kultura-gaiak...? Oiek eta beste milla gauza geiago, etxetik irten gabe, ikasi ditu Intxaurrendoko Pedro Garaikoak... Baserria izan da ba beti euskaldunen kultura-gordailua, baserrietako umetxoekin nolatan egiten dira ainbeste astakeri eziketa arloan...?! Baserritik kanporako bes-

te kultura, aurrak ez dakien izkera batean, eman...?! Orrelako okerrik nabarmenak onartu, egin eta eragiteko diruz ordaindu...?! Norbere seme-alabak egoera orretan sartu...?!

Euskaldun jatorrek, euskera beste mintzairarik ez zekitenek, sufrimentu ikaragarriak jasota izango dira, orrelako jokabidea bere aurrentzat eskatzeko...

Pedrotxo kirioetatik irtenda zebillen gizarajoa. Goizean goiz jeiki, jateko gogorik ez, kafe utsa artu eta eskolara, artzaren atzaparrak zituen leoi baten aurrera, aren garraxiak entzun eta zaplastakoak artzera:

—Burro, animal, idiota, retrasado mental...! Contra la pared con dos tomos de El Quijote en cada mano...! Con la regla te voy a espabilar primero las manos, a ver si se te abre esa cabezota...!

Oiek jakinda gero Campion'en Blancos y Negros eleberria etorri zitzaidan burura: Urdiango ume elbarriak jasotako tratoa, alegia... Eskerrak Pedrok ez ziola tutik ere entenditzen; baiña, begi beltz aundi aien txinpartak ikusita, biotza jartzen zitzaion saltoka eta belaunak dar-dar... Zer inpernuetara ekarri naute, pentsatzen zuan errukigarriak...!

Egun osoan ez jan eta ez edan, gauez etxeratu arte. Amabi ordu etxetik kanpo abelera txar batean. Zer neke ikaragarria umetxo euskaldunen lepoetan...! Julenek au izan zuan begien aurrean bere bidea aukeratu zuanean: kondematuta zeuden umetxo euskaldunak salbatzea, gaizkatzea, gaitzetik askatzea... Lan orretarako, merezi zuen-da, bere bizia eskeiñi zuen...

Julenerengana eldu naizenean, a zer poza biona Intxaurrondoko kimua salbamen bidean ipiñi degulako...

Larunbat arratsalde, eskolatik irten da gero, Alesek Pedrotxo Juleneri eraman zion. Pedrotxoren poza jakin zuanean Julene andratxo liriaña izango zala "maestra" Don Pantaleonen orde...

Zeruetatik jexitako Mari sorgin ederra ote zan Julene ura...! Nundik egin ote zien orrelako aldaketa zoragarria...?! Gaiñera, euskeraz zekiena...!

Gau osoa igaro zuen amesetan; zorioneko ames goxoetan... Ireltxoek etorri zitzaizkion oge ingurura dantzari eta berritsu:

—Pedro, gu txiki-txikiak gera; baiña indar eta aalmen aundiak dizkitugu: guk biurtu dizugu Don Pantaleon leoi-artza andereño eder batean... Sutondoan amamak gure indarren berri ematen dizu eta guregan sinisten dezu...

Esnatzean, eguzkiaren erraiñoa sartzan zan lo-gelan leiatillen zirriztuetatik. Eguzkia oso goian zegoen eta Meza Nagusirako prestatu bear... A zer lo gozo ederra egin duen bart! Orrelako ederrik ez da gogoratzen besterik. Goiz onetan mendiak argi bizi-bizia dute, berri-berria... Gaiñera atzo illargi berria eta marea biziak, gau-arrantzara laguntzen joateko eskabidea egingo dio aitari.

Andereñoari itxaskabra batzuek eramatea ondo baiño obeto egongo litzake. Bai orixe.

—Aitak baimena emango dit nere poza bete-betea izan dedin eta Don Pantaleonen leoi-aurregia beteriko galduko det nere burutik...

Pedrotxok asmatu zuen, aita bera ere irrika bait zegoen gau-arrantzara joateko. Arrantzu ederra egin zuten. Lupiñarik ederrera eta bi itxaskabra maistrarentzako eta beste orrenbeste medikuarentzako: medikuari ondo portatzen zalako eta maistrari ondo porta dedin aurrerantz.

Pedrotxoren aitak ez zuen errez amor eman; baiña, sendagille jakintsu baten aurrean, ausardirik ez ezetzean jarraitzeko. Orrelako gizon prestuari errespetoa

bear zaio eta eurok, baseritarrak izan arren, edukazioa bazuten eta oiñarrizko kultura aberatsa ere bai. Axalekoa falta: erderak berekin zekarren paper-kultura ura. Bai, ba; gauza guztietarako papera bear. Edozertarako papera bear. Erderazko papera. Paper-kultura orrekin nazka-nazka egon arren, uraxe bear kale-gizarterako. Eurentzako, paper gutxi bear zuten: testamenturako papera eta urai-be naikoa; beste guztiak sobre zeuden.

Kanpotik etorritako paper-kultura nazkagarri orren mende egon bearko zuten betirako eta, erderarik gabe, zer egin? Beti, mundu osoaren aurrean, zoro-iñuzu batzuen antzera ibilli bear. Medikuak agertu zion garbi asko, euskeraren bitartez, errezago ikasiko zuela gauza jakingarri asko, baita erdera bera ere...

—Ala bada, jauna, egin beza bedorleri obeto iruditzen zaiona.

—Bai, gizona, lasai egon Intxaurrondoko jaun ori, Pedrotxok osasuna eta jakinduria, biak, obeto lortuko ditu Ikastola berrian.

—Alan izan bedi.

Arazoa erabakita utzi zuten bien artean: Ales berbera joango zan Don Pantaleonen eskolara, andik aurra Juleneren ikastolara eramateko.

Astelena eldu da. Alesek Pedrotxo artu eta Ikastolara eramán du. Umearen poza ango umeak eta "maistrak" euskeraz egiten zutela ikustean... Biotza zabaldu zaio illargibetea baiño aundiago.

Pedrotxok lupiña eta bi itxaskabrek arto eskeiñi dizkio:

—Nik arrapatu ditut bart.

—Eskertzen dizut egin duzuna, lupiña eta itxaskabrek gozoak direlako, zedorek arrapatu eta ekarri dituzulako; baiña, au ondo buruan sartu asiera-asieratik: nik ez zaitut ondo artzen itxaskabrek ekarri dizkidazolako, maite zaitudalako, bai-zik.

—Emendik aurrera pozago ekarriko ditut. Ni gustora joaten naiz gaueko arrantzara eta neuk arrapatutakoak neuretzako dira. Amak saltzen ditu eta oien diruak neuretzako izaten dira. Neureak dira eta neuk gustora ekarriko dizkizut.

—Zuk ori nai badezu, egin nai duzuna; baiña gutxitan.

Gau-arrantzak gutxitan izaten dira: geienaz ere illean bein. Onak izateko marrea biziak bear diranez, iru illebetz bein. Orregaitik gau-arrantzara joaten zan bakoitzeko ekartzen zion bere andereñoari arraitxo ederren bat. Zer pozik, ala ere!

Pedro zeruan bizi zan. Goizetik ondo gozalduz eta ikastolako lasaitasunakin kirioak ere lasaitu. Eta, agiñik atera bearrik ez. Zoragarri.

Beste bost urte pozgarri igaro zitun Ikastolan bere ikastaroak bete arte. Gizondu zan bitartean. Amalau urte bazitun, beintzat eta...

Pedrok Ikastolatik atertzeakin batera, sortu zan gerra negargarri bat eta ikastola guztiak ankaz-gora botan zitun. Aur euskaldunek berriro Don Pantaleonengana jo bear...

Eun urte iraungo duen gaitzik ez omen da eta gaitz onen azkena ere ezagutu degu. Ikastolak galdu ziran eta Juleneren garaiko andereño geienak ere bai. Aien orduko lana, orde, ez da alperrikoa izan: orduko Ikastolen azitik sortu dira gaurkoak.

Anes Arrinda

AMAIERA

Lirio ederra, zeu izan zaite
ainbat gozoren artian, errezau dabenen anparua
orain da denpora guztian.

Esan dogu, merezi dabela puska oneik be, jaso ta zaintzea.

AITA ONAINDIA

IZKIRIMIRIAK**ITURRIGORRIKO SANKRISTAUA**

Gizon melarra zan; txikia baiña bizkorra eta berakata lez piña. Beti arin-aringa. Bein eldu jako mutiko muki zu bat beretzako enkargu bategaz. Sankristauak Anton Potxoto eban gaitz-izena eta mutillak jakin ez. Gerturatu jako onelan esanez:

—Entzun, Anton Potxo.

Asarratu da sankristaua eta asarre bizian diñotso:

—Nor naiz ni?

—Anton Potxo.

Sankristauak abotsa gogorrago:

—Nor naiz ni?

Mutilla izaturik eta apal:

—Don Anton Potxo.

Gizonak zeruraino abotsa jasoaz:

—Baiña, nor naiz ni...?

—Señor Don Anton Potxo.

Emon eutson belarrondokoakin gortu eutson mutikoari belarria betirako.

—Ez dakizu Anton Potxo gaitz-izena dala?

—Ez, jauna, gaitz-izena Txilbristo dozu.

* * *

LOS RIOS MISIORAKO ESKABIDEA

Ondarrun gertatua, uste dot.

Misiolarien eguna ospatzen eben elizean eta abadeak aldaratik:

—Gaurko eskabidea Los Rios'erako izango da.

Koru-azpiko arrantzale batek bestiari:

—Onexeri bai gustora emango deusak milla pezetako, ia ibaiak bein betirako garbitzen dabezen.

MOZKORTU ALA ZER?

Jakiña da, zenbat eta negozio geiago, ainbat eta artu-emon geiago. Bazkaria emen, bazkaria an, aparia bes-tean, Pototo leporaino dabil. Lengo gabaz basoari eragin eutson neurritik kanpora eta apur bat naastu zan gauza guztiak biñaka ikusi arte:

—Au dok ederra, au, mundu osoa biñaka dabil bikiak bezela...!

* * *

Ertzaiñak geldi! esan deutsoe eta salakuntza egin.

—Mozkortuta kotxea erabiltzea arriskua da gizarterako. Illabete preso —diñotso Oto juezak Pototo'ri:

—Ni ez nengoan mozkortuta.

—Ezetz?

—Ez, jauna.

—Zer zeunkan ba?


—Ardau geiegi eranda; besterik, ez.

—Besterik ez?

—Ez, jauna.

—Orduan, giltzapean illebete egin orde, ogeita amar egun egingo dozuz. Besterik, ez.

ARRINDA'TAR ANES



Biblia

JAINKO ETA GIZONEN ARTEKO AR-EMANAK

BIBLIA ETA GIZONA

Gizonak bere kabuz eta bere kontura ezin lezake Jainkoari buruzko gauza garbirik jaso. San Paulo'k dionez, Jainkoa'k bere arrastoa utzi du mundu onetan; baña, arrasto oiek ispillu zikin baten antza dute. Ispillu orrek ez du Jainkoaren irudi garbirik ematen. Orregaitik Jainkoa garbiago ezagutzeko, aren laguntza bear izan du gizonak eta laguntza ori Bibliaren bitartez eman dio; naiz-eta gizakien asieran ere laguntzaren bat izan.

* * *

Zer esaten digu euskaldunon histori-aurreak? Kobetan ginduztela geuren elizak eta an, ormeetako marrazkietan aztikeria egiñez, animali basatiak gurtu: larrabei, basauntz, basurde eta abar. Animaliak ezita gero, ikulluan zeudenean, orduan ere berdin: bei, auntz, urde eta abar ziran gure aurrekoen jainko txikiak eiztari izatetik artzai izatera biurtu ziranean. Baita illargia, eguzkia eta izakiaren beste indarrak ere gurtzen zituzten.

Eta, geure erriaren antzera bizi ziran beste erriak ere. Jainkoa illunpetan zegoen eta aren irudia eztalita. Eztali ori kendu bear zan irudi garbia ager aal izateko. Orixe izan zan Bibliaren zeregiña: eztali ori kentzea.

BIBLIA EZ DA ZIENTZI-LIBURUA

Mundu onetako asieraren arazoak naiko ondo adierazten ditu Bibliak; alaz ere, bere eginkizuna ez da guri zientziaren berri ematea, Jainkoarena, baizik.

Zientzia Bibliaren idazleek ikutzen dutenean, konparazio baten antzera erabiltzen dute zientzi ori eta orduko ikuspegitik; ez beintzat gaurkotik. Biblia idazten asi ziranetik, iru milla urte pasa dira eta arrezkeroz, orduan zeukaten ikuspegia, azpikoz gaiñera aldatu da. Ezin diteke gaurko neurriekin orduko gertae-rak neurtu. Dana dala, argi ta garbi dago Biblia ez dala zientzi-liburua erlijio-liburua baizik.

Bere egitasmoa guri Jainkoaren berri ematea da eta iñola ere ez, zientzia erakustea.

PEKATUA ETA ASKATASUNA

Bibliak dionez, Jainkoak egin zituen Zeruak eta Lurra. Lur onetan gizakia ipiñi zuen gauza guztien jaun eta jabe; gizakia, ordean, egiña izanik, bere Egi-llerearen esanetara egon bearko du, eta Jainkoaren irudira egiña dagoenez, baidu artarako bear diran adimena eta naimena.

Adimenak eta naimenak, bien artean, osatzen dute gizakiaren askatasun-aalmena. Aske da gizakia, azken-neurri batean, beintzat. Eta askatasun orrek bere neurriak baditu: Jainkoa-kreatzallearen naiaren erara. Jainko egille eta Gizaki egiñaren arteko emanak dira askatasunaren ezparruak.

Egilleak ipiñi dizkio Egiñari askatasunaren neurri oiek: Ona egin, txarrik ez egin. Orra Paradisuko On eta Txarren jakintza-ARBOLA. Buztinezko Gizonaren (Adam'en) pekatua orixe izan zan: Bere burua Kreatzallearen gaiñetik ipintzea: Jainkoaren gaiñetik, Jainkorik gabe eta Jainkoaren aurka.

Ona eta txarra naastu; Jainko eta Gizakiaren arteko emanak ukatu eta orrela pekatuari beste aurpegi berri bat eman: sikologi argaltasunaren edo eziketa murriztuaren ondorioak, estruktura okerretik berez sortzen dan emana, eta abar. Ez omen da besterik ezer.

Pekatuaren benetako zerkia eta izakia Bibliak argitzen dizkigu, batez ere Adam eta Kristo aurrez-aurre ipintzen dituanean: Baten pekatuagantik sortu dira munduan okerkeri guztiak eta bestearen eriotzagandik, berriz, ondasun guztiak. Adam ba'da gaitz guztien sustraia, Jesus da on guztien iturburua.

* * *

Testamentu Zaarreko pekatua, Israel'ek Jainkoarekin zeukan Itun edo Itzarmenaren aurkako ekintza da, gizakiaren asieran Jainkoaren naiaren aurkakoa zana eta gure askatasunaren esia apurtzen zuena. Abraham'ek eta bere azitik sortutako Israel Erriak Ituna zeukan Jainkoarekin egiña: Ni izango naiz zure Jainkoa eta zu izango zera nere Erria. Itz ori ukatzea, Itun ori apurtzea, orra pekatuaren zera.

Moises'ek Sinai menditik Amar Aginduak ekarri zuenetik, oien aurka jokatzea izango da pekatuaren guna. Elizaren Katekesiaren Liburu berriak dionez "Gizonak Jainkoa gauza guztien asiera dala ukatzen duenean, bere azkenaren ordenamentu guztiak apurtzen ditu bai bere buruari dagozkionak eta baita ere bere inguruko gauza guztien dagozkionak ere. (G.S.13,1)".

Pekatuaren benetako barrua ikusterik ez dago Bibliaren ikuspegitik ez ba'da. Sinismenik gabe eta Jainkaorekiko ar-emanik gabe, pekatuaren benetako zerkia eta izakia ezagutzerik ez dago.

MOISES'EN AGINDUAK

Ona eta Txarraren Jakinduri-ARBOLA Amar Aginduetara makurtu zuan Moises'ek eta Amar oiek onela banatzen dira: Iru, Bost eta Bi.

IRU

Lenengo Irurak Jainkoa dute artezgai eta elburu: Jainkoa bera maitatu; Jainkoaren Izena errespetatu; Jainkoaren eguna ondo ospatu. Berbera, bere Izena eta bere Eguna. Orra iru arteztu bearrezko gauza.

Maitatzeak Sinismena eta Itxaropena ere eskatzen ditu. Lenengo gizakiak pekatu egitean maitasuna galdu zuen eta sinismenak berekin dakarren konfiantza ere bai. Jainkoak maite zuen; baña, pekatua egitean maitasuna galduz, Jainkoarengan zeukan uste-ona ere galdu zitzaion, itxaropena ittoz. Maitasuna danean, sinismena eta itxaropena izaten ditu lagun. Auekin batera baita uste-on eta konfiantza osoa.

Lenengo agindua betetzen danean, gure maitearen Izena aotan maitasunez erabiliko degu eta bere Eguna pozik ospatuko degu. Orra iru aginduak errez bete.

BOST

Beste ondorengo bost Aginduak gizakia dute artezgai: Gizakiaren eskubi-deak zaintzera beartzen gaitue bost agindu oiek.

LAUGARRENA

Familiari begirutzen dio laugarrenak. israel'engo familiak oso ziran luze eta zabal: Guraso, gurasoen guraso, seme-alaba, seme-alaben ondorengoak, zuzeneko eta zearkako senideak, guztiak osatzen zuten famili bakoitza. Alkarrekin bizi ziran, batetik bestera, abere-taldeak eurokin zirela. Ezparru orretan danen arteko maitasuna bearrezkoa zan. Maitasunak zera eskatzen du, alkarri eskubideak errespetatzea: Goikoak bekoari eta bekoak goikoari. Orixe agintzen du laugarren aginduak, gizarte arteko ar-emanen zoriona sortzeko.

BOSGARRENA

Bizia da bosgarrenaren gaia. "Iñor ez il" alderantziz esanda dago. Bere onean auxe esan nai du: Zaindu itzatzu gizaki orok dituen bizitzarako eskubi-deak. Senitartean bezala, andik kanpora ere. Bizia da beste eskubide guztien oiñarria eta itur-burua. Bizitarik gabe, beste guztiak ez dira ezer. Bizitza kentzea, eskubide guztiak kentzea da. Bizia osorik izateko eskubidea degu eta edozein erataria bizi oso ori murriztea, bosgarren aurkako pekatua da.

SEIGARRENA

Biziaren sorburura degu agindu onen arazoa. Ar eta eme egin zituen Jainkoak. Bien elkartea bear da bizia sortzeko eta familia osatzeko. Bi oien ar-emanetan ez dedilla beste iñor sartu batasuna apurtzen eta ondoratzen. Biak dituzte, bizia sortzeari buruzko, alkarren arteko eskubideak. Oiek zaintzea da seigarrenaren elburua: Ez dedilla iñor, familiaren barruko pakerako, eskubide-

lapurretan sartu euren artean. Orixe eskatzen bait dute seme-alaben eziketak ere. Garrantzi aundia zuen agindu onek Israel'en.

ZAZPIGARRENA

Bizia zaindu eta gordetzea, ori da bat; baña, bizia aurrera eramateko, gauza asko bear dira eta gauza oien eskubideak biziak berak ematen dizkigu: Jana, edana, jantzia, etxe-bizitza... Lapurretak debekatzea, eskubide oiek zainetzea da. Gizaki guztien eskubideak: Argalen eskubideak, umezurtzen eskubideak, ezjakiñen eskubideak, iñuxente guztien eskubideak... Gizarajo guztien eskubideak.

ZORTZIGARRENA

Adimena badegu eta adimen ori egiez bizi da: badu egiaiekiko eskubidea. Eskubide oiek zaintzen ditu zortzigarren aginduak. "Gezurrik ez esatea", egia-aren alde jokatzeko da. Adimenak egia bear du eta gizarteko ar-emanek ere bai. Egia izan dedilla gure joko-bidea agintzen digu zortzigarrenak. Obeto biziko litzake gizartea, gezur gutxiago ba'lego bien bitartean...

BEDERATZI ETA AMARGARRENA

Gizakiaren askatasuna bi aalmen auetan oiñarritzen da: adimen eta naimenean. Naimena adimenetik bizi da: Ezagutzen ez danik, nai ezin. Nai izateko ezagutu egin bear aurretik. Bi aizkeneko aginduek, bederatzigarrenak eta amargarrenak, gure bi aalmenak zuzentzen dituzte. Zergaitik eta zertarako? Egintzetan mamitzendana, aurretik adimenean lenengo eta naimenean geroago egoten dalako. Gizakien egintzak jokabide orretatik ibiltzen dira gizaki bezala ari diranean. Itsumustuka jokatzeko, robotoren antzera ibiltzea da eta ez gizaki erara. Gizakien buruaren aalmena okerretik gordetzen ba'degu, onek ez dio naimenik jango; orrela, okerra burutik eta naimenetik kendu ezkerok, ez da ekintza txarrik izango. Bi agindu auek beste guztiak betetzeko bidea erakusten digute: Okerkeria adimenetik eta naimenetik kendu.

Arrazoi zuen Moises'ek Amar Mandamentuak bere erriari eskeintzean, onela esan zuenean:

Emen dituzue Ona eta Txarra, Zuzena eta Okerra. Bi bide dira alkarrengandik aldentzen diranak: Onetik ona aterako dezute eta Txarretik txarra. Bizia batetik eta eriotza bestetik. Aukera zuena da: zeurok nai dezuten bidetik ibilli. Zoriona eta Zoritxarra zuen esku daude; zeurok aukera egin. Onaren bidea artzen ba'dezute eta Agindu auek bete, erri jakintsua izango zerazte eta zoriona lortuko; Txarretik ba'zoazte Agindu auek baztertuz, zoritxarra eta eriotza topako dituzue bidean...

MOISES ETA JESUS

Paradisu'ko Ona eta Txarraren Jakintza-Arbola eta Sinai'ko Amar Aginduak

Moises'ek erakutzi zizkigun, bai bat eta bai besteak. Paradisu'an Ona eta txarra aitutzen dira, baiña zeaztasunik gabe; Amar Mandamentuak, berriz, Ona ala Txarra zertan dagoen adierazten digute. Gure askatasunaren mugak argi-ago ikusten dira Amar Aginduetan.

Eta, zer dio Jesus'ek Moises'en Lege oneri buruz?

"Zuk gure arbasoen Legea apurtu nai dezu" esan oi zioten Jesus'i bere etsaiak. "Ni ez naiz Legea apurtzera etorri, betetzera baño" zan Jesus'en erantzuna. Legea osatzera, Legea bere betera eramatera etorri zitzaigun Jesus Jauna Zoriontasunak aldarrikatzen dituenean.

Dirua, indarkeria eta sexoa dituguz, lenago bezala orain ere, munduko zorion-iturriak: Zorionekoak aberatsak, zorionekoak indarra besteei ezartzen dietenak, zorionekoak lizunkeri guztietan murgilduta bizi direnak... Jesus'ek, berriz, oien alderantziak aldarrikatzen dizkugu:

Zorionekoak beartsuak, zorionekoak apalak, zorionekoak errukitsuak, zorionekoak pake-gilleak, zorionekoak erasotuak, zorionekoak garbiak...

Esan zitzaizuen 'begiak begia zor eta ortzak ortza zor', nik berriz esaten diuzet matrallan jotzen zaitudanari beste arpegiko matralla ipiñi, txarrari onarekin erantzun, maitatu etsaiak ere, gaizki egiten dizunari barkatu eta aren alde otoitz egin, eskatzen dizunari eman, pentsamentuetan ere garbiak izan... artu bizkarrean eguneroko gurutzea eta etorri nere ondoren.

Mundu onetako erakutsiak alderantziz ipintzen ditu.

Galtzerdiari buelta osoa ematen dio:


Diruzaletasunari - eskuzabala,

Indarkeriari - pakea,

Sexoari - maitasun garbia.

Ona eta Txarraren inguruak eta pekatuaren inguruak ez dira errezak entenditzen Bibliaren agerpenik gabe. Jesus'en erakutsiak areago.

Anes'ek



JARRAITZAILE

Jesus'ek artzai onaren itxura artzen dau eta bere ondoren jarraitzeko deia egiten digu. Bere lenengo jarraitzaileek, euren ontziak laga, eta Jesus'en ondoren abiatu ziran. Alaxe egin eben Simon eta Ander'ek, Jon eta Santi'k.

Nora dei egiten dausku Jesus'ek?

Azken batez, zorionera.

Dei on neuretzako da. Neure izenagaz deitzen nau bere bidean jarraitzeko. Baña, neure bidea, Jesus berbera da. Bere ondoren ibiltzea, bere bidean ibiltzea, berak egin zitunak egitea da; berak erabili zuan bizitza erabiltzea.

Jainkoaren Erreinua iragarri zuan. bere inguruan maitasuna egintzetan zabalduz. Eta ori, bere laguntzarik gabe, ez da beti gauza erreza izaten; baña, bera dogu bide-lagunik onena eta, bere bidea jarraitzean, pozez betezen gaituena.

Galilea'ko itxas-bazterrean, Jesus'ek bi anai, Simon eta Ander. ikusi zituan arrantzarako sareak botatzen eta onela esan eutsen:

Laga oiek eta etorri neurekin eta giza-arrantzale egingo zaituet.

Sareak eta itxas-ontzia laga eta Jesus'en ondoren joan ziran.

Aurrerago, beste bi anai, Jon eta Santi, sare-konponketan:

—Etorri zeurok ere neurekin.

Egun aretan Jesus'ek bere lenengoko lau ikasleak aukeratu ebazan.

Neu ere berak aukeratu ninduan. nere bataio-egunean. Eta, gaur deika daukat. Berri Onaren bidez, bere antzeko izan nadin nere bizitzako arazo guztietan. Ona zar zion Michael Jakson abeslariak 1988'garren urtean. Dagonillaren 11'an, HOLA deritzan aldizkarian:

—Nere amak Jainkoarenganako maitasun-garra sartu zidan biotzean, nik beti zaindu dodana. Baita ere, berak erakutsi eustazan dantzarako eta abesteko dodazan gaitasunak, Jainkoaren doaiak dirala.

Eta, Jesus da gure Jainkoa, Aitak lurrera bidaldutako Semea, berari jarraituz, salbamena iritxi dezagun.

"Jauna. begiratu didazu / nere izenez zuk ni deitu nauzu ondarrean utzi det nik ontzia / zurekin itxaso berria".

TALDEAN

Gizakia, gizon eta emakume, taldean bizi izateko egiña da: famili batean sortzen gera eta erri batean bizi gera. Ez gera perretxikuen antzera bakardadean sortu, banan-banan eta iñorekiko artu-emanik gabe. Eskolara taldean joaten gera; futboleko taldean egiten dogu; elizan otoitzak taldean egiten ditugu.

Jesus'ek badu berak sorturiko talde bat ere. Ikasleak aukeratu zitun eta oiekin Eliza deritzan taldea sortu zuen. Bere jarraitzaile izan nai ba'degu, talde orretan jarrai bearako diogu. Apostoluei eman zien talde on aurrera eramateko agindua: "Zoazte munduan zear eta nere Berri-ona zabaldu baztar guztietara nere ikasleak egiñez".

Gu Jesus'en jarraitzaile ba'gera asmo ori aurrera eramaten lagundu bearako diogu; baña ori lan gaitza da eta zaila guretzat bakarka egin nai ba'degu; taldean egiten ba'degu, ordea, bere laguntza izango degu.

Jesus'en izenean alkartzen geranean Jesus berbera dago gurekin bat egiñik. Onela dio (Mat. XVIII, 19-20).

"Egia esan, berriz ere: zuetan bik lurrean alkar jartzen ba'dute, edozer eskatzeko. zeruko Aitak emango die. Bi edo iru nere izenean bildurik ba'daude, an nago Ni, aien erdian".

Taldean jaiotzen gera sinismenerako, taldean bizi degu gure sinismena eta taldean aurkituko deal) geure azken-muga. Talde ori da Kristau-taldea edo Eliza.

Nik zer eskeintzen diot taldeari? Zer ematen diot? Nere lana, nere otoitza, nere laguntza...

Eta taldeak zer ematen dit neri? Jesus berbera arkitzen det, Goimaitasun-Arnasarekin batean, bere otoitza, okerkerien barkamen eta pakea, bere babesa, bere itzala eta aterpea... "Egunero zuekin nago munduaren azken egunerrate" esaten digu Jesus'ek. "Jarrai nere ondoren, nere zama ariña da...".

"Goazen elkaturik piztu-ta fedea, argitan zabalik maitasun-bidea".

JON JOARISTI ETA BERE "BUCLE MELANCOLICOA"

1. Garbi estan dezu zure lan ori ez dala Abertzaletasunaren Historia zeatz bat, abertzale batzuen historiak baizik: "Historias de Nacionalistas Vascos".

2. Unamuno dezu danen buru... Gero Sabin, zearka begiztatua... Eli Gallastegi... eta Bilbao "bocho"ko erdal-dun kumeak... eta Eskolapiotakoak... Arzallus ere, (nola ez?) ikutzen dezu bere jesuita jantzi ta guzti...

Baña ez dituzu Gipuzkoa'ko baserriak aitatzen ere... HB ortxen dago errotuta; euskaldun baserrietako gazte euskaldunen artean...

3. Euskaldunen jatorria ez dakizu nundik datorren; ez dezu, beintzat, antzerarik ematen... Arzallus'en abertzaletasunari buruz ari zeranean, onela diozu: "Su racialismo recoge elementos del discurso de antropología física de los años veinte al treinta de nuestro siglo (vagas y, por qué no decirlo, inoctas referencias al RH negativo, a los cráneos cromañoides, etc...)".

Badirudi gai oiek ez dizuela errespeto aundirik ematen... "Cromañoide" kaska-ezurretik atera zuen D. Jose Migel Barandiaran'ek hipotesis ura, alegia, euskaldunek ez dirala kanpotik etorri eta ez joateko emendik at, jatorria aurkitzeko, emen, Pirenee inguruan sortu bai zan aren azkazia, Cromagnon'eko leñotik...

Hipotesis ura tesis biurtzera joan da 1940 amarkadatik ona. Orduan, Argetina'n, eta ez Euskalerrria'n, sendagille batek aztertu zuen bertako 400 euskaldunen odola eta andik onera sortu zan RH'ren arazoa; gero, Sorbona'ko irakasle eta Toulouse'ko Unibersidadeko beste irakasle batek, orixen berbera agertu dute 1970'aren amarkadan... Azkenik, 1990ean orra nun azaltzen zaigun Luigi Cavalli Sforza, Italiar genovatarra, Laterri Batueta; ko Ikastola Nagusi batek, euskaldunen geneak aitatzen... Guztiak, Gure Maixu Don Jose Migel'en hipotesis ura, tesis biurtzen gaurko euskaldunen gorputzetik: odol mota, RH eta geneen bidetik aldarrikatzen digute euskalduna bertakoa dala eta ez Asia'tik edo Afrika'tik etorria, zuzenean beintzat, Cromagnon'eko zulotik, baizik...

Baña, zuk oiek ez dakizkizu, ala ori orrela ez ba'da, ez dezu beintzat aitzera ematen...

4. Unamuno, Sabiñ'ek eta ainbeste joandan gizaldiko jakintsuek, ez zeukaten euskaldunen jatorria billatzeko, izkuntza besterik... Eta izkuntzatic bakarrik, naiko garbitasun atera zuten; okerrak ere bai. Gaur-eguneko jakintsuek, ordea, aiek ez zuten ainbat lagungarri dute: eun leize marrazkiz beteak; beste ainbeste leize-egoitzak; Ieizeak illak eortzeko; 500 baño trikuarri geiago gure mendietan: cromlechs'ak ez gutxi... Oiek danak arkeolojiaren laguntzak dituzu, euskaldunen asiera billatzeko... Eta bide auek

danak Dn. Jose Migel "en hipotesis segurtatzen dute; Unamuno'k, Sabiñ'ek eta abarrek, euskera utsez, ezin egin izan zutena... Nun gelditzen da zure Arzallus'eri buruzko ura "(vagas y, por qué no decirlo, inoctas referencias al RH negativo, a los cráneos cromañoides, etc...)".

5. Unamuno'k Euskalerrria eta euskera utzita Salamanca'ra jo zuan... eta Castilla'ko aizeak eman zion oorea eta fama... Pio Baroja'k Madrid'etik zabaldu zuen bere izena, Caro Baroja bertakoa da eta zuk ere antxen billatu dezu aupada emango zizuen eta zure izena zabaldu eta luzatuko zuen indarra... Madrid'en bedeinkatua izaten da euskaldunen berri onak (Olazabal'en txamarra orlegia, Juanitok 14 zortzimillako tontorrak igo ba'ditu, Olano munduko txapel-duna gertatzen ba'da...) orrelakoak beti izaten dira "españolak"; ez dizute kasualidadez ere euskaldunak direnik esango; Baña emengo bateren batek okerrik egiten ba"du, albiste-emalledun guztiek esango dizute argi-eta garbi, ori "vascoa" dala.

Baña, joko orretara oituta dago euskalduna Goto eta Franco'en garaietik onera: orduko kronika zaarrak, eurak idatzitakoak, beti jartzen zuten euskalduna terrorista utsa ba'litz bezela; eurok egindako sarraskiak, berriz, oore aundikoak izaten ziran...

"Castelle" izena, lenengo aldiz idatzita, Valle de Mena'n, gaur eguneko Bizkai'ko muga berean agertzen da, "Las Glosas" liburuak dionez. Eta Castilla, lur zabala, euskaldunen odoletik sortu zan eta moroen eskutik Naparro-Aragoi'ko Basconiek, Gipuzkoa'ko Varduloek eta Bizkai'ko Caristi eta Nervionék (Errioxa eta Burgos era zabal-tzen zituzten beuron erroak), oiek askatu zuten eta eman zioten askatasunakin, akenik, izkera berbera ere bai... Latiñez ari dirala sortu zuten euskaldunek Gaztelera... Odol eta animaren erdia jaso zuen Castilla'k euskaldunen zere-tik...

1801'an konturatu zan Humboldt alemaniarra, eta idatzi ere bai, Castilla'k gorroto ziola Bizkaia'ri, bekaitzez, eta Bizkaiko burniari, Ebro'ko mugan, berealako zergak ipintzean, merkeagoa zala Londres'ko burnia Castilla'n, Bizkai'ko baño... Anaiak ez ba'gera, lengusu txikiak gutxienez bai... Nola sortu ote zitzaion euskaldunen ganako ikusi eziña?

6. Zure liburua perretxiko tortilla bat irudi zait: badira ontoak, zizak, tripakiak, era guztietako perretxikoak eta "entoloma lividum" naikoak, danen artean banatuta... Euskaldunen abertzaletasuna iltzeko? Ala erdal-duna pozteko?

ARRINDA'TAR ANES

ERRIETAKO GIZON PRESTUAK

JOSE MARIA ALBISU SARASOLA 1882 - 1955

Bateren-baten bizitza idazten danean, lenego aipatu oi dan gauza auxe izaten da: nun jaioa zan eta nortzuk izan ziran bere gurasoak.

Jose Maria Albisu, gure aita, Lazkao'n jaio zan 1882-garren urteko Otsaila'ren 14'an. Zeaztasun onek ez du, noski, ezer-berezirik.

Bere gurasoak aipatzean, ordea, Anastasio bere aitarekin egiten degu topo, eta onek, bai, merezi duala aipamen berezi bat. Teresa Sarasola'rekin ezkondua, oso-gazterik il zan gure aita-jaun au, Lazkao'n "aitonari" deitu oi diogunez: 51 urteekin alegia. Berak sortu bait-zuan, ia-oraintxe arte ain-ezaguna izan dan "Hijos de Anastasio Albisu" sutegia.

Erriko alkate ere izan zan, baiñan berak egin zuan gauzarik arrigarriena beste au izan zan: 1903-garren urtean Suiza'ko Vevey erriko lantegi batean turбина bat erosi, eta berak sorturiko Lazkao'ko sutegian lanean jarri... Eta au da arrigarriena: A. Edison'ek argi-indarrezko bonbilla 1878-urtean sortu zuan, baiñan mendearen azkena ere etorri zan, argi-bonbilla oiek mundu osoan salgai ipiñi ziranerako. Eta bosten-bat urte geroago Lazkao'ko etxe ta kaleetan piztuak zeuden argi-bonbilla oiek, aipatzen ari geran Anastasio Albisu orri esker...Paris'en eta Erroma'n ere izan zan, eta oraintxe-ia gorde izan det nik-neonek ark Erroma'tik euskeraz egindako tarjeta bat.

Onela zion berak, ortarako baimena eskatuz, 1905-garren urteko Abenduaren 26'an Udaletxera bial zuan ezkutzak: que tiene el honor de exponer que desde el primero de enero de 1906 podría suministrar a este Ayuntamiento la luz eléctrica durante dos años por 1 peseta y 50 céntimos por cada luz o lámpara.

Eta beti entzun izan det ere, Urbitarte izeneko bere etxean ez zirala sekula falta-izan garagardoz beteriko bi upeltxo.

Eta auek-danak, 51 urteekin il zan, eta amar ume azi zituan garai artako gizon batentzat ba'ziran zerbait...!

Utzi dezagun, ordea, gurre aitonaren aipamen au ta jo dezagun Jose Maria, gure aitarengana.

Oraindik-orain aipatu degun Urbitarte etxean jaio zan au. Izan ere "ur bi tar-tean" zegoan kokatua etxe au. SUSTRAITZ errekatxoa alde batetik, eta AGAUNZA ibaia bestetik.

Ataun'go Urkola basarriko Mercedes Ayerdi'rekin ezkondu zan eta lau ume izan zituzten. Iru mutil eta neska bat... Eta ez nuke, esango dedan au, iñork arrokeritzat artzerik nai, baiñan gure ama onek ere, merezi du bere aipamena. 82 urtez il zanean, onela eman zuan izparringian bere eriotzaren berri Lazkao'ko berri-emalleak: "erri osoaren ama il zaigu". Ezin ba, gorespen aundia-gorik eman.

“Bat” izandu zan gure ama-ta,
ukatzea ez da libre,
aren antzeko emakumeak
ez lirake il bear ere...!

Gauza auek orrela dirala, etra idazkiak izen-ordez izenpetutzeko oitura zan garai artan, nik-neronek ere, lantxo bat edo beste onela izenpetu izan nituan: Urbitarte ta Urkola'tar Anastasio, geientxuenetan Sustraitz izenpetutzen ba'nituan ere.

Jose Mari, gure aitak, ez zituan, bear bada, Anastasio, gure aitonaren urrats berdiñak jarraitu, baiñan oso buru argikoa izan zan, eta berak eraman izan zituan beti-ere. “Hijos de Anastasio Albisu” sutegiko gora-bera guztiak. Oso atsegín izan zitzaion izkuntza berriak ikastea. Frantzeran nolabait menderatzen zuala esan genezake. Eta Donato Arrinda bere illobak eskuratu zion ingles-iztegi bateri eta Ingalterra'tik bialtzen zizkion egunkariei esker, zerbait ulertzeran ere, iritxi zan.

Gogoan det oraindik nik-neronek orduan esaten nuan au: gure aitari iñork errusiera ikasteko gramatika ta iztegi bat bialduko ba'lizkio, une ortantxetik asiko zala errusiera ikasten...!

Ala ere, ta bere sendimentuak agertzea geiegi gustatzen ez ba'zitzaion ere, ondo dakit nik euskera zuala bere izkuntzarik maiteena. Gogoan det oraindik Saturraran'go apaizgaitegira lenengoz joan nintzanean, zer esan zidan: “ez zak euskerarik aaztu”.

Eta esan dedan onen adierazgarri bezela, bego orain esango dedan au: etxean amari erderaz itz-egiten ba'genion ere, ez aitari ordea. Eta alperrik egongo zan etxe osoa erdaldunez betea, guk, ala ere, ez genion gure aitari erderaz itz-egingo...! Eta ez aitarengatik orrelako agindurik artu genuelako...! Eta emen agertzen diran, berak idatzitako ipui eta beste, auetxek dira bere euskerarenganako zaletasunaren lekuko batzuek. 1934-garren urtean idatzia eta Anastasio Arrinda, bere illobari Gasteiz'ko apaizgaitegria bidaliak.

1907-garren urtean sortu zan “Gipizkoarra” abertzale - astekaria. 25 urte zituan orduan gure aitak, eta gaizki ez ba'nago, arpidedun izan zan gure aita. Eta ez naiz orregatik aritzen orain, Engracio Aranzadi “kiskitzaren” ERAINTZA (siembra del nacionalismo vasco) liburuan esaten zaigun onekin: 1908-garren urtean alegia, Zumarrago'ko Antiguano bildu zirala “lenengo Gipuzkoa Buru Batzarra” aukaratzeko Gipuzkoa osoko 40 ordezkari, eta Jose Maria de Albisu, nere aita izan zala bertan Lazkao'ko ordezkari.

Ala ere, eta leen esan dedan bezela, bere sendimenduak gordetzeko oso askarra izan zan gure aita, ta ez det uste, iñolako politika-jardunik entzun genuanik beiñere gure etxean. Sermoirik gabe sartu zigun, noski, euskera ta Euskal-erria'renganako zaletasuna. Udaletxeko “sindico” ere izan zan: diru-zaiña, diru-arduraduna, alegia...

Gerora ordea, Urbitarte'ko sutegi au, errota biurtu zan, eta Errota-txiki ize nez ezagutu genduan guztiok. Ordurako ba'zegoan, izan ere, beste errota bat Lazkao'n. Eta oni deitzen genion Errota-aundi.

Gogoan det oraindik, gure ume-aroan zutik zegoala artean, Errota-txiki'ko atarian, gure aitonak-eta, abereak parratzeko bear izaten zuten tramankulu aundi ura...

1978 urtean erori zan ordea, Errota-txiki, gure aurrekoen Urbitarte ura...

Buru-argi bezein umoretsua izan zan Jose Mari Albisu gure aita: bere inguruan alaitasuna zabaltzen zuan gizona: ateraldi ederreko gizona...

Filosofi-ikasketak egiten ari nintzan ni orduan, Gasteiz'ko apaizgaitegian (1933). 18 urte-edo izango nituan, eta nere aitaren eskutitz bat jaso nuan. Esaera onekin ematen zion asiera eskutiz oni: Qui potest capere, capiat... (Au ulertzeko gauza danak, uler dezala) nereak dira kako-arteko itz auek. Eta goitik-beeraño umore ederrez betetako latera-mordollo batean idatzirik zegoan eskutitza osoa.

Eta au ez da, nere aitagan, ain-arrigarria... Esana degu leen ere, nere aitarren izkuntzetarako griña. Eta ezin ukatuko degu bestalde, garai artako mezak (otoitzak, irakurgaiak, ebanjelioak) lateraz egiten zirala beti (1933). Ta zaletu batek zerbait ikastea ez da ba, ain-arrigarri...

Garai artan Gasteiz'ko apaizgaitegian, apaizgaientzat etortzen ziran eskutitz guztiak bertako irakasleetako batek irakurtzen zituan leenengo, eta bakoitzari berea eman gero.

Nik ba'dakit, nere aitaren eskutitz au, eskuz-esku ibilli zutela bertako irakasleak, eta pensatu ere, pensatu zutela, bertako "Gimnasium" aldizkarian argitaratzea, baiñan...

Fitero'ko baiñu-etxean arrapatu zuan 1936'ko gerrateak: Naparroa'n alegia, ta ezin, momentuz, etxera etorri.

Etzarri-Aranaz eraño iritxi zanean, lasaitasun pixka-bat izango zuala uste zuan, baiñan an- bertako lagun-lagun batek, ez ziola Espaiña'ko banderari besorik jaso-eta, pistola batekin meatxutu zuan. Eta ez zan au, dana izan...! Aralar-mendian baitu zituzten gazte batzuek ekarri zizkioten gero aurrera, eta Joseba bere semea zegoan baitu aien artean... Ezin-esanekoa zan ba, etxera ekarri zuan izua... Eta lenengo egun aietan, zegoan tokian zegoala, berebil baten otsa entzutea naikoa izaten zuan. besoa-jasotzeko kiñua, oartzeko, egiteko...

Eskutitz bat etorri zitzaion bein "frentetik", et au esaten zion soldadu batek bertan: aspertuta zeudela "gerrako madrina" aiekin. Ez zietela "dententes" eta "Konseju onak" baizik bialtzen, eta "padrinos de guerra" nai zituztela beoiek ordutik-aurrera, eta bera aukeratzen zutela lenengo "padrino de guerra" beze-la.

"Frente" artantxe zegoan Luis Arrinda, bere illoba ere, ta onela erantzun zion idatzi zionari: pensatzen det, Irutasun Santuaren antzeko misterio bat gertatzen dala zuen artean ere. An iru persona ta Jaungoiko bat-bakarra dan bezela, or, alderantziz beste au gertatzen dala: firma bakar ortan bi persona izkutatzen dirala: Luis, nere illoba eta zu...!

Eta tabakoaz batera, ark bialtzen zizkien eskutitza aiek, erregalorik ederrena izango zan aientzat...! Eta Luis aipatu degun ezkerero esan dezagun, esan ere, gerratean il zala gizajoa...

1939-garren urtean, guda bukatu zan urtean, eman nuan nik ere, nere meza barria.

Eta ba'zan, orduan, Lazkao'n oitura bat: meza berria ematen zuanak egiten zuan, urrengo urtean, San Prointxio eguneko sermoia: erriko festatako sermoia, alegia... Eta alaxe egin nuan nik ere...!

1941-garren urtean ordea, Donato Arrinda'k eman zuan bere meza barria. Eta oiturari jarraituz, ark egin bear zuan 1942-garreneko San Prointxio sermoia.

Ondo zekian gure aitak ordea, asko kostatuko zitzaiola Donato'ri "baiezkoea" ematea, eta pixkat lagun naiean-edo, berak idatzi zion sermoi oso-oso, laterazko bere atalburu ta guzti... Donato ez zan ausartu ala ere. Eta orduan

nik, onela esan nion Lazkao'ko Errotore jaunari: ez ba'dezu eragozpenik, nik-neronek egiongo det berriro San Prointxio eguneko sermoia, datorren urtean... Eta onela erantzun zidan berak: eta zergaitik ez dezu aurten egiten...? Eta besterik-gabe "baiezkoa" eman nion.

Kosta zitzaidan ura buruz ikastea, ikasi nuan ordea, ta ondo ikasi ere. Ez nuan, ez itzik-aldetu, ez-eta itzik-galdu ere. Nere aitak idatzi zuan bezelaxe, esan nuan nik sermoi ura, urte artako San Prointxio-jaiean...

Eta batzuen-batzuk onela esan zioten ondoren gure aitari: sermolari ona dezu zure seme ori, Jose Mari...! Eta baita gure aitak bat-batean erantzu ere: ez naiz batere arritzen orrekin. Izan ere, ama du orrek etxean, munduko sermolaririk onena...

Ala ere, ta bazkaltzerakoan, nabarmen ikusi nuan nere aitari, sermoi orrekin eman nion poza. Ez bait-zuan uste, orrelakorik egin bear nuanik...

Izan ziran Lazkao'n ere, gerratea bukatzean, beren Beasain'go lantegieetatik kanpora botatako banaka-batzuk gorriak zirala-ta... Lazkao'n bizi ziran ordea, eta gure etxeko langilleak izan ziran geroztik.

Zenbaiten erantzunkizuna ez ote zuan, garai artan, bere gain artu Jose Mari Albisu, gure aitak...!

1943-garren urtean izendatu ninduen, ni ere, Azkoiti'ko apaiz. Araba'ko Fontetxa'n igaro nuan leen urte-bete ta Pasai'ko Trintxerpe'n beste iru...

Azkoiti'rako nere izendapena etxean azaldu nienean, au besterik ez zidan aitak esan: Azkoiti ortan izan dituk zalaketa ta asarrerik aundienetakoak politika-dala ta ez-dala. Ibilli adi, bada, kontuz...

Izan ere, pake-zale porrokatua izan genduan beti gure aita, ta ez zekian errita bat egiten ere... Eta gogoan det ondo, gaiztarkeriren bat umetan egiten genduanean, aitaren zai egoten giñala etxera joateko. Bagenekigun eta, ama erritan asten ba'zitzaigun aitaren babesia izango genuala...

Asko-ta-asko izan ziran gure aitaren ateraldi eder eta barregarriak. Eta zenbait eta zenbait olako ez ote zituan entzun gure etxe-aurrean zegoan "arrote bankoak". "Arlote" izen au ere, gure aitari zor bait-zion zelaiko jarleku onek. Ala ere, iru auek besterik ez ditut nik, adibide bezela, aipatuko:

Don Jose Lasa genduan, orduan, Lazkao'ko sendagille jaun. Ura ta gure aita lagun-miñak ziran biak. Ardo-trago bat egin bear zutenean ere, alkarrekin joan oi ziran beti trabenera.

Nik ez dakit zer-aitzaki izango zuan orduan gure aitak, Don Jose, bere sendagille lagunak au esan zionean: ardoari uko egin beariko diozu oraingoz beintzat, Jose Mari...

Askar asmatu zuan gure aitak estutasun artarik ateratzeko bidea.

Joan zan Mieleneko tabernara ta onela esan zion bertako tabernariari: Don Jose'k zera esan zidak: ardoari uko egiteko oraingoz beintzat, eta ezingo, diat aren-aurrean ardorik eskatu... Arekin etortzen naizenan bada, "manzañillea" eskatuko diat nik... Ik, ordea, ardo-zuriz betetako baso bat ekarriko diak kutxarilla batekin. Erain batzuek emango zizkioat edan aurretik eta kitto...! Orrela pozik izango dek Don Jose eta baita ni ere...

Orduan, egia esan bear baldin ba'da, ez zan gaur bezein maiz jaunartzen. Eta gizonezkoak gutxiago...

Ba'ziran ordea, emakumeak noski, gure aitari arren da arren esaten ziotenak: zuk sarriago jaunartu bear zenduke, Jose Mari. Eta baita gure aitak askar-asko erantzun ere: lan ere, erliki bati muiñ-ematera bezela joaten zerate zuek jaunartzera...

Erreumaren eraso-aldi mingarriak izan oi zituan iñoiz. Eta olako batean, miñez lertu-bearrean zegoan batean, apaizgai bat joan zitzaion oelbora ta zera esan: Jaungoikoa'k geien maite duenari ematen dizkio askotan min auek, Jose Mari... Eta gure aitak: Ara, Juan Jose...! Naiago nizek ba, ori ala izatea, Jaungoikoa'k, momentu ontan beintzat, ni baiño maiteago izatea...!

Eta 1955-garren Azaro'ko 14'ean il zitzaigun Jose Mari Albisu Sarasola, gure aita, iñori lanik eman gabe, il ere. 73 urte zituan.

Ez zuan etsairik izan, ta iñork ez zuan bera ere, etsaitzat euki...!

Goian bego...!

Auetxek dira nik gordetzen ditudan aitaren oroipenak... Jose, nere anaiak eta Paulita nere arrebak beste asko gordeko dituzte noski.

Dana dala, maitasunez egin det nik nere lantxo au, eta ez det uste iñungo geiegikeririk esan dedanik bertan. Bago ba, dagoan bezelaxe.

Anastasio Albisu Ayerdi



JOSE VENTURA DE LANDA, IDAZLE EUSKELDUN ETA DEBAKO PARROKO

Begien aurrean daukat bere liburu bat izen-buru onekin: EUSKERAZKO LANDA-RAK. Ataria Mujika'tar Mateo'ren eskutik dator eta liburuaren izena onela osatzen da: EUSKERAZKO ITZALDIYAK. Gure Zeruko Ama Maria euskeraz goratuba. Elexpuru-tar anaien echea. 1907.

“Bazkarango Andra Luisa-ri oroigarriya. Jose V. de Landa. Deva, 1907 garren urtian”. Rubrika ere badu. Orrelaxe dio, berak bere eskuz idatzita, nik neure aurrean dedan aleak; baña, lana berbera Don Mateo'ri eskeiñita dator itz auekin:

“EUSKERAZKO LANDA-RAK izentzat ipiñi diotan lan chiki au, donkitzen diyot, biotzetik ala ere, nere Meza berriyan lenbiziko itzaldiya egoki egin zuan la-gun maite, euskaldun azkar ta Apaiz jakintsu Beasain-go seme Mugica-tar Mateo Jaunari. Jose V. de Landa. Deva-ko Animazaya. 1906 garren urtian”.

Eskeintza oneri Itzaurre batekin erantzuten dio Mujika Urreztarazu, Gazteiz'ko Kalonje jaunak, berba askoren artean onela esanez erderaz:

“La humildad está bien siempre y en todas partes... Lo que se ofrece, sin embargo, como LANDA-RAK no es tal, es un árbol robusto y lozano, frondoso y fructífero, florido y hermoso... en un magnífico “euskera”...”.

Ondoren liburu bat aitatzen du: Orcaiztegui P.A., “Observaciones para hablar y escribir tolerablemente en nuestro idioma euskaro”. Página 62. Impr. de Eusebio López. Baña erririk ez dakar. Liburu orretatik artzen du Mujika Jaunak auxa:

“Dos graves males pesan actualmente sobre nuestra incomparable EUSKARIA y sobre su simpar idioma: 1/ No se sabe, no se posee el baskuence, no lo aprenden, ni bien, ni regularmente, siquiera los que a ello están más obligados por su sagrado ministerio. 2/ Sin poseerlo, sin saberlo, se habla, sin embargo, se predica y se enseña en baskuence tan mal que, con razón, ha podido formular uno de nuestros beneméritos vascófilos tan terrible y vergonzosa acusación como ésta: “Nosotros, los sacerdotes, tenemos muchas veces la culpa de que se eche a perder el baskuence”.

“Pues, contra ese doble mal será no pequeño remedio el libro del Sr. Landa: los sacerdotes, los predicadores, los estudiantes aprenderán con su lectura a pensar y expresarse en baskuence correcto, armonioso, sonoro y suave; sabrán decir las cosas sin esas insoportables “erderizaciones” que desvirtúan todas las buenas cualidades del orador y de la oración sagrada.

“No sé lo que sucederá cuando los “implacables” vascófilos hagan pasar

por el estrecho tamiz de su crítica severa el juicio que he formado del primer libro del Sr. Cura de Deva; mientras tanto, permítaseme colocar al autor de EUSKERAZKO LANDA-RAK en la respetable y envidiable compañía de Guerrico, Astarloa, Aguirre, Axular, Lardizabal, Unzueta, Iturzaeta, Mendiburu, Moguel y tantos otros que en nuestros días sobresalen, iluminando con sus destellos el inimitable cielo de Basconia...

"Ahora sólo resta que el Euskerazko Landa-rak tenga favorable acogida entre nuestros venerables hermanos los Sacerdotes de Euskeria; esto será seguro presagio de que han de ver la luz pública las nuevas producciones que prepara el Sr. D. José Ventura de Landa, Cura de Deva. Dr. Mateo Múgica, canónigo lectoral. Vitoria 20 de octubre de 1906".

Mundu guztiak daki euskerazko lanik geienak, historian zear, apaizak eta prailleak egin dituztela. Bitoria'ko Kalonje Mujika'k itzaurre au egin da bederatzi urte geroago, 1915'ean, eraiki zuten Euskera erakusteko katedra Gazteiz-Vitoria'ko Seminarioan. Baña, 1924'an sortzen da, azpi-azpitik sortu ere, Academia Kardaberaz, Seminario orretan. Don Manuel Lekuona izango zan bertako gidari.

Aita Kardaberaz, Ernani'ko jesuita bat izan zan, XVIII'garren eunkian Jesus'en Biotzaren zaletasuna euskaldunen artean zabaldu zuena. Mendiburu'ren lagun onek liburu asko atera zituen. Kardaberaz'en esana da auxe: "Euskerak burua jasotzea nai du Jainkoak". Orretxegaitik aukeratu zuten Kardaberaz beuren buruen ikuspegi bezala Gazteiz'ko apaizgaiek.

Amabi urte (1924-36) iraun zuen Academia Kardaberaz onek eta eunka apaizgaiek ikasi genduen euskeraz idazten Academia ori dala eta ez dala. Gerra itzalak ondoratu zuen. Ekainilleko (28-6-36), ogei egun gerra-aurreko "Euzkadi" egunerokoa daukat begien aurrean. Bezperan, eta Lekeitio'ko errian, Euzko Olerti Eguna ospatu zan Azkuetarren oorez. Irabazleak: Otamendi eta Sukia alde batetik, eta D. Manuel Lekuona bestetik. Otamendi eta Sukia apaizgaiek ziran KARDABERAZ'koak; D. Manuel, berriz, Academi orren buru. Otamendi irabazlea, bereala il zitzaigun; Sukia bizirik degu. Elizako Kardenal da eta Madrid'eko Artzai izana.

KARDABERAZ ori berpiztu genduen 1970'garrenean eta KARDABERAZ'tik, beranduago, EUSKERAZAINZA.

Mujika Kalonjea, Gotzai egingo zuten bere zoritxarrerako eta Barrutitik kanpora botea izango zan, gorago aitatu degun Gerra orretan. Desterruan ibilli ondoren, Zarautz'en ilko zan larogitaka urteak gañean zituela.

Apaizei botatzen dien errua, 'ez zan apaizena, apaizak egin zituen Seminarioena, baizik: ez bait zieten euskerarik erakutsi. Zekiten euskera, baserrian ikasi zuten, baserria izan zan-da Euskeraren Ikastola Nagusia eta bakarra.

Eurak ikasi zuten euskera ona zan; baña, euskera orrek erasoaldiak jaso zitun Latiñaren aldetik. Apaizgaiek Latiña ikasi zuten Seminarioan, Euskeraren orde; eta, Latiña ikasi ondoren, latiñez egin zituzten Filosofi eta Teologiako ikastaro guztiak. Ez da, bada, arritzeko "erderizaciones" beteak ba'daude aien

idazlan eta sermoiak. Auetako okerretatik ez da libratzen Axular berbera ere. Neretzako, ordea, okerrik aundiena auxe da: Zenbait idazle berriek Axular'engan ikasi dute euskeraz, eta okerrak ere bai; oker oiek sartzen dizkigute euskera uts ba'lira lez. Esate baterako, Zeren partikula, kausal bezala. Zeren ori, latin utsa da.

Guri, gaurko idazleei, aurrea artzea da Jose V. de Landa'ren meriturik aundiena. Gure biotzeko Santi Onaindia'k bere EUSKAL LITERATURA saillean, III, 273 orrialdean, dionez Itziar'en jaio zan eta badu "Itsasua eta Biotza" izeneko beste lan bat ere Landa jaunak. Tolosa'n ere bizi izan zan, apaiz gertatu baiño lenago. Itziar eta Tolosa ez dira erri txarrak euskera jator bat ikasteko.

Deba'ra aurretik Aulestia eta Aretxabaleta'n izan zan apaiz. Deba'ko parrokotik Bergara'ko Arzizpretera 1919'an. Eta, emendik, lau edo bost urte beranduago, Ollabare'ra. An il zan 1955'ean, 84 urte gañean zituela. Nanclares de la Oca inguruan dago sei etxetako Ollabarre erriska.

Zergaitik alde egin zuen Bergara'tik Ollabarre'ra? Santi'k dionez, J.M. Lojendio aitatzuz, osasun billa. Ori izango zan "egi ofiziala", egi biribilla estaltzeko. Guk dakigunez, Deba'ko andre batetik jakinda, benetako arrazoia auxe izan zan; Il zan gizon prestu bat Bergara'n eta illetak urrungo eguneko amarretan bear zuten, Gotzaiak berberak emateko. Baña, bere orduan ez zan Gotzaiak agertu, eta Landa arzizpresteak asi zituen. Ez zitzaion ori gogoko izan Gotzaiari eta Ollabarre bidean ipiñi zuan Landa jauna.

Giza-neurria Gotzaiak baiño obeto agertu zuan Arzizpresteak. Deba'ko Santa Katalina baserriko alaba izan omen zan bere etxeko-andrea. Eta, astero joaten omen zan, asto gañean joan ere, Gazteiz'era bere etxerako janariak erostera.

Anes Deba'ko parroko zaarra



JUANTXO-TXIKI ETA ZEURE JUSTIZIA

AUR-EZIKETA (16)

Justizia eta zuzentasuna biak bat dira. Zuzentasuna, okerretik ez ibiltzea da. Zuzen eta oker, orra ibiltzeko bi era desberdiñak. Zuzen ibilli eta zuzen jokatu, okerrera jo gabe, orixe da justiziaren jokabidea.

Juantxo-txikirekin zuzen jokatu. Berak baditu bere eskubideak. Eskubide oiek zapaltzea, oker jokatzeari litzake eta justiziaren aurka. Bere eskubide guztiak ezagutu bear dituzu eta eskubide oiek onartu. Ezagutu, onartu eta betetzen saiatu.

* * *

Umetxoak bere buruan argi gutxi izan arren, begiak irikitzea naikoa du zu berarekin oker jokatzeari zerala ezagutzeko. Injustiziak ezagutzeko aalmen berezia du, begiak irikitzearekin bakarrik.

Bere biotza irabaziko badezu, aurretik bere eskubideak zaindu beariko dituzu, maitasunak eraginda. Ez duzu esaten umetxoak, zeureak, asko maite dituzula..? Orra maitasunaren oiñarrizko bat.

* * *

Indargea eta argala duzu Juantxo-txiki eta bere eskubideak zaintzeko aiña ez da. Bere burua defenditzeko indarrak ez dualako, ez bere eskubideak oinperatu. Damutuko zaizu egunen batean.

Zergaitik? Berarekin zertan ari zeran konturatzen dalako eta eguna etorriko da zu argal eta bera indartsu izango zeratena. Zure egintzeetatik ikasi du oker jokatzeari eta berak ere zurekin oker jokatu du. Zeuk erakutsi diozu. Errukigarri izanen zera egun artan. Eta egun ori gertu dago.

* * *

Zure asarrerik ez umearen kaltean lasaitu. Ez dezala berak zure umore txarra ordaindu. Asarre zaudenean ez eraso Juantxo-txikiri; batez ere bera ez danean zure asarrearen errudun. Izanda ere, kontuz.

* * *

Bakarra ez danan Juantxo-txiki, guztiakin neurri berdiña erabili. Danak maitatuko dituzu neurri berean. Neurri batekin neurtu. Euren artean makalen bat balego, orduan berari Iaguntza eman geiago. Neurri berdiña begien aurrean ikustekoa izan dedilla. Bistan dagoena, izkutuko jokurik gabe.

Bestela jokatzuz, burrukaren azia aserrea sortarazten ari zera. Eta, zertan ari zeran, eurak konturatzen dira ondotox.

Neurri desberdiña argalantzako, gaxoentzako, atzeratuentzako. Euren mesedean. Beste guztiakin berdin jokatu neurri berdiñean eta neurri zuzenean.

ARRINDA'TAR ANES

JUANTXO-TXIKI BEGI-AUNDI

Juantxo-txiki oso txikia da, bere burua aundi iruditzen bajako be. Gauza guztiak oso beetik ikusten ditu: Zomorroen ikuspegitik. Orregaitik dana ikusten da aundikiro. Gauza guztiak, bere burua be bai, oso aundiak ikusten ditu eta oso aundiak iruditzen jakoz.

Danak aundi.

Dana zer da?

Ba, orixe, dana: dan guztia. Bai izaki, bai gizaki, bai abere, bai sentimentu, bai ekintza... Bere barruko eta bere kanpoaldeko gauza guztiak.

Guztiak dira aundi, bera txikia dalako.

* * *

Baita begi aundiak ditualako be. Ikusten ditunak amentuzko kristalekin begiratzen ditu, bere begi aundiekin. Azpitik begiratzea da bat eta begi aundiekin begiratzea beste bat.

Eta, begi aundiak ditu.

Orregaitik gure kiñurik txikiena be, aundia eta bildurgarria iruditzen jako. Bera txikiago eta besteak aundiago eta bildurgarriago.

* * *

Sentimena eta gogoramen-irudimena aundiagoak begiak baiño, oraindik. Ortik kontuak atera zer begirune erabilli bear dogun berarekin.

Kontuz.

Umetxoaren barrena ari-matasa bigun, minberatia dozu. Bigun eta legun jokatu bear Juantxo-txikirekin. Indarrez asten bazera, urratuko dozuz ari mee, argal, sentikor oneik.

Botella bat ardo puskatu dauela ta, negarrari emongo dautso, oker aundiren bat egin baleu bez. Margodun iruditxo emoten dautsozu eta an doa pozik urregorritzko pitxi bat emon ba zeuntzon lez. Txakur zuria galdu jakolako, naigabearen urratzak emango dauz urte askotan bere biotzean.

Dana da aundi beretzat.

Dana zoragarri.

Dana izugarri.

Juantxo-txiki begi-aundi eta sentimen-aundi.

* * *

Bera txikiago eta kontua aundiago berarekin. Ala egin bearoko dozu.

Ez asarratu bere aurrean eta berarekin gutxiago oraindik. Ez garrasirik egin, basajaunaren antza emango dautsazu. Urratuko dautsazu Iarrua.

Ez jo!

On baiño geiago, kalte egingo dautsozu.

Une bateau pentsako dozu zaplastako batekin arazoa konponduta daukazula; baiña, zaplastakoekin ez da iñor obeagotzen.

Gozo erabilli umetxo eta gozoki erakutsi on-bideak. Jainkoarekiko ar-emanak samurki eta pozgarri azaldu...

* * *

Bildurrik ez sartu umeari biotzean. Kalte egiten dautsoe Juantxo-txikiri ipuiñ eta kondaira bildurgarriak.

Kalte izugarria.

Zenbat bildurti munduan kontu orreik dirala eta ez dirala. Bildurrak egindako zauri orreik ez jakoz sekulan ondo sendatuko Juantxo-txikiri. Zuentzako gauza txikiak izan arren, ez ahaztu umearentzat aundiak dirala eta izugarriak.

Zuen seme-alaben onaren billa ibilli zaiteze.

Erne!

JUANTXO-TXIKI BIOTZ-ZURI

Umearen biotza paper zuri baten antzekoa da.

Paper zuri orretan nai dozuzanak idaztea zure eskuetan dago.

Onak naiz txarrak.

Zuzenak naiz okerrak.

Zuzen idaztea komeni; baiña, zeuk zeure etxean zuzen idazten ez dozuzanak, auzoko Urliak idatziko dauz oker zeure Juantxo-txikiren biotzean.

* * *

Ez lo egin Ez egon alperkeriz, eskua eskugañean tolestuta, ezer egin barik.

Zeuk idatzi naiz ez, etorriko da besteren bat bere lerroak egitera biotz garbi orretan. Badira gurasoak idazte oneri buruzko ardurarik sekulan izan ez dabenak.

Jaten eta edaten emongo dautsoe.

Jantzi be bai.

Ikastolak eta maixuak billatuko dautsoez, zorionez.

Baiña, Juantxo-txikiren biotzean euren eskuz Ierro zuzenak idazten ez dira asko nekatuko. Lan ori besteez egin dagiela.

* * *

Gurasoen eskuetan dago Juantxo-txikiren biotza. Gerturago ez dau iñork izango; egokiago be ez. Biotz orretan sekulan galduko ez diran lerroak zeurok markatu bearko dozuez.

Zorionez edo zoritxarrez, arrasto orreik markatzen dozuez, umea jaio aurretik, zeuok oartu barik. Zure bizimodua zelakoa, alakoa arrastoa.

Onak naiz txarrak.

Zuzenak naiz okerrak.

Begiratu bat emon zuen bizikerari. Ezkon-aurreko bizikerarekin batera asten zaree Juantxo-txikiren biotza markatzen. Titiarekin eta biberoiarekin jarraitzen dozue markatze-lan orretan.

Gurasoak gaizki idatzitako lerroak zuzentzea ez da gauza erreza izaten, zoritxarrez.

* * *

Onerako naiz txarkerirako bide asko sortu dira amaren magalean. Ona adibide batzuek, oso nabarmenak: Margarita, bere ama alargunaren besoetan sortu ei jakon onbiderako sena Don Bosco'ri, berak iñoanez. Bada Frantzian Luis Done erregea; bere amaren agotik ikasi ei eban okerbidek aide egiten. Eta abar...

Orreik garau aundiak dira; zeigoak be badira eta orrein barria bakoitzak daukagu, gure gurasoei zor dautseguzanak geure gogoramenean dira-ta...

* * *

Ez beñ be aspertu zure Juantxo-txiki orren biotz garbian on-bide guztien lerroak idazten.

Aukera badozu.

Aukera ori ez alperrik galdu.

Zeure seme-alabeen biotzak zeure esku daukazuz argizaria baizen bigun. Gerora gogortuko jatzuz. Orduan ez da ain erraza izango Ierro orreik markatzea.

Garaia dan bitartean onerako diran lerro guztiak markatzen alegindu zaite; gero, negar egitea alperrikako gauza izango da. Zugatz gaztea, biguna dan artean, zuzendu legike; okertuta zar egiten ba'da, ez leuke iñortxok be zuzendu. Lenago ausiko da, zuzendu baiño.

* * *

Onaren izena Juantxo-txikiren biotzean idaztean, egizu arpegi alai eta maitekorrekin.

JUANTXO-TXIKI ENTZULE (14)

Kontu-kontari zabiltzanean, kontulari ona ba'zara, ao-zabalik egongo jatzu Juantxo-txiki. Txarra bazara, entzunik ez. Irudimenean ikusten diran itzez bazabiltza, orduan bai Juantxo-txikik zure itzak entzun ez, jan ingo dauz.

Filosofuen antzera goi-maillatik bazabiltza, alperrik zabiltz... Juantxo-txiki urrutira joango jatzu: badau bere barruan zuk eskeintzen dautsazun baiño mundu ederragorik. Badau ark bere barruan ikuskizun ederrik...! Areik bai ikuskizunak eta zuk eskeintzen dautsazun berba ete mintzo ergelak, geldoak eta astratoak...

* * *

Zuri entzuten ao-zabalik egon bada, zuk bukatzean, ao-zabalka asiko da. Aspertu dalako? Ez. Juantxo-txiki nekatu egin jatzu. Neurri txikiko entzulea dogu. Txiki da gauza eta arazo guztietan eta bereala gogaitzen da entzutean be.

Gogoa be txikia dau eta azkar betetzen jako: gogoa-aitu. Gogaitu da. Ao-zabalka batzuek egin ondoren, berriro uztutzen jako gogoa eta bein gogoa utzitu ezker, berriro entzuteko prest.

Ura zelan edaten dau oilloak? Tantoka, gitxika. Zure aurrean entzule daukazun umetxoa, oilloaren antzekoa dala gogoratu.

* * *

Guri be aundi izanagaitik bardin gertatzen jaku bein baiño geiagotan, besteen entzule geranean. Ez dala ainbestekoa? Aztertu itzaldietan, entzule zaran itzaldietan alegia. nundik-nora dabillen zure gogoa eta irudimena. Belarrietan sartutako itzak ez jatzuz barrurago joaten. Frontoian jotako pelotea lez joandiran tokitik datoz berriro...

— Nundik zabiltz?

— Ez, ni saiatzen naiz ondo entzuten, baiña...

— Baiña... aria galdu. Eldutzen dautsazu barriro ariari eta berriro galtzen jatzu.

Eldu eta galdu. Geldu eta eldu. Gora eta beera zabiltz. Orra zure jokabidea, entzule maitea. Izan be, gure entzule-aalmena itsasoaren olatuen antzekoa da: gora doa goraiño; andik asiko da beeraka beeraiño. Beetik gora barriro; goitik beera aldiro. Etenik barik.

Goraka doala, aalmena gogaitzen jaku, nekatzen eta orduan entzuteari izten dautzagu. Beeko aldean atsedean apur bat artzen dogu eta aria galtzen, gure bidetik ibiltzeko irudimenaren eskutik. Ibillaldi bat egin-da, bagatoz barriro bide onera, ariari eltzen dautsagula...

* * *

Guri orrenbeste gertatzen bajaku, ez da arritzekoa Juantxo-txikiri gertatzea. Guri baiño gerago, gure aldean txikia dan neurrian. Kontuak atera.

* * *

Zure entzule ona Juantxo-txiki izatea, zure eskue-tan dago. Aldi bakoitzeko egin berba gitxi, itz argiak eta irudimenarekin ikusteko modukoak. Aldi bakoitzeko, bere neurrian. Neurri txikian, txikia bait da bere neurria.

Gozo-opil gozoena be ez dogu osorik aldi bakar batean jango. Ggozoena bada be ez. Zatika baiño baik. Apurka baiño. Zure mintzoa, bardin.

ARRINDA'TAR ANES



JUANTXO-TXIKI ETA BERE SOIÑA (2)

Juantxo-txiki ezagutu nai dogu eta Juantxo-txikik bat-batean agertzen dauskuna auxe da: azalez batutako soiña. Azurrez, aragiz, kirioz osotutako gorputza.

Gorputz ori, ordea, ez da aragi illa, bizia baiño. Soin ori bizirik dago. Aragitik alde ba-dau soin orrek beste zeren bat, nunbaitekoa, gorpua lurrezkoa izanik.

* * *

Soiñaren lenengo lana aztea da, zugaitzen antzera, ezkurretik sortutako aritza azten dan lez. Eta, gure aritza egunen batean zugaitz lerdan eta sendo izango bada, azitze au kontuan artzekoa izango dogu.

Juantxo-txiki Don Juan Lerdan izango bada, egunero bere azi-bear orreri arretaz begiratuko dautsoгу.

* * *

Umetxo geienetan bide berdin Samarrak erabili oi dauz gorputzaren azitze orrek, alde aundi barik. Azitzea baztuetan bizkorra izaten da; beste uneetan, berriz, geldoa eta lasaia. Bizkorrean eta lasaiago. Une bizkorrean irabazitakoa, une lasaian sendotu: orra gorputzaren joka-bidea.

Dana aztea ba'litz, soiña makaldu egingo litzake; baiña, lan bi orreek txandaka egiten ditu umearen gorputzak: luzatu eta gero sendotu.

Ori badakizue gurasoak. Orretan konturatzen zaree.

* * *

Gauzak orrela ba'dira, zer ondoren atera leike gertaera orreetatik?

Bat beintzat bai eta garrantzi aundikoa eta auxe da:

Umearen gorputza bizkorrean azten danean, orduan bere indar geienak lan orretarako bear dituala soin orrek.

Ortik ondoren au aterako dogu:

Une orreetan bestelako lanak (ikastolakoak esate baterako) ez dirala geiegizkoak izan bear. Geiegizkoak, soiñaren aurkakoak izango dira. Lana beti neurrian bear dau umeak; baiña, batez be, gorputza goraka doakionean.

Biarko zugaitzik ez gaur ondatu karga geiegiz.

Biarko giza-emakumeen gorputzik ez gaur ondatu lan geiegiz. Geroko gorputza sendoa eta osasuntsua izango ba'da, orain neurriak artu. Umearen gorputza arbola gazte baten antzekoa dozu: arbola gaztean oker txikia aundia gertatzen da gerorako; arbola aundian, barriz, oker txikia beti txiki izango da.

* * *

Ona ume-gorputzaren luzatze-txandak zelan joaten diran gitxi gora-beera:

Lenengo lau urteetan, bizkor eta arin.

Lau urteetatik zazpita bitartean, galdirago eta astiroago.

Zazpitik amarrera, barriro bizkorrean.

Amarretik amabi edo amairura, berriro lasaiago.

Andik aurrera, bizkor gorputza bere neurri osora elduko dan arte.

* * *

Zazpi urteetatik amarrera eta amabitik aurrerago, soiña neke-aldian dabil luzatu eta luzatu, azi eta azi. Aldi orreik dira, batez be, begien aurrean eukitekoak.

Gorputza bere etorkizuna antolatzen dabillenean, oso lanpeturik, orduan umea nagi eta indarrik gabe aurkitzen da. Alperre danik ez arpegira bota; naiko lanak ba-ditu bere barruan-eta. Nola nai dozu ikaskizunetan indartsu eta kementsu jokatzea, dituan indarrak bere gorputza azteko eta jasotzeko bear ba'ditu? Izan berarekin begirune apur bat.

Atomo-aro onetan umeari geiegi eskatzen dautsoгу bai eskolan, bai etxean eta bai kalean. Irakasleak txarto ez gelditzearren; gurasoak euren seme-alabak besteenak baiño gitxiago ez izatearren eta gizarteak arduragabekeriz, danon artean umetxoen osasuna ondatzen ari garala esango neuke. Guraso zuur, ez dagitzula arrokeriak begirik itsutu.

JUANTXO-TXIKI JAINKOAREN SEME (24)

Orijenes, antxiñako kristau-idazle famatuak ba zuan semetxo bat seaskan. Etxeratze bakoitzean, seaskara urbildu eta bere Juantxo-txikiri musu bat emoten ei eutson bular-gaiñean; arnasak gora eta beera zebillen bulartxoia Jainkoaren egoitza bait zalako.

Jainko altsuaren etxe-bizitza, umetxoaren biotza. Eder da. Mezatarako kalizak olio santuaz igurtzen diran antzera, igortziko dau apaizak Juantxo-txikiren bularra. Olio santu berberarekin. Kalizen antzera Juantxo-txiki be Jainkoaren gorde-leku izango da bataioaren bitartez.

*

Jainko-biziaren azia bere bataioan artuko dau Juantxo-txikik. Azi txikia, azi guztiak diran bezin txikia. Azia, ordea, azteko da. Azia aziko da bere elbururaino eta bere elburua lorea da eta lorearen ondorengo igalia edo fruitua.

Bataioko azi orrek Betiko bizitzarako lore eta fruituak emongo ditu.

Azi orixe da basamortua bizi-arazten dauen ura, ur bizia. Jainkoaren seme egiten gaituena eta, seme bagera, oiñordeko be bai; Betiko bizitzaren oiñordko.

Elburu orretara irizteko bear diran indarrak berekin ditu azi orrek. Elburu ori mundu onetan santutasunean dago. Kristoren Gorputz-mistikoaren zati osotuak bear dogu izan.

Bide orretan zenbat galtzeko arrisku pasa bear dituen azi orrek bizitan zear! Zenbat gau luze eta negu gogor...! Gurasoen ardurak eta gurasoen otoitzak bearrezkoak ditu umetxoak; baita Espiritu Pozemoi!learen laguntza be danen aurretik. Juantxo-txikiren libertadea dala medio. Bere naiak be esan-bearrik badau.

*

Eginbehar ederrik badau gurasoak Juantxo-txikiri buruz: gorputza azi, sentimentuak edertu, adimena argitu, gogoia ondu eta sendotu. Baiña, umetxoa kristau dan aldetik, badau beste agerkera bat be: bataioren bidez ereindako aziak bere elburua lortu dedin, gurasoen laguntza bearko dau.

Lan ederrik iñon bada, umeak azi eta ezitzea lanik ederrena. Negozioak eta lanbideak dirala-ta, zelan aztu dozu Juantxo-txiki, zure negoziarik onena, zure lanbiderik ederrena...!

Erreza ez dala? Ortan arrazoia dozu. Erreza ez da. Baiña, zure bizitzan gauza errezak ez diran makiña bat egin dozuz. Zure maitasun-barruan billatuko dozuz bear aiña indar eta argi. Goi-goikoak be ez dautzu faltako lan eder orretarako.

ARRINDA'tar ANES

OMENALDIA

Uztaillaren lenengo egunean, larunbatez, Euskerazaintza-Euskerazaleak Alkarteak omenaldia egingo dauz Euskerazaintzaren Zuzendari dan AITA LINO AKESOLO'ri Dima bere errian.

Egun alaia izango da

11'tan Mezea

12'etan Jakintza-ekiñaldia

- Ondo etorria
 - Aita Lino lekaidea (Arostegi'tar Luis'ek)
 - Aita Lino Aztertzailea (Etxebarria'tar J.M.'k)
 - Aita Lino idazlea (Onaindia'tar Santi'k)
 - Aita Lino espetxean (Dañobeitia'tar Kepa'k)
 - Gaztetxu batek Aita Lino'ren idaz-lan labur bat irakurriko dau
- 13'30'ean: Aita Lino'ren Jaiotetxean oroitarria ipiñiko da
- 14'etan: Bazkaria OBA'ko Jatetxean (Dima'n).onetarako txartelak banatuko dira.

JUANTXO-TXIKI OITURAREN FRUITUA

Juantxo-txiki be abereen antzera oitu egiten da. Zer egiñaz, zertan oitzen da. Ez al dozuz zirkoetan abereak ikusi, zenbat gauza arrigarri egiten dituen? Bein eta barriz gauza berbera egiñaz, aizkenerako ikasi.

Zer nai dozu Juantxo-txikik egunen batean egitea?

Gaurtik asi gauza orreik egin-arazten, oitura sortu arte. Gerora errez egingo ditu.

Zergaitik ez irakatsi onak badira berarentzat eta besteentzat?

* * *

Erri bakoitzak izan oi ditu jaki bereziak. Gure artean, angulak eta txipiroiak, esate baterako. Umetatik ikusi eta probatu ba'dozuz, zuretzako jakirik onenetakoak izango dira; baiña, gurera kanpotik datozenentzako ez da ala izaten. Ikusiarekin bakarrik, atzera egiten dabe. Izan be, zein ez da ikaratuko tximiñoiek dakarten baltza ikusita? Zeiñeri ez dautso nazkarik emango, kaxuela batean ateratzen dituen mamorro zuri areik?

Lenengoz ikusten dabezanak, bai angulak eta bai txipiroiak, atzera egiten dabe, muturra okertuz... Gu, barriz, areik ikustean, lorde-jario jartzen gara. Baiña, ekarri dagiezala Txina'n ain maite dituen arrautz ustelak, txori-ziriñak eta lurreko mozorroak, ea zer aurpegi ipintzen dogun...!

Ez giñan aretara oituak.

Aurtzaroan jandakoak, gaur gogokoak doguz.

Ori ez da otorduetan bakarrik gertatzen; beste gauzetan be bai.

* * *

Juantxo-txikiri onak diran ekintzak egin-arazo. Orrelan asten gara bere biotzean onbide guztien aziak ereiten, bere barruko baratzetan onaren landare barriak aldatzen.

Sikolojiak erakusten dauanez, biotz tristeak aurpegi tristea dakar beragaz; baña, alderantziz be bai: aurpegi tristek biotza tristetzen dausku; aurpegi alaiak biotza alaitzen dausku. Beraz, egizu barre gogo barik, barre gogoz egin dagizun.

Gauzea orrelan izanik, egintza onak sentipen onak sortuko ditu umearen biotzean; egintza txarrak, sentipen txarrak. Gure umetxoak egite onak egiten ba'ditu, naiz eta sentimentu onaren jabe oraindik ez izan, egite on orrein bitartez, sentimentu onaren jabe egingo jaku.

* * *

Norbereburukeriak ba-ditu umetxoak be. Nai dabena lortzeko, badakie ondotxo nondik jo gure umeez eta nai dabena lortzen ez ba'dabe, arrantza jo astotxoan antzera. Izketan baiño lenago ikasiko dabe ori.

Ez zuen bururik bigundu.

Zuen erabagiari eutsi, burubide onekoa ba'da.

Juantxo-txikiren naira ez zuen buruak makurtu.

* * *

Makurtzen ba'zara, nai dauzanak eta bost egiten oituko da eta egunen baten illargia berbera eskatuko dautzu. Orduan izango dira zure burumiñak.

Umearen gogo guztiak betetzen dabezan gurasoek Juantxo-txikiren okerrerako dabiltz lanean. Onek uste izango du bera dala munduaren ardatza eta bere gogora makurtu bearko dabela beste gogo guztiak.

Egoista utsa.

Seme-alaba bakarreen arriskua.

Anai-arreba asko diran etxean bakoitzak bere buruari uko egiten errezago ikasten dau, beste guztien eskubideak errespetatuz...

Munduak ardatz asko dauzala.

Ez dala Juantxo-txiki munduaren ardatz bakarra.

Ba-dirala bere inguruan Miel-txiki, Mari-txiki eta Peru-txikirik asko, munduaren ardatz izateko berak aiña eskubide dabenak.

JUANTXO-TXIKI PANPIN ETA ROBOT

Umeak giza-indarra barruan dauelako, bere buruari eragiteko aalmena eta gaitasuna be ba-dauko. Aalmen eta gaitasun orreik, ez dauke oraindiño orretarako trebetasunik. Indar txikiak izanik, osotasunerako egiñak ba'dira be. Egunen baten indar-orreik aunditu eta zabaldu egingo dira.

Barruko argala dau Juantxo-txikik eta orrexek eskatzen dautso kanpotik etorriko jakon agindua, motorra ibiltzen ipinteko. Agintze ori umeak gogoz artzen dau berez. Eta ori olan izanik, esan daikegu panpin eta roboten antza badauela.

Barriri esango dogu lenago esana, ez dala jaió panpin izateko; ez-eta robot izateko be. Bearkizun ori adiñakin gutxitzen da, askatasun egarria sortzen dan neurrian.

* * *

Gizatasunera eltzen dan neurrian, Juantxo-txikik bere mendeko izatea maitatzen dau eta kanpotik dator-kiozan aginteak, ez ditu gogo onez artuko.

Gizon izan nai dau Juantxo-txikik.

Bere barruko askatasunaren jabe dan gizon osoa.

Askatasun ori barik ez dago ez gizon eta ez emakume osorik.

Zure seme-alabak zapuzterik nai ez ba'dozu, eurakin zer jokabide darabiltzun ondo aztertu.

* * *

Ordu orrek joten dauanean, gaur eguneko gazteek askatasun osoa nai izaten dabe, oraindik orren jabe zateko gaitasunik ez ba'daukoebe. Alan be, askatasun-egarria bearrezkoa dau bere azken mugara elduko ba'da.

Zein jokabide artu?

Estu-estu lotu ala sokarik gabe larrera bota?

Ertz batetik bestera alde aundiegia dago. Ortxe ekin bearco dozu soka-tiran.

* * *

Zeure gonai lotuta euki ba'dozuz oraiñarte, lokarriak lasaitzen asi bearco dozu eta askatasun-bidean lagundu. Irakatsi askatasun ori zelan erabilli. Bizian zear Juantxo-txiki berak zaindu bearco dau bere burua. Oraintxe bertan asten ez ba'da ori ikastén, ez dau sekula ikasiko eta aretarako gai ez da sekula izango. Zure menpean euki dozuz seme-alabak asieran alan bear ebelako; baiña, beti zure menpean eukiteak ez dautse kaltea baiño ekarriko. Zu nortasun aundikoa eta jenio gogorrekoa, izanik Juantxo-txiki beti zure esanetara eukiten ba'dozu, auldu egingo dozu eta txorimalo indargabea biurtuko jatzu.

* * *

Bearrezkoa jako Juantxo-txikiri menpeko izatea.

Euki menpean bear dauan neurrian. Bear dauan arte eta bear dauan bestean. Ortik kanpora, ez.

* * *

Robot-antzeko da Juantxo-txiki biziaren asieran; baiña, robot-antzeko izateari itzi bear dautso bere sasoián. bizia aurrera doakion eran. Bizia zuzendu bear jako askatasun bidean, robot-antzeko izan ez dedin bizian zear.

Badira baztarretan gizon eta emakumeazko robot-antzekoak eta "andere" ta panpin izateari sekula laga ez dautsoenak.

Noren erruz?

Nok jakin. Aldietan, gurasoen erruz.

Nortasun aundiko gurasoak arrisku ori dauke; euren umeai nortasuna kentzeko arriskua.

Umeak ezitea, euren nortasuna sortaraztea da.

Sortarazten laguntzea.

Ez dot uste lan txiki eta zeia danik.

JUANTXO-TXIKI SINISBERA (13)

Bizitzako gora-beerarik ez dakillako da Juantxo-txiki ain sinisbera. Esandako guztiak sinisten ditu zalantzarik gabe. Batez be bere gurasoengan dau uste oso-oso: eurak aiñakorik besterik iñor ez munduan.

Aundienak, indartsuenak, bizkorrenak, jakintsuenak, aberatsenak beti, Juantxo-txikirentzat, bere gurasoak. Beste edozein baiño geiago. Bere usteetan, beintzat.

Sinistuko dautzu esaten dautsazun guztia.

Ara zer gertatu jatan Juantxo-txikiren arrebarekin:

—Baiña, Anetxo, zergaitik egin dozu oker ori?

—Oso gaiztoa naizelako.

—Zu ez zara gaiztoa.

—Bai, oso-oso gaiztoa naiz!

—Zelan, baiña...?

—Danak orixe esaten dauste, amaxok be bai.

Amatxok esan ezkeru, Anetxok sinistu; eta, sinistu ezkeru, okerrak egin bear. Nai eta nai ez. Amatxori arazoia emon bear. Amaren esanak beti izaten dira egi; beraz Anetxo gaiztoa zala sinistuta egoan eta gaiztoa izan ezkeru, gaiztakeriak egin bear. Orra zer korapillo!

* * *

Juantxo-txiki ona dala pentsatu eta berari esan. Ona dala sinistu erazi. Onbide guztiak beregan dituala esan eta onbide orrean neurrian jokatu bear dauela munduan. Ori sinisten dozula, agertu umeari.

Ausartsua izatea nai dozu Juantxo-txiki? Ausarta dala esan eta ausartsu jokutzen saiatuko da. Ona dala esan eta ondo jokutzen saiatuko da. Ez sekulan esan gaiztoa danik.

* * *

Umetxoak okerrik egiten badau, ez pentsa gogo okerrakin gelditzen danik betirako. Okerra egin dau, baiña damutu jako. Aaztu be bai. Argaltasunaren fruitua izan dau oker ori eta ez gogo gaiztoarena.

Oker egiten dauanean, itz gozo batek mesede geiago egingo dautso esarre bizitik sortutako belarrondokoak baiño. Aurpegiko eta zapladako orrek biotza mingoztuko dautso Juantxo-txikiri; ohea da, gaizki egin dauela adierazi eta zergaitik dagoen gaizki egindako ori azaidu.

Baiña gozo, eta arrazoi-bidean eta jipoika eta garrazika egin barik.

* * *

Ondo portatzen danean goratu zure umetxoa. Txaio egin. Baiña gora eta beerako itzak euren neurria dauke. Geiegizkoa txarra izaten da.

Beti geiegizkoan ibilli ezkeru, azkenerako ez dautzu kasurik egingo.

Neurritsua izan.

JUANTXO-TXIKI TXIMIÑO ETA MATXANGO

Gizonak egiten dauena egiten saiatzen da tximiñoa eta matxangoa. Umetxoa be zure inguruan dabil, zuk zer egingo, axe egiteko matxangoaren antzera.

"Umeak zer ikusi, a ikasi".

Ondoren, ikasitakoa egin. Ikusiak eta irudimenak ipintzen dautso motorra martxan, ikasitakoa egintza biurtzeko.

* * *

Umeago eta areago. Zenbat eta umea umeago, ainbat eta esan doguna egiago. Nortasunik ez daualako da tximiñoa imitatzaile eta beste orren beste jazoten jako umetxoari be: zenbat eta norkia edo persona txikiagoa, ainbat eta imitatzaile aundiagoa.

Danentzat dau ejenploak, indar aundia.

Baiña, nortasunik gitxien dabenentzat, indarrrik aundiena.

Juantxo-txikik nortasun gitxi daula, agirian dago.

* * *

Umetxoen aurrean egiten dozuzunak, orretxeek egiteko gogoia eta irrika sortzen dautsezu barruan.

Gogo bizia.

Irrika larria.

Gogo eta irrika orrek eraginda zuk egiten dozuzanak egiten saiatuko da.

Zer ikusi, a ikasi.

Zer ikasi, a egin.

Orra Juantxo-txikiren jokabidea. Zezenak izan dira errian jaietan?

Ondoren, zezen-adarrak ikusiko dozuz umetoxen eskuetan jolaserako eta zezenlariak ugari erriko enparantzian. Ezpata-burrukak ikusi dauz zinean? Laister izango dira umetxoen eskuetan egur-ezpatak burrukarako.

* * *

Era berean jazoten da ideiakaz be.

Buru-barruko ideia, irudimena, gogaketa utsak, orreik be, sortzen daskue irrika bat gogoan eta auxe da: orreik egiten asteko gogoia.

Pentsamentu utsa, egite biurtu.

Pentsakizun biziak badira, irrika biziagoa eta gogoia sendoagoa.

Bizitasunaren neurritz, gogoaren aunditasuna. Ori alde batetik.

Bestetik, barriz, nortasuna txikiagoa eta irrika biziagoa. Irudimenaren bizitasuna eta nortasunaren ergeltasuna, biak jokatzen dabe batera umetxoa tximiño biurtzen.

Juantxo-txiki zer da?

Irudimen bizia alde batetik, eta bestetik nortasun eskasa, orregaitik sortzen jako barnean irudimenaren irudiak egiteetan mamintzeko gogo bizia.

* * *

Bi irakatsi gogoangarriak gai oneri buruzkoak:

Lenengoa:

Arduraz begiratu umetxoen aurrean zertzuk egiten dozuezan, oneixek egiten aleginduko da. Onak naiz txarrak. Zuzenak naiz okerrak.

Bigarrena:

Kontuan artu zer ipuin eta zer edesti esaten dautsazuen Juantxo-txikiri, orreixek egiten aleginduko da.

JUANTXO-TXIKI URDURI (11)

Aumerik ariñeketan ikusi dozu iñoz? Korri eta salto eten gabe. Bere egun guztiko lana orixe dau, titia artu ezkeroz. Ez dau beste zeregiñik.

Juantxo-txiki be aume baten antzekoa dogu: beti mogimentuan bear.

Geldi egon eziña.

Bere gorputzaren giarrak eta aragiak aziko badira, mogimentua bear dabe. Beti ibilli ta ibilli. Ibillian-ibillian aziten eta sendotzen dira. Azi, egunero eta egun osoan azten diardue, ez da ba arritzeko egun osoan ibiltzea guru umetxoa. Zelan euki geldi Juantxo-txiki?

Ezin.

Zinea gogoko jako umetxoari, zineko irudiak mogimentuan ibiltzen diralako; baiña, bere burua erabiltzea eta mogitzea askoz be geiago guztatzen jako oraindiño.

* * *

Eriotza, umearen eritxirako, geldi egotea da eta mogimenturik ez egitea. Geldi dagoena, ilda dago. Eta bizia zer izango da? Zer edo zertan ibiltea; orixe da bizirik egotea.

Juantxo-txiki bizirik dago eta orregaitik bere zoriona ibiltzen dago; geldirik ez egotean; jolasean; arin-aranga ibiltzen...

* * *

Ikasgaiak jolasean erakusten ba'dautsazuz, zorionez beteko dozu zure Juantxo-txikiren izatea. Ez dagizula geldirik euki, ildako bat balitz lez; atsekabetuko dozu barru-barruraino.

Ikasi dagizala ikastekoak gorputzagaz, anakaz edo eskuakaz dabillega. Errezago ikasiko dauz.

Orra zenbat mesede.

* * *

Denbora luzean geldirik egon ezin. Ezelan be ez. Ikastetxean eta edozertako ikastaldian, irakasleak ipiñi bearko dau mogimentuan eta geldiunetik atera. Bestela, berak urtengo dau eta jolasean asiko da. Indarrez umetxoa geldiaraztea illobian sartzearen antzekoa dozu. Ez dozu Juantxo-txiki illobian sartuta euki naiko...

* * *

Okerretik ari bada, bidea zuzendu; errezago bait da zuzentzea, bidea kentzea baiño. Urduri dago umetxoa eta egon-eziñik arrika asten bada, erruki dodaz aldameneko kristalak eta leiarrak.

Alperrik izango da geldirik egoteko esatea eta ez arrika egiteko. Obe dozu pipar-poto bat aurrean ipiñi eta emon dagiola arrika zanpatu arte.

Urari presa eta andaparoa egitea baiño errezago da kanaletik eroatea. Umearen urduritasuna eta egon-eziñak dozuz uraren indarrak; kanalak idegiten alegindu zaite.

* * *

Odoletik sortzen jako Juantxo-txikiri urduri ibiltea eta geldirik egon eziña. Geldirik dagoan umea, gaixorik dago.

Gogoan izan.

Begien aurrean euki.

Zaartzaroan etorriko jako geldirik egoteko txanda. Bitartean... dabillega ibilli.

JUANTXO-TXIKI, INBENTORE ZORAGARRI

Zineko pantalla zoragarri bat ba-dau umeak bere irudimenean. Bein ikusitakoa, berriro ikusi aal izateko aalmenak badiu irudimen aretan. Barrero ikusi oso-osorik naiz zatika. Eta zati orreikaz gauza barriak sortarazi.

Orra Juantxo-txikiren bi zeregin:
ikusitakoak berrikusi
eta ikusitakoekaz barriak sortarazi.

* * *

Zelan egiten dau sortarazte ori? Zaarrekaz barriak zelan sortzen dauz? 'Rompecabezas' baten antzera jokatuta: bein ikusitako gauza desberdiñakaz, puskak eta zatiak alkarri lotuta, sortzen dauz irudi barriak. Gero, irudi orreik eta begietatik barrura etorri jakozanak, kanpokoak, biak nastetan dauz.

Egiak alde egin dautso.

Ez da konturatzen egi ori kanpotik etorri jakon, ala bere barruan sortutako izakiren bat dan. Ortik datorkio Juantxo-txikiri guzurak esaten astea. Juantxo-txiki, gezurti.

* * *

Inbentatzeko erreztasunak be badiu Juantxo-txikik; begien aurrean ez ditunak ikusteko be bai. Bere barruko irudimenearen pantalla orretan ikusten ditu kanpotik ikusten ez diranak: sukaldeko aulki zaarra, autobusa izango da bere irudimenean eta itxuragabeko egur zati bat, barealdiko itsas-ontzia.

Erreztasuna dau artarako.

Bere andere, andrako, panpin eta muñekoak jan da lo egiten dabe; poza eta miña asmau be bai. Berak bere irudimenean bizi-arazten ditu.

* * *

Guzurrik esaten ba'dautzu Juantxo-txikik, ez guzurtizat artu emen idatzitakoak begien aurrean artu barik. Guzurra ala bere irudimeneko naastea ote dau?

Injustizirik, ez.

* * *

Sinistuko dautzuz esandako guztiak Juantxo-txikik. Berarentzat ez dago ezer eziñik: sorgiñak, ireltxoak, prakagorriak, lamiñak... guztiak dira beretzat izaki bizi-biziak.

Ez eiozu guzurrik esan.

Diranak diran lez esan: egiak egi lez, kontuak kontu lez. Egiak eta kontuak ez nastau. Kontua egizat emoten ba dautsozu, biak nastetan dauz guzurra esanez. Egunen batean konturatuko da guzurra esan zeuntsola. Egun aretatik ez dautzu ez konturik ez egirik geiago sinistuko.

Bere gurasoengan eban siniste oso-osoa bat-batean osorik galduko dau.

* * *

Jolasak oso jakoz gogoko Juantxo-txikiri; baiña, jolasetan dana osorik artzerik ez jako ainbeste gustatzen, asmatzaille egiten ez badau. Naiago dau bere aldetik zertxo bat ipiñi bearra jolaserako. Amar milla jostallu polit geldoekin, osorik egiñakin baiño obeto dabil Juantxo-txiki upel zaar baten kurpillarekin korrika kalean zear...

* * *

Bere buruko irudimenak oso bizirik bizi ditu Juantxo-txikik. Bizitasun orretik sortzen jako, bere barneko irudimenak egiteko irrika. Geuri be beste orrenbeste gertatzen jaku gure buruko gogaketak egintzetan mamitzeko irrika sortzen jakunean, geure buruaren jabe izan arren. Ori guri gertatzen ba jaku, geiago oraindik bere buruaren jabe ez dan umetxoari.

JUANTXO-TXIKI NORDUN (12)

—Aizu, txiki...! Esan neutson Juantxo-txikiri lengo egun batean.

—Ni ez naiz txiki; txikia nire anaia da. Ni aundia naiz...

Benetan txikia da gure umetxoa eta iñoren aginpean egotea bearrezkoa dau; alan be, bere burua aundi ikusi gura dau.

Aundi izatea gura.

Eta bidean doa.

Bide orretan Jainkoak berberak ipiñi eban Juantxo-txiki, sortzetik ipiñi be.

* * *

*Aundia izateko gogo*a ume txikienak be agertzen dau tarteka-tarteka. Aundi izatea, norbere buruaren jabe izatea, persona izatea da.

Nortasuna izatea.

Nordun izan.

Orretarako jaio jaku Juantxo-txiki. Ortik sortzen jaku umeari bere barnean, persona serio lez tratatua izateko guraria be... Ortik era askotako protestak be. Amalau urte inguruan agertuko jaku protestarako miña eta gogo bizia; baiña, txiki-txikitatik datorkio min ori.

Asiera asieratik zure umetxoa persona eta nordun lez tratau bearco dozu. Protesta onein ardurarik ez badozu, aldenduko jatzu Juantxo-txiki eta galdu egingo dozu.

* * *

Umetxoa ez da zure otsein, ez eta zure menpeko bat ere, txikia eta ergela izan arren eta zure bear-izanean bada be. Gogo askearen argitxoa badau bere barruan; askatasunaren argia. Adimenaren argi askatzaille ori begien aurrean izan bearco dozu beti.

Gero eta geiago. Beti doa aurrera bere bidean eta adiñean, nortasunaren billa. Ez da betirako robot eta panpin bat. Ez andere eta andrako ere. Zuk lagunduta, robot izatetik persona izatera aldatu bearco dau.

Gero eta askatasun geiagoakin ezi; berberak bere buruari zelan agindu bear dautson erakutsiaz. Orixe izango da umetxoa ondo ezitea.

Indarrez zeure menpean umetxoa eukitea, ori da biderik errezena eta samurrena gurasoentzat; baiña, txarrena eta gaitxena umearentzat. Alderantziz be bardin da: askatasunaren bidea gurasoentzat zailena eta gaitxena; umearentzat, ostera, onena. Eta Juantxo-txiki ondo eziteko bide ori artu bearrezkoa da.

* * *

Biarko gizona, gaur ume; zeure bereganako artu-emonetan gizon lez erabilli egizu biar gizon-emakume izango dan gaurko umea; astantzean errudun gertatuko zara une askoengan eta Juantxo-txiki gizontzean, zeure erruak gogoan izango ditu, ez ume bateri egindako erruak lez, gaurko gizonari egindakoak lez laiño.

Umeari atzo egindako okerrak Juantxo gizonak berari, gaurko gizon nagusiari, eginda lez gogoratzen dauz.

Orra korapillo latza eta prolema gaitza: Juantxo-txiki ez da gizon eta, alan be, gizon lez tratau bear dozu.

JUANTXO-TXIKIREN ADIMENA ETA NAIMENA

Animalirik bizkorrenak ez dau oraindiño barre egiten ikasi; baiña, umerik txikienak, bai. Umeak eta abereak badabe bien arteko alde desberdin bat: barre egitea.

Barre egiteko, adimen tantotxo bat bear da eta orixe falta jako abereari. Umeak, ordea, ba-dau barruko argi-izpi ori, adimen ori... Barre egiten ba-daki.

* * *

Lau urterako asiko jatzu Juantxo-txiki galdezka:

—Aitatxu, eta ori zegaitik? Amatxu, eta bestea zergaitik?

Zergaitik au? Zergaitik bestea? Zergaitik a? Zergaitik onelan? Zergaitik alan? Zergaitik gora? Zergaitik beera?

Zergaitik..? Zergaitik..? Zergaitik..?

Askotan txakurren salara bialtzeko moduan jartzen jaku Juantxo-txiki.

* * *

Egillea eta bere egintzaren arteko ar-emanak ikusten asita dago: arotzak eta onek egindako maiak badabela zer ikusirik alkarrekin. Orregaitik sortzen jakoz ainbeste galdera. Zergaitik ori? Jakin-miña da.

Orduan jartzen ditu bere gurasoak larri-aldian, bear dan lako erantzunik ez dakielako.

Ez, iñoz be, guzurrik erantzun.

Erantzunik ez ba'dakizu, ez dakizula esan eta kito.

Eta ondoren galdetuko dautzu, ea zergaitik ez dakizun.

* * *

Umeari bere adimena zabaltzen eta argitzen joako. Ona eta txarra, biak ez dirala berdin be, konturartzen asita dago zazpi urte betetzerako.

Baiña, amabi urte bete inguruan argitzen jako adimena eta argi ori zabaltzen eta indartzen joango jako berroge-aka urteak bete arteraiño... Argiago eta zabalago. Gerora asiko dira gauzak beeruntz...

* * *

Juantxo-txikiren adimena eta sentimena aurtzaroan eta gaztaroan alkarrekin doaz; baiña, beti sentimena aurretik eta nagusi.

Sentimenaren mende dago Juantxo-txiki adimena indartu artean. Bi aalmen orreik batera doaz azitzen, sentitze-ko aalmena eta aditzeko, entenditzeko, aalmena. Sentimena biziago eta indartsuago bizitzaren asieran; geroago sentime-nak planto egingo dauanean, adimenak oraindik bide luzeak ditu egiteko. Eta sentimenaren mende zegoan gizakia, geroago adimenaren mende egongo da. Egon bear leuke, beintzat.

Adimena nagusitzen danetik ikusten doguz gazte zoro batzuk euren buruak zuzentzen; sentimenak eraginda ibi-lli dira ordurarte, adimenik ez ba'leuke lez. Adimena nagusitzean, ordea, etorri jake burua bere onera.

Burua bizkar-gaiñean txapela eramateko bakarrik ez euskuen ipiñi. Burua eta bere adimena erabiltzen ez ba'do-guz, ugartu eta moteldu egingo jakuz. Bide ugariak eta erosoak daukaguz gaurko egunez geure buruak argitu aal izateko.

* * *

Naimena

Adimenarekin batera ba'dau Juantxo-txikik naimena be. Naimena, gogoa, borondatea... guztiak dira antzeko. Bere gogoa besteai buztarri antzera ezartzeko katramillak, titiarekin batera ikasten ditu Juantxo-txikik.

Berak nai dauan guztietan, bere gogora jartzen bazera, galduta zagoz. Bere menpean bizi bearko dozu. Mizkeri geiegien ondorenak. Egiazko maitasunak ez dau bigunkeririk maite.

* * *

Besteren agindua bearrezkoa dau Juantxo-txikik umea dan artean. Berez, iñoren menpekoa da, aurra dan artean. Tarteka protestak eta zalapartak egingo ditu aginduen aurka; baiña, besteen agindu ori bearrezkoa jako; ez dau oraindi-ño, bere barruan, artarako indar bereizirik, bere buruari agintzeko aalmenik.

Bere buruaren jabe izateko irrika, amabi urterekin sortzen jako. Andik aurrera, iñoren menpean egoterik ez jako gogoko eta bere barruko biurrikeri ori adiñakin batera joango jako aunditzen.

Bere buruaren jabe nai dau.

Juantxo-txiki libre izateko sortua da. Nor izateko. Eta giza-emakumeen norkia ez da muñeko, panpin, 'andere' edo 'andrasko' izatea. Persona eta nor izatea, baino.

Alditan beintzat, gazteen protestak arrazoibidezkoak izaten dira, gure gizarteak eragozpenak besterik ez dituala-ko beuroen burujabetasunaren bideetan...

JUANTXO-TXIKIREKIN GOGOR ETA BIGUN

(20)

Azia lez umea be egunero aldatzen doan iakia dogu. Alda-bear ori berarekin daroa jaiotzetik. Eta, ori olan ba da, berarekin darabilgun jokabidea be alda bearrezkoa da apika-apika, adiña aldatzen doan neurrian.

Ejenploa ona da eta Juantxo-txiki ezitzeko biderik onena; alan be, bera aundiagotzen doan neurrian, ejenploak indar gitxiago.

Edozelan be, Juantxo-txiki'k txikia dan artean, gurasoen indarrez balia bearco dau, bera indargabea izanik. Indar maitekor orren bear...

Zeure buruari indar egin bearco dautsazu, umetxoa ondo eziko ba'dozu. Bere eziketari ez bigunkeririk erabili. Zuk indartsu jokatzeari konbeni jako. Indartsu eta leun. Gogor barrutik eta bigun kanpotik. Giza-soiña bera be azaletik giar biguñak daukaz eta koipeak; barrutik, ordea, azur gogorak eta orrelan, biguntasunik galdu barik, gogortasuna ba'dau zutunik egon aal izateko.

Bigunkeriz ba'zabiitz, zugar dauen ustea galduko dau Juantxo-txikik. Beste aldetik, barriz, gogorkeri utsez ez dozu askorik lortuko. Biak bearco dozuz alkaturik, umetxoa ondo eziko ba'dozu: biguna eta sendoa. Orrelan jokatu aal izateko, zeure buruaren jabe izan bearco dozu eta jabetasun ori Juantxo-txikiren aurrean agertu. Era orretara ikusten ba'zaitu, zure esanetara etorriko jatzu umetxoa. Ostantzean, naiko lan.

Obearen billa ibiltea gure barruko bearbizuna dogu; tarteka, ostera, obearen billa ibiltea onaren aurka jokatzeari da: obea billatu ez eta bitartean ona galdu. Ona aukeratzea zuur jokatzeari da. Obea ezin dogunean, onari makurtu geure gogoa.

Onak bat baiño geiago diranean eta alkarrekin eroaten ez diranak, orduan aukera egin bearrezkoa da. Aukeratzeak galera bat dakar berarekin: aukeratzeari ez dogun ona galdu egiten jaku. Itsasora nai nuke lanean; baiña, legorreko eginbearra be maite dot. Lurra aukeratzean, itsasoa galdu dozu. Bat artzea bestea iztea da. Bat artu eta beste guztiak itzi.

Jainkoak bagiña, diran guztiak batean izango geunkez eta toki guztietan batera egongo giñake. Ez gara Jainko eta nai-ta-nai ez aukera egin bear bein baiño geiagotan.

Zeuk aukerak egin eta itzi bear dozuzanak, itzi. Bein aukera egin ezkeru, jarraitu aurrera, atzera begiratu barik. Aukerak egiten erakutsi Juantxo-Txikiri eta aukeratu ez ditunak galtzen be bai.

Olan eziten da gure gogoa.

Arazo guztietan zagoz zu beti trankil Bururik galdu barik Juantxo-txikiren aurrean. Zeuk burua galtzen ba'dozu, zer egingo dau Juantxo-txikik...? Uskeri bategaitik ez gerrarik armatu berarekin. Ori baiño obe dozu BARDIN GERATZEA.

JUANTXO-TXIKIREKIN JOLASTEN (22)

Juantxo-txikik jolas-gurea dauka? Jolasean lagundu egiozu eta berarekin jolastu zaitez. Jolasean erakutsi. Zergaitik, ez...?

—Tira, tira, umekeririk esan barik...

—Oso ederto emongo zenduke, emon be.

Eguna igaroteko familiarekin doazenean, zenbait gurasok uste dabe, umeak jolastu bear dobela, baiña eurak ez. Eurak serio-serio ibilli, beruna baiño astunago, gau-illuna baiño illunago. Argirik, ez. Alaitasuna sortuko ba'da, umetxoen aldetik sortu bearko da; guraso orreik ez dabe ezertxo be egingo alaitze aldera.

Ez, guraso, ori ez. Ez litzake izan bear zure jokabidea. Zeuk alaitu bear dozuz zeure seme-alabak. Lagundu, beintzat, alaitzen eta ez "pasota" baten antzera egon euren aurrean. Eta, jolasean erakutsi.

—Nik ez dakit oraingo jolas barririk.

—Zaarrak irakatsi edo barriak ikasten alegindu, eurari irakasteko. Ez dozu bereala topatuko ori baiño bide errezagorik zeure Juantxo-txikiren lagun izateko.

Jolasa tranparik gabe. Jolasean tranparik ez dala egin bear irakatsi umetxoari eta jokoaren aginduak bete zeuk lenengo eta gero ondoren Juantxo-txikiri beteten irakatsi.

Galtzen be ikasi bear da jokoan gabiltzanean. Irabazleak bere saria jasoten dau eta galtzaillea zoriondu egizu garbi jokatu daualako.

Kanta-kantari. Ori be jolasa dozu eta oso jaku gogoko erritarroi. "Txapel bat, euskaldun bat; txapel bi, euskaldun bi; iru txapel, abes-batza edo orfeoia".

Kantatzea jolas pozgarria da. Eta zuk kanta zaarrak eta barriak ikasi seme-alabatxoeri irakasteko. Orfeoi bat etxean sortzea ez da esku guztietan dagoen gauza erreza; baiña, etxeok alkarrekin abestea, zein dan zoragarria...!

*

Musika eta abestiak ba-dauke gizona eziten laguntzeko aala. Ezi-bide bat dogu. Gaurko egunez edozein musika-mota eskuetan daukagu. Musika oneik bereizten erakutsi Juantxo-txikiri. Gustoa eta belarriak eziten lagundu, aal ba'dozu. Zeure seme-alabak ume-umetatik Euskalerriko musika ederrean murgildu egizuz.

ARRINDA'tar ANES



JUANTXO-TXIKIREKIN OTOITZEAN

Juantxo-txiki Jainkoaren seme bada, bere Aitarekin artu-emenetan egon bear dau. Ezaupidea dauken izakien artean, artu-emon onek itzaren bidez agertzen dira geienetan beintzat. Itza, berbea, mintzoa. Itz egin, berba egin, mintzatu. Jainkoarekin itz egitea, orixe dozu otoitza.

* * *

Umetxoja jaio aurretik, *bere alde*; jaio ondoren, *bere aurrean*; gerora *berarekin* otoitz egin bear dabe gurasoak... zer ikusi... Zu ikusiarekin bakarrik, ikasiko ete dau Juantxo-txikik otoitzean...? Zelakoa da zuk bere aurrean egiten dozun otoitz ori...?

*

Jainkoa bizi dala...
Jainkoa urbil dogula...
Jainkoak entzuten dauskula...
Jainkoak itz egiten dauskula...

Orra Juantxo-txikik zure otoitzetik ikasi bear ditunak. Zuk orreik sinistu. Eta, sinistuta, otoitz egin, Juantxo-txiki testigu dozula.

* * *

Gozo otoitz egin. Sinismenez eta maitasunez betetako otoitzak.

Baiña, labur. Otoi luzeak aspergarri ditu Juantxo-txikik. Ez dagizula aspertu-azo.

Berak otoitz egin bear dauanean, itzak zer esan nai dauena agertu eta otoitza bera zer dan be bai.

Jagitean... eguerdian... lotarakoan... jaso dagiala biotza Jainkoarengana.

* * *

Eleiza Jainkoaren egoitza dala... Bertan dagoala gure zain... Gure biotz-barrenak be Jainkoaren egoitzak dirala... Gizaki guztien gorputzak Jainkoaren egintza dirala eta bere jar-leku, bizitoki eta eredu... Gizakia dala giza-lege eta eskubide guztien oinarri... orreik danak eta askoz geiago Juantxo-txikiri otoitzarekin batera irakatsi. Baita, Jainkoarenganako gure maitasunaren neurria, gizaseme-alabak maitatzean eta serbitzean dagoala...

Ona zenbat gauza eder irakatsi bearrezkoak!

ARRINDA'tar ANES



JUANTXO-TXIKIREKIN POZKARIOZ

(21)

"Arren' irribarre egizu". Zure umea ondo eziko ba'dozu, irribarre eta alaitasuna bear-bearrezkoak dozuz. Zabaldu zure inguruan alaitasuna eta poza. Zergaitik beti goibel ibilli? Ez ete da ohea illuna baiño argia? Argitu egizuz zure inguru guztiak eta zuk argitutako inguru orreik, zeu egingo zaitue argiago. Orra danok irabazian, eurak eta zeu, eurai emondako argiak argitu zaitu zeu be...

Illuna zabaltzen ba'dozu, inguru orretako illunak illunago egingo zaitu zeu be.

Neure inguruan zabaltzen dodana, orixe berbera biurtzen dauste ingurukoak, baiña aundituta... Nik poza zabaltzean, nire ingurukoak pozak geiago poztuten nau. Poz ori zabaldu ala, aundiago egiten jat ingurutik datorkidan poza.

Bardin negarrarekin be: neure tristurak zabaltzean, tristura geiago datorkit biotzera, inguru guztiak tristetu dodaz-eta... Asarreagaz, bardin gertatzen jat.

—Orreik orrelan ba'dira, nire barruko ezbearrik agertzea ez jat komeni.

—Lagun bakar bateri agertzea ona da; baiña, gai orreik zure inguruan zabaltzerik, orixe bai ez jatzula komeni.

—Orduan, zer..?

—Argia, poza, alaitasuna, biotz-ona orreik danak agertu eta zabaldu; zeu eta ingurukoak, danok izango zarie irabazian.

—Eta, txarrak..?

—Illuna, naigabea, bildurra, tristura, umore txarra, biotz-ankerra, orreik barruan gorde zazpi giltz eta maratillagaz... Aal ba'duzu, beintzat.

Ezin ba'dozu, joan txoko batera negar egiten, danen aurrean egiten ba'dozu, danen kalterako izango da-ta.

*

Gogo-illun zagoz? Argitu egizu, mesedez, aurpegi ori, argia zabaltzeko; zeure umetxuak argi asko bear dabe euren inguruan, ondo aziko ba'dira. Landararik ez da azten argi barik eta zure umetxoak argi asko bear daben landarak dozuz. Argitu euren barruak, euren gogoak indartu, on guztien aziak erein euren animeetan. Zenbat eta aalmen gitxiago zeure umetxoak, ainbat eta argiaren egarri geiago. Ez egizuz illundu eta euren indar apur orreik ez egizuz uxatu.

Zeure buruarekin aaztu eta besteen onari begiratu. Ekin besteen zoriona sortarazten eta zeure biotza poz-iturri izango jatzu. Poz-iturri zeuretzat eta poz-iturri inguruko guztientzat.

ARRINDA'tar ANES

AZKEN SASTADEA IZANGO ETE

Txin, txin, txin,
mailuak trintxetari ekin.

Arria, negarrez,
eutsi ezinik.

Txin, txin, txin,
mailuak trintxetari ekin.

Mustur zorrotz onek.
erruki barik.

Txin, txin, txin,
mailuak trintxetari ekin.

Arrizko biotza
birrindu arte.

Txin, txin, txin,
mailuak trintxetari ekin.

Eriotz samina
elduko ete?

Txin, txin, txin,
mailuak trintxetari ekin.

Oi gure Euskal arrizko Erri au!
Txin, txin, txin...

Hamburg, 88-11-27

1. MARTIARTU

JUANTXO-TXIKIREN SARIA ETA ZIGORRA

Juantxo-txikik okerrekoa egin dau? Zirt eta zart, zipli-zapla, belarrionkoak eta jipoiak ugari. Ori ez, guraso. Zigortzea baiño eba dozu oriez itz egitea.

Bere okerra uste gabekoa izan ba'da, ez dau zigorrik merezi, iñondik be ez. Zuk maiko-zapi zuriaren gaiñean ardo-basoa edo tinta-boteillatxo utzi duzu aaztuta. Bitartean, ara non datorren Juantxo-txiki jolasgure biziarekin eta zapi ertzari tiratu egin dautso, baita zure baso-ardoa edo tinta-botilla mantel zuriaren gaiñean utzitu be.

Juantxo-txikik artu ditun belarrondoko eta jipoiak entzutekoak izan dira, berak errurik izan ez arren. Errua zurea izan da, mai gaiñean baso-ardoa itzi dozulako eta tinta-botilla itxi gabe. Zeure burua astindu bearko zenduke eta ez umerik ikutu. Zeurea izan da errua eta ez umearena.

✧

Ostikoka ekin dio Juantxo-txikik bere neskameari, mirabeari, eztabaida baten ondoren. Eta, or zagoz zu agoa-zabalik, zirkiñik egin barik, zuri ardurarik ez balitzu lez; neskaren anka-ezurak ez dautzue zuri miñik emoten... Barrerik egiten ez ba'dozu, gaitz-erdi.

Orain asi bear zenduke zuk zirt eta zart, geldirik egon barik. Orrelako okerrik ez da parkatu bear.

Zer egin? Bere gogo gaiztoz oker portatu ba'da, oker egin dauela erakutsi eta agertu. Ori da lenengo urratsa. Bere okerkeria ezagutzen ba'dau, irabazi dozu zure umearen biotza.

Zigorra merezi ba'dau, maitekor zigortu: ikusi dagiala maite-miñez zigortzen dozula. Zigorrik onena, zure maitasunaren agerpena ukatzea da. Umeak maite ba'zaitu, indar izugarria izango dau zigor onek. Maiteago eta zigorra miñago. Maite ez ba'zaitu, berriz...

*

Asarre zagozan unean ez umerik zigortu, ez ziñake neurritsua izango-ta. Ez zigortu zeure asarrea baretzeko; justiziatik kanpo ibilliko zara eta zu nundik zabiltzan, umetxoa konturatu be bai. Injustiziarik ez dautzu parkatuko.

Gutxi zigortu eta gitxitan zigortu. Bear-bearrezkoa ez ba'da, ez zigortu. Zigorra Juantxo-txiki sendatzeko da; okerra sendatuko ez dauan zigorrik, ez sekula erabilli. Zalantzan ba'zaude, ez zigortu.

* * *

Saria ohea da zigorra baiño. Ondo saiatzen danean, saritu Juantxo-txiki. Saritu bildurrik gabe. Sari aukerakoak billatuko dituzu. Umetxo maitaleentzat, bere gurasoen maite-agerpenak dira saririk onenak.

Zure seme-alabak sekulan saritu al dituzu ondo portatu diralakoz...?

ARRINDA'tar ANES

JUANTXO-TXIKIRENGAN ITXARON (19)

Erein. Erein azi ona. Erein azi ona etenik gabe. Aukeratu azirik onenak. Merezi ditu Juantxo-txikik. Baserritarra, azia erein ondoren, ez da bigaramonean joaten sorora azia erne ete dan ikustera.

Bein erein ezkeru, lasai gelditzen da, presarik gabe. Berak ba-daki bere garaian erne eta burutuko dala azia, gauzak okertzen ez ba'dira. 'Aundia banaiz, txikia banaiz, maiatzean burutuko naiz' diño esaera zaarrak gariari buruz.

Badaki ereinda bakarrik ez dirala lanak eta arazoak amaitzen; jorrak ondoren etorriko dira bere orduan.

Aziaren ardura izango dau baserritarrak, noiz erneko, baiña patxada onean, trankil, itxaron-bidetik eta eroapen aundiarekin. Gauza guztiak bear dabe euren denporea.

Itxaropena eta eroapena denporarekin batera: orra zer gauza ederrak. Eroapen aundiz itxaroten jakin. Denporea emon eta artu. Juantxo-txiki oso nekez azten dan azia dozu. Itxaron. Denborea emioizu. Bere biotzean erein dozuzan azi oneik, emon euren garaian emongo dabe frutua...

—Noiz, baiña...?

—Jainkoak daki: asieran, erdian, azkenean...

Ain berandu...?

—Garaiz litzake oraindiño. Tarsoko Saulo, Kartagoko Agustin, Loiolako Iñigo ez ziran irurak umearoan edo gartzaroan zuzendu, gizon adiñek oak zirala baiño eta donetasunera eldu ziran irurak: Paulo donea, Agustin donea eta Inazio donea, irukote bikaiña giza-kondairan.

Lana egitea da zure eginbearra, Juantxo-txikiren biotzean azi onenak ereiñez eta jorratuz, euria eta eguzkia emonez... Orreik zure eskuetan badagoz be, orreik frutua orixe bai ez dagoela zure aalmenean. Orren konturik ez dautzu iñortxok be eskatuko.

Al dauna bakarrik eskatu Juantxo-txikiri. Al dauana bakarrik egin-erazo eta bere aalmenaren neurrian irakatsi. Batekoa al da bere indarraren neurria? Bateko lana eman. Izango dau biar biko indarra eta orduan emongo dautsazu biko lana. Biarko lanak biarko indarrentzat izan bear dabe; baiña, biarko indarrari dagokion lanik ez emon gaur.

Itxaron, lana eskutik itzi gabe.

Eroapen eta pazientzi aundian, lana ez da sekula alperrikakoa izango, Jauna lagun.

EZIKETA

JUANTXU-TXIKI

Nor dan Juantxu-txiki?

Zeure seme-alabak dozuz Juantxu-txiki.

Orreik azi eta ezi, orra or zure lanik ederrena eta garrantzi audiienekoa. Baita zailena eta gaitxena be.

Lan ori zelan bete?

* * *

Chesterton ingles eta idazle ospetsuak onelan galde egin eutson Urlia jaunari:

—Juantxu-txikiri latiña irakatsiko ba'jako, zer da irakasleak lenengo ezagutu bear dauen gauzea?

—Latiña irakastekotan, latiña izan bearko da gauza ori...

—Ez, jauna, Juantxu-txikiri latiña irakasteko, Juantxu-txiki berbera da irakasleak lenengo ezagutu bear dauan gauzea.

Juantxu-txiki zer dan ez ba'daki, zelan moldatuko da Urlia jauna zerki orreri latiña irakasteko? Ez dau jakingo nondik ekin buru aretan latiña sartzeko, naiz-eta latiña ondo jakin berak.

* * *

Gurasoek Juantxu-txiki ezi bearko dabe; baiña, ori egin aal izateko, eta Juantxu-txiki ezitzen asi orduko, aurra ezagutzen alegindu bear.

Ez da lan erreza.

Juantxu-txiki gauza ezberdin askoren batasuna dogu-ta: mineralak baditu beragan, goruntz zugaitzen antzera azten da, animaliak lez mogitzen eta sentitzen, aingeruek lez pentsa eta maite...

Ezaupide orren bidetik egin dagiguzan alkarrekin urrats batzuk.

* * *

Asieratik esan bear doguna auxe da: zer ez dan Juantxu-txiki.

Juantxu-txiki ez da gizon koskor bat.

Ez dala gizontxu bat, algia: ez dala zure antzeko eta bardiñeko bat neurri murrizagoan, neurri motzagoan.

Ez, orixe.

Ezkurra ez da aritz txiki bat.

Arrautza ez da txori txiki bat.

Xomorroa ez da tximelet txiki bat.

Aritza ezkurretik sortuko da; baiña, ez da aritz txiki bat gure ezkurra. Txoria arrautzatik eta tximeleta (pinpilinpauxa) xomorrotik; ez dira, baiña, gauza bardiñak.

Umea ez da gizon txiki bat.

Ume orretatik sortuko da gizona egunen batean; baiña, gaur ez dira bardiñak umea eta ume orrengandik sortuko dan gizon-emakumea, guk askotan alan uste izan arren.

Aurra ez da gizona edo emakumea, egunen baten gizon-emakume izatera elduko diran indar eta aalmenak baiño. Gaurko indar oneik ekarriko dabe biarko gizon-emakumea...

* * *

Gaurko umea, biarko gizon-emakumea.

Baiña, gaur, ume oraindik.

Gu lakoa ez dalako, izaten doguz ainbeste eragozpen gure umea ezagutzeko. Ezagutu nai ba'dozu, begira atzeraka zure ume-denporara.

Zelakoa ziñan zu orduan; alakoa da gaur zure Juantxu-txiki.

Zure bizitzan atzera joan ezin ba'dozu, entzun besteak zer esaten dautzuen eta irakurri zer idazten daben. Zuri laguntzearren saiaturko gara.

Ez aaztu, ba, ezaupide ori lortzeko biderik onena zeure barruan dozula.

URRENGO AUTESKUNDEAK

Bai irakurle agurgarria, laster doguz urrengo auteskundeak, oraingoan barriz iru aginpidetarako. Lenengo bi batez bere garrantzi aundikoak gure Euzkadi onentzat: Udaltzarakoak eta Aldundietarakoak, geien baten jaurlekuntza bi orreik diralako euzko-erriaren ardatza.

Europa'ko Biltzarrara euzko abertzaleak, ondo landuta aurkitzen diran euzkotarrak bidalduteak, jakiña! ba'dau garrantzia, aundia euki be.

Zergaitik? España'tik bertaratutzen diran ordezkariakandik ez-gaituelako iñoz bere beardan bestean euzkotarrok ezagutuko, egia erdizka edo guzurra ugari eta bearren diran gauzarik jakingarrienak espainiarri ondoen jatorkezan erara azalduak izaten diralako.

Orixegaitik, Europa'rako aukeratzen doguzan ordezkariak be, ondo oldoztuta geure autarkia emon-bearrean gera, gero damutzea izan ez daigun.

Madrid'era ordezkariak bidalduteak be eukiten dau bere garrantzia. Zergaitik? Bertan euzko-erriaren alde zerbait entzunazo bada, euzko abertzaleen abotik entzun da. Ainbat geiagokoa da geure Aldundi eta Udaletxetan abertzaleak eukitea, erraz azkeneko zortzi urteotan ikusu dogunez.

Egiz, orretarako lenen lortu zan, neke asko ondoren, Bizkai ta Gipuzko'n galdurik euki genduban Txinditunben edo "konzierto Ekonomikoa" eta urren Euzko Araudia eta, orrean bitartez bertan Euzkadi'n geratzen jakun txindi bitartez, ainbat eginkizun eder bearkunik asko egin dira Araudia dogun euzko-errietan.

Orretarako, baiña, gizon eta emakume zintzoak bear dira, erria, Aberria maite dabenak, Aldundi ta Udal-

-etxeetan, geien baten azkenengo zortzi urteotan Euzko Alderdi Jeltzaleak euki dituen lez. Eta, orixegaitik egin dira ainbeste ikastola ta ikastetxe, ainbeste erri-apainketa, ainbeste bitxabal barri ta zar-apainketa, ainbeste osatetxe, ainbeste idaztitegi zabal erririk geienetan, jakintzaren leku berezi izan daitezcan eta abar luze bat.

Eta, ori danori edo geienori, eskerrak euzko abertzaleak, beste alderdi politiku askotakoak, garraixka, oportetan daunbadetan eta zaratatsu ibilli diran bitartean lan eta dan ekin dautsoelako, benetako seme-alabak egin bear dabenez. Orretara izango dalakuan gera Euzko Alderdi Jeltzalekoak aurrerantzian bere.

Orretarako, lerro oneik idatzi doguzanerako erririk geienetan aurkeztuak izan dira autagaien zerrendak. Ara emen Galdakano'n EAJ'k aurkeztu dabena: Garzia Borobio'tar Kepa, itsas-gizona, ontzi-burua; Azkagorta'tar Jon-Erramun osagillia; Legarreta'tar Jon ekonomilaria; Irazu'tar Balendin lage-gizona; Sierrasesumaga'tar Patxi; Lage-gizon ekonomilaria; Orue-etxebarria'tar Maribe amnistraria; Ginea'tar Eduardo agin-osalaria; Basabe'tar Xabier osabile-saldelaria; Guadarana'tar Josu ikastuna; Amutxategi'tar Joseba M.^a irakaslea; Arandiaga'tar Joseba Ontzi-burua; Goenaga'tar Iñaki tximislaria eta abar ogeita baterarte, danak gizon da emakume gazteak eta errian zerbait ondasungarri egiteko gertu datorkiguzanak.

Irakurle agurgarria! ondo oldoztu urren jatorkun bagillearen, Ekainaren amarrean zeure autorkia emon baiño len eta, azkenez, zerrenda onetako gizon-emakumeak emon, erria zintzo jaurtu dagiskuen.

ALTUNA'tar JOSU

KALE-ORDENAMENTSU BARRIAK

Franco'ren garaiak ziran eta seiscientosa sortu barria izanik, bideak berebillez betetzen asiak. Oto'ren lagun batek topo egin dau onekin Donosti'ko parte zaarrean.

-Kaixooo! Ez aut aspaldi ontan ikusi Oto. Ondo?...!

-Ondo esan bearko, bestela barre egiten jabek-etá

-Eta, errian zer barri?

-Pototo egin dabela alkate.

-Jointxo, jointxo, Pototo alkate...!

-Bai, gizona. Pototo gizon jakintsua dok.

-Eta zer jokabide darama alkate izendatu eben ezkerro?

-Gauzak bere ordenan gustatzen jakozala.

-Eta...?

-Ez dakik ondo zer naaspilla egoan erriko kaleetan... eta ordenamentu barriak sortu jozak: kale batetik joatea libre ba'da, etortzea ez.

-Donostia'n bezela, orduan...? Emendik bai eta andik ez. Ori ondo jagok.

-Gure erria Donosti'ko maillara jasojob Pototok; baiña, nonedonon okerren bat ete dagoan... Zalan-tza ba-jaukat.

-Zergaitik, ba...?

-Atzo zan ordenamentu berri orren lendabiziko eguna, eta badakik zer gertatu dan...?

-Zer?

-Erriko automobilak urten, urten dozak erritik, baiña batek be ez jok oraindik sartzeko biderik aurkitu.

ANES

Aurrekoak gogoratzen

KARDABERAZ BAZKUNA ETA LEKUONA “ZAARRA”

Gaztetasuna ez da urteekin neurtzen dan gauza.
Badira urte gutxiekin zaartzen diranak eta urte-asko-ondoren beti gazte irauten dutenak.

Auetakoa degu Don Manuel Lekuona “Zaarra”.

•••

1915 urtea an dago...

Ez zan oraindik apaiz Gazteiz'ko Gotzai Eijo y Garay jaunak, Apaizgaitegi Nagusian, euskal-irakasle ipiñi zuanean gure Don Manuel au.

Apezpiku jaun orrek berberak agindu zion Kristau-Ikasbide-Berria (Pildain agurgarriak egindako lan eder ura) euskerara itzultzeko, gero Arzipreste-Batzordeak eta Euskaltzaindiak ontzat eman zezaten.

1916'an, Meza Berria.

1908'tik aurrerako ikastaro guztiak Gazteiz'ko Apaizgaitegian.

Aurreko ikastaroeri Balearrain'en eman zien asiera, amaika urte zitula. Talde artakoa degu Don Jose Miel Barandiaran ere.

1894'an jaiotako, Oiartzun'go Etxe-txiki kale-baserrian.

•••

1924 da, Lekuona'ren zaindaripean, Kardaberaztarren urtea. Don Manuel'entzako ez zan ori lanaren asiera, ordurako Euskeraren arloan asita bait zeukan bere maixutza Gazteiz'ko Apaizgaitegian.

Arrezkero kardaberaztarrok beti bera izan degu sortzaille ez-ezik, baita mai-xu eta euzle.

Gazteiz'ko Apaizgaitegia degu bere lanen lekuko bereizia. Urte aietan, 1936'arte, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa'ko gazte-saillak izan zitun bere ondoan, ikasi-miñez.

Talde aien artean aziak erein zitun eskuak-bete.

Lurrera botatuko azirik ez da sekulo erabat galdu: gutxien uzte danean er-netzen du eta bere emaitzak eman.

Ereintza aien emaitzak? Izen asko daude esatekoak; baiña bost bakarrik aukeratuko ditut. Beste guztiok barkatu. Ona bost izen oie: Albisu, Arostegi, Irigoyen, Kortajarena eta Loidi.

Oiekin batera kardaberaztarren orduko izen guztiak jarri bearko nituzke. Be-netako emaitzen neuria ez du iñork sekula jakingo, saill osoak ekiñ bait genion Euskera-jokoari. Nere uzte argalerako uraxe da Lekuona Zarra'ren egintzarik ederrena.

•••

Urteak pasa dira eta ez gutxi.

Gazteak giñanok aguretu gera; bera, ordea, beti beziñ liraiñ eta gazte. Kardaberaz-Eskolan, gaurko egunez, oraindik bera irakasle. Bere euskal-jakintza

agortzen ez dan putzua degu. Euskera erabiltzen maixu da. Gure izkuntzarer eskutuki guztien berri badu.

Alaz ere, maixu apala.

lñoren iritzietarako errespeto eta begirume aundikoa.

Ez du pitzatutako kañaberarik ebagiko; ezta ere kea-darion krisaillurik itzali ko. Arnas artzen lagundu, bai.

Gaurko egunez maixukeriz agertzen gera, bear baiño geiagoetan, ezer gu txi dakigunok. Lekuona Zarra ez dezu kasta oietako maixuen artean topatuko. Bere iritzia emango dizu; Euskerari buruzko erarik garbienak eta jatorrenal agertuko dizkizu, maixukeririk gabe.

Bide onena erakutsi, beste bide onak madarikatu gabe.

Askatasun giroan.

•••

1930'an esagutu nuan.

Mutill gazteak giñan. Diktadura-ondorengo askatasun-aizea nabari zan ai dean. Giroa udaberritu zan eta, giro artan, Euskal-zaletasuna zabaldu. Dor Manuel'ek berak euskeratutako Kristau-Ikasbide-Berria genduan ikas-gai. Liburuxka arreri buruz egiten genduzen Euskara-saiaketa guztiak. Bakoitzak asteero lantxo bat egiñ eta gero danen aurrean irakurri. Batak eta besteak beuren iritzia agertu. Akatsen billa ibilli oi giñan... Euskal-urratsak orduantxe ematen asi. Sei urteetan Euskera era Euskalerra'ri itsatsita gebiltzan maixu oner ardurapean...

Eta oraiñ orduko lan aietara bildu gera berriro.

Lekuona "Zarra", beti gazte.

•••

Eleiztar-literatur-lanak ere badu zer-ikusirik gure Lekuona Zarra'rekin Eijc y Garay Gotzai jaunak jarri zuan Apaizgaitegiko euskera-irakasle. Gotzai orrer ondoren etorri zan Aita Zakarias'ek, berriz, bere gotzai-eskutitzen euskal-itzultzaile egiñ zuan. Berdiñ ondoren etorritako Don Mateo Mujika'k ere. Euskeraz agertu ziran eskutitz aiek Don Manuel'en ixilleko lanak dituzu. Lan aipa-garriak.

Ixilleko lanak, ordea, ez dira amaitu; diraute oraindio.

Liturji-itzulpen-lanari buruz ari nazaizu. Zer lan dan eta zer lan izan dar itxuak ere ikusten du, ikusi nai badu. Literatur-eskola sortuta dago. Lan izugarria egiñik da. Garrantzi aundiko lana, eta aiñ garrantzitsu jotzen dan eta aiñ nolabait planteatzen dan Euskera "batua"ren alorrean, aiñ xuxen.

Vaticano II'en ondoren liturji-berritze-lanak ez dute etenik izan. Meza eta irakurgai-berritze ekintza ez da urteetan gelditu. Asierako berritze guztiak euskeratzerako, orra denak zaartu, eta aien orde berri-berriak sortu. Don Manuel eta bere lagunak berriro euskal-itzulte-lanetan. Leen baiño irakurgai geiago. Askoz ere ugariagoak...

Or daude parrokietako liburutegietan lenengo aldiz ateratako Jaietako Mezak, Deunen Mezak eta Jaiegunetako Irakurgaiak. Euskera jator-ederrean eta batasun baten inguruan.

Liburu oiek historira pasata daude. Galdu ala, geituko da beuren prezioa. Ondorengo euskal-ikasleak ur oietara jo bearko dute Euskeraren jator-tasunaren billa.

Ortxe aztertu bearko.

Itzultzaileak asko dira. Euskalki guzietako idazleak, eta batera etorri diranak. Oien fruitua ez da aaztuta galtzeko gauza.

Don Manuel Lekuona'Zaarra'(goitzena berak jarri dio bere buruari) liturji-itzultze-lan auetarako, zuzendaritzarako alegia, egiña zegoen. Gauzak ez dira txiripaz gertatzen; emen beintzat, ez dira ala gertatu. Bere bizitza osoan lan orretarako bere burua jazten ari izan dala deritzait. Apaizgaitegiko idazle-eskolako lanak garrantzi aundiakoak izan badira gure Maixu onen bizitzan, liturji-itzultze lanak ere izan dira zer-edo-zer.

•••

Lana egiñ, lana eragiñ eta beti itzalean gelditu.

Ori izan da, urte askoetan zear, Lekuona Zaarra'ren jokabidea.

Noiz bait, orratio, argitara ere jaso zuten.

1950'an Euskaltzaindiako sarrera egiñ zuan eta ogei urte beranduago bazkun orren buru jarri zuten. Iru urte iraun zuan bere gidaritzza Euskaltzaindiaren barnean.

Ango gidaritzatik irten-bearra geuk ere itzalean utziko degu. Illunpean. "Gaua, gauekoentzat" zioten gure arbasoak. Ez da egunik gaurik gabe. Gaurakin illuna.

"Illuna sortu zait, ama,
betiko biotzean..."

Ori esateko aiña ere ez da izan. Illunaldi luzeak, ordea, ez zaikio falta Don Manuel'en bizitzari.

Desterrua Calahorra'n izana du.

Amalau urte: 1940'tik 1954'ra.

Amalau urte luze, erritik at. Aurretik beste lau illunpean.

Illunpean; baiña, lanean.

Illunpe orretako lana, "Fuentes de la Madre Rafols?", Ciencia Tomista aldizkarian agertu zan. Izenik gabe agertu ere. Txiripazko edo obeto esateko, proidentziazko arkitze baten ondorengo izan zan lan ura.

Desterru-garaian, berriz, Calahorra'ko elizbarrutiko artxibuetan bere betillak erre zitun. Ixill-uneko amalau urte aietan Euskalerrriaren berriak ikasi zitun makiña bat paper-zaar-artean...

Urte luzeak. Aiek ere bearrezkoak gizona bere elburura elduko bada. Osatuko bada. Suak ematen dio galtzairuari bere tenplea.

•••

Aurretik, erdian eta ondoren Euskalerrriko ikerketa (historiari buruzkoak aipa nai ditugu), askoetan parte artutako gizona degu. Aitatu ditzagun azken-urte-auetako bakan batzuek: Errenderia'n Ama Maalen (?) erromatarren garaiko eleizatxoa; erromaniko aurreko eliza Astigarribia'n; urte onetan betan, Alzo Azpiko eliza erromanikoa.

"Greco" margolariaren bi kuadro berak arkitu zitun: Leniz-Gatzaga'n bata eta Zestu'ko Iraeta'n bestea.

Asunzion Arrazola lekaimeari, bere "Renacimiento de Guipúzcoa" tesis egi-tean, zuzenbidea billatzen lagundu zion.

Eta abar.

Erririk-erri ibillia degu erribakoitzeko histori-agerpena egiten.

•••

Saiatu izan da Erri-jakintza lanetan ere Barandiaran Jose Miel'ekin batera. Ildo orretan bersolaritza maite izan du, batez ere. Aozko-literatura aztertu izan digu Euskalerra'n iñork baiño leen eta iñork baiño obeto. 1918'an, Gasteiz'ko Apaizgaitegian, eskola-urteari asiera emateko itzaldian, La Métrica Vasca izan zuan gai. Euskal-bertsoak nola neurtu bear ziran erakutsi zigun.

Andik urte batzuetara, 1930'an, Barga'n egindako Congreso de Estudios Vascos artan, koplaz zaar eta bersolaritzari buruz ekin zion, arazoari bear zan garrantzia emanaz. Sagardotegi-zokondoetan zebillen bersolaritza Donostia'ko Kursaal aretoraiño eramaten eta goi-mailla batera jasotzen lagundu zuan.

Lan asien ondorengoak ditugu bersolari-txapelketak.

•••

Amaitzeko:

50 urte dira Kardaberaz-Bazkuna bere ardurapean sortu zanetik.

Urre-eztaiak.


Bidezkoa zan Kardaberaz-Bazkuna bere maixuaren lanak argitaratzea. Zuzentasunak eskatutako ondorena da. Biotzak, zer esanik ez.

Bilduma zatika atera da gai auen neurrira:

Kritika, Kondaira, Etnografia, Kultura, Olerkiak, Antzerkiak, Literatur-gaiak eta abar.

Tori, Don Manuel, gure eskeintza, esker onarekin batera.

ARRINDA'TAR ANES'EK
1975-III-17'an.



KARLISTADA ETA SANTA KRUZ

Lenengo Karlistada emakume bat, gizonezkoen orde, erregiña izendatu zutelako sortu zan. Bergara'n Maroto karlistak eta Espartero liberalak alkarri eman zioten 'besarkada' negargarri batekin amaitu zan.

Isabel bigarrena zan erregi ori. 13 urte betetzearekin batera, ezkondu zuten Borbon batekin...

Urteak pasa ziran, eta 1868'an bota zuten errege-aulkitik Iraultzari bidea eman. Saboya'ko Amadeo aukeratu zuten errege berria. Bi urte besterik ez zuen iraun: 1873-Otsaillaren 1 Van aide egin zigun Italia, bere errira.

Ondoren, amaika illebeteko Errepublika. Garai larriak ziran eta Fuero eta Erljioren aurkako lanean ekin zuten guztiak. Eta, orretzek eraman ginuzen berriro beste Karlistada batera.

Don Carlos de Borbón VII'garrenak, bere errege izateko eskubideak aurretik zituela, agintarien aurka jeikitzeo agindua eman zuen, España osoan, 1872'ko Apirillaren 21'erako. Lau urte iraungo zuen eta, batez ere, bere barruko naigabez, il zan 1876'garren urtean.

Bergarako salakeri arrekin oso asarre gelditu ziran benetako euskaldun errimaitaleak. Oien artean bat, Elduayen'go apaizgaia. An zebillen zoratu bearrean, Bergara'ko Salakeria gogora etortzen zitzaion bakoitzeko.

Samoa baserriko semea zan Manuel Ignazio Santa Kruz, 1843'an sortua. 1867'an egin zuten apaiz eta bereala asi zan Goierria'n zear, dirua biltzen eta armak ekartzen Frantzia'tik. Kobeetan, baserrietan, baita soro erdian egiñiko zuloetan ere, gordetzen zitun... Ordurako Hernialde'ko erretoa zan.

Tolosa'ko agintari liberalek susmo txarren bat artuta zeuden ordurako eta ots egin zioten Tolosaka etortzeko; baña, entzungor egin zien. Goiz batean, ara nun agertzen dan Hernialde'n mikelate eta soldadu pillo bat, komandantea buru zutela, apaizaren billa, Meza ematen ari zan bitartean.

Komandanteari eskatu zion, emateko tarte bat, Meza ondorengo otoitzak egiteko... Irten zuten elizatik eta beste eskari bat egin zion militarri: An aurrean zegoen baserri artan artzen zuen egunero bere gosaria, eta baraurik zegoenez, ba uraxe nai, gozaldu.

Baietz, juateko. Gudari taldeak ipiñi zitun etxe—aurretik eta atzetik, ba'da ez ba'da ere. Apaizak, etxean sartu orduko, etxeoandrearri bere gizonaren galtzak eta blusa bat ekartzeko eskatu zion. Aiek jantzi, otarra bat lepoan artu,

eskuan itaia eta atzeko atetik, soldaduen erditik, sororan barrena, Ernio'runtz.

Gosaria luze zijoa eta Komandanteak, susmo txarrak arturik, etxea ipurdiz—gora aldatzeko eskatu zien gudariei. Ganbarako belarretan baionetak sartzen saiatu ziran aldi luze batean... baña, basen-ian ez zegoen apaizik. Ordurako Ernio menditik Bidania'ra jeisten ari zan Santa Kruz, bere lagun erretorearen etxera. Otarra eta itaia lagata, Tolosaka, soñean zituen jantzi aiekin. Tolosa'tik irten zuten bere billa gudari 'beltzak' eta eurok baño lenago zan bera, Santa Kruz, axarien kabian, Tolosa'n.

Manuel Santa Kruz, gizon ausarta eta kirio gabea. Burua, otz.

Santa Kruz'en gerrarako—irteerak

Don Carlos'en agindua betetzeko (1872—IV—21), Santa Kruz kapellau bezela irten zan gerrara, Recondo Jeneralaren mendean... Irteera arek ez zeukan ez buru eta ez isatz; naaste—borraste galanta.

Barkamena eskeintzea naikoa izan zan, guztiak, Jeneralak aurretik, etxera joateko, millaka fusil etsaien eskuetan utzita gero. Amorebieta'ko oraingo itzermana, Bergarako Besarkada baño askoz okerragoa, Don Carlos'en iritzira.. Recondo'ren kapellaua buru—makur Frantzia'ra; baña, Jeneral'en jokaera arrekin oso asan-e.

Illebate pasa orduko, irten du, bakarrik irten ere, emere-tzi mutillen gidari, bere buruko indarrak neurtzera.

Gau aretan mutil bateri tiroa eskapatu eta oñetan eman zion. Ingumari artako berririk iñork jakin ez eta Santa Kruz berberak, artu zuen mutilla bere kontu, tokiren batean izkutatzeo. Artan dabilela, arrapatu dute Aramayona'n eta bertako udal—etxera eraman zuten, urrango goiza argitzen zanean, fusilatzeo. Maiatza zan, urtea 1872. Asi orduko, orra Santa Kruz'en azkena. Ilketan parte artzera, zetorren Gazteiz'tik Primo de Rivera jenerala.

Bein Hernialde'n iges egin ba'zun, gaur ere iges egingo du, naiz—eta Udaletxetik kalera salto egin eta aldameneko errekan bere burua izkutatu bear... Santa kruz'en billa talde guztiak zakurrak axariaren atzetik bezela. Inguru guztieta-ra zabaldu ziran, ez bait zekiten zer norabidera jo. Erreka berbera ere ondotox arakatu zuten. Dana alperrik. Ogeita lau ordu billa ibilli ondoren, aide egin zuten guztiak Aramayona'tik; baita Primo de Rivera Jenerala bera ere: ustel gertatu zitzaion etorrera...

EUSKAL EDESTIA

Errekatik irten zuanean, goseak eta otzak aulduta, base-
rri bateko etxejaunak artu zuen, ondo zaindu eta koba
batean gorde... Sendotu zanean, berriro Frantzia'ra.

Irugarren eta aizken irteera

1872'ko Abenduaren lenengo egunean, deia egin zien
beure mutillari, Biriatu'ko illerrian alkar biltzeko. 37 mutil
agertu ziran bertara. Bidasoa ibaia igari pasa eta Aia'ko
Arkaitzetara. Soñekoak aldian legortu, gaueko otzari begi-
ratzeke eta an alkartu ziran mutil geiago: danetara 50.

Poza zabaldu zan Gipuzkoa osoan, Santa Kruz etorri
zalako eta mutillak bildu ziran bere inguruan geroz eta geia-
go. Ez zituen edonola artzen: ardo edo lizunkeriaren men-
deko zirenak, ez zituen nai...

Bergara'tik Mondrago'ra zijoan liberalen konboi bateri,
San Prudenzio inguruan, 47 fusil eta iru kaja munizio arra-
patu eutsezan. Deba'ko elizaren dorrean 50 eta karabine-
roen beste orrenbeste zamarra, otzaren aurka. Mutil berriak
etorri ala, ateratzen zituzten baserri eta kobeetan izkutatu-
tako armak; baita, zuloetakoak ere...

Bost illebete, 37 mutillekin sartu zanetik, eta preso artu
zuten Aramaiona'ra, bertara, azaldu zan, batalloi oso bate-
kin: bost konpañia, eun gizon bakoitzak eta Santa Kruz
aurrean. Karlisten batalloirik ederrena, indartsuena, zuzen-
ena... Jendea, illunabarra izan arren, erriko plazara urbil-
du zan, pozez txoraturik, ikaragarritzko festa sortuaz: zora-
mena. Urte bete, maiatzetik maiatzera, Udaletxe aretan
iltzeko preso zegoena, ara euren orain orrelako indar bere-
ziakin, bera danen buru.

Santa Kruz'en Etsaiak:

Liberalak

Ez ziran gutxi. Lenengo ta bat Gipuzkoa'ko liberal agin-
tariak: Tolosa'ko Agirre, diputadu jaunak, 10.000 urrezko
pezta eskeintzen ditu Santa Kruz, bizirik ala illik, ekartzen
duanari.

Bigarren lekua Karlisten, izarrez eta medallaz betetako
Jeneralentzako zan. Millaka gizon euren mendean izan
arren, ez ziran ezertarako mogitzen: toki erosoak aukeratu
eta bertan goxo; ibiltzeko zaldi bat eta lo egiteko, berriz,
oge biguñak. Nekez mogitzen ziran burrukarako, eta beti
gudari moltso aundiekin; Santa Kruz'en asmoa izaten zan,
gizon gutxiekin, berrogeita amar ala eun, jo ta desagertu;
gaur emen eta biar beste urrutiko leku batean... Berak orre-
laxe egiten zuan. Naiz—eta salatariz inguraturik egon, ez
zekiten sekula nundik joko zuan Santa Kruz'ek. Liberalen
soldaduak, mikelleteak, liberalen boluntarioak, guztiak
zebiltzen mendian gora, mendian beera, Santa Kruz'en
arrastorik aurkitu eziñik...

Jeneral Karlistak

Militar Karlisten Jeneral ano aukeratu zuten pakean
jaso Santa Kruz'ek burrukarako irtetzean, aurrea artu ziela:
eurak Abenduaren 18'an eta Santa Kruz Abenduaren lenen-
go egunean. Ez eta erriek zioten maitasuna; gutxiago orain-
dik mutillek ziotena eta auen burrukarako griña...

Orregaitik edo, Lizarraga Jeneralak, Gipuzkoa osoko
zuzendariak, agindu au eman zien bere menpekoei: aurki-
tzen dezuten tokian fusilatu Santa Kruz; onek berriz ez zion
sekulan barkatu orain agertuko degun Aia'ko saldukeria.

Santa Kruz Bergara aldeko Komandantea ez zan bertan
goxo geldirik egoten: Aizgorri, Aralar eta Napar euskaldun
mendiak jorratzen zituen etenik gabeko ibilleratan... Aia'ko
mendietan, Zarautz uriaren aurrean, muño bat egokitu zuen
burrukarako gordeleku; zangak iriki zituen inguruan eta
aurreko arboladiak bota errezago zaintzeko.

Liberal agintariei ez zitzaien gogoko muño ura eta inda-
rez artzea erabaki zuten: iru talde aundi bota eutsoezan iru
bide desberdinetik: Donostia eta Tolosa'ko bideetatik bana;
irugarrena Itziar aldetik. Itsasoa zeukan aurrean eta erasoa
jo zioten ezkerretik (Itziar), eskubitik (Donosti) eta atzetik
(Tolosa)...

Egun aietan Lizarraga Zarautz'en kokatuta zegoen milla
gizonekin eta Santa Kruz'ek eskatu zion ezkerreko (Itziar)
bidea zaintzeko eta berak, beste biak zainduko zituela.

Lizarraga'k erantzun zion, baietz, egoteko lasai, berak
emango ziela aurpegi... Ezkerreko erasoari begiratzeko,
Santa Kruz'ek egin zituen beste biak egokitzen zitzaian eran-
tzuna emateko prestakizunak. Bigaramonean an nun dato-
zen bi talde, nola eskubitik, ala atzetik. Jarri zituen mutillak
ara begira; Lizarraga'k egingo zuen bere lana Itziar aldetik
zetoztenekin... Ustea uztela gertatu zitzaion: Lizarraga'k
zaindu bear zuen tokitik Primo de Rivera Jenerala agertu
zan, kañoi eta guzti... Lizarraga'k Itziar'en bertan topa zuen
Primo de Rivera; baña, eraso egin bearrean, aurrera jo zuan.
Parean pasa ziran biak eta alkarri agur beroak botatzea bes-
terik ez zitzaian falta. An utzi zuen mendian Santa Kruz
etsaien eskutik erailla izateko.

Estu—aldi aretan, bakoitzak al zuen tokitik iges egiteko
agindua eman zien Santa Kruz'ek illunakin batera eta goi-
zean Itziar'en alkartzeko guztiak. Geienak an agertu ziran
egunsentirako elizaren inguruan. Ango alkate—ordekoai
agindu bat eman zion zorrotz: Biltzeko errikan zeuzkaten
petroleo lata guztiak, utsak eta beteak; gardian artu, eta
Deba ra jetxi ziran. Meatxu egin zien debarrei, erria erreko
zuela, baldin dorreko karabineroak andik jetxi eta beuren
armak ematen ez ba'zioten...

Bizia barkatuko ziela...

Meatxua bakarrik ez zan izango, eliz atariko karaitz

arriak erreta bait daude... Dana dala, iskilluak eman eta zamarrak ere bai. Abenduko eguraldi otzak ziran aiek...

Santa Kruz Mutriku'ko zubitik ez zan pasa eta ara nun agertzen dan, Itziar'tik beera, Primo de Rivera, txakurra erbiaren usañera bezela; baña, erbiak alde egin zion Berriatua'raiño gelditzeke eta andik Ziortza'ra, gaueko atsedena artzera...

Lizarraga eta Santa Kruz'en alkarrenganako gorrotoak estanda egin zuen Aia'ko arazo onetan. Eta etsaien eskutik erail ezin izan zuen gizona, Aia'tik bizirik ateratako Santa Kruz, Lizarraga berberak fusilatzeke agindua eman.

Ez zan, ordea, agindu ori Santa Kruz'en aurkako lenengo agindua: Azaroren asierako egunean, Santa Kruz burru-kara sartu zala Dorregaray Jeneralak jakin zuanean, onela esan omen zuan: 'Nik apaiz ori, arrapatzen dedan egunean, garbituko det'. Zergaitik? Berari noiz sartu bear zuen, esan ez ziolako; bera bait zan Euskal erri eta Errioxa'ko karlista guztien buru.

Beste etsai bat, Dorronsoro Ataun'goa izan zuen gure Don Manuel Santa Kruz apaizak. Nor zan Dorronsoro? Gipuzkoa'ko karlisten Diputadu Nagusia, gudaroste osoaren arduraduna: janak, armak, jantziak, gauza guztiak, zeuden bere mende. Orregaitik, Aia'ko aretan, Santa Kruz'ek 15.000 kartutxo eskatu eutsozan eta erantzuna: 'Kartutxo zaarrak betetzeko'... Biltoki bat zeukan Peña Plata zeritzan, Frantziako mugatik gertu, Etxalar inguruan eta andik irtezen zuten Gudaroste batek bear zituenak eta danentzako zeuden prest, Santa Kruz'entzako ez ba'zan. Arentzako iñoiz ezer ez. Beingo batez, ara joan eta bosteun praka arrapatu zizkion Santa Kruz'ek, bere mutillentzako bear zituenak. Milla bidar bota zion lapurketa ori aurpegira apaizari...

Beste medalladun jeneral karlista, Santa Kruz'en etsai, ValdeEspina degu. Santa Kruz Bidasoa'ko Bera'ra berreun gizonekin etorrita zegoen, beste irureun Aralar'en utzita. Artan, gaez eta ixilka, etsaien antzera, etorri zan Bera'ra Valde-Espina bere indar eta Lizarraga'k utzitakoekin: danetara, milla gizonetako. Erriari bira osoa eman zion, erdian Santa Kruz arturik bere berreun mutillekin. San Fermin eguna zan: Uztailak 7.

Bigaramonean Jeneralak, beregana etortzeko ordena bidaldu zion, izketaldi baterako. Santa Kruz'ek entzungor egin zion eta orduan, Konpañi oso bat bota zion etxera, indarrez ekartzeko. Santa Kruz'ek ez zuen karlisten arteko burrukarik nai, eta iru lagun artuta, joan zan Valde-Espina'rengana. Onek, Don Carlos'en eskutitza erakutsi zion. Erregearen agintea zekarren Santa Kruz'entzako: alde egiteko Frantzia'ra biurri naaskante bat besterik ez zalako eta karlistentzako kaltegarri.

Valde-Espina'k agindu zion emango ziola urrengo egunerako, Uztailak 9, Frantzia'rako bidea zabalduko zion txartela. Santa Kruz fidatzen ez, eta gau artan bertan, alde

egin zuan, egoitza Valde-Espina'ren zaindaries inguratutik egon arren... Goizean goiz, ezpañak miazten, Lizarraga agertu zan Bera'ko errian, bere etsaia kaiolan arrapatuta zeukelako. Baña, Santa-Kruz'en billa joan ziranean, txoria alde eginda zegoen... Nola, baña? Zaindariz inguratuta egon arren, alde egin digu berriro... Bazuan artarako sen berezia.

Santa Kruz'en ibillerak

Gau aretan iges egin zuen Frantzia'ra, lau kapitan lagun zituela. Bere asmoa zan Don Carlos berarekin itz egitea; baña egun artan bertan, erregea Sara'tik Zugarramurdi'ra sartu zan.

Santa Kruz eta bere lau kapitaneak, muño batetik begira egon ziran Don Carlos'ekin zijoan taldeari: markes, konde eta galartsu asko baña ganorazko gudaririk gutxi. Santa Kruz'ek bere kapitanei: "Emen benetako karlistarik ez dator; auekin ez dago gerra irabazterik". Itxura, besterik, ez.

Santa Kruz eta bere mutillak beste era batera oituta zeuden, gogor eta kementsu; erregearekin zetoztenak, berriz, biguñak eta nekerik gabekoak ziruditen. Izar asko, domiña asko, galartsu asko... Geiegi gauza onerako.

Santa Kruz'ek Pirine mendietatik, Leiza'ra, eta andik Aralar mendiera; emen Ataun'go San Gregorio auzoa artu eta andik Aizgorri'ra Araba'ko errieta'raiño... Gau ta egun, etenik gabe, ibilli oi ziran bizkor eta arin; era orretara, golpe bat emen eman, eta bestea espero ez zuten urruneko baztar batean... Don Carlos'en inguruko lagunak eta bere Jeneralak, bigun oituak, erosoago eta lasaiago saiatuak, ez ziran bat etortzen Santa Kruz'ekin... Orregaitik, edo, Don Carlos bera ere Santa Kruz'en aurka gertatu zan, Jeneralen esanetara... Apaiz gizarajo bat, militar mailla altuenetako Jeneralekin eztabaidan, alajaiña...

Gipuzkoa'k zortzi batalloi zitun; bat, Azpeiti'koa, Bizkaia'ra pasa zuten; gelditzen ziran zampirak, Lizarraga'ren menpekoak, Santa Kruz'en alde zeuden naiz eta, apaiza fusilatzeke agindua artuta egon. Goraka artzen zuten ikusten zuten bakoitzeko.

Aizkeneko illebeteetan, maiatza eta ekaiñean batez ere, erririk erri ibillia zan, izugarriko agurrak eta festak sortzen leku guztietan jendea zoramenak artuta... Bitarte orretan, lau jeneral triste Don Carlos'en aurrean, ekin da ekin, esan da esan, apaizaren aurka... Aizkenetako euren ulburua lortu zuten eta 1972'an VII'aren 9'an, Frantzia'ra iges egin bear izan zuan Erregearen aginduz.

Berri txar orrek tristura sartu zion euskal erriari biotzean.

Santa Kruz'en aizkeneko ekintza ausarta

Lau illebete zeramatzan Frantzia'ko desterruan, Lizarra-

EUSKAL EDESTIA

ga'k bi apaizaren ofizial eta lagun arrapatu eta fusilatu zituenean. Santa Kruz'ek, burrukarako bear zuen dirua, armak bezela, Gipuzkoa osoan sakabanatuta zeuzkan, base-rietan bezela, kobeetan ere... Aiek ekartzera bialdu zitun biak Santa Kruz'ek; eta artan dabiltzala, Lizarraga'ren eskuetan erori ziran. Bai onek laister garbitu ere.

Lizarraga'ren gaiztakeriak biotza urratu zion apaizari, eta burrukara berriro itzultzea erabaki zuen. Lizarraga Asteasun kokatuta zegoen aspalditik, Tolosa'ri erasotzeko asmoetan: inguru guztiko mendietan konpañiak zeuzkan zabaldua, bera erdian artuz, segurantz osorako.

Santa Kruz'ek. Abenduko 6'tik 7'rako gabeen, mugatik Berrobi'ra jo zuen, frantzes, español eta karlista muga-zai-ñak iruzurtuta gero. An, bereak izandako bi konpañiekin alkartu zan eta Asteasu aldera jo zuan. Bidean, beste zortzi konpañiek jarraitu zioten.

Neguko egunsenti aretan, zortziretarako, amar konpañiak Asteasu'ko emparantzan zeuden errenkadan zutik, Lizarraga eta Estado Maiorra elizan sartuta, Meza entzuten zeudelarik. Eskuetan zeukan merezi zuten zigorra emateko aukera. Baña, ez zuen nai, inolaz ere, karlisten arteko burrukarik, eta taldetxo bat bialdu zion elizara, berarekin itz egiteko prest zegoela esanez. Ez alperrik; Lizarraga'k eliz—ataritik, bereala aide egiteko agindu zion, gerrarik nai ez ba'zuen.

Konpañi batzuek Lizarraga'rekin zeudela ikusirik, eta karlista odol—ixurtzerik nai ez, enparantzan ordenan jarriak zeuden bere amar konpañiak artu eta aide egitea erabaki zuen... Eskuan txapela buru gañetik eragin, 'Gora Jainkoa' eta 'Gora Fueroa' ots agiñez, martxan jartzeko agindua eman zien amar konpañiei. Oñati'ra joan eta an zeuden Gipuzkoa'ko Junta Jenelei makurtu ziran...

Bera, berriz, Santa Kruz, Frantzia ra igesi. Nola? Orixen ez dakigu, Irun'dik pasa zala besterik. Aingerak bezela, esku—artetik eskapatzen zien. Oraingo onetan, betirako: ez zan geiago Euskalerra'ra itzuli... An zebillen batetik bestera, bere burua izkutatu eziñik; baña, España'ko Gobernuak Frantzi'koari Santa Kruz'en extradizioa eskatu zionean, orduan Londres'era baztatu zan.

Santa Kruz mixiolari

Berealako batean, Londres'etik Ameriketara mixiolari, karlisten azken gaiztoa aurretik asmatuz. Berak aide eginda gero, ibilli ziran ibilli beste iru urtez burruka negargarri aretan ezer zuzenik egin gabe, ondamendia Euskalerra'ri ekarriz; gauzak asieran baño okerrago aizkenean...

Ameriketean (Colombia) mixiolari, ezagutu zuen gerra-aren azkena. Ainbeste Jeneral, ainbeste medalladun, ainbeste galartsu eta ainbeste izar... Danak agintzeko; iñor gutxi aginduak betetzeko eta lanerako. Orra su—ziri festa asperga-

rri ura nola amaitu zan, ez Jainko eta ez Fuero. Azkenik, ezta erregerik ere...

Berrogeita amar urteetan mixiolari izan ondoren, 1926'ko Dagonillaren (Abuztua) 10'ean il zan Pasto deritzan Colombia'ko errixka batean, Andes mendietan, 2.800 metrora. An utzi zitun bere ezurrak betirako, Euskalerra'rekin amesetan. Urte aretan España'n, indarkeriz agintzen zuan Primo de Rivera Jeneralak, Santa Kruz'en atzetik ibillitako beste aren illobak.

Mendietako indioak zitun maite eta auzoetan biltzeko, turuta bat jotzen zuan, gerratean bezela. Mututu zitzaion eta bere emengo lagunei eskatu zien beste bat. España'ko Errege Alfonso XIII'garrenak, ori jakitean berak bialdu zion beste bat, Frantzia'tik ekarria, otzenagoa bait zan emengoak baiño.

Turuta ori Pasto'ra illaren 10'ean eldu zan, Santa Kruz gorpu zegoela. Eta, beste mundurako ez zuan bear Orra gizon bizkor baten amaiera. Tximista baten antzera jotzen zituen etsaiak eta, askok diote, bera izan ba'litz indar guztien buru, orduan, beste kuku batek joko ziola Euskalerra'ri.

Zumalakarregi lenengo gerratean eta Santa Kruz bigarrenean, biak eduki zuten Euskalerriko etorkizuna eskuetan: Zumalakarregi bala galdu batek garbitu zuen Begoña'tik Bilbo'ra begira dagoela eraso jo aurretik; Santa Kruz, berriz, Don Carlos'ek berak, bere jeneralen aolkuz, bota zuen Ameriketara mixiolari.

Burruka aiek ezkerok dabil Euskalerriko barrua sosegu gabe, su—mendiak beti lertzeko arriskuan dabilzan antzera. Espartero'k asitako lana, Franco'k borobildu; Franco il zan, baña ondorengo burruken sustraiak, urrutitik datoz: XIX'garren mendean here askatasuna eta bizi—izatea kendu zientetik. Indarkeriaren oñarria politikoa da, berreun urte auetan gauza asko bota izan badiote gañera ere.

Espartero'k 1839'an Fuero'aren arbola, azpitik ebagi zuen bere ezpataz. Eun unte beranduago, 1939'an Franco'k aizkena eman arbolaren mokor—ondoari... Baña, sustraiak an gelditu ziran... eta gero agertu dira bizirik dirautela.

Deban 1998-VII-19'an.
ARRINDA'TAR ANES.



KATUAK, XAGUAK ETA GURE DIRUAK

«Xaguak urte bete baten 90.000 milloi pezeta jan dabez Espaiñietako Lateralan». Onela diño DEIA'k, 1982-XII-27'añ, letra andiagaz lenengo orrian. «Arratoiak dira gizonak munduan izan deben etsarik aundiena. Gerra guztiak baiño oker aundiagoak egin devez historian zear...»

* * *

Eta gizonak asma daben inbenturik onena xaguak akabatzeko, katua izan da. Baserrietako sukalde guztietan katua egon da sutondoan amamari lagun egiten. Sorgiñak eurak be, kantu-antza artzen eben gizonengana agertzeko. Tximiñitik beera sartzen ei zan lapurretan eta etxeko-andrea ikaratu be bai. Gizonak pentsatu eban andrakoz jantzi eta zai egotia sutondoan, gorua esku batean eta burruntzia bestean.

Sartu zan katu-sorgiña eta andraz jantzitako gizon bizardunari esan eutzon:

—Gixona, eta goruagaz?

—Katua, eta berbetan?

Erantzun gizonak, burruntzia sabeletik sartunda. Eskapa eban katuak garraxi bizian. Bigaramonian alboko atsua egoan ardi-illik, tripak odoletan.

* * *

Katua gizonaren lagun egin zan egunean, asi ziran bere ganbarak ondo zainduta egoten: gabaz eta egunez katua xaguen zai. Baiña, sukalde-bajuak kendu ebezanian ekonomikak eta butanozkoak ipinteko, amaitu zirean sukaldeetako katuak, nun egon be ez daukielako.

Gaurko etxiak eta erriak katuen kontra dagoz. Etxeak lenago zulotxoak eukien katuak sartun-irtenak egiteko; gaur ez daukie nundik nora sartun eta nun beuren buruak gorde be ez. Onen ondorengoak: katuak gutxitu eta arratoiak ugaritu. Onekin, berriz, triskantza ugariak baztarretan.

* * *

Eguneroko izparringiak ez dau esaten zenbat diru gastatzen dan «campana de desratización» bakoitzeko. Oraintsu egin dabe geure errian, orretarako kanpotik gizonak ekarrita, len azariak akabatzeko egiten zan antzera. Itsas-erri baten bizi naz eta erre-xioa daukagu alboan. Maria biziak itsasoan eta ur-jasa aundiak erreixoan diranian, arratoi guztiak irte ten dabe errira alkantarilla-zuloetatik. Aldi bakoitzeko «campana» bat eskatzen dabe jendiak. Bereala beste bat. Eta beste bat. Sekulan amaitzen ez dan letania.

* * *

Eta, badakizu zer pasaten dan aldi bakoitzeko? Nere etze-inguruko baratzen katuak dagoz dozena bat be bai; ba, kanpaiña bakoitzeko katuren bat galtzen da.

Eta bat baiño geiago il-zorian egoten dira. Arratoiak aurkako kanpaiña bakoitzean, katuak garbitzen dira arratoin onerako. Ez dakit arratoi pozoidunak janda ala pozoia bera janda, iltzen bedira be.

Emen gartaten dana, uste dot beste errietan be berdin pasako dala. Orain illebeten pare bat dala egin eben kanpaiñan, iru ar eder aldendu ziran eta eteian nebazan ama eta bere seme ar bat, biak egon dira gaixorik, odola aotik eta atzetik botaz...

* * *

Obe leukie Udal-etxeak ainbeste kanpaiña egin barik, obeto katuak zaintzea. Jaten emon dagozan apurreri eta beuren buruak gordeteko tokitxuak egin, geurko etxe berrietan ez dago-ta eurentzako tokirik.

Erroma'ko Foro Romano inguru guztian makiña bat katu ibiltzen da ibilli, txitxarroak sardan bezela. Gertu egoen Animalien Aldeko etxe bat eta an ikusten nebazan katuok sartzen eta irteten. Foro Romano bertan be, lengo arrasto zaarren artean, topeko dabe nun gorderik. Persona asko ikusi izan dodaz an katuei jaten emoten. Ez dot usten arratoi askorik ibiliko danik.

* * *

Amaitzeko, Getaria'n gertaten dana esango dautzut. Bada an itsasoan sartzen dan menditxo bat: «Getari'ko Xagua» deitzen dautsagu guk. «San Anton» be bai; baiña, badau izen berezia eta ez naz akordaten. Mendi orren atzeko aldetik erriruntz, an dago Telaipe jatetxea. Bertako negusiak, jatetxearen ondakiñekin, ogeita amar katu baiño geiagori jaten emoten dautse. Menditxoan katuak ugari; baiña, arratoirik ez.

Ori dok zuur jokatzera eta burua izatea. Zorionak Talaipe'ko jaunari.

* * *

Bela-barkuko patroï bateri auxen galdetu eutsoen: —Zenbat otzara (otarra, sakia)-lur daukaz mendi onek?

—Alako otzarea egin ezkeren, bat.

ANES ARRINDA

"KIRIKINO". IDAZLE BIZKAITARRA. BATUAN

Uztaillaren 25'ean 1993 DEIA egunkariak, bere "Eguna" saillean Kirikiño'ren kontu au dakar: BELTZ EUSKALDUNA AFRIKAN, J.M.M. jaunak izenpetua.

Onala dio lanari asiera ematean:

"Gaurko kontaketa ez da nik asmatutakoa, "Kirikiño" euskal idazle bizkaitar zenaren bere "Abarrak" ipuin eta kontakizunen liburu jatorratik hartua bai-zik. Izan ere, 1918gn. urtean argitaratu zen Bilbon, eta hizkuntzaz, bizkaiera herritarraz idatzia... Guk oraingoan, ostera, gaurko irakurleentzat euskara batuz ipini eta eskaintzen dizuegu, egilearekiko zintotasun zehatza barkatuko dizuelakoan..."

Jokabide ori, idazlearen eskubideak zapaldu eta barkamenik ez duen, okerkeri bat da.

Idazlea, edozein motako artista batek bezala, lan bat sortzen duenean, lan orren jabegai da: Lan osoa, bere mota guztiekin, berea bakarrik da. Lana berak idatzi du, berberak nai izan duen eratan: bai izkiak erabiltzeko eran, bai idazkera edo estiloan...

Iñork ez du bere kasa oiek aldatzeko eskubiderik.

Baña, gaurko egunez, tamalez, indarkeria Euskera arloan nabarmen ikusi degu Batasunaren jokabidean. Indarkeriz sortu zan eta indarkeriz ezarri zuten euskaldunen lepoetan eta, bizi nai ba'dezu, artu bearko dezu zeure sorbaldan. Ez daukazu beste irten-biderik.

IRAKURLEAI OARRA

ZER aldizkariak eta EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k ba-dauke Bilbao inguruan urteko arpidetza eskuratzeko area. Etxerik etxe joaten da kobratzaillea. Baiña gauzea ez da ain erreza errietan. Orregaitik eskari au egiten dautzuegu: Bialdu eiguzue txartel edo txeke bat. EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren izena ipiñi ta 1.500 pezeta dirala idatzita. Txartel ori sartu karta-azal baten eta gaiñean zuzenbidea ipiñi: EUSKERAZALEAK ALKARTEA.


Colon de Larreategi, 14, 2º, eskoia. 48001 BILBAO.

Kirikiño'ren lanak lendik ere ikusita ditut Batasunez jantzirik; baña, orrek ez du iñortxo arritzen. Ikusi nai neuke Picasso edo Miro'ren margo eta marrazkiak, iñork aldatuko ba'litu ikastoletako umeen lanen antza dutelako, zer zarata aterako lutekeen batek baño geiagok! A bai, Kirikiño, ordea, ez da Picasso ezta Bizkaiera Batua re. Batua Picasso'ren neurrian dabil, eskubide guztiak berekin dituela; baita Bizkaierarenak ere.

Arazo onek, berez, ez luke orrenbesteko inportantzirik izanbear; baña, barruko gaitz baten azalpena danez, bai, badu garrantzia, eta ez txikia.

ARRINDA' TAR ANES' EK.

=>=> =>=> =>=>



KOPROGENAK

Orri Orixkak (X'ek)

Itz-aurre (X'ek)

Itz-aurrearen Ataria

Inglaterra'rako bidean gebiltzan 3.000 toneladako 'Cantabria' itxas-ontzi zaarrean. Itxasoko gaitzak artuta nebillen ta Derrota zeritzan gelatxoan neukan nere etzan-ogea. An nengoen etzanda jeikitzeke iñungo gogorik gabe. Txomin, berriz, barruko txo, nere kamarotera bueltaka ebillen, ni, kapitanaren seme koxkorra, ogetik jeinki-arazteko aitzaki billa:

– Jeiki adi, mutik, atuna atrapa dogu-ta.

Egia zan. Zimarroi ega-motz zatar aundi bat, kordelaren muturreko amuari trabatuta, lur-gaiñean odol-patsatan saltoka... Begiratu triste bat eman neuzon eta berriro lotara. Zutik egon ezin. Giro artako itxas-aize meeari ere eziñezko zitzaion ni esnatzea.

Ogeitamar minutu pasa orduko emen da berriro Barrika'n jaiotako Txomin, emezortzi urteko sukaldeko laguntzaille gaztea:

- Baña, zer dok, Anes?
- Etzanda joateko gogoa. Burua jaso ezin.
- Jaik zer-edo-zer.
- Ezin dot.
- Zer nai dok sukaldetik ekartzea?
- Jan ezin.
- Irakurri TBO onek.
- Geiago mariatenok...

Orduan mutil gazte jator a neretzako kontu-kontari asi zan:

– Bein, Bristol'en, lanak amaituta gero, berba-jario gendozan lagunarte gozo batean, barruan, aize-tximiñitik etorren preskuria artuten. Ustekabean, an goiko zuloan, ipurdi borobil bat agertu zan 'Mantequilla de Soria' esanez eta geure gaiñera kaka egiten. Kontramaixuak, an bertan eukon eskopetia artun, eta, 'Barbantzos de Busturia' erantzunaz, gatzezko tiroa sartun euzon iperdi-ko zulotik.

- Egia ba'zan, sartun dedilla kalabazan.
- Egia dok, txo.

– Ni enok txo; eu az txo.

Beste barik, al de egin eban Txomin'ek sukaldeko lanetara.

Bigaramonez, nik begiak iriki orduko, an neukan Txomin aldamenean:

– Jeiki, Anes, balea ikusten dok-eta.

– Ni atzo baño okerrago nago, Txomin.

– Jeiki, jeiki, balea ez dok edonoz ikusten-da.

Jeiki nintzan Txomin'eri gustoa emotearren eta danbalanka an joan nintzan balea ikustera. Baleak edo, zirkin egiten zuan, an oso urrutian, zeruak itxasoakin tope egiten dauen toki artan:

– A balea dok. Aundixa.

– Bai, e?

– Ez dok ikusten, ala?

– Bai, bai 'tu moro monein six o klok, etorten ba'nok, ikusiko nok', esanda ogeratu nintzan berriro.

Naaste-borrasteko izketa ori beronek erakutsi euztan Calais'eko portuaren geltokian. Gizon eldu bat egoen zai praka-motxetan, bernetako ille beltzak erakusten. Orrek ez gaitu gaur arritzen, baña 1.924'garren urtean bai apur bat. Txomin, bere erritik kanpora, ausarta zan, gerturatu eta esan eutzon:

– Bus etez zikliste?

Besteak, marmarka, inglesez erantzun zion. Txomin'ek, berak ere inglesa dominatzen ebala erakusteko, auxe erantzun eutzon:

– Tu moro monein six o klok (Biar goizeko seiretan), etorten ba'nok ikusiko nok.

Gure ingles praka-motza oraindik be ao-zabalik egongo da.

Ogean etzanda nengoan berriro. Zortzi arruako arri borobillak baña karga aundiago eukan neure buruak. Eguerdi-eguerdian amen da Txomin aragi-xerra erreka eta patata frejituak eskuetan dabezala:

– Jaik au, mariuaren kontrakoa dok-eta.

Zintzurretik, zamatik barrura, ezer pasa ezin. Txomin nere aurrean egoen kezkatu. Amalau urte nebazan eta berak emezortzi. Barruko gazteenak geu giñan eta ondo artzen genduan alkar. Bere nereganako kezka benetakoa zan:

– Eik indar.

– Ezin dot.

Ezer jateko gauza ez eta irakurtzeko ere ez. Bein-gañean zutik ibiltzeko eziña... Sukaldeko lanak amaitzean amen dator Txomin:

– Zer moduz?

– Txarto.

– Ori ez dok ezer. Ori pasaten dok eta pasako dok.

– Bai, bai; ala bearko.

– Eik parre apur bat eta entzun Bermio'n pasa zana: Udaletxeko atze-alde-tik, kartak botateko buzoi barrixa egin eben. Erriko idazkaria erdalduna zan eta onela esan eutzon Kanuto Atabal'eri: –Da un bando para que en adelante las

cartas las echen en el buzón que está detrás de la Alcaldia. Kanuto'k erdera gutxi ekien eta bandoa euskeraz emotia pentsa eban. Asi zan erriko kantoi guztietan:– Parranpanpanpan... Emendik aurrera kartak botako dozuez alkatiaren atzeko xulo-xulotik...

Barrerik egiten ez nebala ikusirik, ariari eldu eta arrapalada bizian ekin zion, etenik gabe, iturri-polpoi baten antzera, baña begi arrek ematen zuan ura ez zan batere garbia, orixka baizik, kaka koloreko eta usaiko... Or ziar dabiltzan iskirimiri eta txiste guztiak bota eustazan aurpegira. Eta nik, zirkiñik bez.

Nerekin ezin ebala ikusirik, alde egin eban eta an dator berriro eskuan kaka-koloreko liburuxka eskuan astintzen ebala:

– Tok eta parre egik; Barrika'ko abadeak emonikoa dok; ez pentsa...

Ez neukan irakurtzen asteko astirik eta gorde neban TBO'en artean. Ori ikusita, aurrez-aurre bere aurpegia nerearen parean, eta, asarre itxurak egiten, asi zan kantari:

Kaka zuretzako
Kaka neretzako
A ze gauza ederra dan
Mundu guzientzako.

Naiz izan aberatsa
Naiz izan pobria
A ze gauza ederra dan
Kaka egitia.

Kaka zuretzako
Kaka neretzako
A ze gauza ederra dan
Mundu guzientzako...

Jarraitu eban aurrera, baña ark amaitzerako, ni loak artuta nengoen. Alaz be, nere irudimena ez zegoen lo: Mendipe baten nengoen; zeruak ireki ziran euri-jasa neure buru-gañera botateko. Euriakin batera erreko urak azi zira-nean, or nun datorren neregana sugearen antzeko kakazko mostro aundia, eta irentsi ninduen. Mostro aren sabelean, kaka artean jira-bueltaka, erori nintzan kakaz betetako beko zulorarte. Belarriak, begiak, sudurra eta agoa kaka-berakoz gañezka nebazan; arnasa artzeko burua kaka artetik jaso nuenean, an aurrean zutunik neukan eriotzak bere sega pasa eustan zamatik. Arin sartun neban nere burua kaka artera...

Ittomenak emonda, esnatu nintzanean, biotza neukan saltoka bere lekutik urten naiean. Estutasun aren larriakin mariuak alde egin eustan. Jeiki nintzan arin-aringa Txomin'en billa joateko, baña oraindik illunabar zegoen, egun-sentiatien zai. Sukaldea utsik, itxas-ontzia geldi eta kapitana timoian.

- Aita, zer gertatzen da?
- Eldu gariela Cardif'era.
- Eta, zertan gaizto geldirik?
- Maria-goraren zai.
- Zergaitik biar dogu maria-gora.
- Bestela ez dagoelako portuan sartzerik.

- Ez dago urik portuan, ala?
- Ura ugari dago atzekatik; baña, portu onek maillak ditu eta portuan zear igo egin bear da eta lenengo maillan sartzeko, maria-gora bear dogu portuko atea ireki eta barrura sartzeko. Gure ostean atea itxiko dira.
- Zertarako atea itxi?
- Biarren maillako atea irikitzeko eta bi mailla onek berdintzen diranean, orduan pasako gera bigarren maillara.
- Eta, maillak or amaitzen dira?
- Mailla geiago ere badagoz eta gu gorago joango gara.

Piñuak eraman genduzen ontzia gañezka eta amabost egunez ekin zuten aiek legorreratzten. Goizeko zortziretan asten ziran jaso-gailluak lanean, piñuak barrutik legorrera ateratzen: kubiartakoak lenengo eta bodegakoak ondoren.

Zarata aregaz esnatzean, burua eteratzen nuen nere gelatxoko leio borobilletik, ango batetik besterako mogimendua ikusteko. Begiko makarrak kendu eta gosari txikia egitera: poteko esne lodi gozoa kafe ugariakin. A irentsi eta kubiartara, lanean ebiltzenak ikustera. Amar terdietan eten bat ematen eutzoen lanari gozaltzeko: arrautza pareta, aragi-xerra eta platanoak ondoren. Ez nebazan sekulan ikusi be... Jan ezin. Gauza memelagorik...! Kafea artun eta berriro be, barruko piñuak mollako trenbidera.

Lau terdietan amaitzen zan lan-biarra. Aurpegia garbitu, bizarra kendu eta bazkaltzera. Ondoren atsedena; libre egozanak, errira; baña, ez guztiak. Batzuek beti gelditzen dira barrutik irten barik... A zer atsegiña izaten zitzaidan, illunabarrean, kubiartagañeko txikote eta soka-bildumetan jarrita, kontu-kontari denbora-pasa egotea, denbora luze... Zeru-sapaia urdin-beltz, izarrak kiñuka nir-nir, erriko argiak ur-azalean dantzari, aize goxo meea baborretik... A zer egun zoragarriak an igaro nituenak!

Nere lagun Txomin kale-baserriko umea zan eta euskera jator baten jabe eta erri-eskolan, orduko eskola erdaldunean, erdera ikasia. Odolakin ikasia. Ez maixuaren odolakin, bearko lukeen bezala, bera zan umetxo euskaldunaren odolakin baño. Tarteka bota oi zituen alako 'castaña oscuro' batzuek. Ori gertatu zan gau batean, ixeka eta barrez asi ziran erdaldun batzuek:

- Badakizue zer egin deutzuet gaur? (Esan eutzen euskeraz) Neukan galzerdi zikiñeñean zuentzako kafia pasau eta biar be berdin egingo deutzuet.
- Habla cristiano.
- Cristiano más que tú, erantzun eutzen.
- Goazen, Txomin, emendik asarratu baño lenen.

Gaba artan umorea eta barruko pakea galdu genduen eta joan gintzan lotara. Bigaramonean, TBO'en artean neban kaka kolorezko liburutxua topatu eban nere ogea eiten joan zanean. Onela zion liburutxuak: COPROGENAS. Páginas Turbias, por X. con un prólogo de X. Precio UNA peseta. Inprenta de P. Hernández: San Sebastián. 1910. Liburua eskuetan zuela agertu zan neregana:

- Begiraik zer gauza bitxiak dakarren liburu onek.
- Goazen farol aren azpira eta karel gañean jarriko gara.
- Entzun Irakurleari zer diotzan egilleak:

Koprogenak

Koprogenak, e? Itzak arritzen? Griegorik estudiatu ez dozun seiñalea. Iztegiari begiratzen ba'diozu Kaka griegoz Kopros deritza. Koprogenak, Kakatik-sortuak dira. Orri orixka onek kakatik sortuak direnik ukatu ezin.

Bai, nere irakurle maite, biotzeko axukre koxkorra, garbiena baldin ba'zera be, kontuz, ez orri auek mespreziatu, itxas garbiaren apar zuritik (Venus beza-la) sortu ez direlako.

Jaso tapakia, sartu bildurrik gabe sudurrak eta usañetik nolako amak mundura ekarri dabezan asmatzen ba'dezu be, ez ikaratu, segi aurrera eta txastatu, txastatu bildurrik gabe orri orixka auetan gordetzen dana, eta, literatura aldetik, bereala ezagutuko dozu orri onen egillea ez dala txarri-urde edo zimauregiko euli bat, kaka ez duelako kaka-utsagaitik erabiltzen.

– Zer iruditu zak, Anes?

– Mutil, nik kaka egitea zer dan badakit eta askotan larri ibiltzen naizela kaka egiteko ere bai; baña, ortik gorakoak...

– Entzun eik ondorengo au.

II

Kaka artearen alde

Izenburu onek esan nai dau, literatur lanetan atsegin utsa billa bear dala, beste ondoriorik gabe. Eta, ori ala ba'da, nun beteko dozu zure asmoa Orri Orixka auetan baño obeto?

Jantziari begiratzen ba'diozu, zer bertso eder borobil belarriaren gozo! Zer errestasun-jario apalki bakoitzean! Zer izkera jator ederra!

Utikan, alde, ori entzun da gero, muturra okertzen dabezen orrek, onela esanaz: Umeentzako jostalluak, populuarentzako susko-erroberak, mami-gabeko azal utsak! Modernismotik pasiak dozak: Burutasunetan illunak, jazkeran narrasak, izkuntzaren ederrari iperdia emoten dautzoenak.

Eurok lauko bertso bat ondo egiteko kapaz ba'lira, egindo leuzkie; baña, ortarako be ez dira. Pavo-realaren antzekoak dozak eta olletegiko esia gaindu ezin dutelako, goietan dabillen arranoari, txistua botatzen dautzoe. Arlote utsak. Alkarri intzentsua emoten konsolatzen dira, onela eanaz: Zein ederrak geran!

Baña, gogoan izan nik erabiltzen dodan gaia ez dala marmol zuri garbia, kaka bigun zikiña baizik, zeuek urrundik makilla bategaz be artuko ez zendukiena.

– Eta, au, Anes?

– Euk Artea mendiko arbola besterik zer dan ba'dakik, Txomin?

– Gure eskola-maixua Castilla-Mancha'koa zan eta egunero egunero irakurtzen euzkun D. Quijote de la Mancha.

– Izen ori neuk be entzunda daukot.

– Nundik?

– Zornotza'tik. Ispetore erdaldun bat etorri zan eskolara eta Errotako Pello'ri onela galdetu eutzon: –Quién escribió el Quijote? –Nik ez, jauna. Eta, maixuak ispetoreari: –Sinistu egiozu, Jauna, Pello'k ez dau gezurrik esaten. Alde egin dau asarre ispetoreak eta burni-bideko geltokira eldu danean, bertako jefeari esan deuzo gertatutakoa eta onek erantzun: –Jauna, maixuak ala esan ba'dau, ala izango da.

– Eta, euk zer diñok?

– Ez ebala Pello'k egingo.

– Ez neban usten ain tontoa ziñanik.

– Txotxo, ni kapitanaren semea nok eta eu sukaldeko txo.

Bidaldu neban Txomin pikutara eta txakurraren salara eta alde egin nion, lo-gale nengoen-da.

Bigaramonean zai-zai nengoen illunabarreko solas-aldia berritzeko. Amorrua emoten euztan txo baserritar arlote arek neuk baño geiago jakiteak. Barruan mariñel guztiekin nebazan ar-emonak eta guztiek onartzen ninduen, bear ba'da kapitanaren semea nintzelako edo, baña, nere benetako laguna Txomin zan.

– Txomin, zer dakartzu gaur?

– Atzoko leloa, irugarren Itzaurreko zatia. Interesgarria dok: Kaka eta morala.

– Ez dautzut sinisten. Morala zer dan badakik ala? Joanari bide motxetik, luzatu gabe.

III

Morala eta Kaka

Ondoren datozen bertsoetan konseillu zoragarriak daude gorderik, naiz-eta kakatan bilduta etorri, eta uskar-usaiñez gozoturik. Guztiak beteko ba'lira mundu zoragarri bat sortuko litzake gure errian pake eta zorionez betea. Artea eta Morala, biak alkartuko lirazke kakatan.

– Zer deritxok?

– Asiari lenbailen bertso oiekin.

– Itzaurreari besterik begiratu barik?

– Orain, zer dator?

– Kakaren filosofia.

– Euk ulertzen dok?

– Platon, Aristoteles, Quevedo eta abar datoz amen...

– Orduan, pasaik aurrera. Ostean?

– Kakaren historia literarioa.

– Eta, ori zer dok?

– Elertia egiten dabenen kakarekiko ar-emonak, bai Grezia'n eta bai Erroma'n be.

– Zer ar-emon?

– Kaka eta puzkerrak bizi osoan laguntzen digutela jaiotzetik illerarte munduko baztar guztietan.

– Ori esateko naikoa dok 'Kaka zuretzako / Kaka neretzako...' euskal abesti zaarra.

- Gaur eguneko kaka literarioa ez dik aitatu nai?
- Zergaitik ez?
- Oraindik eze eta fresko dagoenez, atsa dariolako; sikatu ondoren agurtu-ko dau. Eta orregaz amaitzen dozak sarrera guztiak.
- Bazan ordua! Eta, nor da liburuxka onen egillea?
- X baten azpian jesuita bat izkutatzen dala esaten dabe eta donostiarra zala, onela esaten bait du bertso batsuetan:

"Musa del Urumea
En tí me meo
Musa del Urumea
En tí me cago".

Bi X daude liburuan, baña izan liteke egillea bakarra izatea, onela dio-ta ltzaurrearen aizkeneko lerroetan:

"Y no digo más, porque corro peligro de descubrirme a mí mismo... ya que el autor de 'Páginas Turbias' y yo somos casi, casi la misma cosa. Y al buen entendedor..."

Eta, besterik gabe, asiko gara "Orri Orixka"kin.

1

Zartatzen du Torkuato'k bere andrea
apurtu duelako platera
orrelako juez zuzenak ordea
eraneun goizean
apurtu zitun lau dozena.

*

Arrazoi du Platon'ek esatean
guztiok ditugula
ipurdiko zuloan illeak.
Ikusi ezin, arranea.
Ori egiten dute besteak.

2

Don Serbando kexaz ebillen gaixoa
kaka zuelako berakoa.
Kexaz ebillen Don Arturo elkorra
kaka zuelako gogorra.

*

Bere suertearekin
egokitu ezin
ez Pello eta ez Joakin.

Goizetik ebillen Rufo jauna jolasean
 larrosa gorrien artean.
 Kaka-larriak emandio bat-batean.
 Kendu prakak eta ipurdia aidean
 larrosak utzi ditu kaketan
 atzeko begiaren koloretan.

*

Esaerak dionez gauzak ikusten dira
 ikusmira dagozen begien neurrira.

Don Felix Tronbon zan asto puxantak
 eta ontzia puska ziolako neskame xarmantak
 eman zion ipurdian alako ostiko galanta.
 Neskameak miñez eta tatarrez
 sudurrak bete zizikion puzkarrez.

*

Gutxien usten dunak
 artzen du erantzuna
 berak merezi duna.

Balbino gizarajoak
 esteak zitun elkorrak.
 Esteak mogitzeko asmotan
 mogimenturik izando ba'zan
 rizino-olioa artu zuan
 eltzekara betea.
 Orrenbestez
 mogitzen zitzaion estea.
 Komunera egunero-egunero
 zoazten kristau zorioneko
 izan eiozute erruki
 jan bear eta kaka ezin
 dabillenari.

...

Goizetik ebillen Rufo jauna jolasean
 larrosa gorrien artean.
 Kaka-larriak emandio bat-batean.
 Kendu prakak eta ipurdia aidean
 larrosak utzi ditu kaketan
 atzeko begiaren koloretan.

*

Esaerak dionez gauzak ikusten dira
 ikusmira dagozen begien neurrira.

Don Felix Tronbon zan asto puxantak
 eta ontzia puska ziolako neskame xarmantak
 eman zion ipurdian alako ostiko galanta.
 Neskameak miñez eta tatarrez
 sudurrak bete zizikion puzkarrez.

*

Gutxien usten dunak
 artzen du erantzuna
 berak merezi duna.

Balbino gizarajoak
 esteak zitun elkorrak.
 Esteak mogitzeko asmotan
 mogimenturik izando ba'zan
 rizino-olioa artu zuan
 eltzekara betea.
 Orrenbestez
 mogitzen zitzaion estea.
 Komunera egunero-egunero
 zoazten kristau zorioneko
 izan eiozute erruki
 jan bear eta kaka ezin
 dabillenari.

...

Gizarteko zan Don Balbino
gizaseme dotorea
eguerdian goiz ondiño
agertu zan gizartera
purua ezpañetan tente-potente
goizeko purgarik gogoratzeke.

...

Emakume ederrez inguraturik
guztiak zorabiatzen zituan
bere ao-jario gozoakin...
Baña unerik ederrenean
este danak zarataka
gutxien uste zuenean
tatari-tatarika
asi zan puzkarka
bat eta bi eta iru eta lau...
Eten ezin turuta otsa.
Geratu zan Don Balbino
gorri-gorri larrosa
gorriena baño gorrigo.
Otsa ez zan ezer
otsaren ondoren
zetorren zetorrena.
Aizkenean plasta
irten eutzon kakak.
Ikusten ez zan baña
sudurretan usaña...

...

Ondorioa badu gertaerak;
purga eta konzientzia arazoetan
jartzen ba'zera arriskuan
kaka praketan.

6

Desiderio jaun zuurak
poltxa du naiko ximurra.
Ipurdia garbitzeko
kastu aundia dalako
ez du paperik ibilliko.
Ez zaijo kakik paltako
galtza eta alkandoretan
txaboi eta lixubetan
joango zaizkio joango

aurreratutako guztiak
paperetan.

*

Ona erakutsi garbia
merkea beti da galestia.

7

Rekaredo degu gazte lerdena
ta oiña zapaldu diote kalean
oso asarre desapio egin dio
aizken odoletaraiñoiko desapio
bere oiñen zapaltzalleari.
Kale egin du Rekaredo'k pistolakin
bildurraren bildurrez
prakak zikindurik kakez.
Lagun-arteana bere burua zuriturik
onela dio: Kale egin dut bai
baña badakizute zergaitik?
Tiroak urten dit kulatatik.

*

Konzientzia ta oorea garbitzeko
alkar iltzen zabiltzatenok,
Zer irabasten dezute orregaz?
Konzientzia sumintzea kargaz
eta prakak zikintzea kakaz.

8

Jaun Benantxio iritxi zan presaka
komun zikin illun batera
oiña sartu zuen zulo zikin artan
andik anka ateratzean ordea
bernetatik dariola ugari kaka.

*

Zure arazoak kontuz aurrera eraman
ankak sartu nai ez ba'dituzu kakatan.

9

Pello'k Elbira'ri maitez ekiola
zabelean sortu zitzaion burruka.

Eutsi nai zion aizeari, baña nola?
Aizkinerako irtzen zitzaion putza.
Larrosa bezin gorri onela diotza:
Elbira, zure maitez larri dut biotza.
Elbira aingerutxo,
jo dezu benetakoa
gezur-suspirioa.

*

Orain arte, maitasun,
egin zaitue itsu.
Emendik aurrera, ordea,
gorra ta sudur gabea.

10

Astirik ezertarako emateke
Don Amos gertatu zan osorik
kaka-berakotan larritasunik
aundienean esteak bete.
Komunako portura eldu da baña
estutasun aretan botoirik
askatu eziñik presaka
kaka guztiak praketara.

*

Ames ederrenetako gure batela
sarri ondoratzen kai-barrenean.

11

-Induaba babarruna
indiarra baba beltza
nere amamaren ezpañetan
trumoiaren oiartzuna
arloteen orfei onena,
bete bai nere sakela
esperantzík ez duna
ikusteko bej-okela!
Egunero Don Pako agurketan
babarrun-pertzaren aurrean.
Ain zitun gustokoak
ekaitza sortzean eta
eguraldi txarretan
iru errosario osoak
errezatzen oi zitun

56

indiar eta babarrun
ez zitezen galdu
udamilletan.
Jai egunetako jakiña zan sakea
bi babarrun imi bete beteak.
Igande artan ordea
ibillalditxoa ematera
irten zuenean
berakoak eraginda bat-batean
ixilpetako lanean
lau soro zimaurtu zitun.
A zer barruko pakea!
Esteak legortzeko larri-aldiari
amaia eman nairik
artarako zeuden emaitza osoak
erabilli zitun gau aretan.
Dana alperrik, orduan zer egin?
Ipur-zuloari kortxo bat epiñi.
Baña, zas
kaken presioaz
kortxoa
aidean dijoa
eta kaketan plast
gizarajoa!

*

Diru-gosea ase eziñik
zabiltzatenok
orra or nun dezuten
giza-tentelok
Don Pako'ren atzeko
begi-itsuan
zuen etorkizunaren
ispillua.

12

Barruko estearen griñak
puzkarrez lasaitu naiez
prakak zikindu zitun kakez
Moktezumak.
Napoleon'ek egoera berean
kakaz bete zitun bere galtzak
Napoleon izan barik ere
makiñatxo batek
zikindu ditu bere prakak.

*

57

Gríña okerrari sokarik ez luzatu
putzetan asia kakatan bukatu
nai ez ba'dezu.

13

Eserita ondarretan
Epaminondas zegoan
itxas baztarrean
aidean zangoak
uiñekin jolasean.
Zapatarik buzti nai ez
t'ipurdia zion jartzen
olatuari pozetan
bein eta birritan
amar milla bidez.
Zapatak legor, baña,
mando aundiak,
beratzen ipurdia.
Aizkenerako, jakiña,
jokabidearen ordaña,
almorranak ederrak
begi itsutik ikusten
zeruetako izarrak.

*

Arrezkeroz edo
esan zaarrak dirau:
Ipurdia gorde
zapataren orde.
Eta bestela au:
bi gaitzaen artetik
txikia aukeratzea komeni.

14

Don Tomas tripazai arloteak
eltzekara gaztaña irentsi zitun
gau batean.
Euskal gaztañak, ordea,
barnean dute aizea.
Gaua pasa zun
gizarakoak puzkarka
tiro eta pun
orixkatuz izarak.

*

58

Onela zion damuz:
Egin duzu pekatu
ta ondoren dator
merezitako zigor.
Erein dituzu aizeak?
Sortu zaizu tenpestadea.

15

Don Bixente aurpegi-ximur
ta gogorra ezur
gaztearoan
kaka nolatan
egiten zun
gogoratuz
pulsoan asi zan
ipintzen arrautza
baña
indarren paltaz
kakatan plasta.

*

Ala diote esaera zaarrak:
garai-aro bakoitzak
baditu bere lan bereziak
eta bere ekintzak.

16

Joan ausartak eskatzen du biziki
puzkarrak botatzeko eskubidea.
Pellok ordea
ondorioa du atera orti:
puzkarrak bezela
kaka ere botatzeko libertadea.
Joan'ek ori ukatu diolako
zu kangreju reazionario zera
bota dio aurpegira
ipurdi-gaietan kaka
puzkarren ondorioa da-ta.

*

Olatu-aparraren
mutur-muturreko
gizaseme prestuak
pentsamentu guzientzako

59

eskatzen dezute
libertadea
eta era berean ukatzen
indarkeriaren eskubidea.
Baietz puzkarra
t'ukatu kaka?

17

Baldomero'k bere puzkarrak
bota oi zitun zarataka
ta urdetzat zeukaten danak.
Don Bernardino'k puzkarrak
bota oi zitun ixillak
orregaitik zan danentzat
giza-seme oso fiña.

*

Arrazoi Filosofo sakonak:
Mundura zoaz mundura
garrantzirik aundiena
itxurak, motel, itxurak.

18

Laterriak sortu aurretikoa da
komunera orok joan bearra
sabelak bere larri-aldian
eskatzen duen erara.
Mundu guztietako izakiak
ematen du bere abixoa
konzientzi-barrenean
tripeesteetan bezela
garbi gode dezagun anima
eta diz-diz alkondara.
Orrelako abixoari
begiak itxitzea
ez da ausarta izatea
zuergabea baizik.
Puzkartxo aul batengatik
komunera korrika joateak
badu bere akatsik,
botako dezu aizea
susko bolanderak eta
aizetxo meeak
kakarik ez ordea
ez bait dago labea beti

60

ogia egozteko beroki.
Don Matias dezu orrelakoxea
gizonik fiñetan fiñena.
Amar alditan gutxienez
jeiko zaizu gauero komunerako
ipur-zuloan aizeak agertzerako.
Baña estu -ta-larri izarditan
indar guziak egin arren
kakik ez da iñundik agertzen.

*

Geiegizkoak dituzu txarrak
kakatan txirristen da ausarta
bildurtia ikaratzen du puzkarrak
maiz gertatzen oi dana:
txikiak intxaurrak
aundiak zaratak.

19

Gizon ospetsuari gerta oi zaion bezela
joan zitzagun Don Klemente komunera.
Erditze ona espero zuelarik
onela ekin zion kanta-kantari:

“Naiz izan aberatsa
naiz izan pobria
a zer gauza ederra dan
kaka egitia...”

Baña ez alperrik.
Traba zan mokordoa
aundi lodi elkorra
ez aurrera ta ez atzera
zulotik irten ezin
labatiba guztiak alperrik.

*

Badegu esaera zaarrik:
Sustantziko arazoetan
ari fiña goruetan.

20

Bonbarda koronela
bere ustez da

61

ondoko ikutze eta zirrara. Atzerrian, Beñatek oiñak ipiñi orduko, bere burua barkarti eta bildurri sumatzen du. Errudun gizartean. Eusko-biltokiak ezagun arren, bera baztar zalea da. Ixilkorra, apartekoia. Anemengo albisterik ere usma egin bear ditu, zerbaiten jabe izate-arren. Ezagutzen zutenok, aorik ez zuala irikiko bazekiten. I Gandetako pestak, zapatuetako gaupasak, eusko billerak; utsezko jaitzat bai-zeuzkan berak. An biotzean, arazo aundi bateren pixua? Benbenetan misterioz jositako gizona? Etxezuloan beti, bere Edurnekin beti? Bekoki illun, itz bakan, irri-girorik ez? Gaixoaldi luze artan ere, iñor gutxi gixitaz, eta minbiziak suntsi zuenean ere ezagunen dolu-agur urri eta aldenduak.

Eleberriak, irakurla ikusgura ukipena ernetzen ditu. Peru, mutill egiña, aita Beñat ilda gero, aberastasun aundien jabe egiten da. Ezkontzako aukerarik izan ditu, oso egokiak ere bai. Elisabet, begiko eta oso ona. Alare, neska onen joera eta zaletasunak beste bidetik dijoazte, gizaldiaren aldeko jarduna, au da, beartsuen eta gabezikoen arteko ekintza, on-egitea.

Peruk, ordea, ariari elduta, beste eginkizun garrantzitsu bateri dagokio arduraz eta arretaz eskuartean artzea. Au da, Auritzera el, eta ordainketak gauzatzeta. Une ontan eleberria goi-maillako erantzunkizunez jazten da. Egia da, bai, ilketak eta lapurretak, diru-zalekeriz sortutako okerrak izan zirala. Kontrabandoko ibillera triste batean, bide illunean, gauzatuak. Ondorioz igesia izan zutenak, Ameriketara izkuta bearra. Orain eun urte, bizilegeak zorrotzak ziran, desberdiñak gaurko aldean. Fedea sakonago, pekatua pisuago, bildurra samiñago. Oso bestelakoa, orduko ingurumaria.

Albisu jaunak une onetan gora aundiko zer-ikusia erasten dio eleberriari. Peruk, bada, itxas-ontzian sartu Atlantik-ur aundi eta ugariak igaro bear illabete inguru, eta noizbatean Euskalerrira el, erail zuten familikoen aztarrenen billa. Azkenengoz Igone neska, ildakoen alaba bakarra. Igone, neskame dago, Donostin.

Igone neska ederra da benetan. Urtetan Peruren kidekoa da. Pakeak egiteko Auritz'ko apezak moja-etxean eratzen du billera. Peruk, belauniko aita zanak egindako oker aundia aitortzen du: ilketa, lapurreta, izenen trukea, Ameriketara igesia, an berrogei urte inguruko bizikera tristea, eriotza... Denak, negarrez entzuten dute aitortza... Peru, apaiza, Igone... antxen daude saminki, doluz, kupiberaz, negarretan blai... Alkar barka, besarkadak, laztanak... Egon-tokiz aldatu, Peruren "kotxe" ederrean, Donosti eta zenbait lekoko miresgarriak, baztar ikusgarriak, zoragarriak azter txundituz, eguna igarotzen dute. Peruk eta Igone, oso lagunak egin dira, alkarrekin itz-jardun luzeak... Azkenean maite-mintzeraño... Apaizak ere amets "xelebre" bat egin du, bi gazteok ezkonduz... Igoneren ama-ilibian, Peruk lore-xorta eskeini du... Perun erreguz, Igone eta Apaiza antola dira Ameriketara joateko eran... Azkenengoz berri aundi-aundi onen aldarriketa: Peru eta Igone eskontzera dijoaztela Ameriketara.

Alaxe gerta ere. Pozkarioz jositako ospakuntza egiztatzen da. Peru eta Igone, alkartuta, señar-emazte.

Eliz-jaietan, Elisabet "ama bitxi" izan da, pozik gaiñera. Igonek, Peruren il-obi-rako lore xorta eder bat eramane du, egun gogoangarri artan.

Azkenengoz, esatekoa da Albizu jaunak eleberri au idaztean, Goierriko eta Urolaldeko euskalkiak "bat egiten" asmatu duala, ederki asko. Lazkaon jai. Azkoitin bizi. Pentsalariak, araudia jarri zuten; "biotzak" ere badu bere araudia, euskalkiena. Eleberrian, batera datoz: bebarrua eta ezkaratzea, xestra eta burrukea, neska eta neskea, eta abar, adibidez.

JOXE A. GARATE

KRISTAU BAINO LEEN EUSKALDUN

S. Insausti jaunak irakurri zun nere Kardaberaz Bazkuna'ri buruzko lantxoak. Eskerrik asko, poza ematen bait digu iñork irakurtzen gaituanean. Eskerrak ere zure Euskera ta Kristautasuna idaztitan nere lana zirikatzen dezulako. Orrela aukera ematen didazu orduan esanak zertxo bat geiago argitzeko.

"Agustin Kardaberaz aitaren itzak irakurri ondore, norbaitek pentsa lezake Jaungoinkoa euskararen alde bere al-izate guztia jartzeko beartua dagoala... Bañan Kardaberaz'ek esan zituanak osorik aitatu bear dira edo ta bestela ixildu. "Oiek dira zure lenengoko itzak".

Lagunarte edo bazkun baten ikurriña jartzeko itz guztiak luzetxoak lirazke. Gazte giñan Kardaberaz Bazkuna ezagutu genduan. Gazte, euskaldun eta apaizgai. Eta "Euskerak burua jasotzea Jainkoak nai du" irakurri genduan Bazkunaren ate-buru, ikurriñ edo presentazio bezela, alako zarrada egin zigun biotzak eta Euskeraren alde lan egiteko griña suspertu zigun apaizgai giñelako, batez ere... Animaren ona aurretik nai gendun.

Ez gendun sekula pentsatu ori Jainkoaren zeregiña zanik, gurea baizik. Orregatik sartu giñan Bazkunean, gure lana zalako Euskerari laguntzea eta orretara Jainkoaren naia bete. Ez genduan sekula burura ekarri ori Jainkoak egingo zunik guk bitartean eskuak tolestuta eserita gelditu bagiña...

Euskalerriaren kristautasunaren ona nai gendun, orregaitik ondo iruditu zitzaigun **gauza orretan** gure eredu aita Kardaberaz artea.

Baiña orrek ez du esan nai gu orain berreun urteko pentsakera guziak (Aita Kardaberazena) artzera beartuak gaudenik...

Bandera eta ikurri bezela, apaizon bazkun baterako batez ere, "Euskerak burua jasotzea Jainkoak nai du" iruditzen zait zoragarri. Ortik ondorengo luzeak ateratzen ibilli gabe.

"Bukatzeo galdera bat: Zer diozute, aita Kardaberaz'ek nik marratu ditudan itz oiek, ala kristau baiño len euskaldunak gerala'esango al luke?" Idazten dezu. Marra-tutako itzak auek dira Mendizabal jaunarenak: "Por Dios no alborote tanto y d'jenos vivir con nuestros barbarismos de lengua, porque antes que bascongados somos catolicos".

"D'jenos vivir con nuestros barbarismos de lengua" ori beintzat ez zuan aita Kardaberaz'ek esango: kristau-dotriña obeto zabaltzeko euskeraz ikasten jardun zuan eta besteari erakusten, eta ez zan barbarismoekin pakean bizi-tzen gelditu... Lanari ekin zion, Euskera ikasteari, Mendizabal jaunak bear zuena.

Kristau baiño len euskaldun gerala" nere itzak dira. Kardaberaz'ek zer esango lukean itz oien orde...? Ez naiz sekula artara jarri. Jartzeko asmorik ere.

Da ala ez da?

Ona emen korapilloa.

"Porque antes que bascongados somos catolicos" ala "kristau baiño len gera euskaldun"? Korapilloak beti izaten ditu bi ari-punta. Nundik eltzen diozun, ortan dago auziaren erabakitzea.

Kristau leenago? Asmoan bai ("primum in intentione"); izatean ez, aizkena baizik ("ultimum in executione")... Kardaberaz'ek euskerea ikasi zuan kristauak egiteko.

Euskaldun ama baten semea naiz eta jaiotzetik esan nezake naizela "euskaldun'kantak dionez":

Euskaldun jaio nintzan

euskaldun naz azi,

euskera maita zidan

amak erakutsi...

Geroztik egin ninduen kristau bataioaren bidez.

Orra **leenengo** euskaldun ta **gero** kristau.

Bildur al zera erlijiorik nai ez duten euskaldunei arrazoi emango ote diedan "Kristau baiño len euskaldun gerala" esatean? Ez da ori nere iritzia. Beste aldetik, berriz, esaera ori oso zaarra da gure artean: Gazteiz'ko Seminarioan gerra aurretik aitu nuan lendabiziko aldiz konfesionalismorik nai ez zuten euskotarren aoetan... Eta nik argitu bezela egia da euskal gerala kristau baiño len: "bascos antes que cristianos"...

Ori ukatzea ez da gure oienganako erantzuna, nere ustez, beste au baizik: "euskaldun baiño len gera gizon" eta gizaki geranez Jainkoarekin artu-emanak bearrezko... Jainkoarekiko gure zerikusiak ortik sortzen dira leendabizi... Gero gerokoak.

Gaizki esanak barkatu.

KRISTAUTASUNA ETA EUSKALERRIA

Zer da mitoa?

Izanik gabeko esanak. Izana ta esana ez dira biak bat izaten berez eta nai ta nai ez...

Kristautasunak ondatu du Euskalerraren jator-tasuna.

Orra topiko ta mito berri bat.

Egia dan ala ez, ajolik ez guri. Esatea naikoa da sinisteko. Bai, Urliak esan omen du; Berendiak idatzi omen du... ta naiko degu, beste gabe, sinis-teko...

tautasuna erakutsi zigun euskaldunoi indar oiek ez zirela jainko; berezko indar batzuek baizik: beuren legeetan zebiltzen indarrak... Ta oien gaiñetik ze-goela beste Izaki bat, ziren guzien iturburu ta oi-ñarri... Egi orretatik sortu ziran jakintza guziak: munduko indarren legeak aztertzeke atea iriki zitun kristautasunak Euskalerrietan...

Alaz ere, ez zituen oitura zaarrak erabat galdu; badeinkatu zituen kendu gabe ta or eldu dira gure-garaiño Kristautasunaren tolesteetan...

**~

Euskalerraren jatortasuna zer da?

Gure aurrekoak leize-zuloetan bizi ziran: eizta-riak ziren... Marrazkiak egiten zituzten koba-illun-beetan... Sorginkeri edo aztikerietan ibiltzen omen ziran... Orain amar milla urte.

Geroago Europara Indaoeuropeok sartu zira-nean, aietatik zenbait oitura ta pentsakera artu omen zituzten... Beti izan ditu artu-emanak Euska-lerriak bere ingumariko erriekin. Animismotik ge-biltzan garai auetan, aztikeririk galtzeke.

Zortzi milla urte pasako ziran bitartean, erroma-tarrak guregana eldu ziraneako: kipula, porru, sar-tagi, tolar, ari, arto... Izen oiek aiekin batean edo etorriak ditugu... Zenbait siniskeri ta oitura ere bai, itzekin batera... Illeta oiturretan ta abar...

Kristautasuna etorri zitzaigun ondoren. Eta onek ekarri zigun aldaketa aundia pentsa-moldee-tan, batez ere. Ordurarte aztikeria ta animismoa ziran buruen jaun da jabe. Izenak badu izanakin berezko lokarri bat eta izena menperatzen badet, izana ere menperatuko det (zion Aztikeri edo Sor-ginkeriak)... Kristautasunak erakutsi zigun euskal-dunoi ez dala naikoa izena edo gauzen irudia men-peratzea, izen eta irudi oien izana (errealitatea) menperatzeko... Ta ori egi galanta da.

Animismoak, berriz, munduko indar guziei anima bat esartzen zien barnean: eguzki, illargi, ibai, mendi, baso, oian, odei, itsaso, oñezkar, ortzi, iturri... Ortik sortu ziren jainko txiki asko... Kris-

Egizak on eta oker-bideetik alde, zion euskal-dunen biotzak. Bazituen Mari'ren agindu batsuek ere... Oiek denak Kristautasunak, argi geiagokin eta xeetasun aundiagokin, erakutsi zien euskaldu-nari: maitasunaren agindua, amar mandamentue-tan argitzen dena... Kristautasunaren okerrik aun-diena euskalduna gizon jator biurtzea izan da. "Buskaldun fededun" egia izan dan arte, euskaldu-nak predikamentu aundia izan du mundu zabalean. Euskaldun izatea naikoa zan Ameriketean gizona onartua izateko: dokumenturik ederrena, euskal-izena... Izenakin bazan izana ere... Berez...? Ala Kristautasunaren egitez...? Dana dala, euskaldun aiek fededunak ziren. Fedeak eragiten bai dio gi-zonari jator jokatzan.

Fedea galdu ala, ari gera jatortasuna ta izen ona galtzen.

ANES 1972



Gizarte gaietan betiko leloa

KUKUA ETA TXANTXANGORRIA

Bere umeentzako kabia egiten zoraturik zebillen Txantxangorria, batetik bestera txotxa-biltzen. Udaberria atezoka zegon eta ibilli egin bear kabirik egingo bazan. Lenengo ta bat, lekua aukeratu. Gero, txotx lodikoteak eutsigarri bezela, kanpotik; belar-izpiak bigungarri, barrutik...

Zenbat joan-etorri, zenbat neke!

Noizbaiten, orratio, kabia eratuta zegoan. Ondoren, lanik miñena eta neketsuena zetorren: arrautzatxoak ipiñi. Txorien kabietan arrautzatxoak sekulan ikusi al dituzu? Gauza politagorik...! Pinportadun margo-kolore guzietakoak dituzu.

Lau arrautzatxo jarri zitun maiteki bere kabian gure Txantxanek. Lau arrautzatxo zoragarri. Bere erraietatik sortuak laurak. Epel-epelak. Lan arekin gaixo ere jarri ziztaigun gure txori panpoxa, sukarretan bero. Bero artan gorde bear bere erraietako frutua...

Bitartean, kuku maltzurra zugaitzetik zugaitzera egaka lasai. Berak ere Udaberriaren irrintziari erantzun nai lioke, baiña neke askorik gabe. Zertarako? Tontoren bat billatuko dut baso-baltzaren batean...

Txantxangorri egarri da, egoi-aizeak irten bait du goizetik. Iturria, berriz, an beeko zokonean dago. Arbolaren puntan, kukua zai. Txantxan galdu danean ur-billa, kabi-ko lau arrautzatxoan erdian jarri du berea, aundia eta mardula. Agur esanda, ba-doa.

Txantxan kabira eldu danean, ama-rniñak bero-bero eginda egon arren, ziria sartu diotela konturatu da, maltzurkeriz sartutako arrautza berria. Epela ura ere. Zer egiñ? Ama-miñak beste griña guziak zapaldu ditu eta onartu du bere kabian...

Egunak pasa dira, arrautzak erdibi dira eta ondoren, bost ao zabal-zabalik agertu. Lau txikien erdian ao zabal aundi bat. Beronek bakarrik ematen dio beste lau txikiak baiño lan geiago.

Jan da jan, bostak azi dira; baiña, danentzako kabian tokirik ez, bosten artean bat oso aundia bait da. Aitaren maltzurkeria semearengan agertzen da: ego-bizkarrakin bultzaka bota ditu beste guztiak kabitik kanpora, kuku-kumea gelditu da iñoren kabian jaun da jabe...

Amaika orrelako...!

ARRINDA'TAR ANES (1972)

IFUIN-SARIKETA

(BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN)

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k, urte guztietan lez aurten be. ipuin-sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

Ipuiñak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bear ko dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINTZA'k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.

Ipuiñak asmatuako edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.

Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER'en argitaratuko dira. Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.

Azillaren azkenerako EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren etxean (Bilbao'ko Colon de Larreategi, 14, 2^a eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta ZER'en agertuko da, Urterillean, baita DEIA Egunkarian be al bait lasterren. Sariak lau izango dira:

1^a 40.000 pezeta

2^a 30.000 pezeta

3^a 20.000 pezeta

4^a 10.000 pezeta

Ipuiñak izen-ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.

EUSKERAZALEAK

KURUTZE-BIDEA

Kurutzetik bizira

Euskalerria "beltzak eta txuriak" ikusita zegoen; zapaldua, zanpatua, larrutua, bere aragi-zatiak munduan zear sakanatuak...

Gurutz-bide latza.

Baiña 25 urte-buruan gizaldi gazte berri bat zijoen sendotzen biziari begira. Eriotzak ez du azken-itza.

Ostiral Santua ez da azken elmuga.

Per crucem ad lucem: gurutzetik argira. Berria ere, Pazko-egunak. Berriz ere Piztuera-egunak...

"Jaunak egin zitun Zeruak eta Luna. Lurra zegoen utsik eta ergel... Et Spiritus Dei ferebatur super aquas: eta Jaunaren Atsa, Jaunaren Espiritua, ur-gaiñetik zijoen...". Urak kokatzen zitun, ollalokak arrautzak kokatzen dituen antze-
ra...

Eta Bizia leertu zan Izaki osoaren gaiñean.

Eriotzak bere garaipena okerraren bidetik lortu zuen: Maitasunak, ordea, Biziazen aide jokatzen du beti eta batez ere Gurutz-enborrean; antxe garaitu du Eriotza bein-betiko.

Gizakia gurutz-bidean joan arren, ez du itxaropenik galdu. Biziak Eriotza menperatu bait du. Bizirako gera Jesusen maitasunari esker. Inun maitasunik agertu ba'digu, Gurutz-bidean ere bai.

Orra Gurutz-bidearen azken arrazoia.

Anes (1964)

1. ² Egotaldia	begiak, aurpegian errukia. Zuena da. Eraman iltzera. Kendu, kendu. Gurutzeraz, bere bearrrik ez degu. Betor bere odola gure burn gaiñera. ***	indarge aizelako txiroa aizelako txikia aizelako... Zuzenbidea ori dok. Indarraren zuzenbidea errugabeko zuzenbidea zuzenbide bakarria indarra. Mundu onetan besterik ez da. Bestean oberik izanzen al da Gizonaren semeak bere gurutza eraman ondoren. Amen	Zeru-lurrean artean osin beltz pekatuaren esi-gabeko indarrez. Bitarteko zubia gurutz ankerra lapur eraille gaizto guzientzako zigortzaille. Jesusen lepo gaiñean gizonen pekatuak. Bera pekatarien artean pekatariena. Zatozkit, gurutzea, amesgarririk onena betiraun guzitik bioz-muiñean gordea...	III "Lurrera erortzen da Jesus nekatirik altxatzen laguntzeko ez da errukirik". *** "Aun-era". Jendetzaren artean, ibai arrotua iduri, Jesusen gurutza Kalbario bidean. Lepotik sokamuturra, animalien antzera, balantzaka, jo du lurra. Zer diozu, Jauna? Lurrean zaude ta arpegia autsetan, gurutz astuna gaiñean. Zer usain du zure eskuen artetik sortutako Lurrak? Erori zera ustegabeen bi belaunez kale ertzean Kalbario bidean erriaren kaltez... Pekatuaren astuna, milla kintaleko beruna.
"Pilatok agindu du lapurren artean iltzez gogor josteko Jesus gurutzean".	Ura Pilatoren esku-artetik jarrio. Orrua eta marmarra erriak dario... Eskuak garbitzea alperrik da, Ponzio. ***	"Sorbaldan dualarik gurutze astuna iltzera badijoa Jesus gure jauna". ***	Luze, gogor, lodi bizkarra ebagitzen duan gurutz astun on... Zer neke etengabea guruzpean dijoan gizonari.	
Kristorenak egin du. Gizonak Jainkoa menperatuta eriotzara darama. Kristo, aide guretik. erritarrok zure bearrrik ez degu. Zesar degu errege. Urrea ta Gorrotoa gure lege. Eraman guretik. kendu aurretik. Kendu, kendu. Areago oraindik: kendu eta il. Barrabas nai degu bere ordeaz. Gizon onetan errurik ikusten ez det. Ecce Horno: ara Gizona emen. Buruan koroia arantzetan, bizkar gaiñean purpura gorria, malko-odolez	Nicaragua, Guatemala, Vietnam eta Chad. Gernika, erri xumeak gurutzeraz beartuak, zapalduak Goliat aundiaren oinpean zanpatuak... Nork du errua? Pilatok bizirik dirau gizaldietan zear. - Tok, eraman gurutz au argala aizelako	Jesusen aurrean gurutza beso-zabal, Paraisoko zugatzaren erraiñu eta itzal. Adanen aoan goxo Jesusenean garratz.	Bakarrik zoak. Jauna, bakarrik. Ez al dezu bear lagunik? Nere gurutza eramateko izango dut zure bearrrik.	

Azpian zapalduta
Jainko Jauna.

Ama Luna.
Jesusen erantzuna.
atseden apurra
neretzat.
hesterik ez dut
une onetan.

Biziaren sortzea
darama
bete-betea.
II eta ohiratzea
bearrezkoa,
lenengo epea.

Soldaduaren zigorra
belarri ondoan,
zekena, gogorra,
erruki gabea.
erraiak arrizkoak.
Atsedetik ez da Zuretzat.
Jeiki adi. Giza-semea.
Kalbario bidea,
lertu araztekoa.

IV

"Agartzen zaio Ama
negarrez bidean.
Ai zer samintasanak
bien biotzean".

Seme bakarraren ama
gaixoa,
gogorra semetxoaren
azken-ordua.
Ezpañak legor. sua
bekokian,
milla gauza mesilla
gaiñean:
pastillak, ura,
tennometroa...
Eriotzaren arpegi eroa.

Jantzi zapatatxoak
barruko erropatxoak aldatu.
Nere semetxo
lurperatu nai duen gizona
badator
zeken-alena.
Agur betiko
nere aragiaren
zatirik gurena.

Ama Maria kale-ertzean
maitekor,
begiak uts. ao-zapaia legor.
– Nere semea ba'letor...
– Ara an, badator,
gurutzepean zapal.
odol-izardi tapatz.

Amaren begiak lauso,
aurrez-aurre
here semea dakuzte...
Begiak alkartu,
aoak ixildu,
besoak zabaldu,
matrallak estatu.

Amaren biotza urduri,
Jaunaren aurrean ixil,
zazpi ezpatez josirik,
zazpirak maitez arturik.

– Jainko zuzena,
emen zure Semea.
Bete bedi neregan
zure horondatea.

Ama errukigarriak
malkoz beterik begiak,
samiña gaiñezka
bere biotz barrenean,
itzik ez mingaiñean.

V

"Simon zirinetarra
artzen dute lagun.
gurutza eramaten
ikasi dezagun."

Jainko-semea
aurrera dijoa,
baiña here bidea
ez da luzarokoa.

Ankak mekalduta,
arnasa galduta.
geiago eziñik,
geldirik...

– Jainko alguztiduna
indarrik gabea.
arlotte eskalea,
begirakuna
larria zurea...

Nere indarraren
hear zerala zu?
Au nere zoruna,
Zirinetarra dut
laguna.

Baiña Jesus,
bizkarrean daramat nik ere
gurutze astuna,
ularra amasik gabe
doi-doi nere belaunak.
Nere zireneo ba'zera
ordea

bildur gabe noa
tontorrean gora
zure bidean.
Nere gurutzepean

zure erraiñoa
dijoa.
Zurekin batera
goazen aurrera.

VI

"Pekataria nun da
zure errukia
Jesusi garbitzeko
malkoz arpegia".

Apostoluak
bildurak ditu
sakananatu.
Pedro beberak
Jauna du
ukatu.

Eriotz-egarrizko
jende artean,
emakume bakar bat
bildur gabea.
Jesusengana dator
eskuetan zapia
bedietan argia
bildurgabean gogor.

Menperatzen bildurkeria
eiguzu lagun. Beronika.

Kristo itxurra besterik
badela

sinisten dutenak
ondo astertzu dezatela
beuroen pausoak,
etzaiela paltako
maxiatzaille naikoak
ez bait dira
munduarentzako
guztokoak.

Kristoren seiñale dute
aurpegiari,
seiñale txarra da-ta
kontuz erabili.

Beronika andrea,
nun den zapi zuria,
zapi orretan gordea
Kristoren aurpegia?
Jarrizaiguzu begien
aurrean
beg ira-hegira ase gaitzezean.

Jainko altsuaren antz-irudia
gure malko, odol. txistuz
betia,
zaitez betirako gure bizia.

VII

"Ludiko pekatuen
astunaren aundiz

gurutzepean Jesus
erortzen da berriz".

Ez da kulpable arria
ez soka-muturra.
Bigarrenez eroria,
animak du errua,
indarra palta
barruan.

Bizitz-erdiko
erori-aldia.
Bidea luze
argirik ez.
Legor biotza
bakardadean,
basamortua
ingumarian.

Nekez, aspertu
bide luzean,
lurra jo degu
bat-batean.

Gorpuarekin batera
gogoa zaigu lurrera.

Aspertuaren pekatua,
bide-erdiko errua.
Asieratik urrun
hukaerarik ez dakus.
Ai ene hiotz,
lurra jo degu aoz.

Jauna. erruki
nere bigarren
erorri aldi.
Bizitz-erdiko pekatu,
aspertuaren erru.
jauna, barkatu.

VIII

"Jerusalemgo alabak
ez neri negarrik,
negar egin zazute
pekatuagaitik".
x *y

Mendi gaiñera
eltzerako
gelditu da Jesus.
Emakumeak
bidean ertzeko.
Malko samiñak:
– Jauna, zer diozue?
– Ez neri negarrik.
– Zeiñeri bada?
Odolez josirik
begiak
illun dituzu.
iturri biziak
legortu
zaizkizu.

Aurpegiari
eriotza damazu.

Egia.
Neke artean
bear da
pekatuaren beltza
garbitu,
Jainkoak
ala nai eta.
Nere nekeak
ez dira gezurrezkoak.
Pekatuaren ordaifia,
zerutik jetxi eta
gurutzera igo bean-a.
Arbola bizia naizela
narama Aitak onela.
Nolako suertea
izanen ote du
arbola igarrak.
Pekataria tristea
negar egizu.

IX

"Ainbeste neke-miñez
aul egiñik Jauna
irugarren aldian
emen jo du lurra"
*xs

Irugarrenez, pekatu.
Gau-illuneko
nere irugarrena.
Galdu dut
itxaropena.

Nere gorputzeko
aragiak nau
menperatu
ta zapaldu.
Aspertu naiz,
nekatu.

Gauden auspez
lurrean
gurutzpean,
arrezago bait da
gurutz gaiñean
baiño.
Argia galduta
gau illunean
naco.

Gaitz-erdi
oraindik
eriotza urrun
badago.
Zatozkit,
Jauna,
nazazu jeiki
eriotza baiño
lenago.

GARIZUMEA

X

"Ludiaren aurrean
jantziak kendurik
or dago Jesus ona
oso lotsaturik".

Arri-gaiñean
jota
gari-alea
narru-gorri.

Mendi-tontorrean
zutik
soiñekoa lurrean
Jesus maitea
aragi - utsik.
Jantziak
kendu ondoren
zurekin dituzu

odol- arrasto
zauriak...
Ez dezu
beste jantzirik.

— Zein parregarritzkoa
zuen Jainkoa,
eroa ote da
odol- zauriz josirik?

Jauna izkutuan da
gizona argiratu,
Jainkoa ikusi ez da
aragia azaldu.
Orra Giza-semea
mallo negarrez beteak,
lotzak sumindua,
zauriz urratua
anaia gurea...

İñoren mendean
estututa
dabillen gizonari
izan, Jauna,
erruki.

Eskeiñi diote droga
lo artzekoa
gurutz-erik
zorabio
sortzean
eraman aldezan...

— Esker milla,
ongille zerate
baiña
lo-gairik ez
mesedez,
billusik naramate
eta erio samiña
jaso bear
ene animak...

Or ditut ikusten
kordarik gabe,
etengabeko
multos,
etzanik loietan,
txerrien antzo,
arima galdu
begiaklauso,
gogo -barnean
laño
beltz
illun,
argigabeko inpernu gorri,
edari mallo
garratz,
nazka, nazka, nazka
olatuetan
uin
itogarri
sekulo -sekulotan...

Esklabu dituzu
mingaiñean
askatasuna garraxi
badute ere.
Jaun nagusi
zital baten menpean
ezkerrakin kili-kili
eskubiakin
latigoz erre.

Inpernu lurrean
drogaren menpean
agoniarik
larrienean
itxaropenik
gabeko
gau luzcan...

Nere miñaren miñez
eta samiñaren samiñez
izanen aldu
zenbaitek
inpernu ortako orma
latzeetan gora
irteteko kementa.

XI

"Gurutziltzatu dute
zañak urraturik
ezurak askatuaz
bere giltzetatik".

Jesus lur- gaiñean
dan bezin luzea.
Bere neurria
gurutzea.
Emendik ona,
dio soldaduak.
Neurri motza
neurri zurea,
gizonezkoena.

Jainko neurrigabea
giza neurriz
neurtu,
baztarrik gabea
gurutzari
Totu...
Maitasunak
ez dezakenik
ez da oraindik
sortu.

Zaude neurturik,
esiva zure inguruan
iltze gogorra
burnizkoa.
Goi-gaiñetik
buru-koroiean
arantza mingorra
larrezkoa.

Etzanda zaude,
ogea aukeratu dezu
estaietakoa:
or dezu alkartzen
Jainkoarekin
Gizonezkoa.
Errege zera
betirakoa.
zure eserlakua
zure eserlekua
egurrezkoa.
Josi dizute eskua
eskubikoa,
zeru -lurrak
egitekoak;
anak ere bai
zorionekoak
mendirik-mendi
Berri-ona
zabaltzekoak.

Zaude iltzen josirik,
es dezu eskapatzerik.

Ez det iges egingo.
Jainkoa
josiko duten iltzerik
ez dago,
Maitasuna besterik.

Nun billa nezake
Jainkorik
zu bezelakorik?

Iltzeak
ankerrak
aragia
guretzean
josia
gogor
gogor
gogorrean

estu
estu
estutasunean
aragi josiak
ezurak ausiak
miñaren zorabioa
erdiko gunean
burud-garunean.

Eskuak
eta
oiñak
zuloak
etenak
eusiak
kirioak
leertu bearrean.
Lau zauri
lau iturri
burni
guri
lau erreka
mingarri,
lau kate
negargarri...
Zure askatasunaren
illobi
zure eriotzaren
ezaugarri.

Lotura estuak
itoak,
egoak
moztuak,
egoak
lotuak
ganbarako abe zaarrean
xagu-zarra
josten dan moduan.
Eriotzaren ipur-aulki
urdaillaren agoan
pekatuaren pixua
biotzaren gaiñean,
askatasuna
zanpata
eta aurrean
irriparraren agin zuriak:
— Jetxi adi
jetxi adi
aal baduk.
aska adi
aska adi
aal baduk,
besteak
salbatzea
ez duk
aski,
salbatzaille iñozu.

— Eskuak aska ezin
biotza lotua danean
maitasunezko katearekin.
Ezin
ezin.

XII

"Gurutzean jasota
miñez aseturik
| da Jesus maitea
gure onagaitik"

"Pekataria tristea
damuz negar egizu
pekatuz Jesus ona zuk
gurutzetu dezu.

Kalbariko mendira
igo zaitez lenbailen
bertan ikusi dezazun
zure Jauna iltzen.
Begera zer maitasuna
zurekin edukiduben
ta nola bere bizia
eman dizun salba
zaitezen". (Erri-abezia)

Miñetan igari
zaude.
baiña orain
il bear dezu.
Darkarka
arnas-gurutza,
eguzkia itzaldute
illuna inguruan,
zure barruan
burruka galdua,
indarrak
bearko dituzu
neurrigabeak,
ardo-miñez ontzia
gaiñiezkoa,
mendialakoak
barnean nekeak,
arnasa palta
ito-bearra
lausoak begiak.

— Ez det amarik ikusten
nere inguruan
— Emen naiz. seme,
gurutzepean,
odola tantaka
nere magalean...

Egarri naiz
legoru zait
mingaiña
ladrillu legorak aiña.
— Egarri zera, Jauna,
nere maitasun egarri
zure laguna
naidet izan
orain eta beti.
— Aita,
zure eskuetan nadin,
zukan det
betirako atsegin.

Begiak itxi
burua makurtu

GARIZUMEA

gorpuza lasaitu aizkena iritxi. Atoz, Eriotz. zu zera nagusi. ***	ai zer ezpata daukan amak biotzean". ***	Jesus eta biotz-erdian sartu. Zuloa badu nere biotzak osin beltza lakoa. Batek bakar-bakarrik bete lezake: Zu.	— Jeiki oiñartetik eta esan nere lagunerik alkartuko gerala... ***	danak akarri hegira luzarokoan biotzak goibel, buruak croan bildurra zalantza barru-banuan. Eguerdiko janak maigaiñean
Nere ordez il da nere maitea, orra bildots ezti errugabea.	Semearen begien gaiñean amaren malkoak jarioka eten gabeko ibai.	Amaren biotza samiñez eiota. Samiña maitasunaren alderantzia bait da.	Maria mendian beera erotuta bezela korrika presaka aurrera beti aurrera kale estuak zear eskilleretan *ora. - Tan tan. — Zer da? — Maixua piztu da. Jantziak bakarrik illobia uts. Oinñetan aingeru. baratzean Jesus bizi-bizirik maitekor...? ***	goserik ez eta sobrean morrollo zaarra atean. Bat batean orma gogorra erdibi argi-iturri. Erdian Jesusen iduri. Apostoluak dar-dar. — Pakea zuentzat pakea berriz borondate onekoari. Pantasmarik ez da aragizkoa naiz to, Pedro. mire eskuak hegira zuloai.
Eriotza baldin bada pekatuen saria ez du Arka pekatuarik ni naiz pekataria ni naiz pekataria. Semearekin ez dezu ze izan errukia guretzat izan dedin betiko biziari.	— Jesus, nere erraietako zati, esan eidazu bai. Betazalak jaso Belarriak iriki egiozu kaso zure amari.	Jainko biotz-euleak aririk zurienak aririk gorrienak erabilli bait zitun bere amaren biotza eiotzeko.	— Tan tan. — Zer da? — Maixua piztu da. Jantziak bakarrik illobia uts. Oinñetan aingeru. baratzean Jesus bizi-bizirik maitekor...? ***	Erdian Jesusen iduri. Apostoluak dar-dar. — Pakea zuentzat pakea berriz borondate onekoari. Pantasmarik ez da aragizkoa naiz to, Pedro. mire eskuak hegira zuloai.
Nere alde il da nere maitea. orra bildots ezti errugabea.	— Jesus joanik da, ama. Emendik aurrera guretzako bere izpillua zu zera. Jainko semea zure magalean aurkituko degu illunpean gordea.	Zuri elorri-arantzaren zuria garbia. Gorri su-garraren gorria garbia. Emateko zabal, ez-bearrean laguntzeko... Gorputzik ez magalean, lurperatu dizute semea, biotzaren bakardardea... Agur. Ama maitea.	Alkarri hegira apostuluak, barman biotz elkorak, sinisgaitzak dira emakumee onen kontuak. — Oiek danak amesgaiak, buru eroaren fruituak. illobia ari biziaren egiña atean arri borobil gordiña aundia lodia eun erraldekoa mogitu eziña. Kanpotik erromatar soldadu zar guardian. Gaitza andik gorputza kentzerik. — Ba, Jesus piztu da alkarrekin egon gara. — Zaude Maria lasai erokeririk ez degu nai. ***	Jesusen inguruan bildu dira apostuluak parra ezpañetan begian malkoak zabal-zabal biotzak leertu bearrezkoak. Au pozaren zurrunbilhoa pozaren pozez erotzekoa Jesusekin batera sartu da itxaropena illun beltzean zeuden biotzak argiratzen, biziaren zoragarria.
"Ostiral Santuz Golgota mendin enarak zer zebiltzen? Jesusen zorrotzak gutxitzen. Ai nere Jesus, maite maitea, zein egon ari lediken josirik zauden gurutze ortan zure nekeak arintzen..." (Erri-abestia)	XIV "Obira dutenean Jaunaren gorputza itsaso samiña da Amaren biotza". ***	AZKENA Nor Jainkoa bezela?	— Oiek danak amesgaiak, buru eroaren fruituak. illobia ari biziaren egiña atean arri borobil gordiña aundia lodia eun erraldekoa mogitu eziña. Kanpotik erromatar soldadu zar guardian. Gaitza andik gorputza kentzerik. — Ba, Jesus piztu da alkarrekin egon gara. — Zaude Maria lasai erokeririk ez degu nai. ***	Jesusen inguruan bildu dira apostuluak parra ezpañetan begian malkoak zabal-zabal biotzak leertu bearrezkoak. Au pozaren zurrunbilhoa pozaren pozez erotzekoa Jesusekin batera sartu da itxaropena illun beltzean zeuden biotzak argiratzen, biziaren zoragarria.
Zue nekeak: nerelagunurkoarena da zurea. Nere inguruan zaitut bizirik. Nere inguruan dabilten nekeak oiek dira zureak. Askotan igaro naiz aldamenetik neke oieri begiratzeke. Aurrerantz neke oieri obeto begiratzea izanen da, Jauna asmoa nerea.	Arri gogorraren zuloa, zulo illun ikaratzekoa, bertan lo dagin Jesusen gorputz ebagit piztu bearrezkoa. Illobia ez da bera bakarrik arizkoa, bada aiñakoa gizonaren biotza. Gure gurutzean neurriak Jesusen goputz ebagiak ditu. Zauri bakoitzean odol artean pekatuen arrasto beltzak dakus. Zatoz len-bai-len gugana	Gurutzetik argira, eriotzatik bizira, Ostiral Santurik Pazko egunera. *** Nagusitasuna nun dezu Eriotz madarikatu? Garaipena illobitik irten duenak daramena. — Maria, bidean zer? — Illobi utsda, mainer tolestuak bañan Jesusen gorputzik ez. Zuk eramán al dezu? — Maria. — Nere biotzeko Maixu.	— Oiek danak amesgaiak, buru eroaren fruituak. illobia ari biziaren egiña atean arri borobil gordiña aundia lodia eun erraldekoa mogitu eziña. Kanpotik erromatar soldadu zar guardian. Gaitza andik gorputza kentzerik. — Ba, Jesus piztu da alkarrekin egon gara. — Zaude Maria lasai erokeririk ez degu nai. ***	— Zoazte mundu zabalera nere Berri Ona eramatera. Zeruan aita dezute bitartekoa naiz ni pekatuak barkapena du zeruko atek zabaldu inpernuakoak itxi zuekin izango naiz orain eta beti.
XIII "Semearen gorputza jetxi dutenean			Luze dijoaz orduak Zenakuloan	ANES

LARRAÑAGA BASERRIA URRESTILLAN

(Arri utsez egindako etxea: Errota, ola eta baserri)

Bada baserri bat Urrestilla'n nekazaritza arloan beste baserri guztien antzekoa; bere egituran, ordea, ez du iñungo antzik. Lenengo etxeak egiten ziran egurrez edo buztñez; geroa egurrez eta arriz; ormaetxeak, alegia. Auekin batera agertuko dira tellaetxeak. Baña, guzti oien barruak zurezkoakdituzu eta egurrezkoak.

Orretan dago Larrañaga baserriaren bereiztasuna; onek ez du bere barruko egituran ez egurrik, ez zurik, ez olik, ez ezer zugaitzetik sorturik; barruko bere egitura osoa arri landuz egina dago: Zutabeak, solairuak, eskillera-maillak eta tellatua.

1531'eko ageri batek esaten dun bazala Larrañaga'n errota bat eantsita, "molino a ella anexo". Garai erneak ziran aiek eta andik lau urteetara, errota burni-ola gertatu zan. Aldaketa au ez zan Urrestilla'koa bakarrik (an bertan baziran amar burni-ola), Euskalerra osokoa baizik.

Zerk eragin zuan orrelako aldaketa? Zer orrek, bat izanik ere, bi adar ditu. Zer ori Amerika da. Amerika topa zuten eta Amerika'ra bidean jarri ziran euskaldunak bide bikoitzetik: bata Amerika guztian banatzen zan; bestea, berriz, euskaldunen bide zaarra, Ternua'ra zijoan zuzen-zuzenean.


Terranova'ri Ternua esan oi zioten euskaldunek, bere itz luzeak murrizteko oiturari jarraituz. Balearen ondoren eldu ziran inguru aietara eta bertan bakallaua arkitu zuten itzasoa estali. Baleetan (bakallautan ere bai) ekin zioten, etenik gabe, itxasertzeko arrantzale guztiak ia berreun urteen zear.

Larrañaga'ko errota ola biurtu zaneko garaietan, berreun itxas-ontzi joaten ziran Terranova, Canada eta Groenlandia aldera; baña, batez ere, San Lorenzo ibaiaren kolko zabalera. An dago, goiko muturrean, Labrador eta Terranova'ko itxas-tartea, eta andik sartzen ziran baleak milla kilometroko kolko zabalera. Ura zan tokirik aberatsena eta arrisksuena ere bai. Antxe topa dute "San Juan" bale-ontzia aize-bolara batek ondoratuta. Baita zenbait euskaldunen gorpuak ere lurperatuak edo axalean. Bederatzi edo amar lagunek osatzen duten taldea ere bada; danak alkartuta, bata bestearen beroa billatuko ba'lute bezala...

Itxas-ontzi asko bear ziran Bale-arratzarako eta ez gutxi beselako lanetarako ere Amerika bidean. Barkugintzarako astille-roak sortu ziran ibai guztien egoetan. Barkuak burni asko eramaten du bai iltzetan, bai arpoietan, bai ainguretan eta abarretan. Orretzek eragin zion errotak burni-ola biurtzeari. Larrañaga'ko errota ere, ola biurtzen ikusi degu.

Ola onen xeetasunak ere ezagutzen dira, urteetan zear zeñen eskuek erabilli zuten, zer lan egiten zuten (herreria de desgazar fierros), zer ola-mota zan (izen auek erabiltzen dituzte mota oiek adierazteko: Ferrerfa menor, ferrerfa sotil, fragua eta martinete).

Indioekin euskaldunak erabilli zituzten arremanak, alde batetik desberdiñak izan ziran, eta bestetik jokabide bakarra eta auxe da: Euren lurrean eurak nagusi utzi zituzten, kolonizatu gabe. Ori izan zan jokabide zuzen bat. Bear ba'da, ez zuten ori



°Larrañaga" Baserria. Urrestilla (Gipuzkoa).

gingo indioen eskubideak gordetzearren, eurok an gelditzeko gogorik ez zutelako, baizik.

Udaberrian agertzen ziran andik eta udazkenean alde egin. Bitarte orretan, indioekin arreman onak izan zituzten: merkatu txikiak egiten zituzten kastor-larruen truke aizkora, aizto eta burnizko lanabesak eskeñiz. Baña, Labrador'eko eskimalekin eun urteko gerra zitala izan zuten, udazkenean bale-barku bateko mariñelek bururzagi bateri emaztea arrapatu ziotelako. Arrezkero andik agertzen ziran euskaldunei eriotza emateko prest beti. Maiz gertatzen dan bezala, baten erruak besteek ordaindu bear.

*Y

Beste indio mota guztiekin an-eman oak izan zituzten; baña, euskaldunen ondoren etorri ziranak, inglesekin batez ere, indioen lurraren jabe egin ziran eta arazo onek ondoren txarrak ekarri zitun euskaldun arrantzaleentzat: Lurraren jabe eginda gero, itxasoaren jabe ere egin ziran. Arrezkeroko burruka luze areek galbidean jarri zuen euskaldunen bale-arrantza, naiz-eta kañoiez armatu bale-ontziak. Aizkenerako, euskaldunek etxera... Indioen lurraren jabe egin ba'lira, bear ba'da, an egongo giñan oraindiko. Baña, gaur lotsa ere izango genduan.

Dana dala eta dena den, Larrañaga'ko baserriak erakusten digu galbide orren señailea: 1675'garren urtean burni-ola berrero errota biurtu. Terranova'ko aberastasunak amaituta zeuden ordurako.

Auxe da gauza bitxia: Larrañaga'ko baserriak erakusten digu gure erriaren kondaira. Bere gora-bera eta aldaketak euskaldunen gora-bera eta aldaketakin loturik daude: Irakurtzen jakin bear.

ARRINDA'TAR ANES

JAINKOARI ESKARRAK

JAINKOARI ESKARRAK

Aita Rhaner maitia: Arrotxu sentitzen naz zuri idatzi al izatearren, batez be aldi azkenetan (esaterako, zelan edo alan Eleizearen kondaira jarraitzen dodanetik edo teoljia ikasten dodanetik), zutzaz eta zure gauzai buruz Eleizarako ta kristiñauentzak zuk daukazun garrantzia ikusi dodalako. Augaitik poz andia artu neban zuk ikustaldia egin euskuzunean ta Eukaristia gugaz ospatu gura izan zenduanean. Eta izan be zerbait berarizkoa dago zeugaz alkartzen nauana: neu naz zeuk Opera'rako sarrera-xtartel bategaz poztu zenduan mutikoa. Biotzez eskarrak emon gura neuskizuz.

Gure artean ni sakonez ta gogoz sartu nazan languntaldeak gizarte-lanean diardu. An dagidana bakana da, zaarren etxeko bat zaindu besterik ez.

Niretzat zaarrakaz alkar-ikuste au eupada andi bat da, orain arte nagusiakaz ozta-ozta euki izan nituen artu-emonak (nire aitaita-amamak urtero iru bidar ikusten dodaz). Artu-emon onek eragiña ta zeregiña emon daust urte osoan zear: sarri-askotan biotz-berogarri, eragite gogarteko eta (sarriago ondiño) itaunduteko neure buruari; niretzako izan da ainbat gauzaren barruko lenengo eza-guerea. Lenengotan ara joan nintzan idealismuaren ameskeriz beteta notin arei eroan gura neutsezan desbardintasuna, aldakuntza, poza, ganora, adore, kemena; baiña nire gurari ameskeri biotz-beroak laster amaitau zirean, an artuten zan arnasea bildurgarriz goberaldikoa zalako. ¡Danak egozan ain odol-bako!... Eta eurai irribarre eragiteko alegiñak egin arren, eurak oztasun andiz, ardura barik begirutzen ninduen. Bizi-toki osoa izenbako baltzu itzal bat da, an norbera bakoitxak milla notin edo lagunen arteko zenbaki bakan bat aurkituta sentidu bear dau.

Urte bat dala, laurogei inguru urteko andra zar bat jagoten diardut; ia beti ogean dago berna biak elbarrituta dago-ta. Alan eta guztiz be, bere eran, aretoko ariñetariko bat da. Asikeran, etsipen ta utsaldia emoten eustan aren jokabidea nigaz nire ikustaldia beragana gitxitzat eukala begiraturuz. Bere aurk-ekintza (erreakziñoa) ta jarduera, gogoanbearra ta ozkeria ta ardurabagea artean egoten zan. Baiña zenbat geiago luzeten zan gure alkar-ikustea, ainbat sakonagoak egiten ziran gure artu-emonak, eta burura sartzen yatan bere mingoztasuna (eta bearbada besteena be) ba eukan zer-ikusirik bizi-toki erruki-bageaz baita bere zarzaroak, eta berezkiro bere miñ-oñazeak sarritan neurri gañezko andiak. Diñogun egoera saminkorra eztabaida askoen arrazoia zan, sarritan umekerizkoak, euren artean. Ba-egozan geisoak zortzi urte zirala etzunda batzuk besteen alboan berba egin barik usteon-eza zala-ta, ain zuzen be auren mingoztasunaren ondorena inguruko gauzen egundoko gogorik eza agertuz.

Aita LETONA'k euskeratua
(Jarraituko dau)

LARRIALDIA

Urteak aurrera joan eta gorpuza makaltzen danean, atsegiñago izaten da oiñez baiño, zaldiz. Gaur eguneko zaldiak berebillak dira, automobilak.

Otok ez eban berebillik erosteko aiña diru; bere biotzeko Pototok, ordea, an eukan estreñatu barria, tapizatua eta gorria. Motarik gabe, garbi garbia; izpillua bera baiño garbiagoa.

* * *

Jai-arratsalde artan, Beizaman Pototok motor bat ikusi bear ebala eta, dei egin eutson Oto'ri, berarekin ibillaldia egiteko.

—Atsegin izango jat.

—Orduan, iruretarako prest egon.

Oto garritik gogortzen asita egoan eta lokarri bako botak erabilten ebazan oiñetarako; aldamenetan gomak izaten dituen oiatarikoak, korapillo barik jantzi eta kentzeko moduan.

Apain-apain jantzi zan ibillaldirako.

* * *

Beizama an jagok, joan da bertan; baiña, ara eltzeko ordu ta'ardi luzetxoak pasa zituen bidean. Pototo sartu zan kamiñotik alde zegoan bidetxurretik errotara joateko, motorra ikustearren. Bitartean Oto gizajoa preso automobil-barruan. Bai ba, Pototok bere aldeko atea giltzaz itxi eban eta Otok, barriz, bere aldekoa idigitzea asmau ezin.

Asieran Oto gustora egoan barru artan, patxara ederean; baiña, patxara onenean egonda be, luze gertatu ezkeru, aspertu; batez be txixa-larriak emoten ba'dau.

—Zer egin bear dot nik orain...? Automobilla platera baiño garbiago eta leioak altu... Zer egin bear dot...!

Eutsi eutson larriari, izardi otzak emon arteko guztian. Lertzeko zorian ikusten eban bere burua. Azkenerako, orratio, asmatu eban zelan egin. Eskubiko oiñetakoa kendu, bertan egin eta leiotik kanpora bota. A zer lasaitasuna barruan...!

Gero esango dabe Oto argi gabeko gizona dala...!

ANES

EUSKALDUNAK MUNDUAN

LAVIGERIE

Baiona'n jaioa, Frantzia gotzai, Afrikan gongotzai eta elizan kardenal. XIX mendean esklabotasunaren aurkako borrokatzaile purrukatua, Afrikan batez ere. "Anai zuriak" deritzan elkarte misiolariaren eratzaille...

* * *

"Euskalduna naiz-zion berak-eta orrexegaitik, buru-gogorra; tontorrera eta gaillurrera zuzenean ezin ba'dut, zearka ekingo diot; baiña, gora eldu gabe ez dut etsiko...".

Ala gertatu zan bere bizi osoan: eskuartean artutako lanak goraiño jaso zitun. Baiona'n jaioa zan urriaren 31'an, urtea 1825. Irurogeita amabi urte bete-ta il zan 1897'ko abenduan.

Gizon indartsua espirituz eta gorputzez, beti lanean irrikatzen, lagun urkoaren alde beti maitasunez eta maitasun orrek Kristorengan zuan bere sustraia eta oiñarria.

Aita Santu Leon XIII'garrenak zionez, Zibilizazio eta Kristautasunaren aldeko jokabideetan, Lavigerie zan aurrenetako bat munduan historian. Eta orrenbeste zion geroago Pio XI'garrenak ere.

* * *

Zer izan zan...?

Ona zertxo batzuek: Paris'eko Sorbona Ikastola Nagusiko irakasle, Oriente'ko Eskolaren zuzendaria, Rota Romana deritzan Epaimaiako bat, Nancy'ko Gotzai, Argel'eko Gongotzai, Mixiolari zurien eratzaille, esklabuen askatzaille, Elizaren Kardenal eta Afrika'ko Apostolu nagusia...

* * *

ESKLABOTASUNA ISTORIAN ZEAR

Esklabotasuna Afrikan beltzeen kaltean egiten zan antxiña-antxiñatik. Baiña, sistema bezala XV'garren eunkian eratzen da. Antonio González, portuges-a, itsas-gizona zan eta, mende-erdi ameriketak arkitu baiño lenago, asi zan Afrika egoaldera joaten, Bojador deritzan lur-muturretik beera. Legorrean sartu eta bidaldien ondoren gizaseme beltzak ekartzen zituzten arrapatuta, esklabu bezala saltzeko.

Arrek eman zion negozio negargarri oneri asiera eta bere antzera ekin zioten beste batzuek ere negarra Afrikan zabalduz.

Baiña, arazo au benetan bildurgarri biurtu zan Ameriketako arkitu ondoren. Asieran kolonizatzailek indioez baliatzen ziran, auek ez bait zuten animarik animalienak ezik. Anai Bartolomé de las Casas eta Rentería euskaldunak, ordea,

indioen eskubideak defenditu zituzten Errege Katolikoen aurrean eta eurentzako eskubide guztiak eta askatasuna lortu zuten.

Andik aurrera, indioen ordeztan, Afrikako beltzak esklabu.

Konpañi aundiak eratu ziran negozio au aurrera eramateko Afrika barrualdeko probintzietan. Kosta-aldean gazteluak eta txabola aundiak eraiki zituzten beltzak gordetzeko barkuak zetozten bitarteetan, Ameriketarako.

Esklabotasunaren aurkako Frossard jaunak zionez, Ginea'tik 1788'rarte, amar milloi beltzek atera zituzten.

Eta Afrika osoan, 45 milloi 1511'tik 1789'ko bitarte guztian.

* * *

Lavigerie'k bere mixiolariak bialduta zeuzkan Afrika erdira eta aiengandik jasotako berriekin sutu zan zearo bere biotza eta gogoia esklabuen alde lan egiteko.

“San Ziprianok, neure aurreko gotzaiak, elizako kalizak saldu zitun bezala Afrika'ko orduko esklabuak askatzeko, neuk ere alegiñak egingo dituk gizarajo oien alde, mundu guztiko katolikuen biotzak ikutu arte”.

Une artan Brasil'eko enperadorea eta Leon XII'garrena alkarrekin artu-emanetan jarrita zeuden Brasil'eko bi milloi esklabueri askatasuna emateko; orduan gure euskaldunak eskutiz bat bialdu zion Aita Santuari Afrika'ko beltzeen alde jokatzuz.

Idatzi au begien aurrean izan zuan Leon XIII'garrenak bere “In plurimis” enziklika idatzi zuanean, Brasil'go gotzaiantzat, eta bertan mundu zabaleko kristaueiri eskatzen zien alegiñak ekin zezatela lur-gaiñetik esklabutasuna errotik ateratzeko.

* * *

Askatutako esklabu arabe eta beltzak arturik berarekin, Aita Santuarengana jo zuan 1888'ren Pentekostes egunean, Vatikanoko Sala Ducal deritzan gelara. An agertu zuan Afrika'ko esklabuen egoitza negargarria.

“Egoera iguingarri au lurren gaiñetik zearo kentzeko indarrak duten guztiei erregutu diet-zion Leon XIII'garrenak- alegindu ditezela ori lortzeko; baiñan eginkizun au aurrera eramateko, zukan espero dut, batez ere, Kardenal jauna, ezagutzen bait dut zure kementasuna eta ziur nago Kruzada berri au aurrera eramango dezula bere aizken elbururarte”.

ESKLABUEN ALDEKO KANPAIÑA ERATZEN

Aita Santuaren agindua artu ondoren asi zan ekintza ori eratzen. Lenengo Paris'tik ekin zion lanean, San Sulpizio elizaren pulpitotik, gotzai jantziekin: bere mintzo gartsuak suspertu zitun entzule guztiak: “odolak eta sufrimenduak eten; lotsagarri da gure gizaki-alkartearentzak esklabotasunaren irauntzeak; beraren aurka lan egitea, jutzizi-zuzentasunaren eta askatasunaren alde lan egitea da...”.

Egunkari danak onartu zuten bere lana.

Paris'tik Londres'era. Mitin batean parte artzen du, esklabutasunaren aurka; lord Granville jauna zan mitiña eratu zuena eta Ingalaterrako Kardenal Nagusia, Manning Jaun agurgarria, mai-buruko.

Billera onen erabakiek beartu zitun Europako agiantariak esklabotasunaren kontrako neurri sendoak artzera.

Londres'etik Bruselas'era.

Emen 25.000 franko-urre bildu esklabuak erosteko eta 500 gaztek eskeiñi zizkioten beuren buruak, Desertuko Anai Zurien arterako. Berak eratu zuan anaidi au Afrikao Misioen defensorako.

Gaiñera, gerrako barku bat eeskeiñi zion Erregeak, berberak, Zingira Aundien (Los Grandes Lagos) inguruetan esklabutasunaren aurkako ekintzari laguntzeko. Friburg'en (Alemanian) esklabotasunaren aurkako Kongresuan parte artzerik ez zuan izan, gaixotasunak galerazita; baiña, txoztena bialdu zuan ondo argia.

Espaiña'ren laguntza ere eskatu zuan.

Italia'ra urbildu zan, lenen Milan'era eta ondoren Napoles'era. Bere deiari emandako erantzuna zoragarria izan zan: beste iñon baiño obea.

Luzerna'ko billera egitekoa zan; baiña, Lavigerie gaixo eta arren ordez Bartzar aundi bat egin zan Paris'en gure kardenala buru zala. Billera onetara nazio geienak bialdu zuten buroen ordezkariak. Erabaki bat auxe artu zuten: Aita Santuari zera eskatzea, parroketan eskabide bat ekintza onen alde egitea urteero. Lavigerie berak eraman zion eskabide au Leon XIII'garrenari. andik sortu zan Epifani egunean parroketan egiten zan esklabuen aldeko eskea.

* * *

AFRIKA'KO MIXIOLARIA

Apaiz berri zala, liburutegi bateko idazkari, Mixiotako gaiak erabilli zitun liburu zerrenda bat idazteko. Orrekin bakarrik ez zan, ordea, konforme eta 1872'an Afrika'ko Kabila artean ibilli zan mendi-maldarretan zear mixiolari. Pio IX'garrenak bere ondoan nai zuan apaiz ura; baiña, Lavigeriek eskatu zion arren eta arren utzi zezaiola bere barruko mixiolai-garrari jarraitzen...

* * *

Nancy deritzan elizbarrutiko gotzai izendatu zuten; bere gogoia, ordea, ez zan esi estu aretan baretzen eta Argel'erako izendatu zutenean, orduantxe bere onera etorri; Argelia ikusten bait zuan Afrika'rako ate zabal baten antzera. Afrika zuan Lavigeriek bere biotzaren kezka guztien erdian.

Arabeak zitun ifar aldean eta beltzak egoan; auekin lana zuzenean egin bear zan Kristo eta bere Eliza agertuz; aiekin, berriz, zearka maitasunezko ekintzen bitartez.

Pio IX'garrenak Sahara eta Senegal'eko Delegado Apostoliku izendatu zuan.

* * *

Gotzai gazte arrek bere burua Afrika'ko Apostolutzarako aukeratua ikusten zuan eta Argel'era eldu zanean onela zion:

“Zorioneko Eliza afrikarra, zure naigabeak gozatzera natorkizu eta zure garrai bateko ospea berritzera. Martirien odol artean sortu eta azia zera eta, zuretako seme batek zionez, martiri-odola kristau berrien azi emankorria da. Ala gertatu dedin nere malkoak zureekin naastuko ditut eta bear ba'litz nere bizia ere emango nuke zure alde, zu aundi eta ospetsu ikuste arren”.

Eta aurrerago:

"Afrikar lur au nazio kristau eta biotz aundikoa egin nai dut, zuen bitartez, eremuan zear, Afrika erdira eldu aal izateko, bertan dauden erri negargarri aiek lurretik jaso eta Kristautasunera erakartzeko..."

Ifar-Afrika eta Afrika Erdikoa, guztiak nai zitun Kristorentzat.

ARGEL'EN

Bera eldu zanean, izurri edo peste ikaragarri bat agertu zan Argelia'n, ondorengo gosete eta mixeriarekin. Umezurtzentzako etxeak eta gaixoentzako ospitalak eraiki zitun eta neurrigabeko ondasunak zabaldu.

49 eliza berri eraiki zitun eta 313 parroki eta kapilla berritu. Bi seminario apaizgaintzako, gazteez beterik, jaso eta ondoren 900 erlijioso, andre eta gizon, ekarri zitun gaxoitegi eta eskoletarako...

Argelian kristautasuna errotuta, bere semeak bialduko ditu Sahara, Sudan eta Afrikaren ardatzean dauden errietara. Auen artean, Uganda'ra, bere seemeen odolez ongarritutako errira.

* * *

EGOKITASUNA

Afrika'ko Ifaraldea arabea da eta auekin zearka ibilli bear kristau batek eurak bereganatzeko. Ori ondotxo zekian Lavigere mixiolariak. Otoitza eta kari-dadeko ekintza erabilli bear, kristau sustraiari zirrikiturik zabaldu aal izateko. Gaiñera mixiolariak bere burua egokitu bear islamitarren bizi-moldeari.

Orregaitik agindu auek ematen die beure semeeri: arabe izkera erabilli beti eta kabileena, iñoren laguntzarik gabe, interpreterik gabe, itzultzaillerik gabe. Eta ez dute bein ere frantzesez itz bat ere esango. Orretzaz gaiñera, arabeen bizimoldeari oso-osorik egokitu beuren buruak.

Orrela mixiolaria ikusten ba'dute euren mintzaira darabilela, euren antzera bizi dala janean eta pentzakeran, gogo onez artuko dute euren artean eta orrela apurka-apurka ateak ireki kristautasunari.

Lana benetako zailla eta gaitza, atzerritarrentzako biotza gorrotoz beteta bait zuten arabeak garai artan.

* * *

1873'garrenean Djurdjura aldeko errixkak dira aukeratuak apostoladutza egiteko. Kabilatarrei erlijiorik ez aitzateko ere, agintzen die bere mixiolariei, eurak sisten dituzten dogmak ez ba'dira: "sendatzea eta erakustea, orra apostoladutza guztia, egia eta maitasuna". Erakustea, umeeiri eskola ematea zan. Besterik ezer ez. Erlijio-erakutsirik ez, iñolaz ere ez: ez agerian, ezta bakarka ere, iñungo aitzakirik gabe. "Ez da iñor kristau egiteko ordua, biotza maitasunez irabastekoa baizik: ortikat egiten dezutena, lan guztiak alperrik galtzea izango da..."

* * *

MIXIOLARI BERRIAK

Lan onek langille bereziak eskatzen zitun eta orretarako 1868'garrenean

seminario bat eraikitzen du. Zertarako? Mixiolariak arabe eta beste Afrika'ko errien arauera bizitzen ikasi dezaten, Eurak joango dira Argelia-egoaldeko basamortuan aurrera Senegal eta beste erri beltzeen artera...

* * *

Arabe-antzeria jantzi zitun: soiñeko zuri luzea eta orren gaiñean kapa zuria. Apaizak, agerian eta bular-gaiñean, errosario bat; apaizak ez ziranak, berriz, leku berean, gurutze gorri bat.

“Emengo mixiolaria gorputzez afrikar bear du izan, eta gogoz, kristau”. Orrela jantzitako mixiolariei bilduta zeuzkaten umerzurtzek egin zieten arrera zoragarria izan zan. Lavigeriek arrazoi.

* * *

Egokitasun onen emaitzak ugariak izan ziran Kabilatarren artean. Bostgarren kristau ziranak, gerora musulman eta orain berriro kristau izaten asiak... Ogei urte pasa baiño lenago giroa sortuta zegoan kristau-dotriña argi eta garbi erakuzten asteko erlijioaren eta Elizaren kondairaren bitartez, dotriña-libururik eskuetan ipiñi gabe.

Pixkana-pixkana kristau egiten, kristau-giroa sortu zuten mixiolari aiek Kabilatan, bataio, ezkontza, illeri-kristau eta abarren bitartez.

EMAKUMEA MIXIOLARI

Bereala konturatu zan Lavigerie gizonen lana ez zala naikoa eta emakume arabeak emakume kristauak bear zitula bere laguntzarako... Emakume batek errezago ikutu zezakean beste emakume baten biotza eta arabeari bere neketan lagundu...

Pentsa eta egin: andre Mixiolari Zurientzat lekaidegia sortu zuan 1869'an Arjel'en bertan. Euren kargu egongo ziran gaxotegi, umezurtzen-etxe eta eskolak.

Bada kristau-errian “Sodalicio de San Pedro Claver” deritzan elkarte, mixioetara joan gabe, mixiolarien alde zuurki jokatzeko duena. Lucerna'n sortu zan: Esklabotasunaren aurkako Kongresoa eratu zan eta bertan Lavigerie'k itz egin. Berba aiekin zirikatuta Maria Teresa Ledochowska kondesea etorri zitzaion eta topaketa artatik sortuko zan Mixioen aldeko elkarte berria.

* * *

Bere mixiolariantzako arauak berak ematen zitun; baiñan, orretzaz kanpora, bakoitzari ere idazten zien bere aolkuak emanez eta animoa jazoz... eta euren lanetarako dirua Europa eta Canada'n eskatzen zuan bertara apaizak eskean bialduta. Arjel eta beste Ifarraldeko Afrikako errietan amar milloi urrezko franko banatu zitun.

AFRIKA ERDIRA

Ebanjelioa Afrikaren ertzeetatik zebillen, baiña Afrikaren biotzik ez zuan ikutu oraindik.

1878'garren urtean Livingstone eta Stanley esploradoreak Kongo inguruetako beuroen ibillaldiak amaituta zeuzkaten. Ibillaldi oien ondorio bezala Nazioarteko Elkarte bat eratzea erabakita zegoan erri aieri zibilizazio eramateko: europar arteak, produzio-bideak eta sal-erosketak batez ere.

Asmo oiek orrela zirala, Lavigerie Aita Santuarengana jo zuan, Elkarte orrekin batera mixioak sortu bear zirala esatera. Eta bera, bere seme-alabeekin, prest zegoala toki aietara joateko. Pio IX'garrenak esandakoa onartu zion, baiña, erabaki ori aurrera eraman baiño lenago, il zan.

* * *

Ondoren etorri zan Leon XIII'garrenak, Otsaillaren 4'an, 1878, Mixiolari Zuriari Vitoria, Nyanza eta Tanganika zingirien inguru guztiak eskeiñi zizkien mixioak eraitzeko. Garai aietan zailtasunez betetako tokiak ziran aiek... luzeak eta zabalak.

Gazte batzuek pozik prestatu ziran lan artarako. Iru mixiolari bialdu zitun basamordutan zear Tomboctou zeritzan errira, ifarretik egoaldera; baiña, bidean erail zituzten. Bialdu zitun beste iru eta suerte berdiña izan zuten. Sahara'ko are legorrak kristau-odolez buzti ziran.

Une artan esan zitun Lavigeriek itz auek:

"Euskalduna naiz eta mendian zuzenean igaro ezin ba'dut, zearka egingo det... eta tontorretik edo aldamenetik beste aldera pasa gabe ez dut etsiko. Burugogorren fama ez dugu alperrik eramaten".

Erditik eta zuzenean pasa ezin eta orduan egoaldetik bialdu zitun: Marseilla'n ontziratu ziran amar mixiolari Zuri itsasotik egoalderuntz, Afrika-kostatik zear. Eldu ziran Zingira Aundietara; ez, ordea, osorik taldea.

* * *

MIXIOLARIENTZAKO AOLKUAK

Mixio-postu berri bat sortzerakoan auek gogoan izan:

Arabeak esklabu-tratorako dituzten tokietatik alde egin mixio bat sortzerakoan, esklabutasuna ostropo galanta baita da kristauak egiteko.

Protestante-mixioa dagoen tokietan ez mixio-katolikorik sortu, naastea sor ez daiten bertakoen espirituetan. Alde egin amar kilometroan gutxienez.

Toki osasuntzua izan dedilla, jende-tarte onekoa eta emankorra lurra bertatik bizi aal izateko. Onartzen ez bait zaituzte, alde egin beste erri batera.

* * *

Izkuntzari buruz:

Sei illebeta pasatzean mixiolariak erriaren mintzoan berba egingo dute, euren artean ere bai.

Osasuna:

Bearrezkoa da eta orregaitik alde egin leku kutsatuetatik eta etxeak toki airosoan jaso.

Janariak:

Bertakoak izan bitez beti. Norberentzako norberak atera bear du jatekoa, Europa'tik edo Propaganda Fide'retik laguntzaren zai egon gabe. Orretarako lenengo egunetik asi matsondoak aldatzen, garia ereiten eta abar. Lan auetarako bearrezkoak dira Anaiak, mixiolariak eurak espirituen lanerako egon bear bait dute gorputz eta espirituz.

Dotriñari buruz:

Kristautasuna zuzenean erakutsi; baiña, ez gauza danak asieratik. Lenengo gizaki guztieri dagokien egiak Jainkoarekiko; ondoreñ Jesus'en berri eman eta Elizarena, eta oiñarrizko diran egiak kristautasunean. Egi oien ondorioak gerorago etorriko dira. Eragozpen aundienak eskontzatik datoz: poligamian bi-zi dira eta emazte bakar batekin konformatzea ez da erreza...

Biurtzerari buruz:

Elizaren asierako egitarauak berritu zitun Aita Santuaren baimenarekin eta iru maillak ipiñi biurtze-bidean: eskabidea egiten zutenak, katekumenoak eta bataiatuak. Kristau-bizitzak eragozpen aundiak zitun giro artan eta aurrera egindakoak atzera egitean, eragozpen oiek zirala-ta, beste kristaurentzako beatz-topo izan ez zitezen, ortarako ipiñi zitun iru maillak.

Lenengoan erakutsiko zitzairen izakiaren oiñarrizko egiak, kristautasunaren argitan. Bigarren maillan, kristasunezko egi zakonak, baiña sakramentuetatik bat bakarra: bataioa. Eukaristia eta elizkizunik ez. Irugarrenean ez da sekreturik izanen.

Lenengo maillan gutxienez bi urte; eta beste bi, bigarreanean. Lau urte oiek pasata gero, eta mixiolariei egoki iruditzen ba'zaie, orduan eman bataioa. Zenbait alditan, ordea, ohea izango da bataioa eriotzako ordurarte luzeratzea; batez ere poligamia arazoan, emakume batekin konforme izango ez ba'dira.

EGIÑAKOTIK ZERBAIT

Lavigerie 1897'an il zan. Andik ogeita amar urte baiño lenago, Uganda'ko erri nagusian katedral berria eraiki zuten. Bear izan ziran milloi t'erdi ladrillu Mixiolari Zuriak egindako labeetatik sortu ziran, uri nagusitik kilometro batzuetara, eta andik errira kristauek eraman zituzten beuren bizkarretan.

Nazioko agintariak an ziran.

Kantuak apaiz gai beltzeek osatutako Schola Cantorum'en mende.

Kristauak bertan irureun milla baiño geiago ziran eta katekumenoak beste orren beste. Lurrak osasundu, bideak urratu, erri berriak sortu... Kristautasunarekin batera onura guztiak eraman zitun Lavigerie'k eta bere Elkarteak Afrikan zear...

Dei ukigarri bat egin zien Frantzia eta Europa'ko seminarioei, Afrika beltza Kristorentzat irabazteko. Bere deiari erantzunez etorri zitzaizkion mixiolari-gaiak Frantzia, Belgika, Holanda, Alemania eta Canada'tik. Guztien biotzean asmo bakarra: mundu beltza Krsitorentzat irabastea.

* * *

Il zanean bere gorpua Cartago'ko eliz-nagusian eortzi zuten, berak aurretik bedeinkatutako illobian.

A.A.A.

LA VIGERIE

BAIONA'N JAIOA, FRANTZIAN GOTZAI, AFRIKAN GONGOTZAI ETA ELIZAN KARDENAL. XIX MENDEAN ESKLABOTASUNAREN AURKAKO BORROKATZAILLE PURRUKATUA, AFRIKAN BATEZ ERE. "ANAI ZURIAK" DERITZAN ELKARTE MISIOLARIAREN ERATZAILLE...

EUSKALDUNA

"Euskalduna naiz-iñoan berak-eta orrexegaitik, burugorra; tontorrera eta gaillurrera zuzenean ezin ba'dut, zearka ekingo diot; baiña, gora eldu gabe ez dut etsiko..."

Ala gertatu zan bere bizi osoan; eskuartean artutako lanak goraiño jaso zitun. Baiona n jaioa zan urriaren 31'an, urtea 1825. Irurogeita amabi urte beteta il zan 1897'ko abenduan.

Gizon indartsua espirituz eta gorputzez, beti lanean irrikatzen, lagun urkoaren alde beti maitasunez eta maitasun orrek Kristorengan zuan bere sustraia eta oiñarria.

Aita Santu Leon XIII'garrenak zionez, Zibilizazio eta Kristautasunaren aldeko jokabideetan, Lavigerie zan aurrenetako bat munduan eta historian. Eta orrenbeste zion gerorago Pio XI'garrenak ere.

ARDURAK

Zer izan zan?

Ona zertxo batzuek: Paris'eko Sorbona Ikastola Nagusiko irakasle, Oriente'ko Eskolaren zuzendaria, Rota Romana deritzan Epaimaiako bat, Nancy'ko Gotzai, Argel'eko Gongotzai, Mixiolari Zuriaren eratzaille, esklabuen askatzaille, Elizaren Kardenal eta Afrika'ko Apostolu nagusia...

EKLABOTASUNA ISTORIAN ZEAR

Esklabotasuna Afrikan beltzen kaltean egiten zan antxiña-antxiñatik. Baiña, sistema bezala XV'garren eunikian eratzen da. Antonio González, portugesa, itsasgizona zan eta, mende-erdi bat Ameriketarako arkitu baiño lenago, asi zan Afrika egoaldera joaten, Bojador deritzan lur-muturretik beera. Legorreak sartu eta bidaldien ondoren gizaseme beltzak ekartzen zituzten arrapatuta, esklabu bezala saltzeko.

Arrek eman zion negozio negargarri oneri asiera eta bere antzera ekin zioten beste batzuek ere negarra Afrikan zabalduz.

Baiña, arazo au benetan bildurgarri biurtu zan Amerikarako arkitu ondoren. Asieran kolonizatzaileek indioez baliatzen ziran, auek ez bait zuten animarik animalienak ezik. Anai Bartolomé de las Casas eta Renteria euskaldunak, ordea, indioen eskubideak defenditu zituzten Errege Katolikoaren aurrean eta eurentzako eskubide guztiak eta askatasuna lortu zuten.

Andik aurrera, indoen, ordez, Afrikako beltzak esklabu.

Konpañi aundiak eratu ziran negozio au aurrera eramateko Afrika barrualdeko probintzietan. Kosta-aldean gazteluak eta txabola aundiak eraiki zituzten barkuak zetozten bitarteetan, Ameriketarako beltzak gordetzeko.

Esklabotasunaren aurkako Frossard jaunak zionez, Ginea'tik 1788'arte, amar milloi beltz atera zituzten.

Eta Afrika osoan, 45 milloi 1.511'tik 1.789'ko bitarte guztian.

MORROIEN ALDE

Lavigerie'k bere mixiolariak bialduta zeuzkan Afrika erdira eta aiengandik jasotako berriekin sutu zan zearo bere biotza eta esklabuen alde lan egiteko gogoia.

"San Ziprianok, neure aurreko gotzaiak, elizako kalizak saldu zitun bezala Afrika'ko orduko esklabuak askatzeko, neuk ere alegiñak egingo dituk gizarajo oien alde, mundu guztiko katolikuen biotzak ikutu arte."

Une artan Brasil'eko enperadorea eta Leon XII'garrena alkarrekin artu-emaneta jarrita zeuden Brasil'eko bi milloi esklabueri askatasuna emateko; orduan gure euskaldunak eskutitz bat bialdu zion Aita Santuari Afrika'ko beltzen alde jokatzeko.

Idatzi au begien aurrean izan zuan Leon XIII'garrenak bere "In plurimis" enziklika Brasil'go gotzaiantzat idatzi zuanean, eta bertan mundu zabaleko kristauei eskatzen zien alegiñak egin zezatela lur-gaiñetik esklabutasuna errotik ateratzeko.

AITA SANTUAGAZ

Askatutako esklabu arabe eta beltzak arturik berarekin, Aita Santuarengana jo zuan 1888'ren Pentekosten egunean, Vatikanoko Sala Ducal deritzan gelara. An agertu zuan Afrika'ko esklabuen egoitza negargarria.

"Egoera iguingarri au lurren gaiñetik zearo kentzeko indarrak duten guztiei erregutu diet-zion Leon XIII'garrenak— alegindu ditezela ori lortzeko; baiñan eginkizun au aurrera eramateko, zuan espero dut, batez ere, Kardenal jauna, ezagutzen bait dut zure kementasuna eta ziur nago Kruzada berri au aurrera eramango dezula berre azken elbururarte."

EKLABUEN ALDEKO EKIÑALDIA ERATZEN

Aita Santuaren agindua artu ondoren asi zan ekin-tza ori eratzen. Lenengo Paris'tik ekin zion lanean, San Sulpizio elizaren pulpitotik, gotzai jantziekin: bere mintzo gartsuak suspertu zitun entzule guztiak: "odolak eta sufrimentuak eten; lotsagarri da gure gizaki-alkartearentzat esklabotasunaren irauntzea; beraren aurka lan egitea, justizi-zuentasunaren eta askatasunaren alde lan egitea da..."

Egunkari danak onartu zuten bere lana.

Paris'tik Londres'era. Mitin batean parte artzen du, esklabutasunaren aurka; lord Granville jauna zan mitiña eratu zuena eta Ingalaterrako Kardenal Nagusia, Manning Jaun agurgarria, mai-buruko.

Billera onen erabakiek beartu zituen Europako agintariak esklabotasunaren kontrako neurri sendoak artzera.

Londres'etik Bruselas'era.

Emen 25.000 franko-urre bildu zitun esklabuak erosteko eta 500 gaztek eskeiñi zizkioten beuren buruak, Desertuko Anai Zurien arterako. Berak eratu zuan Anai-di au Afrikao Misioen onerako.

ERREGEAREN ITXAS-ONTZIA

Gaiñera, gerrako barku bat eskeiñi zion Erregeak, berberak, Zingira Aundien (Los Grandes Lagos) inguruetan esklabutasunaren aurkako ekintzari laguntzeko. Friburg'en (Alemanian) esklabotasunaren aurkako Kongresuan parte artzerik ez zuan izan, gaixotasunak galezarazita; baiña, txoztena bialdu zuan ondo argia.

Espaiña'ren laguntza ere eskatu zuan.

Italia'ra urbildu zan, lenen Milan'era eta ondoren Napoles'era. Bere deiari emandako erantzuna zoragarria izan zan: beste iñon baiño ohea.

Luzerna'ko billera egitekoa zan; baiña, Lavegerie gaixo eta aren ordezkari bat egin zan Paris'en gure kardenala buru zala. Billera onetara nazio geienak bialdu zuten beuroen ordezkariak. Erabaki bat auxe artu zuten: Aita Santuari zera eskatzea, parroketan eskabide bat ekintza onen alde egitea urteero. Lavigerie berak eraman zion eskabide au Leon XIII'garrenari. Andik sortu zan Epifani egunean parroketan egiten zan esklabuen aldeko eskea.

AFRIKA'KO MIXIOLARIA

Apaiz berri zala, liburutegi bateko idazkari, Mixiota-ko gaiak erabilli zitun liburu zerrenda bat idazteko. Orrekin bakarrik ez zan, ordea, konforme eta 1872'an Afrika'ko Kabila artean ibilli zan mendi-malkarretan zear mixiolari. Pio IX'garrenak bere ondoan nai zuan apaiz ura; baiña, Lavigeriek eskatu zion arren eta arren utzi zezaiola bere barruko mixiolari-garrari jarraitzen...

* * *

Nancy deritzan elizbarrutiko gotzai izendatu zuten; bere gogo, ordea, ez zan esi estu aretan baretzen eta Argel'erako izendatu zutenean, orduantxe bere onera etorri; Argelia ikusten bait zuan Afrika'rako ate zabal baten antzera. Afrika zuan Lavigeriek bere biotzaren kezka guztien erdian.

Arabeak zitun ifar aldean eta beltzak egoan; auekin lana zuzenean egin bear zan Kristo eta bere Eliza agertuz; aiekin, berriz, zearka maitasunezko ekintzen bitartez.

Pio IX'garrenak Sahara eta Senegal'eko Delegado Apostoliku izendat zuan.

ARGEL'era

Gotzai gazte arek bere burua Afrika'ko Apostoluzarako aukeratua ikusten zuan eta Argel'era eldu zanean onela zion:

"Zorioneko Eliza afrikarra, zure naigabeak gozatze-
ra natorkizu eta zure garai bateko ospea berritzaera.

Martirien odol artean sortu eta azia zera eta, zure seme batek zionez, martiri-odola kristau berrien azi emankorra da. Ala gertatu dedin nerre malkoak zureekin naastuko ditut eta bear ba'litz nere bizia ere emango nuke zure alde, zu aundi eta ospetsu ikuste arren."

Eta aurrerago:

"Afrikar lur au nazio kristau eta biotz aundikoa egin nai dut, zuen bitartez, eremuan zear, Afrika erdira eldu aal izateko, bertan dauden erri negargarri aiek lurretik jaso eta Kristautasunera erakartzeko..."

Ifar-Afrika eta Afrika Erdikoa, guztiak nai zitun Kristorentzat.

ARGEL'en

Bera eldu zanean, izurri edo peste ikaragarri bat agertu zan Argelia'n, ondorengo gosete eta mixeriarekin. Umezurtzentzako etxeak eta gaixoentzako ospitalak eraiki zitun eta neurrigabeko ondasunak zabaldu.

49 eliza berri eraiki zitun eta 313 parroki eta kapilla berritu. Bi seminario apaizgaintzako, gazteez beterik, jaso eta ondoren 900 erlijioso, andre eta gizon, ekarri zitun gaxoeitegi eta eskoletarako...

Argelian kristautasuna errotuta, bere semeak bialduko ditu Sahara, Sudan eta Afrikaren ardatzean dauden errietara. Auen artean, Uganda'ra, bere semeen odolez ongarritutako errira.

EGOKITASUNA

Afrika'ko Ifarraldea arabea da eta auekin zearka ibilli bear kristau batek eurak bereganatzeko. Ori ondotox zekian Lavigerie mixiolariak. Otoitza eta karidadeko ekintza erabilli bear, kristau-sustraiari zirrikiturik aal izateko. Gaiñera mixiolariak bere buru2 egokitu bear islamitarren bizi-moldeari.

Orregaitik agindu au ematen die beure semeeri: arabe izkeera erabilli beti eta kabilena, iñoren laguntzarik gabe, interpreterik gabe, itzultzaillerik gabe. Eta ez dute bein ere frantzesez itz bat ere esango. Orretzaz gaiñera, arabeen bizimoldeari oso-osorik egokitu beuren buruak.

Orrela mixiolaria ikusten ba'dute euren mintzaira darabillela, euren antzera bizi dala janean eta pentzakeran, gogo onez artuko dute euren artean eta orrela apurka-apurka ateak ireki kristautasunari.

Lana benetako zailla eta gaitza, atzerritarrentzako biotza gorrotoz beteta bait zuten arabeak garai artan.

KABILETAN

1873'garrenean Djurdjura aldeko errikkak dira aukuratuak apostoladutza egiteko. Kabilatarrei erlijiorik ez aitatzeke ere, agintzen die bere mixiolariei, eurak sinisten dituzten dogmak ez ba'dira: "sendatzea eta erakustea, orra apostoladutza guztia, egia eta maitasuna." Erakustea, umeeri eskola ematea zan. Besterik ezer ez. Erljio-erakutsirik ez, iñolaz ere ez: ez agerian, ezta bakarka ere, iñungo aitzakirik gabe. "Ez da iñor kristau

egiteko ordua, biotza maitasunez irabaztekoa baizik: ortik at egiten dezutena, lan guztiak alperrik galtzea izango da..."

MIXIOLARI BERRIAK

Lan onek langille bereziak eskatzen zitun eta orretarako 1868'garrenean seminario bat eraikitzen du. Zertarako? Mixiolariak arabe eta beste Afrika'ko errien arauera bizitzen ikasi dezaten. Eurak joango dira Argelia-egoaldeko basamortuan aurrera Senegal eta beste erri beltzen artera...

Arabe-antzeria jantzi zitun: soñeiko zuri luzea eta orren gainean kapa zuria. Apaizak, agerian eta bular-gaiñean, errosario bat; apaizak ez ziranak, berriz, leku berean, gurutze gorri bat.

"Emengo mixiolaria gorputzez afrikar bear du izan, eta gogoz, kristau." Orrela jantzitako mixiolarietara bilduta zeuzkaten umezurtzek egin zieten arrera zoragarria izan zan. Lavigerie'k arrazoi.

EMOITZAK

Egokitasun onen emaitzak ugariak izan ziran Kabilatzen artean. Bostgarren kristau ziranak, gerora musulman eta orain berriro kristau izaten asiak... Ogei urte igaro baiño lenago giroa sortuta zegoan kristau-dotriña argi eta garbi erakusten asteko erlijioaren eta Elizaren kondairaren bitartez, dotriña-libururik eskuetan ipiñi gabe.

Pixkana-pixkana kristau egiten, kristau-giroa sortu zuten mixiolari aiek Kabilatan, bataio, ezkontza, illerri-kristau eta abarren bitartez.

EMAKUMEA MIXIOLARI

Bereala konturatu zan Lavigerie gizonen lana ez zala naikoa eta emakume arabeak emakume kristauak bear zitula bere laguntzarako... Emakume batek erreza-egoa ikutu zezakeen beste emakume baten biotza eta arabeari bere nekeetan lagundu...

Pentsa eta egin: andre Mixiolari Zurientzat lekaidegia sortu zuan 1869'an Arjel'en bertan. Euren kargu egongo ziran gaxotegi, umezurtzen-etxe eta eskolak.

Bada kristau-errian "Sodalicio de San Pedro Claver" deritzan elkarte, mixioetara joan gabe, mixiolarien alde zuurki jokatzeko duena. Lucerna'n sortu zan: Esklabotasunaren aurkako Kongreso eratu zan eta bertan Lavigerie'k itz egin. Berba aiek zirikatu Maria Teresa Ledochowska kondesea etorri zitzaion eta topaketa artatik sortuko zan Mixioen aldeko elkarte berria.

MIXIOLARI-ARAUAK

Bere mixiolarietarako arauak berak ematen zitun; baiñan, orretzaz kanpora, bakoitzari ere idazten zien bere aolkuak emanezeta gogoa jazoz... eta euren lane-

tarako dirua Europa eta Canada'n eskatzen zuan bertara apaizak eskean bialduta. Arjel eta beste Ifarraldeko Afrikako errietan amar milloï urrezko franko banatu zitun.

AFRIKA ERDIRA

Ebanjelioa Afrikaren ertzetatik zebillen, baiña Afrikaren biotzik ez zuan ikutu oraindik.

1878'garren urtean Livingstone eta Stanley esploradoreak Kongo inguruetakoa beuroen ibillaldiak amaituta zeuzkaten. Ibillaldi oien ondorio bezala Nazioarteko Elkarte bat eratzea erabakita zegoan erri aieri zibilizazioa eramateko: europar arteak, produzio-bideak eta sal-erosketak batez ere.

Asmo oiek orrela zirala, Lavigerie'k Aita Santuarengana jo zuan, Elkarte orrekin batera mixioak sortu bear zirala esatera. Eta bera, bere seme-alabekin, prest zegoela toki aietara joateko. Pio IX' garrenak esandakoa onartu zion, baiña, erabaki ori aurrera eraman baiño lenago, il zan.

* * *

LURRALDE BARRIAK

Odoren etorri zan Leon XIII'garrenak, Otsaillaren 4'an, 1878, Mixiolari Zurieiri Victoria, Nyanza eta Tanganika zingiren inguru guztiak eskeiñi zizkien mixioak eraitzeko. Garai aietan zailtasunez betetako tokiak ziran aiek... luzeak eta zabalak.

Gazte batzuek pozik prestatu ziran lan artarako. Iru mixiolari bialdu zitun basamortuan zear Tomboctou zeritzan errira, ifarretik egoaldera; baiña, bidean erail zituzten. Bialdu zitun beste iru eta suerte berdiña izan zuten. Sahara'ko are legorrek kristau-odolez buzti ziran.

Une artan esan zitun Lavigerie'k itz auek:

"Euskalduna naiz eta mendia zuzenean igaro ezin ba'dut, zearka egingo det... eta tontorretik edo aldamentetik beste aldera igaro gabe ez naiz etsiko. Burugogoren entzutea ez dugu alperrik eramaten."

Erditik eta zuzenean joan ezin eta orduan egoaldek bialdu zitun: Marsella'n ontziratu ziran amar mixiolari Zuri itsasotik egoalderuntz, Afrika-kostatik zear. Eldu ziran Zingira Aundietara; ez, ordea, osorik taldea.

* * *

MIXIOLARIETZAKO AOLKUAK

Mixio-postu berri bat sortzerakoan auek gogoan izan:

Arabeak esklabu-tratorako dituzten tokietatik alde egin mixio bat sortzerakoan, esklabutasuna ostropo galanta bait da kristauak egiteko.

Protestante-mixioa dagoen tokietan ez mixio-katolikorik sortu, naastea sor ez daiten bertakoen espirituetan. Alde egin amar kilometroan gutxienez.

Toki osasuntsua izan dedilla, jende-tarte onekoa eta emankorra lurra bertatik bizi aal izateko. Onartzen ez bait zaituzte, alde egin beste erri batera.

* * *

ERRITARREN IZKUNTZA

Izkuntzari buruz:

Sei illebate igaro ezker mixiolariak erriaren mintzoan berba egingo dute, euren artean ere bai.

Osasuna:

Bearrezkoa da eta orregaitik alde egin leku kutsatuetatik eta etxeak toki airosoan jaso.

Janariak:

Bertakoak izan bitez beti. Norberentzako norberak atera bear du jatekoa, Europa'tik edo Propaganda Fide'retik laguntzaren zai egon gabe. Orretarako lenengo egunetik asi matsondoak aldatzen, garia ereiten eta abar. Lan auetarako bearrezkoak dira Anaiak, mixiolariak eurak espirituen lanerako egon bear bait dute gorputz eta espirituz.

Dotriñari buruz:

Kristautasuna zuzenean erakutsi; baiña, ez gauza danak asieratik. Lenengo gizaki guztieri dagokiezan Jainkoarekiko egiak; ondoren Jesus'en berri eman eta Elizarena, eta kristautasunean oiñarrizko diran egiak. Egi oien ondorioak gerorago etorriko dira. Eragozpen aundienak eskontzatik datoz: poligamian bizi dira eta emazte bakar batekin konformatzea ez da erreza...

* * *

MAILLAK

Biurtzeari buruz:

Elizaren asierako egitarauak berritu zitun Aita Santuaren baimenarekin eta irumailak ipiñi biurtze-bidean: eskabidea egiten zutenak, katekumenoak eta bataiatuak. Kristau-bizitzak eragozpen aundiak zitun giro artan eta aurrera egindakoak atzera egitean, eragozpen oiek ziralata, beste kristaudentzako beatz-topo izan ez zitezen, ortarako ipiñi zitun iru maillak.

Lehengoan erakutsiko zitzaien izakiaren oiñarrizko egiak, kristautasunaren argitan. Bigarren maillan, krista-

sunezko egi zakonak, baiña sakramentuetatik bat bakarra: bataioa. Eukaristia eta elizkizunik ez. Irugarrenean ez da sekreturik izanen.

Lehengo maillan gutxienez bi urte; eta beste bi, bigarrenean. Lau urte oiek igaro eta gero, eta mixiolariari egoki iruditzen ba'zaie, orduan eman bataioa. Zerbait alditan, ordea, ohea izango da bataioa eriotzako ordurarte luzeratzea; batez ere poligamia arazoan, emakume batekin konforme izango ez ba'dira.

* * *

EGINDAKOTIK ZERBAIT

Lavigerie 1897'an il zan. Andik ogeita amar urte baiño lenago, Uganda'ko erri nagusian katedral berria eraiki zuten. Bear izan ziran milloi t'erdi ladrillu Mixiolari Zuriak egindako labetatik sortu ziran, uri nagusitik kilometro batzuetara, eta andik errira kristauak eraman zituzten beuren bizkarretan.

Nazioko agintariak an ziran.

Kantuak apaiz gai beltzek osatutako Schola Cantorum'en mende.

Kristauak bertan irureun milla baiño geiago ziran eta katekumenoak beste orren beste. Lurrak osasundu, bideak urratu, erri berriak sortu... Kristautasunarekin batera onura guztiak eraman zitun Lavigerie'k eta bere Elkarreak Afrikan zear...

Dei ukigarri bat egin zien Frantzia eta Eurlona'ko seminarioei, Afrika beltza Kristorentzat irabaztek 3. Bere deiari erantzunez etorri zitzaizkion mixiolari-gaiak Frantzia, Belgika, Holanda, Alemania eta Canada tik. Guztien biotzean asmo bakarra: mundu beltza Kristorentzat irabaztea.

* * *

CARTAGO'n ILLOBIA

Il zanean bere gorpua Cartago ko eliz-nagusian eortzi zuten, berak aurretik bedeinkatutako illobian.

ARRINDA'TAR ANES

LEKUONA “ZAARRA”

Gaztetasuna ez da urteekin neurtzen dan gauza.

Badira urte gutxiekin zaartzen diranak eta urte asko ondoren beti gazte irauten dutenak.

Auetakoa degu Don Manuel Lekuona “Zaarra”.

* * *

1915 urtean, an dago...

Ez zan oraindik apaiz, Gazteiz'ko Melo y Alcalde jaunak, Apaizgaitegi Nagusian, euskal-irakasle ipiñi zuanean gure Don Manuel au.

Urrengo Apezpiku jaun Eijo y Garay jaunak agindu zion Kristau-Ikasbide-Berria (Pildain agurgarriak egindako lan eder ura) euskerara itzultzeko, gero Arzizpreste-Batzordeak eta Euskaltzaindiak ontzat eman zezaten.

1916'an, Meza Berria.

1908'tik aurrerako ikastaro guztiak Gazteiz'ko Apaizgaitegian.

Aurreko ilkastaroen Balearrain'en eman zien asiera, amar urte zitula Talde artakoa degu Don Jose Miel Barandiaran ere.

1894'an jaiotako, Oiartzun'go Etxetxiki kalebaserrian.

* * *

1924 da, Lekuona'ren zaindaripean, Kardaberaztarren urtea. Don Manuel'entzako ez zan ori lanaren asiera, ordurako Euskeraren arloan asita bait zeukan bere maixutza Gazteiz'ko Apaizgaitegian.

Arrezkero Kardaberaztarrok beti bera izan degu, sortzaizle ez-ezik, baita maixu eta eusle ere.

Gazteiz'ko Apaizgaitegia degu bere lanen lekuko bereizia. Urte aietan, 1936'arte, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa'ko gazte saillak izan zituan bere ondoan, ikasi miñez.

Talde aien artean erein zuan azia, eskuak-bete.

* * *

Lurrera botatako azirik ez da sekula erabat galdu: gutxien uste danean ernetzen du eta bere emaitzak eman.

Ereintza aien emaitzak? Izen asko daude esatekoak, baiña bost bakarrik auke-ratuko ditut. Beste guztiok barkatu. Ona bost izen oiek: Albisu, Arostegi, Irigoyen, Kortajarena eta Loidi.

Oiekin batera Kardaberaztarren orduko izen guztiak jarri bearke nituzke. Benetako emaitzen neurria ez du iñork sekula jakingo, saill osoak ekin bait genion Euskera-jokoari. Nere uste argalerako, uraxe da Lekuona Zarra'ren egintzarik ederrena.

* * *

Urteak pasa dira eta ez gutxi.

Gazteak giñanok aguretu gera; bera, ordea, beti beziñ lirain eta gazte.

Kardaberaz Eskolan, gaurko egunez, oraindik bera irakasle. Bere euskal-jakin-tza agortzen ez dan iturria degu. Euskera erabiltzen maixu da. Gure izkuntzaren eskutuki guztien berri ba du.

Alaz ere, maixu apala.

Iñoren iritzietarako itzal eta begirume aundikoa.

Ez du, pitzatutako kañaberarik ebagiko ezta, kea darion krisaillurik itzaliko ere. Arnas artzen lagundu, bai.

Gaurko egunez maixukeriz agertzen gera, bear baiño geiagotan, ezer gutxi dakigunok. Lekuona Zarra ez dezu kasta oietako maixuen artean topatuko. Bere iritzia emango dizu; Euskerari buruzko erarik garbienak eta jatorrenak agertuko dizkizu, maixukeririk gabe.

Bide onena erakutsi, beste bide onak madarikatu gabe.

Askatasun giroan.

* * *

1930'an ezagutu nuan.

Mutill gazteak giñan. Diktadura ondorengo askatasun aizea nabari zan aidean. Giroa udaberritu zan, eta, giro artan, Euskal zaletasuna zabaldu.

Don Manuel'ek berak euskeratutako Kristau Ikasbide Berria genduan ikasgai. Liburuxka arreri buruz egiten genduzen Euskarasaiaketa guztiak. Bakoitzak asteero lantxo bat egiñ, eta gero danen aurrean irakurri. Batak eta besteak beuren iritzia agertu. Akatsen billa ibilli oi giñan Euskal urratsak orduantxe ematen asi. Sei urtez Euskera eta Euskalerra'ri itsatsita genbiltzan, maixu-onen ardura-pean...

Eta oraiñ orduko lan aietara bildu gera berriro.

Lekuona "Zaarra" beti gazte.

* * *

Eleiztar literatur lanak ere ba du zer ikusirik gure Lekuona Zaarra'rekin. Melo y Alcalde Gotzai jaunak jarri zuan Apaizgaitegiko euskera-irakasle. Gotzai orren ondoren etorri zan Aita Zakarias'ek, berri'z, bere gotzai eskutitzen euskal itzultzaile egiñ zuan. Berdiñ ondoren etorritako Don Mateo Mujika'k ere. Euskeraz agertu ziran eskutitz aiek, Don Manuel'en ixilleko lanak dituzu. Lan aipagarriak.

Ixilleko lanak, ordea, ez dira amaituko, ba diraute oraindio.

Liturji itzulpen lanari buruz ari natzaizu. Zer lan dan eta zer lan izan dan, itxuak ere ikusten du, ikusi nai badu. Literatur eskola sortuta dago. Lan izugarria egiñik da. Garrantzi aundiko lana, eta aiñ garrantzitsu jotzen dan eta aiñ nolabait planteatzen dan Euskera "batua" ren alorrean, aiñ xuxen.

Vaticano II'en ondoren liturji berritze lanak ez dute etenik izan. Meza eta irakurgai berritze ekintza ez da urteetan gelditu. Asierako berritze guztiak euskeratzerako, orra denak zaartu, eta aien orde z berri berriak sortu. Don Manuel'ek eta bere lagunak berriro euskal itzulte lanetan, Leen baiño irakurgai geiago. Askoz ere ugariagoak

Or daude parroketako liburutegietan lenengo aldiz ateratako Jaietako Mezak, Deunen Mezak eta Jaiegunetako Irakurgaiak. Euskera jator-ederrean eta batasun baten inguruan.

Liburu oiek historiara pasata daude. Galdu ala, geituko da beuren prezioa. Ondorengo euskal-ikasleak ur oietara jo bearko dute, Euskeraren jatortasun-billa.

Ortxe aztertu bearko.

Itzultzaileak asko dira. Euskalki guzietako idazleak, eta batera etorri diranak. Oien fruitua ez da aaztuta galtzeko gauza.

Don Manuel Lekuona 'Zaarra' (goitizena berak jarri dio bere buruari) liturji-itzultze-lan auetarako, zuzendaritzarako alegia, egiña zegoen. Gauzak ez dira txiripaz gertatzen; emen beintzat, ez dira ala gertatu. Bere bitzita osoan lan orretarako bere burua jazten ari izan dala deritzait.

* * *

Apaizgaitegiko idazle eskolako lanak garrantzi aundikoak izan badira gure Maixu onen bizitzan, liturji itzultze lanak ere izan dira zeredo zer.

Lana egiñ, lana eragiñ eta beti itzalean gelditu.

Ori izan da, urte askotan zear, Lekuona Zaarra'ren jokabidea.

Noiz-bait, orratio, argitara ere jaso zuten.

1950'an Euskaltzaindiako sarrera egiñ zuan, eta ogei urte beranduago bazkun orren buru jarri zuten. Iru urte iraun zuan bere gidaritzza Euskaltzaindiaren barnean.

Ango gidaritzatik irten bearra geuk ere itzalean utziko degu. Illunpean. "Gaua, gauekoentzat" zioten gure arbasoak. Ez da egunik, gaurik gabe. Gauarekin illuna.

"Illuna sortu zait, ama,
betilko biotzean..."

Ori esateko aiña ere ez da izan. Illunaldi luzeak, ordea, ez zaizkio falta Don Manuel'en bizitzari.

Desterrua Calahorra'n izana du.

Amalau urte: 1940'tik 1954'ra.

Amalau urte luze, erritik at. Aurretik beste lau illunpean.

Illunpean; baiña, lanean.

Lanak, Lasarteko Brijidaen Ixtoriz gañera eta batez ere, illunpe orretako lana, "Fuentes de la Madre Rafols?". Ciencia Tomtista aldizkarian agertu zan artikuloa. Izenik gabe agertu ere. Txiripazko edo obeto esateko, probidentziazko arkitze baten ondorengoak izan zan lan ura.

Desterru garaian, berriz, Calahorra'ko elizbarrutiko artxibuetan erre zituan bere betilleak. Ixill uneko amalau urte aietan Euskalerrriaren berriak ikasi zituan makiña bat paper-zaarartean...

Urte luzeak. Aiek ere bearrezkoak, gizona bere elburura elduko bada. Osatu-ko bada. Suak ematen dio galtzairuari bere tenplea.

* * *

Aurretik, erdian eta ondoren Euskalerrriko ikerketa (historiari buruzkoak aipa nai ditugu) askotan parte artutako gizona degu. Aitatu ditzagun azken uste auetako bakan batzuek: erromaniko aurreko eliza Astigarribia'n, eta urte onetan bertan, Alzo Aspiko eliza erromanikoa.

"Greco" margolariaren bi kuadro berak arkitu zituon Leniz Gatzaga'n bata eta Zestua'ko Iraeta'n bestea.

Asunzion Arrazola lekaimeari, bere "Renacimiento de Guipúzcoa" tesis egitean, zuzenbidea billatzen lagundu zion.

Eta abar.

Erririk-erri ibillia degu, erri bakoitzeko historiagerpena egiten.

* * *

Saiatu izan da Erri jakintza lanetan ere, Barandiaran Jose Miel'ekin batera. Ildo orretan bersolaritzza maite izan du, batez ere. Aozko literatura aztertu izan digu, Euskalerrria'n iñork baiño leen eta iñork baiño obeto. 1918'an, Gasteiz'ko Apaiz-gaitegian, eskola-urteari asiera emateko itzaldian, "La Métrica Vasca" izan zuan gai. Euskalbertsoak nola neurtu bear ziran erakutsi zigun.

Andik urte batzutara, 1930'an, Bergara'n egindako Congreso de Esdulos Vascos artan, kopla zaar eta bersolaritzari buruz ekin zion, arazoari bear zan garrantzia emanaz. Sagardotegi zokondoetan zebillen bersolaritzari Donostia'ko Kur-saal aretoraiño'ko bidea berak ebaki zion.

Lan aien ondorengoak ditugu gaurko bertsolaritxapelketak.

* * *

Amaitzeko:

50 urte dira Kardaberaz Bazkuna bere ardurapean sortu zanetik.

Urreestaiak.

Bidezkoa zan Kardaberaz Bazkunak bere maixuaren lanak argitaratzea. Zuzentasunak eskatutako ondorena da. Biotzak, zer esanik ez.

Lan guztien bilduma, zatika aterako da, gai auen neurrira:

Kritika, Kondaira, Etnografia, Kultura, Olerkiak, Antzerkiak, Literatur-gaiak eta abar.

Tori, Don Manuel, gure eskeintza, esker onarekin batera.

Eta zu, irakurle, sartu zaitez barrura, "ardiak paotxetara" bezela. Jana ugaria dezu, osasungarria eta gozoa. On egin dizula.

A. ARRINDA

1975-III-17'an.

"Aozko Literatura" liburutik

Kardaberaz Bilduma M. Lekuona.

LOTSAGALDUA

Aurtengo udaran gertatua xeetasun guztiekin. Istori onen ardatza 5 urte betetako umea degu. Obeto esanda: lau illebeta falta 5 urterako. Idurre ipiñiko diogu izen, bere izena ori ez bada ere.

Idurre neskatxoa, bi urte luze, gaixorik egona degu, gerritik beera ieltzoz lotua. Ibilli eta mogitu ezin. Oiñak motelak eta geldi; baiña, mingaiñan artu ditu anketan falta zaion indar guztiak...

Nai ditun guztiak egiten utzi eta laga diote. Bai, ba, zer egingo diozu gaixoari...? Ieltxotik bernak askatu diotenean, zeñek aguantau? Lenago egin ez ditunak, oraintxen danak batera. Biurri dabil.

Bere ama gaztea, gizaki urduria eta olatuaren mutur-muturrean doana, politika arazoetan bezala, euskeran ere. Eztabaidak ez dira falta etxean bi arazo auri buruzkoak guraso gazte eta zaarren artean.

Sendatu zan gure Idurre eta orain dira kontuak; errietan egiten diote okerkeri bakoitzeko eta erantzunik ematen laga ez. Baiña, berak asmakizuna asmatu du: errietan asten diran bakoitzeko, aopean asiko zaizu marmarrean:

—Aoiuaepeukepokerapa...

—Ixilik egongo al zera...!

—Apapumamoitokiopipurraaa...

—Ixilik egoteko...!

—M uumuikikokarakapupakaka...

—Baiña, ori zer da...?

Beetik gora, mamorrueen ikuspegitik, amari begiratu eta, antxintxika eta arin-aranga pasillora iges dijoala:

—Ori...? Euskera batua.

ZUEK ERDERA...!

Beste batean, telefonoa deika: Rin, rin, rin...

—Zein da?

—Ni, Idurre.

—Ola, illobatxo, ondo zagoz?

—Oso ongi.

—Gure etxera etorriko zera?

—Bai orixe. Gustora.

—Amatxo etxian dago?

—Bai, etxian dago.

—Esango diozu telefonora etorteko?

—Bai, esango diot.

Ixil-unea. Badirudi telefonotik beste aldera ez dagoela iñor. Izekok:

—Idurre! Idurre! Or zagoz?

Telefonoa ixilik; ez du iñork erantzuten.

—Idurre! Mesedez, amaxori esan etorteko!

— *Qué tal estás, izeko?*

—Baiña... Idurre!

— *Qué tal te encuentras, izeko?*

—Baiña, Idurre! Zer izketa da ori? Esan amaxori etorteko!

—Bai, zuk neri erritan egin eta gero zuek, amatxo eta zu, beti erderaz telefonotik...

MAITASUNA, NUN?

Ala galdetzen zuan, oraindik orain, euskaldun izparringi batek.

Maitasuna usoa ba'litz, Euskalerriko mendietan ez luke atsedetik izango; arizti oparoak (nola esan lezaioke "roblea" ariztari, Euskeraren bizkarretik parre egiteko ez bada?) galdu ziran gure artetik.

Ordez, piñua.

"Insignis", ori bai. Piñurik arloteena.

Papera egiteko (eta bitartean errekek iltzeko) bestetako balio ez duan zugaitza. Ezer ederrik egiteko balio ez duan piñua...

Piñua ote da arlotea ala gu euskaldunok ote gera arlote? Dirua eta diru errezaren ondoren gabiltzan artean, arlotetasuna agertuko zaigu maiz eta ugari.

Usoak aritza maite.

Maitasunak ere eskatzen du bere giroa.

Nun da maitasuna?.

Usoa balitz, gure artean atsedetik ez.

Ezta aritzez beterik ba'leude gure euzko-mendiak; aritz-azpian beti izaten bait da asmo gaiztoko eiztariren bat gora begira...

Gutxi izan, burnia bezela txingudi eta mailluaren artean egon, eta, alaz ere, alkarri mokoka, alkarri zaunka, alkarri ortzaka.

Maitasuna, nun?

Leizeren batean gordeta ez bada, agerian beintzat ez degu ikusten. Izan ere, maitasunak bere giroa bear du eta giroa ari zaigu aspaldian aldatzen.

Era bat.

Gure errietako aizeak, zenbait egunetan, zikiñak janda daude; arnas-biderako gaiztotuak. Erreka zuloetan, ur gardenik ez. Edateko gai dan urik ez da gure ibaie-tan nabari. Mendi garbirik ez dago: sasia eta sastrakea edonun. Eta, axariak ugari.

Mendiak zikiñ eta pintxodun alanbrez esiak...

Kaleetan, autsa eta kea.

Giroaren semeak geranez, zikiñ-giro onetan garbi irauterik ez. Miña sartzen zaigu barnean arnasatik ere eta, ortik kontuak atera...

Zikiña, zerrikeria, mingoizkeria, oiek ez dira maitasunaren giroa...

Maitasuna, nun? Ala aurretik, maitasuna, zer?

Zer dan: nolakoa dan...

Zer? Gauzak zer diran ez da erreza gaur jakiten.

Edaten ditugun ardoak ardo al dira? Jaten ditugun gaztaiak gazta al dira? Artzen ditugun olioak olio al dira?

Zeiñek daki.

Gaurko egunez edozer mistifikatzen da, edozer aldaerazten da.

Maitasuna ere bai.

Maitasuna en antz-irudia arpegian, norberekeria eta egoismoa dabill ugari eta nun-nai. Ni eta neu, neroni eta neronena, nerea eta neretzako, nerekin eta neretzaz...

—Zu, maite, neretzako... (Orra zenbait maitalarien itz jarioa).

Zu, neretzako. Maitasuna al da, ala norberekeri utsa?

—Ni, maite, zuretzako... (Ez al litzake au maitasunezko egiazko jardunketa?).

Geure barruan sartzen geranean eta munduaren ardatz geure buruak egiten ditugun ordu artan bertan iltzen degu maitasuna en azia.

Ordu artan gelditzen gera puntu bat baiño txikiago: geurekeriaren atzaparretan itoak. Zer da gauza eskasagorik bere burua besterik maite ez duan giza-emakumea baiño...?

Aundi nai eta txikarragorik eziñ.

Bidea aldatu degu; atzera-martxan jarri gera.

Eta atzean, ezer-eza dago. Amiltegia.

Nolakoa da maitasuna?

Biotzak zabaltzen dituna.

Norberekeritik kanpora ateratzen gaituna.

KQKAK

Lagunari (gizaseme, abere, izaki gustieri) eskua luzatzeraz beartzen gaituna.

Biotzaren ateak parez-pare irikitzen diguna.

Apala.

Bekaizkeri eta inbidirik gabea. Justizian oiñarritua. Egiaren laguna...

Orra or usoa gure arbolarara...!



MARX, JESUS ETA BURGESKERIA

Bien artean 1.800 urte. Alde aundia biak berdinez izateko.

Jesus'ek: Anaiak zerate Aita bakar baten semeak zeratelako.

Marx'ek: Anaiak gera eta tximiñoen lengusu, materia utsetik sortu geralako.

Eta abar...

Euskalerriko semeak, kristau zaarrak, Kristautasuna zapuztu ondoren, ateismora jotzen ari dira...

Ori, guzi ori, Burgeskeriaren aurka.

Burgeskeria zaku zaar aundi bat dezu, bertan sartzeko konbeni ez zaizkigun gauza guztiak:

Kristautasuna, burgeskeria dezu...

Zenbait euskalikastola (guk geok erabiltzen ez ditugunak) oiek burgeskeria dituzte...

Zenbait euskal-aldizkari, burgeskeria dituzte...

Euskera bera ere (nolakoa dan) burgeskeria dezu...

Zenbait euskal-alkarte (gureak ez diranak) burgeskeria dituzte...

Burgeskeriaren aurka amorratuta, baiña *itzez* bakar-bakarrik.

Egitez, ordea, burgeskeriaren alde: aotan ainbeste dezuna, kolkoan palta, alegia. Ez nihoa gauzak banan-bana aztertzeraz, ez. Goiko malla batean geldituko naiz.

Gizarte burges-aberatza *berez* atea da: aberastasuna bait du burgeskeriak elburu bakar. Gizarte-aberatza *berez* ateo eta *berez* burges.

Marxismoa ere atea da.

Emen alkar jotzen dute Marxismo eta Burgeskeriak.

Marxismo ateoak, beste aldetik berriz, erri pobreak aberastasunera eramanez dituzte eta ori lortzen duanean, orra Marxismoaren ondoren, gizarte aberatze atea, burgesa ura ere... aberastasunak eramanez bait gaituzte burgeskerira.

Guk asiera nundik deguz Burgeskeriari ajolik ez. Baiña, nora goazenez eta zertarako geranez, orrek bai, orrek ajola aundia emanez dio Burgeskeriari... Zertarako geranez ...? Dirua sortzeko, utilitatea sortzeko, irabaziaz ateratzeko...

Burgeskeria en elburu bakarraz, urrea.

Bitartean Jainkoaren izen ona ondatzen dala...? Ajolik ez.

Gizonaren izana ondatzen dala...? Ajolik ez.

Izadiaren giroa ondatzen dala...? Ajolik ez.

Dirua eta irabaziaz, besterik ez dago emenez.

Eta Marxismoak zer...? Marxismoari gure sortzerako iturburuak kezka ekartzen diote eta erabakiaz artutaz dauka: materia utsetik sortu gera gu.

Materiatik sortu bagera, materia deguz elburu, gu sortzean besterik ez zalako. Eta materiari materia urrea deguz: onek bait du pixua aundi eta kolorea eder...

Urrea, Burgeskeriak bezela.

Urrea, utilitatea, produkzioa, estajanobismoa, orra *berez* zer elburu agertzen diranez... Beste elburuak kanpotik eantzita 'daude, eta zenbait Kristautasunetik artuak, millatik goraka urte zituan Europa kristauan sortu bait zan Marx eta bere Marxismoa.

Orra nun Marxismoak eta Burgeskeriak berriz ere alkar jotzen dutenez: biak ateo eta biak materia elburutzat.

Biak alkar borobildu dute: Burgeskeri ateoetik Marxismo ateoaz, Marxismo ateoetik berriz ere Burgeskeri ateoaz...

Kaiolan sartuta gaudela, alegia, arratoia bezela.

Kaiola ortatik irtetzeko Marxismoari (Al bada) gora dijoan atea iriki bearko zaio: materia utsezko atea besterik ez badu, ate ortatik, berriz ere, gizarte ateo aberats burgesera goaz...

Materia utsa jaun da jabe. Jainkorik ez, espiriturik ez.

Marxismoa eta Burgeskeria alkarrenez osagarri, alkarri lotuta ateismoaren ardatzean, jira ta buelta, beti bereanez...

Kristautasuna tesis bada eta Marxismoa antitesis, sintesis bat billatu bearko, edo ta Kristautasunera berriz biurtu.

ANES-1972

MAKAILLAUA PIPAR-AUTS ETA PATATAKIN (Lekeitio'ko Arranegi kaletik)

Nere amama Pillipak egiten eban lez esango dot. Ba eukan dendatxo bat Arranegi kalean, txikia baiña supermerkatu baten antzekoa: milla gauza ezberdiñak barruan ebazan.

Etxeko ateetan egoan bi metroko mostradore bat eta beronen baztartxo batean kaña-pattar boteilla bat kopatuakin. Atsoak etorten zirean:

— Pillipa, emoixu kaña kopatxu bat.

Sartun eta eskumara koipe-poto aundi bat, bertotik olixua emoteko. Aldamenian ogiak eta saku-patata bat. Barrurago txapiñak eta txanklo egurrezkoak kabanara joatekoak, artile-galtzerdiak eta narruzko bota untzedunak. Dindilizka txorizuek, koipe-puxikak, estekak eta gantzak gazitxuta. Baita albarketak be, umetxuentzako zapatatxuak eta eurak zirutzeko eta bazteko pastak. Baita “bola maravillosa”k be erropia garbiteko.

Txarritxu bat, eun kilokoa, ilten eban amabostean bein eta dendako bodegan eukazan arrizko aska batzuk urdaiak gazitzeko. Urdaiakin gazitzen ziran gantzak eta urdaiatzekoak.

Makaillaua be saltzen eban eta ale eder bat egoten zan ateetako orman kale-ertzean. Makaillaua neguan eta urdaiatzeko urdan. An joaten nintzan urdan amamaren etxera eta egun baten, gizon bat pasa zan urdaiatzekoaren aldamenetik esanaz:

— Arrinda'tar surraundixok ez dozak txarto bizi.

A urdaiatzeko saltzeko zan, baiña, guk be, amamaren illobatxuok, jaten genduan ondartzan baiñua artu eta gero.

* * *

Makailluaren buztana ez eban iñok be nai izaten eta gure amamak mostradore azpian gordeten ebazan. Dozena bat batzen ziranean, lurrezko kaxuela batean ipintzen ebazan, egur-ikatzagaz berotuta.

Onela:

Makaillaua ur otzetan beratu ogeita lau ordutan, zati meiak diranean. Lodiak ba'dira denbora geiago biar dabe. Zatiak zelakoak diran, egun bi be bai.

Olixua imiñi sartainean kipula gorriakin. Tipula gorritzen danean, piper-autsa bota koillarakada bat. Segundu bi naikoa dira, arin erretzen dalako piper-autsa.

Gero ura bota eta patatak imiñi zapal-zapal ebagita.

Patatak egiten diranean, orduan makaillaua bota azala gorantz dauala. Aurretik eskamak kendu makailluari.

Amar minutu edo amabost naikoa dozuz. Gure izeko Gardalupe'k esaten eban ze:

— Patatak gitxiago eta gozeago.

ARRINDA'tar ANES

ITUN BIZI NAZ

Arana-Goiriren "Lenago il" olerkiaren doñuaz abestu daiteke.

Itun bizi naz,
beti naigabez,
nekegarri iat bizia;
Anai-tarteko
burruka ankerrak
zatitu du Alderdia;
pozez zorutzen
ta algaraz dakust
gure betiko etsaia;
naiago neuke
Euzkadi baiño
nerau lenago iltia.

Zar eta gazte,
gizon eta andre,
euzko endaren sendia;
ez daigun galdu
Arana-Goirik
itxi euskun ondoria;
zaindu gogotsu
ta itxaropentsu
beragandik ikasia;
ezergaitik ez
iñoiz ukatu
Euzkadiren izatia.

Oi euzkotarrak,
ene anaiak,
egin daiguzan bakeak;
alkartu eta
itxi betiko
banakuntzak ta asarreak;
zabaldu beingoz
Euzkadigaitik,
guztiok biotz-ateak;
alkarte onek
erreztuko dauz
Euzkadirentzat bideak.

Euzkadi dogu
guk Aberria,
ez España, ez Prantzia;
zapaldu eta
deusezta da
etsaiaren guraria;
ZIN egin daigun
il arteraiño
bere alde jokatzia;
obe dogu ba
ikusi baiño
Euzkadiren il-zoria.

GOIRIA

MAO ETA BATASUNA

Askotan pentsa izan dut, Mao'k bere eskuetan indar guziak izanda, zergatik ez ote zun txinar idazkerarik aldatzen.

Gaitza eta zailla bait da txinar idazkera.

Ainbeste zirriborro letra bakoitzeko...!

Bost zailtasun eta **iru geiegizko** omen ditu idazkera ideografika orrek. Ona iru geiegizko oiek: 1/letra edo izki geiegi; 2/izki oien era geiegizkoak; Mesan ere era askotara esaten dirala.

Bost zailtasunak auek dira: 1/ezagutzen gaitzak; 2/irakurtzen gaitzak; 3/idazten gaitzak; 4/gogoratzten gaitzak; 5/klasifikatzen gaitzak.

Guretzako gure izkuntzetako izki bakoitzak soiñu eta ots bakar bat du; txinatarrentzat, berriz, izki bakoitzak soiñuak ditu asko ta desberdiñ eta idea bakarra, gogaia bakarra...

Izki bakoitzari gogai bakar bat dagokio.

Orretan dago gure eta txinarren arteko alde aundia.

Idazteko-makina batek zer zailtasun ditun ez goaz esatera ere: ogeita bost kiloz goitik pixatzen du txinoz idazteko tramankulu batek... Eta ura erabiltzeko bear diran trebetasun eta kemenak...!

Gauzak orrela badira, idazkera ori aldatzea bearezkoa da. Ori edozeiñeri datorkio burura. Mao'ri ere bai. Zergatik ez ote du egiñ, indar guziak bere eskuetan bazitun...?

Korapillo zaarra ori.

Aska gabea, gaiñera.

Kristo-aurreko III'en gizalditik asita zeuden Txina'n zailtasun oiak aska eta arindu nairik... Izki-ugartitasuna **iru millatan** esi nai izan zuten orduko agintariak; baiña, alperrik, basoko perretxikoak bezela ugaltzen bait dira izki berriak... Oraindik-orain (1955 urtean) izan zuten billerak **amar milla** izkiak (idazkera normaletan erabiltzen diranak) **millara** beartzeko...

Korapilloa zertan dagon:

Gure idazkerak belarrietan jotzen gaitu, txinar idazkerak berriz buruan...

Z-o-r-tz-i idazten dedanean izki bakoitzak bere soiñu berezia du: bost soiñu **Zortzi** idazten badet, itz ori euskaldunak bakarrik ulertuko du; baiña, **8** jartzen badet erdaldunak ere ulertuko du, baiña onek ez du **zortzi** esango **ocho** baizik... Bide-zabaletan

ibiltzeko seiñaleetan ere berdin gertatzen da: seiñaleak bakarrik izan da ere, izkuntza bakoitzetan dituzte itz bereziak... Seiñale bakoitzak du bere esatekoa, ikasi egin bear ordea zer esan nai duten... Txina'n izki bakoitza trafiko-seiñale bat da, ta zer esan nai duen ikasi bear. Orrelako izkiak idazkera normaletan erabiltzen diranak **amar milla** dira... Zer zailtasun dakarren orrek berekin...!

Ikasi ezkerero ez dira izkiak bakarrik ikasten izkien esan-naia ere bai, gauzak berez nola diran ere bai... Eta ori bentaja aundia da.

Txina erri oso da zaar eta ugaria. Millaka urteetan idazkerako izkiak **zer-esan-naikoak** erabilli dituzte beti. Baiña, lurralde bakoitzean izki oiek bakoitzak bere erara irakurtzen ditu: orra idazkera bakar bat Txina guzian eta izkera asko desberdiñak... Txina'ri batasuna idazkeratik datorkio. Idazkera ori, ikasi ezkerero, edozeiñ izkuntzetako txinoak ulertzen dute; irakurtzen ikasi bear, ordea... Eta lan orretzek ditu **iru geiegizko** eta **bost zailtasunak**...

Nolatan geiegizko eta zailtasun oiek kendu?

Txinar idazkera gure idazkera biurtuta: soiñu bakoitzari izki bat egokituaz.

Orrek gauza erreza dirudi.

Errezegia.

Txinar izkuntzekin zer egin gero? Bat aukeratu batasuna egiteko, besteak ill.

Baiña... (beti dira baiñiak erabakibear guzietan) orrek izkuntza eta kulturaren aberastasunaren ondarmendia dakar, pobretasuna; batasun guzieren aldearantzia pobretasuna bait da. Oiek aurrera eramateko indar eta indarkeriak baditu Mao'k, asmoa berriz 1949-X-10'an artu zuten (Agintaritzara eldu eta amargarren egunerako); baiña oraindik asmo ori aurrera eramateko daude, batasuna egiteko izkera aukeratu bazuten ere... Pekin'go jakintsuen izkera aukeratu zuten Txina guzirako: Mandarin-izkera, alegia. Batasun aundia zuten elburu eta bideak errazak ez baziran ere, eskoletan umeai eta gazteai erakutsi ezkerero... Indarrak eskuetan zituzten, Batasuna gauza guzietan ikurrin eta alaz ere... Zerk galdi arazi du burdia...? Mao'k ogei urte balitu egin zuan batasuna: Txinar Batua... Baiña, Jakinduria urteekin dator (etortzen bada) eta Batasuna lortzeko zer galduko dan begien aurrean eduki bear.

A. ARRINDA

MARI MONTESSORI ETA PEDAGOJI BERRIAK

Eun urte dira Mari Montessori jaio zala.
Eun urte betetzean, "Armes International de l'education" antolatu du UNESCO'k, Montessoriri omenaldi.
Nun?
Erroman. 1970'an.
28 nazioko larogei errepresentante.
Danetara seireun bildu dira batzarrean...

Mari Montessori berez medikua zan, baina bokazioz eskola-maixu edo ikastol-andereño.

Erromako San Lorenzo ballaran egin zituan bere asiera-asierako lanak umeen artean... Bere gixara utzita zebiltzela estudiantuaz umeak, ume oien aziera ta ezierarako legeak arkitu zituan ta asma-kizun berriak asmatu: "Lois vistales et fondamentales qui gouvernent le developpement psychique et intel lectuel de Pendant...".

Puntu artatik asi zan Montessori lege oieri so egiten eta metodo ta xistema berriak asmatzen, "des methodes actives", alegia: egin-kizunaren bitarteko era berriak asmatu zituan umeak ezitzeko...

Geldirik ezin egon dan umeak, ibiliz erakutsia ta ezia izan hear...

Beren arteko aurtu-emanetan umeak, txikienak ere, persona bezela tratatzen zituan Mari Montessorik.

Umeak persona izan nai du.

Persona izatera eltzeko, bere lege bereziak ba ditu aurrak... "qui a ses loin de developpement propre...".

Mari Montessorik ala dio bere liburu batean: "Cet enbyron spirituel quest l'enfant se developpe suivant un plan. Un homme est cache, un enfant inconnu, un etre vivant sequestre, qui'l faut liberer. Cest le devoir le plus urgent de l'education; et clans ce sens, liberer, c'est connaitre; it s'agit done de decouvrir l'inconnu".

Ezkurra ez da aritza, baina aritz ori bere ezkurretik etorriko da geldiro ta ziur; umea ez da gizona, egunen batean gizon izatera elduko diran indar ta almenak baizik.

Gaurko umea, biarko gizona. Baina gaur, ume oraindik.

Indar eta almen oieri askatasuna prestatzea izanen da ezikera ta edukazioaren eginkizunik bearrezkoena... Askatasun ori prestatzeko umearen ezagupidea egin hear au'retik...

Guk umea ezagutzen ez, ordea.

Gu gizonok bezelakoa ez dalako, izaten ditugu umea ezagutzeko ainbeste eragozpen...

Elburu auetaraino eltzeko umearen ezikeran, etxe ta familiaren antzeko bearluteke izan ikastolak... Bere gixara, aske ta libro, inoren indarkeririk gabe, umea here etxean... Ikastolak bear litzazke norbere etxearen antzeko: maixuaren begipean, ez indarpean... Begirunez ta maitekor tratatuak...

Giro orretan, emeki-emeki baifia ziurki, aurraren indar guziak, bere gaitasun bereziekin, zabaltzen joango dira klabelina irikitzen dan bezela, kemen oien apurrik galdu gabe, nola gorputzeko ala anima ta espirituzkoak ere... gorputzaren giarrak aina espirituaren sentiminak ere...

Pixkanaka, apurka aurra, jolasean bezela lanean ere, here bu-ruaren jabe-gai izan dedin, umeari bere kasa ekiten ta ibiltzen utzi bear... gauzak eskuetan erabilliaz, lanean ekinaz, geldirik gabe... berak billatu ta arkitu bear bere kasa, maixuaren eskutik datorkio-naren zai egon gabe alperkerian...

Egonean-egon ez baina ekinean-ekin bear du umearen ikasbide ta ezibide...

Orixe izan da izan ere, Mari Montessorik umien ezikerako arkitu zuan bide barria: "methode active" izenakin esagutu izan degun xistema berezia.

,

Lehenago, aurraren ezikerari buruz, ekinaldi guzia maixuen eskuetatik zetorren; gaur, berriz, ekinaldia aurren eskuetara pasa da.

Umiak egin.

Maixuak, so.

Ezikera berri onekin ez da bat ere maixuaren eginbearra ta inportantzia meetzen, ez...

Ezta gutxiago ere.

Lehenago, umeak beartuta bezela artzen zuan maixuak ematen ziona; gaur, berriz, xistema auekin, aurrak berak aukeratzten ditu gauzak, here ariz ta bere indarrez berberak ikasten ditu berriak...

Maixuaren aurrean...

Maixua eredu dela...

Maixua ispillu dela...

Aurrak, eragozpenik gabe, gogo-txarrik gabe, bildurrik gabe, onartuko ditu maixuaren bizi-erakutsiak ta maixuaren laguntza.

**,*

Atsegin zaio gizakiari, gordeta dagoen zerbait arkitzea, illun-beetakoari argi egitea, iges dijoanari atzematea... Aurrari ere atsegin zaizkio orrelako lanbideak ta oietan ari dela, gorputz-animen indar guziak ezitzen ta azitzen zaizkio, ta, bide batez, biziaren atsegina ta maite izatearen ederra agertzen zaio begien aurrean... Ta "zer ikusi, ura ikasi".

Baina, maixua bear aurrean ejenplo ta eredu.

Aurrarenganako mesprezio igingarria litzake, ikasbide oien artean, Jainkoaganako biderik emango ez baginuke... Garbiak ditu begiak, areago biotza: "zorionekoak biotz-garbikoak, Jainkoa ikusiko bai dute...". Jainkoarekin errex asko alkartzten da ume-biotzgarbia... Eta guk, begilaudunok, alkarte ori ezin degulako, umeari uko...?

Ta jokabide zuzena da ori...?

Lausoa begietan, lizunkeria asmoetan, biu-rikeria biotzetan ta nola arranetan, espiritu utsa dan Jainkoa ikusi nai dugu...?

Ta guk ezin doguna, umeari galerazi...?

Ta, ori da zuhurjokatzea...?

Ta, ori da zuzen jokatzea...?

ARRINDA'TAR ANES (1970)

MARIZULO'KO TRAKURRA

Millaka urte pasa dira Marizulo'ko leizean artzai bat lurperatu ebenetik ona. Alboan arkumetxu bat eta txakurra ditu berekin batera eortziak. Beste munduan be, arek ez zekien ofiziorik artzai baiño eta artzairik ez dago txakur barrik. Orregaitik edo bialdu ebezan biak alkarrekin beste mundura.

* * *

Txakurra izan da beti gizonaren lagunik onena. Gizonarentzat bakarrik bizi dana. Eta gizon orrekin bakarrik bizi nai dauana, sekulan asarrebarik. Uzten ba'dozu utzi, zeuk iges eginda, segituko dautsu ondoren eta aurkitzen zaitudanean, a zelako pozak eta saltoak. Ez deutsu sekulan zure jokabide eskasa arpegira botako. Ez, ori ez.

* * *

Gura guraso zaar-zaarren denbora atan txakurrari panteoirik ederrena emon eutsen bere negusiakin batera beste munduko bi-

deak egin aal izateko. Sepulturarik ederrena aiz-zulo baten ateetan.

Kolza - olioaren okerrak agertu aurretik, «pulmonia atipica» gai-

* * *

xoagaz, jendea iltzen egoala-ta, txakurrari bota eutsien kulpa guztiak, eta, beste barik, asi ziran txakurrak akabaten amorru guztia-gaz. Txikota be argalenetik eten ei da... Zenbait udaletxetan be txakurren kontrako legeak emoten dabez gelditu barik, eurentzako eragozpenez baztarrak beteten. «Txakurrik, Ez»: kaleetan, ez; ondartzetan, ez; baratzetan, ez, etxeetan, ez... Txakurra gizonaren lagunik onena: gizona txakurraren etsairik zantarrena, gaiztoena. Garbitasuna aitzaki. Izan be, gizona ain garbia da bera, ze... Ondarzteetatik tonelada asko zikiñ ateratzen dabez bein da birritan eta geiagotan urtean zear... Txakurrenak? Ez baldekara bat be. Txakurraren lagun kutunarenak, bai.

Oraindik-orain txakurrak il dabez Miravalles'en pozoiez. Eriotz larria txakur koitaduentzat.

* * *

Txakurra, bizi aal izateko, gizonaren bearrean da; baiña, erri askotan txakurrentzat lekurik ez dau gizonak uzten eta lagatzen. Gizonari lotuta dago, gizonaren mende eta zenbaitek, txakurra bear izanda be, ostikoz erabiltzen dau. Alan, be, txakurra beti gizonaren lagun gabaz nai egunez...

* * *

Txakurtxuaren otoitxua:

Jauna, egizu neu gizonaren serbitzuan nagoan bezela, egon dadilla bera Zeurean eta lagunurkoarenean; nik bere gauzen arduradodan lez, izan dezala berak be zurea; ni bere mendean nagoan antzera, egon dadilla bera be zeurean. Nik bizitzeko gizona bear dot eta berak Zu. Ori ezagutzeko argia egiozu nere Jaun Gizonari.

ARRINDA'tar ANES

"EUSKERAZALEAK" IPUIN-SARIKETEAK

EUSKERAZALEAK Taldeak, igaz lez, ipuin-sariketea eratzen dau. Sariketa onetara sartzeko, oneik izango dira baldintzak:

- Euskera biziz idatziak izan bearko dabe. Erriak darabilen euskalkietariko bat erabilliaz idatziak.
- Ipuin itzulpenak ez dira onartzen.
- Luzerea, iru orri-alde, bitarte bi lerroartean dituela.
- Epea: Orrillaren azkenerako gure lan-etxean (Colón de Larreategui, 14, 2.ª eskoia) izan bearko dabe.
- Sariak: Iru sari izango dira: 1.ª 30.000 pezeta; 2.ª 25.000 pezeta eta 3.ª 20.000 pezeta.
- Ipuin sarituen jabe "EUSKERAZALEAK" izango da eta ZER gure aldizkarian argitaratuko dira. Sari barik geratzen diranak, idazleen esku geratuko dira eta eurak billa etorri bearko dabe.
- Oitura dan lez, ipuiña izen-ordeaz bialdu eta izen-orde ori gainean daroan azal baten barruan sartu izen-ordea ta izena batera daroan txartela.
- Maikoen erabagia, uztailleko ZER'en agertuko da.

MARX, JESUS ETA BURGESKERIA

Bien artean 1800 urte. Alde aundia biak berdin izateko.

Jesus'ek: neba-arrebak zerate Aita bakar baten seme-alabak zeratelako.

Marx'ek: Anaiak gera eta tximiñoen lengusu, materia utsetik sortu geraldako.

Eta abar...

Euskalerriko semeak, kristau zaarrak, Kristautasuna zapuztu ondoren, ateismora jotzen ari dira...

Ori, guzi ori, Burgeskeriaren aurka.

Burgeskeria zaku zaar aundi bat dezu, konbeni ez zaizkigun gauza guztiak bertan sartzeko:

Kristautasuna, burgeskeria dezu...

Zenbait euskal-ikastola (guk geok erabilten ez ditugunak) oiek burgeskeria dituzu...

Zenbait euskal-aldizkari, burgeskeria dituzu...

Euskera bera ere (nolakoa dan) burgeskeria dezu...

Zenbait euskal-alkarte (gureak ez diranak) burgeskeria dituzu...

Burgeskeriaren aurka amorratuta, baiña **itzez** bakar-bakarrrik.

Egitez, ordea, burgeskeriaren alde: aotan ainbeste dezuna, kolkoan palta, alegia. Ez nijoa gauzak banan-banan aztertzeraz, ez. Goiko malla batean geldituko naiz.

Gizarte burges-aberatza **berez** atea da: aberastasuna bait du burgeskeriak elburu bakar. Gizarte-aberatza berez ateo eta berez burges.

Marxismoa ere atea da.

Emen alkar jotzen dute Marxismo eta Burgeskeriak.

Marxismo ateoak, beste aldetik berriz, erri pobreak aberastasunera eraman nai ditu eta ori lortzen duanean, orra Marxismoaren ondoren, gizarte aberatz atea, burgesa ura ere... aberastasunak eramaten bait gaitu burgeskerira.

Guk asiera nundik degun Burgeskeriari ajolik ez. Baiña, nora goazen eta zertarako geran, orrek bai, orrek ajola aundia ematen dio Burgeskeriari... Zertara-

ko geran...? Dirua sortzeko, onurea sortzeko, irabazia ateratzeko...

Burgeskeriaren elburu bakarra, urrea.

Bitartean Jainkoaren izen ona ondatzen dala...? Ajolik ez.

Gizonaren izana ondatzen dala...? Ajolik ez,

Izadiaren giroa ondatzen dala...? Ajolik ez.

Dirua eta irabazia, besterik ez dago emen.

Eta Marxismoak zer...? Marxismoari gure sortzerako iturburuak kezka ekartzen diote eta erabakia artuta dauka: materia utsetik sortu gera gu.

Materiatik sortu bagera, materia degu elburu, gu sortzean besterik ez zalako. Eta materiari materia urrea degu: onek bait du pixua aundi eta kolorea eder...

Urrea, Burgeskeriak bezela.

Urrea, onurea, irabazia, orra **berez** ze elburu agertzen diran... Beste elburuak kanpotik erantsita daude, eta zenbait Kristautasunetik artuak, millatik goraka urte zituan Europa kristauan sortu bait zan Marx eta bere Marxismoa.

Orra nun Marxismoak eta Burgeskeriak berriz ere alkar jotzen duten: biak ateo eta biak materia elburutzat.

Biak alkar borobildu dute: Burgeskeri ateotik Marxismo ateora, Marxismo ateotik berriz ere Burgeskeri ateora...

Kaiolan sartuta gaudela, alegia, arratoia bezela.

Kaiola ortatik irtetzeko Marxismoari (al bada) gora dijoan atea iriki bearko zaio: materia utsezko atea besterik ez badu, ate ortatik, berriz ere, gizarte ateo aberats burgesera goaz...

Materia utsa jaun da jabe. Jainkorik ez, espiriturik ez.

Marxismoa eta Burgeskeria alakarren osagarri, alkarri lotuta ateismoaren ardatzean, jira ta buelta, beti berean...

Kristautasuna tesis bada eta Marxismoa antitesis, sintesis bat billatu bearko, edo Kristautasunera berriz biurtu.

ARRINDA'TAR ANES (1972)

MILIA LASTUR'KO

Lastur Deba erriaren auzoa dozu.

Zestua, Elgoibar, Mendaro, Deba eta Itziar ditu inguruan zulo baketsu orrek.

Gipuzkoan diran baztar bakan-bakan orreitariko bat. Mendiak ingumarian.

Bakardadean.

Ara ez da oraindik kontaminaziñorik eldu.

Urte gutxi dira bide-zabaleko muturtxo bat luzatu zala, Itziar'aldetik Lastur'ko enparantzara. Enparantza edo zezen-plaza; Itziarren eta Lasturren enparantza zezen-plaza biurtuta dauke.

Enparantza oso txikia: taberna eta eliza alde batean, zezenentzako ikuillua bestean eta arri-esia bira guztian.

* * *

Lasturko jaiak beti zezen-jaiak izaten dira. Edozein baserritan izango dozuz larrabeiak eta larra-zezenak. Gorriak eta motzak, latiñez ikasitekoak. Tolosa, Azpeiti, Ondarrabi, Urretxu, Deba, Zestoa eta abarren sokamuturrik edo zezenik izango bada, Lasturko zezenak bear. Sakatarrak baztar areitako nagusienak zezen-arazoetan.

* * *

Itziar'tik Endoia'ra doan bidean sortzen da Lasturrerako adarra. Milla bederatzireun eta larogeita seian adar ori luzatu dabe enparantzatik Sasiola'raiño Bilbo'tik Donosti'rako bidearekin topo egiteko.

Lasturrerako bide-kurutzean daukazu Aldazabalene, baserri eder galanta. Karliten azken gerratean Santakruz abade gudariak izan ei eban bere gordelekutzat. Sakon dago etxea, Lastur sakonago badago be. Ez eban bista txarrik izan apaiz burrukalariak etxe ori bere gordeleku aukeratzeko; ez egoan bide-zabalik orduan andik Itziar'arte.

Andik oiñez berak eta bere mutillek ordu bete naikoa eben Deban, Zumaian, Zestuan, Izarraiztik beera Urolaren ibarrean, Elgoibarren edo Mendaron agertzeko. Bide-zidor guztiak ara joten eban eta andik urten. Basamortuaren erdian. Aukerako lekua bere burua gor-

detzeko eta bertatik inguru osoan bere zartakoak banatzeko...

* * *

Lasturko alabe zan Milia.

Aita aberatsaren alaba. Aberatsa abere asko-duna da; Lasturko baserriak abere askodunak dira: aberatsak. Baiña, Milia'rena oso aberatsa zan. Milia Lasturretik Mondragoera joan jakun Peru Garzia de Oro jaunarekin ezkontzeko. Milia gazterik il zan, eta Peruk Marina Arrazola ezkondu aurretik ezagutzen eban. Milia il baiño lenen, Marinari ezkontzeko errekadua egin eutsen. Miliaren aizteari ez jakon atsegin izan Peruren jokabidea eta orixe agertzen dautso illeta-egunean bertso-kantari:

Zer ete da andra erdiaen *zauria*?

Sagar errea eta ardao gorria.

Alabaña, kontrario da Milia, azpian lur otza ta gañean arria.

Lasturrera bear dozu, Milia, aitajaunak eresten dau elia, amandreak apainketan obia; ara bear dozu, andra Milia!

Jausi da zerurean arria, arkitu dau Lasturren torre barria, edegi dio almeneari erdia; Lasturrera bear dozu, Milia!

Arren, ene andra Milia Lasturko, Peru Garziak egin deusku laburto, egin dau andra Marina Arrazolako; ezkon bekio, bere idea dauko.

* * *

Garibay historiari mondrautarrak dakaz bertso oneik. Lenengo lerroan "zauria" izena azpimarratu dogu, itz orreri buruzko eztabaida dagoelako gaurko egunez. Garibayek orrela dakar eta Jesus Maria Leizaola, gure bigarren lendakariak be bai bere Obras Completas bigarren alean 21'garren orrialdean. Alan be, askoren iritzian eta nerean ere bai, "zauria" ez baiño "saria" bear leuke izan.

ELERTIA

Zer ete da andra erdiaen *saria*?
Sagar errea eta ardoa gorria...

Emengo edariak txakoliña eta sagardoa ziran; orreïn ondoan ardo gorriak obeto laguntzen eutson aurra izan-dako emakumeari bere odolek barritzen. Gaur be erdi-tutako andreari "ikustaldia egiten jakonean ardo gozoa eroaten jako eta ez txakoliñik edo sagardorik.

Garibayek bertso orreïn azalpena be emoten dau , onelan:

—"Su padre baxaba gran hato de ganado para sus funerarias": "Aita jaunak eresten dau elia". Aitak jeisten dau (menditik eleizara) elia (talde aundia, abereena). "Gran hato de ganado" da "elia" Garibayren iritzirako eta itzulpen ori ondo datorkio Lasturreko izateari, abere-taldeak asko bait dira gaur be inguru areitan.

Aita jaunak abereak menditik jeisten ekarten dauzan bitartean "ama andreak apainketan obia", illobi edo sepultura. Sepultura-apainketa gureraño eldu da; orain ogei urterarte oitura zan sepultura gaiñetan ogia, argizaria eta beste janari mota geiago eskeintzeko ildakoen onerako, baita arkume, aari, zikiro eta beiak be. Miliaren aitak abere-taldea zekarren menditik eleizara illetak aundikiro ospatzeko asmotan.

1911'garren urtean ona zer ikusi eban Domingo Aguirre euskal idazleak Oikia'ko eleiz atarian: idi gizen bat eleiz-atarian lotuta, apaiz-manteo baltza gaiñean eballa, lau-librako ogiak bere adarretan sartuak. Oikia'ko erretorearen aita illaren eleizkizunetan ari ziran...

* * *

Peruren arrebari ez jakon gogoko izan Lasturkoaren esana eta bat-batean emon eutson erantzuna:

Ez du Peru Garziak bearrik
ain gatx handia apukaduagatik,
zeruetako mandatua izanik
andrari ok ala kunpli jasorik.

Gizon txipi sotil baten andra zan,
ate arte zabalean oi zan,
giltza porra aundiaren jabe zan,
onra andi asko kunplidu jazan.

Ez dakigu zenbat luzeroko eztabaida izan zanik; baiña, Garibayek badakar beste bertso-sail bat Miliaren aiztearenak. Onelan diño:

Arren, ene andra Milia Lasturko,
mandatariak egin deust gaxtoto.
Zerurean jausi da abea,
jo dau Lasturko torre gorea,
eroan ditu ango jauna eta andrea,
bata leen, gero bestea.
Bialdu dogu zeruetara karteia,
arren diguela geure andrea.

Mondragoeri artu deusat gorroto,
giputz andra ok artu ditu gaxtoto:
Iturriotz-kalean andra Maria Baldako,
Arte-kalean andra Otxanda Gabiolako,
Erribalean andra Milia Lasturko.

Zerk amatau ote eban andre-bersolarien argia? Illeteetan beti izan dau andre euskaldunak bere eginkizun bereizia sepultura gaiñetan egiten ziran lanetan; baiña, gero eta gitxiago. Ogei urte dira eleizetan sepulturak galdu dirala; baita emakumearen zeregiña be. Illeteetan bertsoak esateko oitura zaarra noiz aldendu ete zan gure artetik? Une aretan galdu ete ziran gure artetik andre euskaldun bertsolariak...?

Emakumeak ba-eban giro aretako euskal-gizartean bere nortasuna, aiztearen senarrari, danen aurrean, bere irizpideak eta arrazoibideak arpegira orrelan bota aal izateko.

* * *

Nundik jaso ebazan Garibay jaunak bertso oneik?
Abade baten agotik entzun ei ebazan, umetxoa zala.
Juan de Oñate zan abadea, Mondragoen bizi zana.

Milia Lasturko ei zan bere amamaren ama.

ANES ARRINDA

MILIA LASTUR'KO

Lastur Deba erriaren auzoa dezu. Zestua, Elgoibar, Mendaro, Deba eta Itziar ditu inguruan zulo paketsu orrek. Gipuzkoan dauden baztar bakan-bakan oietako bat. Mendiak ingurumarian.

Bakardadean.

Ara ez da oraindik kontaminaziorik eldu.

Urte gutxi dira bide-zabaleko muturtxo bat luzatu zala, Itziar'aldetik Lastur'ko enparantzara. Enparantza edo zezen-plaza; Itziarren eta Lasturren enparantza zezen-plaza biurtuta daukate.

Enparantza oso txikia: taberna eta eliza alde batean, zezenentzako ikuillua bestean eta arri-esia bira guztian.

Lasturko festak beti zezen-festak izan oi dira. Edozein baserrietan izango dituzu larrabeiak eta larra-zezenak. Gorriak eta motzak, latifñez ikasitakoak. Tolosa, Azpeiti, Ondarrabi, Urretxu, Deba, Zestua eta abarren sokamuturrik edo zezenik izango bada, Lasturko zezenak bear. Sakatarrak baztar aietako nagusienak zezen-arazoetan.

Itziar'tik Endoia'ra dijoan bidean sortzen da Lasturrerako adarra. Milla berderatzireun eta larogeita seian adar ori luzatu dute enparantzatik Sasiola'raiño Bilbo'tik Donosti'rako bidearekin topo egiteko.

Lasturrerako kurutzebidean daukazu Aldazabalene, baserri eder galanta. Karlisten aizken gerratean Santakruz apaiz gudariak izan omen zuan bere gordelekutzat. Sakon dago etxea, Lastur sakonago badago ere. Ez zuan bista txarrik izan apaiz burrukariak etxe ura bere gordeleku aukeratzeko; ez bait zan bide-zabalik orduan bat ere andik Itziar'arte.

Andik oiñez berak eta bere mutillak ordu bete naikoa zuten Deban, Zumaian, Zestuan, Izarraiztik beera Urolako baillaran, Elgoibarren edo Mendaron agertzeko. Bidetxigor guztiek ara jotzen bait zuten eta andik irteten. Basamortuaren erdian. Aukerako lekua bere burua gordetzeko eta bertatik inguru osoan bere zartakoak banatzeko...

Lasturko alaba zan Milia.

Aita aberatsaren alaba. Aberatsa abere asko-duna da; Lasturko baserriak abere askodunak dituzu: aberatsak. Baiña, Milia'rena oso zan aberatsa.

Milia Lasturretik Mondragoera joan zitzaigun Peru Garzia de Oro jaunarekin eskontzeko. Peruk, Milia gazterik il zan, Marina Arrazola ezkondu aurretik eza gutzen zuan eta Milia il baiño lenen, Marinari ezkontzeko errekadua egin zion.

Miliaren aizpuri ez zitzaion batere atsegin izan Peruren jokabidea eta orixe agertzen dio illeta egunean bertso-kantari:

“Zer ete da andra erdiaen zauria?
Sagar errea eta ardao gorria.
Alabaña, kontrario da Milia,
azpian lur otza ta gañean arria.
Lasturrera bear dozu, Milia,
aitajaunak eresten dau elia,
amandreak apainketan obia;
ara bear dozu, andra Milia!
Jausi da zerurean arria,
arkitu dau Lasturren torre barria,
edegi dio almeneari erdia:
Lasturrera bear dozu, Milia!
Arren, ene andra Milia Lasturko,
Peru Garziak egin desku laburto,
egin dau andra Marina Arrazoleko;
ezkon bekio, bere idea dauko”.

Garibay historiari modrautarrak dakartzki bertso auek. Lenengo lerroan “zauria” izena azpimarratu degu, itz orreri buruzko eztabaida dagoelako gaurko egunez. Garibayek orrela dakar eta Jesus Maria Leizaola, gure bigarren lendakariak ere bai bere Obras Completas bigarren alean 21'garren orrialdean. Alaz ere, askoren iritzian eta nerean ere bai, “zauria” ez baiño “saria” bearko leuke izan.

“Zer ete da andra erdiaen saria?
Sagar errea eta ardoa gorria...”

Emengo edariak txakoliña eta sagardoa ziran; oien onduan ardo gorriak obeto laguntzen zion aurra izandako emakumeari bere odolak berritzen. Gaur ere erditutako andreaki “bixita” eramaten zaio ardo goxoa eta ez txakoliñik edo sagardorik.

Garibayek bertso oien azalpena ere ematen digu, onela esaten duanean:

–“Su padre baxaba gran hato de ganado para sus fenerarias”:

“Aita jaunak eresten dau elia”. Aitak jeisten dau (menditik eleizara) elia (talde aundia, abereena). “Gran hato de ganado” da “elia” Garibayen iritsirako eta itzulpen ori ondo datorkio Lasturreko izateari, abere-taldeak asko bait dira gaurkoz ere inguru aietan.

Aita jaunak abereak menditik jeisten ari den bitartean “ama andreak apainketan obia”, illobi edo sepultura. Sepultura-apainketa gureraño eldu da; orain ogei urterarte oitura zan sepultura gaiñetan ogia, argizaria eta beste janari mota geiago eskeintzeko ildakoen onerako, baita arkume, aari, zikiro eta beiak ere. Miliaren aitak abere-taldea zekarren menditik eleizara illetak aundikiro ospatzeko asmotan.

1911'garren urtean ona zer ikusi zuan Domingo Aguirre euskal idazleak Oikia'ko eleiz atarian: idi gizen bat eleiz atarian lotuta, apaiz-manteo beltza gainean zuela, lau-librako ogiak bere adarretan sartuak. Oikia'ko erretorearen aita illaren eleizkizunetan ari ziran...

Peruren arrebari ez zitzaion gogoko izan Lasturkoaren esana eta bat-batean eman zion erantzuna:

Ez du Peru Garziak bearrik
ain gatx andia apukaduagatik,
zeruetako mandatua izanik
andrari ok ala kunpli jasorik.
Gizon txipi sotil baten andra zan,
ate arte zabalean oi zan,
giltza porra aundiaren jabe zan,
onra andik asko kunplidu jazan.

Ez dakigu zenbat luzeroko eztabaida izan zanik; baiña, Garibayek badakar beste bertso-sail bat Miliaren aizparenak. Onela diote:

Arren, ene andra Milia Lasturko,
mandatariak egin deust gaxtoto.
Zerurean jausi da abea,
jo dau Lasturko torre gorea,
eroan ditu ango jauna eta andrea,
bata leen, gero bestea.
Bialdu dogu zeruetara karteia,
arrear diguela geure andrea.
Mondragoeri artu deusat gorroto,
giputz andra ok artu ditu gaxtoto:
Iturriotz-kalean andra Maria Baldako,
Arte-Kalean andra Otxanda Gabiolako,
Erribalean andra Milia Lasturko.

Zerk itzaldu ote zuen andre-bertsolarien argia? Illeteetan beti izan du andre euskaldunak bere eginkizun bereizia sepultura gainetan egiten ziran lanetan; baiña, geroz eta gutxiago. Ogei urte dira eleizeetan sepulturak gastatu dirala eta galdu; baita emakumearen zeregiña ere. Illeteetan bertsoak esateko oitura zaarra noiz aldendu ote zan gureartetik? Une artan galdu ote ziran gureartetik andre euskaldun bertsolariak...?

Emakumeak bazuan giro artako euskal-gizartean bere nortasuna, aizparen senarrari, danen aurrean, bere irizpideak eta arrazoibideak arpegira orrela bota aal izateko.

Nundi jaso zitun Garibay jaunak bertso auek? Apaiz baten aotik entzun omen zitun, umetxoa zalarik. Juan de Oñate zan apaiza, Mondragoen bizi zana.

Bere amamaren ama omen zan Milia Lasturko

ARRINDA'TAR ANES

MUAMMAR EL GADDAFI

LIBIAK 3.400.000 BIZTANLE DITU ETA 1.759.540 KILOMETRO LAUKI. PETROLEO ASKODUN ERRIA ETA BATAZ-BESTE BIZTANLE BAKOITZAREN IRABAZIA 10.000 DOLARREKOA DA URTEERRO (MILLOI TERDI PEZTA). BERAZ, ERRI ABERATSA ETA ORREGAITIK EDO, TRIPOLI DERITXON URI NAGOSIAN, EDOZEIÑEK DAU "PEUGEOT" EDO "TOYOTA" BAT.

* * *

Petroleoren berakada aundi onetan, nekazaritzan ipiñi ditue euren begiak. Esate baterako, Zirenaika deritxon aldean, gari-solo izugarrien artean, eundaka ekterea sagarrez bete ditue. Bigarren urte onetan asita Golden eta Starking sagar ederrak jasoten dabez.

1980'garren urtean petroliotik 24.000 milloi dolar atera ebezan; orain, barriz, 8.000'ra jatsita dagoz eta orixe izan da nekazaritzari begiratzeko arrazoibidea.

Toki orreitan 20 egazkin bereizi daukez ongariak eta momorroak ilteko darabiltzen gaiak zabaltzeko.

Tripoli inguruan beste orrenbeste gertatzen ari da. Baserriak jasoten dabez: etxea, traktore bat, bei bi eta irurogei ardi eskeintzen dautsez utsean baserritar izan nai dabenai. Orreikaz batera 25'tetik 50'etara ekterea. Fin jokatu ezker 20.000 dolar ateratzen dabez; baiña geienak, 12.500'etan gelditzen dira. Lanik egiten ez daenari irugarren urtean guztiak kentzen dautsoez baserritar barria sartzeko.

* * *

Orain 16 urte El Gaddafi koronelak Libia'ren aginpidea artu ebanean, erri osoa arez betetako eremu bat besterik ez zan; gaur, barriz, zearo aberastatuta dagoz petroleoari eskerrak... naiz-eta gauza asko alperrik galdu eskuartean.

Jendeak esker onez ikusten dau El Gaddafi'ren garaiako aldaketa izugarri au.

* * *

Ara aldaketa batzuk:

Medikuntza-arloan, besteetan lez, aldaketea aundia izan da. 1970'garren urtean Libia osoan 40 (berrogei)

sendagille egozan. Gaur 2.000'tik gora dira. Ori ez da guztia: 1984'an eraikitako Ikastola Nagusitik 200 (berreun) sendagille aterako dira urte oro. Ikastola on Bengkazi'ko urian dago eta ba-dauke erri orretan atzerapenak jotako umeentzat berebiziko lekua, aurrerapenez bete. Sendagille orreitatik, lauren bat, emakumeak dira. Berau be, arabeen arteko errietan, ez da gero aurrerapen makala...

* * *

Beste arlo batean, ikaragarritzko ekintza daroe aurreruntz, Libia osoa urez asetzeko, barru-barrutik kostalderaiño: eremutik Tripoli'ra. Lan orretarako tubo izugarriak, zazpi metro ta erdi luzean eta tau metro diametroan, egiten dabez 1.200 surkoreano langillek. Tubo orreik egiteko lantegiak, ertzeetako osarribarik, bi kilometro ta erdi dauz luze eta kilometro bat zabal. Asmakizuna amerikarrena da, zuzendaritza australiako batek daroa eta lana egiteko Korea ego-aldeko jente langillea.

Baiña, Ian guztietan, libiatar teknikoak dagoz murgilduta lanean gogo aundiz eta itxaropen aundiagoarekin. Petroleoaren berakada onek bultzatzen dauz lana bizkor egiten, berandu baiño lenen.

Lenengo zatia egiña dauke eta 3.300 milloi dolar bertan txautuak. Bigarrena oraintxe asteko. Tuberi bi alkarrekin joango dira eta lau milloi kubiko ur eroan dabez Tnpoli'raiño eta Libian zabalduz. Makiña bat solori emon leio bizia ainbeste urakin.

Bertan Ianean dabillen Korea-egoaldeko injeniero batek esaten ebanez, beste orrelako lanik ez da munduan osotu Txina'ko arri-esi aundia ez ba'da. Axe Ianik aundiena munduan. Ondorengoa, au izango da.

* * *

LIBURU ORLEGIA

Maotzetun'ek Liburu Gorria eukan lez, Muammar El Gaddafi koronel lendakariak be badau bere Liburu Orlegia, Rousseau'ren Kontratu Soziala gogoratzen daena. Bertan ipinten dauz bere asmakizunaren oiñarriak eta, berak diñonez, auxe da Irugarren Teoria Orokorra.

EZAGUNAK

Beste biak zerak dira, Rusoena bat eta bestea Amerika-
rrena.

Bere eritxirako alderdi politikoak ez dabe balio: bakoit-
txak bere askatasuna eta erantzunkizuna ez dauz bes-
teen eskuetan itzi bear, alderdi politikoen eskuetan be
ez.

Baiña, bere barru-barruko asmoa auxe da: Amerika-
rrak zanpatu eta bere burua Sozialista Arabiar guztien
lendakari biurtu.

* * *

1969'garrenean, El Gaddafi aginpidera eldu zanean,
petrolio-konpani guztien jabe egin zan, iraultza barri
bat eratu eta "Jamahiriya" -Aroa sortuz.

Jamahiriya erri zearen aroa da, masaren aroa: Kon-
greso errikoi bat sortu da Libia'n. Auzo bakoitxean,
lantegi bakoitxean, ofizina bakoitxean, ikastola bakbi-
txean sortzen dira alkarteak eta alkarte orreitatik Lege-
biltzarrerara doazen diputaduak eta oneik osotzen dabe
Erriaren Kongreso Orokorra, Libia'ko Estaduaren zu-
zendari.

Batzar errikoi bakoitzak (lantegietan, nekazaritzan,
Ikastola Nagusian...) eratzen dau bizi-modua, lana eta
alobera. Lan gitxiago egin nai ba dabe on euren esku
dago; baiña, orduan jornala be txikiagoa izango da eta
beste batzarrak kontu artuko dautsee ia zergaitik lan
gitxiago egiten daben... Aizkenean, zer? Itzak ederrak.

* * *

El Gaddafi jaunak, iraultza on mundu zabalera eroan
nai dau eta beste Laterrietan gazteak iraultza egin nai
ba dabe, txalogarriak dira eta laguntza zor jake.

Lantegi eta nekazaritza alkargo aundiak, guztiak Jama-
hiriya'renak dira. Alan be, dendak eta lantegiak, bakoit-
tzak berea, sortzea aske da; baiña iñor menpean artze-
rik ez dago, sozio bezala ez ba'da.

Eroskiak auzo guztietan dagoz, Laterriarenak.

Etxeak, barriz, bakoitzarena izan bear dau eta geie-
nak Agintaritzak eraikiak. Iñori norberaren etxea aloge-
ran emon ezin: zeuk erabilli edo saldu; beste biderik
ez dozu izango...

* * *

Liburu Orlegian ez da erlijiorik aitatzen; baiña, alkoo-
la debekaturik dago, arabeen artean legea dan lez. Zine-
marik ezda. Automobillak ugari kaleetan eta tabernatxo
bat noiz-beinka; baita ogi-dendak be. Beste animaziorik
ez dozu aurkituko uri aundietako ibilbideetan zear.

Liburu Orlegia dotriña-liburua da eta Kostitutzioa-
ren ordezko.

Iru zati ditu. Lenengoa: demokraziaren akatsak eta
korapilloak erriaren aginpideak askatzen ditu eta eze-
reztatu. Bigarrena: Ekonomiaren korapilloen askatzai-
llea sozialismoa da. Irugarrena: Irugarren Teori Oroko-
rrak oiñarri soziala dauko.

* * *

Sistema barri onetan, demokrazia komita errikoie-
tan, alkarte errikoietan eta langilleen elkarteetan egiten
da. Guztiok osotzen dabe eta Erriaren Kongreso Oro-
korrean alkartzen dira.

Irakatsi eta ezitzeko munduan dagozan sistema guz-
tiak apurtu bear dira, kultur-iraultza orokor baten bidez,
indarrez ezarri dautsoezan mentalitate, ideia eta gustu
guztietatik gizona askatzeko.

Alogeran oiñarritzen diran lantegi-mota guztiak dese-
gin eta euren orde zozio-arteko alkarteak sortu, arazo
gizartekoak konpondu aal izateko.

Orra or Irugarren Teoria Orokorra. Muammar El
Gaddafi'ren iraultza berri, mundu osoari eskaiña eta,
al ba'da indarrez ezarria.

ANES'ek



NAPARRO ETA FRANTZIA'KO ERREINOA

Santxo VII Indartsua (eta Champagne'ko Etxea)

Santxo. ondorengo gabe il zan eta Naparro-erreinorako bere illoba Teobaldo, frantziar Cachampone-etxekoa, aukeratu zuten (1234-1253) eta aren ondoren Teobaldo II (1253-1279), Enrike I (1270-1274), Juana I (1274-1305). Juana seme-alabarik gabe il zanean, Naparroa'ko Korteak, ordezkook bialdu zituzten Frantzia'ra beste errege baten bila.

Frantzia'ko Etxea

Luis I aukeratu zuten Frantzia-etxekoa (1305-1316) eta Felipe II (1316-1332), Carlos I eta Juana II (1328-1349) Iruña'ko katedralean koroiu zituzten Naparroa'ko Errege Erregiña, baña aurra izatean il zan, ondoren auen seme Carlos II, Evreux-etxekoa aukeratu zuten (1349-1387) eta Juana de Valois, Frantzia-erregearen arrebarekin ezkontzen da. Eta Frantzia'ko erregiña izan nai du. Ingalaterra'ren laguntzarekin gerra egiten dio Frantzia'ri eta ingelesak Naparroa'n agertzen dira. Ori naikoa ez dala, naparrak Albania artzen dute beuren mende eta Grezia, kruzaden aitzakiakin. Erregiña iltzen da eta bereala Erregea. Aien ondoren.

Carlos III, Noblia, (1387-1425) Naparroa'ko Errege ete Evreux'ko Kondea (gero Nemours'ko kondea izango dana, alketa batengatik). Paris'era doa Leonor erregiña Naparroa'n utzita... Alaba Blanca Don Juan Aragoi'koarekin ezkondu eta Carlos aurra jaiotzen da, Carlos III'garrenaren billoba eta orrela ematen dio bere asiera

Aragoi'ko Etxeari

Carlos, Viana'ko Printzea, aukeratzen dute Naparroa'ko Korteak erregerako eta orduan Blanca bere amak egiten du Erregiña'ren lana. (1425-1441) Blanca iltzean, orduan, izango da errege bere senar Juan II Aragoi'koa (1441-1479), naiz eta erregiñak aulkia bere seme Carlos Viana'ko Printzeari laga. Au zan benetako erregea eta bere aitari soka luzeegia laga zion eta aizkenik, burruka sortu zan bien artean. Carlos printzea Naparroa laga eta kanpora joan zan bere ordezko D. Juan de Beaumont Kanzillerra utzita.

Juan II'garrenak Estella'n agramontes'en Korteak biltzen ditu eta berdin egiten du Beaumont jaunak Iruña'n. Estella'koak D. Juan eukeratzen dute errege eta Iruña'koak Viana'ko Printzea Carlos IV izenarekin. Paris'tik Sicilia'ra baztertuta zegoen Carlos... Mallorca'raio etorri zan eta aitaren erreguz Barzelona'ra iritxi zan eta aita kartzelan sartu. Barzelona'n il zan eta susmoak badira aitak pozoitu zuala semea.

Bere ordezko Erreinoan izendatu zuan Don Juan'ek bere alaba txikiena Leonor de Foix, Viana'ko Printzearen orde. Leonor ezkondata zegoen Gastón de Foix'erekin eta biok artu zuten Viana'ko Printzeak'en izena, Carlos'ena zana, onen Blanca beste arreba Orthez'en preso zegoela, il zanean 1464'an.

Leonor gelditu zan erregiñarenak egiten Carlos Viana'koaren lekuan, Don Juan bere aitaren aginduz. Aren seme Gaston de Foix, Gaston'en semea, Magdalena de Valois'erekin seme nagusia izan zuen Francisco izena zuena, eta El Febo (Eguzkia) gaitzizena bere edertasunagaitik. Bi Gaston du Foix dabiltza emen tartean: bat aita eta bestea semea.

Gaston du Foix, semea, Bearne'an baztertuta eta noiz errege izango zai aspertuta, Naparroa'n sartzten da gudari frentzesakin eta Naparroa'ko zati aundi bat bereganatzen du. D. Juan, Erregea, bere alaba eta Gaston'en ama, Leonor'ekin alkartzten da Olite'n, Leonor'ek eramaten bait zuen Erregearen ordezkotasuna Naparroa'n.

Lerin'go kondeak (Beaumont) ez du onartzen aita-alabak Olite'n egiñiko ituna. Leonor'ek, Gaston'en amak, Iruña artu nai du... Anai arteko gerra (Beaumont-Agramont) sortuta dago, Leonor eta Lerin'go kondearen artean...

Gaston du Foix, Leonor'en senarra eta beste Gaston du Foix'en aita, il da eta emaztea Leonor uzten du bi seme-alabarekin, Francisco du Foix, El Febro, eta Catalina du Foix. Don Juan, Leonor'en aita ere iltzen da; baita Gastón gaztea ere, Leonor'en semea eta Magdalena de Valois'en senarra, 26 urterekin (1469-11-22) eta ama Leonor'ek artzen du Naparroa'ko Erreinoaren aulkia.

Foix'eko Etxea

Leonor du Foix, Gaston'en emaztea eta beste Gaston'en ama izango da Naparroa'ko Erregiña 1479 urterarte. Bere ondoren aren illoba Francisco du Foix, El Febo, errege (1479-1483). Foix'tarrak (Pedro Elizaren kardenal eta bere anaiak) alegintzen dira Naparroa'ko anai-burruka baretzen, baña alperrik. Ori ikusita Erregeak, bere Korteia, Pau'ra (Bearne) eramaten du eta amasei urtekin il zan Pau'en. Anaiaren ordeiz, arreba erregiña, Catalina du Foix (1483-1517). Anai-arteko gerra aurrera doa...

Catalina du Foix, erregiña, Juan de Albret'ekin ezkontzen da. Naparroa'ko errege berria Sevilla'ra dioa Fernando "Catolicoa" ikustera. Fernando eta Isabel, bere lengusiña, ezkontzen dira alkarrekin eta bat egiten dituzte Kastilla (Isabel) eta Aragoi (Fernando)... Jarraitzen du anai arteko burrukak Naparroa'n eta Erregeak Lerin'go Kondearen lurraldeak arrapatzen ditu. Eta orrekin pakea sortzen da Naparroa'n. Ez luzerako Kastilla'k Frantzia'ri gerra dala bien artean jakin-erazten dio eta aitzaki orrekin, Naparro'tik bidea eskatzen du Frantzia'ra. Ingalaterra'ko ontziak, Naparroa'ren alde, Pasai'ra etorrita daude. Kastilla'k Naparroa'ri bide zabala eskatu bakarrik ez, artu egiten du bidea Naparroa'n zear: Uztailaren 21, urtea 1512. Naparroa Kastilla'ren mende Lerin'go Kondearen laguntzaz.

Aurretik gauzak onela zeuden:

Leon eta Kastillan, Isabel I / Aragoi'en, Fernando II.

Naparroa'n, Catalina du Foix eta Juan de Albret.

Fernando II eta Isabel I, alkarren lengusu-lengusiña ziran; alaz ere, alkarrekin ezkondu ziran eta orretarako Aita Santuaren baimena bear zuten. Erroma'ko agiri ori, Fernando eta bere aitak asmatutakoa dala, esaten dute zenbaitzuk.

Lerin'go Kondeak, Luis de Beaumont jaunak, eskeiñi zion bere laguntza Fernando'ri. Onek usten zuen Beaumont Frantzia'ren aldekoa izango zala, eta zearo puztu zan orrelako eskeintzakin: aren uri esituak lagun izango zuelako.

1492'an bukatu zuten moroen kontrako burruka, Granada artzean eta andik 20 urtera sartzten dira indarrez Naparroa'n Duke de Alba aintzindari zala. Juan de Albret eta Catalina du Foix, Iruña utzi eta Bearne'ra baztartzten dira. Uztailaren

25'ean Kastilla'ko ikurriña Iruña'ko arresietatik zintzilik dago. Banan banan erri guztiak erortzen dira Kastilla'ren menpean. Eta bere eskuetan agertzen da "Pastoralis Ille Coelestis" Aita Santuaren Bula, agiria, Istoriagillerik ez da falta esango duenik, Fernando berak asmatutako Bula dala.

Fernando'k Iruña'ko Korteak beartzen ditu, bera Naparroa'ko errege bezela artzen. Bederatzi urte beranduago, Pirenee-bidetik gudaroste bat sartzen da Naparroa'n Foix, Bearne eta naparrak osatuta. Erririk erri Iruñe'ra datoz eta erriak beso-zabalik artzen ditu. Bertan gelditu bearrean, frantzesak aurrera jo nai dute Kastilla'ra Los Comuneros'en iraultza bat lertu dalako.

Comuneros'en arazoa nundik sortu zan:

Isabel I il zanean, Fernando'k erregetza bere alaba Juana, La Loca, Austria Etxeko Felipe I, El Hermoso'rekin eskonduta zegoen. Andik urte gutxitara, 1506'ean, il zan Felipe eta Fernando berriro erregetzara biurtu zan. Felipe eta Juana'ren semea zan Carlos I eta au eseriko da errege-aulkian (1517-1556) eta bi urte geroago ilko da Yuste'ko Monastegian (1558).

Umeetatik Flandes'en bizia, andik ekarri zitun bere lagunak, erderaz ez zekite-nak, kargu guztientzako eta Korteak osatzeko... Arrazoi auek eta beste batzuek sortu-arazi zuten Los Comuneros'en iraultza Kastilla, Leon eta bete alde batzuetan. Getaera auek eta Naparro'ko askatasunaren gudarostea, batera datoz. Eta frantzes buruzagiak, Iruña eta beste artutako errietan sendo sustartu gabe, naia-go du aurrera jotzea Kastilla'ra Los Comuneros'en iraultzari esku bat ematera. Logroño artu nai dute aurrera baño lenen, baño uste baño indar aundiago agertu zuten aurka. Iraultzaille Comuneroak menperatuak izan ziran eta padilla, Bravo eta Maldonado buruzagiak eriotzara emanak... Eta, ondoren, frantzes-naparrak zapalduak Noain'en; gudoreste askatzaille onen buruzagia Andrés du Foiz, Señor de Caparrós, izan zan; gaztea, ausarta baño esperientzirik gabea.

Iles egin zuten Frantzia'ra, baño Amayur'en 200 gizaseme napar Agramonte'koak utzi zituzten Kastilla'ren erasoai aurpegi emateko; danak il arte eutsi zioten erriari; eta Kastilla'k oiñarrietaraiño txikitu zuen Amayur eta arrezkero bere napar askatasunaren ikurriñ.

Karlos I, Enperadorea, Iruña'n sartu zan 1523'ren Urrillan.

Benabarra eta Frantzia'ko erreinoa Naparroa'ren Mendi-osteko Seigarren Merindadea

Benabarra zan Naparroa'ren Seigarren Merindadea eta ara bildu ziran Catalina du Foix eta bere senarra Juan de Albert, Naparroa'ko errege-erregiñak. Duke de Alba, Kastillako erasoan buruzagia, alegin batzuek egin ondoren Benabarra menperatzeko, baño gauza eskasa eta gaitza zala ikustean, bertan beera utzi zuan ekintza ori.

Juan Albert il zanean, bere seme Enrique de Albert II eseri zan Benaparroa'ko errege-aulkian (1517-1555), eta Naparroa osoko Errege Izendatzen da. Lege-biltzarra antolatzen du Diru-etxea Saint-palais'en ereikitzen du eta Margarita de Angulema'rekin ezkontzen da. Bere ondorengo izango da.

Juana III de Albret (1555-1572), Antonio de Borbon'ekin ezkondua. Felipe II'garen aurkako gorrotoak eraman zuan bere burua protestante hugonote aitortzera. Aita Lizarraga'ri agindu zion Biblia euskeraz biurtzeko. Eliza katoliko eta bere elizkizunak apurtzen ditu. Beeko Naparroaren erregiñak Felipe II'garrenari Goiko Naparroa eskatzen dio ausardiz eta ez du ezertxo ere lortzen. Orduan

aldarrikatzen du Protestante biurtu dala. Eta bera izango da aurrerantzean Frantzia'ko Protestanten eutsigarririk sendoena.

Bera senarra il zanetik aurrera, ez zuen beste lanik izan katolikoak zapaltzea baiño eta euskaldunetan anaiarteko guda zabaldu zuan. Katolikoak zanpatuta gelditu ziran; beuren eliza eta ermitak birrinduta, errietan apaizen ordeztante hugonote ministroak ezartzen ditu... Baña, alaz ere, Benabarrak katoliko izaten jarraitu zuen. Eta Erregiña'ren gorrotoa eriotzak itzaldtu zuen 1572'an.

Borbon'ak Errege

Juana III erregeiñaren ondoren bere semea dator, Enrike Borbon eta Albret (1572-1610): Naparroa'ko Enrike III eta Frantzia'ko Enrike IV.

Erlijio katolikoa berriztatzen du eta Margarita de Valois egiten du bere emazte. Valois'tarren aizken frutua. Enrike III de Valois Frantzia'ko erregea erailtzen du Pralle Dominikar batek eta aren ordezt, Enrike III, Naparroa'ko erregea, Margarita de Valois'en senarra, Enrike IV tituloakin. Orregaitik da Naparroa'ko Enrike III eta Frantzia'ko Enrike IV.

Errege naparra onekin (Enrike Borbon eta Albret) sartzen dira Frantzia'ko erregetzan Borbon'darrak; gobernuan 1830'arte iraun zuten arte denbora guzian Frantzia'ko Iraultza eta Napoleon'en Inperio ez ezik.

Frantzia'ko errege-aulkera igo zan 1584'an.

Pau'en jaiio eta Protestante ezi zuan bere amak. 1593'garren urtean katoliko biurtu zan, eta ondoren, 1594, egin zuen bere sarrera garaitsua Paris'en. (Berak esan omen zuan au: "Paris'ek ondo merezi du meza bat").

Errege naparra Frantzia'ko Errege izatean, orduan Naparroa'ko Erreinoia (Benabarra) bat egiten du Frantzia'koarekin Naparroa'ko Enrike III ta Frantzia'ko Enrike IV Erregearen persona bakarrean. Errege bakar onek, bere amak bezela, Felipe II bigarrenari Goinaparroa'ren erreinoia ertsiki eskatzen dio.

Pireneetako errino txiki au da Enrike III-IV'rentzak gauzarik aundiena, Iruña'ko erreino txiki oneri itsatsita daude Foix, Armagnan, Comminges, Bigorre eta Maule'ko kondadoak; Limoges, Marsan, Nebouzan, Lautrec, Geraudan'go bizkondadoak eta azkenik Albret eta Bearne'ko estaduak.

Apirillaren 13'an, 1590, ez du nai iñolaz ere Naparra'ko erreinua Frantzia'rekin bat egiterik... Baña Paris'eko Parlamentuak erabaki au artzen du: Erregearen luraldeak eta Frantzia'renak bat egin bear dute, erregea ez bait da persona partikular bat, laterriaren Errege baizik.

Alaz ere, berak Naparroa'ko Lege-biltzarra eta beste arazo bereziak gorde-tzen ditu eta agindu bat ematen du uztaillan, 1607, bere 1590'ko asmoak agertuz esanaz Naparroa erreinu berezia dala eta Frantzia'tik alde nere buruan bakarrik uztartzen dana Frantzia'rekin!

Margarita de Valois ukatu eta María de Medicis'ekin ezkontzen da eta onek semea ematen dio ondorengo. 1610 urtean erailtzen dute eta bere emazte María de Medicis'en semea izango da ondorengo errege-aulkirako.

Luis II Naparro'rako eta XII Frantzi'rako (1610-1643)

Bi erregetzak berezita artzen ditu; baña, 1620'ean, Urrian, bere gudariekin sartzen da Bearne'n, eta il orren 20'an indarrez Naparroa'ko Erreinoia eta Bearne, Donezan eta Andorra, bat egiten ditu danen Lege-biltzarra Pau errian ipiñiaz: ("Naparroa'ko Fuego eta beste libertade guztiak kendu barik; oiek nik gordeko ditudaz betirako").

Benabarra'k protesta bizia egiten du eta lau urtez agindua atzeratzea iristen du, Cardenal Richelieu agintari egite duten arte 1624'an. Benabarre eta Bearneko Agintaritzak bateratzen ditu, Pau errian izango dan "Naparroa'ko parlamento" batean. Alan be euren Lege-biltzarra, Kortés'en ordezkoa, gordetzen dute. Beti bezela Naparroa'n erregeek Fueroa onartu bear dute eta Fueroaren neurrian bere agintaritzak makaurtu.

"Orregaitik, emendik aurrera ere bai, naiz-eta bi koroiak bat egin, beti aitortu bearko dute Benabarra, ez da Frantzia'ren erantsi bat, baizik eta Erreino berezia; orregaitik beuren izena izango da Frantzia eta Naparroa'ko Erregeak".

Luis, Naparroa'ko II eta Frantzia'ko XIII bederatzi urterekin egin zuten errege eta bere ama María de Medicis'en ardurapean egon zan... Bi koroiak bat egin zutenean, 1624, Kardenal Richelieu, Armando Juan du Plessis'en eskuetan utzi zuan erregetza. 1642'an iltzen da Kardenala, eta ondorengo 1643'an Erregea. Onen lekua artuko du bost urteko aurrak:

Luis Naparroa'ko III, eta Frantzia'ko XIV (1643-1715)

María de Medicis, Erregearen amari gogoratu zioten naparrek Errege gazteak Benabarra'ra etorri bear zuela Fuero eta askatasun guziak berriztatzera ziñ egiñez. Alaxen etorri zan, 17 urte geroago, 22 urte zituela Donibane Loitzun'era eta an ezkondu zan España'ko Erregearen alaba eta Carlos II'en arreba, María Teresa'rekin. Enrike eta María Teresa bikote onen billoba izango da Felipe V, España'ko Erregea. Izendatze au dala medio sortu zan guda "Guerra de Sucesión" deritzana. Guda amaitu zan Utrech'eko Itunaren bidez. Itun orrek itzi zizkien Ego-Euskalerrí'ko arrantzaleei Kanada eta Terranoba'rako bideak.

Erregeari gogoratu zioten berriro etorri bear zuela Benaparroa'ra Fuero eta Askatasunak ziñatzera; Doniane Doitzun'era eldu eta an ziñatu zitun; baña, Benaparroa'ra ez zan agertu. Alaz ere, Benaparroa'ko erreinoa beste Frantzia'ko probintzietatik bereizten du. Bere ondoren etorri zan eregetzarako:

Luis, Naparroako IV eta Frantzia'ko XV'garrena (1715-1774)

Ume txikia zan eta aurreko Erregearen billoba eta bere adiñera etorri arte (1715-1723) ordezkoen eskuetan egon zan Erreinoa eta bear ez diran aundikerietan eraman zuten aurrera. Ori eta guda nekegarriak bitartean direla, porrot egin zuen Erri-diruak. Oker oiek zuzendu naiean, erriari izugarrizko zergak eta petxak ipiñi zizkieten bizkarrean. Bera, berriz, jostallu bat gertatu zan Pompadour Markesaren eskuetan. Eta, au ilda gero, okerrago oraindik Du Barry'ren Kondesarekin.

Naparrek eskatu zioten Fueroa ziñatzera etortzeko; baña, ez dakit juañ zan ala ez... Bere eriotzean, ondorengoai utzi zion egoera eutsi-eziña eta Erregeak eta Aundikiak gorroto zituen erri arlote bat.

Naparroa'ko Luis V eta Frantzia'ko XVI (1774-1792)

Okerretik okerra, malkorretik malkorrera, zijoan Laterriaren gurdia. Ibilleria ori zuzendu naiean, Rechelieu'ren garaitik, (1624) itxita zegoen Lege-biltzarra irikitzen du. Iru Malla claude beregan: 1/ Apaiztegia, 2/ Nobliak, aundikiak eta 3/ Erria... 1.200 ordezeko aukeratu zituzten eta Versailles'en bildu ziran Maiatzaren 5'ean, urtea 1789.

Billera ori izan zan Frantzia'ko Iraultza Nagusiaren azia. Lege-biltzarrak zora-
men bero gartsua sortu zuan errian, Naparroa'n ez ezik, oitu bait zeuden Lege-
biltzarra izaten eta askatasunean bizitzen. Orregaitik naparrek, asiera asieratik,
uko egin zioten Lege-biltzar orreri eta ez zuten euren ordezkorik bertara bialtze-
rik; Naparro'ko Erreinoa Frantzia'ko Erreinetatik bereziki bizi bait zan.

Naparrak zirela eta ez zirela, makiña bat eztabaida izan da gero, Urrillaren
8'an, urte orretan bertan 1789, bost illebeta eta bost egun Lege-biltzarra sortu
zuen egunetik, erabaki au artzen dute: emendik aurrera "Frantzia eta Naparroa'ko
Erregea" izenaren ordeaz, "Frantzes guztien Erregea" esango da eta kito. Napa-
rren protestari kasorik egin gabe, Frantzes guztiek onartu zuten erabaki ori.

Urte orren Azaroaren 11'an, Frantzi osoa Departamentuetan zatitzen dute;
guztiak berdiñak. Laburdi, Benaparroa, Zuberoa eta Bearne Departamentu bakar
batean bilduko dira: Be-Pirenetako Departamentuan. Eta orrela dirau gaurko
egunerarte. Naparrek asarre bizian protestaka ekin arren, urrango urtearen (1790)
Martxoaren 4'an biltzen da Be-Pirenetako Lege-biltzarra eta Naparroa'koa ez da
geiago bilduko.

Une onetan iltzen dute, orain arte bizirik iraun duen, Naparroa'ko Erreinoa.
Kastilla'k lortu ez zuena, Frantzia'k lortu.

Frantzia'ko iraultzaileak ez ziran asetu Naparroa'aren eriotza politikoarekin,
eta eraso negargarri odoltsua asten dute euskaldun guztien aurka: errien eizena
aldatu, elizak erre, apaizak eta prailleak aurretik eramane eriotzararte eta erri osoak
euren etxetik atzerriara bota...

Iraultza igaro zan, Inperioa ere bai, lengo era zaarra berritu zan... Baña, ilda
zegoen Naparroa'ko Fueroa, ori ez zan berritu; ori ez zan bizitu... Ilda datza orain-
dik ere. Betirako ote?

Fernando, Kastilla'ko Erregeak, Cisneros eta Alba'ko Dukea lagun, Naparroa
menperatu zuten; baña, Seigarren Merindadea, Benabarra, aske gelditu zan eta
an iraun zuan Naparroa'ko Erreinoa Frantzia'ko iraultzaileak il zuten arte. Alba'ko
Dukea an izan arren bere gudarostearekin, alde egin zuen artatik defenditzen zai-
lla zalako. Zailtasun orreri esker, lortu zuten askatasuna. Ara baztatu ziran napa-
rroa'ko Errege Erregiña eta errege-familiekin izan zuten ar-emaneri esker, Fran-
tzia'ko Erregeak, Naparroa'koak ere baziran. Baña, Iraultza Frantsezak desegin
zuen Naparroa'ko Erreinoa, Frantzia'ko Departamentu baten zati bihurturik.

Urte batzuek geroago Iraultza orrek, Cadiz'eko Constitucioa'ren bidez, Espa-
ña osoaren lurraldeak Probintzi izendatuko dituzte, guztiak berdiñak, lurraldetako
Fuero guztiak, Araba, Gipuzkoa, Bizkaia, Naparroa eta besteak, deseginda gero.

ARRINDA'tar Anes

NOEL, OLENTZARO, ERREGEAK ETA ZALDI-GOROTZA

Mateo ebanjelariak diñonez, Jesus jaio-barria zala, Mago batzuek, aztiak, etorri ziran aurrari agur egitera. Etorri ere eguzkia sortzen dan aldetik etorri ziran.

Jesus'i erregaliak eskeiñi eutsoezan urrea, intsentzua eta mirra. Balio aundiko iru gauza orreitik, erriak Magoak errege biurtu ebazan, kristau alderdian.

* * *

Gabonak eta Eguzkiaren barritzea alkarrekin doaz: Egu-berri, argi-berri da-ta. Orrekin buztartuta, Noel agertzen da Europa Iparraldeko errietan. Gizaseme zaartua eta oso ona, umeeri erregaliak ekartzen dautsezena. Zenbait tokietan Noel, Santa Klaus edo San Nikolas biurtzen dabe.

* * *

Euskaldunen artean, barriz, Olentzaro jauna dator Eguberrietan Jesus'en jaiotzaren barri emotera. Orra Olentzaro'rekin San Klaus, San Nicolas, Erregeak eta Noel.

Arritzekoa auxa da: Olen-tz-aro, Olen'en aroa dala dirudi, aur-tz-aro eta zaar-tz-aro aurren eta zaarren aroak diran lez; *Olen* eta *Noel* izki edo letra bardiñez egiten diran berbak dozuz.

Olen-tz-aro Noel-aro ete da?

* * *

Dana dala, Gabonetan Noel'ek eta Olentzaro'k, eta Epifami edo Agerkunde egunean Erregeak umetxoeri, eta baita nagusieri be, Jesus'i bezala, euren eskeintzak egiten, deutzeez.

* * *

Ona zer gertatu zan erregali orrekin etxe batean:

Bi seme, ebezan; bata oso lur-jota ebillena beti, oso pesimista.

Besteak, berriz, ez eban lurrik ikusten, beti aidean, optimista utsa. Baikorra oiñetatik burura.

Eldu zan erregalien eguna. Gabon eguna zan ala Errege eguna? Orixe ziur ez dakit. Jo dagigun aurrera. Senar-emazteak alkarrekin berbetan:

—Gure seme triste oneri gauza eder bat ipiñiko dautsagu, ia apur bat alaitzen dan.

—Zer ipiñiko?

—Nik eskumuturreko urrezko ordulari eder bat ipiñiko neuskio. Zer deritxozu, andratxo?

—Ondo dagoala ori. Orrelako pitxi eder bategaz biotza alaituko jako eta animoa gora jasoko.

—Bai, ori berori egingo dogu.

—Eta, beste txintzarriari zer?

—Edozerekin konformatzen da. Orrentzat dana da eder eta ona.

—Begira, zaldiak egiñiko gorotza daukot aundia eta zabala kortan eta berau ipiñiko deutsagu oiñetakoen ondoan.

—Probetxuren bat atarako dau, zalantzarik gabe.

—Ikusi daigun zer joka-bide ataratzen daben bakoitzak.

* * *

Gurasoek esan bezala egin eben: bateri urrezko erloju ederra eskumuturrerako eta besteari zaldi kaka-plasta aundi bat.

Etorri da goiza egunsentiaren argitara. Jaso dau batek urrezko ordularia:

—Baiña, nik orrelako gauza eder bategaz zer egin bear dot? Eta, arrapatzen ba'deuste? Eta, galtzen ba'dot? Eta, apurtutzen ba'jat? Eskolan barre egingo deuste onelako erlojuakin ikusten ba'nabe...

Akatsak eta arantzak besterik ez eutson pitxi eder arreri topau gure mutil koitaruak eta gizajoak.

Eldu da bigarren semea leiora. Zal-di-gorotza oiñetakoen ondoan:

—Zer, Oto-diñotso kaletik Peru'k-zer ekarri dautzue Erregeak?

—Ez, Olentzaro izan da.

—Eta, zer ekarri...?

—Zaldi eder bat; baiña, bertan kaka egin eta alde egin daust. Etorriko da.

NOIZ ARTE?

Goiz argi batean, Iziartik ikusten dana bai zoragarria.
Gibetik, Andutz mendia: jentillen itxasontzia dirudi.
ankas gora...
Aurrean, itxaso urdin zabala, mugarik gabe... zorion
ames...
Bitartean, Salbatore menditxoa... Gallur-gallurrean, ermita-
txoa; magalean, Urtiagako koba-zuloa...

Koba zulo artan bizi izan ziran eiztariak...
Gaurko euskaldun arrazako eiztariak.
Bulartsuak.
Biotz aundikoak.
Zezen, bisonte, otso, artza, zaldi, basautz, basw'de eta
abar ziian eiztari auen eizea.
Ze lilluragarri orain ba leude...!
Mendiak zugaitzez josiak. Basoan, intxaun'a ta urra, aritz
eta arte, pago lerden ta gaztaiñ lodi... Zer ez?
Urtiaoko koba ertzetik errekatxoa dariola, sakonetik itsa-
SofañO...
"Saka"ko zezen gorrien antzeko ta kastako zezenak... Goe-
netatik erilcartzen zituzten sakoneko errekarra ta Urtiagako ate
estuetik igarotzean..., zupla, zulora!
Zuloa bai zcuketen zuQaitz adarrez estalita, erorbiderako
jarria.

Noizik beinka ere izango zituzten bai muskullu, bai lanper-
na, bai lapa, bai txirla... amaiketakorako.
Postreko, berriz, intxaur, urre, mazuzta, sagar, txermen, ga-
ragorriak...
Zenbat aldiz egote ote ziran, arkaitz gañetik, itsaso zabcler-
ra begira...!
—'Zer ote da ur zabal borobill orren atzean'?
Zerk arrotzen ta asarratzen ote du orrela°
Zergatik egun batean aiñ goxo ta ezti; urrungoan, berriz,
ain goibel ta illun...?'"
Koba ataritik zenbait gau zerura begira:
—"Ortz garbi, izarrak kiñuka gizonari... Iltetargia gabaren
nagusi... Zergatik illargi betca... ta illargia berria...?"
Zergatik trumoi ta oñestariak...?' Bildurra sartzen zieten
ezur munetan dragoi zauka aiek... Ala Yainkoaren asarrea ote
zi ran'?

Guk gaur zapaltzen degun lm-raren gañean bizi ziran gure
arbasaok. gure aurrekoak ere...
Gu bustitzen gaituan itsaso onek bustitzen zituan aiek
ere,...

Ondartza auetan usten zituzten bere oñen arrastoak...
Gizon aick, euskaldun aiek ziran gure iturburu; gure bizia-
ren sortze...
Ona Salbatoreko arkaitzaren babesean, gure aurrekoen
etxebizitza ta obi... Ona, bere barruan, gure aurrekoen ezur-
rarak... Eurenak eta gureak antzekoak...

Euskera ere arkaitz zulo aietan sortutako mintzaira degu...
Arrezkero ez gure ezurretan. ez gure izkeran ez da etenik
izan...
Etcn ori gaurko egunetan gerta leike.
Gure erruz.
Gure arduragabekeriz.
Ez al da orrelakorik gertatuko gure artean.

ASTOTXOAREN OTOITZA

Arrantzaka nago, Jauna.
Ta egoki zait arrantza egitea. Ortarako ez det zmre aurrean
lotsarik barne-muiñetatik ezagutzen bai nauzu, nere belarri lu-
zeak zure eskuetatik sortu ziran egun artatik bertatik...
Belarri-motza da zaldia nerekin konparatzcko.
Ez dut zaldi izan nai.
Asto egin nauzu ta asto nai det.
Serbitzurako beti prest. Eskatzeko zuur. Uskeri batekin
konforme. Nere probetasunean apal. Olz eta berotan erne. Gi-
zonaren zenbait arrazoigabekerikin buru-gogorra nauzu. Asta-
kerietan ez diot irabazten utziko.
Leertu arte lan egiten det gizonaren serbitzuan eta ez dit
iñoiz esker onik agertzen. Makila saietzctan jartzen dit maize-
gi. Lasto apur bat eta kito. Ez naiz orregaitik asarrc. Besteen
ikullu bastartxo batean sartzen naute: neretzako ez da ikullu
bereizirik or aldameneko karrera-zaldi oientzako bezela. Ez
ditut sekula lanean ikusi. Biguñ bizi dira. Lanik ez; ondo jan;
gizonaren eskuak laztan bizkarretik beera...
Ez dut zaldi izan nai.
Asto nai dut.
Ez dut nere jaun gizontxo onen antzeko ere izan nai. Bere
burua aingerutzatjotzen du. Iñorena, berriz, deabruzat.
Bera da oro zuri. Elur garbia bezin zuri.
Besteak dira dena beltz.
Ikatz zikiña bezin beltz.
Ez da, gizarajoa, nere antzeko danik konhurutzen: ez zuri ta
ez beltz.
Ni bezela, bai: gris kolorekoa, nabarra.
Nabar tristea.

ANES (1969)

NUAMMAR EL GADDAFI'REN IRAULTZA

Libia 3.400.000 biztanle ditu eta 1.759.540 kilometro laukiak. Petroleo askodun erria eta batzuetan beste biztanle bakoitzaren irabazia 10.000 dolarrekoa da urteero (miloi terdi pezeta). Beraz, erri aberatsa eta orregeitiko-edo, Tripoli deritzan urri nagosian, edozeinek du "Peugeot" edo "Toyota" bat.

Petroleoren barakada aundi aldiari, nekazaritzan ipini dituzte beuren begiak. Esate baterako, Zirenaika deritzan aldean, gari-soro izugarrien artean, eundaka ektarea sagarrez bete dituzte. Bigarren urte onetan asita daude Golden eta Starking sagar ederrak jasotzen.

1980'garren urtean petroliotik 24.000 milioi dolar atera zituzten; orain, berriz, 8.000'ra jeitxita daude eta orixe izan da nekazaritzari begiratzeko arrazoibidea.

Toki oietan 20 egazkin bereizi dituzte ongariak eta momorroak iltzeko darabiltzen gaiak zabaltzeko.

Tripoli inguruan beste orrenbeste gertatzen ari da. Baserriak jasotzen dituzte: etxea, traktore bat, bi bei eta irurogei ardi eskeintzen dizkiote utsean baserritar izan nai aduanari. Oiekin batera 25'tetik 50'era ektaralur. Fin jokatu ezkeroz 20.000 dolar ateratzen dituzte; geienak, ordea, 12.500'etan gelditzen dira. Baiña, lanik egiten ez duanari irugarren urtean guztiak kentzen dizkiote baserritar berria sartzeko.

* * *

Orain 16 urte El Gaddafi koronelak Libia'ren aginpidea bere gain artu zuanean, erri osoa arez betetako eremu bat besterik ez zan; gaur, berriz, zerao aberastatuta daude petroleoari esker... naiz-eta gauza asko alperrik galdu eskuartean.

Jendeak esker onez ikusten du El Gaddafi'ren garai-ko aldaketa izugarri au.

* * *

Ona aldaketa batzuek:

Medikuntza arloan. besteetan bezala, aldaketea aundia izan da, 1970'garren urtean Libia osoan 40 (berrogei) sendagille zeuden. Gaur 2000'tik gora dira. Ori ez

da guztia: 1984'an eraikitako Ikastola Nagusitik 200 (berreun) sendagille aterako dira urte oro. Ikastola ori Bengkazi'ko urian dago eta badute erri orretan atzerapenak jotako umeentzat berebiziko lekua, aurrerapenez betea. Sendagille oietatik, laurden bat, emakumeek osatzen dute. Berau ere, arabeen arteko errietan, ez da gero aurrerapen makala...

* * *

Beste arlo batean, ikaragarritzko ekintza daramate aurreruntz, Libia osoa unetz asetzeko, barru-barrutik kosta-alderaiño: eremutik Tripoli'ra. Lan orretarako tubo izugarriak, zazpi metro terdi luzean eta lau metro diametroan, egiten ari dira 1.200 surkoreano langilleak. Tubo oiek egiteko lantegiak, ertzetako osarririk gabe, bi kilometro terdi ditu luze eta kilometro bat zabalean. Asmakizuna amerikarrena da, zuzendaritza australiako batek darama eta lana egiteko Korea egoaldekoko jende langillea.

Baiña, lan oietan, guztietan, libiatar teknikoak daude murgilduta lanean gogo aundiz eta itxaropen aundiagoarekin. Petroleoaren barakada onek bultzatzen ditu lana bizkor egiten, berandu baiño len.

Lenengo zatia egiña daukate eta 3.300 milioi dolar bertan xautuak. Bigarrena oraintxe asteko. Bi tuberiak alkarrekin joango dira eta lau milioi kubiko ur eramango dituzte Tripoli'raiño eta Libian zabalduz. Makiña bat soroeri eman lezaioke bizia ainbeste urekin.

Bertan lanean ari dan Korea-egoaldekoko injeniero batek esaten zuenez, beste orrelako lanik ez da munduan osotu Txina'ko arri-esi aundia ez ba'da. Uraxe lanik aundiena munduan. Ondorengo, au izango omen da.

* * *

Luiburu Orlegia

Maotzetun'ek Liburu Gorria zuen bezala, Muammar

GIZARTEA

EI Gaddafi koronel lendakariak ere badu bere Liburu Orlegia, Rousseau-ren Kontratu Soziala gogora-arazten duena. Bertan ipintzen ditu bere asmakizunaren oiñarriak eta, berak dionez, auxe da Irugarren Teoria Orokorra. Beste biak zerak dira, Rusoena bat eta bestea Amerikarrena.

Bere iritzirako alderdi politikoak ez dute balio: bakoitzak bere askatasuna eta erantzunkizuna ez ditu beskeen eskuetan utzi bear, alderdi politikoen eskuetan, alegia.

Baiña, bere barru-barruko asmoa auxe da: Amerikarrak zanpatu eta bere burua Sozialista Arabe guztien lendakari biurtu.

1969'garrenean, El Gaddafi aginpidera eldu zanean, petrolio-konpani guztien jabe egin zan, iraultza berri bat eratuz eta "Jamahiriya"-Aroa sortuz.

Jamahiriya erri xeearen aroa da, masaren aroa: Kongreso errikoi bat sortu da Libia'n. Auzo bakoitzean, lantegi bakoitzean, ofizina bakoitzean, ikastola bakoitzean sortzen dira elkarteak eta elkarte oietatik Legebiltzarrera doazen diputaduak eta auek osatzen dute Erriaren Kongreso Orokorra, Libia'ko Estaduaeren zuzendari.

Biltzar errikoi bakoitzak (lantegietan, nekazaritzan, Ikastola Nagusian...) eratzen du bizi-modua, lana eta alojera. Lan gutxiago egin nai ba' dute ere, ori beuren esku dago; baiña, orduan jornala ere txikiagoa izango da eta beste biltzarrek kontu artuko diete ia zergaitik lan gutxiago egiten duten... Aizkenean, zer? Itzak ederrak.

* * *

El Gaddafi jaunak, ordea, iraultza ori mundu zabalera eraman nai du eta beste Laterrietan gazteek iraultza egin nai ba' dute, oiek txalogarriak dituzu eta laguntza zor zaie.

Lantegi eta nekazaritza elkargo aundiak, guztiak Jamahiriya'renak dira. Alaz ere, dendak eta lantegiak, bakoitzak berea, sortzea aske da; baiñan iñor menpean artzerik ez dago, sozio bezala ez ba'da.

Eroskiak auzo guztietan daude, Laterriarenak.

Etxeak, berriz, bakoitzarena bear du izan eta geienak Agintaritzak eraikiak. Iñori norberaren etxea alojeran eman ezin: zeuk erabili edo saldu; beste biderik ez dezu izanen...

Liburu Orlegian ez da erlijiorik aitatzen; baiña, alkoola debekaturik dago, arabeen artean legea dan beza-la. Zinemarik ez da. Automobillak ugari kaleetan eta tabernatxo bat noiz-beinka; baita ogi-dendak ere. Beste animaziorik ez dezu arkituko uri aundietako ibilbideetan zear.

Liburu Orlegia dotriña-liburua da eta Kostituzioaren ordezeko.

iru zati ditu. Lenengoa: demokraziaren akatsak eta korapilloak erriaren aginpideak askatzen ditu eta ezeztatu. Bigarrena. Ekonomiaren korapilloen askatzaillea sozialismoa da. Irugarrena: Irugarren Teori Orokorrak oiñarri soziala du.

Xistema berri onetan demokrazia komite errikoietan, elkarte errikoietan eta langilleen elkarteetan eraikitzen da. Guztiok osatzen dute eta alkartzen dira Erriaren Kongreso Orokorrean.

Irakutsi eta ezitzeko munduan dauden xistema guztiak apurtu bear dira, kultur-iraultza orokor baten bidez, indarrez ezarri dizkioten mentalitate, ideia eta gustu guztietatik gizona askatzeko.

Alojeran oiñarritzen diran lantegi-mota guztiak desegin eta beuroen ordez sozio-arteko elkarteak sortu, arazo gizartekoak konpondu aal izateko...

Orra or Irugarren Teoria Orokorra. Muammar EI Gaddafi'ren iraultza berria, mundu osoari eskaiña eta, al ba'da indarrez ezarria.

ANES



"Ñ" ETA "LL"-REN ALDEZLE

Aspalditik nabil onetaz zeozer esan guraz eta asmo orretara ainbeste astakeria entzuteak eroan nau.

Orain, eta Euskaltzaindiaren 75. urteurrenerako ospakizunaren ekintzak azalduz gero, daukadan esatekoa adierazteko aukerarik onena dala uste izan dot.

Euskaltzaindiak batasunerako eskaini ebazan erabakietariko batzuk oneixek izan ziran: "i" eta "n", edo ta "i" eta "l" alkartzen diranean, eta urrengo izkia bokala izanik, "in"="ñ" eta "il"="ll" aozkatu bear direla, eta orrela mina, mutila, egina, baina, ile, bikaina, e.a... idazten danean, miña, mutilla, egiña, baña, ille, bikaña esan bear da, gure egoaldeko errietan beti olan esaten zalako.

Baina olan izan bearrean, eta idazkeraren ondorioz, millaka euskaldunen abotsetan (eta ez euskaldunbarrietan bakarrik), abeslari, bertsolari, islarienetan, idatzita dagoan bezela aozkatuta entzuten da. Orain gitxi entzundakoen artean Lete, Laboa eta bertsolari batzuk jatordaz burura, eta... ori bai soiñu arrotza!

Orrelakorik ez izateko, ikasbidea erreztatzeko eta euskera biziari mesede aundia egiteko, Euskaltzaindiari "ñ" eta "ll" idazten eta irakurtzen egon giñan. Gero 25 urte betebarri dauzan batuen legiak ezarri ziran, euskalki txikienen lokalismoak derrigorrez sartuaz euskalki nagusien

kalte, eta aipatutako oztopoak sortu ziran euskaldun guztiontzat.

Eta asmo au datorkit burura: zer da garrantzi-tsuago, euskera bizirik iraunarazi ala izkuntza barria sortarazi eta, egin daben legez, indarrez ezartzea?

Bestalde, or dogu erantzuna. Euskeraren eta euskerazko irakaskuntzaren emaitzak, ain onak omen izanak, ez datoz bat euskeraren benetako erabilpen maillagaz, euskaldunberrien artean erdera da nagusi, eta betiko euskaldunen arteko erabilbideak gaiñera atzerakada aundia izan dau, gazteen artean batez bere.

Aukerarik onena dauka orain Euskaltzaindiak oztopo orreik leuntzeko, eta izkuntzari mesede ori egiteko, ez daitezala eragozle izan, eta orrela gure izkuntza maitea politago entzungo dogu eta erreztasun aundiagoaz ikasiko dogu.

PALMI

=< <=< <=<

BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ



Eusko Jaurlaritzaren

Laguntzaz.

Kultura Saila

Ñ ETA LL'REN ARAZOA

PALMI'k, aldizkari onen 18n. zenbakian, Urtarrilla 1994, N eta LL aitatu ditu eta ez du arrazoirik falta. Bi izki oieri ez diete pakea eman eta banatu dituzte, I eta N alde batetik eta I eta L bestetik.

Gure erritik at ez dute era berdiña erabili: N'ri Y bat atzetik, edo besteek, berriz, N'ri G bat aurretik. Ez datoz Euskaltzaindiarekin ez ados eta ez atres. "Bakoi-tzak berea, Jainkolegea", dio esaera zaar batek: Frantziak, Kataluñak eta Euskaltzaindiak, bakoitzak berea. Nungo Batasuna ote da?

Aldaketa bat egitekotan, atze-atzeko, erromatarren garaiko lege zaarretara biurtzea zan, legezko. An daukagu Ñ' ren jatorria: bi N dira Ñ' ren jatorria. Badago erromatarren dokumentu bat, Aragoi inguruko gudariak buruzkoa. Izen zerrenda bat aitatzen da eta bertan dago gureraño etorri dan izen au, Ennecus Enneconis, Eñeko Eñekorena. Orixe zan Loiola'ko Iñigoren izena: Eñeco eta ortik atera zuten bere famiian Iñigo, Eñeco baiño biuñago; bera bait zan etxeko amairu seme-alabeen artean, umerik txikiena.

Adituta neukan Ñ' ren aldaketa, ordenagailluak


N'rik ez zutelako, egin zala; aitzakia, beintzat, ori izan zan. Españarrak lortu dute N ordenagailluetan sartzea eta alde orretatik ez dago gaur arrazoirik.

N eta LI izkiak erdibitzeak zailtasunak eta naasteak besterik ez ditu sortu. Orain "pilak" edozertarako erabiltzen dira; pillatu ere egiten dira. Pilak pillatzekoan sortzen dira koskak eta eragozpenak, orixe idaztekoan...

Naasteak sortzen dira, askotan I eta N bakarka aoskatzen bait dituzte, N aoskatu bearran. Berdin berdin gertatzen da I eta L' rekin, "langile" ez dute "langille" aoskatzen, "langi-le" eta "langi-leria" baizik. Okerkeri oiek sortzen dira Ñ eta L' dun berbetan, I bat aurretik duenean. Orduan bear luteke bi I ipiñi N eta L' ren aurrean; baña, au ez du iñork egiten...

Izan ere, gauzak erreztu bearrean, zaildu, gaixtu eta naastu egin bait ditu "fija, limpia y da esplendor" egin bear duen "Real Academia del Euskera" erakunde zogarriak.

A.A.A.



DEABRUAK OSTUTAKO URTEAK

Puxana tar Basilio adiskideak liburu irakurgarri bat idatzi dausku. Ez da lenengoa eta ez al da izango azkenengoa be.

Bartsolaria dogu Basilio, baiña liburu au geiena itz lauz idatzia da. Tarteka ainbat bertso edo olerki dauzala.

Gudaldiko joan-etorriak ditu gai liburu onek. Zenbat jakingarri dagozan or bazterretan agirian ipiñi bearrekoak, urteen isiltasunean lotan! Ondo egiña da ba Basilio'k egin dauana: Berak ikusitako gauzak beste batzuri agertu, erakutsi.

Erri asko gogoratzen dira liburu onetan: Elgeta, Legutiano, Ermua, Durango, Zeanuri, Euba, Artea, Zeberio, Laiñomendi, Bilbao, Enkarterria ta Santander-aldea. Zaragoza'ra ta Andaluzia'ra be eltzen jaku egazkada luzeetan. Eta dana gudaldiko ibillaldi samiñak gogoratzen.

Irakurri daigun gure Basilio' ren liburu au. Gauza asko gogoratu-ko dauskuz bere adiñeko edo gazteago garanoi eta bere euskera erreztu eta jatorrak erri-euskera sakontzen lagunduko dausku.

OLAZAR'tar Martin'ek

GIZARTIZTI

OGIBIDE edo LANGINTZAK

Bizi-modua aurrera ateratzeko ogibideak auek ziran: Eiztari, Artzai eta Unai, Nekazari, Olagizon, Buztinlari, Ikaskin, Arrantzale eta Merkatari. Langintza auekin batera, oien Arauak eta Euskal Fueroa ikusiko degu. Eraskin bezela beste auek aztertuko ditugu: Zerga edo Petxak, Auzo-lurrak edo erri-lurrak (mailloak), Kofradiak, "Comunero" zeritzan Mogimendua eta, azkenik, Euskal Kontsul-etxeak.

Baskoniak, Erromatarren lagun zalarik, Enperadoreen begirunea izan zuan berekin. Bere semeeri Caracalla'k erromatar uritasuna edo erritasuna eskeiñi zien guztientzat 212'an. Erromatarrekin pakean bizi izan baziran ere, beste era batera gertatu zan franko eta bisigodoekin: burrukak neurrigabeak.

Mairuak Iberian sartu ondoren erresuma bat sortu zan Iruñaren ingumari guztian. Gerora erregetza orretan sartu ziran, beuren borondatez eta askatasun osoz Araba, Gipuzkoa, Errioxa, Lapurdi, Xubero eta Iaca. Geroago batuko zan Bearn'eko aldea ere. "Euskal-erresuma" deitzen dio Menéndez Pidal'ek; mairuak, berriz, "Al-Bascunich".

Bizkaiak alde egin zion Nafarroari 1179'an. Gerora beste-oren-beste egingo zioten ondorengo probintzia guztiak; gelditu zan bakar-bakarrik. Ori asko ez dala, 1.512'an Fernando Erregeak, maltzurkeriz eta indarrez, askatasuna kenduko dio Nafar Erresumari. Alaz ere, bai Nafarroak eta bai beste probintziak ba zuten ainbesteko libertatea. Esatekoa da Gipuzkoak eta Bizkaiak, batez ere bi probintzi euskaldun auek, izan zuten demokrazia, European, Frantziako Erreboluzio aurretik, esagutzen ez zan bezelakoa.

Gure etxe-barneko eztabaidak ezagutzera beartuak gaude, ordea. Asiera emateko esan dezagun Aro-Erdia beteko dutela gure Aide nagusien arteko burrukak. Baztar guztiak bete zituzten indarkeriz. Edonun jauntxoan jauntxokeriak. Auen ondoren, eta bear bada auen aurka, sortu zan beste gizarte berri bat. Etxe bakaurretik erri-bilduera pasako gera, eta erri-bildu bakanendik, bat-batera, uri-arteko bizi-modu berrira. Baso eta oianetan sakabanaturik bizi ziran euskalduneri erri-bildu auek, billak, beren babeska eskeintzen zieten. Sustraietatik berri dan Erria sortzen, da erri-bildu auetan oiñarriturik.

Naiko denbora aurretik zala, Iaca'n Santxo Ramirez erregeak jarri zitun, beuren fuero bereziekin, estranjeriatik ekarritako gizasemeak. 1090'an berdiñ jokatzen du Estella'n (Lizarra) ere. Fuero berezieren babesera langille, merkatari eta ostalarik datoz. Geroago fuero ori baztarretan zabalduko da; baita Gipuzkoara iritxi ere, Logroño'ko fueroekin batera, eta bien artean Euskalerrri osoa estaliko dute. Erri-bilduak auzoz osatzen dira, "burgoz", alegia. Eta langintza bakoitzak izango du bere kalea: Cordelería, Zapatería, Calderería, Carnicería, Cinturería eta abar. Erriko auzo auek laister dira alkarren-arteko burrukan. Nabarrerria zan euskaldunen auzoa Iruñan eta kanpotik etorritako fuerodunenak ziran San Zernin eta San Nikolas auzoak. Euskaldunak bestean aurka ikusten ditugu. Estella'n berdiñ-berdiñ: San Juan auzoko euskaldunak, San Martin kanpotar fuerodunen aurka. Auzoak alkarren aurka eta nekazariengandik bereizi. "Cercas Altas" zeritzan

Gazteiz'ko arri-esia zan-XIII'aren asieran-auzoen eta nekazarien arteko muga. Gaurdaino eldu da "Cercas Bajas" deritzan kalea Gazteiz'en.

Erri-bildutik at egon oi ziran burni-olak, gatzagak (salinas), arrobiak, loiola-tor- nuak, eulearen tramankuluak eta abar. (Hasparren'en, bertan, lareun eule zeu- den). Barandiaran'ek diozkunez "bere bizimodua euskaldunek, Europa'ko beste Erriek bezela, olagintzan, langintzan (artesanía) nekazaritzan, arrantzan, eta mer- kataritzan zeukaten oiñarritua". Bizi-bearrak berak eratu ditu ogi-bide guztiak, era batera ala bestera. Eiztari eta arrantzalearen ondoren agertuko dira beste langin- tza guztiak ere: artzai eta unai, loiola eta burniola-gizonak, euleak eta errotariak, zapatari eta jostunak.

XV'ean, erdi-aldera, langintza auk ezagutzen ziran: kutxagille, olagizon, kirten- gille, rementero, urtzaille (fundidor), labezai, txaramalgille (jubetero), auspozai (barquinero) edo auspogille, ugalegille (cinturero)... Manuel Urdizibar'ko toberagi- llea zan eta Martin Pz. Alza'ko gabigille (gabi= mazo de herrería)... Tudela eta lruñan, ba ziran ere, espartzugiñ eta zillargiñak, sillagiñ eta "alfageme"ak (barbe- roak= bizarra kentzen zutenak eta odola ateratzen zutenak). Nafarroako Kase- da'n ba zan erriko "mudalafe" a eta onek bertako merkataria batek erabiltzen zitun neurri fatsoak artu eta urka-abeen josi zitun: "las enclavó en la picota". 1599'an, C.R.'k zionez, baziran Nafarroan badaezpadako langintza zatar batzuek (viles) txerrizain, perragille, tabernari, zarraila-gille, errekarero, arakin, errotari, ostalari, larrugin, jostun, zapatari eta arotz. Buruzagi ofizioa bera ere orrelakoa ez ote zan esaten zutenak baziran. 1587'an, urrillean, Martin Arze'kok, agoteen aurkako jui- zio batean agertzen zunez, agoteak beurak ere badaezpadakoak ziran (viles) euren langintzarekatik "erradak, barrillak eta zorroak egiten zituztelako". Eta "mandoeri illea moztea (motxaillea) eta saskiak egitea" ori ez zan gizaseme bate- ri zegokion langintza, ijitueri baizik.

Gipuzkoa eta Bizkaian, berriz, langintza eta ogi-bide guztiak ziran aintzakotzat artuak. Eta orrela, zapatari bat, "Zapaterito de Deva", izan zan mai-buru Debako Junta Jeneraletan, Korrejidorea falta zalako. (Carlos III'ak, Nafarroan ere aintza- kotzat artzeko agindu zuan larrugin, errementari, jostun eta beste orrelako ofi- zioak).

EIZTARI

Arri-Arotik aurrera, gizon guztientzako bezela, euskaldunentzat ere eizea izan zan ogi-biderik erosoena. Era askotara egiten zuten eizea; baiña, badu bere garrantzi berezia "uxaka-eizea" (caza al ojeo) esan oi dana. Zaldi, zezen, bisonte auntz, basauntz, oreiña eta abar arrapatzeko erabilli oi zuten xistema ori. Gaur bertan ere ezaguna da Euskalerriko zenbait tokietan betizuak, otsoa eta beste piztiak arrapatzeko: bi mendien artean piztiak uxatu eta sakonean dagon "otso- zulora" sartu erazi. Orrelako zuloak badira Gorbean eta Lakozmendi'ko Gibijo errixkan.

Etxalarreko mendi-gaillurretan famatuak dira sareak, usoak arrapatzeko. Nafa- rroan basauntzak eta oreiñak erregearen eizeak ziran; besteentzako debekatuak zeuden. Ala agintzen zuan 1556'eko lege batek. Berberak esaten zunez, eperra arrapatzeko txori-arrapalaria erabilli bear zan: "uña por una, ala por ala". Bi urte beranduago Nafarroako Korteak eun zigorkada zor zitzaion legea austen zuanari. Asko omen ziran lege ori austen zutenak.

Araba'ko "Libro de Decretos" deritzanak onela zion 1647'ko Maiatzaren 7'an: "nekazari eta mekaniko-langintzekoeri ez zaie libre ez eizea eta ez arrantza". Ez- eta Probintziatik kanpoko dieneri ere.

Beste era bateko legeak eman oi zituzten piztieri buruzkoak ziranean. Otsoa ill eta ayuntamentuan agertzen duanari sei marabedi eskeintzen dizkio XVI'go Oña- tiko "Ordenanza de Caza y Pesca" k. 1659'an bi tigre arrapatu zituanari sei errial

eman zitzaizkion. 1.674'an amabi errial eman zizkioten Martin Beitia'ri tigre bat arrapatu eta aiuntamentuan agertu zualako. Andik urte mordoxka batera ere (1759'an) "Ordenanza" orrek erakusten duanez, baziran otsoak, artzak eta tigreak Oñatiko mendietan.

Otso nagusi bakoitzeko sei eta otsakume bakoitzetik iru dukat eskeintzen ditu Nafarroako Korteak 1652'an.

Bizkaiko Fueroak bizkaitar guztieri ematen zien eskubideak urdeak eta basauntzak eizean arrapatzeko eta mendiak eurenak dirala-ta ez dedilla iñor eiztari orrerri eragozpenak jartzen ausartu. (Tit. 31,L.1). Iruñako eliz-nagusiko arrizko zut-abe baten kapelean (capitel de una columna) otso eta basurdearen eizeak daude irudietan.

ABELZAIN

Abereak zaintzeko langintza (Artzai eta Unai) Arri-Aroan (Neolitiko = Arri-berri-Aro) ditu bere sustraiak. Zezen eta bei, zaldi eta urde, ardi eta auntzen eziketak arrezkeroakoak ditugu. Larre, belardi eta basoak libreak ziran errienak bait ziran, auzoenak. Artzaiek txabola, eskorta edo sarobe, artegiak, denak eurak erabilliak izan arren, artzaiek, erriarenak dira.

Santa-Kutz, Santa Maria, San Migel, Santa Barbara eta beste zenbait Doneak ba dute birtutea aberea eta artzaiek zaintzeko. Besteorrenbesteko birtutea zeukaten ere elorri-txuriak, lizarrak, urrak (arbola), ardi-beltzak, aurtzak, akerrak, "auntzek" (aurrekoen espirituak) eta Basajaunak (Barandiaran).

Ardiek eta auntzek izan zuten garrantzirik aundiena Araba eta Nafarroan. Gipuzkoa eta Bizkaian, berriz, (Lapurdian ere) beiek zuten aundiena. Txerriak ere ba zuan bere tokia etxeetako ekonomian, ez bait zan etxerik urteero txerria ilko ez zuenik, eguneroko urdaia eduki aal izateko.

Idi, mando eta zaldiak lanerako ziran eta merkagintzarako. Nekazariak akuillatzeko ona zer erabaki artu zuten Nafarroako Korteetan: "Idi-parea lanerako zeukateneri, soldaduzka libre."

Lanerako ganaduak bide eta kamiño guztiak bear zituztela aske, agintzen zuan Nafarroako Fueroak.

Nafar artaldeak, alde batetik Bardenesetara jeisten ziran; beste aldetik, berriz, Gaskuiñako landeetara, ez bait zan tartean mugarik.

1828'ko Yraillaren 26'an Madrid'eko Gobernuak ona zer agintzen dion Nafarroakoari: Ebro-ibaieko mugak Auñamendira (Pirenee) pasatzeko. Nafarren erantzuna izan zan, baietz baiña kondizio batekin: Pireneetako erriak, mugatik pasatzeko libertade osoa izaten bazuten, emendik ara eta andik onera, belardi, larraina eta ureetara (iturrietara) beuren ganaduekin eta nai zuten eran.

Belardiak, larraiñak, urak ez dute jabe bereizirik, danenak bait dira. Ala agintzen zuan Gipuzkoako Fueroak (Tit. 40,C.1). Eta gaiñera au dio:

"Agintzen degu agindu edozeiñ motako abereak, goizetik euren etxetik irten da... gauerañ, Gipuzkoako belardietan jan dezaketela edozein lurralde eta mendietan... naiz-eta toki oiek esiak izan eta mugarriz-mugatuak, naiz Aiuntamentu, naiz Aide Nagusi, naiz edozeiñ personaren eskutik mugatuak izan..."

Lege onek ez du auntzerentzako balio, auek okerrak egiten dituztelako arbole-tako adar-nagusietan. Beraz, auntzak beuren nagusiaren lurretan bakarrik askatuko dira.

NEKAZARI

Gure arteko Nekazaritza ere Arri-Arokoa degu (Neolitiko). Ala adierazten digute Lumentxa (Lekeitio) leizean arkitutako esku-arrotarria eta Bidarte'ko trikuarrian

abillatutako aitzurra. Aitzetik edo arritik ateratako itzak (aitzur, aiotz (podadera), nabar (golde-aitzo edo muturra) esandakoa argitzen dutela dirudi (Barandiaran).

Nekazaritza Euskalerrri guzian zabaldu zan.

Lekuona Zaarrak (Manuel) dionez, lurraren jabetasuna erritik persona bereziei-tara Aro onetan pasatzen asi omen zan. Ortik edo, etxearekin batera etxearen izena agertzen zaigu: Perurena, Petrirena, Blastegi (Blas'en etxe), Auspaginegi (Auspo-egillearen etxe) eta abar.

Lurraren lenengo urratseari "izato" deitzen zaio euskeraz. Lurrak artzen ditun beste lanen izenak, urteko ille bakoitzekin zer-ikusia badute: Azaroa da aziak ereiteko illea edo aroa; Jorrailla, jorra egiteko illa; Uztaila, uzta jasotzeko illa... Erromatarrek emen agertu aurrekoak dira itz auek, noski.

Golde muturra, Kristo jaio auuretik, IV garren gizaldian erabili oi zan gure artean; baita ganaduak goldetik tiraka ere. Laia, berriz, aurreragokoa degu. Gol-dea baiño zaarragoa, alegia.

Nekazaritza zabaldu zan, artzaintzaren bizkarretik; bien arteko interesak ez bait ziran alkarrekin etortzen; alderantziz, baizik.

Artzaiari belardiak konbeni eta esigabeko lur zabalak; nekazariaren zeregiña, berriz, basoak kendu, lurrak urratu eta esiak ipiñi. Gerora, burruka orretan beste bi lagun sartuko ziran: barkugintza eta olagintza, biak atera oi zuten basotik beuren lanerako bear zituzten gaiak. Batak egur-ikatsa eta besteak barkuen mastak egiteko zura. Bi auentzako basoa sakratua zan, bear bearrezkoa.

Erregeek, erri-billak sortarazteko, lurrak ematen zizkieten, erriko lurrak, nekazari-ri irabazian urratseko. Puente La Reina erriko semeeri onela die Erregeak 1122'an: "concedo vobis et mando quod laboretis terra erma ubi melius potestis in totas partes, in quantum potueritis ire et redire in uno die" zueri ematen dizuet eskubidea eta agindua lurrak urratu eta lantzeko, edozein tokitan, alde zuten geienak, egun berean joan eta etorri egiteko neurrian.

Gipuzkoako Fuegoak onela dio (Tit. 38): ez dedilla ganadurik sartu ez maazte-gietan, ez landaretegiatan, ez baratzetan, ezta ereindako soroetan ere". Estella-koak, berriz, zorpe gogorretan jartzen du maazti eta baratzetan sartzen dan ganaduaren nagusia.

XVI'garren aizken-aldean onela idazten du Enrike Cock jaunak: Los Arcos, Viana eta Lerin'go lurraldeetan garia eta ardoa merke daude, emendik kanpora bialtzea debekatua dagolako. Bitartean, Bermeo'ko agintzariak, milla gari-"caices" (neurria da) Andaluzi eta Frantziako portuetatik ekar aal izateko baimena eskatzen dute. Bilbok Baionari eun milla dukaten gariak erosten zizkion urteero. Nafarro osoak ori bazekin eta ondo iruditzen ez. Orregaitik Korteeri esaten diete nafarrak (1632) Nafarroak bialdu ditezket a euskal probintzileri 50.000 dukaten gariak... Gezurra baldin badirudi ere, orduan errezagoa zan Andaluzi, Frantzi eta Europako lfar-aldeetik Euskalerrira garia ekartzea Nafarro eta Kastillatik baiño.

Ardoakin ere orenbeste gerta oi zan. XVI'garren eunkirarte Gipuzkoak eta Bizkaiak sagardo eta txakoliñakin naikoa zuten, ardoa ekartzea debekatua zego-lako. Ardoa libratu zanean, Bizkaiak Ribadabia'ra jo zuan ardo gaillegoaren billa itxaso-z; gerora, berriz, lurrez Errioxara. Gipuzkoak beti Nafarrora. Larramendik zio-nez, burnitan irabazitakoa ardotan gastatzen omen zuten giputzak.

Markiña erriko Araudiak (1637-1-9'an) erritareri auxe eskatzen die: ortu bat edukitzeko eta iñoren baratzan kalterik ez egiteko.

OLAGIZON

Badirudi beranduago agertzen dala gure artean olagizona artzaia eta nekazari-ri baiño. Alaz ere, bi auek ez dute ainbeste garrantzirik. Fausto Arozenak dionez, olagizonari aundikieri baiño abantaila eta eskubide geiago ematen zion legeak gure errietan. Langintza guzieren artean olagintza a aundiki.

Burni-olak oso dira ugariak Gizpuzkoan bezela Bizkaian ere. Baita Nafarro eta Arabak ifar-aldeetik dituzten ibarretan. Lapurdi eta Zuberoan, berriz, eskasak, Olentzako burni-meatzak gertu izatea zan bat eta basoak inguruan beste bat. Biak bear; bearrezkoena, baso oparo bat; orregaitik baso ingumarietan egon oi ziran burni-olak...

Fausto Elhuyart jankitsuak 1783'an idatzi zun Somorrostro'ko meatzak nola ateratzen ziran. Artarako 3,4 edo 5 gizaseme alkatzen ziran; batzuek meatza urratzeko eta besteak kanpora ateratzeko. Alditan, meatzaren jabeak ziran guztiak alditan, berriz, batzuek jabeak eta besteak langille utsak.

Urtutze-lanak eta burni-lantzeak oso ziran ximpleak. Labeak metro bat zaba-lean zuan; bertan meatza apurtuta bustiña eta karekin naastuta, eta egur-ikatsa tarteka zerrenda edo apaletan: ikatsa lenengo, meatza ondoren; ikatsa berriro... Auntzaren larruekin egindago auspoa putzaka, aizea ematen.

Gure errietan bakoitzak etxerako bear zuan egurra "egurtzetatik" aterako zuan bakarrik; baiña, olagizonak lanerako bear zuan egurra edozein egurretik eta nolanaiko arboletik atera ezakean, Oleen Fueroak agintzen zuanez. Lege orrek ematen dio olagizonari eskubide guztiak etxeak eta olak erailtzeko, tokiz aldatzeko beuren gogoaren neurrian, zingirak eta aldaparoak nai zuan neurrian gora jasotzeko. Petxarik ez dio ezarriko gaiñean, merkatu librean eskeiñiko dizkio eta abar. Ainbeste abantaila eta eskubideekin, aizkenerako aiuntamentuak asarre burni-oletako gizonekin.

Burni-meak danenak eta danentzako dira bai Bizkaian eta bai Gipuzkoan. Bi sarde eta bien artean iru makilla jartzea zan burni-meatzak lantzen asitako seiña-lea, Mutilo eta Zerañ'en. Enkartaciones'etan, berriz, lanaren eskubidea pikatxoia edo atxurra sartuta agertzen zan. Lana edozein alderdira jo zezaken, gora edo bera, ezkerrera edo eskubira; baiña, besteen lanak errespetatuz. Langille bakoitzak amalautik amaseira kintal-"macho", atera oi zitun. 208 libra zitun kintal-"macho" orrek.

1528'an Bizkaiko Fueroak, 28'garren Tituloan, lau lege oso ditu oletako lan eta ekonomiar buruzkoak.

Bazuten olagizonek beurentzako Alkate bereizi bat. Oneri zegokion olagizonen arteko korapillo eta prolemak ezagutu eta erabakitzea. Neurritik irten ziran alkate auek "zuzentasunaren makilla" (vara de justicia) eramaten asi ziranean. Orrelakorik ez egiteko agintzen die Fuero orrek berberak.

Ainbeste abantaila eta eskubideekin protesta bizia sortu zan. Artzaiek eta nekazariak alde batetik; aiuntamentuek bestetik. 1412'an Segurako Hospitalean izan zuten danen arteko batzarra. Ez alperrik. Gauzak gelditu ziran asieran zeuden bezelatsu. Nekazariak euren baratza eta soroak lantzeko eskubide bazuten, arbolak aldatu eta arboletatik egurra eramateko, ere bai; baiña zura burni-olentzako izango zan gerora ere. Olagizonen arrazoia beti izaten zan berdiña: gu etorri giñan onera lenengoz; ondoren sortu zan emen erria. Onen antzeko eztabaida batean Juan Bergara'kok zionez, bere aurrekoeri entzunda zeukan, Legazpia olagizonek sortu zutela; jentillen garaian ere bazirala olagizonak Legazpian eta burni-oletan burnia, kristauek izan baiño leen, egiten zala. Oraintsu artean egazpiko olak "jentil-olak" deitzen omen ziran eta olagizonen etxeak "jentil-etxe".

Oiartzun'go Kontsejuak arpegia eman zien olagizoneri. Arrazoia betikoa: erriko mendietatik arbolak ebagi eta eramaten zituztela ez baimen eta ez ordaiñ. Erantzuna ere betikoa: Erria eta Kontsejua sortu baiño leen emen giñan gu; eta gaiñera, badegu Kastillako Erregeak emandako Fueroa ere; Ola-fueroa, alegia.

Euskal Fueroa berbera ere, oleen alde da: "Olak puskatu edo auspoak oletan zulatzen dituzteneri, eriotza zorretan". (Bizkaiko Fueroa: Tit. 34,L.19) Gipuzkoakoa ere (Tit.' 39, Cap. 1): "burni-olak erre... auspoak ebagiten duanari eriotza..."

Gremio-antolamentuak burni-ola bakoitzeko gizon auek aitatzen ditu: buru bezela **iellea**, beste lau edo bost ola-gizon laguntzaille; bi **urtzaille** (fundidores) eta **gatzamaille** bat (piche).

IKASKIÑA

Mendiak zeuden pagoz eta aritez. Zugaitz auek bearrezkoak ziran olentzako, eurakin egiten bait zan egur-ikatsa. Ikaskiñen lana zan egur-ikatsa egitea.

Burni-olen Fuegoak olagizona eta ikaskiña, biak naasten ditu; biak bat zirelako. Ikaskiña olagizonekin batera bizi zan. Lan bakar baten, bi aurpegi. Burnia lortzeko meatza ekarri bear; meatza urtzeko sua bear egur-ikatsez; burnia lortzeko labeetatik ateratako agoia landu bear... Gerora beriziko dira eginkizun bakoitza: burni-lantze, meatz-karreatze, ikats-egite, burni-era maille eta abar.

Olagizonek erosten zituzten basoak ikats egiteko; edo ikats erosteko dirua korrituan billatu ere. Oletan erretzen zan ikats-egurra neurrigabekoa zan. (1514'an, Oiartzun'go erriaren esi-barruan, 27.000 ikats-karga erre ziran bertako oleetan. Ikats-karga bat lortzeko lau egur-karga bear ziran. Beraz, 108.000 egur-karga erri bakar batean urtebetean). Gerora, zenbait errietako Kontsejuen inbidiz jotako politika zikiñak, arbolak mendian aldatzea debekatuko du, burni-oleen ondamendia billatu nairik. Orrelako joka-bidez itto ziran ola asko.

Alaz ere, gure mendietan beti izan dira baso oparoak; beuretatik sortu izan da beti etxeetan eta egur-ikatsa egiteko bear ziran egurrak, baita etxea eta barkuak egiteko zura ere.

1262'en Alfonso X El Sabio erregeak Mondragoeri emandako eskubideen artean bat zan ikatsa egiteko egurra.

Iñork mendirik erosten bazun, egurra burni-olentzako bear zuan izan, naiz eta ordaiñak kobratu. Ala agintzen zuan Bizkaiko Fuegoak. Olagizona bazan eroslea, bera ere beste olagizoneri ematea beartuta zegoan, ordaiñak artuta. Norbaitek bereak ziran mendiak mugatuta bazitun, orduan libre gelditzen zan egurra emateko edo ukatzeko.

Mendietan ganaduek egiten zituzten kalteak neurtzeko, ikaskiñak ziran aukeratuak. Kaltearen neurria askotan ikats-gargetan neurtzen zan eta ez dirutan.

Ikats -zorroak burni-oletan erabiltzen ziranen neurrikoak bear zuten; lurralde bakoitzean aspalditik usarioa zan neurrian.

Erri guzietako Kontsejuak izaten zuten arbolak aldatzeko ardura. Bazituzten iru arrazoi auek gutxienez: eskurrak ganaduentzat, egurra eta zura barkugintza eta burnigintzarako.

Euskalerriko zugaitzik ugariena aritza zan. Onen ondoren zetorren pagoa. Pagoaren atzetik sagarra, arana eta gorostia. Piñu, izai (abeto) eta arkazia gutxi zegoan gure mendietan. Fruta-arboletatik zaarrena "urra" dala dirudi. Itz ortatik bait datozte ezk-urra eta intxa-urra. Gaiztaña ere berez sortzen dan zugaitza da gure inguruan. Ugaria ziran fruta-zugaitzak. Ugarienak sagarra, urdara eta intxaurra. (García de Cortazar).

ERROTARIA

Olak asko baziran, errotak geiago. Azpeitiko ingumarian 8 ola eta 16 errota zeuden. Zenbait ola zaarretan errotak eraiki ziran eta alderantziz erebai: errota zaarretan ola berriak. Errietako berri ematen dituzten idaztietan onelako au irakurtzen degu sarri: iriña eioteko errota bat dago lengo ola zaareren orde. Errotari, badaezpadako ofizio zan.

Nafarroako Korteak, 1766'an, orren antzeko ofizioa zutenen gurasoen semerik ez dute nai ez mediku, ez botikario eta ez albaiterotako. Orregaitik, 1784'an

Mediku Elkarteak pleita ematen dio Jabier Lizasoin'goari arakin baten semea izanik, mediku ikasten ari zalakoz.

Aize-errotaen arrastoak badira; alaz ere, emengo errotak erreka baztarretan zeuden eta urakin ibiltzen ziran. Erreka oien neurria artzeko errotak eta olak erabiltzen ziran neurri bezela. Ala adio idazti batek: "Mendaro'n ura dago naikoa, Kilimon errekan, bi ola eta bi errota erabiltzeko..."

Erri bakoitzak bere ondasunak zitun. Oien artean aberatsenetakoak, errotak. Auek izaten ziran maiz Erregeek erri-billeri ematen zizkien doaiak: "dono molendinos". Baiña, batzuetan Erregeen idaztiak beste erantsi au ekarri oi zuten: iriña geure errotetan eio bear da eta ogia geure labeetan erre. Beste era batekoa da Erregeak Donostiari egiten dion doa: "dono molendinos liberos", bearkizunik gabeko errotak, alegia. (Donostiako Fueroa I,6).

Lazkano'n, 1644'an erregearen errotara ez baiño Arramendi'ko alargunaren Yribe'ko errotara joango dira beuren gogoz "eta betirako". Baiña, 1761,go urtean, Irailla 30, Imaz-berriko etxeakoandreak bere alaba Josefa, Ataun'go plazan zegoen errotara bialduko du garia eiotera...

Nafarroan, Fueroen aizkenetan, gari-merkatua librea zan erreinoaren barruan. Prezioa, Iruña eta Estella'n egiten zuna, bear zuan izan beste errientzako ere.

Gipuzkoan, berriz, Tolosa'ko azokan egiten zuan neurria, danentzako.

Baiona'ko portuaren ateak irikita zeuden kanpotik zetorren garirako; baiña, beñ barruan garia, atea itxitzen ziran, beurentzako bear zutelako. Baionak, errotak zitun bira guztian, arri-esietatik at (murrailletatik kanpo). Bakoitzak bere errotan eiotzen zuan garia.

"Errotari ondamendia dakarkiona... il bedi "dio Bizkaiko Fueroak (Tit. 34, L.19).

Garai bateko burniola eta iriñ-errota gerora tabako-errota biurtuko dira. Tabakoa negozio ederra izan zan une batean; denbora gutxirako, baiña. Nola gertatu zan? Bizkai eta Gipuzkoan tabakoa libre zegoen; Kastillan, berriz, katigu. Lapurdi osoan, batez ere Baiona eta Doniane Loitzun inguruan, tabako-ola asko zegoen. Giputxek Lapurdin erositako tabakoa, kontrabandoz Kastillan sartu. 1687'an Bizkaiko Korrejidoreak egindako azterketa baten bitartez ona zer dakigun: ola eta errota asko tabako-ola biurtu zirala.

ELTZEGILLE-BUZTINLARI

Loi-ola edo buztin-ola da eltzegilleen ola. Eltzegilleari "ollero" ere esan oi zaio gure artean. Olleroak, ieltzeroak eta eulsak erri txikienetan ere izaten ziran: Bilbao, Amorebieta, Durango, Munguia, Orduña, Abadiano, Apatamonasterio, Elosua, Amezaga, Salbatierra, Nabaja, Galarreta, Ullibarri de Olleros, eta Barazar bidean dago "Ollerías" izenako erria. Geuk ezagutu genduan gure aurtzarroan Lazkano'ko errian "olleroa". Tafalla'ko loi-ola gaurdaíño eldu zaigu.

Loi-ola bakoitzean langille batzuek izan oi ziran. Euskalerrri osoan alkar jota, mordoixka bat egiten zuten. Ez gutxi.

Lanerako bear zuten buztíña edonun arkitzen zan. Azalean arkitu ere. Alaz ere, Durangon badaude bost metroko zuloak. Lanerako, oiñakin erabiltzen zan "erroberie" edo torna.

Loi-ola bakoitzak zuan bere labea. Errekiñ onena otea zan. Merkeena ere bai. Zenbait tokietan, ego aldean batez ere, olibo-adarrak, mats-aienak, erromeroa eta abar: lekuan lekukoa. "Oteeri su ematen diona... sei urte erritik kanpora". (Gipuzkoako Fueroa: T.38,C.6). Labe-aldi bakoitza 20 ordukoa izan oi zan gutxi gorabera. Batzuen oitura zan erre-aldi bakoitza amaitzean "festa-bazkari" bat egitea. Ontzien salmenta eurak egiten zuten, erriz-erri, mando-gurdietan. Ala-moduzkoak ugari ikusi oi ditugu udaran Kastillatik etorritako eltezez eta botijoz betetako mandoak.

Buztin-lurrak errienak ziran eta buztina ateratzearren ez zan ezer ordaindu bear iñori. (Lumbier) (Enciclopedia del País Vasco).

ARRANTZALE

Arkaitz zuloetan bizi zanetik asi zan euskalduna arrantzan. Arpoiak, arrantzarako tresnak, leizeetan agertzen zaizkigu; bai arrai-ezurak ere. Altxerri kobako ormeetan xixilkatu eta marraztun agertzen dira zenbait animalien irudiak. Euren artean izoki bat, urraburu bat eta bi arrondo-latz, araiñen artetik. Leize-atarietan, berriz, molusko-azalak daude ugari; ostrarenak, batez ere. Esnea egurrezko kaituetan egosteko, arri borobillak sutan berotu eta esnetan sartu. (Ba da amar milla urte ori euskaldunek egiten zutela). Orixe berbera egin oi zuten marraskillo edo itxas-karakolen aragia jan aal izateko.

Arrantza erreka, ibai eta kostaldean egiñ oi zuten. Geroago, berriz itxasoko gertuetako kaletan. Azkenik, itxaso aundietan. Gure Erria, batez ere, mendiko aragitik bizi zan; baiña, apurka-apurka itsas-ontziak sortu ziran; baita ugaritu ere. Gure Fueroak esango digu Baiona'tik asi eta Matxitxakoraiño, baztar guztietan zeudela barkugintzarako olak.

Dudarik gabe, bale-arrantza izan zan gure Erriaren aberastasunik oparoenetako bat. Ondarrabi, Pasaia, Donosti, Getari, Deba, Mutriku, Ondarroa, Lekeitio, Bermeo, Doniane Loitzun, Ziburu, Miarritze eta Baionak badute arrantza onen berri. Baiaeren ondoren joanda arkitu zituzten Ifar-aldeko itxasoak eta lurrak, Terranoba, Kanada, Groenlandia eta abar. Eta, bertan, bakaillaua itxaso-eztali. Joan de Espilla debarraren garaian, (1556) amar millatik ogei millara gizonezko irten oi zuten Terranobako arrantzara 200 barkuetan. Egun bakar batean (1625-Urrillak 15), Terranobako arrantza berutz asita zegoalarik, Pasaiaiko portuan 41 ontzi zeuden 295 txalupa eta 1475 gizaseme barruan zituztela. ("Euskalerrria eta Arrantza").

1670'an, onela dio gure Terranobako arrantzaleeri buruz Nicolas Denys jaunak: "Euskaldunak itxasoratzen diranean errantzarako, datorrena datorrela, lanari eutsiko diote, eta euriagatik besteak arrantza uzten dutenean, euskaldunek ez. Era orretara, besteak txalupa-erdi bat betetzerako, auek osoa betetzea dute. Gero, sorgiñak dirala esango dute euragatik; baiña, bekaizkeria eta inbiria besterik ez da."

Doniane Loitzun eta Ziburuk 80 barku eta 3.000 gizon zituzten bien arteko kaiean. "Atxotar" sendia bada kai oietan. Urteetan zear famili orren lana auxe izan da: denboralak eraginda gaizki zebiltzen arrantzaleeri laguntzea. Pireneetako Pake-garaian (1659) 12.000 milla biztanle zitun Doniane Loitzunek eta euskaldun kostaldeko porturik aundiena zan.

1636'go Urrillaren 24'an, Terranobatik zetozten bale-koipez betetako 14 ontzi, Doniane eta Sokoan sartuta, bertatik arrapatu zituzten egoaldeko euskaldunek. Franzisko Irrarazabal zan buruzagi eta giputx-mordo ederra tartean. Beste 40 pinaza ere bai, eun txalupa barruan zituztela.

1691'an Frantzirako muga itxita dago. Iruña protesta bizian da Erregearen ordekoaren aurrean, arraiñ fresko guzia Baiona eta Doniane Loitzunetik ekartzen bait zan urira. Ordez, Donostiatik ekarri eziñ.

Utrech'eko Itunaren (1713) ondoren frantziak Akadia, Kanada eta Terranoba galtzen ditu inglesen probetxuan. Orrek kalteak ekarri zizkien Lapurdiko arrantzaleeri eta sardiñatan asi bear. Arrantza, beruntz.

XVI eunkiaren aizken alderako arraiñak eta oraingoak berdiñak ziran: "Errekeetan barbuak, amorraiñak, aingirak, izokiak (salmón)...(¿falta algo en el original?)... neguan legatza eta itxas-aingira geiago... mero batzuek...

Arrantza egiteko tertzak, sareak, amuak erabilli oi dira. Pinaza edo barku bakoitzean amar edo amabi gizon dijoaz; txalupetan, berriz, kostatik gertu ibiltzeko, iru, lau edo bost gizon: "arrantzale bakoitzak darama bere jatekoa; ala ez danean, patrioandik jaten du, gero alojeratik ordaintzeko."

Arraiña Euskalerriko baztar guzietara zabalduko da. Olite'ko erregeen jauregira arraiñak Iruñatik Gallart jaunak eraman oi ditu. 1412'an, Gabon egunean, sei dozena-sardiña, amorrai batzuek eta irurogeita lau bixigu eraman zitun...

Aro-Erdian, Bidasoako erriek izokiaren petxa ordaintzen zuten. Zuberoako baillarakoak erditzeko zeuden amar bei eta bederatzi izoki. Urdax'eko Monasterioak Leire'koari bi izoki aundi eskeintzen dizkio lagunarteko seiñale bezela.

Izokiaren prezioa, zillar-erreal bat librako, izan oi zan: egun bateko ostatuaren prezioa.

Donostia'ko Kofradiak arraiñetik atera oi zuan, Gazteluaren ondoan ipintzen zuten argia ordaintzeko. Porturako bidean erakusteko jarri oi zan argi ori.

Oiartzun'go Araudiak dionez, edozeiñek jarri leioke prezioa arraiñari.

Arrinda, Anes eta Donato



GIZARTIZTI

OGIBIDE TA LANGINTZAK II

MERKATARI

Bizkai eta Gipuzkoan nekazariak beti izan dira gutxi; sekula ere ez bear-aiña. Jatekoak kanpotik ekarri bear. Orixe, merkataritzaren lana. Merkataritzan oiñarrituak sortu ziran Orduña, Balmaseda, Ordizia, Tolosa eta beste zenbait erri-billa.

Araba eta Nafarroak eurentzako aiña jateko izan dute beti. Olio, ardo eta gari izan dira eurentzako sal-gaiak. Irurak dira erromatarrek gurera ekarriak.

Nafarroako bideak egunetik egunera seguruagoak. Santiago-bidea batez ere. Bide orretatik eldu ziran guregana, erromesekin batera, ainbat artista eta merkatarari. "Frankoak", geienetan gaskoiñak, izan ziran bide orren luzaro guzian sus-traitu ziranak. Merkatarari ziran eta feri eta azoketarako fuero bereziakin etorri ziran. Iruñako San Zernin eta San Nikolaseko frankoeri eman zitzaizen Baraiñ'en merkatu egiteko eskubidea; baita Santiagora bidean zijoazten erromeseri gauzak saltzekoa ere, beste galñontzeko euskal-merkatarien kaltean...

Estella zan merkatu-erri.

1256'an Alfonso X'garrenak astearteetan merkatu egiteko baimena eman zion Salbaterrari, "Gazteiz'koak duten erara".

Merkatu egiteko baimena Erregeak eman oi zuan. Asteerokoak ziran merkatu oiek. Feriak, berriz, urteerokoak. Sal-erosketak askatasun osoan egiten ziran, petxarik ordaintzeke.

Bizkaiko Fueroak (Tit. 1, L. 105) onela dio: "bizkaitarrak aske eta libreak izan bitez edozein merkagai, naiz eunak eta naiz burniak, erosi edo saltzeko".

Gaskoiñekin batera agertzen dira gure artean judutarrek ere, merkataritzarako lekuri egokienak aukeratuaz. Iruñatik Tudela'ra dauden erri garrantzidunak guztiek dute beuren judeo-taldea. Oietako taldeak ezagutu zituzten Arabako zenbait erriek ere. 1296'an Alfonso X'erranak judutarrentzat kale berezi bat jaso zuan, merkataritzari aupada bat emateko asmotan. Gebara erriak ere bazuan bere judatar-taldea.

Balmasedan ere bazan talde bat. Baiña, Gipuzkoa eta Bizkaian judutarrek ez zuten interesik ikusten. España eta Portugal'etik bota zituztenean, Baiona'ra jo zuten, St. Sprit deritzan auzora. An dute euren sinagoga eta illerria.

Nafar errege Santxo Ramirez'ek gaskoiñak Nafarrora ekartzea, ez zuan ondo ikusi Gipuzkoak eta ori izan zitzaion Nafarroatik alde egiteko arrazoirik aundiena. Ez zitun ez-eta mairu eta judutarrek ondo ikusten eta oiekin naasteari eragozpenak jartzeko, onela dio bere Fueroak (Tit. 41,C.1): "ez dezala orrelako jenderik bere egoitza Probintzian egiñ". Bizkaikoak areago (Tit. 1,L.15): judutarren batek, Bizkaian bizitzeko Erregeak emandako agiria baleuka, "onartua dedilla, baiña, ez dezala iñork bete", "sea obedecida y no cumplida". Alaz ere, Araba eta Nafarroan judutarren lanak sendotu eta oiñarritu zun merkataritza guzia.

Kostaldean, kaiak ederrak; baiña, merkagaiak falta, Somorrostro eta Arditurriko meatzak izan ezik. Lana gerorago ugarituko zan burni-meatzak obeto ezagutuak izan ziranean.

Donostiak bere asieran zitun merkagaiak auek ziran, bere Fueroak zionez: burria, artilezko eunak, oreifen larruak eta konejuenak. Fuero ori berbera zabaldu zan kostaldeko erri guztietan eta beuren kaien Araudi gertatu zan, Barzelona'ko "Libre del Consolat del Mar" eta Araudia baiño eun urte aurretik.

Geroago agertu ziran Donostian, Europako lfar-alderuntz bideak artzeko, Kastillako artilleak eta Aragoiko ardo-olioak. Oiekin batera burnia eta arrantzuak (bakaillaua eta bale-koipea, batez ere).

Hermanidad de la Marisma'ren pare sortu zan lfar-aldeko itxasoetan "Liga Hanseatica" zeritzan elkarte. Ortik eta onera, XIV eunkian asiko dira gure kaie-tan Hansa orren barkuak agertzen. Ortik datorkio Donostiako Esterlines kaleari bere izena. Hansa orrek garia, eunak, salazoa, Baltiko'ko "ambar" (lupe-lerdo) eta beste lfar-aldeko generoak, ekartzen zitun gurera. 1388'an bretoiñiak dabilta gurean merkataritzan Donostia'ko Araudi batean agertzen danez.

Baiona eta Bilbo nor-geieagoka dabilta Donostia'rekin. Bermeo'n ere bazan kai eder bat; baiña, merkataritzaren nagusitasuna Bilbo'ra pasa zan XIV'garrene-tik aurrera. Frantzia'ko lurralde askotako jeneroak Baiona'n ontziratzen ziran, edo andik Andaluzi eta Ameriketa'ra irtezkeo. Ordainketak, berriz, diru espaiñoletan egiten zan (Ameriketako urreak). Nafarroatik ateratzen zan artillea Frantziako euleak lantzen zuten geiena. Kai guztiak zeuden artille oien gose.

Tolosarrek bazuten eskubide xeblere bat 1285'tik aurrera eta auxe da: 'portu legorra' zan Tolosa eta beregandik igaro bear zuten, nai-ta-naiez, Nafarro eta Aragoi'ko merkagaiak gurera zetozenean. Fernando Erregeak Nafarroa artu zuanean, Donostiak artillen petxak jaso zitun eta, orduan, artilleak Baiona'ko bidea artu zuten.

Aro-Berrian (Edad Moderna) zear giputx eta lapurtarren arteko itunak asko izan ziran eten-gabe, naiz-eta Espaiña eta Frantzia alkarrekin burrukan ibilli. Onela dio Gipuzkoako Fueroak (Tit. 19,C.4) koipe eta bitualleri buruz: alkarren arteko itunak zizutela gerra guztien azpitik edo gaiñetik.

XVI'garrenean askotan aitatzen da Bizkaiko portuetan sartzeko askatasun osoa bituallakin zetozten barkuentzako, naizeta ontzi oien nazioekin burrukan ibilli. 1537'ko azaroaren 17'an, Kastro-Urdiales'en, alkarren arteko merkatuko artu-emenetan fede onez eta pakean ibiltzeko ituna egin zuten Kostaldeko Lau Erribillak, Bizkaiko Jaurerria (Señorio)'k, Gipuzkoako Probintziak, Labort'eko Lurraldeak, Baiona'ko Uriak eta Cap-Breton'eko Baroniak.

Merkataritzan garrantzi aundia du pisuen neurri onak; falsorik, ez. "Si quis falsam mensuram, vel pesum..." (Estellako Fueroa: I, 11). Oartzun'go Araudiak ere aitatzen du pixuak eta neurriak ondo dauden aztertzeko daukaten gizona. "Ala konbeni bait da, saltzeko eta erosteko neurri segurua egon dedilla, engaiñurik gabe". (Fueroa, Tit. XX, Cap. II).

ZERGA edo PETXAK

Gipuzkoak Erregeari ematen zion zerga "alcabala" zeritzan; beste eskubide guztiak ukatzen dizkio. (Tit. 28,C.1). Gipuzkoak ez zitun era onetako zergak ordaintzen: "fonsaderas, servicios, pedidos, ayudas eta monedas". Ez-eta "sis-sa"rik ere, Fueroen aurkakoa zalakoz (Tit. 2,C.7). Berak ematen zuna, bere gogoz ematen zuan eta ez beartuta; ezta betiko ere.

1637'an, Madriderik, bere gogo utsez, "paper seillatua" sartu nai izan zuan Gipuzkoan. Paper oien enkargatuak, guztiak, giltzapean sartu zituzten.

Urrengo urtearen Urrillean eskabide bat egiten dio Erregeak Gipuzkoari. Onek

amar milla dukat dirutan bialdu zion eta gaiñera 30.000 kare-fanega eta seireun toneladako lau galeoi egiteko aiaña egur.

1707'an, Kapitana Jeneralak, Erregearen serbitzurako, Ondarrabi'ko arri-esiak konpontzera beartu nai izan zuan Probintzia; baiña, onek, Erregearen serbitzurako, Getaria'ko arri-esia konpondu zuan eta bertan ipiñi kañoiak; Ondarrabian, berriz, ez zuan ezer egiñ.

Oiartzun'go Konzejal batek, Madrid'eko petxak onartu bear zirala aitzera eman zualako, leiotik kalera txintxiliek eduki zuten; kalera botatzeko amenazak egiñ ere bai.

"Impuesto de pedido" zeritzan zergaren eztabaida seireun urtez aurretik asita zegoan.

Tolosa, Segura, Mondragoe, Mutriku, Getari, Ordizia, Bergara, Gatzaga eta Zarauzko Prokuradoreak Tolosan alkartu ziran 1391'an eta erabaki bereziak artu zituzten petxa orren aurka, asita bait zeuden oietako zerga-biltzailleak Probintzian petxabila.

1463'an Gazteiz'ko Gaon judutarrari gertatutakoa oso ezaguna da. Zerga ori biltzen asi zan eta ez egiteko esan zioten. Alaz ere, berak bere astuari arre, berean ekin zion. Burua ebagi zioten Tolosako errian eta buru ori urka-abean (picota) esegi zuten.

Gipuzkoako portuetatik (bai buzti eta bai legor) pasatzen zan merkagai oro "amarren-zaar" zeritzon zerga ordaindu bear zuten. Portu-legor antxiñakoena Tolosa zan Probintzi guztian. Portuetan bazan "renteria" zeritzan atalondo (lonja) bat etxe batean, amarren oiek kobratzeko. Ez ziran galestiak. Donostikoen berri badegu. Ona: burni-kintal bakoitzeko marabedi erdi bat; galtzairuatik, marabedi osoa; zirraidagaitik (estaño) lau marabedi...

Bizkaiko Fuegoak zionez (Tit. 4,L.4) bizkaitarra libre zan kanpotik etortzen ziran petxa guztietatik. Ordaintzen zutena, Gaztela'ko Erregeari alegia, borondatez ematen zan. Bizkaiko Jaunari bai "amasei diru zaar ordaintzen zioten burni-kintal bakoitzeko".

Arabak ere ordaintzen zuan "alcabala" zeritzan zerga (saltzen zutenetik %5) eta Foruek agintzen zituzten bi petxa auek: "semeyo" zeritzana (iru kuarta gari eta iru garagar) eta "martzoko idia" (10 1/2 edo 5 1/2 marabedi bakoitzak aal zuan neurrian urteoro).

Arabako aundikiak ez zuten petxarik ordaintzen. Ordaindu bear bazan, Junta Jeneraletan erabaki bear zan. Gerora, XVII'an, beste oitura au sartu zan: erregeen eskontzak aitzaki zirala, erregaliak egitea.

Nafarroa, beti bezela, bere bidetik zebillen. Erreinoa edo erresuma zan eta orregaitik ba zuan bere diru berezia ere. Karkos l'aren erreinuan diru-etxeak, Nafarroan, erri auetan zeuden: Iruña, Monreal, San Juan de Pie de Puerto eta Saint Palais.

1353'an zergak ordaintzen ziran "libra", "sueldos" eta "dineros" diruetan. Noiz-beinka "florines"etan. Gauzezko petxak, berriz, gari, garagar, olo, ardo, sagardo, ollo eta abarretan.

"Villanos" (baserrietan bizi ziranak) bi eratakoak ziran: a) lurra lantzeko ganaduak zeuzkaten nekazariak (petxa osokoak); b) "axaderos", ganadurik gabeak, atxurrakin bakarrik lan egiten zutenak (petxa erdikoak). Auek, besteen erdia ordaintzen zuten. Alargunak, berriz, erdiaren erdia.

Nafarroako zergak auek ziran: MANERIAS, seme gabe iltzen ziran gurasoen ondasunak errege edo jaunarentzak ziran; FONSADEIRA, gazteluetako arri-esi edo "fosoetan" lan egiteko bearkizuna; SACA, kanpora bialtzen zanetik artuak; PEAJE, kanpotik zetorren jeneroari artuak; PECHA CAPITAL, onenbesteko bat famili bakoitzari; CENA DEL REY, erriak Erregeari jaten emateko zeukaten bearkizuna. Bearkizun au eten-gabea biurtu zan eta orregaitik, eten-gabe, errietatik janak eta edanak bialdu bear erregearen jauregira.

1523'an Nafarroako Korteek kexa ziran Estellakoek Urbasa eta Andia'ra zebiltzen artaldeeri, joan-etorri bakoitzeko, ardi edo aari bat eskatzen zietelako.

AUZO-LURRAK

Erriaren lurretatik probetxu atera aal izateko, erriko auzo izan bear zan. Bizitzeak, berak utsik, ez zuan berekin auzotasunaren eskubiderik. Bearrezkoa zan etxe-bizitzak "Fueroaren neurriak" izatea. (Bozate'ko etxeek ez zuten baldintza edo kondizio ori betetzen, Migel Usua'kok zionez, 1661'an, agoteen aurkako ekintza batean).

Auzotasunak berekin zeramazkin eskubide auek: belar, ur eta egurraren esku-bideak. Egurra toki bereizietatik (egurtzeetatik) jaso bear zan; eta "su-egurra" ebagi ondoren, amar egunez egon bear zan ikutzeke (Oiarzun). Ondoren, eraman zezakean.

Arabako Zigoitia errixkan, Gorbea-mendiko egurra eta ezkurra danantzako libre zegon.

Bizkaitarrak, bere Jaunari gogora-azitzen diote, lurrak eta mendiak erriarenak dirala, erriaren eskubideak. Orregaitik, Fuerotik eta oituretatik zekarren eskubidea zala, erria Gernikan biltzea, "tañidas cinco bocinas", erri-billa bat sortu aurretik. (Fuero Viejo, Cap. XI).

Meatzak, bai Gipuzkoan eta bai Bizkaian, erriarenak ziran. Erriko Kontsejuen eginbearra zan txara, burni-ola, errota eta ostatuen salmenta. 1822'an, Franzisko Albisu eskribanoak Tolosa erriko lurren salmenta egin zuan, eskritura eta guzti. Probinziaren baimenik ote zun ez dakigu; baiña, 1476'an Probinziaren baimena bear zan errietako lurrak saltzeko eta orrela eman zion Eibarko Kontsejuari. Usarraga'n bildu zan egun artan Probintzia. Errietako Kontsejuak eginkizun asko zeuzkaten; bat, oso garrantzi aundikoa au zan: auzo-lurren mugarrieri begiratzea bertara joan-da. Araudietan (Ordenantzeetan) maiz aitatzen dira mugarriek sortzen zituzten korapilloak eta eztabaidak. Errien artekoak, eta erri barruetan, mugarrieri buruz, sortutakoak. Beti izan bait dira errietan auzo-lurrak bereganatzeko ibilli diran lotsa-galduak. Xistema erreza izaten zan, auzoan erri-lurrak zituztenak, tarteko muggarriak aldatzea. Errezagorik, zer? Ori egiten dutenak ez dira falta gaurko egunean ere.

1504, ekainaren 21'an, Erregearen ordena: auzo-lurrak bereganatu dituztenak, mugarriak beuren tokira aldatzeko berriro... Ordena ori egon arren, keixak berriz ere: "lur-berriak, baimenik gabe urratsea, ez dagoala libre; batzuek, beuren probetxuan, erriko lurretan fruta-arbolak aldatu dituztela...".

1704, urriaren 4'an, Tolosako agintariak, orrelako arbolak lurretik ateratzeko agindua ematen dute...

Nafar-erriberan, oraindik ere, badira orrelako lurrak, auzo-lurrak, edozeiñeri urratseko uzten zaizkionak, ordaiñ txiki baten orde. Kostaldeko erriak bazituzten portuan atalondo edo lonja bat. Zenbait burni-ola, errota, ostatu eta benta, nekazari-baserri, teilla-ola, arategi eta abar errienak izan oi ziran. Gero Kontsejuak subastan ematen zitun maiztarrerri.

1530'an, Nafarroako auzo-etxe bakoitzak ba zun sei idi eta sei beor belardietan botatzeko eskubidea. Oietzaz gaiñera, beste 120 ardi edo orren antzeko ganaduak ere bai. (Noain). Oifñatiko "auzo-basoak" etxegintzarako bear ziran egur eta zurak eskeintzen zitun erritarrerri. Marabedi bat eskeintzen zuten bakoitzak ordaintzeko; bear izan ezker, bazuten ere aritz bat botatzeko eskubide. Joan dan eunkian galdu ziran "auzo-baso" geienak. Baso oien saltzeak 1868'an asi ziran "desamortización" deritzan legearen ondoren. Baso eta lur oiek guztien probetxurako ziralako, Kontsejuek protesta egin zuten. Dana alperrik.

Ixilkako protesta asko izan zan arrezker. Protesta abots orrek indar berri bat artu bear luke gaurko egunez, geienetan ezagunak bait dira auzo-lurren jabe

egin ziranak. Abots ori ixiltzen zan Aiuntamentukoak lapurretan parte artzen zuten unean. Protesta ez da era bat ixildu:

“Terrenos ocupados y usurpados muchos e grandes términos de la dicha tierra comunal, malamente, sin título e sin conciencia alguna”.

“Auzo-lurraren zati asko eta aundiak, indarrez artuak, gaizki, ez eskubide eta konzienziarik gabe”.

Auzo-lanak ere danentzako betekizunak ziran. Nafarroan etxe bakoitzatik giza-
semen bat bear zuan; bestela, berriz, kantara bat ardo ekarri bear zuten lanean ari ziranentzako.

LANGILLE-KOFRADIAK

Kofradi auek oso dira interesgarri, langilleak berberak diran neurrian... Artzaia erabilli degu beti gure elerti-kantuetan, besterik ez balego bezela; izan ere, egia da, artzai errietatik sortu ziralako munduko kultura famatuak... Baiña, artzai euskalduna unai ere bada, kostaldean arrantzale, eta basoetan meatzaille eta olagizon. Euskaldunak erakutsi zion inglesari, holandesari, balea arrapatzen eta bere koipeak urtutzen; euskaldun olagizona kompetentzian ibilliko da Europa guziko olagizonekin... leltzero eta argiñ ere egingo da. Donostia'ko moillak eta nasak egingo ditu; andik Portugalete'ra eta emendik Ingalaterra'ko Dover'era ango moillak egitera. (Gure argiñ euskaldunaren iritziz bi illabete naikoak izango dituzte ango argiñeri moillak eta artarako bear dan mortero edo espaloi berezia egiten erakusteko; baita arriak bere eraran jartzen eta artarako bear ziran poleak eta puntalak jasotzen... Sei edo zazpi brazatik beera, ur-azpian, oiñarriak ipintzeak ez ditu bildurtzen... 1535'ko kontuak dira. Eun gizaseme bearko omen dute lanerako... Eta abar).

XI eta XII'an, langille talde auek, alkarren laguntzarako eta ekonomia zuzentzeko, kofradi bereizi batzuek osatuko dituzte... Espirituzko bearkizunak betetzeko ere, baziran. Kofradi auek gremioen sustrai eta iturri bezela izan ditugu. Gremioak azitzen joan ziran neurrian, kofradi auek espirituzko biurtu ziran.

Kofradietan alkartzen ziran, eta mailla berean, naiz maixu, naiz ofizial, naiz ikasle. Baita beuren emazteak ere. Ofizio edo langintza bakoitzak sortu zuan bere Kofradi berezia. Burnigille “tenaza-maixuak” (maestros tenaceros) osatzen zuten Santa Luzia'ren kofradia. Bazan meatza ateratzen zutenen kofradia. (Mintako lenengo Legedia Gipuzkoan, ezagutzen direnetik zaarrena, 1434'koa da). 1552'an egin zuten Oñatin sartagilleen Legedi edo Ordenantza. Seigarren kapitulan, sartagille bakoitzak bere seillua izan dezala, agintzen du.

Nafarroan ofiziodunak kale-umeak ziran eta ofizio bakoitzeentzako bere kalea bazan. Talde bakoitzak bazun bere Alkatea ere, beuren defentsarako. Itxas-gizon, barku-maixu eta merkatariek Santiago'ren kofradian biltzen ziran Bilbo'n. Donostiako kofradirik indartsuena Santa Kataline'na zan: merkatarik donostiar eta itxasgizonena. Jostunek San Antonio'rena zuten; arotzak, San Jose'rena; errementariak, San Martiñ'ena; zillargilleak, San Eloi'rena; larrugilleak, San Krispiñ'ena eta abar.

Erosdunak eta agintariak kofradi auen aurka zeuden. Agintarien arrazoia: “Kofradi oietatik kalteak darie, gauzen prezio jasotzen dutelako”. (N.R. de Leyes de Navarra, Tit. 4,L.1). Ona Lege oiek zer agintzen duen: “langille kofradiarik ez jasotzeko eta daudenak desegiteko”.

Gipuzkoako Fueroak edozein kolorezko kofradiak debekatzeko dituzte “elizakoak izan ezik”. (Tit. 28,C.1). Donostia'ko Santa Katalina kofradia Errege Katolikoek desegiñ zuten “alkarren arteko batasun gaiztoetan biltzen ziralako, Aiuntamentuko gela-nagusian ugoaldea bezela sartzen ziralako eta euren naiera Kontsejua beartzen zutelako”.

Debeku au ez zan izan ez mediku, ez botikario eta ez zirujanoentzako.

NEKAZARI-KOFRADIAK

Auetxek dituzu, dudarik gabe, kofradiarik zarrenak. Uzta-galtzeak eta ganadu-izurriaren kalteak zuzentzea eta ordaintzea izan oi zan kofradi auen elburua. Auetakoak ziran San Migel Alzuztakoa Zeanurin, Endañeta'ko Terrama Zumaian, Goiburukoa Andoain'en eta San Isidro'rena Araban...

Kofradian zeuden auzokoek eskubidea zuten auzoko-lurrak erabiltzeko. Gerora auzo-lurren jabe egin ziran askok, aurretik kofradien buru egin ziran: Kofradiako jauntxo izateatik, lurraren jabetasunera. 1929'an, auzo lurren jabe aurretik egin ziranekin, burrukan zebiltzen oraindik ere Kofradietako nekazariak.

Erru onek bi alde ditu bata bestea baiño txarragoa: alde batetik, erriaren auzo-lurrak desegin; eta bestetik, eurak bezin auzoko, eurak beziñ euskaldun, eurak bezin erriko eta jabe ziran kristaueri jabetasuna kendu (Thalamas).

Auzo-lurren arrastro batzuek besterik ez dira gelditu gaurdaiño. Liberal politikak, Fueroak kendu ondoren, "propiedad privada" deritzan eskubideak indartzen ditu, eta oiñarritik iraultzen ditu nekazari-kofradiak. Alaz ere, Gipuzkoa eta Bizkaian alkar jota, 700 oietako kofradi ba ziran oraindik 1936'an.

1936'garren urte onek azterketa bat merezi luke; arrezkero erriaren auzobelardietan, mugarriak aldatuta edo aldatzeke, piñuak sartu bait dira ugari leenago ardiek larratzen ziran tokietan. Ausardiz aldatutako piñuak dituzu; eta, noiz beinka, Aiuntamentuaren aspi-jokoz.

ARRANTZALE-KOFRADIAK

Nekazarien kofradiak bezin zaar eta erri-billak sortu baiño leenagokoak. Ala Ondarrabian, Deban, Mutrikun, Bermeon, Lekeitio eta abar. XIII'garren eunkirako ba zituzten arrantzaleek beuren kofradiak, San Pedro'ren zainpean.

Bermeo'ko Kofradiaren Ordenantzak, 1353'ekoak, zoragarrizko Itxas-legedi bat da. Bere elburua au zan: San Pedro altararen serbitsua eta Kofradiko beartsueri laguntza. Zartzaroarentzat duten begirunea arrigarrizkoa da... "Zaar eta gazteak" lanetik bota aal izateko eragozpenak, maiordomoen eginkizunak, huelga-aldian eta abar... Preso, langabe eta elbarri gelditzen ziranentzako laguntzak eta abar...

Pillotu, maixu eta tostartekoen arteko auzietan nola erabaki bear dan, erakusten die Ondarrabia'ko Legediak Itxasoko Alkateeri. Auengana jo bear zuten itxasgizonek beuren arteko auziak konpontzera; eta ez beste erriko agintariengana.

Mutriku'ko Legedia señerueri buruz dira oso bereziak, itxasgizonen segurantzirako jarriak bait dira. Deba'koak, berriz, Kofradiako "janak" (El yantar de la Cofradia) nolakoak bear zuten, ori ere aitutzen du.

Dirua eta kapitala tartean sartu zanean, sustraietik atera zitun kofradiak: asieran, gauza, patroi eta kofradikoen arteko artu-emanak ziran; gero, berriz, "armadorea" sartu zanean, diruduna, kofradiko anai guztiak erori ziran alogerapean. Kofradiari aizken golpea, arraiñ saltzean tarteko sartu ziranek eman zioten.

KOSME eta DAMIAN SANTUEN KOFRADIAK

Iruña'ko Kosme eta Damian Santuen Kofradia 1496'ko urtarrillaren 31'an eratu zan, Ama Birjiña Karmengo Komentuan.

Mediku, botikario eta "barbero" (zirujano-odol-ateratzaille) izateko Kofradikoak bear zuten izan. 1724'an Nafar-Korteak auxe erabaki zuten:

"Mediku, botikario eta zirujano agiriak artu aurretik, Kolejioak (Kofradiak) aztertu eta onartu bearko ditu".

1766'an, berriz, onela diote: "odol garbikoak izan ditezela eta beuren gurasoen langintza edo ofizioak ez ditezela izan badaezpadakoak". Auxe probatu bear zuten: ez zirala ez judutar, ez mairu, ez agote, ez-eta inkisizioak zigortutako

gurasoen semeak ere. Latiñez jakitea bearrezkoa zan, estudiatu eta ikasi bear zituzten liburuak latiñez bait zeuden. Tolosan bi mediku eta barbero bat zegoen irurak latin ikasiak.

XV'an Gipuzkoan 17 mediku zeuden. Barberoa, prakticante gizan, eta botikarioa, biak ziran erriko osasunaren zaintzailleak. Nafar-ospitaleko gaixoak keixuz eta espaz beterik dira "barbero -ezjakiñ eskas batzuen eskuetan daudelakož"...

1607'an agertu zan Oñatin, Erromatik zetorren Angel Tesoure jauna eta berekin zekarzkin "bi olio-mota zauri berriak eta gaxotasun otz-beroak sendatzeko". Bausi Dotoreak, gaia aztertu ondoren, ontzat eman zuan. Orrekin, erriko alkateak saltzeko baimena eman.

Odol-uztutze bat izan oi zan bizita bakoitzeko. Kobraketak, berriz, ez ziran danak berdiñak egindako lanari zegokienak, baizik. Odola ateratzeko barberoak ziran artarako; auen lana florin erdi batekin neurtzen zan. Odola ateratzeko, medikuaren baimena bear zuan barberoak, saiatzeko miña eta erortzeak ez baziran.

Estella'n, denda irikitzeo baimena botikarioari, medikuek, berari azterketa eta examiña bat egin ondoren, ematen zitzaion. Botikarioek protesta egingo dute; baiña, protestak ez zuan baliorik izan arik-eta Felipe II'garrenak agindu au eman zuan arte: "Ospitaleko botikan examiña pasa bearko dute botikarioek, beste artarako aukeratutako Botikario baten aurrean".

Noiz-edo-noiz kanpotik ere ekarri oi ziran sendagilleak. Ala gertatu zan Karlos II'garrenarekin: medikuak Aragoi'tik ekarri ziran beretzat. Izurri edo pestea agertzen zanean ere kanpotik ekarri bear medikuak. Pasai-Donianen, 1597'an erri-erdia eta lau mediku kanpotar il ziran, izurriagaitik. Etxeak garbitzeko bi gauza auek erabilli zituzten: belar bereizien kea eta ospiña (biñagrea). Eliza garbitzeko, ogeta amalau errada ospiñ bear izan zituzten.

Izurriak izugarriak ziran garai aietan. Eun eta berrogeta amar urteen buruan sei izurri baiño geiego agertu ziran gure artean. 1599'koa ("epidemia de peste bubónica") Flandes'en sortu zan. Andik Santander, Bizkaia, Gipuzkoa, Estella, Obanos, Puente la Reina eta Iruña'ra. Marsella'ko izurri famatu baten otsa gurera eldu zanean, mugak itxi zituzten Frantziakoak eta andik zetorzten janariak debekatu. Bertatik zetorren eskutitz oro, iltze batekin josi eta ospiñetan busti.

Pasaia'ko izurri garaian, medikuekin batera, Lesaka'tik emakume bat ekarri zuten, artarako birtute bereziak zituna. Larogeita amar errealeko eman zioten alogera. Sasimedikuak ere baziran ugari Euskalerian, esandako Kofradian ez bazeuden ere.

1570'an, Juan Diego zauri, zorna eta sukarrak sendatzeko bereizitasuna ba zuan. Gaixoak trankiltzeko, osagarria berak artzen zuan aurretik. Osatu eziñ izan zuan zapatari goor baten erruz, bota zuten bere errira. Martija Jauregi'ko, sasi-medikuak, urdalleko miña kopak (ventosa) ezarrita sendatzen zuan. Ikasketak bere aitaitarekin egin zitun, Lekeitio'ko medikuakin. Lukas Ayerbe'ko, tolosarra, Billaban sustraitua (1670), sasimediku zan eta azti, biak batera Espiritu-gaixoaren menpean zeudenak sendatzen zitun. Sendatzeko, aztikerizko itzak erabiltzen zitun; berak esan eta gaxoak erantzun. Ona itz oiek: "Aker-buru, txakur-buru... "eten-gabe esanak eta bueltaka jira-biran errotarria bezela. Talde batetik 15 espiritu-txar atera zitun aldi bakar batean.

Zirujano baten gaixo-iritzia daukagu. Onela dio: "buru-ezurraren auzia, "duramater" eraiño, au da garunetaraiño iristen dan tela bat ("una tela que llega hasta los meollos"). 1387'an, gorputz bat gantzutu eta illondutzeko (embalsamar) erabilli ziranen berri badegu. Ona zertzuk: biotza eta esteak bi erraidazko (estaño) ontzietan ipiñi ziran, gero espezia asko erabilli zituzten: mirra, aloe, zikotrin, intsensua, linaloe, aunt-adarren zuke (resina de terebinto), Arabiako lika (goma arábiga), kofonia eta abar.

1855'an "cólera morbo" izurriak jo zitun Gipuzkoako bazter guziak. Arraiña

saltzea debekatu zuten Oñatin, kutsua berak zekarrela uzte bait zuten. Osatzeko auek erabiltzen ziran: alkanferraren espiritua, amoniakoaren azetatoakin, opio (?)ren jarabea eta menta-piña uretan”.

Kofradi geienak Liberalismo Ekonomikoak garbitu zitun.

“KOMUNERO”-MOGIMENDUA

Komuneroen mogimenduaren adarrak Gipuzkoa'raïño eldu ziran. Zaldunak, letradunak, merkatariak, eliz-gizonak eta langiñak (artesano) Erregearen aurka jeiki ziran Kastillan, “alcabala” zeritza zerga zalduneri ezarri zietelako, eta eliz-gizoneri, euren errentetatik, amarrenak. Aundikiak (nobles) aldamen batera gelditu ziran; erri-xumeak, berriz, konparsa eta komuneroen laguntzaille bezela jokatu zuan. Karlos I'goa Alemania'ra aldendu zan enperadore-koroia jasatzeko. Bitartean Juan Padilla, Toledo'ko semea, aundikia bera, Erregearen aurka jeiki zan. Berarekin batera parte artu zuten probintzi auek: Leon, Segovia, Zamora, Salamanca, Toro, Palencia, Valladolid, Medina, Avila, Murcia eta Madrid. Gipuzkoan parte artutako erriak auek ziran: Tolosa, Segura, Ordizia, Azpeitia, Azkoitia, Mondragoe, Hernani, Deba, Mutriku, Zumaia, Getaria, Eibar, Oyarzun, Urretxua eta Zestua. Mogimendu onek Probintziako askatasunen alde eta zentroko indarkeriaren aurka jokatzen zuan. Orregaitik Korrejidorearen asarre bizi guztiak beuren gaiñean izan zituzten. Eta, sua begietatik, danak iltzeko agindu zuan, “lau zati egiñak”. Tarteko ziran Deba'ko Olano batxillerra, Ernaniko alkate zan Juan Elduiaien'go, Azkoiti'ko alkate Txurruka eta abar. Bazituzten beuren batzoki izkutuak; bat, Sasiolako komentua.

Arabian Salbatierra'ko Kondea izan zan mogimenduaren buru. Kastilla'ko Junta eta Gipuzkoako Batzordearen tarteko batzalle, bera zan. Kastilla'ko Juntak berau izendatu zuten, Burgos'tik Ondarrabiraïño, Errege-ordezko eta Kapitan Jeneral. (1521'an, apirillaren 23'an menperatuak izan ziran komunero guztiak).

Orozko, Orduña eta Arratia izan ezik, Bizkaiak ez zuan parteri artu: jaunaren mende geldi egon ziran. Nafarroa arazo onetik alde egon zan. Bere kezka beste bat zan. Auxe: galdutako askatasunaren billa zebillen. Itsutu egin zan eta bere garairik ezagutu ez; berebiziko aukera izan bait zuan mogimendu onetan bere asmo eta gogoia bete aal izateko...

EUSKALDUNEN KONTSUL-ETXEAK

Bideak, munduan zear, kruzadoek iriki zituzten eta aien bideetik merkatariak sartu. Auek beuren interesak defenditzeko kontsul-etxeak sortu zituzten.

Brujas'en (Holanda) bazan “Casa de Contratación de Vizcaya” zeritzan Kontsul-etxe bat, euskaldun merkatariarentzat ateak beti irikita zituna; batez ere, inguru aietako portuetan zebiltzenentzat (Brujas, Amberes eta abar).

Euskaldunek kai auetara burnia eraman oi zuten bertan saltzeko eta bertatik lfar-aldeko portuetara eramateko. “Vizcaya” izena eraman arren, Kontsul-etxe ori euskaldun guztientzako zan. (Bertako Kontsul eta armadoreen artean bi debatar aitatzen dira: Otxoa eta Sasiola). Enrike IV'garrenak protesta dario:

Bilbao'ko Kontsul-etxea

“Consulado, Casa de Contratación, Juzgado de los hombres de negocios de mar y tierra y Universidad de Bilbao” izenarekin eraiki zuten etxe au 1511'an. Aldarte au sortzean, aurretik zegoen “Hermandad de la Marisma” galdu zan. 1489'an, Bilbao'ko Legediak nai zuanez, Kantabria kostaldeko burni guziak Bilbao'ko portutik irten bear zuten itxasora.

Burgos'ko Kotsul-etxearen diktaduraren aurka jeiki zan Bilbo ori berbera biur-tu nai izan zitzaigun diktadore: Galizia'ko Baiona'tik asi eta Ondarrabiraifoko burni eta artilleak Bilbotik irten bear omen zuten Europa'ko portuetara...

Alegiñak egin zitun eta tarteka lortu ere bai: Kotsul-etxea eraiki zutenean, Europarako ziranak eta Peninsulara Europatik zetoztenak, geienak Bilbo'tik pasa oi ziran.

Burgos sortu zitzaion aurka eta bere artilleak Portugalete eta Deba'ra bialtzen saiatu zan. Santander'ek ere bere alegiñak egin zitun ingles eta holandes ospatsu batzuen ondoren, bereganatzeko asmotan; baiña, alperrik. Portugaleteko barratik pasatzean, portugaletetarrak okerkeri asko egiñ oi suten barkueri; oker oiengatik zenbaitek ez zuan Bilbora etorri nai.

Kotsul-etxe bakoitzak zeukan bere Legedia, beurak egiña eta Erregeak onartua. Kotsul-etxea bere gaiñ artzen zitun eginbearrak auek ziran: moillak zaindu, portua eta ibaia zikiñez eta ondarrez garbitu, bideak, almagazetako serbitsuak, Nautika eta Matematikako Eskola, merkatarien artu-emanak eta abar.

Bilbao'ko Kotsul-etxeko Legedia urte askotan iraun zuan Ameriketako kostaldean, San Franzisko'tik asi eta Cabo de Horno'raifño... Uruguay, Paraguay, Txile, Guatemala, Mexiko eta abarren.

Donostia'ko Kotsul-etxea

Etxe onen Legedia Bilbo'koenatik artuta dago. 1682'an sortua izen onekin: "Ilustre Universidad, Casa de Contratación y Consulado de la M.N. y M.L. Ciudad de San Sebastián".

24'garren legeak zergak ipintzeko eskubidea ematen dio Kotsul-etxe oneri, bizi izateko bear zitunak. Baiña, Probintziako Juntek ez zuten ori ontzat eman Furoen aurka zalakoz (Tit. 18). Berean segi zuan Kotsul-etxeak, eta Gipuzkoa-ko industriari, aundia ez bazan ere, zerga ipiñi zion. Diputazioak, ordea, aurpegi eman zion erabaki orreri, Junteen izenean. Orduan, Azpeitian, txandak ala eskatuta, bilduta zegoen Diputazioari iraiñ egin zion Kotsul batek. Diputazioak Kotsuleri bere aurrera etortzeko agindu zion. Onak agertu nai ez, eta bere etxebarruan preso artu zuten. 1689'ko maiatzean Zarautz'en egindako Junta Jeneralek, Diputazioak egiña onartuz, kotsul ori preso artu eta Zarautza ekartzeko agintzen dute. Gaiñera bere sagasti, matsondo eta arbolak atera, etxea eta torreak erre, aberriaren etsai bat besterik ez zalako.

Estranjeriko Erriek aukeratu zituzten kotsulek, Gipuzkoa ez zitun ontzat eman. 1592'an, Frantziak Juan M. de Argarate jauna aukeratu zuan bere Donosti'ko Kotsul bezela; baiña, izandatze orreri, Furoen aurkako zata-ta. Probintziak ez zion bere baimenik eman.

Baiona'ko "Cámara de Comercio e Industria"

Baiona'ko "Cámara de Comercio e Industria" deritzan elkarte merkataritza suspertu nairik dabil XVIII'garren eunkian. Arro-aldiak eta eztaigaraiak pasatuak ziran. Arako "Endaia'n merkataro oso aberatsen dendak daude" edo-ta "Donianen kale osoak daude merkataro aberatsez" amaitu ziran esan oiek. Alderantziz, baizik: eunki orren asieran ainbat eta ainbat olagizon, larrugiñ, eta erriberetako arotzek (barku-gilleak) Bidasoa'tik onuntz etorri bear izan zuten, egoalderutz. Lapurdi'ko kaiek aldatzbera artuta zeuden. Lan bakar bat gelditzen zitzaien esateko, auxe: Pireneetako mendietan barku-mastak ebagi, ibaiez Baiona'ra ekarri eta emendik Brest'eko portura eraman. Beste lan bat era bazuten: Nafarro eta Aragoi'ko artilleak, Nibe ibai zabala bide, Kanbo'tik Doniane'ra...

Aurrerago, berriz, egun obeak izan zitun, Europa'ko merkagaien biltokia bait zan Baiona eta Espaiñiako urrearen gordeleku.

1726'ko otsaillaren 20'an, aiuntamentuan bertan, Erregearen ordezkioak sortarazi zuan zorioneko "Cámara de Comercio e Industria" dalako ori.

Bere lenengo lana izan zan merkataritzari buruzko azterketa sakon batzuek egitea... Baiña, itzeetan eta aparretan itto ziran. Andik urte batzuetara, 1784'an, Baiona "puerto franco" egin zuten, Baiña, gaur bezela orduan ere, Baiona'ko inguruak lanik ez du beure gazteeri eskeintzeko; eta era orretara, merkataritzak ezin dezake segurantzirik izan.

1975'an asmakizun berri bat sortu dute: "Service Permanent pour les Affaires Espagnols". Zertarako da? Gipuzkoa eta Bizkaiko lantegiak Adour'en erriberetara eramateko.

Deba'ko Kontsul-etxea

Deba'k ere izan zuan bere Kontsul-etxea sortzeko tenta-aldia. Gogoan zitun bere denbora bateko aunditasunak, artille geienak bere portutik irtetzen zuten garaia.

Tenta-aldi onetarako Bergara'tik Alzola'ra irikitako bide berriak eman zion aukera. Ori lortzeko Gazteiz'ko merkatariekin asi zan artu-emanetan; eurak bait ziran Debara etorri oi ziranak. Bear bada Burgos, Zaragoza eta beste erri batzuek ere Deba'ko kai au artuko zutela euren merkagaien irteerako, pentsatu zuten, nunbait.

1787'ko martxoaren 24'an eman zioten Deba'ri bere Kontsul-etxea. Ori lortzeko lanetan Probintzia ez zan tarteko, mesede ori ematekoan ere ez. Eta Probintziak onartu ez, eragozpenak ipiñi eta aurrera eramatea galerazi.

1829'an, kai guziera "Código de Comercio" deritzan legedia ezarri zitzaizenean, orduan amaitu ziran betirako Euskalerriko Kontsul-etxeak.

• • •


Leize eta illobi zaarretan arkitzen ditugu euskaldunok gure asaben bizikeraren urratzak: pentsakera, artilanak, gizarte arazoak... Gure asabek utzi digute odola, izkera, bizikera... Ori gertatu da etenik gabe, ia 30.000 urteen buruan...

Euskal eiztaria artzai, unai, nekazari eta langille biurtu zaigu. Baserrietatik erribilduetara jetxi da, eta emendik uri aundietara: baserri kutsua galdu du, baiña urikorik artu ez oraindik: Auñamendi gallurretik, batera eta bestera begira, maiz ikusi ditu, bere inguruan, askatasun berri bat ospatzen zuten erriak; seiñale, galduta zeukatena...

Aitz-zuloetako ormeetan esku aundiak marraztu zitun; esku oiek litzazke gaur egun langille euskaldunentzako kanturik ederrena. Gizona bere eskueri esker bait da gizon: elerti lanetan gizonaren eskua dago beti ekiñean.

Gerora, esku oiek alkartzan dira (Urruñe'ko bataio-pontean ikusten diran antzera) Kofradiak eta lagunarteak sortzeko —langilleak alkartuta— "San Pedro jaunaren aldararen serbitsurako eta Kofradiako beartsuen laguntzarako".

Arrinda, Anes eta Donato



OLENTZARO

Gabonak gaur

Kaleak argi ederrez bete, denda guztiak jan-edariz eta bitxikeriz... Orra gaur eguneko gabonak: jan eta edan... eta urdalla aserik, barre egin eta zorionak alkarri emon...

Bañan, zergaitik gaude pozik?

Ez dakigu ziur zergaitik dan: Jendeak, aldizkariak, iragarkiak, irriatiak, telebistak, guztiak esaten digute poztutze-ko, irriparez egoteko, garraxi egiteko...

Ez digute esaten zergaitik.

* * *

Orain urte gutxirarte, Olentzarok etajaiotzak esaten ziguten zergaitik:

Alaitu ta poztu zaiteze
gaurko gabarekin
gure Jesus onaren
etorrerarekin.

Olentzaro ez zegoen gutxigotarako:

Aditu dueneian
Jesus jaio dala
laisterka etorri da
berri ematera.

Erri txiki bat aspalditik zegoen Mesias askatzaille baten zai. Emendik oso urrutira. Azkenik ere, etorri zitzairen. Albiste ori, nekez baña seguru, guregana eldu zan. Gure biotzeko mixeri guztien askatzaille jaio da... Bazuan gure erriak zergaitik poztu, alaitu eta apaldu...

Olentzaro eta Jaiotza, biak zebiltzan batera; batzuek bereiztu nai ba'dituzte be. Alkarrekin ibilli dira gure artean.

* * *

Berri ori onera eldu aurretik, gure erria Europa'koekin batera Eguzkiaren jaiotza ospatzen ebillen. Eguzkia dago une onetan beeran, beerago ezin, eta, indar emateko, suak piztutzen ebezan, surpezteko. Enbor aundi bat ekartzen eben basotik sukaldera, lorrean, beiak aurretik zirela. Sutondoan ipintzen eben eta urte osoan iraun bear eban. Sutegia sukalde erdian egoten zan eta artaraño eruaten eben enbor ori idiek.

Su aundiak egin bear ziran Eguzkia berotzeko eta jeikitzen laguntzeko. Europa'ko erriek ekarri eben oitura ori gurera...

Kristasuna etorri zanean, Eguzkia ez dala jainkoa, erakutsi zigun eta orduan, Jesus beraren jaiotza ospatzea erabaki eben. Jesus da gure benetako eguzkia.

Leenago egiten ebezenak egiten jarraitu eben, baña Jesus'en omenez egin be eta ez eguzkiaren omenez.

Jesus jaio zan garaian ez zuten umeen Zorionik ospatzen,

eta ez zuten jakiten ziur zer egunekoak ziran. Askotan, zenbat urte zeuzkaten be ez. Loiola'ko Iñigo'k ez zekian ziur zenbat urte eukazan: bi urte gazteago zala, uste eban eta arazo ori argitzeko etorri ziran Erroma'tik Loiola'ra historigileak... Orain bi milla urte ez zan iñor arduratu Jesus'en jaiotzaren egunekin eta irureun urte erasotuak izan eta, berreun urte beranduago oraindik, asi ziran Jesus'en jaiotzaren eguna billatu eziñik eta alan, erabaki bat artu eben, Jesus'en jaiotza eta eguzkiarena, biak, alkarrekin ospatzea.

Ez alda Jesus gure benetako eguzkia?

Zer ajola zaio egun batean ala bestean ospatzea.

Jesus'en jaiotza guretzako benetan pozgarria da eta poz ori egunen baten ospatu bear gendun.

Noiz il zan Jesus badakigu. Judutarren lenengo illargiaren 14'ean, illargi betez. Ostirala. Ori, badakigu. Urtea, gutxi gora-beera, ere bai.

Zer egunetan? Ebanjelioetatik otz zegoela atera liteke; beraz, negua edo... Baña, zer illeko egunetan jaio zan ez digute esaten. Orrek ez zeukan inportazirik bape. Eriotzak eta piztuerak zeukaten benetako garrantzia... Eta ori agertzen alegindu ziran.

Olentzaro

Jesus'en jaiotzaren gabak Gabon du izen.

Baita Olentzaro ere: Olentzaro, Olentzaro, Onentzaro, Orontzago, Orontzago... Orra gertaera batentzako ainbat izen.

Tarteka Gabon eta Olentzaro naastu egiten dira.

Gabon gabeen sutara ekartzen dan enborrari Gabon-zuzie esaten jakon Bedia eta Abadiño'n bezela beste toki geiagoe-tan ere, bai Bizkaia'n, bai Gipuzkoa'n, bai Araba'n eta baita Naparroa'n ere.

Salvatierra'n Parrondo esaten eutson.

Olentzaro moskorra ala mozkorra?

Gabon-zuziari Olentzaro moskorra esan oi zaio.

Moskorra ez da mozkorra.

Moskorra edo mokorra arbol-enborra da.

Mozkorra, berriz, ardo-geiegi zalea.

Gabon-zuzi edo Olentzaro moskorrak, Gabon eguneko enbor orrek, badau indarririk asko; eguzkia berotzea baño geiagorik. Bere gaiñetik pasatzen diran abereak bedeinkatzen ditu; enbor orren ikatzak etxearen sailleko mugarri azpitan ipintzen dira... Orrela etxeak babesa emoten deutse lur sailleeri.

Gabon-aparia

Olentzaro-moskorra sutan ipiñi ondoren, apari ederra prestatu:

OITURAK

Gabon gabian oitura degu
guziok apari ona
bixigu, legatz, makallau-saltza
bakoitzak berak alduna.

Ez da aragirik aitaten, bijili-eguna zalako eta bijili-egunetan ez zan aragirik jaten: Bixigu, legatz, makallau... Orra iru arrain ezberdiñak, irurak beruren mallatan imiñiak: Bixigua lenen, legatza ondoren eta azkenik makallaua...

Eta, postrerako, intxaur-saltza.

Ona orain irurogei urte zelan egiten zan Forua'n intxaur-saltza ori:

Lenengo intxaur-mamiak atara, gero bonbilla borobil bategaz birrindu zapi zuri baten gaiñean, sutan imiñi ura eta olio apur bategaz (kollara batzuek) eta egurtxo bategaz eragin. Iriña naastu saltza loditzeko, makallau-printza batzuek eta gozokia ugari. Egosten danean, listo mairako.

Zer ala nor da Olentzaro?

Olentzaro-moskorra gabon-zuzia (Gabon-subilla Abadiño'n) dala badakigu; baña, Olentzaro bera zer da ala nor da?

Nik usten dot, berbari berari begiratu bat emon ezkerro, gauza naiko garbi dagoela: Olen-tz-aro, aur-tz-aro eta zaar-tz-aro antzera dala.

Ortik ataraten dogu, aro bat dala, garai bat dala. OLEN aro eta garaia. OLEN eta NOEL izki berdiñagaz egiña dago: O, N, L, E. Alde batera ala bestera imiñi, NOEL edo OLEN agertuko da.

Aoskatzeko, esateko, errezago da Olen, Noel baño. Eta nik D. Manuel Lekuona zaarra'ri entzunda auxe daukot: Euskaldunak beti oitura izan dabela itzak eta berbak errezteko eta murrizteko. Jose Miguel esateko, Joxemiel esaten dogu; Francisco esateko, Praisku; pretil esateko petrilla; torcular esateko, tolare...

Noel eta Olen berdiñak ba'dira, orduan Olentzaro itza ez da izango ain zaarra...

Beste alde batetik begiraten ba'diogu, Olen-aroa gizaki biurtu dogu. Antxiñako basajaun eta sorgiñen antzera, tximiñitik beera dator zikin eta itai bat eskuan duela. Illargi berriaren itxura duen itai ori, Mari, sorgin-guztien amak ere erabiltzen du gure ipui zaarretan.

Tximiñiko zikinkerri orretatik ikazkintzara, zikiñean beintzat, ez dago orrelako aldaketa aundirik.

Sorgin-antzeko gizakia, ikazkin biurtu dogu.

Olentzaro albistari

Jose Miguel Barandiaran'ek zionez (Z. ARGIA 1972.XII.94), zenbait errietan "Kristo jaio berriaren albistea otsegitera menditik beera datorren gizona dala diote Olentzaro". Ondoren gogoratzen digu nola galdu ziran jentillak Kristautasuna etortzean eta onela jarraitzen du:

"Baña bat gelditu zan eortzi gabe eta bizirik. beera jetxi eta Kristoren jaiotzaren berri eman zuan ibarreko eta errietako jentillen artean. Auxe zan leenengo Olentzaro eta Euskal Erriko aurreneko mixiolaria.

Olentzaro joan zaigu
mendira lanera
intentzivarekin
ikatz egitera.

Aditu duenian
Jesus jaio dala
lasterka etorri da
adieraztera.

Orrela jarraitzen du gure maixu zaarrak gai oneri buruz: "Erri batzuetan albistari oni, Kristo'ren iragarleari, Mairua deitzen diote; beste batzutan, berriz, Jentilla..."

Toki batzuetako Mairuak, beste lekuetan Jentillak dira eta orrela dabilta alkarren artean naastuta gure ipui eta siniskeri zaarretan. Jentillak dira zaarrago; Mairuak gazteago. Ez dira kristau ez bat eta ez bestea, naiz eta Jentil izena kristautasunetik sortu.

Kristau egingabekoak ziran jentillak. Kristautasuna uri aundietara zabaldu zan eta gero txikietara eta azkenik mendietako baserrietara. Oiek ziran Jentillak edo "pagani" latinez, "pago"etan bizi ziranak...

Olentzaro ardo-edale mozkorra

Aldaketa moskorretik mozkorrera, geiegi ez zekien baitek egingo zuela. Donosti aldekoa seguru asko. Mokorra ardo-zale gizaki bat egin dute. Eta, aldaketa orretatik sortu ainbat eta ainbat bertso:

Olentzaro begi gorri
nun arrapatu dek arrai ori
Zurriolako arkaitzetan
bart arratseko amaiketari.

Orra, orra, gure Olentzaro
pipa ortzian duela eserita dago...

Olentzaro guria
ezin degu ase
bakarrik jan dizkigu
amar txerri gazte.

Saiaski ta solomo
makiña bat este...

Erri zaarra gera eta oiturak gordetzen iaioak; baserrietako lana izan da. Gaur gure baserri asko pikutara joan dira eta eten aundia gertatzen ari da egunetik egunera... Laister ez degu gure aurrekoen antzik ere izango... Baña, ondo edo gaizki, Krisutautasuna gorde degu orain artean urte askotan eta gure onerako. Segi dezagun aurrerantz ere bide ortatik

Alaitu ta poztu gaitezen
gaurko gabaarekin
gure Jesus onaren etorrerarekin.

ARRINDA 'TAR ANES
Deba'n Abendua 1994.

OLENTZARO (OTO TA POTOTO)

*Elurra tellatuan
Sakua lepuan
Ibilli bearko degu
Aurtengo neguan...*

Elurra mara-mara ari da, zuritu du mendian... Sukaldean makallaua beratzen eta osaba Prisko'k ekarritako bixigua sutan erretzen... Amama (Forua'ko alaba berez) intxaur-saltza gertatzen, bere errian sekulo-sekulotan egin daben modura.

Ona nolán: Lenengo intxaur mamiak atara, zapi txuri baten gañean birrindu botella borobil bategaz; ur apur batekin sutan imiñi eta olio gordiña bota gañetik (kollara-kada batzuek) eta egurtxo bategaz eragin. Iriña naastu saltza loditzeko, makallau printza batzuek eta gozoa ugari.

Baña, Gabon-gaba onetan gauza asko daude oraindik egiteko. Oto gizarteko gizona da eta giza-arteko artu-emonak zintzo betetzen alegiñak egiten ditu beti. Eta, gañera oitura zaarrak betetzeko ba'da, arreta aundiagoagaz oraindik. Eta, Olentzero gabe, ez da benetako Euskalerririk. Oto'k beintzat, ala usten dan.

Aurtengo Gabonetan Oto zoriontsu dabil; ez dabe ba Oto berbera aukeratu Olentzero' n papera egiteko... ! Amama intxaur-saltza prestatzen laga eta badoia kalera, gau onetako euskal kutsua galdu ez dedin.

- Aizak, i, Olentzero! (Zioan Joxe errementariak gaurko gau onen buruzagiak)

- Ez dok Olentzero esaten, Onentzero, baizik. (Eten dio Urliak aldamenetik).

- Bai, ik ori zarauztarra aizelako esaten dek; baña, guk Lazkao'n Olentzero esaten diagu.

- Baiña, Andoain'en Orontzero orrelan oi dabe eta, Leiza'n, nere amamaren errian, berriz, Oranzaro. (Pototo jakintsuak).

- Beno, Olentzero, Onantzero edo dana dalako zer ori zein zan jakin bear degu.

- Kopla zaarrak onela dio: (Berriz, ere Pototo'k)

*Emen eldu gerade
Berri on batekin
gure enbc/jadero
Olentzorekin.*

*Olentzero gurla
Ezin degu ase
Bakarrik jan dizkigu
Amar txerri gazte
Saieski ta solomo*

*Makila bat este
Jesus jaio dalako
Kontsola zaitetze.*

*Olentzero joan zaigu
Mendira lanera
Intentziñuarekin
Ikatz egitera
Aditu duenian
Jesus jaio dala
Laisterka etorri da
Berri ematera.*

- Pototo, ori gauza jarria dok! Jesus-en jaiotz-a]bistari eta tripazai...! Jesus'en mezulari eta mozkorra...! Ikazkiña izatea ez zait txarto iruditzen; baña, mozkorra?

- Barkatu, Joxe; baña, berriz be, Zarauzko berri ematen ditzut: Zarautz zaarreko etxeetan, Gabon gabeen, *Olentzero mokorra imintzen dogu sutan; eta ori ez da Olentzero ardoz ale mozkorra.* Olentzero mokorra eta emborra, baizik: sutan jartzen dan trunko aundi bat. Moskorra, mokorra, emborra edo trunkoa, guztiak dozak bat...

- Orduan, euskeraz geiegi ez zekien bateren batek *moskor* orretatik ateralco ebazan beste bertso onek:

*Olentzero, begi gorri,
Nun arrapatu dek arrai ori?
Itsasoko arrocketan
Bart arratzeko amaiketana...*

Edo, beste onek:

*Orra, orra gure Olentzero
Pipa ortzien duela
Eserita dago;
Kapoiake ere bai-tu
Arrautzatuakin
Biar meriendatzeko
Botilla ardauakin.*

Bat-batean Oto'ri adimena argitu zaio:

- Guk —dio— enbor orreri beti *Gabon-zuzie* esan diogu eta *Gabon-zuzie* gauza serioa dok.

- Bizkaia'n *Gabon-mukurra* Bedia'n eta *Gabon-subilla* Abadiño'n; Araba'n, berriz, euskera aastuta daukaten erri batsuetan, Gabon eta beste batzuetan Parrondoko esan oi diote *Olentzero-moskorra'ri* edo enborrari... (Pototo jakintsuak).

- Eta, *Olentzero-moskor* edo *enbor* ori, zertarako dok?

- Enbor aundia bear dau izan, Urte-berriraino gutxie-
nez, eta al ba'da, urte guztirako iraun dezan. Enbor onek
ikullua, korta, abereak eta etxeko baztar guztiak bede-
in-katzen dauz... eta, gaitz guztietatik gorde.

- Olentzaro moskorra ez zan mozkorra eta zergaitik
imiñi bear diazute sato-ardoa lepotik zintzilik...? (Oto
protesta bizian)

- Arrazoi baten itxura badok: Olentzaro moskorra edo
Gabon-zuzie badok zer-edo-zer...! Misterio beltza dok au!
Zeñek argitu lezakeen. (Joxe'k kezka betetik).

- Aizak, Joxe, eta muturra zergaitik beztu bear diazu-
te? (Otok, berriro).

- Olentzaro ikazkiña ba'zan...

- Ago ixilik, ik ez dakit gauza orren berri. (Pototo'k)
Olentzaro'k muturra beltza dau tximiñitik beera jeisten
dalako, itaia eskuetan duela.

- Itaia, zertarako?

- Otaik ebagi eta sukaldea berotzeko Gabon-zuziaren
aldamenetan... Anboto'ko sorgiña ere agertzen oi da itai
baten itxuran... Itai ori illargi berriaren itxura ez ba'da...

- Oiek danok gauza xebreak dozak.

- Olentzaro, be, gauza xebreak inguraturik agertzen
da; erramua berbera be ekartzen dau.

- Zer erramu gero?

- Erramua euskeraz ereñotza dok eta Olentzaro ereño-
ztagaz egindako estalpe batean atera bear dau, gauzak
ondo egiten ba'dira. Gañera itaia eskuan, eta al ba'litz,
enborra sutan...

- Eta, pipa?

- Pipa, txorixo eta lukainkak, botilla-ardoa eta sakua,
gerora erantsitako gauzak dozak... Sukaldeko tximiñitik
beera datorrenean, itaia, bakarrik ekartzen dau eskuetan.

*;ic

Eztabaidatik argia sortzen ornen da... Askotan txinpar-
tak ere bai. Guztiak ez zeuden Pototo'rekin bat... Izan ere,
ba du Olentzaro'k alako Zantantzar'en alako itxuratxo
bat... Biak jeisten dira tximiñitik beera. Biak zikin, biak
suarekin zer ikusi dutenak: Zantantzar gizarajoa sutara
botaten dabe; olentzaro, berriz, suaren jabe da: berak argi-
tzen eta berotzen sukaldea, enbor aundi onekin.

Baiona eta Uztaritz'en erretzen daben Zantantzar'en
mota batzuek badauz Olentzaro'k andik edo artuta... Ez
litzake ain anigarri izango...Leikiena da. Orregaitik ez
zioten Oto'ri pipa ortzetatik kendu; ez eta lukainka eta
sato-ardorik ere, muturra beztu; itaia eta erramuak Poto-
to'ren arazoa zan.

Urten dabe kalera. Aterik ate. Asieran Olentzaro anda-
tan eramaten eben: gero, astoa ala gurdia ekani izan diote
errezago ibiltzeko. Koplari Pototo. Berak kanta eta berak
erantzun.

Eup! indartsu bategaz asten ziran etxe bakoitzean.
Gero Pototo bera bakarrik:

Emen eldu gerade

Berri on batekin... (eta abar)

Ondoren taldeak erantzun:

Orra, orra gure Olentzaro
Pipa ortzian duela... (eta abar).

Baña, kopla orrek bukatzean, musika be aldatu egiten
dabe:

"Artolak dauka " bezela:

Olentzaro buru aundia
Entendimentuz jantzia
Bar arratsian ustu digula
Amar arruako zagia...

"Andre Madalen" antzera:

Ari naizela, ari naizela
Nekatu zaizkit ezpañak;
Etxe ontatik espero ditut
Errial bi ta gaztañak.
Emango ba'zu, emazu
Bestela ezetz esazu,
Ate-ondoan otzak iltzera
Amak ez gaitu bialdu

Bete dabe sakua gaztaña, mizpero, intxaur, txorixo,
saieskiz eta abar... Aurtengoa be egin dogu. Ez dadilla
eten katerik...

Gabon aparria gertu dago Oto'ren etxean. Danok mai-
inguruan dirala, aita ogiari muturra kendu eta gordetzen
du datorren urterarte...

EGUBERRI-URTEBERRI

Oto kortako atean eguzki-lora bat josten ari da. Eguz-
ki-loreari kardalora be esan oi zaio.

- Zer darabilk or? (Pototo'k).

- Eguzki lorea ikulluko atean jartzen.

- Zertarako?

- Ondo ez zekiat: nere aitona orrela egiten ebalako,
edo

- Bai zera... I alproja xamarra aiz eta izango dok beste
arrazoien bat.

- Tximistarria ikulluan sartu ez dedin.

- Eta, beste anazoibiderik?

- Arbereak gaxotu ez ditezen.

- Ez dakiela eguzkilorea zeñen irudia dan?

- Orrenbeste badakit: Eguzkiaren irudia.

- Mundu onetan Eguzkiak ditu indarrak. Berak bizi-
arazten ditu baztar guztiak. Berak bakarrik ez; bere iru-
diak ere bai. Irudia eta iruditzen dana, biak alkarri lotuta
daude alkanen artean sortzen dan indar berezi batekin.
Izena eta izana bezela. Ire kortako Eguzkilorea eta Eguz-
kiak, biak, bat dozak. Eguzkiak gordetzen ditu ire ikullu-
ko abereak eta etxea... (Pototok sermoilari).

- Gaur gabon. Gabon eguna Eguberri izan oi da beti.
Eguberri izena zer dan? Eguberri, Argiberri da.

- Nundik asmatu dok ori?

EKANDUAK

• Egun on, noiz esaten da, illuna danian ala argitu eta gero?

- Argitu ezkerro.
- Or ikusten da Egun itzak Argia esan nai duela... Egu eta Eguzki ez al dira berdintsu?

- Bai, ala dirudi.
- Eguna luzatzen asten danean, orduan da Egu berri... "Eguberri, zoruak igarri" eguna luzatzen ari dala...

- Bai, Gabonetan asten da eguna luzatzen.
- Eta Sanjuanetan egunik luzeena. Gabonetan ospatzen degu Eguzkiaren piztuera, asiera, eta Sanjuanetan bere erraiñu luzeenak, argienak. Orduan da eguzkia jaun da jabe; illunak baztatu ditu.

- Orregaitik egiten al dira suak Sanjuanetan?
- Bai, jauna; orretxegaitik... Eguberrietan ere egiten dira suak, Gabonzuzi edo Olentzero-moskor sutan imintzen da, erretzeko garrik aundienakin. Su aundiak egiten dituguz Eguzkia jaiotzen dan egunean, berari indar emoteko eta orrelan urte buruan giro obeak izateko.

- Orrek songinkeriak dozak.
- Sorginkeriak edo aztikeriak... Gauza baten izena edo bere irudia, nere mende ba'dago, neure mendean izango da gauza berbera be. Gauza eta bere irudiaren arteko indar ori sortzeko, aztiak eta sorgiñak dute aalmena.

- Sorgiñak Eibaireko pistolek garbitu zituzten aspaldi.
- Eibar sortu baño lenago, mendi gallulretan ermitak egin ebezan sorgiñak gure ondolik aldentzeko; bañan gure buruetatik ez dute oraindik sorginkeri oiek alde egin... (Pototo ixilduko duen kristau rik ez da oraindik sortu).

Eguzkilorea kortako atean imiñi ondoren Oto sukalde-
ra dijoa gabon enborrari astindu batzuek emotera suak eta garrak bizi-biziak lortzeko. Pototo bere ondoren:

- Zertarako astindu oiek?
- Ala bear dalako.
- Su geiago ba'du, indar geiago enborrak.
- Ala izango da.
- Orra nun berriro agertzen diran sorginkeria eta azti-

keria: su aundia bear da eguberri egunean, gero su orren ondokin eta errautsak aalmen geiago izango dabe etxea eta ikullua gordetzeko gaitz guztietatik. Alegin guztiak egin bear dira su orrek urtean zear bizirik iraun dezan. Ez dedilla su ori itzali; señaletxarra litzake-ta...

- Bai, bai, zer-edo zer izango da.
- Eta, maieko zazpi-azpian gordetako ogi-zati au zertarako gorde dok? Or daukazute joandan urtekoa ere oraindik... Zertarako?

- Animaliak amorratu ez ditezen edo...
- Animalia amorratuaren kontra, itxaso amorratuaren kontra, urjola amorratuaren kontra, aize eta ekaitz amorratuaren kontra... Zenbat sorginkeri! Noiztik ote daude euskaldun buruetan sarturik?

- Auskalo.
- Eta Gabon egunean aldatzen diran berakatz edo baraturien indarrak, oiek zer dira, ba!?

- Baña, Gabon egunean aldatzen diran berakatz indar ori izateko. Sanjuanetan atara bear dira.

- Orra gure sorginkeriak plen: Eguberri eta Sanjuanak berriro alkartuta. Badabe, bai, euren artean zer ikusirik...

Oto'k ditu gauza orrek fede aundiaz sinisten: baña, ba'da ez ba'da, gaur Gabon egunean aldatu ditu baraturiak Sanjuanetan atarateko. Pototo'ri galderatxo bat egin-teko gogo du:

- Aizak, Pototo, ez darik Urteberriko konturik?
- Urteberriko kontuak kontu berriak dozak. Lenagoko Urteberri, Eguberria zan, Urteberriko esaerak eta oiturak oso berriak dozak.

-Ez da ainbeste izango.
- Zaarrak izan arren, euskaldunontzat berriak dira; gu bait gera benetako zaar aspaldikoak. Kontu izan ze ingumari auetan bizi gerala amar milla urte ba dira. Kontuak atara.

- Lenago esan ditugun oitura orrek, eguzkienak eta, noizkoak dira, ba?

- Lau milla, sei milla, eta bear ba'da, amar milla urtekoak.

- Ez dira gutxi, aranopolak!
- Urteberriko oiturak uraren inguruan dabilta: Urte zaarrean gaueko amabiak jjo ezkerozko uneetan urak eta euriak bildu. Izugarrizko birtuteak omen ditu ur orrek. Naparroa'ko erri batzuetan umeek eramaten zuten etxerik-etxe ur ori.

- Eta, kanturik ez al du Urteberriak?
- Bai, baditu bakan batzuek: Elizondo'n onela abesten zuten:

*Urte berri berri
Zer dakarzu berri,
Uraren gaña
Bakia eta osasuna
Urtez urtez.*

Alsasua'n, berriz, onela:

*Ur barrena, ur goiena
Urte berri egun ona
Etxe onetan sartu dedilla
Pakearekin osasuna.
Urarekin ondasuna,*

Eta Lekeitio'n:

*Urte berri berri
Txarri belarri
Daukonak ez daukonari
Orri laudo laudo.
Intxartu bi
Iru gaztaña...*

Ezer emoten ez ebenian:

*Atsuak tauko
Popan berakatz
Aguriak tauko
Usker usaña.*

**ARRINDA'tar ANES
Deba'n 1965'ko Gabonetan**

OLENTZARO

Gabonak gaur

Kaleak argi ederrez bete, denda guztiak jan-edariz eta bitxikeriz... Orra gaur eguneko gabonak; jan eta edan... eta urdalla aserik, barre egin eta zorionak alkarri emon...

Bañan, zergaitik guade pozik?

Ez dakigu ziur zergaitik dan: Jendeak, aldizkariak, iragarkiak, irratiak, telebistak, guztiak esaten digute poztutzeko, irriparez egoteko, garraxi egiteko...

Ez digute esaten zergaitik.

Orain arte gutxiarte, Olentzarok eta jaiotzak esaten ziguten zergaitik:

Alaitu ta poztu zaiteze
gaurko gabarekin
gure Jesus onaren
etorrerarekin.

Olentzaro ez zegoen gutxigotarako:

Aditu dueneian
Jesus jaio dala
laisterka etorri da
berri ematera

Erri txiki bat aspalditik zegoen Mesias askatzaille baten zai. Emendik oso urrutira. Azkenik ere, etorri zitzairen. Albiste ori, nekez baña seguru, guregana eldu zan. gure biotzeko mixeri guztien askatzaille jaio da... Bazuan gure erriak zergaitik poztu, alaitu eta apaldu...

Olentzaro eta Jaiotza, biak zebiltzan batera; batzuek bereiztu nai ba'dituzte be. Alkarrekin ibili dira gure artean.

Berri ori onera eldu aurretik, gure erria Europa'koekin batera Eguzkiaren jaiotza ospatzen ebillen. Eguzkia dago une onetan beeran, beerago ezin, eta, indar emateko, suak pistutzen ebezan, susperteko. Enbor aundi bat ekartzen eben basotik sukaldera,

lorrean, beiak aurretik zirela. Sutondoan ipintzen eben eta urte osoan iraun bear eban. Sutegia sukalde erdian egoten zan eta artaraño eruaten eben enbor ori idiek.

Su andiak egin bear ziran Eguzkia berotzeko eta jeikitzen lagutzeko. Europa'ko erriek ekarri eben oitura ori gurera...

Kristautasuna etorri zanean, Eguzkia ez dala jainkoa, erakutxi zigun eta orduan, Jesus beraren jaiotza ospatzea erabaki eben. Jesus da gure benetako eguzkia.

Leenago egiten ebezenak egiten jaraitu eben, baña Jesus'en omenez egin be eta ez eguzkiaren omenez.

Jesus jaio zan garaian ez zuten umeen Zorionik ospatzen, eta ez zuten jakiten ziur zer egutekoak ziran. Askotan, zenbat urte zeuzkaten be ez... Loiola'ko Iñigo'k ez zekien ziur zenbat urte eukazan: bi urte gazteago zala, usten eban eta arazo ori argitze-ko etorri ziran Erroma'tik Loiola'ra historigilleak...

Orain bi milla urte ez zan iñor arduratu Jesus'en jaiotzaren egunekin eta irureun urte erasotuak izan eta, berreun urte berandago oraindik, asi ziran Jesus'en jaiotzaren eguna billatu eziñik eta alan, erabaki bat artu eben, Jesus'en jaiotza eta eguzkiarena, biak, alkarrekin ospatzea.

Ez alda Jesus gure benetako eguzkia?

Zer ajola zaio egun batean ala bestean ospatzea.

Jesus'en jaiotza guretzako benetan pozgarria da eta poz ori egunen batean ospatu bear genduan.

Noiz iltzan Jesus badakigu. Judutarren lenengo illargiaren 14'ean, illargi betez. Ostirala. Ori, bada-kigu. Urtea, gutxi gora-beera, ere bai. Zer egunetan? Ebanjelioetatik ots zegoela atera liteke; beraz, negua edo... Baña, zer illeko egunetan jaio zan ez digute esaten. Orrek ez zeukan inportazirik bape. Eriotzak eta piztuerak zeukaten benetako garrantzia... Eta ori agertzen alegindu ziran.

Olentzaro

Jesus'en jaiotzaren gabak Gabon du izen.

Baita Olentzaro ere: Olentzaro, Olentzero,

Orentzaro, Orentzago, Orontzaro... Orra gertaera batentzako ainbat izen.

Tarteka Gabon eta Olentzaro naastu egiten dira.

Gabon gabea sutara ekartzen dan enborrari Gobonzuzie esaten jakon Bedia eta Abadiño'n bezela beste toki geiagoetan ere, bai Bizkaia'n, bai Gipuzkoa'n, bai Araba'n eta baita Naparroa'n ere.

Salvatierra'n Parrondo esaten eutsen.

Olentzaro moskorra ala mozkorra?

Gabon-zuziari Olentzaro moskorra esan oi zaio. Moskorra ez da mozkorra.

Moskorra edo mokorra arbol-enborra da. Mozkorra, berriz, ardo-geiegi zalea.

Gabon-zuzi edo Olentzaro moskorrak. Gabon eguneko enbor orrek, badau indarririk asko; eguzkia berotzea baño giagorik. Bere gaitietik pasatzen diran abereak bedeinkatzen dituz: enbor orren ikatzak etxearen sailleko mugarri azpietan ipintzen diraz... Orrela etxeak babesari emoten deutse lur sailleeri.

Gabon-aparia

Olentzaro-moskorra sutan ipiñi ondoren, apari ederra prestatu:

Gabon gabian oitura degu
guztiok apari ona
bixigu, legatz, makailau -saltza
bakoitzak berak alduna.

Ez da aragirik aitaten, bijili-eguna zalako eta bijili-egunetan ez zan aragirik jaten: Bixigu, legatz, makailau... Orra iru arrain ezberdiñak, irurak beroren mallatan imiñiak: Bixigua lenen, legatza ondoren eta azkenik makailaua...

Eta, postrerako, intxaur-saltza.

Ona orain irurogei urte zelan egiten zan Forua'n intxaur-saltza ori:

Lehenego intxaur-mamiak atara, gero bonbilla borobil bategaz birrindu zapi zuri baten gainean, sutan imiñi ura eta olio apur bategaz (kollara batzuek) eta egurtxo bategaz eragin. Iriña naastu saltza loditzeko, makailau-printza batzuek eta gozokia ugari. Egosten danean, listo mairako.

Zer ala nor da Olentzaro?

Olentzaro-moskorra gabon-zuzia (Gabon-subilla

Abadiño'n) dala badakigu; baña, Olentzaro bera zer da ala nor da?

Nik usten dot, berbari berari begiratu bat emon ezkerro, gauza naiko garbi dagoela: Olen-tz-aro, aurtz-aro eta zaar-tz-ro antzera dala.

Ortik ataraten dogu, aro bat dala, garai bat dala. OLEN aro eta garaia. OLEN eta NOEL izki berdiñagaz egiña dago: O, N, L, E. Alde batera ala bestera imiñi, NOEL edo OLEN agertuko da.

Aoskatzeko, esateko, errezago da Olen, Noel baño. Eta nik D. Manuel Lekuona `zaarra'ri entzunda auxe daukot: Euskaldunak beti oitura izan dabela itzak eta berbak errezteko eta murrizteko. Jose Miguel esateko, Joxemiel esaten dogu; Francisco esateko, Praisku; pretil esateko petrilla; torcular esateko, tolare...

Noel eta olen berdiñak ba'dira, orduan Olentzaro itza ez da izango ain zaarra...

Beste aide batetik begiratzen ba'diogu, Olen-aroa gizaki biurtu dogu. Antxiñako basajaun eta sorgiñen antzera, tximiñetik beera dator zikin eta itai bat eskuan duela. Illargi berriaren itxura duen itai ori, Mari, sorgin-gurtien amak ere erabiltzen du gure ipui zaarretan.

Tximiñiko zikenkeri orretatik ikaskintzara, zikiñean beintzat, ez dago orrelako aldaketa aundirik.

Sorgin-antzeko gizakia, ikazkin biurtu dogu.

Olentzaro albistari

Jose Miguel Barandiaran'ek zionez (Z.ARGIA 1972.XII.24), zenbait erritan "Kristo jaio berriaren albistearen otsegitera menditik beera datorren gizona dala diote Olentzaro". Ondoren gogoratzen digu nola galdu ziran jentillak Kristautasuna etortzean eta onela jarraitzen du:

"Baña bat gelditu zan eortzi gabe eta bizirik. Menditik beera jetxi eta Kristoren jaiotzaren berri eman zuan ibarreko eta errietako jentillen artean. Auxe zan leenago Olentzaro eta Euskal Erriko aurreneko mixiolaria.

Olentzaro joan zaigu
mendira lanera
intentzibarekin
ikatz egitera

Aditu duenian
Jesus jaio dala
lasterka etorri da
adieraztera.

GABONAK

Orrela jarraitzen du gure maixu zaarrak gai one-ri buruz:


"Erri batzuetan albistari oni, Kristo'ren iragarle-ari, Mairu deitzen diote; beste batzutan, berriz, Jentilla..."

Toki batzuetako Mairuak, beste lekuetan Jentillak dira eta orrela dabilta alkarren artean naastuta gure ipui eta siniskeri zaarretan. Jentillak dira zaarrago; Mairuak gazteago. Ez dira kristau ez bat eta ez bestea, naiz eta Jentil izena kristautasunetik sortu.

Kristau egingabekoak ziran jentillak. Kristautasuna uri aundietatik aundietara zabaldu zan eta gero txikietara eta azkenik mendietako baserrietara. Oiek ziran Jentillak edo "pagani"latiñez, pagoetan bizi ziranak...

Olentzaro ardo-edale mozkorra

Aldaketa moskorretik mozkorrera, geiegi ez zekienek batek egingo zuela. Donosti aldekoa seguru asko. Mokorra ardo-zale giza-ki bat egin dute. Eta, aldaketa orretatik sortu dira ainbat eta ainbat bertso:



Olentzero begi gorri
nun arrapatu dek arrai ori
Zurriolako arkaitzetan
bart arratseko amaiketan.
Orra, orra, gure Olentzero
pipa ortzian duela eserita dago...

Olentzero guria
ezin degu ase
bakarrik jan dizkigu
amar txerri gazte.

Saiaski ta solomo
makiña bat este...

Erri zaarra gera eta oiturak
gordetzen iaioak; baserrie-
tako lana izan da. Gaur
gure baserri asko pikur-
tara joan dira eta
etena aundia gar-
tatzen ari da egu-
netik egunera...

Laister ez
degu gure
aurrekoen
antzik ere
izango...

Baña,
ondo edo
gaizki, Kri-
sutasuna gorde
degun orain ar-
tean urte askotan
eta gure onerako.

Segi dezagun
aurrerantz ere
bide ortatik.
Alaitu ta poztu
gaitzen
gaurko gabaarekin
gure Jesus onaren
etorrerarekin.

ARRINDA'TAR Anes

Olerkari galduak

PELI MARKIEGI, DESTERRUAN ILLA

Markiegi Olazabal sendia

Gure gerratean ez ziran famili asko izango Sendi au baño gogorrago erabiliak.

Florentzio, Deba'ko alkatea, 39 urte, Dueso'n fusilatua 1937'garren Urri-lla'ren 15'ean;

Jose, Mondragoeko elizaren apaiz laguntzaillea, 1936'garren Urrillaren 30'ean Ernani'ko illerrian fusilatua, 40 urte zituela.

Eta azkenik **Peli**, gure olerkaria, desterruan illa, bere apaiz-eginbearrak Argentina'ko Bahia Blanca'n betetzen ari zala 1946'en, 40 urte ebazala.

Pedro Zelaia, eibartar apaiz ezaguna izan zan bere akolito Eibar'eko parro- kian, Peli desterrura aldendu baño len. Eta onen zenbait idazti arreri bialdu zioten, idazti aiekin lan bakar bat eratzeko asmotan. Baña, eriotzak epe ziu- rrik ez duenez, ez zion astirik eman eta idazti aien azken-portua nun dagoan jakiñ ez.

Alaz ere, lau olerki aurkitu dituz bere illobak etxeko ganbaran.

Ona emen laurak: PELI berberak idatzien kopia zintzoak dira.

Anes Arrinda

GABERDI

Gaberdi da. Ixíaren
azpian dana lo.
Erekaren murmuía
dantzut gozo-gozo.
Izadi nekatuak
indafak askatu,
ta luze-luze etzanda
loak artu digu.
Elizako ezkila
bakañik da esna.
Izadi-biotzaren
taupada ote da?
Gaberdiko ixílean
urágo det Yauna;
añen, zure itzal ona
edatu nigana.

OLERKIA

IRRI ERRI URRI ORRI
ARRI

EUSKAL }
ARRI
ERRI
IRRI
ORRI
URRI

ARRI }
ERRI
ORRI }
IRRI
URRI

ERRI URRI ORRI IRRI
ARRI ERRI URRI ORRI

ERRI URRI ORRI IRRI
ARRI ERRI URRI ORRI

Jasan ditu erriak
arriak
historian zear
bere muiñean,
animaren sorlekuan,
mintzairaren
itur-buruan...
Seme-alaben eskutik etorriko ote zaio eriotza?
Seme-alabek erailko ote dute zatika birrinduta?
Kanpotik ostikoka
maltzurkeriz ari zaizunean,
barruko etsipenak,
barruko gerrak,
barruko anai-arteko etsaipideak
emango ote dizu amaiera,
Erri-Euskera?
ERRI
ORRI
ARRI
Semeak arri,
anaiak arri,
odolak arri.

Euskalerrri
Zaarra ERRI
ORRI Zatika, zatika
apika, apika
ARRI arriak, arriak
gaiñera...
Gaillurra
Oroitapena ARRI estalkia
ERRI beera...
ORRI Erria erdika
ORRI zatika, zatika
ERRI galdua...
ARRI Animarik ez.
ARRI Pirene-mendia,
ERRI Auñakomendia
ORRI gordelekua
ta babes...
Zeltaek ARRI Erriko sustraiak,
Frankoek ARRI mokorra gordiña,
Iberoek ARRI bizirik gaurdaiño
Erromak ARRI Euskera...
Godoek ARRI
Moroek ARRI ORRI ERRI ARRI
Frantziak ARRI
Erderak ARRI ...burua jaso naiean.
Urdiñek ARRI Adarrak, ostoak
Gorriek ARRI izotzak
galduak...
ARRI ERRI ORRI Arra sortu zaio enbor
zaarrari barnean

OROITARRI:
«Emen datza illik
bere barneko gaitzak ilda,
millaka urteetan
eraso guztietan
bizirik
iraun duan Erri».
ARRI
ERRI
ORRI.

ARRINDA'tar ANES

kanpotik erailtzetik izan ez dutenean.
Barruko arrak
erailko ote du
arbola zaarra?

Deba'n Epailak 12.1983.
Ministroen Batzarrak, Felipe eta
bere anaideak, Euskeraren aurkako
erabakia artu ondoren.

ONDARRABIAKO KONDAIRA (KAMINAZPI)

ONDARRABIA ALA ONDARRIBIA?

Joan dan udan Kamiñazpi'k liburu barria atera eban "Ondarrabia'ko Kondaira" izenekoa. Erriaren izenari buruzko itaun au egiten dau: Ondarrabia ala Ondarribia.

Arazoa argitzeko Santxo Erregearen dokumentu bat dakar, 1.170 urtearen ingurukoa eta bertan auxe diño: "De Undarribia usque ad Oriam" = Undarribia'tik Oriaraiño.

Beraz, orduko izena *ibiarekin* amaitzen zan: Undar-*ibia*.

Undar ori ondar dala garbi dago: Ondarribia. Berba onetatik Ondarra-bia'ra ez da orrelako alde aundirik; *a* bat artun dau (Ondar Ondarra) eta *i* bat galdu dau (Ondarribia: Ondarrabia).

* * *

Arazoari argi geiago emoteko beste izen bi dakaz: *Urdanibia* eta *Behobia*. Urdanibia Ondarrabian dago eta Behobia errekan gora, Ondarrabia'tik kilometro batzuetara.

Urdanibia bere amaiera ondo gordetzen dau: *ibia*. Behobiak, berriz, *i* bat galdu dau, Ondarrabiak egin dauana berbera Beho-bia.

* * *

Undar-ibia zan Santxo Erregearen izena. Izen zaarra. 1170'garren urtekoa. Eta, Ondarrabiko *Urdan-ibia* be usain zaarra dau.

Nere iritzirako *Undar* eta *Urdan* biak dira berba bakarra: *r* eta *n* tokiz aldatu dira eta amaiera bardiña dabe, *ibia*.

Biak ondar-ibiai dirala ematen dabe.

Ibia, erderaz *vado*, pasalekua. Mujikak adibide oneik agertzen ditu: *ibia* igaro, *ibitik* igaro, *ibiz* igaro.

Gipuzkoa eta Bizkaian beste au be esan nai dau: maria-beera, bajamar... Esan-nai onek ba-dau bestearekin zerikusirik, maria-beeran errez pasatzen ei dira ibaiak betetik bestera. Maria-beera, berez, ondar-ibia da.

Ibiak edonun dagoz erreketan; Bidasoan be an dago Beho-bia itsasotik gora. *H'a* antxiña *K* aoskatzen eben. Orregaitik Behobia Beko-ibia da. Bi ibi egozan: bat ondartzan eta bestea andik kilometro batzuetara, gerora lenengo zubia egin eben lekuan. Behobiako zubia izan da lenengoa; geroago egin ebezan Irun'go beste bi zubiak: bata bide-zabalarena eta bestea tren-bidearena.

* * *

Deba'n be bardin gertatzen da: orain dagoen zubia, barria da; zubi zaarrak Astigar-ibia'n egozen, itsasotik bost kilometrora, Sasiola inguruan. Erromatarren garaiko zubi baten aztarnak dagoz, eta gorago lenengo bide-zabaleko zubia, eta aren aurrean zubi barria eta bien gainetik, autopistako bi zubi mando. Danak alkarregaz.

Ondartzatik kanpora, an egoan "Deva" ibaiaren ibia.

* * *

Barruan be bardin-bardin gertaten da. Lazkano erriak badauko erdi-erdian bide zabaleko zubi bat; baiña, antxiñako bide estuak, Olaberriatik beera etorrena, arek Amil-ibia'n dauko bere zubi zaarra, Ataungo mugan. An egoan Agaunza errekan ibia, batetik bestera pasateko lekurik errazena eta antxe bertan egin eben zubia.

* * *

Arazoa naiko garbi ikusten dot: Bidasoaren barran, maria-beeran, ibia egoten zan beste aldera pasateko eta ortatik datorkio Ondar-bia edo Ondarra-ibia ipiñitako izana.

ARRINDA'tar ANES

ORDENAGALLUAK

Ordenagallu bat erabiltzen, guztiok ikasi bear genduke, besterik ez ba'da idatz-makinaren ordeaz erabiltzeko. Arazo au ingles-izenez josita dago eta ori zenbaitentzako naiko akats aundia da; apaizok, beintzat, obeto gabiltza latin eta griego izenen artean, ingles itz artean baiño.

Ona lenengoko izen ingles bat: Byte

Diska batek zenbat gorde dezaken neurtzeko Byte izena erabiltzen da eta euskerazko Bat'eri dagokio. Tarte bat esan nai du. Zenbat tarte dituen diska batek Byte'kin neurtzen da: Onenbeste Byte, Onenbeste Bateko.

Byte da Bat

Izki bat, zenbaki bat, kiñu bat, utsune bat edo kontrolako ziñu berezi bat.

Ona bigarren itza: K.Byte eta Kilo Bat esan nai du

Kilo, berriz, millaren neurria da. K.Byte da Millako Bat tarte.

Irugarren itza: M.Byte eta Milloi bat Byte esan nai du

Milloi bat Bateko, milloi bat izki, ziñu, utsune...

Byte = Bateko bat.

K.Byte = Kilo bat Bateko.

M-Byte = Milloi bat Bateko.

Gure esku-arteko ordenagalluak Bytez neurtzen dira: Onenbeste Byte. Aundiagoak diranean, Kiloka asten dira neurtzen, Millaka: Onenbeste K.Byte. Oso aundiak diraneak, orduan Milloika neurtzen dira, Milloika Bateko, M.Byte.

Dakientzako gauza auek lelokeri batzuek besterik ez

dira; baña, ez dakiñak, itsuaren antza du. Itsuentzat ari Bera; besteek badute nun ikasi.

Idazteko aña ikasten ba'degu, apurtxo orrek lana erreztuko digu, bai okerrak zuzentzean, bai zati berriak sartzeko, bai lanak gordetzeko eta abar. Ikasteko artzen diran nekeak eurak dakarte beuregan euren saria.

Ordu asko ordnagallu-aurrean lan egin ezkeru, nekeak alde askotik agertzen dira: Lenengo ta bat eserlekuaren-gaitik; biguña bear du izan, zapal-gunea zabaldu dedin eta atzetik eutsigarria eduki, bizkarrakin noiz-beinka idar egiteko atzera burua botaz... Belaunen parean egon bear du, bost zentimetro goraxeago... Silla ohea eta lana erre-zago. Burua eta gorputza zuzen; baña, indarrak artarako egin barik. Tarteka lan-aldia eten, beti ere berean luzaro irautea aspargarria bait da eta eraman-eziña. Ipur-masalla gañean eseri bear da eta ez iztar gañetan.

Ordu luzeetan ordenagallu aurrean irauteak baditu bere arriskuak, bai begientzak eta baiata aurpegiaren azalarentzat ere. Geneak ere aldatu ornen ditezke, pantallatik sortzen diran izpi edo tximist txiki oiengandik... Baña, orrelakoak gertatzeko, denbora luzeak bearko ditu...

Ordngallu baten aurrean, ordu asko igarotzen diranean gorputz-aldaketak egin bear dira gixa onetara:

1.- Eskuak buru gañean gora begira ipiñi, beatzak beatzetan alkaturik eta gero eskuak gorputzaren aldarne-netara jetxi.

2.- Sorbaldak jaso belarrietara eta jetxi.

3.- Gerrikoa askatuta eseri lanerako eta noiz-beinka, lepo-Sorbaldak zuzen dirala, gorputza atzera-aurrera eragin.

4.- Ukalondoak maai-gañean eta eskuak bekokian dirala, le-posamak astiro makurtu eta gora jaso.

Ordenagallua erabiltzen ikasteko bear dan neke-aldia artzen ba'dezu, zeure lan berriak berak emango dizu poza.

A'tar A.

ZENTZUNA

Pasio zikiñak eraginda gure arteko gerrate otz batean bizi gera gaur eguneko euskaldunok. Orretzek zikintzen digu, gure jokabidearen jatortasuna. Gure begietatik kutsua dario...

Kolorea degu begi-ninietan.

Orretzek margotzen ditu gure asmoen ur gardenak. Iñoren kolore bizienak ere, gure begietako koloreakin naastuta, gris tristea besterik ez digu ematen..

Gris tristea inbidiaren ori melarrakin naasian.

EGUNKARIAK IRAKURTEN

Compostela'ko Santiago'ra orain gitxi dala joanda izan dogun Xabier Arzalluz'ek PNV-PSOE'k egindako paktotik urten dan Euskal Jaurlaritza, "coyuntural" egite bat, luzerako epe baten barruan dagoan "estrategia" bat dala; euskal autarkiaren (botoaren) banaketa ikusi ondoren, txostena edo akordua, bearrezkoa, "necesario" izan dala esan eban.

Kostitutzioa, "únicamente se acata" birresan ondoren, Txomin Iturbe'ren eriotzari buruz egindako edo egin diran auzi batzuk gaitzestu egin ebazan, eta beretzat, Arzalluz'entzat eriotza au astinkada gogorra izan dala baieztatu eban.

Auxe izan zan, gitxi gora berak aitatu ebana, Galicia'n aurkitu zanean EBB'ko lendakaria, Partido Galegista'k konbidauta, eta ikustaldi onetan nazionalismoaren izenean Rosalia de Castro eta Emilio Castelao'ri omenaldi bat egitera joanda.

— Epe luzerako jokutzen dauanarentzat, bidean une "coyuntural" asko dago. Jaurlaritzaren txostena "coyuntiva" bat, besterik ez da. Lau urterako txosten bat. PNV'k jasan dauan banaketa eta gero ortik beste alderdi bat urtea nazionalisten botoak bananduaz, abertzaleen batasuna urrindu egin da. Akordu edo txosten ori egin ez ba-zan, beste auteskunde batzuk deitza erabagi bear izango zan.

Ez dogu itxaron baiño besterik egin bear izan. PSOE'koek gugana ate joka noiz etorriko, zuur, begira egon baiño ez dogu besterik egin.

— PSOE'ren eta gure ezbardintasunak txostenean argi eta garbi azalduta dagoz; ez dogu batere gure elburuen eskubiderik galdu.

Txomin Iturbe'ren irudiari buruz, gizon zintzoa baiña gogorra, ez egoala bere abertzaletasunaren zalantzarik, eta bere antolaketaren barruan-bertan eban ospeagaitik eta arazoari urtenbide bat aurkitzea bearrezkoa zala ikusten ebalako garrantzi aundiko gizona zala ziurtatu eban.

Azkenez, beralako gizona, Iturbe'lako gizona, batzuzentzat terrorista baten irudia dauan gizona begikotzat artzea, gaur egun, edonoren aurrean esatea be gatx egiten dala, azaldu eban.

— Erreza da Txomineri 500 gizonan eriotzea leporatzea. Erreza eta sinplea: Baiña erreza eta sinplea ez da benetakoa izaten— esan eban.

Baleiteke bateko eta besteko gizakiak epaitu aal izateko tenpora asko bear izango dala, eta onetarako, kondairaren barruan Santa Cruz apaizaren irudiari buruz izandako eritxien aldaketa gogoratu eban.

LARRONDO

OTO ARRANTZAN

Pototo amorrainetan joana dogu Errioxa aldera. Etorri danean Otok galdetu:

- Zenbat amorrain arrapatu dozuz.
- Amorrainak 699.
- Amorrainak ala eskalluak?
- Amorrainak eta ederrak, izan be.
- Zergaitik ez duk 700 esan? Biribillago legoke.
- Amorrain bategaitik zelan asiko nok guzurretan...!?

* * *

Pototo'ren arraiketa ezagutu ondoren, Oto ibaira doa arrantzara kaiñabera luze bat eskuetan dauela. Arbola-azpi batean jesarri da, bota dau kordela eta an dago kortxoari begira.

Artan ari dala, inguratu jako mutil gazte bat. Eta, jantzita egoan lez bota dau bere burua uretara.

Otok bere kaiñabera laga lurrean eta uretara salto egin dau mutilla aterateko. Bigarren aldiz mutilla uretara. Bigarren aldiz, Otok atera. Irugarrenez mutilla uretara eta irugarrenez Otok atera.

- Nik il egin gura dot. Nik il egin gura dot...!
- Baiña, ain mutil gaztea eta sasoikoa izanik zelan arraio il gura dozu...?
- Nik il egin gura dot...!
- Zorokeri arrek kendu burutik. Bizia ederra da.

Mutillak bere garrikoa kendu eta adar batetik bere burua eskegi dau zintzilik. Oto arbolapean egoan eta arbola aretan, ain zuzen. Aldameneko zubian begira zeuden batzuek etorri dira arin-arin korrika, arbolatik zintzilik egoena askatzera. Ekin dabe Oto'ren aurka bizi-bizi:

- Iru alditan atara dozu udetatik gizona eta orain, barriz, bere burua urkatzen itzi dautsozu...?!
- Urkaten? Nik usten neban, damututa, bere gorputza legortzen egoala.

ANES

OTO ETA POTOTO

ALFABETATZEA DALA ETA POTOTO 'REN JAKINDURIA

- Aizak, iOto, joan al aiz eskolara?
- Zertara?
- Ire burua alfabetatzera, mutil!
- Alfabetatzera? Zer izen asmatu dok itz on?
- Nik ez diat itz on asmatu.
- Nik, beintzat, alfabetazioa entzun dot beti (Oto'rentzat ez zan gauza gutxi berba on esaten asmatzea)
- Alfabetazioa..? Ori itz zalla eta gaitza dok. Errezagoa da Alfabetatzea... Ez al deritxok, ala..?
- Bai, bai, neregatik libre ago nai dekan berba esateko.
- Nik ez dot nai deneta esaten; egoki dagoena, baizik. Egoki eta errezago.
- Errezago izango litzake Alfalfatzea... Alfalfea zer dan bada-kigu beintzat eta...
- Alfalfa tatzea..? Ik kapurotar aundi bat bear dok alfalfatik.

Etengabeko eztabaidan ziarduten biok, Oto ta Pototo. Itz berriak asmatzerik ez zitzaiola gustatzen Oto'ri... Zer an-aio!

- Itz orren arrazoibidea erakutsiak.
- Begira, Oto, ik Alfa zer dan badakit
- Eibar'en ikusten neban Alfa, josteko makiña eta Sigma, berriz, Elgoibar'en.
- Ez oa oker bidetik.
- Ain tontoa naizela uste al dok, ala. Eibar'en lan eginda gero?
- Eta Omega zer dan..?
- Erlojua daukot nik Omega; ederra ala ere...
- Ik Omega erlojua..? Nundik nora..?
- Bai, kate aundi batetik zintzilik... Aitak utzita, berari osaba indiano batek emona... Nere aita nor zala usten dok?
- Utzi daigun pakean ire aitari eta goazen gure arira... Alfa eta Omega zer diran ba al dakik?
- Baietz, gizona: josteko makina eta erlojua.
- Ba, San Joan'ek esaten du Alfa eta Omega Jesukristo berbera zala.. (Pototo pralle-mutil ere izana dugu garai batean, asko-asko ezagutzen ez ba'zaio be...)
- Kontxo! Kontxo! Ori be badogu..? Ez nok batera arritzen... Izan ere orain entzuten diran gauzakin..!
- Ez dok pentsatuko Jesuknsto josteko makina eta erlojua danik?
- Euk esan dok; ez nik.
- Nik ez dot orrelako astakeririk esan.
- Ez dok ba, ezerbe ententitzen.
- Begira Oto, ni ikasia nauk eta Alfa dek grekotarren lenengo tetra edo izkia, eta Omega aizkenekoa...
- Eta Elgoibar'ko Sigma?
- Ori erdi aldekoa... Jesus Alfa eta Omega ba'da, orrek esan nai du Asiera eta Amaia data.
- "Printzipioa eta fiña" ikasi genduen guztien Elburua... Orain ententitzen dok, Oto?

Burua erdi-naasturik zeukan Oto'k; baña, alan be, bete astoari arre!

- Eta histori oiek zer ikusi dute Alfabetatzearekin?
- Alfa data lenengo izki edo tetra eta bigarrena, Beta. A eta B. Ortik sortzen da AlfaBetatzea... Asiera-asierako letrak ikasten astea, alegia...

- Orduan, irakurtzen dakiña alfabetoa da..?
- I, beintzat, analfabeto galanta!
- Ni analfabeto..? Naiago nukek on ala ba'litz.
- Analfabetoa dek alfabeto ez dana... Entzuten al dok?
- Entzun, entzuten dot, Pototo; baña, ulertu geroz eta gutxiago.
- Erne belarri oiek..! Griegoz A izkia beste berba baten aurrean jarri ezker, "ezetz" esan nai dau... Alfabetoa leetzen dakiña ba'da, analfabetoa, A(n)analfabetoa, irakurtzen ez dakiñ gizara-joa dok.
- Kontuz, kontuz or; nik orrenbeste bazekiat... Z. ARGIA ere irakurtzen dot. Apustu egingo neuke beste tirilladun alfabeto asko baño geiago naizela euskeraz irakurtzen... Eta griegoari utzi pakean eta goazen euskerara... Ni euskeraz alfabetatzera zergaitik joan bear det?
- I bezelakoai, arto bero esan oi zaio.
- Bai, arto bero esneakin... Eta, zer?
- Analfabeto utsa aizela erdera eta euskeraz. Iraultza onen berri, ez dakik ezer. Eta esandako Artoa berbak, ba'dakik gnegoz zer esan nai duen?
- Artaleekin egindako ogia, euskeraz, beintzat.
- Eta, griegoz..?
- Nik ez dakit griegorik; bearrik ere ez. Señale dok "Colegio de pago"an ibilli aizela...
- Ba, Artos itzak griegoz ogia esan nai dau.
- Orduan, antxiñako euskaldunak gnegoz bazekiten?
- Bai, alan dirudi.
- Orduan, euskeraz jakitean griego ere badakit. Zertarako bear dot ire iraultza berri on aita eta amak euskera ederra erakutsi bait zidaten.
- Baña, moda berriak aurrerakada dakar.
- Juan ditezela erdera umeetatik ikasi zutenak ire Alfabeto orretara eta, alan be, beti egingo dabe euskera-gaizto... Motxalleen euskerari esaten zion nere amak euskera-gaizto... Baña, nik ez nok motxaillea. Eta euskera berbetan analfabeto, gutxiago.


Egun aretan Oto oso asarre joan zan Pototo'ren aldamenetik, berari analfabeto esan eta Bilbo'ko erdaldunen Alfabetatzea ikastera bialdu? Zertarako? Aman bularretik ikasitako euskera aaztu eta beste euskera-motrollo bat ikastera joan? Ezta ezergatik be. Aman euskerari eutsiko zion naiz eta alfabeto berriek berari analfabeto deitu. Amen!

POTOTO 'REN SEME BIZKOARRA

Pototo'k iltzerakoan, bere semea tallertxo baten burn utzi zuen. Tallertxoa aurrera eramaten saiatzen zan. Egun artan akzionisten billera eukan. Asko ez ziran, baña, mordoxka bat, beintzat, bai.

- Jaunok, badakizute zergatik izan dedan nere bizitzan exitoa? Ez, ez dakigu.
- Lenengo, nere burn argiagatik.
- Bai, bai...
- Bigarren, ausarta naizelako.
- Bai, bai...
- Irugarren, nere gogoia burnia baño gogorrako dalako. Ori argi asko ikusten da.
- Laugarren, aitak utzi zidalako tallerra!

OTO ETA POTOTO



OTO ARGINTZAN

Metalurgian krisisa agertzen danean, ez dago lanik sobrean iñungo bazterretan. Zorioneko krisisa azaldu da eta, itxurazko lanik ezean, jo du Oto'k argintzara.

Ogeita lau bizitza-aldiko etxea egiten diardue. Lana eskatu eta eman. Au zoriona!

Amairugarren solairuan ladrilluak errenkadan jartzen ari zala, orra an beeran, bere txakur txiki narratxa katetik daramala. Pototo pasieran...

Ttotto zistrin arreri Oto'k zion gorrotoa»

Ez zion ba bein txisa egin anketara zukaitza zala-koan...!

– Bai, e...! Oraintxen ikusiko dek!

Artu zuen eskuan ladrillo zaar bat eta zapla! Goitik beera txakurraren burura.

Burua lertu zion.

Pototo'ren aserrea...! Guardia Zibillak artu eta or dijoa eskillere-tan gora Oto'ren billa.

– Au izan da nere txakurra ie daua gizona.

– Ni?

– Bai, zu! Betik ikusi zaitut!

– Bueno... bai ba...

– Zergatik egin dozu ori? (Guardia Zibillak Oto'ri)

– Ara, jauna, txakur gaizto orrek aginka egin nai zidan da...!

GALGA INDARTSUAK

Pototo aberatsak moto aundi bat eroisi dau. Sanglas galant bat. Zazpi zaldi gutxienez. Eta, frenoak berri...!

– Aizak i, Oto, eman nai al dok bueltatxo bat?

– Motorra probatzeko, ala...?

– Ba, moto onek baño freno oberik ez zeukak beste iñork!

– Ain onak baldin-ba-dira...

– Oraintxen ikusiko dok!

Biok eldu diote motoari eta an dijoaz tximistak artuta bidean zear:

– An, kamiño erdian, farol aundi ura ikusten al dok, Oto?

– Bai, ikusten diat.

– Larogei kilometro orduko goaz une onetan eta baitz bost metrora gelditu motorra!

– Ezetz...!

Potoko'k esan bezela, neurriak artuta, bost metrora, motoa geldi.

- Freno arrigarriak!
- Ori ez deek ezer... Oberik ikusiko dok.
- Bai, ote...?
- Bai, orixe!
- Ez dot uste.
- Orain 100 kilometro orduko goaz... An bastartxo artan arbola ikusten al dok...? Iru metrora geldi baietz?

Bost kilometro inguruan entzungo eben frenoek ezin zuten intziria... Baña, Pototo'k arrazoi: arbola-ipurditik iru metrora... motorra seko?

Badoiaz, berriz be, bidean aurrera... Bide luze-luzea, zuzen-zuzena... Motorra aidean... 120 kilometro orduko.

- Ikusten al dek, Oto, an urrutiko paper txuri ura...?
- Bai, ikusten joat.
- Bi metrora gelditu baietz...!
- Ezetz...!

Bi metro juxtu-juxtu paperera.

Segi bideari...

140 kilometro orduko...

Trenbidea bistan. Trenbide pasoa barrerarik ez... Madril'go expresa txinparta dariola...

- Expresetik bi metrora gelditu baietz...!

Oto'k erantzuteko indarririk ez. Bere begien aurrean Madril'go expresa... Geroz da aundiago... Geroz da gerutuago... Mustru ikaragarri baten antzera...

Estutasun aretan, begiak itxi ditu.

Bañan... arpegiko begiak istean... beste bat iriki.

- Ikusten dok, Oto. Metro bakar bat... Zer iruditzen zak?
- Freno onak ditula, baña goazen lenbailen lengo paper txuri aren billa.

MOTO SIDEKARDUNA

Pototo ez zan atzean gelditzeko gizona.

Auzoko Praisku'k berea baño moto aundiagoa erosi ba'zuan, berak moto sidekarduna erosi zuen naiz-eta bigarren eskukoa izan.

Esan eta egin.

Harley motor adar aundiduna aukeratu zuen.

Berri-berria ez zan; baña sidekarra ba eban beintzat eta orrek asko jazten dau motorra.

- Zer, ba? Gu ez al gera iñor, ala?

Arro ebillen gure mutila, gangorra zutunik, bere motomarruekin auzo guztia bere onetik ateratzen...

Arratsaldea zan... Illunabarrean...

Orra or nun dijoan, buelta bat emotera, gure zaldun berri Pototo.

Ez zan zaldun makala! Zazpi zaldien gañean zijoa gure zalduna.

- Oto, etorri nai al dok ibilalditxo bat emotera?
- Boo...
- Sartun sidekarrean. Estreñatzeko daukat.

Sartu da Oto sidekarrean; marru batzuen ondoren, asi da motorra martxan. Kalerik kale doaz errian zear.

Arro doa Pototo, lepoa kurrilloek bezin luze, bere aldamenen Oto, lepondoa gorri, leertu bearrean...

- Zer dok, Oto?
- Emen noala izardi-patsetan.
- Ez du ba bero aundirik egiten...
- Ez, bañan...

Kilometro bat egingo eben.

Oto leertzeko zorian... Begiak zerura begira, larri... ito bearrean:

– Pototo, mesedez, gelditu eta laga ni ementxe bertan, leertu baño leen.

- Leertu? Ez al zoaz ba eserita patxara ederrean?!
- Eserita...! Patxaran...!

– Bai, gizona, sidekarra eserita joatekoa dok; ori be ez dakik ala?

– Eserita joateko...? Nik usten neban korrikalariak entrenatzeko zala.

– Ni burutik? Bai, bai... Ez al dok ikusten sidekar au azpitik utsik dagoela?

- Utsik?! Eneee... Ta?

– Zera... Korrika egin bear iri segitzeko.

OTO ETA POTOTO

GALDU DUZU ARIMA

Aldi artan Oto pertza saltzen ari zan eta jo du ipar-aldera. Mota guztietako pertzak saltzen ebazan. Batez be, pertza oriak, sukaldeko lautzetik zintzilik imintzeko pertzak. Azoketan ibiltzen zan txarri-zale ezagun bateri saldu eutzon pertza eder bat. Txarrizaleak ez eukan paltrikeran dirurik eta, txarriak saltzean ordainko eutzola pertza. Ordizia'ko azokan topatu dau Oto'k txarrizalea eta ordañak eskatu deutzoz; bañan, ipar-aldekoak zorra ukatu:

- Nik pertza ordaindu neuzun.
- Zuk? Noiz?
- Aurreko aretan: pertza erosi nebanian.
- Orduan ez zeukazun paltrikeran dirurik!
- Beti eramaten dodaz, diruak soñean...

Ez-ta-baida ez zan sekulan amaitzen eta besterik gabe, eraman du Oto'k txerrizalea epaitegira. Auzia erabakitzekeo testigurik ezean, onela galdetzen deuzo juezak txarrizaleari:

- Jainkoaren aurrean egia esango duzu?
- Bai, jauna.
- Esan ba: ordaindu duzu pertza Oto jaunari?
- Bai, jauna.

Orrenbestez bidaldu ebazan juezak biok kalera. Kalean doiazela, Oto'k iparraldeko berbetan:

- Galdu duzu anima.
- Baita zeuk be pertza.

ZENBAT JAINKO

Arbiloratan Oto, berriz be, txarteletara. Pazkozkoa egiteko, txartela bea; txartela atarateko Abadearengana joan bear, Dotriña-galderei erantzuteko...

- Ara, Oto, galdera oso erraza egingo deutzut. Galdera oneri erantzuten ume txikienak be badaki.
- Bai, ote...?
- Bai, bai. Ona galdera: Zenbat Jainko dira?

Oto'k ez zuen aspaldian Dotriñarik ikusi, be... Galdera-erantzunak guztiak ebiltzan bere buruan naastuta...

- Ara, Jauna... Aita, Semea eta Espiritu Santua, orra iru... Iru pertsonekin, ara sei... eta, Jainko bakarra, orra zazpi...

Abadearen etxetik irtetea, ara nun datorren Pototo bera be txarteletara.

- Zer, Pototo, txarteletan?
- Asmo orretan gatoz.
- Ez dago, ba, abadea umore ederrean...!
- Zer, ba?
- Ez dakidala zenbat Jainko diran?
- Zenbat izango dira, ba? Bat bakarra.
- Bai, bai, txo, esan ori... Bat bakarra dala esan da emango dik txartela iri...! Neri ez deust emon zazpi dirala esan da, ta...

DOSKABALLOSA

Baserrira bidea berritu berri dogu. Motor sidekarduna zaartu eta, Pototo beti dabil aurrera begira, eta automobilla erostea erabaki dau.

Zer erosiko eta Pugeot Doscaballosa erosi dau. Ura omen da baserrirako egokia eta merkea. Indar asko be ez dau, bañan...

Tresna berriak erakustea eta probatzea beti izan ei da atsegingarri.

- Oto, goizan Sollube aldera bi zaldi auker probatzera. Urduri nago ori egin arte.

- Goizan, goizan...!

Oto gizon atsegiña da: iñoren borondatea betetzeko beti prest...

Badoiaz bidean.

Automobillak kulunka apurren bat egiten dau; bañan bi zaldikoa bakarrik izateko, zer nai dozu geiago?

Bi zaldiak arnas-estuka doiaz aldatz-goran; bai ba, Sollube'k aldapatxoa be dauko ta...

Atzetik Mercedes indartsu bat. Orra tximistak artuta, aurrera!

Ori ikusita, Oto, Doscaballosen atea eraginda, irteten asi da... Bai muturreko ederra artun be kamiño-baztarren kontra...!

Bere automobilla geldituta, badoia laisterka, Oto'ren aldamenera, laguntza eskeintzen:

- Bañan, Oto, zer egin dok eure burua orrela automobilletik botatzeko.

- Neure burua bota...? Mercedesen martxa ikusita, automobilletik jetsitzen asi naz, geldirik egoalakoan...

AMABOSGARREN BIZITZA

Oto ta Pototok, etxegintzan jardun ondoren, beurentzako etxe-bizitza bat gorde dabe amabosgarren pixuan.

Etenik gabeko berba-jarioa eukan egun artan Pototo'k. Alan-bear eta aszensoreak indarrak ez egun aretan.

Oñez igo bear.

Amabosgarren bizitzan on goian dago.

Asi dira eskillera-maillatan gora...

Pototo berba ta berba etenik gabe...

- Entzun, Pototo...

- Egon ixilik neuk kontua amaitu arte!

- Bañan...

- Zer baiña, gero! Ixo!

Oto gizarajoa beti mendeko.

Pototo berta ta berba, izketan... Baeukan etorria egun aretan...!

Bosgarren bizitzan, Oto larri:

- Aizu, Pototo, gauza bat bearrezkoa...

- Ixililik neuk bukatu arte!

Amargarrenean, Oto geroz eta larriago:

- Pototo, mesedez, entzun...

- Ixooo!

Amabosgarrenean eldu dira biak, izerditan arnasa artun eziñik:

- Zer eukan ainbeste presarekin?

- Zera, Pototo, lenengo bizitzan utzi dogula giltza.

OTO ETA POTOTO

BOSNA ERRIAL

Oto'ren alaba panpoxa kandela saltzen. Argi-ingar gutxi eta kandelak eraman bear. Pototo'en emaztea dendara kandela-billa:

- Bosna errial.
- Bosna errial oso garestiak dira.
- Lau jarriko dizkizut duro batean.
- Lau duro batean? Orrela konpromete; ipiñi laurak.

(Duro batek ogei errial zitun: lau bosteko. Argia neskatilla eta saltzaille abilla).

LETUZAK

Oto'ren laugarren semea itz-totela degu. Ikastolan dabil, Amerika'ko berriak ikasten: indio eta españolen arteko burrukak:

- Nor zan Inkeren gudari-buru?

Koxme zutik eta zerura begira, ez bait zuen gudari orren aztarnik ere...Historiaren programa eskuetan dauka, aldamenean duen Pronxio'rena. Pronxio, mutil azkarrak, programan bertan idatzi ditu buruzagien izenak. Koxme'k, larritasu aretan, jetxi ditu begiak zerutik, Pronxio'rengana, laguntza eske eta esaten dio ixilka:

- Zein dek?
- Letu zak!

Eskuetan duen programan idatzita bait zegoen izena. Ori entzutean, lasaitu zaio Kosmetxo'ri biotza: burua arro jaso eta indar guztiakin onela dio:

- Le...le...le...tuzak!

SUPOSITORIOAK

Anjinakin makalduta zebillen andre Joxepa; senarra, berriz, urduri andre Joxepa oian ikusita. Izan ere, andre gabe, sukalde aldean nola moldatu ez zekien Oto jaunak.

Sendagillea ekarri zuten etxera. Errian medikutxo bat besterik ez zegoien orduan. Sendagille gaztea eta botika berrien laguna.

Antxiñatik lepezamarreko gaitz oiek sendatzeko, zer erremedio erabiliko bear ziran, jakiña zan: galtzerdi batean irin-saia sartu eta zamaren kontra ipiñi, azalak kiskaltzeraino...Ala bestela, ur beroakin konpresak toki berean.

Ortik kanpo, asun-ura odola meetzeko.

- Supositorio auek artu bat goizean, bestea eguerdian eta irugarrena apalondan...Biar etorriko naiz berri jakitera...

Ori esanda joan zen sendagillea.

Agoa iriki, andre Joxepa... Ederki! Oso ederki! Bikain! Efeto ederra egin dizute supositorioak.

- Efeto ona egingo zioten, baña ez ziran eder-ederrak artzeko. (Oto'k aldamentetik)

- Ezetz?! Zer ba?

Zera...Joxepa'k atzo, goizeko supositorioa artzeko, bota zitun baita bar gauko babak ere...

- Baña, ori ezin liteken gauza da...
- Berorrek probatu al ditu?
- Oraindik, ez.

- Probatu arte, obe ez itzik egitea. Joxepak, nolakoak ziran atzoko bala txiki aiek?

- Oso miñek...kostatu zitzaidan eak tragatzea!

LAU MILLA OGIKIN

Aita Laureano, bizardun praille kaputxinoak, berealdi-ko sermoiak egiten garizuma aldean. Oto, kristau zintzoa, an joaten zan aurre-aurreko bankuetara, sermoilariari obeto entzuteko.

Sermoilari bikaña izan arren, bikaiñenak ere noiz edo noiz, erruren bat izaten du...Eta egun aretan Aita Laureano errudun gertatu zan:

- Lau milla ogikin, bost gizonei eman zien jaten Jesus'ek.
- A zer gauzea...!Ori neronek ere egingo nuke: lau milla ogikin bost lagunei jaten eman...?

Aita Laureano, beltzarana izan arren, ondo gorritu zitzaizkion bizar-sustraiak! Baña, Oto;k arrazoi.

Urtea pasatu zan. Garzuma eldu. Berriz ere, Aita LAureano sermoilari. Sermoilariak joan zan urteko leloari eldu zion.

- Bost ogikin, lau milla gizonei jaten eman zien Jesus'ek. Nai aña eman ere...(Eta Oto'ri goitik begiratu): Aizak i, Oto, egingo al ukek uk beste orrenbeste?

- Bai, jauna!
- Zer esan dek?

(Praillea eta jende guzia arriturik Oto'ri begira)

- Baietz egingo nukela.
- Bost ogikin lau milla lagunei jaten eman?
- Bai, jaun!
- Baña, nola...?
- Joan dan urtean sobratu zirenekin!

LEENENGO ZORTZI EGUNAK TXARRENAK

Pototo gaxo zegoen. Oso larri. Ate atzean eriotzaren itzala ikuste omen zuen.

Bildurra sortu zitzaion biotz-muñean eta bildurrak eraginda, aspaldiko okerkeri baten damua sortu. Ots egin zion bere seme Pototo Txikiri, eta Oto'ren aurrean, onela ekin zion:

- Ara, seme, orain zazpi urte, Urdia'ren etxetik bei gorria ostu nuen...kortan daukagun bei gorritxua ez da gurea...
- Ez du, ba, iñork jakin...?
- Iñork, iñork...
- Zeñek?
- Jainkoak ikusi nindun...

- Eta zertan egon zera orain arte, ezer esan gabe?

- Ai, seme... Orain arte osasun ona izan diat beti: baña, orain eriotza ikusten diat gertu eta ez nuke nai bei baten-gatik inpernura joan...

Semeak ez zuen beirik gakdu nai eta an zegoen nora jo ez zekilla...Oto etorri zitzaion pertza konpontzera onela esanez Pototo'ri:

-A, ba...Inpernua ere zortzi lenengo egunak izango dituk txarrenak, gero oituko aiz.

Bei gorria ikulluan gelditu zan.

ANES (1968)
DEBA'n

OTO ETA POTOTO

OTOTXO'K MINA BURUAN...

Andre Joxepa bere umea artuta tranbian zijoan. Bazuen umeak okerreren bat... Burua aundituta eta oial zuriz ondo lotuta...

Ume, garraxi batean, iltzera daramaten txerrikumearen antzera (animea apartatuta)... Ama, berriz, kopetillun.

Oso asarre.

Umea ixildu arazteko, buruan zigortzen eban noiz-bein-ka.

Ixildu? Bai, bai... Kurriskak geroz eta larriagoak, mingarriagoak, zaratatsuagoak...

Tranbiako jendeak ez zion amari begi onez begiratzten. Mutxurdin batek besteari:

—Ikusi al den sekula orrelako ama biotz-gogorrik?

—Ez, neska, ez den erreza orrelako ama zekenik billatzeri k!

Umearen kurrixkak tranbi ososa betetzen zuten; baña, andre Joxepa'k ango esan-mesei kasorik egin gabe, buru aundi arrei zaplaztakoak ematen jarrai eban.

Erreka-baztarretako urjolaren orruak geitzen dijoazen bezela, ala moduz, tranbi artako gizadiaren orruak geroz da gogorragoak ziran andre Joxepa'ren kontra:

—Au da basurde-emea...!

—Abereak be euren umeak obeto zaintzen dabez...!

—Nundik sortutako sorgin txarra degu emakumea au...?

Gogaitu zitzaion andre Joxepa'ri bere pazentzia ainbeste astakari entzunda eta jarri zan ollarra bezela danen aurka:

—Semea nerea da eta neronek dakit zuek baño obeto berarekin zer egin!

—Kanpora!

—Atxo madarikatua!

—Animalia!

—Zistrin alena!

Zer esan ez zituzten tranbi aretan!

Baña, andre Joxepa ez zan errez ikaratzekoa,

Ez, orixe!

Ezer besterik erantzun barik asi zan bere semearen burutik oial zuriak kentzen... Burua aundia berez eta orain azita gero, oialak luze... Trapubenda oiek kentzean, tranbi osoa ao-zabalik gelditzu zan:

—Baña nola gertatu zaio ori?!

—Gertatuta! (Amak)

—Nola leike...?

—Errementari baten billa noa.

—Baña, nola?

—Ogean ezin geldirik egon eta buruz-beera erori zait, trakets au.

—Errementari batengana?!

—Buruz-beera oñalean sartun du burua eta atera ezin.

Eta oñala, ez da lurrezkoa, burnizkoa, baizik. Ateratzeko errementaria, bear.

ANES (DEBA-1968)

LOIOLA'KO IGNAZIO TA EUSKERA

Iñoz entzun dogu Loiola'ko Ignazio'k ez ekiala euskerarik eta orregaitik ez ebalako ezer be idatzi euskeraz. Aztertu daigun arazo au.

Ba-dakigu Xabier'ek ba-ekiala euskeraz, ori berak diñoalako eta Santxon ugartearen ilten egoala gure euskeraz egin ebalako, baiña ez eban ezer be idatzi gure izkuntzaz.

Beste alde batetik, Inizio'ren idazkietan izkuntzalariak euskal-kutsu aundia aurkitzen dabe: Superlatibo gitxi, esaldi laburrak eta abar.

Josulaguna zan lego batek esan ei eutson Inazio'ri ilteko egoala:

—Aita! Zure erriko dantza bat ikusi nai neuke il aurrean!

Eta Ignazio'k aureskua dantzatu eutson bertan, bear ba'da ez lar ondo, errena be bazan-eta. Orrek esan nai dau euskal-gauzak ezagun ebazala.

Gaiñera, orantsura arte idazten jarten izan garanean, beti erderearen izan dogu. Geuk ba gaztetako eskutitzak etxera erderaz egiten genduzan. Ori antza, Ignazio'k eta Xabier'ek be.

Dana dala ba-dagoz eskutitz zarrak euskeraz idatzita, esaterako Zumarraga'ko Frai Juan'ena Ameriketatik eta Berriotxo'ar Balendin'ek bere amari idatziak. Bear ba'da aitari erderaz egingo eutson!

Gauza ederra izango zan euskerearentzat Loiola'ko Inazio'k "Gogo-jardunen liburua" euskeraz idatzi ba'leu.

Gaiñera, esan bearrekoa da, Ignazio'k España'rako izendatu eban lenengo arduraduna Araoz'ko Antonio euskalduna izan zala eta onek sarritan berba egiten eban eleizetan euskeraz. Eta Ignazio'ri idazten eutsonen beste iñok ulertzerik nai ez ebanean, euskeraz idazten eutsozala esaldi batzuk.

Inazio'k bere errira etorri zanean erritarrai berba egiten eutsen euskeraz, 1535n. urtean, 44 urtekoa zala etorri zan Paris'tik Azpeitia'ra osasuna lortzeko eta ICurriotz'ko bentara sartu zanean, bere euskeratik igarri eben nongoa zan.

OLAZAR'TAR Martin'ek

OTO TA POTOTO

TORNILLOAK PALTA

Egun aretan ez zegoen gozo gure Oto.

Asarre ebillen eta ez zan gutxigorako: Renault 4-4 bat eukan eta kurpil bateko lau tornilloak galdu batera. Bermeo'ko zoro-etxearen aurrean gertatuz, an ebillen batetik bestera, nolan jokatu asma eziñik.

Alako batean zoro-etxeko leio batetik, zoro bat oska:

– Zer dok, txo, ain larri ibiltzeko?

– Zera, kurpil bateko lau tornilloak galdu batera.

– Errubera bateko lau tornilloak?

– Bai, eta ez dakit zer egin.

– Gauza gutxiatik larritzen az...

– Gauza gutxi? Ator i bera eta konpondu, ain erreza ba'da?

– Nik bera joaterik ez dot; bañan zer ori arin konponduko neuke.

– Laister konpondu? Nundik?

– Begira, jauna: osorik dauden iru kurpilletik tornillo bana kendu. Orra iru tornillo. Iru tornilloekin tornillo gabeko kurpilla lotu eta orrela lau errubera izango dabez iruna tornillo. Ibiltzeko aña izango az. Ez al da gauza erreza?

Zoroaren jakinduria ikusita, Oto egoen ao-zabalik arrituta gora begira eta onela diotza:

– Nolan sartun zaitue or barruan? Zergaitik?

– Zoroa nazelako; ez tontoa!

SANTU BERRIA

Donosti'ra joian Oto trenean Santotomasetan txistorra jatera. Zantar xamarra txamorrota edo... Dana dala, gerra odorena zan eta eldu jako poliziko bat:

– Documentación!

– Zer?

– Documentación!

– Ez dot ulertzen.

– Que me muestre la documentación!

– Zer ote dok ori?

Alako batean, aurrean eukan bibote txikidun gizaseme eskas arek, bere txamarraren solapa jasoaz, polizi-ikurra erakusten dio. Oto'k buruari atz egiñez onela diño berekasa:

– Orain be badogu santu berriren bat.

Jeiki aulkitik eta serio-serio, medalla aretan emoten doutsu musu eder bat.

EULIAK KAFEAN

– Artungo al dogu kafetxo bana?

– Bapo, bapo, gustora.

– Ia apur bat esnatzen garien, sargori be dagota.

– Nora joango gara?

– Café Oriental'era.

Oto, Pototo eta don Premin albeiteroa alkarrekin ebiltzan Donostia'n. Café Oriental'era joan dira kafea artzera.

Eguna bero be bai eta euli asko maai-inguruan. Moltsoa zurrubilloan. Motelduta egozan euliok eta jausi jakez

batzuek kafetara.

Don Premin txaloka deadar egiten morroiari:

– Txo, ekarri beste kafe bat.

Pototok kutxarillagaz eulia atarata, kafea artun dau onela esanaz:

– Ez noia beste kafe bat ordaintzera euli batengatik.

Oto'k katillua kirtenetik artunda, onela diño:

– Eulitxoa, anak bildu, barrura zoaz da!

LAU TXAMARROTE

Kortan txekor-sail ederra eukan Oto'k eta Jerolimo arakiña etorri zan goiz aretan bat eroatera. Astelena zala ganadua iltzeko eguna, eta astelenean joango zala txekorera eroatera...

Astelen-goiza. Egunsenti zoragarria etorren. Periko Fortuna astua lagun, ba doa erriruntz. Asto gañean txamarrote beltza, kiruzko alkandora zuri-zuria paparrean, pipa ezpañetan eta makilla eskuan.

Goi-arro doa zoriontsu.

Periko Fortuna makurgaitza zan, bañan kalerako usaiña artun ezker, nagusia baño pozago. txekorretik tirako zuan bai, ez bildurrik izan!

Mataderoko arazoak bete, gibela pañuelo batean jaso eta Manuel Abarkeroaren tabernara zuzen-zuzenean. Ainbeste neke pasata gero, ez al dau Oto nekazari berriak arnasa artzeko atsedean apur bat merezi, ala?

Bai orixe!

Arratsaldea aurrera, Oto tabernatik atara zanean.

Bero be bai.

Ez dakigu ziur berotasuna kanpotik ala barrutik zan!

Bear ba'da, bi aldetatik. Ez ote zan barrukoa kanpokoa baño geiago izango? Dana dala, Oto bero joian eta txamarrota kendu eta asto gañean imiñi dau.

Bidea ez zan ain leuna eta txamarrota, astotik lurrera...

Pazintzi guztiaz, bizkarra makurtu eta txamarrota berriro asto-gañera.

Ez zuen txamarrota perpezioz imintzen, edo Periko Fortuna ebillen saltari, gauzea da txamarrota berriro lurrera joan zala.

– Beste txamarrote bat? Ba dozak bi.

Makurtu eta txamarrota astoaren bizkarrera.

Berotasuna burura igota ekarren. Bide traketza, arri-koskorak ugari, astoa saltari eta txamarrota berriro lurrera.

Beste txamarrote bat? Au dok zafria, au; sekula orrelakorik?

Artun lurretik txamarrota eta Perikoren gañera.

– Iru txamarrote!

Oto'ren etxea baño lenen Errota-txiki etorren eta ara eltzeko zubitxo bat.

Astoak mogimendu asko eta erori da berriro laugarren txamarrotea. Oto, txamarrotea lurrean ikusita, gelditu da aren aurrean tente:

– Beste txamarrote bat? Nik zertarako bear dodaz ainbeste txamarrote...?

Pentza eta egin: artun txamarrotea eta zubitik ibaira.

OTO TA POTOTO**URA ETA ERRADEA**

Askotan bizitza latza agertzen jaku. Senar-emazteak bakoitxak bere gurutza eroan bear, alkarri lagunduaz; baiña, Otok diñonez, ala egin bearrean, alkarri gurutza gogortzeko alegintzen dira.

Bodegoi zaarreko kuadroa gustatzen jakon Oto'ri, sukaldean eukena. Ara zelakoa zan: Gizontxo bat joian gurutzepean, gurutza eroan eziñik arrastaka; bere emaztea, barriz, gurutz gaiñean jesarrita lasai... Ori asko ez dala, eskuan eroian oiñetakoarekin burutik bera emoten eutson senarrari...

* * *

Ori orrelan ez zan Oto'renean. Ez eta gutxiago be. Euren gora-beerak izaten ebezan eta asarrealdiak be bai noizbeinka; baiña, andra Josepa emakume maratza zan, etxeari ondo begiratuko eutsona eta ortik ez zetorren kalterik. Gertatzen zana zan, Otok ez ebalak sekula suerterik izaten negoziotan. Alderantziz gertatzen jakon lanbidea beti. Iñoiz asmatu ezin.

Orain be mandozain sartuta dabil, ardaoa Naparroan erosi eta Gipuzkoan saldu. Gau eta egun kamiñoetan zazpi mando zaar menperatu eziñik. Atzo gaueko amarretan eldu zan etxera, aspaldi illunduta gero. Blai-blai dator, ura leptotik sartu eta orpotik urten. Ardaoak karu erosi ditu, mandoak iñoz baiño biurriago... asarre dator.

* * *

Sartu da etxean. Sutondoan andre Josepa epelean, galtzerdia egiten; egun osoan lan asko egin dau, kanpoan euria goitik beera eta ez dauka jagiteko gogorik:

—Zu, Oto, erradea utsik daukagu. Ura palta. Gaiñera, euria da. Buztita zagozen ezkerro, artu erradea eta ura ekarri iturritik.

Nik uste neban onduantxe trumoiak eta tximistak joko zituala; baiña ez, ixil-ixilik erradea artu eta badoa ur-billa erroko iturrira. Milagroren bat gertatu da.

Ba-dator etxera erradea urez gaiñezka. Sartu de andre Josepa'ren ondora; lasai egoan galtzerdi egiten. Bat-batean uztu dautso erradea burutik beera:

—Zu ere, buztita zagoz orain. Joan eta ekarri ura iturritik.

Andre Josepari ez jako arnasarik bere onera etorri oraindiño:

—Alena, alakoa..!

TXOKOLATE GOGORRA

Urte batzuek dirala oitura izaten zan elizetan gogojardunak izatea.

Aste beteko sermoiak eta itzaldiak ziran eta ondoren jende guztia konpesatu egiten zan banan-banan, euren pekatuak aitortuz barkamena eskatzeko.

Garizumako sermoi oien ondoren, Oto zekorria saltzera (aitortza egitera) joan zan elizara. Praille bizarduna an egoan konfesonarioko kaiolan sartuta eta bere aurrean bi errenkada luze gizon autortzeko txandaren zain.

Otok presa aundia edo an zain egoteko astirik edo gogorik ez. Joan da Joseparengana:

—Zuk zer egingo zenduke, konpesatzera ba'zoaz, txanda-pasa egiteko?

—Praillearenganako asmoa ba'dozu, nik ori oso ondo ezagutzen dot eta konbeni jatzu txokolatea erosi eta eroatea. Asko guztatzen jako eta lau ordu badaroaz konfesatzen. Aspertuta eta gosetuta egongo da onezkero. Zuk txokolatea erakutsi egiozu eta txanda-pasa egin baietz!

—Zu lako emakume argirik non?

* * *

Joseparen aolkuari jaramon egiñez, erosi eban Otok txokolaterik onena. Elizara doala, beaztopo egin dau ladrillu mee batekin. Buruan argi bat biztu: jako.

—Zertarako txokolatea emon? Ladrillu dotore au sartuko dot txokolatearen zorroan.

Pentsau eta egin. Txukun gelditu jakon, itxura onean. Konfesonario aurrean estulka asi zan, praillea konturatu zan arteko guztian. Orduan txokolatea erakutsi eutson Otok.

—Ia, ba, datorrela ori, presa aundiakin dator-eta...

* * *

Egin zituen euren lanak: Otok esan eta besteak barkatu.

—Orain, penitentzirako, Aita Gure bat esan San Pedroren altara aurrean. Otok alde egiterako, sartu eutson agiña prailleak txokolateri. Sartu? Bai, zera... Agiña apurtu jakon. Bitartean Oto San Pedro-altararen aurrean otoitzean dago, amaitu dauanean, kalera bidean asi da; baiña, prailleek dei egin dautso bereganatzeko:

—Ator, ator. Penitentzia bete al dok?

—Bai, jauna.

—Azkartxo egin dok. Non zan?

—Ortxe, San Pedro-altararen aurrean.

—Or?

—Bai, jauna, ortxe.

—Ez, ez, orrek ez dau balio: Erromako San Pedroren aurrean bete bear dozu penitentzi ori.

—Erroman..!

—Bai, Erroman.

—Penitentzi gogorra emoten daust berorrek.

—Gogorragoa zoan ik emondako txokolatea.

ARRINDA'tar ANES

OTO TA POTOTO

Istorio-Mistorio.

OTO CAPITALISTA USTELA.

Arlote antzera ebillen Oto aldi aietan: patrikeran dirurik ez.

Sartun da Donostiko osturik ederrenean.

Eseri da patxara lasaienean.

Ukeratu ditu platerik goxoenak; langosta, angulak, solomilloa... eta ardorik onenak.

Postreari atsegiñenak; kopako frantzesak eta Habana'ko pururik galestiena.

Bapo bazkalduta gero, deadar egiten dio morroiari:

—Aizu, txo, esan nagusiari etorteko.

Or nun datorren presaka etxeko nagusia prakak galtzeko moduan:

Zer nai dau beorrek, nere jaun orrek?

—Laga beorrek mendian...

—Zer agintzen deust, jauna?

—Begira, joan dan urtean, zuk ostikoka bialdu ninduzu etxe onetatik ordaintzeko aukerarik orduan ez nebalako.

—Barkatu, jauna; barkatu milla bider; barkatu amar millabider... Miñ aundia eman zidan beorreri orrelako naigabea emoterik...

—Ba, uste dot aurten be nerekin miñ aundia artuko dozula.

Barru aretan zer pasa zan ez dakigu; baña, kalean zijoazenak txapel bat ikusi eben aidean kale-erdiraño... eta txapel-odoren Oto'ren burua txapel-billa... Kale-erdi-ko arri landuetan itxi ebazan ortak eta agiñak.

DONOSTIKO BULEBARREAN.

Donosti'ko bulebarra, aundikien egoitza.

Uda bete-bete.

Jendea gañezka kafeterietan.

Orra or, kale-erditik, Oto ta Pototo, bata bestearen ondoren. Bakoitzan bere eskubia lepo-parean dakarre. Esku-azpiak gora begira.

Gerra-ondorenak.

—Ni?

Bai, zu! Betik ikusi zaitut!

—Bueno... bai ba...

—Zergatik egin dozu ori? (Guardia zibillak Oto'ri).

—Ara, jauna, txakur gaizto orrek ainka egin nai zidan da...!

OTO PINTORE.

Krisis-garaian ofizio berriak proba ta proba, etxegintzari eldu zioten, bai Oto'k eta bai Pototo'k, esan dogun bezela. Betiko lagun zaarrak ziranez, negozioa alkarrekin eramatea erabaki eben.

Etxegintzan aurreneko Oto'ren lana auxen izan zan: Ladrilluak alkarren gañean imintzea errenkadaka. Pototo'k, berriz, pintoretzan probatzea erabaki eban. Ladrilluekin lan egitea baiño ohea zan, beintzat, eta... Erakarri zuan Oto pintoretzara.

Oto'k Pototo'ri:

Nik ez diat pintore izateko trebetasunik... Ez nau ortarako jaio...

—Probatu al dok sekulan, ala?

—Ez, ez diat probatu.

Egin dezagun ba.

x

Etxegintzan ez zan lanik palta.

Eta etxegintzan pintoreak bearrezkoak izan oi dira... Etxeak egin ondoren margo ederrez apaintzen dira. Etxe bateko pintoretza, bion artean, bere kontura artu zuten.

Eta, jakiña, bakoitza norberentzako ari danean, ez da lo egoten, presaka, baizik. Alan zebiltzen Oto eta Pototo, etenik gabe eta presaka...

**

Pototo ari zan eskallera baten muturrean pinta eta pinta... eskua gora eta eskua beera... Gora eta beera... Etenik gabe.

Alako batean orra or Oto nun datorren laiterka. Bai, ba, eskallera lanari segitzeko;

-Aizak, i, Pototo, eldu gogor brotxari!

Ori esanakin batera, kentzen dio eskallera... Pototo'ren bizkarrekoa... ! Ta Oto'ren anka-otsa...!

—Ni?

—Bai, zu! Betik ikusi zaitut!

—Bueno... bai ba...

—Zergatik egin dozu ori? (Guardia zibillak Oto'ri).

—Ara, jauna, txakur gaizto orrek ainka egin nai zidan da...!

OTO PINTORE.

Krisis-garaian ofizio berriak proba ta proba, etxegintzari eldu zioten, bai Oto'k eta bai Pototo'k, esan dogun

bezela. Betiko lagun zaarrak ziranez, negozioa alkarrekin eramatea erabaki eben.

Etzegintzan aurreneko Oto'ren lana auxen izan zan: Ladrilluak alkarren gañean imintzea errenkadaka. Pototo'k, berriz, pintoretzan probatzea erabaki eban. Ladrilluekin lan egitea baiño ohea zan, beintzat, eta... Erakarri zuan Oto pintoretzara.

Oto'k Pototo'ri:

—Nik ez diat pintore izateko trebetasunik... Ez nau ortarako jaio...

—Probatu al dok sekulan, ala?

—Ez, ez diat probatu.

—Egin dezagun ba.

Etzegintzan ez zan lanik palta.

Eta etzegintzan pintoreak bearrezkoak izan oi dira... Etxeak egin ondoren margo ederrez apaintzen dira. Etxe bateko pintoretza, bion artean, bere kontura artu zuten.

Eta, jakiña, bakoitza norberentzako ari danean, ez da lo egoten, presaka, baizik. Alan zebiltzen Oto eta Pototo, etenik gabe eta presaka...

Pototo ari zan eskallera baten muturrean pinta eta pinta... eskua gora eta eskua beera... Gora eta beera... Etenik gabe.

Alako batean orra or Oto nun datorren laiterka. Bai, ba, eskallera lanari segitzeko;

—Aizak, i, Pototo, eldu gogor brotxari!

Ori esanakin batera, kentzen dio eskallera... Pototo'ren bizkarrekoa. ...! Ta Oto'ren anka-otsa...!

OTO MENDIGOIZALE.

Oto'k fabrika-lanari ekin zionean, orduan mendi-miña sortu zitzaion biotz-muñean. Osasungarria zala eta... Mendi-gañeko aize meea bearrezkoa zutela birrikak eta... Mendigoizale egin zitzaigun Oto sasoiezko gizona.

Inguru autean Alpes'erik izan ez arren, mendigoizaleei alpinistak esaten dicte. Txindoki'ra doazenak, alpinistak...? Ala txindokistak?

Oto'ren lenengo irteera, San Adrian'dik gora, Aizkorri'ra.

Toki zoragarri artan, arratsalderaiño.

111 unabarrean, eguzkiaren lotaratze lilluragarriari begirara:

Urrezko bola baten
Itxura du artezen
Eta geldi-geldikan
Mendipean sartzen...

Kanta-kantari, uste gabean, illuna erori zitzaion gañera... Illargi-berri, gau beltza eta katuen begirik ez, ontzenak gutxiago, argitik illunpera pasatzean ez zuen tutik ikusten... Lañoa ere sortu zan eta, mando zaarra begien aurrean jarrita ere, ez zuan Oto'k ikusiko gau artan.

Estropozo emen, estropozo an; nora zijoan ez zekiela, geldid egoteko ere arduriegi zegoelako edo, Oto beti aurrea.

Aurrera...!?

Bai, bai... Toki ederrean zegok...!

Ankakin arri kozkorro jo eta an zia zilipurdika mendian beera...!

Noraiño jauzi zan ez zan konturatzen; baña eskuan zekarren bastoi-makilla galdu zuela, ori bai konturatu zan.

Makilla ederra ala ere!

Leoi-burua zuan eldu-lekurako.

Galdu egin ote du, ba? Itxumustuka eskua luzatu... eta, suerte bedekintua, antxen zegoen leoi-buru ori, bere uñen ondoan...!

Artu dau bastoi ori eskuan...

Galduta ikasten ornen da eta aurrerago joateko, bastoi-makillakin probatu gabe, ez du pausorik aurrera geiago emango. Eskuan duen leoi-buruakin asi da probaketan, pausoa aurrera emateko, laño eta gau illuna tarteko, ez bait da ezertxo ere ikusten.

Lenengo probaketa bere aurrean... Leoi-burua, lurre-raiño:

—Eneee...! Emen neure aurrean amiltokia dago!

Probatu du bere atzetik, eta berdin, leoi-burua, berriz ere, lurre-raiño:

—Emen be, abismoa...

Eskubitik eta ezkerretik, antzeko:

—Amiltokia...! Abismoa...! Aitz-mutur baten puntan nago. Nagon bertantxe geldi-geldi, zirkiñik egin barik. Noiz-baiean argituko du eta laño beltz auek aldenduko dira...

Kuskurtuta gau guztian, mogimenturik egin gabe... Oto'ren bildur luzea...

Nekez, baña, argitu du.

Nola leiteke...?

Oto zelaintxo batean dago.

Zelai-gunearen erdi-erdian. Aitz-muturretik ara, sorgiñek eraman ote dute? Ireltxoek izan ote dira? Larniñek ote...? Basajaunak Oto'ri:

—Zer sorgin eta zer lamiñ, gero...! Begira egiok ire makillari!

BARREGAIAK

—Jauna, zer du nere makillak...?

—Ez al dek ikusten makilla apurtuta? Eskuan muturra bakarrik daukak. Leoi-burua eskuan eta beste guztia falta... Orra ire abismoa eta amiltegia... Ja, ja, ja...

Oto ao-zabalik... Basajauna algaraka basoan zear... A zer tonto-lapikoa!

GABONAK GERRATEAN.

Gabonak... Trintxera-zuloetan pasa bear Gabonak... Oto eta Pototo'k txabolatxo bat ere egin zuten bertan, neguko otzari gogor egiteko.

Etxetik bidaldu zizkien pakete aberatsak: lukaika, makallau, piku, intxaur, sagar, pattar eta puru "Farias" zoragarri ak ..

Txabolan bapo apalduta, puruak erre nai eta poxpolorik ez:

—Aiak i, Oto, joan ari or, trintxeran zear su-billa, bes-tela ez diagu gaur purorik erreko...!

**

Irten txabolatik eta or dijoa, trintxeratik trintxerara, soldaduei sua eskatzen:

—Poxpolorik bai...?
_ Poxpolorik ez.

Iñork ez zuen poxpolo miserable bat danen artean... Bai, ba, Gabon bezperan eurite aundiak izan ziran da...

Zer egin?

Bear danean ez zaio Oto'ri argirik falta...

Pentsa eta egin.

Alanbre-sare azpitik nekez pasa eta or dijoa beste alde-ra:

—Izango al dute gure etsaiek poxpoloren bat... Gaur pururik erre gabe ez noa lotara...

Alanbre azpitik pasatzean, orra txamarra eten eta gañera txapelean tiro bat artzeko arriskuan ipiñi bere burua...! Baña, beste gabe, eldu da aurreko trintxeratarra. Oto'k zentinelari:

Poxpolorik, bai...?

—Ez poxpolo eta ez errekiñik... Emen ez zegok gosea besterik...

Alperrik ibilliko aiz.

—Agur ba, mutil, eta eskerrik asko!

**

Alanbre-sarea berriro pasa eta elduda bere txabolara. An zegoen Pototo urduri:

—Ezer topatu dok?

—Ezer ez...! An ez dago gosea besterik... Alper-alpe-

rrik egin zetiari ibillera guztiak... Frente osoan ez zegok poxpolo bat bera ere!

—Zer egingo diagu ba... Beste erremediorik ezean, egin diagun lo. Itzali kandela ori!

OTO ETA POTOTO MUGALARI.

Bi lagun zaar onek, beti alkarrekin. Gerratean be bai. Frantzi-aldetik arrapatu zitun eta etxera len-bai-len biur-tzea erabaki eben.

Bai, baña nola?

Mugak itxita zeuden.

Irikita egonda ere, pasaporterik ez.

Baña, geure mutilok, tonto utsak ez zira, (galdetu Pototo'ri) eta aukerako bidea aurkitu zuten andik iges egiteko:

—Oto, zurezko bi kajoi aundi egindo doguz...

Zertarako?

—Emendik irteteko.

—Nola irten...?

—Irten ez, sartu!

_ Emendik irten bear degula ez al dok esan, ala?

_ Emendik irten, baña kajoietan sartu.

—Pototo, I ez ago burutik ondo... Gu kajoietan sar-tun...!?

—Bai, merkagiak bagiña bezela.

—N000...! Ik dok burua, ik... !!!

Mugara eldu ziran kaja zaar aundi aiek Pototo'ren kajari begira karabiñeroek alkar;

— Zer ote dakar kaja orrek?

—Kaja aundia dok ori.

Pototo'k karabiñeruen berbak entzutean, asi da kantari:

- Kikirriki... ! Kikirriki... !

— A. bai: 011 arrak burrukarako.

—Pasa aurrera kajoi ori.

Eldu diote bigarren kajoiari. Pototo'ren suetearekin konturatu zan Oto. Berak asmatuko eban zer-edo-zer...

— Bigarren kaja ori...

—Au ere astuna dok. Zer ote dator bere barruan?

Ori entzutean Oto'k onela dio indarrez:

Patatak!

**Arrinda'tar Anes
Deba: 1968**

Oto ta Pototo

ZURIAK ALA BALTZAK

Oto ofizio eta lanbide askotako gizona dogu. Etxegintzan lan gitxi eta baserrira jo deua berrira. Artzain egin jaku. Ardi mordo bat be ba-dauko.
Zuriak eta baltzak.

Prontxio jauna erriko dendaria da. Bidean Oto'rekin topa dau. Oto ardiekin dator aurrera. Prontxio'k eldu dautso berbetako gogoakin:

- Txo, Oto, ardi onek zenbat kilometro egiten dabe egunean-egunean?
- Nortzuk, zuriak ala baltzak?
- Zuriak, txo.
- Ba, bost kilometro edo...
- Eta, baltzak?
- Bardin.

- Entzun, Oto, zenbat jaten dabe ardi onek egunero-egunero?
- Nortzuk, zuriak ala baltzak?
- Zuriak, txo.
- Ba, amar kilo belar inguru.
- Eta, baltzak?
- Bardin.

- Adi, Oto, eta urtean ziar zenbat ille emoten dau ardi bakoitzak?
- Nortzuk, zuriak ala baltzak?
- Zuriak, txo.
- Ba, lau kilo artille bakotxak.
- Eta, baltzak?
- Bardin.

21.^a ERENTZUNA


1	A	M	A	I	R	U			A			A		N			
2	N		L				G	A	L	T	Z	A	R	P	E		
3	A		E	C	U	N	A	X	A	X	I		A	G			
4	I		T	A			B	A	T	E	O		N	A			
5	T	A	U	T	I		E	X	Z		N	A	T	O	R		
6	A		Z	X	Z	U	K						Z	X	G		
7	S	A	K	A	R	X	K	X	O		A		A	G	A		
8	U		E	T	X	C	A	Z	T	E	L	A			R		
9	N		N	U	N	X	T		O						B	I	
10	A	N			F	I	Z		I		E	R	N	E			
11			B		B		O	T	A	R			A	R	I		
12	N	A	I	Z	A	B	E		Z	U		P	X	R			
13	A	T	Z						A	X	E	G	A	T	U		
14	X	X	T						U	D			X	R	X	N	
15	U	R	U	N	I	R	U	D	I	Z	K	I				I	A

Gofi

Prontxio jaunak atz egiten dautso bere buruari: Oto burutik ondo ete dago?
-Oto, entzun egizu eta ondo entzun be eta neure esanari adi-adi egon: zergaitik galdeten dozu beti, zuriak ala baltzak, esanaz?
-Ardi zurial neuriak dirazelako.
-Eta, baltzak?
-Be bai.

Prontxio jaunaren asarria!
Eskuan ekarren bastoiagaz buruan emon ez eutsonean...!
Oto'k irripar gaiztua ezpañetan.

ARRINDA'tar Anes



EZKER-ESKOIRA: 1. Andas.-Ingenioso.-2. Octubre.-3. Padecer.-Solar.-Y, pues.-4. Teléfono.-5. Apalmos.-A ver si.-6. Correa.-Remotamente.-7. Con, por.-Pastor de vacas.-8. Tiene.-9. Tuétano.-Previsor.-10. Padre.-11. Telegrafía.-12. Caspa de la cabeza.-13. Mezcla.-Hermoso.-14. Mutuamente.-15. Jueves.-Linea, renglón.

GOITIK-BERA: 1. Cuerdo.-Caña.-2. Vamos a ver.-Allí.-3. Comer (medio día)-Riesgo.-4. En paz, sin deuda.-5. Avergonzado.-Detrás.-A ver si.-7. Tú, usted, vos.-Repudio.-8. Ahi.-Sufijo.-9. Cabeza.-Vete.-Repudio.-10. Telefona.-11. Destino (nombre propio)-Salado.-12. Trillar.-13. Garrapata.-Buh.-14. Sufijo de acción.-15. Lejos.-Entre el río.

OAR'bat: Gurutz-izki au, Sabin'en eredu idatzia da, esan daigun ba, í, 1, 1 ta abar.

OTO ETA POTOTO

Pototo'ri buruz zerbait.

Nor dala Pantaleon?

Pototo'ren aita.

Sasi-abogadu. Eskribitzen eta irakurtzen eskribau batek aña dakiena...

Baserriekin arrobiak ba ebazan.

Bi itzai eukozan arrobiaren serbitzurako, bi lau errueda-ko gurdiak eta lau idi galantak.

Aberatz-aberatzak une onetan ez dira; ondo bizitzen oituak, bai... Eta, obeto naiean beti.

Bartolok, berriz, Naparroako baba beltza urdai zati bategaz izan ezkerro, ez eban bere burua Ingalater 'a'ko Erregearekin kanbiatuko... Pantaleon beste era batekoa dogu: baba beltza guztatzen jakon, baña, Aginaga'ko angulak naiago.

Zazpi seme-alaba zituen Pantaleon'ek; danen artean zaarrena, Pototo.

Zaarrena eta arroena; Oto'ren kidekoa.

Oto eta Pototo, kidekoak zirenez, alkarrekin ibilli oi ziran beti: bai mendian sagar-lapurretan, bai ibai-ertzean loinatan, baita pagadietan txori-abietan be. Makiña bat aldiz alkarrekin burrukan egindakoak:

—Emoidak sagar muxugorri ori!

_ Neuk arrapatu dot.

— Emango ala?

—Ez!

—Tok, ba.

Esanarekin batera jartzen eban Pototo'k bere ukabilla Oto'ren buruan. Burruka asita egoan. Pototo'k janari obeak etxean; sei erralde geiago gorputzean, eta jakiña dago, aizkenerako artzekoak Oto. Txikia izan arren, makurgaitza zan. Alan, be, sagar-muxugorria Pototo'rentzat:

—Orretara ez dago eskubiderik!

—Arraskate!

—Au ez dok gizalegea!

— Arraskate!

Aundi zaleak ziran Pototo'renean; dana zan aundia etxe aretan: eurok aundiak, etxea aundia, soloak aundiak (iñoren eskuetan); jan-edanak aundiak; arrokeriak aundiak... eta, aizkenerako, zuloak be aundiak.

Iru baserri izan eta irurak jan.

Urte aretan erriko festarako bersolariak ekarri ebezen.

- Bai, onek tripazai ederrak...! Jan eta eran, besterik, zer?

Alan ari zan Pantaleon taberna-zuloan. Bigaramonean, bersolariak Erriko-etxetik kantari eta orra or plazan agertu gure Pantaleon, tantaia bezin tente. bi eskuak patrikeretan...

Ordurako bersolaria Pantaleon'ek esandakoa jakinda egoan, eta gure gizona plaza-ertza zapaltzerakin batera, asi zan kantuan goiko balkoietik, berari begira:

Jan-edatera gu gatoztela

Atzo esan zenduan zuk

Janarekin batera ondotxo

Egingo gendula zurrut:

Iru baserri janda ba'nego

Eingo neuke pelotan uts;

Barka zaidazu esandakoak

T'iñolaz be ez zaputz.

Ez zuen geiago entzuteko astirik artu gure Pantaleon'ek. Bertan jira eman eta an doia marmar bizi batean añaniñuka eta maldizioka... Ekaitza bera baño asarreago.

Ez zuten bera baretu beuren lagunek:

—Bersolarien esanei ez diok kasurik egin bear...

—Urte eta mozkor galantak! Txerri alenak... Alkatiak erru guztiak.

Zetarako olako jendea errira ekarri? Lotsagabeko jendea! Neu bezelako gizon prestu bateri, nolan esan lezaizkioke orrelako astakeriak?!

Aundizat eukan beure burua, eta miñ ematen barruko arrokerian bersolarien berbak. Arreskeroz gorroto zien bersolari eta erri xeeraen kultura-agerpen guztiei.

Oto optimista eta baikor utsa dogu, ez bait dau prakak lotzeko gerrikorik eramaten... Eramatekotan be, lokarri eta txikot zaarren bat... Gaitz-erdi botoiak eten barik badauz...

Pototo alderantziz, kalera irtengo ba'dau, prakak lotzeko gerriko eta tiranteak, biak batera, bear... Pesimista eta ezkor utsa. Beti segurutik joka bear...

Oto biotz oneko gizona da; sentzunik arinxamarra, begi garbiak izan arren. Lojika sinplekoa. Konplejorik gabea. Gizarajo koittadu bat, esaten ebenez...

Pototo, berriz, ikasia izan arren, barruko askatasunik gabe ebillen. Beti lotuta. Beti zer esango ebenari begira. Beti iñoren bizkarretik parre egiteko prest, eta, besteek bere bizkarretik egingo zuten bildurrez...

Orra or gure "istorio-mistorio" auen personajeen nortasuna agertu.

Orra or geure gizonok.

Emendik aurrerakoak eurori bizi-bidean gertatutakoak dozuz. Naasian daude; bañan, bizitzako gertakizunak be, naastuta gertatzen zaizkigu.

—Bañan, Anes, mesedez, gaurko egunean (1968) goimaillako kultura bear dogunean, oiek al dozak Euskalerria'ri eskeintzeko "istorio mistorioak"?

OTO INDARTSUA

Oto patxada ederrean eguneroko aldizkaria dago. Bai ba, gaur jaia da-ta, atsedena pozgarriago. Andre Joxepa, barriz, urduria berez, geldi egon ezin. Ba dau ganbaran kutxa aundi bat traste zaarrez gaiñezka: umetxoa zanezko andrakoak be bai. Axe ekarri nai dau, olloak lez azterka aztarrikan ekiteko bere barruan:

—Aizu, senartxo, ganbarako kutxa zaarra ekarriko dautzazu? Egizu, maite orrek.

Otok berbarik be ez. Erantzunik be ez. Donosti eta Bilboko kopa-partidua irakurten diardu: Sarabiak orduantxe gola sartu Arkonadari. Eta, zelako gola...!

—Senartxo, jatsixu kutxatxua...

—Itzi egiztazu bakean.

* * *

Aurrera biderik ez dagoela pentsaten dau Andre Joxepak; baiña, bat-batean argitxu bat biztu jako bere garunetan:

—Bai, jakiña, arro ibilten zara zu zeurelako indarrrik iñork ez daukalako... Perurenan beste ei zara... Zeu baiño makalago iñor bez auzo guztian... Itzak ederrak eta berba galantak, besterik ez. Kresalaren aparra baiño geiago, ez. Arrotasunez burua bete dozu...

—Arrua neu...!?

—Bai, arro utsa. Zeure indarrok joan zirian ikutara... Kutxatxo bat ganbaratik ona ekarteko be ez zara.

—Ez nazela? Berton ikusiko don.

Io dau ganbarara arin-aringa eta ba-dator, trenarena lako arnasegaz, traste zaarrez beteriko kutxa bizkarean dauala:

—Amen non diran neure indarrak, bizi-bizirik oraidiño eta gordiñik...!

* * *

Andre Joxepa sukaldean barrezka, gizonak panparroi-iñusente batzuek besterik ez diralako.

ARRINDA'TAR ANES

ZELAKOA ETE?

Gaur zeru zabalak illargiaren argira ba dirudi olaturik bako itxasoa. Eme-eme dabil aize zurien egoa ta ur izurretan dantzan izarren dizdira.

Ametsen egalean nagokio begira irakiten barruan arraulari gogo. Emen naiz arima ta soin itxas-minak joa noiz joan aal izango urdinen andira.

Bere bits izurretan gura neuke nik leku izarrekin bat areatza barrien billa ta illargia esku bete kantuz koroitu.

Zelakoa ete dozu bestaldeko ertza misterioz beteko itxaso biribilla? Bake leguneko ala erauntsiz zorrotza?

A. BIDAGUREN

EGUZKIA ETA IZARRAK

"Illunabarra...

Eguzkia asten da jetxitzen, jetxitzen...
dizdizera ederrak
zaizkala gutxitzen,
diamantezko printzak
zaizkanean galtzen,
urrezko bola baten
itxurak du artzen
eta geldi-geldikan
itxaspean sartzen..."

(Euskal abestia)

Malkoak dagizu
joan dalako eguzki...?
Malkoak begietan,
izarrik ezin ikusi.

(R. Tagore)

"Zergaitik, zergaitik, zergaitik, zergaitik,
zergaitik negar egin...
Zeruan izarrak dagoz
itxaso aldetik."

(Euskal abestia)

ARRINDA'TAR ANES

OTO KONBIRATUA

Oto Australia'tik etorri zan eta Pototo'rekin topo egin ebanean, onelan diñotso bere lagun maiteari:

—Aspaldiko! Zenbat urte alkar ikusi barik... Egun au ospatu egin bear dogu, Pototo.

—Pozik, mutil.

—Zer egingo, dogu?

—Egin dagigun aparitxo bat gaur berton. Ondo deritxok?

—Ederto, ederto.

—Eta, non?

—Neregaitik kezkarik ez izan: esan emazteari aparitako plater bat geiago ipintzeko maiean eta an izango nazela bederatzietarako puntu-puntu...

* * *

GABONETAKO ESKEINTZAK

Otok eskuetan pardel bat dakar, paper politez bildua.

—Zer dakarrek or, Oto?

—Gabonetan gaiagozak...

—Eta?

—Badakik, andrea gozo tratatu bear...

—Joxeparentzako erregaloo...?

—Bai, orixe.

—Eta, zer eskatu dua andre Joxepak?

—Bisontezko jantzia ala garbikiña bat. Aukeratzeko zer.

—Pardel orretan bisontezko jantzia dakarkiot emazteari.

—Orelako zeredozer.

—Zorionak, mutil. I az senar tajuzkoa, i...!

—Kontu egik, ez dagoela merkatuan imitaziozko garbikiñik.

* * *

GOIZIK

Larunbat arratsaldetan urtentean eban Otok etxetik; baiña, noizko etorri? Andre joxepak ezin eban bere senarrarekin burutu: beti asarre berandu etorri eta sekulan ez zalako oitik jagiten.

Goiz aretan Oto alai ebillen bere bizarra kentzen. Andrea gerturatu jakonean, onelan diñotzo Otok:

—Andratxo, gaur ez zara asarre egongo berandu jagi nazelako...

—Arpa jotera al zatoz?

—Arpa jotera? Ez, andratxo, ez.

—Zertara, ba?

—Ara nire erlojuak zer diñon: bederatzia puntu.

—Bederatzia puntu, eta zer?

—Goiz dala, emakume. Jai-eguna eta goizeko bederatzia!

—Bai, bederatzia bai; baiña, jaia atzo zan eta ez gaur. Gaur astelena dozu...

—Eneee...!

* * *

POLTZA ALA BIZIA

Buru azkarra baiña ohea dala diño biotza zintzoa eta borondate ona. Au ez jakon palta gure lagun Oto'ri; baiña, buru bizkorra, batzuk zalantzan ipinten dabe.

Bateren batek ba-eban Oto'reggenako uste ona; orregaitik emon eutsoen milloi bat pezeta larruzko kartera batean Donostia'ra ereateko.

Beren kartera ori eskuan ebal ba-joian gure laguna arro eta tantaia baizen lerdin; baiña, orra bidetxu batean, arma eskuan ebal, gizaseme bat agertu:*

—Poltza ala bizial!

—Poltza, mutil, bizia baiña lenago.

—Ekarri, ekarri...!

—Tori diruok; ordañetan mesede bat eskatuko dautzut.

—Zer da? esan arin.

—Dirua artu egizu eta poltza niri laga.

—Ori besterik ez ba'da...

—Beste gauzatxo bat: poltza oneri tirotxo batzuek bota egiozuz. Orrelan zuloak ikusita, jakingo dabe nire nagusiek arrapatu egin daustela dirua.

Otok eskatu eban lez, ekin eutsen tiroka larruzko karterari. Bost zulo egin eutsozan beste balarik ez ebalako pistola arek. Orduan Otok, patxara ederrean, atera kolkotik bere pistola eta onelan esan eutsen gaizkilleari:

—Gora esku orreik. Dirua bere tokira eta ator nerekin orain...

Gero esango dabe Oto gizajoak ez dauala argirik bere kaskarrean.

* * *

GOSEA KENTZEKO

Bodegoi zaarreko mai luze batean egoan Pototo, Oto beste lagunekin. Pototo, argia zanez, aldizkaria irakurten asi zan. Erderaz, jakiña; euskaldunik ez eban irakurtzen da. Egon be ez. Gerrateko berri baltzak ziran: Frantzia, Ingalaterra eta Alemaniaren arteko gerra zitala. Alemania ito bearrean dauke beste guztien artean. Pototo irakurten:

—Alemania pide la pas.

—Ez eukan gose makala-Otok erantzun-lapak eskatzeko. Igeldo'pean ba-dagoz makiñatxo bat. Etorriko ba'lira...

OTO KURSILLISTA

Pototo, kale-umeak, Oto baserritarrari:

—Ik ez dakik euskararik, ez dakik gramatkarik eta gaueskola bearrezkoa dok iretzat euskaraz ikasiko ba'dok, nik ikusi joat iri gaizki itz-egiten, euskaraz ondo egiten ez dokalako.

—Bai, bai, guk baserritarrok ez dakigu ezer. Ikusi zaitut esaten dogu guk, ez ikusi diat... Ez, ez dakigu ezer.

—Zuen euskarak ikullu eta korta-usaiña galanta. Ez gramatkarik eta ez ezer. Sekulan izan aiz euskarazko kursilloetan..?

—Ez, ez, ni ez, Oto suminduta eta apalduta.

—Sekulan izan aiz kursillista..?

—Ez, ez naiz kursillista izan; izatekotan ni kursitonto izango nindukek.

—Orra, ba, egundo kursillorik gabe ez daukak euskaraz ezer esateko eskubiderik. Agiria bear da eskuan, ondo jakiteko. Ik ez dok ezer.

—Nik etxean bakarrik ikasi dot euskeraz.

—Eta ire etxean zer jakiek ignorante analfabeto batzuek besterik ez diran orreik? Sekulan euskarazko kursillo batera joan ez diran eta mendiak larrak erretzen besterik ez dakien orreik..!

—Bai, larrak erretea ume-umeetatik ikasi izan dogun gauzea da; baiña, euskerazko kursilloak guk neguan suaren inguruan egiten ditugu sukaldean.

—Eta, zein dozue irakasle? Kortako astoa irakasle arrantzaka eten gabe; orixe izan da beti zuen irakaslea. Zientifikoki ikasi barko dozue euskara euskaraz ezer jakin nai ba'dozue.

* * *

Oto gizarajoa joan zan gaueskolako oietako "kursilo" batera. Irakasleak euskaldun barriak ziran eta kursilloak egindako paper-agiria ba eben beintzat. Bat eta bi be bai.

Andik urten eta etxera eldu zanean aitari esan eutson:

—Amari ikusi diot ferian...

—Zer ikusi esak amari? Anka-azurra ala zer..?

—Berari ikusi diot.

—Ori al da kale-umeek erakusten datzuen euskera..? Orretarako oba ez joatea.

—Bai, neri esan didate gure euskerak ikullu eta korta-usaiña eta atsa duela galanta eta analfabeto utsak besterik ez gerala.

—Gu analfabeto izango gara, baiña euskaldunak. Eta zuen irakasleak erdaldun-kumeak dira: erderaz egiñak, erdera buruan eta euskera ezpañetan. Ortik naaste orretatik, zer euskera aterako dala usten dozu..?

—Ez, ez, aita, gu gera iñuzuak. Oiek eskolatuak dira eta kursillo pilloa egiña daukate eta guk bat be ez...

—"Kursiloak" eskolea izango dok eta eskolea bearrezkoa da. Guretzako be bai. Guk amaren bularretik edozki genduan euskerea. Ikusi izan dodaz emen itxas-ertzean, baserrietan euskeraz ikasten; baiña, aien euskera eta gure erdera, antzekoak; biak bizkiak... Gure etxeko unibersidadeak millaka urte ditu euskera lantzen eta bertan sortu

zan, eta karabinero batek neri euskeraz erakusteko ondo aldatu bearko dau bere burua... Bitartean "euskara" ori euskeraren azala besterik ez dok izango. Bear ba'da, orrentxe billa ibilliko dira: erderaz egindako buruak geinak izanik, buru-toleste orreitan euskera jatorrik ez dalako sartzen, buruak euskaldundu bearrean, euskera erdaldundu eta danok pozik. Orretarako gure euskera jatorra estorbu bat besterik ez da.

* * *

Oto gizarajoa gelditu zan lenago baiña okerrago. Aurrapenak kalean izan oi dituk eta atzerapenak baserrian. Eta, euskera arloan, ez...?

"Zertan dan, zertan dan..." erantzun eutson sorgiñak aldamenetik.

OTO GERRATEAN

Zanga eta errenetan sartuta dagoz gerratean. Or dator Oto munizioz betetako kaja aundi batekin eta komandanteari garraxi egiten dautso:

—Komandante jauna, nun laga bear dot munizio-kaja au?

—Bajuago itz egin eidazu eta lagun bateri bezala; badakizu, aurreko orreik komandanteari botatzen dautsoe lenengo tiroa. Ika egidazu lagun bateri egiten dautsozun antzera.

—Aizak txerri alena, non arraio bota bear joat kaja madarikatu au?

OTO ETA MOISES

Andre Josepa, Oto'ren emaztea, kirioetako sendagille batengana joan jaku:

—Ara, Jauna, nire senarrak, Liburu Santuak irakurri eta gero, bera Moises dala pentsatzen dau.

—Ba! Ori ez da ezer; ez dau betirako izango eta laster pasauko jako.

—Laster?

—Bai.

—Eta bitartean zelan lortuko dot, baiñura doanean, baiñerako ura ez erdibitza..?

Gero sendagilleak, agiri bat idatzi ondoren, esaten dautso:

—Emaiozu emendik zortzi koillarakada egunero.

—Emendik?

—Bai, ortik.

—Eta, emen koillara nondik sartu bear dot?

—Emakumea, paper orretan ipinten dautzut zer erosi bear dozun eta andik emon.

—Baiña, alaz ere ez dakit lortuko dedan...

—Zergaitik ez?

—Zortzi koillarakada esan daustazu eta nik etxean ez dauzkadaz sei koillara baiña...

ARRINDA'TAR ANES

OTO ONDOEZ ETA AROTZ

Izen aundiko sendagille batengana joan da Oto eta arek azterketak egin ondoren, gure gizona larritu egin da.

—Jauna, berorrek izen aundia dau eta ordainketak neurri orretekokoak ba'dira, nik ez dot izango ordaintzeko dirurik, arlotetxua naz-eta...

—Arlotea zara?

—Naikoa, jauna. Eskalea ez naz; baiña, aberatsa be ez.

—Ez izan orregaitik ardurarik; al dozun eran ordainduko dozu.

—Orretan ba'da, ondo.

—Baditut beste gaixo geiago be lanakin ordaintzen daustenak.

—Ondo, ondo, oso ondo iruditzen jat.

—Begira, bat jostuna da eta neure gorputza jantzi, bear dodanean arengana joaten naz soñekoa egiteko...

—Alan ba'da, niretzako zoragarri.

—Eta, zuk zer lan egiten dozu?

—Ogetxuak eta il-kutxeak.

* * *

Beste bein, Ponponato egoan tabernan, Oto'ren aurrean, bere keixak kontatzen:

—Ezin dot lorik egin: ogean etxunten nazen bakoi-txeko, burutasun larriak etorten jataz burura.

—Zer burutasun?

—Oge-azpian gizonen bat edo piztiren bat egon leikela eta zearo larritzen naz.

—Lorik egin ezin orregaitik?

—Lorik ezin iñondik be...

—Nik emongo dautzut erremedioa-diñotso Oto'k.

—Sendagille sikiatra zara ala?

—Sendagille ez eta beste zer ori gitxiago oraindik.

—Zer zara, ba...?

—Arotza.

—Arotza izanik, zelan osatuko nozu?

—Zure ogeari anak ebagita.

* * *

Illentzako ogetxuak egiten aspertu da Oto eta lanbi-dea aldatu nai. Egunkari batean auxe irakurri dau:

“Erantzun aundiko lana eskeintzen dogu eta gizona

bear dogu berrogei urtekoa, bizitazunez betea eta erabagiak unetxu baten artzeko gai...”

Oto'k berrogei ta bat urte ditu, milla bizibideetan ibillia da, bizia, Australia'raiño joateko erabagia artutakoa eta abar.

—Ara ni emen. Zuen iragarkia irakurri dot eta neu naz zuek billatzen dozuen gizona, Australian be izana naz...

Bere buruaren goraltzak egiten ekin eban. Lilluratu ebazan entzuleak:

—Bai, zu zarala uste dogu bear dogun gizona. Asi lanean.

—Bai, orixe; baiña, aurretik itzi egidazue andra Joxepa neure emaztearekin konsultatzen...

Oto gizajoa aroztegira barriro, il-kutxak egitera.

Pototo'rengana joan jaku Oto; bidean eurite batek arrapatu dau eta zearo goitik-beera buztita eldu da Pototo'ren etxera. Idegi dautsoenean gizona alan ikusita onelan diñotso etxeoandreak:

—Baiña, gizona, zelan ez dozu, guardasol edo aterkirik artu urten baiño lenago?

—Aztu egin jat.

—Ez zara gero bidean gogoratu?

—Bai, gogoratu naz.

—Noz, baiña?

—Ementxe, zuen ate-ondoan, itxiten asi nazenean.

* * *

Tutean ekin dabe... Pototok:

—Ik, Oto, kartetan beti erabazten dok; baiña, zaldikinielarik ez dok bat be sekula igarri.

—Bai, ori be alan dok.

—Suerte ezberdiña...

—Bai, nik emen kartak nastetan jakiat; an, ostera, zaldirik ezin nastau.

* * *

Berbetan dagozala. Pototo'ren txakurrak meriendea jan dautso Ototxo'ri eta onek bere aitari:

—Aitatxo, txakur ori poliziakoa da?

—Bai, mutil, Alemania'tik ekarritakoa, oso berezia.

—Lapurretan egin daust.

—Eta, zer? Beste bat artu.

—Poliziakoa ba'da, zelan egiten dau lapurretan? Izena ondo ipiñita dauala uste dozu?

OTO'REN MELOIAK

Oraingo oitura barria, munduan zear, baita Euskalerrian be, naiko zaarra: langabezia arintzeko soro-zatitxo bat emon langabetueri.

Oto'ri be lur-zati bat emon eutsoen Erriberan eta Europa'ko merkataritzarako emoitz onak dirala-eta meloiak ereintzen ekin dau gure gizonak.

Lurra an, Jainkoak dakien baztar batean, emon eutsoen eta solo-erdian txabolatxo bat jaso eban bertan jan eta aldietan lo be egiteko.

* * *

Udazken oparoa gertatu zan eta meloiak ugari bezin ederrak eldu ziran. Oto naiko buru-soil dabil aspalditxo onetan; urteak be eta, jakina, urteekin batera joan oi dira buruko txima-uleak. Baiña, berak esaten dauana:

—Sekula ikusi dok asto buru-soillik?

Egun batez Sakana'ko Urlia jaunak onela eraso eutson:

—Eta, buru-soil ez dan txarririk..?

* * *

Oto jaun prestuari ori esan? Eta, gaiñera Etxarriko batek..? Lazkao'ko Estraposilbeneko txarridunak esan ba' eben, gaitz erdi, Gipuzkoa-aldean txarriak ez dauke ule-rik; baiña, Etxarriko mendietan txarri uledunak be ikusi oi dira...

Dana dala, Oto asarre jarri jakun:

—Ni lako gizona txarri batekin konparatu..!

—Zuk besteok astoakin konparatu gozak... Eta, kito! Eztabaidea bertan amaitu zan.

* * *

Meloiak batzeko garaia zalarik, joan da Oto Erriberara. Banan banako meloiak agertzen ziran soloan. Maitasunez jaso eta txabolan gorde ebazan kurioso-kurioso eta begirunez. Artan ari dala gauak arrapatu eban eta txabolan lo egitea erabaki. Etxun orduko, loak artu eban...

“Egunez ikusi eta gaeuz eroan” esaten dabe nik daki-ten bi errieri buruz: alan egiten ei dabe bertakoak. Areik bakarrik ez. Gau artan etorri zanak, meloiak ikusi ebazan egunez, eta sorgiñak erratzeetan urteten daben orduan, Oto'ren txabolan sartu lapurretan gaeuz.

Merke eroatekotan, merkeago ezin, ederrenak aukeratu. Artan ebillen gure lapurra illunpeetan, oneri eldu, ari ikutu, ederrenen billa. Ikutuz-ikutuz Oto'ren buru-soillarekin topo egin dau:

—Au dok ederrena! Esan eban berekiko.

Ori esanarekin batera meloia jasotzen asi danean, orduantxe ebillen Oto amesetan: eizera joan eta kokodrillo batek, ao zabalik, eldu eutson burutik, Afrikan.

Jo dau garraxia birikietako indar guztiaz.

Lapurra, meloia garraxika entzun ebanean, zerraldo jausi zan lurrera kordarik gabe. Otok krisaillua piztu ebanean, kokodriloaren orde, gizon bat topau eban bere ega-lean, konorterik gabe.

* * *

Otok ez zekien zer pentsa eta aurpegira ura bota, eutsoanean orduan esnatu zan lapurra zearo urduri. Larritasunean tabakoak bear izaten dabe zenbaitzuk eta arek be bai.

—Tabakorik ba'dozu? Esan eutson apalik eta bildurti eskale antzeko arek.

—Bai, ba'dot.

—Emango daustazu apurtxo bat?

—Bai, emango dautzu.

Bere boltxa tximurretik atera eban tabako apurtxu bat eta emon eutson.

—Paperik ba'dozu?

—Bai, badot. Txalekoaren boltxikotik atera eta emon eutson Zig-zag papeltxua.

—Surik ba'dozu?

—Sua?

—Bai, sua.

Otok asarre ekin eutson:

—Lenengo tabakoa, gero papela eta orain sua? Ezpanak nai dozuz, koino, erretzeko espanak..? Zer kristau-jenero zara ba?

Alan be emon eutsozan meloi bi, ez bait zan konturatu ze arraiotara etorri zan bere txabolarra. Izan be Otok burua gogorra, baiña biotza biguna.

ARRINDA'tar ANES

OTOTXO

Otok bere seme Ototxo akolito sartu dau elizan, akolitoak aparteko grazia daukelako eta bertan burua argitzen jakelako.

Auzoko zurgina il da eta Meza amaierakoan, aldarepean "Libera me" abesten dagozela, abadeari betaurrekoak jausi jakoz lurrera. Ototxok jaso ditu lurretik; baiña, apaizari emon baiño lenago, paltrikeratik musuzapia atera, oso zikiña egoan, eta berarekin betaurrekoak garbitu dauz.

Sakristira eldu diranean Ototxok: abadeari.

—Aizu, antiojuak garbitu dautzudaz.

—Bai. Eskerrak.

—Ez dakizu zergaitik?

—Ez.

—Lurrean mikobrioak artu ebezan eta orreik zure begietan sartu ezkeru, zer...?

—Eskerrak milla bidar, mutil.

* * *

Illerritik elizara datoztela mutikoak abadeari:

—Aizu, zenbait urte falta jatzuz ilteko?

—Zaarra al naiz, ba?

—Bai, oso zaarra. Eta zenbat urte falta jatzuz?

—Zer, ba?

—Nik zure entierroa joan nai nuke-ta...

—Ordurako aaztuko zara.

—Ez, ez, ez naiz aaztuko; promes egiten dautzut.

* * *

Ototxo egunero joan oi da aszensore edo goragaillu bateau amabigarren etxe-oñera-arte. Baiña, beste lagunik ez ba'dau, zazpigarrenean urtetan dau.

—Eta, zergaitik egiten dau ori?

—Txikia izanik, zazpigarren botoiraiño bakarrik eltzen dalako.

* * *

Ototxo kontu-kontari dabil. Onela diñotso bere lagunari:

—Itxas-ontzi bateau 15 mariñel dagoz, makinetan 10 lagun, kubiartan 8 eta gaiñera sukaldaria eta txo. Zenbat urte ditu kapitanak.

—15 eta 10 eta 8 dira 33 eta beste bi sukaldean, 35 urte.

—Ez.

—Zenbat ba?

—Berrogeita bost.

—Eta, zelan dakizu ori?

—Berak esan daustaleko.

* * *

Ariari eldu dautso eta aurrera:

—San Asensio'ko alkatearen amak Maria dau izena; aitak, barriz, Jose; bere osabak Prantxisko eta izekok Juanatxo, zelan dau izena alkateak, berak?

—Maria eta Jose ba'dira gurasoak, bera Jesus izango da...

—Ez.

—Zelan ba?

—Plorentiño.

—Eta, ori nondik asmatu dozu?

—Nik ez dot asmatu.

—Nondik dakizu, ba?

—Berak esan daustalako.

Oto aitaren argiz jantzita dabil munduan gure Ototxo.

ARRINDA'tar ANES





PERIKO FORTUNA'REN ASTA-PENAK

- Astoa naiz. Astarra. Ogeita amar urte bete berriak. Asto zaarra.
- Aizu, Periko, ogeita amar urte ez dira aldi luze...
- Zetarako dan. Astakeriak esan eta egiteko, naikoa. Zenbat astakeri esan eta egin ditezken aldi orretan, kontuan artzen al dezu. . ?
- Bai, bai. Ori ere ala da.
- Jaiio ezkeroz, lñaki bat izan det nere jaun da jabe: kopeta aundi, euskaltzale purrukatua. Ez du erderarik erabiliko ezetarako ere, oso beartuta ez bada. Ikullua daukat kale-barrenean eta aldamenean nere nagusiaren sagardotegia upel eta guzti. Ogeita amar urte jaiio nintzala, guda madarikatu bat amaitzean, eta orduko militar nagusiak dirau oraindik...Noiz arte? Galde egiten du lñaki kopeta-aundiak.
- Orixe galdetzen degu guztiok, Periko.
- Ba, oraindik, puska baterako zaudete. Orregaitik edo, alkartzen dira sagardotegian nere nagusia eta bere lagunak. Zeru eta lurrak aztertzen dituzte eta arakatzen. Euskeraren egoera maiz aitatzen dute eta aren auzi-mauziak ondo ezagutzen dūtut. Egoera larrian omen dago...Esaten duten guztia entzuten det ikullutik, tartean ol zaar batzuek besterik ez bait daude; zirrikietatik ikusi ere ikusten ditut. Zenbat alkarrizketa berritsu, zenbat eztabaida gartsu, zenbat asarre eta trumoi...
- Euskaltzaleek ez dute alkar artuko sekula sekulotan.
- Orrenbestez...!
- Bai, jauna, orresbestez. Bakoitzak bere astoari arre. Ori esan zuanak bazekien euskaldunen berri.
- Gaitz ori ez da euskaldunena bakarrik izango. . .
- Orixe bai nik ez dakidala. Emen agertzen diranak guztiak dira euskaldunak. Bestelako belarrimotxik ez da emendik sartzen. Danak dira ni bezelako belarri aundikoak. Ondotxo ezagutzen ditut. Goiak eta beiak jotzen dituzte; ezeri ez diote barkatzen. Ara esango dizut joan dan astelenean gertatutakoa. Pelis Txorta eritegitik zetorren, Donostian gaixo egonda gero eta bertako lagun batek esana agertu zigun. Istoriatza.

HOMO HOMINI LUPUS: GIZONA GIZONAREN ARERIO

Bi oge zuri burnizkoak. Leio zabal bat ezkerrean;bi gaueko-mai eta bi aulki. Nere aldameneko ogea utsik dago. Bost egun daramazkit ospitalean. Seigarren gaua. Gau-erdian gelako argiak piztu dituzte. Lausoz eta lo-alez betetako begiak iriki ditut. Baiña, zer da au..!? Bi moja, bi sendagille eta languntzaille bat sartu dira barrura eta eurokin batera gizona zerraldo baten etzanda dakarte. Etxetik zuzenean ekarri ere, lotarako pijama kentzeko astirik gebe...

Elektrokardiograma aiñako guztiak egin dizkiote oge barruan. "Infarto de miocardio" aditu dut euren arteko mintzairan.

Eguna argitzearekin batera, sendagille gazte bat agertu zaigu aurrean:

- Zure izena?
- Juan Termosil.
- Nungoa zera?
- Andaluziakoa..
- Nun bizi zera?
- Emen Donostian.
- Zer lan egiten dezu?.
- Nere kontura nabil gauza-karriotan.

Esan bear det aurretik, berarekin batera beste bi anai etorri zirala. Aundiak. Arpegi zabal eta bekoki illun. Golde-arrastoak aurpegian. Zimur gogorak. Asko eramandako giza-semeak. Zamarra lodikote eta motzak. Lepo-ingurua laruzkoa. Oge-aurrean daude zutik. Medikuak:

- Zenbat anai zerate?
- Iru.
- Aita bizirik al dezute?
- Ez .
- Zerk eramen zuen beste mundura?

Gaixoa gelditu da erantzunik gabe. Aurrez-aurre daukan anaiari begiratzen dio. Kiñu egiten dio buruakin, baietz:esateko, alegia, zerk eraman zuan:

-Goseak.

Oraingoan mutu gelditu dana sendagillea izan da. Geiago galdetzeko ausardirik ez

Goizeko zazpiretarako ekartzen digute izparringia gelara; baiña nere aldameneko oneri ezer ez irakurtzeko agindu zion medikuak eta itzik ere ez aotik ateratzeko...Gerora, ordea, gauzak argitu dira: biotzekorik ez du ezer.

Eritegietako ordu luzeak: danetarako dago asti eta denbora. Itz-jario asi ziztazidan: Andaluziako lurralde zabaletako bastartxo batean jaio zan, kortijo oietako batean.

- Bizia eta eriotza jauntxoan eskuetan genduzkan.
- Ainbeste!?
- Bai, ainbeste. Zerorrek ezagutuko dezu, nere etxearen berri emango dizudanean. Nere bi anaiak emen izan ziran.
- Gizon galantak.
- Ni naiz zaarrena eta aita nola il zitzaigun entzuna daukazu.
- Gogorra benetan.

-Bai, oso gogorra; baiña egi utsa. Aita gaixorik gendukan eta ni nintzan etxera ogia ekartzen zuan gizaki bakarra. Beizaia nintzan. Lurrean billatzen nituen paperetatik ikasi nuan irakurtzen; ez bait zan guretzat eskolarik. Anaiak gaztetxo eta aita gaixo. Emezortzi urte betetzean, pezeta bat geiago egunero irabazteko eskubidea ematen zidan legeak. Egun artan pozik zorutzen agertu

nintzan nagusiarengana: -Zer nai? -Ara, jauna, gaur bete ditut emezortzi urte eta gaurtik daukat eskubidea pezeta bat geiago irabazteko...

-Bai, e..? Orregaitik ez kezkarik izan: zure lan ori zuk baiño pezeta bat merkeago zeñiek egin, ez da emen faltako...

-Erantzun zitala.

-Egun artan galdu nuan gure etxeko ogibea. Egopetik estutzen dezun txoria bezela gebiltzan danok etxean, ito bearrean...Andik laister aita aldendu zitzaigun, goseak eraginda. Berrogei urte betetzeko bat falta.

-Egoera larria...

-Bitartean soldaduzka egiteko garaia eldu zitzaidan eta uraxe izan zan nere askatasunaren ordua. Ondo jantzi eta ondo jan. Gizendu nintzan eta gizondu. Baita begiak iriki ere: bazirala, alegia, gure kortijotik at makiña bat lurralde zabalik munduan.

-Soldaduzka eginda, kortijora etxeratu al ziñan?

-Zeroak emanda ere ez. Ez naiz ara geiago joan. Neure lurrak ogi eskasa eta mingotza eman dit jateko. Gizarteak oinpean eduki gaitu zapalduta. Ez diogu zorrik. Geran apurra geure indar utsez egin degu. Ezjakiñean eta nekepean erabili gaitue...Zer zor diogu gorrotoa ez bada..?

-Eta, nora abiatu ziñan?

-Iñora ere ez. Emen, gaur bizi naizen erri onetan egin nuan soldaduzka, asi nintzan lan billa eta ostatu batean eman zidaten nere lenengo ogibidea.

-Zer lan?

-Boteilla utzak ardoz bete. Sei urte amaigabekoak pasa nitun bodega illun batetik irten gabe, kaleko argirik ikusi gabe. Astegunez eta jaiez.

-Gero..?

-Diru apurtxo bat egin nuanean, berriro lan-eske. Arakin batekin gelditu nintzan morroi. Andik errekarero batengana jo nuan eta ofizioa gustatu. Arakin gelditu nintzan eta gerora neure kontura asi.

-Ondo, beraz?

-Lan-bide onen zirrikitu guztiak ezagutzen ditut eta nere anaiak ekarri ditut sozio.

-Guztientzako lanik, bai?

-Nai-aifña lan izanen degu. Aundikiro jokatu bear. Ezagutzen ditut Madrid eta Barzelonako merkatuak. Erroman eta Paris'en izana nauzu ango merkatu zentralen berri jakiten...

-Etorkizuna zuekin dezute, noski...

-Zalantzarik gabe. Elburua badakigu eta bideak ezagutzen ditugu. Gogoia eta indarririk ez zaigu falta.

Garraioari merkataritza erantsi zioten. Termosil Anaiak eta konsumo-elkar-tearentzat ekin zioten lanean. Burruka borriro. Latza eta kupirigabea:

-Ara, egun batez nere furgonetarekin nengoan kale-ertzean eta "kanpora emendik" esan zidan gure etsai baten langilleak. "Berebil au nerea da eta badet emen egoteko ekubidea ere" erantzun nion. "Begira izenari"... Baiña, aren erantzuna zer izan zan badakizu...?

-Zer?

-Kamio zaar aundi batekin nere furgoneta itzuli barruko langostino guztiak lur-gaiñera boteaz. Guztiak alperrik galdu ziran. Aste osoan irabazitakoak, une artan galdu...

-Erreklamazioa egiterik izan zendun?

-Lagun ezagunen gana jo genduan justiziaren eske; baiña, jauntxoak nor zan jakitearekin batera, alde egin ziguten. Bildurra zioten; baiña gu bildurtuko gaituen kristaurik ez da jaioraindik.

-Zer egin zenduten?

-Gau artan jauntxoak zitun kamioi guztien kurpillak ondatu. Lana eragotzi eta bien bitartean errespeta sartu.

Ekintzak ugaritu ala, lan aberatsen billa saiatu dira. Sare osoa zabaldu dute bere inguruan: akarioetatik bankuetara, merkatzaritatik "club"etara, alkoetik marijuanara, morfina emagalduetara... Olkiak ordainetan: eurari gizarteak egindakoa gizarteari-itzuliko die...

Beuren jabetasuna geroz eta aundiago. Iru Anaiak piñu-azieran antzera zeuden elkartuta. Irurak bat. Gogorrean aziak, gogor artzen zituzten mende-koak.

Pozoia zeukaten gorrotoarekin naastuta eta pozoia gaztediari sartzen saiatu ziran eta gaztedia, artalde baten antzera, arakiñen eskuetan erori arazi arte.

.....
Eritegiko egunak aaztuta zeuden. Gaztedia menpean, lur eta mendiak menperatzeko oraindik. Elikoteroz ekin zioten lurraldeari begira bat ematen. Zoragarriak zeuden mendiak eta ibarrak: gaillurreetan aitzak gorri, nabar-kolore; beerago baso oparoak orlegi-illun; azpian larraiñak orlegi-bizi. Errekak marmarrean garbi eta aize meea biriken pozgarri...

-Madarikatua! Or pozik bizi dituk...! Goazen ara:mendiak ordekatu, ordekek bete aizea kireztu, ura zikindu, bizitza gogortu; bitartean urre guztien jabe geu eginen gaituk.

Gauza bakar bat falta zitzaien: politika-agintaritzak. Aalmen lillugarri orren ondoren asi ziran. Demokrazia etorria zan ordurako eta agintaritzak erriaren eskuetara etorria. Auteskundeak egin ziranean euren mende zegoen zabal-kunde osoa, bai radioz eta bai telebistaz. Aldezkarietatik, zer esanik ez.

Indarrez lortu edo diruz erosi botoak...Azkenik:

-Lortu diagu nai genduen. Orain erria ordenan jarri. Ez iñork ankarik mogituko gure baimenik gabe.

Lagunek ugari sortu zitzaizkien gorroto eta gogortasunerako prest. Illerriko arri zabalak garbi oso, Termosil Anaien erria iduri: oso txukun, oso apal, oso menpeko. Biotzak eta buruak koipearen neurrira bigunduta, idien antzera mantso-mantso, gizatasunik gabe.

-Gizatasuna geuk daukagu eta ori naikoa. Pailasoak eta ogia, orra auek bear duten gauza bakarra. Ez dute besterik bear.

Taldea pake santuan eta ordena bereizian. Zoragarri. Illerri baten pakea. Arrak, atsa eta ustelkeria azpitik zebiltzen.

Zimaurtegiarik aundienean ere loreak sortu oi dira noiz-beinka. Egoera orren aurrean, "Danen Aurka" gizasemea jeiki da:

-Ardiak arategira bezela zoazte: illea mozten dizute, esnea jeisten, lukaikatarako aragia ebagitzen. . . Jeiki zaitezte! Ez al dezute zuen zoritxarrik ikusten? Konortea galdu al dezute?

Ardiek begiratu apala egin diote. Alperrik da. Entzungogor daude, ez aalmen eta ez gogo. Ez dute ezer. Drogari emanak daude. Menpean bearko. Gizartetik artutako iraiña gizarteari biurtu diote Termosil Anaiak. Eta, gañezka.

.....

Pelis Txorta ixildu zanean, maikide guztiak asi ziran batera:

-Baiña, ori zer da, gertakizuna ala asmakizuna?

-Nik ondo ez dakit zer dan. Nik ez nituen Termosil Anaiak ezagutu; baiña, eritegian entzun nuen istori ori. Erdizka beintzat egia dala badakit; asmakizuna noraiñokoa dan, orixe ez dakit... Bear bada, profetaren bat ere bada tartean.

Ekin zioten oraindik ere eztabaidan gaztain erreak amaitu arte. Berba-jardun aretan eutanasia atera zuen batek platerera. Eutanasiarik egiten ote zan eritegietan, alegia. Berandu zan artan asteko eta Anton Kaleri eskatu zioten gaia urrengo baterako prestatzeko. Bait ba, Anton Kale Arantzazun praille egona degu eta teolojia ere ikasi zuan. Zeiñek obeto? Sagardo-baso bana eran zuten eta alde egin, ni nere ikuilluko pakean utzirik. Bazan ordua. Ez didate nai aiña lorik egiten uzten eta biar nere jaun kopeta-aundi orrek naiko du ni lanean eduki errementa arte. Egunen batean nik emandako ostikara pareakin illargiraiño bialduko det. Gabon.

EUTANASIA ETA ERITEGIAK

Gaur larunbata. Taloak eta gaztaiñak erretzen ari dira sagardotegian. Biar lan gutxi: nere ondoko bei onentzako belar apur bat ekartzea. Ori gauza erreza da nere jaun lñaki ospinduta ez badator beintzat. Arrazoirik gabe makilka asiko balitz, lepezamarretik ainka egingo diot, ortzaka...

Anton Kale betaurreko eta guzti etorri zaigu. Gaztaiñak erretzen ari diran artean, paper zuri batetik asi da irakurtzen. Besteak ao zabalik daude bere inguruan. Onela asi da Anton Kale.

Eutanasia itzak zera esan nai du: nekeetan dagoen gaixoa iltzea, eriotza zuzenean dakarren zer-edo-zer egiñez. Orrelako eutanasiarik, zuzenen gaixoa erailtzen duena, ezin liteke iñolaz ere onartu. Orrelakorik onartzen bada, orduan gaixoak ez du uste onik izango bere sendagillenganako; ez bait du jakingo zertarako diran botika, arek emandakoak, sendatzeko ala iltzeko.

-Bai, bai, ala izango dek-zion Praiskuk.

Eutanasia ori gaixoak berak eskatuko balu ere, gogo orreri amor ematea, gaixoari bere burua iltzen laguntzea litzake. Ezin liteke orrelakorik onartu. Eutanasia (eriotz-ona)erailketa onean biurtzen degu, orrela jokatu ezkeroz.

Eutanasia beste era batera ere artu genezake; baiña, orduan ez da benetako eutanasia. Ortik sortzen dira naiko naaste. Esate baterako, gaixoari senda-bide oso gaitzak eta kostosoak ukatzea; edo-ta miñak kentzeko lo-belarrak ematea naiz-eta bide orretatik gaixoari bizia murriztu...Bide oiek erabiltzea ez da benetako eutanasia. Garbi erabili leizke barruko kezkarik gabe.

-Ori ere bizia kentzea da. Ez al dira bi eutanasiak berdiñak?(Anton Kalek).

-Ez dira berdiñak: lenengoan gauza bat ematen diogu zuzenean ilko duena; bigarrenean, berriz, osasun-biderik ez duen biziari alperrik luzatzen ez diogu uzten; bide kostosoak alperrikakoak diralako gaixo orrentzat eta familiarako ondamendia; ori alde batetik eta bestetik, berriz, lo-belarra emanda miñari aurpegi ematen laguntzen diogulako eriotza xamurragoa izan dezan. Irten-biderik ez duten gaixoeri buruz ari gera.

-”Dakixenak bakixela” esaten ditek Lekeition eta ala izango dek.

ERIO TZ ONA

Iltzeko era eta modu on baten eskubidea badu gizakiak, iltzeko era onik arkitu baliteke, beintzat. Gizon-emakumeen eriotza gizaki-maillakoa bear du izan eta eriotz-mota orreri esaten diogu Eriotz Ona. Erderaz Muerte Digna esan oi dana.

-Orain urte gutxi dirala, jenderik geien-zion Pelix Txortak-etxean iltzen zan; orain, berriz, iñor ez da etxea iltzen. Geienak ospitaletan.

Aurrera doa Anton Kale:

Egoera zearo aldatu da gaixoeri buruz: gaurko eritegieta n Jende-multsoa biltzen da artaldean antzera. Berdin sendagille eta beste laguntzaille guztiak. Danak talde aundia osatzen dute eritegi bakoitzean. Eta gaixo bakoitza egunero askoren eskuetatik pasako da; baiña iñortxok ez du izango gaixo orren norkiaren ajolik. Zaintzailleen erantzunkizuna taldean urtutzen da eta gaixoa gelditzen zenbaki edo numero bat besterik ez dala, nortasuna galduta eta zerki bat bezela. Zerki interesgarria ala arrunta; baiña, zerki uts bat bezela (caso clínico). Eritegi batean gaixoa ez da norki bat izango, persona bat izango, bere senide eta lagunentzako ez bada.

Eritegiak, osategiak, hospitalak teknika-bidea dute begien aurrean eta ikuspegi orretatik datorkie aurrerapena; goxotasunik, maitasunik eta gizakitasunik gabe, ordea. Gai onetan ez du iñork an ez erantzunkizunik, ez ardurarik ere.

Millaka gaixo ditun eritegiak fabrika baten antza du: teknika onarekin lana saillean eta errez egiten da; baiña, sendagille bakoitzat gaixo geiegi ikusiko ditu egunero eta gaixo bakoitzak sendagille eta erizai geiegi...Danen artean gaixoa utziko dute bere bakardadean bakarrik. Bere bildur, bere pena, bere buru-auste, bere larri-aldiekin...bakardadean bakarrik. Eta jendez inguraturik egon arren, eriotza etorriko zaio ixilka bere bakardade artan.

Hospital aundi batean azterketa bat egin zuten erizaiñen artean. Galdera auxe zan: -Nun nai zenduke il? Eta geienen erantzuna: -Neure etxean, neure senitartean, lagunez inguratutik; ez beintzat onelako eritegi batean.

Elkarteak du errua, beste bideak baztertuz, teknika-bideetan bakarrik dabil-lakoko. Sendagilleak, eurak ere, ez dakite zer egin il-zorian dagoenarekin lo-belarra ematea ez bada:konortea kendu eta burua galdu-erazi... Beste erre-mediorik ez dakite ez medikuek, ez beste erizaiñek ere.

Soka orretan sartzen dira, bear bada, ara joaten diran senitarteko eta lagunek, kapellauak berberak ere tarteko direla. Hospitalako giroak, moltsoka gai-xoak egoteak edo, ez du, nunbait, lan orretan asko laguntzen.

Pelikula italiar batean Sofia Loren agertzen da hospital aundi bateko moja eta berarekin batera erizain komunista bat. Burruka sortzen da bien artean, zeñiek il-zorian gaixoari obeto lagundu: mojatxoak bere otoitzeekin eta otoitza eragi-ñez; komunistak, berriz, eskutik elduz eta ondoan egonez bere kidekoekin . Bien bitartean aukera kentzen zion mojatxoari, komunisteiri laguntzen etortzeko.

Gaur egun sekula baiño bakarrago iltzen zaizkigu gure gaixoak. Larritu orduko eritegiara eramaten dizkitugu eta iñor etxean gelditzen bada, ez dakigu ordu larri oietan laguntzeko zer egin ere, lo-belarra ematea ez bada. Ez dakigu nola lagundu eta zer jokabide erabili.

Illetak ondu dira eta edertu; baiña, il-zorian daudenen laguntza murriztu egin-da. Lanik izaten zuten orain urte batzuek parroketako apaizek larri-aldian zeu-den gaixoari laguntzen; orain, berriz, gaixoak hospitalera eta bertan iltzen dira geienak bere etxetik eta bere girotik aparte, orixe geienen bear zuten orduan.

Baziran gure erri txikietan zerora antzeko emakumetxoak ere laguntzen doai berezia zutenak, aldi orretan bereiziki. Aiek ere galdu ziran... Bearrik ere ez, ez bait da iñor errian gelditzen iltzeko...

Gure gizarteak ez dio; iñundik ere, eriotzari aurrez-aurre begiratu nai. Alegi-ñak egiten ditu eriotza etxean gertatu ez dedin eta, al bada, gorpua hospitale-an eduki illeta-ordurarte. Orrela, "gau-illa" egin bearrik ez. Garai batean eliza barruan edo elizondoan zeuden illerriak, urrutira eramane ditugu eta gorpua ixil-lean eramane gizartea konturatu ez dedin. Ez dezala eriotzaren arrastorik begien aurrean ikusi ere.

Gizakia onurak ematako dago munduan jarria eta goi-maillako produktibita-teari euzteko. Orretarako gauza ez dana, erditik kendu, ez bait du ezertarako balio... Traste zaarrak ganbarara eramane dira eta ganbararik ezean, zaborre-tara bota eta erre.

Eutanasia (eriotz-ona, eriotz-egokia) asmo oietatik sortua dirudi. Baiña, orrela Jokatzuz "eriotz egokia"ren ordez "ilketa egokia" gerta litzake: esku gar-biekin gizakia erail eta geu lasai gelditu. . . Tranpa-kale. Hospitalak sendategi izan bearrean, erioztegi gertatzen dira:matadero egokiak eta sendagillea, berriz, korridetako puntilleroa.

Gizon-emakumeek gizaki-erara iltzeko eskubidea eskatzen dute eta esku-bide orrek eskatzen du, gaixoak bere egoeraren berri jakitea; naiz-eta egoera ori larria izan. Ezin lezaioke egi ori gaixoari ukatu. Eskubide ori berea du eta bere izateari dagokiona. Ezjakiñean gizakia iltzen uztea ez da jokabide zuzena.

Nork, noiz eta nola berri eman, ori beste arazo bat da. Neurriak artu bear gaixoaren gizatasunaren erara, apurka ala bete-betean esateko; baiña, dana dala, egia esan. Ez dezagula beste aldera bialdu ezeren berri jakin gabe.

Maitasunez eta kristau-fedez jokatu bear da.

Maitasunez eta otoitzez.

Otoitz egiten lagundu. Aldamenean egon, eskutik eldu eta laztandu, berarekin, berak alduen eran, otoitz egiñez... Ori bai dala ondo iltzen laguntzea. Kristauek, ordea, orrelako oiturak aztuta gabiltza. Gaixoaren aurrean zutik, ezer egin gabe, larri dagoanari begira... Laguntza eskasa da ori. Orretarako sukaldan egotea ohea litzake. Aldiko bat naikoa da, gaixoak besterik eskatzen ez badu.

Eriotz Ona bide orretatik etorri lezake. Eustanasia, berriz, Erailtza Ona gertatuko da.

.....

Oiek danak entzunda kezkatu ziran; urteetan aurrera asita bait zeuden.

Nere nagusiak ni, Periko Fortuna naizen au, txorixotako salduko nau egunen batean; baiña, bera ere, eta bere lagunak, egondezakete kontuz: euren seme-alabak izango dira saltzailleak. Zeiñek erosiko ditu? Giza-aragia lukaike-tarako, miñegia. Ez du ezertarako balio. Lurpean usteltzeko.

Zaarren eriotzatik berrien eriotzara pasa ziran etenik gabe.

-Bai-zion Iñaki nere jebeak-gure auzoko Jospinñisiren alaba gazteena Ingalaterrara joana degu

-Igelesez ikastera?

-Nungo munduan bizi aiz i, Anton Baxarri? Orretara ez, beintzat.

-Zertara, ba?

-Aurgaltzera.

-Orretarako araiño joan bear da? Edozein atsoak-dio Pelis Txortak-, sorgin oietako batek, egin lezaken lana dezu....

-Ixilpean egiteko bai eta orrek arrisku asko ditu; Ingalaterran, ordea, aurgaltzea legez onartuta dago.

-Nola onartu lezateke ori? Lege ori onartu ezkerro, eutanasia ondoren dator eta orduan, errukarriak gu...

Peru Kirten sartu da sagardotegian eta entzun ditu alkarizketak:

-Zergatik onartu ez? Erri aurreratuenak onartzen dik orrelako lege bat; gaiñera, olatuaren aurre-puntan diranak, oiek, Erriaren diruetatik ordaintzen ditek lan ori...

-Eta, erriaren dirutik, geure dirutik, ordaindu bear ditugu besteen okerrak...?

-Zergaitik ez? Ori emakumearen askatasunerako da.

-Bere askatasuna iñoren kaltetik, bere seme-alabeen eriotzetik... Aitzaki orrekin gizona gertatzen da benetako aske...

Iñakik, berea da sagardotegia, auzia erabaki du eta eztabaida ebaki:

-Emen daukat nik euskal aldizkari batean gai oneri buruz idatzi dutena. Arretaz entzun.

AURGALTZEA, AMNISTIA ETA ASKATASUNA

Kirofanoa

Illunabarra aurrera doa Eguzkiak bere urregorritzko printzak galtzen ari dan neurrian, gauak bere estalki beltza kokatzen du izaki osoaren gainean... Goi-zeko izarra agertu da ortzian, zearo gau illundu baiño lenago: "Ez negarrik egin eguzkiak alde egin duelako, malkoak ez dizute izarrik ikusten utziko-ta. "

Sendagillearen egon-gelan zai dauden iru neskato auek ez dute izarrerri begiratzeko astirik; gau beltzak artu bait die biotza. . . Sabelean daramaten aurra. galdu nai dute bera ezagutu aurretik, ezagututa gero damutu ez ditezten.

Arratsalde osoa daramate zai. Eurak etorri diranean, gela nezkatoz gainezka zegoen. "Cien mil mujeres siguen abortando en el extranjero" zion 1986garrengo abustuaren Ilan Donostiako egunkari batek.

Kirofanoan sendagillea eta bere lagunek izarditan daude eta ez bero dago-elako, lanaren poderioz baizik:

-Orratzak! Dio sendagilleak.

Eta orratza eskeintzen diote aurra zirikatzeke. Buruan barrena sartu dio, amaren sabelean gordeta dagoen aurrari, burnizko jostorratza. Aúrra protesta bizian diardu. Ez alperrik. Preso daukate, loturik, amaren sabel biguñean, ain eskutuki goixo eta segurua zan sabel orretan. Lotuta daukate; eskapatu ezin eta jaio baiño lenago, amaren erabakiz, il egin bear..

Gizon prestua izateko sortutako aurrak, ez du argirik ikusiko. Bere amak eraman du eriotzara. Sendagillearen eskutik. Gizartea sendatzeko prestatu dan gizonak erail du. Zenbat diru txautu eta gastatu ditun gizarteak gizon ori sendagintzarako prestatzeko..! Orretzek erail ditu ameen seme-alabatxoak.

Aur-galdua eta bere aur lagunak, oraindik epel eta dar-dar, zikinpotora bota dituzte. Ogei aldiz egindako erailketa egun onetan:

-Gaurko naikoa degu. Aspertu naiz.

Emakume laguntzaillea gerturatu zaio belarrira:

-Beste iru daude zai.

-Gaurkoz ez besterik ekarri. Nekez iguinduta gaude.

Aur-galduak eta aur-lagunak kosmetika-gaiak omen dira, emakumearen azala leguntzeko eta elikatzeko oso egokiak. Bear bada ama orrek kosmetikagantza erosten duanean, bere seme-alabarekin egindakoa gerta liteke: eurok lagunduko diote gorputz-azala lirain gordetzen... Zikin-pototik ontzi aundi bazuetara irauli dituzte eta aur-lagunak eten diranean, naaste borraraste artan aur-

galduak agertu dira eskutxuak gora dituztela, laguntza eske... Ez alperrik. Urreak arri biurtu dio gizakiari biotza. Askatasunaren izenean amak, irabaziarren izenean sendagilleak.

Ogei intziri larrik irten dute gaur goruntz gela onetatik, odol errugabe auen alde justizia eskatzen. . .

Manifestapena

Aurra galdu duten emakumeak kalera irtetean, manifestaldi batekin topo egin dute kalean: Amnistia orokorra, Presoak kalera, Eriotz-zorrik ez iñorentzat... Orra zenbat gauza eskatzen dituzten... Gizon-emakumeek, alkarri eskuak emanez, katea osatu dute. Preso guztiak kaleratu nai dituzte. Giltzapeturik ez. Askatasuna danentzat. Eriotza iñorentzat ere ez: eriotz-zorrik ez.

Bat-batean polizikoez agertu dira kale-ertze batetik. Ango ankaotsa. Manifestaldikoez kale-zarrera jo dute. Burruka sortu da. Arrika batzuek esku-utsik eta fusillekin besteak pelota eta ke-potoak botatzen... Une batean kale-zaarra guda-leku zirudien.

Presoak askatu ez eta libertatea kaleetan galdu. Askatasuna eskatzeko aia askatasunik ez da. Gizonak gizona menperatu. Aldunak alduan eran. Goi-koak bekoari. Estaduak erriari. Indartsuak ergelari. Norbera libre izateko besteak katepean ipiñi, besteak giltzapetu, besteak zanpatu...

Besteen askatasuna eskatzeko eskubidea badegu. Bai, orixe. Eraille kriminalari ere errespetoa bear zaiola uste degu. Bai, orixe. Eraille-kriminala ez dala iraildua izan bear uzten degu, eriotz-zigorren aurka gaudenok.

Bai, orixe

Baiña ama batek ere bere sabeleko aurrari indarkeria egiten dio aur-galtzean: eriotzaraiñoko indarkeria. Kriminal bateri eriotzarik eman bear ez bazaio, nola liteke aurrak beuren ameen sabeletan irailak izatea...! Eta, ama bateri eskubide ori ezagutzea...!? Eta ori gizarteak berak ordainduta..!?

Eraiketa

Manifestalditik etxera bildu geranean, orduantxe ari ziran irratia eta telebis-ta, biak batera, berri au ematen: atso xaarra erail zuen gaztea arrapatu dutela, alegia. Aitortu ere aitortu du, beste zazpi atso xaar illak ditula aurretik.

Bere jokabidea: Pasealekuetan lkusten zitun andratxoengana urbiltzen zan, bakarrik zeudetenean, oso ezagunak balitu bezela, Aurtzarotik ezagutzen zitun. Bere bakardade artan, andratxoa poztu egiten zan orrelako ezaupide batekin eta ar-emanetan asi. Gazteak konfiantza osoa lortzen zunean, etxera joaten zitzaion laguntzera eta denbora pasa. Eraman aundiz jokutzen zuan eta apurka-apurka ikasten zuan nun zeuzkan andratxoak bere dirutxuak gordeta. Aurrezki-kutxak baiña bi aldiz geiago emango zion berak korritu bezela. Eman ere bai. Diruak eta beste gaiñontzeko aberastasunak bereganatzen zituanean, andratxoa baiñura joaten zan batean, sartu eta lepozamarretik elduz, ur-azpian itoten zuan.

Andratxoa etxetik irteten ez zuela auzokoez konturatzerako, pasa oi ziran iru edo lau egun. Bitarte orretan gure gaztea andik urrutian beste amonaxko baterekin artu-emanetan asita zegoen...

-Eriotza zor zaio. Dio Fiskalak.

Baiña, eriotzaren aurkako manifestaldia kalean dabillen artean, ez zaio erreza izango fiskalari, gaztea eriotzara eramatea... Eriotza batengatik beste eriotza bat eskatzea, alperrikako gauza bait da; bizitzarako eskubidea izanik giza-kiaren eskubiderik oiñarrizkoena. Aurgalduari ukatzen zaiona.

Egoi aizea, zoro-aizea, sorgin-aizea. Orra iru izen; kostaldean, berriz, erreka-aizea. Egoi-aizeak eta illargi beteak alkar jotzen dutenean, orduan izaten da gure buru-garunetan alako ari-eten eta lotura-askatze berezia.... irudimenaren ganbara puztu, goiak arrotu eta zorabioa sortutzeko moduan.

Gaur il-bete eta egoi-aize.

Eriotz-zorraren aurkako manifestaldiak, amnistiaren aldekoakin topo egin du Barrenkalean. Jende-moltsoak kaleak bete dabiltza, erlauntzaren zurrumurrua sortuz gorutz datorrena eta teillatutik teillatura zabaltzen dana laiño. baten itxuran... Bi manifestaldi naikoak ez dirala, Emakume Askatuek sortu dute irugerrena Goikokaletik Barrenkalera oiuka:

-Emakumea, kateak eten, Aur-galtzea libro, Aur-galtzearen eskubidea, askatasunaren gaillurra...

Kriminalari eriotzik ez... Amaren sabeleko aurrari eriotza bai... Preso dagoen gaizkille guztiei, askatasuna... Orra zer konpota eder... Orra zer saski-naski trakets... Zer naaste-borraste ikaragarri... Gaizkillearen bizia gorde artarako eskubidea ematen diogulako eta une berean, aur errugabearen eriotza eskatu, amaren askatasuna dala aitzeki...

Gure gizarte au erotasunari emana dirudi.

Sortutako aurrak askoz geiago galtzen omen dira, jaio baiño. Aur-galdu auentzat betetzen da Joberen aieneka:

“Utikan nere sor-eguna
eta ‘sein arra sortu da’ ren gaua.
Egun ura itzali bedi,
goitik Jainkoak ez dezaiola begira
ez eta argiak bere izpirik eman aren gaiñfera...
Gau artaz illunbea jabetu bedi...
goi-izarrik ez bekio bere argirik eman.
Zergaitik ez nintzan umontzitik arat il,
amasabeletik sortzean bizia galdurik?
Zergaitik, aitaren belauinak nere zai zeuden
eta amaren ugatz biak ni azteko gerturik?
Orain nare nintzake, lotan atsedeten...”

Gentza eta pakea bere bizi osoan nabari izan zuenak esaten ditu itz negar-garri oiek kortako gorotzetan neke miñez etzanda dagoenean; lenago zorionez gaiñezka eta orain erio-samingarri baten zai... Bizitzan, orde, argia berriro piztu zitzaion eta madarikapen oiek ukatu. Eguna berriz ere, gau beltzaren ondoren, piztu zitzaion. Jainkoari barkapen eskatzen dio eta eskerrak ematen kantari.

Madarikapenak bedeinkapen biurtzen aukerarik ez zaie, Job'eri bezela, ematen milloika eta milloika aurreri: bein betirako iraillak, beste aukerarik gabe.

Bera mundure ekarri zuen emakumearen askatasunaren izenean..!
Kateak autsi semeari buruan mazoekin eman ez.
Libertade merkea!

Arazo oneri buruz, ona ipui zaar bat:

lñuxente egunean eun aurtxo gerturatzen omen ziran Herodes'en illobira; Belen'en illerazi zitun umetxoen animak. Alkarri eskuak emanda Herodes'en illobiaren inguruan dantzan ete kantari iltzaillea madarikatzen... Herodes, izuak artuta, iges doa eta aurrek bere ondoren garraixika. Zorabio artan lapur-zulo batean sartzen da; baiña, lapurrek bere zulo artatik makilka ateratzen dute, ez bait dute euren artean orrelako gizon ankerrik eta zitalik nai. Lapurrak dira eta lapurretan egiten dute; tarteka, besterik izeñean, odola ere ixuritzen dute. Aurrak erailtzea, ordea, beste arazo bat da eta eurok ez dute orrelako biotz beltzik... Andik irten eta eroturik korrika itsas-lapurren ontzira salto egiten du, aurrak ondoren ditula. Kapitanak ezpata-muturra ipintzen dio Herodes'ri gerrian eta kanpora ateratzen du asarre bizi. Begi bakarra izan arren eta erre-na, oietxek izaki bere eginkizunaren senalerik onenak, aurrak erailtzea ez da bere lana, naiz-eta tarteka barkuan ondoratu. Baiña, burruka leiak batean, begia eta anka galtzeko arriskuan... Aurrak erailtzea, ordea, arrisku gabeko lan negargarri bat besterik ez da:

-Kanpora nere barkutik biotz bageko gizakume ustel ori...!

Igeska doa berriro errian zear eta estutasun artan etxetxo baten atea iriki eta barrua sartu da babes billa. Une artan sorgin antzeko emakume zikin batek jostarratz luzea du bere eskuetan, ogean dagoen ama gazteak sabelean daraman aurtxoari, sartzeko. Ori ikustean Herodes'ek burua jasotzen du arro:

-Ni ez nintzan zuen ama. Ama orrek berak galtzen du bere aurra! Umetxoek, burua makur eta malkoak begietan, bakoitza bere illobira. Arrezkero pakean omen da Herodes.

Gogorak iruditu zitzairen lñakiren itzak eta bereala ziran ez eta bai. Ni bien bitartean lasai: guk ez ditugu geure aurrak galtzen berezko okerkeriren bat ez bada. Astoak gerla eta astakeriak egiten ditugula... Eskerrak gizon sortu ez nindutela; bestela gizonkeriak egingo nituzke. Oiek bai dirala benetako okerkeriak. Nagon asto.

Anton Baxarrik eman zion mintzairari asiera:

-Esandako itz oiek gogorak dituk benetan. Oiek orrela al dira?

-Zer iruditzen zaik? Dira ala ez dira? lñakik erantzun.

-Bai, ala ematen dik; baiña jendea ez zegok orrekin konforme...

-Konforme ez egon arren-zion Anton Kalek-izan ala dituk, naiz-eta askatasunaren ikurriñaren azpian zatorkeri asko gorde. . .

-Zer zatorkeri...? Anton Baxarrik.

- Norberekeria ugari: ni ondo izan ezkeru, besteak orkonpon. Anton Kalek.
- Geure burua maite, beste guztien kaltean bada ere. Iñakik.
- Jainko txiki orreri eskeintzen diogu baita geure semeen bizia ere... Ori bai dala benetako Molok.
- Anton Kale, eta nor da Molok ori? Anton Baxarrik.
- Israel inguruko errien jainko txiki bat.
- Eta, zer egiten zioten ba jainko orreri?
- Bere brontzeko irudia sutan goritu eta seme-alabatxoak berari bota bertan erre zitezen.
- Ori bai dala astakeria, ori!
- Eta, aurgaltzea astakeri txikigoa al da? Iñakik.

Nik, nere jabearen aotik, oiek entzutean ekin nion arrantzaka ikuilluan, protesta bizian: guk ez degu orrelako gizonkeririk egiten...! Nere nagusi kopeta aundia kortan sartu eta makilka asi zitzaidan, ni ixil arazteko. Ni, berriz, ari osti-koka. Artan amaitu zan bart arratseko billera. Asarre jeiki da nere aurka Iñaki, arazoa bukatzeke utzi zutelako. Gaur bilduko omen dita berriro.

- Bildu dira gaur berriro nik esan bezala. Atzo erabilitako ariari eldu diote, baiña giroa ostuta zegoen. Gaiari amaiera emateko onela zion Iñakik:
- Dana dala eta dena den, ibilli oker aietatik etorri zitzaion pakea Herodes'eri.
 - Pelix Txortak erantzun:
 - Pakean utziko zuten aurrek, baiña ez bere konzienziak...
 - Konzienzia-Anton Baxarrik-berdea zan eta astoak jan omen zuan. Ori entzutean ekin diot arrantzaka: gizakumeak okerra egiten duen bakoitzean, zergaitik ateratzen gaitue platerera...?
 - Iñakik orru egin zidan sagardotegitik:
 - Ago ixillik, Periko, sekulako pasadea artu nai ez badek! Ixildu bearko eta ixildu naiz, makilka ilko nau beztela. Baiña Pelix Txorta ixilduko duenik ez dago, esatekorik duenean. Eta gaur esateko dago. Gerratean entzundako gertakizuna dakar maira.

KONZIENTZI IL-EZIÑA

- Egun gorriak ziran egun aiek.
- Erri osoak kamiñoetan zear, nora ez zekitela, euren aberastasun apurrak bizkarrean zituztela. Geienak andrazko, ume eta agureak ziran. Gaztedia eta gizaseme gordiñak mendietatik zebiltzen, armak eskuetan...
- Anai-arteko burruka beltz iguingarria. Guda legorra. Odolez gorri, bekaitzez illun. Malko mingotzak begietan... Gose eta egarri. Bero eta otz. Aterperik eza. Kamiño bazterretan lo...
- Mendietan arerio zital errukigabea, jaun eta jabe.

-Cien a ochenta!

-Zeñen alde..?

-Gorrien alde.

-Bai.

Laterriaren kapitaleko Irratian Prieto jauna:

-Gu gera nagusi, gu garaille! Ona emen gure armak...

Ontzako-urreen tin-tina, irriaren bidez, erri guztietara, sukalde guztietara...
Urrea gorri bait zan... Urdiñek ez zuten deusik.

-Zuek ez zerate ezer, urre-gorria gurea bait da...!

Urre-gorritik kanpo bada besterik, ordea.

Egun artan urregorridunak aurretik igeska eta urdiñek ondoren aurrekoak arrapa naiean. "No pasarán" bide-ertzeetako ormeetan. Esan bearra dago, Espaiñiako urre-gorriak Madrid'en zeudela eta ez Euskadin. Emen ez diru, ez egazkin eta eskuetako armak ere oso urri.

"Detente bala, el Corazón de Jesús está conmigo" erasoka zetoztenen kaki koloreko soñokoetan. Naparrak geienak. Oietako batek iru arrasto ori gerreraren esku-muturrean: brigada-maillako adierazgarria:

-Etorri zera berriro, Petrikorena?

-Bai, gizona. Makiña bat egun larri pasa dugu.

-Nundik zatoz?

-Bizkaitik, Lemonako aitzeetatik.

-Ara año eldu zerazte?

-Neke eta odol-ixurtze ugari bitartean...

-Ainbeste..?

-Odolez ditut eskuak zikindu.

Begiak zitun larri, beuron zuloetatik irten bearrean. Barruko larriak eragiten zion mingaiñari. Itz-jario gendukan gau artan eta pattarretan barruko arra il nai. Taberna zuloan geuden berarekin iru lagun zaar. Barru-barruko korapilloa askatu nai. Karga aztuña estomago-zuloan. Gonbito-larria eta nora-ara bota bear zikin aiek. Geu gerta giñan zikin-zulo.

-Zazpi illebete dira guk emendik alde egin genduela...

-Zazpi illebete luze.

-Zuk ez dakizu ondo..! Negu osoa mendian aterperik gabe. Euria eta bisutza, elurra eta kaskabarra... Ezurretaraiño bustiak, otza ezur-muiñetan eta izotza animaren biotz-erdian: eozkor eta legor. Espirituaren toleste izkutueneen gure aingerua illik... Deabruaren menpean...

-Zer ari zera, gizon..?!

-Guda anker onek maitasuna antzutu digu biotzean ete pizti nazkagarrien antzeko egin gaitu.

-Ez dizut tutik entenditzen.

Gerratean ezagutu nuen Petrikorena. Ezaupidea bai, besterik ez; beartuta egin bait ninduen euren arteko eta euren mendeko. Arrituta nengoen ark neri esan bearrarekin. Begiak zeuzkan urrutian, beuren zulotik irtetzeko zorian;

ezpaiñetako ertzak txistu-aparrez, biboteko illeak dar-dar, ames-larrian erortzeko larri:

-Aizu, etxeoandrea, kopatxo bana pattar ondoezak emango dio bestela-ta.

-Utsune illun batean erori nai nuke eta an illunpeetan neure burua galdu...

-Zer ari zera? Zer dezu?

-Ezin dut burutik kendu.

-Zer da, baiña, burutik kendu nai dezun ori..?

Aurpegiko giarrak eten bearrean, zimurrak sakon eta luze gora-ta-bera bekoki eta matrail-ezur inguru guztian...

Tinko.

Leertzeko zorian.

-Zubi ondo batean giñan, gure buruak erreka malkarrean gorderik, oiñak udetan. Egun-sentiaren argia, sutautsaren kolorea galdurik, urdiñez jazten ari zan. Txoriak beuren eztarriak garbitzen, egunari agur egiteko. Izaki guztietan Udaberria nabari, geure biotzetan ezik. Begiak mendi arren gaillurrean genduzkan josita, aitzaren erpiñean... Goi aretan bazan ezer, guz ez jakin, ordea, zer.

-Zenbat ziñaten?

-Gizaseme asko. Millaka. Bat-batean kañoi-burrunda aidean. Mendi-inguru osoa sutan. Ke-mordoak, perrotzikoen antzera, sortzen ziran gaillur aretan kañoi-soiñu bakoitzeko...

-Musika ederra.

-Ondoren ogeita amar egazti aitzeetatik zear beuren bonbak botatzen.

Baillara osoa zarata-oiartzunez bete zan eta biotzeko korapilloa zarata aretxek lasaitzen zigun. Nola argizari itzal-berriak keia darion, ala millaka kandelaren keiak Lemonako aitzeetatik zerurantz. Izugarrizko zurrumuru aren ondoren, ixilla. Txoritxuak izu eta mutu. Egun-sentia epel eta ixo. Errekako ur gardenak marmarioka itsasoruntz. Beste otsik, ez inguru guzian...

-Eta, zuek?

-Gu mendi-tontorrera begira, bizirik ote zan iñor.

-Luze irauñ zuten bonbardeoak?

-Kañoi eta egazkiñek ordu pare bateko lana egin zuten. Turutak urratu zuan ixil-aldia. Jeiki nintzan lurretik eta mutllak ondoren nitula, ekion nion mendiko egaletik gora. Ez zan ikusten ezer ez-eta sentitzen ere... Ames batetik bezela, ametralladora batek esnatu nindun ta-ta-ta-ta-ta-ta-ta... Ondoren garraxia, aiena, madarikazioa...

-Eta...?

-Lurrari itsatsita gelditu giñan, alzuana al zuan tokian. Laparik ez da sekulan aitzari josi guk lurrari eldu giñun bezela... Oraindik ere bizi dituk madarikatu oiek... Burua jasotzen zuanari zuloa egiten zioten txapelean... Belar-izpi batek egiten zidan kili-kili sudur-zuloetan... Lurraren usaia bai usai gozoa eta sentikorra; ama lurraren babesak gordetzen nindun bere magalean. Lur-ikara batek azpia jango balidake...? Orduantxe susmatu nuen lur-erdi bitze baten ikaragarria. Lurraren segurantz galduta, an galtzen dira gizonaren ziurtasun guztiak. Lurraren ziurtasunak ematen dio gizonari bere segurantz.

-Luzaro egon ziñeten mogitzeke?

-Ordu luzeak lurren gaiñean etzanik.

-Noiz arte?

-Iñularrean turuta otsa berriro: erre kara berriz ere izkutu billa. Gau osoa ibaiaren babesean izarreiri begira. Amabiak inguru izango zan illargia mendi-gaiñetik agertu zitzaigunean. Il-gora. Izotza. Ez jan eta ez lo. Errekako ura erateko. Esku-oiñak izoztuta eta burua galdatan. Ames eta ernai, lo-kuluska batzuek egin nituen.

-Gaua luze?

-Bai eta eguna zabaltzeko bildur. Bildurrakin batera, zirt edo zart egiteko gogoia eta irrika. Goizaldean kañoiak eta egazkiñak atzo baiño areago: Lemonako aitzak inpernuko ate.

-Lagun berririk?

-Oste berriak etorri ziran, batallaoi geiago. Guztiok mendira, bata bestearen ondoren. Eldu gera maldan gora erdiraiño. Lurraren kontra arnasa apur bat artu eta, gora mutillak..! Eun metro egin baiño lenen gure elkarteko amaika lagun galduta daude: ogeita amarretik, amaika. Zeiñ elduko da goraiño?

-Ainbeste bonbardeo eta oraindik bizi ziran?

-Bai, bizi ziran; ez dakit nola. Goienengo gaillurrak zuloz beterik zeuden. Une artan eguerdi-eguerdia zan eta eguzkiak nolabait ere berotzen zuan apurtxo bat. Arri baten babespean gordetzen nuan neure burua. Eguzki epeletan tiroak alde guzitik... Zein ederra dan bizia; nik, ordea, egoera artan bizitzarako itxaropenik ez. Etorkizuna beltzez egertzen zitzaidan goiz artan; aurrean nuen orma beltz aundia igaro eziña zan. Eguzki argitxua azalean, illuna biotzaren erdian...

-Zer jokabide izan zenduten?

-Arriskuan gaude denok, pentsa nuan eta kañoiak ekin diote berriro goiko armaillara. Egarri naiz; ai beko ur gardena banu edateko... Sukarra odoletan eta txorabioa buruan. Jeiki naiz: goraiño mutillak, gaillurreraiño...! Jeiki eta etzan, zoro baten antzera, beti babes baten billa... Tiroa eskubitik eta tiroa ezkerretik, esku-bonbak arrika nun nai... Eldu gera goraiño eta gure etsaiak igesi dijoaz... Gurea da garaipena! Gora gu ta gutarrak! Aurrean zanga-zuloak; argaletik indarrak atera eta salto baten sartu naiz barrura pistola eskuan dedala. Ni ikustean:

-"Confesión!" deedar eritutako etsai batek.

-"Que te confiese tu padre!" esanez bost bala sartu nizkion buruan.

Arnasa barru-barrutik artu du nere lagun onek eta arpegiko tinkoa lasaitu zaio, burua makur... Etsaiari ukatu zion konfesioa, berorrek bear, gizarajo orrek. Badu bere bizitzarako naiko atsekabe eta konzintziko aztun...

Sagardotegikoak ixilik entzun zioten istoriaren amaiera. Une baten ondoren Anton Kalek artu zuan itza:

-Ori benetan gertatu zan?

-Lemonako aitzak urdiñek artu zuten egunean.

-Gogortxo dek.

-Eta gerra ura zer izan zan, gogorkeriz asetako guda zital bat besterik? Orduko okerkeriak amaierarik ez dute: sinisgabeko ateoak egiñak aundiak izan

badira, gurutzedunek egindakoak ez dira atzean gelditzen. Aien okerkeriak berrogei urteen zear milla modutara entzunda dauzkagu; baiña, urdiñek egindakoen berri tokian tokikoek bakarrik jakin izan dituzte...

-Bai, orduan ezaguera zutenek erailtze asko ikusi edo entzun izan dituzte gure artean, kamiokada gizaseme amiltegian bera botatzea bezelakoak...

-Gure errietako edozein kirtenek egin dezake orrelakoak eta egin dituzte; baiña, kapellau bateri entzunda daukat "Brigadas Internacionales" oietako soldadu polako bateri gudazale kristauak egiña...

-Zer zan, ba..?

-Erasaldi batean preso artu zuten eta sokaz barrabilletatik lotuta erabilli ondoren, ametralladora baten ankakin errematatu.

-Ezin liteke ori orrela izan.

-Nik ez det asmatu. Entzundakoa esaten det itzez-itzez. Eta arek ez zuan penaz esaten, kontakizun xelege baten antzera baizik. Ez ziran karpeto-betonikoak; guretarrak baizik.

Anton Kalek:

-Ikaragarriak izan gaituk, onbidetik bezela txarbidetik ere. Loiolako Iñigo eta Xabierko Prantzizkorekin batera agertzen zaigu Lope de Aguirre "El Traidor", Araoz'ko semea, Felipe Igarren aurka jeiki zana, eriotza zabalduz bere inguru guztian. Irurak, bakoitza bere bidetik, aundiak. Badira kaskarrak ere biotzgabeak. Ona mixiolari batzueri gertatua:

KATU BELTZ

Urte asko dira Euskalerra Ameriketara begira asi zanetik, ango erri atzera-terri Kristautasun bidean laguntzeko. Gazteizko Elizbarrutiak, irutan zatitu aurretik, mixiolariak bidaltzen asi zan. Naparroak ere bialdu izan ditu; baiña, bere kasa jokatu du beti gauza auetan bezela besteetan ere.

Mixiolari artean Euskalerritik Ameriketara eta andik onerako joan-etorriak ugaritu ziran. Ekuador'eko Los Rios probintzia aukeratu zuten asierarako. Geroago El Oro'ra zabaldu ziran. Andik Manabi'ra, Venezuela'ra, Brasil'era, Angola'ra, Ruanda'ra... Nora ez?

Ekuador Ego-ameriketan dago. Curaçao, itsas-ertzeko erri aundi eta naasia, zan Euskalerritik arako bidean tarteko. Bere moilletan enda eta arraza guztietako kristauak billa zizezkean: esnea bezin zuri eta kafea bezin beltz. Baita kafe-esne kolorekoak ere: mulato eta kriollo, enda guzien ondorenak.

Egun artan bi mixiolari, itsas-ontzitik irtenda, moilletan itz-jario:

-Zenbat euskaldunen oiñek zapaldu ote dute moilla auk..?

-Cristobal Colon'ekin asi, bere barkuko euskaldunekin, eta arrezkero eten-gabeko errekada luzea...

-Geu ere aien tartekoak gaituk.

-Izan ere euskaldunok ez gaituk jaio geldi egoteko.

-Lurraldean eman zigun Jainkoak eder. Millaka urteetan egon gaituk Auñamendi itsatsita bezela geldi; Geure jatorria mendiari lotutako baserrietan zeukagu... Zer arrano gertatzen zaiguk..?

- Biotza urduri eta eziñ-egona zaiñetan; lur zabalagoak bear, nunbait.
 - Bai, gizona. Millaka urteetan geldi egoteko kapaz gaituk. Bitartean, ordea, mundu borobillari buelta osoa emango dion euskaldunik, gogora zak Elkano getariarra, ez dek egundo faltako Euskalerrian...
 - Ilargian ere ataudarren bat ba omen da, diotenez...
 - Tipoloji gaiako ikerketa bat egiteko ez giñake gu elemento txarrak izango, etxetik kanpora gabiltzanotik asita...
 - Euskaldunok, beste erri askok bezela, badiagu guk ere berezko jatortasun bat odolak emana...
 - Izketan ari aizela Uzkudun zetorkidak burura eta bera bezelako indartsu asko. Karga jasotzen eta aizkoran iñor ez bezelakoak...
 - Boxeoan ere Europako txapeldunik ez dek gure artean falta.
 - Gorputz tinko lerdena eta bei batek aiña indar. Orrelako tipoak maiz jaiotzen dituk gure mendietan...
 - “Arta-buru” galantak ere bai; baiña, baita ere buru argikoak eta ez bat ere tontoa, bizkorra eta maltzurra...
 - Zenbat orrelako sortzen ditu gure lurak...
 - Gure baseritik lurralde zabal auetara ekarri eta eman bota libertade osoan...
- Eta, zer gertatzen ote da?
- Kirten galanta izateko aukera ederra.
 - Baita Bolibar baten antzeko, ere.

Izketan ari zirala, ikatza baiño beltzagoko emakume gazte bat aldamenean jarri zitzaien eurari begira-begira eta esaten zutena entzun naiean... Mintzo andreak:

- Zuek euskaldunak zerazte.
 - Nundik antz eman diguzu..?
 - Tankeran eta izkeran. (Andrea erderaz ari zan).
 - Euskeraz al dakizu?
 - Ez, ez dakit askotan entzun arren. Zuek beste jaun batekin erderaz ari izan zerate; bakarrik geldi zeratenean, ordea, beste mintzo bateri eldu diozute...
 - Eta?
 - Euskeraren antza artu diot. Gaiñera zuek nere gizonaren antzekoak zerazte...
 - Bai?
 - Bai, jauna. Arren tankera eta itxura dezute biok.
 - Euskalduna al dezu ba gizona..?
 - Bai, euskalduna nuen.
 - Ilda daukazu?
 - Ez .
 - Gizona euskalduna “zendula” esan diguzu...
 - Euskalduna nuen, bai. Gaur nere aldamenetik joana det eta ez dakit nora.
- Alde egin zidala, orixe bai, badakit.
- Besterik gabe utzi al zaitu?
 - Bai .
 - Ori jokabide eskasa da...

-Neretzako ona zan.
 -Ez du orrelakorik ematen...
 -Nik asko maite nuen. Nere semetxo au berea da.
 Ori esatearekin batera, bere semetxoa erakusten die: bel-beltza; kirkirra baiño beltzago.
 -Berea da...?
 -Bai, berea da .
 -Bere aurrekoen antzik ez du.
 -Nere aurrekoena bai, ordea. Eta semea biona degu.
 -Zer izen du?
 -Izen euskalduna.
 -Euskalduna, e...!
 -Aitak zionez, bai.
 -Eta, zer izen?
 -Katu-beltz .

Guk, astuok, astakeriak egiten ditugula esango du gizonak; baiña, orrelako gizonkeririk ez degu guk sekula egingo: katua-izena ipiñi bere semetxo bateri, alazankoa...! Bere ondorengo bat katu-maillara jetxi...! ? Noizko dute gizatasuna eta arrotasuna...? Utikan gizona! Lotuta naukatelako; bestela alde egin nuan... Bai orixe. . .Gizona al da izaki guztien errege...!? Nagon asto.

(Periko, Fortuna)

ARRINDA TAR ANES
 1969 EKAINILLA

Belarriak adi ta arkatza arin

Zezen-enzierrorako zai geuden eta gau pasa eginda gazte-taldeak zebiltzen eta gazte baten aitak guri:
 - Auen oiuaak artu bear duten zapaldua!

(Anes Deba'ko)

Lazkao'ko esaera zaar bat:
 "Kastatik kondea eta zepatik matsa".
 Beste bat, erderaz edo:
 "El genio del kristau-género, del zain viene".

(Anes Lazkao'ko)

PIGMEO ERRIA

150.000 milla inguru dira eta gizarte mailletan aizkenngoan daude. Oiek bezin arloterik ez da besterik ludi osoan. RCA'n bizi dira: Afrika-Erdiko-Errepublikan.

Afrika'ko lenengo biztanleak izan arren, gaur aizkenak dira eta ez du inork euren alde abotsik eta zaratarik ateratzen. Auen aldeko ekolojistik ez dago txirotasunean txiroenak bait dira: baita inoren laguntzarik ez izatean ere.

Erreusak dira: beti beuren begiak lurrera begira... Museo batentzako antropologiko ikusgarri bat, besterik ez; lenago Afrika'ko nagusiak ziranak. Gaur euren inguruko erriantzat ez dira gizonkiak, animalien antzekoak baizik. Laister galduko dira erri bereizi bat bezala.

Basora joan giñan euren billa eta bereala konturatu, basoak sailletan eremu biurtuta zeudela. Zura eta egurren billa joandako Konpañiek soilduta utzi zituzten sail oiek... Gero eta baso gutxiago Pigmeorentzat. Amazonia berria emen dago: baiña, txikia arekin konparatzeko eta onen gomutarik ez du inork. Galbidean jarrita daude basoak eta Pigmeoak, basotik kanpora eriotzara goaz-eta.

Basoan diran bezelakoak agertzen zaizkigu: apalak, alaiak eta ongi-etorria ematekoak. Illebate batzuek tokian tokiko; gero, penarik gabe, etxea utzi eta badoaz beste toki batean etxea berriro jasotzera. Euren andrak ordu pare bat naikoa dute etxe berria eraitzeko. Eiztariak dira eta ibiltariak; toki berean luzaro egon eziñekoak.

Talde txikia, 5'tik 30'rako personeren taldeak. Dagonen jaten dute eta ez dagonean, billa joan. Daukenez ematen dute. Senarrak emazte bakarra eta alderantziz ere, emazteak senar bakarra. Aske eta iare bizi dira, oianetako legeetan, programaziorik gabe. Begira-kun jatorra, gizaki askeari dagokiona, aurpegian...

Baiña, basotik alde 'egindakoak badituzue beste gizakien serbitzari. Auek, gizatasuna galduta, egoera penagarrian daude. Ez dute diruaren baliorik eta edozerekin ordaintzen diete beuren lanak. Askotan zigarro eta alkoholak. Doakabeak benetan, bigirakuna tristea eta galdua begietan. Beuren etxean baztertuta, gizatasunik gabe: begi-ninietan enda baten eriotza nabari.

Dantza danean, guztiak dantzaten dira, pigmeoak ezik. Inork ez du eurokin ez jan eta ez erango. Eta, azkenik, badira andra pigmeo bat artzen dutenak euren irugarren edo laugarren emaztetzat.

Euroen ardura dutenak ez dakite zer egin; baiña, askoren iritzia auxe da: basoan egoki bizi ba'dira, zertarako eta zergaitik basotik atera? Basoak bear dituzte euren egoitzarako eta baso oiek zaintzea izanen litzake Pigmeoentzako laguntzarik onena.

Legenarra (lepra) eta birikietako gaitza dira ugarrienak euren artean. Sendatzeko bide gutxi.

Beuroek bizi diran Afrika-Erdiko-Errepublikan gure munduko aurrerapenak eldu dira "video-club" eta guzti. Pigmeoek arri-eta-zur daude, begiak zabalik, eta ez dute ulertzen zergaitik eurok ezin parte artu ditekunik orrelako dantza eta festetan... Ezta ere zer gertatuko zaien basoa galdutakoan... Amazonia'ra millaka kilometro asko tartean. An indioek daude egoera larrian eta askok jaso dute beuren garraxia "Salba dezagun Amazonia!" Pigmeo gixajo auek ez dute alakoen berri eta begiak lurrera dituztela, salbatzalleren baten zai daude.

"Mundo Negro"tik: XII-1989.

ANES ARRINDA



PILATO-ALARGUNAREN EZKONTZA

Andra Josepak Oto'ri:

—Jesus, Jesus, emen entzun bear diranak...!

—Zer da ori?

—Jesus Madalena'kin ezkondu zala ez daust ba aldameneko Jerontxiak esan...!

—Ori Beizama'ko sakristauaren kontua lez izango da.

—Zer kontu?

—Ara, andratxo, Beizama'ko sakristaua musulari oso ona zan; baita bertsolaria be. Irudimen aundiko gizona.

—Eta, zer gertatu jakon Beizama'ko sakristauari?

—Bazkalondoan, musean egin ondoren, Bezpera eta Errosario santura joan bearra izan eban igandero lez.

—Antolamentu ederra, musetik Errosariora...

—Dana dala, bezpera ondoren asi zan erretorea Errosario santuarekin eta bigarren misterioan, sartu da elizan, estu ta larri, Errotatxiki-azpiko mutil nagusia: Jaina, nere aita oso txarto dago eta joateko bereala, esan eutson ate-ondotik garrasi batean...

—A zer formalidade eskasa, orrela elizan garrasika asteko!

—Jatsi zan abadea pulputotik eta sakristauari agindu eutson bera etorri arte segitzeko errosarioari. Zaldia kortatik atera eta tximistak artuta lez abiatu zan erretorea gaisoarengana. Gauzak uste baiño larriago izan eta erretore jauna luzatu egin zan...

—Eta, bitarte orretan sakristauak musari eldu eutson ala bersotan asi...?

—Amabost misterioak amaitu ebazan eta, bersolari ona izanik, irudimenik falta ez, bere aretan misterioak asmatzen jarraitu eban.

—Asmako zituan asmatzekoak...!

—Erretorea elizan sartu zanean orduantxe asi eban ogeita amairugarren misterioa Pilato'ren alarguna Nikodemus'ekin ezkondu zaneakoa...

—Ez zeukan irudimen gitxi...!

—Zure lagun Jerontxiak aña ez...

ERDERAZ IKASTEN

Oto eta Pototo famili *onekoak* ziran Euskerari buruz. Diruari buruz, barriz, Pototo zan aundiki izandakoa; Oto, ordea, arlotea jaiotzatik eta famili eskasekoa, ez jan eta ez lan; bizi al zan moduan...

Euskaldunak biak.

Jatorri jatorrikoak.

Euskalerrria sei eskualdetan banatzen danez, esi laburra dau munduan eta or zear ibilteko beste izkera bat bear ebela, erabazi eta Gaztelerea ikasiko eben.

Opor-aldiak ziran eta egoaldera jo eben.

Despeñaperro'tik beera abiatu ziranean, orduantxe gogoratu ziran, Kanpaindi'ko Praisku lazkaotarra ortik ibilli zala soldadu. Arek bai erdera ikasi ebala, arek... Bere etxe Kanpaindi'ra idatzi eban gurasoeiri adierazteko zer gauza arrigarriak ikusi ebazan egoaldeko erri nagusi areitako batean. Onelan iñoan:

"He visto kales luzez-luzez Urbaundi-mendi bezelakoxes; txerris beltzaz-beltzaz y txerrizaiñes con sombrero".

Orra zertzuk arritu eben Lazkao'ko baserritarra.

Orreik gogoratzen egozala, ara non alkomokedi batean txarri baltza eta txarri-zaiñak kapelakin. Oneik dozak Kanpaindi'ko Praiskuk ikusiak. Arek ainbeste erdera ikasi ba eban lurralde onetan, geuk be aprobetxau egin bearko dogu. Pentsatu eta egin: doscaballosa gelditu eta euregana abiatu ziran buruko kezkek arintzearren, ez ekielako zer aide egoan *estrujar* eta *escurrir* aditzen artean.

Kapeladun txerrizaiñak muki-zapi bat artu, uretan buzti eta eskuetan estutu ondoren:

—Esto es estrujar.

Ondoren bere esku zabalakin bere burua joaz:

—Y escurrir se escurre con esto.

ARRINDA'TAR ANES

URTE BARRIA - ARPIDETZA-SARI BARRIA

1988 URTERAKO ARPIDETZA-SARIA

1.000 PEZETA IZANGO DA.

GURE IRAKURLEAK GOGO ONEZ ARTUKO

DABELA USTE DOGU GORAKADA AU ETA

BIOTZEZ ESKERTZEN DAUTSEGU

EUSKERA ZALEAK

NAPARROAREN AUZIA

Naparroaren Auzia gaurko egunez edo, gaurko egoeran, oso zailla ikusten dot nik beñipen, ba, nire ustez, gureganatu bearrean, uxatzen gabiltzazala dirudi, ez dogu zuzendu bear dan lez edo, ez dogu jakin, bere garaian napartarrei, bear dan lez adierazten *euzko abertzaletasuna edo euzko napartasuna*.

Euzko napartasunaren gaia, zoritxarrez, oraingoz, galduta daukagu ta, orain arte egin dogun lan guztia, nire ustez, alperreko lana izan dala, ba, Ondarroa'ko esaera dan lez, matsak batuta dagoz alderdiarentzat, esan daigun, napar euzkaldun usaiñekoak, *alderdikide* gitxi dagozala; oster, ezker alderdiko "*euzka!*" edo euzko giroaz agertzen diran alderdiak, HB-EMK-EE ta, abarrak, bere notintzak daukez beñik beñi.

* * *

Oneik, geienok legez, Euzko Alderdi'koak izan bear ziran, ez ba'litz egon ezker "*progre*" girorik, baña zoritxarrez, ezkerak, Franco'ren goraberan, indartuta, jo ta ke ibilli ziran lenengotik, euren alde eta olan, eurenganatu dabez gazte askoren eritxiak.

Jauntxokeritasunaren azkenak, komunistak, oso ondo dakie eurenganako asmoak oñarritzen. Ez dira gu, askatasun-zaleok lez baketasunekoak.

Portugal'en, klabelin gorria ta eskeintza goxoakin, estu ta larritasun baten egon zan garai baten ango askatasunean, ez eben lortu edo ez eben euki Fidel Castro'k eta Daniel Ortega'k euki eben aukerarik.

Europa ontan ez da aĩn errez, Kuba, Nikaragua, eta, bear bada, Txile, Paraguai ta gitxien uste dogun Amerika'ko aberriren baten lez komunismoa jabetzea.

Ezkerak, ondo baño obeto dakigun lez, "*socialismo*"a eskatzen dabe baña, ez dabe argitaratzen ze motatako "*socialismo*"a, gero, euren azpi-jan guzurtsuagaz edo zentzungabekeriagaz, bateko "*independentzia*", askatasuna, zapalkuntza, lankidetasuna, txirotasuna ta ain negargarritzko illeta tamalgarriak, tinkotasun bako garundunak, ezkertera, errez-errez jotzen dabez, kontun jausi barik, ezkerak agintarritza edo ezkerak zapaltzen daben lekuan, bedarrik bere ez dala azten.

Ezkerarren aletin guztia, erri armatua ta erri burruka izaten dan lez, notintzak eta ongiroak ez dauke garrantzirik.

Eskerrak jaunari, emen Bizkaia'n sabindartasuna, naike oñarrituta dagon lez, ezkerak ez dau artu bear dan añaiko indarrik.

Naparruko auzia ba, ez dogu jakin aukeratzen bear dan lez, gure burukideak, bildur egon ziran batez be lenengo auteskudetan. Uste eben, naparrun, ez egoala zereginik

edo...!! dana dala, P.N.V. alkatu zan EE-ESEI- ta PT'kin, ezkerak amorrotuak.

Euzko Alderdi Jeltzale'ak, Franco'ren aurka, gogor be gogor jokatu eban, Erriak, Alderdia ez eban ezagutzen JEL edo Euzko Alderdi Jeltzale lez, baizik PNV lez ezaguna zan, dana zan ba J. A. Agirre ta bere Euzko Jaurlaritzan bitarteko PNV.

Euzko Alderdi edo JEL'kideok, ezker alderditik, ez daukagu zer egiñik, alde ortatik ez daukagu autarkirik eta orregaitik, zer dala ta aurrez-aurre ez gara jarkintzen?

Gure autarkiak, eliztarren bitarteko autarkiak daukaguz, ortan ez dago zalantzarik, argi esanda, gure indarra, eskumako aldetik daukagu eta ezkerari ez jarkiaz bear dan lez, gure kalteko nortasun ganakoa da.

Auxe berberau ikusten dot nik napartarren artean. Lurralde ortan, ezker musturreraño sartuta dago, leku guztietan, batez bere ikastoletan, sasi andereñoz beteta, alderdiari batere ongarririk egiten ez dautsana.

Naparroan, aurrez-aurre, eliztar autarkiaren billa joan bear dogu, jaungoikuaren izena aolkatuaz, ezkerakin artu-emonik euki barik, ortik ez daukagulako gauza onik.

Alegindu gaitzen ba sabindartasuna batez be Napar lurraldean, oñarritzen.

GORRI

SALTAMATXINGOAK

Pototo alkate egin eben ezker, turista amorratua biurtu jaku. Ikusita ikasten da. Bere ibilleratan jo dau Australiaraiño. Oto aspalditik joana zan ara azukre-kañaberak ebagitera, orrek diru asko ematen eban-eta.

Alkar jo dabe lagun zaarrak. Pototo beti izan da aundinaikoa:

—Aizak, Oto, animal orreik zer dozak?

—Orreik? Beiak, gizona, nongo mundutik ator.

—Orain gure errikoak oneik lako bi dozak.

—Zer egin dozue, ba, nik andik alde egin ezker?

—Ormonak eta janari osotuak eta deminiokeri guztiak erabiltzen jabezak ganadua janaritzeko. Eta, orreik, zer dozak?

—Zoratu egin az ala? Orreik, ardiak.

—Gure errikoak oneik lakoak bi dozak orain. Iru aldiz be bai, aundiagoak. Inguru artan kanguroak ebiltzen saltoka larraiñetan.

—Eta, pizti arrigarri oneik, zer dozak?


—Oneik...? Oneik zer diran...? Baita, baita... Zera dozak, erri onetako saltamatxingoak. Tok!

ANES



SAN ROKE DANTZA EZPATADANTZA


1972'ko Abustuaren 16'an (1950'garren urtetik bezela; ni Deba'ra etorri nintzan urtea), 9,30'ko Meza ondoren, prozesioa eliz-parrokitik irten zan. Plaza-zaarreko iturriari jira egin, eta Iturkaletik Santa Kruz ermitara, San Rokeren irudia eta estandartea gurekin genduela.



Erriko dantzari taldeak egin zituen bere saioak eliz-atarian eta Santa Kruz ermita-aurrean. Andik gora igo genduan bakoitzak aal zuen eran. Eta San Roke ermitaren aurrean, berriro, dantza aldi bat. Meza ondoren, beste bat. Salda eta lukaika muturra artu eta guztiok errira. Prozesioa elizara eta gendea zezen-plazara...

1972'etik aurrera aldaketa egin zan: San Roke-kaleko Zubeltzuko irudiaren aurrean, dantza aldi bat eta beste bat Portu-kaleko santuaren aurrean. Baña, arrezkero San Roke ermitan Meza Aurreko dantza-aldia galdu da. Zortzi dantzari eta kapitan bat aurretik. Kapitank bi makil (sable-eskuleku itxura dutenak) eta beste guztiak bana. Makillak galartsu gorri zuriekin bilduta agertzen dira.

Luis Idiakez Garate (Txerturi) jaunak 1972'an zioenez (orduan 60 zituen eta gaztarroan dantzaria izana): "gure garaian dantza askatasun aundian egiten zan eta zenbat eta saltu geiago desberdiñak egin eta obeto".



Josefa Etxeberria 82 urteko debarrak (1972) esan zigun bere anai Gregorio'k San Roke'ren ezpatadantzan parte artu zuela, fotografi bat erakutsi ere bai, eta onela jazten zirela: alkondara zuriak manga zabalekin, praka eta zapatilla zuriak eta kapitanaren zintak gorritz eta larrosez. Beste dantzariak, alde batekoak gorritz eta bestekoak urdiñez. Besoetan galartsu gorriak eta urdiñak.

Luis Idiakex, (Txerturi), ezpatadantza deitzen zion. Eta arazo orreri buruz ba degu 1884'ko jakingarri bat: Antonio Flores periodistak onela dio Madrid'eko "El laberinto Periódico Universal" Azaroa 1'koan: "... *delante de San Roque marchan ocho jóvenes aldeanos en mangas de camisa con pantalón blanco y llenos de cintas y lazos de todos los colores... Con una espada desnuda en la mano... y los aplaude el público que sale a ver la ezpatadantza (o danza de las espadas) pues así se llama esa broma*".

Beraz, dudarik ez dago, dantzariak eskuetan eramaten zituztenak ezpatak zirala eta ez makillak...

Arretaz begiratu izan diogu bertako dantzei: SAN ROKEREN EZPATA DANTZARI batez ere; baita Jorrai dantzari ere.

Izurritik libratzen omen zuen santuari dantzatzen zaio ez dakigu noiztik San Roke jaietan, abuztuaren 16an, ezpata dantza au.

Debako auzo jakin bateko gazteek, Artzabalgoek izurritetik libratzeko promesa bati jarraiki, bizkar gainean jasotzen dute santuaren irudia eta prozesioan mendi aldean dagoen San Roke ermitara igotzen dute.

Bertan gauzatzen da San Roke dantza.

Gaur egun Gure Kaien 130 bat lagun gabilta. Autariko 100 bat umeak dira. 1999'an lenengo aldiz aurren dantza eskola Debako musika eskolan barruan sartu dugu, euskal dantzaren etorkizuna bermatze aldera. Dena dela, Gure Kaiak eramaten du orren ardura.

Nagusien taldea 30 bat lagunek osatzen dugu eta elkarlanean aritzen gara Elgoibarko Haritz eta Eibarko Kezka dantzari taldeekin. Deba beeko dantzarien izendapenaren azpian metodologia bat, filosofia bat eta lan egiteko modu bat aurkituko duzue.

Arrinda'tar Anes



SASI-LAGUNAK

Antzezleriak:

1. Edeslaria.
2. Basauntz Andrea.
3. Oilloa.
4. Azeria.
5. Usoa.
6. Astoa.
7. 8. 9. Eiztariak (Kazariak).

LENENGO ZATIA

Antzokian: edeslaria, oilloa, azeria, usoa eta astoa.

Edeslariak:

Basauntz Andrea,
basoan, bakean, pozik bizi zan,
bere ume maiteekin, etxe bero, gozoan...
Baiña eiztari gaiztoek zauritu dabe tiroka...
Emen dator gaixoa, zaurituta, odolduta,
arnas-estuka.
(Basauntza sartzen da zaurituta.)

Basauntzak Oilloari:

Oillotxor lumaduna,
aspaldiko nire laguna.
Eiztariak dodaz atzetik ni ilteko...
Zure oillategian mesedez nozu gordeko?

Oilloak Basauntzari:

Pozik zinduket gordeko,
bai pozik, lagun zar...
Baiña aurretik nire oillar Jaunari,
baimena eskatu bear.

* * *

Basauntzak Azeriari:

Azeri, azeritxo,
nire lagun aspaldiko,
zure zuloan nozu gordeko
eiztariengandik aldegiteko?

Azeriak Basauntzari:

Nire etxea pozik emongo neuskizu...
Baiña ostatua pagatzeko dirurik ba dozu?

* * *

Basauntzak Usoari:

Uso txo maite,
zu zara bake-zale,
emoidazuz zure egoak arin,
emendik dagidan aldegin.

Usoak Basauntzari:

Basauntz Andrea,
zergatik zabilta iges?
Bizi gura badozu bakez,
bake-zale izan zaitez.

Basauntzak Astoari:

Astotxo, lagun apala,
arerioak datozkit bereala.
Ba daukazu niretzat
gordeko tokiren bat?

Astoak Basauntzari:

Basauntz Andre Gaixoa,
gutziz zagoz odoldua.
Zatoz nigaz, bai, lenbailen.
Gordeko zaitut nonbaiten.

(Basauntza eta astoa ba doaz, eta eiztariak sartzen dira.)

1. eiztariak:

Non dago basauntz lapur ori!
Ez da iñon agiri?

2. eiztariak:

Onantz etorri da zaurituta.
Non ete dago gordeta?

3. eiztariak:

Basauntz madarikatua,
Non dago ezkutatua?

Oilloak:

Egia da, eiztari jaunak,
basauntzak dira basa-pizti gaiztoenak.

Azeriak:

Baita lapur gaizko kaltegarrienak.

Oilloak:

Zikiñenak.

Azeriak:

Maltzurrenak.

Usoak: (begiak zerurantz jasorik)

Zorionekoak batedunak.

Alkar maite dabenak.

BIGARREN ZATIA

Antzokian Basauntz Andrea Erregin jantziekin.

Oilloa, Azeria, Usoa eta Astoa
Basauntz Erregiñari omen egiten.

Edeslariak:

Urteak joan, urteak etorri,
Basauntza da orain mendiko agintari.
Basoko abereak datoz apalki
opariak eskeintzen Erregin Barriari.

Oilloa (otzara bete arrautzekin):

Emen nator, mendiko Erregin,
otzara bete arrautzekin...

Artu nire biotza, opari onekin.

Basauntzak Oilloari (isekaz-ironiaz)

Ezin dot artu, lagun, zure opari ori...

Eskatu deutzazu baimenik, zure senar Jaunari,
oillar arroari?

ANTZERKIA

Azeria (belaunikaturik):

Basauntz Erregiña, bizi zaitetz betiko.
Emen naukazu zure aurrean belauniko...
Zure menpeko leiala nozu betiko.

Basauntzak Azeriari (asarre):

Azeri maltzur, beti guzur...
Gaur zenbat diru zeunke eskatuko
zure etxean ostatu emoteko?

* * *

Usoa (olio-abar batekin):

Artu egizu, Erregin haundi bakarra,
nire bakezko olio-abarra...
Auxe da bake ezaugarri ederra.

Basauntzak Usoari:

Zelakoa da zure bakea, uso laguna?
Kanposantuko lo aztuna?
Espetxeko ixiltasuna?
Zoaz nire ondotik, uso guzurti,
zure sasi-bake ta guzti!!!

* * *

Astoak Basauntzari:

Nik, basoko Erregin,
ez daukat nirekin,
opari ederrik zuri eskeintzekorik.
Emen naukazu esku utsik,
zure aurrean lotsaturik.

Basauntzak Astoari (aulkitik zutundurik):

Zorionak zuri, Asto leial kutuna!
Zu bakarrik zaitut egiazko laguna.
Zatoz nire ondora,
Nire jauregian biziko zara...

* * *

Edeslariak:

Egiazko lagunak,
estualdian dira ezagunak.

GOIKOETXEA INAKI

BARREGAIK

OTO, SEMEA ETA TXAKURRA

Otok semea dau Europa-iparaldean ordenadore eta beste orretariko tramankuluak ikasten; bai, ba, bein europar egin ezkeroz, Europa'rekin artuemanetan alkar ipiñi bear dogu eta Oto'ri beti gustatu jako olatuaren aparaparean joatea.

Semeak aitari Alemania'tik:

—Aita, bialdu egidazu zure txakur Lagun, emengo jakintsuek asmakizuna sortu dabe-ta, txakurrei izketan irakasteko. Zoragarri izango litzake Lagun berbetan ikustea eta zure izen ona eta fama zeruraino igoko litzake. Dirutxua bearko da orretarako; baiña, orrelako txakur maitagarriak orrenbeste merezi dauala usten dot.

Aitak bialdu eutsizan txakurra eta dirutxuak.

Pozik bialdu be. Orrelako gauzarik...!

Denboratxua pasa da eta semeak ez dautso txakurra-
ren barririk emoten. Kezkatzen esi jaku Oto eta aolkua
eskatu dautso Pototo'ri:

—Txakurrak berba egiten ikasi legike, Pototo?

—I zoratu egin az. Txakurra berbetan? Bai eta astoa
biboliña jotzen. Orrelako astakeririk...! Txakurraren min-
tzoa, zaunka dok; ortik aurrera ez egik ezer itxaron...

* * *

Aitak semeari:

—Bota onantz txakur ori eta aitzera emon zelan doan
zure ikasketak.

—Aita-erantzun dautso semeak telefonoz-berealaxe
bialduko dautzut zure txakur maitea. Ez dakizu ondo zela-
ko poza artu dauan barri ori eman dautso danean. Erant-
zun daust oso pozik dagoala etxera biurtzeko, orrelako
nagusi onarengana. Eta gero esan dau: A zer barreak
egingo doguzan andra Joxepari esaten dautsa-danean,
bera merkatura doan bakoitzeko wuiski botilla ondo astin-
tzen daua nagusiak.

Oto gibelegoakin dabil aspaldian eta sendagilleak
alkoolik ez probatzeko aginduta dauko. Semeari erantzun
dautso:

—Gauzak orrela badira, obe dozu txakurra saltzea...

TIZIO'REN EMAZTEA

Otok bere aspaldiko lagun Tizio topau dau Donosti'ko
kaleetan. Bere aldamenean andra bat darama: begi baka-
rra, errena, buru-soilla pelukearekin, agin barik...

—Emen neure emaztea-diño Tiziok.

—Nondik atera dok traste zaar au-diñotzo Otok ixi-
lka-: kristalezko begia, egurrezko anka, astuen agiñak,
basakatuen illeak...

—Itz egik altuago, gorra dok-eta.

MATEMATIKA-MAIXUA

Ototxok nota eskasak atera ditu matematiketan eta
barriri azterketak ditu; obeto prestatzeko irakaslearengana
joan da, mutillak berorrekin saio batzuk egin aal izate-
ko. Joandana semearen aita da: Oto jauna. Irakasle ori
ikastolatik zetorren, berekasa berbetan eta atzamarrakaz
kontaten:

—Bi eta iru sei dira, lau geiago amaika. Beraz, amaika
urte daroaz etxe onetan matematikak erakusten.

OTO EPAIKARIAREN AURREAN

Epaikariak Oto'ri:

—20.000 pezeta zor dozuz trafiko-poliziari xenperre-
nak esan dautsozuzalako.

—20.000...?

—Bai. Eta, epai-maiaren aurrean ezer geiago esateko-
rik ba al duzu?

—Ba...

—Esan, esan.

—Zuen multa-neurri oneikaz edozein asten da emen
xenperrenak esaten...!

ARRINDA'tar ANES

SHAKESPEARE ETA BATUA

MENDIGUREN'EK EUSKERARA SHAKESPEAREREN ANTZERKI BAT ITZULI DAUALAKO, BERE ARGAZKIA AGERTU DA DEIA'N, ARTIKULU BATEGAZ. ZERGAITIK ORRELAKO ZARATAK? BATUAN EGIN DABELAKO ALA?

AITA LARRAKOETXEAK 37 ANTZERKI ITZULI DITUZ, ZEANURIKO IZKERA EDERREAN. AREN ARGAZKIRIK IKUSI DOZUE INON?

BATUAREN KURPILLA BUELTAN DOA. GAINIAN BA'DAGO, AZPIAN BE EGONGO DA, MUNDUA AURRERA DOA-TA.

* * *

DEIA'n agertu zan artikulua Azillaren amarrean, sekulako goraltzak egiñaz, Shakespeareren antzerki bat euskarara itzuli dabelako. Lanean ari dana goraltzea ondo deritzat; baiña guztiak neurri bardiñean, lanaren proporziñoan.

* * *

Aita Larrakoetxea'tar Bedita Yon Zeanurin jaio zan Altxagutxi baserrian, Undurraga Goiko auzoan. Gerratean, 1937, Inglaterarra joana eta andik Ameriketara, Uruguay eta Argentina'ra.

Erbestean egon da exilatua 35 urte mando, 1972'arte.

Urte aietan euskeratu ebazan Shakespeare'ren antzerki guztiak: ogeita amazapi antzerki: komediak, odol-antzerki edo trajediak eta egintzak edo dramak. Danetara 37.

* * *

Danen artean bost liburu mardul osotzen dabez. Liburu bakoitzak ba-dau iztegitxo bat ere, itz eta barba zailak eta gaitzak argitzeo, irakurtzea errezteko.

Larrakoetxeak egin eta KARDABERAZ'ek argitaratu, 1974'tik 1976'era. Onela diño liburuen azalpenak: W. SHAKESPEARE'REN ANTZERKI GUZTI-GUZTIAK - 37-EUSKERAZ.

1.722 orrialde aundiak osatzen dabez danen artean.

Bizkai'ko Euskeran: Arratia'ko Zeanuri'koan; berak, egilleak, amaren aotik ikasitako euskerean. Kontuan izan Shakespeare'ren antzerkietan 20.000 itz ezberdiñak dagozala. Orrek danok Euskerara itzultzeko euskera barru-barrutik jakin bear; bai inglesa be.

Aita Larrakoetxeak Shakespearek idatzitako liburuak erabili dituz eta ez gerora konpondutakoak. Egillearen liburu jatorrak, andik euskerara itzultzeko.

* * *

Bat itzuli dauanari egunkarietan idatzi bat eta bere argazkia eskeintzen ba dautsoe, kontuak atara Larrakoetxeak zenbat merezi dabez. Ikusi dozuez iñon?

Neuk ez sekulan be.

Orduko gizon "prestua", batek beintzak, esan eban ze, bizkaieraz egonik eta euskera zaarrean, ez ebalaitaterik be merezi. Orra zelako diferentziak batean edo bestean egin. Baturik egiten ez ba'dozu, ez daukazu urtenbiderik.

* * *

Baiñan, egon lasai, kurpillak, erruedak, buelta osoa emongo dabenean, orduan izango gara geu garaille. Asi

dira esaten, Batua sortu eta mamitu ebenen artean, euskera ori praille eta abadeentzako laga bear zala eta gaztediak euskera errikoia babestu.

Aldaketea asita dago.

Egon lasai.

Eusko Jaurlaritzak amua iruntsi eban, tragau eban, asiera asieratik Etxenike eta konpafiñakin, Mitxelena aolulari eta konseju-emaille ebela.

Bankuek eta Kapitalismoa sartu da joko berean.

E.A.J. be larri dabil; arriskuan.

Elizea falta da: amauaren karnatari usainka dago. Eldu be, eldu dautso karnateari. Atxeak liturjiko liburuetan ez dauz sartu orandiñok; beste gauza batzuek, bai. Elizearen inguruan dabilzkanak atxeak jaso dabez (iraultzaren ikurrin), naiz-eta bizkaieraz jarrai.

Eleiza osoak karnata eta amua jango dabenean, orduan kopurua beteko da: Eusko Jaurlaritzak, E.A.J., Kapitalismoa eta Eleizea, orra danak Batua gurtzaille eta Batua erribitzaille. Tronpeta jotzeko garaia: asiko dira ezkerretik iraultza berria eskatzen: astakeri bat izan dala Euskereari orrenbesteko zamak lepoan ipintzea, il zorian dagoenean. Askatasuna behar dala.

Errestasuna dala, erriaren alde jokatzeko bide bakarra.

Euskera errikoia bear dala.

Zamak lepotik kendu bear jakozela.

Askatasunaren izenean.

Erriaren izenean...

* * *

Eta orduan zer esango debe Eusko Jaurlaritzak, Aldundiak, Udalak, Kapitalismoaren Bankuak eta Aurrezki Kutxak, E.A.J.'k, Eleizeak eta bere inguruan dabilzkan erakundeak...?

Gastu aundiak eginda dagozala eta orain ezin dala atxerik kendu, ez eta N eta LL ipintzen asi, bizkaieraz eta beste euskal izkuntzetan idazteak eragozpen aundiak ekarriko dauzala... Eta abar, eta abar...

Batua sartzen lan egin dabena, eurok artuko dabe Euskera errikoia ikurriña, erreztasunaren ikurriña, Batua aurrera, iraultzaren ikurri bezela.

Itziko gaituez baztarrean eta eskuetatik kenduko gure ikurri au.

Ondo dakie jakin Batua astokeriz osotuta dagoala.

Eta beste bateri leporatzeko zain-zain dagoz... Eta au amatzeko ez dago igarle izan bearrik: sudur-gaiñean begiak zabalik eukitzea, naikoa da.

* * *

Gure aita Larrakoetxea'ren lana or dago liburutegietan zabalduta, geiegi ez bada be; baiña, ez dot uste Ikastola Nagusietako liburutegietan egongo danik. Orra, ba'legoz, linguistika ikasten ari diran bizkaitarrentzako gai ederrak Shakespeare eta Zeanuri'ko Euskereari buruzkoak.

Milla eta zazpireun orrialde aundi euskeraz Shakespeare'ren netik itzuliak.

ARRINDA'TAR ANES

SHAKESPEARE EUSKERAZ

BIZKAIAN ZEANURI-ALDEKO EUSKALKIA SALBATURIK DA 37 Antzerki ingeleratik euskerara zuzenean

Larrakoetxea'tar Bedita'k egin du lan ikaragarria au. Shakespeare idazle inglesaren lan osoa, 37 antzerki, euskeratu ditu bizkaitar idazle iaio onek.

Erdi-Aroko ingles izkuntzatik xuxen-xuxen euskeratu ere.

Lana da ikaragarria.

Lana da betirakoa.

Ez goaz Shakespeare'ren lanik emen agertzera. Mundu osoan ezaguna da; jakintsuen artean batik-bat. Bere komedi, trajedi eta drametan garai artako gizarte korapillo guztiak agertu zizkigun.

Ordukoak eta gaurkoak.

Betikoak.

Orretan datza Shakespeare'ren ezaugarrietatik bat.

Baiña, ez da ori bakarrik.

Badu besterik. Itzen aberastasuna, alegia.

Ingles izkeraren ezkutuki guzti guztiak, itzen ugaritasun guztia, bere mende zuan Shakespeare idazleak. Beraz, Shakespeare ondo itzultzeak badiu bere nekeak; ematen ditu bere lanak.

Ez da edonork egin lezaken gauza. Itzultze ori egingo duan gizonak, Euskeraren jabe bearko du izan. Eta Larrakoetxea'tar Bedita, larogei urte egiñak dituan gizona, Euskeraren jabe da. Aberatsa bera ere, Shakespeare'ren antzera.

Bere euskalkiaren jabe da, batez ere.

Arratia'ko euskalkiaren jabe.

Zeanuri'ko euskeraren jabe.

Ez da ba arritzeko, Zeanuri'ko euskalkira biurtu badigu Shakespeare osoa.

Euskera utsera biurtu ere.

Erreza izango litzake euskera-erdera-motroillo batera biurtzea, gaur egunean egin oi dan bezela.

Larrakoetxea'k ez du erderara jo. Euskera-utsaren esi-barruan eutsi dio.

Eta orixe da, ain xuxen, zailtasun eta gaiztasunik aundiena: Shakespeare guztia euskalki bakar baten neurrian sartzea.

Bagera euskal-idazle ugari erdera ondo baiño obeto jakin-da, euskeraz ari gerañok. Guri jakin-duri eta kultura guztia erderaz eman digute.

Eta euskeraz ari gera traketz eta urri.

Motz.

Shakespeare euskera utsean jateko euskal-ortzak falta. Euskera-motrillo batera itzultzeko, erdi-euskera erdi-erderara egiteko, euskeraz ezin dogunean, erderara jotzeko, ortarako bai, bagera.

Artara, neronek ere egingo nuke.

Baiña, Shakespeare-izkeraren aberastasunak euskera utsean emateko, ortarako euskal idazle gutxi ikusten ditut baztarretan. Euskal gizona bear.

Larrakoetxea euskal gizona degu.

Euskeraz sortu, euskeraz azi eta euskeraz ezitako gizona.

Euskera-tresna alde guztietatik menperatzen eta erabiltzen dakien gizona.

Euskeraz jantzi-gabe, billutsik eta narru-gorri bagabiltza, eldu bi eskuekin Larrakoetxea'ren itzultzeari eta ikasten saiatu.

Zure eskasia ez da Larrakoetxea-Shakespeare'ren kulpaz.

Errua zurea da.

Ikasi.

Shakespeare aberatsa da eta Larrakoetxea ere bai.

Ikasteak badu laztasunik. Ez da erreza. Ikasi nai badezu, murgildu zaitez euskal-itxaso orretan. Igari ez badakizu, artu bear dozun laguntza; euskal-iztegi eder bat.

Shakespeare eta beste idazle jatorrak, euskera jatorrera itzuli bear dira. Euskeraren izenean erdera-naaste batera edo euskerantora itzultzea, Euskerari iruzur gitea litzake.

Tranpa egitea, alegia.

Larrakoetxea'k ez digu tranparik egin:

ingelera utsean zegoena,
ingelera aberatsean zegoena
euskera utsean eta
euskera aberatsean
biurtu eta itzuli digu.

Euskalki batera.

Bere amaren bularretik egotzi zuan euskalkira. Ala bear ere, lana sakon-sakonetik egingo bada.

Ez du Euskera baturik egin. Batuak gutxienez bi dira. Euskalkiak asko. Guztiak dira Euskera. Euskera euskalkieri esker bizi da.

Erronkari (Ronkal) inguruko euskera illik da. Oraintsu il dira ango aizken-euskaldunak. Besteak erderantora bihurturik daude: euskera aaztu eta erderarik ikasi ez.

Erronkari'ko euskeran orrelako lan bat egin izan balitz...!

Betirako Euskera baten aberastasunerako Larrakoetxea'k egin digun lanak ez du preziorik.

Zeanuri-aldeko euskera bizkaitarra salbaturik da betirako.

Euskerak bere jakintsu-talde ugariak izango dituanean, orduan bai Shakespeare-Larrakoetxea bikotea izanen dala (jakintsuentzako, alegia) sekula agortuko ez dan arrobi aberatsa.

Bitartean, lan onek maixutza agurgarria erakusten digu.

T.B.O.'ak egiteko edo kontutxoak euskeratzeko edozein idazle, batu edo batugabekok, balio du.

Euskeranto-erderanto bat ere ondo egongo da erderaz besterik ez dakienentzako. Lan errezak bear dira gaurko gure populuari euskeraren leenurratsak egiten laguntzeko.

Shakespeare, ordea, ez da ikastoletako katoia. Shakespeare'tik atera lezazke umeentzako kontutxoak; baiña, ori ez da Larrakoetxea'ren lana izan. Euskal-bizardunentzako lana dezu.

Euskeraren arloan gizon dutako gizakientzako da lan ori.

Umeentzako edo Euskera biberioetan artu bear dutenentzako or dituzute Pernando Amezketarra eta abar.

Biberioetan ere esne ona bear da. Euskera jatorra. Ume euskalduneri esne txarra ematea, euskal-izatearen aurkako pekatua litzake.

Larrakoetxea'ren lana ez da biberioetan edaten dan oien antzekoa.

Edaria ba'litz, Ezkozia'ko wiski litzake. Sua daria. Edaten ez badakigu, erraiak erretzen dizkiguna. Bestela, ordea, sutondoan jarrita, pipa ortzeetan, euskal-aoa gozatzeko aukerakoa.

Etorkizunerako liburua, eta teknika-gaiak ugari eskeiñi lezazkena.

Itxas-ontzia aundia eta ederra da. Bear ba'da, gaur eguneko uretarako aunditxo. Ura falta ba'da, ez da barkuaren errua.

Marea-beeran edo legorrean egiten dira barkuak.

Marea-beera degu.

Igoko da marea eta orduan itxas-ontzi ederrenetakoa izanen da Larrakoetxea'ren ontzia. Jendea erabiliko du bere erraietan ugari.

ANES'EK (1973)

SOLLUBEKO BI EZKURRAK (3n. SARIA: 20.000 PTA.)

Soillube'tik ikuskizuna: itsaso zabala alde bate-tik, Gernikako ibaia, Mungia eta txori-erria, Udalaitz eta Anboto, Gorbeia... eta oiñ azpian, Bermio.

Gernikan erne nintzan, muiño batean, Santimamiñetik ez aiñ urrun. Areitz eder bat egin nintzan eta bizkaitarrak nere babesean, nere itzalpean, egiten zituzten euren batzarrak...

Bi karlistada ezagutu dodaz, joandan mendean eta Gernika kiskaltzen ere bai mende onetako guda madarikatuan... Iparagirrek abestu eban lenengoz, eta Madrid'en, bere "Gernikako Arbola" bigarren karlistadaren ondoren...

Joan dan mendeko bi gerrak Euskalerrria utzi eben galduta, pobrezian eta tristuran.

Mendian bezela, itsasoan ere... Kaietan bateltxoak, trañneruak eta atunetako txalopa-andiak... 1912'ko udarako galerna itzalak ekarri eban erio-tza eta negarra... Sota'ren "Goizeko-Izarra" k jaso ebazan gizonak udetatik; baiña, famili askoek ez eben orrelako suerterik izan, semeak eta gurasoak alkarrekin joan ziran ondora...

Bilbo aldera begiratu ezkerro, berriz, burni-meatzetara erdaldunak eldu dira baztar guztiak zapal-tzen. Euskadi galduta. Ez da arritzeko Sabiñek oi u egiten ba dau:

"Il naiago det/ikusi baiño/aberriaren amaia...
Zure basotik atzo igoten zan
eskari ona zerura
gaur erdaldunak sartuta
aixea be birauz bete da.
Nolan ondiño il ez zara?"

Tostartekoak beti makal eta pobre... Baserritarra nekez... Lantegiak erbestekoez beteak... Baporak sortu dira eta txalupa-andiak galdu... Piñu balzak jan dituz gaztain eta areitz-basoak... Galdu gara betirako...?"

Burua jasotzen ekin dogu eta bere onera ekarri baiño lenago, Franco'ren zapalketa eta Gernikaren triskantza.

Euskadik, ordea, dirau eta Gernikako areitza ere bai:

"Areitz bat Bizkaian da
zar, sendo, zindo bera ta bere
Lagia lakua..."

Nere aizpa Gernikan, baiña neu Soillube gaiñean sorturiko areitzaren ondorena naiz. Erori nintzan lurrera eta bertan sortu eta azi areitz sendo-ederra egin arte... Bermiotik etorri ziran gizonak aizkoraren ago ankerra neure gerrian ipiñiz eta ebagi ninduen, arbola luze-lerdena nintzan au. Zeru-aiñokoa nintzan.

Bermioko kaian egiten ari ziran iru mastako ontzian, masta-erdiko ipiñi ninduen, laukiko iru oial aundieri eusteko... Irureun toneladako ontzia, baleetarako egiña: bost txalupa barruan. Aietatik lau baleari segitzeko. Bosgarrena gordeta, bateren bat onduratuko balitz errespetorako...

Balea gure kaietatik urrunduzan eta Terranobako udetara joan bear, Labrador partera, bale-billa. Lau txalopa arrantzarako eta lau patro: kapitana, pillotua, maixua eta kontramaixua, bakoitza be-rean...

Masta-muturreko mutillak, balea!, deitzean, kapitanak bale-ontzia aruntz zuzentzen dau, bi millerata eldu arte eta orduan txalupak udetara botau, eta, aizea popatik ba'da, oialez eta bestela, arraunez balearengana jo. Gertuen dagoen txalupak botaten dautso lenengo arpoia eta bigarrena al ba'da. Geroago beste arpoi bat sartun ezkerro, oba da balea urpera joaten lagatzea... Irtetan dabenian, sangraderekin zauritu, "odol aundietan" oba. "Odol txikiak" diranean, nekez iltzen da balea...

Azken arnasa emoten dabenian, orduan atoian edo erremulkan ontzira gerturatu, indioekin gerrak diranean. Pake garaian, berriz, legorrera eraman bertan eraikitako txabolara, an zatituteko eta, txingarrak egiñez, koipeak atara eta barriketetan immi-

ñi... bodega guztiak bete artean. A zer poza udazkeneko aize epelakin etxeruntz abiatzen geranean... !

Labradoreko eskimalek euskaldunekin zearo asarratu dira joan dan udazkenean, bale-ontzi batego mutilek buruzagiari emaztea arrapatu ziotelako... Aurten udaberriari agertu geranean, sekulako eriotzak egin dituzte txaboletako gizonen artean eta urtutze-lanak barruan egin bear izan ditugu, ontzia erretzeko arrisku aundiarekin... Labradoreko parte onetan ez degu aurrerantz pakerik izango, gorroto bizian bait daude gure aurka. Ez dute arrazoirik palta.

Negua bere sudurra agertzen asi danean, etxeruntz jo dogu, oial guztiak zabalik. Illebeteko deskansua daukagu bidean, ames egiteko denbora luzea... Eskimalak ez diran indioekin ondo alkaritzen gara eta agur egin diegu datorren udaberriate:

Euskaldunak. etorri berriro gure Qana. Ekarri sagardoa, ogia, burnizko aizkorak eta lanabesak gure kastor-larruekin trukatzeko...

Zenbait neskaitilen begietatik malko epelak erortzen ikusi dodazen. Gorputzaren azal-koloreak ez dio maitasunari esirik ipintzen: baiña, gure mutilek euren biotzak Euskalerrira begira dabez... An urrutian Bermioko kaleak ikusten dituzte. Kale zoragarriak. Zein illebate luzea Terranobatik Bermiora bitartekoa...!

Zer istilluak eta zer algarak ontzi-muturra, Matxitxakotik aurrera, abiatzen danean kaira sartzeko... Zazpi illebate zure kalerik ikusi barik... Neuk be antxe ikusten dot Soillubeko tontorreko neure sor-lekua. andik atera ninduen bale-ontzi onetako erdiko masta izateko...

Zer zoriona etorri diranentzako eta berton zai-zai eta arduraz beterik, egon diranentzako. Altis-kuak, nekeak eta izardiak koipe biurtu diraz eta, koipe oneri eskerrak, orain negua etxeko epeletan igaroko dogu, udaberriak lur osoa berpiztuko duen arte...

Neguan, oraindiño ere, baleak agertzen dira gure kostaldean: banan-banan, ama danak parte artzen dabe; baita alboetako kaietako ontziak be... Zenbat burruka sortzen dan kaien artean arrantza onetan... Zergaitik? Lenengo arpoiak kalea bere

portura eruaten dabelako. Eta, bale batek aberastason aundiak ekartzen ditu errira... Alegindu egin bear lenengo arpoia sartzen...!

Eldu da berriro udaberria eta berriro oial zuriak masteetan zintzilik...

"Boga, boga, mariñela
joan bear degu urrutira...
bai Indietara".

San Lorenzo ibaiaren kolkoan baleak sardan: nai dan beste koipe dogu barriketan sarturik. Bodegan oraindik leku apurtxo bat badago libre eta uraxe bete nai... Antzarrak nortetik egoalderuntz abiatu ziran joan dan astean, baiña kapitanak beste dozena bat barrika gura ditu guztien partillak obeatzeko... Bat-batean egoaldia aldatu da. Ifaraldeko aizeak jotzen dai indartsu eta oialak arria bear arin. Aizearekin batera otzaren madarikazioa. Diru-goseak galduko gaitu... Itsasoa izozten asi da. Izotzak arrapatu gaitu eta ontzia ondoratu da. Agur koipeak, agur diruak, agur ametsak, agur Bermio...

"Ez det, nik ikusiko
zure kai ederra..."

;**

Soillubeko areitz ederra Labradoreko ur izoztuetan gelditu da betirako, etorkizunean andik iñork ataritzen ez ba'dau.

ARRINDA'tar ANES
1992

Sardui'tar Deunoro'ri zorionak

Urtien asieran
negu illunian
mendi-gaillurrak zuri
bixi ziranian
otzen bildurrik gabe
agertu ziñian.
Zorionak Deunoro
jaiotz-egunian.

Sabin Enbeita Goiria

SOLLUBEKO EZKURBI

Soillube'tik ikuskizuna: itxaso zabala alde batetik, Gernikako ibaia, Mungia eta txori-erria, Udalaitez eta Anboto, Gorbeia... eta oiñ-azpian, Bermeo.

Gernikan erne nintzan, muiño batean, Santimamiñetik ez aiñ urrin. Areitz eder bat egin nintzan eta bizkaitarrek neure babesean, neure itzalpean, egiten zituen euren batzarrak...

Bi karlistada ezagutu dodaz, joan dan mendean eta Gernika kiskaltzen be bai mende onetako guda madarikatuan... Iparragirrek abestu eban lenengoz, eta Madrid'en, bere "Gernikako Arbola" bigarren karlistadaren ondoren...

* * *

Joandan mendeko bi gerrak Euskalerra galduta itzi eben txirokasunean eta tristuran. Mendian lez, itsasoan be... Kaietan bateltxoak, trañeruak eta atunetako txalopandiak... 1912,ko udarako galerna itzalak ekarri eban eriotza eta negarra... Sota'ren "Goizeko-Izarra" k jaso ebazan gizonak uinetatik; baiña, famili askok ez eben orrelako suerterik izan, semeak eta gurasoak alkarrekin joan ziran ondora...

Bilbo aldera begiratu ezker, barriz, burni-meatzetara erdaldunak eldu dira baztar guztiak zapaltzen. Euskadi galduta. Ez da arritzeko Sabiñek oiñ egiten ba dau:

"Iñ naiago det/ikusi baiño/aberriaren amaia...
Zure basotik atzo igoten zan
eskari ona zerura
gaur erdaldunak sartuta
aixea be birauz bete da.
Nolan ondiño il ez zara?"

* * *

Tostartekoak beti makal eta txiro... Baserritarra nekez... Lantegiak erbestekoez beteak... Baporak sortu dira eta txalupa-andiak galdu... Piñu baltzak jan ditu gaztain eta areitz-basoak... Galdu gara betirako...?

Burua jasotzen ekin dogu eta bere onera ekarri baiño lenago, Franco'ren zapalketa eta Gernikaren triskantza.

Euskadik, ordea, dirau eta Gernikako areitzak ere bai:

"Areitz bat Bizkaian da
zar, sendo, zindo bera ta bere
Lagia lakua..."

Nere aizpa Gernikan, baiña neu Soillube gaiñean sorturiko areitzaren ondorena naiz. Erori nintzan lurre-ra eta bertan sortu eta azi areitz sendo-ederra egin arte...

Bermiotik etorri ziran gizonak aizkoraren ago anker-ra neure gerrian ipiñiz eta ebagi ninduen, abola luze-lerdena nintzan au. Zerurafiñokoa nintzan.

Bermioko kaian egiten ziran iru mastako ontzien artean ni, masta-erdiko ipiñi ninduen laukiko iru oial aundieri eusteko... Irureun toneladako ontzia, baleetarako egiña: bost txalupa barruan. Areitatik lau baleari segitzeko. Bosgarrena gordeta, bateren bat ondoratuko balitz errespatorako...

Balea gure kaietatik urrindu zan eta Terranobako uretara joan bear, Labrador partera, bale-billa. Lau txalupa arrantzarako eta lau patro: kapitana, pillotua, maixua eta kontramaixua, bakoitza berean...

Masta-muturreko mutillak, balea!, deitzean, kapitana bale-ontzia aruntz zuzentzen dau, bi milletara eldu arte eta orduan txalupak uretara botau, eta, aizea popatik ba'da, oialez eta bestela, arraunez balearengana jo.

Gertuen dagoan txalupak botaten dautso lenengo arpoia eta bigarrena al ba'da. Geroago beste arpoi bat sartu ezker, oba da balea urpera joaten lagatzea... Urtetan dauanian, sangraderekin zauritu, "odol aundietan" oba. "Odol txikiak" diranean, nekez ilten da balea...

Azken arnasa emoten dauanean, orduan atoian edo erremulkan ontzira gerturatu, indioekin perrak diranean. Pake garaian, berriz, legorrera eroan bertan eraikitako txabolara, an zatituteko eta, txingarrak egiñez, koipeak atara eta barriketan imiñi... bodega guztiak bete artean. A zer poza udazkeneko aize epelakin etxeruntz abiatzen geranean...!

* * *

Labradoreko eskimalek euskaldunekin zearo asarratu dira joan dan udazkenean, bale-ontzi bateko mutillak buruzagiari emaztea arrapatu eutsoelako... Aurten udabarrian agertu garanean, sekulako eriotzak egin ditue txaboletako gizonen artean eta urtutze-lanak barruan egin bear izan ditugu, ontzia erretzeko arrisku aundierekin... Labradoreko parte onetan ez dogu aurrerantz pakerik izango. Gorroto bizian dagoz gure aurka. Ez jake arrazoirik palta.

* * *

Negua bere surra agertzen asi danean, etxerantz jo dogu, oial guztiak zabalik. Illebeteko atsedena daukagu bidean, ames egiteko denbora luzea... Eskimalaz ez diran indioekin ondo alkartzen gara eta agur egin dautsegu datorren udaberrira arte.

—Euskaldunak, etorri barriro guregana. Ekarri sagardo, ogia, burnizko aizkorak eta lanabesak gure kastornarruekin trukatzeko...

Zenbait neskaitilen begietatik malxo epelak erortzen ikusi dodazen. Gorputzaren azal-koloreak ez dautso maitasunari esirik ipinten; baiña, gure mutillak euren biotzak Euskalerrira begira dabez... An urrutian Bermioko kaleak ikusten ditue. Kale zoragarriak. Zein illebate luzea Terranobatik Bermiora bitartekoa...!

Zer istilluak eta zer algarak ontzi-muturra, Matxi-txakotik aurrera, abiatzen danean kaira sartzeko... Zazpi illebate zure kalerik ikusi barik... Neuk be antxe ikusten dot Soillubeko tontorreko neure sor-lekua, andik atera ninduen bale-ontzi onetako erdiko masta izateko...

Zer zoriona etorri diranentzat eta berton zai-zai eta arduraz beterik, egon diranentzat. Arriskuak, nekeak eta izardiak koipe biurtu diraz eta, koipe oneri esker, orain negua etxeko epeletan igaroko dogu, udaberririk lur osoa berpiztu arte...

Neguan, oraindiño be, baleak agertzen dira gure kostaldean: banan-banan, ama bere kumarekin ala emea arrarekin... Guk onek Terranoban sardatan ikusi doguz eta orregaitik "Sardako Balea" izena imiñi deutsogu... Lana egin dogu sendo eta neguko baleak ez gaitu mogituko; orreik berton dagozenentzako dira.

Bertoko bale-arrantza estropada bat izaten da. Balea agertzen danean, txalupa danak parte artzen dabe; baita

alboetako kaietako ontziak be... Zenbat burruka sortzen dan kaien artean arrantza onetan... Zergaitik? Lenego arpoiak balea bere portura eroaten daualako. Eta, bale batek aberastasun aundiak ekarten ditu errira... Alegindu egin bear lenego arpoia sartzen...!

* * *

Eldu da barriro udabarria eta barriro oial zuriak masteetan zintzilik...

"Boga, boga, mariñela
joan bear degu urrutira...
bai Indietara."

San Lorenzo ibaiaren kolkoan baleak sardan; nai dan beste koipe dogu barriketan sarturik. Bodegan oraindik leku apurtxo bat badago libre eta axe bete nai... Antzarrak iparretik egoalderuntz abiatu ziran joan dan astein, baiña kapitanak beste dozena bat barrika gura ditu guztien partillak obetzeko... Bat-batean egoaldia aldatu da. Ifarraldeko aizeak jotzen dau indartsu eta oialak arriau bear arin. Aizearekin batera otzaren mada-rikazioa. Diru-goseak galduko gaitu... Itsasoa izozten asi da. Izoztak arrapatu gaitu eta ontzia ondoratu da. Agur koipeak, agur diruak, agur ametsak, agur Bermio...

"Ez det, nik ikusiko
zure kai ederra..."

* * *

Soillubeko areitz ederra Labradoreko ur izoztuetan gelditu da betirako, etorkizunean andik iñork ataritzen ez ba dau.

ARRINDA'TAR ANES

ZER

ALDIZKARIA

- ILLEROKOA (MENSUAL)
- BIZKAIERAZ IDATZIA (EN BIZKAINO)
- ERRI-JAKINTZAREN GAIK (MATERIAS POPULARES)
- IRAKURGAI ERREZ-ERREZAK (LECTURA FACIL)
- ARAZO SAKONAK AZTERTUTA (ANALISIS DE TEMAS)

ARPIDETU ZAITE!

ZER
EUSKERAZALEAK

Colon de Larreatcgui, 14-2.º —BILBAO-1

SONG, TXINAKO MANDARINA

Arrinda Anes

Nel Tibet, sopra le porte
delle lamaserie
si puo leggere
la seguente iscrizione:
"Mille monaci, mille religioni".

(T. Lobsang Rampa)

Kamiloren etxea itsas-aldeko mendixka batean dago kresalari begira. Ifaf-aizeak, Norteak, Mendabalak, Egoiak, Naparreagoak... orok jotzen dute aldamen guztietatik.

Kamilo, bere gaztaroan, Ameriketatik ibillia zan, Panpas deritzan zelai zaba-lean, gautxoekin aberezaintzan. Orregaitik edo, bere etxe xaarrari "Buenos Aires" ipiñi zion izen.

Aspalditxo onetan, Mari-zintzo eta bera, biak, aterkia erabili oi dute ogera-zerakoan. Bai ba, istillak, etxe-inguruan bakarrik ez, etxe osoan agertzen dira, euri-zaparrada bat egiten duen bakoitzeko.

Gaur Deban, urtearen lenengo larunbatean, "Feria de Locos" deritzan azo-ka berezia ospatzen degu. Kamilok astoa erosi du galanta, astarra. Anton Burusoillek saldu dio merke. Kamilok ez daki zergaitik aiin merke; baiña nik esango dizuet zergaitia: astar mando ori berekoia eta buru-gogorra da esan ain beste, eta, ezetz esaten badu, ez du iñork bere artatik mogituko.

Ara zer gertatu zitzaion bein batez Antoneri: Errotako zubitik pasa bear garia eioteko; baiña, Periko Fortunak ezetz ez, ez zala pasako. Anton Burusoi-llak, baietz, pasa bearko zuela... Eztabaida luzea. Errotaria, beste aldetik bie begira, parrez errementa bear.

- A zer asto pare! Orrela utzi bear al diok...?
- Au aiña banauk!
- Asto baten mende... Ai Anton, Anton, ireak egin dik.
- Nereak egin ? Ez orixe! Oraintxe bertan ikusiko dekl!

Besterik gabe astoaren tripa-barrenean bere lepoa sartu eta, sorbaldan astoa duelarik, errotara pasa zan...

- Ara, Fortunato, neu txapeldun!

Errotariak erriko tabernetan zabaldu zuen berria eta, arrezkero, taberna- tetik Anton agertzen zanerako "Amen gure kanpeoia"ka asiko ziran bezero guztiak. Asieran danen aurka ekiten zion: "Joriok adarra amamari". Baiña, orrenbestez, festa sutzea besterik ez zuen lortzen eta goiz-alde batean auxe erabaki zuen: Zoruen Ferian astoa saltzea. Prezioa merke ipiñi ezkeroz, iñu-xenteren bat agertuko zan asto zaar ura erostera. Alaxe gertatu zan gerta ere; Kamilok alako asto-puska ikusi zuenean, biotza mindu zitzaion.

- Zenbat?
- Berreun ogerleko.

– Eta, Bizkaian ogerlekoak zenbat errial ditu?
– Gizona, gizona “ogерlekoa” ogei errialekoa duk. Peseta batek lau errial, bost pesetak ogei errial. Bost peseta duroa duk. “Ogerlekoa” duroa duk. Nun-go munduan bizia aiz i, mutil?

– Beraz, berreun ogerleko, berreun duro. Panpasetatik etorria naiz eta an durorik ez genduan erabiltzen, ogerlekorik gutxiago oraindik...

– Dana dala eta dena den, berreun ogerlekok milla peseta osatzen dute. Milla peseta aragitarako ere balio dizkik onek...

Lenengo-ta-bat Kamilok agora begiratu zion astarrari, ortzak nolakoak ote zitun jakiteko. Ondoren buztana jaso ipur-zuloa ikusteko. Garbi-garbi ez zekien berak zertarako jaso bear zitzaion astoari buztana; baiña, ferietan orrelaxe egiten ijitoak, askotan ikusi zitun, ganaduren bat erosterakoan. Bere buruari inportantzi apur bat eman nai, gero trataoan ekiteko. Bere burua zuritu nai, alegia, Anton Burusoillaren aurrean.

– Milla peseta askotxo da; bosteun emango dizkizut oraintxe bertan. Eskura eman ere.

– Txo, txo (ama bizkatarra izanik, Bizkaiko esaera asko erabilli oi zitun Antonek bere lenguajejan) ez zera lotzatzen ori esaterekin? Aragi utsetan baditu amar arrua gutxienez.

– Aragitan? Ezurretan esan naiko dezu. Ezurrak ugari asto onek, ipur-zuloa zikiña eta ortzak esterean pasata bezala...

– Ipur-zuloa zikiña? Eta, zer nai duk (ika asi zitzaion berriro ustekabean) egunero paperakin garbitzea kaka egiten duen bakoitzeko, ala...?

– Gaiñera, ortzak ere zatarrak.

– Eta Colgatekin garbitzea nai al duk goiz eta arratsalde...? I zoro bat aiz.

– Bosteun eskura eta ez ditzagun itzak alperrik galdu.

– Bosteun? Zoruen Ferian gaudelako...? Gutxienez bederatzireun bear dira.

– Ez, ez. Ori askotxo dek. Eun geiago ipiñiko dizkiat.

– Seireun peseta narratx orrelako astar ederragatik...! Ez zeudek danak Santaguedako zoro-etxean. Gutxienez zortzireun...

– Nere azken-itza, zazpireun eta “goazen pakean” apaizak elizan esaten duen antzera.

– Joanari eu nai badok (bizkaitarra berriro) apaizarekin, baiña azken-itza neurea bear dik: zazpireun t’erdi. Konprome ez ba aiz, artu astoa eta etxera noa berriro.

Kamilok bere kolkorako: “berreun eta berrogeita amar kendu zizkioat”.

– Bale da. Tok bostekoa!

Alkarri eskua eman eta biak alkarrekin tratao ospatzera Buruzurineko tabernara. An iji-ta-aja, txurrut emendik eta mokautxo bat artatik, txorixoa dala, buskantzak direla, tripakiak batetik, txuletak bestetik, gautxoen kontuak andik, astoaren goraltzak emendik... Aizkenerako astoaren irabaziak eta Kamilon merkaldiak, guztiak Buruzurineko kaxara. Balantzaka eta alkarri lepotik elduta irten zuten kalera. Antonek dirutxuak eta Kamilok astarra.

Pozik zijoan Kamilo etxera bidean; bai ba, asto arrek ogei erralde baiño geiago zitun eta amar pesetan kiloa salduta ere. Prezio orretan pozik erosiko zioin arakiñak.

– Bai, orixe egingo det: urte batzuek lanean erabilli ondoren, txorixotako salduko det.

Bazekien zeifiek egiten zitun lukaika ederrak astoen aragiakin.

– Debekatua omen dago ori egitea. Nik uste ez litzakela orrelakorik debeka bear; gai onakin edozeiñek egin dezake produto on bat; txarrakin ona egitea, ori bai dala benetako doia, arranopola! Orrelako gizonak ministraia izatea merezi du, ekonomi-ministraia, merkataritzakoa ala industriakoa... Edozer klasekoa. Oiek dituk gizonak, oiek. Urdai-azpikoakin edozeiñek egin dezake lukainka ederrik; baiña, asto zaarren aragiakin lukainka onak egitea, orretzek zeukak benetako meritua, orretzek!...

Pentsamentu oietan doala, pasa du Polborako tunela etxera bidean. Erdi-erditik zijoazen astoa eta nagusia bide zabal orretan. Une aretan orra or nun agertzen diran Kamilon bidetik bi motorista guardia-zibilak. Bien artean Kamilo eta bere astoa arturik, multa-agiria aterata, onela diotza aietako batek:

– Dónde va usted, señor?

– Yo?

– Sí, usted y su burro por la mitad de la carretera...

– Vamos a “Buenos Aires”.

– A Buenos Aires, señor?

Adarra jotzen asi zirala, konturatu zan Kamilo eta onela eraso zien:

– Sí, señor, a Buenos Aires. Allí vivo yo que he sido pampero y allí llevo a mi burro por este camino.

Multa-agiria gorde eta eskubiko beatzakin bere buruan jira-buelta bat emanez, badoaz aurrera algaraz.

– Bai, bai, parre egizazute, nai badezute; baiña, ziri ederra sartu dizuet ustekabean. Ja, ja, jai...! Zuek ez dakizute nere etxearen izenik. Tok.

Etxera orduko konturatu zan Kamilo asto ura oso berekoa zala. Lenengo egunetik makilka asi bear.

– Asto madarikatu ori, segizak aurrera ikuilurarte!

– Au baño korta obeagoetan oituta nago ni, zuk zer usten dezu?

– Zer? Izketan ere badakik!

– I bezelako iñuzuekin ikasi nuan berbetan, astoka mundu osoari ari zera-tenoekin.. Au astakeria! Ura astakeria!

– Gizonak astakeriak egiten baditu, zer nai dek esateal!

– Oiek “gizonkeriak” dituzu eta ez “astokeriak”; guk geuk sentzu ohea agertzen degu zuek gizonok baiño.

– Arranepola! Beste orrenbeste ez diat sekulan aitu... Astoak, beraz, gu gaituk...?

– Ez, astoak geu gera eta zuek gizontxoak zerazte; guek baiño belarri txikiagoak eta buruak eskasagoak eta ni txerri-korta orretan ez naiz sartuko, aurretik apur bat txunkuntzen ez badezu.

– Ezetz? Bai orixe, sartu bearko!

Astoak aurreko bi anak lurtean tinko sendotu zitun eta alperrik ibilli zan Kamilo astoari atzetik bultzaka, ikuiluan indarrez sartu nairik. Azkenik, gorozti-makilla eskuan artu eta xenperrenak ematen asi zitzaion Periko Fortunari.

– Indarkeria dezute nagusi zuek gizontxoak, indarkeria. Eta indarkeriz zer irabasten dezute? Abereak eurak baiño buru eskasagoa agertzea; besterik, ez. Indarkeriak indarkeria sortzen du etengabeko abiadan, neurririk gabe, azkenik gabe... Oianetan ez dago zuen aiñako piztirik. Aiek indarra, jana billatzeko, erabiltzen dute; zuek, berriz, zertarako? Besteak zuen mende zapalduta ikusteko.

Kamilo zegoen ao-zabalik astoari begira. Ijito euskalduna etorri zitzaion burura, astoa saltzerakoan, paioari onela esaten: Begira, begira; ez egon albo-

ra begira... Eta, asto itsua saldu zion paioari. Gero protestan etorri zitzaion esanez: Asto itsua saldu didazu iruzurrez. Ez da iruzurra. Nik garbi asko esan nizun: begira, begira, ez egon albora begira eta zuk ez diozu begirik bagiratu... Au, asto au-zion bere kasa-ijitoren batek erekutsitakoa izango degu; Antonek, ordea, ez dit ezertxo ere adierazi. Onela eraso zion Perikori:

- Nungo ijitoen eskolakoa aiz i?
- Ijitoak Ejitotik badatoz, ez zabilta ain urrun ere...
- Ungriatik, motel. Ez al dakik ori ere?
- Ungriatik, Ejitotik.. I nundik agertu aiz, ba?
- Urrunagotik. Eguzkiaren sorkaldetik. Reinkarnazioaren berri ez al dizu iñork sekulan eman?

- Zer arraio da reinkarnazioa?
- Mundu onetan egindako okerrak zunzendu aal izateko, beste noriki edo zerki batean agertzen gera birjaiota, il da gero. Birjaiotze ori da reinkarnazioa.

- Zer zorakeri dek ori?
- Ez da zorakeria. Tibeteko Lama nagusia, Espainiako umetxo batean birjaio da: ura il zan une berean jaio zan umea. Lau urtez ibilli dira aur orren billa Tibeteko Erliio-agintariak.

- Tibeta, jo zak tronpeta. Zer arraio ari aiz?
- Bizitza bateko okerrak, ondorengo beste bizitza batean ordaindu bear dira aizkenerarte; orduan izango da betiko atsedean erabetekoa.

Kamilo zegoen amesetan, entzuten zuena sinistu eziñik.

- Beno, beno, ni Buruzurinean neurritik pasa nauk eta eztabaida auek ameskeri utsak dituk.

- Bai, bai, ameskeri ederra. Zu eta Anton Burusoil nundik agertu ote zerate? Bikote polita. Zuen aurreko bizitza aretan, zer ote ziñeten zuek?

- Ez gera berdiñak animalia eta gizona, txotxo.
- Aizu, Kamilo, animalitik sortu zan gizona eta biak egin zitun Jainkoak; batetik bestera pasatzea gauza erreza da.

- Ni asto biurtu!

- Zailagorik ere egin litzake. Bat iltzen danean... Baiña zer da iltzea eta jaiotzea? Errealitate Aundian bat iltzen danean, Lurrean artzen du bizia eta Lurrean iltzen danean, berriz, Errealitate Aundian biernetzen da. Ez dago Eriotzarik, Birjaiotzearen nekea baizik. Eriotzaren neke-naigabea, Jaiotzaren neke-naigabea da.

Kamilori garunak jira-biraka asi zitzaizkion kaska-ezurrean.

- Tabernan eraten aritu gera, baiña ainbeste?!

- Ez, Kamilo, ez zaude amesetan. Animak dabilten mundua, Errelitate Aundia, era guztietako bizidunez beterik dago: abereak eta gizonak naasian, biak bait dira Izakien garaia. Ni ere asto biurturik nabil; orain milla urte, ordea, Song Mandarina nintzan Txinan. Lo artu nuen betirako eta nere gorpua ez zuen ezertako balio. Anima, berriz, argi urdinskea, Zillarrezko Galartsuari lotuta zegoena, askatzen joanik, aizkenerako libre gertatu zan eta ibillearen ibilliz, gela txiki batera jo zuen. Bertan eseri zan eta aurrez-aurre zeukan pareta desagertu egin zan eta, bere orde, animaren bizitzako gertaera guztiak argitu ziran, Akasha-ren Liburuan idatzita daudenak. Egiñak eta utsak. Asmo onak betetzeke, eta txarrak beteta, gertakizunik xeenak eta okerkeririk txikienak, guztiak zeuden an begien aurrean... Andik, egan, gela aundi batera; Animaren Munduko Izakiek an zeuden bere zai. Ez zuen iñork salatu bearrik; berberak eman zien okerkeri guztien berri eta betegabe utzitako asmo on guztiena ere bai...

- Zorakeri multsoa esaten ari aiz.
- Zergaitik zorakeri...? Beste Aldeko Animen Munduko gertakizunen berri jakintsuek bakarrik dakite...
- Astoak ere bai.
- Gogora zazu nundik natorren. Nere historiaren berri ematen ari nazaizu. Anima an zegoen epai-laguntzailleen mende. Benetako epaillerik ez zan, laguntzaille eta konsejuemailleak baizik; norbera da bere buruaren epaille. Aiek arretaz aztertu zituzten bizitza berrirako bearko zitun doai eta birtuteak. Gero bere gorpuaeren egoera ikustera joango zan anima eta ondoren izango zuen deskantsua (urte batzuek, eunka urteak) eta arrezkero laguntza emango zioten, kondiziorik onenak billatzen, bizi berri egoki baterako.
- Eta, gero zer ifluxentekeri dator?
- Song Mandarinaren Anima Lurrera biurtu zan bere gorpua ikustera eta ondoren, deskantsurako presto zegoen Anima, Beste Aldeko Lurrera itzuli zan.
- Zertara?
- Etorkizuna aztertzeraz eta bien bitartean, ordu artarako, denbora eta era egokiak gertatzen ziranerako, bera Anima ori prestatzera.
- Ez dago ain gaizki, baiña Eriotza Lur onetako nekeen azkena besterik ez bada, zergaitik diogu ainbeste bildur?
- Beste Munduko pozak bakarrik gogoratuko baginduz, askok ez genduke Emengo nekea jasoko eta orregaitik sartzen da Eriotzaren Bildurra.
- Zertarako bildurra? (Kamilo panpero eta baserritarra izanik, badu bere filosofi naturala ere; Perikogandik jasotako kutsadura ez bada...).
- Ezezaguna dan Orok sortzen digu bildurra. Bildurrak, ordea, adore ematen digu, alperkeriaren mendean erortzeko arriskua agertzen danean...
- Ire itzetan zoroikeri asko zegok eta orain galdera bat: zertan biurtu induen Txinako Mandarinara izan ondoren?
- Mandarina nintzala okerkeri asko egin nituen arrokeriz eta nere okerkeri ori makurtzeko, zaldi baten gorputzen sortu ninduen; baiña, nere aurreko bizitzari eta egoerari begirunea izanik, Frantziako Erregearen zaldi-kortan jaino arazi ninduen.
- Erregearen ikullutik ijituen eskuetara...?
- Zure eskuetan baiño obe. Ni Frantziako erregearen korta ederrean bizi nintzan laisterketarako zaldi. Apaiña oso eta liraiña. Arroputsa. Bestelako lane-tan ari ziren zaldiei parre egiten eta iseka. Mando eta astoei, zer esanik ez. Neretzako lana zan urria eta mantenua ederra. Lana neurrian, disgusto gutxi eta mokautxo gozoak sarri-sarri. Beti garbi eta atsedenean. Noiz-beinka las-terketatxoren bat. Erriz-erri Erregearen Kortearekin batera.
- Ez itzan gaizki bizi, alazankoa!
- Bai, aberea izateko, nai baiño obeto. Nere zoritxarra Doniane Loitzunen gertatu zitzaidan. Eunka urte dira; baiña, alaz ere malkoak irtetzen zaizkit begietatik bizitza ura gogoratzean... Laisterketa galdu nuan Pirineetako zaldipottoka baten aurrean. Korteak alde egin zuanean, bertan utzi ninduen kalegarbiketarako. Zikin-gurdiari tiraka egun osoan, egunsentitik illunabarreraiño: jana urri eta lana ugari. Munduaren aldakaitza! Nere itxurari begira, onela ekin zion bersolariak:

“Ona sei bertso kale
garbitzailleari,
señaz beren izena
dan Jose Mari
Erreza lezazkike
iru Avemari
indarra etortzeko
zaldi gaixoari.
Animali ori
erruki zait neri
falta du ugari
egoteko lodi,
kartoiakin egiña
dala dirudi”.

Nerekin lotzatu zan nere nagusia eta arakiñari saldu nindun.

- Txorixotarako? (Nere burutasunak asma ote ditu morroi onek?).
- Bai, lukainka ederrak egin zitun, itxuraz beintzat. Badakizu, pipar-gorri ugari eman ezkerro...
- Pipar-gorriak beste akatsak ezaltzen ditu. Errerz saldu al zitun asto-lukaikak?
- Aiek zaldi-lukaikak ziran; baiña, zaldi arek aragi gutxi eta ez ziran ain onak ere gertatu.
- Alaz ere, salduko zituzten.
- Doniane Loitzunetik Terranobara zijoazen ontziek janari eta edari asko bear zazpi illabete osoak itsasoan ibiltzeko. Lukaika aiek merkeak eta itxura onekoak ziran; beste aldetik, berriz, arrantzaleak arraina ugari izaten dute eta okelea nai. Urdaia, sesiña, koipea, txerrikia eta, al zuenak, urdai-azpikoa. Onek eta zaldi-lukaikak ez dute prezio berdiña, ezta ontzien aberastasunak ere. Bartzuek aundiak ziran bosteun eta geiago toneladakoak, bale-arrantzarako. Beste bartzuek eun tonelada eskas izaten zituzten; auek bakailautarako. Era orretako pinaza batera saldu ninduen. Barku artako 16 urteko mukizu batek onela idatzi zuen bere etxera Terranobatik: Emen nago ni egunero patas de kuto eta karne de mono janez; igandetan, berriz, asto-lukaikak. Nere lotzakizuna orrelakoak jakinda...

Kamilo zorabioak artuta zegoen astoari ao-zabalik begira. Amesak ote ziran ala pattarraren lanak? Zorätzen asita ote zegoen? Astoaren itz-jario arrek ez zion onik egiten eta ebagitzea erabaki zuen:

- Itzeetatik naikoa dek.
- Naikoa? Ez oraindik. Nere garai artako pekatuak “Buenos Aires”en ordaindu bear Kamiloren mendean, aurretik Anton Burusoilaren eskutik pasata gero. Bikote ederra! Kirten galantak! Baiña, zuk ni ez nauzu indarkeriz menperatuko. Biok zerazte berdiñak; burugogorrek etaitsuak. Sudur-aurrean dezute-na ere ikusten ez.
- Ago ixilik, madarikatu ori! Bestela ez zaik bizkarrean egurrik paltako.
- Ni ez nauzu makilka ixilduko.
- Ezetz?

Nagusiak, eskuetan makilla bat artu eta, nun ematen zion begiratzeke, belerrietan jotzen asi zitzaion. Astoak bere aldetik, egurra geldi arazteko, ortzakin besotik eldu zion. Baita apurtu ere. Ez zion miñik eragin nai; baiña, oke-

rra orrelaxe gertatu zan. Kamilok, bere amorru artan, tiro bateko eskopeta zaarra artu eta, begien artean, basurdetarako zeukan kartutxoa uztu zion. Astoak errukiz begiratu arren, nagusiak itsu-aldi artan ez zuan ezertxo ere ikusten, bere amorrua baretzea besterik. Astoa lurrian eta ixilik ikustean, orduantxe lasaitu ziran Kamiloren barrenak.

Astoa erositako une berean artutako asmoa, orain beteko zuen uste baiño lenago. Inguruko erri batean txorixogile famatua bizi zan eta mezua bota zion, bazuala astarra ederra, bere lan aietarako egokia eta etortzeko, alba aurretik, bere baserriaren oinpean zegoen bide zabalera. Istripuz akabatu zitziola eta kezkarik ez izateko.


Bigaramonean an zeukan Kamilok astoa lau zatitan, kamiño baztarrean oso kurioso ipiñita. Eraman zuten; baita lukaika ederrak egin ere. Andik laister, Pasaian bakailautarako zebillen ontzi baten nagusiak lukaika-sail osoa erosi zuen. Berrito ere gure astarra Terranobarako gertatu zan, beragoko mailan: zalditik astora. Bere aurreko bizitzen okerkeriak zuzentzeko astirik ez zion Kamilok eman eta berriro reinkarnaziora jo bearko zuen. Bere aragi guztiak Groenlandiako itsasoetan zielarik, nun biziberrituko ote zan berriro...

Indarkerian bizi izanik (indarkeria egin eta indarkeria jaso, alegia), indarkeria lege duten piztien artean biziberritu omen zan, Groenlandiako artzazuri-kuma batean. Suerte oberik izanen ote zuen Eskimalen artean? Gerora jakin genduen artzazuri ederra egiñik bizi zala izotz-arteke errege. Zori txarrez, ordea, tranpa batean erori eta katigu berriro giza-indarkeriaren mende. Aurretik Txinako Mandarina izateak ez zion batere onurarik ekarri ondorengo bizi-berritzeetarako.

Eskimaleak lau urdaiazpiko egin zituzten bere gorpuakin eta negurako an zeuzkaten izotzetan gorderik. Baiña (beti izaten da baiñaren bat) Son Mandarinak, bere Besteko Errealitate Munduan, beti topo egiten du euskaldunekin; barrito ere mutiko gazte arrantzalea esku artean. Oraingoan, getariarra. Bakailautan joanik zan Kanada ingumarietara eta, indioekin zeuzkaten ar-emanetan, neskato begi-beltz batekin maite mindu zan eta udeazkenaldiko gau batean, orra izaki berri bat sortu, erdizka euskaldun, erdizka eskimal, tximia beltza, azala beltzarana eta begiak urdin-urdiñak, Udara baiño lenen jaio zan ume-txoa. Ezkondu arazi zituzten biak udazkena orduko. Eztaiak egin zituzten alakoak eta ez nolanaikoak. Sei sagardo barrika eskeiñi zitun kapitanak barruan zeukenetatik eta eskimalek, beuren aldetik, artzuri gazte baten urdaiazpikoak. Son Mandarina, Periko Fortuna, euskaldunen tripetara berriro. Nora bidalduko ote dute oraingoan? Bear bada, onezkero deskantsua egokituko zitzaion betirako, Akhasa Liburuan ala idatzita balego.

Ori, ordea, susmo bat besterik ez zan gertatu; indarkeriaren zurrunbilloan sartuta zegoalarik, Ekialdera bota zuten orain ere aizken probarako Azken Gerra Nagusian partaide izateko, Japongo Errege Jainkoaren alde bizia eman zezan. Orra nun Periko Fortuna kamikaze biurtu. Eskeintza osoak, deskantsu oso merezi.

Arrinda'tar Anes



SUKIA “BELTZA” KARDENALA

ZALDIBIKO SEMEA, OLERKARI-SARIA IRABAZITAKOIA, MADRID'KO GONGOTZAI ETA EUSKERAZAINTZA TALDEKOA

Gazteiz'ko Seminarioan, gerra-aurreko urteetan bazan beste Sukia bat ere, Zaldibiko Errekalde baserrikoa, Joxe Mari izenez eta gaurko egunez “Oncologico”an kapellau eta KARDABERAZ bazkunaren idazkari dana. Orregaitik edo, Sukia Anjel'eri, zaldibitarra au ere, Sukia “beltza” esaten giñun.

Filosofia zan Seminarioaren zati bat eta filosofoek bazuten beuren kapilla ere eta bertan zegoen armonioaren jotzaille Sukia “beltza” zan. Nere anai Donatok, filosofoa ura ere, eurok ateratzen zuten aldizkaritxo baten kronista zan eta egun batez txiste au atera zuan erderaz:

—En qué se parece Sukia ante el espejo y ante el armonium?

—En que en los dos se ve negro.

* * *

Euskal errietan apaizgai asko zegoen garai artan eta udarako oporretan maiz biltzan giñan Zaldibi eta Lazkaoko apaizgaiek. Txirrindua zan gure ibilkari-tramankulua. Txirrindulari ona zan Sukia “beltza”; baita mendigoizale iaioa ere.

Gazteiz'ko apaizgaitegian, Seminarioan alegia, 600 mutil gazte bizi giñan eta bagendun, D. Manuel Lekuona eta D. José Miguel Barandiaran'en eskuetan, gidaritza ederrik. Giro aretan sortua zan Kardaberaz Bazkuna, euskerea gure artean lantzeko.

1936'garren urtean, Ekainaren (Bagillaren) 28'an, igandea, 18 egun gerra sortu aurretik, Euzko-Olerti Eguna ospatu gendun Azkuetarrai goratarre egiñez Lekeition.

Olerki-Saillan iru sari zeuden: lenengo biak Gazteizko Apaizgaiek irabazi zuten. Eta, Poema-saillan, euren irakasle zan D. Manuel Lekuonak, lenengoa.

Ona Olerki-Saillakoak:

Lenengoa, Otamendi'tar Iñaki, ordiziatarrak, irabazi zuan.

Bigarrena, Sukia'tar Gotzonek. Auxe da gure Sukia “Beltza”.

Irugarrena, Iraizoz'tar Polikarpak, euskera-arloan, kaputxino famatua izango zana.

Iru urteko guda zitalak eta bere ondorenak, ondatu zitun giro eder aiek eta uste genduan, betirako izango zala. Baña betirakoa, zorionez, Jainkoa bakarrik da. Eta emen berriro lanean.

Ona emen Sukia'ren olerkia bere lenengo zatian:

“EUZKO APAIZGAIARENA”

Baserri bidean

Maite diat Baserri Bidea
biurrika dirudin sugeal!
Intxaur esne-zur bi
alkarren begira.
Erreka urdiñak
agortzen ez dira.
Soro, zelai; sagar
kimuak ortzira...
Arnariak, berriz,
nere Baserrira!

Baserri-Bide.

Baserri!
Zeru-baztarra
iduri.
Ire oroimen
eziñen
aantzi...

Urrundu nitxoan
noizpait iregandik.
Egun-senti erne,
gogoan oraindik...
Sukal-bazterrean
amona larririk...
Gaixo! Sarri nere
galdezka geroztik.
Ama, nire dena (?)
ixil antolatzen.
Begiak noizean
nire gain ezartzen.
Ezer utzi ote?

Ez du gogoratzen...
Amonak gordeta
gaztaia giltzapen.

Atzetik badator
aitona alderoka.
Nir-nirrez begiak,
ezpaiñak dar-darka.
Ba al aoakit, utzik
baserria utzita...?
Orbelak basoan,
sagarrak elduta...

...Atera zorian
odolak zaiñetik.
Malko bi urrena
atera begitik.
Jarrai zak, jarraitu
Jaunaren bidetik.

Laztan niñun gero
negarrez,
neguak galtzeko
ikarez.
Larogei urteak
beleak/zituan enara-garaiez...

* * *

Baztar guztiak ondatuta gero, bukatu zan gerra azkenean; baña, ondamendi artatik irtetzen ez zan erreza izan. Guda ondoren bakoitza bere lanera, alzuana beintzat. Sukia ere Seminaria berrira bere lanak amaitzera, apaizgaien lanak, alegia. Apaiztu zan eta bere asierako ekintzak, erriz-erri gogojardunak edo “ejerzizioak” ematea izan zan Rufino Aldabaldetrekua apaizaren gidaritzapean.

Bizi-biziak izaten ziran Sukiak emandako gogojardunak eta kristau jendea zorutzen egon oi zan, ao zabalik, aren izkera gozoa entzuten. Gogoratzen ditut urte aietan Sukiak emandako saioak: amabi illabete barruan 50 talde emana ditu, aste betekoak, urte batek 56 aste besterik ez dituelarik. Kontuak atera zer-nolako kemenak zitun apaiz gazte arrek.

Urte batzuek lan orretan emanik, Erroma'ra joan zitzaigun jakintza-berrikuntza baten bila. Teoloji-doktoradutza eskuetan zuelarik eldu zitzaigun berrira Euskalerrira.

* * *

Laister egin zuten Gazteizko Seminarioaren erretore eta buruzagi. Amaika urtez iraun zuan lan orretan eta ez zan lan batere erreza izan. Kanonigo ere egin zuten Gazteizen. Ondoren, berriz, Almeria'ko Gotzai; andik Malaga'ra; emendik Santiago'ra Gongotzai eta azkenik, Kardenal ere bai eta Madrid'eko Gongotzai. Aitasantu izateko zaartxoaz onezkero; baiña, zaarragorik ere izan da Eleizaren historian zear.

* * *

Euskal-senik galdu ez duen seiñalerik onena Kardaberaz Bazkunean tarteko izatea da. Baita Euskerazaintzan ere ala da. Bi erakunde auek lanean diardute. D. Manuel Lekuona izan da, bizi zan artean, Kardaberazko lendakari eta Lino Akesolo da Euskerazaintza'rena. Kardaberaz Lekuonaren garaian sortu zan Gazteiz'ko Seminarioan 1924'garren urtean. Euskerazaintza, berriz, Euskaltzaindiak Euskerari buruz, aizken urte auetan artutako erabaki negargarrien ondoren bat, besterik ez da. **BATUAK EGINDAKO KALTEAK ZUZUENDU NAI.**

Euskerazaintza Legeak onartuta daukagu, eta lan onetan asko lagundu zigun Sukia "Beltza" Kardenalak. Eskerrik asko eta segi, aztirik ba'dezu, olerki-bidean.

Arrinda'tar Anes




SUKIA'TAR JOXE MARI

Zaldibi'ko Errekalde baserriko semea, Aralarpean jaioa, orain 87 urte. Saturran'go seminario txikian ezagutu nuen 1.925-26 ikastaroan, ni bigarren kursoan, gazteagoa izan ere, eta bera lenengoan. Bosgarren urtean txanda-pasa egiten utzi zioten, zaarra zalako, eta, orrela, Filosofiako lenengo ikastaroan alkartu giñan. Euskeraz ikasi eta lantzen asteko asmoz, Kardaberaz taldean sartuta, ekin genion lanari. Don Manuel Lekuona'kin ar-eman estuak genduzen, baita Don Joxe Miel Barandiaran'egaz be. Azken oneri Etnolojia-lanetan laguntzen genion geure errietako lantxoak egiten; baita be, bere iker-lanak eta galderak apaizgaien artean zabalduz, eta bilduz. Don Joxe Miel'ek bazeukan, mutiko argi eta sendo onengan, bere itxaropena jarria, laguntzaille eta jarraitzaille bat billatzean. Uste auek ustel gertatu ziran, gerra negargarri baten ekiñez. Alkarrengandik galdu giñan.

Gerra-ondoren Ortuella'n topatu neban apaiz, D. Joakin Goikoetxeaundia parroko ebala. Geroago bera izendatu eben parroko. Errekalde'ko etxeko-andre zabala, bere ama, euskaldun utsa, an gastatu zitzaion, Bizkaiko paraje erdaldun aretan. Bere sasoirik onenak an pasata gero, Sestao'ko Karmel'eko elizara. Andik Palencia'ra Marian-Hill'ko praille-mutillen espiritu-zuzendari. Talde orren aldizkarian, euskerazko itzulpenak, bere gaiñ artu zituen, euskerazko orrialde bete bakoitzeko agertzeko eran. Ibilli eta ibilli, aizkenean Donostia'ko Oncologico'ra, an amaitu zitun bere egunak, sola naiko estuakin lotuta.

1.970'garren urtean, Gazteiz'ko Kardaberaz taldea berbizteko mezua arturik, emen genduan prest, Euskeraren aldeko lanetan etenik-jabe jarduntzeko. Aizkeneko urte auetan bera izan zan Kardaberaz'en Idazkari eta Galarraga Juan Mari'reki batera, arnasa ematen saiatu zan, il arte. Alde egin zigun, Juan Mari aurretik bialduta. Jaiotetik euskaldun, bizi osoan euskaldun, Kardaberaz'en lankide gartsu. Kardaberaz eta Euskerazaintza bat egitera eldu geranean, bera ez zan gure artean, baña, bere lanak ere, ekarri gaitu une onera.

Arrinda'tar Anes.
Deba'n, Otsailak 10. Urtea 1.998.



TARTALO ETA POLIFEMO

Tartalo euskalduna da ala Grezia'tik ekarritako Polifemo?

Alkarrekin zer ikusirik ote dute?

Homero'k bere Odisea'n, bear bada elandar folkloretik artua, Ziklopeak aitatzen ditu eta, auen buru zan, Polifemo. Artzaiak ziran eta begi-bakarrak, bekokiaren erdian zeukaten begi ori. Polifemo eta bere artzaiek, Ulises'en lagun batzuen kaltean ibilli ziran. Polifemo'ren koban sartu eta Ulises'ek zuzi batekin begi bakar ura zulatu zion.

Gure Tartalo ere artzaia zan Polifemo eta lagunek bezala.

Piztiak jaten ditu, berez eiztaria ere bada; baiña, ezta piztiekin bakarrik konforme eta gizakirik arrapatu ezkerro... Polifemo eta bere lagunek egiten zutena egiten du Tartalo'k ere.

Alde bat bada bien artean: euskalerrri-yakintzak beste zer-edo-zer geiago jartzen dio Tartalo'ri: eraztuna, alegia.

Greko edo elandarren artean badira eraztun-ipuiak ere, Giges'ena esate baterako: erregea zan eta eraztun baten jabe. Eraztuna beatzean ipiñi ezkerro, iñork ezin zuan ikusi bere itxura. Tartalo'ren beatzean ipiñi ezkerro, iñork ezin zuan ikusi bere itxura. Tartalo'ren eraztunak "emen nago, emen nago" garraxi egiten du.

Polifemo eta Giges'en ipuiak batzen ditu Tartalo'k.

Biak batean.

Tartalo erri-yakintzaren emaitza degu.

Euskalerrrian sortua?

Kanpotik ekarria?

Kanpotik bada, noiztik da?

Tartalo'ren ipuia, eta izena, Zegama'koa da osotuena.

Zegama'tik igarotzen dan bide zaarrak, erromatarren garaikoak, zer-ikusirik ote du ipui onekin?

Izan lei.

Galtzara eta bide-zaar oietatik kultura-gai asko sartu zan Euskalerrietan. Euskalerrriak, askoek ala ez usten arren, oso zabaldu izan dautsez bere ateak mundu zabaleko kultura guztieri. Orregaitik nik ez nuke ukatuko Tartalo'k elandar erri-yakintzakin zer-ikusirik duenik... Baiña, ala balitz ere, bi milla urtetik gorako artu-emanak dira. Beraz, Tartalo (txapela, pelota eta fedea bezala) Euskalerrriko mami eginda dago, bere jatorria kanpokoa izan da ere.

Esana daukagu Tartalo Zegama'koa dala, bertako Sadar mendian bait dago Tartalo-etxea deritzan triku-arri edo dolmen bat: Tartalo'ren bizi-lekua.

Tartalo artzaia zan; baiña, piztiak ere arrapatzen zituan jateko, eta eskuartean izan ezkerro, gizakiak ere bai. Begi-bakarra zan. Beiñ bi anai gazte arrapatu omen zituan eta bere leizean gorde. Arratsaldean, su andi bat piztu eta bi anaietatik bat erre zuan apaltzeko. Besteai, "emen nago, emen nago" deadar egiten zuan eraztuna jarri zion beaztean. Ondoren loak artu zuan gure Tartalo.

Bizirik zegoanak, estutasunak larriturik, burrunzia sutan gorritu ondoren begi bakar artatik sartu zion. Tartalo itsu gelditu zan, baiña ez ilda, eta mutillaren billa asi zan.

Tartalo'k ardi-narruak zituan pillo aundi bat eta aien artean izkutatu eta gorde zan gure mutilla. Tartalo'k etxeko ateak eragin eta ardi-narruak atera zituan barrutik, mutillaren billa. Onak bere burua etxeatarien ikusi zuanean, ekin dio mendian bera. Baita aren atzetik Tartalo ere, eraztunaren deadarretara. Mutillak, larritasun artan, beazta ebagi eta ur-putzura bota zuan. Baita Tartalo'k bere burua, eraztunaren deietara... Eta an ito.

Bada Ataun'en beste ipui bat Zegama'ko onen antzekoa; ez berdiña.

Jentil baten istorioa da. Mutilla, berriz, "kristaua" zan eta ez dago burrunzirik. Beste guztiak antzekoak dituzu.

Bada beste ipui bat Mutriku'n. Mutillak, ordea, itsasotik etorri ziran. Tartalo'ren izenik ez da, artzai begi-bakarra zala baizik. Burrunzia bada; baiña, eraztunik eta putzurik, ez.

Kortezubi'ko ipuia Mutriku'aren bezelakoa da.

Zegama'koa da ipuirik osatuena; beste guztien gaiak berak alkartzen ditu ipui bakar batean. Eta badu onak zaarra danen antza. Ara zegaitik: Tartalo artzaia zan; baiña, piztiak ere arrapatzen zituan. Ez zan artzaia bakarrik; eiztaria ere bai. Eiztarien aroa zaarragoa da artzaiena baiño.

Tartalo'k bere sorrera Euskalerrrian izan ez badu (nik eziñ esan); millaka urteetan gure artean bizi izan da. Ori bai, badakit.

ANES (1970)



TENE MUJIKAZ IDAZLE EUSKALDUNA

BERE EUN-URTE-MUGAN

TENE EUSKALDUN FEDEDUN: 1988

Tene Mujika Deban jaio zan maiatzaren 24an, urtea 1888, euskaldun eta abertzale giroan. Aberriaren ezaugarria mintzaira danez, Euskera beti biotz-muiñean eraman zuan. Abertzaletasunak erakutsi zion euskaldun izaten. Bere euskera-zaletasuna ez zan (izan) izarretan dabillan lillura maitagarri bat; ekintzetan mamitutakoa baizik. Il arteraiño ekin zion euskera lantzeari eta euskeraz idazteari...

Auek aurretik gogora nai ditut, nere gaiari eldu baiño lenago; Tene euskaldun abertzalea, Tene euskaldun idazlea, "euskaldun fededun" izan zitzaigun jaiotzetik eriotzararte.

Kristoren Fedea eta Maitasuna, biak, izan zitun, bizitza osoan zear eta etenik gabe, bere barne-bizitzaren eutsigarri eta arnasa...

NAIZ-ETA gerrateak aurretik eramana izan... Naiz-eta, guda negargarri orretan, Elizaren Apostoluen zenbait ondorengoek bere aberriaren aurka jokatu... Naiz-eta luzaroan exilatuta bizi... Naiz-eta, errira etorrita gero, erbesteratua izan...

ALAZ ERE ez zuan ukatu Kristo eta bere Elizarenganako sinismenik; federik ez zitzaion otzitu. Fedea galtzekotan, Jesusek berberak galdu bearke zuela, oso garbi ikusten zuan Tenek. Izan ere Amabi lagun aukeratu bere Elizaren oiñarri. eta oietatik batek, eskutara zillar bategatik, bere Maixua saldu zuan eriotzarako; buruzagi bezela aukerutakoak, berriz, bildurrez, uko egin zion, juramentu eta guzti, eta beste amarrak iges, Maixua etsaien atzaparretan utzita...

Jesusek Eliza gizon-emakumeentzako egin zuan, eta, uts asko egin dezaketen gizon argalez osatua. Orretxegaitik bialdu zien bere Maitasunezko Arnasa, Eleizaren benetako eusgarri eta zuzendari. Or tartean dabiltzan gizonak dira bat eta oien ondoren dabillan Arnas-espirtua beste bat.

Gauz auek argi eta garbi ikusten zituelako, gorde zitun beti Tenek bere biotzean Fedea eta Maitasuna. Oieri esker, ez zuan bein ere ltxaropenik galdu: ez beste mundokorik, ez mundo onetakorik ere. Larogeita amar urte beteta gero ere, nola eta zer idatziko pentsatzen, garai berrietarako bide berriak nola asmatu... Ondotxo zekien Tenek, Kristoren fedetik ikasi zuela Euskalerrriak

jatortasuna eta zuzentasuna eta ortik sortu zitzaioala aberriari munduan zerar zeukan izen ona eta izen orrek ez zion gutxi berari lagundu exilatuta ibilli zan garaian...

Tene Kristoren Fedean eta maitasunean bizi eta il zan.

Entzunda zeukan poeta berrien esaera au: Guretzako kristo Marx da. Tene'rentzako benetako Kristo Jesus zan eta beste guztiak kristotxo batzuek besterik ez.

Beste aldetik, berriz, ondo begiratu ezkeroz, marxismoak dituen alde onak Jesus'engandik artuta dirudite. Jesus eta Marx biak ziran judutarrak. Marx bera Europan jaio zan, ia bi milla urtez kristautasunak girotutako Europa zaarrean... Marxismoa ez an Asian sortu Confucio eta Budaren inguruan. Ezta Afrikako erri majikoen artean ere. Kristau giroan sortu zan judutar baten burutik.

Jesusek eta Marxek Moises'engan zeukaten beuren sustraia eta Moises'ek emanak dira, justizia eta zuzentasuna gordetzeko diran Amar Aginduak; Jesusek bitan bildu zitunak, Jainkoa eta lagun-urkoa maitatzean, alegia.

Moises eta Jesus kanpotarrak omen dira gure artean; Marx areago, eldu berria dan ezker. Jesusek gurekin milla urte ondotoxo pasiak daramazki geure artean. Euskaldunek Kristoren Legea beuren biotzetan mamitu zuten, kulturaren agerpen bihurturik. "Euskaldun fededun" ez zan itza utsa bakarrik; izana ere bazan. bi itz auek oso-osorik betetzen ziran Tene'rengan. Berau bai zala benetako "euskaldun fededun".


Kristautasuna atzo kanpotik etorri zalako, gaur arbuiatu eta madarikatu bear ba'degu, berdin egin bear ko degu kanpotik datozkigun kultura berri guztiekin, marxismoarekin batera. Arrazoi orregaitik ba da, Kristautasunarekin batera bota bear ko ditugu Erromatarrek ekarritako kultura aberatsak, Ario eta Zelta erriak ekarritakoak; esate baterako, San Juan-suak, Olentzaro, lauburuak, trikuarreien kultura eta abar. Baiña, ez oiek bakarrik, baita majja-siniskeri ugariak ere.

Auxe adierazten digu esandako onek, alegia, gu euskaldunok asmatzaille baiña kopiatzaille obeak izan gerala beti. Ori bai, onartzen dizkitugun kultura-gaiak gure mami biurtzen, orretan mutillak gerala ... Guk ez genduan txapelik asmatuko, baiña gure-gurea egin degulako, "beret basque" edo "boina vasca" izenekin ezagutuko dute munduan zear... Berdin gertatu da pelotarekin ere: gure aurretik griegoek Europan eta indio-maiek Ameriketean egiten omen zuten pelotan; baiña gu artan jokatzen asita gero, "pelota vasca" biurtu degu...

Kristautasuna ere gure-gurea egin genduan "euskaldun fededun" esateko eran. Kristau-kultura, kanpotik artutako beste guztiak bezela, guretik kanpora bota bear ba'ditugu, orduan ezurretan geldituko gera. Ezur igarretan: ez erri eta ez kultura.

Kristautasuna kentzean, gure bizitza-izate eta kulturaren zati ederrena kentzen diogu Euskalerrinari... Arazo au Tenek oso argi zeukan bere begien aurrean eta orretxegaitik izan zan beti euskaldun abertzale, euskaldun idazle eta "euskaldun fededun".

Arrinda'tar Anes



TIERNO-KABRIA

(Geure Historiaren aztarnak Euskeraren Sabelean)

Araba-Errioxa'ko Elvillar errira izendatu ninduen parroko.

- Señor Cura, aquí se presenta el nuevo campanero.
- Muchas gracias, ¿Cómo te llamas?
- Lorenzo Barrera, pero todos se llaman Piti.

Lenengo eguna zan neretzat. Egunsentitik illunabarrerairño nere etxetxoaren aurretik mandoek zebiltzan goruntz eta beeruntz etenik gabeko errenkadan. Goruntz maatsez beteta eta beeruntz utsik.

Udazkena. Aste bete orduko, Animen Eguna, Azillaren 2'a, eta oitura zaarra zan il-kanpaia jotzea gau ta egun, goiz da arratsalde, egun osan eta orretxe-gaitik nengoen kezkaturik Piti nere etxean agertu zanean, ez bait nuen zeñek kanpairik jo.

- Mesede galanta egin didazu, Piti.

Piti nor zan? Bene-benetako "moro de la morería". Itxusia bezin alaia eta ona. Gorpuza zuen aundi, besoak luze, okotza aurrera emana, ezur-matrallak irtenak, bi koba-zuloetan begiak kirkilla bezin beltzak, betuliak matasa illuna eta buruko tximia betulien gaiñerarte. Anima-Egunaren bezperatik asi zan gaz-tain erreak jan eta kanpaia jo.

Gure arteko gerra negargarria bukatuko urtean giñan.

Nere aita itxas-gizona zan eta Terrobara bidean zebillen bakaillautan. Gabonetarako eldu zitzaigun gure Elvillar'eko etxetxora. Egun batez, mezu bota nion Piti'ri gurera etortzeko bazkaltzera. Bijilia-eguna zan eta amak legatza prestatu zigun arrautzetan bildurik eguerdiko otordurako. Bazkaltzen ari gerala legatza agertu zanean, onela dio Piti'k:

- Señor Cura, así cumple usted la vigilia?
- Zer, ba? Erantzun nion. Bijilia aragia uztea da.
- Así yo haría vigilia todos los días.
- Zuk zer jaten dezu bijili egunetan legatzaren ordezt?
- Un pimentico.

Ao-zabaliak utzi ginduzen aita, ama eta irurok. Moro onek benetako arra-zoia eman digu. "Aragi uztea" penitentzi egitea da eta ez legatz ederra jatea.

Errioxa'ko ardoari afizio geiegi artu baño lenago atera ninduen Zumarraga'-ra. Andik laister, Santa Luzi eguna: moxalen azoka. Eguerdi-eguerdian akolito bat etorri zitzaidan presaka:

– Enparantzan ijito bat dabil zure galdezka.

Atera nuan burua leiotik eta an ikusi nuen asto, mando eta moxalen artean gure Elvillar'eko kanpai-joalea. Garraxi egin nion:

– Piti!

– Mecagüen cuánto burro!

Akoiitoa ez zebillen ain oker, Piti baiño ijito txukunagorik bazegoen azoka aretan: Kolorea galdutako panazko txamarra soiflean, arabakiz ondo ornituta-ko praka-panak, gaurko egunez gazte artean moda dan baiño areago, baña Piti-'renak benetako arabakiak ziran; buruan txapel beltza naiko zarpaildua; oñetan, berriz, iltzedun bota zar aundiak Errioxa'ko buztiña eurokin zekarzte-nak:

– Piti, igo gurera.

Ekzer-aldeko sorbaldan zamuka edo albarda bat zekarren, atzetik bost litroko garrafoia ardoz eta aurretik iru botilla olio. Piti ijitoa...? Orrelako errege-rik...! Errioxa'ko ardo zoragarria aaztuta neukan, Zumarraga'ko ardo napar beltzaren kulpaz; olio, berriz... Iñun ez zan tantorik ikusten (illeroko raziona-mentuko gramotxo aiek), estraperloan ezik.

Gosete garratzaren urteak.

Badakizute zenbat baliozuan estraperloko olio litro batek? Eun peseta mando. Orbegozo'neko labe aundian lan egiten zuten olagizonen amar peseta irabazten zituzten egunero. Kontuak atera: amar peseta egunero, amar eguneko alojera bear zuten litro bakar bat erosteko.

Ta, neri Piti'k iru litro ekarri dizkit bere zamuka orretan. Sekulako doaiez beteta etorri zaigu gure ijito-antzeko erregea... Egun batzuek igaro ditu gurean eta gogoratu dituguz Elvillar'eko zenbait gertakizun eta ango bizitzaren patxada.

– Akordatzen aiz, Piti, igande-arratsaldeetan, zenbat aldiz etortzen itzan gurera kaletik deika: Señor Cura, voy a tocar más tarde para la función que aún no hemos terminado la partida?

Itzuli zan bere errira eta aaztu zitzaidan Piti zanik ere. Bien bitartean, amar urte pasata gero, bialdu ninduen Zumarraga'tik Deba'ra. Jakin nuen Deba'ko Mazzantini tabernara Elvillar'eko Zapatones'en semea etorri zala sozio.

Egun batez, or nun agertzen dan gurera, Piti lagun duela. Gure alkarren arteko poza. Piti'ri arrantza guztatzen zitzaion eta itxasora eramatea erabaki nuen, txitarrotan. Eskatu nion lagun bateri motordun txanel bat eta irten degu arrantzarako.

Mutriku'tik Zumaia'ra bitartean ordu t'erdi ibilli arren pikada narratz bat ere ez denbora guztian. Piti'k neri:

– Esto es el mar? Mecagüen aquí no hay ni un pez. Si hubiéramos ido al Ebro ya habríamos cogido un montón de barbos...

Neri ere macagüenka asteko gogoa etorri zitzaidan. Onek usteko du Ebro ibaia Kantauri itxasoa baño aberatsagoa dala:

– Goazen –esan nion– oraintxe bertan legorrera.

– Sí, sí, por lo que hacemos aquí...

Lurreratu giñan. Itxasoaren azal-azpiko arrainketa gogoko nuen eta baniu-tuen artarako tresnak ere. Artu ditut nere etxetik eta onela esan nien bai:

- Goazen berriro arrantzara.
- Y dónde está la caña?
- Onek ez du kañabera bearrik.

Eraman ditut biak ondartzaren esbubiko muturrera, aitzak asten diran txokora eta utzi ditut biak ondar gañean eserita, ni udetan sartzen naizen bitarean. Sartu eta amar metrorako, sarbo zuri bat neri begira. Orrela dagoen bitartean ez daukat arpoia botatzerik. Nagoen geldi. Zearka asi danean, orduan zillarrezko gorputz zapala erakutzi dit. Arpoia erdi-erditik sartu diot. Atera det arpoia udetatik eta erakutzi diet arraiña bertan indar egiten bere burua burnitik askatzeko...

Ekin diot aurrerago aitzeetan zear eta orra or, nere begien aurrea, lasun zuri eder bat eskubitik ezkerrera. Martxan dijoala bota diot arpoia buru-aldera eta tripa-barrenetik sartu zaio eta lasuna gelditu da burruntzian preso, jira batera eta bestera. Arpoiak aitzean jo du eta belarretan zerk edo zerk zirkin egin du arpoiak aitzaz jotzean. Gerturatu naiz arpoia arraiñakin jaso eta belarrai begiratu bat emateko:

- Ara emen nun dan zerkin eginduen.

Belar artean kamuflaturik, aitzari eantzita bezala, itxaskabra bat bere buru aundian dituen bi begiekin neri begira, geldi geldi. Jaso det arpoia eta, eskuan dedala, sartu diot bizkarretik barrena itsas-kabrari. Ara nere arpoian bi arrain batera: lasuna eta itxas-kabra. Jaso ditu urgaiñetik gora. Piti'k garraxika:

- Mecagüen si no lo veo no lo creo!

Artan ari naizela, durdo batek burua agertu du zulo batetik kanpora. Belarritik sartu diot nere arpoia. Kilo bat bada. Gaurko naikoa degu. Ez da oraindik ordu erdi ondartzara agertu gerala.

- Zer iruditu zaizu, Piti? Itxasoan arraiñik ba'da?
- Mecagüen cuento esto en Elvillar y no me lo creen.

Itxas-kabria da arraiñik geldoena eta arpoiez arrapatzen errezena. Arpoi-muturra buru-gaiñean ipintzen ez diozun bitartean lo egongo zaizu, zirkiñik egiteke. Askotan pentsatu izan det, aifñ motela izanik, nola demontre arkitzen ote du arrain onek bere jakia? Eta, ara zer gertatu zitzaidan egun batez.

Goiz artan ur-azpiko arrantza egin bear nuela, baña arpoirik gabe, pentsatu nuen. Arpoiaren orde z metro bateko kañabera ariña eramane nuen itxasora, bere pita eta amuakin. Sartu det burua urazpitik eta bota det amua nere aurrean. Txitxara bizirik zegoen amuaren muturrean eta aren mogimentuetara orra or nun agertzen dan amar zentimetroko karraspio bat. Gerturatu da. Txitxarari usaika-edo dago. Oraintxen elduko zio, nion nere buruari.

Artan, aitzaren zirrikitu batetik, tximistak arturik, itxaskabra batek irten eta irentsi du karraspioa. Amuan elduta egon ba'litz karraspioa, bi arrain arrapa izango nituen batera. Ikusteko astirik ere ez dit eman: zirikitutik irten, arraiña irentsi eta alde egitea oiek guztiak, batera egin ditu.

Itxaskabria geldoa dala esan det aurrerago; ori, ordea, ez da egi osoa. Berak nai duanean, tximista bera baiño bizkorragoa da. Azpi-azpiko aitzaren gaiñean geldirik egotea konbeni zaio; baita bere inguruaren itxurak artzea ere. Bere margo gorri-illuna, zikin antzekoa, inguruko aitz eta belarren artean izkutatzeke egokia da. Burua du oso aundia eta agoa zabal-zabala buruaren neurria. Badu arantza gaizto bat ere bizkar-ezuraren asieran.

Gure itzasoaren aitzeetan itxas-kabra aundiak falta dira; gau-arrantzan dabiltenak, sakukarak arrapatzen dituzte eta azten utzi ez. Ilargi berrietan, itxas-beera luzea danean, putzuak gelditzen dira aitz-tarteetan, eta gau-arrantzaleak joaten dira lau-ortzeko arpoiekin putzu oietara eta lo dauden itxaskabrak arrapatzen dituzte errezago ezin. Nere aurtzaroen, ordea, galantak ikusi izanditut Lekeitio'ko kaleetan, potiñetako arrantzaleek arrapatuak. Senarra itxasotik lurreratzean, emaztea kalerik-kale:

– Itsas-kabra aundi ederra...!

Deadar ori entzutean, dendatik irten eta nere amamak onela ekingo zion:

– Zenbatean?

– Iruan.

– Potxua, izurdia al da ba kabratxo ori?

– Au kabratxo? Begiak nun dituzu, Pillipa? Itsas-kabra aundi-ederra dozu. Gutxienez bi kilo baditu...

– Bi kilo...? Burua besterik ez du ta...

– Onek burua eta zeuk zer dozu? Begi-bista txara zeuk. Aitzetan arrapatu-tako itxa-kabra onek zer kolore gorri-ederra duen ez dozu ikusten?

– Illuna beintzat, bai. Bi emongo deutzut.

– Lotzarik be ez daukazu zeuk, onelako arrain ederrari bi peseta argal eskeintzeko.

– Bi t'erdia.

– Errialtxu bat geiago emoten ez ba'deustazu, kalia gora noia.

– Torizu ba errialtxu ori.

Pozik nengoen amamak itxas-kabra eder ura erosi zuelako. Bereala asi zan prestaketan: Eskamak ondo kendu, garbitu eta zatitu. Gero, lurrezko kaxuela batean benetako olio ipiñi eta baratzuriak. Bialdu ninduen aldameneko dendara perrejilletan. Zer saltsa-berde goxoa egin duen gure amamak...!

Andik egun batzuetara:

– Amama, amama, portuko arrandegi batean itxas-kabrak ikusi ditut oso politak.

– Itxas-kabrak arrandegian?

– Bai, bai, baña kolorea politagoa, larrosa kolorea.

– Azpitik zurizkak?

– Bai, bai, orixe.

– Txotxo, arrain ori ez da itxas-kabria.

– Zer da ba, amama?

– Tierno-kabria.

– Tierno-kabria? Eta, zergaitik du izen ori?

– Orixen ez dakit, txotxo; baña izen orregaz ezagutu dodaz beti.

Arazo au 1923'garren urtekoa da eta nere amama Pillipa Aranburu'k bazituen garai aretan irurogeitaka urteak.

Arrezkero amar urte igaro ziran. Nere aita, itxasoko kapitana, merkataritza utzi eta bakallautan asita zegoen Pasai Doniane'ko PYSBE konpañian. Aita eta biok Donostia'n La Brecha'ko arrandegian gebiltzan bixiguren bat etxera eramateko asmotan. Tierno-kabrak zeuden saskitxo baten eder-ederrak. Onela esan nion aitari:

- Zer itxura ederreko arraiña.
- Itxas-kabria ohea.
- Zergaitik ori?
- Itxas-kabria aitzetan arrapatzen dalako.
- Eta, onek nun arrapatzen dira?
- Barrurago; ondarra dagoen tokietan.
- Eta, orrek zer esan nai du?
- Aitzetako arraiña beti izaten dala obia.
- Amuakin arrapatu izan ditut Lekeitio'n itxas-kabrak. Bein batean, bi arrapatu nitun ume koskorra nintzala eta ez dakizu ondo amamaren poza...
- Beste auek, berriz, sareetan arrapatu oi dira. Terranova'n oso ugariak dira tierno-kabra onek. Lana ematen digute itxasora berriro biurtzen...

Aitak esana entzun nuen; argirik piztu ez, ordea, nere kaska ezurretako garunetan. Andik urteetara D. Manuel Lekuona'rekin nebillen euskera ikasten beste lagun batzuekin batera. Egun batez onela mintzatu zitzaigun:

– Euskaldunok itz luzeak murriztu egiten dituguz iru silabetara, geienetan beintzat. Esate baterako or daude torcular (latiñez) tolare (euskeraz); algazara (arabez) algara (euskaraz); dominica (latiñez) domeka (euskeraz); Santa Madalen (Irun'go ermita erromatarra) Xantalen, eta abar.

Arrazoi du Don Manuel'ek. Or daukagu bere lagun Don Jose Miguel Barandiaran Joxemiel bihurturik, Deba'ko laba-ataria (kale baten irteera) Labatai eta Terranova, Ternua... Aizkeneko itz oneri buruz, ikus "Euskaldunen LABRADOR", Xabi Otero'k 1991'teko lbeltzean argitaratutako liburua. Eta, onek orrela dirala, argi ikusten dala iruditzen zait, Tierno-kabria Terranova'ko Kabria dala. Terranova Ternua biurtu degu, izkera erreztuz. Lekeitio'n, berriz, Terranovako itza Tierno biurtu zuten. Orixe izan da euskaldunon jokabidea: esaera erreztu, alegia; erderazko pretil guk euskeraz beti petrill esan oi degu, errezagoa dalako.

Terranova'ko Kabria, orra izen luzea eta gaitza, errezagoa Tierno-kabria esaten. Batez ere, gerora, Terranova zanik ere erriak gogoratzen ez zuanian. Eta, auxe da gauza miragarria:

Gure aurrekoen historia gure buruetatik galduta izan arren, aien aztarnak Euskerak gordetzen ditula bere barnean. Irakurtzen jakin bear.

ARRINDA'tar Anes

Abadeak eta politika

URSS-AITA SANTU

1982 urtearen azken-aldera Errusia'tik Vaticano'ra intzirika, Woytila Aita Santua politikan sartzen zalako, Burnizko Esiaren atzetik daudan Erri Komunisten kaltereko.

Vaticano'tik erantzuna legorra izan da: orrelakorik ez dagola ezer.

Piperragoak izan dira Italia'ko Alderdi Politikoen erantzunak, sozializtena bereiziki. Alderdi Komunista bera be ez da isilik geratu. Eta kontuan izan Europa osoan ez dagoela bera baiño Alderdi Komunista ugariagorik: Italia'koak ditu alderdikiderik gein. Berak be erantzuna emon deutso Errusia'.

* * *

Alderdi politikoetan jokatzeari beti izan da arrisku bat Elizentzako eta bere gotzai eta abadiantzako be. Euskaldunen artean be bai. Burruka zaleak ez izanda be, burruka artean ibilli gara beti: goitik Frantzia'ren eraso eta beetik Espainia'rena...

Beti auskia eta burrukea.

Kanpokoak asko ez dirala, barruan be mutur-jokea: Oñaz eta Ganboa, aundikiak eta erribilduak, karlistak eta liberalak, zurriak eta baltzak... Araba eta Naporroa Franco'rekin, Gipuzkoa eta Bizkaia aurka, gorriak eta urdiñak... eta iru kolorekoak.

* * *

Orain pake-bidea artuta gero, abertzaleak abertzaleen aurka, alkarren etsairik gogorrenek ba'lira lez. Anboto'ko Sorgiñaren mada-rikazioren bat badogu euskaldunok: etxe-barruan burrukea eta mutur-jokea darabilgun bitartean, kanpokoak guri noiz ederrak emoteko zai...

* * *

Eliz-gizonak bitartean, zer? Franco eta Godoen arteko praille historiagilleek beti ipiñi dabez euskaldunak salbaje utsak izan ba'lira bezela. Ez dabe esaten baiña, askatasun aldeko guda zala a, eta astakeri asko egin ebezala; baita jaso be. Onen berririk ez dabe emoten.

Karlisten denboretan abadeak agertzen dira gudari: el Cura Merino atzerritarren artean eta gure artean Santa Krus abadea... Franco'ren gerratean zer esanik bez. Gotzaietatik asita, Gomá kardena buru zutela... Apaizak ere reketé jantzita agertu zirean Gipuzkoa'n bere gudarosteekin batera. Gerran ez ebiltzenak be, sotana baltza eta buruan txapel gorria borla moraua zintzilika. Donosti kalean ikusita nago, kaputxino jantzita, falanjisten kapel ureiña buruan eta soldadu kapotea danen gaiñetik...

* * *

Karlistadan abadeak ibilli arren eta karlisten ikurriñak Foruak izendatu arren, eraso orretan bersolariak ez euken federik ez karlistekin eta ez abadiekin:

«Don Carlos ba'litz errege eta epaizak soldaduak, Euskalerriko Furuak laister lirake galduak...»

Don Carlos ez zan errege izan; alan be Furuak galduta gelditu ziran. Beti gu alde guztietatik, galtzen...

* * *

Denbora onetan, demokrazi aizeak jo dauanean, or dabilta zenbait abade eta praille gorri-gorri eginda. Franco'ren denboretan urdin-urdin egoazen aien antzera. Nok asma?

Arritzekoa da batez be Naporroa'n gertatu dana: kaki eta gorri agertu ziran amen ango abadeak; kaki-kolorea galdu dabe eta gorri gelditu dira, zuririk eta berderik artun barik. Naporroa ori eta gorri lotaratu zan; oria galdu dau berrogei urteko lozorroan; zuririk eta orlegirik artzeko itxaropenik bez... Orra, gorri.

Calvo Sotelo'k Donostia'ko Urumea frontoian, 1936'an, esandako itza, profezia gertatu da: «Antes roja, que rota».

ARRINDA'tar Anes

ZERGAIK EGIN NINDUEN APAIZ

Gerratean gaude eta kuartelean bizi naiz. Apaiz izateko mailla bat falta. Mailla orretara igoko naula, esan dit Gotzaiak. Bere itza da. Baña, orretarako aste beteko Ejerzizioak egin bearco ditut aurretik.

Aste ori beteko ba'det, baimena bear eta ementxen nago, Kapitanaren aurrean, nere eskea eskuetan dedala:

—Zer nai?

— Apaiz izateko baimena.

—Apaiz?

Irakurri du nere eskaria. Zalantzan gelditu da:

—Badegu apaiz abertzale "separatista" bat geiago.

Ni ixilik, eraso-aldiari aurpegi emateko zai. Donostia'ko eliza batean ikusi nuen, udara galdatan, Guruzbidea egiten, andrazko silla batean belaunak zituela eta abaniko bat eskuetan. Bero zegoen, bai; baña, bera da au barrika baten antzeko.

Orain urte bete agertu zan kuarteletik, naiko melar. Katalunia'tik edo etorritakoa zan. Izar bateko alfereza; orain, berriz, iru izarreko kapitana. Nolatan egin ote dute au kapitan? Emendik ez dau irten; urte osoan frentera agertu gabe eta, kapitan? Badu onek goimallako laguntzalleren bat. Majo gizendu da au tarte onetan. Sagardo-upela dirudi:

—Apaiz izan nai dezu?

—Bai. Gotzaiak esan dit ori zure esku dagoela.

—Nola, nere esku?

— Baimena ematen didazun ala ez.

Baimena emateko, politika aldetik, eragozpenak sortzen zaizkio buruan; baña, ukatzeko ere bai: Ain kristau-debotoa izan eta apaiz izateko baimenik eman ez...? Bai, baimena emango diot baña gerrate onetako frentearen aizken muturrera bidalduko det...

Au zalantzan dagoen bitartean, ni amesetan: Apaiz egiten nauenean, kapellau izango naiz eta orduan izar txo bat eramango det nere txapelean. Onera etorriko naiz, alferrez jantzita, emengo sarjento txatxu aueri, nolatan saludatu bear duten, erakusteko. Baita kabo narratx orreri ere; ez zidan ba bein esan "los galones están sobre las razones"? Nik erakutsiko diot orreri nork dituen emen galoiak!

Ara, erabaki du!

Artu du mai-gañeko papertxo bat, zirri-borroz bete du eta, ziñatu ondoren, eman dit eskura, aurpegiara begiratzeke.

Jaso det papertxo ori eta, aindik irtetea, musu bat eman eta kolkoan gorde det. Au nere poza eta zoriona! Onek ez daki zer mesede egin didan: Soldadu izateari laga eta, salto baten, lau malla gorago igon. Soldadu utsetik, kabo, sargento, brigada, alferrezeraño... Ori dek saltoa, ori!

Soldadu utsak jasotzen du zapalketa guztien kopurua: Komandanteak kapitana, kapitanak alfereza, alferrezak brigada, brigadak sargentoa, sargentoak kabo, eta, azkenik, kaboak soldadua... Zapalketa guztien oiñarrian, soldadu gizarajoa. Ez daki onek ondo zer infernutik aatera nauen... Emendik aurrera ez nauk sekulan soldadu utsa izango! Au dek poza, au!

Amar egunetako baimena eman didate.

Biartik, zazpi eguneko Ejerzizioak eta gero Gazteiz'era. An Gotzaiak, bere kaperan, apaiz egingo nau. Orain illebete dala, berberak eman zidan bere itza.

Joan naiz etxera pozarren, biotza zorionez beteta. Eman diot albistea amari eta bazkaldu degu biok patxaran. Gaur geure pattak 21 egun arrautzak berotzen. Onezkero arrautzetatik ateratzen asita egongo dira eta banoa ikustera. Oraintxen ari dira mokoka arrautzak apurtu naiean, andik irtetzeko. Irte ala, or dijoaz korrika erreka aldera. Eskerrak esi bat daukagunai bitartean, bestela murgilduko ziran guztiak uretan. Zeñek erakutsi ote die nundik dagoen erreka...

Artan nagoela, etxeko atea jo du norbaitek. Irten det eta, Korreotako mutilla telegrama bat eskuetan duela:

—Frentetik dator.

— Andik ez zetorrek berri onik, mutil.

Amak sukaldetik:

— Zer berri da?

— Joxe il dala frentean.

Bat-batean negarrari ekin dio. Nere poza, putzura.

Emen orain negarrez astea alperrikakoa dala eta lanean asi naiz. Erriko alkate izandako osaberengana jo det:

— Lenengo ta bat, errixka ori nun dagoen jakin bear degu.

—Billatuta daukat: Leon'eraño jo bear degu eta andik iparladera.

—Nik taxi bat aurkitzen dedan biartean, joanadi i arotzarengana il-kaja baten billa.

Nik arotzari:

—Nere neurriko bat bear det gaur bertarako. Lau olekin eginda ere naikoa da.

Erosi ditut ganadu-manta bat eta bi atxur. Ez dakigu zer beariko degun eta gorputza nun egongo dan, eta, bada-ez-bada... Osabak billatu du Tolosa'n, Teruel'etik etorritako taxia. Ara ere gorputz-billa... Deskantsu apur bat beariko du eta goizeko iruretan irtetzea erabaki degu.

Aurretik, ordea, Gotzaiari telegrama bat bialdu diot, onela esanaz: "Ejercicioak lagata, frentera noa nere anaiaren gorpua billatzera".

Lotu degu il-kaja automobilaren atzeko aldean eta bagoaz nora ziur jakin barik. Arratsaldean eldu gera errixka txiki batera eta Batalloiaren bulegoa aurkitu det etxetxo batean:

—Nere anaiaren gorputzaren billa nator.

—Illerrian dago. Soldadu onek lagunduko dizu.

Illerriko zaindaria, kabotxo bat da. Bost duro zillarrizko eman dizkiot eskura:

—Ceriñola Batallaren gorputz bat nai det.

—Emen, ezkerretara, zazpi daude; eskumatara, amaika.

—Asi eskumatik.

Seigarrena izan da. Biotza daukat kantari Jainkoari eskerrak emanez. Zein itunak diran gorputz gabeko illetak...! Semea galdu dala esan eta nun dan arrastorik sekulan ez billatzea, orixe da benetan illuna. Ez du amak jakingo nun eta noz il zitzaion semea. Ezta gorpua nun dagoen ere... Nere amak jakingo du nun egongo dan: erriko illerrian. Bera ere ara joango da egunen batean, bere semearen ondora... Ez degu ordu bete bear izan gorputza billatu eta jasotzeko... Eta, gaur neretzat, orixe izan da suerterik ederrena...

Agertu naiz Gazteiz'ko Seminarioara, aurretik eskatutako, bear nituen ageri batzuek jasotzeko asmotan:

—Ez dizkizugu prestatu.

—Jakin nezake zergaitik?

—Ba, esan dutenez, ez omen zaitue ordenatuko.

—Zergaitik ez?

—Abertzalea zeralako.

—Komeri onetan ameskeri ori besterik ez da palta!

—Ez da guk asmatutako ameskeria.

—Dana dala, atera itzatzu biar goizerako beariko dizkidan ageri oiek.

Bigaramonean, goizeko zazpiretarako an nengoen Gotzaiaren kaperan. Laguntzaleari eman dizkiot pape-
rak.

Jantzi dut alba zuria eta estola lepotik zintzilik. An nun datorren Gotzai jauna. Aundia eta indartsua. Pelotan palaz jokatzen omen du. Zartako ederra emango dio onek pelotari...

Egin nindun apaiz.

Ameskeriak ote ziran danak? Kezka orrekin ez naiz etxera biurtuko eta aurrez-aurre onela galdetu diot laguntzaleari:

—Egia al da ez zendutela ni apaiz egiteko asmorik?

—Bai, egia da.

—Eta, zergaitik egin nauzue?

—Bialdutako telegrama gaitik.

—Eta, tartean ildakorik izan ez ba'litz?

—Ez.

Biotza erori zitzaidan oñetako orpoperaño.

ARRINDA'tar ANES



Eusko Jaurlaritzaren

Laguntzaz.

Kultur Saila k diruz lagundutako aldizkaria.

ZERGAITIK EZ ZUTEN LOIOLA'KO INIGO URKATU...

(2n. SARIA)

Azpeiti'ko errian dabil bertsolaria bertso-paperak kantari:

Gazteluko Beltran jauna, emaztea aurdun lagata,
Andaluzia'ra doa armatan, mairuak Granada'tik
botatzeko asmotan.

Azken-muturretik itxasora bota bear dira guztiak
askatasuna izan dezan Kristau-erriak.

Trankatan-trankatan Gaztela 'tik zear
Loiola'ko gudariak aurrera doaz
Hispania osoa askatzera
zortzireun urteko gerrari azkena
ematera.

Loiola 'ko dorre ederrean jaio berriaren negarra.
Eñeko nai zuen izena aitak baña
Eñeko gogor xamarra da-ta
Iñigo biguñagoa. Seme-alaben artean
amairugarrena, semea.

Amatxok bularrrik ez da, billa dezagun beste bat:

– Ene etxeoandrea, Errasti jaun errementariak
il-berria du alabea; alboan degu ama-titia.

Errementariaren etxean azpitik ura dijoa
mogituko ba du auspoa.
Txinpartak eta zaratak
sutegiaren ondoan.

Iñigo daramate auzora
Errasti 'ren emazteak artu du altzoan:

– Galdu det alabatxoa
ibazi det beste bat,
jaun Beltran'en semea.

Granada erori da aizkenean, zabaldua errietan zear
Gaztela 'tik Euskalerrira.
Poztu da Erri-kristaua benetan,
pake-kimua erraietan...

Festak prestatu bear dira, diote danak ao-batez;
ez Loiola'n, ordea, Jaun Beltran etorri artean...

Boabil, Granada'ko erregeak negarra dario:

– Negar egizu emakume antzera
gizonki burrukan egiteko adorea
izan ez dezun orrek!
Lotsakizunez amak diotza
negarrez odoletan biotza.

Urtea pasa da luze Loiola'ko gazteluan
bertara iristerako Jaun Beltran.
Zeruak eta lurak astindu dituzte
Granada 'koa ospatzeko eta semearen jaiotza:

– Milla oillo eskaratzean,
dio bersolariak plazan,
eta amaika zezen korritu
erriko enparantzean...

Erri osoa bildu da Loiola'ko zabalgunean,
guztientzako salda ta guztientzako egaztia,
guztientzako dantza ta ttuntun txistularia.
Aztu eziñeko festa Oñaztarre aldean.

Iñigo umezurtz zazpi urte betetzean;
amaren ordez, koñata; baña
koñata ez da sekulan
ama izango.
Egun artako zauria
ez da Iñigo'ren bioitzean
bein ere sendatuko.
Eskerrak errementariñenean
baduela ama-titia.
Sukalde artan kelar artean jandako
etengabeko gaztaiñ erreak...!

Iñigo'ri aurrera doazkio urteak
badu ille-matasatxoa sudurpean,
Gaztela'tik Loiola 'ra eldu danean
eskea:

– Beltran, bidaldu eidazu semea.

Ala dio Velasco jaunak eta bere emazteak,
Iñigo 'ren amaren senitartea.

Valladolid'en Fernando Erregea geldfitu da alargun;
Frantzia'n billatu du beste bat bide-lagun.
Foix gazteluko alabea, Erregin berria Kortean.
Maite ditu jan-edanak, baita ere benetan
Jaun Velasco 'ren emaztea.

Oneri esker Iñigo'k iriki ditu Korteko atea
eta berari esker ezagutu du Erregin berria.
Carlos Lenengoa agertzean, ordea,
gauzak okertu dira Velasco'ren etxean.
Iñigo erori da langabezian.

Bi zaldi eta bosteun dukat emanez
Naparroa 'ko Erregearen Ordezkari dan
Najera 'ko Dukearengana bialdu du izekok
bere Loiola'ko illoba txikia.

Burruka sortu da bat-batean
Naparroa 'ko lurraldean:
Labrit erne bere eskubideak zaintzen
Iruña'ra dator
eta berarekin Foix'eko gudari-taldeak
Iruña menperatzera...

Iñigo'k aurpegi eman dio gogor
kañoi-bola batek
zangoa apurtu dion arte,
eta orduan, gertaera miragarria:
arri-esitik zintzilik urkatu bearko zutena,
eskuetan kontuz artu eta Loiola'ko etxera:

– Ez ninduen naparrak eraman, ez orixe,
prantsezak izan ziran, Foix 'ko aietxek.

Loiola'koa Foix'en
aspaldiko ezaguna bait zen.

Ainbat urte pasata gero
Loiola'ko etxean berriro.
Egunak luze, gauak luzeago,
neke-oñazeak eten-gabeko.

Bare-unea eldu danean eta bere onera etorri:

– Ekarki eiazute Amadis
edo Esplandian...
– Iñigo, emen ez degu eleberririk
Santuen bizitzak baizik.
– Besterik ezean, ekarri...

Burruka sortu zaio biotzean
eta egon-eziña buruan...
Etxea laga ta or dijoa errietan zear
pobrezian eta penitentzian...

x

Ibilli zan ibilli mundu zabalean
maitasuna aldarrikatzen goizetik gabera;
aita Beltran 'ek mairuekin ibillitako jokabidea
Protestanteekin bere semeak...

Il zan aizkenean
Erroma'ren biotzean
bakar-bakarrik bakardadean
Jainko maitearen ardurapean...
,* *

Historigilleak dabilta larri
Iñigo'ren jaiot-eguna asmatu eziñik.
Ez zekiten ziur irurogeita iru
ala irurogeita bost zuenik.
Iñigo 'ren kontuekin
ez zetozen batera
erriko paperak.

Jo zuten Loiola'ra alkarrekin
eta an
errementariaren etxean
ziraun bizirik
oraindik
larogeta sei urte betetako Iñigo'ren ama-titia.

– Jakingo ote du onek Iñigoren jaiot-egunaren berri?
– Nolan ez ba, jaunak, nere, alabaren eriotza
azpimarratzen bait du Iñigo 'ren jaiotzak?
Niderlenengo fruitua eriotzak eraman
Gazteluan aizkenekoa agertu zanean.
Irurogeita batean jaio bat eta obiratu bestia
orregaitikan nintzan ni aren ama-titia.

Errementariaren emazteak
baretu zitun historigilleak:

– Granada erori aurretik jaio zan
eta ez, ondorenean.

Beltran jauna Granada'tik etorri ondoren
egin ziran ospakizunak Loiola'n.
Ospakizun oiek zeuzkan Iñigo'k buruan
etxean entzundakoak
bere jaiot-eguna ospa zutenean.

Zazpi urte betetzean
joan zitzaion amatxo zerura
eta arrekin batera
bere jaiot-eguna...

Orra nudik sortu zitzaiokean
Iñigo'ri
bere jaiotzari
buruzko naastea.

ZIKINAK JANGO GAITU

Gure Erriko ibaiak izen txarra dute, or-zear, mundu zabalean. Oriako ibaiak ote Europa'ko zikiñena... Oriak, bere izenak dionez, ez zan leenago ere zuria izango. Or dezute, ordea, Urrumea ibaia, izenez ur-meedun ibaia. Nun ditu ur mee oiek? Meeak izango zan izokiz eta amorrañez beteta zegoanean; baiña, gaurko egunez Santa Katalina zubiaren azpitik pasatzen diran urak lodiak dituzu, zikiñak lodituta...

Urola k ere ura garbia izango zuan Ekain 'eko leize-marrazkiak agertzen dutenez: antxe daukazute, zaldi artean, izoki (salmon) eder-eder bat marraztuta. Gaurko egunez, ordea, Oriak baiño oriago etorri oi da tarteka.

* * *

Deba'ko angulak pamatuak ziran Bilbao'ko azoketan. Angulak, lupiñak, iskirak... Zer, ez? Ibai-azpia orlegia zan, itsasoko belarren birtutez, iskiren gordeleku. Orain, berriz, azpia du ibaiak beltza, makina-oli-goaren beltza...

Iskirarik ez da urte guztian agertzen, aleka ez-bada; angulak, sartu sartzen dira; baiña, barruan gizendu bearean melartu egiten dira, flakatu, ezer-eztu...

Deba'ko kaian bale-ontziak ugari azpaldi artan eta arrantza oparoak; gerora bi mastako goleta -"pleiteroak"; ondoren, Juanito "kiskilleroa"... Gaur, ezer ez. Ez arrantzarik, ez pleiterorik, ez "kiskillerorik". Emen ez itxasotik eta ez ibaitik, emen ez da iñor bizi.

Zikiñak jan gaitu.

Negu onetan gertatu zana esango dizut. Ona: Osintxu'tik 300 estereo piñata Deba'ko ondartzaraiño etorriak. Ori, Osintxu'tik bakarrik. Kontuak atera zer zikeri etorriko zan itsaso-ertzeraiño...

Aizeari buruz, berriz, Bilbo'ko inguruak "betikoa du fama, ondo merezia". Izena eta izana, biak ditu. Baiña, Donostia bera ere, bada zer-edo-zer. "Tacita de plata" izana ba da, gaurko egunez, aizea geldixamar dagoanean, izaten du berak ere ederra ez dan zikin-txapela gaiñean. Inguruak bialtzen diona. Egund geldo oietako batean Euskalerrira'ri jira-bira bat ematen ba diozu, ikusiko dituzu zikiñezko odeiak nun-nai.

Bilbo'ko inguru guztia alde batera utzita, Durango'n, Azpeitia'n, Zumarraga'n, Beasain'en... Ez da zirikiturik libratzen.

,

Aizea eta ura.
Biak berez garbiak. Bear-bearrezkoak.
Gurean, biak zikiñ.

Zikiña dariola agertzen zaigu Euskalerrira. Zergaitik, ote? Badirudi dirua eta diru-irabazia besterik ez degula begien aurrean izan. Begiak, dirutik beera. Aspaldiko kanta-zaarra degu au:

Txintxin, txintxin
diruaren otsa;
orrek ematen dio,
maitia,
biotzian poxa...

Dirua berez zikiña izaki eta zikiña sortzen berez bere inguruan. Aberasten ari geran neurrian joan gera zikitzen.

Azaletik bakarrik? Azalekoa ez ote da barruko zikiñaren neurri?

Atomiko-kutsadura bakar-bakarrik palta zaigu Euskalerrira'n.

Euskalerrira nereak
ezin zaitut maite;
baiña, nun biziko naiz
zugandik aparte...

Azkenik, zer gertatu baar ote du gure artean? Gorp-tz eta anima geude zikiñ. Barruko okerkeritik sortzen zaigu kanpoko zikiña. Anima uzteldu ote zaigu? Odol ixurtze, lapurretak era guztietakoak, indarkeriak, izorkeria, gezurra... gure gizartean ugari.

Beti bezela?
Sekulako aiña.
Geroz eta areago
Nora goaz?


A. ARRINDA

ZINEMA

ZINE GIOIA

ANAI ARTEKO GORROTOA: GIPUZKOA ETA NAPARROA

Anes Arrinda



JARRAIPENA

19.-Tiebasko gaztelua.

OFF/. Iruñatik ordu beteko bidean dago Tiebasko gaztelua, sorkalde aldera. Ate nagusitik sartuta eskubira ikuillua dago zaldi eta mandoentzat. Erdian zurubia gora igotzeko eta onen gibelean gudarientzako gela zabala gazteluaren neurrian. Ezkerretik sutegia dago. Iru gelak dute bakoitzak bere atea. Sutegia bearrezkoa da gaztelu, torre edo fortaleza batean eta Tiebasek ere badu berea.

20.-Sutegia egunez.

(Errementaria, larruzko aurre-mantal bat gainean duela, txingururan ari da burni guri bat maillukatzen. Sutegia aurrean. Semeno eta Borjaren erraiñuak.)

BORJA

Zertarako da sutegi bat gaztelu batean?

SEMENO

Tresnak zorroztu eta konpontzeko. Erabili az ondatu egiten dira eta amoztu ere bai. Noizik bein errepaso bat eman bear zaie.

BORJA

Au da sutegia? Lau parete ditu eta zulo bat urarekin gainean...

SEMENO

Parete oien tarteak arri-kozkorrez betetzen da ia goraiño; baiña, oiñerdi bat bezala lodian, arrien gainetik, ikatz-atsa ipintzen da. Eta, or ikusi dezun aska ori oiñ betekoa da. Ura du buzteñiken naastuta eta ur ori erratza txiki batekin suari botatzen zaio garra aunditzen danean, sua tximinitik gora joan ez dedin, guritzen ari dan burnira baizik...

(Errementariak Semenok diona egingo du)

BORJA

Aspo ori aundia da.

SEMENO

Aizea ematen dio suari eta oneri ura buzteñikin botatzen zaionean, ez da ikatza arrotzen.

BORJA

Eta, arrizko aska aundi ori zertarako da?

SEMENO

Burnia tenplatatzeko. Tresna berotuta gero, erdiotzik dagoanean, idi-adarra iortzi tresnarekin. Tresna errez txirristatzen bada, orduan ondo tenplatua dago eta ur otzertan sartu.

BORJA

Errementaria txingudian dabil lanean.

SEMENO

Txingudia egur baten gainean dago; sumilla esan oi zaio eta kana-erdi inguru lurpean sartuta dago. Ondoa daude mailua, mailu aundia, epaia, tenazak eta abar. Bazter artan daukazu egur-ikatza eta galbaia autsa kentzeko.

BORJA

Eta, arri borobil ori?

SEMENO

Ori esterea dezu, ari biguñakin egiña. Burnizko ardatz batek jasotzen du eta esku-biko ankarekin eraginda dabil. Azpian askatxo bat du urarekin. Ur ortan bustitzen da esterearen barrena bueltaka dabil, zorrozten ari dan errementari ura emateko. Baina, errementaria lan askorekin dabil eta utzi daigun pakean. Artu dezagun zurubia eta goazen mailletan gora.

(Semenoa eta Borjaren erraiñuak zurubian gora galtzen dira)

21.-Gazteluko lenengo solairuko gela aundi bat. Egunez.

(Ormak arrizkoak. Sartzeko, ate lodikote bat. Aurrean leio estu bat, aldamenetan arrizko eser-lekuekin, leiotik kanpora begira egoteko. Gela-erdian iru kana luze eta kana bete zabaleko mai bat, intxaur beltzez eser-aukiak bezala. Ormeetan gudarako tresnak: bai ezpata eta bai aizkora, bai azagai eta bai burnizko bola-zaarrak esku-leku baterri lotuak katez... Baita burnizko izkutuak burrukan norbere burua gordetzeko.)

(Gela-erdian Tiebasko Jauna; bizar zuri oparoa, begiak urdiñ, urteetan aurreratua ala gerrak ondatur... Berarekin guk ezagutzen degun Axari).

T.JAUNA

laio aiz i benetan, Axari; baiña, arazo onek ondo irtingo digula usten al duk?

AXARI

Ez bildurrik izan; gaur bertan emen izango dezu, zalantzarik gabe.

T. JAUNA

Salatariak edonun zeundek, Axari.

AXARI

Geureak ere bai eta orretxegaitik, ziur nago, gauerako ekarriko dutela.

T. JAUNA

Ez neuke besterik nai, Lazkauko jauntxoari adarra jotzeko. Semea bizirik eraman nai badu, urre ederrak eman bearuko ditu ordaiñetan. Bildur bat diat, Axari eta auxe dek: Erregearen ordezkoa etorriko ez ote dan egun auetako batean... Gudariak bear dizkik, gaztelarrekin darabilen burrukarako... Nik gudariak egoaldera bialdu eta gero, zer...?

AXARI

Lazkanokoak ez du ori jakingo. Jakinda ere, zer.? Nik ez diot arreri bildurrik bere semea nere eskuetan dagoen bitartean... llda ikusi nai ez badu, beintzat...

T. JAUNA

Ez abil ain oker, Axari.

AXARI

Oker ni ? Ez, jauna, zuzen nabil. Geu etxe-barutik gerala ez degu arren bildurrik.

T. JAUNA

Oste aundiak ekarriko balitu...?

AXARI

Zer oste eta oste-ondo. Oien bildurrik egundo ere ez! Ez aldakizu bere kobazuloan nai dedan guztietan sartzen naizela..?

T. JAUNA

Benetako axari aiz i, ordea...

AXARI

Laister izango degu emen.

T. JAUNA

Nundik nora jakiten dituk ainbeste Lazkanoko berri? Ez dek sekulan garbi ezer esaten...

AXARI

Oraintxen esan dizut gauza garbi: ba det nik an lagun zaar bat. Nere lagun dan ala nere diruena, ez dakit ori ondo. Dana dala, laguna det beintzat.

T. JAUNA

Nor da lagun maite ori..?

AXARI

Katagorri izenez. Arrera ona egiten diote Lazkanoko gazteluan. Ausardia badu eta aundi-naia ere bai... Errez dator nere esanetara.

T. JAUNA

Lagun ona eta probetxuzkoa.

AXARI

Bearrezkoa burruka onetan.

(Ixil-unea. Jauna mai-buruan eseri da. Axari, berriz, jira-ta-bira dabil batetik bestera,

gela osoa pausoz neurrituz. Keskatzu. Tar-teko leiora urbiltzen da eta kanpora begiratzen du, albiste baten zai balego bezela).

T. JAUNA

Nere kezak makur-gaitzak dituk. Burutik kendu ezin. Gogoratzen al dek nola dabilen Etxarriri su eman nairik..?

AXARI

(Beste mundutik baletor bezela)

Nor?

T. JAUNA

Lazkanokoa... Nor izango da ba besterik...?

AXARI

Ortan al zaude oraindik. Utzi egiozu pakean Lazkanokoari.

T. JAUNA

Etxarri-aranazek urteoro eman oi ziona pakean uzteko, aurten ukatu zio. Eskerrak Merinoa bertan zegoalari, bestela ematen dio su erriari... Baina, Etxarri su-labe bat biurtu arte ez omen du lorik egingo laz-kautarrak... Maldizio ori botata omen dago... Guregana joko balu, ni Erregeari gudariak bota ondoren..?

AXARI

Tira, tira... Oraintxen aspertu nauzu zure betiko lelo orrekin!

J. TIEBAS

Zer nai dek? Gauzak diranez ikusi bear eta arriskuan begiak iriki... Ori dek zuurtasuna...

AXARI

Maiz izan oi da zuurkeria bildurraren es-talki eta aitzaki.

(Morroia dator eskilleratan gora. Atetik)

MORROIA

Jauna, Erregearen ordezkoa dator.

T. JAUNA

Bildur nuena gertatu da. Gero arte.

(Jauna morroiarekin batera doa. Gelditu da Axari bakarrik; seiñale du jazkeran ez dala morroi, nagusi baizik. Batera ta bestera dabil eten-gabe. Marmarrean ari da berekasa)

AXARI

Ez dituk urteak alperrik joaten, ez! Urteekin batera dijoazkio gizonari ausardia eta odol beroa. Soiña oztu eta gogo auldu... Gero, bildurrari zuurkeri esan, eta orrela dana konpondu... Gure Jaun au ez da emendik aurrerako gazteluaren gora-beerak eramateko gauza... Orretarako adimen argi, biotz bero eta zaiñak sendo bear dira...

Gizon onek guztiak dizkik zearo galduta...
Ezurrak gogortu, adimena moteldu eta odola oztu zaiok oneri...

(Leiotik kanpora begira dago une batean)
(Batetik bestera berriro) Gaztelu onek beste buru baten bearrean aurkitzen da. Eta, nor izan liteke buru ori neroni ez ba da? Bai, garai eldu zait. Orain arte, eskeiñi bai baiña eman ez. Itxaroten aspertu naiz. Arriskutik naikoa egin det. Saria bear det orain eta bereala... Bestela, nik egin ditudan egin...? Ez, alajainkoa... Emendik aurrera ez noa iñoren sorora alorrean. Gaztelua, besterik ez det eskatzen. Eman bearco..!

(Urduri dabil gela neurtuz alde batetik bestera) Asko al da? Nik egiñak gutxi al dira..? Nere nekeak aundiak izan dira eta saria ere aundia bear zaie. Eta, egia esan, zai egoteko astirik ez det. Itxaroten egonda, asper-asper eginda nago. Garbi itz egingo diot eta erantzun garbia bear det. Emateko asmorik ez badu, esan dezala argi. Nere gariak eldu dira eta biltzeko garaia ere bai.

(Gogo beltz batek illundu dio Axariri aurpegia. Begietatik sua dariola jarri da)
Ez al zidak ostoporik bidean ipiñiko...!
Polita legoke..! Orain arte bere mandioak betetzen jardun det; emendik aurrera, beste baten mandioan nereak bilduko ditut. Nai badu eta nai ez-badu. Ez al dut ondo merezia..? Aspertu naiz besterenak egiten; egin dezatela orain besteek nereak. Bere alabaren eskua bear dut orain bertan! Ez al didate ukatuko...

OFF/. Zurubian gora Tiebasko Jaunaren alaba dator. Umetxo bat dakar eskutik. Gazte liraña. Argizari kolorea du. Eguzkiak jotzen ez duen mazustaren kolorea. Begiak urdin ditu eta ille-matasak luze eta beltz. Aitaren begiak eta amaren tximia. Azala beltzarana eta biotza sentikorra moroarteko bere amamarenaren antzera. Bere ama egoaldetik etorri zan Tiebasko gaztelura, Tudelatik ekarria. Amaren ama moroa zala zurru-murrua sortu zan Tiebasen, etxeoandre berria Tudelatik ekarri zutenean. Soiñeko luzea dakar eta gerria estua Lore, gazteluko alabeak.

(Kamarak lagunduko dio bidean)

(Axarik atakan ikusi duanean onela dio bere kolkorako:

AXARI

Arrera ona egin bearco diot eta aurpegi alaia ipiñi.

LORE

(Umetxoari begiratu bear aretan ez du Lorek Axaririk ikusi sartu dan artean).

Emen al ziñan...?

AXARI

Ementxen zure zai...Aspaldian ez nuela zurekin itz-jario gozorik egiteko aukerarik-eta...

LORE

(Berekiko)

Betikoa... Sinistuko diotelakoan...Zeren ondoren dabillen badakit...

AXARI

Itz egidazu, Lore... Zuretik darion ezti gozoa ez eidazu uka...

LORE

Aita nun da?

AXARI

(Oso goxo)

Errege-ordezkoaren billa joan da.

(Lore alde egiten asi da)

Nora zoaz? Zaude nerekin apur batean...

LORE

(Illun)

Zer nai dezu?

AXARI

(Lorek eskutik dakarren umetxoari begira)

Ezkon-opari ederra ekarri ez badizut gero nik...

LORE

(Umea aitatzean biguntzen da Lore)

Gaixoa..! On-ona da mutiltxoa... Nundik ekarri dezu..?

AXARI

Badet nik Lazkanoko Albitxu baserrian lagun bat... Arrek utzi zidan semea...

LORE

Eta, amak bere semea ekartzen utzi dizu..?!

AXARI

Ez du amarik izan bear...

LORE

Esaten nuan ba nik... Gizona izan bear bere semea etxetik kanpora bialtzeko..!

AXARI

Gurekin konfiantza duen seiñalea...

LORE

Ez txikia ere, orrelako umetxo bat iñori emateko...

AXARI

Uste oso-oso du guregan. Jostallu polita izango dezu...

LORE

Jostailua..? Ama izango nazaio. Banoa baztarrak erakustera, ia apur bat alaitzen dan.

AXARI

Negarrari ematen badio, astindu zazu..! (Lorek alde egiten du. Axari bakarrik)

Ez du nerekin eskontzeko gogo berorik...Bo...Beretzako okerrago. Nai badu eta nai ez badu, nerekin eskondu bearko du. Aspalditik eskeiñi zidaten eta berarekin batera gaztelua. Nere elburura iritxi naiz. Nere garaira eldu naiz eta ez det denbora alperrik galtzeko gogorik. Neri adarra jo..? Ez onek, ez bere aitak, ezta beste iñork ere gaztelu onetan.

(Leiotik begiratzeko du berrir)

Eginkizun aundia bete det. Orra laznakoko semea atzemanda dakarte. Nere epea bete da. Orain edo sekulan ez!

(Korrika alde egiten du zurubian beera)

(Semeno eta Borjaren erraiñuak gelaren baztar batean testigu)

22/-Etxeko atarian. Egunez.

(Semeno dakarte gudarien artean lotuta. Lerden eta kopetillun)

(Atarian axari zai)

AXARI

Ongi etorri, Semeno, zure kabi gozo onetara... Aspaldiko zorra diak. Nik zauritutako basurdea, ik jaso alajaiñfetan eta gaiñera nere bizkarretik parre eragin... Arrapatu aut, basurda-kume ori. Egizak orain parre... Arroputsa ire aurrekoak bezela. Guztiak menperatu nai Kastillarekin buru bat eginda... Beti Nafarroaren aurka... Nere oinpean bear dek... Nere txanda eldu dek... Itzik ez al dek..!

GUDARIAK

Ba, mingaiña barruan du. Bere lagunak agotik kanpora du berea. Arbola baten urkatu degu.

AXARI

Ondo egiña eta beroneri ere beste orren beste egin baziozuten, obe. Laga gu emen eta zoazte, bi ez beste guztiok, zuen gelara, deskantsua bearko dezute. (Bi gudari gelditzen dira eta besteak badoaz erdiko atetik, zurubi atzetik.)

Odolkiak ordaiñetan, Semeno. Nere eskuetan erori aiz basakatu baten antzera. Egizak orain parre..! Bildur al aiz..?

SEMENO

Askatu lokarriak eta ikusiko degu emen nor den bildurtia.

AXARI

Zorua naizela usten al dek, iri lokarriak askatzeko..?

SEMENO

Orra bildurra nork agertzen duen. Ire bildur..? Noiz..? Basoan basurdearen ondoren, Aralarko oianean, alkar jo genduan..? Zergaitik ez itzan orduan nere aurrean aiñ arro jarri..? Testigurik gabe, biok bakarrik, aurrez-aurre, zergaitik alde egin oan basurdea nere eskuetan utzita..? Nere geziaren aurrean dar-dar ikusi induten basoko pagoek..!

AXARI

Makillaldia irabazten ari aiz.

SEMENO

Egia beti mingarri. Ezagun dek ire jatorria...

(Axarik ez dio itzak amaitzen utzi. Jo du aurpegian).

Lotuta dagoanarekin gogorkeria... Zaldizaiña izan aiz i beti!

AXARI

Mingaiña moztuko diat.

SEMENO

Gizon eta zaldun baitzake, nere eskuak askatu eta ezpata eskeiñiko eidakek.

AXARI

Sare barruan arrapatu aut eta sare barruan bearko dek, katamotz orrek. Nere oinpean aut, Semeno.

SEMENO

Gezurak irten dik: ni Etxeko jaunaren menpean nauk. Ez, ire menpean.

AXARI

Biok bat gaituk.

SEMENO

Orduan, a zer bikotea..!

AXARI

Arro ator... Joango zaizkik arrokeriak emendik irtetzerako...

SEMENO

Lotuta dagoanarekin arro... Lazkano aldean ez zerazte zuek aiñ arro agertzen..!

AXARI

Egun gutxi dira an izan naizela. ! Olazagutin itzala zeifnek esan zidala usten dek lazkaular batek ez bada..? Lagun onak

zauzkat nik Lazkanon...

SEMENO

Eurak ez ditek, ba, iregan lagun onik billatu...

AXARI

Eta, nik neurekin eraman izan oi ditudan diruetan...? Oientzako ez da ate itxirik... Motelak bizkortu, itxuak argitu, errenak arindu, argalak indartu, okerrak zuzendu, zuzenak okertu... orra diruaren zenbait aalmen... Urre-gorriaren dizdira ikusi orduko, leialena ere salatzaile biurtzen dek. Orrenbeste jakingo dek ik ere.

SEMENO

Tamalez, bai.

AXARI

Diruak lillura sortzen dik barnean eta zuen artean badiat nik diruak lilluratutako bat. Zuen kabian sartzeko ausardia bear dek eta neri ez zait falta izan... Salatzailea nor dan jakin nai dek..? Emango diat gusto ori: Lazkaumendian, Aralar-bidean, bada karobia aldamenean duen baserri zabal bat...

SEMENO

Gezurretan ari aiz. Albitxukoak ez nau zekulan salduko!

AXARI

(Kantuz letanien antzera)

...okerrak zuzendu, zuzenak okertu...

SEMENO

Alperrik ari aiz.

AXARI

Leialena ere saltzaile...

SEMENO

Alperrik abil.

AXARI

Probak eta argibideak bazetiat...

SEMENO

Ez diat tutik sinisten.

AXARI

Iretzat okerrago.

(Une orretan Tiebasko Jauna agetzen da zurubian, beera datorrela. Berekin datoz Erregearen oredezkua, eta Lore).

T. JAUNA

Emen al zerazte?

AXARI

Bai. Oraintxen nengoen zuri berri emateko.

T. JAUNA

Itxaron apur batean jaun au agurtu arte. (Gazteluaren atarian bertan ipiñi dio zaldia

gudari batek. Alde egiten du Erregearen Ordezkarriak.) (Agur egiten diote)

(Semenori)

Ongi etorri gure etxera, Semeno.

(Axariri)

Lorek ikusi ditu sartzen eta albistea ematera etorri zait.

AXARI

Ez neuzun esaten...? Ara gaur bertan nola ekarri duten.

T. JAUNA

ALA DEK BAI; ALA DEK. Orain joan eta egizek Lazkanoko gora-beerak.

(Axari ikuilluko atetik sartzen da zaldia aukeraratzera. Bitartean beste guztiak gora doaz. Gero Axarik irten eta alde egingo du zaldian)

23/-Tiebas Gazteluko gela nagusia.

Egunez.

(Guztiak atetik sartzen dira)

T. JAUNA

(Gudariei)

Semeno askatu. Lazkanoko semea ez dago ondo lotuta.

(Semeno askatzen dute eta gudariak alde egiten dute. Bi geldituko dira atean kanpotik zaindari)

LORE

(Semenori begira-begira dago. Aitari mai-tekor onela diotza)

Jaten amango al diot; goserik izango daita.

T. JAUNA

Bai, Lore, emaiozu jaten.

(Lorek alde egiten du jatekoaren billa).

(Semenori) Zeure etxean zaude, Semeno.

SEMENO

Neure etxean...? Pozago ikusiko zenduteke guztiok nere burua pago batetik zintzilika.

T. JAUNA

Ori ere nere esku dago.

SEMENO

Zuk ni urkatu...? Bizarrik ez dezu...

T. JAUNA

Ez nazazula berotu... bestela gaur bertan egingo det lan ori.

SEMENO

Ondorenak gogoratu eta zatoz orduan ni urkatzera..!

T. JAUNA

Tiebasko Jauna argizarizkoa dala usten al dek..! Ire lagun Periz illa dek eta i iltzeko

arriskuan...

SEMENO

Zaunka asko egiten duen txakurrak...

T. JAUNA

Berotzen ari nauk ire arrokeriarekin... Itzak neurtu, mesedez...

(Semenok bere burua arro jasotzen du Jaunaren aurrean. Alkarizketa au Lorek etendu gelan sartzean. Gaztaia, ogia eta ardoa dakarzki eskuetan eta maiean uzten ditu).

LORE

Ara emen gosea iltzeko aiña... Beste zer-bait nai badezu..?

SEMENO

Eskerrik asko. Zure aitak eskeintzen didana baiño ohea dezu au.

(Semenok maiean eseri eta jan. Bitartean Lore berari begira.)

T. JAUNA

(Bere kolkorako)

Arroa duk Lazkanoko kasta au. Ez litekek burua makurtuko ilda ere. Barruko nere gorroto bizia asetzeko une egokia eldu zait. Urkatu ere urkatuko nuke; baña, gero euren atzaparretan eroriko bagiña... Neri aurpegi eman ume mukizu onek! Alaz ere obe izango degu onen trukean abere mordoxka bat ateratzea...

(Semenori)

Emendik alde egiteko asmorik ez artu, bizia galduko zenduke-ta.

(Alde egiten du eta ate-ondoako gudarieri ezer esaten die).

LORE

(Lore eta Semeno biak bakarrik. Semeno jaten maiean eta Lore zutik berari begira biotz-bera eta ezti)

Ona al dago?

SEMENO

Txerri goseak, ezkurra ames eta gose danarentzat, ogi gogorrik ez. Gogorraren orde, biguñia eta gaztaia ekartzen badi-zute...

LORE

Ez da ezer asko.

SEMENO

Arrazoi dezu. Ori baiña gauza oberik arkitu det nik emen...

LORE

Zer arkitu dezu?

SEMENO

Gorroto illun artean, maitasun-izpi baten argia...

(Loreri aurpegia gorritu zaio beltzara izan arren. Ixil-unea. Semenok, jan)

LORE

Geiagorik nai..?

SEMENO

Gauza bat geiago naiko neuke: zu Tie-basko alaba ez izatea.

LORE

Ene..! Ori gauza arritzekoa...

SEMENO

Ez da gauza aiñ arritzekoa... Dana dala eta dena den, gaur egin didazun arrera on au ez det sekulan aztuko.

LORE

Izan ere, Lazkano ain urrutian ez balego...

SEMENO

Sei ordu ez dira bear andik onera etortzeko...

LORE

Ez naiz orretan ari.

SEMENO

Zertan ari zera, ba..?

LORE

Gure arteko gorroto sakon eta luzeak ditut gogoan... Gorrotoa anai-artekoa izateak ematen dit min geiago oraindik.

SEMENO

Auzokoak gera eta auzokoekin egin oi da burruka...

LORE

Gure artean ez luke orrelako gorrotorik bear...

SEMENO

Auxen da arritzekoa benetan! Ez nuen bela pentsako, emen guri iñork maitekor begira zezakigunik...

LORE

Aitari esaten diot gure artean pakea egin bear dala.

SEMENO

Ori eziña da.

LORE

Ba, nik pakearen bideari jarraituko diot beti. Lortuko banu ezer..!

SEMENO

Alperrik zabilta, Lore; bizi osoan gorroto izan dana, zartzaroan nola maitatu..?

LORE

Alaz ere, bide orreri jarraituko diot asper-tzeke, gogoz nai duanentzat ez bait da eziñik.

SEMENO

Oraingo au beintzat, bai. Eta, alkarrekin

zertan ari geran zure aitak entzungo balu..?

LORE

Gure aitak badu zeregiñik Erregearen ordezkoa etorri ta gero.

SEMENO

Zertara etorri da?

LORE

Gudari billa eta, badakizu, ez dira edonorekin konformatzen; onenak nai dituzte...

SEMENO

Emen dabillen petral ori ez al du gerrara bialdu bear..?

LORE

Ori ez du egundo bere aldamenetik kentzen. Orrelako gizon azkarrik ez omen da edonoiz jaiotzen.

SEMENO

Zertarako dan.

LORE

Neronek ere orixe diot. Aspisugetarako ederra ori... Beti dabil nor nola salduko.

SEMENO

Kanpoan izan dala esan dit, Lazkanon.

LORE

Ala dio berak.

SEMENO

zertara joan danik..?

(Lore zalantzan... Baiña, itz egitea erabaki du)

LORE

Bai, esango dizut, ez bait zait bere ajolik. Zure berri jakitera joan zan Lazkanora.

SEMENO

Eta, an duen lagunak ni Olazagutin nengola esan zion.

LORE

Nik aiña badakizu. Ango baserri batera joana da, Aralar bidean. Baserriaren izena ez zait gogoratzen.

SEMENO

Izenak esango dizkizut, ia orrela gogoratzen dezun: Atxubitetxe, Abalin, Beistin, Iztueta, Albitxu...

LORE

Orixe da!

SEMENO

Albitxu baserrian izan dala ziur zaude?

LORE

Berak ala dio entzun nai duanari. Dan ala ez jakiteko bidea badezu, umetxo bat ekarri du bertatik-eta.

SEMENO

Nolakoa da ume ori? Zer seiñale ditu?

LORE

Lau urte inguru, urregorritzko illea, Joan duela izena esaten du...

SEMENO

Baliteke... Baiña, zertarako ekarri du onera?

LORE

Argibidetzat edo... Zu Olazagutin ziñan ala ez jakin arte...

(Ortan ari dirala Axari eldu da ate-ondora eta zertan ari diran entzutean izkutuan gelditzen da salatari)

SEMENO

Gure-gureak bakarrik zekiten ni Olazagutira joana nintzala, ixilletako arazora joana bait nintzan... Albitxu bada, ardi-narruz jantzitako otsoa da bertako Otxoa jauna... Nundik jakin dute bestela, ni Olazagutin nengoela..? Eta, Albitxuko semea emen, zertan..?

AXARI

(Barrura sartzen da)

Orrelakoak sinisten dituk..?! Ja, ja, jai...! Ezari txoraa izan, Albitxu oso leiale dek... Zeiñentzako dan jakinbear...

SEMENO

Ago ixilik, betiko zaldi-zain ori! Gizon baitzake, ez ukek ire lagunik salduko.

AXARI

Aren bearrik ez diat geiago.

SEMENO

Suge saltzaillea..!

AXARI

Ni ala Albitxukoa?

SEMENO

Biok.

AXARI

Mintzo ari gaur. Nik moztuko diat iri biar mingain zikin ori..!

T. JAUNA

(Zurubian gora dator gudariz inguraturik amorruren bitza ezpaiñetatik dariola. Sartzen da gelan eta Semenori amorruez begiraturik)

Aita arro baten seme arroa..! Lotu zazute!

(Berrito lotzen dizkiote eskuak sokaz)

Ori egin gizonak..! Abereak agindu eta soldaduak prestatu..?! Damutuko zaio!

AXARI

Zuri irrika eta iruzur egitea da ori, jauna,

zu tentel bat baziñake bezala...

T. JAUNA

Ni tentela..? Datorrela len-bai-len. Emen sartu orduko ire burua leiotik zintzilika ikusi dik, Semeno. Aiek biar goizean emen orduko, irea egiña izango dek. Tiebasko Jauna ez da odolagaitik ikarutzen dan emakumezkoa.

AXARI

Orretan tinko, jauna. Gogor jokatu bear degu.

LORE

Ez, aita, ez zazu orrelakorik egin! Arren, aitatxo..!

T. JAUNA

Noiztik orrela..?! Ire aitaren aurka al abillen..?! Biar bertan urkatuko diñat!

LORE

(Aitaren aurrean negarrez eta belauniko)

Ez, aitatxo..! Ez..!

T. JAUNA

Kendu nere aurretik..! Artu eta eraman zazute emendik!

(Bi guda-mutillek galtzarbetik artu eta eramaten dute kanpora. Lorek alde egin duanean, gudariei)

Ori kartzelara. Giltzapean ipiñi. Zer, ba..? Lazkanoko jaun arro orrek neri iruzur..?!
AXARI

Ziztrin batzuek bagiña bezela artu gaitu, jauna.

(Batetik bestera dabilta biak gela neurtzen beuren urratsez)

OFF/. Aurpegiko zaiñak leer bearrean dauzka Tiebas Jaunak: Amorru bizia batetik biotzetik gaiñezka eta bildur apurren bat ere bai naastean... Axarik poza begietan: beste asmo guztiak betetzen doaz banan-banan. Elburua begien aurrean dauka eskuekin ikutzeko moduan. (Atetik morroi bat izketan)

MORROIA

Jauna, orain etorri dan fraile batek berorrek in egon bear duela dio.

T. JAUNA

Zer arraie nai du fraile batek gurean..?!
MORROIA

Berorreki itzik egin gabe ez omen da emendik joango.

AXARI

(Jaunari)

Ez dauka nola-naiko ausardia fraile kas-kamotz orrek..! Neregano baletor..!

T. JAUNA

(Morroiari)

Datorrela aurrera eta orrela jakingo degu zer nai duen.

AXARI

Fraile motz oiek beti iñoren bizkarretik nola biziko... Eurak lana egingo baluteke, beti besteen ematekoari zai egon gabe... Nik ematekotan badaude..?

T. JAUNA

Zergaitik diek fraileei ainbeste gorroto..?

AXARI

Alper utsak direlako.

FRAILEA

(Morroiarekin sartu da. Kapusai luzea dakar orpoetaraiño bere txanoarekin, nekazarien antzera, soka bat gerrian eta gurutzea lepotik zintzilik)

Arratsalde on Jainkoak.

T. JAUNA

Zerk ekarri zaitu gurera?

FRAILEA

Eskean etorri naiz ingumari auetara...Zuen gazteluan sartu eta sukaldean esan didate biar goizean, albakoan, gizona urkatu bear dezutela.

AXARI

Ala da eta zuri, zer..?

FRAILEA

Olakoetan badut nik eginbear bat...

AXARI

(Asarre)

Zer eginbear, gero..!

FRAILEAK

(Apalkiro)

Gizarajo orrek, mundo onetatik joan baiño lenago, bere animaren gauzak zuzendu bearko ditu, eta nere eginbearra da berari laguntzea, eta zuena, neri lan onetan eragozpenik ez jartzea; kristau izena alperrik eraman nai ez badezute, beintzat...

AXARI

Ori geitxo eskatzea da. Limosnakin konforma zaitetz.

FRAILEA

Kristaua moroa bezela bialduko zenduke beste mundura..! Orretarako egiten dezute moroen kontra burrukan..?!
T. JAUNA

Ez, Axari, orretan ez dek arrazoi... Bere eskaria bidezkoa da; kristaua ez da moroa, ezta txakurra ere. Urkatuko badet ere, eriotz ondorengo kalterik egiteko

eskubiderik ez det.

AXARI

Nik ez nioke utziko.

T. JAUNA

Nik, bai.

(Morroiari)

Lagundu kartzelara.

OFF/. Jauna eta Axari alkarri begira, biak bakarrik. Kopetillun dago Jauna eta bere bekokiko zimurrek barru-barruko bezkak agertzen dizkigute. Axari, berriz, mutur-zorrotz.

AXARI

Jaun biotz-bera, zergaitik ez dezu inpernura botatzen! Ori ere zeure esku dezu.

T. JAUNA

Oker asko egin ditut nere bizitzan; baiña, orrelakorik ez. Gizonaren azken ordua bat dek.

AXARI

Bigunegi ari zera jokatzeko gure etsairik txarrenarekin.

T. JAUNA

Ortik naikoa degu. Eseri gaitzen eta esan nola egin dituken ainbeste gauza, ain aguro. Abereak agindu eta ordeztatu gudariki prestatu?

(Jartzen dira maiean bata bestearen aurrean)

24/-Gaztelutik kanpo. Egunez.

off/. Goazen atzera Axariki gaztelutik irten duanean zer eginduen jakitera. Zaldian doa Lazkanoko bidean, baiña basoan sartzerakoan, ara or nun datorren Katagorri zaldia leertu bearrean. Alkartu dira biak basoaren sarreran.

KATAGORRI

Emen nator ni presaka eta Lazkanora bueltatu bear det, nere aldeegitearekin aortu baiño lenen.

AXARI

Oraintxen ninjoan zuenera, ango berri jakiteko asmoz, baiña zorionean zu etorri zera gurera. Agureari gezurra esan diot, alegia, Semenoren truke ganadu-taldea eskatu degula...

KATAGORRI

Itz bietan esango dizut gertatukoa: Semeno Tiebasko bidean dala entzun dutenean, bereala gudariki prestatzen asi dira; baita Larrea eta Berastegiko lagunei laguntza eskatu ere. Laister izango dezute

berealdiko erasoren bat. Kontuz ibilli eta besterik gabe, banoa ni etorri naizen bidetik. Agur.

AXARI

Agur, Katagorri eta esker mile. Alkar ikusi arte.

(Katagorri basoan sartzen da etorri dan lekutik.)

(Kamarak eman beza alkarte onen berri osoa.)

25/-Gazteluko gela berriro.

(Tiebasko Jauna eta Axari ebagi degun alkarrizketan)

AXARI

Semeno nun zan jakinda gero, esan nizun bezela morroi bat utzi nuen Katagorriren etxean, andik bi egunera Semenoren truke abere-taldea eskatuz...

T. JAUNA

Eta?

AXARI

Beiak agindu bai, baiña bitartean gudariki prestatu... Orregaitik etorri da Katagorri...

T. JAUNA

Benetako axaria aiz i.

AXARI

Baztarretan lagunak izatea bezelakorik ez da. Orra gauzak errez asko egin...

T. JAUNA

Orrelako bururik ez dek aspaldian beste bat jaio...

AXARI

Alaz ere... ez didazu alabarik emango..? Zer geiago nik egireterik nai dezu..?

T. JAUNA

Lore ez dek ire zale...

AXARI

Arren baiezkorik ez det nik bear; zurea nai det nik. Zure alde eginditudanak egin eta nere belarriak ez al dute sekulan zure baiezko ori entzungo..?

T. JAUNA

Loreren biotza beartzerik ez nuke nai... Ire zale ez dek bein ere agertu eta, orain gutxiago...

AXARI

Susmoa artu diot bai... Orretarako ekarri al degu urde ori..?! Eskerrak biarkoa izango duela aizkeneko eguna... Orreri eskerrak! Banoa berarekin aurrez-aurre kontua garbitzera.

T. JAUNA

Frailearekin egongo da bere lanak egiten...

AXARI

Dagoela. Lenago ere esan dizut txakur bat bezela bialduko neukela nik ori beste mundura.

26/-Goiko solairuko kartzela. Argi-nabarra.

(Burnizko ziriekin egindako atea du kartzelak. Ateondoan kartzelzaiña krisaillua aldamenan duela. Argi motela, nabarra. Atearen ziri artetik frailea ikusten da eta bere aurrean belauniko Semeno bere pekatuen aitormena egiten. Ez ditu zaindariak dagoen tokitik ikusten. Fraileak eskuak askatu diozka Semenori eta, gonak jasota, gorputzean bildurik zekarren soka luzea askatu du eta Semenoren atzetik gorde. Jaikita atera dator)

FRAILEA

Tira, gizon, iriki aidazu atea.

(Kartzelzaiñak krisaillua artu eta urbiltzen zaio)

ZAIÑA

Egin al dezute..?

FRAILEAK

Onek egin ditu bere egitekoak.

ZAIÑAK

Biar goizean urkatuko omen dute...

FRAILEA

Gizarajoa...

(Kartzelzaiña, krisaillua eskuan, atea itxizten ari dala, eldu dio fraileak atzetik, eta, belauna bizkarrean sartzen diola, etzan du lurrean aoz-gora. Semeno datorkio laguna eta bien artean lotu dute. Krisaillua erori da lurrera eta argia itzaldtu. Baztarrak illunduta. Zapi bat ipiñi diote aoa estaltzeko, ta barrura sartu dute Semenoren orde. Kartzelako atea itxi eta ateako giltza jaso dute.)

Leioa eskubitik daukagu, Semeno. Bizkor ibilli.

SEMENO

Lotu dezagun soka kartzelako ateari. Nora begira dago leio au?

FRAILEA

Mendi aldera. Ariztian ditut zaldiak.

(Fraileak bere kapuzai luzea kendu eta eskubiko leiotik beera dijoa sokatik zintzilik. Semeno zai dago noiz bere laguna lurrera iritxiko. Lurrengaiñean kartzelzai-

ña biraka dabil, loturetatik bere burua askatu nairik. Semeno urduri leiotik begira, lagunak seiñalea noiz joko... Zurubian gora argia dator eta Axari maldizioka. Axari agertzearekin batera Semeno izkutatatu da leiotik beera. Presondegiko atetik kartzelzaiña falta dala ikusirik oska asiko da:)

AXARI

Eneko! Eneko! Nun zera?

(Aurrera doa ateraiño eta barruan kartzelzaiña ikusten du lotuta) Zatoz ona biraka gorputzari eragiñaz... Orrela... Onuntzago oraindik... (Aistoarekin loturak ebagitzen dizkio eta aoko zapia kendu)

Zer da au...?!

ZAIÑA

Leiotik iges...

AXARI

Aspaldi..?

ZAIÑA

Oraintxen, zu agertu zeranean...

AXARI

Madarikatua..! Ez dik alde egingo urde orrek..! Ezta fraileak ere..!

(Axarik ez du astirik artu kartzelzaiñari ateak irikitze. Zurubian dijoa garraixika) Jauna! Jauna! Jauna!

27/-Gazteluko gela berbera. Eguna aurrera doa.

OFF/. Axari kartzelara joan dan ezkeror emen daukagu gure jaun au oso kezkatu-rik bere buruarekin eztabaidan:

T. JAUNA

Bai, zorrak ordaintzeko garaia elduko zan... Bizkorra, leiala, zintzoa, oberik eziña orain arte. Biotz errea agertzen du aldietan; baiña, bere saria irabazita dauka... Lorek ere etxearen alde zerbait egin bearko du... Axarirekin ez duela nai..? Eta, zer egingo diogu, ba..? Gogozkoak ez ditugunak ere egin bear izaten dira mundu onetan... Ateraldi gogorak ez baditu gero Lorek..! Semeno il bear degulako negar..?!

(Asarre)

Eta zergaitik gure alabak maitatu bear du gure etsaien semea..?! Zoratu egin zait. Zergaitik..? Baiña, zergaitik..? Zergaitik, ordea..!

(Bere buruari eskuekin euzten dio. Burruka larria darabil bere barnean) Kezkatu-rik nauka bere samiñez... Amarik gabe geldi-

tu zan aurtzaroan eta arrezkero neroni izan nazaio aita eta ama... Bera det nere posik aundiena...Beste seme-alaberik ez det... Neronek ere gogorra egin diot nere aurretik bota dedanean... Berotuta nengoen eta ez nekien zer egiten nuen ere... (Axari sartzen da jaunaka)

Zer dek?

AXARI

Madarikatu alenak! Infernuak eramango al ditu aurretik fraile guztiak bizi-bizirik! Gudariak azkar..! Zaldiak prantatu bear dira..!

T. JAUNA

Baina; zer dek..?

AXARI

Iges egin dutela biak!

T. JAUNA

Ara, or dator kartzelzaiña. Berak argituko dizu nola izan dan. Ni banoa aien ondoren. Ez dute, ez alde egingo.

(Axari badoa arin-aranga eskeilleretan beera gudari birekin, zaldien billa)

T. JAUNA

(Aurrean bildurturik dagoen kartzelzaiñari)

Zer gertatu da?

ZAIÑA

Iges egin dutela biak...

T. JAUNA

Orrenbeste banekien nik ere...

ZAIÑA

Presoa aitortu ondoren, fraileak irten du barrutik eta atea itxitera ninjoala, atzetik eldu dit eta bien artean lotu naute...

T. JAUNA

Zergaitik ez dek garraxirik egin..?

ZAIÑA

Aoa estaltzen zidan eskuarekin; nik ortzaka ere ekin diot atzaparretan, baiña alperrikakoa izan da, ez du bere eskurik nere aotik kendu lotu nauten artean... Gero leiotik iges egin dute...

T. JAUNA

(Kartzelzaiñari)

Zoaz etorri zeran bidetik.

(Bere kolkorako)

Ederra egin diagu... Lore dala eta ezdala, ia xamurtu zitzaidan biotza... Oraingoan biak urkatu dizkiat, frailea eta Semeno.

Tiebasko

28/-Gaztelu-ataritik mendira. Arratsaldez.

OFF/. Axarik dozenerdi bat gudari bildu ditu, zaldizkoak eta badoaz gaztelutik igez egin dutenen ondoren...

(Gaztelutik basoan sartu arte) (Euren aurretik Frailea eta Semeno ikusi...)

29/-Lazkanoko gaztelua. Epai-gela. Egunsentian

OFF/. Garzi Lupiz, Lazkanoko Jauna, goiz jeikita dabil, Semenoren berrien zai. Leiotik begiratzan du tarteka. Urduri dago. Gudari taldea erne dago gazteluan Ataungo bideari begira. Bi zaldun datoz eta goiko almenatik abixoa entzuten da:

Badatoz! Badatoz!

Gaztelu osoa esnatu da. Jeitxi da Garzi Lupiz atarira morroi, neskame eta gudariek. Emen dira zaldunok. Zalditik jeitxi diranean aitak semea besarkadutzen du.

30/-Gaztelu-atarian. Eguna argitzen.

GARZI (L. Jauna)

Ongi etorriak Semeno eta Garziaitz. Epaimaia antolatu berriro. Epailleak bildu eta ekarri Otxoa ere.

(Auek denak morroieri dietza. Gero Semenori)

Onik zatoz? Bizirik, beintzat. Nola tratatu zaituzte Tiebasen?

SEMENO

Gaizki eta ondo.

GARZI

Nola? Nola? Gaizki, bai; baiña, ondo zeiniek an?

SEMENO

Alabak. Badu bat, ille gorri eta azal beltzarana...Aretzek ondo.

GARZI

Arritzekoa da kabi aretan maitasun lorenik emetzea...

SEMENO

Ba, alaxe gertatu da, aita.

OFF/. Badoaz guztiak gelara, goiko solairura. Bitartean dena da Semeno agurtzea... eta bizkarrekoak ematea. Maiekoak beuren tokiak artu dituzte.

31/-Gelan.

GARZI

(Gudariei)

Ekarri Otxoa.

(Badakarte bi gudarien erdian) (Maiaren

ertz batean Garzaiatz eta Semeno lekuko bezela) (Bieri esaten die)

Ona emen salataria ote dana. Zuek Tiebastik berririk ekarri dezute?

SEMENO

Gaztelu artako ordezkariak esan zidan Albitxukoa zala salataria; baiña, nik ez nion geiegirik zinistu, asieran beintzat; gero, ordea, an ikusi nuen onen semetxo bat. Bertako alabak erakutsi zidan.

GARZI

Bai, aitortu du semea lapurtu ziotela gau batean, zu arrapatu baiña bi egun aurretik.

SEMENO

Nik ez dakit egia zer izango dan. Albitxukoa zala salataria, ori bai esan zidaten eta onen semetxoan dala, ori ere egia da.

GARZI

Emen baditugu beste bi gauza susmoa sortzekoak: diru-poltxa eta Tiebasko ezpata bat.

SEMENO

Tiebasko ezpata badezute, egia da ango ordezkaria Albixu baserrian izan dala berak aitortu bezela.

GARZI

(Garzaiatzeri) Ik badek ezer esateko.

(Oitura bada euskaldunen artean senitarte-koak zuka itz egitea, emen aitak semari egiten dion bezela) (Garzik Semenori, alegia).

GARZIAITZ

Ni lenengo Tiebasko gazteluan sukaldera sartu nintzan, limosna eskean eta an berriketan ari giñala umetxo bat ikusi nuen eta Lazkanokoa zala esan zidaten. Ia zetarako zeukaten an, galdetu nien? Nagusia engañatu ez zezaten...

OTXOA

(Semenori) (Triste eta zearo joata)

Nik ez zaitut salatu, Semeno, iñundik ere ez.

GARZI

Ik salatu ez badek, nork salatu dik..?

OTXOA

Nik orixe ez dakit; baiña, ni ez naiz izan...

GARZI

Susmo osoak iregan dituk. Emen ez dago besterik.

(Maikoeri)

Proba geiago bear al dituzute..?

MAIKOEK

Ez, jauna.

GARZI

Biar gorpu izango aiz Tiebasko pagadian. Nere eskutik urkatuko aut, jakin dezaten jakin, Lazkanoko Jauna nor dan. Ondo esan al det'?

MAIKOEK

Bai.

EZKER-ALDEKO JUEZAK

Il bedi Otxoa traidorea!

DENAK

Il bedi!

(Otxoa daramate bultzaka gudariak, aurregia malkoz, lear eginda...)

OFF/.Lazkanoko Jaunaren asarrea ez da baretu, bere semea bizirako lortzeagaitik. Semeno urkatzeko asmoa bazeukaten eta orixe ez dio Tiebasko agureari barkatuko sekulan. Ez orixe. Bere semeari lepotik elduta, badoa gorrotoa asetzera. Marmarrak bakatu dira eta Katagorri gel-ditzen da bakarrik.

KATAGORRI

(Beazunezko irriparra ezpaifetan)

Bete diat nere gogoa eta biar goizean urkatuko dute... Biar goizean... gaur bertan izan balitz obe!

(Ixil-unea)

Ni orrela arrapatu banindute..!? Baiña, nik burua argi. Eta, gureak Tiebasko gaztelua burukatu eta ni naizela jakingo balute..? (Ezpaifetako irriparra izoztu zaio)

Aitzakiren bat ipiñita, alde egin bearko det nik emendik...Ni izan naizela jakiten badute, ez nator geiago; bestela, berriz, emen izango nauzute berriro... Agur Otxoa, emendik aurrera ez diat ire itxalik eraman bearko... Putreak ire aragiak janda, ezurak zuritzen diranean, orduan joango nauk Tiebasko pagadira iri agur egitera... (Alde egiten du gelatik)

MORROI 1

(Gela txukuntzera bi morroi datoz, asiera-koak)Esaten nian nik, ez dagoela iñorekin fiatzerik. Otxoa oker bidetik zebillega esan zidan aurrez Katagorrik.

MORROI 2

Berarekin ere ez zegok geigi fiatzerik. Orrek bi arpegikera zeuzkak.

MORROI 1

Nik ez diot bat besterik ikusten.

MORROI 2

Or uzten dizkik Otxoak umeak azitzeko. Ume erugabeak. Ez zaidak buruan sartzen aita erudun danik. Ain ona eta jatorra oan..! Ain zintzoa..!

MORROI 1

Ona, zintzoa eta jatorra..! Arrane-arranea..! Oren zintzotasunak noraiñokoak diren ikusita zeok. Juan-Zuri, besterik ez.

MORROI 2

Emengo benetako Juan-Zuri Katagorri dek...

MORROI 1

Irudipenak...

(Adar-otsa aidean)

Gure Jaunaren asarrea baterenbategi ordainduko du. Tiebaskoak astinduko ditu...

MORROI 2

Tiebas urruti-xamar dago eta bien bitartean ez zaizkio etsaiak faltako...

MORROI 1

Tiebasen ezer egiten ez badute, Onako torrea erreko omen dute Burundako sakonean...

MORROI 2

Burundako baillaran ganadurik ez da faltako bei eta zaldi...

32/-Lazkanoko gaztelu aurrean. Illar-gibete.

OFF/. Adar-otsa berriro Lazkanoko inguruetan. Gudariak datoz alde guztietatik oñezko eta zaldizko. Illunabarrarekin batera bildu dira osteak gaztelu-fortalezara. Orts-garbi eta illargi-bete. Kantu zaarrak diona:

“Argizadi ederra
argi egidazu
Naparroko bidean
ioan bearra nauzu...”

Semeno eta Borjaren erraiñuak alkarizketan baztar batean osteak nola doazen begira. Joanik dira eta geroak zer ekarriko duen, jakiteko gaude. Gauza onik ez: sotiña eta negarra, odol-ixurtze eta eriotz-neke mingarriak. Anai-arteko burruka. Senide-arteko eriotz. Iñoiz eta gaur. Beti berdin euskaldunen historian zear...

33/-“Cámara de Comptos”. Iruñea. Gaez.

SEMENO

(Semeno eta Borja alkarizketan) (Liburutegi zaarra) (Semenok eskuetan liburu incunabile bat du)

Tiebasko gaztelurik ez genduan menperatu, baiña bai galera ederrak egin Burunda eta Aranaz balleretan...Eriotzak egin eta ganadu ugariak arrapatu. Orrenbestez nere aita Garzi baretu zan, baiña napparek ez ziren bat-ere baretu.

BORJA

Eta, zer egin zuten?

SEMENO

Zuek egin dezutena: gure aurka etorri. Ona ser dion liburu zaar onek: irakurri zak.

BORJA

Onela asten da: “Compto de Johan Garsia de Reta, Merino de Pamplona, Johan Iñiguiz de Urssua Notario de la Curia, y Sancho de Licaracu sirviente de armas, diputados por el Señor Rey a Ipuzcoa contra los de Lazcano...”

SEMENO

Iru zaldun oiek, gudari oste aundi baten buruzagiak, bialdu zituan Erregeak Ipuzkoara lazkanotarren aurka...

BORJA

Bai, emen dakartzki xeetasun guztiak: Milla eta larogeita amasei gudari oñezkoak, ogeita amazapi zaldunak bakoitza bere oñezko lagunarekin... Burnizko zoiñekoak gudariantzat eta fortalezaren ormak apurtzeko, “ingenios de batir”, aariak, alegia.

SEMENO

Segurako errian ipiñi zuten euren kuartel jenerala: Alsasutik Zegamara eta emendik Segurara. Zuek ere berdin jokatu dezute: zuek Ataundik eta beste osteak andik sartu dira Beasainera eta Olaberriatik Lazkanora... Burruka azaroan asi zan, 22an, urtea 1330... Tiebastik etorri eta urtea baiño lenago...

BORJA

1331an Garssia de Aguirre bialdu zuten Panplonara Gobemadoreari albiste au ematera: “quod navari expugnauerant fortalezan de Lazcano”: napparek, alegia, Lazkanoko fortaleza burrukatu zutela...

SEMENO

Orra gure etxearen ondamendia, ire lagun napparek egiña. Baiña, gu mendean ego-

teko ez gaituk jαιο. Andik lau urteetara, 1335an, zer egin genduen badakik..?

BORJA

Ez dakit ezertxo ere.

SEMENO

Nere anai Lope-Garzi, Lazkanoko Jaun berria, izendatu zuten Gipuzkoako Kapitán Jeneral, Kastillako Errege Alfonso XI garrenaren mendean...

BORJA

Bai, ori badakit. Garibay historiazaleak esaten du ori.

SEMENO

Nere anaiak, Kastillaren laguntzarekin, gipuzkoarrak bota zitun Naparroan zear, i orain Gipuzkoara etorri aizen antzera. Zenbait inguru zanpatu ondoren, Pamplo-nako Merindadea erre eta kiskaldu genduan. Ansa gaztelua menperatu eta izugarrizko aberastasunekin, etxera berriro... Orduko zaurietatik il nintzan eta arrezkeroko berriak ez dakit, i gure artera etorri aizela besterik.

(Ke-artean desagertzen dira)

34/-Lazkanoko Beneditarren aldara. Lañoartean.

(Semeno eta Borja) (Aldaran Iñigo Loiolako Amadisen antzera jantzita)

BORJA

Semeno, asarre bizian ekin diak naparrekin etorri naizelako; baiña, ez dek artarako arrazoirik.

SEMENO

Ezetz? Ez al diat naiko garbi erakutsi gure kondaira osoan naparrekin etsai ibilli gerala..?

BORJA

Zuek, ordea, Kastillan aldekoak ziñezten.

IÑIGO

(Aldaretik paje-jantziekin)

Ori, ori! Semenok arrazoi!

(Laiño-artean bakoitza bere kutxara eta Iñigo sotanarekin)

35/-Lazkano. Beneditarren biblioteka. Gaueko amarrak.

IDAZLEA

(Lo zegoen idazlea esnatzen da. Poltxikoko erlojuari begiraten dio) Amarrak! Ez det lo gutxi egin... Oraintxen izango dagerraren berri ematea.

(An inguruan dagoen radioari eragiten dio)

RADIOA

Radio Nacional de España. Camino de la victoria. Parte de guerra:

El día de hoy aviones rojos procedentes del mar, a las órdenes de José Antonio de Aguirre, han destruido e incendiado Gernica. Nuestras tropas prosiguen su avance incontenible hacia el cinturón de Bilbao (Marcha Real emeki)

(Kamara Picassoren **Gernika** laukira) (Onen erdian agertuko da **AMAYA** itza).

Eta. NOIZ ARTE?

SEMENO

Baiña, naparren kontrakoak..!

BORJA

Ni etorri naiz Kastillaren alde, zuen odolekoa naizelako.

SEMENO

Zer dala-ta naparrekin buru-bat eginda..?

BORJA

Zuen aurka etorri naiz Kastillarekin bat egin nai ez dezutelako...

SEMENO

Baiña, zergaitik naparrekin batera gure auka..?! Orixe ez diat sekulan barkatuko!

ZORIONEKO EUTANASIA

Udazkeneko orbela lez dabil itz ori komunikabide guztietan. EUTANASIA gora eta EUTANASIA bera.

Eutanasia edo Eriotz-goza, Eriotz-ona, Miñigabeko-eriotza, Erruki-eriotza, Maitasun-eriotza... Milla izen badi-tu mintzaira oroetan.

* * *

Baiña, zer da eta zer ez da zorioneko Eutanasia ori? Eutanasia esan dogu, edo Eriotz-ona... Gure arteko berba zaarra dogu Eriotz-ona izena: Jainkoaren maitasunean eta bere laguntzan izandako eriotza izan oi da Eriotz-ona.

"Ona" itzaren esanaia, ordea, zabaldu egin da. Gaur egun zera esan nai dau, gizakien maillan eta gizakien erara ilteko eskubidea eta ez etxetik kanpora botatako txakurraren maillan...

Trankil iltea, lagunartean iltea, maitasunez inguraturik iltea... Ez bakarrik oraingo tresnekin luzatzen dan eriotza penagarritik iges egitea; baita be eriotz-leku penagarriak diran gaixo-etxe aundietatik aide egiteko eskubidea...

* * *

Ospitalak eriotz-leku, matadero baltz biurtu jakuz. Errugabeko matadero otza. Matadero oneitatik libra gagi-zuz, Jauna!

Egungo arazo au korapillo latza biurtu da, "Tanatologia" deritzan zientzia barria sortu-araziz...

* * *

Eutanasia izenak gaixoarekin dau zer-ikusia, maitasun eta errukiaren ikuspegitik. Baiña ez edozelako gaxotasunarekin, itxaropenik gabeko gaixotasunarekin baiño... eta era orretan dagozan gizakumeekin erabilten diran bideak begien aurrean eukita.

EZIÑEZKO EUTANASIA

Gure Sinismenak onartzen ez dauan eutanasia auxe izango litzake: miñetan dagoalako, gaixoa iltea, ekintza baten bidez. Esate baterako morfina geiegi emonda, eriotza dakarren iniezioa sartuz; zezenari "puntilla" emoten jakon antzera. Au izango litzake gaixoa zuzenean iltea.

Zearretako bidea, barriz auxe: bear diran eta normalak diran sendabideak ukatzea gaixoari. Esate baterako: janik edo edanik ez emotea, suerorik ez ipintzea, odol-trafusioak edo dialisisak ez egitea, insularik ez emotea eta abar. Emen ere gaixoa iltea izango litzake gure barruko asmoa, eta ori zuzen-zuzenean; naiz-eta

bideak zearkakoak izan. Oneik ezaren bideak dituzu, ezezkoak, baiña, gure gogoz baiezkoak dira, ezezko bide orreitatik eriotzaren billa bai gabiltza.

* * *

Kristau ikuspegia garbi agertzen da arazo onetan eta zalantza barik:

"Iñork ez dau eskubiderik beste gizaki errugabekoari bizia kentzeko (naiz aur-galdu, naiz ume, naiz adiñeko, naiz zaar, naiz gaixo sendatu-eziña, naiz agonian dagoana). Iñork ezin leike ori bere buruarentzat eskatu, ezta beste iñorentzat ere... Ezta eragin edo egiten laga aginpidea daukonak..." (Acta Apostolicae Sedis-72 (1980) 542-552.

* * *

J. Pablok be bardin-bardin irakasten dau (85-X-21'an) onelan esanez:

"Eutanasia krimen utsa da eta orretan laguntzea edo norberak bere buruarentzat eskatzea, baimena emanez, eziña da, norbere erantzunkizunaren aldetik..."

ALDANEZKO EUTANASIA

Gaixoaren neke-miñak arintzea, naiz-eta onelan biziaren luzaera murriztuko dala ikusi, ori bai okerrik gabeko eutanasia izango da.

Eriotza era egokiz eroan aal izateko, gaixoak laguntza bear dau.

Laguntza orrean artekoa da, neke-miñak arintzeko diran sendagaiak erabiltea... Orixe da gizakumeari gizakieran ilten laguntzea. Au be sendagille eta jakintsuen eginbearra da eta moral aldetik eragozpenik gabea. Miñak arintzeko lo-bedarrak eta abar erabilteak biziaren luza-roa moztu leike; baiña, baldintza ori jaso bearrezkoa da, gaixoari bere larritasunean laguntzeko...

* * *

Beraz, ori egitea ez da benetako eutanasia eta izen barria ere asmatu jako eta auxe da: Ortotanasia. Kristauari pakean ilten laguntzea da ortotanasia. Izena aldatu bear zan, guztiak Eutanasiaren izenpean orain arte begiratu izan badira be. Miñak ezin eroanak diranean, morfina emotea edo ezertako ez diran tubo ugariak gorputzeko zuloetatik kentzea (ezertako ez diranean penaz bizia apur bat luzatzeko baino), orreik ez dira Juan Pablo bigarrenak "krimen" eta erailtza bat lez jotzen dauzanak, konzientziz libre bait da oneik egitea...

Eutanasia barri onek zera eskatzen dau, normalean edozein gaixori emoten jakozan laguntzekin il dedilla

kristaua bere orduan eta bere garaian, antigualeko eran, alperrik penatzen euki barik orain erabiltzen diran medio eta bide izugarriekin...

* * *

Auxe da, izan be, Elizaren benetako irakatsia, bai Pio XII'arena eta baita Fede-dotriñako Kongregazioarena be (1980).

Juan Pablo Bigarrenak erakutsi orreik argitu egin ebazan bost urte beranduago, onelan esanez:

"Bakoitxak badau bere burua sendatzeko eta senda erazteko eskubidea. Baiña, zillegi da, baita be, sendakuntzak berekin dituan bide normalak erabiltea eta orreikaz konforme izatea, bide gaitz eta arriskutsuak artu

barik. Bide eta medio oneik iztea ez da norbere burua erailteza. Orrek auxe esan nai dau: gure izakiaren era arrunta eta normala onartzea, bide zaillegiak eta frutuekin konparaziorik ez dabenak (medio aundiak eta frutu eskasa) ez artzea senitartekoeri eta gizarteari karga geiegi ez leporatzeagaitik, edo artutakoak lagatzea, zillegi data eta libre... baiña, medio eta bide arrunta eta normaletatik ibilliaz, oneik baztatu barik..."

* * *

Arazo au obeto aztertu nai dauenak begiratu begi Gazteizko Seminarioko LUMEN aldizkaria (Vol. XXXVI. Mayo-agosto 1987. Nos. 3-4. Pigs. 265-290).

ANES ARRINDA

GARI-ALEA

Eskean nenbillen
kalerik-kale
errixka nerean...

Bat-batean,
zure zalgurdia
urrez eiotia
dizdiraz aurrez-aurre
bide-muturrean.

Errege guztien
Erregea
badator niregana,
neurri gabeko zoriona
nerea;
amaitu zait
aurrerantzeko nekea,
eskale trebea.

Badator.
Ene poza!
Zalgurditik jetxi da,
aurrez-aurre daukat.

Nere zoriona...
Aseko dizkit barrengo goseak,
barrengo nereak,
sakelean,
biotzean,
une batean,
aundia bait da
nere bearkizunaren zuloa,
luzea,
illuna,
argi gabeko osiña...

Beregana eskua luzatzean
bere begiak
neregana maitekor eskean...
Zorabioa sortu zait barnean,
irauli zait biotza.
Iriki dut sakela
eta, nere pobrezian,
eman dizut alea,
gari-aletxo bakarra
ez bait duzu besterik bear.

Zurrunbilloa,
aize-bolara,
zaldien irrintzia...
Gurdia
badoa bere bidean aurrera.
Egunsentiaren aize epela
nere biotz-gunearan
gorde-lekuan...
Etxera bildu naizenean
sakela ustu dut mai-gaiñean;
gari-aleen artean
urrezko dizdira
ale bakar batean...

Goien-goieneko
eskalea,
zergaitik ez ote dizut eman
gari-alearen ordez
biotza nerea...!

(R. TAGORE) ANES

ZOZOMIKOTEAK

Euskalerrietan Martzoa ill gogorra izan oi da; baiña, kalte aundirik egiteko Apirillaren laguntza bear.

Arazo oneri buruzko esaerak badaude gure zaarren artean, Zozomikoteak, alegia. Martzo zezen gorri batekin oso asarre omen zebillen. Zergaitik asarratu zan? Orixe bai ez dakigula zergaitik. Dana dala, Martzo jaunak, asarrearen-asarrez, zezena akabatzea erabaki zun.

Eta zer jokabide artu zuan Martzok orretarako? Mendi-zelaiak elurrez ito. Ez zan bela-izpirik ere ikusten iñun. Goseak ilko zuan zezena.

Baiña, beti izaten da baiñaren bat, zezenak arte zabal baten azpian gorde zuan bere burua, eta arte-azpiko belarrakin eutsi zion biziari, ezta ta larri, bizirik beintzat, Martzoa amaitu zan arte.

Zezena esku-artetik iges egiten ziola ikusirik, Martzok bi egun t'erdia eskatu zizkion Apirillari zezena akabatu arte...

Egun oiek dituzu Zozomikoteak.

Goierrri aldean beste era batera esan oi dute eta onela da:

Martzo artzai batekin zebillen asarre. Artzaiak eun ardi eta aari bat omen zitun. Bera, berriz, begi-bakarra zan:

Martzoa eta Apirilla alkarrekin ziarduten izketan. Apirillak esan:

A Martxo, Martxo...!
Diat ezker gaizto...

Eta Martzok erantzun:

A Apiltxo, Apiltxo...!
Ekatzak egun bi
ta erditxo,
artzai orri
kendu ioatzen
eun ardi ta arie
eta beari
eskerreko begie...

Eman ziozkan egunok eta orduan Martzoak izugarriko ekaitzak eta ujolak sortu-arazin zituan. Ur oiek eun ardiak aurretik eraman omen zituan leize-zulo batera. Artzaiak aaria lepoan artu ta bazeramakian uretik aparte. Baiña, aariak aldamonera begiratzean, sartu dio adarra artzaiari begi bakar artan...

Gelditu zan artzaia begi gabe.

Zozomikoteak eguraldi txarra dakartela berekin, esan oi da arrezkero.

ANES

IRAKURLEAI OARRA

ZER aldizkariak eta EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k ba-dauke Bilbao inguruan urteko arpidetza eskuratze-ko erea. Etixerik etxe joaten da kobratzaillea. Baiña gauzea ez da ain erreza errietan. Orregaitik eskari au egiten dau-tzuegu: Bialdu eiguzue txartel edo txeke bat. EUSKERAZALEAK ALKARTEAren izena ipiñi ta 1.500 pezeta di-rala idatzita. Txartel ori sartu karta-azal baten eta gaiñean zuzenbidea ipiñi: EUSKERAZALEAK ALKARTEA.

Colon de Larreategi, 14, 2º, eskoia. 48001 BILBAO.

B IZKAITARRAI BIZKAIERAZ



Eusko Jaurlaritzaren

Laguntzaz.

Kultura Saila